

Egungo Euskararen Hiztegia



[bertsioa: 2024-01-09]

auheneka ik **auhenka**.

Ha (orobat **ha**) hektarearen sinboloa.

Hazparnek badu 7.750 **Ha** eremu eta huntarik %55 nahi lukete beiratu laborantzako lur bezala. **Herria**
Hazparneko eremuetan 2000 **Ha** dira jadanik lurberriak direnak eta Herriarenak direnak. **Herria**
7 **Ha** lurren gainean eginak dira kontzertuak, aparka tokiak eta lo egiteko oihal etxe gunek. **Herria**
Prefektoratik eza ukan du herriak erosi nahi zituen 2 **ha** lur horientzat. **Herria**

haatik 1 *junt* halere, hala eta guztiz.

Ez zuen **haatik** izutzeko arrazoirik. **Jon Muñoz**
-Guztiok gara, **haatik**, Jainkoaren semeak. **Joan Mari Irigoien**
-Koadro batean, **haatik**, koloreak dik azken hitza, eta hitz hori fauna eta hutsala gertatu izan zaidak orainokoa. **Joan Mari Irigoien**
Berriz galde bera egiten dizut **haatik**: G ala E? **Janbattitt Dirassar**
Orain, nik hau erran edo hura erran, pentsatzen ahal duzu **haatik** bide txar beretik segitzen dudala, lehengo gezurraren gainerat beste gezur zerbait metatuz. **Janbattitt Dirassar**
Mihia irentsi genuen **haatik**, fraideen zafradek aspaldian ziguten irakatsi hobe dela sobera errazak diruditen galderei erantzun gabe. **Koldo Izagirre**
Nahiz gisa horretako aferak jendeek bihozberatasunez hartzen dituzten, legeari **haatik** errespetua zor zaio beti. **Jon Muñoz**
Honako hau zoragarria da; nik asmatua da: ez du deus ikustera uzten, eta oro du **haatik** igerrarazten. **Jon Muñoz**
Segur, nihauren biziak behar nuela **haatik** axola, ez baitezpada burasoek gustukoena ukane zuten bidetik ibiliz. **Janbattitt Dirassar**
Alta berak, haurra zenean, "to" entzuten zuen aitaren gandik, **haatik** "xu" amaren ahotik... eta bihotzetik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Turinen arbuaiatuak edo gaizki hartuak, Piamontearen hegoaldeko zenbait landa-herritan aurkitu zuten bizilekua, eta sedaren teknologia ezarri bertan; sekula gainditu gabe, **haatik**, ezta urterik loretsuenetan ere, gutxiengo guztiz urriaren izaria. **Juan Garzia**
Jeneralean, **haatik**, familia pobreak bere sustrai euskaldunak ahaztu ez zituztenek, ezin izaten zuten soluzio guztiz perfektu eta idealetan errazegi sinetsi. **Joxe Azurmendi**
Jung-en hitz horiek, **haatik**, ez dira Adelarentzat, ezen hura ez zihoan forma hutsen atzetik, hura ez zihoan bere burutik ihesi. **Juan Kruz Igerabide**
Harrezkero, zola bikoitza erabiltzen dut eskuineko oinetakoan, eta garbi antzematen zait herrera; horrek, **haatik**, ez dit lasterka ibiltzea eragozten, ez halaber jauzi egitea, nahiz eta modu bitxi samarrea egiten ditudan biak. **Juan Kruz Igerabide**
Aduaren arabera, nahi gabeko eragin gutxi ditu, eta, **haatik**, asko hobetzen du gaixoen portaera: «Alor guztietan, ez soilik eskolan, baita eguneroko bizitzan eta kiroletan ere». **Berría - Gaikiak**
Orain perilaz ohartua baitzara, ez dut dudarik egiten aise begiratuko zarela peril horretarik: baina **haatik** gaztigua behar zitzaizun egin. **Jon Muñoz**
Erran berri dizudan horretaz ez **haatik** hein handi bateraino kezkatu gero. **Jon Muñoz**
Olerki batean idatzi zuen moduan, "aberria maite dezadan agintzen didate; **haatik**, aberria zati bi eginda dagoelarik, esadazue, zein da maite behar dudan aberri zatia? **Edorta Jimenez**
Guztiendako baimenik ez, **haatik**. **Aingeru Epaltza**
Haatik, odolarekin batera iraultza etorri zen. **Edorta Jimenez**
Hoberat egin beharrean, are gaitzagoratz egin zuen, **haatik**! **Joan Mari Irigoien**

2 bai.

Herri gehienetan, ez baitzen **haatik** Nafarroako gobernuia lo, ezarri zuten, bidean trebes, gatina edo kate bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Marka da, **haatik**, bazkari guztia lantokiak, bezeroez eta hurrengo komenioaz aritzea ere. **Aingeru Epaltza**
Errepideaz asetzen hasia naiz **haatik** eta Ortsek urrun dirudi. **Piarres Aintziart**
Xingar zati honek merezi bailuke **haatik** arno xorta bat, apur bat bero nadin bederen lanbro honen erdian. **Piarres Aintziart**
Hortik hurbil, latinezko idazki bat, hau, **haatik**, ez Erromanoen denborakoa! **Michel Oronoz**
Martiarena ere holaxet eman da jokoan berehala: 2-etan berdin, eta 6-etan, 10-etan, 11-etan... bazituzten zazpi berdintze eginak 20 etan, hau azkena **haatik**, orduan baita Larrechea 27 tara joan lau bote ere sartuz lerro hortan. **Herria**
Taldeka jokatu direlarik orduan bereganatu du jauntzi horia igandean galdu duena **haatik**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aldi huntan **haatik** (10); arabera **haatik** (8); atxikiz **haatik** (7); aurten **haatik** (12); ba **haatik** (17); bada **haatik** (16); badira **haatik** (21); badu **haatik** (14); badute **haatik** (9); bai **haatik** (38); balina ez **haatik** (10); baina ez **haatik** (14); baita **haatik** (13); bat **haatik** (14); behar da **haatik** (28); behar **haatik** (11); berean **haatik** (10); da **haatik** (249); dauka **haatik** (8); denak **haatik** (7); dio **haatik** (14); diote **haatik** (25); dira **haatik** (70); dira **haatik** denak (11); ditu **haatik** (20); dituzte **haatik** (14); du **haatik** (107); du iduri **haatik** (9); dugu **haatik** (16); dut **haatik** (16); dute **haatik** (56); ere bai **haatik** (7); ere **haatik** (29); erran **haatik** (11); erranez **haatik** (10); eta **haatik** (18); ez baita **haatik** (8); ez da **haatik** (94); ez dira **haatik** (35); ez du **haatik** (40); ez dugu **haatik** (24); ez dute **haatik** (24); ez **haatik** (118); ez zen **haatik** (11); gabe **haatik** (38); gehiago **haatik** (7); gehienak **haatik** (7); gero **haatik** (18); geroztik **haatik** (8)

haatik ainiz (7); **haatik** aise (7); **haatik** alde (7); **haatik** arras (12); **haatik** azken (12); **haatik** bainan (13); **haatik** batere (11); **haatik** behar (7); **haatik** berak (7); **haatik** bere (31); **haatik** beren (13); **haatik** beste (20); **haatik** beti (13); **haatik** bi (19); **haatik** biziki (10); **haatik** denak (18); **haatik** denak ados (7); **haatik** denek (9); **haatik** deus (8); **haatik** erran (8); **haatik** eta (39); **haatik** euskal (16); **haatik** ez (141); **haatik** ez da (14); **haatik** ez dela (9); **haatik** ez dira (7); **haatik** ez du (12); **haatik** ez dute (7); **haatik** gauza (8); **haatik** gauzak (11); **haatik** gero (12); **haatik** gure (7); **haatik** hain (15); **haatik** hau (8); **haatik** hemen (8); **haatik** holako (10); **haatik** hor (13); **haatik** hori (15); **haatik** lehen (10); **haatik** nahi (10); **haatik** nola (7); **haatik** oraino (14); **haatik** zer (11)

hau **haatik** (22); **hemen** **haatik** (8); **hor** **haatik** (16); **hori** **haatik** (17); **huntan** **haatik** (23); **iduri** **haatik** (12); **izan da** **haatik** (10); **luke** **haatik** (12); **naiz** **haatik** (11); **nintzen** **haatik** (8); **nuen** **haatik** (12); **omen da** **haatik** (9); **salbu** **haatik** (7); **zen** **haatik** (36); **ziren** **haatik** (20); **zuen** **haatik** (22); **zuten** **haatik** (9)

habaila¹ iz eskuz birarazten den larruzko uhala, arma gisa harriak jaurtitzeko erabiltzen dena.

Habaila berri bat hartuta sorora joan nintzen, parrokiako zuhaitzetako antxetei eta arrokei harrika egitera. **Koro Navarro**

Askatu zituzten beren **habailak** eta han hasi zitzaizkien belarri ondoan ziztuka ukabila adinako harri kozkorak. **Patxi Ezkiaga**

Eskua zorroan sartu, harri bat atera, **habailaz** jaurti, eta bekokian jo zuen filistearra. **Jose Antonio Mujika**
Orduan **habailarekin** harri bat jaurti zion. **Martin Anso**
Urrutira jaurtitzen dut, **habaila** batez harria bezala. **Josu Zabaleta**
Zure etsaien bihazi, aldiz, jaurtiki egingo ditu, harria **habailaz** bezala. **Elizen arteko biblia**

habaila² ik **abaila**.

habe 1 iz eraikuntzetan, zutabeek eusten dioten zur atal horizontala.

Sabaiko zutabeek eta gainontzeko **habeek**. **Joxemari Urteaga**
Atariaren sabaia alderik alde zeharkatzen zuen **habe** bati. **Unai Elorriaga**
Teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten, gailurreko **habea** eta -saihets hezurren irudiko- albo banatako gapirioak besterik ez zen geratzen haietako batzuetan. **Jose Morales**
Gapirioen gainean **habe** karratu bat jarriko da, horren bidez gapirioak ondo lotuta gera daitezten. **Santiago Iruretagoiena**
Eta eliza osoki inguratuz, gapirioak, **habeak** eta latak ageri, egurrezko aterpearen euskarri. **Txillardegi**
Sabaiko **habeak**. **Alberto Barandiaren**
Tenplua eraikitzen bukatu zutenean, sabaia zedrozko **habez** eta oholez jantzi zuen. **Elizen arteko biblia**
Hori baieztatuko zion, bertako **habearen** zutoin harrizkoak. **Pello Zabala**
Zementuzko zoruekin, zutoin eta **habe** galbanizatu eta sare lodiekien. **Oskar Arana**
Porlanezko **habeak**. **Pello Zabala**
Etxe hau arras handia eta arras luzea zen; zutabe batzuek bakarrik eusten zioten, eta suak meheturiko zenbait **habe**. **Habe** zaharrak ikusi zituen, pipien habi. **Koldo Izagirre**
Erle bat ikusi zuen **habearen** arraildura batean. **Unai Elorriaga**
Alboko gelara eraman, eta **habetik** zintzilik lotzeko, pixkanaka hil zedin. **Juan Kruz Igerabide**
Habe arteko tarteak. **Santiago Iruretagoiena**
ik habearte.
Osorik moztu zituzten kanpora ateratzen ziren **habeen** irtenguneak. **Santiago Iruretagoiena**
Behetik hasi eta goiko **habeetaraino**. **Elizen arteko biblia**

2 zutabea.

Kasernarako eta gure kanpalekurako bide-kurutzean, metalezko **habe** handi bat bazen, dena kolore. **Marzel Etxehandi**
Habe urdin baten kontra bizkarra, bidaiarien erreakzioak arakatzen hasi zen. **Iñaki Zabaleta**
Atzean zeukan zurezko **habearen** kontra jarri zuen gizonak bizkarra, eta poliki-poliki eseri zen lurrean. **Inazio Mujika Iraola**
Tren jasoaren **habe** baten atzean gelditu zen. **Lopez de Arana**
Aurpegia eguzkia bezain distiratsua eta zangoak suzko **habeak** bezalakoak. **Elizen arteko biblia**

3 irud

Demokraziaren **haberik** seguruen. **Esteban Antxustegi**
Familia horiek direlako gizarte guztien pilarriak, erresumen hazia eta **habe** sendoak. **Andres Urrutia**
Politikan, ordea, ordenaren aldekoa zen Borges herritarra; egituratutako gizartearen **habe** nagusiei zutik eta sendo eustearen aldekoa. **Anjel Lertxundi**
Bere arrazakide askok bezala, negoziobidea hartu zuen, aberasteko eta gerorako **habe** sendoak, edozein ekaitzek botatzen gaitzak, eraikitzeko. **Felipe Juaristi**
Hamazazpi urteko mutiko argia familia osoaren **habe** bihurtu zen orduan, eta ikasketa-asmok utzita lanean hasi zen, banku batean enplegatuta. **Xabier Mendiguren**
Elizegi
Inoiz dorretxe izan ez ziren bi baserri apal, nire historiatoxoaren **habe** bi. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Sufritu nahi izan zuen gurutzeko **habeen**, eta bertan heriotzarik lotsagarrienaz hil. **Askoren artean**

4 etorkia, leinua.

Harrezkero, gure **habeko** denok izan gaituk kristau bataiatuak. **Edorta Jimenez**
Odol garbikoa omen zen emaztea, kristau zaharren **habekoa**. **Edorta Jimenez**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erdi eginda zegoen eraikin baten **habe**-egitura gorriari leihotik begira. **Lopez de Arana**
Azkenean, harlanduzko hiru lerroko eta zedrozko **habe**-lerro bateko horma eraikiz, barneko ataria egin zuen. **Elizen arteko biblia**
Haren aurpegi eta gorputzean zehar, **habe**-zuraren zainak eta erretenaren gaineko belarra ikusi niuten. **Koldo Biguri**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zedroak gure etxe-**habe**, nekostak etxe gain. **Elizen arteko biblia**
Eta errematxetz jositako burdin **habe** sendoak eraikinari eusten. **Iñaki Zabaleta**
Piku-**habeak** bota badituzte, zedrozkoak jarriko ditugu haien ordez. **Elizen arteko biblia**
Bizikleta telegrafo-**habearen** kontra utzita. **Koldo Biguri**
Arratsaldero ikusten nuen hirugarren argi-**habearen** ondoan geldi. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burdinazko habe (3); **egurrezko habe** (5); **habe handi** (3); **habe sendoak** (3); **habeak eta gapirioak** (3); **suzko habeak** (3); **telegrafo habearen kontra** (3); **telegrafo habearen ondoan** (4); **zurezko habe** (7)

habearte 1 iz habe arteko hutsunea.

Bada Erromako San Ignazio elizan interes handiko margolan bat, elizako **habearte** nagusiaren ganga osoa hartzen duena. **Josu Zabaleta**
Aireratu eta gora eta behera hegaldatu da alboko **habeartean**; harik eta, azkenean, zabalik duen atea topatu eta joan egin den arte. **Mirentxu Larrañaga**
Grand Palaisen mailara iritsi zirenean, hantxe ikusi zuten eraikineko **habearte** erraldoia; lurrera erortzeko zorian zegoen, nonbait. **Jon Muñoz**

2 eraikin handia, solairu bakarrekoa eta barne-hormarik gabea. **iknabe**.

Nafarroako Volkswagenean margolanerako **habearte** berria eraikiko du. **Berria - Ekonomia**
Faktoria suntsitzen eta **habearte** berriak eraikitzen jarraitu zuten, arkitektura ondarea babesteko lege eta araudi guztien gainetik jauzi egin. **Iban Zaldua**
[Pabilioi] haien ordez orain ikusten ari den **habearte** argitsu hori bezalako lau eraikiarazi zituen. **Iban Zaldua**

habedun *izond* habea duena; habeak dituena.

Nire aurrez aurre nire ohea, haritzezko ohe zahar **habedun** bat. [Josu Zabaleta](#)

habetegi *iz* habe multzoa.

Donibane Lohizunetik Hondarribiaraino hain alaiak egiten zituzten anil urdinez edo gaztainez margoturiko **habetegi** konplexu haiek. [Berria - Kultura](#)

habetu, habe(tu), habetzen du *ad* finkatu.

Orduko denbora hark ustekaberik gabeko gurpilak bezala aurreratzen zuen, aukera berberak behin eta berririo eskainiz, eta erregulartasunak **habetu** egiten zuen mundu eta bizimodu haien sendotasuna. [Bernardo Atxaga](#)

habetxo *iz* habe txikia.

Leundu eta zizelkaturiko **habetxo** zoragarriek alegeratzen duten teilatuaren hegal zabalak babestua dago. [Koldo Izagirre](#)

habetzar *iz* habe handia.

Ukuiluan, lastategian eta sukaldean **habetzar** lodiak zeuden, menderen mendetan hortxe finko irauteko ezarriak. [Jose Morales](#)

habia (*ETCn 3.877 agerraldi; orobat kabia ETCn 302 agerraldi, kafia ETCn 51 agerraldi eta kafira ETCn 91 agerraldi*) 1 *iz* hegaztiak, arrautzak erruteko, txitatze eta umeak hazteko moldatzen duten babesgunea.

Azeriek badituzte zuloak, eta aireko hegaztiak **habiak**. [Elizen arteko biblia](#)

Egur metaren ondoan, **kafia** bat. **Habia** eta bi mikakumeak begiztatu nituen nik ere. [Joan Mari Irigoien](#)

Habietan errun berriak ziren lau arrautza harrapatu zituen. [Itxaro Borda](#)

Kumetzeko, arrautzak besteen **habiatan** jartzen ditu. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Habiatik irten berri den txorikumea. [Anjel Lertxundi](#)

Hegalak zabaldu eta begirada zorrotzu; bertzerik ez du behar arranoak bere bakardadean abiatu eta kumeen **habiarra** jakiz kargaturik itzultzeko. [Filipe Bidart](#)

Txoriek **habietarako** lapurtzen zuten artilea. [Julen Gabiria](#)

Eta kukuak hantxe paratuko dizu bere arrautza, batzuetan bertakoak zapuztu gabe, baina maizenean arrautzak jan, **habia** zapuztu, bere arraultza ipini eta ospa! [Patziku Perurena](#)

Habiak zapuztaraztea edo **habiatik** arrautzarik harrapatzea. [Pello Zabala](#)

Igeri egin eta gero amuarrainetara edota txori **habiak** bilatzera. [Bernardo Atxaga](#)

Birigarroaren **habian** jaiotako kukua bezala. [Hasier Etxeberria](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mikak, adarxto batzuk hartu eta **habia**-barrena sendotu zuen. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Txoriek **habia**-eraikuntzari buruz baino ez dutelako hitz egiten. [Julen Gabiria](#)

Bekaizgarri zitzaizkien sagutuok, zeinak, lauzen arteko beren **habia**-zuloetatik alderrai, ogi sagaratuaren apurra karraskatuz gizentzen baitziren. [Juan Garzia](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bitorianoren txalupa txirlaren maskorra begitandu zitzaidan lehenik, eta sorterrria bera txori **habia** txiki gero. [Edorta Jimenez](#)

Lertxun garai batzuek [...] bele **habia** ikaragarri handiak gordetzen zituzten beren adaburu dardaratietan. [Jose Morales](#)

Urtero hainbat zikoina **habia** kentzen edo tokiz aldatzen dituzte Gurelurrekoek, eraikinetan kalteak egiten dituztelako. [Berria - Euskal Herria](#)

Hegoaldeko bi uhartetxoak kaio- **habiaz** beterik daude. [Juan Garzia](#)

Pinguino **habiak** aztertu behar ditut. [Joseba Sarrionandia](#)

4 (bestelako animaliena)

Odriozolatxo baserrian Kanelik umeak zituenean, berak garbitzen zien **habia**. [Gotzon Garate](#)

Arratoi **habia** bat baizik ez da. [Josu Zabaleta](#)

Suge **habia** aurkitu ondoren. [Gotzon Garate](#)

Uste zutelako ezen sugedorriek **habiatzat** hartu zutela. [Joan Mari Irigoien](#)

"Liztorren **habia**", harako hark esango zukeen bezala. [Pedro Alberdi](#)

Armiarma- **habien** bidea. [Anjel Lertxundi](#)

Intsektuen **habia** metatua zirudien. *ik beherago* 6. [Agustin Otsoa](#)

Liztafin **kafien** desegite 100 pasaturik. [Herria](#)

5 irud/hed

Bi amoranteak beren **habian**. [Aingeru Epaltza](#)

Maitasun gnostikoaren **habia**. [Aingeru Epaltza](#)

Izotz-patin pare baten **habia** da izkinako otzara bat. [Anton Garikano](#)

Iraultzaren **habia** zen Eibar, Bergarako jauntxo guztien ikara. [Koldo Izagirre](#)

Are dohatsuago sentitu nintzen istant hartan Pisako katedralean [...] Monteverdiren musika solemne haren **habian** eta aterbean. [Joan Mari Irigoien](#)

Gabiako **habiarantz** gora berak oihartzun modura zetozkidan. [Edorta Jimenez](#)

Ekonomiaren suge- **habia**. [Hasier Etxeberria](#)

"Maitasun- **habia**" edo gisako zerbait. [Aingeru Epaltza](#)

Ez, toki hark ez zuen espioi- **habia** baten itxurarik batere. [Alberto Ladron Arana](#)

Sasiko **habian** sortuek halako mesfidantza pizten didate. [Aingeru Epaltza](#)

Piztiak Pagabasoko leizea hartu zuela **habiatzat**. [Joan Mari Irigoien](#)

Herria faxisten **habia** huen. [Edorta Jimenez](#)

Historia handiko hiria, sekulako lapurren **habia**. [Hasier Etxeberria](#)

Zeren urte luzeetan izan baitzen Trinidadeko uhartea itsas lapur ingeles eta holandesen **habia**. [Joan Mari Irigoien](#)

Txatxarramendi irlako metrailadore **habiak** leherrarazi beharko zituen. [Edorta Jimenez](#)

6 bizilekua.

Hiru zaldi eta kubitka kaskartxo bat erosirik, behin eta betiko alde egin huen etxetik, heure **habiatik**. [Jose Morales](#)

1986ean, Irabarneko **habia** ütziarik, Mauleko plazalat jin zen. Herria
Indietarako asmotan zegoen etxejaun bati etxea eta lurrak erosi zizkioten arte, non **habia** berria moldatu baituzten. Joan Mari Irigoien
Urteen poderioz gorputzak estalpearen epela bilatzen din eta auskalo non izanen duen orain **habia**. Aingeru Epaltza
Zinez gnomo egitekotsuen **habia** bailitzan. Juan Garzia

7 habia eginsup_1

Zergatik egiten dituzten enarek **habiak** etxeetako teilatu-hegaletan. Julen Gabiria
Lotsagabeak dira beleak, batez ere **habia** egin dutenean. Gotzon Garate
Arranoa bezala altxatuko bazina ere, **habia** izarretan egingo bazenu ere. Elizen arteko biblia
Katagorriok adiskide eginez gero, zeure gelan bertan egingo dute **habia** eta umeak. Gotzon Garate
Kalabaza haiek behintzat, saldu beharra zeukaten, izan ere saguak jaten eta haietan **habiak** egiten hasita zeuden. Pablo Sastre
Oihan batean non, tximistek joriko enborretan, erle basatiek egiten baitzuten **habia**. Juan Garzia
Oiloen zorritxoak dira, hegalpean **habia** egiten baitute. Juan Garzia

8 habia eginsup_2 irud

Lagunurkoaren aldera jiratu eta honen bihotzean eginez **kabia**. Mafiak **habia** egina zuen sistemaren gun e boteretsu guztietan. Anton Garikano
Silikosia guztien biriketean **habia** eginda. Xabier Mendiguren Elizegi
Bere amets guzietan, haren bihotzean **habia** egina zuten lilura guzietan. Elena Touyarou
Halako artegatasun ilaun batek egin zuen **habia** neure barrenean. Aingeru Epaltza
Beheranzko bide horretan [...] bizitzak bihurgune bat marrazten du, eta helduleku horretan egiten **habia**. E Zaharron buruan kaosak **habia egin** ez dezan, hala esaten digu. Juan Garzia
Egiak badakiela gezurrean **habia** egiten. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

birigarroaren habian (5); **birigarroen habia** (4); **egindako habia** (3); **habia egin** (8); **habia egina** (5); **habia eginda** (4); **habia egiteko** (6); **habia egiten** (18); **habia izan** (3); **habia uretara jausi** (3); **habiak egin** (3); **habiak egiteko** (4); **habiak egiten** (3); **txorien habia** (5)

habiagile iz habia egiten duena.

Mika omen zen munduko **habiagilerik** hoberena. J.M. Olaizola "Txiliku"

habiatoki iz habia egiteko lekua.

Eskezabaltasun estaliek eta itxurakeriek izango dute han **habiatoki**, testamentu egiteko ahalmena debekatuta edo murriztuta badago. Andres Urrutia

habiatxo iz adkor habia.

Bost metro gora, sabaiepeko angeluan, aurreko urteetako lanez eginda, han zuen enara bikoteak bere **habiatxo** mimoz eta moko-kolpe askoz, lokatz busti goxoz buztinetan osatua. Pello Zabala

Gero, enarak lan-eta-lan, abiada batean ari ziren, goizero **habiatxoa** konpontzen. Pello Zabala

Han-hemen, lanpara ñimiñoak piztu ziren, argi-**habiatxoak** eginez gauaren erdian. Jon Muñoz

habikada iz habiaren edukia.

Batzuetan ez zuen batere bidaltzen, eta beste batzuetan, aldiz, **habikada** oso bat. Julen Gabiria

habitaezin izond lekuez mintzatuz, bertan bizi ezin dena.

Erreferentziarik gabeko leku **habitaezin** batean, desolamendua jaun eta jabe zen erbestean. Bernardo Atxaga

habitagarri izond lekuez mintzatuz, bertan bizitzeko modukoa.

Tailer mekanikoa nahikoa **habitagarri** dagoela iruditzen zait orain. Harkaitz Cano

habitat iz animalia edo landare mota baten berezko ingurunea.

Habitatak suntsitzea animalia edo landare espezie askoren desagertzea eragiten ari da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Asiako Errusiaren ipar-ekialdeko muturreko biztanle primitiboen garai bateko **habitat** bakartutik Alaskarantz. Iñaki Mendiguren

Igelaren **habitatar** kalte egitea «delitu ekologikoa» dela adierazi du. Berria - Euskal Herria

Habitataren kalitatea funtsezkoa da bisoi europarraren etorkizunerako. Berria - Euskal Herria

Zibilizazioen **habitat**-en arteko benetako mugek. Iñaki Mendiguren

Gizakiaren lurreko **habitat**-eko gordeleku eta zokoak. Iñaki Mendiguren

Arkitekturako laborategian **habitat** eredu berriak ikertu zituzten 2003an. Berria - Kultura

Badugu lan itzela, baita miresgarria ere, **habitat** honen ekosofia deskribatzeko, kultura honetan bizitzeko. Elizen arteko biblia

Inoiz ezagutuko ditudan etxe eta hoteletako gela kopurua baino askoz ziega gehiago **habitatua** nintzen ordurako. Jon Muñoz

2 irud

Kultur **habitaten** diagramara. Iñaki Mendiguren

Balizko perfektzioaren zain, inperfektzioa eta absurdua ditugu **habitat** naturalak. Hasier Etxeberria

Gauza jakina da eskizofrenia dela euskaldunon **habitat** naturala. Joan Mari Irigoien

habitatu, habita(tu), habitatzen 1 du ad bizi izan.

Baina gu sapiensak gara, Unibertsoa **habitatzen** dugun gizakiak. Karlos Linazasoro

"Nik honezkero ez diat etxerik" esatekotan egon zen, baina oraingoan damuak berea ez zen etxe hura **habita** zezan utzi zuen. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Zer besterik behar du batek uharte **habitatua** izateko? [Koldo Izagirre](#)

Eta aurpegiak datozkio hitzekin batera, paisaje bizidun, **habitu** bat. [Iñigo Aranbarri](#)

haborokin 1 izond gehiegizkoa.

Adorazio gehiegizko eta **haborokina** bereganatzeko. [Xabier Olarra](#)

• 2 adlag gainera.

Filma lan horietaz **haborokin**, Christophe de Pradak diaporama delako bat moldatu dü. [Herria](#)

Hona zer aholkatzen den bereziki Donapaleu, Maule eta Atarratze aldeko laborarier; zoinek aurten baizik ez düküen %10eko lagüntza bat **haborokin** beste eskualder konparatüz. [Herria](#)

• 3 iz soberakina.

Egoki etor dakiguke, erdal 'excedente' esateko, Zuberoako **haborokin** hitza. [Koldo Zuazo](#)

Ez ote den astun irati orologoek eta kazetariek eguneroko jardunean darabilten gainezko hori, **haborokina**, burrusta. [Iñigo Aranbarri](#)

habuin iz haguna, ahoari darion aparra.

Eta aita jesuitak mila bekatu leporatu zizkigun, ahotik **habuina** zeriola. [Joan Mari Irigoien](#)

haga 1 iz zurezko atal zuzena, luzea eta mehea, eskuz erabil daitekeena.

Haga luze baten muturrean gar urdin iraunkor bat zeraman zaindari batek, banan-banan piztu zituen inguruetako farolak oro. [Txillardegia](#)

Orgaren **hagan** eserita. [Koro Navarro](#)

Haien orga tipia zen neurritz, baina **haga** batzuen gainean finkatu oihal batek estaltzen zuen. [Elena Touyarou](#)

Beren familietako hilen argazkiak **hagen** puntan ezarririk. [Herria](#)

Bi gabarriek aurrera bultzatzen zuten ontzia trebetasun handiz, **haga** bana eskuan. [Karlos Zabala](#)

Gimnastek **hagetan** itzuli-mitzuli ibili ondoren. [Gotzon Garate](#)

Urkamendiko tranpola zabaltzen zuen **hagari** eragin zion borroako. [Anjel Lertxundi](#)

Harrizko garita batera helduta, **haga** batek moztu zigun bidea. [Alberto Ladron Arana](#)

Gu ezagutu bezain laster, **haga** altxatzeko agindu zuen sarjentuak. [Alberto Ladron Arana](#)

Burdinazko **haga** luze bat hartu zuen, eta gizagaixoaren besoa baino pittin bat harago sartu zuen, kanoiaaren azpian. [Edorta Jimenez](#)

Bigarren ate bat daukate ziegok barru aldetik, burdinazko **hagaz** egina. [Koldo Izagirre](#)

Esku batean **haga** fin bat zeukan, zaldiz ibiltzeko horietakoa. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Haga malguen gaineke jauzi izugarriak. [Berria - Kultura](#)

2 (banderena)

Aleman soldaduek bazuten bandera gorri luze bat, "gama"-dun gurutzearikilakoa, alimaleko **haga** batetik dilindan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Egoitzan zeuden bandera gorri-beltz guztiak hartu eta **hagatan** biltzen hasteko, Donostiara eraman behar genituela eta. [Inazio Mujika Iraola](#)

Banderak **hagatan** bilduta sartu ginen barrura. [Inazio Mujika Iraola](#)

Nafarroan, berriz, dolu eguna izendatu zuten atzo, eta erakunde publikoetako **banderak** haga erdian jarri zituzten.

3 (errugbian)

Eta méléé eta berriz méléé bai eta kastigu-ostioak gertatu ziren, baina haize basa zela medio, baloia bi **haga** luzeen kanpotik pasa zen aldirio... [Daniel Landart](#)

Punpa lasterrez baloia jo eta **hagen** artean baloia sartuz. [Berria - Kirola](#)

Argentinarrak 40 metrotik jaurti zuen **hagetara**. [Berria - Kirola](#)

Gainerako puntuak **hagatarako** jaurtiketetan lortu zituzten. [Berria - Kirola](#)

25-0, (30 m): Gaitanek entsegua **hagapean**. [Berria - Kirola](#)

32-5, (55 m): Garnierrek **hagapean** pausatu zuen baloia, miarritzarren arreta eza baliatuta. [Berria - Kirola](#)

4 (itsasontzietan)

Masta nagusia **haga** atal birekin osotua zen. [Edorta Jimenez](#)

Beheko **haga**, lodiena, oina ontziaren gila-gainean josia zuena, karrakako bizkar bietan zulo edo brusol bana egin eta haietan behera landatua zen; bigarren **haga**, meheagoa, behekoari josia zen, ontziko bizkar nagusia baino besada bat gorago, aparailuen euskarri. [Edorta Jimenez](#)

Ontziko **haga** printzipala balantzaka ari zen. [Edorta Jimenez](#)

Gibel-mastari garabia atontzeko behar ziren beste **haga**, taket, gupil eta sokak erantsiz. [Edorta Jimenez](#)

5 (konparaketetan)

Furgonetatik atera da, **haga** bezain garaia. [Aingeru Epaltza](#)

6 (hitz elkartuetan)

Haga muturrak karelaren beheko aldean egindako koska batzuetan bermatu eta gabarriek ontzia saiheska eramatea lortu zuten. [Karlos Zabala](#)

Kerosenozko argiontzia zehar **hagetako** batetik esekirik zegoen. [Juan Garzia](#)

Zuhaitz **haga** luze bat tente ipintzen zuten plazan. [Pello Zabala](#)

Bakar bat zegoen bere gurdi **haga** gora, itxuraz bertan gelditzeokotan. [Txillardegia](#)

7 branka-haga

Santesteban ontziko branka **hagan** behera soka bat luzatu zuten, zurbia igotzeko. Santesteban-ek branka **hagan** iltzaturik zeukan maskarari erreparatu nion. [Edorta Jimenez](#)

8 burdin haga burdinazko haga.

Burdin **hagak** erabiliz, lauza altxatu zuen. Burdin hari bakoitza burdin **haga** bati erantsi zion. [Felipe Juaristi](#)

Aldiro-aldiro liburu-saltzaileren bat agerturik, bere txosnako persiana alderik alde hartzen zuen burdin **hagaren** bi muturretako sarraila tzarrak askatzen zituen. [Anjel Lertxundi](#)

Horieta bati, burni **haga** eskuetan izan arren, jauzi egin, lurrera bota eta haginka hasi zitzaion. [Gotzon Garate](#)

9 haga-gain (itsasontzietan)

-Ea gizonak, nor da **haga** -gainetara igotzeko prest? [Edorta Jimenez](#)

Hala eta ere, **haga** -gainetara iritsi ginen, oztazoeta hura mastari lotzen zuten sokak askatzeko garaiz. [Edorta Jimenez](#)

Haga -gainak oihalekin eta denarekin joan ziren behera, karrakaren gain-bizkarrera. [Edorta Jimenez](#)

Harrezkero oihalak eta **haga** -gainak berrituz igotzeko prest uzteko lanari eragozpen barik ekin ahal izan genion Neu joango nauk gabiako **haga** -gainera! [Edorta Jimenez](#)

10 **haga-**marrari hain hurbil izanik, zinez pena nuen entseia ez markaturik!

Haga -marrari hain hurbil izanik, zinez pena nuen entseia ez markaturik! [Daniel Landart](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkazi zurezko hagak (4); **burdin haga** (4); **burdin hagak** (7); **burdinazko haga** (5); **haga baten puntan** (3); **haga batetik zintzilik** (3); **haga luze** (6)
branka hagan (3); **hagapean pausatu** (3)
baloia hagen (4); **baloia hagen artetik** (3); **eta hagen** (3); **hagen artean** (3); **hagen artetik** (9), eta hagetarako (3); **hagetarako jaurtiketetan** (5)

hagadun *izond* haga duena; hagak dituena.

Eskaileren buruan, [...] gotorlekuren bateko borta astuna etxean sartzeko, erdian leihotxo **hagadun** bat zabaltzen zaiola. [Koldo Izagirre](#)

Leiho **hagadun** bat, goi samar heltzeko. [Koldo Izagirre](#)

Kanoiairen eta arkabuzaren ezkontzaren ume **hagadunak**. [Aingeru Epaltza](#)

hagalari *iz* haga erabiltzen duen pertsona.

Dolarea ez bada tornu bidez mugitzen dena, baizik eta hagaz eta habe bidez zanpatzen dena, ez da berrogei oin luzekoa baino txikiagoa egingo; hala **hagalariak** lekua izango du libre. [Santiago Iruretagoiena](#)

hagatto *iz* hagatxo.

Sukaldeko leihoaren atzean, errezel tiki bati eusten zion letoizko **hagatto** baten alde banatan. [Fernando Rey](#)

hagatxo *iz* haga txikia.

Toshiro eta Naomiren panpinak mugitzen dituzten **hagatxoak** zumezkoak dira. Brontzezko **hagatxoak** erabiliz zentrotik hasi eta erlojuaren aurreko aldean. [Santiago Iruretagoiena](#)

Sartu zizkion toreatzaileak zezenari bi burtxi, eta peoi batek hiru **hagatxo**. [Joan Mari Irigoien](#)

Eskaileretan, non letoizko **hagatxoek** alfombra gorri mateari maila bakoitzaren kontra eusten baitzieten, [...]. [Lopez de Arana](#)

Bidaiantak haizetako garbigaluari eragin dio, eta Joxek bi **hagatxoak** ikusi ditu hautsa eta zenbait euri tanta lodi nahasten eta haizetakoaren ertzeraino baztertzen. [Pello Lizarralde](#)

hagaxka 1 *iz* hagatxo.

Horren gainean **hagaxka** bat jartzen da danbor birakari batekin. [Santiago Iruretagoiena](#)

Bi kono egiten dira, bat trinkoa, bestea hutsa [...] bata bestearen barruan sartu eta doi-doi egokitze moduan; **hagaxka** berarekin bi kono horiek lasaituz edo estutuz lortuko da ontzian erortzen den ur-isuria indar gehiagorekin edo gutxiagorekin erortzea. [Santiago Iruretagoiena](#)

Gerruntzearen **hagaxkena** izan da kirrinka luzatu samar hori? [Anjel Lertxundi](#)

Hagaxka -jokoa zen bere espezialitatea: lurrera jaurtitzen zituen, eta erori ahala egiten zuen interpretazioa. [Xabier Aranburu](#)

2 (konparaketetan)

Palmondo berdea **hagaxka** bat bezain malgua da. [Joxe Austin Arrieta](#)

hagazkinontzi *iz* hegazkinak daramatzen itsasontzia.

Hegazkinontzia bertako ontziola batean desegitea da Frantziako arduradunen plana. [Mirentxu Larrañaga](#)

Atzo Egiptoko kostaldetik heldu ziren ekologistak, atoiontzi batean, eta zodiac batean heldu ziren **hegazkinontzira**. [Iñaki Segurola](#)

Atzo Egiptoko kostaldetik heldu ziren ekologistak, atoiontzi batean, eta zodiac batean heldu ziren **hegazkinontzira**. Frantziako gobernu komisarioak, Yann Aguilu magistratu independenteak, Clemenceau **hegazkinontziak** Indiara bidean daraman bidaia bertan behera lagatzeko eskatu du. [Juan Garzia](#)

Amiantoz beteriko **hegazkinontzia** Indiara garbitzera ez eramatea «garaipena» dela diote ekologistek. [Patxi Zubizarreta](#)

Europako Kontseiluak informazioa eskatuko dio Frantziako Defentsa Ministerioari Clemenceau **hegazkinontzi** militar zaharraren gainean. [Jon Muñoz](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

clemenceau hegazkinontzia (7); **clemenceau hegazkinontziaren** (3)

hagetaratu, hagetara(tu), hagetaratzen du *ad* hagetara eraman. (errugbian)

Yachilik eta Elizalde zigor kolpe bana **hagetaratu** ondoan. [Berria - Kirola](#)

Zelai erdian zigor kolpea agindu zuen Mene epaileak, eta Heymansek ez zuen aukera galdu, **hagetaratzeko**, bera ez izan arren ohiko jaurtizailea. [Berria - Kirola](#)

22-3: Zigor kolpe jaurtiketa **hagetaratzea**. [Berria - Kirola](#)

hagetaratze *iz* hagetara eramatea. (errugbian)

Baina markagailuan parekotasuna gertatu zen, **hagetaratzeetan** lorturiko puntuengatik. [Berria - Kirola](#)

hagin¹ 1 *iz* letaginen atzean dauden hortzetako bakoitza, goialdea laua dutenak eta janariak ehotzeko gai direnak.

Hortzak, letaginak, **haginak**. [Patziku Perurena](#)

Hortzak eta **hagin** gehienak ustaldu zitzaizkion. [Patziku Perurena](#)

Bere tenazak eta **hagina** eskuan zituela. [Patziku Perurena](#)

Ez didate sekula **hagirik** atera. [Iñaki Segurola](#)

Saguzaharra, torizu **hagin** zaharra, eta ekatzu berria. [Patziku Perurena](#)

Txantxarrak jotako **haginak**. [Harkaitz Cano](#)

2 hortz edo hagina.

Hagin bakarreko abadea jendeari abisuak ematen. Joseba Sarrionandia

Euren **hagin** urri ustelduak erakutsiz barreka. Joseba Sarrionandia

Txakurraren arnasa beroa sentitu zuen, haren **hagin** luzeak ikusi... Iñaki Mendiguren

Ripperrek salto egin eta osaba Vernonon zangoan sartu zituen **haginak**. Iñaki Mendiguren

Haginak garbitzen ari zenean. Jasone Osoro

Haginetako pasta, bizar labanak. Joseba Sarrionandia

Ordezko **hagin** distiratsuak. Urtzi Urrutikoetxea

3 (hitz elkartuetan)

Hortz eta **hagin** -letaginak denak kolpeka apurtu eta gero eman zioten heriotz trixtea. Pello Zabala

Heriotzan piztien **hagin** -sari izatea. Xabier Amuriza

Errepidean, hantxe geratu zen, tiranoaren **hagin** -ordekoarekin eta kepisarekin batera, Chevrolet Bel Air autoa, 52 bala-zulok apaindurik. Edorta Jimenez

3a krustazeeok hanken muturrean duten pintza modukoa. ik **pintza** 4.

Balkoiaren sabaian [...] kulunka egiten dute arrokek, sareek, soka bilduek, esponjek, zurezko kaiolan dagoen perikitoak eta krabelin gorritz beteriko lorontzi dilindatuek, orpoetan karramarro **haginak** nahasten zaizkien lorategi ttipi eskegiek Orpoetan karramarro **haginak** nahasten zaizkien lorategi ttipi eskegiek. Jon Muñoz

4 hortz-hagin pl hortzak eta haginak

Snakep agerian zituen bere hortz-**hagin** horixkak eta irregularrak. Iñaki Mendiguren

Matrailezurra, hortz-**haginak**. Pello Zabala

Bulldog handi bat bezala, hortz-**haginak** agerian zituela. Iñaki Mendiguren

Zakurrak azpiratuaren lepoan sartuak dituen bere 32 hortz-**haginak** ez ditu, ito arte, bere gogoz askatuko. Gotzon Garate

Ni **hortz** -haginak mihiaz banan-banan miatzen ari, badaezpada ere, ea baten bat koloka ote zegoen. Joxe Austin Arrieta

Lehenengotan ez nion ia piperrik ulertu, ordezko hortz-**haginak** kenduta baitzeuzkan. Jon Arretxe

Ezpainak gailentzen zitzaizkion nabarmen, eta **hortz** -haginetako babesgailua zerabilen kanpora eta barrura. Josu Landa

5 ahoa bete hagin ahoa bete hortz.

Ahoa bete **hagin** gelditu ziren denak. Koldo Izagirre

Ahoa bete hagin geratu zen Ruche jauna; Tartaglia argitaratzekotan zen tratatu handiari buruz hitzik esan gabe bukatzen zen Quesiti. Jon Muñoz

6 hortzez eta haginez indar guztiekin.

Parisen, euskaldunen eskubideak hortzez eta **haginez** defenditzen. Herria

Ezkerreko oposizioa erabaki horren kontra agertu da hortzez eta **haginez**. Herria

Eskasia gauza iluna eta beharrak jotzen duelarik hortzez edo **haginez**, buru egin behar. Herria

Bere Mexiko kapitala esperantzaren hiria egiteko nahikundean ari da hortzez eta **haginez**. Bide horretan tresna guziak baliatu behar direla, estatuko legearen ezagupena bultzatu, baina, hori nekez jinen baita, anarthean hortzez eta **haginez** lotu lanari. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hagin artean (9); **hagin handiak** (3); **hagin zorrotzak** (4); **hagin zuri** (3); **haginak garbitzen** (4); **hortz eta hagin** (3); **hortz haginak** (17); **hortz hagin artean** (3) hagineta mina (8); **hortzak eta haginak** (3); **hortzez eta haginez** (11); **juizioko hagina** (3)

hagin² iz hosto iraunkorreko zuhaitz azal-gorrixka, zura oso gogorra duena, hostoek eta haziek gai pozoitsu bat daukatena (*Taxus baccata*).

Hagina, heriotzaren zuhaitz beti berde iluna. Pello Zabala

Bide erteko pagoen, haritzen, **haginen**, gaztainondoan kolore-berriztapena gozatzeko. Anjel Lertxundi

Zezen-idiok adar artean **hagin** -arbaz ehotako koroak jantzita zeramatzen. Pello Zabala

Irlandan, berriz, **haginari** arnoaren hilkutxa deitzen zioten: **hagin** -zuzuz egiten zituzten upelentzako ohol eta tabiak. Pello Zabala

Hagin -makilaz uztai eta arkuak egiten. Pello Zabala

Haginezko zurajea, iraupen haundikoa da. Patziku Perurena

haginarate iz hagin arteko tartea.

Lortu zuen **haginarate** libratzea. Unai Iturriaga

hagingabe izond haginik ez duena.

Zaharkituak, konkortuak, **hagin** gabeak ziren. Itxaro Borda

haginka 1 adlag hozka.

Baldwin hazkozkorrei **haginka** ari zitzaien. Lopez de Arana

Ogitartekoa ireki eta lau xerra mortadela zenbatu ditu: gutxitxo aukeran, baina aukeraterik ez duenez **haginka** ekin dio. Xabier Mendiguren Elizegi

2 haginka egin hozka egin.

Ez dit, ba, **haginka** egin! Iñaki Mendiguren

Haginka egingo zion [zakurrak] eta, jakina, trikuaren arantzak ahoan sartzen zitzaizkien. Gotzon Garate

Mendik **haginka** egin zion ipurdi mazelan. Gotzon Garate

Bakardadeak **haginka** egiten dizu eta ez dakizu zelan babestu. Sonia Gonzalez

Pentsatzen dut bere buruari **haginka** egingo ziola... Iñaki Mendiguren

Edek ezpain hotzei **haginka** egin zien. Lopez de Arana

Zakurrak zakurrari **haginka**. Jon Alonso

Jolasean izanik ere, **haginka** gogor egiten badu, ozenki esan: Ez! Gotzon Garate

haginkada 1 iz hozkada.

Zakur isilak **haginkada** seguru. Gotzon Garate

Zakurrak **haginkada** batez urratu aizu. **Gotzon Garate**
Vitorrek eraso eta 14 **haginkada** egin zizkion. **Gotzon Garate**
Zangoetan ere **haginkada** gogorak egin zizkion. **Gotzon Garate**
Tiberio, 80 kilo den Napolesko mastin batek, **haginkada** latza eman zion bere nagusiarri. **Gotzon Garate**
Hortzak zabal-zabal egin zituen heriotzako **haginkada** emateko asmoz. **Joanes Urkixo**
Haginkadaren mina. **Julen Gabiria**
Ez nuen jakiten non babestu ilundu ondoren, zelan ihes egin hotzaren **haginkadari**. **Jon Arretxe**
Autoko eskularru-kaxak **haginkada** batez irentsi zuen. **Aingeru Epaltza**

2 ziztada.

Ez da ona erlearen **haginkada**. **Unai Elorriaga**

haginkari *izond* haginka egiten duena.

Harryri ez zion susmo onik eman Hagridek pentsatzeak liburu **haginkari** bat erabilgarri gerta zekiokela. **Iñaki Mendiguren**

haginkatu, haginka(tu), haginkatzen du *ad* hozkatu.

Nori eman diozu musua, noren ezpainak **haginkatu** dituzu? **Joseba Sarrionandia**
Orduan ama Goioeren logelara sartu zen, begiak gazi eta ezpainak **haginkatuta**. **Joseba Sarrionandia**
Mignonen gorputza **haginkatzeko** prestik. **Joan Mari Irigoien**
Hemen bizi-arnasa **haginkatu** egin daiteke, haragizkoa baita airea. **Edorta Jimenez**

haginarri *iz* dentista.

Horregatik hartu zuten **haginarri**, dentista eta odontologoek euren zaindaritzat. **Pello Zabala**
Haginarri-kontsultategi bateko koadroa. **Lopez de Arana**
Antigoaleko **haginarriek** eduki ohi zituzten aulki horien antzekoa. **Harkaitz Cano**

hagiografia 1 *iz* santuen historia; horri dagokion literatura generoa.

Irudi militarrek ohikoak ziren Erdi Aroko **hagiografian**. **Askoren artean**

2 *hed*

Kafkaren irakurketa serioa behartu baikaitu pragatarrari buruzko literatur **hagiografiak**. **Anjel Lertxundi**
El Alamoren defentsan hil zirenen **hagiografiak**. **Berria - Kultura**
Esentzia horren hedapenaren azi-orraziak izango dira gertakari guztiak historian zehar, Espainia pertsonaiaren neke eta pozen **hagiografia**. **Joxe Azurmendi**

hagiografiko *izond* hagiografiari dagokiona.

Literatura **hagiografikoa** egitea. **Berria - Kultura**
Erdi Aroan ohikoak ziren eskema **hagiografikoei** jarraitzen die. **Askoren artean**
Ikuspegi psikologikoa duela **hagiografikoa** baino gehiago. **Askoren artean**

hagiografo *iz* hagiografiak ontzen dituen idazlea.

Nola **hagiografoen** hala kritikoki sutueneren aldetik. **Iñaki Heras**

hagiologia *iz* hagiografia.

"San Migel" goiaingeruari buruzko **hagiologiak** horixe esan nahi omen duela hebraiera zaharrean. **Patziku Perurena**

hagitz 1 *adlag* oso.

Kontseilu hori ona dun, **hagitz** ona; gaitzesten badun, ez dun nire errua. **Xabier Amuriza**
Hagitz harroa naun, mendekaria, handinahia. **Unai Elorriaga**
Hagitz zorrotza zen bere juzquetan eta mundu guztia ergeltzat hartzen zuen. **Josu Landa**
Gure Eske Garaia **hagitz** ugaria eta zabala da, egun honetara bakarrik mugatzeko. **Joseba Sarrionandia**
Haria ez ohi da **hagitz** sendoa izaten. **Berria - Euskal Herria**
Hagitz jostagarriak iruditu zitzaizkion haren berba bizi eta zabarko ahoskatuak. **Askoren artean**
Barnea **hagitz** zikina dago (zaborra, katu hilak, xiringak eta abar daude), eta sastraka etxearen inguru osoan pilatuta dago. **Harkaitz Cano**
Gela **hagitz** egoki antolatua dago, ozta da ziega bat baino handiagoa. **Koldo Izagirre**
Hasi eta bukatu, ariketa gehienetan **hagitz** erregular aritu zinen, txukun. **Berria - Euskal Herria**
Aspaldiko antzerki zahar hau, **hagitz** ongi gogoratu berria digu Eduardo Gil Berak ere: [...]. **Berria - Gaiak**
Europako literatura zahar guzian **hagitz** hedatua den beste arketipo literarioa, zazpi arkuko zubia iragotek erakusten digu. **Berria - Kultura**
Adio, adiskide ederra, **hagitz** presatua naiz; ez zaitut ez gaur gauean ez bihar ikusiko. **Herria**
Gaztea ez da gaur gixaki zoro egingabea eta axolagabea, edo **hagitz** gutxi dira behintzat klase eder horretakoak. **Koldo Izagirre**
Ez zinan **hagitz** tinko atxikiko, bat-batean lurrean aurkitu bainaz, makina eta guzti. **Jon Muñoz**
Bai gauza ondradua, arraza kontua, argi egiteko denean, baina antzua **hagitz**, argia estaltzera datorrenean. **Juan Garzia**
Halere, lanbide **hagitz** interesgarria behar du izan. **Fernando Rey**
Urteak pasatuta, Alberto **hagitz** mediku ona izatera ailegatu zen. **Patziku Perurena**
"Omen" horrek ez zuen Ximurra **hagitz** leku onean uzten, sinesgarritasunaz den bezainbatean. **Aingeru Epaltza**
Gurasoengandik ikasi nuen umetan, eta Goizuetan ezaguna da **hagitz**. **Mirentxu Larrañaga**

Hagitz mami gogorra eta zuria du (zuhaitz) herriak hartu zuen lasaia hain zen handia izan ezen sentitu baitzuen beratu egiten zitzaiola, izpiritua baretzen zitzaiola, **hagitz**, orain hitz egokiak esatea baino ez zuen falta, adibidez, Bai. Berria - Euskal Herria

Hunkigarria **hagitz** ! Koldo Izagirre

Apez zahar **hagitz** konkortu batek ematen zuen lehen meza aldare nagusian. Berria - Kultura

Lehen behakoan, profesionala da **hagitz** goi mailako bi teknikari horien arteko harremana. Patziku Perurena

2 asko.

Tesiotako bakoitzak frogak, froga **hagitz**, dakartza bere jarrera frogatzeko. Patziku Perurena

Jaun jatorrok, **hagitz** mintzatu da zuetaz, eta ziur naiz ez direla munduan bi gizon bihotzeanago dituenik. Jon Muñoz

Honek **hagitz** harritu ninduen, baina ene ustekabea handitu egin zen puska baten buruan konprenitu nuelarik deitzen zuten hura, espero zuten hura, behar zuten hura, nihaur nintzela. Iñaki Segurola

Bada **hagitz** teoria, eta nahi duenak nahi duena sinetsi dezala, baina argi dago zaldi hauek ez zituztela margotu egongela dekoratzeko. Aingeru Epaltza

Hagitz aritmetika eta geometria dakiena dea? Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hagitz gauza (4); **hagitz gizon** (3); **hagitz gutxi** (4); **hagitz handia** (5); **hagitz interesgarria** (5); **hagitz ona** (4); **hagitz ongi** (16); **hagitz ugaria** (3); **hagitz urrun** (3); **hagitzez ere gehiago** (3); **hagitzez gehiago** (8); **hagitzez hobea** (4)

hagoan *adlag* orekan.

Ezen, esperientziaz badakigu, haurrek, haien gorputza beti **hagoan** bezala baitago, irri edo nigar egiten dutela beste batzuek irri edo nigar egiten dutela ikusten duten ber.

Piarres Xarriton

hagorandu, hagoran(du), hagorantzen da *ad* larritu, urduritu.

Errezeletan oraindik arku voltaikozko lanpara baten erlantzta ageri zen, tarteka-marteka keinulari, eta ni hantxe, deseroso, **hagorandua**, ezin nintzelako mugitu. Joxe Austin

Arrieta

hagun 1 *iz* aparra.

Haraitzineko sinesteetan, arrautzaren partez, esnea zegoen, irakin gabea, deitzi berriaren **hagunez** desiragarri. Itxaro Borda

Hagunez emokatu kikara ezpainetara ekartzen nuenean. Itxaro Borda

Germietako erreka bertze ainitz bezala gainditu da eta Okozeko gune batean naza ttipi bat egin du **hagun** xuri plaka batzuekin. Holako jakintsun batek bere baitan zaukan aberastasun hura bazarion nolazbait, iturria gaintitzen duen ur-turrustaren **haguna** bezala. Herria

Sua hiltzeko **haguna** botako duten tresna indartsuagoak. Herria

2 (ahoari dariona)

Hagun hori-gorri bat ahotik zariola, begiak itzuli-zurituak... Michel Oronoz

Izpiritua non-nahi jabetzen zaio, lurrerat aurtikitzen du, eta haurra, **haguna** dariola eta hortz-karrasketan, gogor-gogorra jartzen da. Michel Oronoz

Kexuaren **haguna** ezpainetan behera zeridala. Itxaro Borda

Karrikan, musuen **hagunaz** bereizi ginen. Itxaro Borda

Ezpainak **hagun** huntaz eta hartaz mintzatu ginen, desertuetako euskaldunak gu. Itxaro Borda

hagundun *izond* haguna duena, aparduna.

Aho zokoa idor neukan eta garagardo nasai, hotz eta **hagundun** animale baten premia nabaritzen nuen zintzuraren eremuan. Itxaro Borda

haguntsu *izond* haguna duena; haguna dariona. ik *apartsu*.

Maiana oroitzen zen partekatu zuten txokolatesne **haguntsuaz**. Itsasoa franko laño zegoen, nahiz, batzuetan, uhin **haguntsuak** biziki gora altxatzen ziren. Itxaro Borda

Ispiluan ikusten nuen, ahoa hortzetako ore **haguntsuz** betea, nire zinkurinei begira. Joxan Elozegi

Baina esnearen xirripak kotxuaren bazter metalikoa jotzen zuelarik sortzen zen musika zinez eder kausitzen genuen, **haguntsua** eta bakarretan, kakailaz hanpatua. Itxaro Borda

haia *iz* oihua

Ahoa plegatu zuen Maianak, disgustuz, eskalearen magaletik aldentzeko Frantxuaren **haiari** ihardetsiz. Itxaro Borda

haia-haia *adlag* arin, laster.

Jendea oinez **haia-haia** heldu da bagoitik geltokiraino. Eneko Bidegain

Bi bele, **haia, haia**, hegalka zoatzen. Herria

Lan eta lan, goizetik arrats ostatura zetozkion jendeak **haia-haia** zerbitzatzen. Itxaro Borda

Bidaia segitu dugu **haia-haia** belauinaldiz belauinaldi. Herria

haiaka *adlag* oihuka

Zurrunbilo horretara eraman ninduen beraz, Donapaleuko merkatuaren aurretik iragateak, goiz hartan, haraitzineko ardi eta bildots marraka izoztuak kasko zokoan **haiaka**.

Itxaro Borda

haiari *iz* oihukaria.

Igande hartan lagun taldeak, sarrerako **haiariaren** dei amainakorrei elkor, hustu behar omen zuelako, Pigalleko putetxe baten atarian utzi zuen Xarles. Itxaro Borda

haidor *izond* burgoia.

Oskarbi zegoen eta, urrunean, Alpeen gailur elurtuak **haidor** nabarmetzen ziren. **Alberto Ladron Arana**

Urre jantzi danbor nagusia, / galtzak diz-diz kapela du tontor, / ponpoxo, harro, zalduntxo **haidor**, / serio, beldurgarri dago hor. **Xabier Olarra**

haika *interj* jaiki-ren *aginte* forma.

Haika, Donis! **Juan Garzia**

hain halako mailan. (ikus behoko kombinatorian hain hitzaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

agian hain (12); **arte** hain (18); **artean** hain (28); **badu** hain (19); **baina ez** hain (24); **baina** hain (200); **baina hain da** (17); **baita** hain (40); **baitezpada** hain (23); **baitira** hain (12); **baitzen** hain (11); **bat** hain (53); **batean** hain (22); **batek** hain (12); **batzuetan** hain (13); **batzuk** hain (12); **bera** hain (34); **berak** hain (32); **bere** burua hain (14); **beti** hain (49); **bezala** hain (11); **bizitza** hain (15); **burua** hain (25); **da** hain (561); **da hain arraroa** (11); **da hain erraza** (41); **da hain garrantzitsua** (26); **da hain handia** (12); **da hain segur** (14); **da hain zaila** (31); **da hain zuzen** (68); **dago** hain (58); **dela** hain (63); **den** hain (26); **dena** hain (48); **dira** hain (155); **dira hain** (155); **dira hain** (35); **ditu** hain (12); **du** hain (82); **du hain zuzen** (11); **dugu** hain (15); **duk** hain (22); **dut** hain (43); **dut uste** hain (12); **dute** hain (42); **duzu** hain (18)

Zabaldu zure fedegabekeria lau **haizeetara**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Beren patua mundua zeharkatzen omen duten 14 **haizeen** esku zegoela. Bernardo Atxaga
Haizete beldurgarriak Kantauri itsasertean: 125 km orduko ibili zen **haizea**, behin eta berriz. Pello Zabala
Haizea hasi zuen. Xabier Aranburu
Haizea atera zuen, baina airearen goiko geruzetan baino ez oraindik. Karlos Zabala
-Haizea dakar -neska ahotsa. Unai Elorriaga
Dantza eta kanta, adiskide, / **haizea dator** Larrundik! Koldo Izagirre
Haizea iparretik zetorrenetan ekartzen zuen itsasoak egur gehiena. Anjel Lertxundi
Haizeak mendebaldetik jotzen zuen oraindik. Agustin Otxoa
Hegosartaldeko **haizeak** joko du. Joseba Sarrionandia
-Zer **haizek** joko zion, bada? -zioen bere artean. Karlos Zabala
Iragaiten dira **haizeak** eta kontra-**haizeak**, eta badirudi ezen ez dela deus ere gertatzen. Joan Mari Irigoien
Gero, **haizea** altxatu zuen eta lehortzen zintzilik jarritako arropa puztuek bereganatu zuten nire arreta. Harkaitz Cano
Hondartza, eremu luze **haizeak** astindua, eta itsaso berdea, zuriz zipritzindua. Ramon Saizarbitoria
Zeren, **haizeak** baretuko ez balira, ezin indarrek ezingo lituzke gauzak galgatu ez suntsibidetik libratu. Xabier Amuriza
Haizeak astinduriko liho-landarearen dardareekin hitz egin zuen: [...]. Anjel Lertxundi
Haizeak harroturiko hauts-zirimolak. Anjel Lertxundi
Komeni zaik **haize** pixka bat hartzea. Aingeru Epaltza
Haizerik gabeko aire hotzari. Anjel Lertxundi
Atzera eta aurrera ibili nintzen, eskuak patriketan, batzuetan **haizearen** alde, ia-ia airean eramana, eta besteetan **haizearen** kontra, kostata noski, burua makurtu eta gogor ekin behar bainion aurrerantz. Joxe Austin Arrieta
Eguzkitik jasoriko beroa, halere, murriztu edo areagotu, biak gerta daitezke zein **haize** dabilen. Pello Zabala
Une batez pentsatu zuen **haizearen** hotsak esnatu zuela. Iñaki Mendiguren
Ospe hutsalaren **haizeak** puztuta, bere gudari-taldea Pugliara eramatea erabaki zuen. Askoren artean
Harrizkoa uste genuen jauregia, lastoz egina zen, euriaren eta **haizeen** mende zegoena. Anjel Lertxundi
Ildoen gainera etzan zen **haizetik** babesteko. Juan Garzia
Haizeak garai joanen errautsak harrotzen ditu, eta nik usoak ikusten ditut zeruan. Juan Kruz Igerabide
Han goian, beraz, **haizez** eta suz beterik dago dena; horregatik trumoiak eta oinaztuak nondinahi sortzen dira. Xabier Amuriza
Handik aste batzuetara "**Haizearekin** joana" izeneko filma estreinatu zuten. Pello Salaburu
-Maurrasen luman Erromantizismoaren gaitzespenik gaitzena da hori: edozein **haizetakoa**, errogabekoa, superfiziala esan nahi du. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren adarrek karraska egiten zuten, **haize** handia balebil bezala. Iñaki Mendiguren
Halako **haize** indartsua dabilenean eskribauren bat hil dela esaten zuten antzina. Anjel Lertxundi
Haize nahasiak zebiltzak hemen inguruan. Joan Mari Irigoien
Meseta aldetik datorren **haize** lehorra. Pello Zabala
Itsasoko **haize** umelek dakarkiguten aire fresko euritsutik. Pello Zabala
Mendiko **haizea** amastu nuen. Koro Navarro
Udaldiko **haize** beroa, hezetasunez gainezka datorkiena. Pello Zabala
Haize eme, hozkirriak... Xabier Olarra
Haize hozkirria bainuen, estutasun hartan, lagun bakar. Joan Mari Irigoien
Sargoriaren kontrako **haize** fresko apur bat sentitu zuen. Josu Landa
Kontrako **haizeen** eraginez. Xabier Amuriza
Haize polarra esanda ez dakit antzemango dion gure baserritarrak, ipar beltza deitzen baitio berak. Pello Zabala
Siroko delako **haizea**. Patziku Perurena
Garaian garaikoa ez den **haize** gordin arrotzari berriz **haize** berdea esan ohi zaio. Patziku Perurena
Haize kontinental, gurean frantzi-iparra deitzen dioguna. Pello Zabala
Istriborko **haize** ederra genuela itsasoratu ginen. Koro Navarro
Ekialdetik jotzen zuen **haize** leunak. Agustin Otxoa

Haize arin batek erdi batean zizkion oihalak. Patziku Perurena

Ipar edo iparrekialdetik jotzen duen **haize** latza,sukarra eta erreuma-handitsuak berekin ekarri ohi dituen.

Eguna eguzkitsua eta beroa zen, eta **haize** mehe bat sartzen zen auto barruan. Koro Navarro

Zenbat eta presio-gradientea pikoagoa izan, orduan eta **haize** latzagoa. Pello Zabala

Haize zakar batek jotako ihi herbala balitz bezala. Anjel Lertxundi

Haize zirimolatsu ikaragarria Castevelen, zuhaitzak orpotik bihurritu, atera eta puskatu zituen. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dabil **haize** -punta arinenik ere. Anjel Lertxundi

Ez baitzebilen **haize** -muturrik. Anjel Lertxundi

Ontziak Eolia uharterantz zihoazen atzera, **haize** -ekaitz ikaragarri batek bultzaturik. Juan Kruz Igerabide

Héraclius doktoarearen giltzaria, **haize** bafada bat bezalaxe sartu zen. Josu Zabaleta

Gain hartan **haize** ufako batek hedoiak baztertzten ditu. Michel Oronoz

Airean geldia zegoen usaina harrotu du **haize** -bala batek. Anjel Lertxundi

Haize kolpe ikaragarri baten eraginez. Josu Zabaleta

Bero zakarraren ondotik sortzen den **haize** firfira goxoari. Patziku Perurena

Belatxingak, berriz, **haize** txanpa ttikienarekin jolasean. Pello Zabala

Ordutik aurrera Almak, **haize** -egunetan, Mahlerren kanta jotzen zuen. Felipe Juaristi

Korridore zuzen eta zikinak, **haize** -leku, arbolarik gabeko espaloi luzeekin. Monika Etxebarria

Langile batzuk hilobien inguruetakoa orbela biltzen ari ziren **haize** -xurgagailu batekin. Iñaki Zabaleta

Haize -ponpa eta urtegia ikustera doaz jabegoaren mugaraino. Oskar Arana

Haize -geriza ganduz estalian zehar begiratu behar du Lucyk gidatzeko; Grahamstown-eko bidea hartzen du. Oskar Arana

Aspalditik genuen **haize** tresnaren bat sartzeko gogoia, eta Asier azaldu zenean zorte ikaragarria izan genuen. Berria - Kultura

Hari instrumentuak lehenik, **haize** instrumentuak ondoren, eta butzeko, perkusioa eta arpa. Berria - Kultura

Fanfarre bat antolatu ere bai, **haize** -tresna zalapartari eta kantariekin. Matías Múgica

Haize sekziokoak (saxoa eta tronpeta) eta erritmo gitarrarena. Berria - Kultura

Haize sistema bidezko zabor bilketa gehiago egingo dute Gasteizen. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsas-**haize** edo brisara arratsalderokoa gogoan izanik. Pello Zabala

Izotz **haizeak** erraztatu plazan hitz egiteko premia ankerra piztu zitzaidan. Itxaro Borda

Hego emea ere deitzen diogu, eguzki-**haize** nafar horri. Pello Zabala

Euri **haizea** ere halatsu dator beti bide jakin batetik. Pako Aristi

Baina hego xuabe geldoa, hego puntua menditik behera disimuluan datorrenekoa lur-**haize**, lehor-**haize**, barren-**haize** hori genuke terrala, berez. Pello Zabala

Mendi-**haize** motelsko bat besterik ez dabil. Joxe Austin Arrieta

Zefiro **haizeak** jotzen duen bakoitzean. Juan Kruz Igerabide

·Eta irribarre okertuan halako bozkario bat antzeman nion, barre-**haize** bat. Joxean Agirre

Halako mireспен moduko bat, burla-**haize** batekin nahastuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaixoa edo eria baino hobeki ez ote datozkion mina eta minarekikoa gure baitan joka darabilgun morbo-**haize** honi. Iñaki Segurola

Orduan zer litzateke morboa?: legea hauste hutsaren laineza eta txoro-**haizea** ? Iñaki Segurola

5 (esapideetan)

Norat **haize**, han aise. Aingeru Epaltza

6 (erkaketetan)

Ohartzen zen hartatik ele haiek **haizea** bezain arinak eta iheslariak zirela. Itxaro Borda

7 *haizezkosup_1 izlag*

Eurek badakitela gogoaren izaera odolezkoa dela, edo baita **haizezkoa** ere. Xabier Amuriza

Eurizko eta **haizezko** egundoko ekaitz gogorra. Pello Zabala

Haitz eta **haizezko** lurralde bat zen hura. Juan Garzia

Haize harrizko bihurtzeko, **haizezko** korapilo bihurtzeko. Berria - Kultura

Begiak hertsiz, guztien artean tiratzen zen **haizezko** hari ikusezina mirets nezakeen. Itxaro Borda

Gure eguneroko solasaldiak gehienetan isolamenduaren aurkako manifestu **haizezkoak** baino ez dira. Pako Aristi

8 *haizezkosup_2* (musikan)

Perkusio, korda eta **haizezko** instrumentuen bitartez. Berria - Kultura

Akordeoa eta **haizezko** tresnak baino ez ditugulako. Berria - Kultura

Alan Griffin irlandesa, **haizezko** soinu tresnen joilea. Herria

Erregeek ekarria zidaten **haizezko** melodika baten bila. Juan Kruz Igerabide

Bigarren atalean **haizezko** zortzikotea entzun genuen: Beethovenen [...] Octeto Mi bemol maiorrean, op.103. Berria - Kultura

9 *haize alde adlag* ik *haizealde*.

Bela biak **haize** alde, badian sartzearren. Koldo Izagirre

Oihalak **haize** alde zabaldu eta sarraskia eta haragi festa hasi aurretik alde egin. Joxan Elozegi

Orain dena **haize** alde doakiola ematen du. Fernando Rey

Hasian hasi eta **haize** -alde, egokiera probestea erabaki nuen. Aingeru Epaltza

10 *haize-babessup_1* iz haizetik babesturiko gunea.

Enbarazuan dagoen mendi edo muinoa pasa eta gero, hantxe eguteren, **haize-babesa** nola harrapatzen duen, han bai, hain arin datorren elurra, hantxe beheraka doa, haize-hutsunea topatzen duelako. Pello Zabala

Irlandar baso guztiak bezala, ez zen oso zarratua eta muino baten magalean hazten zen, **haize-babesean** . Joanes Urkixo

11 *haize-babessup_2* (txirindularitzan)

Aldeko haizea eduki zuten etapan eta **haize-babesak** sortu zituen horrek. Berria - Kirola

Aurkako eta alde bateko haizeak jo du eta tropelburuan joan behar genuen **haize-babesak** sortzen baziren atzean ez geratzeko. Berria - Kirola

Haize-babes batek lozorroan harrapatu zuen alemaniarrak eta 7.35 galdu zuen. Berria - Kirola

Haize-babes batean geratzea akats ñimiñoa delako Ullrichentzat. Berria - Kirola

12 *haize beltz* iz

Mendebaldeko haize zakar bortitzari **haize beltza** deitu izan zaion era berean, ekialdeko eguzki haize fin goxo eta ongariari haize xuria deitzen zaio Nafarroa Garaiko nekazal giroan. Koldo Izagirre

haize zakarra. **haize beltza** balitz bezala zabaldu zen Frantziako bazter guztietara menduko nahia. Negua iluntzeetan hasten da, ezarri-zarian, udazkenaren epelaldiak birrintzen, eta horretarako hiruzpalau egunez behin-edo bidaitzen dituen **haize beltz** horietakoa zebilen. **Berria - Euskal Herria**

Behin galdutako ametsak ez direla berreskuratzen, **haize beltzak**, haize izu-eragileak, haize zakarrak eramaten baititu ez jakin nora. **Joan Mari Irigoien**

Haize beltz, haize txuri, nork ikusi dio kolorerik haizeari? Filosofatzeko gogoia beti ukan du euskaldunak. **Javi Cillero**

13 haize bolada

Haize boladarik ez dabil. mimosaren adarrak kulunkan hasi dira itsas aldetik datorren **haize bolada** leunak eraginda. **Patxi Iturritegi**

Kalera irten zelarik, **haize bolada** epel batek bildu zuen eta nekez hartu ahal izan zuen arnasa. **Patxi Zubizarreta**

Haize-bolada hotzak jo zuen gero. **Agustin Otsa**

Trumoi-hots eta **haize boladen** txistuen artean. **Martin Anso**

Gurdiaren estalkia **haize bolada** batek erraz eraman zezakeen airean. **Karlos Zabala**

Baporean eserita gelditu nintzen, uhin edo **haize-bolada** batek eremu fantasmatsu hartatik noiz aterako zain. **Bernardo Atxaga**

Urte berean, abenduaren hasieran, Perpinyà hirian San Frantzisko Paulakoaren komentua hondatu zuen **haize bolada** batek. **Pello Zabala**

Hortan, **haize-bolada** zakarra atera zuen, eta uhinek txalupa jotzen zuten, ia urez betetzeraino. **Elizen arteko biblia**

Beaufort almiranta izan zen, berriz, haizeen indarrak eta **haize-boladak** klasifikatzeari ekin ziona. · Hego **haize bolada** ikaragarriak. **Pello Zabala**

Kalera irten, eta itsas **haize bolada** fresko batek agurtu nau ezkerretatik. **Txillardegí**

· **Haize-boladatxo** bat sentiturik, burua altxatu eta kanpoko atea ixten ari zela ikusi zuen. **Juan Luis Zabala**

· *irud/hed* Sade **haize bolada** fresko bat da, gauzak ikusteko modu desberdin bat, moral burges menperatzailearen beste muturra. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

14 haize-burrunba

Olinpon, jainkoak babesean bizi dira; ez dute **haize** burrunbarik, ez eurijasarik, ez elurterik. **Juan Kruz Igerabide**

Berehala aurkituko nuke babesa ekaitzaren **haize-burrunbatik**. **Elizen arteko biblia**

15 haize eihera haize errota.

Laborariak, karrika hegian punpa eta jauzika hasten ziren, besoak atzoko **haize**-eihera zaharren antzera itzulikatuz. **Itxaro Borda**

16 haize eman (orobat haizeman g.er.) ik behe-rago 33. ik putz 7.

Carmichael jaunak kandelari **haize** eman eta itzali zuen. **Anton Garikano**

Gizon beltz handi batek **haize** ematen zigun bitartean. **Joxan Elozegi**

Eguzkiari **haize** ematen dioten palmondoak. **Felipe Juaristi**

Biriketako hauspoak **haize** emaitetik gelditu zitzaizkion arte. **Joan Mari Irigoien**

Igurtzi harekin begiak, gero **haizeman**, eta sendatuko zaizkio. Baina zuk **haize** eman / eta irentsi egin ditu itsasoak. **Jose Antonio Mujika**

Batetik bestera desfilatzen zuten aireportuan, pasaporteaz **haize** ematen zutela. **Karlos Zabala**

· Burutapen horrek piztutako kolera **haize** eman zidan eskailera azpira ailegatzeko. **Aingeru Epaltza**

Poliziek eta militarrek gogor jokatzten zuten gerrako errautsei **haize ematen** zietenen aurka. **Bernardo Atxaga**

17 haize erauntsi (orobat haizeerauntsi g.er. eta haizerauntsi g.er.)

Haize erauntsiak daraman orbela. **Josu Zabaleta**

Tabernako atea zabaldu zen ostera, oraingoan **haize-erauntsi** gogor batek eraginda. **Anjel Lertxundi**

Berebiziko **haize-erauntsi** batek astindu zuen gero etxea. **Anjel Lertxundi**

Bizpahiru ate- eta leiho-kolpe entzun zen **haize-erauntsiak** behartuta. **Anjel Lertxundi**

Jaunak, ordea, **haize erauntsi** zakarra aterarazi zuen itsasoan. **Jose Antonio Mujika**

Herensuge eta leize, su eta kazkabar, elur eta laino, eta zure esanetara dauden **haizeraunsiek**. **Imanol Unzurrunzaga**

Eta **haizeerauntsi** hark ekarri zuen azken gauza kartela izan zen, "Bost minutuan, egina" idatzirik zuena... **Fernando Rey**

Haize, euri eta elur erauntsiak Kanariar Uharteetan. **Pello Zabala**

18 haize erre (orobat haizerre) haize bero eta idorra.

Afrikatik heldu berria behar zuen **haize** erreak arrain ustel eta zarama hatsa zekarkigun. **Xabier Montoia**

Baina hareazko pistan haizea altxatu da, **haize** errea, eta bafada bortitz batek txanoa eraman dit. beste zazpi galburu sortu ziren, meharrak eta **haizerreak** ihartuak. **Patxi Zubizarreta**

19 haize errota haizeak ibilarazten duen errota.

Besoak **haize** errotaren hegialak bezala, oinak, berriz, ur errotaren gurpilak bezala. **Felipe Juaristi**

Higitu zuen ezpata baterat eta bertzerat **haize**-errotaren hegala baino arinago. Ekaitzek **haize** errotaren beso bat eraman zuten. **Joan Mari Irigoien**

Inozokeria galanta litzateke **haize** erroten kontra borrokan egitea... **Karlos Zabala**

Haize errotentzat osagai elektronikoak egiten ditu. **Berria - Ekonomia**

Gizakiaren ongizateari eta Euskal Herriaren aberastasunari mesede egiten dioten **haize**-errota politikak. **Juan Luis Zabala**

Haize errota xuriek bere hegalean elegantzia zerua zirikatzen bezala dute. **Piarres Aintziart**

Haize-errotentzako palak garraiatzen zituen kamioi bat. **Berria - Euskal Herria**

Haize erroten parkeak. **Berria - Euskal Herria**

· Munduko hirugarren **haize** errotagilea. **Berria - Ekonomia**

20 haize girotu aire girotua.

Berrogeita hamar urteren iraulieran, lodia, handia eta, **haize** girotua gorabehera, lepoko korbataren atzetik izerdika. **Aingeru Epaltza**

Leku jendetsu eta builatsua, **haize** girotuaren arrimora funtzionarioz, etxeoandez eta saltzailez mukuru betea. **Aingeru Epaltza**

21 haize gorri (orobat haizegorri g.er.)

Norteko haize lehorrak hotzari, hormaieza ere deitzen zaionari, **haize** gorria esaten zaio. Hatsa mila puskatan ebakitzen duen **haize** gorri batek. **Patziku Perurena**

Martxoko landareak, garizuma eta **haizegorria**. **Pello Zabala**

22 haize kirri (orobat haizekirri g.er.)

Haize kirriak granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, euri lodi bat zurrustaka jariaraziz. **Javi Cillero**

Euria **haize kirri** bihurtzen zen. **Ibon Uribarri**

Haize-kirri atsegin bat dator hurbiletik, bere betiereko bidea egiten ari den Po ibaiaren aldetik. **Anjel Lertxundi**

Haizekirri iheskorrei egin nien galde, eta hegaztiak batera aire zabal osoak erantzun: [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

Sortaldeko **haize kirriak** bere perfumea hauspotzen du nekropolisean gaindi. **Joxerra Garzia**

22a haize kolpe haize bolada. ik ufada.

Haize kolpe batek kandela itzaltzen duen bezala. **Josu Zabaleta**

Haize-kolpe batek burutik kapela kendu eta belazteraino eraman zion, hartxintzarrezko bidean barrena. **Anton Garikano**

Bat-bateko **haize-kolpe** batek azpikoz gora jartzen du aterkia; autorantz doaz elkarrekin lasterka, baldarki. **Oskar Arana**

Haize kolpe batekin airatu da Hendaian *Moby Docks* izeneko muble edo altzari saltegitiko teilatua. **Herria**

Ahotsa, izan ere, haize-putzaldi baten antzekoa da, entzumenaren bitartez atzematen den **haize-kolpea**. **Santiago Iruretagoiena**

Zer baitetan, **haize kolpe** azaragarri baten eraginez, baso osoa etzaten alde berera, oinazezko intziri batez. Josu Zabaleta

Estalkia sendo loturik egon ezean, tarantasa lehenengo **haize kolpean** geldituko zen aterperik gabe. Nahastuta gogoia nola izaten baitu gela itxi batean luzaroan egon ondoren irten eta haize bortitz eta krudelaren erasoarekin zorabiatzen denak, errealtatearen **haize kolpearekin** alegia. Karlos Zabala

23 haize-kontra adlag

Ontzia **haize** kontra jarri genuen. Koro Navarro

Noroeste jotzen dik, ezin diagu arraun egin **haize** kontra. Koldo Izagirre

Norabide aldera begira jartzen da proa eta, hartara, ia **haize** kontra ere aurrera daiteke. Iñaki Iñurrieta

Bide napurretarik nindoala, **haize** kontra eta hezurretaraino txipatua. Itxaro Borda

Noiz hasi zen nire bizitza **haize** -kontra joaten. Iban Zaldúa

Baita **haize** kontra eta irtzi publikoaren kontra ere. Berria - Mundua

Ondikotz, nik ez dut inoiz luzaz iraun **haize** -kontra. Aingeru Epaltza

24 haize korronte haize-lasterra.

Haize korrontea sartzen zen ate handi zabalduetik. Karlos Zabala

Haize -korronte kaltegarriak nola saihets daitezkeen ikusteko. Santiago Iruretagoiena

25 haize-laster iz aire masa baten higadura jarraitua.

Ez nion arretarik jarri, ustez **haize** lasterren batek oihalen bat mugituko zuelakoan-edo. Josu Zabaleta

Bat-batean **haize** -lasterra sortu eta ilea harrotu zion. Iñaki Mendiguren

Zoru hotzaren gainean etzan nintzen, ate zirriritutik **haize-lasterra** bazebilen ere. Eduardo Matauko

Kaietatik zetorren **haize laster** batek urratu zuen kalea. Koro Navarro

Hego Manhattanetik zetorren **haize laster** hozkirriak lanera zihoazene oinezkoen aurpegi deliberatuak goxatu eta poztu egiten zituen. Gotzon Garate

Pospoloak itzali zizkion **haize-laster** batek. Koro Navarro

Amak erantzuten zion **haize-lasterrek** oso txarrak izaten direla adineko jendearentzat Ni neu erraz erasaten naute **haize-lasterrek** . Anjel Lertxundi

Malins andreari ez zaio komeni **haize-lasterrean** zutik egotea. Irene Aldasoro

Ondo kontuan hartu zuten behar bezain babestua egon zedila **haize-lasterretatik** . Jon Muñoz

Korridoreetan **haize-lasterrekin** hotz handia egiten zuen. Iñaki Mendiguren

26 haize oihal ehun gogorrezko zatia, gehienetan puska josiez osatua, haizeak eragiten dionean ontzia mugiarazteko antolatua. ik bela.

Ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean, hiru masta eta sokateriaz hornitua, lehenengo latindar **haize-oihalak** eta gero txopatik brankara oihalak zituena.

Itxaro Borda

Baita hegan ere, **haize-oihala** hegaltzat harturik. Doi-doi patchwork modura osatutako **haize-oihala** eta lema horiez gain ez du ontziak besterik. Itxaro Borda

Zeren eta untzi on bat duenak untziz egin baitezake, oinez ez ezik, lasterka ere, ur gainean... baita hegan ere, **haize-oihala** hegaltzat harturik. Itxaro Borda

27 haize-orratz kanpandorreetan-eta kokaturik, haizearen norabidea adierazten duen tresna, metalezko atal birakor batek osatua.

Lehenbizi asmatu zuten meteorologia alorreko tresna, haizearen norabidea, haizeen nondik norakoa seinalatuko zuen **haize-orratza** izan zen. Pello Zabala

Benetako Elizaren kanpandorreko **haize-orratzeko** oilar bihurturik. Xabier Ollarra

Eta, jakina, **haize orratz** bat ere behar zen, eta hari loturik, anemometroa, haizearen abiada neurtuko zuena. Pello Zabala

Katua zitzaien **haize-orratz** , katua euri-iragarpen. Pello Zabala

28 haize parpaila telaz edo paperez estaliriko armazoi arin batek osatzen duen jostailua, liztari luze batez aireratzen dena. ik kometa.

Euskara, abertzale mugimenduaren **haize parpaila** bihurtua da, abertzale izateko euskararen jakitea ez delarik jada hain beharrezko. Itxaro Borda

Bigarren **haize-parpaila** aireratuz: bereiz abiatzearen kalteen eta euskararen desagertze larriaren arteko lotura bitxia egin zuen orduan. Berria - Kultura

Horretarako etsai madarikatuaren **haize-parpaila** altxatzen dute: bereiz baldin badoaz etsaiak bidea erraza duke, batera balitz aldiz alderantziz. Berria - Kultura

28b haize tunel hegazkin prototipoen eta kidekoen aerodinamika saiatzeko erabiltzen den tunel modukoa.

Autoa hobetzen saiatzen ari gara, batez ere **haize tunel** berriarekin. Berria - Kirola

29 haize xuri ik beherago 31.

Ekialdeko eguzki haize fin goxo eta ongariari **haize** xuria deitzen zaio Nafarroa Garaiko nekazal giroan. Patziku Perurena

Leiho irekitik sartuta, **haize** xuriak ile bakanak mugiarazten zizkiola. **Haize** xuri batek eguneko beroa ahantzarazi nahi zuen. Aingeru Epaltza

30 haize-zirimola

Haize zirimola izugarria. Pello Zabala

Haize zirimolak harrotu duen itsaso beltza. Felipe Juaristi

Baina hire oihua **haize** -zirimola bezala sartu zaidak gorputzean barrena... Joan Mari Irigoien

Bere burua ikusten zuen, **haize** -zirimolaren begian. Joan Mari Irigoien

31 haize zuri ik gorago 29.

Eta **haize** zuria hasiko da, gainera, haizeak elur hautsa ekarriko baitu. Ikuspegi garai, epel eta leunetik so egingo diozu **haize zuriaren** espektakulari, haizeak elurra bere ohetik astindu, zirimolatan jaso eta, alde batetik bestera daramala, zurrumbilota eragiten duen artean. Berria - Euskal Herria

'Portu eta gordeleku ona izan da beti,' esanen du marinela batek, **'haize zuriak** belaontzien zutabeak apurtu dituenean edo itsaso izoztuak ontzi inguratuaren kroskoa hautsi nahi duenean'. Berria - Mundua

32 haize-zurrumbilo

Dardoz eta lantaz ekiten diote tornadu gisako **haize** zurrumbiloei. Patziku Perurena

Zeren ene ordu arteko bizitza **haize** -zurrumbilo bat bezalakoa izan baitzen. Joan Mari Irigoien

Eta gero berriro beste tupustaldi bat... **haize** -zurrumbiloen artean ohi denez. Joxe Austin Arrieta

33 haizea eman ik gorago 16.

Guztiok mahaian agertzen ginen, eta berak **haizea ematen** zidan haizemaile batez. -Berdin-berdin: **haizea eman** diezaioket nire mahaiko karpetaekin. Xabier Ollarra

Berriro suari **haizea ematen** hasi zenean. Irene Aldasoro

Angiek kafearen keari **haizea eman** zion. Iñaki Zabaleta

· Amak, badakizu, hau eta beste, **haizea ematen** dio... Irene Aldasoro

Epaiak **haizea eman** dio Nafarroako Gobernuari. Eduardo Elizondo

Berezitasunak indartu, hau da, euskalki jakin batean gainerakoetatik banatzen duen zerbait baldin bada, horrexeri **haizea eman** . Koldo Zuazo

34 haizea hartzera

Central Parkera joan ginen **haizea hartzera** . Harkaitz Cano

· Baina, azkenean, **haizea** hartzera bidaltzea erabaki zuen. Antton Olano

Oso ongi zekien hark **haizea** hartzera bidaliko zintuela. Fernando Rey

Baina Manzanoren iskanbilaren ostean, dena **haizea** hartzera joan da berriro. Berria - Kirola

35 haizeen

Haizeen arrosaren bidegurutzean. **Joxan Eloegi**

36 Haizeen Orrazia mug

Donostiako **Haizeen** Orrazian, Elkarri-k antolatutako manifestazioan. eta **Haizeen** Orraziaren zilueteri begira amodioa egin genuen, inoiz egin ez dudana bezala. **Jon Arretxe**

17:30ean abiatuko dira **Haizeen** Orrazitik. **Berria - Euskal Herria**

37 lau haizeetara (118 agerraldi, 19 liburu eta 28 artikulutan; orobat lau haizetara 120 agerraldi, 29 liburu eta 19 artikulutan)

Donatien libertinoa da, bai, berak onartzen du eta **lau haizeetara** aldarrikatzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haiei soinua arinak gora joaten ziren, kea bezala, eta gero **lau haizetara** barreiatzen. **Felipe Juaristi**

Nahi adina mikrofono izan ditu [...] bere gezurrak **lau haizeetara** zabaltzeko. **Joxerra Garzia**

Eta mesedez eskatzen dizut hala jakinaraz dezazun **lau haizeetara**. **Koldo Izagirre**

Lau **haizeetara** zarta zitekeen sumendi birtuala bainintzan. **Itxaro Borda**

Lau errekek, urezkoak, esnezkoak, eztizkoak eta ardozkoak **lau haizeetara** gurutzatzen dute baratze miresgarria. **Aurelia Arkotxa**

- Lau **haizeetarik** heldu dira merkatariak. **Aurelia Arkotxa**

38 mendebal-haize

Astearte osoan ariko du euria, **mendebal haizeak** hiri gainera igorritako hodei lodietatik. **Oskar Arana**

Eta **mendebal haizea** non sortzen den, han ibiltzen da amorratuena, errabiatuena eta ankerrena. **Edorta Jimenez**

Zigortu ditu, bai, eta kanpora bota; **mendebal-haizearen** antzeko arnasaldi gogorrez eraman ditu urrutira. **Elizen arteko biblia**

39 sorgin haize

Ekaitz aurreko sorgin-**haize** zirimolatsua. **Pello Zabala**

Sorgin-**haize** hurakan kutsuko batek hiru errota atera zituen ipurditik. **Pello Zabala**

Sorgin-**haizeak** plastikozko poltsak altxatuko ditu errepideetatik. **Sonia Gonzalez**

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

gaueko haize (11)

haize alde (9); **haize babesak** (10); **haize bafada** (9); **haize bero** (10); **haize beroak** (8); **haize bihurtzen** (8); **haize bolada** (105); **haize boladak** (23); **haize boladek** (10); **haize bortitza** (8); **haize bortitzak** (14); **haize eman** (16); **haize emanez** (10); **haize ematen** (12); **haize erauntsi** (16); **haize erauntsia** (16); **haize erauntsiak** (15); **haize errota** (35); **haize errota** (19); **haize erroten** (12); **haize firfira** (8); **haize fresko** (11); **haize freskoa** (33); **haize hego** (12); **haize hegoa** (13); **haize hegoak** (8); **haize hotz** (22); **haize hotza** (42); **haize hotzak** (24); **haize kolpe** (17); **haize kontra** (18); **haize laster** (8); **haize leun** (16); **haize leunak** (15); **haize pixka** (19); **haize zakar** (15); **haize zakarra** (16); **haize zakarrak** (11); **haize zirimola** (14)

hego haize (40); **ipar haize** (16); **itsas haize** (11); **itsasoko haize** (9)

aldeko haizea (14); **haizea atzeman** (8); **haizea dabil** (9); **haizea eman** (10); **haizea ematen** (9); **haizea eta euria** (10); **haizea hartzera** (22); **haizea sartzen** (8); **haizea zebilen** (15); **hego haizea** (39); **ipar haizea** (10)

ekialdeko haizeak (13); **euria** (8); **haizeak astintzen** (15); **haizeak ekarritako** (9); **haizeak eraginda** (8); **haizeak eraman** (30); **haizeak eramango** (9); **haizeak eramaten** (9); **haizeak gogor jotzen** (8); **haizeak jo** (23); **haizeak jotzen** (25); **hego haizeak** (30); **ipar haizeak** (14); **itsas haizeak** (8); **itsasoko haizeak** (8)

haizearen eraginez (13); **haizearen indarra** (10); **haizearen kontra** (23); **haizearen mende** (8); **haizearen norabidea** (11); **hego haizearen** (12); **lau haizeetara zabaldu** (13); **lau haizetara zabaldu** (13)

haizealde (ETCn 90 agerraldi; corpusean soilik haizalde eta haize alde) 1 iz haizea datorren aldea. ik haize 9.

Ahalik eta hondar busti gehien hartu eta palakadak botatzen genituen **haizaldera**. **Pako Aristi**

2 itsasontzietan, haizeak jotzen duen alboa edo inguruko aldea. anthaizebe.

Haize aldera eduki beharra zegoen, edo bestela, saihetsean joz gero, irauli egingo zen ezinbestean. **Karlos Zabala**

haizealdi iz haize bolada, haize-erauntsia.

Gaueko **haizealdi** zakarren ondoren. **Patziku Perurena**

Hostoa ur-lasterrean bezala, astaputza **haizealdi** batean bezala, hasi da bere azkenera lerratzen. **Oskar Arana**

haizebe iz itsasontzietan, haizeak jotzen ez duen alboa edo inguruko aldea. anthaizealde 2.

Lasta mugitu eta brastateko batean aurrerantz joan zen, **haizebe** aldera. **Pako Aristi**

Kaia inguratzen ari zen bapora handikote baten kiratsa zetorren **haizebetik**. **Lopez de Arana**

- Jaso aingura eta jo dezagun **Haizebeko** irletarantz. **Lopez de Arana**

haizebegi iz haizea dabilen lekua.

Noski, hegoa eta epela beheko txoko eta sakanetan izan ohi da, eta **haizebegi** apartekorik ez den potoloetan. **Pello Zabala**

Non zauden, haizea ere, zuzen-zuzen sartzen da toki batzuetan, **haizebegi** garbi eta enbarazu gabean. **Pello Zabala**

haizebegitxo iz adkor haizebegia.

Eguzki garbitan, **haizebegitxoren** batean asaldatzen zaituena. **Pello Zabala**

haizebelastu, haizebelats/haizebelastu, haizebelasten da ad adkor aztoratu.

Bagenekien Pitxita gure astoa lotzeko ordua zela, **haizebelastu** baino lehen. **Pako Aristi**

haizeberritu, haizeberri(tu), haizeberritzen du ad (gela bateko) haizea berritu, egurastu. ik haizeztatu.

Leiho guztiak zabaltzen ari zen gelak goizeko freskotasunean **haizeberritzeko**. **Koldo Izagirre**

haizebide 1 iz haize-lasterraren bidea.

Artalde argal batzuk zaituzten, baina egur hezezk suen **haizebidean** edukita beti ere, intsektuak animaliengana irits ez zitezen. **Karlos Zabala**

2 haizea ibil daiteken tokia.

Beroa eta **haizebiderik** gabeko lekuak saihestu behar dira. **Berria - Harian**

haizeburu *izond* txoriburua.

Hain naiz ni **haizeburua**, ezen hona aldatu berri dudan elkarrizketak ez baitzidan arretarik emango, baldin eta nire lehengusuak, (ustez) herritar-harrotasun halako batek eta bestearen ihardespren hirukoitzaz ezaxola agertu nahiak bultzaturik, areago azpimarratu ez balu. **Juan Garzia**

haizeerauntsi ik **haize 17**.

haizegailu ik **haizagailu**.

haizegorri ik **haize 21**.

haizekada *iz* haize bolada.

Gertatuak gertatu, eta oztopoak oztopo, egun borobila bertan egon zireneandako, eta elkartasun **haizekada** lau hormen artean diren presoendako eta haien ahaideendako. **Herria**

haizekeria *iz* hantukeria; hutsalkeria.

Espainian beren buruak mundutarrak uste dituzten intelektuaren batzuen **haizekeriak**. **Joxe Azurmendi**
Gizakiaren munduan dena errauts hilkor, iragankorra dela, esan nahiko dizu, *vanitas vanitatum*, haizearen **haizekeria**. **Joxe Azurmendi**

haizeki *iz* haizemailea.

Emakumeak eskuin eskuan **haizekia** zeraman. **Felipe Juaristi**

haizekirri ik **haize 22**.

haizemaile *(orobat haize-emaile g.er.) 1 iz* norbera freskatzeko, eskuaz eragiten zaion zirkulu-erdi modukoa, eskuarki toles daitekeena.

Eta berak haizea ematen zidan **haizemaile** batez. **Xabier Olarra**
Haizemailea atera eta astintzen hasi zen. **Karlos Zabala**
Jarri eta bere zakutik kolorezko **haizemaile** bat ateratzen zuen, idekitzen, bizpahiru hegal ukaldiz bisaia freskatzeko. **Michel Oronoz**
Eta lumazko **haizemaile** bat eskuan. **Juan Garzia**
Sorbaldan kolpetxo bat eman zion **haizemaile** itxiaz. **Lopez de Arana**
Edo **haizemaile** ñirñirkari batzuen itxurakoak, farfaien leuntasunarekin zabalitzen zirenak. **Karlos Zabala**
Mota guztietako bizarrak: pala-formakoak, **haizemaile** -itxurakoak eta mutur-bakarrak, ilegorriak, gaztinkara argiak eta zilarkarak. **Jose Morales**

2 haizagailua.

Goitik zintzilik **haizemaile** zuriak biraka. **Xabier Montoia**
Alferrik ariko da jirabiraka zure gainean sabaiko **haizemailea**. **Joseba Sarrionandia**
Palmondoen azpian, alisioak imitatzen zituzten **haize** -emaileen artean, zorioneko uharte batean geundelakoa ere sinetsiko genuen. **Joxan Elozegi**

haizeman ik **haize 16**.

haizepe 1 (adizlagun gisa)

Oparotasun distiratsu hau **haizepe** puzten da ezin esan ahalako harrotasun eta arrandi batean. **Juan Garzia**

2 haizepean

Haren kapeluaren hegaltzarrak dardaraz zebiltzan **haizepean**. **Askoren artean**

haizeputz *izond* harroputza.

Haizeputzak burumuina dauka! **Ramuntxo Etxeberri**

haizeratu, haizera(tu), haizeratzen du *ad* aieratu.

Barrabilak **haizeratzera** atera. **Pablo Sastre**
Berari leporatu -berak **haizeratu!**- balentriak denak gezurra. **Edorta Jimenez**

haizerauntsi ik **haize 17**.

haizerre ik haize 18.

haizetako 1 iz automobil batean, aurrealdeko beira. ikparabris.

Maldan sartu eta gutxira euri xeheagoa hasi da **haizetako**a bustitzen. **Pello Lizarralde**
Ontzia nekez nola igarotzen zen begira geratu ziren biak, autotik irten gabe, leihoak zabalik, **haizetako** ezin garbiagotik. **Jon Muñoz**
Autoko **haizetako**a garbitu ezinik. **Pello Zabala**
Bat-batean garbigailuak tanta guztiak baztertu eta zirkulu erdi bat eratu du **haizetako**an. **Pello Lizarralde**
Kiroletarako betaurrekoek auto baten aurreko aldeko **haizetako**ak betetzen dituen funtzio berberak bete behar ditu. **Berria - Gaiak**

2 haizetako garbigailu haizetako garbitzeko gailua.

Haizetako -garbigailua martxan jartzen saiatu nintzen, baina alferrik. **Bernardo Atxaga**
Haizetako -garbigailuak dena emanda zeramatzen, eta hala eta guztiz ere aurrealdea lausotua zekusan, euri-jasak desitxuratua. **Migel Angel Mintegi**

3 haizetako-garbitzaile haizetakoak garbitzen dituen pertsona.

Semaforoetako **haizetako** -garbitzaile batek ez zituen nireak bezain begi urrikariak paratuko. **Aingeru Epaltza**

haizete 1 iz haizealdi gogorra.

2003an, gutxienez 3.259 lagun hil ziren eta 3,43 milioi etxerik gabe geratu ziren lurrikaren, uholdeen, lehordeen, **haizeteen** eta elur ekaitzen ondorioz. **Berria - Gaiak**
1658.eko irailaren 3an hil zen Oliver Cromwel, **haizeteak** zuhaitzak erauzi eta teilatuak harrotzen zituen egun batean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Hilaren azken egunetan, orduko 170 kilometroko **haizeteak** kalte handiak eragin zituen. **Pello Zabala**
Ere mu latz batean jarri zara, **haizetearen** jostailu. **Javi Cillero**
Zirrarak uanean uneko astindu gozagarria izan behar du, eta gero aldatzen jakin sentikortasun berrien **haizete**an. **Pako Aristi**
Haizetako bakoitza **haizete**an babes izango da, ekaitzean aterpe. **Elizen arteko biblia**
Bai udaldian beroetatik eta bai negutean hotzetatik babesteko, eurite, elurte eta **haizeteetatik** gordetzeko. **Xabier Kintana**
Haizete bat bezala sartu ziren erresuman, eta etsaiari gibelka eginarazi. **Aingeru Epaltza**
Dardar nengoen hostoak **haizete**an bezala. **Txillardegi**
Elurte eta **haizete** arriskuagatik. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haizete beldurgarriak Kantauri itsasertzean: 125 km orduko ibili zen haizea, behin eta berriz. **Pello Zabala**
Besterik izan zen **haizete** gaizto batek Finisterre aldean menderatu gintuenean. **Edorta Jimenez**
Itsasaldi luze baten ondotik, **haizete** gogor batek jo gintuen. **Patxi Zubizarreta**
Euriaz gain, **haizete** indartsuak ere izan ziren herenegun. **Berria - Euskal Herria**
Haizete bortitzenetako batek 500etik gora zuhaitz sendokote bota, eta hondatu zituen kupidagabe. **Pello Zabala**
Eguraldi txarra; sekulako **haizeteak**; hegazkinak ez zuela Bordeletik irtererik izan. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

Haizete -jakaren poltsikoan utzi zuen deitu nahi izan zuen azken aldian. **Aingeru Epaltza**

haizetsu 1 izond leku batez edo eguraldiaz mintzatuz, haize asko dabilena.

Berdela bai, eguraldi **haizetsuarekin** eta euriarekin gehiago harrapatzen zen. **Joseba Sarrionandia**
Hango klima **haizetsua**. **Joseba Urteaga**
Zaparrada zaratatsu eta **haizetsua**. **Joxe Austin Arrieta**
Elur **haizetsua** ibili zen gero goian-behean hiruzpalau egunetan. **Berria - Kultura**
Baina egun **haizetsuetan** ezin duzu holakorik egin. **Julen Gabiria**
Pasabidera iritsi, atetik irten eta gau **haizetsu** ilargirik gabera atera arte. **Oskar Arana**
1968an, beldurgarritzko ekaitz **haizetsu** bortitz traketsa Madrilen: bi lagun hil ziren. **Pello Zabala**
Gwilymen atearen parean geratu nintzen, eskailera-buru **haizetsuan**. **Koro Navarro**
Azkenean, heldu ginen, irabazle, gailur **haizetsura**. **Koro Navarro**
Arabako Lautada, Agurain ingurua, leku **haizetsua** da. **Berria - Kirola**
Gaua, epela eta **haizetsua** zetorren. **Pako Aristi**
Nik laket dudan egun hego-**haizetsu** horietako bat. **Joan Mari Irigoien**
Goiz-gorri **haizetsu**, arrats euritsu. **Pello Zabala**
Martxo **haizetsu**, apiril euritsu, maiatza gero eguzkitsua. **Pello Zabala**

2 irud

Gizonaren animo **haizetsuaren** eragingarri eta gauzen itxura-aldataile diren indartxo guztiak. **Juan Martin Elexpuru**

haizetxo iz haize boladatxoa.

Haizetxo zoragarri batek jotzen du. **Josu Zabaleta**
Haizetxo leuna dabil. **Eskarne Mujika**
Boladaka sentitzen den **haizetxo**a gai izan dela bezperako lainoak urrutiratzeko. **Bernardo Atxaga**
Badakielako zein **haizetxoren** eta aire beroak eta hotzaxeagokoen fruitu den. **Pello Zabala**
Lo geratu ginen bertan **haizetxo**ak hostoei eragindako kantak kulunkatuta. **Aitor Arana**

haizeztagailu iz haizeztatzeko gailua.

Erraustegia antrazitaz dabil, eta **haizeztagailu** elektriko bat dauka hodietako airea xurgatzeko. **Oskar Arana**

haizeztapen iz haizeztatzea.

Unibertsoa bestelako deituraz, Liburutegia) galeria hexagonalez osaturik dago; galerien kopurua mugagabea da, eta beharbada infinitua; **haizezapenerako** hutsarte handi bana daukate erdigunean, baranda apalez hesituak. **Juan Garzia**

haizeztatu, haizezta, haizeztatzen du *ad* haizea igaroarazi. ik **haizeberritu**.

Hiri-inguruak, egia da, erdiko klasekoak dira; baina espetxea bera modan dago eta ongi **haizeztatuta**; gainera, gorputz-ariketak egiteko aukera asko daude eguneko ordu jakin batzuetan. **Antton Olano**

haizorratz ik **haize 24**.

haizpe (20 agerraldi, 3 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 201 agerraldi) iz haitz azpia; eskuarki haitzuloa, harpea, harkaizpea.

Gai nagusia: Euskal-Herriaren historia, **haizpe** batean aitaxi batek kondatzen haur bati. **Herria**

Basapizti guziek ostape eta **haizpe** babesetara jo dute larriturik. **Patziku Perurena**

Maiz, hotzik handieneko egunetan [...] labeetara biltzen ziren edo **haizpe** eta kobazuloetan apalki babesten. **Askoren artean**

Irurtzungo **Haizpean** arrestatu zuen Rafael Marotok Uritz brigadierra. **Txillardegia**

haizto ik **aizto**.

haizu 1 iz baimena. cf **haizu izan**.

Eta Ernest Hemingwayri Pilar Q-ontzi legez erabiltzeko **haizua** eman. **Edorta Jimenez**

Inori ezelango **haizu**, baimen edo onespen eskatu beharrik gabe Kubaren independentziaren egunetatik hona diharduena. **Edorta Jimenez**

2 (adizlagun gisa) zilegi.

Orai legeak **haizu** uzten duen bezala. **Herria**

haizu izan, *haizuko/haizu izanen 1* da *ad* zilegi izan.

Kristauen gurutze handiak ere ez dira **haizu**. **Berria - Euskal Herria**

Ihizia **haizu** den denboraldia luzatu du gobernu berriak dekretu bidez. **Herria**

Ez baitzen aspaldian apezik ez eta apez gaiik, bereziki katolikorik **haizu** Errusian. **Herria**

Haizu den baino legatz txikiagoak harrapatzen dituztela. **Herria**

Ofizialki **haizu** ez den hizkuntzan tren bat izendatzearekin. **Herria**

Musikariak gituk baina dantza ez zaukuk **haizu**. **Michel Oronoz**

Ez da hori, erratea zilegi izan bekik, ez amodioak merezi duen tratamendua, ez adiskidantzari **haizu** zaiona ere. **Jon Muñoz**

Legez **haizu** da baina ez zen egiten, gaizki ikusia baitzen sindikaten aldetik bereziki. **Herria**

Legez **haizu** den baino hiru aldiz plomu gehiago botatzen zuela lantegi horrek. **Herria**

· Moda berriko libertateak, denak **haizu** izaite horrek. **Herria**

· Gureztat denak **haizu** eta besteri dena debeku ari behar girela? **Herria**

Ateratzen dituzte auto batzu gero eta zaluago joaiten ahal direnak [...] bide edo errebide bihi batean ez delarik hein hortako zalutasunik **haizu**, ez eta **haizu** behar ere!
Herria

Autorik ez **haizu** karraketan! **Herria**

· -Batzuetan halere adixkideen artean, bataio batean edo ezteietan **haizu** zinen, ez? **Michel Oronoz**

2 (zer osagaia -tzea)

Hola mintzatzea **haizu** bada. **Michel Oronoz**

Herriko Etxetan ikurriñarik ezartzea ez dela **haizu**. **Herria**

Irizpide horien arabera, **haizu** da *parkatu, etxia, gogua, egixa, biyek, in, akitia, buria...* idaztea. **Berria - Kultura**

Laborariei **haizu** zaie nahi duten bezala antolatzea. **Berria - Harian**

Legez **haizu** ote da unibertsitatean diru publiko eta pribatua erabiltzea batean? **Herria**

Galdegina du ere Batasuna alderdia **haizu** izan dadin bozaldi hoietara aurkeztea. **Herria**

Frantzia ere hiruetan hogoi presuna edo erakunde ez dira **haizu** heien izenean ezarria den diruaren erabiltzea, ez baita ageri nundik duten diru hori. **Herria**

3 (zer osagaia -tzerat)

Indiaren parte dira, baina berriketan arte, ez ziren misionestak eta komertsantak **haizu** Mishmi horien lurretan ibiltzerat. **Herria**

Legearen arabera, aleman minixtro bat ez da **haizu** gisa hortan elkarte edo presuna xoil baten ganik edozoin alokairirik hunkitzerat. **Herria**

Hauietarik hiru ez dira **haizu** agertzat gobernuaren manuz. **Herria**

Heriotzaz ez da beldur Sokrates filosofoa, eta bere buruaz beste egiterat ez da **haizu**, zeren, berak dioen bezala, "Jainkoek daukatenaren zati bat gara gu". **Askoren artean**

4 (era etorkizunean)

Bideo kamarak **haizuko** dira garraio kolektiboetan, geltokietan, saltegietan eta berdin kulto gunetan. **Herria**

Antxuarentzat hain xuxen, errana izan da orai arte baino % 66 arrain gutiago **haizuko** dutela porturat ekartzea, ttipitze handia zinez. **Herria**

Gisa guziz, ez direla auto partikularrak haradino **haizuko**, hori errana dute garbiki. **Herria**

Bakarrik autobusak dira **haizu izanen** Lurdeko Beguere kirolzelai inguruetaraino hurbiltzea. **Herria**

Garbitzeak **haizu izanen** dira urriaren 30a barne arte. **Herria**

Ez dela frantses herritar bakar bat ere mugaren pasatzera **haizu izanen** autoritatearen, beraz hire baimenik gabe. **Elena Touyarou**

• 5 du *ad*

Dominique Estainouk **haizu** du uraren ibiltzea, herriko ur sargia batetarik, horrengatik hitzarmen bat beharko du izenpetu auzapezarekin. **Herria**

Haizu du gezurra presoak; ez zuk, haatik. **Xabier Montoia**

Zalantza gabe, artistaren irudimenak libertate handiagoak ditu **haizu** bainuzaleen gorputzek baino. **Koldo Izagirre**

hala adlag (ikus behoko konbinatorian hala adizlagunaren agerraldi maizkoenak).

1 hala ere (**11.080** agerraldi, **262** liburu eta **4.100** artikulutan; **ETCn 121.960** agerraldi;) aurreko perpausetik espero denaren aurkakoa gertatzen dela adierazteko erabiltzen den lokuzioa. ik **halere**.

Gosaldu gabe zegoen; **hala ere**, ez zekien goseak zegoen ala ez. **Unai Iturriaga**

Ez zen aurkari perfektoa: **hala ere**, jakina denez, kontatzen diren pasadizoena da perfekzioa, eta ez bizi izaten direnena. **Felipe Juaristi**

Gizon agertu ziren -erantzun zion, eta gaineratu zuen:- **hala ere**, hil aurretioxan, zuri poema hauek erreztatzeko eskatu zidaten. **Xabier Amuriza**

Zikindurik zeukan lumaje berdea; hautsaren azpian, ezagun zuen, **hala ere**, gorri-gorriak zirela hegaletako luma muturrak. **Xabier Amuriza**

Setiatuak zeudenetako batzuek, **hala ere**, lortu zuten inguraketari ihes egitea. **Iñaki Iñurrieta**

Ez nuen ezer sentitu; **hala ere**, pauso bat bera egiteko beldur nintzen, hilobi baten hormak oztopo izango nituelakoan. **Bernardo Atxaga**

Itsas uhinak soilik zutitzen dira ortzi-muga urrunaren eta lehorraren artean; **hala ere**, uhinek laster galtzen dute beren gora-nahia, eta akiturik etzaten dira hondartzan. **Xabier Olarra**

Geroago jakin genuenez, Lajosek ez zituen inoiz irakurri autore haien obrak, edo, irakurri bazituen, oso ere axaetik egin zuen; **hala ere**, obra haienganako arreta eskatzen zigun kartsu, eta gaitzespena agertzen zuen gure ezjakintasunagatik. **Askoren artean**

Ibaia handi samar zetorrela jokatu zen dema haietako bat; **hala ere**, paraje hartan ibaia aski lasaia zen, eta ez zuen ematen arriskurik zegoenik. **Berria - Harian**

Sarri pentsatu diat zuengan eta gau honetan inoiz baino gehiago; **hala ere**, ez dizuet mezurik bidali. **Harkaitz Cano**

Egia da halaber zu desberdina zinela, berez halakoa zinelako edo adintarteak nire begitan desberdin egiten zintuelako, eta ez nukeen zure adiskidetasun hori galdu nahi: **hala ere**, garbi neukan, oso, adiskidetasun hutsa nahi nuela, eta ez inola ere hortik aurrerakorik. **Berria - Gaiak**

Stephenek berak ez du, itxuraz, sentipen espirituaalik batere; **hala ere**, lortua zuen, begi eta esku antzetsuez gainerakook "sakratua" deitzen diogun hori modu materialean ematea. **Patxi Ezkiaga**

Politika hau sekula ez zen berriaz berrikusi; **hala ere**, bi mendetako erromatar bakearen bukaeran Inperioa berriro aztertzen badugu, administrazio-egitura eraldatuta dagoela aurkituko dugu. **Berria - Kultura**

Gauzen usain ezberdinak hartzen ditugu, sudurrerutzen inoiz ikusi gabe; berotasunik ere ez dugu ikusten, ez hotzik begiekien atzematen ahal, ez ahotsik hautematen; **hala ere**, zer guztiok izaera gorputzuna eduki behar dute nahitaez, sentimenei eragiteko gauza baitira. **Berria - Kultura**

Dakizuenez, sufrimenduak eta irainak jasan berriak ginen Filipon; **hala ere**, Jainkoak emaniko ausardiak adierazi genizuen beraren berriona zailtasun handien artean. **Patziku Perurena**

Idazlea ikasketaz eta lanbidez kimikaria zela jakin beharra dago, nahiz Auschwitzeko apopilotzat ezagunagoa den noski jende gehienarentzat: autobiografia, **hala ere**, beste metafora bat baino ez da hemen, erruz erabiltzen bada ere. **Felipe Juaristi**

Bakarlekuak aukeratzen zituen sarri, bere gogoak guztiz Jainkoagana zuzentzeko; **hala ere**, une egokia zela irizten zionean, ez zen nagi lagun hurkoen arazoetan sartzeko eta haien salbazioaren alde saiatzeko. **Felipe Juaristi**

Mihiarekin eginez gero orgasmoak niretzat indartsuagoak dira; **hala ere**, eskuarekin egitea ere gustatzen zait. **Pello Zabala**

Baina ondo bizkorra **hala ere**!, esan zuen Hermannek. **Felipe Juaristi**

Lasai ni, **hala ere**. **Joan Mari Irigoien**

Eta, **hala ere**, hori guztia ez da okerrera. **Karlos Zabala**

Hala ere, zaldun zenez, ezin zuen atzera egin. **Berria - Ekonomia**

Idazten ari garen garaian, **hala ere**, Mendebaldeko munduaren etorkizun politikoa oraindik iluna zen; zeren eta, behatzaile bati ziur iruditu arren batasun politiko hori lehentxeago edo geroxeago etor litekeela era batera edo bestera, **hala ere** ezin baitzen asmatu noiz eta nola. **Juan Luis Zabala**

Hiru hots haietatik lehenbizikoa, aliatuen bonbena alegia, istorio hau hasi baino hilabete bakar batzuk lehenago isildu zen behin betiko **hala ere**, gutariko anitzentzat, hots hura ez zen sekula isildu, eta haren oihartzunek kutsatu egiten dituzte oraindik ere gure ametsak). **Piarres Aintziart**

Daltonismoa, normalean ulertzen den moduan, sortzetikoa izaten da: gorria eta berdea (edo beste kolore batzuk) bereizteko zailtasuna edo (oso bakan, **hala ere**) koloreekiko itsutasun erabatekoa. **Berria - Euskal Herria**

- **Hala ere**, ikusten ez baduzu, zure gaitasun-ezak ez du noski nire testigantza baliogabetzen... **Berria - Euskal Herria**

2 hala-moduz (orobat halamoduz) ez oso ondo, oz oso modu onean.

Hala moduz sendatu zuten eta ohean etzananarazi. **Felipe Juaristi**

Bera ere **hala moduz** zegoela adierazi nion, aldatua ikusten nuela arratsalde harez gero, beste bat ematen zuela. **Bernardo Atxaga**

Aukera eskasa dugu, noski, ebazpena aurkitzeko oraindik ere **hala-moduz** formulaturik dauden auziei. **Juan Garzia**

Lekuan bertan, **hala moduz** hartu beharko zituzten erabakiak. **Rafa Egiguren**

Erdaraz **halamoduz** egiten zuelako, eta hortik jarri zioten ezizena ere, "El Ruso". **Xabier Mendiguren Elizegi**

Prestatzen dizkieten eraztunak eta kutxak faltsuak dira, **halamoduz** egindakoak. **Jon Alonso**

Eta errepideak, **hala-moduz** asfaltatuak. **Xabier Etxabe**

3 hala-moduzko (orobat halamoduzko) izlag ez oso ona, ez oso modu onekoa.

Berak ikusi izan zituen bikote ezkonduak, ez **hala-moduzko** bikote susmagarriak, baizik eta benetako senar-emazteak ziren bikote fidagarriak. **Mirentxu Larrañaga**

Halamoduzko erdibidea aurkitu zuen Andoni Olabek, ez duk uste? **Koldo Izagirre**

Baita Pasaian garai zaharretan kontrabandoan ibilitako makina bat pertsonaia **hala-moduzko** ere. **Harkaitz Cano**

Frantziskoren latina **hala-moduzkoa** zen, Anai Leoni idatziriko autografoak erakusten duenez. **Askoren artean**

Ez dut uste batere ederretsi zuenik nere erantzun **halamoduzkoa**. **Patziku Perurena**

Izenburua **hala moduzkoa** du: Dialektika eristikoa. **Joxerra Garzia**

Gerora jakin zuten hauskortasuna ez zela jainko haren ahuldade bakarra; egonkortasuna ere **hala-moduzkoa** zuen. **Imanol Zurutuza**

Fruta saltzen soldata **hala-moduzko** baten truke. **Harkaitz Cano**

Gauza bat ahaztu zitzaion bertsolariari, eta ez **halamoduzkoa**. **Pako Aristi**

Gorderik daukat oraindik bikuretako baten argazki lauso **halamoduzko** bat. **Juan Garzia**

4 nola edo hala nolabait; ahal den moduan.

Nola edo hala, ihes egiten saiatu nintzen. **Piarres Aintziart**

Nola edo hala, atera da atakatik. **Berria - Ekonomia**

Nola edo hala, noiz konboi militarretan, noiz Estatuaren gurditzarretan, Petersburgera iristea lortu zuen azkenean. **Felipe Juaristi**

Sokak **nola edo hala** askatu, eta anaiak ere oihanean barneratu ziren. **Berria - Euskal Herria**

Zainei **nola edo hala** gain hartuz, bortzekoa luzatu nion. **Juan Garzia**

Barkatu, paparazzi bat naiz, **nola edo hala** irabazi beharra daukat eguneroko ogia. **Juan Garzia**

Behin sartzea lortuz gero, **nola edo hala** moldatuko zen, ez zen esku hutsik irtengo. **Anjel Lertxundi**

Aitari dagokionez, **nola edo hala** konbentzituko dugu. **Juan Garzia**

Azkenean, ordea, **nola edo hala**, lortu zuten kontrolatzea. **Berria - Kultura**

Moldatu naiz, **nola edo hala**, esan behar niona esaten. **Itxaro Borda**

halabehar 1 iz ezinbestea, kausalitatea.

Molde hortan ixuri petrolakia uhainek badabilate harat eta hunat, peza **handika** edo ttipika, nola gerta. **Herria**

Ez pentsa begien argi gardenak ikusi ahal genezan sortuak izan zirenik, ez bernak eta izterrak, oinetan bermatuak, urrats **handika** gailurrak harrapatu ahal genitzan tolestuak izan zirenik. **Xabier Amuriza**

Hara preseski Mary Balester badatorrela... marmaratu zidan, kaian urrats **handika** zanpa-zanpa guregana etortzen zena kokotkaz seinalatuz. **Itxaro Borda**

Itxura guztien arabera, gorputzaren masa **handikako** antolaera zelula taldeen arteko tokian tokiko eragin-trukez gauzatzen da. **Juan Garzia**

handika³ ik handizka.

handikap iz oztopoa.

Handikapik jasan gabe. **Itxaro Borda**

handikapante izond ipar oztopatzailea.

Erakundeek eta instituzioek ordaindu *chargé de mission* parrasta bat pasatu zen gure lurretarik, hizkuntza zakar eta **handikapanteena** zeukan kultura horrekin zer asma aztertzeko. **Itxaro Borda**

handikapatu izond ipar oztapatua.

Ez zuen arra-haurren bilakaera linguistiko **handikapatua** begiko. **Itxaro Borda**

-Bai, erraten zidan ene ironia zozoa tratatuz, badakizu, ez genuen nahi izenez eta izanez **handikapatua** egon zedin. **Itxaro Borda**

handikeria (orobat haundikeria g.er.) iz handitasun gaitzesgarria.

Monarka lotsagabe bat **handikeriaren** gailurretik urkabearen oinetara eramateko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ongintza harrokereiaren bizioa da, arimaren benetako bertutea bainoago; **handikeriagatik** laguntzen da hurkoa, eta sekula ez ekitza on bat egiteagatik bakarrik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

South Kensington Londreseko auzo frantsesa zela esan zuten; Chelsea-ren **handikeriarik** gabea eta merkeagoa, lasaia eta bohemio samarra. **Ramon Saizarbitoria**

Munduko dirudunen bizi moduak **handikeria** baizik ez zuten erakusten. **Ramuntxo Etxeberri**

Ez zen **handikeriarik** haren hitzetan. **Askoren artean**

Ustez **handikeriaren** bat kontatuko zuela, eta barre egiteko prestatu ziren denak. **Josu Zabaleta**

Aho-**handikeriarik** gabe aitortzen du ondarran Turowicz kasetari zintzoak, ez direla Poloniaren urte latz horietan hoben guziak besteren gain eman behar. **Herria**

Mundu honetako **handikeria** hutsaletan. **Imanol Unzurrunzaga**

Munduko **handikeriak** erabat arbiuatu zituen. **Askoren artean**

Handikeriazko amets hantuetan galdurik. **Joan Mari Irigoien**

Xahatoeneko obrak aintzina doatzi, heldu den ekaineko nahi bailuke Ducasse-k Ostape deitu **handikeriazko** hoteleria ideki, 41 hektaretako eremu hortan. **Herria**

handiki¹ iz bere ondasunengatik aginte edo itzal berezia duen pertsona.

Erregea eta Erregina eta **handiki** guztiak. **Askoren artean**

Erromako kuriako beste printze eta **handikien** artean. **Askoren artean**

Zergatik jende xeheak ez du duelorik egiten **handikiak** bezala? **Juan Martin Elexpuru**

Handikien jauregietan. **Askoren artean**

Zu ez zara gorputz ederrekoa, ez duzu jakite handirik, ez zara **handikia**. **Askoren artean**

Horrela **handikien** mesedea irabaziko dut. **Askoren artean**

Demetrio Cantemir, errumaniar **handiki** kristau ortodoxoa. **Iñaki Mendiguren**

Argindarraren bi **handikien** arteko borroka zegoen honen atzean: Thomas A. Edison korronte zuzenaren defendatzailearen eta George Westinghouse korronte alternoaren asmatzailearen artekoa. **Harkaitz Cano**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Handiki jatorrikoa eta osasun gutxikoa. **Askoren artean**

Publikoaren parte bat ikusten nuen, **handiki** jendea, teatro hartan Parisko jostun xelebre baten omenez bildua. **Matías Múgica**

Haien **handiki** itxuraren atzean, nagitasun hitsa hautematen da. **Monika Etxebarria**

Nire boterearekin,-senar, lurjabe eta **handiki** boterearekin-. **Xabier Olarra**

3 (izenondo gisa) bere ondasunengatik aginte edo itzal berezia duena.

Inoiz jaun **handikiek** gonbidatuta, ongi hornituriko mahaian esertzeko ohorea bazuen [...]. **Askoren artean**

Hiriko gizon **handiki**, aberats eta jakintsuenetakoa. **Askoren artean**

Gazte **handiki** eta adeitsu bat etorri zitzaion eta esan zion: [...]. **Askoren artean**

Eta kardinal eta beste elizgizon **handiki** asko ia egunero joaten ziren Frantzisko ikustera. **Askoren artean**

Zerbitzariak **handiki** plantak hartu zituen. **Monika Etxebarria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andere handiki (3); **handiki baten semea** (3); **herriko handikiak** (3); **hiriko handiki** (3); **hiriko handikiek** (3); **moabeko handikiak** (3)

handiki² *adlag* handikiro, handizki.

Handiki biziko zirela biak inozoak engainatuz trikimailuzko dadoez. **Juan Garzia**

lazko udan **handiki** aurkeztu zen proiektuak urtebete eskas irau du. **Berria - Kirola**

Eta **handiki** bururatzeko asmoa du bere 14. edizioa, aitzineko urteetan bezala funtsean. **Berria - Kultura**

handikiro *adlag* handitasunez. ik handiro.

Handikiro ibiltzen zen, pauso luzeak emanaz. **Fernando Rey**

Urteak zeramatzan bere lanetik bizitzen [...] ez **handikiro**, baina bai hainbestean. **Joxe Austin Arrieta**

Munduko ospeak hainbeste goraltxatu zuten gizona, non Enperadoreak berak oso **handikiro** koroatu baitzuen. **Askoren artean**

Santuen izendegian ezarri zuten Frantzisko, aginduz haren festa beraren heriotza egunean **handikiro** ospa zedila. **Askoren artean**

Hileta-prozesioa **handikiro** egiteko, olibondo eta bestelako zuhaitz adarrak hartu zituzten denek eta, kandela ugariaren argitan, gorespenak kantatzen zituzten ahots ozenez. **Askoren artean**

Hemen ez da izarrrik ikusten zeruan -esan dit **handikiro**-. **Javi Cillero**

handikoi *izond* handizalea.

Bizidunak, elkarren irudikoak ginen, **handikoiak** eta burlariak halaber. **Itxaro Borda**

handikoiki *adlag* era handikoian.

Ezpainak **handikoiki** plegatuz. **Itxaro Borda**

handikote *izond adkor* handia.

Dendako jabea gizon **handikote** bat zen, gizona, bizar beltz usukoa eta sudur-kakoa. **Fernando Rey**

Hautzain **handikote** hark. **Fernando Rey**

Bi atezain beltz eta **handikotek** gordetzen zuten. **Hasier Etxeberria**

Edward Mille eskarmenturik gabeko hasiberri **handikote** eta baldarra iruditu zitzaion. **Fernando Morillo**

Neke handiz makurtu du gorputz **handikotea**. **Anjel Lertxundi**

Bere zapata **handikote** botoiez beteei begiratu zien. **Ander Irizar**

Kaian ainguratzen ari zen bapore **handikote** baten kiratsa zetorren haizebetik. **Lopez de Arana**

Eraikin **handikote** argitsu mailakatu batzuk. **Lopez de Arana**

handinahi (241 agerraldi, 63 liburu eta 58 artikulutan; ETCn 1.437 agerraldi; orobat handi(-)nahi ETCn 39 agerraldi) 1 iz handitasun irrika; handikeria irrika.

Gizakia aurrera bultzatzen duen indarrari deitzen zion berak **handinahia**. **Handinahia** da, loriaren Desira neurrigabekoa. **Jose Morales**

Gasztearen **handinahia** kitzikatze eta irudimena ernatzeko bakarrik esan zion hori guztia. **Jose Morales**

Dedalok ez zuen jarri bere langintza inolako ideologiaren, inolako **handinahi** pertsonalen zerbitzura. **Juan Garzia**

Ez zuen akuitatzen ez **handinahiak**, ez diru-goseak, ez besteak imitatu nahiak, lan egiten zuen etsirik zegoelako hor eta ez beste inon zerbitzatu behar zuela, horretarako eman ziotela bizia. **Jose Morales**

Handinahirik gabeko jakintsu honek berehalakoan sentiarazten zuen jendea eroso. **Monika Etxebarria**

Indurain beraren izateko modu apalak, **handinahirik** gabeko jarrerak, zintzotasunak, finean. **Berria - Kirola**

Ez ote du, azpi-azpian, gutiuste ilunen bat gordetzen **handinahi** horrek? **Patziku Perurena**

• 2 izond handitasuna bilatzen duena; handikeriaren zale dena. ikhandizale.

Apalenak, berriz, gizajo hutsak ziren, edo hipokrita **handinahi** errukarriak. **Juan Luis Zabala**

Baina itxura apal haren azpian arima **handinahi** bat gordetzen zen. **Alberto Ladron Arana**

Programazio artistiko **handinahi** eta erakargarri baten aldeko apustua. **Berria - Kultura**

Etorbide **handinahia** eraiki dute, sona handiko arkitektoek diseinaturiko eraikinez bete. **Berria - Kultura**

Greziar fanarioten gurari **handinahi** hori. **Iñaki Mendiguren**

Seigarren mendeko abenturazale helenikoen ametsik **handinahienak** erraz gainditu zituen. **Iñaki Mendiguren**

Bati baino gehiagori **handinahia** iruditu dakioko asmo hau, oso-osorik hartzen baitu liburu batean azaltzeko aukeran liburu espezializatu askotarako gaia izango litzatekeena. **Josu Zabaleta**

Bati baino gehiagori **handinahia** iruditu dakioko asmo hau, oso-osorik hartzen baitu liburu batean azaltzeko aukeran liburu espezializatu askotarako gaia izango litzatekeena. **Josu Zabaleta**

Hainbestearinoko nekea alferrik hartu izanaren amorruek bizi du Garibai, etsipena hartzen hasita dago, **handinahiegi** jokatu izanak damutzen du. **Anjel Lertxundi**

3 (izan aditzarekin)

Handinahia zen Frantzisko, eta diruari nobleziaren ospea gehitu nahi izan zion. **Askoren artean**

Ezkontzekotan nagok, baina emaztegiaren gurasoak oso **handinahiak** dituk. **Jose Morales**

Astean bederatziz groshen irabazten zituen maisu-laguntzaile bat, nola ausartzen zen hain zorrotza eta **handinahia** izaten? **Koro Navarro**

Alferrikako biolentzia dago, pertsonaia ustez sakonen arteko solasak **handinahiak** dira eta amaiera aurretik aise igartzeko modukoa da. **Berria - Kultura**

"Harreman arriskutsuak" beraz militar etsi eta gogaitu baten obra **handinahia** da. **Jon Muñoz**

Helburu **handinahia** zen, baina denbora zegoen, eta gogoia eta ilusioa ez zen falta. **Berria - Kirola**

4 (izen gisa)

Eta **Handinahiak**, aldiz, ez du deusik desiratzen loria bezainbat, eta ez du deusek izutzen ahalkeak bezainbat. **Piarres Xarriton**

Petersburgera joan zen, **handinahi** guztiek ohi duten bezala. **Jose Morales**

4 handinahiko izlag handinahia, handizalea.

Bagenekien zibilizazioek kolapsoak izan zituztela iraganean, eta Mendebalde modernoko gizakiak eraikitako etxe-orratz **handinahikoak** pitzadura beldurgarriak zeuzkala orain. **Iñaki Mendiguren**

Alferkeria gozo batean bizi ziren, halako bizimodu garesti, korapilatsu eta **handinahikoan**. **Ander Irizar**

Higuin baitzuten hark [Zeusek] gizakiak, **handinahikoegiak** eta ustetsuegiak izaki haren gusturako. **Juan Garzia**

handinahikeria iz handinahi gaitzesgarria.

Horren bidez Kristoren jarraitzaileari ohore eta gorazarre iragankorrak mespretxatzen irakasten baitzaio, **handinahikeria** eta harropuzkeria zapaltzen eta itxurakeriaren iruzurra baztertzen. **Askoren artean**

Piztia ilehori honen gerra-zaletasunak, saldukeriak eta **handinahikeriak**. **Iñaki Mendiguren**

Handinahikeriarik gabe txikitasetunetik abiatu da Borda. **Berria - Kultura**

Indietako ontziak txikiak ziren, eta greziar eta erromatarrenak, **handinahikeriak** eginarazi zizkien ontzitzarrak alde bat utziz gero, ez ziren gureak bezain handiak. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dut **handinahikerietan** sinesten, teoriaren gainetik, praxia nahiago izan dudalako beti. **Txema Ramirez de la Piscina**

Handinahikeriaz jokatzeko kaltegarria izan liteke. **Berria - Kirola**

handios (orobat handioso g.er.) hantustetsua.

Bai, gaixo soldadoak, izan ziten frantses edo aleman, frangotan behargabe hilak aintzindari **handios** batzuren urgulua asetzeko! **Herria**

Handiosa, ahalguztiduna, antzinako Jaingo baten jaiotza laguntzeko sortua balitz bezalakoa. **Alberto Ladron Arana**

Gorrotu zion imintzio sutsu eta **handios** haiengatik. **Anton Garikano**

Kristautasuna kristautentzat utopia bat dela, utopia **handios** bat. **Piarres Xarriton**

Igan nuen eskailera hau, eta handik eliza behatu nuen, zinez hits eta **handiosa**. **Koldo Izagirre**

Handik bertatik abiatzen zen halako bide **handios** azpia harlauzez egoki estali batean zehar. **Josetxo Azkona**

Adinean aurreraturik, ordea, ez zuen eragozpenik jarri kristau mediku zahar bat, bizar **handios** eta gogoi-luna, senartzat hartzeko. **Juan Garzia**

handioskeria iz hantustekeria.

Kapitelik eta astragalarik ikustatu nuen, frontoi hiru-ertzik eta bobedarik, granitoaren eta marmolaren **handioskeria** lausorik. **Juan Garzia**

handiputz izond adkor harroputza.

Fat Swanson **handiputz** hori. **Lopez de Arana**

Ez dut birjina **handiputzik** nahi neure inguruan. **Lopez de Arana**

Baina zabartzen dena, harroxko edo **handiputz** bihurtzen dena, patuaren opariak umil onartu ezin dituen [...] akabo, horrenak egin dik. **Xabier Olarra**

Akitua zen mintzaldiez, barnez hutsak ziren ele **handiputzen** entzuteaz ase. **Elena Touyarou**

Jaunak zeharka begiratu zidan eta barrez hasi zen, hots pixka bat atereaz oraingoan, itxura **handiputz** eta erretxinaz. **Monika Etxebarria**

handipuzkeria *iz adkor* harropuzkeria.

Orain[...] konturatzen nauk **handipuzkeria** hura, itxialdi hura eta bakartze hura zenbaterainoko umekiak izan ziren. **Xabier Olarra**

Beren lotsagabekeria eta **handipuzkeria** arriskuan jarri gabe. **Xabier Olarra**

Bai, **handipuzkeria** hutsa duk... eta , hala ere, duintasun hori duk giza bizitzaren edukirik sakonena. **Xabier Olarra**

handipuztasun *iz adkor* handiputza denaren nolakotasuna.

Bere begie ez ikusi ez duenak nekez sinets badezake ere zenbaterainokoa den Juan Inazio Iztuetaren **handipuztasuna**, zure adimen zoliak aise ulertuko du bertsook ezkutatzan duten arriskua, eta zure aginpide ezin zuzenagoak bitarteko guztiak jarriko ahal ditu gipuzkoarren arima osasuntsu gordetze aldera! **Anjel Lertxundi**

handiro *adlag* handiki. ik handiroki.

Karlos Setimoren santu-eguna anaiaren ondoan, eta Lizarran, **handiro** ospatzekotan omen zetorren Alfonso Carlos. **Txillardegi**

Txirritaren ezkontza **handiro** asmatu hartan bezala, zezenak erruz azaltzen dira euskal ezteietan. **Patziku Perurena**

-Nik diamaat behar duan adorea -erran zuen Erregek **handiro**. **Juan Garzia**

Handi izatea, benaz, ez da zirkinik ez egitea zio handirik ezean, baizik **handiro** aurkitzea lehia-gaia huskeria batean, ohorea delarik jokoan. **Juan Garzia**

handiskula *iz adkor* letra larria.

Alabarekin hizketan ari nintzela, konturatu nintzen "maiuskula" eta "minuskula" edo "letra larri" eta "letra xehe" ordez **handiskulak** eta "txikiskulak" erabiltzen dituzuela, eta, egia esan, nik ez nituen hitzok ezagutzen. **Joxerra Garzia**

-**Handiskulak** eta txikiskulak bereizten ikasi dugu gaur, ama. **Joxerra Garzia**

handitasun (*orobat haunditasun g.er.*) 1 *iz* tamaina handikoa izateko nolakotasuna.

Gurago dut kalitatea **handitasuna** baino. **Jon Arretxe**

Mendi garaiak, itsas uhin erraldoiak, ibaien korrante zabalak, ozeanoaren **handitasuna** eta izarren itzuliak mirestera. **Imanol Unzurrunzaga**

Hiriaren **handitasuna** eta hiritarren ugalketa amaitezina ikusirik etengabe gehitu beharko da etxeen kopurua. **Santiago Iruretagoiena**

Iluntasuna eta **handitasuna** bateratzen dituzten eraikin erraldoi horietako bat zen. **Koro Navarro**

Izagarri handiak ziren, benetako diganteak, baina bere gorputzaren **handitasun** berbera zeukan inozentziak. **Bernardo Atxaga**

Gaizteak zeuden bularrei esnea joan zaie eta bularretakoaren **handitasunean** galdu dira. **Eider Rodriguez**

Parisen egon baitzen eta Parisiko **handitasunarekin** liluraturik itzuli baitzen. **Joan Mari Irigoien**

Gure herrialde honetan **handitasun** mugarik gabea nahiago baitute gauza guztiak, hala mendiek, oihanek eta estepek, nola aurpegiak, ezpainak eta oinek. **Jose Morales**

Giza garunaren berezitasun harrigarrietako bat lobulu frontalen **handitasuna** da. **Xabier Olarra**

Amerikar defiziten **handitasunak** eta defizit haiek txikiagotzeko zailtasunak [...] maila ezezagunetarako eraman zuten trukeen eta tituluen merkatuen egongaitasuna. **Koro Navarro**

Aktiboen prezioen erorikoak, banku-balantzen hondamenaren **handitasuna** agertu dute. **Koro Navarro**

Zeren eta **handitasuna** eta tipitasuna ez baitira tamainaren arabera neurtzen, baina ateen zabaltasunaren arabera. **Joan Mari Irigoien**

2 tamaina.

Deskribapen honek organoen egitura hartzen du gaitzat (hau da, euren forma, euren **handitasuna**, euren kopurua eta euren kokapena espazioan). **Xabier Arregi**

Gauza singularren berezitasun xeheak (hala nola kolorea, **handitasuna** etab.). **Piarres Xarriton**

3 gorabehera edo ontasun handiko izateko nolakotasuna.

Baina sentitzen al duzu unibertsoaren **handitasuna** ? -galdetu nion. **Xabier Olarra**

Soinu txikiaren **handitasuna**. **Berria - Kultura**

Handitasun gaitzekoa da hemen ikuskizuna. **Koldo Izagirre**

Holandarrak, bere abileziaren **handitasuna** erakutsiz, [...]. **Felipe Juaristi**

Nahikoa da Leizarragaren itzulpenari begiratu arin bat ematea haren lanaren **handitasunaz** jabetzeko. **Koldo Zuazo**

Eta itsutua nengoen festa haren **handitasunarekin**. **Joan Mari Irigoien**

Sakrifizioak bere **handitasun** guztia galtzen du, parodia bat edo suizidio bat baizik ez baldin bada. **Josu Zabaleta**

Kontsidera Frantzisko apalaren bertutearen **handitasuna** Jainkoaren begien aurrean. **Askoren artean**

Jainkoa goretsiz eta haren **handitasuna** ospatuz. **Jose Antonio Mujika**

Bihotzeko **handitasuna**. **Jose Morales**

Erromatarrek beren **handitasunaren** gorenean zeuden garaian. **Iñaki Iñurrieta**

Inperioak buruzagiaren **handitasunari** esker irau zuen. bakardade hori baita sortaldeko erregeen **handitasunaren** parte handi bat. **Iñaki Iñurrieta**

Denetik ezagutu diat bizitzan, bakea eta gerra, miseria eta **handitasuna**, hi bezalako koldarrak eta ni bezalako harroak, borroak eta itunak. **Xabier Olarra**

Handitasuna behar da, bestearen **handitasuna** aitortzeko. **Joxe Azurmendi**

Eta euren Eliseoko Landak hornitzen dituzten santuetan, aurkitzen al duzue **handitasunik**, heroismorik edo bertute eredurik? **Juan Martin Elepuru / Bego Montorio**

Nehon ez dut ikusi Neptuno zaharra halako indarrez, bozkarioz eta **handitasunez** inarosten Zibele zaharra. **Koldo Izagirre**

Gauza handiez eta jasoez **handitasunez** eta jasotasunez behar da hitz egin. **Joan Mari Lekuona**

4 (izenodoekin)

Handitasun gaitzekoa da hemen ikuskizuna. **Koldo Izagirre**

Herri honetan denak zeukan **handitasun** ilun eta berezia. **Koldo Izagirre**

Handitasun ikaragarri haren eztanda besterik ezin nuen ikusi. **Koro Navarro**

Autokontzientzia horretan datza gizon-emakumeen **handitasun** paregabeari. **Askoren artean**

Apaldurik geratzen naiz haren esanahiaren arazo larriaren aurrean, nire arimako begiak behar bezala ditut, hitzaren **handitasun** txundigarria begiztatzeko beldurrez. **Xabier Olarra**

Ikuslea ohitua dagoen baino **handitasun** edo distira handiagoa duena. **Xabier Olarra**

Espazioa **handitasun** jakin amaigabe gisa errepresentatzen da. **Ibon Uribarri**

Munduaren **handitasun** amaigabea. **Ibon Uribarri**

Begiespen oro **handitasun** hedatua da. **Ibon Uribarri**

Ez da eroso sentitzen Florentziako **handitasun** kosmopolitan. **Xabier Olarra**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honen adibidea izan daiteke objektu materialen eremu bat, zenbait ezaugarri fisiko egiaztagarri dituztenak eta baina hautemangarriak diren **handitasun** -harremanak ere.

Xabier Arregi

Jendea gezur gabetzeko botikarik asmatuko balu medizinar, akabo gure **handitasun** uste guziak! Patziku Perurena

Hau ez da gertatzen edozein **handitasun** -erarekin, baizik guk hedatuak bezala errepresentatzen eta atzematen ditugunekin. Ibon Uribarri

Analogiak bi **handitasun** -hartuemanen berdintasuna adierazten duten formulak dira. Ibon Uribarri

Enperadore bihurtu zen, eta horri **handitasun** -mota berri bat emateko, mundua handitu egin zen, eta mundu berria agertu zen haren mende. Iñaki Iñurrieta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Belarri **handitasuna** du ezaugarri. Xabier Olarra

Ez zen hura bezain noblea jatorriz, baina txiki uzten zuen bihotz **handitasunean**. Askoren artean

Arima **handitasun** horrek errotik gatibatzen nau. Itxaro Borda

Ezin ulertu izaten du inoren gogo-**handitasunik**, apartekotasunik. Joxe Azurmendi

Zerrendan norbera non den lehenbiziko lekuan, / hura nahi du **irizpide** handitasun kontuan. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerpenaren **handitasun** (3); erromatarren **handitasunaren** (4); **handitasun hedatua** (6); **handitasun hedatuak** (3); **handitasun hedatuaren** (3); **handitasun intentsiboa** (12); **handitasun jarraitua** (3); **hiriaren handitasuna** (4); **jainkoaren handitasuna** (7); **jaunaren handitasuna** (4); **munduaren handitasunaren** (3); **osoaren handitasuna** (4); **ttipien handitasuna** (4); **txikiaren handitasuna** (3)

handitsu 1 iz handitu mamitsua.

Bat-batean **handitsu** bat sortu eta hazi balitzait bezala, korapilo baten herstura sentitu nuen erraietan. Joan Mari Irigoien

Eta erraietan nuen **handitsua** errotik atera nuela iduritu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Zauritu eta berehala, **handitsu** bat eta sukarra izan zituen Gagek lobulu frontaletan. Xabier Olarra

Ipar edo iparrekialdetik jotzen duen haize latza,sukarra eta erreuma-**handitsuak** berekin ekarri ohi dituen. Patziku Perurena

• 2 izond handia.

Ile beltz luze ederra, ikatz puxka pareta ziren begiak, ezpain **handitsu** baina ez larregizkoak, dena berdina. Xabier Montoia

Eta zein inonazio **handitsu** eta eztiz melatua erabiltzen zuen ideiarik txikiena adierazteko ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

handitu¹, handi(tu), handitzen (ETCn 48.782 agerraldi; orobat haunditu ETCn 422 agerraldi.) 1 da/du ad handi edo handiago bihurtu. ik handiagotu.

Sabela hazi zitzaion, zangoak eta oinak **handitu**. Askoren artean

Begiak logurez **handituak**. Karlos Zabala

Begiak neurritz goitik zabalduak, begi-niniak **handiturik**. Josu Zabaleta

Zainak **handitu** egiten zitzaizkion. Pablo Sastre

Lotsatuta zegoen eta izerditan, eta zakila **handituta** zuen berriro. Joseba Sarrionandia

Eztarria oso **handituta** zeukan. Lopez de Arana

Pankrea **handituta** duela diagnostikatu diote Basurtuko ospitalean. Berria - Euskal Herria

Esku leunez kolpe txikiak emanda **handituz** joan zen gantz pila. Karlos Zabala

Ontziaren sotoak **handituko** ditut zure sos hauei esker, aurrerapenak merezi baitu hainbeste. Anjel Lertxundi

Aireportua **handitzeko** proiektuaren aurka. Berria - Euskal Herria

Bioteknologiak herrialde industrializatuen eta herrialde pobreen arteko leizea **handitu** aurretik.Taldea ez zen **handitu**. Berria - Gaiak

Schkopau-ko fabrikara bidali zuten, zeinaren kopia **handitu** bat baitzen Auschwitzeko fabrika. Juan Garzia

Gero eta haur gehiago dituzte, baina ez diete oraino ikastetxea **handitu**. Berria - Euskal Herria

Mundua **handitu** egin zen, eta mundu berria agertu zen haren mende. Iñaki Iñurrieta

1798-an, Haut-Rhin departamendua **handitu** zuten Mulhouse hiria Frantziak bereturik. Herria

Aurten dena den, Sokoa azkarki **handitu** da eremuz. Herria

Fustearen diametroa ere neurri berean **handitu** beharko da. Santiago Iruretagoiena

Itzala **handituz** doan heinean. Josu Zabaleta

Ez da zehazten, alegia, noraino **handitu** daitekeen distantzia hori. Lourdes Oñederra

Hainbestearino **handitu** zen burrunba non ez baitzidan hitzik aditzen. Koro Navarro

Motorraren azantza **handituz** zihoan aldi honetan. Aurelia Arkotxa

Petrolioazko kriseiluaren argia **handitu** genuen, eta inguruan eseri ginek denok. Juan Kruz Igerabide

Mina ez zaio oraindik lepotik joan eta **handitu** egin du dosia. Hasier Etxeberria

2 (adinean)

Andreak kokotsa hartu zion, sarritan egiten zuen bezala, mutila **handitu** zela ikusi gabe. Karlos Zabala

Handitu zenean [Moises], Faraoiaren alabari eraman zion eta honek semetzat hartu zuen. Jose Antonio Mujika

3 (ura: ik handi 19)

Handitu eta zahartu egiten dituk, baina heldu? Anton Garikano

San Migeletan zen, itsasoa izugarri **handitua** zegoen. Koldo Izagirre

Ertzeraino **handitua** etortzen da beti Jordan ibaia urte sasoi horretan. Jose Antonio Mujika

Handituxe zetorren ibaiari begira. Pablo Sastre

4 (gauza abstraktuak)

Anaien kopurua **handitu** zenean. Askoren artean

Arriskuaren ondorioz gerta daitekeen kaltea gertatzeko probabilitatea **handitu** egiten omen da. Iñaki Heras

Handitu egin dira arazoak dituzten estatuei laguntzak emateko aukerak. Koro Navarro

Hots-uhinaren maiztasuna **handitu** ahala, hotsa garaiagoa irudituko zaigu eskala musikalean. Lourdes Oñederra

Estatuaren atalak zein bere autoritatea **handitu** nahian ageri zaizkigunean. Iñaki Iñurrieta

77 herrialdetatik 45etan desberdintasuna **handitu** egin zen, eta 16 herrialdetan, aldiz, murriztu. Iñaki Heras

Banku haueetako negozioaren garrantzia ehun aldiz **handituko** dela. Pello Salaburu

Arrakasta egunetik egunera **handituz** doanez. Iñaki Iñurrieta

Isunak **handituko** dituztela. Berria - Ekonomia

Ezingo dio magistratu batek legezko zigorra **handitu** hiritar gaizkile bati, erantzukizuna, onura publikoa, edo beste edozein aitzakia hartuta. Juan Martín Elexpuru

Martinen hitz haiek **handitu** egiten zuten nire egiten ninduten. **Bernardo Atxaga**

Haren kemena, haren adorea hamar aldiz **handitu** zen arriskuaren aurrean. **Karlos Zabala**

Murriztu **beharrean**, handitu egin da gosea munduan. **Berria - Gaiak**

Aitaren sumina **handituz** zihoan egunetik egunera, kondenatuak hiltzeko eguna hurbildu ahala. **Fernando Rey**

Ezin mugituak ere **handitu** egiten du tentsioa. **Agurtzane Juanena**

Ikusi zuen Jainkoak **handituz** zihoala munduan gizakiaren gaiztakeria. **Elizen arteko biblia**

Herriarengan menpekotasun-sentimena **handituko** luketen nabarmenkeriek. **Juan Martin Elexpuru**

Makinaren ulermen gaitasuna **handitu** nahian. **Lourdes Oñederra**

Horien iharduteko ahalmena edo existitzeko indarra **handitu** edo tipitu, lagundu edo murriztu baita. **Piarres Xarriton**

Irabaziak %49 **handitzea** lortu zuen Gamesa taldeak 2003an. **Berria - Ekonomia**

Hirugarren gauza bat azkarki **handitu** zaiguna 25 urte hauetan, zerbitzuen sektorea. **Herria**

Berotegi efektuko gasen emisioa ez zen **handitu** 2003. urtean. **Berria - Euskal Herria**

Lasterrago **handitu** baitziren salgaien prezioak fabrikazio-kostuak (soldatak eta lehengaiak) baino. **Koro Navarro**

Pentsioak %2,8 **handitu** dituzte aurten Hego Euskal Herrian. **Berria - Ekonomia**

14 milioi eurotan **handituko** dira hezkuntza eta euskararen aldeko partidak. **Berria - Harian**

Merkatu kuota **handitzeko** bildu dira Europako telefonia enpresa nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Hiru urtean %218 **handitu** da gure aurrekontua. **Berria - Harian**

Inflazioa %0,7 **handitu** zen Hego Euskal Herrian iragan hilabetean. **Berria - Ekonomia**

Eurotan dituen atzerriko diru erreserbak **handituko** dituela iragarri du Errusiako Banku Zentralak. **Berria - Ekonomia**

Iaz Barne Produktu Gordina %2,4 **handitu** zen EAEn. **Berria - Ekonomia**

Inportazioak ere **handitu** ziren, baina zerbait gutxiago: %10,7. **Berria - Ekonomia**

Produktzio hazkundea %43 **handitu** denean industriagintzako enpresek %25 gutxitu dute isurtzen duten CO2a. **Berria - Euskal Herria**

Salmentak %4,6 **handitu** ziren. **Berria - Ekonomia**

Realak bere kapitala **handitu** nahi du. **Berria - Kirola**

Gerra zela-eta, profesional bihurturiko gudarosteak mantendu eta hornitu beharrak izugarri **handitu** zituen gastuak. **Koro Navarro**

Langabezia **handitu** egin da eta sortzen diren lanpostuak maila txikikoak dira. **Berria - Ekonomia**

Nazioartekoturiko ekoizpenak munduko BPGean duen pisua [...] **handituz** joango da. **Koro Navarro**

5 (hitz elkartuetan)

Aurpegiaren azala horituta, begiak zulo-**handituta**. **Felipe Juaristi**

Joan zen ur gazizko tanta bakar batez, ibai ur-**handitu** zuen tanta txiki-txiki eta izartsu batez. **Felipe Juaristi**

6 (era burutua izenondo gisa)

"Nor ote da orain?", pentsatu du, betondo **handituak** ur hotzez freskatzen dituela. Bere hatz **handituekin**, lits aberatseko oihal zetazkoaren makila urreztatuari eusten zion. **Patxi Iturritegi**

Bular **handitu** hauek lehertzeko zorian baititut. **Patxi Zubizarreta**

Jostailu bat itsaso **handitu** hartan biraka, lema ezin zuzendurik. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalmena handitu (5); **aldea handitu** (25); **arriskua handitu** (14); **asko handitu** (17); **azkarki handitu** (5); **begiak handitu** (5); **ekoizpena handitu** (10); **ekoizpena handituko** (5); **eragina handitu** (5); **eskaintza handitu** (5); **eskaria handitu** (7); **gehiago handitu** (11); **gehien handitu** (6); **ikaragarri handitu** (6); **izugarri handitu** (21); **kontsumoa handitu** (5); **kopurua handitu** (46); **kopurua handituko** (5); **kopurua handituz** (6); **laguntzak handitu** (6); **nabarmen handitu** (21); **nabarmen handituko** (5); **produktzioa handitu** (8); **tartea handitu** (10); **asko handituko** (7)

ahalmena handitzen (15); **aireportua handitzeko** (10); **aldea handitzeko** (5); **aldea handitzen** (13); **arriskua handitzen** (30); **ekoizpena handitzeko** (11); **etengabe handitzen** (8); **handitzeko asmoa** (11); **handitzeko asmoz** (8); **handitzeko aukera** (14); **handitzeko baimena** (6); **handitzeko proiektua** (5); **handitzeko proiektuak** (8); **handitzeko proiektuaren** (7); **handitzen edo tipitzen** (10); **irabaziak handitzeko** (7); **kopurua handitzea** (22); **kopurua handitzeko** (16); **kopurua handitzen** (14); **nabarmen handitzen** (7); **segurtasuna handitzeko** (5); **urtegia handitzeko** (14); **zentralak handitzeko** (7)

handitu² 1 iz handiturik agertzen den gorputz zatia. ik**handitsu**, **hantura**.

Lupe haurdun dago eta jada hasia zaio nabaritzen **handitua**. Ahozabalik geratu da: larrugarrian nago bere aurrean! barregura puxkat eman dit jarri duen inozo aurpegiak, baina haren kirol-praken azpian antzematen den **handituak** ondo goazela adierazten dit. **Hasier Etxeberria**

2 (kolpe edo gaitz baten ondorioz)

Hirugarren egunerako kopeta osoa **handituz** beteta genuen denok, ate hartatik igarotzean, apalegia baitzen, goia joz eta joz. **Josu Zabaleta**

Gaixotasun [...] horrek **handitu** marroixka eskergak eta azal zati puztuak eragin ditzake. **Xabier Olarra**

Baina etxolek ezin babestu gaueko eltxoetatik, eta larruzala pikortez eta **handituez** estalita esnatzen ziren goizean. **Karlos Zabala**

Legendunak garbi gelditzen dira, hidropikoek **handitua** galtzen dute. **Askoren artean**

handitxo *izond* adkor aski handia. ik**handixko**.

Neska-mutil talde **handitxo** bat zela. **Koldo Biguri**

Handitxoa da eta zu ez zara bere ama, zu ez zara bere ezer. **Lourdes Oñederra**

-Hamahiru umeren aitari gizonetako batek mosua emotea **handitxoa** dok, izan be. **Xabier Amuriza**

-Kasualitate **handitxoa**! -esan zuen mesfidati neskak. **Juan Luis Zabala**

Amorru bizian, santuari heldu eta **handitxoak** esan dizkio, eman dizkio zartada ederrak altzari eta hormen aurka, eta bota du azkenik leihotik behera. **Pako Aristi**

Gainera, 152 kiloko harri hori **handitxoa** gertatzen zaio. **Berria - Kirola**

Bazen neskato bat zu bezalakoa, **handitxoagoa**, eta gerran ezkutatuta egon behar izan zuen. **Josu Zabaleta**

Ausardia **handitxokoa** agian, esanean eta helburuan. **Andoni Egaña**

handitzaile *izond* handitzen duena.

Frantziatik desterratuta Donostian bizi den tipo politiko poeta-konspiratzaile bat, Frantzia Handiaren **handitzaile** handia. **Koldo Izagirre**

Hauen guztien **handitzaile** da miseriaren borrorerik ankerrena: etorkizunaren zalantza. **Juan Martin Elexpuru**

handitzar *izond* oso handia.

Txori-izugarri **handitzar** bat. **Iñaki Segurola**

Itsasontzi **handitzar** irasatlantiko horiek. **Pello Zabala**
Esku babatsu gogorak zituen, **handitzarrak**, profil hezurtsu koskatsua, aurpegia eguzkiak erre-zaildua. **Juan Garzia**
-Epa, **handitzarra**, ondo al gaude? **Joanes Urkixo**

handitze 1 iz handi edo handiago bihurtzea.

Handitze horrekin, gaur egun 22.000 metro koadroko lantegia daukate. Urtegiaren **handitze** txikiagoa bultzatzea. **Berria - Ekonomia**
Uztaren **handitze** horrek nori egiten dion mesede. **Berria - Harian**
Handitze zorionsu bat desiratzen diogu sortu berriari. **Herria**
Goresmenak familia guziari eta osagarritzko **handitze** bat Benoit ttipiari. **Herria**
Hiperplasia onbera, berriz, guruin prostatikoaren **handitze** fisiologikoari deitzen zaio. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Bilboko Portuaren **handitze** lanak.
Ondoko hilabeteetan egoera bere onera itzuliko dela uste du Camblongek, nahiz eta mementoan **handitze** proiektuak «gelditu» dituzten. **Berria - Ekonomia**
Enpresaren modernizazio eta **handitze** prozesuan. **Berria - Ekonomia**
- Erromatarrei bakarrik zegokien zerga-**handitze** bat izan zela. **Iñaki Iñurrieta**
Beste kapital **handitze** bati atek irekitzeko proposamena. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

handitze lanak (7); **handitze horren kontra** (3); **kapital handitze** (5); **kapital handitzea** (47); **kapital handitzeak** (9); **kapital handitzearen** (17); **osagarritzko handitze** (23); **pista handitzearen aurka** (5)

handiuste (197 agerraldi, 56 liburu eta 16 artikulutan; ETCn 618 agerraldi) 1 iz nork bere burua handiesteko joera. ik hantuste.

Apaltasunez eta **handiusterik** gabe. **Askoren artean**
Handiustearen eta itxurazalekeriaren aurka. **Askoren artean**
Handiuste eta maisukeria maiteegi, nonbait, euskaltzaleok. **Pello Salaburu**
Handiustea litzateke asegaiztasun hori intelektual jendearen patu esklusiboa dela pentsatzea eta ez gizaki guztiona. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Hoztasun bihozgabez eta agian bere agintearen **handiustean** atsegin hartuz ere bai. **Juan Martin Elexpuru**
Inoiz **handiustean** erortzeko beldurrez. **Askoren artean**
Gorde gaitezen, bada, anaia guztiok inolako harrokeria eta **handiustetik**. **Askoren artean**
Gainerako mutikoek beren jatorriaren **handiustea** zuten babesleku. **Xabier Olarra**
Eta **handiustez** puzten hasi zen harrezkeroztik. **Jose Morales**
Handik **handiustez** harroturik itzultzen ziren beti, besteek ez zekizkiten gauzak jakingo balituzte bezala. **Iñaki Mendiguren**
-Ba, horixe -erantzun zion Hermionek **handiustez** -. **Itxaro Borda**

2 (izenondoekin)

Borondate oldarkorra **handiuste** hutsaletik eta beren indarren balioespen okerretik sortzen da. **Esteban Antxustegi**
Haren **handiuste** faltsua. **Patxi Zubizarreta**
Eginkizun guztiak konpontzea eta galdekizun guztiak erantzun nahi izatea [...] hain **handiuste** bitxia izango litzateke, non [...]. **Ibon Uribarri**
Ziurtasun apodiktikoaren **handiuste** lotsagabea. **Ibon Uribarri**
Bere erabilera hiperfisikoari begira honen **handiuste** oinarrigabeen itxura faltsua azalarazteko. **Ibon Uribarri**
Kontrajarritako **handiuste** transzendenteei dagokienez. **Ibon Uribarri**

3 (hitz elkartuetan)

Handiuste kutsu batez. **Karlos Zabala**
Ez zuen bilatzen **handiuste** gosez inori atsegin ematerik. **Askoren artean**

• 4 izond bere burua handiesten duena.

Villagrandeko duke **handiusteak**. **Joan Mari Irigoien**
Gizon **handiuste** eta bere buruaz seguru dagoen bat izango da. **Josu Zabaleta**
Teresa bere amorante zangomotz eta **handiustearekin** eta haren senar ele-leun eta gaiztoarekin. **Oskar Arana**
Beste edozein giza abere baino egolatrago eta **handiusteagoak**, eta baita insolidarioagoak ere. **Karlos Linazasoro**
Hasiko ziren herri (edo hobeki herritar) **handiuste** batzuk beste batzuei petxero deitzen, bereizkeriaz edo erdeinuz. **Handiusteak**, geurekoiak, burusoilak eta lodikoteak garena onartzen ikasi dugulako. **Patziku Perurena**
Poeta guztiak **handiusteak** gara, hori egia da, baina denborarekin, zahartzen garenean, azkenean gainditu egiten dugu hori. **Berria - Kultura**

3 hed

Irri inozo-**handiuste** hura. **Joan Mari Irigoien**
Normalean, mozzorro intolerante eta **handiuste** horien atzean lohikeriaz eta lizunkeriak betetako putzu hondogabea ezkututzen da. **Karlos Zabala**
Oso berea duen jarrera **handiuste** horrekin. **Jokin Muñoz**
Hain erudizio **handiuste** bitxia erakusten zuen, ezen eskuarki aurkariak menpean hartzen baitzituen. **Karlos Zabala**
Haren eskutitzak behinik behin, hain **handiusteak** ez balira... **Monika Etxebarria**
Zeren, nola denboraren seme-alabak garen, eta hitzak, orobat, gure seme-alabak diren, hala, denboraren bilobak dira haiek [...] baita hitzik **handiusteenak** eta ustez handienak ere. **Joan Mari Irigoien**

4 (izen gisa)

Gidariak, **handiuste** kankailua bera, mugimendu arriskutsuak egiten zituen propio. **Anjel Lertxundi**
Sinesmen arruntak [...] ukatzen ez dituen **handiuste** ausartenak falta ez direnez gero. **Ibon Uribarri**
Handiusteren bati erantzuteko ez bada behintzat! **Fernando Morillo**
Azken txarra ekarri ohi du **handiusteak**, bere indarrez fidatzen baita eta ez baitu zeruko laguntzarik izaten. **Askoren artean**

5 handiusteko izlag

Zeremonia **handiusteko** hartan den-denak telegenikoa behar zuen izan. **Txema Ramirez de la Piscina**
Dotorezia narras hori, aldrebeskeria **handiusteko** hori zen Kaskagorriren bereizgarri nagusia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Elizak egin ohi zituèn autofede **handiusteko** haietan ez bezala. **Joan Mari Irigoien**
Ez une bateko otoitza, hutsala eta **handiustekoa**, astiro egina baizik, debozioz betea, apala eta baketsua. **Askoren artean**
Ni ez naiz batzuek uste duten bezain **handiustekoa**, inork baino hobeto ezagutzen ditut nire ezin konta ahalako hutsegiteak eta akatsak. **Josu Zabaleta**

handiustekeria *iz* egite handiustea.

Eta horra usiak beti aise estatuen gainean, gure **handiustekeriei** goitik behera kaka eginez. **Edorta Jimenez**

handixko ¹ *izond* handitxoa.

Batto **handixkoa**, ipurdi zabal batekin, dena haro eta jestu, bestea ttipittoa eta mendrexkoa, beti ixil-ixila zegoena... **Janbattitt Dirassar**

Garapena hurritu da eta Frantziako konduetan bada zilo bat **handixkoa**, handiegia gisa guziz Europa batuaren mailean gobernu guzieren artean finkatu hitzarmenak onesten ahal duenaren aldean. **Herria**

Kaka usain **handixkoa** nabari baitu oraindik. **Patziku Perurena**

Irabazia [...] laster galtzen ahal litakeela, prezioak ozka **handixko** batez goratzearekin. **Herria**

Euskal Herria herri ertaina da, bai **handixkoa** ere pentsatzen jarrita... **Bernardo Atxaga**

Zer bait idatzi zuen gero, letra larriak erabilita, baina nik, mahaitik tarte **handixkora** jarria, ez nuen klarki bereizten ahal zer zen, bakarrik zazpi-zortzi letra zituela eta "A" zela lehenbizikoa. **Aingeru Epaltza**

• 2 (predikatu gisa)

Handixko ere iruditzen zitzaion ordaindu beharreko bidesaria. **Imanol Zurutuza**

Ganbera itsu ttipi bat baizik ez zen, batendako ere **handixko** agituko ez zen oheaz hornitua. **Aingeru Epaltza**

handizale (**11 agerraldi**, **3 liburu eta 4 artikulutan**; **ETCn 171 agerraldi**) *izond* handinahia.

Gure ikastetxeak Nafarroa Oinezaren edizio berri bat antolatuko du, **handizalea**, ez hala-holakoa; Nafarroa eta orokorrean Euskal Herria bere kulturarekin uztartuko dituen. **Berria - Kultura**

Sailburuaren esanetan, bigarren plana «oso **handizalea** izan zen eta oso zaila zuen helburuak betetzea». **Berria - Euskal Herria**

Emaizta hobeak lortzeko ez ditugu hain helburu **handizaleak** jarri eta gutxitu egin ditugu euskalduntzeko lehentasuna duten unitateak. **Berria - Euskal Herria**

Ez harrokeria **handizalez**, justiziaren zintzotasunaz baizik. **Imanol Unzurrunzaga**

handizka ¹ *adlag* kopuru handietan.

Gurina, gazta eta arrautzak **handizka** saltzen ziren pabiloian. **Karlos Zabala**

Handizka erosten dugu. **Oskar Arana**

Oskar Klebinder enpresan -modazko jakentzat oihalak **handizka**-, ez zegoen animazio handirik bulegoan. **Anton Garikano**

Ikatz meatzak ustiatzen dira bertan **handizka**. **Karlos Zabala**

- Edozein gauzak handitasuna hartzen du, **handizka** egiten baduzu. **Karlos Zabala**

Errusiako Estatuaz hitz egin zuen, **handizka**, eta sutsuki goraiatu zuen lurraldearen zabal. **Jose Morales**

2 *handizkako izlag*

Auzoetako azoketarantz zihoazen **handizkako** saltzaileek jotako zartailu kolpeak entzuten ziren. **Karlos Zabala**

Kilo ederrenak 14,20 euroan eraman zituen **handizkako** saltzaile batek. **Berria - Harian**

Halako artelanak hobeto emango lukeela pentsalari baten bulegoan eta ez **handizkako** merkatari baten eskuetan. **Bego Montorio**

Puntuzko arropen eta eskularrien **handizkako** denden aurretik pasatzean. **Karlos Zabala**

Manufaktura eta **handizkako** merkataritzak. **Berria - Ekonomia**

Lehiakorrek ez izatea **handizkako** industriekin. **Berria - Ekonomia**

Txerrien **handizkako** salerosietan. **Karlos Zabala**

%2,2 gutxitu dira **handizkako** salmentak. **Berria - Ekonomia**

handizkari *iz* handizkako saltzailea. ik **maiorista**.

Han, Berger kalearen aldean, ostra **handizkarien** postuen atzean, haragi egosien saltokiak daude. **Karlos Zabala**

Sarara itzuli ziren, Gartziarekin -bentaren jabe izateaz gain, diru-iturri ederra ematen zion kontrabando ofizioan, **handizkari** edo andanaka eroslea zenarekin- tratuan adostu puskak ekarriz. **Elena Touyarou**

Egia da **handizkarien** inbentarioak hazi egin zirela, baina salmenten igoerena arma handiagoa izan ei da. **Berria - Ekonomia**

handizkatu, handizka(tu), handizkatzen egiaz den baino handiago bihurtu.

Zergatik ez haiz saiatzten hire neskarengatik zer egiteko prest hagoen idaztera, ahal den gehien **handizkatuz**? **Joxerra Garzia**

handizki¹ (*orobat haundizki g.er.*) ¹ *adlag* handikiro.

60-garren urteburu hori biziki **handizki** ospatua izan da. **Herria**

Duela zazpi urte, **handizki** omendua izan zen egunean. **Herria**

Jainkoek gizakien onerako zuzentzen ditzutela gauza guztiak, gizakiek **handizki** ohora ditzaten eta gizakiak haiei atxikiak izan daitezten. **Piarres Xarriton**

Bi berriketariak **handizki** errezebituak izan dira Pariserat heltzearekin. **Herria**

Bermutier jaunak irribarre egin zuen, **handizki**, instrukzio epaile batek irribarre egin behar duen bezala. **Josu Zabaleta**

Eta iragartzen dut eskolume herabeti horrek sarri iritsiko duela bere maisua **handizki** ohoratzeke heineko gorentasuna. **Jon Muñoz**

Bentaria etorri zen neskameekin **handizkiek** zer afaldu nahi zuten galdezka, "zer afaldu nahi dute beroriek?" esaka. **Felipe Juaristi**

60-garren urteburu hori biziki **handizki** ospatua izan da. **Herria**

Duela zazpi urte, **handizki** omendua izan zen egunean. **Herria**

2 asko, oso, larriki.

Haren irria agertzen zitzaidan bakoitzean, begiak **handizki** irekitzen nituen, hobeki ikusi nahi banu bezala. **Daniel Landart**

Ahoa **handizki** irekitzen zuen mintzatzean. **Itxaro Borda**

Kontaezinezko gauzak badirela gure irudimena **handizki** gainditzen dutenak. **Piarres Xarriton**

Emazteak uste baldin bazuen gaua nesketan gaitzen zuela, **handizki** engainatzen zen, Txoko nesketan ez zelako nehoiz "gaitzen". **Itxaro Borda**

Lehen autoan, gidaria, Pierre Joliberry, 73 urte, Hazparnekoa, **handizki** kolpatua altxatu dute. **Herria**

Biga hil dira, hirugarrena **handizki** kolpatua izan da. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frango handizki (8); frango handizki kolpatua (3); handizki kolpatua (13); handizki murriztu (3); handizki ohoratu (3); handizki omendu (3); handizki ospatu (12); handizki ospatua (4); handizki ospatuko (3); handizki ospatzeko (3)

handizki² iz handikia.

Bertako Dukea eta bertako **handizkiak** musikazaleak baitziren denak. **Felipe Juaristi**

Bentaria etorri zen neskameekin **handizkiek** zer afaldu nahi zuten galdezka, "zer afaldu nahi dute beroriek?" esaka. **Felipe Juaristi**

hangar 1 iz hegazkinak gordetzeko eraikina.

Aireportuetako **hangarren** edo zirkuen neurriko kanpamentu itzelez inguratua. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ezkerretara **hangar** itxurako etkola txikia dago eta eskumatara negutegiak han-hemenka. **Urtzi Urrutikoetxea**

Euria ari zuenean, oholez eginiko **hangar** handi batean sarrarazten gintuzten, berrehun inguru sartzen ginen han, elkarren ondoan estuturik. **Monika Etxebarria**

Hangar luze batzuen babesean bizi ginen orain; erdian, ibilbide luze bat zeukan, eta, alboetan, gela txiki lauki formakoak; familia bakoitza halako batean sartu zen. **Juan Kruz Igerabide**

2 ipar aterpe hormaz itxi gabea.

Hangar irekiaren maldan kabitzen ziren gainerakoak, mihimenezko zareak biltzeko prest. **Itxaro Borda**

Entsena berria deitu laborari etxean **hangar** bat erre da 400 m3 belarrekin eta traktur bat ere heiekin. **Herria**

Hangarraren aixelbean. **Itxaro Borda**

Herri huntan ez dakigula gauza haundirik egiten, **hangar** metalikoak eraikitzeaz bestalde... **Herria**

hangotar (orobat hangotiar) iz hango biztanlea.

Ez dute ahanzten Jean Hélène kasetalari frantsesa, **hangotarrek** hil zutena. **Herria**

Hala gertatzen zaio lehorrekoari, itsasora hurbildu eta berak ur sail eder bakar bat baino ikusten ez duen paraje horretan **hangotarrek** hainbat eta hainbat paraje -eta beste hainbat eta hainbat izen- bereizten dituztela argitzen diotenean. **Iñigo Aranbarri**

Bagdad Irakiako kapitaletik ez urrun, bost soldado amerikano hil dituzte oraino ere **hangotiarrek**. **Herria**

Kolonbian Ingrid Betancourt anderea, erdi **hangotiar** eta erdi frantsesa. **Herria**

Zernahi jende **hangotar** bada auzoko Kirgiztan alderat iheska joan denik. **Herria**

Halako batasun batean daudela iduri dute **hangotiar** gogorren guziak Sarkozi eta hemengotiar guzien kontra. **Herria**

hangotu, hango(tu), hangotzen da ad hango bihurtu.

Beren sor lekuaz, herriaz, hemen utzi haurridetaz ala lagunetaz mintzo badira atzo haratuak balira bezala, etxeko pentze, mahasti ala auzoko iratze lekuko zedarrak nun diren gogoan izanik ere, **hangotuak** dira eta deplauki ainitzek erranen dauzute han egina dutela bizia, han dauzkatela familia ala lagunak eta mirakuluz kanpo han bururatuko dela heien bizia. **Herria**

Arunt **hangotua**, hango mintzaira ere ikasirik, tokian tokiko mintzaira behar dela errespetatu eta sustatu. **Herria**

Gazterik harat airatua, **hangotua** zen familia batekin, duela zenbait urte egina zuen bere etxe eta sor herriko itzulia. **Herria**

hanka (ETCn 17.110 agerraldi) 1 iz zangoa; oina.

Minez ebakitzen daukat gerria, baita **hanka** ere, belauna baino apur bat gorago. **Jose Morales**

Hanka eta oina argaldu, okertu eta ihartu egin zitzaizkion. **Askoren artean**

Hubi?cka maniobraturak **hankak** telegrafoaren mahai gainean zituen, besoak antxumaturik, kokotsa bularraren kontra, lotan. **Fernando Rey**

Bere **hankako** behatz lodia igurzten. **Iñaki Mendiguren**

Beste batzuek, ez esku ez **hanka**, hala ere, bizi nahi zuten. **Xabier Amuriza**

Eskuak eta **hankak** loturik, eta ahoa fardelak biltzeko zintarekin estalirik. **Jon Alonso**

Zitzu bizian oihanaren ertzera joan eta **hanka** altxatu zuen sikomoro pikuondo baten kontra. **Iñaki Mendiguren**

Hankak tolesten zitzaizkion, fusilatzeoko pelotoia zain izango balu bezala. **Karlos Zabala**

Zorionez, **hanka** galdu zuela eta ez besoa. **Inazio Mujika Iraola**

Ezbeharraren ondorioz, **hanka** galdu zuen eta harrezkero, guztira 21 ebakuntza egin zizkieten. **Berria - Euskal Herria**

Marmolezko eskaileran **hanka** jarri orduko. **Iñaki Mendiguren**

Neure buruaz beste egingo nuke han **hanka** jarri baino lehen. **Iñaki Mendiguren**

Bazterrak bere jakarekin igurtziz, putzuetan **hanka** sartuz, idazkietan letrak janaz. **Joxemari Urteaga**

ik beherago 23.

Izan ondo eta saiatu **hanka** putzuan ez sartzen. **Harkaitz Cano**

Erregeak, bere buru zuria zuriago erakutsi nahirik, komeni ez zitzaion zangan sartu zuen **hanka**. **Anjel Lertxundi**

Hankak luzatu, eta bezperan erositako DIB liburua atera nuen jakako patrikatik. **Anjel Lertxundi**

Ez dela seguru asko gorputziki jiratu, **hankarik** luzatu eta nagiki atera ezinez penatuko. **Iñaki Segurola**

Eta haren besoak eta **hankak** hartan biltzen ziren goxo. **Karlos Zabala**

-Zabal itzazu **hankak** niretzat. **Karlos Zabala**

Nire aurrean, gona kendu eta aulkian eserita **hankak** depilatzeke prestatu zenean. **Jasone Osoro**

Hankak txinaurritu zaizkio jarria egon bitartean. **Aingeru Epaltza**

Baina gau liskartsu batez **hanka** batean zauritu zuten eta herren utzi. **Anjel Lertxundi**

Hanka gaiztotu zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**

Hanka hautsi didate! -oihu egin zuen. **Lopez de Arana**

Ronek garrasi egin zuen minez, **hanka** hautsiaren gainera erori baitzitzaion Black. **Iñaki Mendiguren**

Hankan zuela mina, **hankan** zuela mina. **Pablo Sastre**

Hanka moztu zitoten, eta ordutik 21 ebakuntza egin zizkieten. **Berria - Euskal Herria**

Soldadu-taldearen bila abiatu da **hanka** bat erdi arrastaka zeramala. **Anjel Lertxundi**

Aurrera egin zuen **hankak** arrastaka. [Lopez de Arana](#)
Ama al zuen **hanka** arrastaka zebilen emakumea? [Anjel Lertxundi](#)
Hanka bat bestearen azpian trebeki tolesturik. [Jose Morales](#)
Hankak gurutzaturik eseri zen. [Lopez de Arana](#)
Hantxe eseri zen Willem, leihoaren parez pare eta hankak **gurutze**. [Anjel Lertxundi](#)
Mutila, **hankak** zintziilik eserita eta bi esku harri gainean bermatzen dituela. [Iñaki Iñurrieta](#)
Tripez gora jarri nintzen sofán, gorputz erdia zintziilik, **hankak** zabal eta luze, pubisa harro eta ausart. [Karlos Zabala](#)
Gazteetarik bat **hankak** zabal-zabalik eta eskuak garondoa dituela dago. [Anjel Lertxundi](#)
Antonia mahaiaren alboan **hankak** luze-luze eginda. [Josu Landa](#)
Katua **hanka** artean sartu zitzaion. *ik* hankarte. [Pablo Sastre](#)
Belarriak behera eta buztana **hanka** artean zituela. [Joxean Agirre](#)
Ikatz guri-guria zaukاک horrek **hanka** artean, ikatz guri-guria, zera! [Juan Kruz Igerabide](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

1,88 metroko garaiera, **hanka** luze eta gihartsuak. [Berria - Kultura](#)
Tira, beti izan nituen **hanka** eta izter bikainak, modu garbian esanda. [Karlos Zabala](#)
Ilea nahasia eta **hanka** biluzietan zapatilla zahartuak zituzten neska. [Koro Navarro](#)
Ronen **hanka** handiak agertu ziren zurubian. [Iñaki Mendiguren](#)
Alicek, berriz, betaurrekoak eta **hanka** meheak, urkilen antzeko. [Lopez de Arana](#)
Haren ile horail franko bitxiki moztuak, bizkar irmea, ipurdi pottoloa, **hanka** leun eta finak. [Daniel Landart](#)
Hanka motzak eta beso lodiak zituen, gorputz adartsua eta mozkote samarra. [Agustin Otsoa](#)
Hanka arin eta biziko dantzari bat. [Bernardo Atxaga](#)
Ohe ertzean eserita, **hanka** herrenaren gainean makurtu zen. [Ramon Saizarbitoria](#)
Geroztik ez zuen inoren aurrean zurezko **hanka** kendu. [Ramon Saizarbitoria](#)
Ezker **hanka** erabiltzen uzten badiote erraz sartzen ditu golak. [Berria - Kirola](#)
Eskuinenko **hanka** ur putzu batean sartu dut. [Monika Etxebarria](#)
Ezker makila, eskuin **hanka**, eskuin makila, ezker **hanka**. [Aingeru Epaltza](#)

3 (animaliena)

Harryk izebaren txakurrik kutunenari **hanka** zapaldu zion oharkabean. [Iñaki Mendiguren](#)
Hiru **hankako** txakurra bezala joaten zen oinez saltoka. [Anton Garikano](#)
Idietako batek erori eta **hanka** hautsi zuen. [Askoren artean](#)
Zakurkumea lau **hankak** luzatu eta zoruari usain egiten hasi zen. [Jose Morales](#)
Hanka distiratsudun bi zaldi beltzek tiratutako kotxe beltz distiratsu bat. [Lopez de Arana](#)
Otsoak aurreko eskuineko **hanka** jaso eta senidetasunez San Frantziskoren esku gainean jarri zuen. [Askoren artean](#)
Harryk ikusi zuen bera zeraman piztiak sei **hanka** luze-luze eta iletsu zituela. [Iñaki Mendiguren](#)
Zaldien tamainako armiarmak, zortzi begikoak, zortzi **hankakoak**, beltzak, iletsuak, erraldoiak. [Iñaki Mendiguren](#)

4 (bestelakoak)

Zilarrezko hainbat tresna bitxi zeuden **hanka** mehe eta luzexkako mahaietan. [Iñaki Mendiguren](#)
Hanka bakarreko lanparak, alfonbra arruntak, mahai txikiak. ik hanka 41. [Iñaki Iñurrieta](#)
Gure mahaiak **hanka** bat kolokan zeukala eta. [Anjel Lertxundi](#)
Kunsi, nahasturik, jaikia zen, eta aulkia **hanka** batetik heldurik, oihuz hasi zen: [...]. [Josu Zabaleta](#)
Nire ohearen **hanka** bat. [Juan Kruz Igerabide](#)
Dorrearen **hanka** bakoitzean lehergailu bana jarri zuten, lau guztira. [Berria - Euskal Herria](#)
Errazti eta Irujok EBri «hirugarren **hanka**, botere judiziala» falta zaiola aipatu zuten. [Berria - Euskal Herria](#)
Poesiak hiru **hanka** dauzka: irakurtzea, metaforak interpretatzea eta ulertzea. [Berria - Kultura](#)
Finantzabidearen hirugarren **hanka** EITBren diru laguntza da. [Berria - Kultura](#)
Diruak **hanka** arinak ditin, enel! [Lopez de Arana](#)
Fonetikan, fonologian bezalaxe, ekoizpena eta oharmena lotzen direlako eta lotura horrek **hanka** bat fonetikan, bestea fonologian dituelako. [Lourdes Oñederra](#)
-Gure Kopeikin asko kostata igo zen bere egurrezko **hankarekin** harrera-gelaraino. *ik* hankapalu. [Jose Morales](#)
Nire koinatuak **hanka** artifizial on-on bat eman zidan... [Lopez de Arana](#)
Erdiko **hanka**, ba, mugitzen zaio, ondo mugitzen zaionez! [Karlos Linazasoro](#)

5 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Hanka -besoen muturretaraino. [Karlos Zabala](#)
Lasai, ez didazue **hanka** -besoetatik eutsi beharrik izango. [Jose Morales](#)
Oilo txiki beltz bat ikusi zuen, etxeko usoen antzekoa, **hanka** -izterrek lumaz estaliak zituen. [Askoren artean](#)
Uhurika urrutiratu nintzen handik, **hanka** zainetan makilazoa hartutako zakurra bezala. [Bernardo Atxaga](#)
Andreiren **hanka** -giltzadurek krak egiten dute. [Pablo Sastre](#)
Adarrekin **hanka** sagarretan talka-talka egiten zidaan. [Pablo Sastre](#)
Hanka -pare bat zetorren eskaileretan behera. [Iñaki Mendiguren](#)
Zamarien arrio eta **hanka** -estalkietan ez zen apaingarririk. [Agustin Otsoa](#)
Berrío **hanka** -hotsak entzun zituzten korridorean. [Iñaki Mendiguren](#)
Hango **hanka** -hotsa! [Juan Kruz Igerabide](#)
Hanka -pauso bizi-bizi batzuen hotsak entzun ziren. [Iñaki Mendiguren](#)
Hanka -mugimendu oinarrikoenetan trebatu ondoren lehen dantza ikasten ari ginenean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Eskaileretan behera jarraitu zion Filchi, lurrean bikoiztuz lokatzezko **hanka** -arrastoak. [Iñaki Mendiguren](#)
103 lekutan aurkitu dituzte koipuaeren arrastoak **hanka** -arrastoak, zuloak, gorotzak.... [Berria - Euskal Herria](#)
Xomorroen **hanka** -markak. [Iñaki Segurora](#)
Loiolan kuartelak jarri zituztenean berari deitu zituela, **hanka** -orde eta beso-orde zurezkoak egin zitzan guduan galdu zituztenentzat. [Inazio Mujika Iraola](#)

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenondo balioaz)

Adela iletsua [...] eta Pot-pourri ar **hanka** -mehea. [Jose Morales](#)
Zaldi zahar **hanka** -motelak. [Karlos Zabala](#)
Antzokian dantzariak **hanka** -zaluenak nekez hobetuko lituzkeen jauziak eginez. [Jose Morales](#)
Gelditu, eta jaisten lagundu zion, hortz artetik honela zioela: "Alde, **hanka** -beltz!". [Jose Morales](#)
-Aita elizaren erdian zegoen, eskopeta besapean, **hanka** -zabal, harkaitza bezain tinko. [Koldo Biguri](#)

Neskek gizonen gainean **hanka** zabalik eserita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusezinak egiten ziren haien esku- **hankak**, ikusezinak haien aurpegiak. **Felipe Juaristi**

Buru- **hankarik** gabeko kaos batek. *ik beherago* 9. **Anjel Lertxundi**

Norbaitek bi emakume- **hanka** margotua zizkion alkandoraren aurrealdean. **Lopez de Arana**

Bildots- **hanka** etorri zen berenjena frijituaz. **Lopez de Arana**

Asko poztuko nintzateke niretzat txerri- **hanka** bat ekartzerik izango bazenu. **Askoren artean**

8 ipar aldaka, mehaka.

Ez zait aski gaztaroko ez **hanka** eta ez buruko zerrenda luze hura. **Andoni Egaña**

Neska larri **hanka** -handi batzuk. **Janbattitt Dirassar**

Marxela Hillau, Harizpenekoa, pausatu da iragan astean Baionako eritegi batean 86 urtetan **hanka** hautsi ondoan. **Herria**

9 ez hanka (eta) ez buru

Ez **hanka** ez buru ez duten historietan. **Monika Etxebarria**

Erreformak, oro har, ez **hanka** ez buru ez duela diote langileek. **Berria - Euskal Herria**

Ez **hanka** ez buru ez zuen kezka. **Fernando Rey**

Albisteek ez baitute gainerakoan ez **hanka** ez bururik izaten. **Joxerra Garzia**

Argudioak ez du ez **hankarik** ez bururik. **Berria - Gaiak**

Han gertaturikoak ez zuela ez **hankarik** ez bururik. **Jose Morales**

Egoera honek ez du ez **hanka** ez buru. **Patxi Iturrategi**

Ez **hanka** ez buru ikusten genion guk haren jardunari. **Joxerra Garzia**

Garzonek egin nahi duenak ez du ez **hanka** eta ez bururik. **Berria - Euskal Herria**

Munduan zerbait bada ez **hanka** eta ez buru, ezkontza loturen betekotasuna da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ez zait aski gaztaroko ez **hanka** eta ez buruko zerrenda luze hura. **Andoni Egaña**

- Ez buru eta ez **hanka** ez duten ateraldiak, guztiak ere. **Juan Garzia**

10 hanka-arin (orobat hankarin) izond

Joanes mezulari gazte **hanka** -arina. **Felipe Juaristi**

Zuen artean **hanka** -arinik baldin badago, zaldizko onik, joan dadila mutilaren bila. **Fernando Rey**

Eta kontaktzen dit nola, gazte lirain eta **hanka-arina** artean, airoso joaten zen herri batetik bestera. **Xabier Olarra**

Alboan bi zakur **hankarin** zeramatzala. **Juan Kruz Igerabide**

11 hanka egin alde egin.

Hanka egingo dut egunsentia baino lehen. **Lopez de Arana**

Jabee **hanka** egin dute, hilabeteetako zorra utzita. **Oskar Arana**

Ez zinetela ausartu eta **hanka** egin zenuela handik, ezer egin aurretik. **Fernando Morillo**

Harry bere logelara **hanka** egin nahi zuen. **Iñaki Mendiguren**

Berehala jiratu eta ziztu bizian **hanka** egin zuen muinoan behera. **Iñaki Mendiguren**

Handik ziztuan **hanka** egitea bertze lanik ez zitzaidan gelditzen. **Aingeru Epaltza**

-Erraz egin diek **hanka** ? **Koldo Izagirre**

- (*egin ezabaturik*) Oles motel bat egin nion, eta gelatik alde egin nuen, **hanka** . **Edorta Jimenez**

ik beherago 13. **Askoren artean**

Eta gero jaitsi eta **hanka** . **Harkaitz Cano**

Atzeko patrikan sartu eta **hanka** ! **Unai Iturriaga**

12 hanka azpi ik hankazpi.

13 hanka hemendik interj alde hemendik.

Hanka hemendik! -erran zuen altuena zirudienak. **Aingeru Epaltza**

-**Hanka** hemendik! -oihu egin zuen Ronek. **Iñaki Mendiguren**

Beraz, **hanka** hemendik bizkor! **Iñaki Mendiguren**

Hanka hemendik ala guztiak akabatuko zaituztet! **Agustin Otsa**

Hanka hemendik! **Agustin Otsa**

14 hanka-gorri (orobat hankagorri) izond hankak gorriak dituena. ik hankagorri.

Hiru egun igaro zitzaizkigun aurreraka eta atzeraka, lur zingiratsua baitzen, eta lainotsua oso, ez inor ez ezer ikusteke, noizean behin zikoinak, kurriloak, flamenko **hanka-gorriak** izan ezik. **Felipe Juaristi**

Errekaren bihurgune batera, zeinaren ertzean astiro baitzebilan martin mokogorri **hankagorri** bat -hegazti bat, alegia, ez gizaki bat-. **Jose Morales**

- **Hanka gorriak** lokatzaren gainean pausaturik izanik ere, badirudi begi-arimak gora jasorik, ikusi ezinezko jainko batekin mintzatzen ari direla. **Gotzon Garate**

15 hanka hankari eman

Txokolatea amaitu, kikara mahai gainean ipini, sofan atzeratu, **hanka** hankari eman, eskuak sabel gainean bildu haurdun batek umea haztatu nahi duenean bezala, eta hizketan hasi zitzaidan. **Juan Kruz Igerabide**

Pariseko kafe-etxe batean **hanka** hankari emanda pipa erretzen ari den bitartean. **Harkaitz Cano**

Mahaiaren eskuineko ertzean zuzen-zuzen abiatu zen, kontu handiarekin emanez **hanka** hankari. **Anton Garikano**

Ogaitoloko aitona, Artantxukoa... zakua burutik behera, **hanka** hankari ezin emanik xirriki-xarraka... **Patziku Perurena**

16 hanka-hezur berna hezurra.

Pepponek **hanka** hezurtean emandako ostikoagatik. **Koldo Biguri**

Hanka hezurtean hartutako ostikada izugarri batek. **Koldo Biguri**

Lurrera erori eta **hanka** -hezurra hautsi zuen eta sorbalda-hezurra bere lekutik atera. **Askoren artean**

17 hanka-hutsik (orobat hankutsik) adlag oinetakorik gabe.

Azkenean atea zabaldu, eta emakume gazte bat ikusi nuen, **hanka** -hutsik, gau-atorraren gainean martazko beroki bat jantzita. **Koro Navarro**

Gure osabak **hankutsik** ibiltzen omen ziren mutikotan larrean. **Patziku Perurena**

Nik neuk ikusi nian nola fusilatu zuten gure aita, hura ikustera behartu ninditean, **hanka** -hutsik eta girgluekin... **Juan Kruz Igerabide**

Txakurrak bederen **hanka** -hutsik dabilta bazter guztietan. **Iñaki Segurola**

18 hanka-joko (orobat hankajoko g.er.) zangoen higidura; ihes egitea.

Baserrira lasterka doa, zaldikoei **hanka** -jokoa eraginez, suak hartutako etxeari laguntzera ziztuan bezala. **Xabier Amuriza**

Burrukan bertan sumindu egiten zitzaizkien, zaurien, oiñuen, **hanka** -jokoaren, izuaren, kalapitaren ondorioz. **Xabier Amuriza**

Gazte bat hurreratu, gallego! deitu eta bata bestearen atzetik **hanka** jokoa desagertzen kalean behera. **Iñigo Aranbarri**

19 **hanka-luze** (orobat **hankaluze**) *izond* hankak luzeak dituena.

Barraz bestaldeko emakumea **hankaluze** horail lirain bat da, hemengo asko bezalako. **Edorta Jimenez**

Europa Ekialdeko tenislari ospetsu bat, kokainaz lepo eta Versaceren top model **hankaluze** baten besotik agertu zena. **Patxi Iturritegi**

Nora zoaz uso **hanka-luzea**. **Pako Aristi**

Poste batzuen atzean eserleku **hanka-luzeak** daude, basoak uzteko apalak dituzten ispilu batzuen aurrean. **Pako Aristi**

Gari **hankaluzeari** lastotan joaten zaiola indarra eta buru gutxi edo kaxkarin etortzen dela. **Pello Zabala**

Godalet **hankaluzea** ukitu gabe. **Koldo Izagirre**

"Ausarta eta gaztea da gainera" dioen tokian bertsoa **hanka** -luzea da inolako neurrik errespetatu gabe. **Fernando Rey**

Hankaluzetak, laranja biziak jantzitako pailazoak, eta musikariak. **Berria - Euskal Herria**

Hankaluze malapartatu horiek. **Joxerra Garzia**

- Mostradoreko aulki **hanka** -luxearen. **Pako Aristi**

20 hanka-makila

Bere **hanka** -makila haragi-koskor batean amaitzen zen, bost azazkal kokkekin. **Anton Garikano**

Zurezko **hanka** -makila bat, gomazko tope bat zuena. **Ramon Saizarbitoria**

21 hanka-motz (orobat hankamotz) izond herrena.

Nolatan aterako dut neure kabuz bizibidea **hanka** -motza eta beso-bakarra izanik? **Jose Morales**

San Inazio ere **hanka** -motza zen. **Inazio Mujika Iraola**

- *adlag* Ezin zuela **hanka** -motz utzi, horrela, amesten zuen urki-enborrik gabe. **Inazio Mujika Iraola**

Han beste bat **hanka** -motz zutitzen saiatzan da, oin hilurrenak lurreen oraindik behatzei eragiten diela. **Xabier Amuriza**

Zu gabe nire mahaia **hanka** -motz geratuko litzateke. **Antton Olano**

Euskararen erabileran **hanka** -motz gabiltzala. **Berria - Euskal Herria**

Baina argi geratzen da aurrekontu honekin espazio esplorazioa (behintzat NASArena) **hankamotz** geratzen dela. **Berria - Gaiak**

22 hanka-okera (ETCn 13 agerraldi; orobat hankokera ETCn 41 agerraldi) izond hankak okerrak dituena.

Gizon txikitxo zen, hetikadun bat bezain iharra, makurra eta **hanka** -okerra. Nikolas **hanka** -okerra. **Koro Navarro**

Ile hori bikaina nuen arren, izterzabala eta **hankokerra** nintzen. **Joan Mari Irigoien**

Katua larri gorrixka sendo eta bigunekoa zen, baina **hanka-okera** samarra ere bai. **Iñaki Mendiguren**

Mrs. Densch astunki eseri zen sofa txiki **hanka** -okerraren erdian. **Lopez de Arana**

Mahai **hankokerraren** beste aldean kutxa bat zegoen. **Koro Navarro**

23 hanka-punta oinaren punta.

Hanka punta batean hasi eta, gorputzari bira osoan emandako bueltaren ondoren, beste **hanka** puntan amaitu ohi zuen dardara nabarmena zuen Txaplik. **Unai Iturriaga**

Harry ondoan zuen Hermione, eskua altxatuta, **hanka** -puntetan gora eta behera etengabe. **Iñaki Mendiguren**

Ezin gara beti leihoan egon **hanka** -puntetan jarrita, egunsentia noiz erneko. **Bernardo Atxaga**

Neurtzen baldin bada **hanka** -puntetatik burugaineraino eta neurri hori eramaten bada luzatuta jarritako eskuetara, ikusiko da altuera eta zabalera berdinak direla. **Santiago Iruretagoiena**

24 hanka sartu

Hanka sartu ez zuela egiaztatzeraz. **Jose Morales**

Hanka sartu zutelako, egitekoren batean ez bazen bertzean. **Joan Mari Irigoien**

Beti **hanka** sartzeko beldurrez dabilenak ez du inon arrastorik utziko. **Joxerra Garzia**

Gaizki jokatu eta **hanka** sartu badut behar ez den tokian, aurrez eskatzen dizut barkamena. **Hasier Etxeberria**

Berrito ere **hanka** barruraino sartu dut. **Harkaitz Cano**

25 hanka-sartze (orobat hankasartze)

Gero eta garbiago ikusten dut zenbat **hankasartze** eta hutsegite izan ditudan ene bizitzan. **Pako Aristi**

Hankasartze ikaragarria egin dutela. **Berria - Kirola**

Egungo literaturaren **hankasartze** kuttuna enfasia da. **Juan Garzia**

Hori **hanka** -sartzea! **Berria - Mundua**

Haiek oso ondo hartu zuten **hanka** -sartzea. **Jose Morales**

Hanka sartzea izan zela Stanislaw uztea. **Iban Zaldua**

Beraz, Loretxoen egileak **hanka** -sartze kronologikoa izan du gertaera hau San Frantziskoren bizitza-denboran jartzean. **Askoren artean**

Esan ohi zuen Turati inozo totala izan zela eta **hanka** -sartzeak egin zituela bata bestearen ondotik. **Fernando Rey**

Gero, minututik minutura, **hanka** -sartzeak pilatzen joanen nintzen eta nire huts egitean beheraino sartuko... **Monika Etxebarria**

Besteak, **hankasartzeaz** konturatu baitzen, konpontzen saiatu zen baldarki. **Juan Garzia**

26 hanka soinu (corpusean hankasoinu soilik)

-Gure gizonak, berriz, euli baten **hankasoinuak** aski esnatzeko! **Patziku Perurena**

27 hanka-tarte (orobat hankatarte) ik hankarte.

Borrokan hasi eta zakur batek besteari men egiten diola adierazteko, burua makurtuko du, buztana **hankatartean**. Neska gazte bat, riflea **hanka** tartean, baginan barna sartu eta tiroz josi zuten. **Gotzon Garate**

Zenbat arratsalde luze eta gozo pasatu zituen Barceloneta kai ertzean liburukoteak eta apunteak **hanka tartean**. **Josu Landa**

Eta Milagrosek ipurdia senarraren **hanka** tartearen kontra igurtzi ez ezik eskuekin zirkuluak marrazten hasi zen titietan. **Aritz Gorrotxategi**

Oraindik ere **hankatarteari** sexu usaina zeriola. **Jasone Osoro**

Erretratuan, neskatila korear multzo bat Abraham Lincolnen **hankatarteari** begira dago. **Harkaitz Cano**

27a hanka-traba ik hankatraba.

28 hanka-zabal (orobat hankazabal) izond hankak zabalak dituena.

Neska gazte ttipitto **hanka-zabal** bat. **Janbattitt Dirassar**

Tenplu horiek kanpoko itxura **hankazabala** izaten dute, astunegia, zapala eta zabal. **Santiago Iruretagoiena**

- *adlag* Beldurra ematen zuen norbaiten aurrean **hanka-zabal** jartzen zenean. **Koldo Biguri**

Hankazabal erori lurrera eta ospa egin zuen aterantz. **Iñaki Mendiguren**

Aitak han jarraitzen zuen, geldi-geldi, **hanka-zabal**, eskopeta besapean. **Koldo Biguri**

29 hanka-zabalik (orobat hankazabalik) adlag

Hanka zabalik datzan artean, isurkari batez bustitzen dute burutik oinetaraino. **Oskar Arana**

Mahaira igo eta nire aurpegi aurrean eseri zen **hankazabalik**. **Aitor Arana**

Neska gizonen gainean **hanka zabalik** eserita. **Xabier Mendiguren** Elizegi
Imanol eta Joxemari belauniko zeuden, euren aurrean txakurka eta **hankazabalik** Klaudio eta Mikel. **Aitor Arana**

30 **hanka-zain** (orobat **hankazain g.er.**) zurda.

Izterrean edo **hanka-zainetan**. **Elena Touyarou**
Zakur hark auzokoen ipurdi mazelak bezain gustukoak zituen arrotzen izterrak eta **hanka-zainak**. **Joan Mari Irigoien**
Uhurika urrutiratu nintzen handik, **hanka zainetan** makilazoa hartutako zakurra bezala. **Patziku Perurena**
Etxera joan eta aitak areago berotu zizkion hankazainak. **Patziku Perurena**

31 **hankaz aurrera**

Ustekabeko hilketak ere eramaten du kristau mordo bat **hankaz** aurrera **Iñaki Segurola**

32 **hankaz goiti** hankaz gora.

Mendearen bukaeran, 2000ko apirilaren 6an zientzialarien mundua **hankaz** goiti gelditu zen, aho zabalik,aldi berean ikertzailea eta enpresa gizona zen Graig Venter jaunak [...] aditzera eman zuenean giza genoma atalka identifikatua. **Pello Salaburu**

33 **hankaz gora** (orobat **hankazgora g.er.**) **adlag**

Aulkia **hankaz** gora geratu duk, eta mahaia herren. **Pedro Alberdi**
Eta harridurak goia jo zuen, azkenik, Masudek emakumea **hankaz** gora ezarri, haren baitara sartu, eta lizunkerian hasi zirenean. **Patxi Zubizarreta**
Hankaz gora erori eta hantxe geratu zen, mugitu gabe. **Iñaki Mendiguren**
Honorine ia erori zen **hankaz** gora hitz harrigarriko haiek entzunda. **Josu Zabaleta**
Aurrean harrapatzen zuen guztia ostikoka eta ukabilka **hankaz** gora irauliz. **Josu Zabaleta**
Autoa pendizetik behera amildu, bi kanpai buelta eman eta elurretan **hankaz** gora geratu zen. **Harkaitz Cano**
Irakek Irani eraso egin ziolarik (1980), **hankaz** gora geratu zen nazioarteko finantzen osaera. **Koro Navarro**
Buru nahasturik itzuli nintzen etxera; astebetean, nire bizitza **hankaz** gora aldatua zen. **Juan Kruz Igerabide**
Nazio osoa jarri nahi dute **hankaz** gora, desestabilizatu, hondamenera eramanean, ea bide horretatik gobernuaren suntsiketa lortzen duten. **Pako Aristi**
Leunkeriak batera maite ez zituen Prim jeneralak, ordea, Erregetza bera nahi zuen **hankaz** gora ipini. **Txillardegí**
Aise bota nezake **hankaz** gora Eladioren teoria. **Pako Aristi**
Futbol estadio oso bat **hankaz** gora botatzeko lain leherkari neukan. **Hasier Etxeberria**
Mundua **hankaz** gora dago. **Josu Zabaleta**
Diru-kontuak **hankaz** gora ditu. **Oskar Arana**
- Errusierazko alfabetoan sekula ikusi ez diren **hankaz** gorako hizkiak. **Jose Morales**

34 **hanka zuztar** (orobat **hankazuztar**) hanka giharrek.

Ikaragarri sufritu zuten zati horretan zaldiek, **hanka zuztar** sendoko mutil handiek, ordokizale petoek. **Berria - Kirola**
Egoi Martinez [...] **hankazuztar** sendoko mutila da, ordokizalea, zaldi indartsua. **Berria - Kirola**
Suitzako eguzkiak sutan jarri zizkien **hanka zuztarrak** Phonak taldeko txirindulariei, baina haien giharrek bakarrik berotu zituen, nonbait. **Berria - Kirola**
Eta Pirinioetan gora baten baten **hankazuztarrek** behartu ederra hartu behar dute. **Berria - Kirola**

35 **hanken gainean**

Bizi-bizi hasten zinan eguna, eta bigarren jeltzaldirako ezin zinan egon **hanken gainean**. **Anton Garikano**
Bere **hanken gainean** ez dagoen une beretik eroso sentitzen da. **Monika Etxebarria**
Hanken gainean zutitu nintzen. **Joxan Elozegi**
Berrito bi **hanken gainean** ibiltzeko gauza naizen bezain laster, dentistarengana joan behar dut. **Joxe Austin Arrieta**
Atzeko **hanken gainean** altxaturik, ezpainak miazkatu zizkion. **Jose Morales**
Zaldia urduritzen eta atzeko **hanken gainean** zutitzen. **Fernando Rey**
Bere **hanken gainean** ikusten zuen trabeska, aurpegiera zurbil-zurbil, begi urdin handiak zabalik, oinazea ezpainetan, harri eta zur, hilda egoteagatik, hantxe hiltzeagatik, hain agudo. **Karlos Zabala**
On Camillok bular-hauspoak zabaldu, **hanken gainean** irmo ipini, kapela alde batera bota eta aitaren egin zuen. **Koldo Biguri**

36 **hanken artean** ik **hankarte**.

Sukaldariak ura bota dion zakurraren antzera jaitsi zen eskaieran behera: buztana **hanken artean** sarturik eta belarriak beheraturik. **Jose Morales**
Bi **hanken artean** harrapatu zion burua, mugi ez zedin. Tarte batean eserita gelditzen zen, umea **hanken artean** zuela hitz eta pitz. **Joxemari Urteaga**
Ez zeukan ezer interesgarririk **hanken artean**. **Anton Garikano**
Hanken artean ahaleginduz zabalgaillua sartzen didan emakumea ikustean, iruditzen zait neu naizela mundura jaiotzen ari dena. **Joseba Urteaga**
Mutila eseria, neska, zutik, mutilaren **hanken artean** erdi etzana, eta orduan haren zakil gogorrek masaila ukitzen ziola sentitu zuen. **Karlos Zabala**

37 **lau-hankako** aberea ik **hankabiko**.

Hiruzpalau burtzi soilik sartu zizkion toreatzaileak zezenari, eta bere morroiatarik batek haga luze batez zulatu zion bizkarra, lau-**hankakoak** odol apur bat gal zezan eta, halatan, ahul zedin. **Joan Mari Irigoien**

38 **lau hankan** (16 **agerraldi**, 11 **liburutan** eta **artikulu 1ean**; **ETCn 201 agerraldi**)

Malfoy lau **hankan** zegoen, ukabilaz lurra jo ta jo. **Iñaki Mendiguren**
Animaliatasunaren galmin horrek eskuak atzera hanka bihurtzea ekartzen baitu, bi hanka besterik ez dituztenak ere **lau hankan** jarriaz. **Iñaki Segurola**
Baziren bizpahiru mahai, eta haien azpian ere ibiltzen ziren atzera eta aurrera lau **hankan**. **Karlos Zabala**
Astiro, lau **hankan** eta arrastaka. **Agustin Otsoa**
Lupe biluzten ikusten zenuen, Lupe zure gainean dantzari, zeure azpian preso, **lau hankan** jarritako zakur, zu haren ahoan, zeu haren gutziak zurruputzen... **Hasier Etxeberria**

39 **lau hankatan** (28 **agerraldi**, 15 **liburutan**; **ETCn 178 agerraldi**) lau hankan.

Lau hankatan jartzen ginen ispiluaren aurrean eta piztien orroak egiten genituen gero. **Joxan Elozegi**
Gizakia, noski, haurretan **lau hankatan** ibiltzen baita, heldua delarik bitan, eta, zaharretan, makila bat behar baitu lagungarri. **Juan Kruz Igerabide**
Kosta egiten zitzaion orekari eustea eta **lau hankatan** jarri zen. **Aritz Gorrotxategi**

40 **lau hanketan** (4 **agerraldi**, 2 **liburutan**; **ETCn 28 agerraldi**) lau hankan.

41 **hankabakar** (**ETCn 28 agerraldi**) **izond** hanka bakarra duena.

Bizkaiko kostan maiz galtzen da Joxemielen batela, maiz jotzen du harkaitza, eta bide-galtze horien hondakintxo da, adibidez, Alarabi begibakar eta **hankabakarra**. **Iñaki Segurola**
Zaldi **hankabakarraren** gainean ibiltzea. **Xabier Olarra**
- Esango ziotela **hankabakar** utzi zutela. **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

artean hanka (4); **aurreko hanka** (7); **aurretik hanka** (4); **baina hanka** (15); **baina hanka sartu** (5); **bat hanka** (4); **batean hanka** (6); **batek hanka** (9); **baten hanka** (8); **bere hanka** (39); **beren hanka** (4); **beso eta hanka** (5); **beste hanka** (9); **bi hanka** (19); **bigarren hanka** (4); **buztana hanka** (6); **buztana hanka artean** (6); **da hanka** (6); **du ez**

hanka (9); **du hanka** (7); **edo hanka** (9); **egin hanka** (4); **egin zuen hanka** (11); **egindako hanka** (7); **egurrezko hanka** (8); **ere hanka** (14); **erori eta hanka** (4); **esku eta hanka** (7); **eskuin hanka** (12); **eskuineko hanka** (16); **eta ez hanka** (5); **eta hanka** (155); **eta hanka bat** (6); **eta hanka egin** (20); **eta hanka egiten** (5); **eta hanka sartu** (12); **ez hanka** (46); **ez hanka eta** (13); **ez hanka ez** (22); **ezker hanka** (8); **ezkerreko hanka** (11); **gainean hanka** (4); **gero hanka** (4); **haien hanka** (4); **handik hanka** (5)

hanka altxatu (8); **hanka arrastoak** (5); **hanka artean** (37); **hanka arteko** (4); **hankaartetik** (4); **hanka azpian** (11); **hanka bat** (124); **hanka bat bestea** (4); **hanka bat bestearen** (4); **hanka bat falta** (4); **hanka bat galdu** (5); **hanka bat zeukan** (4); **hanka batean** (13); **hanka batekin** (19); **hanka batekin irabazi** (10); **hanka baten** (15); **hanka baten gainean** (10); **hanka batetik** (8); **hanka batez** (4); **hanka besoak** (10); **hanka biak** (5); **hanka edo** (8); **hanka egin** (96); **hanka egin behar** (12); **hanka egin du** (5); **hanka egin eta** (4); **hanka egin nahi** (4); **hanka egin zuen** (21); **hanka egin zuten** (7); **hanka eginez** (4); **hanka egingo** (14); **hanka egitea** (11); **hanka egiteko** (18); **hanka egiten** (12); **hanka egiten nuen** (4); **hanka ere** (4); **hanka eta** (36); **hanka eta ez** (13); **hanka ez** (23); **hanka ez buru** (12); **hanka ez bururik** (7); **hanka gainean** (7); **hanka gainera** (4); **hanka galdu** (4); **hanka haiek** (6); **hanka hankari** (5); **hanka harrapatu** (4); **hanka hautsi** (26); **hanka hautsi zuen** (8); **hanka hemendik** (7); **hanka hori** (6); **hanka horiek** (5); **hanka hots** (5); **hanka hotsa** (6); **hanka hotsak** (28); **hanka hotsak entzun** (8); **hanka hotsek** (4); **hanka hutsik** (15); **hanka hutsik eta** (4)

hanka izan (5); **hanka jarri** (8); **hanka jaso** (4); **hanka lotuta** (4); **hanka lurrean** (4); **hanka luzatu** (9); **hanka luze** (11); **hanka luze eta** (4); **hanka luzeak** (6); **hanka mehe** (4); **hanka motz** (15); **hanka motz geratzen** (4); **hanka motza** (4); **hanka moztu** (13); **hanka oker** (4); **hanka okerra** (4); **hanka puntetan** (60); **hanka puntetan jarri** (12); **hanka puntetan joan** (4); **hanka punttetan** (7); **hanka sartu** (67); **hanka sartu du** (5); **hanka sartu nuela** (4); **hanka sartu nuen** (5); **hanka sartu zuela** (4); **hanka sartu zuen** (8); **hanka sartze** (55); **hanka sartze bat** (8); **hanka sartzea** (34); **hanka sartzea izan** (5); **hanka sartzeak** (22); **hanka sartzeaz** (4); **hanka sartzeko** (12); **hanka sartzen** (8); **hanka sartzetik** (6); **hanka tartean** (5); **hanka zabal** (7); **hanka zabalik** (8); **hanka zainak** (5); **hanka zuztarrak** (5)

haren hanka (11); **hark hanka** (4); **hinki hanka** (20); **hiru hanka** (9); **hirugarren hanka** (4); **horrek hanka** (5); **lau hanka** (14); **laugarren hanka** (7); **nik hanka** (6); **nire hanka** (9); **nuen hanka** (9); **orain hanka** (5); **ronen hanka** (6); **txerri hanka** (5); **zen hanka** (7); **zion hanka** (4); **zituen hanka** (6); **zitizaidan hanka** (4); **zuela hanka** (4); **zuen hanka** (27); **zurezko hanka** (9); **zuten hanka** (5)

atzeko hankak (6); **aurreko hankak** (12); **baina hankak** (11); **baina hankak lurrean** (4); **bat hankak** (4); **baten hankak** (4); **bere hankak** (5); **beso hankak** (6); **besoak eta hankak** (20); **bi hankak** (10); **ditu hankak** (4); **ditut hankak** (5); **edo hankak** (5); **esku hankak** (5); **eskuak eta hankak** (9); **eta hankak** (121); **eta hankak lotuta** (4); **eta hankak lurrean** (4); **eta hankak zabal** (6); **hankak airean** (7); **hankak arin** (7); **hankak arrastaka** (11); **hankak astintzen** (4); **hankak berotzeko** (6); **hankak dardarka** (10); **hankak ere** (14); **hankak eta** (38); **hankak eta besoak** (14); **hankak eta eskuak** (4); **hankak ez** (9); **hankak garbitzen** (5); **hankak garbitzen ari** (4); **hankak gurutzatu** (6); **hankak gurutzaturik** (6); **hankak gurutzatuta** (5); **hankak lotuta** (4); **hankak lurrean** (26); **hankak lurrera** (4); **hankak luzatu** (12); **hankak luzatu zituen** (5); **hankak luze** (7); **hankak mahai** (4); **hankak moztu** (5); **hankak mugitu** (4); **hankak mugitzeko** (5); **hankak ondo** (5); **hankak pixka** (4); **hankak pixka bat** (4); **hankak telegrafoaren** (4); **hankak telegrafoaren mahai** (4); **hankak zabal** (21); **hankak zabal zabal** (10); **hankak zabal zabalik** (7); **hankak zabaldu** (12); **hankak zabaldu nituen** (4); **hankak zabalduta** (5); **hankak zabalik** (21); **hankak zabalik eta** (6); **hankak zintzilik** (4); **haren hankak** (6); **hesteak eta hankak** (4); **lau hankak** (13); **maniobraturuak hankak** (4); **nire hankak** (11); **zen hankak** (5); **zeuzkan hankak** (4); **zituen hankak** (10); **zuen hankak** (5)

dauka eskuin hankako (4); **du ezker hankako** (9); **eskuin hankako** (38); **eskuin hankako orkatilan** (6); **eta hiru hankako** (4); **ezker hankako** (43); **ezker hankako bizeps** (4); **ezker hankako izterrean** (6); **ezker hankako orkatila** (5); **ezker hankako orkatilan** (4); **ezkerreko hankako** (6); **hankako animalia** (5); **hankako behatz** (6); **hankako bikian** (6); **hankako bizeps** (6); **hankako bizeps femoralean** (6); **hankako gihar** (4); **hankako izterrean** (8); **hankako jokoa** (5); **hankako kuadrizepsean** (4); **hankako orkatila** (7); **hankako orkatilan** (10); **hiru hankako** (14); **lau hankako** (18); **lau hankako animalia** (4); **zuen eskuin hankako** (4); **zuen ezker hankako** (5)

bat hankan (4); **bi hankan** (14); **bi hankan ibiltzen** (8); **du eskuin hankan** (5); **eskuin hankan** (13); **eskuineko hankan** (5); **eta bi hankan** (4); **eta lau hankan** (4); **ezker hankan** (12); **ezkerreko hankan** (10); **hankan eta** (8); **hankan ibiltzen** (8); **hankan ibiltzen hasi** (5); **hankan min** (5); **hankan min hartu** (4); **lau hankan** (44); **zuen hankan** (4)

eta hankapean (5); **hankapean erabili** (4); **hankapean zapaltzen** (4)

bi hankaren (4); **bi hankaren gainean** (4); **bururik ez hankarik** (7); **du ez hankarik** (8); **ez hankarik** (36); **ez hankarik eta** (8); **ez hankarik ez** (17); **ezkerreko hankari** (4); **hanka hankari** (5); **hankaren gainean** (8); **hankarik eta** (10); **hankarik eta ez** (8); **hankarik ez** (20); **hankarik ez bururik** (14); **hankarik gabe** (8); **hankarik gabeko** (8); **hinki hankarik** (6); **hinki hankarik gabe** (6)

hankatan jarri (6); **lau hankatan** (31); **lau hankatan jarri** (6)

bat hankaz (7); **bat hankaz gora** (6); **bizitza hankaz** (4); **bizitza hankaz gora** (4); **dena hankaz** (35); **dena hankaz gora** (32); **erabat hankaz** (4); **erabat hankaz gora** (4); **ere hankaz** (6); **ere hankaz gora** (6); **eta dena hankaz** (6); **eta hankaz** (20); **eta hankaz gora** (14); **etxea hankaz** (7); **etxea hankaz gora** (7); **guztia hankaz** (5); **guztia hankaz gora** (5); **guztiak hankaz** (12); **guztiak hankaz gora** (12); **hankaz aurrera** (4); **hankaz gora** (391); **hankaz gora bota** (15); **hankaz gora botako** (4); **hankaz gora botatzeko** (7); **hankaz gora botatzen** (9); **hankaz gora dago** (6); **hankaz gora dagoen** (4); **hankaz gora erori** (7); **hankaz gora geratu** (8); **hankaz gora ipini** (6); **hankaz gora jar** (11); **hankaz gora jarri** (82); **hankaz gora jarriko** (19); **hankaz gora jartzea** (4); **hankaz gora jartzeko** (16); **hankaz gora jartzen** (34); **hankaz gora utzi** (14); **hankaz gora uzten** (4); **hankaz gora zegoen** (9); **hankaz goratu** (4); **horrek hankaz** (7); **horrek hankaz gora** (7); **merkatua hankaz** (7); **merkatua hankaz gora** (7); **mundua hankaz** (13); **mundua hankaz gora** (12); **osoa hankaz** (4); **osoa hankaz gora** (4); **zuen hankaz** (5)

atzeko hanken (10); **atzeko hanken gainean** (10); **aurreko hanken** (7); **bere hanken** (10); **bere hanken gainean** (4); **bi hanken** (16); **bi hanken gainean** (11); **eta atzeko hanken** (4); **eta hankekin** (5); **eta hanken** (7); **hankek ez** (9); **hanken artean** (30); **hankenartetik** (5); **hanken eginahal** (4); **hanken eginahal guztian** (4); **hanken gainean** (53); **hanken gainean zutik** (5); **lau hanken** (6); **lau hanken gainean** (4); **nire hanken** (8); **nire hanken artean** (5)

baloia hanketan (27); **baloia hanketan duenean** (6); **baloia hanketan dutenean** (4); **besoetan eta hanketan** (4); **eta hanketako** (9); **eta hanketan** (13); **eta hanketatik** (6); **hanketako bat** (5); **hanketako mina** (13); **hanketan duenean** (6); **hanketan dutenean** (4); **hanketan ere** (5); **hanketan eta** (5); **hanketatik heldu** (6); **hanketatik heldu eta** (6); **lau hanketan** (5)

hankabako iz hankagabea.

Hankabakoak papertxo bat luzatu zion alferezari.

Koldo Izagirre

hankabeltz izond hanka beltzak dituena.

Antxeta **hankabeltzak**, adibidez, desagertzen ari dira Ipar Itsasoaren inguruetatik.

Berria - Gaiak

· Hiru **hankabeltzak** [...] ustez bizirik eta ondo egongo zirenak atzera Kentuckyra eramateko.

Anton Garikano

hankabide (adkor: cf eskubide)

Esan nahi nizuna da Nelson Mandelak hogeita zazpi urte egin dituela espetxean bere eskubideak defendatzeagatik, eta orain beltz guztiek dauzkatela zurien **hankabide** berdinak.

Iñaki Arranz

hankabiko 1 izlag bi hanka dituena.

Hankabiko animalia gaixotuari gauza batzuk gustatzen zaizkio... baina ez zaizkio gustatzen, eta beste gauza batzuk ez zaizkio gustatzen... baina gustatzen zaizkio.

Iñaki

Segurola

Denbora librea hutsartea da, arte edo bitarte hutsa eta, beraz, hutsean aspertzen den **hankabiko** zomorroarentzat, baitezpada bete beharrekoa.

Iñaki Segurola

2 iz gizakia.

Zuen zapaten zola garbitzeko ere duin ez den zomorroide, perguta, afrusa, **hankabiko** arrunt honek.

Jon Alonso

Gondoleroak hagitz **hankabiko** alaia zirudien. ez zeudek **hankabiko** asko gogoa daukatenik bazter hartan behera irristan joateko.

Anton Garikano

Harira: munduko xuxenak, ortografikoak eta **hankabikoak**, zapartatzeko eleberria duzu hau, aitaren aurkako gudu tresna.

Markos Zapiain

Baina, ordurako, hautsiak ziren ispilu guztiak, sotanak uniforme bihurtu zitzaizkigun, eta zakurrak **hankabiko**.

Joxerra Garzia

hankademia (adkor: cf akademia)

Akademia [...] moralitatea eta filosofia irakasten zen antzinako eskola (Ikus **Hankademia**).

Xabier Olarra

Hankademia [...] futbolean irakasten den eskola berria.

Xabier Olarra

hankadun izlag hankak dituena.

Hankadun animalia baten fosil zaharrena aurkitu dute.

Berria - Gaiak

Lau **hankadun** animalia.

Jenaro Garate

Hiru **hankadun** aulki bat. **Aritz Gorrotxategi**
Halaber, ibilbide luzeetan, hartz hezitzaileak zebiltzan, aldean beren lau **hankadun** dantzariak eramanez. **Karlos Zabala**
Kolorre arrosa eta laranja fluoreszenteak besaulkiak, 60 ko urteetakoak, manka **hankadunak**, copie Knoll garantie, diseinu eskandinaviarreko platerak [...]. **Joxan Elozegi**
Kuxinak, zamaak, argimutlak, argi **hankadunak**, lantza afrikar bat [...]. **Joxan Elozegi**
Herritarrek uste dute inguru horietan ninfak eta satiro ahuntz- **hankadunak** bizi direla. **Xabier Amuriza**

hankagabe iz hankarik ez duena.

Lurra ahalegindu zen hainbat munstro sortzen ere, aurpegi eta gorputzadar bitxiz eginak, hala nola androginoa, erdi gizon erdi andre, bien ezberdin, edo animalia behin **hankagabeak**, behin eskugabeak, baita aho gabeko mutua ere, edo itsu aurpegigabeak. **Xabier Amuriza**
Hankagabearen kasuak baditu aztergai fisio-psikologiko ugari: elbarriak oraindik ere bi hanken existentzia bizi du garunean; ez da, ordea, ibiltzeko gauza, eta erizain baten esku utzi behar du komunean esertzea bezalako ekintza intimoa... eta abar. **Anjel Lertxundi**
Oso ondo zetorkidan erizainen begiramen interesatuak sor dezakeen gehiegizko konfiantza salatzeko (**hankagabe** bat bere elbarritasunaz ahanterainokoa, ederra da gero!). **Anjel Lertxundi**
Itzul nadin, ordea, gure pabiloiko **hankagabearengana**. **Anjel Lertxundi**

hankagorri (ETCn 61 agerraldi; orobat hanka-gorri g.er.) 1 izond adkor heldugabea. ik hanka 14.

Bera Hans izeneko alemaniar batekin ezkontzeaz egonagatik, nik gudarostea mihiaren puntaz dastatu izanagatik, ume **hankagorri** batzuk besterik ez ginen. **Harkaitz Cano**
Neskak belarran zerbait xuxurlatu eta gure anaiak nerabe **hankagorri** batek ere eginen ez zukeen irribarre zozo batez erantzun zuen. **Aingeru Epaltza**

• 2 iz umegorria.

Zuk ez dakizu [...] zer den emakume gazteak beltzez ikustea hiru eta lau **hankagorriekin** arrain eskean deskargan. **Koldo Izagirre**
Amak ere inguratzen dira kuxuxean, horiena bai etengabeko erditu-beharra, denek baitaramate nork bere azken **hankagorria** bular beltzarinari itsatsia eta sabel bir-handitu berriaren gainean bermatua. **Joxe Austin Arrieta**
Coca-cola erosi eta dzanga bakarrean hustu zuen, **hankagorriak** aho zabalik begira zituela. **Xabier Montoia**
Bere **hanka-gorriak** nire kontu utzi ditu; eta etxean urrezko behia omen zeukan... **Juan Kruz Igerabide**
Legea ez baita sexurik gabeko aingerutxo bat, ez eta zikoinak Paristik ekarritako **hanka**-gorri errugabea. **Joxerra Garzia**
Aldazek mahaiko xikinen artxipielaogan zeukan galdua behakoa, menturaz **hankagorri** lotsabako hark mastarakoan egin zion tuaren imintzia gogoan. **Koldo Izagirre**

hankajoko ik hanka 18.

hankaluze ik hanka 19.

hankamotz ik hanka 20.

hankapalu 1 iz adkor zurezko hanka.

Eliz-atarian jartzen zen senarra, makulu batekin, zango baten faltan **hankapalua** bailuen, diru eske. **Harkaitz Cano**
Izan zen sasoi bat elizaz eliza **hankapaluarena** egiten ibili ginena. **Harkaitz Cano**
Erorka biren ondoren iritsi zen eguzkiak laster berotuko zituen iturburuko haitzetara, **hankapalua** narraska eroala. **Koldo Izagirre**

2 pl akuilu-makuiluak.

Akrobaziak, malabareak, **hankapaluak**, monozikloa eta zirkoko beste hainbat teknikak uztartzen ditu Kapikuaren lehen ekoizpenak. **Berria - Kultura**
Bertsolariak, pailazoak, kale antzerkia, fanfarreak, **hankapaloak**, erraldoiak... **Berria - Euskal Herria**

hankape 1 iz hankazpia, oinazpia.

Hankapean zapaltzen den hautsa bezala gutxiesten zuten dirua. **Askoren artean**
Termometroa hartu eta **hankapean** txikitu omen zian. **Koldo Biguri**
-Errairik gabeko umeal, amaren erraiak **hankapean** erabiltzeko gauza haizena! -esan zuen handikiro. **Inazio Mujika Iraola**
Maiteminduta al zaude zure izena lohietan eta **hankapean** darabilen neska gazte horrekin? **Oskar Arana**
Gu **hankapean** hartu nahi izaten gintuzten kukumarru haiekikoak ziren beti Oteizaren lanak. **Koldo Izagirre**
Kolpe berean, txantxangorria xalto batean jaisten da nire aurrera, metro eskas bat aurrean, ia **hankapean**, eta hasten da txioka. **Pello Zabala**
Erregeordearen **hankapean** sartu eta hura aztoratu zuten zeri gaizto batzuk. **Xabier Olarra**
Euria egiten duenean ez dute hainbesteko hotsik ateratzen harri txintzarrek **hankapean**. **Koldo Izagirre**
Eta bere **hankapean** lurra bizkor hondoratzen ari zela sentitu zuen. **Iñaki Mendiguren**
Nork bere burua **hankaperaino** umiltzea. **Iñaki Segurola**
Taldeko liderrari [...] zor zaion errespetua **hankapetik** pasata jokatu zuen Simonik atzo. **Berria - Kirola**
-Alde Beltza, alde **hankapetik**! **Koldo Izagirre**

2 hankapeko izlag

Basamortuan galtzen bazara, ni zure **hankapeko** bide lehun gorria izanen naiz. **Patziku Perurena**
Erlauntzaren burrunban, lanaren irakinaren erdian, **hankapeko** oztopo dira erlemendoak. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hankapean erabili (4); **hankapean ibili** (3); **hankapean zapaltzen** (4); **jainkoaren semea hankapean** (3); **semea hankapean** (3); **semea hankapean erabili** (3)

hankaperatu, hankapera(tu), hankaperatzen du ad hankapean hartu, menderatu.

Zezenek euren aldekoak aieratzen eta **hankaperatzen** zituzten eta adarrak zaldien saihesta eta sabeletan sartzen eta lurra mehatzuzko bekokiz azterkatzen. **Xabier**

Amuriza

Osaba Vernonek Harryri errieta egin eta nola **hankaperatzen** zuen ikustea zen Dudleyren denbora-pasarik gogokoena.

Iñaki Mendiguren

Hankaperatzen, San Migelek herensugea bezala.

Iñaki Segurola

hankarin ik **hanka 10**.

hankarte (*orobat hanka-arte g.er.*) **1** iz hanken artea. ik **hanka 1**; **hanka 26**; **hanka 35**

Beste bati baloia **hankartetik** pasatu eta gero. Aritz Gorrotxategi

Osoek buztanak **hankartean** sartu zituzten, arrapaladan alde egiteko. Julen Gabiria

Rosa andrearen moduko emazte bat atean bere zain lanetik nekatuta itzultzen zenean, umeak **hankartetik** bueltaka. Bego Montorio

-Niri albistejak esaten duena hemendik pasatzen zaidak -gaineratu zuen Txantoi txikiak, eskuineko eskua **hankartetik** pasatzekoa eginez. Pedro Alberdi

2 hankak biltzen diren gunea. ik **iztape**.

Hankartean haustura ikaragarria zuen eta ezin zien inolako molde hesteei eutsi. Askoren artean

Nik ordura arte ez nuen erarik izan emakumeen **hankarte**a bertatik bertara ikusteko. Aitor Arana

Hankartea hartu dio ahoa belarrira hurbildu bitartean. Sonia Gonzalez

Begiak itxita, eskua luzatu zuen eta nire **hankartean** tente zegoen zakila bilatu. Juan Martin Elexpuru

Hankartea garbitu zion bi pertz bete ur berorekin, eta gero izarekin lotu zizkion sabela eta bagina. Anton Garikano

Alazneren **hankarte**a berearen gainean zegoen. Fernando Morillo

Hasanek gogotik besarkatu zuen, emakumearen **hankartean** barneratu, eta kanoia hartara zuzendurik, harresiaren kontra tiro egin, eta halaxe porrokatu zuen gaztelua.

Patxi Zubizarreta

Hanka -artea estaltzen duena eta, agertzekotan, beste gizabanako bakan batzuen aurrean eta ezkutuan betiere. Iñaki Segurola

Bat-batean niregana inguratu zen Karmen, eta, eskua nire **hankartera** eramanda, besarkatu nahian hasi zen. Inazio Mujika Iraola

Bitartean mihia izterretatik eta **hankartetik** pasatzen dit, gutiziaz, guztiz irekia nago. Juan Martin Elexpuru

Hanka -arteko koskorretatik darion maitasuna zeinek jasoa falta eta bakarlanean, eskulangintzan edo autonomo gisa aspertua dagoen gizasemea putatara joaten da. Iñaki Segurola

Baina nik ezin nuen begirada kendu emakumearen titietatik eta **hankarteko** ileetatik. Karlos Zabala

Bihotzekoa esaten dioten baina berez **hankartekoa** den generoari esker. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere hankartean (3); **buztana hankartean** (6); **hankartean jarri** (6); **hankartean sartu** (3); **hankarteko ilea** (3); **hankartera eraman** (3); **hankartetik sartu** (4)

hankasartze ik **hanka 25**.

hankasoinu ik **hanka 26**.

hankatarte ik **hanka 27**.

hankatraba (*orobat hanka-traba*) iz zangotraba. • *irud/hed*

Urte haietako **hanka-trabak** eta azpi-jokoak ezagutu ahala, harritzeko moduan piztu zela nigan haratagoko jakin-mina. Txillardegi

Buruzagien artean antzematen nuen **hanka-traben** eta azpikerien zitrinkeriak azkartu egiten zuen ene mesfidantza hazkorra. Txillardegi

Bestea, berriz, lesioen **hankatrab**a jaso ez duten partiden maila handia izan da. Berria - Kirola

hankatxo iz hanka txikia.

Gnomoa ostikoka ari baitzen maskurrez beteriko **hankatxoekin**. Iñaki Mendiguren

Barrenean saguen **hankatxo**en oinatzak ikusten ziren. Fernando Rey

Ukitutxoak egiten dizkiote elkarri aurreko zein atzeko **hankatxoekin**. Jose Morales

Emakumeak beturrekoen **hankatxo**a zinta isolatzailearekin itsatsita zuela ikusi nuen. Lander Garro

hankatzar iz hanka handia.

Harryk atzera bota behar izan zuen burua haren aurpegi erraldoiari begiratzeko: antzinakoa zen, tximino-antzekoa eta bizar mehe luze-luzea zuen, bere azti-jantzi dotorearen barrenerraino iristen zitzaiona; azpi-azpian, ganberaren zoru leunaren gainean, bi **hankatzar** gris ikusten zitzaizkion. Iñaki Mendiguren

Hankatzar haiek handik kentzeko. Ramon Saizarbitoria

hankazabal ik **hanka 28**.

hankazain ik **hanka 30**.

hankazgoratu, hankazgora(tu), hankazgoratzen du *ad* azpikoz goratu.

Lege zitala zen; izan ere, ohiturak gordetzeko, natura **hankazgoratzen** zuen, ohituren jatorria naturan dagoelarik.

Iñaki Iñurrieta

Fisika klasikoaren oinarriak erabat **hankazgoratzen** zituela. Xabier Olarra

Hobe nuela, alegia, botila erdi tsak ikustera ezkorra beste baterako utzi, baldin eta ez batiu Pariseko egonaldi erromantiko hura **hankazgoratu** nahi. **Hasier**

Etxeberria

Honelako interpretazio guztiek dena **hankaz** goratzen dute arrazoi makurrez. **Xabier Amuriza**

Naturaren berezko ordena erabat lardaskatuz, nahasiz, suntsituz eta **hankazgoratuz**. **Jose Morales**

Estatu Batuetako interes-tasak igotzen badira, edo tokiko ordainketa-balantzak behera egiten badu, **hankazgoratuak** gerta daitezke kapitalen fluxuak. **Koro Navarro**

hankazpi *(ETCn 36 agerraldi; orobat hanka azpi ETCn 85 agerraldi)* iz oinazpia. ik **hankape**.

Ote mordoan gainera jauzi egin, eta halare lasai; hartaxeraino kailutuak **hankazpiak**. **Edorta Jimenez**

Ezein kondenatuk ez duela sekula agindua eman korrontea piztu, **hanka azpiko** tranpatxoa ireki, xafra zorrotza askatu, torlojuari bueltak eman edo pospoloa izekitzeko.

Herria

Umeek **hankazpian** zanpatutako lore txuriek. **Joxerra Garzia**

Jehuk bere zaldien **hanka azpian** erabili zuen. **Fernando Rey**

Vespan, **hankazpian**, soinua eramaten zuen Gelatxok. **Pako Aristi**

Egurenek saxofoia **hankazpian** eramaten zuen. **Pako Aristi**

Bere kaparen barrenak **hanka azpian** katigatu, eta estropezu egin zuen. **Anton Garikano**

Trenez, berriz, zakuan gaztainak bezala joango zara, lagun bat **hankazpian** eta bestea buru gainean dituzula. **Gotzon Garate**

Oinarrizko eskubideak ez ezik, gure eskubide politikoak ere **hanka azpian** hartzen dituzte. **Itxaro Borda**

Ezein kondenatuk ez duela sekula agindua eman korrontea piztu, **hanka azpiko** tranpatxoa ireki, xafra zorrotza askatu, torlojuari bueltak eman edo pospoloa izekitzeko.

Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hankeko iz arraunontzian, popako tostan dauden bi arraunlarietako bakoitza.

Nolako kalipua **hankeko** harena lagunak sustatzeko eta patriari eritimoa biziarazteko! **Joxan Elozegi**

hankoker ik **hanka 22**.

hankutsik ik **hanka 17**.

hanpadura 1 iz hanpatzea.

Hanpadurak beheiti egin dik, behinik behin. **Aingeru Epaltza**

Paparpean, kamisetaren **hanpadurak** iradokitzen zituen malkarrak ere belzturik ote zituen. **Aingeru Epaltza**

Eta, haren begitarte eder lasaian, haren lepoaren **hanpaduran**, halako izu-ikara lauso bat ageri zen gauza higuigarriez elikaturiko gizon haren aurrean. **Karlos Zabala**

Erraz askatu zuen bonbilla zaharra, eskuetan erabili zuen, hementxe, kristalaren **hanpadura** hau, xahartu egin haiz. **Koldo Izagirre**

2 irud

Familia giroko kontuekin batera, **hanpadurarik** batere gabeko estiloan beti, faxismoaren gorakadaren eta Bigarren Mundu Gerraren garaiko Italiaren kronika zintzoa idatzi zuen Ginzburgen bere nobelen bitartez. **Berria - Kultura**

hanpatsu izond hanpatasunez bete. ik hanpurutsu.

"Ni nauzu" esan ala ez egon nintzen, baina **hanpatsuegia** iritzi nion. **Ramon Saizarbitoria**

Agur ekitaldi ofizial **hanpatsua** egin zuen Euskaltel-Euskadi taldeak eta talde hori laguntzen duten erakunde ofizial denek, atzo eguerdian, Derion. **Berria - Kirola**

hanpatu *(ETCn 1.292 agerraldi)*, hanpa, hanpatzen 1 da/du ad puztu, bete; harrotu. ik **hantu**.

Buru atzera bota eta amasa hartu zuen bularra **hanpatuz**. **Koldo Izagirre**

Cécile Andereñoa, harakinaren alaba, behin ere ezkonduko ez dena masailpeko gurintxoak **hanpatuak** dituelako. **Karlos Zabala**

Bisaia odolez **hanpatzen** ari zitziola ohartu zen, erran nahi baita, lotsagorritzen ari zela. **Unai Iturriaga**

Hezetasunak **hanpatutako** ateen danbateko eta mailukadak. **Anton Garikano**

Ez ahal gira halere ogia bezala **hanpatuko**! **Herria**

Hegazkinetik jaistear ginela, andereak leihotik metropoliko bide nagusiak autoz **hanpatuak** susmatzen zituela erran zidan. **Itxaro Borda**

Klase borrokak alabaina ez zituen sakelak urrez **hanpatzen**, alderantziz beharbada. **Juan Garzia**

Nire gela ke eta erretxina usain magiazko hartaz **hanpatzen** zenean. **Josu Zabaleta**

2 irud

Ahotsa **hanpatzen** du, norbait imitatzen ariko balitz bezala. **Anjel Lertxundi**

Hitz horiek urguiluz hantu, **hanpatu** ninduten. **Daniel Landart**

Goiz nabar haietan hatsa bahitua, antisiaz **hanpatua** eta izerditan iratzartzen nintzen. **Itxaro Borda**

Ohe estaliaren pean kukutu orduko, egunean zehar **hanpatu** desira lehertu zen. **Itxaro Borda**

Euskal Herriaren eta Euskararen amodioz zartatzeraino **hanpatu** testuak eskaintzen. **Itxaro Borda**

Senperetik higitu gabetarik, Amerikak burua **hanpatzen** zidan. **Itxaro Borda**

3 (era burutua izenondo gisa)

Praken goiko botoiak askatuak zituen, sabel **hanpatu** hura estutzen baitzioten. **Lopez de Arana**

Karkara gordina askatzen zuen noiztenka, etxekoei maleta **hanpatu** batetik ilkitzen zituen opariak banatzen zituela. **Itxaro Borda**

Betazal berde **hanpatuen** tolesetan. **Lopez de Arana**

Itsaso Beltzean nekez eta poliki zebiltzan itsasontzien oihal **hanpatuak** bezala. **Felipe Juaristi**

Azken batean, argumentuaren sortzailea nintzen, istorioaren egitura niri zegokidan, halaxe esaten nuen neure artean, neure buru **hanpatu**-harrotua Hollywood-en ikusten nuela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahots **hanpatuz**, polboroiak jaten ari balitz bezala. **Juan Martin Elexpuru**

"Zurea duzu eraztuna", esan zidan modu goibel eta **hanpatuan**. **Ander Irizar**

Izan ere, Eugeniren ama -hainbeste laidoren jomuga- gizarte burgesaren **haragipena** da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

haragitegi ik **harategi**.

haragitsu *izond* haragi asko duena. ik **mamitsu**; **gihartsu**.

Ezpain **haragitsuak**, labankaden moduko begiradak. **Lopez de Arana**

Zimeldu egin zitzaizkiola behinola **haragitsuak** zituen ezpainak. **Ramon Saizarbitoria**

SDko agenteak mihi **haragitsu** atera eta zilindro ez oso erregularra miazkatu zuen. **Alberto Ladron Arana**

Esku gorri **haragitsuak**, endaiak ziruditenak gehiago eskuak baino. **Felipe Juaristi**

Haren hankak luzeak ziren eta izterrak **haragitsuak**. **Juan Martin Elexpuru**

Margaret Astor **haragitsuak** tabernatik alde egiteko gogoa ezkututzen zuen. **Lutxo Egia**

Saguzar **haragitsuen** hegal laburrak. Karlos Zabala
Erakusmahaiairen gainean, oilasko lumadunek bularki **haragitsua** erakusten zuten. Karlos Zabala
Ahoskorda deitzen diren horiek laringean dauzkagun ezpain itxurako tolesdura **haragitsuak** dira. Lourdes Oñederra
Ahosabai bigunak eta haren luzakin **haragitsuak**. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ezpain haragitsu (4); **ezpain haragitsuak** (10); **haragitsu eta** (3)

haragitu *(ETCn 519 agerraldi)*, haragi(tu), haragitzen 1 da *ad* haragi egin. ik **haragiztatu**.

Gu denok salbatzeko, esaten du ergel horrek, **haragitu** da bera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Islam garailearen panteoian, Jainko **haragitu** kanporatua Ali jainkotuaren forman mozorrotuta itzuli zen isilka. Iñaki Mendiguren
Ehun urte pasata printzesa moduan berriz **haragituko** zela iragarri zion Taibeleri. Koro Navarro
Lumumba ez zegoela hilda, leopardo batean **haragiturik** oihanean zebilela. Iban Zaldua

2 haragi bihurtu.

Neure ezbai eta buruhauste haiek guztiak, denbora batean enegan **haragitzen** zirenak. Joan Mari Irigoien
Garai berezi batean **haragitu** izpirituak zarete biak. Itxaro Borda
Orduan axalez esandakoak, ordea, **haragitu** egin zaizkit orain. Patziku Perurena
Eta oihu eta kexu haiek anonimoak ziren, baina, ene baitarak heldu orduko, neure baitan **haragitu**, eta ene haragi hartan hartzen zituzten izen-deiturak. Joan Mari Irigoien
Artearekiko sentsibilitatea dute bai Isidoro Fernandezek gorpuzturiko Maxek eta baita Kike Diaz de Radak **haragituriko** Martinek ere. Berria - Kultura

haragitze *iz* haragi egitea, haragi bihurtzea. ik **haragiztatze**.

Edertasunaren **haragitzea** zen Yvan. Joxan Elozegi
Hargatik, hontzarekin, ardi trapatuarekin, otso zuriaren **haragitzearekin** frogatzen nuenez, hala nahi izanez gero, determinismoa ez zen muga, amodiozko elkartasunaren oinarri eta abiapuntu zehargi baino. Itxaro Borda
Oraindik ez zekiat zer den ere poema bat birbiltzea; ipuin bat harrigarri bihurtzea; nobela baten eskeletoa **haragitzea**. Patziku Perurena

haragizkotasun *iz* haragizkoa denaren nolakotasuna.

Esango nuke esan, Txomin Agirrek berak ere ez zuela sinesten Joanesen **haragizkotasunean**, eta arketipo ideal gisa sortu zuela. Xabier Mendiguren Elizegi
Urruntasun aristokratikoaren aieru zen nolabait, senar-emazteen harreman minari inolako **haragizkotasun** -kutsurik ez zeriola iradokiko balu bezala-. Mirentxu Larrañaga

haragizkotze *iz* haragizko bihurtzea.

Haren itzala zen, haren **haragizkotze** lurtarra. Juan Garzia

haragiztatu *(ETCn 199 agerraldi)*, haragizta, haragiztazen 1 da/du *ad* haragitu.

Estatuaren agintekeria funtzionarioik alprojenetan **haragiztazen** da eta emaitzak gordinak dira gehienetan. Berria - Euskal Herria
Edertasuna hitz ederrez finkatua, mintzairaren graziaz **haragiztatua** bezala. Piarres Aintziart
Ireki nuen bada gutunazala, eta nire susmo txar guztiak hantxe zeuden, krudelki egiaztaturik, gordinki **haragiztaturik**. Xabier Mendiguren Elizegi
Poetak deserosoak egiten zaizkio errealitate egunerokoan **haragiztaturiko** errepublika politikoari. Anjel Lertxundi
Hemen, arkitektura geometriko modernoak, matematikaren perfekzioa harriz eta betoinez **haragiztazen** du. Piarres Aintziart

2 (era burutua izen gisa)

Tatuajeak karmaren irudi **haragiztatuak** dira. Javi Cillero

haragiztatze *iz* haragitzea.

Ministro bat, jende arruntaren aurrean boterearen **haragiztatzea** dena. Jon Alonso
Jaungoikoak gure gorpuzta hartuz eta gure artean bizi izanez gauzatutako **haragiztatze** misterioaren handitasun paregabeak. Imanol Unzurrunzaga

harakai *iz* haragitako gizenduriko aberea.

Zerria, ardia, edo beste edozein **harakai** hil ondoren egindako tripaki nahastei. Patziku Perurena
Harakaia adaskaria bazen, han geldituko ziren adarrak sotoko paretara zuloren batean, bihar edo etzi sepapotoa edo zena zelakoa zintzilik patzeko. Patziku Perurena

harakeikatu, harakeika, harakeikatzen du *ad*

[Animaliak, pertsonak bezalaxe, euskaraz, *hil* egiten direla] okelatarako badira, baita *pikatu* edo **harakeikatu** ere. Iñigo Aranbarri

harakin *iz* haragia saltzen duen pertsona.

Harakinek, mantal zuri handiak jantzirik, zigilu batez okela markatu, garraiatu, pisatu eta barra batzuetatik zintzilik uzten zuten, enkantean saltzeko. Karlos Zabala
Ezta **harakinek** antxumez beteta garraiatzen zituzten bagoiak ere. Fernando Rey
Harakinak eta harategietako langileak. Pello Zabala
Joxe Mari **harakinari** Izaskun tabernaria gustatzen zitzaion. Joxean Sagartzizabal
Ez, bera ez zen [...] emakume buruarinekin marmarrean aritzeko eta **harakinaren** ilaran bultzaka ibiltzeko sortu. Koro Navarro
Bere ehun eta hogei kiloak gorabehera, bildots bat iruditzen zaigu, bildots otzana, **harakinaren** labanari begira dagoena. Bernardo Atxaga
Harakin -amantala eta beisbol-kapela. Lopez de Arana
Harakin -aizkorarekin. Xabier Olarra

Harakin elkartetako bozemaile eta arduradun gisa. **Berria** - Euskal Herria
Arizana zelarik **harakin** apendizgoan Hazparnen, Akizen eta Capbretonen. **Herria**

harakiri iz japoniar erritu suizidioa, sabela ganibet ukaldi batez irekitzean datzana.

Jendeak **harakiria** egiten duen leku batekoa duk. **Bernardo Atxaga**

harako 1 izlag (izen sintagma baten ezkerrean) hangoa, delakoa.

Hiri oso bat izana ei zen **harako** hondakindegia, Herbertek esan zuenez, hiri maia bat... **Joxe Austin Arrieta**

Harako tango hura, honela hasten dena: [...]. **Josu Zabaleta**

Egiazkotzat hartzen duzu **harako** esaera hura: "den oro nonbait izan behar du" dioena? **Imanol Unzurrunzaga**

Baina zer da ezbeharra ez den **harako** halabehar hura, derrigorrezko halabeharretan halabeharrekoena? **Iñaki Segurola**

Denbora galduren bila ote nabil, beste **harako** magdalenazale haren antzera? **Juan Kruz Igerabide**

Harako film hartan esaten zuten bezala. **Oskar Arana**

Edo zergatik utzi diodan **harako** tailer hartako nagusiari ziria sartzen. **Aingeru Epaltza**

Zerua ortoska eta oinazturaka zegokeen, hain segur ere, **harako** egun txar hartan. **Aingeru Epaltza**

Behin Edith-i senar-emazte arteko gure liskarrik garratzenetako batean bota nion **harako** esaldi nahi gabe sakon eta ia mistiko hura: sinetsitakoan ikusiko dut. **Oskar Arana**

Segurola zara zu, ezta?, **harako** Realeko entrenatzaile hura bezala? **Iñaki Segurola**

Harako Xenpelarren bertso aldrebes sonatu hartan bezala: [...]. **Patziku Perurena**

Uste dut begien bistakoa dela **harako** barne sentimen hark gorputzaren bost sentimenterik jasotakoak sentitzeaz gain, sentimenak beraiek ere sentitzen dituela. **Imanol Unzurrunzaga**

Urtebete lehenagokoak nituen Gilenen azken berriak, **harako** Beñat zital hark Garrúzen emanak. **Aingeru Epaltza**

Al Mansur, **harako** indiar mandatarien oparia jaso zuen haren ondoren, Harun al Rachid etorri zen. **Jon Muñoz**

Abuztuko ortzirale horretan ere, Anaren beso-papar beltzuei so, lau urte lehenagoko **harako** Mertxe harekikoa zebilkidan gogoan. **Aingeru Epaltza**

Kimikari gara, hots, ehiztari: geure ditugu **harako** Paveseak aipatzen zituen "nagusitaroko esperientzia biak", arrakasta eta porrota, balea zuria akabatzea ala ontzia suntsitzea. **Juan Garzia**

Ez zebilen batere oker, **harako** esaera asmatu zuena ere, *Apirileko zizea, urrea baino hobea!* Neure egin izan dut **harako** Audrey Hepburn hark **harako** Cary Grant hari erran ziona: "jende aunitz eta aunitz ezagutzen dut jadanik, eta hutsuneak izan arte ez zait adiskidantza berrietarako lekurik gelditzen". **Pello Zabala**

Eta ez zegoen alferrik egonean **harako** adar-kopa hura. **Patxi Ezkiaga**

Izan ere, **harako** *Ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez gutiziatu* eta beste edozein agindu, esaldi honetan biltzen da: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala. **Elizen arteko biblia**

2 (izena ezabaturik)

Zoriontsuak ez du bizia zuzenean bizi edo sentitzen; zoriontsuak etsi-etsian ezagutu egiten du hau **harako** haren ispilu gisa, eta hura da dakienek batek zoriontsunari buruz kontaktatu dion filma. **Iñaki Segurola**

Ikasle multzo bat gure etorkizun profesionalaz ari ginen ikastetxeko patioan, honako honek ingeniari, horrako horrek maisu eta **harako** hark mediku, noiz eta ere, gure Potzokol ahoa bete hortzekin utzi baikintuen denak. **Aingeru Epaltza**

Honako honek hamar, horrako horrek hamabi, **harako** hark hamalau egun, eta denek zera erantsirik: "gutierrez". **Aingeru Epaltza**

3 izlag hara doan.

Debekatu egin baitizue Jaunak berriro **harako** bidea hartzea. **Elizen arteko biblia**

Paris ez dago itsasertzean, ez da eguzkitsua, eta, hala ere, **harako** bidea hartu nuen. **Anjel Lertxundi**

Harako bidean neska eroso egon dadin saiatzeko da. **Oskar Arana**

Zortzimilakoak maite ditut nik eta **harako** espedizioak eta hango zerua. **Unai Elorriaga**

Alabaina, Bagdageko txoriak Bagdagera nahi, eta egunero joaten nintzen kaira, **harako** itsasontzirik hurbiltzen ote zen ziurtatzera. **Patxi Zubizarreta**

Guk porturako bidea hartu behar dugu, **harako** baita, hain segur xuxen Funchal itsasuntzia, urez ur erabiliko gaituena. **Herria**

Eta euria hasi berria zela atera da hemendik **harako** asmoz. **Aitor Arana**

Sarbide bakarra zegoen **harako**: zubi altxagarri bat, amildegi ezin malkorra goean gainean ezarria. **Jon Muñoz**

-Honakoa erraza izan zuan -errepikatu zuen Germanok-, baina **harakoa**.. **Josu Zabaleta**

Harakoan ez nion fraideak erabili zuen mediku barbari erreparatu, hain nengoen nire onetik kanpo. **Edorta Jimenez**

4 harako hartan

Harako hartan piztia ikusi, eta gelditu egin ninduan, hik ere ikusi huen, eta hamar urrats atzerago gelditu hintzen. **Xabier Olarra**

Laburra izan baitzen upelgilearekin batera sotoetako gaiak zerrendatzen **harako** hartan eman nuen denbora. **Edorta Jimenez**

Harako hartan, Mungiako batzokian izan zirela ezteiak. **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina harako (7); **beste harako** (7); **da harako** (3); **den harako** (3); **duzu harako** (3); **edo harako** (9); **egin zuen harako** (3); **eta harako** (28); **eta harako bidean** (3); **eta harako hark** (6)

harako beste (7); **harako bide** (3); **harako bidea** (7); **harako bidean** (23); **harako erran** (6); **harako erran hura** (4); **harako esaera** (4); **harako esaldi** (3); **harako haren** (3); **harako hari** (3); **harako hark** (12); **harako hartan** (35); **harako hura** (35); **harako joera** (3); **honako edo harako** (4); **zen harako** (11); **zien harako** (3); **zuen harako** (10); **zuen harako hartan** (3); **zuten harako** (4)

baina harakoa (3); **harakoa ez** (3)

haran 1 iz ibarra; ibar garaia.

Asturiasen dagoen **haran** bildu baten izena da Beanes. **Bernardo Atxaga**

Haran hertsu batean gara; bi aldetatik mendixka batzuk, xutak. **Marzel Etxehandi**

Hango mendikate eta **haran** izoztuak zeharkatuz. **Bernardo Atxaga**

Autoak, **haran** zabaleko errepidetik irten eta eskuin jo du, malda pikoan barrena. **Pello Lizarralde**

Haraneko ordoki belartsura irten dira. **Pello Lizarralde**

Haranaren behealdetik bidean gora. **Agustín Otsoa**

Bazter gozo ezti eta ixila da Baztan **haranaren** altzoa, Hauza mendi gotorrak ongi zaindua ipar-iguzkialdetik. **Herria**

Languedoc-Rousillon-eko **haran** bakarti eta harritsuetatik paseatzen. **Bernardo Atxaga**

Nilo ibaiaren **harana**. **Iñaki Mendiguren**

Urritzateko **haran** miresgarria. **Herria**

Haren oihuak **haran** hegi batetik bestera aditzen ziren, are gehiago haize egunetan. **Itxaro Borda**

Tiber ibaiaren goi- **haraneko** erdigune garrantzitsua. **Askoren artean**

2 irud

Adanen seme-alaben **haranean**. **Askoren artean**

Heriotzaren **haranean** barrena bezala. **Anton Garikano**

Jakin genezake pentsamendu- **haran** gozo horretan murgidu zaituenaren izena? **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste haran (4); **eta haran** (20)

haran aldera (5); **haran bat** (5); **haran batean** (7); **haran berde** (3); **haran eta** (9); **haran guztia** (3); **haran hartan** (3); **haran hau** (4); **haran honetan** (3); **haran lehiaketa** (3); **haran osoa** (5); **haran osoan** (3); **haran sakratuko** (3); **haran txiki** (3)

araba harana (4); **beheko harana** (3); **eta harana** (5); **eta haranak** (7); **harana eta** (5); **haranaren beste** (5); **haranaren beste aldean** (4); **mendiak eta haranak** (4)

ben hinom haranean (6); **eta haranean** (3); **eta haraneko** (4); **haranean barrena** (8); **haranean behera** (3); **haranean bizi** (3); **haranean dagoen** (4); **haranean ere** (3); **haranean eta** (4); **haranean zabaldu** (3); **haranean zabaldu ziren** (3); **haranean zehar** (7); **haraneko beste** (3); **hinom haranean** (6); **izeneko haranean** (3); **refaim haranean** (3); **refaim haranean zabaldu** (3); **spoleto haranean** (8); **spoleto haranean zehar** (3); **spoleto haraneko** (8); **terebinto haranean** (3)

beheko haranera (4); **haranera iritsi** (3); **haranera itzuli** (4); **haranera itzuli zen** (3); **haranera jaitsi** (3); **spoleto haranera** (7); **spoleto haranera itzuli** (4)

eta haranerantz (3); **eta haranetan** (3)

haranalde iz harana.

Ohitura berri bat hedatu zuen Isidorak **haranalde** osoan. **Pako Aristi**

Urre miaketak Errobi **haranaldean**. **Herria**

haraneratu, haranera(tu), haraneratzen da ad haranera joan.

Ez zuen, sasoiako mendiko txabolaz beste etxerik, eta **haraneratzen** zenean, ardo botila eta gasna baten trukean, bataren edo bestearen egoitzetan kausitzen zuen unean uneko aterpea. **Itxaro Borda**

harantz ik hara 3.

hara (*ETCn 8.610 agerraldi; orobat haragitegi ETCn 28 agerraldi*) iz abereen haragia saltzen den denda.

Itzuli batzuk egin zituen arrandegi, **harategi**, fruitu eta barazki postuen artetik. **Unai Iturriaga**

Harategi bat ireki zuen *Spring Gardens* ondoan. **Irene Aldasoro**

Janari-hondarrak, hezurrak, txakurrentzako okela **harategitik** ekarria. **Oskar Arana**

Harakinak eta **harategietako** langileak. **Pello Zabala**

Azalik gabeko mamia naizela, **harategietako** kakoetan zintzilikatzen dituzten arkume larrutuak bezala. **Hasier Etxeberria**

Epizeria bat, arraintegi bat eta **haragitegi** bat. **Herria**

Barkoxen, Lechardoy **harategian**. **Herria**

Harategi -gakoekin zintzilik jarritako txekor larrutu bati. **Harkaitz Cano**

Arabako **Harategien** Elkarteko (Aselcar) presidente Angel Alabak. **Berria - Harian**

harat-honat ik hara 1.

haratu, hara(tu), haratzen da du hara joan.

Hau uberotarra dugu, Eskuilako herrian sortua, Pariseko euskaldunen apez zen **haratu** aintzin [Ameriketara]. **Herria**

Han ikusi euskaldun gehienek bere bizipidea han egina daukate, gehienek familia ere ba; beren sor lekuaz, herriaz, hemen utzi haurridetaz ala lagunetaz mintzo badira atzo **haratuak** balira bezala, etxeko penze, mahasti ala auzoko iratze lekuko zedarriak nun diren gogoan izanik ere, hangotuak dira eta deplauki ainitzek erranen dauzute han egina dutela bizia, han dauzkatela familia ala lagunak eta mirakuluz kanpo han bururutuko dela heien bizia. **Herria**

Maizenean hiruzpalau ginen eguerdi tertitarik goiti **haratzen**: Andre Ospital, Lafitte, Salaberry Via Piako bere lkastegitik etortzen zena, eta ni. **Xabier Mendiguren Elizegi**

haratustel iz haragi ustela.

Hire gorputza **haratustel** mordo hartatik atera nuenean, hilda hintzela pentsatu nian. **Agustin Otsoa**

Gure pintura usteldua, **haratustelaren** gisara desegiten da. **Berria - Kultura**

Eguzkitan lurruntu ageri den **haratustelaren** modukoa. **Karlos Zabala**

harbaila iz ipar

Beltxuren hegoaldean den Mendigune miresgarria da Zaboze, dena **harbaila** eta oihan. **Herria**

Leize eta karbeak ainitz dira eskualde hortan, **harbailak** ere aro eta eguraldiek higatuak, zilatuetak eta zorrotzuetak. **Herria**

harbeltz iz ikatz mota gogorra, beltz distiratsua.

Hizkuntza horrek bereganatzen ninduen: dena bokalez estalia -hala nola itsas bazterra uhinez-, erdi-erdian, **harbeltzezko** arrokak iduri, kontsonante gogor, latz batzuekin (k, x, t). **Aurelia Arkotxa**

Harbeltzak ditu udaberri-zitoak alferrik galtzen, haien altsumak lora-zabaldut baino lehen sarritan, eta gaztaroko goiz-ihintz freskotan ohi dira helde kutsakorrek errazen gertatzen. **Juan Garzia**

harbide iz harri bidea, harrizko bidea; eskuarki harri landuz eginiko bidea, bide lauzatua. ikgaltzada.

Atezainak langa altxatu eta sartu gara aparkalekura, jardina ederra da eta **harbide** bat dago aldapan gora eraikin nagusiraino. Aulkian eserita nago edo gora eta behera nabil oinez gure lagun izoztuarekin, Pauso Galduen Galerian barrena edo frantsesa ematen duen lorategi honetako **harbideetan**. **Joseba Sarrionandia**

Harbidean bizikleta jauzika dotore eramaten duten txirindulari indartsuek. Berria - Kirola

Harbidea, galbidea, izan zitekeen gaurko lerroburua, Paris-Roubaix klasiko handiko bi **harbide** zatietan barrena egiten zuelako bideak, eta itxuraz, hori zelako etapako arriskua. Berria - Kirola

hardcore iz oso itxura gogorreko rock musika mota.

Betiere punkaren, **hardcorearen** eta punk-rockaren eremuan. Berria - Kultura

Captain Nemo taldeak punk-rock eta **hardcore** erritmoz osatu du bere lehendabiziko diskoa. Berria - Kultura

Latex taldeak punk eta **hardcore** kantuez osatutako diskoa kaleratu du. Berria - Kultura

Fun People **hardcore** taldeko abeslariari. Berria - Kultura

Oso erradikala zarela, oso punk edo oso **hardcore** edo oso nahi duzuna, beti gogor plantak egiten. Sonia Gonzalez

hardoitar izlag/iz Hardoikoa, Hardoi dagokiona; Hardoiko herritarra.

Beñat Gimenez **Hardoitar** medikua presentatzen da Angelun martxo honetan kantonamenduko bozetara. Herria

Esku-huska, Gorka Eliceche eta Beñat Indaburu nagusi 30-24, Zelaiko plazan, Antton Pebet eta Olivier Cosse **hardoitarren** kontra. Herria

harea (ETCn 4.068 agerraldi) 1 iz kuartzozko ale xeheen multzoa. ikhondar¹.

Harea gorriaren eta harri beltzaren gainean. Juan Garzia

Harea zuriko hondartza batean paseatzen. Aingeru Epaltza

Bere duna zabalekin, bere **harea** finarekin, bere leize handi eta itsaso bikainarekin, Miarritze leku miragarria da. Koldo Izagirre

Mila eta berrehun edo mila eta bostehun biktimek betetzen zuten egunero zirkoko **harea**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Itsasoko **hareari**. Santiago Iruretagoiena

Basamortuko **harearen** gainean gauzatzen ziren desirak ziren. Xabier Aranburu

Hareazko duna berdeak. Anton Garikano

Hareazko zurrumbiloen eta gau zabalaren artean. Juan Garzia

Gogoko ditut **hareazko** erlojuak, mapak, XVIII. mendeko tipografia, etimologiak, kafearen zaporea eta Stevensonsonen prosa. Juan Garzia

Bi mila libra **hareatatik**, ordea, ez zuen lortu bi printza urre baino ateratzerik. Juan Garzia

2 (eraikuntzan)

Harrobiko **harea** erabiltzen bada, hiru parte **harea** eta parte bat kare nahastuko dira; errekaokoa edo itsasokoa bada, bi parte **harea** eta parte bat kare. Santiago Iruretagoiena

Harresia erretako adreiluekin egiteko aukera, karearen eta **harearen** ordez galipot urtua erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Marmola bahetu eta zabalduko da eta gainean kare eta **hareazko** geruza bat emango da. Santiago Iruretagoiena

3 (hitz elkartuetan)

Sei eguzki, sei **harea** zirkulu. Joseba Sarrionandia

Harea koloreko uniformearekin heldu zen. Joseba Sarrionandia

Harrobiko **harea** -motak hauek izaten dira: beltza, zuria, gorria eta ikatzezkoa. Santiago Iruretagoiena

Bide hau oso gogorra da tarteka, zati batzuk **hare** -lauzaz eta marmol-lauzaz daude zorutuak. Koldo Izagirre

Hare eta belar zelaietan futbolearen ari diren lagun taldeak. Berria - Kultura

Erregea ez hitz ez hitzondo geratu zen tamainako edertasunaren aurrean: gaua bezalako zazpi txirikorda luze eta beltzak; ikatza begietan; **hare** muinoak masailetan. Patxi Zubizarreta

Basamortuko haize eta **harea** ekaitzarekin. Herria

Hondartza ertzeko **harea** -hauts lehorra harrotu zuen. Anjel Lertxundi

Hauts partikula hauek **harea** -pikor bat baino ehun aldiz txikiagoak dira. Berria - Mundua

Eta basamortuko **harea** -ale arrunt batean ere ba omen dago zorientasuna aurkitzerik. Xabier Aranburu

Gizartea bera antolatu, giza aldra harriztar multzo horiek gizabanakoen iduriko diren **hare** garauak eginez. Andres Urrutia

Itsas- **hareatik** falta zitzaion gatza behar zitzaion zainetara bota. Pello Zabala

4 harea erloju

Hermione katea ateratzen ari zen, eta Harryk **harea** -erloju txiki eta distiratsu bat ikusi zuen handik zintzilika. Iñaki Mendiguren

Hiru aldiz eman zion buelta **harea** -erlojuari. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harea ale (5); **harea erloju** (3); **harea gainean** (4); **harea mugikorretan** (3); **harea pila** (3); **harearen gainean** (7); **harrobiko harea** (4); **karea eta harea** (4); **ura eta harea** (3)

hareatsu izond harea asko duena; hareaz osatua. ik hondartsu.

Ez dira egin behar lur **hareatsuz** edo harri-koskorak dituenarekin. Santiago Iruretagoiena

Mendi itzaltsu edo hondartza **hareatsuren** baten xerka. Aingeru Epaltza

Zorua lurtsua edo **hareatsua** balitz. Santiago Iruretagoiena

Kale arreen harrotua zen haize **hareatsuari** aurre eginez. Lopez de Arana

Foken Uhartea laua eta **hareatsua** da. Juan Garzia

Portugaleteko barra **hareatsua** baino barrurago. Edorta Jimenez

Trogloditak, Hilezkorak ziren; uharre **hareatsua**, zaldizkoak bilatzen zuen Ibaia. Juan Garzia

hareatza (60 agerraldi, 22 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 302 agerraldi) 1 iz hareaz osatutako lurra. ik hondartza.

Itsas bazterreko **hareatza** zabal batean. Jokin Muñoz

Itsas adarra, **hareatza** zabal lehorra oren hartan. Koldo Izagirre

Hareatzatik hogeita hamar bat oinetara edo nengoen. Juan Garzia

Hareatzan etzanik zegoen. Juan Garzia

Hareatzan bazen hondo apurreko putzurik; zulo xixtrin horietatik (eta hobietatik) larru griseko gizon bizar-zabarrrik jalgitzen zen, biluzik. Juan Garzia

2 zezen plazako erdialdeko biribilgunea.

Gaur ez dabil inor zezen-plazako **hareatzan**. Jokin Muñoz

Hareatzan matadorea, honezkero zazpi banderilla iltzaturik dituen zezenaren bizkarrezurrean ezpata sartzen. Edorta Jimenez

hareharri *(orobat hare-harri g.er.)* iz harea-ale itsatsiz eratutako harria, erraz desegiten dena.

Hareharria mesprezatu samarra dute geologoen, uste dut erresuma mineraletako parasitoen artean sailkatzen dutela. Koldo Izagirre

Albada erdian jarri egin naiz **hareharrian**. Koldo Izagirre

Badakizu **hareharri** higitua ikusgarriro higitzen dela. Koldo Izagirre

Gobernu Militarren **hareharria**, garai batean zuriz pintatua. Ramon Saizarbitoria

Harearritzko zutabeen kontra bultzatu eta arakatu gaituzte. Joseba Sarrionandia

Interfona paratua duten atarietako **hare**-harrietan. Koldo Izagirre

Hormak **harea** harriz eginak zeuden. Felipe Juaristi

Hareharritzko mendi bat beti dago ezusteko eta kitzikagarri bete. Koldo Izagirre

Presaren ezkerreko aldea **hareharritzko** eta buztinezko geruzen gainean dago. Edurne Elizondo

hareharritzar iz hareharri zati handia.

Haitzulo hartan baziren **hareharritzar** batzuk gizon eta animalien aurpegi-itxurakoak. Juan Garzia

harem *(orobat haren)* 1 iz arabiar etxeko atala, emakumeak bizi direna.

Hogei fraide ketu zituen komentua batean eta moja monasterio bat **harem** bihurtu zuen. Josu Zabaleta

Emakumeak **haremean** bezala loreak gordetzeko ditudan negutegietan igarotzen ditut nire egunak eta nire gauak. Josu Zabaleta

Bai ederra dela norbaitek erostea, **harem** batean beloa jantzita bezala sentitzen naiz... eta zoramena iruditzen zait. Xabier Olarra

Neure burua bezainbeste maite zaitudalako, nire **haremeko** emakume guztiak kanporarazitako ditut. Patxi Zubizarreta

Aho gorria zuen, aho margotua, andere mahatsez freskatua, Turkiako **haren bateko** ukenduren batez apaindua eta lurrundua. Karlos Zabala

Haremeko lurrin pozoitsua darien ipuin hauek irakurtzerakoan. Berria - Kultura

Zazpi neskame eman zizkion, jauregiko onenen artean aukeratuak, eta **haremeko** gelarik apainenera eraman zuen. Jose Antonio Mujika

2 atal horretan bizi diren emakumeen multzoa.

Arazoi zuen esan zuenean gizon guztien ametsa dela **haren** bat edukitzea. Joan Mari Irigoien

Haren bat jarriko dizut hala nahi izatera- eta frogatu moduan, kriskitin egin zuen hatzez eta bat-batean agertu ziren bulegoan hamaika emakume eder. Berria - Kultura

harenga *(ETCn 58 agerraldi; orobat arenga g.er.)* iz

Augustoren **harenga**. Etorri zen kapitain bat, capitán Degrela, eta **harenga** bat eman zuen udaletxeko arkupean herriko zazpi gizon fusilatua eta gero. Bernardo Atxaga

Laburtu egin dut **harenga** hau, nekagarria baita bere luzean. Iñaki Iñurrieta

Hedabideetatik besteen bartzak **arenga** belikoz ito nahian dabilzanak. Markos Zapiain

harenganatu, harengana(tu), harenganutzen da ad harengana joan.

Harry -xuxurlatu zuen Pettigrewek, arrastaka **harenganatu**, eskuak luzatuta-, Harry, Jamesek ez ninduen hilda nahiko... Iñaki Mendiguren

Itsasoan urrun, Ogigia uhartera dago, non bizi baita Atlanteren alaba, Kalipso txirikorda ederduna, jainkosa ikaragarria; ez jainkorik, ez hilkorrik, ez da inor **harenganutzen**. Juan Kruz Igerabide

Orduan **harenganatu** eta esaten diot: Ivy!, eta musu ematen, neska jatorra baita, nik bakarrik bizi nahiago nukeela jabetzen ez bada ere... Joxe Austin Arrieta

hargailu 1 iz uhin elektromagnetikoak hartzeko gailua.

-UHFko **hargailu** indartsua da -jakinarazi zion Amaiak, walkman itxurakoa seinalatuz-. Fernando Morillo

Programaren barruan sartzen den pertsonaren etxebizitzan **hargailu** bat ezarri beharko litzateke, eta igorgailua presoak eraman beharko luke. Berria - Euskal Herria

Bitan banatzen zen: emisorea, Maddiren sehaska ondoan jartzeko, eta **hargailua**, gurekin eraman behar genuena. Iban Zaldua

Hargailu honek, gainera, 60 mikro erabil ditzake. Fernando Morillo

Zarata batzuk entzuten hasi ziren **hargailutik**, lantu ahul baten antzekoak. Iban Zaldua

Thomas Youngek, 1802an, sumaturik ez zela beharrezkoa alehunka **hargailu** desberdinak izatea begian -bakoitza uhin-luzera desberdinekoa (izan ere, ia nahi duten edozein kolore sortzen dute artistek paleta mugatu batetik)-, hiru **hargailu** mota proposatu zituen, aski ziratekeelakoan. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Orain ez zuen ezer nabaritzen; itxura batean, ez zitzaion geratzen argi-**hargailurik**, galduak zituen erretinak, antza. Xabier Olarra

Telebista **hargailuak**. Josu Zabaleta

Jakina, foto-**hargailuak** edukitzeak abantaila handia ematen du hainbat egoeratan. Juan Garzia

hargin 1 iz etxegintzan, harria eta kidekoak lantzeko ogibidea duen pertsona.

Salomonen tenplua eraiki zuten **harginak**. Berria - Gaiak

Paul **harginak** egina du etxe hori. Herria

Badakigu eliza egile arraroak zirela frantses **harginak** eta Ipar Espainian antz eraiki zituztela gotiko estiloan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure aitzinetik pasatzen zirenek, dela **hargin** ala zurgin, dela elektrikari ala igeltsari, denek, hitzeman baino biziki beranduago bukatzen baitzuten beren lana. Daniel Landart

Huna ofizialeak nor diren: **hargina**, Gilentegi Oragarrekoa, zurgina: Duhalde Hazparnekoa, kanpoko maisturintza: SOMIR, barneko maisturintza, Betbeder Donamartirioa, lautzatzailea: SOLADOUR, iturgintza: St Jean Hazparnekoa, eletrika: Laby Suhuskunekoak, tindura: Carrau Hazparne, zolak: Lino Tapis, plastrak: Cangrand. Herria

Aritua nindun **hargin** baten lantegian. Anton Garikano

Harrobia itxi zieten **hargin** batzuen aurrean. Fernando Rey

Horratz **harginaren** buztina, morteroa, porlana... Patziku Perurena

Hargin masoi batek egina zela irudia. Hargina Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Eric-ek lan egiten du Larzabaleko Mainhaguiet **hargin** enpresan eta etxe berria egina du Ibarla den herri pollitean. Herria

Baziren hirian Portugalen bizi izandakoan **hargin** sona handia izan zutenak. Felipe Juaristi

3 (izenondo gisa)

Handik gutxira, monje **hargina** itzuli, eta, berak proiektaturiko ateari zegokion tokian beste baten lana zegoela ikusita, ikaragarri haserretu omen zen. Martin Anso

4 *hargin beltz* framazona, masoia.

Hargin beltzak edo masoiak eta beren elkarte sekretuak. Berria - Kultura

Giuseppe Mazzini **hargin** beltz higuigarriak Erromako aita sailduaren erreinua suntsitu zuela. "Grand Orient de France", framazonen goi-jaunak jakinarazten zuela ere

Serge Behar, **hargin** beltzen goi-jaun ohia zendu zela. Piarres Xarriton

5 *hargin lansup_1* harginak eginiko lana.

Ondoren harri, harea eta karezko **hargin** -lanez beteko da obra guztia. Santiago Iruretagoiena

Hormen arteko tartea harri-koskorrez edo **hargin** -lanez beteko da. Santiago Iruretagoiena

Giuseppe Lopetuso, lanbidez hargina, zahar aurpegi harekin nahiz eta ume bat besterik ez zen, zeren **hargin-lana** egiten duzunean zahar aurpegia jartzen zaizu.

Fernando Rey

6 *hargin lansup_2* hargintza.

Hargin -lana, igeltsaritza, trebea izan behar du batek hori guztia egiteko. Oskar Arana

Behin osaba argalari **hargin lanak** egiteko deitu zioten aspaldiako ez-dakit zein dukeren etxe zahar batean. Pello Lizarralde

7 *hargin mutil* harginaren laguntzailea.

Lanari buruz, ezin esan oso nekagarria denik, eta gainontzeko gazteekin jostagarria ere bada: **hargin** mutilak gara. Urtzi Urrutikoetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hargin (4); **eta harginak** (3); **eta harginek** (3); **hargin bati** (4); **hargin beltz** (3); **hargin lana** (3); **hargin mendian** (3); **harginak eta** (5); **laurogei mila hargin** (3); **mila hargin** (3); **mila hargin mendian** (3); **ofizioz hargina** (4)

hargindegi iz hargintza lantegia.

Orduan ohartu nintzen inguru haietan ez nuela marmoldegi edo **hargindegirik** ikusi. Iñaki Zabaleta

hargingo iz hargintza.

Ekainaren 23an esposatu zauku Axuri-ko Sylvie Larralde Eiheralarre-ko Dominique Guezanburu-rekin: Sylvie-k Madalena Lutxiborda-n lan egiten du eta Dominique

hargingoan ari. Herria

hargintza 1 iz harginaren lanbidea.

Bidarten, etxe berri batzu egiten ari dituzten toki batean, polizak arrastatu ditu bost lagun, denak turkoak, beltzean ar-arazten zituztenak **hargintzan**. Herria

Bi urte eterdi Ameriketara, gero eiherezain gisa langile, edo **hargintzan**. Herria

Beti prest xerbitxu baten egiteko, **hargintza**, zurgintza, eta aintz lan motetan. Herria

Laborantzaz bestalde lotu zen **hargintzari** eta zurgintzari, lan horietan arras trebea agertuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hargintzako ikasketak egin ondoan. Herria

Hargintzako lanetan ari zen hilabeteetan. Eneko Bidegain

Eskola hunen helburua da **hargintzako** lantegi handietan lan egitea edo ikerketa bulegoetan, eraikuntza bereziek galdatzen dituzten ikerketak hain zuzen. Herria

Hargintza ofizioa zuelarik bere lanbidea. Herria

Etxe Berri Urdañarbeko **hargintza** enpresa. Berria - Harian

2 hargin lana.

Onddoen pare, Omordiako bide bazterrean, agertzen ari dire **hargintza** gotor batzu Herria

hari 1 iz lihoz edo beste gai izpitsuren batez osatutako izpia edo izpi multzo bihurritua, luzea, mehea eta malgua.

Soniak abilezia izugarria zuen orratzaz eta **hariaz** mota guztietako oihalak egiteko. Joan Mari Irigoien

Klotok goruari eusten zion, Lakesisek **haria** iruten zuen eta Atroposek **haria** ebakitzen. Joan Mari Irigoien

Eta korapiloak metalezko kableen artekoa izateari uzten dio une batez, artilezko **harien** artekoa izateko, korapilo arina, hodeitsua, esponja baten antzekoa. Lander Garro

Artilezko edo zetazko **hariaekin** ehunduak. Aurelia Arkotxa

Eten egin zituen besoetako sokak, **haria** balira bezala. Jose Antonio Mujika

Holandako **hariz** eginiko alkandora finak. Jose Morales

Nihaur arduratuko naiz ehuntzeko **haria** eskura dezazun. Elena Touyarou

Penelope berria, **hari** bat eta beste bat, urruti dagoenaren mesedetan eta itxaropenetan trikota ehuntzen. Hasier Etxeberria

Lore brodatu bati **haria** libratzen ari zitzaiola oharturik. Anjel Lertxundi

Fardeltxoaren **haria** askatzen saiatu nintzen. Edorta Jimenez

Sortak lotzeko **haria**. Oskar Arana

Kometa baten **haria** mutiko txiki baten eskuetan. Felipe Juaristi

Iruditu zitzaidan aurkitua nuela azkenean behar zen hitza, nire lekuko, munduko, asteroideko elementu guztiak batzen zituena, **haria** lepokoaren aleak batzen dituen bezala.

Bernardo Atxaga

2 (izenondoekin)

Hari hauskor bat, **hari** mehe bat bezala, azkenik eteten dena. Felipe Juaristi

Dorrean eraildako bi printzeen irudi bat, izeba Juliak neskatilatan egina, artilezko **hari** gorri, urdin eta marroiez. Irene Aldasoro

Hari urdin ilunez eta puntu gurutzatuz brodatu zuen dafaila handi bat. Elena Touyarou

Jostun profesionalak **hari** zuria etengabe mastekatzen zutela azaltzen zidan. Joxan Elozegi

Galtza lisoak eta beluzezkoak, belaunburuetaraino luze eta han **hari** finez itxiak. Felipe Juaristi

Soka baten espartzuzko **hari** askatu bat harturik. Anjel Lertxundi

Ariadnaren **hari** gidariari buruzko pasarteren bat azpimarratu dut. Harkaitz Cano

Nahikoa zaila **hari** arrunt bat bere etxean Txina urreztatzen baten heriotza gertarazteko. **Bernardo Atxaga**

Ihi zurtoin bat bitan tolestean zuten, hosto bat gehitu, dena **hari** busti batez lotu. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hari -albainu zuria. **Xabier Olarra**

Andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, **hari** -jostorrazak eta titareak erpurueta. **Josu Landa**

Puntu koskatuak liburu-jostean **hari** -guneekin guztiz bat zetozela ikusi nuen. **Anjel Lertxundi**

Hogeita hamar kolore desberdinez osatutako **hari** sorta bat. **Xabier Olarra**

Zetazko **hari** zama baten truk. **Elena Touyarou**

Hiru kolore nazionalak **hari** -zerrendaz apaindu mairuen gisako durbante bat. **Elena Touyarou**

Sare zerratu horien **hari** tarte hutsetatik begiratzen. **Patziku Perurena**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Liho-, kotoi- eta artile-**haria** atzerritik inportatzen hasi behar izan zuten. **Iban Zaldúa**

Sansonek, ordea, eten egin zituen sokak, iztupa-**haria** sutara inguratzean eteten den bezala. **Jose Antonio Mujika**

Emakumeak adabaki-**hari** pixka bat enkargatu die eta azukre zerbait. **Juan Garzia**

5 (bestelako gaiez egina)

Kobrezko **hari** bat jarrita edukitzeko gure etxearen gainaldean zegoen argindar postera. **Pako Aristi**

Eskumutur bakoitzean urrezko **hariz** brodatutako lili lore bana. **Felipe Juaristi**

Bien artean **hari** herdoilduzko rolloak gabarrera bota zituzten. **Pablo Sastre**

Kromosoma hedatzean ikusten da ADNaren egitura, bi **hari** elkarren inguruan bilduak bezalako zerbaiten antza duena. **Pello Salaburu**

Urre koloreko **hari** moduko batzuez ikusten ez zen zerbait sustengatuko bailuiten. **Joxemari Iturralde**

Adats bat, ile hori, ia gorritzko adats bat, ilea inondik ere hondo-hondotik moztu eta urrezko **hari** batez loturik egina. **Josu Zabaleta**

Zuhaitz honen hostoak eta altzifrearenak antzekoak dira; egurrak **haria** zuzena izaten du. **Santiago Iruretagoiena**

Eta diot: **hari** ikusteaz batzuk ote ditugu buru barrenean, eta spiritu bat [...] zeinak **hariak** astintzen dituen, arrabitate batek bezala arrabitatearen hariak? **Joan Mari Irigoien**

Kontinenteen arteko **hari** telegrafikoa. **Iñaki Heras**

Hari elektriko eta telegrafo-zutoinen antzekoak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Kamioi batek 20.000 tentsioko **hari** bat ukitu bide zuten. **Berria - Ekonomia**

Komunikazio elektrikoak baizik ez ditu lotzen Siberiako bi mugak, mendebaldekoa eta ekialdekoa, 8.000 versta luze baino gehiago den **hari** baten bidez. **Karlos Zabala**

Telefona hariak ere ezartzen ditugu, **hari** optikoak. **Herria**

Hariaren beste puntan negar-zotin bat entzun nuen, bihotza erdiratu zidana. **Daniel Landart**

"Zer moduz daude euskal artzainak? jarri al dituzte artaldeak babesean?" Mary Annen ahotsak garbi-garbi gurutzatu zuen **haria**. **Bernardo Atxaga**

Espainiako polizia politikoak FBrekin **hari** zuzena bazeukala. **Edorta Jimenez**

Ordenagailuetatik Internetera **haririk** gabe heltzeko. **Pello Salaburu**

Telefonoak jo zuen orduantxe eta laster aita logelan sartu zen **hari** gabeko aparatua eskuan zekarrela. **Aitor Arana**

Gela guztietan wifi teknologia bidezko **haririk** gabeko sarea instalatu dute. **Berria - Ekonomia**

6 (hitz elkartuetan)

Nerbio-sistemaren **hari** -antolamendua aztertzea. **Juan Garzia**

- Gomaz estaliriko bi kobre-**hari**. *ik beherago* 16. **Juan Garzia**

Urre-**hariz** jositako zerrendekin. **Felipe Juaristi**

Baina malko bat begietatik irristatu eta zilar-**hari** batez marratu zuen gurutzearen egur beltza. **Koldo Biguri**

Sofik bizia emanen luke zure zilar-**harien** pareko ileengatik. **Fernando Rey**

Bi soldadu txirrika batean bildutako txarrantxa-**haria** askatzen ari dira, auskalo zer hesitzeko asmotan. **Harkaitz Cano**

Ural mendietatik Siberiaren ekialdeko mugaraino telegrafo **haririk** ez zen garaian. **Karlos Zabala**

Eta etxean bi telefono **hari**. **Berria - Euskal Herria**

Argi indar **hariak** lurperatzea. **Herria**

Hondoan eta alboetan 1.000 wattoke lau erresistentzia zeuzkala, elektrika-**harietara** kontagailua baino goraxeagotik konektatuak. **Juan Garzia**

Bada oraindik txirrin **hari** bat ministroa eta atezaina lotzen dituen. **Josu Zabaleta**

Nylon-**hari** xixtrin bat bizar-makinaren barruan. **Joxe Austin Arrieta**

Gure atzetik gurea bezalako armiarma-**hari** mordo bat herrestan dakargula. **Josu Zabaleta**

Ile horizko txinparta **hari** bat jaurti zidan, bere bulegoaren alderik alde, urrezko txori baten gisa hegan. **Josu Zabaleta**

Burmuinetako neurona-**hariaren** artean zirkuitulabur bat sortu zitzaidanean. **Joan Mari Irigoien**

7 (arrantzan egiteko)

Ez dituzu **haria** tiratzen hasten zarenean arrainaren begiak zeuri begira ikusten? **Joseba Sarrionandia**

Baina goian eutsi nion kanaberari, **haria** tenkatuta. **Koro Navarro**

Kitok aitortu zuen txalupa barrura egiten zutela salto perkek eta katu-arrainek: **haria** bota beharrik ere ez zeukan. **Anton Garikano**

Utzi joaten, utzi joaten! utzi mugitzen! emaiok **hari** gehiago! jaso orain! jaso! **Koro Navarro**

- Aitak arrantza-**hari** bat prestatu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Lokarri biribil zuriak ziren, arrantza-**hariaren** antzekoak. **Xabier Olarra**

8 (musika-tresnetan) ik **korda 5; soka 8.**

Eta diot: hari ikusteaz batzuk ote ditugu buru barrenean, eta spiritu bat [...] zeinak hariak astintzen dituen, arrabitate batek bezala arrabitatearen **hariak**? **Joan Mari Irigoien**

Parnasoa zalditza eta lagun lira, / **haren** hari gaiztoei goxo nien tira. **Xabier Olarra**

Hamabi **hariko** gitarra akustiko batekin. **Berria - Kultura**

Tresna baten **hariak** jotzen direnean edo ahotsaren kantua erabiltzen denean [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Batzuek dutara jotzen zuten, masustondozko gider luzeko mandolina, zeta bihurrituzko bi **hari** besterik ez duena eta tonu laurdenetan gozatua dagoena. **Karlos Zabala**

Zeren notak eta soinuk **hariaren** luze-lodien araberakoak baitziren, eta jotzailearen hatzen **hariak** posizio erlatiboaren araberakoak. **Joan Mari Irigoien**

Neure papera harparen **hari** artean ezarri nuen. **Jon Muñoz**

Artean ez zuten abere tripaz egindako lau **hari** haiek -lau golde-mutur mastaren gainetik tenkatuak baliraxe-,[...] musika hazia ereiten. **Felipe Juaristi**

Harizko tresnen ikastaroetako ikasleek kontzertua egingo dute, 20:00etan. **Berria - Kultura**

9 (hitz elkartuetan)

Hari instrumentuak lehenik, haize instrumentuak ondoren, eta butzeko, perkusioa eta arpa. **Berria - Kultura**

Lau emakumeek, gizezkoak bezain musikari bikainak izateagatik, **hari** -laukotea osatzea erabaki zuten. **Felipe Juaristi**

Et Incarnatus **hari** orkestrak lagunduta. **Berria - Kultura**

Copland-ek klarinete eta **hari** orkestrarako sortutako kontzertuan. **Berria - Kultura**

Musikaria zen bera, San Marco basilikako **hari** eta haize orkestran. [Felipe Juaristi](#)
Beethoven jotzen zuten, Beethovenen **hari** -laukoteran bat. [Felipe Juaristi](#)
Johannes Brahmsen Piano eta **hari** tresnenezako boskotea. [Berria - Kultura](#)
Gitarra baten **hari** -zarratitze neketsuan. [Juan Garzia](#)
- Biolin **hari** batez itoa. [Felipe Juaristi](#)

10 hed

Segur nengoen mihiaren **haria** eteteko eman zigula brandy botila kapitainak. [Koldo Izagirre](#)
Zenbat eta zakil-**haria** gehiago tenkatu, orduan eta ereazio harrogoa eragingo didazu. [Markos Zapiain](#)
Zura, berriz, gogorra da tentsioarekiko, baina ahula konpresioarekiko, batez ere **hariaren** norabidean aplikatzen bada indarra. [Berria - Kultura](#)

11 irud

Malko irudiko **hari** loditan irristatzen ziren tantak. [Juan Garzia](#)
Den-dena beltza zen, argizko bi **hari** izan ezik. [Lopez de Arana](#)
Barraskilo bat zebilkion marmol zuriaren gainean, **denboraren** hari mehea astiro albainduz. [Berria - Kultura](#)
Eta denboraren **hariaz** oihal eder bat egin nahi zuen. [Joan Mari Irigoien](#)
Hitzen **haria** ez ebakitzeko. [Itxaro Borda](#)
Baina bere helburuen artean dago irakurlea ukitzea eta hunkitzea, haren arimaren **hari** bat jotzen asmatzea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Hari horri helduz, Damaskon jaiotako filosofoak Jainkoaren erruduntasunean oinarrituriko elezahar bitxia sortu zuen. [Aritz Gorrotxategi](#)
Gure oroimenaren **haria** berriro aurkitu beharko dugu; bizitzeko, berriro gizaki bihurtu beharko dugu. [Berria - Kultura](#)
Misterioaren **hariari** tiraka ibili gabe. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Eta, **hari** hartatik tiratzen nuela eta **hari** batek bertzerat nideramala, osabarekin nuen auziaren berri eman nizun... [Joan Mari Irigoien](#)
Zoratzeko puntuan egon zen, mataza haren **hariari** jarraitu ezinik. *ik beherago* 20. [Jose Morales](#)
Anai Paulok berehala soluzionatu zuen afera, **hari** batetik eta bestetik tiraka ibili ondoren. [Joan Mari Irigoien](#)
Hari horietatik guztietatik tiraka aise aterako duk etekin itxurosorik. [Anjel Lertxundi](#)
Katoliko zorrotz eta **hari** bakarrekoa. [Felipe Juaristi](#)
Uste nuen **hari** bereko korapiloen gisa ulertuko genuela elkar. [Monika Etxebarria](#)
Iraganera begiratu orduko, hor ikusten dugu **hari** batek beste **hari** asko behar dituela soka txirikordatu eta trinkotzeko. [Anjel Lertxundi](#)
Oroitzapenek elkar lotzen dituen **hari** kronologikoa. [Berria - Kultura](#)
Hari batetik zintzilik duela bizia. [Imanol Zurutuza](#)

12 (hitx elkartuetan)

Marmolezko iturri oso garai eta oso landu batetik ur **hari** bat isurtzen zen etengabe konketa batean. [Karlos Zabala](#)
Intentsuarena bezalako ke-**hari** baten modura. [Askoren artean](#)
Ezpain artetik odol-**hari** bat irten zitzaion, masailean behera, leporaino. [Juan Kruz Igerabide](#)
Lerde-**hari** bat gelditu zitzaion borroari kokotsean. [Anjel Lertxundi](#)
Otto Rahn hil egin da -erran zidan ahots **hari** batez. [Alberto Ladron Arana](#)
Ahots **hari** mehe batek Otxandio faxisten eskuetara joan dela dio. [Edorta Jimenez](#)

13 lotura.

Haizea bera baitzen Irisarriren ustez jaiotzetik heriotzarainoko **hari** arin eta hauskorra. [Felipe Juaristi](#)
Zehaztea oso zaila den **hari**-sorta dago musikaren eta bizitzaren artean. [Pako Aristi](#)
Agian hori besterik ez zara: desagertutako pertsona baten keinua katalizatzen duen **hari** eroalea. [Harkaitz Cano](#)
Sentitzen baitzuen berehala **hari** ikustezin batzuk teinkatzen zirela eta martxan jartzen zituztela hainbat korrante afektibo, adiskidetasun edo maitasunezko. [Joxemari Iturralde](#)
Hari atxikiezin bat bezala sentitzen dugu harekin, bizitzan zehar misteriozko era batez [...] garamatzana. [Josu Zabaleta](#)
Ezingo da ondo neurtu ekintza hori giza harremanen **hari** nahasi eta aldakorrik ikertu gabe. [Juan Martin Elexpuru](#)
Lau kasuak ezberdinak izan arren, bata eta bestearen arteko **hariak** ez dira falta. [Berria - Euskal Herria](#)

14 (kontaketa batean, arrazoibide batean)

Aztoratutik, kontraeraren **haria** galdu nuen. [Edorta Jimenez](#)
Orain beharrezkoa da aurretiko azterketetan sakabanatutako oharpen batzuk atzera **harira** ekartzea. *ik beherago* 23. [Xabier Arregi](#)
Baina noan **harira**. [Bernardo Atxaga](#)
Botanika gutxiago eta **harira**, mesedez. [Harkaitz Cano](#)
Manilovek behintzat erabat galdu baitzuen bere gogoeten **haria**. [Jose Morales](#)
Pentsamenduen **haria** eten. [Joxean Agirre](#)
Mintzagaiya edozein zela ere, ondo asko heltzen zion beti elkarrizketaren **hariari**. Ederrenak iruditzen zaizkigun loreak bilduko ditugu, historiaren **hariari** lotu gabe. [Jose Morales](#)
Hementxe hasten da eleberriaren **haria**, edo kontakizunaren bilbea, nolabait esateko. [Jose Morales](#)
Liburuaren **hari** nagusia kontatzeko eskatu diot. [Joxerra Garzia](#)
Osabak begiralditxo bat eman du San Bizente elizaurreko zabalunetxora, eta lehengo **hariari** heldu dio: [...]. [Txillardegia](#)
Liburu honek **hari** asko dauzka, batzuk besteak baino lodi eta korapilatsuagoak, denak garrantzizkoak, denak kontuan hartu beharrekoak. [Berria - Kultura](#)
Irakurleari gogor samarra gerta dakiokien **hari** narratiboa leuntzen du aipatutako bukaerak. [Berria - Kultura](#)
Hori da **hari** nagusia, irakurketa gidatzeko. [Askoren artean](#)
Idatzitako gertakizunen **hari** nagusia (KNa) eta **hari** nagusiaren leihopean sortutako eranskinak (AKak). [Anjel Lertxundi](#)
Song-il Gonek kolpe bakar batean biribildu nahi izan ditu intrigako **hari** guztiak. [Berria - Kultura](#)
Burutazioen **hariari** atzera heltzeko. [Urtzi Urrutikoetxea](#)
Eszena eta sentsazio zehatz batzuk, **hari** fin bakar batez loturik. [Anjel Lertxundi](#)
Zehar estiloz kontatuta, haren jardunak baluke **hari** logikoa. [Iñaki Iñurrieta](#)
Ordura arteko mintzatzeko **hari** logikoa galdurik, automata bat bezala hasi zen. [Jon Alonso](#)
Historiaren gida-**hariaren** bitartez, edo ondorioen eta beren kausen katearen bitartez. [Ibon Uribarri](#)
Lehendabiziko aholkua (Jaunaren Gorputzari buruzkoa) eta bilduma amaitzen duena (Poz benetako eta osoa) kenduta, **hari** bat bera dute beste guztiak. [Askoren artean](#)
Nahiz eta komedia haren **harietarik** tragedia bat zegoen dilindan. [Joan Mari Irigoien](#)
Hari beretik, aztertuko da oraino prozedura berri bat. [Herria](#)
Pieza horiek badaukate aspaldiko aire bat, gaur entzuten ez diren **hari** melodiko harrigarriek osatutakoa. [Pako Aristi](#)
Pelikula hau zuri-beltzean duk, badakik, eta ezin sinetsizko gezur zuri hartatik ezin irentsizko egia beltz honetara igaro haiz gerta **harian**. [Iñaki Segurola](#)
Xehetasunak eman nahi zituenean, "**harira, harira**" esaten baitzion notarioak. [Ramon Saizarbitoria](#)

15 torlojuetan eta kidekoetan, helize-antzen kiribilkaturiko itrenunea.

Komunak jarraio du, eta kanilak **harria** hondatuta dauka. Josu Zabaleta
Aurrenekoan sartu zen kaskiloa **harian**, adur oneko eguna gau hau. Koldo Izagirre

16 -en **harian** -en ildotik, -en bidetik.

Oraingoan, mendekua hartu du gai nagusi eta horren **harian** josi ditu liburuko zazpi ipuinak. Berria - Kultura

Hamaika izen eta pasadizo atera dira solasaren **harian**. Xabier Mendiguren Elizegi

Honen **harian**, EAEko Legebiltzarraren erabakitzeke burujabetasuna aldarrikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Jarraipenik gabeko ipuin eta poema hauen **harian** jarraipen eternoa duen bitzita ulertzea eta ulertaraztea. Pako Aristi

Eta bide hartatik ibili zen hilabetetan eta urtetan, iraultzaren, yogaren eta budismoaren **harian**. Juan Kruz Igerabide

Urteen **harian** zintzilikatu irri eta eleak haizeak ekarriko zizkiolakoan. Elena Touyrou

- Ni jaun eta jabeen aldekoa banintz, haien **harikoa** eta baldernakoa, edo, agian hobeki, haien zerbitzuko intelektuala banintz. Iñaki Segurola

17 -en **harira** -a dela-eta, -en ildotik

Arestian entzundako kontuen **harira**, nire lehen soldata datorkit gogora. Pako Aristi

18/98 sumarioaren **harira** eginiko zigor eskaerak. Berria - Euskal Herria

EHEren 25. urtemugaren **harira** eginiko kantuaeren letran. Berria - Euskal Herria

Bake Konferentziaren **harira** sortutako txostenen inguruko hausnarketa. Berria - Euskal Herria

Hauteskundeen **harira** sortu eta sinatu dute hamalau eragilek adierazpena. Berria - Euskal Herria

Frantziako Gobernuak prestatutako planaren **harira**, beroaldiari aurre egiteko neurriak prest dira, halaber, Ipar Euskal Herrian. Berria - Harian

Salaketa horren **harira**, gaitzetsi egin ziren *muntra*, *butxet*, *entzerrona*, *rehen*, *sorteo* tankerako hitz ugariak. Koldo Zuazo

Honen **harira** Txingis Abdullajewek behin esan zuena datorkit gogora. Edorta Jimenez

Borgesek dioenez, "gaitzestea eta laudatzea operazio sentimentalak dira, kritikarekin batera zerikusirik ez dutenak", eta horren **harira** nik beldurrik gabe esan dezaket ezin liburu sentimentalagoa duzula esku artean. Patziku Perurena

Eta horren **harira**, non sentitzen gara gu etxeko? Edorta Jimenez

18 **burdin hari** (*orobat burdin-hari*) ik alanbre.

Burdin **hari** bihurritu bana. Karlos Zabala

Burdin-**hari** fin-finez egindako sare-kota bat. Karlos Zabala

Burdin **hari** mehea erabiltzen zuten txanpon zulodun bati lotuta telefono kabinetan ordaindu gabe hitz egiteko. Joxemari Iturralde

Banan-banan erretzen zituen, burdin **hari** baten muturrean. Karlos Zabala

Indaba, burdin-**hari** enpresakoa. Pablo Sastre

Burdin **hari** batekin egindako bihurkina baliatuz. Juan Kruz Igerabide

Burdin **hari** bakoitza burdin haga bati erantsi zion. Felipe Juaristi

19 **hari-harian**

Erortzeko **hari** -harian egon zen. Fernando Morillo

-Eta zera gehitzen zuen, **hari** -harian hor ere: "Lehenengo taldeak ahulduko dituzun eta zerori ere bakar-bakarrik kausituko zara apenas ezagutzen duzun mundu batean".

Juan Garzia

20 **hari-haritik**

Hari -haritik heldu zion proposamenari. Bego Montorio

Hari -haritik eutsi zion, hortaz, ideari. Bego Montorio

21 **hari izpi** ik **harizpi**.

22 **hari mataza**

Kolorezko **hari** mataza batean bezala nahasturik. Josu Zabaleta

Bizitza **hari** -matazarekin nahasturik itzulipurdika ibiltzen den katu bihurria da batzuetan. Pako Aristi

Ez zekien zer pentsatu benetan, katramilatua zuen **hari** mataza. Joxemari Urteaga

Gaur, bazkalondoan, **hari** -mataza askatu egin da eta telefonoaren txirrinak etxeko isiltasuna hautsi du, bazkalondoko bakearen kristal finezko ahuleria pitzatuz. Pako Aristi

Egunak hariltzen eman duelako, Teseorentzako **hari** -mataza atontzen jardun duelako, oi Ariadna maitea. Javi Cillero

Burdin **hari** mataza bat, konponketaren bat ber-bertan egin beharra suertatzen zenerako. Juan Garzia

23 **hari mutur**

Haren eskuak barazkien artean; haren ahoa **hari** -mutur bat miazkatzen zuenean albainutzeko. Anton Garikano

Hari muturretik mataza, bai! Edorta Jimenez

Hari -mutur pare bat neure buru barruan elkarri lotzeko behar izan nuen denbora. Inazio Mujika Iraola

Hala, bada, misione hartan erdietsi nian lehen **hari** -muturra, eta **hari** hartarik tiraka laxatu nian lehen korapiloa... Joan Mari Irigoien

Esaldi hori bururatzean, artean ez dakigu poema bat izango den, ala ipuin baten **hari** -muturra. Joxerra Garzia

Azken **hari** -mutur honi helduz, bertso-amaieraren errepikapenarena aipatu nahi nuke. Andoni Egaña

Korapiloa askatuko zuen **hari** -muturrak bertze nonbait matazaturik behar zuen. Aingeru Epaltza

Nabarmen ezinezkoa zen jadanik historia bihurrikatu haren **hari** -muturra aurkitzea. · Hitzari beti harrapatuko diot **hari** -muturren bat. Juan Garzia

24 **harira etorrisup_1** hizketa-gaia berriro hartu.

Baina natorren **harira**. Edorta Jimenez

Beraz, gatozen **harira**.. Iñaki Mendiguren

Baina, **harirat** etorririk, erranen dizut, ondoren, ezen hatsarretik gauzak garbi jarri nahi izan zizkidala Rosa de Osoriok. Joan Mari Irigoien

-Gatozen gertakizunen **harira**- esan zuen notarioak urduri samar. Ramon Saizarbitoria

25 **harira etorrisup_2** hizketa-gaira egoki etorri.

Bai, izan ditut esperientzia gutxi batzuk alor fisiko horretan, gero aipatuko ditut, **harira** etorri gero. Karlos Zabala

Jendek barre egiten zuenez, Julenek ez zuen aukerarik galtzen, "bere" txistea kontatzeko, **harira** etorri zein ez. Joxerra Garzia

Ez dator **harira**, ordea, nire barrokotasunaren zoko ilunak airatzea. Ramon Saizarbitoria

Aurrena, **harira** ez datozen arrazoiengatik Euskal Telebista utzi-edo eta berehala, meritulehiaketa batean parte hartu behar izan nuen. Joxerra Garzia

· **Harira** egoki etorriko litzateke galdetzea ea zein den nire erlijio bitxi hau. Karlos Zabala

26 **orratzetik hari(ra) ipar** burutik burura.

Denen buru, zer erranen ote du Sirven-ek? zernahi gauza badakiela, denak salatuko ote ditu **orratzetik hari** ? ala gauza batzu ba eta beste batzu ez? Frantxua Maitia eta Jean Mixel Galant, Garazi eta Baigorriko kontseilariek elkarrekin prentsa bildu dute, **orratzetik harira** beren ikuspuntuaren emateko 2X2 proiektuaz. Herria

Xehetasun horiek oro, **orratzetik hari**, Mathiasek zekizkien. Daniel Landart

Badago hor gaindi halako segeteru eta misterio kutsu bat nabaria, hainbestetaraino non kontseilu hori biltzen den aldi oroz behar baitute hedabidek orratzetik **harira** esplikatu zer den eta zertarako den. Herria

Abokatak alabaina, **orratzetik harira** irakurri duenean "Natura 2000" araudia, ez du nihun giza eskubideen aipamenik aurkitu. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahots hari (23); **ahots hari batez** (7); **ahots hari mehe** (6); **burdin hari** (16); **eta liho hari** (15); **hari batetik** (20); **hari batetik zintzilik** (13); **hari bihurrituz apain** (6); **hari elektrikoa** (5); **hari gorri** (9); **hari gorria** (6); **hari laukote** (6); **hari laukoteak** (8); **hari mataza** (10); **hari mehe** (15); **hari mutur** (23); **hari mutur bat** (5); **hari muturra** (7); **liho hari** (21); **liho hari bihurrituz** (13)

arrazaren haria (6); **burdin haria** (8); **denboraren harian** (7); **haria berreskuratua** (5); **haria eten** (9); **haria galdu** (10); **haria galdua** (5); **haria galtzen** (5); **hariak mugitzen** (5); **hariari eutsi** (8); **hariari heldu** (10); **hariari jarraitu** (5); **hariari jarraituz** (5); **hariari tiraka** (10); **jostorratza eta haria** (5); **lehengo hariari** (5); **telefono hariaren** (5)

adierazpenen harira (16); **atentatuaren harira** (9); **auziaren harira** (8); **bileraren harira** (10); **egoeraren harira** (5); **egunaren harira** (39); **elkarrizketaren harira** (5); **erabakiaren harira** (12); **erakusketaren harira** (5); **erasoaren harira** (5); **erasoen harira** (7); **etenaren harira** (7); **gatozen harira** (7); **gertaeren harira** (7); **gertakarien harira** (5); **goazen harira** (7)

harira dator (6); **harira etorri** (6); **harira itzuliz** (6); **harira joan** (5); **hauteskondeen harira** (8); **helegitearen harira** (6); **heriotzaren harira** (8); **heriotzen harira** (7); **honen harira** (21); **horien harira** (17); **horren harira** (328); **ikerketaren harira** (7); **kanpainaren harira** (6); **mendeurrenaren harira** (5); **neurrien harira** (5); **operazioaren harira** (8); **planaren harira** (6); **proposamenaren harira** (18); **salaketaren harira** (7); **urtemugaren harira** (14); **urteurrenaren harira** (10)

adierazpen horien harira (5); **dio horren harira** (16); **egindako adierazpenen harira** (9); **erabaki horren harira** (5); **greba egunaren harira** (5); **horren harira dio** (8); **horren harira esan** (7); **mobilizazio egunaren harira** (5); **nazioarteko egunaren harira** (10); **su etenaren harira** (7)

proposamenaren haritik (7)

haridun *izlag* hariko.

Gero, isiltasun luze urrezko **haridun** hura, hirulaua hitzetara biltzen genuen, etxera itzultitakoan. **Patziku Perurena**

Sardinzarren urrezko **haridun** soinekoak izokinen zilar atal handiekin. **Karlos Zabala**

harigabe *(ETCn 24 agerraldi; corpusean hari gabe soilik)* 1 *izond* haririk ez duena.

Zilbor-heste **hari** gabeak lotuta bizi gara gaur, Patri. **Hasier Etxeberria**

2 *harigabeko izlag* harigabea.

Telefonoak jo zuen orduantxe eta laster aita logelan sartu zen **hari gabeko** aparatua eskuan zekarrela, deia osabarentzat baitzen. **Aitor Arana**

harigile *iz* haria egiten duen pertsona.

Bekatu giro alai eroan / harilkatuaz mataza / infernurako bidean / **harigileak** bailiran. **Xabier Olarra**

harik eta *(ETCn 2.466 agerraldi)* arte postposizioaz amaitzen diren denborazko esaldien hasieran, indargarri gisa edo, ezartzen den esapidea.

Harik eta ohartu zen arte ezen ez zegoela korapiloa laxatzerik erregerekin hautsi ezean, eta huraxe zela, hain zuzen ere, hartu beharreko neurria. **Aingeru Epaltza**

Testu onen eta txarren artean ezberdintasunak zelatatuko ditu, eta inguruko jendearekin tematuko da hau edo hura irakur dezan, **harik eta** sumatu arte bakarrik dagoela, hondartzara heldutako balekumea baino bakartiago. **Markos Zapiain**

Ezin ohitu inola ere izen hartara! **Harik eta** irainari irainez erantzutea erabaki zuen arte. **Patxi Iturritegi**

Eta halaxe egon zen, noraezean bezala, zerbaite esan ez esan, **harik eta** isilik gelditzera deliberatu zen arte. **Josu Zabaleta**

Baietz eta ezetz, **harik eta** aitak parte hartu behar izan zuen arte, bakea ezartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Guztiak irri egin zuten, **harik eta** Joanperitzek berak behakoa zorrotzu, eta erran zidan arte, ez dakit txantxetan edo serio: [...]. **Fernando Rey**

Hantxe zain egon nintzen, **harik eta** azkenean gizon hau agertu zen arte. **Berria - Gaiak**

Hala bada, kafe etxea utzi, eta bizikleta-denda batean lan egin zuen, **harik eta** gerra piztu zen arte. **Berria - Euskal Herria**

Tristura, ostera, oso astuna da, grabitate legearen konplizea da, zeure pisuaren karga sentiarazten dizu **harik eta** nekatu eta etzanarazi arte. **Josu Zabaleta**

Aise ulertu nuen Hanna bere umeari atxikita egotea, egunak zenbatzen aritu izana **harik eta** alaba etxera itzuli arte, eta ama batentzat ezin dela inola ere xamurra izan bere ume bakarra munduan barrena estreinako aldiz bakarrik ibiltzea. **Oskar Arana**

Neskak bazuen susmoa, esan zuen, egun batzuetatik, baina ez zion enbarazurik sortu nahi izan, **harik eta** erabat ziur egon arte. **Askoren artean**

Ez nuen sinesten, **harik eta** neu etorri eta neure begiz ikusi dudana arte. **Xabier Olarra**

Eta zein gogor egin zitzaizkidan ilunera arteko orduak, okaz oka eta eldamioz eldarnio, **harik eta** lo pisu batek hartu ninduen arte...! **Iban Zaldúa**

Espiritua da hartuko dugun ondarearen garantia, **harik eta** Jainkoak bere egin duen herria askapen osora iritsi arte eta haren aintzaren gorespen-kantu izan gaitzen arte. **Xabier Olarra**

Harexek sortutako ondorio edo iradokizunen nahasmenean, pixkana, gogotik baztertzen du oharkabean delako objektua, **harik eta**, sarritan atseginkeriez bete da den ameskeria hori amaitzen denean, incitementuma, edo gogoeten lehen kausa, osorik desagertu edo ahaztu zaiola konturatzen den arte. **Josu Zabaleta**

-Gazteei bost axola zaizuelako bai iragana, bai historia, bai nondik zatotzen edo nortzuk zareten jakitea, **harik eta** handitzen zareten arte, eta kaskoan ardura pixka bat sartzen hasten zaizuen arte. **Josu Zabaleta**

Harik eta neure amorrur hura kiroletania hartan urtzea eta estaltzea lortu nuen arte, aurrera egiten nuela, iraintzaileari kasurik egin gabe. **Jasone Osoro**

Gogor borrokatuko gara **harik eta** PSOEek ziurtatu arte ontziolak zutik iraungo duela. **Joxe Austin Arrieta**

Hor pilatuko da, **harik eta** jainko biribila berriro berotzen hasiko den arte, **harik eta** goiz bateko epeltasunak erakutsiko digun arte esnatzeko garaia iritsi dela. **Xabier Kintana**

Gero nik berriro kontatzen diot, berak gehitutako elementuekin, eta horrela segitzen dugu, **harik eta** ezinezkoa den arte istorioa berea ala nirea den jakitea. **Lopez de Arana**

Gordeleku hartan jarraitu nuen, beraz, **harik eta** bozgorailu hark nitaz etsia hartua zuela iruditu zitzaidan arte, beste hamar bat minutu bai, gutxienez. **Josu Zabaleta**

Batek berak ere ez, **harik eta** egun batean... **Askoren artean**

2 (beste postposizio batzuek)

Gero ere ez zuten alde egiten, **harik eta** San Frantziskok bedeinkazioa eman zien artean. **Askoren artean**

Mollyk ez zigun ezertxo ere kontatu, **harik eta** haren albo banatara eseri ginen arte ibai-bazterrean, **harik eta** gu biok eskutik helduta izan gintuen artean. **Irene Aldasoro**

Gogotik irabiatu, nahas-nahas egin, eta joan daitezela den-denak pixkanaka beratuz, gesalduz, urtuz eta deseginez aho-mihietako txistuarekin batean, **harik eta** Lixta guztiak eta jende oro edozein bihurtzen dituen ahazmenaren osin hondogabeen ezdeustu artio. **Jon Alonso**

Ez al dezake irudimenak Alexandroren hauts noblearen arrastoa segi **harik eta** barrika baten zuloa ixten aurkitzeraino? **Berria - Euskal Herria**

· *(beste marka batzuekin)* Ez zen esnatuko **harik eta** bezeroren bat sartu ezean. **Berria - Kultura**

Ez dut ordea harekin deus egiten ahal, **harik eta** ez den izanen... izan behar duen bezalakoa. **Berria - Gaiak**

Gezurretan ari direnak ere esaten dituztenak pentsatzen dituzte, halako moldez non egia dioten ez dakigula ere, esaten ari diren hura gogoan daukatela badakigu, **harik eta** arestian aipatutako bi horietarik bat gertatzen ez bazaie. **Berria - Gaiak**

Noiztik behingo hodei tripabeltz eta ekaitz danbar tanborrero horiek ere maite ditu, **harik eta** kazkabar erauntsiren bat ekartzen ez duten bitartean. **Berria - Kirola**

Txileko eskuinak ez du legearen alde egingo, **harik eta** diktadura garaiko militarrentzat indultuak ematen ez badira. **Antton Olano**

Harik eta hainbeste urrutiratuz joan ziren, ezen ez bueltatuta hobe kasik. **Herria**

· *(markarik gabe)* **Harik eta** eskuin hegalean Nevillek Beckhami aurea hartu zion, honek pasea sartu zion bi jokalariren artean, Nevillek erdiratu eta ezker hegaletik zetorren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

harik eta (1708); **harik eta aita** (5); **harik eta aitak** (6); **harik eta amak** (7); **harik eta azken** (5); **harik eta azkenean** (18); **harik eta behin** (6); **harik eta bera** (7); **harik eta berak** (7); **harik eta bere** (38); **harik eta berriro** (7); **harik eta bertze** (7); **harik eta beste** (6); **harik eta bi** (4); **harik eta egun** (48); **harik eta ez** (4); **harik eta goiz** (5); **harik eta gure** (8); **harik eta halako** (7); **harik eta handik** (8); **harik eta haren** (5); **harik eta hark** (4); **harik eta hura** (7); **harik eta jaunkoak** (7); **harik eta jaunkoaren** (6); **harik eta jaunak** (5); **harik eta joan** (4); **harik eta lehen** (4); **harik eta neska** (4); **harik eta neure** (7); **harik eta nik** (4); **harik eta nire** (7); **harik eta norbaitek** (5); **harik eta ohartu** (7); **harik eta osaba** (4); **harik eta osabak** (4); **harik eta zerbait** (5)

izan harik eta (6); **izan zen harik** (4); **izango harik eta** (4); **zen harik eta** (19); **ziren harik eta** (6); **zuen harik eta** (10); **zuten harik eta** (4)

haril *iz* haria bilduz egindako bola. ik **harilko**; **mataza**.

Ritari **harila** erori zitzaion magaletik parkeko zelaian behera. **Hasier Etxeberria**

Artile **harilean** altzairuan besteko gorputza badago, biek berdin pisatu behar dute. **Xabier Amuriza**

Artile zurizko 3 **haril** (galtzoinak, txanoa) = 1,50. **Josu Zabaleta**

Haril batekin jostaketan ari den katu bati begiratzen zaion bezala begiratzen zion. **Fernando Rey**

harildu, haril(du), hariltzen du *ad* ardatzean edo haril bat eginez haria bildu. ik**harilkatu**.

Orduan, bizimoldea aterako bazuen, amak kotoia **hariltzeari** ekin zion. **Patxi Zubizarreta**

Alboan neukan emakumeak eten zidan gogoeta, mataza **hariltzen** lagunduko ote nion galdeginez, ausardia handiegia ez bazen. **Hasier Etxeberria**

Patiara irten nintzen, ez baitago euria bezalakorik buruko matazak **hariltzeko**. **Anjel Lertxundi**

Etzanda jarraitzen zuen lur hezearen gainean, ihi bat mastekatuz, eta bere arrazoibide korapilatsua **harilduz**. **Koldo Biguri**

Aurre egin behar niola gertaerari, eta emakumearen ondoan esertzen ausartu, egun hari zegokion mataza **hariltzen** laguntzeko. **Hasier Etxeberria**

harilka *iz*

Man-ekiko harremana, iragana salba eta orain ibiltaria baltsa-araz zezakeen geroaldi amestuan mintzo zutitzen zen, denboraren **harilka** mantsoan. **Itxaro Borda**

harilkatu, harilka, harilkatzen da/du *ad* harildu.

Neure burua ikusten dut Ritaren ondoan, mataza **harilkatzen**. **Hasier Etxeberria**

Ama sutondoan aurkitu zuen, artile itsas purpuraz tindatua **harilkatzen**. **Juan Kruz Igerabide**

Hilabeteak eta gertakariak elkarren ondolik **harilkatzen** ziren, ziztu bizian. **Elena Touyarou**

Politikaren sasitik apur bat urrundu beharrez, Zizeron idazle handia hasi omen zen Estatuaren eraikuntzaz zenbait gogoetaren **harilkatzen**. **Piarres Xarriton**

Atzoko eta gaurko orroitzapenak **harilkatuz** alaiki. **Herria**

Ez zuen hitzik **harilkatu**. **Itxaro Borda**

Loriaren metaleak ez mazedoniarren itzal handiak [...] ez dute lerrook **harilkatzen** dituen gizon gris apalaren antzik. **Juan Garzia**

Minutu gordinak pasatzen zituzten isilik elkarri begira, eta solasa **harilkatzen** zenean, barkamenaz, salbamenduaz, konpasioenez eta urrikiar mintzo ziren. **Itxaro Borda**

Goranzko eta behearanzko intonazio-aldi borobilduetan **harilkatutako** hitzaldia. **Oskar Arana**

Argia bizitza da, koloreetako zerrendetan **harilkatzen** den bizitza. **Felipe Juaristi**

Kontakizun bat **harilkatzeko** orduan, funtsezko elementua da zein datu ematen duzun eta zein isiltzen duzun. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Matematikaren logika zehatzaz **harilduko** dira istorio hauek. **Koro Navarro**

Melodia **harilkatzen** zerraikan Bettan [...] sukalderatu zenean. **Itxaro Borda**

Errusiar idazle ospetsu askok, hala nola Krilov, Belinski, Dostoievski, Saltaikov-Tshedrin eta Txernixevskik, bertan **harilkatzen** zituzten konplotak, kafea hartu eta gozokiak dastatuz batera. **Edorta Jimenez**

Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean **harilkatzen** zituzten garaipenak, beren esbastikaren azpian, eta mundu erdia haien beldur zen. **Fernando Morillo**

Giza izaeraren ezagutza falta nabarmen honekin, gaizki **harilkatutako** eta gaizkiago ehundutako kezka hauekin, gauzatzen dute jurisprudentzia. **Juan Martin Elexpuru**

harilkatze *iz* ardatzean edo haril bat eginez haria biltzea.

Gertaeren **harilkatze** ezin azkarragoa eta gertaera horiek espazio eszenikoan bikain kokatzea da komedia klasikoaren beste ezaugarria. **Berria - Kultura**

Kaxkarina zen, tragotxo sarri behar izaten dutenetakoa, eta badirudi sermoi luzeetarako buruak ez ziola memoria eta ideia **harilkatze** sendorik eskaintzen. **Pako Aristi**

Kilometro eskaseko bide hartan gorde genuen isiltasunak argi adierazi zigun bioi, elkarren begiramenduan genbiltzala arretaz eta mataza **harilkatzeak** baino haruntzagoko eremu badaezpadakoetara abiatuak ginela, jakin gabetan ziur nora. **Hasier Etxeberria**

harilko *iz* harila.

Nire amama zenari laguntzen nion lan honetantxe txikia nintzenean -eta bi eskuak luzatu nizkion, mataza bertan jarri eta **harilkoa** egin zezan. **Hasier Etxeberria**

Ni Simon Azkue nintzen, erdia gizon eta erdia sagu, bi besoak luzatu eta matazatik **harilkoa** egiteko bakarrik balio zuena. **Hasier Etxeberria**

Ohe-atorrak, eta **harilkoak**, eta beroki sareturen bat. **Jose Morales**

hariteria *iz* hari multzoa.

Argindarra eramateko **hariteria**. **Berria - Kultura**

haritsu *izond* hari edo zuntz asko duena.

Beltza eztilorea da, hitsa eta kiratsua jareina, beturdina Palasen irudi, **haritsua** eta zurezkoa gazela, txatxarra eta nanoa ene grazia, gatz-harri purua, handia eta kankailua miragarria eta maiestatez bete. **Xabier Amuriza**

haritxo *iz* hari txikia edo mehea.

Egurats izoztuan zuzen-zuzen goratzen ziren ke- **haritxo** meheen bidez. Josu Zabaleta

Ur **haritxo**a zerion. Agustin Otsoa

Bizi **haritxo** batekin topatu zitean oraindik, gaua arte irautekorik ere ez. Josu Zabaleta

Ur hari bati egiten dio bide, muturrean erortzeko [...] zilarrezko **haritxo** baten gisa. Koldo Izagirre

Eta halako ahots **haritxo** batez esaten zuen: [...]. Josu Zabaleta

haritz (*ETCn 6.646 agerraldi; orobat **haitz** g.er.*) **1** iz pagoaren familiako zuhaitza, zur onekoa, hosto erorkor eta gingildunak dituen, fruitutzat ezkurra ematen duena (*Quercus pedunculata*, *Q. petrea*)

Ibarretxek berak landatu zuen Juntetxe aurreko **haritz** gaztea. Berria - Harian

Ehun urteik gorako **haritza**. Bernardo Atxaga

Badakit ere mandoak ez duela umerik egiten baina **haritzak** ezkurrak emaiten dituela eta **haritz** berriak sortuko direla beti, hain maite dugun herri huntan. Herria

Beste oharpentxo bat: batzuetan, sagar ondoa sartu delarik eta ez **haitza**, arbola bera perdez agertu da eta sagarrak gorritz. Herria

Gernikako **Haritz** Zahar aspaldi ihartua zegoen kanpoko lorategian. Juan Luis Zabala

Haritz tantaien gerizpean. Anton Garikano

Haritz sendoenak ere ihartu egiten ditun zein bere aldian. Anjel Lertxundi

Haritz erien dei hau behar duzu entzun. Herria

Hango trontza-zerren zain **haritz** eta gaztainak. Anjel Lertxundi

Has gaitezen **haritzak** zerratzten. Anjel Lertxundi

30 metrora igo daiteke **haritz** sendokote bat: baina, azpira doazen zain nagusiak ez dira gutxiago sartzen, beste 30 sar daitezke. Pello Zabala

Haritz eihartuaren ondotik heldu da **haritz** gaztea, lehen bezala orain ere Euskaldunen ikurra. Herria

Neguko **haritzik** ez balego eta premiak horretara behartuta **haritzarekin** egitea pentsatzen bada, komeni da hobeto lehertzeko meheagoak izatea. Santiago Iruretagoiena

Kanadako **haritz** gorria baliatuko du lan horren obratzeko. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Laster **haritz** oihan batean sartu naiz. Piarres Aintziart

Haritz sastraka batzuei esker. **Haritz** xara baten itzalean patar bat iraganik, Villei herrixkan gara. **Haritz** adar muturreri begira zegoelarik, uso zenbaiti oharu nahian. Piarres Aintziart

Zeusen zerbitzariak **haritz**-adar bat sartuko zuen putzu batean, euria lortzeko. Pello Zabala

Putzuak berak ere **haritz**-enbor sendoak zeuzkan, errotetan eta itsasontzietan soilik erabiltzen diren horietakoak. Jose Morales

Haritz ezpalak bata bestearen kontra igurtziz eta gorituz su berria lortzen zuten. Pello Zabala

Leizeak, berriz, bazuen han behean koska bat, belarrez eta **haritz**-hostoz josirik zegoena. Joan Mari Irigoien

Haritz ezkurra, pago ezkurra, gaztain alea... Patziku Perurena

Saltegi beltz haien barrenean pila-pila eginik ikusten ziren kutxa zizelatuak, Rouengo, Neverseko, Moustierseko faiantzak, irudi margotuak, beste batzuk **haritz** zurezkoak. Josu Zabaleta

Egun-pasa ibiltzeko leku egokitua, **haritz** motak bereizten ikasteko ibilbidea eta naturak bere kabuz sortutakoa ikertzeko basoa. Berria - Euskal Herria

Erromako tenploetako sua, Zeus nahiz Jupiterren aldareetan, **haritz** sugaiaz piztua zen beti. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Maiatz-**haritza**. Pello Zabala

4 (erkaketetan)

Herri hau **haritza** bezain sendoa delarik, haizeak inarrosia baita. Herria

Sugetzarra, distiratsua, kolore berdexka pozoitsukoa, **haritz**-enborra bezain sendoa, tente zegoen airean. Iñaki Mendiguren

5 haritzaren zura.

Haritz bernizatuaren distira. Karlos Zabala

Lurrez bete ordez, **haritz**-zutoinak erabili zituzten. Jon Muñoz

Hobe likek **haritz** makila bat hartu, eta, emazteak amore eman arte, ukaldika birrinduko balu. Patxi Zubizarreta

Sagardotegietako **haritz** ohol leunduaren gainean. Askoren artean

Ezkerretara jo du, **haritz** ilunezko ate eskerga zabalduz. Joxemari Iturralde

Gela garbi-garbi bat, **haritz** argiz egindako arasa batek, mahai batek eta zumezko jarleku batzuek hornitzen zutena. Karlos Zabala

Gazteluak aurrean zituen **haritzezko** ate handietara. Iñaki Mendiguren

Haritzezko ohe zahar habedun bat. Josu Zabaleta

Haritzezko oholak edo lastoa erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Ondoren hesolak sartuko dira, makal, olibondo edo **haritzezkoak** eta sutan gogortutakoak. Santiago Iruretagoiena

Haritzezko eta neguko **haritzezko** taulak. Santiago Iruretagoiena

Haritzezko gurutzea. Anton Garikano

haritzaga iz haritzia.

Baratze, pentze, eta As Barrosaseko **haritzaga**. Piarres Aintziart

haritzondo (orobat haritz ondo) iz haritza.

Ipurdiitiik laubost metrotara arte ez baitzuen adarrrik **haritzondoak**. Patziku Perurena

Lehengo denboretan, urrietan, ilun nabarra jadanik hor, usoek hartzen zuten beren pausa lekutzat **haritz** ondo bat edo pago bat, ardurenean toki berezi batzuetan, dena bixkar eta zuhaitz luze. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haritzondo sakratuaren azpiko altzo batean. Txillardegi

harizpe iz haritzaren azpia.

Bere burua hilik mutila / hantxe zetzan **harizpean**, / bidaldi luze bat egina zen / lehenago erbestean. Xabier Olarra

harizpi (orobat *hari izpi*) iz hari fin baten itxurako izpia.

Goiz batez, hasi ohea egiten pertsona helduen moduan eta koltxoiaren txulo batean mugitzen zen **hari-izpi** moduko bat jo nuen begiz. Bernardo Atxaga

Laster konturatu ginen beirazko hodi gorituak bazuela bertute guztiz bakan bat: malgu bilakatzen zenean, aukera ematen zuen beirak, hodi-mutur hotz bietatik tira eginez bizkor, **harizpi** mehe-mehezko sorta bihurtzeraino luzatzeko; **harizpi**, hain zuzen, muga guztiez haraindi finak, halakoak non garrari zerion aire berozko korronteak herrestan eramaten baitzituen gorantz. Juan Garzia

Aita gaixoak ez omen zekien zer egin alabarekin, baina, nolanahi dela, oraindik ere eusten zion esperantzari, **hari-izpi** mehe batez besterik ez bazen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

hariztegi (orobat *haiztegi*) iz hariztia.

Beste teoria batek dio **hariztegi** baten barnean sortu zela herria. Herria

Aurten ondoak berant izan dira gure **haizteietan** eta horrela, duela zenbeit aste, gizon gazte bat izan da Mindea zolako oihan haundiaren miatzen. Herria

harizti iz haritz oihana, haritz landatu diren lur saila.

Bidearen bertzeldean doi, **harizti** jori bat hedatzen zen. Joan Mari Irigoien

Haruntzaxego baso-oihan bat, pagadia edo **hariztia**. Pello Zabala

Orgiko **hariztira** joan dira UEUko kideak saio osagarrien barnean. Berria - Euskal Herria

harjo izond harrak joa.

Horra hor zure senarra, buruxka **harjoa** legez bere anaia osasuntsua izurritzen. Juan Garzia

Ur-berri anega bati beste bat nahastua zeukala antzeman nion, ur zaharrak, hutsak eta **harjoak** alegia. Patxi Ezkiaga

harjotu izond harjoa.

Horren bitartez dena berriro ere dogmatismo zaharkitu eta **harjotura** itzuli zen. Ibon Uribarri

harkaitz (1002 agerraldi, 120 liburu eta 117 artikulutan; ETCn 6.763 agerraldi) 1 iz haitza.

Amildegi beldurgarri eta ikaragarriaren gainean oso altu zegoen **harkaitzeko** zulo batean. Askoren artean

Idi gurdiek **harkaitzean** landutako bide gogorretik heldu naiz hona. Koldo Izagirre

Jarri nuen oina **harkaitzaren** ertz batean eta ertza behera joan zen. Koro Navarro

Harkaitz batean eseri eta bailarari begira jarraitu zuen. Bernardo Atxaga

Harkaitz baten atzean ezkutatu zen, zauriak lotzeko. Juan Kruz Igerabide

Gizon zuhurrak **harkaitz** gainean eraiki zuen etxea. Juan Kruz Igerabide

Irakasle Eskolako neska handienak, nola hartzen zuten eguzkia biluzik **harkaitzen** irtenuneetan mutil irribarretsuez inguratirik. Koro Navarro

Harkaitzaren zelaigune bihurtuaren amaieran. Koro Navarro

Ur-lasterra gailur hurbil batetik jaisten zen, **harkaitz** eskergen artetik jauzika. Joanes Urkixo

Eta **harkaitza** harrigarri itxi da, eta Ali Baba beldurrak airean geratu da, inora joateko gai ez dela. Patxi Zubizarreta

Baina amua **harkaitz** artean trabatzen bada, zein joango da hura hartzera? *ik* harkaitzarte. Juan Kruz Igerabide

Gero goiz hartan bertan badiako **harkaitzetan** harrapatutako ostrak ekartzen dizkit. Koldo Izagirre

Bokale hau bera ere, **harkaitzeko** gailur altu biren artean gordea, hiru dartsena ttipitan dago banatua. Koldo Izagirre

Olatuek **harkaitz** eta hondarrezko uharri baten kontra jotzen duten kolpea. Koro Navarro

Olatuak ikus zitezkeen kristal birrindua bezala printza txuritan lehertzen **harkaitz** gainean. Anton Garikano

Hona hemen txalupa; kasik iritsi da itsasoak bitsez beteak dituen **harkaitzetara**. Koldo Izagirre

Bazkaldu eta banoa **harkaitzetan** goiti. Koldo Izagirre

Algorriko **harkaitza** estiborrean genuen, ongi gindoazen. Koldo Izagirre

2 (izenondoekin)

Harkaitz handi bat ikusten zen itsasertzean, dena kalatxoriz betea. Iñaki Mendiguren

Ene atzean, **harkaitz** handi zut batek bere habia babesten duen arranoaren itxura hartzen du, atzapar biak mendian tinkatuak. Koldo Izagirre

Harkaitz garai baten gainean. Askoren artean

Harkaitz bizian zabaldutako bidea. Anjel Lertxundi

Fedegabeak adarrik ematen ez duten kimuak bezalako dira, sustrai ziztrinak baitituzte **harkaitz** gogorraren gainean. Elizen arteko biblia

Etxea **harkaitz** sendoaren gainean eraiki nahi izan zuen. Askoren artean

Harkaitz gorri, malkartsu eta distiratsu batzuek inguratzen dute. Fernando Rey

Harkaitz luze baten oinetan putzu zabal bihurtzen zen erreka eta huraxe zen gure igerilekua. Aitor Arana

Horrek argi adierazten du hondoa **harkaitz** zorrotzekoa dela. Koro Navarro

Ene Jainkoa nire **harkaitz** babesgarri, nire babeski eta indar salbatzailea. Elizen arteko biblia

Izan zakizkit **harkaitz** babesle. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire istripuko itsaslabarretik gertu bada balea baten antzeko **harkaitz** -mendi bat. Anjel Lertxundi

Gure azpian harea, ibar lau bat muino artean, **harkaitz** -muinoak nonbait, dena erabat soildua, basamortu... Joxe Austin Arrieta

Berriro hantxe azaltzen zaizu hurrengo **harkaitz** -labarrari itsatsia. Joxe Austin Arrieta

Harkaitz -tontorrera igoarazirik, amildu egin zituzten handik. Elizen arteko biblia

Harkaitz -artesi eta arbola-zuloetan egin ohi zituzten beren erresumak erle zuhur maratzek. Patxi Ezkiaga

Emaztearen aurretik abiatu zen Cascada de la Cola del Caballo **harkaitz** gunean. Berria - Euskal Herria

Badia erdizka ixten duen eta itsasbeherak agerian utzi duen **harkaitz** meta baten kontra jotzen du zakar itsasoak. Koldo Izagirre

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ptolomeo Hefaistok aipatzen duen itsas **harkaitz** harena, hura ere, giza bortxaren erasoak gogor erresistitu arren [...] anbulu zuri deritzan lorearen ukituarekin baino ez baitzen ikaritzen. Koro Navarro

Mendien oinetan eta silize-**harkaitzen** artean ateratzen dira urik ugarienak. Santiago Iruretagoiena

Non dira zen jainkoak, non babes-**harkaitz** zenituztenak? **Elizen arteko biblia**

5 (erkaketetan)

Harkaitza bezala gogortu zuela aurpegia eta ez zela lotsatu. **Askoren artean**

Zanpa-zanpa eginda zegoen, **harkaitza** bezain gogor. **Karlos Zabala**

6 *harkaitz zulo* haitzuloa.

Aurkituko diagu akaso **harkaitz zuloren** bat historiaurreko marrazkiekin, eta artikulu bat idatz genezakek eta ederki aberastu. **Koro Navarro**

Harraide hartan oso **harkaitz** -zulo politik daude lanpermetarako, sona handia du itsasalde osoan. **Anjel Lertxundi**

Lehendabizi aintziraxoari bira eman zioten; orain izozturik zegoen, bentaren aurrean zabaltzen den **harkaitz zulo** handiaren barrenean. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harkaitz babesle (4); **harkaitz beltz** (5); **harkaitz garai** (5); **harkaitz garaia** (3); **harkaitz gogorretik** (3); **harkaitz gorri** (3); **harkaitz handi** (22); **harkaitza jo** (4); **harkaitza zulatu** (4); **harkaitzak zartatu** (3); **mendaitzeko harkaitza** (3)

harkaitzarte *iz* haitzarte.

Han lapatuko da, eta agudo sortuko, hormatxulo tikienean ere bai, **harkaitz** arte xotilenean, bere zainak auskalo non ezkutatuta... **Pello Zabala**

Handik hamar egunetara **harkaitzarte** hartan bilduko ginen berriro. **Felipe Juaristi**

harkaitzondo *iz* harkaitza.

Ezagutzen ditut bi pago, Arantzazuko Ama Birjina koroatu zutenekoan, komentutik beste alderako pendizeko **harkaitzondoan** landatu zirenak, eta bata besteari bost eguneko aldea ateratzen dio beti, urtero. **Pello Zabala**

harkaizpe *iz* haizpea.

Gülbahar eta Ahmet **harkaizpean** jaitsi ziren zalditik. **Fernando Rey**

Jesus bakardadean berrogei gau eta berrogei egunez otoitzean eta barau eginez egon zenean, ez zuen bertan gelarik edo etxerik eginarazi, baizik eta mendiko **harkaizpean** bizi izan zen. **Askoren artean**

Eraman nazazu **harkaizpera**. **Askoren artean**

harkaizti *iz* harkaitz asko dagoen tokia edo aurkintza.

Harkaizti batzuetako zuhaitzen hostoak horixkatu eta ximeltzen hasten direnean. **Pello Zabala**

Berarentzat gaztelu zoragarri bat eraikiarazi zuen Beyaziten, **harkaizti** haien gainean. **Fernando Rey**

Harriren baten parera heltzen bazen karabana, inguratu egiten zuten; **harkaiztiren** batekin topo egiten bazuten, berriz, ingurubira handia egin behar izaten zuten. **Xabier Aranburu**

harkaiztsu *izond* harkaitz asko dagoena.

Etetik hiruzpalau ordura zegoen mendi bat zuen kuttun, hirurehun bat metroko amildegia **harkaiztsu** batek inguratzen zuena. **Joan Mari Irigoien**

Ibar sakon bat da, zintzur estu bat bi malda **harkaiztsu**, basoz bete, handiren artean. **Josu Zabaleta**

harkaskar *iz* harkoskorra.

Leihora **harkaskarrak** jaurtitzen zituztela entzun nuen. **Irene Aldasoro**

Harkaskarrezko bideetan garrasika eta lasterka zebiltzan haurrengan, eta lorategietatik igarotzen zen ororengan. **Irene Aldasoro**

harki *iz* frantses kolonizatzaileen armadako milizia berezi bateko kide zen arabiar gudaria.

Zu bezalako soldadu arruntez landa, badira **harki** eta paraxutista batzuk ere. **Xabier Montoia**

Harkiek makila ukaldika kalituriko FLNko errebeldeak. **Itxaro Borda**

Tipia, larru azalez beltza, hemengotzat joko luke normahik, bere uniformeak **harkiena** balitz. **Xabier Montoia**

Ezaguna da paraxutisten eta **harkien** bihozgabekeria. **Xabier Montoia**

Presoarengana bertze **harki** bat hurbildu eta hortzak apurtu dizkio fusil ukaldi batez. **Xabier Montoia**

harkor *izond* abegikor.

Katedraleko sarrera atzeman zuen eta hango ilunpean, ama-ontzi bero eta **harkor** batean nola, umekia bezain kuxkur belaunikatu zen. **Itxaro Borda**

Angulematik hara, zeru haietako lainoak miresgarri zitzaizkion: betetasun ikaratia bazuten, loditasun **harkorra**, ortzia pindarka kilikatzen zuten presentzia fisikoa. **Itxaro Borda**

harkoskor (*orobat harkozko*) *iz* harri-koskorra. ik *hartxintzar*.

Akerrak, ahuntz taldea gidatzean, bide zidor harritsuen bihurguneetan biraka amilkatzen dituen **harkoskorrak**. **Karlos Zabala**

Bideko **harkozkoek** gurpilen utzai burdinazkoak jotzen dituztenean. **Xabier Amuriza**

harlan *iz* hargin lana. ik *harrilan*.

-Harlan ona dago hemen -esan zuen, harresietara begira-. **Agustin Otsoa**

Ez dago zalantzarik **harlanik** onena zaharrena dela. **Agustin Otsoa**

harlandu 1 iz landuriko harria.

Kalostrarrik gabeko eskailera da, **harlandu** handiek osatua. Koldo Izagirre

Karrika estu **harlanduz** apainduetatik gora. Felipe Juaristi

Hormetako **harlandu** erraldoiak hauts zurixka batez estalita zeuden. Alberto Ladron Arana

Atalgaineko **harlanduan** "1821" data irakur daiteke. Txillardegi

Garbi dago **harlanduak**, edo harri gogorrak, edo harlangaitzak, edo adreilu erreak nahiz gordinak dauden lekuetan ere, daudenak erabili beharko direla leku bakoitzean. Santiago Iruretagoiena

Paretak marmolez edo **harlanduz** egingo badira, komeni da erabiltzen diren harriak tamaina ertainekoak eta oso berdinak izatea. Santiago Iruretagoiena

2 harlanduzko izlag

Jauregiak mundu bat osatzen zuen, **harlanduzko** hilobi handi eta arranditsu baten antzekoa. Xabier Olarra

Harlanduzko zorua zuten, harea harrizko zorua, eta bidaiariaren oin-pausoek handik zehar ibiltzean itsas doinua ateratzen zioten zoruari. Felipe Juaristi

Eskalda ibairaino daramaten karrika **harlanduzkoak**. Felipe Juaristi

Inork ez zuen lanik hartu horma **harlanduzko** sendoetan pilatutako hautsa eta amaraunak kentzen. Iñaki Iñurrieta

Harlanduzko giharrak airera zabaldua dauzkan eraikin erraldoiaren inguruan. Javi Cillero

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harlanduz egina (4)

harlandutzar iz landuriko harrizarra.

Harrigarria bai, **harlandutzar** haiek haraino garraiatu izana, gurpila ezagutu gabe, eta beraz, ezta alper-harria ere, noski. Joxe Austin Arrieta

harlangaitz iz harri landugabea.

Garbi dago harlanduak, edo harri gogorrak, edo **harlangaitzak**, edo adreilu erreak nahiz gordinak dauden lekuetan ere, daudenak erabili beharko direla leku bakoitzean.

Santiago Iruretagoiena

Harrizko pilare, adreilu erreko horma eta **harlangaitzeko** mehelinen laguntzarekin altuera handiak altxa daitezke. Santiago Iruretagoiena

harlauza 1 iz harrizko lauza, lauza.

Hezetasunez ihaurritako lurreko **harlauza** zabalak. Anjel Lertxundi

Harlauza zuri-beltzeko zoruari. Alberto Ladron Arana

Espaloiko **harlauzak**. Unai Iturriaga

Nasako **harlauzen** gainean. Joseba Sarrionandia

Kaleetako **harlauza** apurtuetan potxingoak sortu dira. Sonia Gonzalez

Harry ahoz behera zegoen **harlauza** hotzaren gainean. Iñaki Mendiguren

Afaritarako sua piztuta egon ohi zen beheko suaren **harlauza** gainean. Josu Zabaleta

Atzean utzi genituen hiru oilo **harlauza** lohitsueta mokoka. Koro Navarro

Koilara komuneko **harlauzen** gainean dago oraindik ere. Sonia Gonzalez

The Hare's Foot eta *The Pure Drop* tabernen arteko etxarte **harlauzez** estalian geratu zen. Koro Navarro

Baseliza hau haatik frango hondatua da, **harlauzeko** teilatua bereziki. Herria

Isiltasunak **harlauza** baten pisua zuen. Aingeru Epaltza

2 (hilobietan)

Zerurantz altxa nituen begiak: [...] marmolezko sabai trinko eta mugiezin bat zirudien, hilobi baten **harlauza**. Bernardo Atxaga

Zola osoki hilen **harlauzez** estalia zen. Elena Touyarou

Berriainen agertu diren hilobi guztiak pieza bakarreko **harlauzek** estaltzen dituzte. Berria - Kultura

Premiazko ekintza burutu zuten Otsabideko kantonamenduko hil herrietan: deitura arrotzak zituzten marmolezko **harlauzak** tindu gorritz estali zituzten. Itxaro Borda

Ikusten izan naiz, baina **harlauzan** bakarrik familiaren izena emana da. Elena Touyarou

Zulo txiki bat begiztatu nuen, ukabil baten neurrikoa, lurrean, Sabinoren **harlauzaren** aurrean. Ramon Saizarbitoria

Harlauza zizelkatzen ari zen gizona epitafioa idatzitako paper orria eskuan zuela hurbildu zitzaigun. Bernardo Atxaga

harlechio iz harrizko lehioa.

Lehenbizi ongi itxi sotoko atekak, atalak, salako lehakumeak, ganbarako **harleiho** zaharrak, eta badator atzera xirriki xarraka aitona sutondora Patziku Perurena

harma ik arma.

harmaila (orobat harmail g.er.) 1 iz harrizko maila edo jarleku modukoa.

Basajaun begira-begira dauka suaren aurreko **harmailan** eserita. Anjel Lertxundi

Haren idazmahaia aurrealdean zegoen, **harmaila** baten alturan kokatua, eta goitik behera begiratzen zigan binakako pupitreetan eseritako eskolaumeoi. Pedro Alberdi

Han geunden nasako **harmailaren** gainean igota. Joseba Sarrionandia

Aldarearen behealdean, lehenengo **harmaila** zabal eta sakonean, harrizko besaulki bat zegoen, beltza eta apaingarririk gabea. Agustin Otsoa

Hurrengo **harmaila** jaisterakoan. Pedro Alberdi

Azken **harmaila** gainditu, eta ingurura begiratu nuen: han ez zegoen inor. Bernardo Atxaga

Beste berrogei bat **harmaila** jaitiak izango zituen ordurako. Pedro Alberdi

2 (harrizkoa ez dena)

Goiko gelara zihoan eskaileraren **harmaila** konpontzea egokitu zitzaion. Eider Rodriguez

Plazaren ertzean burdinaz eta egurrez eraikitako **harmaila** gisako tramankulu erraldoia. Josu Landa

3 p/ik harmailadi.

Harmailen zabalerak ez luke izan baina txikiagoa eta ez bi oin baino handiagoa. Santiago Iruretagoiena

Haiek bai **harmaila** malkartsuak, zabaleraz eta goieraz juxtu behar lukeenaren alderantziz eginak. Joxe Austin Arrieta

Herriko etxeko sarrera nagusiko **harmailatar**a joan gara. Edorta Jimenez

Erromako elizaren **harmailetan**. Herria

Tribunako **harmailetan** eseri nintzen. Karlos Linazasoro

Hernaniko Galarreta pilotalekuko **harmailen** hiru laurdenak bete ziren.

Mendizorrotzako **harmailak** leporaino beteko dira. Berria - Kultura

8-18 markagailuan, eta itxaropenik ez **harmailetan**. Berria - Kirola

Gerland estadioko hegoaldeko **harmailetak**o zaleek. Berria - Kirola

Zezenak oso ondo ikusten direla **harmailetatik**, eta txartoago aretatik. Berria - Euskal Herria

Beheko **harmailetan** zegoen agure zahar bizar-luze bati. Joan Mari Irigoien

Elizako eskaileretako goiko **harmailetan**. Aingeru Epaltza

Harmaila -pare batean estropezu eginez. Iñaki Mendiguren

Ari nintzen eliz atarira eramaten duten **harmailak** igotzen. Bernardo Atxaga

Hamar minutu geroago, **harmaila** higitu batzuen hasierara iritsi zen; goraka-goraka bistatik desagertzen zen eskailera. Iñaki Mendiguren

4 irud

Gasteiztik Iruñera bidean, Urdiaindik edo Bakaikutik ikusten den **harmaila** erraldoia. Joseba Sarrionandia

5 harmailetan gora/behera

Matronak **harmailetan** gora igotzen direnean beren erreguak egitera. Santiago Iruretagoiena

Harmailetan gora joan ziren hirurak gaztelurantz. Iñaki Mendiguren

Gizon-talde bat gazteluko **harmailetan** behera zetorren. Iñaki Mendiguren

Bizkor mugituz, **harmailetan** behera ziegetara joan zen zuzenean. Iñaki Mendiguren

Emakumezko bat jaitsi zen **harmailetan** behera lasterka. Irene Aldasoro

Beste figura bat ikusi baitzuten **harmailetan** behera lasterka eta bizkor sahasaren aldera joaten. Iñaki Mendiguren

Astiro hasi nintzen **harmaila** zapal haietan gora. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreko harmailetan (7); **harmaila igo** (6); **harmaila jaitsi** (3); **harmailak bete** (26); **harmailak beteko** (3); **harmailak lepo** (15); **harmailetan behera** (11); **harmailetan egon** (5); **harmailetan eseri** (5); **harmailetan gora** (10); **harmailatar iritsi** (3); **harmailetatik begira** (15); **harmailetatik ikusi** (10); **harmailetatik jarraitu** (6); **ipuruako harmailetan** (5); **labriteko harmailak** (4); **mendizorrotzako harmailak** (3); **mendizorrotzako harmailetan** (3); **pilotalekuko harmailak** (31); **pilotalekuko harmailak** (6); **pilotalekuko harmailen** (4); **zelaiko harmailetan** (9); **zortzi harmaila igo** (3)

harmailadi iz harmaila multzoa, harmailak.

Jauregiaren aurrealdeko **harmailadira** eraman nau. Txillardegi

Eta baita, hondarraren heineraino ere aise jaisteko, hiru **harmailadi** dotore. Txillardegi

harmailadun izond harmaila duena; harmailak dituen.

Cella-rik gabe egindako tenpluek plataforma altxatua izaten dute, eta sarrera **harmailaduna**. Santiago Iruretagoiena

harmarri ik armarri.

harmatu ik armatu.

harmen 1 iz hartzea.

Hiru emakumeok Askabide barruan dabilta orain prostitutei laguntzen, esku-**harmen** komunitarioko eragile lanetan. Berria - Harian

2 (filosofian)

Beraz, ezagutzak beti bi iturri ditu (eta bi bakarrik): sentimena edo zerbaitek afektatua izateko gogamenaren gaitasuna (**harmena**: ezagutzako elementu pasiboa) eta adimena, sentimenen bidez jasotako informazioa adigarriki elaboratzeko gaitasun aktiboa, hots, pentsatzekoa, errepresentazioak sortzeko berezotasuna (kreatibitatea).

Askoren artean

Horren aurrean ez da nabarmendu behar **harmen** imajinatiboa, baizik eta adimenaren jarduera. Piarres Xarriton

Sentimena deitzen diogun **harmen** honen forma iraunkorra hartueman ororen beharrezko baldintza da. Ibon Uribarri

Adigaiak, beraz, pentsatzearen berezotasunean oinarritzen dira, sentsuzko begiespenak, bestalde, zirraren **harmenean**. Ibon Uribarri

harmonia 1 iz osotasun bat eratzen duten gauza edo zatien elkar hartze egokia.

Antzeko bizitasuna zuten zaldizkoek eta zaldien gorputzek: dotoretasun eta nobletasuna, ia errudun sentiarazeko moduko grazia eta **harmonia**. Xabier Olarra

Soinketa gorputzaren **harmonia** da, zainak marrazten dizkigun geografoa. Karlos Linazasoro

Udazken beteko **harmoniaz** jantzitako musika. Oskar Arana

Aurpegia baketsua zuen, **harmoniaz** bete. *ik beherago* 7. Jon Muñoz

Kosmosean ordena bat dago, **harmonia** bat, dena baitator harreman matematikoez lotua. Askoren artean

Esferen **harmonia** numeroen **harmonia** da, funtsean. Joan Mari Irigoien

Kosmosean ordena bat dago, **harmonia** bat, dena baitator harreman matematikoez lotua. Askoren artean

Izartegiaren mugimendu harmoniko eternelan arimak bere **harmoniare**n ideala kontenplazten zuen. Joxe Azurmendi

Nork bere burua ezagutu behar munduaren **harmonia** ezagutu nahi bada. Askoren artean

Atseginak badu lotura bat irudiaren beraren ezaugarri batzuekin, haren proportzioen **harmoniarekin**, adibidez. Josu Zabaleta

Begien aurrean zuen multzo kaotikoari, ordea, musikaren **harmonia** zerion. Patxi Iturritegi

Badago beste **harmonia** bat, are gordeagoa, baina ber gisan nabarmena ene aburuz, zumarraren eta hareharriaren artean. Koldo Izagirre

Itun Zahar eta Berriaren artean dagoen **harmonia**. Imanol Unzurrunzaga

Haren intziri txikiak ere **harmoniaz** egokitzen ziren nire marruekin. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Ezagutza eta ekintzaren arteko **harmonia** orekatua. Imanol Unzurrunzaga

Egia baldin bada, filosofo batzuek nahi duten bezala, **harmonia** bete-betea dagoela gizon baten moralaren eta gorpuzkeraren artean [...]. Josu Zabaleta

Adimen unibertsala (*nous*) deituko dio Pitagorasek unibertsuaren **harmonia** matematikoari. Askoren artean

Konstelazioen **harmonia** musikalen arabera. Santiago Iruretagoiena

Kamafeo baten ezintasunez zabaltzen den bizkarra, **harmonia** sutuko bularraldea bere garaipenezko lineak airean, kurba beteen erritmo miresgarria. Berria - Kultura

Udako gau argietan urretxindor zoragarriak bere kantu goxoaz lagun egiten dio unibertsuaren **harmonia** jainkozkoari. Koldo Biguri

- Gorputza **harmonia** harrigarrian baitzegoen espirituarekin, eta espiritua Jainkoarekin. Askoren artean

ik beherago 8. Askoren artean

Ez liskar bat, ez aurpegi txarrik, **harmonia** ederra. Josu Zabaleta

Kontua da bi gizonak, ez **harmonia** txarrean, geltokiko polizia-gunera joan zirela. Anjel Lertxundi

Nire aldera hartu zuten, elkarrekin hizketan **harmonia** oneko jardunean. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lekuaren **harmonia** ezak ezinegona sortzen zigun. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kualitate horiek [erritmoa eta musikaltasuna] diziplina zorrotz baten ondorio dira ordea, eta ingeles poesian guztiz bereziak diren hitz **harmoniak** sortzen dituzte.

Planteamendu alternatiboak gizarte-**harmoniarako**. Koro Navarro

Koadro horietako kolore **harmoniei**. Josu Zabaleta

Taldearen ardatzetako bat ahots **harmoniak** izan dira beti. Berria - Kultura

Poz handi bat sentitu nuen, barne-**harmonia** esanezin zoro bat. Juan Luis Zabala

Izan ere barne-**harmonia** honek oparo zuzentzen du kanpoko gizakia. Joan Mari Lekuona

Soinu-**harmoniarik** egokiena lortzeko. Santiago Iruretagoiena

Ez, ez zegoen halakorik, eta lekuaren **harmonia** ezak ezinegona sortzen zigun. Bernardo Atxaga

5 (musikan)

Xabier Sarasola, Beasaingo Loinatz abesbatzako zuzendaria eta piano, **harmonia**, biolin eta kantu irakaslea. Berria - Kultura

Ondoren, piano eta **harmonia** ikasketak egin zituen Iruñean. Berria - Kultura

Antzerakoxe planto batekin eten nituen **harmonia** ikasketak ere: baina, hori bai, lan pare bat aurkeztu norgehiagokan eta, lehen saria irabaztean, banekien **harmonia**-lanetan ongi nenbilena. Pello Zabala

Hiru motatako modulazioak daude: lehenengoa, grekoek **harmonia** deitzen dutena; bigarrena *chroma* deitzen dena; eta hirugarrena *diatonon* esaten dena. Santiago Iruretagoiena

Kantua **harmonia** aldetik aztertzeko eskatu zion Eviek. Xabier Olarra

Musikaren adar ilun eta zaila da **harmonia**, batez ere greziera ezagutzen ez dutenentzat. Santiago Iruretagoiena

Hiru emakume hauen ahozko **harmoniak** goi mailakoak dira. Berria - Kultura

Zitara bat entzun zuen **harmonia** miragarritz eta melodia gozoz jotzen. Askoren artean

6 (fonetikan)

Harmoniaren kasuan ikerlariak harritu izan ditu nola bokal biren artean eragina egon daitekeen tartean kontsonante bat edo gehiago izanda ere. Lourdes Oñederra

Bokal-**harmonia** bokalen arteko asimilazio mota bat da. Lourdes Oñederra

Esate baterako, bokal sabaikari batek bere ahoskunea bokal-**harmoniaz** hedatzen badu [...] berdin da zenbat silaba gehitzen zaizkion hitzari, atzizkiak gehituz adibidez, silaba horietako guztietako bokalen ahoskunea aldatuko da. Lourdes Oñederra

Badira euskaraz bokal-**harmoniaren** beste zantzu batzuk ere goiko bokalen biribiltasuna edo palataltasunari dagozkionak. Lourdes Oñederra

7 ipar musika banda.

Kantariak, Baionako Airoski koroa, Bastida eta Akamarreko taldeak; soinua, Baionako soldadoen **harmonia**. Herría

Arragako kantariak eta Kanboko **harmoniako** musikariak. Herría

Eraikidura honek aterbetzen ditu orain musika eskola eta **harmonia**. Herría

Hori jakinarazi du Daniel Hérard Jaunak, musika eskolako zuzendari eta **harmoniako** buruak. Herría

Egunaren bururatzeko, **harmoniaren** kontzertua San Josep Parkean. Herría

8 harmonian

Eta hala ibiltzen ziren ahal zutenean, batak arre eta bertzeak so, baina beti ere begirunez, bakean eta **harmonian**. Joan Mari Irigoien

Biztanleriaren tamainak eta hazkunderak ekosistemaren ekoizpen ahalmen aldakorrarekin **harmonian** beharko luke izan. Iñaki Heras

Neure gogoarekin guztizko **harmonian**. Juan Luis Zabala

Eta mila forma eta mila soinu beti xaharberrituz elkar, eta elkarren **harmonian** beti. Patziku Perurena

9 harmoniaz

Harmoniaz eta egoki bizi. Imanol Unzurrunzaga

Haren intziri txikiak ere **harmoniaz** egokitzen ziren nire marruekin. Karlos Zabala

10 harmoniazko

Konposizioa oihalaren azaleraren [...] **harmoniazko** banaketa geometrikoa da batez ere. Josu Zabaleta

Iparreko hizkuntza batzuek kontsonanteak metatu dituzte; hegoaldeko batzuek, aldiz, gehiago erabili ohi dituzte bokalak, eta horrenbestez, **harmoniazkoagoak** dira hizkuntza horiek belarrirako. Isabel Arrigain

Ezin diet nik, ordea, inolako doinu **harmoniazkorik** eragin. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozko harmonia (3); arteko harmonia (10); bokal harmonia (6); eta harmonia (29); harmonia bat (8); harmonia da (3); harmonia eta (18); harmonia lortzea (3); harmonia onean (3); nazioen harmonia (3); oreka eta harmonia (5)

ahozko harmoniak (6); bakerako eta harmoniarako (3); bokal harmoniaren (3); eta harmoniak (3); eta harmoniaren (3); harmoniak eta (4); harmonian eta (3); harmoniaz betea (3); harmoniaz eta (3)

harmoniatsu (*ETCn 410 agerraldi; orobat harmoniotsu ETCn 17 agerraldi*) izond harmoniaz betea.

Perla eta zilarrezko galburua bezain distiratsu, lirain eta **harmoniatsu**. Agustin Otsua

Gizarte global **harmoniatsu** eta kulturalki integratua. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arrazoimenaren erabilera **harmoniatsuaren** oinarrian. Ibon Uribarri

Koadroaren laukizuzena proportzio **"harmoniatsutan"** banatzeko ebaketa-eredu "unibertsalak". Josu Zabaleta

Ikusleak berehala antzemango dio bien arteko «kontraste **harmoniatsuari**». Berria - Kultura

harmoniatsuki *adlag* harmoniaz.

Irabazia nuen pisua, pittin bat, bi kilo beharbada, [...] eta **harmoniatsuki** banatu ziren bi kilo haiek nire gorputz guztian. **Joxan Elozegi**

harmonika *iz* ahoko soinua.

Harmonika baten doinuak entzun zituen oraindik Telleriak, parkinean bakarrik geratu aurretik. **Harkaitz Cano**

Harmonika jotzen ari zen baten bat. **Koro Navarro**

Harmonikaren soloak. **Berria - Kultura**

Paul Lamb **harmonika** jotzaile aparta dugu **Berria - Kultura**

harmoniko 1 *izond* harmoniaren arabera.

Izartegiaren mugimendu **harmoniko** eternalean arimak bere harmoniaren ideala kontenplatu zuen. **Joxe Azurmendi**

Haizeak ez ditu egiten ditu doinu minak, espazioak apaldu egiten ditu hots desafinatuak, dena ordenatzen da osotasunean, eta emaitza **harmonikoa** duzu. **Koldo Izagirre**

[Irakurlearen] arimaren hari bat jotzen asmatzea, sentiberatasunen artean izaten diren uhin **harmoniko** berezi eta ulergaitz horiei esker. Bere azalaren zurtasuna bizia zen, areago marmolarena esnearena baino, eta bere lerroak, lepotik belauetaraino, erabat **harmonikoak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Modulazio **harmonikoa** artegintzarako pentsatua dago, horregatik horren kantuak halako prestutasun aparta eta dotorea izaten du. **Santiago Iruretagoiena**

Urrezko zenbakia segida "**harmonikoaren**" muga dela batez ere. **Josu Zabaleta**

Azaltzen ziolarik gitarra-joleari nola gitarraren hots **harmonikoen** azpian [...] numeroen mundua zegoen. **Joan Mari Irigoien**

Musilen Ulrichek, atributurik gabeko gizonak, ez dauka eite **harmonikorik** muinera jotzeko, ez du batasunik ikusten muinaren altzoan babesteko. **Anjel Lertxundi**

Eta nola ez hartu aintzat, harreman **harmonikoen** sare zabal horretan, naturalezaren emaitzarik altuena, andrea eta gizona? **Bernardo Atxaga**

Ez nuela ez etxerik ez harreman **harmonikorik** ez haurrik eduki nahi. **Eider Rodriguez**

Teknologia digitala mundu **harmonikoagoa** lortzeko bide dugu. **Txema Ramirez de la Piscina**

2 *izond/iz* akustikan, maiztasunez edo hotsez mintzatuz, oinarrizko maiztasunaren maiztasun multiploa dena edo duena.

Oinarrizko maiztasun horretaz gainera, ahoskorden zati txikiagoen mugimenduari dagozkion maiztasun **harmonikoak** daude, oinarrizkoaren multiplo osoak. **Lourdes Oñederra**

Itsasoak dituen egoera desberdinetan oinarrituta, urpeko musika islatu du egileak alderantzizko **harmoniko** zatikatuak erabilia egileak berak azaldutakoaren arabera. **Berria - Kultura**

Bere ahotsa, **harmonikoetan** aberatsa, indartsua eta kolore bereziduna da. **Berria - Kultura**

3 *ez-harmoniko*

Adagio baten gozotasunean arpegio ez-**harmoniko** batzuk tartekatzen dira. **Berria - Kultura**

harmonium (*ETCn 50 agerraldi; orobat harmonio ETCn 56 agerraldi*) *iz* organoaren kideko musika tresna, hodien ordeztu mihiak dituena.

Harmonium txiki baten aurrean eseri da, oinak pedaletan sartu eta eragiten hasi zaio. **Pako Aristi**

Egia zen, kolegioko kaperan jotzen nuen **harmonioa**. **Bernardo Atxaga**

Nork jo behar du orduan elizako **harmonioa**? **Bernardo Atxaga**

Virginiaren ezkontzan **harmonioa** jo behar zuenak. **Bernardo Atxaga**

Harmonioaren aurretik pasatzean begiratu egingo dizut. **Bernardo Atxaga**

Zutik entzuten genuen, txapelak erantzita, eta, **harmonioaren** soinuek ninderamaten bitartean, inguruan nituen gizon guztiekin bat egiten nuela sentitzen nuen. **Monika Etxebarria**

Harmonium ttiki baten doinuak eta hiru haurren kantu minberak entzuten dira bagoi bete-betean. **Gotzon Garate**

Harmoniuma lardaskatzen duena hamaika urteko Hanmantu mutikoa da. **Gotzon Garate**

Osaba batek erakutsi zion Hanmanturi **harmoniumean** kantu batzuk jotzen. **Gotzon Garate**

harmonizatu, harmoniza, harmonizatzen 1 du *ad* egokitu, adostu.

Moralak banakoaren eta taldearen interesak **harmonizatzen** ditu. **Joxe Azurmendi**

Garapen ekonomikoa, ingurumena eta gizarte kohesioa **harmonizatze**ko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Gai horiek guztiak elkarrekin **harmonizatze**ko. **Berria - Euskal Herria**

Lukreziozengatik poesiak bakarrik dauka gaitasuna, filosofia atomistak, erromatar munduan zabaltzerakoan, planteatzen zion zenbait problema **harmonizatze**ko. **Xabier Amuriza**

Baina berez ez dugu harremanik besteekin, munduarekin: espiritu automatikak gara, Jainko onak era posible guztien artean hoberean **harmonizatuak**. **Markos Zapiain**

2 (*orobat harmonisatu*) musikan, doinu bat dagozkion akordeez hornitu.

Zortziko batzuk eta Orfeoira **harmonizatutako** beste pieza batzuk idatzi zituen. **Askoren artean**

Eskainiko dizkigun 17 kantuetarik zortzi Aita Donostiak bilduak eta **harmonisatuak** ditu. **Herria**

3 fonetikan, bokal harmonia gertatu.

Hitz luze horien arteko mugak eta esaldiaren prozesatzea errazten du erro bakoitzari dagozkion atzizki guztiak erro horretako bokalarekin **harmonizatze**ak. **Lourdes Oñederra**

Bokal kenketa eta kontsonante taldeen soiltzea **harmonizatze**ko aukera bilatzen zuen nonbait 3,8 urte zituen Ander euskaradun gasteiztarrek (Legorretako hizkeran hezia) honelakoak ahoskatzen zituenean: tirgea, kokodirua, korkodiloa. **Lourdes Oñederra**

4 (era burutua izenondo gisa)

Kontsumorako prezioen indizearen arabera neurtutako inflazio-tasa **harmonizatuak**. **Iñaki Heras**

Langabezia tasa ez **harmonizatua** %10,4koa da. **Berria - Ekonomia**

harmonizatze *iz* musikan, doinu bat dagozkion akordeez hornitzea.

Kantuen **harmonizatzea**: Jo Maris. **Herria**

harpatxo *iz harpa txikia.*

-Ene **harpatxo** gaixoa! **Joanes Urkixo**

harpe (*210 agerraldi, 29 liburu eta 70 artikulutan –horietako 61 Herria astekarian-)* **1** *iz hartzuloa, harkaizpeko barrunbe edo aterpea.*

Gizon-emazteak, larruz jantziak, **harpeetan** bizi ziren garaian. **Xabier Montoia**

Nehor ez da **harpeko** sarrera goibelean ageri. **Xabier Montoia**

Ahmetek, **harpe** barrenean, sua piztu zuen ardagaiaz eta suharriaz. **Fernando Rey**

Harpe bateko zoko ilun batean. **Berria - Euskal Herria**

Massabielleko **harpe** miraritsua. **Txillardegi**

Paleolitoko **harpeetako** biztanlea. **Xabier Olarra**

Toki hark Joanttori lapurren **harpea** gogorazi zion. **Elena Touyarou**

Platonen **harpeko** kide sentitzen nintzen. **Itxaro Borda**

Ekain, Altzerri eta Otsozelaiko **harpeetako** margoen inguruan. **Herria**

Egunaren indarrak **harpe** baten gerizara bultzatu ninduen; barrenean bazen zulo bat, eta zuloan eskailera bat, han beheko ilunbera amiltzen zena. **Juan Garzia**

Makpelako soroko **harpean** ehortzi zuen Abrahamek bere emazte Sara, kanaandarren lurraldean. **Jose Antonio Mujika**

2 irud

Emaztearen ezteki biluzteko gogoia ernatu zitzaidan, haren **harpe** usantsuaren milikatzeke adibidez. **Itxaro Borda**

Zer ziren bada burumuinaren **harpe** hitsetarik jaukitzen zitzaizkion ele horiek? **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan)

Harpe urrin dorpea. **Itxaro Borda**

Azken sototik jalgi nintzenean, **harpe** zuloaren ahoan aurkitu nuen. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harpean ehortzi (5); **harpean ehortzi zuten** (3); **isturitzeko harpeetan** (4); **makpela soroko harpean** (3); **otsozelaiko harpeen** (4); **otsozelaiko harpeetan** (5); **soroko harpean** (6); **soroko harpean ehortzi** (3)

harpetxo *iz harpe txikia.*

Hutsuneak, **harpetxoak** eta bolumena erabiliz forma ugari sortu du. **Berria - Kultura**

harpide *iz harpidetza.*

Etorri gogotik "Horiak" sustengatzerat (sartzea : 5 euro eta **harpide** txartela sasoin guziko partidentzat : 45 euro). **Herria**

harpidedun **1** *iz (zerbaiten) harpidea hartzen duen pertsona.*

Garai haietan mila inguru **harpidedun** ba omen zituzten. **Hasier Etxeberria**

Pariserako hamar bidaia zozkatzen ditu urtero **harpidedun** berrien artean. **Ramon Saizarbitoria**

Harpidedunek etxeko postontzian jasoko dute egunkaria. **Berria - Euskal Herria**

Harpidedunen zerrendan. **Berria - Harian**

Gure aita *Círculo de Lectores* delakoaren **harpideduna** zen. **Joxerra Garzia**

Aspaldiko urtetan HERRIA kasetaren **harpideduna** zen. **Herria**

Irutxulo astekariko eta *Berria* egunkariko **harpidedun** guztiak jasoko dute egunkari berria, zuzen-zuzenean bihurtu dituzte argitalpenaren **harpidedun**. **Berria - Harian**

PIKAren **harpideduner** proposatua da aldizkaria beren laguner ezagutaraztea. **Herria**

Harpidedunen kopurua goiti joanen dela uste dute. **Herria**

Badakit futbultzale ainitz badela Frantzian, baina onartuko dutea **harpidedun** izaitea futbolaren ikusteko. **Herria**

2 harpidedun egin

Aberdeen-en, 1714an, Pope-ren *Iliadaren* sei liburukien **harpidedun** egin nintzen. **Juan Garzia**

Ordenagailua birusekin bonbardatu zioten, sikarioak bidali zizkieten etxera, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari guzti-guztien **harpidedun** egin zuten behin eta berriro. **Iban Zaldua**

Ama *I diritti della scuola* zeritzan eskola-aldizkari bateko **harpidedun** egin zen metodo didaktiko modernoak ikastearren. **Fernando Rey**

Argia aldizkariko **harpidedun** egin nintzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta harpidedunen (4); **harpidedun bat** (3); **harpidedun egin** (7); **hunen harpidedun** (3); **kaseta hunen harpidedun** (3)

harpidetu, harpide(tu), harpidetzen da/du *ad* harpidetza hartu.

Aferrrik egoten dituk Europako aldizkarietara **harpidetuak** eta irakurtzen dituzte liburu europarrak zingira haien erdian. **Xabier Olarra**

Estatuak **harpidetutako** tituluak, 300 eta 500 milioi euro arteko balioa dutenak, kapital bihurtu ahal izango ditu. **Berria - Ekonomia**

Harpidetzeko Eskaintza Publikoak ez du espero bezalako erantzuna jaso. **Berria - Ekonomia**

harpidetza **1** *iz epeka argitaratzen den aldizkari edo kideko bat erosteko izena ematea; izen emate horri dagokion diru saria. ik harpide; abonamendu.*

Doako **harpidetzari** esker. **Aingeru Epaltza**

Harpidetzen diru sarrerekin. **Berria - Mundua**

Ondoren, **harpidetza** egin beharko da eta harpidedunek etxeko postontzian jasoko dute egunkaria. **Berria - Euskal Herria**

Euskarazko egunkari bakarraren **harpidetza** egiteko eskaera. **Berria - Euskal Herria**

Urtean lau libururen **harpidetza** hartu (bat euskarazkoa, hiru frantsesezkoak), banku bidez diru-ixurtze automatikoa eginez argitaletxearen kondura. **Herria**

Harpidetzak ardatzintzen hasteak ere garrantzi nabarmena izan zuen *Irutxulo*-ren historian. Heria Berria - Euskal Herria

Urte osoko **harpidetza** (12 aldizkari) gostatzen da 200 libera edo 5000 pezeta. Heria

DVDarekin urte osoko **harpidetza** eskura daiteke. Berria - Kultura

Bi euroz emendatu dugu, bi euro xoilez, **harpidetza**ren urtesaria. Heria

Urteko **harpidetza** 23 eurokoa izanen da. Heria

Chic parisien jasotzen zuen **harpidetza**, nobela frantsesak irakurtzen zituen bulegoko joan-etorrian. Anton Garikano

Telefona finkoentzat, **harpidetza** poliki kariotu, deiak aldiz merkeago ezarri. Heria

Hilero, kopiatzaileak 4 eta 7 euro gehiago ordainduko luke bere Internet **harpidetza**. Berria - Harian

2 akzioak eta kidekoak erosteko dokumentuak izenpetzea.

Atzerritar kapitalak, mailegu publikoen **harpidetza** osaturik gehienbat, azpiegiturak egiteko erabili ziren. Koro Navarro

Lehenik eta behin finantza erakundeen bidez salduko du bere akzio **harpidetza** (OPV delakoa, hots, salmenta eskaintza publikoa). Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harpidetza orri bat kaleratu dute, etxean jaso nahi dutenek eskaria egin dezaten. Berria - Euskal Herria

Harpidetza txartelak betetzen. Ramon Saizarbitoria

Banaketa **harpidetza** bidez egiten da batez ere, baina hiriburuetako zenbait denda nagusitan ere saltzen da. Berria - Euskal Herria

Liburuak erosteko gehiago irakurtzekoak direnez, uko egin zitzaien **harpidetza** sistema hari. Hasier Etxeberria

Harpidetza formula berri bat du abiatzen gaurdanik. Heria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta harpidetza (5); **harpidetza bidez** (3); **urteko harpidetza** (3)

harrabots 1 iz zarata. ik herots; arrabots.

Munduko **harrabots** eta burrunba guzien gainetik. Heria

Eta bakartasuna duzu berriz lagun, baina bakardade berri batekin topo egiten duzu: bertze gisa batekoa da isiltasuna, bertze gisakoak **harrabotsak**. Filipe Bidart

Eta umeen algarei usatua dagoena karranka metalikoen **harrabotsari** moldatu beharko zaio, eromenak behin-betiko harrapa eta eraman ez dezan. Filipe Bidart

Gogoeta horietan ari naizelarik iduritzen zait **harrabots** batzuk hautemaiten ditudala urrunera. Filipe Bidart

Isiltasuna... bakarrik giltzen **harrabotsa** zaintzaleen eskuetan, burdin hesiak zabaltzean. Filipe Bidart

Partida zer izan den: zainen gainean jokatua, eta sobera **harrabots**, oihu eta musika, eta ez dutela beren hobereana erakutsi biek ere. Heria

Harrabots egin gabe indarrean sartu da laikotasunaren legea. Berria - Euskal Herria

Horien denen beharra badu pilotak, beste kirolek hainbeste **harrabots** egiten duten denboran. Heria

2 (izenondoekin)

Harrabots etengabe eta nahasia entzuten zen. Patxi Zubizarreta

Harrabots burrunbatsu bat aditu dut belarrietan, eta, hurrengo, ezertxo ere ez. Urruneko autoaren burrunba isilaren orde, urruneko urratsen **harrabots** idorrak. Mirentxu Larrañaga

Orain isiltasun pisua, orain **harrabots** asaldagarria. Filipe Bidart

Itsasoan ere bere harrotasunak, bere azal leuna inarosten duten **harrabots** ozenek ere hondoraino hunkitzen dute bakartasun barearen sentsazioa. Filipe Bidart

Harrabots sor bat entzun zen. Juan Garzia

Milaka oihu berezik osaturiko **harrabots** zorrotz batek iratzarri ninduean. Koldo Izagirre

Politika **harrabots** zantarra bilakatu da, mehatxu etengabea. Pako Aristi

Motorren **harrabots** urruna. Filipe Bidart

Han jadanik bada mundu bat, **harrabots** ederrean. Marzel Etxehandi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halako burrunba bat heltzen zait beharrira, **harrabots** nahasketa bat, kanpoko harrabots batzuk. Filipe Bidart

Beste **harrabots** mota frango, mementoan ezin bereziak, ezezagunak baina urrunak, biziki urrunak, denborarekin ezagutuko ditudanak. Filipe Bidart

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barneko hesia idekitzen du: kliska!, burdin **harrabotsa**. Filipe Bidart

Ate edo giltza edo urrats **harrabotsei** beha, beharriak xut, antena luzaturik, radarrak pizturik, erne. Filipe Bidart

Ate gibelean giltza **harrabotsak**, burdin hesi bat zabaltzen balitz bezala. Filipe Bidart

Eta gero eta hurbilago argi-pizgailu **harrabotsak**, tik, tik, tik. Filipe Bidart

Kamioi batzuen motorrak edo zirkulazioe **harrabotsak**, baina urrunak. Filipe Bidart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta harrabots (5); **giltza harrabotsak** (6); **harrabots bat** (3); **harrabots batzuk** (7); **harrabots eta** (3); **harrabotsa entzun** (3)

harrabotsu izond zaratatsua.

Haren akordua, ordea, garbia da, izen organikoa da, **harrabotsua** kalapitaria tematia. Lutxo Egia

harraize iz Aizkorritik datorren haizea.

Ederki ziotsaten Gabiria alden-eta: Aldaizea eta **harraizea**, aldagoia seguru! Pello Zabala

harralde iz harkaiztia.

Baina begirada, errepide aski ezagunarekiko errutinaz, zeruaren eta itsasoaren arteko kolore-apustu eta ñabardura gris-urdin amaigabeen tirabira lausoan biltzen zitzaidan orain, bide-ertzeko **harraldean** gero. Anjel Lertxundi

Harralde hartan oso harkaizt-zulo politikak daude lanpermetarako, sona handia du itsasalde osoan. Anjel Lertxundi

harraldi (orobat hartualdi) iz aipatzen dena hartzen denaldi bakoitza.

Kantaren zatiak une eta leku aniztetan grabatzen zituen [...], tresna bakoitza bere aldetik, **harraldiak** behin eta berriro errepikatuz soinu zehatza lortu arte. Berria - Kultura

Hasierako proiektoreek sarri eman ohi zuten lehenik irudi dardaratsu bat: efekto hori saihesteagatik jaso da, hain zuzen, proiektzio-lastertasuna (eta zinema **harraldien** lastertasuna ere bai, horrenbestez), lehenik segundoko 12 iruditik 16 iruditara, eta gero poliki-poliki 24 iruditara. Josu Zabaleta

Oraindik hamaika **hartualdi** filmatu behar dituzte Bergaran. Berria - Kultura

Ultra Deep Field (Eremu Ultra Sakona) argazkia segundo milioiren bateko **hartualdian** egin zuen Hubblek. Berria - Gaiak

Film hura -lvy agur-egilearen urruneko **hartualdiekin-** kameratik atera eta eguzkitan zabaltzeko, dena ezaba zedin. Joxe Austin Arrieta

· ik dosi.

Noiz hasten zara **hartualdi** bat behar duzula pentsatzen? Pako Aristi

harramantza *iz ipar* harrabots edo iskanbila handia.

Ahotsen **harramantzak** eta zakur mehakoilaren zaunka erlastuek buhameen hurbiltzea iragartzen zuten. Itxaro Borda

Jendeen solasen **harramantzak**, irri algarak eta autoen asotsak. Itxaro Borda

Itsas ainaren **harramantza** etengabea lagun. Itxaro Borda

Harramantza gaitza eginez. Elena Touyarou

Tea kikera eskuetarik erortzera utzi zuen, ostatuko zerbitzarien artean gaitzeko **harramantza** eraginez. Itxaro Borda

harramaskada *iz* harramazka.

Orratzaren lehenengo **harramaskaden** ondoren, Gariren ahotsaren oihartzuna denboraren tuneletik bezala atera da gure egongela txikira. Patxi Iturritegi

harramazka 1 *iz* larruazaleko urratu ez sakona. ik atzaparkada.

Goitik beherako hiru **harramazka** bekokian. Anton Garikano

Giza azazkalen **harramazkak** ageri zituen. Koro Navarro

Batek baino gehiagok probatuak zituen Marroren **harramazkak**, bai eta jaso ere aurpegian, bizi guztirako, deabruaren orbaina. Juan Kruz Igerabide

Mirandek kotoi bat patzarrez busti, eta aurpegiko **harramazkak** xukatu zituen. Javi Cillero

Ogiaren labana hartu eta **harramazkak** egiten hasi zen bere eskuaren gainaldean: odol-xirripak atera ziren. *ik beherago* 2. Fernando Rey

Katu-**harramazka** batek eragindako sukarra. Xabier Olarra

Zintzilik geratu nintzen, **harramazkez** josia. Koro Navarro

Lau ate kontaktatu zituen esku **harramazkez** beteez. Koro Navarro

Iodo-tintura urratu eta **harramazketarako**, metileno-urdina eztarikko minerako. Fernando Rey

Hutsalkeria hark **harramazka** bat utzi zidan barruan; zerbait eten zen Idoiaren eta bion artean. Juan Kruz Igerabide

2 harramazka egin

Begira geratu zitzaion eta **harramazka** egin zion ezker masailean. Javi Cillero

Harramazka egin zion bere azazkal beltzekin aurpegiaren alde batean. Juan Kruz Igerabide

Hego atzapardunek **harramazka** egiten zidaten. Koro Navarro

Eta bere bota haiek **harramazka** egiten zidaten burmuinetan. Fernando Rey

harramazkatu, harramazka(tu), harramazkatzen 1 du *ad* harramazka egin, atzaparkatu.

Katemeak, bada, eraso, jazarri, harrapatu eta sudurra **harramazkatu** zion: trauma gogorra utzia zion hark txakurrari betiko. Juan Garzia

Azazkalaz **harramazkatzen** den diskotxo dirdaitsu astuna. Juan Garzia

Paretak hortzekin **harramazkatuz** tunelak egiten jarraitzen du alu horrek. Harkaitz Cano

Neure ezpata-punta dut igurtziko eden horrez, eta, nik Hamleti axala **harramazkatzea** aski, heriotza duke bertan. Juan Garzia

Zeren asta-tipularen hostoek **harramazkatzen** baitizkioten lokia eta masaila. Anton Garikano

Orain, ordea, afixa **harramazkatua** dago. Monika Etxebarria

2 (era burutua izenondo gisa)

Itxaropenez urratutako hamaika esaldi txiki ikus daitezke bere horretan utziak izan diren paretetako igeltsu **harramazkatuan**. Harkaitz Cano

harrapaezin *izond* ezin harrapatuzkoa.

Alfabeto hau izaki **harrapaezina** da, Neptuno planetan bizi den elefante erraldoiaren leinu berekoa. Bernardo Atxaga

Nola konformatuko nintzen ni ere Saint-Saens eta Czernyk ezker eskuarentzat egindako ariketekin, galdutako besoa behialako doinu **harrapaezinetarantz** lerraturik banuen? Harkaitz Cano

Orduz geroztik hodeiertzak bilatzen ditut eta atsegin dut haien urruntasunetik ahalbidetzen duten zabaltasun **harrapaezina**. Berria - Kultura

harrapagailu *iz* animaliak harrapatzeko tresna.

Eta [saguen] **harrapagailuan** nahita sarturik zegoen gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

harrapagaitz *izond* ia ezin harrapatuzkoa.

Atzokoa bezalako izua **harrapagaitz** eta informalagoa da ordea. Berria - Harian

Alberto jario mantso eta eten batez mintzo zitzaidan, hitzak aurkitzea kostako balitzaio bezala, silaben bolumena bera **harrapagaitza** bihurtu. Iban Zaldúa

harrapaka (24 agerraldi, 12 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 116 agerraldi) 1 adlag arrapaladan.

Harrapaka irensten zuen bere gosaria. Fernando Rey

Handik bost minutura, bat-batean jaiki, kontua **harrapaka** pagatu, eta zalgurdi baten bila joan nintzen. Orienteko liburutegiak **harrapaka** dabilta nere bertsoen atzetik. Matías Múgica

Hori zela eta, **harrapaka** etxeratu nintzen, ibilbidea behin baino gehiagotan erratuz. Javi Cillero

Harrapaka eta presaka. Matías Mujika

2 harrapakari

Zekale artean **harrapakari** . **Berria - Kultura**

harrapakari *izond/iz* harrapaketan edo harrapakarian ibiltzen dena.

Gorpu gaxte gorri hura zintzilik gurutze batean ipini zuten, besteen eskarmenturako, hegazti **harrapakari**ek desegin zezaten. **Pello Zabala**

Ez kasurik egin, gazte: hobe hala -hots egin zuen Frau Streicherrek, esku **harrapakari** bat besagainean pausatzen zidala- gizarte kontsumitzale **harrapakari** honen baloreak aldatzeko asmoz dabilan gazte mugimendu bat. **Alberto Ladron Arana**

Harrapakari erraldioen dantza zabalari beha. **Itxaro Borda**

Dantzaleku arrunt batean bukatu nuen, **harrapakari** arrunten modura zebiltzan turista arruntez betea zegoena. **Jon Muñoz**

harrapakatu, harrapaka(tu), harrapakatzen du *ad* harrapatu, lapurtu; indarkeriaz eta harrapakari (hiri, etxe bat) bere ondasunez biluzi. ik **arpilatu**.

Logela **harrapakatu** egin dute, horma-armairuak irekita eta hutsik daude. **Oskar Arana**

Gu eraman ondoren kontserba guztiak **harrapakatu** zituztela. **Josu Zabaleta**

1813an, hiria setiatu, erre eta **harrapakatu** ondoren, San Sebastianen erlikia desagertu egin zen. **Askoren artean**

harrapakatze *iz* harrapatzea, lapurtzea; indarkeriaz eta harrapakari (hiri, etxe bat) bere ondasunez biluztea.

Suteak, **harrapakatzeak**, inbasioak, gerra zibilak eta beste ezbehar asko pairatu behar izan zituen hiri batean. **Askoren artean**

harrapakaria *iz* harrapatze gaitzesgarria edo doilorra; harrapakatzea.

Asko eta asko baitira berdindu beharreko ertzak: pobreziaeren ertza, justiziarik ezaren ertza, handi-mandien **harrapakaria** eta esplotazioaren ertza. **Joxerra Garzia**

Seguraski aberats familia guztien hasieran egon da antzeko **harrapakaria** . **Xabier Mendiguren Elizegi**

Benjamin Franklin ez zuen nahi arranoa estatu berriaren ikurrean egotea, berez «lapurreten eta **harrapakariaren** animalia» delako. **Berria - Mundua**

Dorothy ere zinemaren arrakasta lortzeko asmoz etorria zen Hollywoodera, baina **harrapakaria** ibili besterik ez zuen egin, behin eta berriz, gauza mordoxka lapurtu, erostetxe handi batean. **Fernando Rey**

harrapaketa (*ETCn 1.716 agerraldi*) **1** *iz* indarrez harrapatzea; harrapatzea.

Inbaditzaileek ankerkeria izugarriak egiten omen zituzten, **harrapaketak**, lapurretak, suteak, hilketak. **Karlos Zabala**

Alarikoren agindupean 410ean godoek burututako Erromaren setioa eta **harrapaketa** . **Imanol Unzurrunzaga**

Hartutako hirien **harrapaketa** eta suntsipena. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dio aipatzen etxean egin dioten **harrapaketa** . **Oskar Arana**

Osasun publikoaren gordailua gizabanakoen **harrapaketatik** babestu beharrenean gainean. **Juan Martin Elexpuru**

Gizakiaren **harrapaketa** -grina laburraren eta axolaez luzarokoaren xedea. **Xabier Olarra**

Aurreko gauean jasandako **harrapaketa** -saioaz zen bezainbatean, galdera bat eta bertze hainbertze aholku. **Aingeru Epaltza**

Isidorak ikusi du umea lore **harrapaketan** . **Pako Aristi**

2 (animaliena)

Txori **harrapaketari** ekiten genion zepoak bekorotzetan gordez. **Bernardo Atxaga**

Askotan -Pantxok aparteko trebezia zuen **harrapaketa** hartarako- eskuetan habiak zituztela itzultzen ziren guregana. **Bernardo Atxaga**

Afrikar lehoi **harrapaketan** ibil zitekeen tribu galdu bateko erraldoi horietako bat. **Aritz Gorrotxategi**

Balearen **harrapaketan** ere parte hartu izan nuela. **Edorta Jimenez**

Bruselak %9 murriztu ditu Bizkaiko Golkoko antxoa **harrapaketak** . **Berria - Ekonomia**

Itsas biologoek diotenaren arabera, egungo **harrapaketa** maila ezin da mantendu. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Harrapaketa itsasoan (arrain eta itsaskien arrantza) eta lehorrean (besteren gerezi, intxaur, nafar perretxiko, barraskilo, uso) praktikatzen dugu oraino. **Edorta Agirre**

3 irud

Harrapaketan ibiltzen diren dibortziatuekin saiatuz gero, beharbada zeozer lortuko zenukete. **Jon Arretxe**

4 atzitzea.

Segurtasun indar irakiarrek arma eta munizio **harrapaketa** handi bat egin zuten, joan den ostiralean. **Berria - Mundua**

Azken urteotan Iparraldean egiten den heroina **harrapaketarik** handiena izan da. **Berria - Euskal Herria**

5 (ibilgailu batek oinezkoa)

Autoaren edo motorraren edo kamioiaren deskontrola ikusgarria izaten zen, zirrarakoak: irauliokoak, itzuli-mitzuliak, oinezkoen **harrapaketak** . **Karlos Linazasoro**

6 *harrapaketan adlag* jolaskideak harrapatzean datzan jolasean arituz.

Neska-mutilak erdian, **harrapaketan** jolasten. **Felipe Juaristi**

Harrapaketan lasterka eta saltoka hasi dira beste batzuk plaza zabalean, inola ere gelditu ezinik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Edozein haurrek lasterka edo jauzika edo beste haurrekin **harrapaketan** dabilelarik. **Juan Kruz Igerabide**

Talde hura beste anitzetan ikusi nuen, futboleant, **harrapaketan**, soldaduetan eta beste hamaika jolas klasetan. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antxoa harrapaketak (9); **harrapaketa eta jipoian** (3)

harrapaketari *iz* harrapaketan ibiltzen dena. ik **harrapakari**.

Harrapaketari -talde bat izan da, sartu, lekua ondasunez hustu eta poltsa, kutxa eta maleta beteekin alde egin. **Oskar Arana**

harrapakin **1** *iz* harrapatzen den ondasuna.

Hiria suntsitu nuen, hiritarrak aitzoz hil nituen, emazteak eta **harrapakinak** gurekin eraman genituen, eta denon artean banatu. **Juan Kruz Igerabide**

Horrekin batera, **harrapakin** gaitza ere bai: "Berdan" markako 1.200 fusil, 400 granada, espartin mordo handi bat, burusiak dozenaka... **Txillardegi**

Bidaztiak, abereak eta zalgurdiak **harrapakin** ederra izango zirela lapur basati horietzat. **Karlos Zabala**

Inperioko armada -bere soldatetik eta ez **harrapakinetatik** bizi zena [...]-. **Iñaki Mendiguren**

Itxuraz babesgabea zen **harrapakinari** atzaparrak eransteko. **Iñaki Mendiguren**

Gerrako **harrapakinaren** banaketan. **Koldo Izagirre**

Kapitainak bere **harrapakina** lurperatu zuen tokian. **Juan Garzia**

Sartaldeko Indietan piratek berenganaturiko **harrapakin** eskergak. **Juan Garzia**

2 harrapatzen den animalia.

Otsoak [...] ez du bertan behera uzten **harrapakina**. **Joanes Urkixo**

Basakutua zelatan zegok oraindik, **harrapakinaren** azken ahamena jaten ari duk hartza. **Xabier Olarra**

Harrapakinaren gainera oldartzeko prest dagoen pitzia bezala. **Karlos Zabala**

Harrapakina bilatzen duen ehiztariarena eta ehiztariaren etsipena lortu nahi lukeen ehizkariarena. **Pako Aristi**

Zeren ez baita egia ehiztariak **harrapakina** eskuratzeko hiltzen duela. **Xabier Olarra**

3 irud

Guretzat **harrapakin** aproposenak bikoteak izaten ziren: neurri ertaineko txakurreme motxinberoak eta neska gazte ederrak osatutako bikoteak, hain zuzen. **Jon Arretxe**

Nire sadismo psikologikoa, eta batez ere **harrapakinak** hautatzeko dudak begi zorrotza. **Karlos Zabala**

Harrapakin bila, begirada erdizirkular batez begiepean hartu nuen antzeztoki guztia. **Aingeru Epaltza**

Ez dut trago bati ezetz errateko usadiorik, eta, gainera, ez nuen nahi **harrapakinak** ihes egin ziezadan. **Aingeru Epaltza**

Bistan zen andre hura gauzaez zela bizitzeko; batere indarririk eta helbururik gabe, ohitura txarren **harrapakin** erraza. **Irene Aldasoro**

Argia urratzen hasia zuan, astiro-astiro, eguzkia bere **harrapakinari**, munduari, neurria hartzen ari balitzaio bezala. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere harrapakina (11); **gudu harrapakin** (3); **gudu harrapakintzat** (3); **harrapakin bila** (5); **harrapakin gisa** (9); **harrapakin izan** (3); **harrapakin izango** (4); **harrapakin ugari** (11); **harrapakin ugari hartu** (3); **harrapakinak hartzera** (3); **harrapakinaren gainera** (4)

harrapakintza iz harrapaketa.

Berri-paperak baitzebiltzan gaztigu emanez herri eta etxaldee hien **harrapakintzez**. **Juan Garzia**

harrapaleku iz

Proposamenak berak lizun-kutsua zekarkeen: tokiak 40 urtez goitiko gizon-emakumeen **harrapalekuaren** omena zuen, fauna askotariko --dibortziatu, banandu, neskazahar, mutilzahar, etxe-aspertu-- baina xede bakarrekoaren etzanaldi azkarren abiaburu. **Aingeru Epaltza**

harrapari 1 izond harrapatzen duenetik bizi dena.

Pitzia **harrapari** baten errukirik eza. **Iñaki Mendiguren**

Otso **harrapari** taldeek sarraski handiak egiten zituzten. **Elizen arteko biblia**

Lehoi **harraparien** gisa orroka. **Askoren artean**

Hegazti **harraparien** hegaldiak miresteko. **Joan Mari Irigoien**

Inguruka ari zaizkit hegazti **harrapariak**, mokoak zorrotzurik, atzaparrak aterata, eta bihotza erauzi nahi didate. **Fernando Rey**

Gerlari krudel **harrapari** haiek. **Karlos Zabala**

Horren berekoia eta horren **harraparia** ote da, gero, jende gehiena? **Josu Zabaleta**

Beren erregeen injustizia eta harrapaketak ez zituzten ikaritzen, berak ere **harrapari** eta injustu zirelako haiek bezala. **Iñaki Iñurrieta**

2 hed

Lapur Handia da, bere sare **harrapari** zabala zaintzen. **Joseba Sarrionandia**

Topaketa ezatsegin eta begiratu **harrapari** guztietatik bere adeitasunak eta arrotzasun eskurakoak defendituko zutela. **Koro Navarro**

3 (izen gisa)

Bizkitartean, gure lur-saila abandonatu egin dugu, **harraparien** mende. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sydneyko arkeologo talde baten esanetan, duela 25 milioi urte Australian ere baziren **harrapari** handiak. **Berria - Gaiak**

Orain, garai batean baino **harrapari** gutxiago daude, eta karraskariak ugaritu egin dira. **Berria - Gaiak**

Belatza elikadura piramidearen gailurrean dagoen super- **harrapari** bat da. **Berria - Euskal Herria**

Erne behar dugula egon gure etxe eta lurrak beretu nahi dituzten mota guztiko **harraparien** aitzinean. **Herria**

Baina saguaren bihotza daukan hontzak bezala behatzen nion, eta ez **harrapari** goseti soilak legez. **Hasier Etxeberria**

4 (hitz elkartuetan)

Disekatzailak, ehiztariak [...] igandeko ibaldietan askatzen bide du bere **harrapari** sena. **Iñaki Iñurrieta**

· Ontzi barruan sagu- **harrapariren** bat eramatea, nahiz zela katu nahiz zela zakur. **Edorta Jimenez**

Enpresari eta talentu **harrapari** guztiak han izango dituk beharbada. **Josu Landa**

Giza **harrapari** ikaragarri batzuek sortu zuten [Estatua]. **Markos Zapiain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hegazti harrapari (6); **hegazti harrapariak** (6); **hegazti harraparien** (9); **otso harrapari** (4); **otso harrapari taldeek** (3)

harraparitza iz harrapariaren jarduna.

Kanpo-proletalgo inbaditzailearen gerra-taldeek askoz geldiago egingo zituzketen beren **harraparitzak**. Erromatar Inperioren azken aldiak, honek ez balizkie nahigabe eskaini izan lur gainean mugitzeko hain baliabide bikainak. **Iñaki Mendiguren**

Kapitalismoaren **harraparitzaren** irrazionaltasunak bere neurrigabeziak jabetzen zaila gertatzen zaigun hondamendira garamatza. **Iñaki Heras**

Agresibitatea, batetik (edo **harraparitza**, Hobbeseekin esateko) eta gizaki jainkotuei men egitea, bestetik. **Esteban Antxustegi**

harrapatu (ETCn 45.248 agerraldi), harrapa, harrapatzen 1 du ad lapurtu, ebatsi, bereziki bortxaz baliaturik.

Lau lagunek nagusi hilt, eta 500 dolar eta bitxi batzuk **harrapatu** zituzten. **Gotzon Garate**
Zurubi ahuletan gora jo zuen eta habietan errun berriak ziren lau arrautza **harrapatu** zituen. **Itxaro Borda**
"Fruta **harrapatzera** joango al gara?", proposatu du Potoloak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Behin, lagun batek euskaraz idatzitako orri bat **harrapatu** zidaan ustekabeen. **Joseba Sarrionandia**
Jakina, ez zidan **harrapatu** beste poemarik ariketa-koaderno batean; izan ere, etxean idazten nituen, eta ondo gorde. **Juan Kruz Igerabide**
Maindire bat **harrapatu** zuen estaltzeko eta patio lohitsura joan zen korrika, bestelako arroparik gabe. **Koro Navarro**
Botila **harrapatu** nuen mahaixoaren gainetik, eta gelditzen zitzaion whisky hondarra nire basora isuri. **Aingeru Epaltza**
Nonbait **harrapatu** (ez bide zuen ebatsi?) konpaktu-irakurgailuan. **Itxaro Borda**
- Nitaz jabetu nahi baduzu, **harrapatu** egin beharko nauzu... -esan zion. **Patxi Zubizarreta**

2 atzeman, atzitu. (bizidunak biziduna)

-Harrapatu gaituzte, gureak egin du! -esan zuen lapurren buruzagiak. **Patxi Zubizarreta**
Alemanek **harrapatu**, frankistei eskura eman, horiek lehenik Madrilera eroan eta gero Bartzelonara, han epaitzeko. **Edorta Jimenez**
Guardia zibilek, euskaldunak **harrapatu** ahala kuartelera eramaten zituzten. **Joseba Sarrionandia**
-Harrapa itzazue Baalen profetak. **Elizen arteko biblia**
Enrico Poitschkerena izan zen ihesaldi luzeena, baina azken mendatean **harrapatu** eta gainditu zuten Sinkewitzek eta Mancebok. **Berria - Kirola**
Guztiak **harrapatu** zituen Ullrichек, eta azken bi horiek saiatu ziren alemaniarrari jarraitzen. **Berria - Kirola**
Zezenak **harrapatuko** zaitu! **Askoren artean**
Gizotso baten eskuek **harrapaturiko** txorimaloa banintz bezala sentitu nintzen. **Juan Kruz Igerabide**
Ekintzaren errudunak **harrapatu** nahirik. **Edorta Jimenez**
Baina ez urrundu, bestela Lapur Handiak **harrapatuko** zaitu. **Joseba Sarrionandia**
Basora joaten nintzen Lubisekin, edo errekan amuarrainak **harrapatzera** Pantxorekin. **Bernardo Atxaga**
Umetan eskuz **harrapatzen** genituen amuarrainak. **Pako Aristi**
Gehienetan, lau eta sei kilo arteko izokinak dira **harrapatzen**. **Herria**
-Trikuia, neuk **harrapatua**. **Koldo Izagirre**
Agureak bere edalontzi hustuari batbatean buelta eman eta euli bat **harrapatu** zuen barruan. **Joseba Sarrionandia**
Tamil Nadu probintzian, bada tribu bat, "irulak" deritzana, aspaldidanik kobra **harrapatzetik** bizi dena. **Gotzon Garate**
Armiarmak **harrapaturiko** intsektu bat bezala. **Juan Garzia**
Sagu asko dago hemen inguruan, ea, joan eta **harrapatu**. **Iñaki Mendiguren**
Katu guztiek **harrapatzen** dituzte arratoiak, Ron! **Iñaki Mendiguren**
Nik aberats memelo bat **harrapatuko** dut egunen baten bere bizkarretik bizi izateko. **Jon Arretxe**
- Hiru traineruk **harrapatu** zeroi handia. **Koldo Izagirre**
Gogoan izan bestela 1936ko udagoiengan haiek gure lau ontzi **harrapatu** zituztela, eta berrogeita hamabi gizon eroan zituztela. **Edorta Jimenez**

3 (bizidunak zerbait)

Maitagarri hura arratoi bihurtu zen, eta jira-biraka hasi zen bere isatsa **harrapatu** nahian. **Iñaki Mendiguren**
Irakiarren mezuak **harrapatu** eta deskodetzeko. **Juan Kruz Igerabide**
Ez dute harresirik eta urik behar presoei han eusteko, beren buru barruan **harrapatuta** baitaude, gogoeta alai bakar bat ere izateko gaitasunik gabe. **Iñaki Mendiguren**
Idazle naturalistak egintzak **harrapatu** behar zituen naturalista batek intsektuak harrapatzen zituen modu berean. **Karlos Zabala**
Hitzari beti **harrapatuko** diot hari-mutturren bat. **Andoni Egaña**
"Harrapa ezak hau!" osaba Juanek airera jaurti zuen poltsikoan zeukan azukre-kokkorra. **Bernardo Atxaga**
Delhin, adibidez, milioi erdi bat lagun dago lanik gabe, lanen bat non **harrapatuko**. **Gotzon Garate**
Ai, oraingo garai hauek **harrapatu** bagenitu sasoi harekin! **Pako Aristi**
Karga guztia **harrapatu** zioten orduan, kilo erdi pasa. **Aingeru Epaltza**

4 (zerbaitek bizidun bat)

Galernak **harrapatu** duen gazte zoro bat baino ez da. **Koldo Izagirre**
Txirrindulari bat hil da Obanosen auto batek **harrapatuta**. **Berria - Euskal Herria**
Trenak gizon bat **harrapatu** du Ordiziako geltokian. **Berria - Euskal Herria**
Baina aitona ez zen mugitu eta tankeak **harrapatu** egin zuen. **Fernando Rey**
Gurpilik **harrapatuta**, hantxe zegoen ahoz gora. **Askoren artean**
Gizon bat, saltzailea bera, bere dendaren barruan suak **harrapatua**, suz inguratua oihuka. **Felipe Juaristi**
Alemaniar inbasioak Belgikan **harrapatu** du Lehendakaria. **Edorta Jimenez**
Gerrako lehenengo tiroek Madrilén **harrapatu** zuten, etxekoak uda emateko prest hantxe Mundakan zituelarik. **Edorta Jimenez**
Eskaileretan beheiti abiatzeko prest nengoela **harrapatu** ninduen semearen deiak. **Aingeru Epaltza**
Ez duzu etxera biderik aurkituko, eta gau luzeak **harrapatuko** zaitu. **Joseba Sarrionandia**
Ahuntz baten eta ardi baten artean **harrapatu** zuen egunak lotan. **Josu Zabaleta**
Geu gara, postura egokia aurkitu ezinda, loak noiz **harrapatuko** egoten garenak. **Arantxa Iturbe**
Geldotasunaren aztaparretan **harrapatua** zen, lotsaren lotsaz. **Itxaro Borda**
"Bihoa Araraten madarikazioa pasharen eta beyen gainera!" esan zuen menditarrek amorrazioak **harrapatu**rik. **Fernando Rey**
Zorigaitzak **harrapatuko** zintuela pentsatze hutsak nekea eragiten zion. **Hasier Etxeberria**
Heriotzak bertan **harrapatuz** gero bidaia hori egin beharrik ez izateko. **Edorta Jimenez**
Jakina da behar bezalako emakume gaixoa garbimin eta zikin-beldur paranoiko batek **harrapatua** bizi dela. **Iñaki Segurola**
Lehen goan dirau gizonak: bizitzaren eta heriotzaren misterioak **harrapatuta**. **Bernardo Atxaga**
Moral oso aparte ez ote dabilen: goganbehar horrexek **harrapatu** nau. **Iñaki Segurola**
Asmoa behintzat hori zen: mamuak **harrapatzeko** sare on bat egitea. **Bernardo Atxaga**

5 (zerbaitek beste zerbait)

S@reak jakite huts zertangabea ikaragarri erraztu du eta azkartu; bestea, benetako jakitea, ezin **harrapa** dezake inongo sarek. **Iñaki Segurola**
Bertsolariaren senak **harrapa** lezake ondoen mundua darabilen logika ezkutu hori. **Iñaki Iñurrieta**
Izutu egiten zela ehun kilometrotik gorako abiadura **harrapatzeko** gai zen burnizko tramankulu erraldoiarekin. **Bernardo Atxaga**
Ongi graduaturik baldin badago, puntu gorri hori da balak joko duen leku zehatza; 500 metroko luzera **harrapatzen** du; 425.000 pta. **Pako Aristi**

6 (gaitzak-edo norbait)

Ene seme gaixoa, nafarrieriak **harrapatu** ez du ba! **Patxi Zubizarreta**
Gainerako neskame-morroiek berriz ez dute gaitzik, ni, ordea, beldur naiz ez ote nauen berriro **harrapatuko**. Birusak **harrapatu** ez duenari gutxiena uste duenean birusak **harrapa** dezakeela jakinarazi behar zaio. **Josu Zabaleta**
Txorabioak **harrapatu** ninduen. **Txillardegi**

Sukarrak **harrapatuta** itzuli behar izan zenuten etxera. **Hasier Etxeberria**

7 (norbaitek gaitz edo kideko bat)

Nire semea zainduz **harrapatu** nuen gaixotasun beldurgarri hau. Sifilia ere **harrapatu** zuen. **Josu Zabaleta**
Katarroa **harrapatu** duzu? **Karlos Zabala**
Gripea **harrapatzeko** arrisku gutxiago, hartara. **Harkaitz Cano**
Ahultasunak jota **harrapatu** nuen pneumonia. **Berria - Euskal Herria**
Biriketako gaitza erraz **harrapatzen** dute. **Gotzon Garate**
Orduan **harrapatu** omen zuen petxuko hau, eta ez [...] zurrutean galduta dabilelako. **Koldo Izagirre**
Alimaleko kasketa **harrapatu** zuela, zera. **Aingeru Epaltza**
Mozkorra **harrapatu** genuen gauean. **Patxi Zubizarreta**
Sekulako katua **harrapatu** genuen eta dantzan hasi ginen. **Koro Navarro**
Gero **harrapazak** atxur eder bat, inoizko itzelena! **Unai Iturriaga**
Gaitzekoa **harrapatu** diat gaurkoan. **Itxaro Borda**

8 (modua adieraziz)

Halako batean, gizona niri begira **harrapatu** nuen. **Aingeru Epaltza**
Supermerkatuan alkohol ebastez **harrapatua** izan zela behin. **Itxaro Borda**
Zentraleko zaindariak bere mugurdiak lapurtzen **harrapatu** baitzitu mutiko biak. **Iban Zaldua**
Lapurretan **harrapatutako** preso baten aurpegia hain zuzen. **Karlos Zabala**
Gezurretan **harrapatu** nindutelakoan. **Arantxa Iturbe**
Balarik gabe, bizirik **harrapatu** zuten, eta ez zuten bertan hil. **Juan Kruz Igerabide**
Baina ez ninduen lotan **harrapatu**. **Arantxa Iturbe**
Ohean larrutan **harrapatu** zituen egunean. **Itxaro Borda**
Kazetari martin-saltsero bat, koilara zopatan **harrapatua**. **Aingeru Epaltza**
Begiak hertsitu nituen, ahalketurik, barrabaskerian **harrapaturiko** haurrak bezala. **Aingeru Epaltza**
Frantxuak kanapean etzanik **harrapatu** zuen ama. **Itxaro Borda**
Burdinazko barra eskuetan zuela **harrapatu** dut, zuri bigarren kolpea emateko prest. **Aingeru Epaltza**
Gorputza indar guztiarekin jiratuz irauli nuen eta azpian ahuspez **harrapatu** nuen. **Joseba Sarrionandia**
Ustekabeaz **harrapatu** du semearen galderak. **Iban Zaldua**
Egungo argitasunak ezustean **harrapatu** zuen Xerazade eta honek hitz egiteari utzi zion. **Monika Etxebarria**
Inoiz infernura bidaiatzen banaiz, ez naiteke ezustean **harrapatuko**. **Aingeru Epaltza**

9 (bestelakoak)

Komisarioak Florent horrekin **harrapatu** du ohean. **Karlos Zabala**
Seme faltsu horrek, frantses horrek, bere sareetan **harrapatua** dauka. **Matías Múgica**
Badakik, saltsan **harrapatzen** bahaute ere. **Alberto Ladron Arana**
Baina eguzki samin haren eta errepide honen artean **harrapatua** naiz, gero ta berotuago. **Piarres Aintziart**
Zerbaitek zeharkatu du diskotekako giro ketsua eta Patxi aurpegian bete-betean **harrapatu**. **Patxi Zubizarreta**
Ramo-k **harrapatua** ninduen. **Juan Kruz Igerabide**
Autorik gabe, **harrapatuta** sentitzen du bere burua etxaldean. **Oskar Arana**
Harrapatua neukan, ondo **harrapatua**. **Koro Navarro**
Ni beti "**harrapatuta**" egoten nintzen; irribarre egiten zuen berak, zerk "**harrapatzen**" ninduen imajinatuz. **Juan Kruz Igerabide**
Itzul hadi, arren, heure senera: **harrapatuegia** hago sarean. **Anjel Lertxundi**
Handiki batek faisai bat, **harrapatu** berria, eman zion bizirik. **Askoren artean**
Lotsatua zen, zepo batean **harrapatu** erbia iduri. Zer zen ikustera joan nintzen; katu bat zen, lakioan **harrapatua**, itotzen, arnasestuka, hiltzen. **Elena Touyrou**
Sagutegian sagu bat **harrapatuta** zegoela ikusirik. **Josu Zabaleta**
Gauza Galduen Herrialdean **harrapatuta** zaude. **Joseba Sarrionandia**
Eltxo **harrapatzen** ibiltzen dira. **Gotzon Garate**
Sugeak helduz gero, gehienetan hil egiten dira harrapatzaileak, pozoia oso azkarra delako eta suge **harrapatzen** erietxeetatik urruntxo ibiltzen direlako irulak. **Gotzon Garate**
Suge **harrapatzeko** irulen antzeko moldeak erabiltzen dituzte. **Gotzon Garate**
Atzeratua, hitz itsusi hau zentzu honetan dateke soilik ulergarri: gure ergeltasun maila **harrapatzeko** lasterketan atzeratua. **Harkaitz Cano**

10 (era burutua izenondo gisa)

Mutiko **harrapatuak** oso urduri zeuden, zigarroak amatatzeko ere astirik izan gabe. **Joseba Sarrionandia**
'Esan daiteke arrain **harrapatuaren** patua txarra edo zorigaitzokoa dela? **Joseba Sarrionandia**

11 azpian harrapatu

Bat-batean barruan zeuden guztien gainera erori zen etxea, eta [...] gizon errukarri hura bakarrik hil zen, azpian **harrapatuta**. Berri horrek Lecœur andrea zanpatu zuela zirudien, urre guzti hark azpian **harrapatu** izan balu bezala. **Karlos Zabala**
Erljio edo sekta eldarniatu batek **harrapatu** dituela azpian gure lagun hurkoetarik asko eta asko. **Iñaki Seguro**
Besoz beso iristen ziren hara, kaleak gurdien artean zeharkatuz, barrez, azpian **harrapatuak** izateko beldurrik gabe. **Karlos Zabala**
Hitzez dezaketena, hitzen zorrotza, kamusten baita ideien zapalak, erratasun eta segurantzia arinak azpian **harrapatzen** dituelarik. **Iñaki Seguro**
Orduan logika garbiak **harrapatzen** gaitu azpian, eta logika garbiaren arabera, zuria ez dena beltza da. **Iñaki Seguro**

12 dabilen bideak harrapatu (norbait)

Haren heriotza ezbeharra da, baina bestearena halaxebeharra jende on-onen begietan (zebilen bideak **harrapatu**!), eta jende on-onak lurrazpian ikusten zuen hura bi oinen gainean zebilenean ere. **Iñaki Seguro**

13 ezin harrapatuzko

Hitzez ezin **harrapatuzko** munduaren aurrean ixiltzea da gauza nobleena. **Iñaki Seguro**
Desegiten eta urtzen ari den **ezin harrapatuzko** [bizi] hau bezala. **Iñaki Seguro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

atetik harrapatu (10); azpian harrapatu (14); ezustean harrapatu (139); ezustean harrapatuko (12); mozkorra harrapatu (8); ustekabeaz harrapatu (147); ustekabeaz harrapatuko (9)

auto batek harrapatuta (38); azpian harrapatuta (28); barruan harrapatuta (21); erdian harrapaturik (8); harrapatuta gelditu (19); harrapatuta geratu (43); harrapatuta hil (17); kamiol batek harrapatuta (17); trenak harrapatuta (10); ustekabeaz harrapaturik (9); ustekabeaz harrapatuta (8)

ezustean harrapatzeko (9); ezustean harrapatzen (20); harrapatzeko sarea (8); ustekabeaz harrapatzeko (8); ustekabeaz harrapatzen (17)

harrapatzaile 1 *iz* harrapatzen duen pertsona.

Ikusi du **harrapatzailea** zitzu bizian, heriotza dakarkiola. **Javi Cillero**
Kobrak ziztatu eta lau bat ordura, **harrapatzailearenak** egin du. **Gotzon Garate**
Senar ausenteen emazteen **harrapatzaileak..** **Joseba Sarrionandia**
Erasotzerakoan tentelkeriatan ibiltzen ez zen **harrapatzaile** errukigabea. **Jon Arretxe**
Etxerako premiazkoak ziren gauza materialen **harrapatzaile** suharra. **Itxaro Borda**

2 (hitz elkartuetan)

Kalterik egiten ez duen emakumea da egunez, samurai **harrapatzaile** bilakatzen da gauzez, itsu makilarik ezpata ateratzen duenean. **Berria - Kultura**
Koxkortu eta suge- **harrapatzaile** bikaina bihurtu ere bai. **Gotzon Garate**
Artxanberri azeri- **harrapatzaile** sonatua izan zen bere denboran. **Iñaki Segurola**
-Auto- **harrapatzailea** nauzu. **Aingeru Epaltza**
Guru sos- **harrapatzailearen** baten eskutik aztikerian sartuen zebilen garaietan. **Aingeru Epaltza**

•3 *izond* harrapatzen duena.

Industria Iraultzako burgesiaren ezaugarri **harrapatzaileari** buruz nahikoa hitz egin da. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
auto harrapatzailea (4)

harrapatze *iz* atzitzea; lapurtzea.

Erran behar da bazela denendeko, kantu, antzerki, pilota, soinu, behi eta zezen **harrapatze**, zikiro... **Herria**
Beren **harrapatze** -helburuetarako. **Iñaki Mendiguren**

harrapazka (*16 agerraldi, 9 liburutan; ETCn 46 agerraldi*) 1 *adlag* harrapaka, arrapaladan. ik **harrapaka**.

Harrapazka aberasten ari diren HBko abokatu sozialista horiek. **Patziku Perurena**
Hurrak ondu ahalean, putzura jaulkitzen dira, bertako izokinak **harrapazka** jaten dituztela. **Patziku Perurena**
Gero jantzi eta mezzorodo izugarri hotz horretatik katilukada ederrak irensten zituen **harrapazka**. **Fernando Rey**
Harrapazka kendu zion Hennek arraina eskuetatik, garrasi bizian. **Koro Navarro**
Egun kritikiko horietako batean, goseari gehiago ezin eutsi, eta kilo eta erdi sagar jan irentsi nuen, **harrapazka**, erretzaile konpultsibo batek abstinentziari utzi, eta zigarroei ekingo liekeen modu bertsuan. **Patxi Zubizarreta**

2 *harrapazkako izlag*

Joana da bizitzaren oinarrizko esanahiari buruzko bilaketa **harrapazkako**. **Xabier Olarra**

harrarazi, harraraz, harrarazten 1 *dio ad* hartzera behartu

Anaietako inork, [...] ez beza sosik edo dirurik jaso, ez hartu eta ez **harrarazi**, ez jantzitarako, ez liburutarako, ez eta inolako lanen saritzat ere. Joek baso bat ardo **harrarazi** zion Mariari. **Askoren artean**
Hara, Mary Grimes, hartzen ez badut, **harrarazi** iezadazu, behar dudala konturatzen naiz eta. **Irene Aldasoro**
Ezti-nahastura hartatik gaixoari eskainiz eta **harraraziz**, ontzi osoa hustu zuen. **Askoren artean**
Harrarazten zion edari bera ematen omen zitzaien garañoei hanka puskatzen dutenean. **Anton Garikano**
Aitak aurpegia hain zuri ikusten zionean, anemia zuela esan eta burdina **harrarazten** zion. **Fernando Rey**
Posible dela herdoilaren hirira Eliot ekartzea, Artxandako autobusa **harraraztea**. **Iñaki Iñurrieta**
Etsi bat hartua du, **harrarazia** diot hobeki erraiteko, erranik bosgarrenean nagoela, eskaleretarik ibili behar eta ez zutela zangoek atxikiko. **Janbattiit Dirassar**
Alabainan, gero eta buraso gehiagok euskararen hautua egiten dute beren haurreri eskolako bidea **harraraztean**. **Herria**
Kanpoko errealtatearen oldarrak gainezka egiten zizun aste haietan, zerbait pentsarazten, jarrera bat **harrarazten**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Agintzari hori izan zen erabakia **harrarazi** ziona. **Oskar Arana**
Eta amagana itzulirik, **harrarazi** nion alaba aldi baterako urruntzeko, landara eramateko deliberoa... **Jon Muñoz**
Heriotzak azken erretreta **harrarazten** dion arte. **Jon Alonso**

2 (aditz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dalilik bere belaunetan lo **harrarazi** zion Sansoni, eta gizon bati dei egin zion. **Jose Antonio Mujika**
Gurdiaren balantzak lo **harrarazi** egin zion haurrari. **Anton Garikano**
Beraiei parte **harraraziz** hildakoen oroimenez plazer hutsagatik burutzen zituen erritu horietan. **Anton Garikano**
Horietan, gramatika, gauzaki konplexu eta sistematikoa da, batera existitzen diren balioei jokoan esku **harrarazten** diena. **Isabel Arrigain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
lo harrarazi (4)

harrarte 1 *iz* haitzartea.

Tokian tokiko gisa, zuhaitzak ere halako gunean bihurtuak **harrartean** erroen ahurra loturik... **Herria**

2

Mazeletan eta selaixetan beren **harrarte** karetsu txuriak erakusten zituzten baserri zabal aberatsek. **Txillardegi**

harraska (*ETCn 837 agerraldi*) 1 *iz* sukaldean baxera garbitzeko erabiltzen den aska modukoa, harrizkoa nahiz beste gai batezkoa. ik **harri 6; harriko 2**.

Harraskako iturria ireki eta uraren pean utzi zuen lata. **Harkaitz Cano**
Harraskako ur hotzetan hatz punta erreak jarrita. **Harkaitz Cano**
Eskuak **harraskan** garbitu eta sukaldetik atera zen. **Harkaitz Cano**
Harraska metalikoa argitzen du sugar bat-bateko batek. **Harkaitz Cano**

Desesperagarria zen segundoz zengindoko jario hori **harraskako** metalaren kontra entzutea. **Harkaitz Cano**

Harraska harrizkoa du. **Urtzi Urrutikoetxea**

Joan den egunean erretako makarroiaren ontzia beltz-beltz dago oraindik **harraskan** norik garbituko zain. **Iñaki Iñurrieta**

Ontzi zikinak **harraskan** metatzen ziren. **Eskarne Mujika**

Ontziak **harraskan** bildu eta harrizkoa egiteari ekin zion berehala. **Unai Iturriaga**

Sukaldeko arasa batean, **harraskaren** azpian. **Javi Cillero**

Harraskapeko kortinatxoa zabaldu eta metalur botila hartu du. **Koldo Izagirre**

Garbiketarako tresnak ateratzen hasi zen **harraskapeko** armairutik. **Ramon Saizarbitoria**

Harraskapetik zabor-poltsa atera eta zoruan uzten du. **Anjel Lertxundi**

Zutitu eta **harraska** azpiko zakarretara bota zituen denak. **Koro Navarro**

Arnasa hartzean **harraskako** isurbidearen antzeko hotsa ateratzen baitzuen. **Ramon Saizarbitoria**

Harraska txiki bateko zuloan behera isuri zituen edari-hondarrak. **Josu Landa**

Astean hiru aldiz mozten zuen bizarra, sukaldeko **harraskan**. **Joseba Urteaga**

Ettxera itzuli eta ama sukaldeko **harraskan** aurkitu nuen arrain bat garbitzen. **Bernardo Atxaga**

Komuneko gelara joan naiz, txoko-txokoan dudak **harraska** txikian freskagarri bat prestatzera. **Javi Cillero**

Zirgari eta marinelen begiradak Norarengana zuzendu ziren, tutuko ura **harraska** -zulora biltzen den moduan. **Anjel Lertxundi**

2 arropa jotzeko eta garbitzeko erabiltzen den aska mudokoa.

Lixiba jotzeko **harraska**. **Joseba Urteaga**

3 harraskakoa mug harrizkoa.

Hortaz, pisuko elkarbizitzaren antolakuntza arazoez gainera -garbiketa, otorduak, **harraskakoak...-**, diru eskasia gero eta gorriagoa zen. **Iñaki Iñurrieta**

Harraskakoa egitera deliberatu da Gabin. **Iñaki Iñurrieta**

"Besteei ere utzi beharko zieagu zerbait", pentsatu, eta bertan behera utzi du **harraskakoa**. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harraska azpiko (3); **harraska gaineko** (3); **harraska ondoko** (3); **harraskan utzi** (6); **harraskan zeuden** (3); **harraskara eraman** (4); **sukaldeko harraskan** (7)

harraskailu iz harraskatzeko gailua.

Andrea espantuka hasi da, [...] **harraskailua** ahotik ateratzen ahalegindu da Van Daan andrea zalaparta batean hasi da besoei eraginez, ostikoka, halako batean Dusselek

harraskailuari jaregin dion arte... **Josu Zabaleta**

harraskari

1 zeru-harraskari etxe-orratza.

Beiraz eta altzairuzko eraikin zeru-**harraskariak**, abiadura handiko trenak. **Karlos Zabala**

Lakua 7rako zinta garraiatzailea hartu, eta ordu erdi geroago EJren zeru-**harraskarira** iritsi nintzen. **Iban Zaldúa**

Aurrez aurre ikusi nuen, era berean, Banco de Vizcayaren eraikin izugarria, **zeru harraskari**, kristal gorrixkak leihotzarretan, luxuzko distiraz harro eta dotore. **Rafa Egiguren**

harraskatu, harraska, harraskatzen du ad Hatz egin; igurtzi, karrakatu.

Behin eta berriz **harraskatu** beharra dago harri honen gainean. **Joan Mari Lekuona**

Ondoren, behatzak eraztunez hornituriko eskuek biltzen dituzte, oihala azkazalekin **harraskatuz**. **Monika Etxebarria**

Arnasak **harraskatu** egiten zion eztarrian. **Lopez de Arana**

Indar bat egiten du eta begiak **harraskatzen**, ongi iratzartzeko gisan. **Eneko Bidegain**

harrastaka ik arrastaka.

harreman (ETCn 111.778 agerraldi; orobat hartueman ETCn 178 agerraldi) 1 iz nolabaiteko elkartrukeren edo elkar eragiteren bat gertatzen den lotura, bereziki pertsonen edo pertsona multzoen artekoa. ik **erlazio**.

Hori izango du lehen **harremana** herri txiki harekin. **Pako Aristi**

Atxilotu horiek **harremana** izan duten pertsona guztiak atxilotuko dituzte. **Pako Aristi**

Haien **harremana**, esan zuen, "berezia eta jende arruntarentzat ulertezina" baitzen. **Ramon Saizarbitoria**

Frantziaren eta Espainiaren arteko **harremanak** gero eta sendagoak dira. **Herria**

Idatzizko **harreman** horrezaz gain. **Joan Mari Irigoien**

Gure arteko **harremana** oso xaloa zen artean, ez ginen-eta ausartzen elkarri eskua emanda ibiltzera baino. **Juan Kruz Igerabide**

Euskarazko **harremana** eduki nahi badu. **Berria - Harian**

Harekin elkarrizketan eta uste osoko **harremanetan** hasi zenean. **Askoren artean**

Nik ezin ulertu zergatik tematzen zen Ivy, bestelako bere iritzietan-eta emakume modernoa izanik, gure **harreman** hura ezkontza bihurtzen. **Joxe Austin Arrieta**

Bretoin hoiak badituzte **harremanak** gure eskualdearekin. **Herria**

Nagusiarekiko **harremana**. **Iñaki Mendiguren**

Geroztik baionesezikiko **harremana** guztiz gaiztotu zen, hilketak-eta ugalduz. **Martin Anso**

Sergio eta Sararen arteko **harreman** zartatuen arraildurak. **Joan Mari Irigoien**

Harreman eta partaidetzazko gobernu baten esparruan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Harremana: Gilles Bojan 05 59 46 64 64. **Herria**

Harremana: 05 59 93 31 14 telefono zenbakian. **Herria**

2 (izenondoekin)

Oso **harreman** onak ditugula gure gurasoekin. **Josu Zabaleta**

Harreman librean gain eraikitako ordena soziala ezarri zuen mugimendu komunak. **Askoren artean**

Harreman arriskutsuak. **Jon Muñoz**

Valmont jaunarekiko **harreman** estu batek. [Jon Muñoz](#)
Pertsonen arteko **harreman** korapilatsuak lantzen dituzten nobelak. [Xabier Olarra](#)
Elkarren artekoa ez baitzen azaleko **harreman** hasi berria baino izan. [Hasier Etxeberria](#)
Anai-arrebekin ez dut inoiz oso **harreman** minik izan. [Mikel Hernandez Abaitua](#)
Gutun bidezko **harreman** ageriko bat hastea harekin. [Jon Muñoz](#)
Lege zibilek arautzen dituzte **harreman** naturalak eta konbentzionalak, aginduzkoak nahiz borondatezkoak, nahitaezkoak zein komenientziazkoak, norbanako guztiak beste norbanako batekin edo batzuekin lotzen dituztenak. [Andres Urrutia](#)
Eta ezagut al daitezke kategoria horiek, **harreman** sozial, ekonomiko eta kulturaletik kanpo? [Askoren artean](#)
Harreman sexual partekatuen beharra sortzen da. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (aditzaren objektu gisa)

Gure **harremana** hozten hasi zuan. [Xabier Olarra](#)
Gure **harremana** hondatu izanaren errua nirea da batez ere. [Ramon Saizarbitoria](#)
Gure **harremana** estutzeko aukera hura galtzen uzteak pena eman zidan arren. [Ramon Saizarbitoria](#)
Giza eskubideen eta ingurumenarekin lotutako arazoaren arteko zuzeneko **harremana** finkatzen. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)
Cesar Telleriak **harreman** berezia zuen zapatekin. [Harkaitz Cano](#)
Ikusleak obrarekin duen **harremana**. [Josu Zabaleta](#)
Gizakiak gauzekin duen **harremana** iraultzen du [irudiak]. [Josu Zabaleta](#)
Hego eta Iparraren arteko **harremanak** behar direla emendatu eta azkartu. [Herria](#)
Harremana etetera erabaki zuten: lotura oro, esan zuen Duffy jaunak, atsekabezko lotura da. [Irene Aldasoro](#)
Japoniak politika isolazionista bultzatu zuela, europar merkatariekiko **harreman** guztiak eten zituena. [Koro Navarro](#)

3 lotura.

Kosmosean ordena bat dago, harmonia bat, dena baitator **harreman** matematikoez lotua. [Askoren artean](#)
Filial bakoitza berezko mozkingune da, eta **harreman** bertikalak ditu enpresa amarekin. [Koro Navarro](#)
Herrialde garatuen eta garapen-bidekoen artean **harreman** orekatuagoak bultzatzeko xedeaz. [Koro Navarro](#)
Harremana aldebakarra da, zeren, hizkuntzen estudioak hotsen fisiologiari argibideak eskatzen badizkio ere, gero horrek ez baitzizkio ematen. [Isabel Arrigain](#)
Zein **harreman** dago, baldin eta badago, yogaren eta drogen artean? [Juan Kruz Igerabide](#)
Harreman zuzena dago auzo batekoa izatearen, azalaren kolorearen eta pobrezia ekonomikoaren artean. [Bernardo Atxaga](#)
Hori dela eta, merkatuaren eta estatuen arteko **harreman** berriak sortu dira. [Iñaki Heras](#)
Integrazioaren eta baztertzearen arteko **harreman** nahasiak. [Koro Navarro](#)
Estatu pobreen eta enpresa multinazional erraldoien arteko **harreman** zaila. [Koro Navarro](#)
Testu hauek guztiak, zuzenean edo zeharka, **harreman** estuak dituzte elkarrekin. [Askoren artean](#)
-Harreman estua du geomantzia eta erradiestesiarekin -erantzun zidan. [Alberto Ladrón Arana](#)
Beti dago **harremana** bizitzaren eta obraren artean. [Bernardo Atxaga](#)
Memento ona zela, [...], beste itxura baten emaitako, elizaren eta estatuen ohiko **harreman** hertsiegiei. [Piarres Xarriton](#)
Zientziak eta teknologiak gizartearekin duten **harremana** aztertze metodologia. [Askoren artean](#)
Gure nortasuna eraikitzen duten norberaren eta ingurumenaren **harreman** horietan, hizkuntza dela tartekari nagusia. [Piarres Xarriton](#)
Edertasunaren eta Egiaren **harreman** misteriozkoak; Edertasuna, Egia baten seinale edo ikur ote? [Piarres Aintziart](#)
Gizakia ez da bakarrik bizitzeko sortua, amasa bezain beharrezkoa du bere kideen berotasuna, soa, **harremana**. [Filipe Bidart](#)
Subjektuaren eta objektuaren **harremanei** buruzko kontsiderazioek. [Askoren artean](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Gizona **harreman** korapilo bat baizik ez da. [Josu Zabaleta](#)
Gutun bidezko **harreman** mota berri horrekin. [Jon Muñoz](#)
Euskal Herrian dagoen asoziazionismo-mailak **harreman** -sare trinkoa osatu du gizartearen. [Txema Ramirez de la Piscina](#)
Nagusiak eta filialek osatzen duten nazioarteko **harreman** -sareetan. [Iñaki Heras](#)
Madrilekin orain arteko **harreman** eredu mantendu nahi du Sanzek. [Berria - Euskal Herria](#)
Eredu berri horri gobernamentu edo *governance* deitu zaio **-harreman** -gobernutzat ulerturik betiere-. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagarri gisa)

Botere **harreman** hori gauzatu egin behar du azkenean bizarginak: nork agintzen duen adierazi. [Harkaitz Cano](#)
Bikote **harreman** zorionsua, haurrak, etxe eder bat. [Markos Zapiain](#)
Adiskidetasun- **harreman** sakonak. [Jose Morales](#)
Lacik mendekotasun- **harremana** zuela Lajosekin. [Ander Irizar](#)
Ezaguna da Voltairekin izan zuen gutun- **harremana**. [Juan Martin Elexpuru](#)
72 urterekin amodio -eta sexu- **harreman** egonkor bati ekingo dio [...] Madeleine Leclerc neska gaztetxoarekin. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Truke- eta gatazka- **harremanak**. [Koro Navarro](#)
Planetan zehar kultur **harreman** eta informazio-erlazioak hedatzea. [Askoren artean](#)
Sortu ziren giza **harreman** berriak kontuan hartu gabe. [Askoren artean](#)
Abeltzainekin edo autismoaz arduratzen den jendearekin ditut neure gizarte- **harreman** guztiak ia. [Xabier Olarra](#)
Etengabe nabarmentzen ditu Saramagden aginte **harreman** funtsean ekonomikoak. [Markos Zapiain](#)
Europa eta Japoniaren arteko indar- **harremanen** oreka berria. [Koro Navarro](#)
Garai klasikoan, esaterako, bada analogia- **harremana** aberastasunen azterketaren eta Historia naturalaren artean. [Xabier Arregi](#)
Erregelok, corpuseko perpausen arteko egitura- **harremanak** adierazten dituzte. [Itziar Laka](#)
Ekonomia- **harremanen** antolamenduaren ikuspuntua. [Koro Navarro](#)
Ekoizpen- **harreman** kapitalisten sarbidea nekazaritza- eta meatzaritza- sektoreetara baizik ez zen iristen. [Koro Navarro](#)
Teoriaren printzipio orokorra baliagarria gertatzen da oraindik ere sektore mailan eta orobat Ipar- Hego **harremanetan**. [Koro Navarro](#)
Louiserekiko nagusi-esklabu **harreman** horrek zirauen. [Itxaro Borda](#)
Ingurumen/garapen **harremana**. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)
Ohaideekin ezkon- **harreman** iraunkorrak izatea eta familiak haztea. [Iñaki Mendiguren](#)
Subjektua-aditza **harreman** gramatikala. [Itziar Laka](#)

6 harreman hauste

Harreman hausterik ez behinik behin; liskarren bat gehienez ere, zeinaren ondoren ardura pixka batez erosten baita onezkoak egin izanaren plazerra. [Jon Muñoz](#)

7 harremanetan egon

Halaber, **harremanetan** zegoen ere filosofia grekoerromatarraren ondare bezala gelditutako zenbait pentsaera-iturrirekin. [Askoren artean](#)
Beraz, unibertsa eta hari dagozkion banakoak izaki-mota desberdinak badira ere, **harremanetan** daude. [Askoren artean](#)

Etengabe zeuden biak **harremanetan**.

Karlos Zabala

8 harremanetan jarri

Uste baino errazago gertatu zitzaien gizonarekin **harremanetan jartzea**; bien arteko hizketaldia lortzea ez, ordea. **Migel Angel Mintegi**

Robert Wassermann oftalmologoarekin jarri nintzen **harremanetan**. **Xabier Olarra**

Azpisuge horiek aztikerien bidez deabruarekin **harremanetan jartzen** dira. **Patxi Zubizarreta**

Batzuetan gertatzen da jendeak ahaleginak eta bi egitea norbaitekin telefonoz **harremanetan jartzeko**, baina kale egitea, dena delako telefono-zenbakian erantzunik jaso ez dutelako. **Mirentxu Larrañaga**

Uste dut gure zuzendaria dagoeneko **jarria** dela **harremanetan** zurekin... **Alberto Ladrón Arana**

Alaba beste gizon batekin **harremanetan jarri** zen eta haurdun gertatu zen. **Gotzon Garate**

Itsuentzako Institutu Juduarekin **harremanetan** jarri ginen ikastaldi trinko batean sar zedin. **Xabier Olarra**

Niretzat, Mendebaldeko Europarekin **harremanetan jartzea** zen Jacques Kohni zloti bat "maileguz" uztea. **Koro Navarro**

Irudi bati begiratzea gure eguneroko espazioa dugun espazio erreale honen barrutik oso bestelakoa den beste espazio batekin **harremanetan jartzea** dela, irudiaren gainazalarenarekin **harremanetan jartzea**, hain zuzen. **Josu Zabaleta**

Honetan gauza bat izendatzen da beste batekin duen harremanaren bidez, biak **elkarrekin harremanetan** jarriz. **Xabier Kintana**

Demografia-etzanda hori ezin ulertu da garapen-maila desberdineko gizarteak **harremanetan jartzeak** sortzen dituen usadiozko demografiaren hausturak kontuan izan gabe. **Koro Navarro**

Nazioarteko ekonomiak [...] **harremanetan** jartzen zituen oraindik guztiz integratu gabeko osotasun baten parteak, trukeen, inbertsioen eta kredituen fluxuen bitartez. **Iñaki Heras**

9 harremanetan sartu

Bakartasunetik ateratzea ahal bezainbat jenderek **harremanetan sartuz** edo **harremanetan sartzera** entseatzu. **Filipe Bidart**

Beti oihuka zaintzaleen kontra, beti kirola egiten, beti beste presoekin **harremanetan** sartzera leihatzen. **Filipe Bidart**

Zerorrek erranen zer nahi duzun: kartak, eskua, galdutako zerbaite edo norbaite berreskuratu, negozioren baterako aholkua, izpirituren batekin **harremanetan** sartu... **Aingeru Epaltza**

Sadek zailtasun handiak izango ditu maite-**harremanetan** sartzeko. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Jende anitzek sinesten dute hilak berriz lur hontara itzultzen direla edo bederen errexi **harremanetan** sartzen ahal dela haiekin. **Michel Oronoz**

Oroit zarea, minitelez sartu ginelarik **harremanetan**, nola kondatu nizun maite bat banuela. **Janbattitt Dirassar**

Harremanetan sartuak ziren Hazparneko herriko etxeko agintariekin eta prest ziren sinatzeko. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

giza harreman (11); **gobemnuarekin harreman** (9)

harreman arriskutsuak (20); **harreman berezi** (16); **harreman berezia** (25); **harreman berriak** (13); **harreman diplomatikoak** (27); **harreman egonkorra** (8); **harreman ekonomikoak** (9); **harreman eredu** (8); **harreman estua** (109); **harreman estuagoa** (11); **harreman estuak** (28); **harreman estuan** (9); **harreman handia** (27); **harreman handirik** (13); **harreman instituzionalak** (8); **harreman jarraikiak** (10)

harreman mota (32); **harreman ona** (86); **harreman onak** (60); **harreman oso** (11); **harreman pertsonalak** (11); **harreman politiko** (9); **harreman politikoak** (11); **harreman sexual** (10); **harreman sexuala** (14); **harreman sexualak** (46); **harreman sexualetan** (19); **harreman sexualik** (9); **harreman sozialak** (9); **harreman txarra** (11); **harreman zuzen** (12); **harreman zuzena** (76); **harreman zuzenak** (8); **harreman zuzenik** (13)

izandako harreman (14); **jendeearekin harreman** (11); **maitasun harreman** (12); **nazioarteko harreman** (12); **sexu harreman** (20)

harreman estua izan (22); **harreman ona izan** (11); **harreman onak izan** (9); **harreman sexualak izan** (8); **oso harreman estua** (8); **oso harreman ona** (12); **oso harreman onak** (9)

; **bien arteko harremana** (32); **bion arteko harremana** (9); **euren arteko harremana** (8); **gure arteko harremana** (14); **haien arteko harremana** (9); **harremana aztertu** (8); **harremana eten** (19); **harremana galdu** (8); **harremana hautsi** (8); **harremana izan** (70); **harremana izatea** (25); **horien arteko harremana** (9); **izandako harremana** (14); **lan harremana** (12); **zer nolako harremana** (10)

botere harremanak (8); **giza harremanak** (23); **gizarte harremanak** (14)

harremanak aldatu (9); **harremanak arautzeko** (8); **harremanak aztertu** (9); **harremanak estutzeko** (11); **harremanak eten** (19); **harremanak hasi** (8); **harremanak hautsi** (9); **harremanak hobetzeko** (14); **harremanak izan** (95); **harremanak izatea** (38); **harremanak izateagatik** (8); **harremanak izateko** (38); **harremanak izaten** (19); **harremanak izatera** (17); **harremanak lantzen** (8); **harremanak nahi** (8); **harremanak sendotu** (13); **harremanak sendotzea** (18); **harremanak sendotzeko** (24); **harremanak ukan** (8)

izandako harremanak (13); **lan harremanak** (25); **lehen harremanak** (15); **merkataritza harremanak** (19); **nazioarteko harremanak** (17); **sexu harremanak** (127)

alde biko harremanak (9); **erakundeen arteko harremanak** (8); **gizakien arteko harremanak** (8); **gure arteko harremanak** (15); **herrialdeen arteko harremanak** (10); **herrien arteko harremanak** (14); **lurreldeen arteko harremanak** (8); **mugaz gaindiko harremanak** (13); **personen arteko harremanak** (12); **sexu harremanak izan** (19); **sexu harremanak izatea** (11); **sexu harremanak izaten** (10); **sexu harremanak izatera** (14)

harremanean jarri (9); **harremanean jartzeko** (7); **harremanean jartzen** (8); **harremanetan egon** (14); **harremanetan hasi** (11); **harremanetan izan** (11); **harremanetan jar** (10); **harremanetan jarri** (127); **harremanetan jarriko** (15); **harremanetan jartzea** (24); **harremanetan jartzeko** (64); **harremanetan jartzen** (42); **harremanetan sartu** (32); **harremanetan sartzeko** (18); **harremanetan sartzen** (17); **harremanetarako arduradunak** (9); **harremanetarako erretoretorea** (7); **harremanetarako komisario** (8); **lan harremanetan** (12); **nazioarteko harremanetan** (7); **sexu harremanetan** (10)

harremanatu ik harremandu.

harremandu, harreman(du), harremantzen (ETCn 225 agerraldi; orobat harremanatu ETCn 7 agerraldi) da/du ad harremanetan egon, lotura izan. ik harremanetaratu.

Jendeearekin **harremantzean**, norberak bere benetako isla aurkitu nahi izaten du. **Eider Rodríguez**

Naturelezaren alde guztiak [...] elkarrekin **harremanaturik** daude milaka harmonia sekreturen bitartez. **Bernardo Atxaga**

Giza esperientziarekin -beldurrarekin, jakinahiarekin- **harremanatuta** dauden pertsonaiez. **Koldo Izagirre**

Kakalardoaren hozkiotsa, gurgilaren intziria, ozen, isil, baina misteriosuki **harremandua**. **Joxan Elozegi**

Ilargiarekin **harremanduriko** eskultura seriea. **Joxan Elozegi**

Egitura dramatiko soilak dira, garai bateko mitoei **harremanaturitako** erakus-istorioak agian. **Bernardo Atxaga**

Zomorroaren burrunba, belar ebakiaren hotzikara, bereizia baina nola-hala elkartua; kakalardoaren hozkiotsa, gurgilaren intziria, ozen, isil, baina misteriosuki **harremandua**.

Anton Garikano

Munduarekin **harremantzen** dena ez dela intelektu bat ("tabula rasa"), nahimen eta sentimenduzko norbait aktibo baino. **Joxe Azurmendi**

Beste eragileekin **harremantzeko** eskubidea. **Berria - Harian**

Nirekin **harremantzen** den inguru sozialak. **Joxe Azurmendi**

harremanetaratu, harremanetara(tu), harremanetaratzen da ad harremanetan egon, lotura izan. ik harremandu.

Aurrez aurre begiratzea erabakirik, heriosuhar sumatzen zuen heriotza, bere zentzumenak **harremanetaratuak** zeudela hilobi heze eta estuarekin, bere isolamendu bortitzarekin, bere hezurduarekin, eta, finean, bere gorpuarekin. **Patxi Zubizarreta**

harrera (ETCn 2.373 *agerraldi*) 1 iz hartzea.

Harrera txarra bildu zuen iradokizunak. [Juan Garzia](#)

Azterketa soziologiko asko dago hebadibek duten **harrerari** buruz (eta artelanekek duten **harrerari** buruz ere bai). [Josu Zabaleta](#)

Zer gorabehera izan dituen Euskal Herrian tradizioaren **harrerak**. [Bernardo Atxaga](#)

Artelanekek ekoizpenaren eta **harreraren** arazoak. [Josu Zabaleta](#)

Harrera ona izan zuen atzo Cannesko Zinemaldian 'Clean' filmak. [Berria - Kultura](#)

Zhang Yimouren azken filmak **harrera** hotza izan du Txinan. [Berria - Kultura](#)

Argazkiak pinturaren ikusleriarekin guztiz bat ez datorren ikusleria batengan duen **harrera**. [Josu Zabaleta](#)

Bizibide honek gure artean izan duen **harreraz**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

2 (norbaitek beste norbait) bere etxean, lagunartean... hartzea, ostatu, laguntza edo babes emateko.

Non izan zara orain arte? -dio **harrera** moduan, guztiz ospinduta. [Patxi Iturritegi](#)

Harrera, baina, ez zen hain beroa. [Berria - Euskal Herria](#)

Atari handi bat, **harrera** profesionala eta denbora berean beroa, zurezko eskailera distiratsua, eskubanda leunak, argi eta garbi: aterpe hau hotel bat da. [Piarres Aintziart](#)

3 hartze zeremonia.

Geltokikoaren ostean **harrera** ofizialagoa dator. [Edorta Jimenez](#)

Eskerrak eman zizkion gobernadoreari **harreragatik**. [Edorta Jimenez](#)

Zutik edan genuen, **harrera** diplomatikoetan bezala. [Joxe Austin Arrieta](#)

Harrera diplomatiko batean bezala ni, zutik, elkarren artean tarte jakin bat gordeaz. [Joxean Agirre](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken eskaera horren **harrera** -baieztapenarekin batera, bigarren gutun bat iritsi zen. [Juan Garzia](#)

Antolatzaileen **harrera** hitzak entzun aurretik. [Edorta Jimenez](#)

Eta gero **harrera** afari baten modukoa. [Edorta Jimenez](#)

Bordeleko **harrera** ekitaldia dotorea izan zen. [Edorta Jimenez](#)

Harrera zeremonia horretan. [Edorta Jimenez](#)

Zenbait eskolatara ez agertzeagatik eta **harrera** -ordueta bulegoan ez egoteagatik. [Iban Zaldua](#)

Eusko Legebiltzarreko **harrera** aretoan hartu zuen saria. [Berria - Euskal Herria](#)

Harrera -herrialdean indarrean dauden lan-arauak kontuan izanik. [Koro Navarro](#)

Eta turistak, definizioz, aberatsak dira **harrera** -herrikoen begietara. [Edorta Jimenez](#)

Harrera zerbitzuko sudur hegala harrotuz usainka ikusi bainuen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Automobiletakoek, berriz, irribarrez eta buru-makurka eskertzen zuten **harrera** -oihu bakoitza. [Irene Aldasoro](#)

Antolatuko dudak azken **harrera** -festa da. [Antton Olano](#)

Harrera -saio moduko bat antolatua zuten. [Eskarne Mujika](#)

Estatuko kapitulazioaren aurrean, masta handiaren puntan, hegotarren bandera zegoela **harrera** -emaila. [Iñaki Zabaleta](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingurumarira etengabe begiratuz, zizka-mizkei egundoko festa-**harrera** beroa eginez, bozkarioz. [Joxe Austin Arrieta](#)

Lan horretan Egidok, bere ohiko zorrotasunaz, arcturustarrei egindako gizarte-**harreraren** inguruko hainbat kasu aletzen ditu, eta hipotesi orokor bat zirriborrazten saiatzen da. [Iban Zaldua](#)

6 gizarte ekintzan, gurasorik ez duena edo gurasoekin ezin bizi dena, edo baliabiderik ez duen etorkina hartzea.

Halere, ezin dira **harrera** eta adopzioa nahastu. **Harreraren** xede nagusia ume horiei ordeko familia bilatzea da. [Berria - Euskal Herria](#)

Aldundiak adingabeen **harreraren** gaineko informazioa eskaintzeko hitzaldiak antolatu ditu azken asteetan. [Berria - Euskal Herria](#)

Etxea uztera behartuta dauden emakumeentzako babes-eteak, eta umeentzako eta adinekoentzako **harrera** zerbitzuak. [Berria - Euskal Herria](#)

Haurra **harrera** erakunde baten esku utzi du. [Berria - Euskal Herria](#)

Asko eta asko, eritasuna dela kausa, kartzelatik ateratzeko moduan daude; baina kartzela barruan jarraitu behar izaten dute, kartzelatik kanpo ez dagoelako beharrezko baliabiderik, hots, ez dagoela behar adina toki **harrera** sareetan. [Berria - Euskal Herria](#)

Donostiako Udalak urrian irekiko du gizarte **harrerarako** zentro berria, Monseko pasealekuan. *ik beherago* 14 eta 18. [Berria - Euskal Herria](#)

Etorkinen **harrera** bultzatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Ikasle etorkinentzat **harrera** plana egiteko orientabidea. [Berria - Harian](#)

Bertako **harrera** egoitza gainezka dago azken egunetan jasotzen ari diren immigrante kopuru handia dela eta. [Berria - Mundua](#)

7 harreralekua.

Auzitegiko **harreraren** gizontxo lodikote bat zegoen. [Fernando Morillo](#)

Halako batean **harrerako** andrea biologo baten bila joan zen telefonatu zuenari erantzun ziezaion. [Joseba Urteaga](#)

Biharamunean, utzitako tokian ikusi nituen loreak, **harrerako** mahaitxoan, zelofan eta guzti. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Joseba ostatuko **harrerara** joan zen. [Fernando Morillo](#)

Hoteleko **harrerako** andreak, hiriko informazio-bulegoetara alferrikako dozena erdi-edo telefono-dei egin eta gero. [Anjel Lertxundi](#)

Egin-era iritsita, **harrerako** neskak kazetariari abisua pasatu eta gero, bost bat minutuan itxaron behar izan zuen. [Iñaki Iñurrieta](#)

Medikuak euskaldunak dira, baina **harreraren** lan egiten duenak ez daki euskaraz. [Berria - Euskal Herria](#)

8 harrerako iz harreralekukoa. ik harrerazain.

Eta azkenean jakinarazi nien **harrerakoei** mezua utzi besterik ez nuela nahi. [Ramon Saizarbitoria](#)

Harrerakoari eskupekoa eman genioan norbait gure galdezka etortzen bazen ez gintuela ikusi esateko aginduz. [Joxean Agirre](#)

9 familia harrera

Hasiera batean, familia **harrera** soila egin zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Haurren harreraren berri izan nahi duenak 943-482638 telefonora deitu edota www.gipuzkoa.net/famili **harrera** atarian begiratu dezake. [Berria - Euskal Herria](#)

10 harrera bulego

Bultzaka eraman zuen [...] abokatua **harrera bulegotik** bere bulegoraino, zakarki, armaren kanoia garondoan jarrita. [Migel Angel Mintegi](#)

Medikuntza prebentiboko zerbitzuko **harrera** -bulegoan nire zenbakia entregatu nuen. [Joseba Urteaga](#)

Discreet Escorts-eko **harrera** -bulegoaren ondoko egongela txiki ilun batean. [Oskar Arana](#)

11 harrera eginsup_1

Beherantz abiatu zen, gonbidatuari **harrera** egitera. [Xabier Olarra](#)

Ostatuko morroia [...] jaunari **harrera** egitera irten zen. [Jose Morales](#)

Han bere tximinoak egin zion **harrera**, mingaina erakutsiz hasi baitzitzaion ongi-etorria egiten. [Josu Zabaleta](#)

Harrera egin digutenek elastiko horiak dituzte aldean. [Edorta Jimenez](#)

Trenari **harrera** egiten dioten hiriei ematen zaien oroigarriaren truke. [Edorta Jimenez](#)

Varsoviako geltokia hanga kale-antzerki talde batek egin zigun **harrera**. **Edorta Jimenez**

Inork ez zien nire deiei **harrerarik** egin. **Aingeru Epaltza**

Nire solasei egiten zien **harreran** erakusten zuen begiramen zuhurra. **Juan Garzia**

Jose Ibarretxe EAeko lehendakariak Egunkaria-ko auzipetuei Lehendakaritzan **harrera** egitea kritikatu zuen atzo PPK Legebiltzarrean. **Berria - Euskal Herria**

Lehen argitalpena 1938ko martxoaren 21ean plazaratu zen, eta kritikak **harrera** ona egin zion. **Monika Etxebarria**

Knot jaunak **harrera** ona egin zien diruei, harri bitxiei eta tabakoari. **Juan Garzia**

Niri eta familia osoari egin diguten **harrera** eskuzabalagatik. **Pello Salaburu**

Beste hiru neskatok egin zioten **harrera** haserre kontuan izanik. **Joxemari Iturralde**

Hara heltzean, **harrera** beroa eta ohorez bete egin zion garai hartan hirian zegoen Erromako Kuria osoak. **Askoren artean**

Méhudindarren etxean ere, **harrera** gero eta hotzagoa egiten zioten. **Karlos Zabala**

Sultanak berak **harrera** ezin hobea egin zion. **Askoren artean**

Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakariak *Egunkaria*-ko auzipetuei Lehendakaritzan **harrera** egitea kritikatu zuen atzo PPK Legebiltzarrean. **Berria - Euskal Herria**

12 harrera eginsup_2 (liburu edo kideko batean)

Juduen dokumentazio garaikideko guneak 1999 ko urtarrilaren 11n igorri zidan gutun bati esker jakin nuen, nire amak hala nahirik, Oroitzapenen Liburuko IV . alean egin zitzaizela **harrera** Frantziatik deportatu zituzten senitarteko guztien izenei. **Joxan Elozegi**

13 harrera eginsup_3 (gizarte ekintzan)

Bi pertsona izanen dira aterperik ez dutenei **harrera** egiteko eta beste bi gauero begirale lanak egiteko. **Berria - Euskal Herria**

Harrera egiten duten egituren protesta biziak eragin zituen adierazpen horrek. **Berria - Euskal Herria**

Izan ere, Bilbon Udalak 11 langile besterik ez du etorkinei **harrera** egiteko, 1989an zuen kopuru bera. **Berria - Euskal Herria**

14 harrera etxe (orobat etxebizitza)

Bizkaian zortzi umerentzako **harrera** etxe bila dabil Aldundia. **Berria - Euskal Herria**

-Ez dut **harrera-etxe** batera eramango, horretaz ari bazara. **Oskar Arana**

Orain dela bi urte, ordea, erasoak arrakutsuago bihurtu ziren, eta emakumeak **harrera**-etxe batera jo zuten. **Berria - Euskal Herria**

Horren arabera, orduan 38 **harrera**-etxebizitza ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. **Berria - Euskal Herria**

Adingabe horietako batzuk Foru Aldundiaren **harrera** etxebizitzetara eramaten ditugu. **Berria - Euskal Herria**

Emakume drogazaleek **harrera** etxeetara jo ahal izateko. **Berria - Euskal Herria**

Gaixontzako **harrera**-etxe batean daude biak. **Bernardo Atxaga**

20.000 biztanletik gorako udalerrietan gutxienez **harrera** etxe bat egon behar duela. **Berria - Harian**

Etorkinentzako **harrera**-etxea **Berria - Harian**

15 harrera familia

Harrera familiak, ordea, ez du sendi naturala ordezkatu nahi. **Berria - Euskal Herria**

Harrera familiak eta familian hartutako pertsonak kontratu bat sinatzen dute, bakoitzaren konpromisoak arautzeko. **Berria - Euskal Herria**

Gipuzkoako Foru Aldundiak indartu egin nahi du laguntza premia duten edadetuen eta ezintasunen bat dutenen **harrera** familien programak. **Berria - Euskal Herria**

16 harrera gela (orobat harreragela)

Despatxua, **harrera**-gela, saloi-biblioteka, jantokia, sukaldea eta ofitsea. Lekaino bat irten zen atalondora, eta **harrera**-gelaraino lagundu zion Txitxikovi. **Jose Morales**

Alfa hoteleko **harrera** gelan. **Anjel Lertxundi**

Ostatuko **harrera**-gelako gizon lodia begira geratu zitzaion. **Xabier Montoia**

Ruben **harrera** gelan giltza itzultzen ikusi dut. **Patxi Zubizarreta**

Giltza hartzeko pasaporteak **harrera** gelako mahaietan utzi behar dira. **Edorta Jimenez**

Zerbitzuen egoitzako **harreragela** ttikian gelditu ginen. **Alberto Ladrón Arana**

Baina Del Valle jadanik urrats luzeak urruntzen hasia zen geltokiko **harreragelatik**. **Alberto Ladrón Arana**

Geltokiko **harrera** gelako txarteldegian. **Unai Iturriaga**

Berak **harrera** gelakoel galdegina zien, nonbait, jatetxe dotore baten izena. **Patxi Zubizarreta**

-Sortzen-ikasbatuzen iritzi, **harrera** gelak ikasleen integrazioan laguntzeko epe motzeko bitartekoak dira, erreferentziatzko gelaren osagarri. **Berria - Euskal Herria**

17 harrera mahai

Horra **harrera** mahaiak eta zenbait gazte, denak *public relations* delakorako ondo heziak. **Edorta Jimenez**

Harrera mahaira giltza itzultzerak hurbildu garenean. **Patxi Zubizarreta**

Harrera mahairaino joan nintzen, baina nire erreserbak-eta hoteleko arduradunari erakusten hasterako, emakume hesola bezain tente bat agertu zen, eta bere gelako giltzak utzi zituen mahai gainean. **Anjel Lertxundi**

-Eskatutakoa **harrera** mahaitxoaren gainean jarri eta bizkor patrikaratu zuen atsoak. **Harkaitz Cano**

18 harrera zentro

Harrera zentro batean egon zela denboraldi batean. **Berria - Euskal Herria**

Azaldu zenez, harrera familia batekin ere egin zuen tarte bat, baina aurtengo maiatzean **harrera** zentrorra itzuli beharrean aurkitu zen. **Berria - Euskal Herria**

Loiuko Zabalotxe egoitza **harrera** zentroa izango da, Bizkaia bakarrik ailegatzaren adingabeak hartzeko. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baina harrera (6); **baino harrera** (6); **bati harrera** (4); **bezalako harrera** (5); **da harrera** (5); **die harrera** (6); **dio harrera** (8); **diote harrera** (9); **du harrera** (4); **duen harrera** (18); **duten harrera** (5); **egin zien harrera** (8); **egin zieten harrera** (11); **egin zion harrera** (13); **egin zioten harrera** (12); **egindako harrera** (8); **egingo diote harrera** (5); **ere harrera** (12); **ere harrera** ona (5); **eta harrera** (52); **eta harrera** ona (5); **eta oso harrera** (9); **etorkinen harrera** (4); **familia harrera** (4); **filmak harrera** (11); **filmak harrera** ona (5); **gorpuzari harrera** (4); **guztiek harrera** (4); **haiek harrera** (5); **hain harrera** (6); **hain harrera** ona (4)

harrera aretoan (4); **harrera berezia** (6); **harrera berezia egin** (4); **harrera beroa** (50); **harrera beroa egin** (24); **harrera beroa izan** (6); **harrera beroa jaso** (4); **harrera bikaina** (15); **harrera bikaina izan** (10); **harrera egin** (81); **harrera egin eta** (5); **harrera egin zien** (9); **harrera egin zieten** (7); **harrera egin ziguten** (4); **harrera egin zion** (12); **harrera egin zioten** (8); **harrera eginen** (4); **harrera egingo** (15); **harrera egingo diote** (5); **harrera egitea** (6); **harrera egiteko** (50); **harrera egiteko eta** (4); **harrera egiten** (17); **harrera egitera** (22); **harrera ekitaldi** (6); **harrera ekitaldia** (10); **harrera ekitaldian** (8); **harrera epela** (6); **harrera epela izan** (4); **harrera espero** (4); **harrera eta** (19); **harrera etxe** (19); **harrera etxe batean** (9); **harrera etxea** (4); **harrera etxeak** (6); **harrera etxean** (5); **harrera etxeetan** (4); **harrera etxera** (4); **harrera ez** (5); **harrera ezin** (20); **harrera ezin hobea** (16); **harrera familia** (7); **harrera familiak** (9); **harrera familiek** (4); **harrera familien** (4); **harrera gela** (15); **harrera gelako** (15); **harrera gelan** (33); **harrera gelara** (14); **harrera gelara jaitzi** (4); **harrera hobea** (8); **harrera hobea izan** (4); **harrera hotza** (7); **harrera izan** (18); **harrera izan du** (6); **harrera izango** (4); **harrera jaso** (4); **harrera lekuan** (7); **harrera mahai** (5); **harrera mahaietan** (5); **harrera ofiziala** (16); **harrera ofiziala egin** (10); **harrera on** (5); **harrera ona** (202); **harrera ona egin** (44); **harrera ona egiten** (9); **harrera ona eta** (5); **harrera ona ikusita** (4); **harrera ona izan** (85); **harrera ona izango** (6); **harrera ona izaten** (6); **harrera onik** (7); **harrera oso** (13); **harrera oso ona** (12); **harrera txarra** (6); **harrera txarra izan** (4)

hoteleko harrera (13); **hoteleko harrera gelan** (8); **ikusleen harrera** (5); **izan duen harrera** (7); **izandako harrera** (8); **jasotako harrera** (5); **jendearen harrera** (4); **kritikak harrera** (4); **lehen harrera** (11); **lehendakariak harrera** (6); **lehendakariak harrera egin** (4); **moduzko harrera** (4); **nahiko harrera** (4); **nolako harrera** (24); **nolako harrera egin** (6); **nolako harrera izan** (4); **oso harrera** (62); **oso harrera beroa** (6); **oso harrera ona** (51); **proposamenak harrera** (4); **proposamenak harrera ona** (4); **sekulako harrera** (4); **zaion harrera** (5); **zein harrera** (5); **zen harrera** (10); **zer harrera** (15); **zer harrera izan** (4); **zer moduzko harrera** (4); **zer nolako harrera** (11); **zient harrera** (12); **zienten harrera** (14); **zigun harrera** (4); **zion harrera** (13); **zioten harrera** (15); **zitaion harrera** (4); **zuen harrera** (14)

duten harrerarekin (4); **harreraren ostean** (5)

harreragile 1 *iz* harrera egiten duen pertsona.

Hoteleko **harreragilearen** aholkuari jarraiki. Aritz Gorrotxategi

Harreragileak plano bat zerabilen esku artean: burokrata frantses bat, frantsesik ulertzen ez zutenekin zeharo zakarra. Joxe Austin Arrieta

Dianak ospitale handi batean lan egiten du **harreragile** bezala. Bernardo Atxaga

Rakel Ameskoa? -galdegin dit **harreragileak**, eta nire baieztok imintzioa ikusirik, zorrotxo bat luzatu dit. Patxi Zubizarreta

Harreragileak goitik behera miatu zuen etorri berria. Fernando Morillo

Hoteleko harreralekura helizearekin azaldu naizenean, "oh, again..." esan digu keinu etsitu batekin **harreragileak**, horretara ohituta balego bezala. Harkaitz Cano

Zergatik ez diozu **harreragileari** zeure etorreraren berri eman? -galdetu zidan. Joxan Elozegi

2 harrera egiten duena.

Bero itogarria izan genuen **harreragile** Campeche-n. Joxe Austin Arrieta

harreragune 1 *iz* hoteletan-eta, harrera aretoa, harreralekua.

Atzeko atetik sartu ziren, ostatuko **harrera**-gunetik. Felipe Juaristi

"Lost Days" motelaren **harrera** gunean izena -faltsua bistan dena- ematen ari zela. Itxaro Borda

Dirua aldatzeko aitzakian **harrera**-gunera nindoala. Bernardo Atxaga

Harrera guneetan euskararen erabilpena berma dezakeen plangintza abian ezartzea. Berria - Euskal Herria

CRSek bi demo atxilotu zituzten atzo Baionako tren geltokian, **harrera** guneke mezuen ondoan euskarazko itzulpena tindatzen ari zirelarik. Berria - Euskal Herria

2 harrera puntua.

Garapen-bideko ekonomien partea, nazioarteko zuzeneko inbertsioen **harreragune** gisa, txikia da. Koro Navarro

Funtsezko desberdintasun bat dago oraindik ere kapitalismoaren hedapen-guneen eta **harrera**-guneen artean. Koro Navarro

3 eguneko harreragune (gizarte ekintzan)

Eguneko **harreragunearen** egoitza ondoan dago, Baionako tren geltokitik hurbil. Berria - Euskal Herria

Eguneko **harreragunean** bezala berogailuak izanen dira. Berria - Euskal Herria

Babes zibilerako erakunde eta Herriko Etxeez gain, Emmaus, Baionako Eguneke **Harreragunea**, Sokorri Katolikoa, Gurutze Gorria eta bertze hainbat elkarte ariko dira karriketan, nehor ez dadin aterperik gabe gelditu gauetan. Berria - Harian

harreraleku (*orobat harrera-leku*) 1 *iz* etxe batean, bisitariak hartzeko lekua.

Harrera lekuak familia burges baten sala dirudi. Ramon Saizarbitoria

2 (hotel batean)

Harreraleku bat dago sarreran. **Harrera**-lekura joan ziren giltza eskuratzeraz. Lopez de Arana

Hoberena **harrera** lekuan mezua uztea izango zela erabaki nuen. Ramon Saizarbitoria

Gela utzita nuen, eta maleta, arratsaldean bila pasatzekoa nintzenez, **harrera** lekuan zegoen jada. Ramon Saizarbitoria

Hoteleko **harreralekura** helizearekin azaldu naizenean, "oh, again..." esan digu keinu etsitu batekin harreragileak, horretara ohituta balego bezala. Harkaitz Cano

-Sistematikoki, lurralde bereizketarik gabe eta hainbat arlotan urratzen dira: **harrera** lekuetan, sendagileekin, erizainekin ditugun harremanetan, pediatrian... Anjel Lertxundi

-Horregatik ez nien **harrera**-lekukoei ordu zehatz batean telefonoz deitzeko eskatu Xabier Amuriza

harreratoki (*ETCn 1 agerraldi; corpusean soilik harrera-toki*) *iz* harreralekua.

Harrera-tokitik oso gertu billarreko mahai bat zegoen, eta bi gizon ari ziren bertan, isiltasun ia erlijioso batez, txandari txanda. Anjel Lertxundi

Begirada pasa gelan zehar ezer ez dudala ahazten konprobatzeko eta **harrera**-tokira jaisten naiz ordaintzeko. Mikel Hernandez Abaitua

harrerazain *iz* hoteletan-eta, harreragunean lan egiten duen pertsona.

-Bai, bai, jakina -erantzun zion **harrerazainak**, hark ere frantsesez. Anjel Lertxundi

Gero hildakoaren kargu egiteko agindua eman zion **harrerazainari**, taxia eskatzeko esan balio bezain normal. Anjel Lertxundi

Kafea hartzen ari da **harrera**-zainarekin hizketa adeitsuan. Anjel Lertxundi

harresi 1 *iz* harrizko murre edo hesia, batez ere itxitura bat eratzen duena.

Mahasti artean, albotara bi **harresi** zituen bide estu batean. Elizen arteko biblia

Zeharkatu du hiriaren **harresia** eta gizon argal bat ikusi du. Patxi Zubizarreta

Israeldarren baten gorpua ikusten banuen Ninibeko **harresiez** kanpora jaurtikia, hartu eta lur ematen nion. Jose Antonio Mujika

Nafar hiriburuko **harresiak** .. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dorreen eta **harresien** zimenduak. Santiago Iruretagoiena

Teilatuetaraino eta **harresiaren** almenetaraino. Bernardo Atxaga

Herio usai beltzez inguratua gelditu da Gorritiko gaztelu ingurua: **harresiko** kosketan mordoka "ipuzcoano castillanoak" hilotzik. Patziku Perurena

Harresien erlaitzetan jarritako zuzien argi dardarkariak. Agustin Otsoa

Gero, Maginot **harresian** zen leku ahula, Sedan-eko inguruan, bortxatu zuen. Michel Oronoz

Eta hantxe eraiki zuten hiri bat, **harresiz** inguratutik. Juan Kruz Igerabide

Harresi erdi eroriaren arrailduran iguana bat ikusi dut. Joseba Sarrionandia

Bigarren **harresira** iristeko zaudenean lanrober bat pasatzen da inoiz egiten ez duen erronda txatxu batean. Koldo Izagirre

Iruñeko **harresien** zaharberitze lanen bigarren atala abian. Berria - Kultura

Gure etxea **harresiei** atxikia zen. Koldo Izagirre

Jerusalemgo **harresiak** eraikitzen ari ziren judu guztiek. Esteban Antxustegi

Harresia eraitsi aurreko urteetan. Txillardeggi

Harresiak eraisteko erabakia. Askoren artean

Harresiak suntsitu ondoren. Martin Anso

Harresiak deuseztu eta desegin zizkietela eta jauregiaren bi muturretan zeuden defentsarako dorreak porrokatu eta eraitsi. Joan Mari Irigoien

Harresi, dorre eta atein ateekin. **Santiago Iurrettagoiena**

Ura **harresi** bat baino eraginkorragoa zen udaberriak hazitako errekan. **Aingeru Epaltza**

2 (izenondo eta izelagunekin)

Txinako **harresi** handia. **Joxemari Iturralde**

Harresi almenadunak patio hertsu bat inguratzen zuen. **Agustin Otsoa**

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa. **Elizen arteko biblia**

Dorre trinkoak eta **harresi** menperakaitzak. **Elizen arteko biblia**

Harresi beltzaire ilun itsusia. **Txillardegi**

Bada hemen gertu, hiriko **harresian**, dorre bat oso zabala, barnean leku handia duena. **Askoren artean**

Hiriko **harresia** behera etorriko da. **Elizen arteko biblia**

Hormigoizko **harresi** batean. **Berria - Mundua**

Orduan naiz ohartzen hormen loditasunari: egiazko **harresiak**, Erdi Aroko gazteluetako idurikoak. **Filipe Bidart**

Ez da hormigoizkoa edo porlanezkoa, plastiko beltzeko **harresia** da. **Berria - Harian**

Etenik gabeko **harresi** bat jaso ahal izateko. **Josu Zabaleta**

3 harrizko horma.

1961ean hasi ziren eraikitzen Berlin hainbeste urtetan bitan zatituko zuen **harresia**. **Pello Salaburu**

Berlingo **harresia** erori eta gero gertatutako hondamenaren ondoren. **Koro Navarro**

Alemania erdibitzen zuen **harresia** inork bota baino, erori egin zen berezko usteleaz. **Hasier Etxeberria**

Oraindik zutik dirau Marokok duela 25 urte Mendebaldeko Sahara zatitzeko eraiki zuen 2.600 **kilometroko** harresiak. **Berria - Harian**

Herrixka [...] metro erdiko altuerako **harresi** batez inguratuta zegoen. **Joanes Urkixo**

Hilerrira eraman eta **harresiaren** kontra fusilatzeke. **Ramon Saizarbitoria**

Kuartelaren esparrua mugatzen zuen **harresiaren** espaloi lerroari jarraitu zitzaion. **Pedro Alberdi**

Presako **harresiei** porlana ematera. **Koldo Biguri**

Itxaropena galdurik, etzan egin zen portuko **harresiaren** kontra. **Felipe Juaristi**

Ikastetxeko **harresia** eskalatzen hasi ginenean. **Joseba Sarrionandia**

Baratzeko **harresiaren** gainetik igaro ziren. **Koldo Biguri**

Auzo horiek **harresi** elektrifikatuaz inguratuak dira. **Ramuntxo Etxeberri**

Duela oraino berrogeita zenbait urte, etxearen paretak edo **harresiak** zutik zeuden, gehienak segurik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Lehen izan zen hor elizaño bat, eliza txar edo eliza zahar bat. **harresiek** eta ongi kurutzatuak diren izkin harri ederrek oraino erakustera emaiten diguten bezala. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hosapeko gaztelua alkazar eder bat zen, hiru **harresi** -inguru zituena babes. **Fernando Rey**

Tomas Atondok ere bere familia gutzia eraman zuen **harresi** gainetara, oihuka. **Aingeru Epaltza**

Harresi gaineko pasabidera. **Pello Lizarralde**

Sekulako txalo eta oihuen artean, lehenengo **harresi** -puska bota zuen lurrera. **Txillardegi**

Harresi -zuloetatik irtengo zarete. **Elizen arteko biblia**

Afal ondoren, han abiatzen zen Casin Cholet oilo-harrapaketan Parisko **harresi** -hobien ifrentzuetan. **Juan Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Venus, Vulkan eta Marteren etxeak hiri-**harresietatik** kanpora jarri behar dira. **Santiago Iurrettagoiena**

Defentsa **harresien** hondakinak ageri ziren, harriak etxeko beste eraikuntzetan erabili bazituzten ere. **Elena Touyarou**

Iparaldeko **harresi** -oinetatik hegoaldekoetara zebilen aztia zaldi gainean. **Agustin Otsoa**

6 hed

Goitik zetozen urak gelditu egin ziren, **harresi** luze bat eratuz. **Jose Antonio Mujika**

Israeldarrek lehorbide horretatik igaro zuten itsasoa, ur **harresiak** zituztela ezker eta eskuin. **Jose Antonio Mujika**

Bertze batean, suzko **harresiak** ikusi nitian. **Juan Garzia**

Alde guztietara hedatzen zen lanbro **harresia**. **Joanes Urkixo**

Leiho honen aitzinean mendiaren malkarrak bere **harresi** erraldoia jasotzen du begi bistatik ezkutazteraino. **Koldo Izagirre**

7 irud

Guduen eta kristauen sineskeren arteko **harresi** gogor eta gaindiezina. **Xabier Kintana**

Esperientziak zekien portaerako seriotasun eta neurritasun hau **harresi** eta babeski sendo dela deabruaren gezien aurka. **Askoren artean**

Nahiz eta eritasunak osasunaren **harresi** eta babestoki kasik gehienak desegin eta porrokatu zizkion orduko. **Joan Mari Irigoien**

Bere bihotzeko **harresi** ilun horretara. **Patziku Perurena**

Agatak arratsaldean Otsabideko kermezan ikasiak ezpainen **harresietan** kolpeka susmatzen zituen. **Itxaro Borda**

Gogoaren izuak ezabatzen baitira, munduko **harresiak** irekitzen eta gauzak sortzen ikusten ditut hutsune eskergan zehar. **Xabier Amuriza**

Bere itsustasunaren **harresiaren** atzean gorderik. **Josu Zabaleta**

Intolerantziaren **harresiak** haustea. **Berria - Euskal Herria**

Gotortu eta babestu egiten baita neurosi eta ustekeriazko **harresi** baten atzean. **Karlos Zabala**

Harresiak altzatzea beste erremediorik ez zaigu geratzen: aurrena metafisikoak -legeak, arauak, prezioak-, eta gero fisikoak -guardiak eta murrak-. **Bernardo Atxaga**

Hizkuntzarena **harresi** gaindiezin zitzaidan. **Edorta Jimenez**

Inkomunikazioaren **harresietan** bermatzen zen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aguraingo harresi aretoan (4); beste harresi (5); bi harresi (4); da harresi (3); eta harresi (20); eta harresi baten (3); gabeko harresi (3)

harresi aretoan (5); harresi barruan (4); harresi barruko (3); harresi bat (14); harresi batek (5); harresi baten (14); harresi edo (3); harresi eta (13); harresi gabeko (3); harresi gainean (15); harresi gainean dagoen (4); harresi gaineko (3); harresi gainera (5); harresi gainetik (15); harresi garai (3); harresi gisa (3); harresi guztiak (4); harresi handi (3); harresi handia (13); harresi handia espaziotik (4); harresi handiak (3); harresi handiz (3); harresi hiria (5); harresi luze (4); harresi ondoan (3); harresi ondoko (3)

hiriko harresi (3); ondoko harresi (3); txinako harresi (9); txinako harresi handia (7); zen harresi (5); zuen harresi (7); zuten harresi (4)

berlingo harresia (12); berlingo harresia erori (4); defentsarako harresia (4); duen harresia (4); eta harresia (5)

harresia behera (4); harresia bota (8); harresia da (3); harresia eraiki (8); harresia eraiki zuen (3); harresia eraikitzeko (3); harresia eraikitzen (4); harresia eraitsi (3); harresia erori (6); harresia erori eta (3); harresia eta (5)

inguruko harresia (4); jerusalemgo harresia (4); lotsaren harresia (3); zegoen harresia (3); zen harresia (3); zuen harresia (4); zuten harresia (4)

arteko harresiak (3); donostiako harresiak (3); edo harresiak (3); eta gaurko harresiak (3); eta harresiak (14); eta harresiak apurtuz (3); gaurko harresiak (4)

harresiak altzatzen (3); harresiak apurtu (3); harresiak apurtuz (23); harresiak apurtuz koordinadorak (5); harresiak bota (7); harresiak eraiki (3); harresiak eraikitzen (3); harresiak eraisteko (5); harresiak eraisteko baimena (3); harresiak eraitsi (7); harresiak ere (5); harresiak eta (3); harresiak ikusi (3); harresiak suntsitu (4)

hiriaren harresiak (3); hiriko harresiak (6); jerusalemgo harresiak (10); zure harresiak (5)

eta **harresian** (4); **harresian zehar** (3); **hiriko harresian** (3)

berlingo harresiaren (3); **duen harresiaren** (3); **eta harresiaren** (6); **harresiaren aurka** (3); **harresiaren aurkako** (3); **harresiaren aurrean** (5); **harresiaren azpian** (3); **harresiaren beste** (5); **harresiaren beste aldean** (4); **harresiaren gainean** (5); **harresiaren gainetik** (7); **harresiaren inguruan** (5); **harresiaren kontra** (10); **harresiaren ondoan** (7); **harresiaren parte** (3); **hiriko harresiaren** (3); **kanpoko harresiaren** (4); **zuen harresiaren** (6); **zuten harresiaren** (3)

harresiek eta (3)

bi harresien (4); **bi harresien arteko** (3); **eta harresien** (5)

harresien arteko (4); **harresien arteko atetik** (3); **harresien aurkako** (3); **harresien aurrean** (7); **harresien barruan** (5); **harresien beste** (3); **harresien gainean** (7); **harresien gainera** (3); **harresien gainetik** (7); **harresien inguruan** (5); **harresien kontra** (5); **harresien zaharberitze** (3)

eko harresien (3); **eko harresien zaharberitze** (3); **hiriko harresien** (9); **iruin iruin**

europa gotorlekuko harresietan (4); **gotorlekuko harresietan** (4); **hondarribiko harresietan** (4); **mousserolles harresietan** (3); **zure harresietan** (3)

eta harresietatik (3); **harresietara hurbiltzen** (3); **harresietatik kanpo** (9); **harresietatik kanpora** (4); **harresiez kanpora** (3); **hiriko harresietara** (3)

harresiko ate (6); **harresiko ate bat** (3); **harresira hurbildu** (3)

aurpegia harresituz (4); **barru harresitu** (3); **barru harresitua** (4); **barru harresituak** (6); **barru harresituaren** (4); **bere aurpegia harresituz** (4); **hiri harresitu** (3)

eta harresiz (5); **harresiz inguratu** (3); **harresiz inguratua** (6); **harresiz inguratutik** (4); **harresiz kanpoko** (4)

harresidun *izond* harresia duena; harresiak dituena.

Minas Tiritheko burgu **harresidunetatik** egun batera zeuden apenas. **Agustin Otsoa**

Turuta-hotsak eta gudu-oihuak izango dira egun hartan hiri **harresidun** eta dorre garaien aurka. **Elizen arteko biblia**

Harresidun hiri bateko etxebizitza saltzen duenak mugatua du berreskuratze eskubidea. **Elizen arteko biblia**

harresipe *iz* harresiaren azpialdea.

Adio, beraz: **harresipean** naiz, hamaiketarik hamabietara bitartean, zuengana bilduko. **Juan Garzia**

Karrika estua eta **harresipekoa** zen. **Felipe Juaristi**

-Ez izutu, Amadisek ez du Oriane tronpatuko -oihu egin zidan **harresipetik**. **Aingeru Epaltza**

harresitu, harresi(tu), harresitzen **1** du *ad* harresi batez itxi edo babestu.

Erakusmahai baten gibelean **harresitutako** bulegari mari-ozpinak. **Aingeru Epaltza**

Zure izter esnetsuak bere aurpegia **harresituz**, eta bere ahoa zure ezpainak arakatzen. **Eider Rodriguez**

2 (era burutua izenondo gisa)

Herri **harresitu** batetik sorturiko hiri gisa. **Askoren artean**

Hiri **harresitu** eta bere baitara bildu hartako Parte Zaharrear. **Askoren artean**

Deskribitu zauzkitan erregearen jauregiak, Iruñekoak, gaztelu **harresitua** eta hotza, [...]. **Michel Oronoz**

Haren begien aurrean barruti **harresitu** biribil bat ageri zen, bi katedral, hiru jauregi eta armategi bat barnean hartzen zituen. **Karlos Zabala**

Barru **harresituak** egin behar direnean. **Santiago Iruetagoiena**

Barru **harresituaren** itzuli guztia. **Santiago Iruetagoiena**

Tunelak egin eta barru **harresituan** lurpetik sartzeko asmoa hartu zuen. **Santiago Iruetagoiena**

harresitzar *iz* *adkor* harresi handia.

Bikote famatua Miarrizetik iritsi zenean, oraindik Donostiako **harresitzarra** zutik zegoen. **Txillardegi**

harrespil *iz* Neolito Aroko hileta-oroigarria, lurlean gunea biribil bat mugatzen duten menhirrez osatua.

Hor ditugu lekuko orduko artzainek utzi trikuharri, **harrespil** eta gaineratikoak. **Herria**

Gure mendi-lepoetako mairu-harri, baratze ta **harrespilak**. **Herria**

Paradisua ikusten du Oteizak **harrespilen** espazio erlijiosoan. **Anjel Lertxundi**

Amaiurren Mirandako kondeari eta Leringo etoiaren semeari, Orreagan Errolani eta Zelatunen erromatarrei aurre egin zietenak...; **harrespil** eta trikuharrien egileenganaino heldu arte. **Juan Luis Zabala**

Harrespilak, berriz, Leitzarango ibaitik Baqueira bitartean daude. **Berria - Kultura**

Urrunago, Elorrietako lepoa, **harrespil** gunea, aspaldiko arbasoen pausaleku baketsua. **Herria**

harrezkero **1** *adlag* aipatu den une edo denboraz gero.

Harrezkero deitzen diote "Deabrua". **Josu Zabaleta**

Harrezkero inork ez zien ukatuko gehiegikeriaren xarma behintzat. **Patxi Iturritegi**

Sade, **harrezkero**, perbertsoaren, sadiakoaren erredua da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Harrezkero soto ilun hartako txokoren batean kukuturik egonen zen, xagu izutia bezain gris eta dardarati. **Alberto Ladron Arana**

Urte asko joan dituk **harrezkero**, ia bizitza oso bat. **Xabier Olarra**

Gau batez diskoteka batean ezagutu nuen eta **harrezkero** niri segika dabil. **Patxi Zubizarreta**

Gurasoek ziotenez, bi minutuan osatzen zituen bostehun zatiko puzzleak umetan, eta, **harrezkero**, bost milakoak eman behar izan omen zizkioten. **Xabier Olarra**

Santa Klara, **harrezkero**, oso kontsolaturik geratu zen. **Askoren artean**

Gau hartan -eta batez ere **harrezkero**- piztu egin ez ziren lagunen lanparak bezain ilun geratu nintzen, eta bete-betean dastatu nuen irainaren zaporea. **Patxi Zubizarreta**

Herbert ez da, ordea, **harrezkero**, inoiz Palenquera joan! **Joxe Austin Arrieta**

Han ez da bakerik izan **harrezkero**. **Pello Salaburu**

Egundoko putakeria egina ziotela, diru mordoa galdua zuela **harrezkero**. **Sonia Gonzalez**

Zenbat urte igaro ote dira **harrezkero**? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bizitza ez zen berriro lehengoa izan **harrezkero**. **Xabier Olarra**

Keinu horrek ez dit gehiago alde egin, **harrezkero**. **Josu Zabaleta**

2 *harrezkeroko izlag*

Harrezkeroko jardunak erakutsi duenez, ondo bete ditu jarritako helburuak. **Koldo Zuazo**

Obra berari eginiko **harrezkeroko** aipuetan. **Askoren artean**

Ez zuten uste elakunien arriskuaren zegoenik, eta **harrezkeroko** haren ekintza agerrikoak baina adore handiagoko erakutsiko dute. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Halako batean emazte-ohia, orain beste batekin maiteminduta dagoen emakumea, han agertu eta **harrezkerokoak** kontatzeko. [Edorta Jimenez](#)

3 harrezkeroztik adlag

Harrezkeroztik, esperantza eztiak ordezkatu du kezka krudela. [Jon Muñoz](#)

Harrezkeroztik bizitza interesgarriago bihurtu zitzaion Del Valleri. [Alberto Ladron Arana](#)

Hannak **harrezkeroztik** zer egin duen ere ez dakit; horretaz hitzik ere ez. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ikasleek, **harrezkeroztik**, ezkutuan egiten zituzten bihurrikeriak, eta, jakina denez, agerikoak baino okerragoak izaten dira horiek. [Jose Morales](#)

Bigarren tomoa 1855ean argitaratu zen lehen aldiz, eta, **harrezkeroztik**, "lehen aldaera" hori argitaratu dute beti. [Jose Morales](#)

-Badakit amona ez dela ezfitan bizi izan, gaztetan behinik behin, baina urte asko joan dira **harrezkeroztik**, aita. [Jon Muñoz](#)

harri (ETCn 27.970 agerraldi) 1 iz mea materia gotorra, lurrazalean masa trinkoetan aurkitzen dena.

Ur geldian **harri** bat botatzen denean gertatzen denaren antzera. [Santiago Iruetagoiena](#)

Ez bota **harririk** zabor-biltzaileei, laztana. [Javi Cillero](#)

Ni saiatuko naiz **harri** hauetako batzuk mugitzen. [Iñaki Mendiguren](#)

200 **harri**, lerro lerro ezarriak. [Herria](#)

Haietako bat horma amaigabeen gora abiatzen ikusi nuen, azazkalak **harrien** kosketan iltzatu nahian... [Juan Kruz Igerabide](#)

Atearen arkuko **harriak**. [Bernardo Atxaga](#)

Baratxuria **harri** baten gainean jarri eta kolpe bat ematen diot. [Anjel Lertxundi](#)

Beste bele batek karranka egin zuen orduan, baina oraingoan mutilak **harri** bat jaurti zion. [Patxi Zubizarreta](#)

Manifestariak **harriak** eta molotov koktelak jaurti zituzten Poliziaren hesiaren aurka.

Erortzen ari ziren **harrien** hotsa entzun zuten. [Askoren artean](#)

Lehenagoko paretak zahar **harri** eta lur jasotako haiek. [Pello Zabala](#)

Ermitea kaxkar bat ikusi baitu, **harri** eta arbelez egina. [Bernardo Atxaga](#)

Iturri horretan, hain zuzen, inskripzio bat dago **harriari** idatzia. [Santiago Iruetagoiena](#)

Harriaren minbizia deitu zaion kalte berezi hori. [Pello Zabala](#)

Harri bat bi mintzairetan duena bere idazkia, frantsesez eta euskaraz. [Herria](#)

Harriak bikandu egiten dira katedral bateko **harri** izanez. [Josu Zabaleta](#)

Baliteke behinokako animalien bizkaralde zorrotzen antza izatea, baina nik badakit harkaitzak direla, **harriak**, bolkanikoak seguru aski. [Joxe Austin Arrieta](#)

Baina ez dut ikasten, eta berriro **harri** berean egiten dut behaztopa. [Juan Kruz Igerabide](#)

Harri hau, uharririk hau, ikusten duk? [Patziku Perurena](#)

Hara hor eskukada bat **harri**, andre, Baratzean, hortxe zeure leihoan. [Koro Navarro](#)

Lantegiaren geroa bermatzen duen margotzeko bigarren plantaren lehen **harria** jarri zuten. [Berria - Ekonomia](#)

Hiru proiektuetarako lehenengo **harria** jarri dugu. [Berria - Euskal Herria](#)

Errobi bazterreko Glain zelaia serioski lumatuko duen egitura berriaren lehen **harria** pausatu du auzapezak. [Herria](#)

Zulo bat ageri zen lurtean, **harrien** artean. *ik* harriarte. [Xabier Aranburu](#)

Euria **harri** artean bezala lerratzen dira lur azpira denbora horiek. [Juan Kruz Igerabide](#)

Harri arteko belarra jaten ari diren berrogei edo berrogeita hamar ardi. [Bernardo Atxaga](#)

Ahal baginu, zuekilaran gogotik itzuli bat egin nezake Arrolako **harriraino**. [Michel Oronoz](#)

Oraintxe bertan zuk edateko **harritik** atera duen ura. [Askoren artean](#)

Harriz egindako baserri bat utzi nuen eskuinean. [Koldo Izagirre](#)

Metro beteko horma, **harriz** eta zementuz egina. [Juan Kruz Igerabide](#)

Budaren irudi txikiak ikuskatu nituen erdi itzaletan, aspaldiko mamu **harriz** eginak ilunabarreko haizeñoarekin etorriak bailiran. [Javi Cillero](#)

2 (izenondoekin)

Bazuen, alde batera, arrabotea izana zen bat, **harri** pikatu zaharrezkoa. [Herria](#)

Harri biribil batzuk, berak errekan bilduak. [Joan Mari Irigoien](#)

Bi minutuko atsedena, **harri** borobil batean jarririk. [Piarres Aintziart](#)

la erori ere egin zen **harri** labain batek oinpean huts egin zionean. [Hasier Etxeberria](#)

Harri xabala jarleku goxo bilakatzen zait. *ik* harrixabal. [Piarres Aintziart](#)

Harri xapalak erabiliz, zozketa egin genuen, eta Eurilokori egokitu zitzaion joatea. [Juan Kruz Igerabide](#)

Teilatuak ez ziren lastozkoak, **harri** zabal lauzkoak baizik. [Juan Garzia](#)

Gero Jaun Bautista etorri zen arroken artean, **harri** zapal bat eskuan. [Joseba Sarrionandia](#)

Ur bazterrean iristean **harri** gotor bat hartu zuen, bere zakutxoan eman, eta uretara erorarazi zuen. [Elena Touyarou](#)

Erreka jaiotze berriaren ur transparentea eta **harri** leunez osatutako hondoa. [Bernardo Atxaga](#)

Harri leunduzko eskaileretan zehar. [Juan Garzia](#)

Sukarrik edo **harri** gogorrezko ilarak egiten dituzte. [Santiago Iruetagoiena](#)

Harri leunezko disko banaz gailurturiko lau edo sei enborren gainean bermaturik. [Juan Garzia](#)

Harri bigun horiek guztiek abantaila bat izaten dute, alegia, harrobitik atera ondoren erraz landu daitezkeela. [Santiago Iruetagoiena](#)

Harri kaskarrez eginiko hormaren irtengune ugarien artean. [Juan Kruz Igerabide](#)

Harri hutsez egindako paretak. [Elizen arteko biblia](#)

Harri bolkaniko horrek sortzen dituen irisazioak. [Berria - Kultura](#)

Harri karstikoz egindako etxe zuriek. [Anjel Lertxundi](#)

Harri nobleak, **harri** arrosa edo ia arrosak. [Bernardo Atxaga](#)

Hamaika kiloko magnetofoiak, 315 kiloko **harri** koadroa baino handiagoko idazmakinak. [Joxerra Garzia](#)

Zuloak estaltzeko erabiltzen zen **harri** zilindroarekin lurra zanpatzera. [Juan Kruz Igerabide](#)

Burdinaren txiribilak brontzeko edontzietan ezin kabituz, azpian **harri** magnetikoa ipintzean. [Xabier Amuriza](#)

Hango itsasoa da guziz perilosa, **harri** imantatuak baitira han nonahi, hitze eta burdinezko piezak dituzten ontziak bereganatzen baitituzte eta ez baitira gehiago handik lekutzen ahal. [Aurelia Arkotxa](#)

NASAko ikertzaileen arabera, esfera horiek **harri** porotsuetan sartutako sedimentuek sortuak dira. [Berria - Gaiak](#)

Horretan **harri** ertz-zorrotz batek kopeta erdi-erdian jo zuen piztia. [Josu Zabaleta](#)

Ikustekoak dira ere hor dauden **harri** pikatu pezak harresietan, nola ate gainetan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

3 (izenlagunekin)

Harriak bertan landuriko **harriak** ezarri zituzten. **Elizen arteko biblia**
Bidearen bihurgune bakoitzean, landutako **harri** handiak goratzen ziren. **Agustin Otsoa**
Neurrira landu eta zerraturiko **harri** bikainez egin zituzten oinarrietatik habeetaraino. **Elizen arteko biblia**
Landu gabeko **harriak**. **Elizen arteko biblia**
Etrurian, erretako **harria** ikatz-hauts egiten da. **Santiago Iruretagoiena**
Granitozko **harrian** idatziak. **Edorta Jimenez**
Marmolezko **harria** hilobiaren gainean ipini zutenean. **Aritz Gorrotxategi**
Erakuslean eraztun bat zuen, zilarrezkoa, gailurrean kristalezko **harria** zuena. **Lander Garro**
Arbelezko **harri** laua landatuz eginak dira. eskuan gatzeko **harri** bat zeukala. **Piarres Aintziart**
Arrautzen tamainako **harri** jelatuak bota zituen, eta izugarritzko triskantzak eragin, mahastietan. *ik beherago 7.* **Pello Zabala**
Harrobiko **harriak**. **Bernardo Atxaga**
Urteek higaturiko **harri** grisezko eraikina. **Agustin Otsoa**
Erdi-erdian haritz handi bat hedatzen zen, eta honen inguruan, oboan, eserleku gisako **harri** landuak zeuden zut jarrita. *ik harlandu.* **Joanes Urkixo**
Eihera zahar baten aitzineko **harri** gainean jarririk pixka bat jaten dut. **Piarres Aintziart**
Hormetako **harriek** ere oihu egingo dute zure aurka. **Elizen arteko biblia**

4 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Zer dugu bada **harri**- lan hau? "argia" harturik gai nagusizat, harriaren bi eskualdeak zizelkatuak dira. **Herria**
Goragoko **harri**-ilarak botatzen hasi ziren, eta pixkanaka eta era horretan, gotorleku guztia behera bota zuten. **Santiago Iruretagoiena**
Bide bazterrean **harri** meta bat ageri da. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Bildutako **harri** pilo handiak erakutsi zuen hura ez zela irudipena izan, ez baitzen **harri**-faltarik izan obra burutu zuten arte. **Askoren artean**
Harri peza haundiz egina izan den dorrea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Plaza horren inguruan diren etxe guzien aintzineko lurra, herriko etxea barne, **harri** lauzaz estaltzen hasi dira, lekuko **harri** lauzaz larriz ate aintzina, **harri** lauzaz xehez gaineratekoa. *ik harlauza.* **Herria**
Lehenengo **harri**-geruza jarri ondoren, hartxintxarrak zabalduko dira. **Santiago Iruretagoiena**
15-16 kilometroko hodeitzar horietako batek ia bi kiloko **harri** kaskoak bota izan ditu gure lur azal ekaitzez kastigatutako honetan. **Pello Zabala**
Hondarren pila batean **harri**-xalfa politen bat bilatzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ilbeheran ebakita, gogorragoak eta lehorrakoak izango ote ziren, akaso, **harri**-zotal haiek...? **Pello Zabala**
Oin bat, nekeagatik **harri** karga astuna bezain pisua zirudiena. **Felipe Juaristi**
Asteasuko plazan jokatu zen **harri** apustu bat datorkit gogora. **Bernardo Atxaga**
Harri hots arin bat entzuten zuela iruditu zitzaion. **Joanes Urkixo**
Ekaitz trumiltsu eta **harri**-jasa gaiztoetatik libre ateratzeko. **Pello Zabala**
Halako **harri**-jausia eragin zuen goiko Subasio menditik behera, ezen [...]. **Askoren artean**
Erran digutenez, horrela ibili zen maisua, dorretik **harri**-jaurtikika. **Joan Mari Irigoien**
Neska zarpatsu talde baten atzetik oldartu zen, bere **harri**-jaurtigailua, kargatu gabe, keinatzen ziela. **Irene Aldasoro**
Harri botaka aritu nintzen ahaterik gabeko putzuan. **Koro Navarro**
Ofizio eskola bati buruz igorri zuen eta **harri** zizelkari CAP-a pasatu. **Herria**
Jaunaren gorespen kantak amaitu ondoren, **harri** eskean hasi zen, lehen aipatutako eliza berrizatzeko. **Askoren artean**
Gau hartan **harri**-garraioan ibili ziren jenoak. **Anjel Lertxundi**

5 (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Harbantako zoko horretan, XVIII. eta XIX. mendean burdin **harria** ateratzen zuten, Orbaizetako fabrikara edo olara eramateko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Rodmundarrok bakarrik dakigu, haatik, harria aurkitzen eta berun **harri** zinezko dela ziurtatzen. **Juan Garzia**
Sekula hausten ez den azabatxe **harria**. **Felipe Juaristi**
Silex **harri** arruntekin. **Santiago Iruretagoiena**
Beste hainbeste gertatzen da silize-**harriarekin** ere. **Santiago Iruretagoiena**
Zubiaren granito-**harria** epeltzen hasirik zegoen. **Irene Aldasoro**
Marmol-**harri** leituaren gainean hotzak izoztu zaitzan. **Xabier Amuriza**
Harrolioarekin jazo dena bauxita-**harriekin** jazo ez dadin. **Edorta Jimenez**
Iman-**harritzko** mendia eta bere ongilea hilko duela zin egin duen jainua. **Juan Garzia**
Haren asmoa aurrealdea Salzburgoko gatz-**harri** zuriz egitekoa bazen ere. **Felipe Juaristi**
Handik ateratzen den motako esponja-**harri** hori, ordea, ez da leku guztietan aurkitzen. **Santiago Iruretagoiena**
Ur gainean geratzen dira apar-**harriaren** antzera. **Santiago Iruretagoiena**
Kansasko lurpeko xaboi-**harri** gorri antzinakoetan. **Xabier Olarra**
Lau hormak itsas **harri** zuriz eginak ziren. **Felipe Juaristi**
Ibai-**harritzko** ezetz biribilak, hitzezko kromletx hutsak. **Joxerra Garzia**
Jende gehiago hil zuen kazkabar-**harriak** israeldarren ezpatak baino. **Elizen arteko biblia**
Su-**harri** horiekin egiten ziren lehenengo aizkorak. **J.M. Olaiola "Txiliku"**
Tximistak harrien barneetara sartutako suzko harriak zirela sinestea, tximist-**harri** bitxiak zirela sinestea. **J.M. Olaiola "Txiliku"**
Nobleak dira batzuk [...] merkatariak dira besteak: biek ala biek jarri dituzte hiriaren zimendu **harriak**. **Felipe Juaristi**
Horma-**harrietan** ernetzen den itze belarrak. **Elizen arteko biblia**
Karrika hertsia hori segituz [...] beste atal-**harri** bat ikusten da, hau aldiz espainolez. **Michel Oronoz**
Sakrifizio-**harriak** odoleztatzen dituzte eta aldaerak oparizatzen. **Xabier Amuriza**
Erretaula bat, erretaula bi eta bereziki, gibelean, bataio **harria**. *ik bataiarri.* **Piarres Aintziart**
Airean zihoazen zurubietan gora, erlaitzetan galapan, Zurrut-**harriz** zurrut-**harri** jauzika. **Josu Zabaleta**
Arropa zikina hartu, eta lixiba-**harriaren** kontra lehen baino gogorrago hasi ziren joka. **Felipe Juaristi**
Lurrunez funtzionatzen zuten zapalgailuak bezalaxe eginak, baina aurreko alper-**harria** gabe. **Koldo Biguri**
Ez zuten lan guti egiten, ezen baziren lau eihera **harri**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Mailu bat eta zutoin-**harri** bat inguratu, eta ikusarazi diot zein erraz den xalfa eta orritan ematea. **Juan Garzia**
150 olio zein tinta, 15 litografia **harri** eta 77 grabatu izango ditu museoak. **Berria - Kultura**
Jainkoaren beldurra zela jakintasunaren haste eta printzipio, sostengu eta lehen-**harri**. **Joan Mari Irigoien**
Egia filosofiko horrek antz handia zuen talka-**harri** filosofalarena... **Josu Zabaleta**

6 (erkaketetan)

Halabeharrez, **harria** baino isilago geratu naiz. **Patxi Zubizarreta**
Astiroago inguratu, eta aita ikusi nuen, **harria** baino geldiago, odol arrasto nabarmenik gabe eta burua bolantean pausatua zuela. **Patxi Zubizarreta**

Lo geroa hartan ordea, sentimena galdurik bezala nengoen, ez harriturik, ez haserre, ez ezer; inguruko **harriak** baino hotzago. Juan Kruz Igerabide

Lo pisu batek hartu zuen, **harriak** bezala lo egin zuen, zabal eta zabar. Jose Morales

Oheak **harría** bezain gogorrak ziren. Iñaki Mendiguren

Harría bezain gogor, sugea bezain sotil, ekaitza bezain gaizto. Itxaro Borda

Bere menditar pauso luzeaz zebilen, elur **harría** bezain gogorra bere makilaren burdinazko muturraz joz. Josu Zabaleta

Eta orduan, aurpegia **harría** baino sorrago, ezkongaietako eratzuna kendu nuen eta haren eskuaren gainean utzi. Karlos Zabala

Atsotxo zimurtsu, haserre, zarpail eta **harría** lakoxe gor gisa [dirau] haurtzaroko nire oroitzapenik urrunetan. Juan Garzia

Buruia **harri** bat bezala erori zen. Agustin Otsoa

Jaun Marcel, buztina bezala, moldagarria zen, eta aita Bartolome, **harría** bezala, zurruna eta guztiz moldagaitza. Joan Mari Irigoien

Eusteko ahalegin gogorrean aspertu eta bere burua **harría** legez hondoratzen uzten duen naufragoaren gisa. Juan Garzia

Lur-pean bezala atxiki zituen beldurrak betiko, **harri** gogor eta hotza bezain mutu, hor bizi ziren aitama gaixoak. Michel Oronoz

Peppone **harri** baten antzera erori zen. Koldo Biguri

· Nire lehendabiziko maite-harremán hura, hain inozoa, oroimenean zizelkatua geratu zitzaidan, **harri** gogorrean bezain. Juan Kruz Igerabide

Urte luzeek gutxitu eta leundua zuten, urek **harri** bat nola. Juan Garzia

Harriak balira bezala jaurtikitzen zituen osabak hitzak, mihian gorde gabe. Joan Mari Irigoien

Goienkaletik Ontziolara aldatutako mamua balitz bezala itxaron zien hantxe, **harriaren** egonarriarekin. Joseba Sarrionandia

7 harraska. ik harriko 2.

Sukaldeko **harrían** bertan garbitu eskuak eta eskutrapuarekin lehortu zituen, eseri aurretik. Joxemari Urteaga

Azken zurrutada eman kafesnari eta, katilua **harrían** utzi ondoren, jaka jantzi eta jaitsi zen atezainarenera. Joxemari Urteaga

Garbiketa egin beharko luke: atzoko soberakinak plateretan gogortzen, **harría** gainezka. Sonia Gonzalez

8 ale larriko kazkabarra, harri erauntsia.

Santes Creuseko bailaran, intxaur eta arrautza tamainako **harría** bota zuen, eta uzta guztia erabat hondatu. Pello Zabala

Valentzia eta Murtzia aldean, **harriak** 750 milioiko kalteak egin omen zituen. Pello Zabala

Ahuntzak bai! beldurra eta izua diote **harriari**. Pello Zabala

Jainkoaren haserre ezituzeko, airea benedikatzeko eta **harría** urruntzeko. Ekaitz beldurgarri batean, haize eta **harri**, San Felix elizako dorrea jausi zen Gironan kalera. Michel Oronoz

Maiatzaren 30ean, uholde eta **harri**, monasterioa suntsitu zuen erauntsitar batek. Pello Zabala

Ekarri dauku aldi huntan uztailak, gure xokoa, tenpesta, doi bat **harrirekin**. Herría

Kazkabar eta **harri**-erauntsiak ere noiznahi ageri dira azken mende honetan. Pello Zabala

9 giltzurrintetako, bixikako edo gernubideetako gogorgunea.

Izerdi hau hartzen zuten goizean baraurik, giltzurrunetako **harriak** desegiteko eta hezuerian oinako minak kentzeko. Pello Zabala

Batek giltzurruneko **harri** bat erakuts diezaioke gaixo bati, baina gantz eta haragi puxka odoltsu malapatatu bat, erakusteko ote da? Xabier Olarra

Kolera agerraldi masiboak, beherakoa, goitinahia eta giltzurrunetan **harriak** izaten ari da, ur kutsatua hartzeagatik. Berria - Mundua

10 haxix zatia.

-Ba taberna hau ez zagok hain txarto -dio Pituk kosto **harri** itzela lantzen duen bitartean--Eta hik nondik atera duk hori? -dio Axierrek begiak zabal-zabalik **harría** seinalatuta. Sonia Gonzalez

Eskua utzi, basoa lurrera jaitsi eta haxix **harría** urtzen hasi da. Pako Aristi

11 harri jasotzaileak erabiltzen duten harri landuzko atala.

Euskal Herriko txapelduna da **harri** handi eta txikiekkin.

Irailearen 12an Euskadiko **harri** handietakoa eta kintopekoena jokatu dira Leioan (Bizkaia); **harri** txikietakoa, berriz, urriaren 24an. Berria - Kirola

Lau **harri** erabili beharko ditu: 125 edo 150 kiloko koadroa, 125 edo 150 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kuboa eta 100 kiloko bola. Berria - Kirola

Bi **harri** erabiliko dituzte: 137 **harri** kubikoa eta 125 kiloko bola. Berria - Kirola

30 kiloko **harri** biribila erabiliko da, eta minutu bateko tartean jasoaldi gehien egiten duena izango da garaile.

Hamabi arroako **harría** bizkarrean berdindu. Iñaki Segurola

Ehun eta berrogeita hamar kiloko **harría** esku bakarrez bizkarreratzeko. Juan Kruz Igerabide

Leitzarrak 2002ko abenduaren 22an jaso zuen 205 kiloko **harri** zilindroa esku bakarrez. Berria - Kirola

Bi **harri** erabili zituzten: 100 kiloko zilindro zaharra eta 100eko bola, bosna minutuko txandatan. Berria - Kirola

Harri handietako Euskadiko txapeldun ohiak eite zaharreko **harri** koadroa erabiliko du; 200 kiloko **harri** pottokoa, alegia. Berria - Kirola

Gaur egun darabilten 225eko koadro berria baino gaiztoagoa da jasotzeko 200eko **harri** motz hori. Berria - Kirola

Aiakoak **harri** kubikoaren pisua zertxobait jaitea eskatu zuen. Berria - Kirola

Zergatik hasi zinen **harri**-jasotzen? *ik beherago* 32. Berria - Kirola

Harri horrekin, 18 jasoaldi bost minutuan, joan zen urtarrilaren 31n, Donostian. Berria - Kirola

Hamaika kiloko magnetofoiak, 315 kiloko **harri** koadroa baino handiagoko idazmakinak. Joxerra Garzia

Izan ere, gizonak **harría** askotan jasoko du lepagainera, baina **harriak** behin gizona botatzen duenean, akabo, horrek ez dauka bueltarik. Pako Aristi

· Areatzan jokatu zen proban, eta 930 kiloko **harría** bi untean 56 metro eraman zuen 9 minutu eta 20 segunduan (3 m 50 s eta 5 m 30 s). Berria - Kirola

Garaileak 1.700 euroko saria jasoko du, eta idiek 1.750 kiloko **harría** erabiliko dute. Berria - Kirola

12 izotz puska.

Beatricek -ez nuen gutxiago espero- vodka hutsa eskatu dio, **harri** birekin. Iban Zaldua

12a arg granada.

Eskabadoraren inguruan jarri ziren hirurak, nork bere **harri** -granada- mordoxka ondoan zuela. Jokin Muñoz

13 harrizko harriz eginikoa.

Etxe bat ageri da, **harrizko** etxe handi balkoiduna. Koldo Izagirre

Toledoko kondanatuen ziega guztiek bezala, **harrizko** lurra zuen. Koro Navarro

Harrizko bidetik behera abiatzen dira. Agustin Otsoa

Kaleko lorontzi **harrizko** bat, kaio-zirinez zuritua. Anjel Lertxundi

Gelatroaren hormak zurezkoak ziren, ez **harrizkoak**. Askoren artean

Alde egin du helikopteroak, **harrizko** paisaia ilargarit honen handitasunean zuek bakarrik utziz. Xabier Montoia

-**Harrizkoa** al duzu bihotza, ozpina al dabilkizu zainetan? Anjel Lertxundi

Harrizko begiak ziren, beren harriduraren erakusle. Felipe Juaristi

Ez gara **harrizkoak**, Damian. Hasier Etxeberria

14 behaztopa harri

Bide luzea, **behaztopa-harriz** josia, bainan, azkenean denak gainditurik Alemaniako buruzagietan lehen emaztea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kirkek Homerori heldu eta bide erdian traban topatu zuen **behaztopa harri** berbera. Erromatar armadan soldadutza egiteari dagokionez, behaztopa-**harri** izan zen kristautentzat. Itxaro Borda

Fedean oinarritu beharrean, egintzetan oinarritu zirelako. Horrela, **behaztopa-harriari** egin zuten estropezu. Herria

Berak konbertitu nahi zituen gizarte ez-kristauen bidetik **behaztopa-harri** bat kentzean, beste bat jartzen ari zela bere erlijiojokideen aurrean. Itxaro Borda

15 bideko harri beltza

Bideko **harri** beltza da Itoitiz; sistema judizialarentzat eta Espainiako Konstituzioarentzat proiektu lotsagarria. Eduarne Elizondo

16 dema harri

Kostatu egingo zitzaidala, oinez eta dema-**harriari** tiraka. Joxean Sagatzizabal

17 filosofoen harri

alkimistek erabiltzen zuten gaia, metalak eta beste zenbait gai urre bihurtzen saiatzeko.

Berrehun urtetik gora zeuzkala alkimistak, zioten: **Filosofoen** Harria eta Bizitza Iraunkorraren edabea aurkitu zituela. Xabier Aranburu

Ikasi dut alkimista askok bizi izan zutela Norberaren Kondaira eta, azkenik, aurkitu egin zituztela Munduaren Arima, **Filosofoen** Harria eta Edabea. Xabier Aranburu

Sekula Alkimiaz deus entzun ez dutenak, baina beren bizitzaren bidez **Filosofoen** Harria aurkitu dutenak. Xabier Aranburu

Oraingoz bilaketa modurik erraz eta azkarrena da, baina bilatzaileek interneteko **filosofoen** harriaren bila darraite. Berria - Ekonomia

18 galtzada harri (orobat galtzadarri)

Galtzada-harri arrosaz zolaturiko plaza da. Monika Etxebarria

Korroan hasi eta nola joan ziren nire hezurak **galtzada** harrietara. Joxean Sagatzizabal

Ezker-eskuin muinoan gora hedatzen diren **galtzadarrizko** kaleekin. Urtzi Urrutikoetxea

Galtzada-harrizko kale pikoan gora goazela. Xabier Olarra

Galtzada-harrien tamainako [...] sorginkeria-liburuaren erakusketaren orde. Iñaki Mendiguren

Han ikasleek soldaduei **galtzadarriak** bota zizkieten. Fernando Rey

19 harri-altxatzaile harri-jasotzailea.

Ikusgarriaren bururatzeko Iñaki Perurenak **harri** altxatzale famatuenerarik bat, 100 eta 220 kilo arteko harriak bere semearekin batean altxatuko ditu. Herria

Saralegi **harri** altxatzale gaitza ere hor izanen da. Herria

Aratsaldean 3ak eta erditan Indar Jokoak **Harri** altxatzailea barne. Herria

20 Harri Aro

Zeren **Harri** Aroko hizkuntza omen baita euskara, hala esan dizute behin baino gehiagotan. Pello Salaburu

Harri Arokoak omen diren gure aizkorek. Pello Salaburu

21 harri batek bi aldiz jo

Harri hark, zorionez, ez ninduen bi aldiz jo. Joan Mari Irigoien

22 harri batez bi kolpe harri batez bi txori

Horra **harri** batez bi kolpe egitea. Jon Muñoz

Bi kolpe **harri** batez. Iñaki Iñurrieta

· **-Harri** bakar batez bi kolpe -ulertu zuen Diannek. Fernando Morillo

23 harri batez bi txori

Erre ezazu, ba: **harri** batez, bi txori. Koldo Biguri

"**Harri** batez bi txori", pentsatu zuen Dembak, eta eskaileretan gora abiatu zen. Anton Garikano

Halatan, Marseillako Sainte-Marthe bil-zelairaino zihoala, **harri** batez bi txori, Aljeria frantses zaintzerakoan, hango frantses-eskualdunak salbatuko zituztela barnertzen zuten Beinatek. Itxaro Borda

Zeren, baldin hark nahi duena zuek baduzue, eta baldin zuek nahi duzue hark badu, **harri** batez jo baititzakegu bi txori... Joan Mari Irigoien

· Ikastolak urte bukaera bakoitzean antolatzen duen bestarekin, **harri** batez bi xori eginez. Berria - Euskal Herria

Harri batez bi xori, beraz, egin da Alduden. Herria

· **Harri** batez bi zozo ehoz, hautetsiei nahikoa zitzaien laborantzaren subentzionatzea, Herriarekin eta Jainkoarekin bakean jarduteko. Itxaro Borda

· Zergatik ez dituzten **harri** batez hiru xori harrapatuko haur horiek: euskara lantu, kantatzen eta bertsuak idazten ikasi, euskal erakustokia ezagutzearekin batera? Herria

24 harri bihurtu ik harritu 3.

-Nire katua **harri** bihurtu dutel! -deiarad egin zuen, begiak irteteko zorian-. Iñaki Mendiguren

Ikusten da uretan murgilduta egon den [kanabera] zatia **harri** bihurtuta dagoela. Santiago Iruretagoiena

-Harri bihur nadila baldin eta arrosarioa lapurtu badut. Martin Anso

Norbaiten hitza antzutzeko ez dago norbait hori jainkotzea eta **harri** bihurtzea bezalako xixtimarik. Iñaki Segurola

Sorgorturik nengoen, **harri** bihurtuta. Alberto Ladron Arana

25 harri bizi

Horrela, zuek ere **harri biziaz** osaturiko espirituzko tenplu egingo zaituzte Jainkoak eta apaiz sagaratuko. Elizen arteko biblia

Alde guztietatik etorri zen jendea, samaldan iritsi ziren, eta oso laster bildu ziren tenplu zoragarri honen egitura ospetsua eraikitzeko **harri biziak**. Askoren artean

· Urrez ehundutako oihal hori txanoan sartzen zen atzealdetik, zeina **harri bizi** garestienez izarturik zegoen. Karlos Zabala

· Eta harriak zeuden, **harri** biziak, oihartzunetarik mintzo zirenak eta oihuekin oihu egiten zutenak, hasperenekin hasperen. Joan Mari Irigoien

26 harri egonda/eginik ik harritu.

Baina, **harri** eginik nengoen arren, harro nengoen. Joan Mari Irigoien

Bertze jauntxo guztiak, berriz, **harri** eginik zeuden, norat beha ez zekitela. Joan Mari Irigoien

Christianen erantzunak, guztiz ustekabekoa izan zelako-edo, **harri** eginda utzi ninduen. Bernardo Atxaga

Harrezkero, etxetik atera gabe bizi da bertan, bainuontziari begira, **harri** eginda. Josetxo Azkona

· **Harri-harri** eginda geratu zen emazteak esan zionean beste neskame bat hartu behar zuela, zertarako eta umeekin laguntzeko! Jokin Muñoz

27 harri-erauntsi ik beherago 33; ik harriabar.

Gandian, tximist-trumoi eta **harri** erauntsi ikusgarriak bota zituen. Pello Zabala

Harri erauntsi eta galerna gaixtoak urrun dituen. Herria

Eta tigreak orro egiten zuen, eta ahal zuena egiten zuen **harri**-erauntsi hartarik libratzeko. Joan Mari Irigoien

Hor agertzen dira tarteka **harri** erauntsiak egindako triskantza eta hondaketak. Pello Zabala

Abiatu zen euri xorta larri batzuekin, gero barazuz nahasketa ta gero ta larriagoko **harri erauntsi** azkarra. Herria

28 harri eta belarri harri eta zur.

Harri eta belarri nengoen. Aurelia Arkotxa

Ez zuen halako onespenerik espero, **harri eta belarri** gelditu zait. Jose Angel Irigaray

Aho ondoan orina daukan mutikoak **harri eta belarri** begiratu dio. Jose Angel Irigaray

29 harri eta zur erabat harriturik.

Harri eta zur eginik zegoen Florent hari begira. Itxaro Borda

-Harri eta zur nagok haren jokabidearekin. Aingeru Epaltza

Harri eta zur geratu zela ere, hondarrean, emaitza ikusi zuenean. Pako Aristi

Harri eta zur geratu zen aita, begiak zabal. Harkaitz Cano

Harri eta zur utzi zuten ostaria, berak asma zezakeen edozein kontu baino gehiago zelako hura guztia. Iñaki Mendiguren

Apaizak, erabat txunditurik eta haren bat-bateko konbertsioaz **harri eta zur**, ezin zuen sinetsi. Herria

"Ez zait buruan sartzen Mary nolatan den Petroliniren hain laguna", esaten zuen **harri eta zur**. Herria

Florentek, **harri eta zur**, ezetz esan zion. Elena Touyarou

Harri eta zur ni: argibideak eman beharko zizkidan, bada, azafatak. Herria

Ez duzu behin ere egin emakume batekin? **-harri eta zur** Viktoría. Jose Morales

Harri eta zur, **harri** eta so, **harri** eta izu, **harri** eta miru baitzeuden, miraz ikusten ari zirena miraritzat ala deabrukeriatzat hartu behar ote zuten erabaki gabe. Jose Morales

Adelak eta Marisak elkarrri begiratu zioten, **harri eta zur**. Koro Navarro

Harri eta zur eginik geratu zela iruditu zitzaidan: **harri**, aitaren heriotzaren berri latzarengatik, **eta zur**, berak ez zekielako aita hila zuela, ez zuelako gogoan jaso, ez zelako gogoratzen. Iñaki Mendiguren

Baina emaztea isilik egon zen denbora luzez, bihotza **harri eta zur**. Berria - Kultura

30 **harri filosofal** filosofoen harria.

Zeren eta amorioa baita, hainbat alkimistaren erranetan, munduan dagoen **harri** filosofal bakarra. Joan Mari Irigoien

Batzuentzat [kalitatearen filosofia] enpresa kudeaketaren nolabaiteko **harri** filosofala da. Iñaki Heras

Etengabe bila ari zen egia filosofiko horrek antz handia zuen talka-**harri** filosofalarena Hezkuntza Sailekoak Sabino Aranaren ideologia **harri** filosofaltzat hartzen duten «arrazistak» eta «naziak» dira. Josu Zabaleta

31 **harri-gaitza**

Azido urikoa, tanta-hezueriak joen borroa, tripazain-zurruteroen zigor eta **harri**-gaitzaren eragile sonatu horixe zuen sorburu. Juan Garzia

32 **harri kuadro** apustuetako harria prisma formakoa.

Hamaika kiloko magnetofoiak, 315 kiloko **harri koadroa** baino handiagoko idazmakinak. Joxerra Garzia

Harri handietako Euskadiko txapelkun ohiak eite zaharreko **harri koadroa** erabiliiko du; 200 kiloko harri pottokoa, alegia. Berria - Kirola

Eite zaharreko 200 kiloko Paskualsoro **harri koadroa** (53 x 34 x 34 Cm.). Berria - Kirola

Urte bat, bost hilabete eta lau aste igaro dira Iñaxio Perurenak **harri koadroarekin** bi eskuez azken marka ezarri zuenetik. Berria - Kirola

33 **harri-jasa** (*orobat harrijasa*) harri-erauntsia. ik beherago 27

Ekaitz trumiltsu eta **harri**-jasa gaiztoetatik libre ateratzeko. Pello Zabala

1932an, **harrijasa** itzela Zaragoza aldean, arrautzen tainainako harri jelaetak bota zituen, eta izugarritzko triskantzak eragin, mahastietan. Pello Zabala

34 **harri-jasotzaile** (*orobat harrijasotzaile g.er.*)

Eztabaidan hasi ziren, ea **harri-jasotzaileak** "kottarik" ba ote zuten ehun eta berrogeita hamar kiloko harria esku bakarrez bizkarreratzeko. Juan Kruz Igerabide

Harri-jasotzaileak kokotsa igurtzi zuen, eta baietz esan zuen, bost bider jaso zezakeela esku bakarrez minutu batean. Juan Kruz Igerabide

Hiru **harri-jasotzaileak** 18 altxaldi atera baitzizkieten lehen harriari. Berria - Kirola

Iduritzen zait **harri-jasotzaile** zeingehiagoka batentzat ari naizela prestatzen! Ramuntxo Etxeberri

Hondarretan, presidentziari begira, toldo moduko izara erraldoi bat, eta, haren azpian, **harrijasotzailea** beroketa-lanetan. Karlos Linazasoro

Zail da jakitea zenbat jasoaldi egingo dituen, baina ez da **harri-jasotzaile** askorik izango Paskualsoro harria jasotzen duena; bospasei, agian. Berria - Kirola

Jaialdi berean, Inaxio Perurena **harri-jasotzaile** 275 kiloko harriarekin marka ezartzen saiatuko da. Berria - Euskal Herria

35 **harri jasotze**

Jakina, **harri-jasotzea** alde batera utzi gabe. Berria - Kirola

Zaila ikusten du leitzarrek **harri-jasotzearen** etorkizuna aldatzea. Berria - Kirola

Mallabian egiten ditu ikasketak eta **harri-jasotze** saioak. Berria - Kirola

Orain dela sei hilabete hitzartu zuten **harri-jasotze** apustua eta urriaren 31n jokatuko dute. Berria - Kirola

Bi aizkora saioen artean, **harri-jasotze** proba izango da ikusgai. Berria - Kirola

Gaur, Nafarroako **Harri-jasotze** Txapelketa jokatu dute Iñaki Perurenak, Lasartek, Urrutiak eta Igoak. Berria - Kirola

Antzuolan jokaturiko Nartxi Saralegiren Oroimenezko II. **harri-jasotze** txapelketan. Berria - Kirola

Urteko lehen **harri-jasotze** marka ahalegina. Berria - Kirola

36 **harri kosko** harri koskorra.

Eskuekin **harri** kosko batzuk bota zituen errekarra. Pablo Sastre

Ez bakarrik egunak leher eta zapart eginik bururatzen baitzuten, hainbertze aldir ukurtu eta **harri** kosko piztuak altzatzearen bortxaz. Eneko Bidegain

37 **harri koskor** (*ETCn 353 agerraldi; orobat harrikozkor ETCn 6 agerraldi, eta harrikozkor ETCn 9 agerraldi*)

Harresien atzetik boteak, airea zeharkatzen dute harkaitz puskek, **harri**-koskorak balira bezala. Jon Muñoz

Dela hi bezalako **harri**-koskor bat konbentzitu nahi izaita. Joan Mari Irigoien

Bidezidorrera iritsi zirenean jakin zuten zabala zela eta **harri** koskorrez eta errauts zapalduz zolatua zegoela. Zeta burugabe deituz, kaleetako lokatza eta **harri**-koskorak jaurtitzeko zizkieten. Agustín Otsoa

Harri koskorra ostiko batez kaleko espaloi batetik bestera bota nahian dabilta. Jokin Muñoz

Erdiko tarteak **harri**-koskor eta morteroz betetzen dute. Santiago Iruretagoiena

Haren etxe aurreko karrikak **harri** koskorrezkoa zuen zorua. Juan Garzia

Harri koskor baten ertz biziarekin marka bat egin dut zuhaitzaren azalean, AK. Koldo Izagirre

Legarraren **harri** koskor beltz gorriak. Aurelia Arkotxa

Hortz guztiak eroriak neuzkala sumatzen bainuen, den-denak aho barruan **harrikozkoren** gisa jirabiran. Joxe Austin Arrieta

· Artalde bat oihan-ertzeko sakonune **harri**-kozkortsu batean. Joxe Austin Arrieta

38 **harri lore** ik kuartzo.

Mendietako izotza, mendeen joanean eta haitezaren zamapean, gogortu, eta lehenik **harri**-lore eta gero burdin harri bilakatzen dela. Juan Garzia

39 **harri preziatu**

Esmeralda **harri** preziatu ederra da. Joan Mari Irigoien

Harri preziatuen inportantzia mintzatzen hasi zitzaigun jaun Marcel. Joan Mari Irigoien

Itsaso horretan sartzen den erreka Lurreko Paradisutik heldu da eta astean hiru aldir **harri** preziatuak han ditu isurtzen. Aurelia Arkotxa

40 **harri tailu** harrizko tailua.

Harri-tailu sakratuak profanatzeko ziztuzten gazteak. Itxaro Borda

41 **harri troka**

42 *harri txintxar* hartxintxarra.

Erdialdean, lorategiaren ardatz, ibilbidea zegoen, **harri txintxar** zuriz hornitutakoa. **Bernardo Atxaga**

Euria egiten duenean ez dute hainbesteko hotsik ateratzen **harri txintxarre**k hankapean. **Koldo Izagirre**

Harri-txintxarrek kexu ozena ateratzen dute gure ibilian. **Koldo Izagirre**

Haien esana amuarrainaren mugimendua bezalakoa balitz bezala, aldi berean ikus daitezkeenean uraren izurrak eta **harri txintxarrak**. **Anton Garikano**

Harri-txintxarraren karraska aditzen zen, landauaren gurpilek zanpatzean egiten zutena. **Xabier Olarra**

Kiris-karras, pasabideko **harri txintxarren** gainetik, panteoi bateraino joan dira. **Patxi Zubizarreta**

Euria egiten zuenean, sekulako putzuak egiten ziren, **harri txintxarrezko** zoruan. **Joxerra Garzia**

43 *harriz harri*

Erosten dituzte gaztelu hondatuak eta **harriz harri** eremaiten dituzte Ameriketara, han gaztelu berri bat eraikitzen harri zaharrek. **Herria**

Nafarroako Gobernuak Artozkiko eliza **harriz harri** mugitzeko eta, ondorioz, salbatzeko asmoa zuen. **Eduarne Elizondo**

Euren historia ez da **harriz harri** jasotako eraikin baten eraikuntza. **Xabier Arregi**

- Bapatean, errainu bat ikusten du **harriz harri** biziki mugitzen: txori tiki bat da, paraje hura utzi eta basorantz hegaka dihoana. **Bernardo Atxaga**

Airean pasatu ziren gure ondotik, **harriz harri** jauzika, barrez, zintei hegan eginaraziz. **Bernardo Atxaga**

44 *izkin harri*

Ongi behatuz, izkin **harri** zenbait ageri dira oraino. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Iskin **harri** batean eseri zen. **Josu Zabaleta**

Etxe baten harresieri so eginez, bakoitzak asmatzen ahal du nolako izkin **harriak** baziren denboran. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

45 *lehen harria jarri/pausatu*

Maria Kristina erreginak Artzain Onaren katedralaren **lehen harria** jartzen du. **Askoren artean**

Zubillaga fundizioaren **lehen harria** ezarri zen urtean. **Iñigo Aranbarri**

Pilota jauregiaren **lehen harria** pausatua Pauen. **Herria**

Lantegiaren geroa bermatzen duen margotzeko bigarren plantaren lehen **harria** jarri zuten. **Berria - Ekonomia**

Errobi bazterreko Glain zelaia seriozki lumatuko duen egitura berriaren lehen **harria** pausatu du auzapezak. **Herria**

Hiru proiektuetarako lehenengo **harria** jarri dugu. **Berria - Euskal Herria**

Lehen harria ipini genuenerako, hondar pila handi bat egina neukan. **Juan Kruz Igerabide**

Euskal Herriko ekoizpen zinematografikoaren **lehen harria** Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek jarri zuten, Ama Lur (1968) filmarekin. **Berria - Kultura**

- Datorren igandean egingo diagu **lehen harri** -jartzea. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bat harri (13); **batzuk harri** (6); **behaztopa harri** (8); **bere harri** (12); **beste harri** (17); **beste harri bat** (6); **bi harri** (23); **bost harri** (7); **da harri** (30); **dagoen harri** (5); **den harri** (7); **denak harri** (5); **dira harri** (7); **diren harri** (11); **ditu harri** (7); **dituen harri** (5); **du harri** (11); **duen harri** (5); **dut harri** (5); **edo harri** (23); **elfo harri** (5); **ere harri** (20); **ere harri eta** (5); **eta harri** (186); **eta harri bat** (6); **eta harri eta** (26); **ez harri** (13); **gero harri** (6); **hainbat harri** (5); **hamabi harri** (7)

harri altxatzaile (6); **harri arokoa** (5); **harri artean** (16); **harri bakar** (6); **harri bakoitza** (5); **harri bakoitzarekin** (6); **harri bat** (167); **harri bat bota** (5); **harri bat hartu** (14); **harri bat jo** (7); **harri batean** (14); **harri batek** (10); **harri batekin** (9); **harri baten** (45); **harri baten gainean** (18); **harri batez** (33); **harri batez bi** (20); **harri bati** (10); **harri batzuko** (17); **harri beltz** (10); **harri beltza** (8); **harri beltzak** (6); **harri berean** (8); **harri bihurtu** (17); **harri bihurturik** (10); **harri bihurtuta** (18); **harri bihurtutako** (6); **harri bihurtzen** (8); **harri biribil** (5); **harri bitxiak** (7); **harri borobil** (5)

harri eder (8); **harri edo** (7); **harri eginda** (12); **harri eginik** (15); **harri erabili** (5); **harri erabiliko** (9); **harri erabiliko dituzte** (5); **harri erauntsi** (13); **harri eta** (472); **harri eta belarri** (7); **harri eta herri** (25); **harri eta lur** (7); **harri eta zur** (363); **harri filosofala** (5); **harri gainean** (32); **harri gorri** (7); **harri gorriz** (5); **harri guztiak** (8); **harri haiek** (8); **harri handi** (39); **harri handi bat** (14); **harri handia** (6); **harri handiak** (10); **harri handiek** (7); **harri handietako** (9); **harri handietako euskadiko** (5); **harri handietakoa** (5); **harri harri** (6); **harri harri eginda** (5); **harri hau** (9); **harri honen** (6); **harri hori** (26); **harri horiek** (14); **harri horien** (6); **harri horrek** (7); **harri horrekin** (21); **harri horren** (5); **harri hura** (5); **harri huts** (8)

harri jasotzaile (45); **harri jasotzailea** (18); **harri jasotzaileak** (22); **harri jasotzaileek** (7); **harri jasotzaileen** (10); **harri jasotzailek** (5); **harri jasotze** (17); **harri jasotzea** (62); **harri jasotzea izeta** (6); **harri jasotzea perurenak** (6); **harri jasotzeak** (5); **harri jasotzen** (28); **harri jaurtikika** (5); **harri koskor** (26); **harri koskor bat** (10); **harri koskorra** (5); **harri koskorrak** (12); **harri koskorrez** (6); **harri kozkor** (17); **harri kozkorak** (5); **harri kozkor** (17); **harri kozkor bat** (5); **harri kozkorra** (6); **harri kozkorrak** (7); **harri laua** (15); **harri meta** (5)

harri pila (29); **harri puska** (12); **harri txiki** (7); **harri txikiekin** (7); **harri txikietako** (18); **harri txikietako euskadiko** (10); **harri txintxarrak** (6); **harri xuri** (5); **harri zabal** (5); **harri zahar** (10); **harri zaharrak** (8); **harri zaharren** (6); **harri zapal** (10); **harri zuri** (5); **harri zuriz** (6)

aki perurena harri (8); **harria harri** (5); **harririk harri** (7); **harriz harri** (25); **hil harri** (12); **hiru harri** (18); **hura harri** (5); **iñ kapito harri** (19); **kiloko harri** (13); **lau harri** (11); **lehen harri** (12); **ondoko harri** (5); **oroi harri** (26); **oroi harri bat** (12); **oroi harri** (16); **oroi harri bat** (6); **paskualsoro harri** (8); **perurena harri** (10); **perurena harri jasotzailea** (7); **tamainako harri** (5); **urrezko harri** (6); **zegoen harri** (9); **zen harri** (20); **zeren harri** (5); **zion harri** (8); **ziren harri** (7); **zituen harri** (7); **zituzten harri** (5); **zuen harri** (28); **zuen harri eta** (7); **zuten harri** (5)

aiako harria (11); **burdin harria** (5); **da harria** (8); **den harria** (5); **du harria** (5); **duen harria** (5); **edo harria** (5); **eta harria** (40); **filosofoen harria** (8)

harria baino (26); **harria baino geldiago** (5); **harria baino isilago** (7); **harria bere** (5); **harria bezain** (23); **harria bezain gogor** (7); **harria bezain gogorra** (9); **harria bezala** (10); **harria bota** (9); **harria da** (7); **harria edo** (6); **harria erabiliko** (11); **harria erabiliko dute** (10); **harria ere** (9); **harria eta** (31); **harria harri** (5); **harria ipini** (7); **harria izan** (8); **harria jarri** (8); **harria jartzen** (5); **harria jaurti** (6); **harria jo** (5); **harria jotzen** (5)

igeldoko harria (7); **kiloko harria** (24); **kiloko harria erabiliko** (8); **lehen harria** (41); **lehenengo harria** (7); **nik harria** (5); **oroit harria** (8); **sorgin harria** (8); **zuen harria** (15); **zuten harria** (5)

baina harriak (7); **diren harriak** (7); **eta harriak** (48); **eta harriak jaurti** (5)

harriak bere (7); **harriak bezain** (6); **harriak bezala** (7); **harriak bota** (23); **harriak bota eta** (6); **harriak bota zituzten** (6); **harriak botatzen** (16); **harriak botatzen ari** (6); **harriak ere** (13); **harriak eta** (47); **harriak ez** (12); **harriak hartu** (6); **harriak ikusi** (6); **harriak ikusi nituen** (6); **harriak jaurti** (14); **harriak jaurti zituzten** (7); **harriak jaurtikiz** (5); **harriak jaurtitzen** (10)

hil harriak (11); **pilatzen ziren harriak** (6); **ziren harriak** (12); **ziren harriak ikusi** (6); **zituen harriak** (5); **zituzten harriak** (5)

eta harrian (5); **oroi harrian** (5)

aiako harriaren (6); **eta harriaren** (11)

harriaren aintzinean (32); **harriaren aitzinean** (7); **harriaren eta** (5); **harriaren gainean** (21); **harriaren herria** (6); **harriaren inguruan** (10); **harriaren kontra** (18)

hil harriaren (6); **hil harriaren aitzinean** (5); **larrua harriaren** (8); **larrua harriaren kontra** (7); **orhoit harriaren** (6); **orhoit harriaren aintzinean** (6); **oroi harriaren** (22); **oroi harriaren aintzinean** (13); **zuen harriaren** (6)

eta harriekin (7); **eta harrien** (17); **harriek ez** (5); **harrien artean** (27); **harrien azpian** (10); **harrien eta** (9); **harrien gainean** (19); **harrien gainetik** (9); **harrien kontra** (9)

hil harrietan (7)

harriren bat (7); **harririk harri** (7)

bi harriz (19); **bi harriz lau** (18); **eta harriz** (13); **harriz bete** (5); **harriz egina** (6); **harriz egindako** (5); **harriz eta** (16); **harriz harri** (25); **harriz lau** (18); **harriz lau xori** (16)

edo harrizko (6); **eta harrizko** (54)

harrizko banku (6); **harrizko bi** (6); **harrizko bihotza** (6); **harrizko eliza** (6); **harrizko eraikin** (5); **harrizko eskailera** (10); **harrizko estatua** (9); **harrizko eta** (12); **harrizko etxe** (13); **harrizko herri** (9); **harrizko herri hau** (5); **harrizko horma** (11); **harrizko irudi** (11); **harrizko maila** (5); **harrizko pareta** (11); **harrizko zubi** (10); **harrizko zutabe** (5)

baina harrizkoa (5); **pikor harrizko** (6); **zegoen harrizko** (10); **zen harrizko** (11); **zuen harrizko** (9); **zurezko eta harrizko** (6)

harriabar iz ale larriko txingorra, harri-erauntsia.

Haizeak daramatzen harri bikor xehezko **harriabar** gisako batek belar iharrezko multzoren baten kontra jotzean ateratako hotsaren oihartzuna. **Josu Zabaleta**

harriga iz leku harritsua.

Paraje aparta zen arrantzan eta bainuan aritzeko, karramarro bilketa egiten genuen hango **harrigan**, Ilругitako zulora azaltzen ziren bikote bakanez urrunagora hartzen zuten gu ikusitakoan. **Koldo Izagirre**

Harriga bat zagok sobera arrimatu behar izan gabe. **Koldo Izagirre**

harraldi iz harrimena, ustekabea.

Graxik bere bizian ordu arte nehoiz ezagutu ez zuen **harraldia** jasan zuen. **Eneko Bidegain**

harraldura iz harrimena.

Zer **harraldura** Marie-Jeanne bere emaztearentzat. **Herria**

harriarazi, harriaraz, harriarazten du ad harritzera behartu.

Horra zertako **harriarazi** duen herri guzia horren kolpez joaiteak. **Herria**

Gauldiaren erditsutan, bat batean, eta hau uste gabekoa Donaixitiko klika sartu da bere soinu tresnekin, denak **harriarazten** ginduztela, bazterrak harrotu dituztela. **Herria**

Orduan gure inginadoreak eraiki zuen zubi bat, denak **harriaraziz**. **Herria**

harriarte (orobat harri arte) iz harri arteko tokia. ik harri 1.

Han zihozaren, errekarren bidea harturik, gero eta zorrotzagoak ziren **harriarte** malkartsuetan sigi-sagaka barneratzen. **Joanes Urkixo**

Handik aurreraxeago **harriarte** zeharo estutzen zen eta bideak hain hartzen zuen gainbehera latza, non ezinezkoa zen zaldiz jarraitzea. **Joanes Urkixo**

Huntza hazten zen horma zaharretan gora, **harri** arteak eta arraildurak profitatuz. **Joseba Sarrionandia**

Toki amuarrainsua zen, **harriarte** eta ur-laster askokoa. **Anjel Lertxundi**

harribil iz harri biribila.

Zimentatu gabeko harriek irtenbidea ematen diote **harribilen** artean ihes egiten duen urari. **Koldo Izagirre**

Aroka biluziak lehortzen dira, **harribiletatik** kresal bafada sarkorra hedatzen da ingurura. **Karlos Zabala**

Zaldien azazkalen azpian **harribil** koxkorren karrask-hotsa aditzen zen, erreka batego ura iduri. **Fernando Rey**

harribitxi (ETCn 2.854 agerraldi; orobat harri bitxi ETCn 179 agerraldi) 1 iz bere tasun bereziengatik oso baliozkoa den harria.

Urrez eta **harribitxi** landuz inguratutik. **Askoren artean**

Esmeralda **harribitxi** berde hori da, ez? **Joseba Sarrionandia**

Pena ematen din, horrelako neskak **harri** bitxiekin. **Karlos Zabala**

Leihosareak **harribitxi**, erubi eta esmeraldez eginak izatea nahi dut. **Patxi Zubizarreta**

Ibaia merkatarien besoa baita, merkatarien **harri** bitxiak, urre-zilarrak ekarri eta eraman egiten dituena, beti irabazia utziz, beti etekina atereaz. **Felipe Juaristi**

Harri bitxi bat erosiko niola erabaki nuen, bitxi polit bat, zinez, erosi eta bere bitxi kutxatxoan jarri nuen, tximinia erlaitzean. **Josu Zabaleta**

Haren blusa eta gona **harribitxiz** ehunduak zeudela zirudien. **Karlos Zabala**

Trenbiderik ez dago **harribitxizko** meatzeetara iristeko. **Karlos Zabala**

2 irud

Beraz, zu zaitugu Santosek hain esne-mamitan gordetzen duen **harribitxia**. **Josu Landa**

Robinhok 20 urte ditu, eta Brasilgo harrobiko azken **harribitxia** da. **Berria - Kirola**

Peruko antzinako kulturetako **harribitxi** arkeologikoak. **Berria - Kultura**

Harribitxi bat; balio literario jakinez gain, mundu zahar baten osoko erakusketa. **Askoren artean**

80ko hamarkadan ipuingintzak eman zituen **harribitxietatik** bazter samarrean geraturiko perla bakan batzuk. **Berria - Kultura**

Ebanjelioaren **"harribitxi** ezkutua" aurkitu. **Askoren artean**

Apaltasunaren **harribitxiak** egiten du distira haietako bakoitzarengan. **Askoren artean**

Munduan zehar gure hizkuntzarekiko interesa duten **harribitxietako** bat hungariarra da. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 (hitz elkartuetan)

Esmeralda bila joan zen **harribitxi** -bilatzailea, dena utzita. **Xabier Aranburu**

Kapot gainean jesarritako neskaren **harribitxi** begiek inguruko guztia arakatzen dute. **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken **harribitxia** (8); **belarri handiko harribitxia** (4); **ebanjelioko harribitxia** (3); **harribitxi eder** (3); **harribitxi ezkutua** (3); **harribitxia gordetzen** (3); **harribitxiak eta zura** (3); **harribitxiz apaindua** (8); **harribitxiz zamaturiko** (3); **harribitxizko intsignia** (3); **harrobiko azken harribitxia** (4); **ugariz eta harribitxiz** (3)

harridura 1 iz harrimena.

Begi isilak ziren, hitzik gabe, keinurik gabe geratuak; harrizko begiak ziren, beren **harriduraren** erakusle. **Felipe Juaristi**

Bat-batean, **harridura** barrirudi bihurtzen joan zen Albertoren ezpainetan. **Joxemari Urteaga**

Hasiera bateko **harridura** aienatu zitzaionean, haserreak hartu zuen haren tokia. **Felipe Juaristi**

Haien begiradan, berriz, **harridura** ez ezik, ezinegon zehaztugabe bat ere ageri zen, jende lodiari argalen aurrean gertatu ohi zaion bezala. **Karlos Zabala**

Norak, aldiz, enuraren antzeko **harridura** sentitu batez begiratu zion emakumeari. **Anjel Lertxundi**

Leizea istantean zabaldu zaio eta Kasimen **harridurak** goia jo du gordelekuan direnak eta ez direnak topatzean. **Patxi Zubizarreta**

Azpian, geldirik, pentsaera desatsegin horiek guztiak zeuden, egin gabeko galderen eta **harridura** mutuen eitea hartu dutenak. **Monika Etxebarria**

Boz ezagun batek atera zuen bere **harriduratik**. **Elena Touyaru**

Nire **harriduratik** irten ezinik, hitzik ere ez nuen esan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ene **harridurarako** gaztelaniaz ari ziren. **Joan Mari Irigoien**

Bestalde, nire **harridurarako**, txalaparta, hain zuzen, herrenen musika zela jabetzen nintzen. **Juan Cruz Igerabide**
Dena ongi zebilen, ene **harridurarako** eta ordulariari zeharkako behako ugariak ulertzen nituen bat-batean. **Itxaro Borda**
Isilik geratu zitzaion Alberto, **harridura** aurpegian, zer esan ez zekiela. **Joxemari Urteaga**
Ostatu barnean haatik, hau **harridura**: ostalerak ez ditu zerbitzatu nahi, baduelakoan omen bertzerik egiteko! **Herria**

2 (aditzaren objektu gisa)

Deitu egin zion, enkantean guztien **harridura** piztu zuen aingira handi bat erakusteko. **Karlos Zabala**
Haren **harridura** ahogozatu nuen. **Aingeru Epaltza**
Harridura gorde ezinik. **Elena Touyarou**
Lehenengo sari hark **harridura** adinako poza eragin zidan. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Baina jainko-jainkosen arteko maitasunak [...] ez zion zirrararik sortzen; bai, ordea, **harridura**. **Xabier Olarra**
Ez zuen **harridurarik** erakutsi gu ikustean. **Juan Luis Zabala**
Graxik ezin zuen bere **harridura** gainditu. **Elena Touyarou**
Harridura irakurtzen dut zure begitaratean, Nizias. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hermioneren **harridura**-oihua entzun zuten. **Iñaki Mendiguren**
Berehala disimulatu zuen bere **harridura** irri batez. **Joan Mari Irigoien**
Harridura aurpegia erakutsi zion Macarenak. **Joxemari Urteaga**
Gizonaren **harridura** seinaleari esker, ez zuen keinua burutu. **Elena Touyarou**
Barrenerako gorde zituen hasierako **harridura**-kolpearen ondorengo adierazpenak. **Juan Luis Zabala**
"Elkarri sekulakoak esaten dizkiozue eta oholztatik jaistean adiskide zarete!" esaten digute **harridura** puntu batez. **Andoni Egaña**
Berak uste baitu horrela hasten dela pertsona hiltzen, egunero hitzen **harridura** ahalmena irazekitzeko kezkarri uzten dihonean. **Pako Aristi**
Harridura hitzak oso gertu baitaude onomatopeietatik. **Isabel Arrigain**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina ama-**harridura** horrek ez al dakar atzetik segidarik berekin? **Juan Garzia**

5 harriduraz adlag

Harriduraz begiratu diot Autodidaktari. **Monika Etxebarria**
Denak **harriduraz** sor eta lor, sena galduta bezala, mamu bat ikusten ari zirela uste zuten. **Askoren artean**
Egia esan, izaturik eta dardarka indargabetzen hasi nintzen **harriduraz** eta latz-ikaraz. **Askoren artean**
Harriduraz zurturik geratu nintzen. **Josu Zabaleta**
Baina gure bisitatzaileak **harriduraz** bete zituena, kanpalekuko hil meta izan zen. **Marzel Etxehandi**

6 harridurazko izlag

Esker oneko eta **harridurazko** adierazpen soil bat. **Jon Muñoz**
Harridurazko oihuak sortu ziren irlandar gerlarien artean. **Joanes Urkixo**
Gizonak aurpegiera zehaztugabea du, **harridurazkoa**, agian, hitz egin duena beste bat balitz bezala. **Monika Etxebarria**
Harridurazko hitzei dagokienez. **Isabel Arrigain**
Horrela argitzen nioan neure buruari Kirsztinaren begirada izutu eta **harridurazkoa**. **Xabier Olarra**
Martinek **harridurazko** keinu indarge batez begiratu dio Joseri. **Anjel Lertxundi**

7 harridura-ikur (10 agerraldi, 7 liburutan; ETCn 57 agerraldi) harridura marka.

Alboan galdera marka bat marraztuko du, edo **harridura** ikur bat. **Lander Garro**
Harridura-ikur bat!, dio Sabethek, baina nik ezetz, **harridura**-ikurrek puntua ez baitaramate goian, behean baizik. **Joxe Austin Arrieta**
Llum, **harridura**-ikur bat baino ez da idatzi behar. **Antton Olano**

8 harridura-marka (9 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 179 agerraldi)

Ala **harridura-marka** erantsi behar diot ondotik? **Antton Olano**
Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren puntuazio-markak (**harridura-marka**, galdera-marka...). **Askoren artean**
Harridura-markek argudioari ez diote ezer gehitzen. **Askoren artean**
Bizimodu erabat berri baten hasiera da niretzat, eta **harridura-marka** handienak erantsi beharko zaizkio ondotik. **Antton Olano**
Orduak eta orduak ematen zituen [...] "Jaun agurgarri hori!" behin eta berriro idazten, letra guztiekien eta amaieran **harridura-marka** ipiniz. **Jose Morales**

9 harridura-zeinu (2 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 7 agerraldi) harridura marka.

Galdera eta **harridura** zeinuak esaldiaren amaieran baizik ez jartzea erabaki zen. **Koldo Zuazo**

10 harriduraren harridura

Harriduraren harridura! kasetari batek salatzen ditu bai Sarkozy jauna eta bai de Robien jauna lasterregi ibili direlaketoz bide-nagusi batean. **Herria**
Ai, ene **harriduraren harridura** entzun dudalarik telebixtan Claude Allègre hezkuntza ministro ohia erraiten : Matematikaren erakastea katalaneraz, hori ez da posible.
Herria

11 harriduraren harriduraz

Aditu nionean ezen protestant zela, arras zabaldu zitzaizkidan begiak, **harriduraren harriduraz**, eta halako ezinegona jaundu eta nagusitu zitzaidan. **Joan Mari Irigoien**
Azkenean, bortz orenak baino lehen, horra non ikusi baitut, **harriduraren harriduraz**, M... nire etxera etortzen. **Jon Muñoz**
Oihu bat atera zitzaidan **harriduraren harriduraz**. **Josu Zabaleta**

12 harridurari harridura

Urtsats goizean, **harridurari harridura**, soldado batek ateko leihatilatik paketa ttipi bat eman zidan. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

are harridura (3); **aurpegian harridura** (3); **baina harridura** (6); **baino harridura** (3); **bere harridura** (22); **beren harridura** (5); **du harridura** (3); **duen harridura** (4); **edo harridura** (3); **ene harridura** (8); **eragindako harridura** (3); **ere harridura** (3); **eta harridura** (54); **eta harridura ere** (3); **eta harridura handia** (3); **gure harridura** (5); **guztien harridura** (5); **haien harridura** (3); **halako harridura** (11); **haren harridura** (6)
harridura adierazi (4); **harridura adierazten** (3); **harridura agertu** (9); **harridura agertu zuen** (5); **harridura apur** (3); **harridura apur bat** (3); **harridura aurpegi** (5); **harridura aurpegia** (20); **harridura aurpegia ikustean** (3); **harridura aurpegia jarri** (8); **harridura aurpegian** (3); **harridura aurpegiarekin** (5); **harridura aurpegiz** (3); **harridura azaldu** (10); **harridura azaldu zuen** (3); **harridura da** (4); **harridura eragin** (15); **harridura eragiten** (3); **harridura erakutsi** (7); **harridura erakutsi zuen** (4); **harridura ere** (5); **harridura eta** (61); **harridura eta haserrea** (3); **harridura ez** (8); **harridura ez zen** (4); **harridura ezkatatu** (5); **harridura gainditu** (6); **harridura gainditu eta** (3); **harridura gorde** (3); **harridura handia** (9); **harridura handia sortu** (4); **harridura handiagoa** (5); **harridura handienerako** (3); **harridura handiz** (7); **harridura hitzak** (5); **harridura ikur** (6); **harridura ikur bat** (5); **harridura ikusita** (3); **harridura imintziorik** (3); **harridura keinu** (6); **harridura marka** (5); **harridura piztu** (4); **harridura sentitu** (3); **harridura sortu** (18); **harridura sortu du** (6); **harridura sortu zuen** (7); **harridura sortzen** (8); **harriduraren harridura** (4)
hasierako harridura (7); **hasieran harridura** (4); **horrek harridura** (3); **lehen harridura** (5); **nire harridura** (12); **nire harridura handienerako** (3); **zen harridura** (5); **zer harridura** (10); **zion harridura** (8); **zuen bere harridura** (6); **zuen harridura** (9); **zuten harridura** (3)
bere harridurak goia (4); **eta bere harridurak** (3); **eta harridurak** (5); **haren harridurak** (5); **haren harridurak goia** (4); **harridurak eta** (3); **harridurak goia** (22); **harridurak goia jo** (21)
pintatzailearen harridurako (3)

bere harridurarako (12); denen harridurarako (4); ene harridurarako (3); erabateko harridurarako (3); eta bere harridurarako (3); gure harridurarako (9); guztien harridurarako (6); harridurarako eta (3); neure harridurarako (5); nire erabateko harridurarako (3); nire harridurarako (29) harriduraren eta (5); harriduraren harridura (4); harriduraren harriduraz (16) ez harridurarik (6); harridurarik erakutsi (4); harridurarik gabe (6); penarik ez harridurarik (3) baina harriduraz (3); begiak harriduraz (6); eta harriduraz (26); eta harriduraz beterik (5); gazteak harriduraz (3); harriduraren harriduraz (16) harriduraz aztertu (3); harriduraz aztertu zuen (3); harriduraz begiratu (20); harriduraz begiratu zion (7); harriduraz begiratu zioten (6); harriduraz begiratzen (10); harriduraz begiratzen zion (3); harriduraz behatu (3); harriduraz bete (6); harriduraz beterik (14); harriduraz esan (3); harriduraz esan zuen (3); harriduraz eta (28); harriduraz hartu (15); harriduraz hartu dute (3); harriduraz hartu zuen (5); harriduraz hartu zuten (3); harriduraz ikusi (4); harriduraz jaso (6); harriduraz konturatu (4); harriduraz konturatu zen (3); harriduraz ohartu (3) jendeak harriduraz (3); nolabaiteko harriduraz (4); pozez eta harriduraz (3); zen harriduraz (3) eta harridurazko (6); harridurazko keinua (3); harridurazko zerbit (3)

harriduri iz harrizko irudia.

Zenbat aldiz egon ote naiz Heletako elizan, Santiagoren **harriduri** urreztatuari geldi geldia so eta so. **Piarres Aintziart**

harrigarri 1 izond harritzen duena, harrimena sortzen duena.

Han bizi omen zen gizon **harrigarri** hura. **Xabier Aranburu**
Gau batean bere arimako gaixotasun **harrigarri** haren azalpena eman zidan. **Josu Zabaleta**
Gutun **harrigarria** iruditu zitzaidan. **Xabier Olarra**
Kannerren eta Aspergerren txostenek antz **harrigarria** zuten (izugarria, inoiz) alde askotatik. **Xabier Olarra**
Eskuen eta zangoen indar **harrigarriaz** fidaturik. **Xabier Amuriza**
Neure mendean gauza **harrigarriak** ikusten ohitua nago. **Gotzon Garate**
Baina lehengo ipuin **harrigarrietan** ziren bakarrik holakoak gertatzen. **Janbattitt Dirassar**
Harri horiz eraikia, antzinasun kutsu **harrigarria** du. **Txillardegi**
Tinpanoak egiten du mugimendua hots bihurtzeko metamorfosi **harrigarri** hori. **Josu Zabaleta**
Begira egoten zaizkit, ikusten naute, izakari **harrigarri**, sinestezinezko horiek. **Josu Zabaleta**
Mirari **harrigarriaren** bidez. **Askoren artean**
Edertasun **harrigarri** hark denen aurrean distiratzten zuela. **Askoren artean**
Hain albiste **harrigarriak** zur eta lur utzi zituen denak. **Jose Morales**
Gauza zinez **harrigarria** jazo zen orduan. **Jose Morales**
Distira **harrigarria** zuen suzko gurdi bat sartu zen etxeko atetik. **Askoren artean**
Bai amaiera **harrigarria**, ezta? **Alberto Ladron Arana**
Giza garunaren berezitasun **harrigarrienetako** bat lobulu frontalen handitasuna da. **Xabier Olarra**
Bata bestearekin gurutzatuz, konplexutasun **harrigarriko** sare bat osatuz. **Juan Garzia**
Lagundu ziotenen beharrei era **harrigarrian** erantzuteko. **Askoren artean**
Modu **harrigarri** eta txundigarrian jokatzeko gaitasuna. **Xabier Olarra**
Moiarainoko bidean ikusi zuen inork ez zuen ezer **harrigarririk** sumatu neskaren jarreran. **Anjel Lertxundi**

2 (izan da aditzarekin)

-Harrigarria da gero, nola jabetzen diren konturik ezkutuenez... **Alberto Ladron Arana**
Harrigarria zen ze gutxi zekiten. **Julen Gabiria**
Ez da **harrigarria** garunaren garapenean halako diferentziazioa gertatzea. **Xabier Olarra**
Giza miseria, ordea, **harrigarria** bada ere, hobeto ikusten da ika-mika txikietan, gatazka handietan baino. **Joxerra Garzia**
Egoera hau askorentzat oso **harrigarria** da. **Iñaki Mendiguren**
Ez da noski **harrigarria** jendeak auzi hau ia-ia miragarritzat jotzea. **Koro Navarro**
Nola hortaratu den holako etxea, hori zinez **harrigarri** da! **Herria**
Harrigarriak ziren Gregen indarra eta poza. **Xabier Olarra**
Istripu bat izan, eta, **harrigarria** bazen ere, ez zen batere oroitzuten hartaz, auskalo zergatik. **Xabier Olarra**
Harrigarria eta hunkigarria izan da Philippe Pozzo di Borgo kondearen kasua. **Herria**
Izatekotan, Charlyren sumina zen **harrigarria**. **Aingeru Epaltza**
Horrela nagoenean kosta egiten zait zer den normala eta zer den **harrigarria** bereizten. **Matías Múgica**
Aurkakotasun hauek ez dira **harrigarrienak**, ezta sakonenak ere. **Isabel Arrigain**
Harrigarria izanagatik, eskularru-kaxan zegoen eta, are **harrigarriagoa**, bazebilen. **Aingeru Epaltza**
Kolarearen teoria klasikoaren eta erreallitatearen arteko elkar hartu ezina **harrigarri** zitzaion Goetheri. **Xabier Olarra**
Harrigarria zitzaion gizon bakar batek horrelako liburu andana idaztea. **Elena Touyarou**
Neroni ere **harrigarri** zitzaizkidan buru betidanik makets horretan aldian-aldian distiratzten ziren adimen-txinpartak. **Aingeru Epaltza**
Autodidaktaren irakurgaiak **harrigarriak** zaizkit orain ere. **Monika Etxebarria**
Beraz, zer du gureak **harrigarri**? **Xabier Montoia**

3 (aditz laguntzailea ezabaturik)

Harrigarria benetan alemanez esatea alemanez ez dakizula. **Askoren artean**
Harrigarria jarrera. **Juan Garzia**
Harritzen hasita, bada beste kontu bat **harrigarri** askoa. **Juan Garzia**
Istripu gehiago ez egotea **harrigarri**! Baina **-harrigarria-** destilatu gabeko vodka zakarraren usain ikaragarria zerion. **Gotzon Garate**
Harrigarria, inoiz ez baitzuen bere jarioak famatu. **Aingeru Epaltza**
Harrigarriena, hala ere, Canyon de Chellyn izan ginen arratsalde batean gertatu zen beharbada. **Xabier Olarra**
Gauerako begi zoliak ditut orain, **harrigarria** ikusmena. **Xabier Olarra**

4 (bestelako aditzekin)

Hari, ordea, ez zitzaion batere **harrigarria** iruditu bere antzinako hutsegiteen biktima haren alaitasuna. **Josu Zabaleta**
Harrigarria ematen badu ere, gaiari buruz argitasunik eskaini zezakeen daturik batere gabe igaro zen gorpuaren aurkikuntzaren ondorengo hirugarrenengo astea. **Koro Navarro**
Nahikoa zentzuzkoa zen dena, eta eskolan ez hain aspaldi ikasitakoarekin bat zetorren: soilik puntu bati iritzi nion **harrigarri**. **Juan Garzia**
Txukuntasun hura ikusi eta **harrigarriago** begitandu zitzaidan ohean ikusten zen ikusgarria. **Gotzon Garate**
Harrigarria kausitu nuen la Grande Arche de la Défense. **Daniel Landart**

• 5 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Gogoeta egiten nuen nire patuaren, adarrean hosto izatea egokitu zitzaigunon patu haren eta, oro har, giza patuaren **harrigarriaz**. Juan Garzia

• 6 iz harrizten duen gauza.

Beldur zen beren sorteria utzi nahiko ote zuten, **harrigarriak** egiten hasia baitzen han Jauna anaien bitartez. Askoren artean

7 (adizlagun gisa) ik **harrigarriro**; **harrigarriki**.

Jeneralaren alarguna **harrigarri** zalua zen. Matias Múgica

Loroak **harrigarri** agudo, inteligentzia jenial batekin, Krapotkin nire izen faltua ikasi zuen. Matias Múgica

Baina gure literatura **harrigarri** zentzuduna da. Koro Navarro

Rufino **harrigarri** gogorra zan. Xabier Amuriza

8 **harrigarri(a) egin** zaio *ad* harrigarria gertatu.

Egia esan, New Yorken Saint Patrick katedralean otoiizean ikusi zintudan eta **harrigarria** egin zitzaidan. Patxi Zubizarreta

Harrigarria egingo zaizu, agian, baina ez zait batere gustatzen inoren bizitzan sartzea. Joxemari Iturralde

Las Vegas bezalako hiri bat basamortu erdian topatzea **harrigarria** egin zaigu. Patxi Zubizarreta

Harrigarri egin zitzaigun, oso, Virgilek mugimenduarekiko zuen sentiberatasuna. Xabier Olarra

Huskeriak besterik ez direnean ez zaizkigula gustu ezberdintasunak **harrigarri** egiten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Harrigarria egin zait belarraren indarra, hesiak, trafiko-ikurrak eta dena irentsi nahian. Pako Aristi

9 **harrigarri(a) gertatu** zaio *ad*

Erabat **harrigarria** gertatu zitzaidan albistea, ez bainuen inola ere espero Marcel Martin neskaren aita ez izatea. Ramon Saizarbitoria

Ez zaio inori **harrigarria gertatu** behar gure garaiko profeta halako dohainez jantzia agertzea. Askoren artean

Bilboko kaleetan bueltaka, pentsatzekoa zenez, gauza asko gertatu zitzaion **harrigarri** Lauaxetari. Juan Luis Zabala

Hitz apur horiek guztiz **harrigarri** gertatu zaizkit. Josu Zabaleta

Hau **harrigarria** gerta dateke, baina datu ofizialak direnak dira, eta esaten dutena esaten dute. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

10 **harrigarriko** *izlag ipar* harrigarrizko.

Harrigarriko altxorra, historiaurreaz interesatzen denarentzat. Herria

Hau izan da Logroñoko Adarragan jokatu den torneo haundiaren finala ederra, Titinek **harrigarriko** bururatze batekin amaitu duena. Herria

Bainan hortaz ere hain xuxen egin ditu **harrigarriko** ateraldiak. Herria

11 **harrigarrizko** *izlag*

Harrigarrizko tema eta lehia batez. Josu Zabaleta

Baina hain nekez osatutako paper-pilotxo haiek ikusi nituenean, **harrigarrizko** poxak bete ninduen. Txillardegi

Umore onez dago beti eta **harrigarrizko** adorea du gizonak. Josu Zabaleta

Honorine ia erori zen hankaz gora hitz **harrigarrizko** haiek entzunda. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

da harrigarri (10); egintza harrigarri (11); egintza harrigarri eta (5); egun harrigarri (4); ekintza harrigarri (4); era harrigarri (5); ere harrigarri (8); eta harrigarri (18); eta harrigarri bat (4); ez da harrigarri (9); gaitasun harrigarri (4); gauza harrigarri (29); gauza harrigarri bat (6); gauza harrigarri eta (4); gertakari harrigarri (4); gizon harrigarri (5); hain harrigarri (8)

harrigarri asko (6); harrigarri bat (81); harrigarri batean (6); harrigarri batek (5); harrigarri batekin (4); harrigarri baten (11); harrigarri batez (10); harrigarri batzuk (9); harrigarri batzuk ere (5); harrigarri bezain (5); harrigarri da (21); harrigarri egin (6); harrigarri egingo (6); harrigarri egiten (10); harrigarri ere (11); harrigarri eta (42); harrigarri gertatu (10); harrigarri gertatu zitzaion (5); harrigarri gertatzen (6); harrigarri guztiak (4); harrigarri haren (9); harrigarri hari (5); harrigarri hark (4); harrigarri hartan (7); harrigarri hau (11); harrigarri hori (19); harrigarri horiek (4); harrigarri horrek (7); harrigarri horren (5); harrigarri horri (4); harrigarri hura (23); harrigarri samarra (10); harrigarri samarra da (5); harrigarri zitzaidan (4); harrigarri zitzaion (4)

ipuin harrigarri (4); istorio harrigarri (5); istorio harrigarri bat (4); lan harrigarri (5); modu harrigarri (6); ondorio harrigarri (4); partida harrigarri (4); zinez harrigarri (4)

ahalmen harrigarria (7); al da harrigarria (7); aski harrigarria (11); aski harrigarria da (5); askitxo harrigarria (4); bai harrigarria (12); baina harrigarria (6); bat harrigarria (8); batere harrigarria (7); benetan harrigarria (19); benetan harrigarria da (6); bezain harrigarria (5); bidaia harrigarria (5); da harrigarria (43); dela harrigarria (5); dohain harrigarria (5); egitea harrigarria (5); egitea harrigarria da (4); erabat harrigarria (4); ere harrigarria (16); eta harrigarria (59); eta harrigarria benetan (7); eta harrigarria da (13); eta harrigarria egin (4); ez da harrigarria (22); ez dela harrigarria (4); ez zen harrigarria (6); gaitasun harrigarria (4); gauza harrigarria (47); gauza harrigarria gertatu (4); gizon harrigarria (6); guztiz harrigarria (7); hain harrigarria (18)

harrigarria bada (47); harrigarria bada ere (47); harrigarria badirudi (17); harrigarria badirudi ere (17); harrigarria baita (8); harrigarria baldin (4); harrigarria bazen (7); harrigarria bazen ere (6); harrigarria benetan (22); harrigarria bere (4); harrigarria da (240); harrigarria da hori (4); harrigarria da ikustea (6); harrigarria da nola (11); harrigarria dela (12); harrigarria den (8); harrigarria dirudi (9); harrigarria dirudien (4); harrigarria dirudien arren (4); harrigarria du (6); harrigarria duk (16)

harrigarria egin (33); harrigarria egin zitzaidan (10); harrigarria egin zuen (4); harrigarria egiten (23); harrigarria egiten da (5); harrigarria egiten zait (5); harrigarria egiten zaitzaion (4); harrigarria eman (5); harrigarria erakutsi (10); harrigarria ere (15); harrigarria eta (35); harrigarria ez (4); harrigarria gerta (4); harrigarria gertatu (13); harrigarria gertatu zen (5); harrigarria gertatzen (14); harrigarria gertatzen da (4)

harrigarria iruditu (25); harrigarria iruditu zitzaidan (9); harrigarria irudituko (6); harrigarria iruditzen (21); harrigarria iruditzen zait (5); harrigarria iruditzen zitzaidan (4); harrigarria izan (46); harrigarria izan da (10); harrigarria izan zen (18); harrigarria izan zuen (4); harrigarria izango (8); harrigarria izaten (4); harrigarria litzateke (8); harrigarria zela (7); harrigarria zen (63); harrigarria zitzaion (6); harrigarria zuen (4)

hau harrigarria (5); hori bai harrigarria (4); ikuskizun harrigarria (5); ikustea harrigarria (4); indar harrigarria (4); india harrigarria (4); izana harrigarria (4); mirari harrigarria (4); nahiko harrigarria (8); ondorio harrigarria (4); oso harrigarria (21); oso harrigarria da (5); oso harrigarria egiten (4); partida harrigarria (4); zen harrigarria (13); zerbait harrigarria (10); zinez harrigarria (14)

are harrigarriago (9); harrigarriago eta (4)

are harrigarriagoa (18); are harrigarriagoa da (9); baino harrigarriagoa (6); eta harrigarriagoa (7); harrigarriagoa da (16); harrigarriagoa izan (5); harrigarriagoa izan zen (4)

aski harrigarriak (4); egintza harrigarriak (44); egintza harrigarriak egin (8); egintza harrigarriak eta (4); emaitza harrigarriak (5); eta egintza harrigarriak (19); eta harrigarriak (13); gauza harrigarriak (40); gauza harrigarriak egingo (6); gertaera harrigarriak (4); hain harrigarriak (5); haren egintza harrigarriak (5)

harrigarriak dira (20); harrigarriak diren (5); harrigarriak ditu (4); harrigarriak egin (18); harrigarriak egingo (8); harrigarriak egingo ditut (4); harrigarriak egiten (15); harrigarriak egiten ditu (4); harrigarriak ere (4); harrigarriak eta (13); harrigarriak izan (5); harrigarriak kontaktzen (5); harrigarriak ziren (4)

istorio harrigarriak (4); mirari harrigarriak (4)

era harrigarrian (8); eta harrigarrian (5); modu harrigarrian (13)

harrigarriaren berri (4)

egintza harrigarrien (4); eta egintza harrigarrien (4); harrigarrien bidez (5)

baina harrigarriena (6); da harrigarriena (7); eta harrigarriena (13); gauzarik harrigarriena (4); harrigarriena da (14); harrigarriena izan (4); harrigarriena zen (5); harrigarriena zera (6); harrigarriena zera da (5); zen harrigarriena (7)

gauza harrigarriengatik (7); harrigarrienetako bat (6)

eta harrigarriro (10); eta harrigarrizko (4); ezer harrigarririk (4); hain harrigarriro (8); harrigarriren bat (6); harrigarritzat jo (16); harrigarritzat jo zuen (4)

harrigarridun *izond* harrigarrikoa.

Diskoko luzeena, izen generiko **harrigarriduna**: "Rock'n'roll". Aingeru Epaltza

harrigarriki (25 agerraldi, 14 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 245 agerraldi) *adlag* era harrigarrian. ik **harrigarriro**; **harrigarri** 7.

Harrigarriki, berriak lasaitua ekarri zion. Aingeru Epaltza

Harrigarriki, gaindituak nituen pare bat galdera zail, beti ere Geografiarekin zerikusia zutenak. Joxemari Iturralde

Haurra, **harrigarriki**, ez zen arranguratu. Aingeru Epaltza

[...] esan zion Alkimistak, **harrigarriki** gozoa irudituz zitaion ahotsarekin. Xabier Aranburu

Kordea inoiz galdu ez duenak nekez aurkituko ditu jauregi bitxiak eta aurpegi **harrigarriki** ezagunak hausberoan distiraka. Koro Navarro

XI. mendekoak izan litaizkeen hilobiak aurkitu dituzte, **harrigarriki** kontserbatuak. Herria

Harrigarriki gutxi! Joxe Austin Arrieta

harrigarriro *(112 agerraldi, 44 liburu eta 585 artikulutan)* adlag era harrigarrian. ik **harrigarriki**; **harrigarri** 7.

Irudi latz haiek ekarri nituen berriro gogora, baina han, Municheko plaza hartan, **harrigarriro** urrunak irudituz zitaizkidan. Alberto Ladrón Arana

Harrigarriro astuna zen. Alberto Ladrón Arana

Aldaka **harrigarriro** arinak irudituz zitaizkidan, aldi berean sendoak halere. Joxe Austin Arrieta

Harrigarriro, hots bakarra entzuten da. Berria - Kultura

Lucy, **harrigarriro**, hitz egiten hasten da. Oskar Arana

Eta harkaitza **harrigarriro** itxi da, eta Ali Baba beldurrak airean geratu da, inora joateko gai ez dela. Patxi Zubizarreta

Bi argimutil zituen pizturik, bata buruaren eta bestea oinen aldean, beren distiraz gela **harrigarriro** argitzen zutenak. Askoren artean

Undinak bezain erakargarri dira, pozoia bezain hilgarri, **harrigarriro** bitxi, asaldagarri, beldurgarri. Josu Zabaleta

Eta **harrigarriro** hunkitua nengoela sentitu nuen. Txillardeggi

Idi gurdiek harkaitzean landutako bide gogorretik heldu naiz hona, sakondura **harrigarriro** basati bateraino. Koldo Izagirre

Buruia **harrigarriro** argi zuela, aurrera begiratu zuen: ia iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Harrigarriro gogortuta ikusi nuen neure burua, Katedrala suntsitzeko erabaki hark elikatuta. Hasier Etxeberria

Gero dena jazo da bizkor, ustekabean, eta **harrigarriro** samar ere bai. Urtzi Urrutikoetxea

harrigarritasun *iz* harrigarria denaren nolakotasuna.

Irudimenak har ditzakeen bi bideetatik, Borgesek ez du aukeratzeko beste mundu batzuk asmatzearena [...], mundu honexen xehetasunik arruntenetan datzan

harrigarritasun errendiezina agerraraztearena baizik. Juan Garzia

Giza entzumenaren **harrigarritasuna**. Irene Aldasoro

harrigiltza *iz* giltzarria.

Harginek baztertu harria gertatu da heben ere ıdaletxeko giltzarria edo **harrigiltza**. Herria

harrika 1 *adlag* harriak jaurtiz.

Txalaka mikatz haiei haginkada bana egin eta **harrika** ekiten genion elkarri gero. Koldo Izagirre

Izaki munstro bat **harrika** ari zitzaigun. Joxean Sagatzizabal

Libertatearen izenean egiten dituzten joko ilun eta kondenaigarri horiek beren kontra itzultzen direla eta beren buruari **harrika** ari direla. Herria

Irriño bana, mesedez, **harrika** hasi baino lehen. Koldo Izagirre

Aitona, eramaiok arku hori; bestela ni neu, gazteena izanik ere, abiatuko natzaik atzetik **harrika**. Juan Kruz Igerabide

Manifestalariak han-hemenka banatu ziren, pareta atzean, eta **harrika** eraso zioten txaletari. Josu Zabaleta

Gogoratzen eskabadorari nola egin genion **harrika**? Jokin Muñoz

Eta bizirik itendakoek **harrika** borrokatu beharko dute piztiekin. Koldo Biguri

Harrika akabatu behar nautela. Koldo Izagirre

Harrika hiltzen zituzten, berriz, adulterioa, estuproa, sodomia, bestialidadea praktikatzeko zutenak. Patziku Perurena

Harrika hiltzera zigortu dute nigeriar bat, ezkontzaz kanpo haurra izateagatik. Berria - Gaiak

Hantxe berean hil zuten, **harrika**. Pello Salaburu

Fakultateko horretan pintada batzuk egin eta kristal batzuk **harrika** apurtu. Jon Arretxe

Buru barruan kristaleria bat **harrika** hautsi balidate bezala sentitu nintzen. Ramon Saizarbitoria

Manifestaldian **harrika** ibili nintzelako atxilotu nindutela. Ramon Saizarbitoria

Nik hitz egiten badut, **harrika** ibiliko naute. Pablo Sastre

Zelan behin mutikoen putak handik **harrika** bidali, zelan gero sos batzuen truke beren lana egiten utzi zituzten. Pablo Sastre

Nire senarrak urrea **harrika** banatu zuen nire mirabeen artean. Patxi Zubizarreta

Eta hala bada **harrika** uxatuko dugu. Patxi Zubizarreta

Mendeku bila hasi ginen berehala, urkuluak heldu eta **harrika**. Joseba Sarrionandia

- Fraideenean inoiz ez nintzen **harrika** nabarmendu. Aingeru Epaltza

2 *zerbait harrika bota*¹

Umeak **harrika** bota du jostailua. Nire bizitzan ez dut inoiz inor ikusi dirua horrela **harrika** botatzen. Antton Olano

Lotsagarria da gure zergen dirua modu honetan **harrika** botatzea. Bernardo Atxaga

Aipatuko ez dudan batek labana hartu eta **harrika** bota zuen uretara. Koldo Izagirre

Uste dut Pablok sotana **harrika** botako duela. Joxean Sagatzizabal

3 *norbait harrika bota*²

Egurastu gabeko zoko-usaina baino estuagoak dira, baina ez gaituzte **harrika** botako -esan zion nederlanderaz. Anjel Lertxundi

4 *harrika eman* ik **harrikatu**.

Mutikotan Brooklynen gu jendeari **harrika** ematera joaten ginen. Lopez de Arana

Gogoan du nola zebilen gaztetan, zapia aurpegiaren jarrira, poliziaie **harrika** ematen. Jokin Muñoz

Egik barre, egik algarra Huck, nire amorrua zorrotz tinkatua zagok umerik merezi ez duenaren aztalean, **harrika** eman behar didak? Koldo Izagirre

Itsuskeria asko egin zizkieten, lokatz ugari gainera jaurtiz, **harrika** emanez, hara eta hona bultzatuz. Askoren artean

Gero, kanpora atera Nabot, eta emaozue **harrika** hil arte. Jose Antonio Mujika

- Txorimalo **harrika** emagarri gisa. Koldo Izagirre

5 *harrika hartu*

Hiltzea auzirik zaien abereak hiltzen ikusi bagintuzte, **harrika** hartuko gintuzkete. Jose Antonio Mujika

Beste batzuetan, **harrika** hartzen dituzte haurrek. Herritarrek autoen inguruan bildu ziren, **harrika** hartu eta sutan jarri zituzten. Gotzon Garate

Poloniako eta Irlandako kontsebadoreek **harrika** hartu zuten ontzia, *Woman on Waves*ek abortua legeza dezaten eskatzeko eta emakumeei informazioa eskaintzeko eraman zuelako. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat harrika (5); **beren buruari harrika** (4); **buruari harrika** (5); **dirua harrika** (4); **eta harrika** (26); **eta harrika bota** (3); **eta harrika hasi** (3); **genion harrika** (3); **guztiek harrika** (3); **guztiek harrika eman** (3)

harrika ari (7); **harrika bota** (22); **harrika bota eta** (3); **harrika bota zuen** (4); **harrika botako** (3); **harrika botatzea** (3); **harrika botatzen** (10); **harrika egin** (9); **harrika egitea** (3); **harrika eman** (12); **harrika eman zioten** (4); **harrika emango** (10); **harrika emango diote** (3); **harrika ematen** (6); **harrika eta** (5); **harrika hartu** (7); **harrika hartzen** (3); **harrika hasi** (15); **harrika hasi zitzaizen** (3); **harrika hil** (6); **harrika hil zuten** (3); **harrika hilko** (7); **harrika hilko dute** (3); **harrika hiltzen** (4); **harrika hiltzera** (5); **harrika hiltzera zigortu** (4); **harrika oldartu** (3)

hartu eta harrika (4); **israeldar guztiek harrika** (3); **kontra harrika** (3); **sotana harrika** (5)

harrikada 1 iz harri ukaldia.

Momenturik egokienean, **harrikada** bat jaurti eta aurpegian jo nuen bete-betean. Koldo Biguri

Ondo jaurtitako **harrikada** batek animalia jotzen zuenean. Josu Zabaleta

Gabik sekulako **harrikada** eman baitzion buruan Joxeri. Jokin Muñoz

Mutil horrek **harrikada** batez zauria egin zidan. Patxi Zubizarreta

Harrikada batzuk etxearen fatxadaraino iritsi ziren. Josu Zabaleta

Hortik ihesi goaz, buztanikara gizonaren **harrikadatik** bezala. Iñaki Segurola

2 (hitz elkartuetan)

Berehalaxe **harrikada** erautsi batek beirak puskatu zituen, eta atea botatzear zegoen jendetza hura kale kantoitik jendarmeak azaldu zirenean. Josu Zabaleta

3 harri ukaldi batek ibiltzen duen tartea

Harrikada baten bidea egin zutenean. Askoren artean

Erresistenteen harresitik **harrikada** baten tartean, hain zuzen. Edorta Jimenez

Harrikada bateko bidea egin baino lehen. Askoren artean

Harrikada batera aldendurik, otoitz santuan murgildu zen. Askoren artean

Anaiek aukeratutako lekutik **harrikada** batera. Askoren artean

La Bodeguita del Medio-n afaldu genuen, katedral zaharretik **harrikada** batera. Jon Muñoz

Butroiko kurtzea deritxonetik Laukizerantz, **harrikada** batera dagoan jatetxe hau fama handikoa da inguruetan. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harrikada bat (4); **harrikada batera** (4); **harrikada futurista** (3); **harrikada futurista prepositiboa** (3)

harrikaldi iz harri jasa • irud

Hitz- **harrikaldia** atertu zuenean, berriro hitza hartu, eta, ordurako zeharo lotsagabetuta, honelako zerbaite esan nien: [...]. Joxerra Garzia

harrikari iz harrikatzailea.

Gehiago dena, ez dira gauzak hortan gelditu: han berean, lehenik, hurbil, beste hiltze bat eta oraino beste hil bat Betelemen, **harrikari** gazte batzueri tirokatuz Israelgo armadak. Herria

harrikatu, harrika(tu), harrikatzen 1 du ad harrika eman.

-Harrikatu genuen sukaldaria zertan den jakin nahi nikek. Patxi Zubizarreta

Eta pilotan ibiliko ginela hondartzan eta harkaitz baten gainean botila bat jarri eta **harrikatuko** genuela eta akaso hiru neska ezagutuko genituela. Koro Navarro

Harrikatua eta hila izan zela jakitean, honela esan zion Jezabelek Akabi: [...]. Jose Antonio Mujika

Hitzak harri balira, hantxe **harrikatu** nindutela esan beharko nuke. Joxerra Garzia

Manifestariak prefetura eta Kontseilu Nagusiaren egoitza **harrikatu** zituzten. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo gisa)

Kritikoak dira, bai, baina kritikoaren kritikoak batez ere; ausartak eta bortitzak, haren aurka Estatu osoan mila egunkaririk 999 eta ehun telebistatik 99, denak ausartak eta bortitzak diren zakur **harrikatuarekin**. Joxe Azurmendi

harrikatz iz izadian harri eran aurkitzen den ikatza, hiru laurden baino gehiago karbonoa dena. ikikatzarri.

Handik gerotxuago, mutilak berehala bete eban **harrikatzez** zorro handi bat aitak jaurti ebazan harriekin, eta etxera eroan eban. Pablo Sastre

Egonkorrak diren materialetan (hala nola kare harria, edo **harrikatza**, edo diamantea, edo zenbait materia plastiko). Juan Garzia

Ezta berogailu zentralik ere; gelak **harrikatzaz** eta egur-labeaz berotzen dira. Eskarne Mujika

Harrikatzaren industrian. Joseba Sarrionandia

Erresalbu-gordailuok **harrikatz** eta petrolio hobietan dautza. Juan Garzia

Harrikatz meatzeko tren batera bota zian bere burua, Josu Zabaleta

harrikatzaile izond harrikatzen duena. ik harrikari.

Ez, ordea, haur **harrikatzaileak** suntsitzea beste konponbiderik onartzen ez dutenen alde. Joxerra Garzia

harriko 1 iz baxera garbitzea.

Baina hurrengoan **harrikoa** hire kontu. Aingeru Epaltza

Juana **harrikoa** bukatu eta eskuak idortzen ari dela ikusi duenean Lainez zutitu egin da. Pello Lizarralde

Harriko laburra amaiturik, mandarra kendu eta paretako gakotik zintzilika zuen nire aldera etorri aitzin. Aingeru Epaltza

2 harraska. ik harri 7.

Ez nuen etxe batean ohikoak diren soinuetatik batere entzuten: ez inor eskailerak jaisten, ez iturriko urarenik, ez inor erratza pasatzen, ez eztuliek, ez ontzi garbiketarik **harrikoan**, ezer ez. **Pako Aristi**

Eta **harrikoan**, Ane etorri zitzaion gomutara. **Unai Iturriaga**

Garbigailuan sartu nituen denak; gero konturatu nintzen nire kamixeta hartan ere bazela tantoren bat, eta eskuz eman nion pasada bat **harrikoan**, ri-rau. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 harrikoa eginsup_1 baxera garbitu.

Eta atzean ama sentitzen zuen, sukaldean **harrikoa** egiten, plater, koilara, edalontzi eta labanen hotsa urarekin. **Joseba Sarrionandia**

Familia osoari jaten eman eta **harrikoa** egin eta gero, amaren ordua izaten zen, eta etxeko aulki bat hartuta, atari aurrera ateratzen zen. **Jon Maia**

Ura berotzen jartzen dugu; Linek **harrikoa** egiten du; nik ontziak sikatzen ditut. **Eskarne Mujika**

Ontziak harraskan bildu eta **harrikoa** egiteari ekin zion berehala. **Unai Iturriaga**

Zertarako egin **harrikoa** zuk ezin hobeto garbitzen badituzu ontzi guztiak? **Jon Arretxe**

Ez dugu erosiko kristalak garbitzeko xaboa **harrikoa** egitekoaren orde. **Patxi Zubizarreta**

Baldin eta etxean gurasoek erakusten ez badiote umeari paper bat erortzen denean jaso behar dela edo **harrikoa** denon artean egin behar dela. **Berria - Harian**

Etxeko lanetan ez daukagu banaketa zehatzik, edozeinek egin dezake edozer: sukaldea, **harrikoa**, garbiketak... denetarik egiten dugu, batak zein besteak. **Berria - Euskal Herria**

· Bazkalondoko **harrikoa** egin eta gero. **Xabier Montoia**

Gauean pilatutako **harrikoa** egitea, sugainaren inguruan fosilizatutako koipea kentzea edo komunak goitik behera garbitzea. **Jon Arretxe**

4 harrikoa eginsup_2 arropa harrian garbitu.

Han, ur ertzean **harrikoa** egiten ari ziren emakumeak ikusi zituen. **Felipe Juaristi**

Harrikoa egiten ari ziren emakumeek libibatxoa ibai ertzeko belar gainean ondo tolestuta utzi, eta atera behar izan zuten uretatik. **Felipe Juaristi**

5 harrikoa eginsup_2 irud/hed

Beste esku batekin imazekin itun neostatutario baten ikurra astindu (Katalunian Masekin egin duen antzera), jeltzaleak ordainean, bere alderdian **harrikoa** egin beharko duelarik, urez eta harriz. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **harrikoa** (3); **harrikoa egin** (8); **harrikoa egiten** (22); **harrikoa egiten ari** (8); **kapito harriko** (4)

harrikoxkor, harrikozkor ik harri 36.

harrilan iz harrian eginiko eskultura.

Bertan 400dik gora artelan daude: margolanak, **harrilanak** eta argazkiak, azken bi mende hauetako biluzia gai hartuta. **Berria - Kultura**

Lehoi batzuk irudikatzen zituen **harrilana**. **Juan Garzia**

harrimen iz harrigarria denak eragiten duen zirrara. ik harridura; harritze.

Aurpegian, pentsatu nuen, zorroztasun gaiztoa eta **harrimena**, biak, antzematen zitzaizkion. **Koro Navarro**

Aspaldi igaroak dituzte **harrimenaren** mugak. **Josu Zabaleta**

Eta nekea da, denok dakigunez, **harrimenaren** etsairik etsaiena. **Felipe Juaristi**

Nahiz eta duda izpirik gabe onartzen nuen ohikoa zela niretzat hura guztia, **harrimenez** konturatu nintzen, hala ere, zeinen ezezagunak gertatzen zitzaizkidan irudi arrunt haiek sorrarazten zizkidaten burutapenak. **Koro Navarro**

Tabernariak **harrimenez** begiratu zuen bere ingurura. **Koro Navarro**

Algernonek eta Cecilyk **harrimen** haserrez begiratzen diote. **Antton Olano**

harrimuga iz mugarría, harrizko muga.

Mahasti, olibondo, almendrondoak eta, artetan, **harrimuga** balisatzaile bat. **Piarres Aintziart**

Hemen ere, **harrimuga** eder bat, Santiago kuskua, itsas hegiko harroketan oskolak bezal-bezala aztaparez lotua, hamar eriko eskua iduri duela. **Piarres Aintziart**

harripauso iz ur-laster bat igarotzeko ezarriak diren harrietako bakoitza.

Nik katiuskak nituen eta batzuetan uretan barna eta bestetan **harripausoz harripauso** iritsi naiz bestaldera. **Gotzon Garate**

harripe 1 iz harrien azpia.

Loreak sortu ahala hiltzen eta xomorroak **harripeatatik** atera eta kiskaltzen ziren paraje hartan. **Pablo Sastre**

2 harripean harrien azpian.

Abenduaren 15ean bere etxera joan zen eta etxea **harripean** ikusi zuen, urtegitik urak ekarritako harrien azpian, han hil zitzaion familia osoa. **Pako Aristi**

Galdu zeure dirua senide edo adiskidearen alde, eta ez **harripean** herdoiltzen utzi. **Elizen arteko biblia**

Hor irabiatzen dira absurdoan, beren hodeiaren azpian, zokozorriak beren **harripean** bezala. **Josu Zabaleta**

harripila iz harriz eginiko pila.

Bildu zituzten harriak eta **harripila** bat eraiki zuten. **Jose Antonio Mujika**

Labanek Jegar Sahaduta deitu zuen **harripila** hura eta Jakobek Galaad. **Jose Antonio Mujika**

Harripila haretxen azpian azaldu zen, nik sekulan ikusi gabeko pizti arrotza. **Patziku Perurena**

Brooklyngo zubi erraldoiaren oinarriak, kanpotik **harripila** gotor eta betea diruditenak, hutsik daude barrualdean. **Harkaitz Cano**

harriduri iz harrizko irudia.

Baina errepideak bi arku ederren azpitik segitzen du eta ezker dago, eskupean bezala, ibiltariaren zai, arku doble bat xoragarria, **harrirudiak** denborak erdi janik badira ere.

Piarres Aintziart

Egun zehatz batetik aurrera, kasik **harrirudizko** bilakatzeraino mututu zen eta hirira alde egiten hasi, ezezagunen artean lasai, inori ezer erantzun beharraz libro bizitzera.

Pako Aristi

harritarre iz harriarrea.

Besteak irartzazera joan da, **harritarreotarik** ikusten ditut nola egiten didaten so manera bitxian.

Koldo Izagirre

harritasun¹ iz harri izateko nolakotasuna.

Gisa horretan, harri honekin eta harekin **harritasunak** edo Petriekin eta Paulorekin gizonak duen erlazio berbera dute adimenak eta nahimenak ideia honekin eta harekin edo nahi izate batekin eta bestearekin..

Piarres Xarriton

harritasun² iz harrimena.

Lehen bilatu zuen guztia aurkitu zuen, zurrumurruak, begiradak, irriñoak, baita **harritasunezko** espresioa ere, betarte batean edo bitan, agerikoarekin nahikoa izan ez eta sinetsi beharko lukeenaren antzera.

Jon Alonso

harritsu izond harri asko dagoena, harria ugari duena.

Bide xuko, patartsu eta **harritsu** batean naiz oraindik, eta hatsantzen hasia.

Piarres Aintziart

Zelai **harritsu** eta biluzi batean nabil.

Piarres Aintziart

Abade bat ikusten da jende multzo bati sermoia ematen, eta lekua mendia da, mendi **harritsu** bat.

Bernardo Atxaga

Muino **harritsu** batean gora sigi-saga igotzen ari ginen bitartean.

Jon Muñoz

Haran **harritsuaren** mendebaldeko ertzetik iparraldera.

Agustin Otsoa

Ubide **harritsuaren** beste aldean.

Agustin Otsoa

Mendi **Harritsuetak** Parke Nazionaleko mendi zoragarrietara.

Xabier Olarra

harritu (ETCn 47.358 agerraldi), harri(tu), harritzen 1 da ad zer esan edo zer egin jakin gabe gelditu.

Ez **harri**, anarkista izan omen zenuen aita.

Xabier Montoia

Nor **harri** orduan, egunaren arian balinbazituen halako kuluxka aldi batzu, ez batere luzeak, arte marteka.

Herria

Nor ez **harritu** gizon aski ezagun bat, ia une berean, oraintxe larriki zauritua eta oraintxe osasun betearen jabe ikustean?

Askoren artean

Biziki **harritu** zen eta poztu anaia hura aita santuaren hitzekin.

Askoren artean

Ez zen guti **harritu** ikusiz haur batek nahi zuela bere jakitatek zerbaite hartu.

Michel Oronoz

Bai, denak **harritu** dira eta ez guti **harritu** jakinik *Egunkaria*-z arduratzen diren hamar lagun arrastatu zituztela.

Herria

Zinez **harrituko** da, bai, bihar liburuzainaren gutuna jasotzean.

Monika Etxebarria

Zeinen zoroak diren **harritzen** direnak ikustean gizaki onek atsekabe eta oinazeak sofritzen dituztela.

Joan Mari Lekuona

Harritu zen errementaria, ez zuen ulertzen.

Josu Zabaleta

Osaba **harritu** egin zen nire komentarioarekin.

Bernardo Atxaga

Izutu eta **harritu** egin nintzen Kathyk hori esan zidanean.

Xabier Olarra

Ez **harri** zu, irakurlea, batere, kondu bitxi hau ikustearekin.

Herria

Munduaren bildutasunaz **harritu** zen, halaber harri batetik besterako xendaren laburtasunaz.

Itxaro Borda

Ez zen **harritu** nire deiarekin.

Ramon Saizarbitoria

Domingo santua, han baitzebilen hori guztia ikusten, asko **harritu** zen San Frantziskoren aginduaz.

Askoren artean

Sekretu bat? **-harritu** zen Dagat-.

Ramuntxo Etxeberri

-Eta hau? **-harritu** nintzaion, esaldia seinalaturik.

Anjel Lertxundi

Hendaia? **harrituko** zaio Mattin.

Xabier Montoia

Haize-itsasoei agindu zien gelditzeke; eta gelditzean, itsasoa baretu zen; eta hori ikustean ikasleak **harritu**: "Nor da haize-itsasoak menderatzen zaizkion hau?".

Patxi Altuna

Harritu banintz **harritu**, adreza hartu zuen, eta joan nintzen.

Marzel Etxehandi

• 2 du ad zer esan edo zer egin jakin gabe utzi.

Bidaiari guztiak **harritu** ditu, hilotz bat bezala etzanda, geldirik, erruki eske agian.

Pako Aristi

Zure arima zerutiarrak nirea **harritu** eta liluratu zuen.

Jon Muñoz

Kanpoko eguzki haizeak **harritzen** nau.

Aurelia Arkotxa

Harri nazak.

Aingeru Epaltza

Joantoren boz ilunak **harritu** zuen, eta hari buruz itzuli zen.

Elena Touyarou

Esaldi hura osatzeko gauza izateak **harritu egin** ninduen.

Bernardo Atxaga

Tourvel jaunak badaki hura itzuli arte hemen gelditzeke asmotan naizela, eta **harrituko** luke, arrazoi osoz, nik arinkeriaz asmoz mudatu izanak.

Jon Muñoz

Kobak **harrituta** gauzka, Korean ez da halakorik.

Berria - Euskal Herria

Nire tristurak **harriturik** zauzka haatik; haren zergatikoaz galdegiten didazu: batzuetan ere dolutzen zintuela ikusi uste izan dut.

Jon Muñoz

Hemen ez du harriak **harritzen** eta goratasunak burtxoratzen, baizik eta murruean eta sabaiaren ezintasun margotuak so egilea jabolten.

Piarres Aintziart

• 3 da ad harri bihurtu. ik petrifikatu.

Hementxe daukat aurrean Alfred Sisley argiaren "Elur harridura Louveciennes" izeneko koadroa, eta begiratu orduko, hitzak ere **harritu** egiten zaizkit bihotzean.

Patziku Perurena

Ez ote da kromletx hori, jainko zaharren bat, munduan aho zabalik, hortzaz gora gelditua, lurpetik guri deika **harritua**?

Patziku Perurena

4 (era burutua izenondo gisa)

Agure **harrituaren** oinetara oldartu zen. Txikia da, potoloa, eta panpina **harritu** baten aurpegia dauka.

Jose Morales

Eta orduan, Pippinen begi **harrituaren** aurrean, harresien kolorea gris espektraletik zurira aldatu zen.

Agustin Otsoa

Animalien begiratu **harritua**.

Alberto Barandiaren

Gizonak baiezko **harritua** eragin zuen buruaz. [Anjel Lertxundi](#)
Ume kaletar **harritu** askok, behizaharrak adinako begiak zabaltzen dituzte, harriduraz blai, ardi bat ezagutu dutelako. [Pello Zabala](#)
Hori zidan ihardetsi motz-motza, halako beltzuri **harritu** bat eginez. [Janbattitt Dirassar](#)
Keinu erdi **harritu** erdi burlariarekin. [Joseba Sarrionandia](#)
Begotarte ezin **harrituago** batekin. [Koldo Izagirre](#)
Zergatik dion hori? -galdetu nion, **harritu** baten espantua eginez. [Anjel Lertxundi](#)
Bizirik irteera bera ere medikuntzaren miriritzat **hartu** zen. **Xabier Olarra**
Ezin hura gertakari barregarritzat **hartu**; nik ez, baina Herbertek bai, nonbait. Traidoretzat **hartu** zuten. **Joxe Austin Arrieta**
Miraz ikusten ari zirena miriritzat ala deabrukeriatzat **hartu** behar ote zuten erabaki gabe. **Felipe Juaristi**
"Mukizu honek nekez galtzen den belar txarra ematen dik" pentsatu, eta Cadine alabatzat **hartu** zuen. **Karlos Zabala**
Lana helburu naturalizat **hartuko** da eta jainko berri bihurtuko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Herbertek Palenquen ikusi eta hiltzailetzat **hartuak** zituen beste harako biak bezalakoxeak. **Joxe Austin Arrieta**
Beharrezkoa zen hori patologikotzat **hartzea**, baina ez zen nahikoa. **Xabier Olarra**

12 (era burutua izenondo gisa)

Jaiok hiltzea zor duela eta hilak bakea, **hartuak** emana duela berekin eta emanak kendua. **Iñaki Segurola**
Emanak **hartua** du zor, eta bizia eman uste duena hartzekodun egiten da. **Iñaki Segurola**
Bazegoen, hala ere, gauzatxo bat nik noizbehinka aldatu nahi eta ezin izaten nuena: Imanol beti zen malgua (**hartua**) eta ni bugrea (hartzailea). **Aitor Arana**
Ez zegoen esaterik **hartuek** hartzaileek baino gutxiago gozatzen zutenik, ezta alderantziz ere. **Aitor Arana**

13 ahotan hartu

Hizkuntza guzietan Deabruari ematen da hainbat deikera ematen zaizkio, alusiozkoak eta eufemistikoak, hala posible baita hura adieraztea izena **ahotan hartu** gabe.

Juan Garzia

Errege merovingio zaharrek jainkoa **ahotan hartuz** zuritzen zuten beren indar ahalguztiduna. Patziku Perurena

Eta ama dut **ahotan hartzen** eta ez aita, zeren ume-kontu hauek amen gauzak izan ohi baitira haste-hastetik aitenak baino askozak gehiago. Iñaki Segurola

Asko hitz egin eta idatzi da Sarrionandiaren lanaz, eta halako errespetua ere ematen du idazle sonatu baten eleberria **ahotan hartzeak**. Berria - Kultura

Legegintza Gorputza **ahotan hartu** eta izugarriak esan zituzten haren kontra. Karlos Zabala

14 aintzat hartu

Eri-gelan dagoen jendeak nahitaez entzuten du -beharko entzun-, baina, nik uste, entzungor egiten du, edo aintzat **hartu** ez. Xabier Olarra

Gizonak gorra bailitzan jarraitu zuen, Martinen esana aintzat **hartu** gabe. Bernardo Atxaga

Litekeena da horregatik izatea -ekin nion bere eskaera aintzat **hartu** gabe-. Bernardo Atxaga

Aintzat **hartu** zuten hiri sarreran bildutakoek Hamorrek eta honen seme Sikenek esan zutena. Jose Antonio Mujika

Hala, groenlandiararren aipamenak aintzat **hartu** eta Ezra Pound eta Katuloren poemak eskuratu nituen. Bernardo Atxaga

Ez nuen **aintzat hartu** aholku hori. Josu Zabaleta

Ez zekien datua edo ez zitzaion datua **aintzat hartzea** komeni. Anjel Lertxundi

Errorik gabeko arkitektura, tokio ezaugarriak **aintzat hartzen** ez zituen. Berria - Kultura

Filosofia Modernoa deituriko garaiaren periodoak aztertuz hasten da sarrera, bi eredu **aintzat hartuz**: kartesiarrak eta kantiarra. Askoren artean

Sendagileen esanak ez aintzat **hartzea** erabaki zuen. Bernardo Atxaga

15 arta hartu

Aitaz ere **arta hartu** zuen. Elena Touyrou

-Aita Mathieu ongi arta ezazu eta zutaz ere **arta har** ezazu! Elena Touyrou

Arta hartu dut bestalde, ahal nuen aldi guztiez, ene demonstrazioak eragotz zitzaketen aurreiritziak baztertzeko. Piarres Xarriton

Badakigu eskola publiko elebidūnez **arta hartzen** dūan etxekoan batarzūna dela "Ikas-Bi" alkarte. Herria

Eskerrak ere arropa horietaz guzietaz **arta hartzen** eta egun horietako moldatzen dituzten emazteeri. Herria

Etxe batean eritasuna sartuz geroz, auzoak hor ziren prest, zuk galdegin gabe ere, eskukaldi bat egin beharez, edo mediku-keta edo kabaletaz **arta hartzeko**. Angel

Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

16 arnasa hartu

Begira, **arnasa hartzen** ari da... Lopez de Arana

Arnasa hartzen ahalegindu nintzen. Koro Navarro

Azkenetan zegoela ematen bazuen ere, **arnasa hartzen** zuen oraindik. Inazio Mujika Iraola

Hirugarren solairuan, arnasa **hartu** zuen, barandan bermatu behar izan zuen une batez. Karlos Zabala

Arnasa hartu ezinik, hatsanka hurbildu zen leihora. Gotzon Garate

Errazago **hartu** nuen arnasa. Bernardo Atxaga

Sudurreko ezkerreko zuloa estali du, **arnasa hartuz**, gogorki; eskumakoa garbitu kanpotik. Sonia Gonzalez

Olatx, mundura jaio zen egun berean arnasarik **hartu** ezinez ito zen umeari. Iñaki Segurola

Birikak bildu zitzaizkion **arnasa hartu** beharraren itomenez, eta hitzik esan ezinik gelditu zen une batez. Anjel Lertxundi

Arnasa hartu eta hasperen egiten dut. Anjel Lertxundi

Arnasa hartzean sudur-mintzetan tik txiki ikustezin bat jartzen zaie. Pako Aristi

Baina orduan Billek **arnasa hartzera** gelditu behar izan zuen. Koro Navarro

Arnasa hartuta, hitz egiten jarraitu zuen-: Ederki. Alberto Ladron Arana

Gizona gelditu egiten da, irmotu eta **arnasa hartzen** du sakon. Oskar Arana

Bai usain ederra -esan zuen sakon **arnasa hartuz**-. Xabier Olarra

Eta gora igotzeko, aldiz, **arnasa hartu** eta bota, **hartu** eta bota egin behar duzu etengabe, sigi-saga joateko gorantz. Julen Gabiria

Bere altzoan soilik existitzen den denboran eta espazioan du arnasa **hartzen** literatur ospakizunak. Anjel Lertxundi

· Gero, arnasa sakon **hartu**, eta den-dena kontatu nion. Juan Kruz Igerabide

Gero, arnasa sendo **hartu**, eta sudur-ahoak itxi zituen, kiratsa barnera ez zekion. Anjel Lertxundi

17 atsedeen hartu

Atsedeen hartzera geratu zen une batez. Koro Navarro

Nire gelara eramango zaitut, **atseden har** dezazun. Koro Navarro

Ordu laurdentsuz lo-ez-lo **atseden hartu** eta gero. Anjel Lertxundi

Iruditu zitzaidan "eseri" esaten zutela [...] **atseden har** nezan eskatuz bezala. Bernardo Atxaga

Ahots kantariak atsedeen **hartu** zuen, ez amaitua zuelako, baizik eta lehen baino are indar handiagoz segitzeko asmoz. Felipe Juaristi

Eta lekua oso atsegina zen **atseden hartzeko**. Askoren artean

Atsedeen hartzen ari den koloso baten bakea da. Karlos Zabala

Herriak, bada, atsedeen **hartu** zuen zazpigarren egunean. Elizen arteko biblia

Atsedeen hartua nintzen, eta prest nengoen amodio kontu berrietan sartzeko. Koro Navarro

Orain **hartu** atsedeen, atsedeen **hartu** behar duzu. Sonia Gonzalez

Bakean **hartuko** dut lo eta **atseden** betiko bizitzan. Askoren artean

· Horrela bakean utziko haute eta atsedeen apur bat **hartu** ahal izango duk. Patxi Zubizarreta

18 atxilo hartu

Handik gutxira atxilo **hartu** zutela nire laguntxoek. Inazio Mujika Iraola

Guztira 263 immigrante **hartu** zituen **atxilo** Poliziak. Berria - Mundua

Errudunak **atxilo hartzea** nahi dute Srebrenicako sarraskiko hilen senideek. Berria - Mundua

Zaindariak **atxilo hartu** zuten kriminala. Juan Garzia

Eskoziako lau diputatu **atxilo hartu** zituzten: SSP Eskoziako Alderdi Sozialistako eta Berdeetako bina diputatu. Berria - Mundua

Gerra hasi zenean bi apaiz faxista atxilo **hartu** zituen hura bera nauk ni. Inazio Mujika Iraola

Atxilo hartu dute arrantzontzi bat, Frantziara ihesi zihoala. Inazio Mujika Iraola

19 aurea hartu

"Segituan joango gaituk, Lubis", esan zion Josebak niri **aurea hartuz**. Bernardo Atxaga

Erantzutera zihoan, baina don Jaimek aurea **hartu** zion: [...]. Bernardo Atxaga

Menelaori aurea **hartu** zion Helenak, eta honela erantzun zuen: [...]. Juan Kruz Igerabide

Eta bertsoaritzari berriro **aurea hartuz**, prentsak jaso zuen bitxikeria horren kronika 1920ko urte urrun hartan. Pako Aristi

Epe laburreko interes-tasen beheraldiari esker, finantza-sistemari likidotasuna eman eta **aurea har** ziezaiokeen arrisku horri. Koro Navarro

Badirudi ukimenak **aurea hartzen** diola ikusmenari, ukimenezko espazioak **aurea hartzen** diola ikusmenezko espazioari. Josu Zabaleta

Jaiotza: Jaio aurretik diagnostikoa eta Huntington-en korearen gisako eritasun agertze berankorrekoen sintomei **aurrea hartzea**. Juan Garzia

Arin ibili ezean, ez oinez baizik eta buruz, alkateak **aurrea hartuko** ditu. Felipe Juaristi

Zakurrek **aurrea hartu** zituzten, zaunka bizian, zerbaiten usaina hartuta. Juan Kruz Igerabide

Ez zen Barbeito izan, aurrea **hartua** zioten behingoagatik. Koldo Izagirre

20 azpian hartu

Belarretan ari zelarik gune patartsu batean, trakturra uzkailli zaio Fagaldeko Pantxix Harispuru gazteari, **azpian hartuz** laborari dohakabea. Herria

-Ezin zara hemen geratu, gurdiren batek **azpian hartuko** zaitu -esan zion-. Karlos Zabala

Arioek **azpian hartu** eta gizarteko lanik itsusienak egitera behartu zituzten. Musulmanek India **azpian hartu** zutenean, tenplua desegin eta toki horretan mezkita eraiki omen zuten. Gotzon Garate

Ivan Ogareffek ezin izan zuen goiko hiria **azpian hartu**. Karlos Zabala

Indar egin zuen bi eskuekin, eta behera etorri zen etxea, han ziren buruzagiak eta jende guztia **azpian hartuz**. Jose Antonio Mujika

Azkenean bull terrierrak **azpian hartu** du kontrarioa, masaitetik helduta. Gotzon Garate

Gau batean, emakume honen semea hil egin zen, berak, ohean zirela, **azpian hartuta**. Gurpilak harrapatuta, hantxe zegoen ahoz gora, ur lasterrak **azpian hartzeko** zorian. Jose Antonio Mujika

Naturguneen babes eremuak **azpian hartuko** zituelako urak, urtegia betez gero. Eduarne Elizondo

Ez duk jendea azpian **hartu** behar -esan zuen, gurdi gainetik jauzi egiten zuela. Karlos Zabala

Sandro mendian ikusteak munduarekin adiskidetzen zintuen, eta burutik kentzen zizun Europa **azpian harturik** zeukan amesgaizto larria. Juan Garzia

21 begitan hartu

Amak ez omen zuen maite; **begitan hartua** omen zuen, gaizki hartzen omen zuen. Gotzon Garate

Hark ere **begitan hartuak** baitzituen komunistak. Fernando Rey

Erresuminduta eta amorruz beteta zebilen orain, **begitan hartuak** zituen bai talde hura eta bai mundu osoa. Jon Muñoz

Eta halaxe geratu ziren bi emakume haiek, **begitan harturik** elkar, hirikoek ziotenez. Jose Morales

Bainan Marie Louise alargundu zen eta Juancito bere semetoxa beti segitzen zitzaiolakotz etxekandreak **begitan hartu** zuen haurtxoa, Juancitoren zorigaitzerako. Herria

Beharbada horrexegatik **hartu** gaitu begitan "euskararen taxidermiara" jo izan dugun hizkuntzalariok. Patziku Perurena

Begitan hartua dute, bereziki, anatomia-irakaslea, beren ustez gaizki portatu baita berekin. Juan Garzia

-Aitonak amona abandonatu izan balu, amonak begitan **hartua** izango zuen aitona. Jon Muñoz

Zakurrak **begitan hartuta** zeukan. Gotzon Garate

-Katu horrek **begitan hartu** du Scabbers! -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren

Begitan hartuta dituela zapiak eta lepoko guztiak. Alberto Barandiaren

22 elkar hartu

Alabaina, pentsatu bezala, bi lagunek elkar **hartu**, eta Budur printzesarengana abiatu ziren. Patxi Zubizarreta

Parisko erbesteratuekin **elkar hartutako** antifaxista talde bat atzeman dute Turinen. Fernando Rey

Bi nesken senideek auzitegian salatu zuten, deabruarekin **elkar hartuta** zegoela esanez. Juan Martin Elexpuru

Luis Estherrekin **elkar hartuta** ei dabil. Patxi Zubizarreta

Nitaz gozatu nahian, konkorduna eta zu **elkar harturik** zeundetelakoan nengoen. Patxi Zubizarreta

Ana agertu arte, gaizkiaren indar ezkutu nahiz ageriko guztiak **elkar harturik** ziruditen, nire kontra. Aingeru Epaltza

Bistakoa zen denak **elkar hartuta** zeudela. Bernardo Atxaga

Elkar hartuta omen zebiltzan parrokia batean bi apaiz. Inazio Mujika Iraola

Orain dena da akordioa, adostasuna, **elkar hartu** beharra, bat egin beharra, ongi etorri beharra. Iñaki Segurola

Guztiok **elkar hartzeak** ematen digun indarra azpimarratuko nuke. Berria - Euskal Herria

Kolorearen teoria klasikoaren eta errealitatearen arteko elkar **hartu** ezina harrigarri zitzaion Goetheri. Xabier Olarra

Hizkuntza bakarraren podorioz, giza ale guztiak elkar **hartu** eta ulertuko dute erraz eta gozo. Iñaki Segurola

Bihotz bi elkar **harturik**, horixe zirudien haren zurezko gorputzak. Felipe Juaristi

23 errentan hartu

Apartamentu bat errentan **hartu** eta bizimodu normala izan genuen. Ander Irizar

Denboraldirako errentan **hartua** genuen txalet txikian. Karlos Zabala

Etxearen goiko aldea **errentan hartu** zioten Fulham jaunari. Irene Aldasoro

Bob eta biok Amaralinar joan ginen hark **errentan hartutako** uda-etxe batera, gorputzari atsegin ematera. Karlos Zabala

Gavardek bi konpartimentu **hartuak** zituen errentan, eta, erdiko trenkada kenduz, oilategi bakar bat egina zuen biekin. Karlos Zabala

Haiek ere **errentan hartutako** auto batean.

Autoa, berriz, **errentan hartutakoa** zen. Berria - Gaiak

24 esku hartu (2418 agerraldi, 84 liburu eta 725 artikulutan; ETCn 8522) parte hartu

Txitxikovek ere **esku hartu** zuen eztabaidan. Jose Morales

Erakunde publikoak Danborradaren antolaketan **esku hartzen** hasi ziren. Askoren artean

Eragiketetan **esku hartzeko**. Koro Navarro

Hor dakar Stamford-eko zubiko guduan **esku hartu** nuela. Juan Garzia

Nik ez nuen **esku hartu** inolako ekintza bortitzetan. Agurtzane Juanena

Warwick-eko kondeak **esku hartu** ez balu, zintzur egingo zioten bertan. Juan Garzia

Neskak hiria bistatik galdu nahi zuen lehenbailehen, handik atera ezinik egongo baitzen preso, zorioneko zaintzaile hark **esku hartu** izan ez balu ustekabeen. Karlos Zabala

Inkizioak **esku hartu** aurretik hil baitzen arrasatearra. Anjel Lertxundi

Hotsaren sortzean **esku hartzen** duten faktoreak. Isabel Arrigain

1894az geroztik, Korean **esku hartu** eta Txina militarki garaitu zuelarik, Japoniak bere asmo espansionistak berretsi zituen. Koro Navarro

25 gaina hartu

Baina emeki emeki, Iruñera hurbil arau, eguzkia **gaina hartzera** doa. Piarres Aintziart

Udapartea dugu, eguzkiak bere **gaina hartu** du. Joan Mari Lekuona

Biolinak bigarren mailan geratzen ziren, biolontxeloak **gaina hartzen** baitzien, tontorrek mendiari eta dorreak elizari **gaina hartzen** dioten bezala. Felipe Juaristi

Gaizkile batek beti aurkitzen du berari **gaina hartuko** dion beste gaizkilea. Felipe Juaristi

Hainbat segundoz ahoa lotu zuen baina, luze gabe, mintzatu beharrak gaina **hartu** zion kolerari. Aingeru Epaltza

Odolak surik gabe irakiten baitu, sumindurak **gaina hartu** zidan. Daniel Landart

Oraingo honetan haserreak **gaina hartu** zion begiruneari. Josu Zabaleta

Errabiak **gaina hartzen** ziola hauteman zuen, zintzurtean listua irensteko tratatzen zuen korapilo bat egiteraino. Elena Touyaru

Zainei gaina **hartu** nahian, burua biratu nuen ohe ondoko mahaitxoaren aldera. Aingeru Epaltza

Anaiaren konplimentu borkatuak gaina **hartu** zien urdaileko leizetik heldu zitzaizkidan intziriei. Aingeru Epaltza

Egoerari **gaina hartzeko**. Joan Mari Irigoien

Eta bat-batean ideia bat hasi zen beste guztiei **gaina hartzen**. Pako Aristi

Gaitzak **gaina hartu** zion eta Indian bertan hil zen. Gotzon Garate

Alkoholak doi **gaina hartu** aurretik ematen duen argitasun puntu horretan mintzatu da orain artean laguna. Iñaki Iñurrieta

Goitik behera ezartzen zaigunari **gaina hartzeko** modu bat badela. Markos Zapiain

26 gogoan hartu gogoratu; kontuan hartu.

Bai, ene seme, **har** itzazu **gogoan** nire irakaspenak eta ez itzazu inoiz ahaztu. Jose Antonio Mujika

Har dezagun **gogoan**, bada, izenburuan dakarren baieztapena: [...]. Josu Zabaleta

Gogoan hartu behar da, garai hartan bazirela kataroena bezalako heresiak. Askoren artean

Karrika bilatu eta harainoko bidea **hartu** nuen **gogoan**. Alberto Ladron Arana

-Gogoan hartuko dut -agindu nion. Bernardo Atxaga

Aumeric Picaud jaunagandik ere, irainak bakarrik hartu ditugu **gogoan**, baina, badira gauza gehiago haintzat hartzekoak. Patziku Perurena

Beste predikarien sermoiak hitzez hitz **hartzen** ditut **gogoan**; Frantziskok jaulkitzen dituenek, ordea, ihes egiten didate. Askoren artean

Oso **gogoan** hartu behar da, beraz, pertzepzioaren elementuak [...] ez direla inoiz bakanka gertatzen. Josu Zabaleta

Eta aitaren aholkuak gogoan **hartu** izan balitu, irten ere ez zen egingo. Patxi Zubizarreta

Narrazio mitikoak **hartzen** ditut **gogoan**, nire gizarteko jendearen bizitza esplikatzen baitute. Bernardo Atxaga

Gogoan hartzen hasten gara orduan zer pentsatuko zuten gurekin bertan egon izan balira. Joxan Elozegi

Dendetako seinaleak ere gogoan **hartu** zituen, nahiz eta berarentzat letra ziriliko ulertezinak izan. Xabier Olarra

26a hartu-utzika hartuz eta utziz.

Aita ez muturtzeagatik hasi zen, bada, ezkutuan eta hartu-**utzika** irakurtzen, aitaren lo-kuluxka sarrien astiaz baliaturik. Anjel Lertxundi

27 hats hartu

Emakumeak **hats hartu** zuen. Aingeru Epaltza

Hala ere **-hats hartu** nuen-, atso batez ari garela, ez dakit inora garamatzen. Aingeru Epaltza

Tarrapatan mintzo zitzaigun, **hats hartzeko** etenik gabe. Aingeru Epaltza

Eta, **hats hartzeko** betarik emaiten ez zigula, are xeheroago kontatu zigun bertze mirakulu hura. Joan Mari Irigoien

Hats **hartu** nuen, arindurik. Aingeru Epaltza

Edo ez al diok aitonari **hats hartzen** utzi behar? Joan Mari Irigoien

Ehun bat kilometroz bide xidorrean autoaren jauziak jasan ondoan errege-bide gudroinatuan sartu zirelarik, **hats hartu** zuten. Aurelia Arkotxa

28 hautsak hartu

Harrizko irudi bat ikusi zuen, **hautsak** hartuta, koru azpiko zoko hondakinez bete batean. Anjel Lertxundi

Apalak bete-bete eginda zeuden **hautsak hartutako** lumez, kandela-muturrez, jokorako hainbat karta-sorta higatuz, zilar eta kristalezko bola ugariz, eta era askotako te-kikarez. Iñaki Mendiguren

Hautsak hartutako tradizio batez ari al naizen! Anjel Lertxundi

29 hitza hartu

Aaronek hitza **hartu** eta Jaunak Moisesi esandako guztia kontatu zien. Jose Antonio Mujika

Oraindik izerdia etortzen zaio eskuetara banketxeko bileretan **hitza hartu** behar duenean. Jokin Muñoz

Usaian bezala giro gaitza izan da, ainitz jende **hitza hartu** baitute. Herria

Hor ziren ere politikoak, baina ez dute **hitza hartu**. Herria

Bazkalondoan, **hitza hartu** zuen zuzendariak, eta, aski hunkituta, esker ona adierazi zion Germani. Josetxo Azkona

Hitza hartu eta esan omen nuen, bizitza honetan inportanteena, helburu bat eduki eta horren alde borrokatzea dela. Xabier Mendiguren Elizegi

Afaltzen hasi ginelarik Kaliningrad eskualdeko gobernadoreak **hitza hartu** zuen guri ongietorria emateko. Edorta Jimenez

Redinek **hartu** zuen hitza: [...]. Bernardo Atxaga

Ehundik gora idazle zarete -dio Saramagok **hitza hartzean-**, tren ez abiatzekotan. Edorta Jimenez

Aste honetako HERRIA-n **hitza hartzen** dute Ipar Euskal Herriko laborarien eta laborari ohien artean beren programak zabaldu dituzten hiru zerrendek: Coordination Rurale, FDSEA/CDJA eta ELB. Herria

30 jai hartu

Gaur **jai hartzea** erabaki dut. Unai Iturriaga

Haien neskameak **jai hartzen** du igandeetan.Santosek lantokian **jai hartu** zuen arratsaldean. Monika Etxebarria

Zer esango ote zion nagusiak eguna **jai hartuz** gero? Anton Garikano

Jatetxeko lanetik **jai hartzen** zuen egunetan. **Jai hartzen** zuenean, goizean goiz etortzen zen Albert Ruche jaunaren bila, eta landara joaten ziren, egun-pasa. Oskar Arana

31 kargu hartu (norbaiti) erantzuki egin, errieta egin.

Zail da asmatzen zerbitzariak zer darabilen buruan nagusiak **kargu hartzen** dionean. Jose Morales

Kargu hartu dit gainera, suhiltzaileei sartzen uzteagatik. Harkaitz Cano

Arrebak adarra joko dio, eta **kargu hartu** ere bai: mimatua dagoela, ez dela batera ibiltzen, ez ateratzeko horrenbeste lantu. Xabier Etxabe

Kargu hartuko zidan, esanez ez nintzela kontuz ibili, baina nik ez nuen kontuz ibiltzeko adina irabazten. Joxan Elozegi

"Kargu **hartu** behar nizuke", esan zidan Cesarrek itzuli nintzenean. Bernardo Atxaga

Aitak, aldiz, **kargu hartzen** zion amari, gehiegi jaten zuelakoan: [...]. Fernando Rey

Kargu hartzen dit, tanta bat hartu dudala ikusten duen guztietan. Irene Aldasoro

Arrazoirik gabe **kargu hartzen** didazu beti. Jose Morales

-Hitz hori ez duzu aipatu ere egin behar **-kargu hartu** zidan-. Fernando Rey

Aukera banuen, baina ez nion kargu **hartu**. Aingeru Epaltza

Egun argiz, bederen, ez genukeen bide luzerik eginen, eskandalu publikoaren salaketapean inork kargu **hartu** gabe. Aingeru Epaltza

-Jaunak kargu **hartu** eta epai zaitzate! Jose Antonio Mujika

Idazlana bere eskuetara iritsi eta han esandakoengatik kargu **hartu** nahi zidala edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Abdellahri kargu **hartu** zioten haiek ez ziren, ba, oso aurpegi-gozoak. Bernardo Atxaga

Entzuna nago ni euskaltzale fin askoei neuregatik edo nere herritarrengatik "euskaldunegiak" garela esaten (hizkuntzaz, jakina), eta baita, arrazoi berberagatik, ez garela "mundu honetan bizi" **kargu hartuz** bezala deklaratzeko ere. Iñaki Seguro

Gisa berean egokitzeagatik kargu **hartua** zidan niri, pare bat minutu lehenago. Aingeru Epaltza

32 kontuan hartu (orobat kontutan hartu g.er.)

Oso burutazio bixia da, eta **kontuan hartuko** dut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina **kontuan hartuko** dugu zure aitortpena, agintzen dizut. Karlos Zabala

Kontuan hartzeko esan ziotu Nini gaztea zela, denbora asko zuela aurretik pentsakeraz adatzeko. **Josu Zabaleta**

Gábor ez da **kontuan hartu** behar, bestelakoa da. **Ander Irizar**

Ez zuen **kontuan hartu** 36ko gerra hasi zenean, Lizardiren alargunak Oria ibaira bota omen zituela liburu gehienak. **Anjel Lertxundi**

Horiek guztiak galdera garrantzitsuak dira, ikerketa egiterakoan **kontuan hartu** ez direnak. **Koro Navarro**

Badut uste Karlos Santamariaren eta berak miresten zituen pentsalarien hausnarketak eta aholkuak **kontuan hartzekoak** ditugula baitezpada. **Piarres Xarriton**

Haiek ordea ez ziren **kontuan hartzeko** gauzak. **Koro Navarro**

Truke guztiak **kontuan harturik**, munduko BPGaren eta mundu mailako ekoizpenaren arteko erlazioa %26 zen 1998an, eta %8 berriz zen 1950ean. **Koro Navarro**

Interneten erabiltzaileak **hartzen** badira kontuan, erabiltzaile horietako % 23,1 goi mailako klasekoak dira. **Pello Salaburu**

Bestela ere, kostuak **kontuan harturik**, nekez egin zitekeen ikerkuntza. **Pello Salaburu**

Zeuden aukerak **kontuan hartuta**, onena hartu dudala uste diat. **Fernando Morillo**

Iduri du globalizazioa diruan oinarritzen dela, eta diruan bakarrik, jendea deusetarako **kontuan hartu** gabe. **Pello Salaburu**

Gaur egun ezin azter daitekeela irudi kategoria bat aldi berean gainerako guztiak ere **kontuan hartu** gabe. **Josu Zabaleta**

Ustekabe inozoa halere, probabilitatearen legeak **kontuan hartuz** gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kontuan hartzekoa da, burezur bat eta gainean Tau letra marraztuz sinatzen duela Frantziskok bedeinkapen hau. **Askoren artean**

Literatura tradizioa oso **kontuan hartu** zuela Euskara Batuak. **Koldo Zuazo**

Udal eta herrialde barrutietako administrazioa da **kontuan hartuko** dudana. **Koldo Zuazo**

Kontuan hartu ez dugun beste aukera bat zero morfema ezabatzea litzateke. **Itziar Laka**

Kontuan hartu, *have* "ukan" ezin dela era bikoitz honetan aztertu, laguntzaile bezala agertzen denean. **Itziar Laka**

Kontuan **hartu** behar duzu Nafarroan oso bakanak zirela banantezak eta legez kanpokoak dibortzioak. **Alberto Ladron Arana**

Kontuan **hartu** behar duzu Tibet britainiarren menpe dagoela. **Alberto Ladron Arana**

Horrelako hierarkiak oso **kontuan hartu** beharko genituzke euskararen azterketan. **Lourdes Oñederra**

Kontuan **hartu** behar dira delitugileen adina, delituaren izaera, gaizakeria maila. **Juan Martin Elexpuru**

Teknika menderatzeko **kontuan hartu** beharrekoak ematen dira bigarren atalean. **Askoren artean**

Modu berean demonstratzen dugu Tristuratik sortzen den Desirak ere ez duela osotasuna **kontutan hartzen**. **Piarres Xarriton**

Kontuan **hartzekoa** da, horretaz gainera, zenbat erabiltzen diren filmetan gainkoadratze-teknikak. **Josu Zabaleta**

33 lo hartu

Alboko agureak **lo hartu** du. **Pako Aristi**

Atea itxi nuen, etzan nintzen, eta **lo hartu** nuen. **Josu Zabaleta**

Eta horrelaxe **hartu** zuten **lo**, korapilaturik. **Eider Rodríguez**

Konparazio hura zehazten ari nintzela **hartu** nuen **lo**. **Bernardo Atxaga**

Berriz etzan eta **lo hartzen** ahalegindu nintzen. **Koro Navarro**

"Lo **hartu** behar al duzu orain?", esan zidan Virginiak. **Bernardo Atxaga**

Ez dut **lo hartu** behar. **Pako Aristi**

Agian **lo hartuko** du. **Koro Navarro**

Joan hadi hire etxera lo **hartu** baino lehen, Ubanbe. **Bernardo Atxaga**

Errekatxo bat igarotzen zen leihoreen azpian; iruditut zitzaidan gau osoan aritu zela etxea miazkatzen, **lo hartu** nuen arte. **Koro Navarro**

Oraindik **lo hartu** gabe, gizajo hori? **Juan Kruz Igerabide**

Gau horretan errespetuaz hitz egin zidan, bizkarra bizkarraren aurka **lo hartu** ezinik zebilela. **Lander Garro**

Lo hartu ezinik zegoela, ezkongaikien etzaten ziren mirabeak irten ziren jauregitik. **Juan Kruz Igerabide**

Eta gu lo **hartu** ezinda, Hispano-Suiza hark behiak txahala bezala umea egingo zuelakoan. **Pako Aristi**

-Dena dela, ezin izango dut **lo hartu** -esan nion-. **Koro Navarro**

Baina ezin nuen lo **hartu**. **Koro Navarro**

Azkenean **lo hartu**, eta amesgaiztoak izaten nituen. **Koro Navarro**

Ezin izan nuelako **lo hartu** begi haietan pentsatzen. **Jon Muñoz**

Ezin du lorik **hartu**. **Gotzon Garate**

Izan ere, muxarrak behin **lo hartuz** gero negu osoa pasatzen du lotan. **Pako Aristi**

Kexu dira eguzkiak **lo hartu** duelako. **Askoren artean**

Bakean **hartuko** dut **lo** eta atsedean betiko bizitzan. **Askoren artean**

Bere hitzen gainean **hartuko** nuen **lo** gustura, sehaska zahar batean bezala. **Hasier Etxeberria**

34 loak hartu ik loakartu.

Jarlekuan erdi etzanda, **loak hartu** zuen. **Lopez de Arana**

Gero, etzan eta **loak hartu** zain geratzen naiz, borroaren zain egongo nintzatekeen bezala. **Josu Zabaleta**

Eta eseri egin zen, hain etenik non bertan **loak hartu** baitzuen. **Josu Zabaleta**

Telebistaren aurrean berehala **hartzen** bainau **loak**. -Eta **loak hartzen** ez banau? **Ramon Saizarbitoria**

Eta betaurrekoak kendu ere egin gabe, atzeraka etzan burkoaren gainera eta loak **hartu** zuen. **Iñaki Mendiguren**

Jarrera horretan loak **hartu** du. **Monika Etxebarria**

Pisu atsegin hura gogoan, loak **hartu** ninduen. **Alberto Ladron Arana**

Jostetaren ondotik, elkar besarkatu, eta loak **hartu** zituen. **Patxi Zubizarreta**

Logura, lo-nahia, **loak har** zaitzala, har zaitzala besoetan. **Lourdes Oñederra**

Baina jadanik ez zuen berriro **loak hartzerik** lortu. **Harkaitz Cano**

Goizegi zen jaikitzeke, beranduegi **loak hartzeko**. **Eider Rodríguez**

Irribarre, umea besoetan hartzen dugunean; irribarre, **loak hartu** ezin duelako lasaitu behar dugunean. **Arantxa Iturbe**

Eta ni urduri, loak **hartu** ezinik. **Joxe Austin Arrieta**

Egunez nekatu ez eta gauez **loak hartu** ezinik nabil aspaldian. **Jasone Osoro**

Maindireen artean ezin loak **hartu** ibiliko da, ez dagoela eskubiderik, kontxo, ez dagoela itxaropenik. **Lander Garro**

Eta jeneral garaila bat baillizan, sarraskia egindako eremuan bertan **hartu** zuen **loak**. **Josu Zabaleta**

Loak hartuta dagoenaren irudia esna begiratzen dionarentzat lasaigarria izan arren. **Sonia Gonzalez**

Loak hartuarena egiten dun baina hala ere ez duela zirkinik egiten eulia azalean ibiliagatik. **Koldo Izagirre**

Eskuak sabel parean gurutzatu, eta **loak hartutakoarena** egiten zuen. **Anjel Lertxundi**

-Eta, etzanda nengoela, **loak** laster **hartu** ninduen. **Koro Navarro**

Sei eta erdietan erromes baten iratzargailuak, loak osoki **hartua** ninduela, ohean punparazi nau. **Piarres Aintziart**

Lo sakon batek **hartu** ninduen berehala, heriotzarena bezalako loak. **Koro Navarro**

Egun batzuk zeramatzan ez zuela **loak** ongi **hartzen**. **Iñaki Zabaleta**

Sonabuluen **loak hartua** zuten, eguzki santu urrezko izpidunari begira luzaro egonak hipnotizaturik. **Josu Zabaleta**

35 mendean/menpean hartu

Nahiz eta gehiago izan eta arma hobekak eduki, ezin zuten bailara hau **mendean hartu**, mendiotan bertakoak garaiezinak zirelako. **Martin Anso**

Gure herria ez du inor garaituko ez **mendean hartuko**. **Jose Antonio Mujika**

Fulgencio Batistak **mendean hartua** zeukan Kuba hura ez zen Estatu Batuen sukurtsal bat baizik. **Jon Muñoz**

Hurrengo urtean naziak sartu ziren, herria **mendean hartu**, eta herritarrak bota egin zituzten bertatik. **Xabier Olarra**

Militarrek gauze **hartu** zuten **mendean** hiria. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ea nik mendean **hartu** eta lurraldetik botatzea lortzen dudan. **Jose Antonio Mujika**

Mendean hartu behar ote gaituzu? **Jose Antonio Mujika**

Charles bere **mendean harturik** zeukan emakume deabru horrek. **Xabier Olarra**

Gaizkile-talde batek erraz **hartuko** zintuzke **menpean**, Wilmer. **Lopez de Arana**

Belar txarrek aspaldi **hartua** zuten **mendean** leku hura. **Jon Muñoz**

Zakur pisuagoak errazago **har** lezake **mendean** bere kontrarioa. **Gotzon Garate**

irud Belarrez eta haragiz nekez elikatuz bizi den gorputza, gaixotasunak, itxuragabeteak, usteltzeak **mendean har** dezakeen abere makina. **Josu Zabaleta**

Stephen lekuaren sakratutasunak **mendean hartu** zuela iruditzen zitzaion Margareti. **Xabier Olarra**

Lozorro sakonean murgildu zen Abran eta izu larri eta ilun batek **mendean hartu** zuen. **Jose Antonio Mujika**

Emaztearengandik banatu berria nintzen [...] garai hartan, eta etsipenak guztiz **mendean hartua** ninduen. **Juan Luis Zabala**

Hark bazekien ezin ninduela soarekin mendean **hartu**. **Juan Kruz Igerabide**

Gure aita, berriz, gizon langilea zen, betebeharrekin **mendean hartua** zutena. **Jon Muñoz**

Baina jendetzaren aztoramen zalapartatsua mendean **hartu** zuen orduan. **Xabier Olarra**

Ez dadila logurak mendean **hartu** arte oheratu, eta esnatu bezain laster jaiki dadila. **Juan Martin Elempuru / Bego Montorio**

Baina askonahiak menpean **hartu** eta ametsetan hasi zen Parisen gelditu eta denda bertan zabaltzarekin. **Karlos Zabala**

Gutxika-gutxika **mendean hartu** zuen egoera, berreskuratu zuen bere odol hotza. **Fernando Rey**

Behatzen duguna ez da natura bere baitan, baizik-eta gure galdetzeko eraren **mendean hartutako** natura. **Iñaki Segurola**

Ekialdean, Indianak 104-88 **hartu** zuen **mendean** Boston; New Jersey Netsek 107-83 New York, eta Detroitetik, eroso, 108-82 Milwaukeek. **Berria - Kirola**

Ez baitzaite iruditzen, oraingoz, mendean **hartua** duen emakume horrez nik nahi nukeen bezain gogobeterik denik. **Jon Muñoz**

36 zerbaiti neurria hartu

Antza, erraldoiari **neurria hartu** dio, eta hemendik aurrera borroka orekatua izango da. **Martin Anso**

Beharbada, oraindik ez diot hiriarri **neurria hartu**. **Lopez de Arana**

Hasieran kosta egin zitzaion makinari **neurria hartzea**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Aitortu behar du horratik aldatu egin dela azken hilabeteetan: alkoholari **neurria hartu** dio, eta harremana bide berri batetik gidatu dute. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hamabost egunetan bost partida jokatu ditu Hormadiak, eta xapelgoari **neurria hartu** ezinik dihardu. **Berria - Kirola**

Osasunak partidari **neurria hartzea** lortu zuen lehen zatian, eta ongi aritu zen, nahiz eta markagailuan Valentziak aurrea hartu. **Berria - Kirola**

Ezin diot indarrari neurria **hartu**. **Koro Navarro**

Argia urratzen hasia zuan, astiro-astiro, eguzkia bere harrapakinari, munduari, **neurria hartzen** ari balitzaio bezala. **Xabier Olarra**

Ondo asko **hartu** zion neurria karguari, eta ezin hobeto betetzen zuen bere egitekoa. **Jose Morales**

Kezka hori izateak berak adierazten du ez niola formula egokiari **neurria hartzen**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Honek esan nahi zuen arazoa ez zela zuzenki literarioa, baizik eta etikoa: nik egia isiltzera, ez zen izango zero azpian ez irakurlek ez kritikaririk nire plajoiari **neurria hartuko** zionik. **Bernardo Atxaga**

37 ontzat hartu

Espainian gaindi, ainitzek **ontzat hartzen** omen dute gobernuaren joka-molde hori. **Herria**

Zenbait Herriko Etxek, aldiz, **ontzat hartu** dute gure proposamena. **Berria - Euskal Herria**

Agintearen aldeko eta oposizioko diputatuak **ontzat hartutako** akordioaren arabera. **Berria - Mundua**

Edonola ere, **ontzat hartu** zuten epaia. **Berria - Ekonomia**

Ontzat **hartu** zituzten hitz hauek Hamorrek eta honen seme Sikenek. **Jose Antonio Mujika**

Hona arazoak, **ontzat hartuko** baitituzu dudarik gabe. **Jon Muñoz**

Bizkitartean, Paulok eta haren lagunek bidean kausitu zituzten beste hizkuntza guztien artetik badira zenbait fede berriaren janzteko **ontzat hartu** zituztenak, hala nola Siria, Persia, Armenia eta Egiptoko hizkuntza zaharrak. **Piarres Xarriton**

Ona txartzat eta txarra **ontzat har** ez dezagun. **Imanol Unzurrunzaga**

Eta sortzen zaizkigun eragozpenak saihestu nahi izanez gero, onartu ezinezkoak **ontzat hartzera** behartzen gaituen eraikuntza guztiz korapilatsu batera jotzen dugu, zinezko proposamentzat nekez har litekeena. **Iziazar Laka**

38 parte hartu (19770 agerraldi, 214 liburua eta 5977 artikulutan; ETCn 127.491 agerraldi) esku hartu.

-Nik ere zure bizitzan parte **hartu** nahi dut, Fermin, behar zaitut. **Pako Aristi**

Monikak ere **parte-hartzen** du solasean. **Imanol Unzurrunzaga**

Eskerrik beroenak haiei, eta liburuan **parte hartu** duten guztiei. **Eduarne Elizondo**

Hamabi artikulugilek **hartu** dute **parte** 'Jakin' aldizkariak urtero egiten duen zenbaki berezian. **Berria - Kultura**

Kanpaldian **parte hartzen** ari zirenak. **Eduarne Elizondo**

Uste baino jende gutxiagok **parte hartu** zuen, azkenean, ekintzan. **Eduarne Elizondo**

Xabier Letek, Antton Valverde, Jabier Muguruzak, Alaitz Telletxeak eta Mikel Errazkinek **hartuko** dute **parte** emanaldian. **Berria - Kultura**

Irudi zuen gure etxekoa zela eta gure doluminean **parte hartzen** zuela. **Daniel Landart**

Bakearen aldeko Herrien Biltzarrean **hartu** zuen parte. **Monika Etxebarria**

Horra, baina: benetan parte **hartu** al zuen hilketan? **Monika Etxebarria**

Aldi berean, euskal mugimendua zeritzonean **parte hartzen** zuen, batez ere laborantza alorrean. **Itxaro Borda**

Aeroposta-Argentina konpainiaren esploratzaile izendatu zuten, Argentinan hegazkinezko posta zerbitzuak eta handik Europarako garraioa antolatzen **parte hartzeko**. **Josu Zabaleta**

Aitak **parte hartzeko** beharra sentitu zuen semeari babesa emateko edo. **Josu Landa**

Nolanahi ere, ez zaidak iruditzen Angelek fusilamenduetan **parte hartuko** zuenik. **Bernardo Atxaga**

Ikusten dut eta aitortzen dut holako gerla deitoragarri batean nihaurek ere **parte hartu** dutala. **Michel Oronoz**

Zuzenean **parte hartu** ala ez, hiltzaile artean ibili zen. **Bernardo Atxaga**

Linea beretan izan ginen pilotu, sorkuntza beretan **hartu** genuen **parte**. **Josu Zabaleta**

Izarrak ederrak dira, baina ezin dute ezertan **parte hartu**: begira egotearekin konformatu behar dute beti. **Julen Gabiria**

Hirietan, nazioarteko merkatariek ezin zuten xehekako salerosketan **parte hartu**, salerosketa mota hori oso zorrotz arautua baitzegoen, ekoizleen interesen alde. **Koro Navarro**

-Bai, jauna, Ostendeko setioan **parte hartutakoa** naiz. **Felipe Juaristi**

Euli-enbiziaren biziaren lehen urratetan **parte hartzen** duten eragiketak. Juan Garzia
Bi organismo horien garapenean **parte hartzen** duten prozesuak. Juan Garzia
Zatik elementalek **parte hartzen** duten gertaerak alde batera utzita. Josu Zabaleta
-Kontatu dizu **parte hartu** behar duen borroka horrena? Josu Landa
- Zer **parte hartzen** dute, ernalkuntzaren aurretik, amaren geneek enbrioaren eraikuntzan? Juan Garzia

39 preso hartu

Justizia gorenaren aginduz bi bihozgabe horiek preso **hartu** zenituenean. Anjel Lertxundi
Krasnoiarkeko batailan izan nintzen, eta hantxe **hartu** ninduten **preso**! Karlos Zabala
Elosegi, Joseba, ez zuten harrapatu, baina haren ordeza **hartu** zuten **preso**. Ramon Saizarbitoria
Alemanek preso **hartu** zuten, bertze soldaduekin batean, Frantziak gerla galdu eta biharamunean berean. Eneko Bidegain
Telegrafoaren gelan daukate orain **preso hartuta**, Bergarako juezaren zain gaude denok. Koldo Izagirre
1987ko ekainean zen **preso hartua** izan, ETAKoa zelakoan. Herria
Auvergne-ko makian **preso hartua**, Dachau-n zegoen. Marzel Etxehandi
Men egiten zutenak armadan sartzen zituen, men egin nahi ez zutenak **preso hartzen**. Karlos Zabala
Kanadako basatiek erre egiten dituzte **preso hartutakoak**. Iñaki Iñurieta
Preso hartu zituzten S.S.ek, ahalgerik gabe, kuraiarik gabe, bizirik utz zitzaten eskatzen diete. Michel Oronoz
- *irud* Gudronean **preso hartu** legarrak laster doatzi ene gibelerat, abaila haundian... Herria
Itzalek **preso hartutako** lur baten soslaia. Jon Muñoz

39a sosegu hartu

Lurrean etzanda, manta gainean jarri eta ahaleginak egin dituzu **sosegu hartzen**. Rafa Egiguren
Andrea, **har** ezazu **sosegu**, adiskidantzak dizu galdatzen. Jon Muñoz
Har ezazu haatik **sosegu**; nire iloba ez dago arriskuan. Jon Muñoz
Orduan, zure on egingengatik **sosegu harturik**, maiteko dut neure bizitza. Jon Muñoz
- Kontzientziaren harra ausikika hasten zitzaidanean, otoitz hura egin, eta otoitz hartan hartzen nuen bertzela nekez **hartzen** nuen **sosegu** eta kontentamenduapurra. Joan Mari Irigoien
Goxatu eta **sosegu** pixka bat har dezan, baina, aurrean izanda ere, ez zenuke, beharbada, adierazten asmatuko. Rafa Egiguren

40 su hartusup_1

Gau batean lastategiak **su hartu** eta etxe osoa eta baratzeak arbolak gutziak erre ziren poxpoloak balira bezala. Koldo Biguri
Errautsa **su hartzen** hasi zenean, kea zabaldu zen sukaldean. Anjel Lertxundi
Kamioiak 20.000 litro D gasoil zeramatzan; beste ibilgailu bat jo, eta **su hartu** zuen. Berria - Euskal Herria
Metanol gai toxikoa zeraman tren batek **su hartu** du Baionako portuan. Berria - Euskal Herria
Gero fuselajeak **su hartu** zuen eta han nonbait erori zen, sororen batean. Fernando Rey
Aski zela zigarro-mutur gaizki itzali bat hango belarrak eta lastoak eta etxeak denak **su hartzeko**. Inazio Mujika Iraola
Begira egon zen su **hartu** zuten arte. Koro Navarro
Veraren soinekoak **su hartzen** zuela imajinatu zuen. Koro Navarro
Hain erraz **su hartzen** duen gai horren gainean ari zen nabigatzen egiatan? Karlos Zabala
Su hartu duen sasiko sugea bezala bihurtu zen fraidea. Anjel Lertxundi
Su hartutakoak 'erretzen ari naiz! erretzen ari naiz!' esanez Kyobashi ibaira oldartzen ziren. Pablo Sastre

41 su hartusup_2 irud

Gorrotoak **su hartu** zuen Harryren barruan, beldurarentzako lekuri utzi gabe. Iñaki Mendiguren
Zeren, nork daki gaztetan **hartu** hinduen **su** hark hartuko ez ote hauen egunen batean berriro, eta mudaraziko ez ote duen hire pintura goiti-beheiti...? Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

abantaila hartu (25); **abiada hartu** (21); **abiadura hartu** (13); **agintea hartu** (23); **ahotan hartu** (26); **aintzakotzat hartu** (76); **aintzat hartu** (840); **aise hartu** (18); **altzoan hartu** (16); **antza hartu** (34); **aparte hartu** (18); **ardura hartu** (132); **ardurak hartu** (19); **argakia hartu** (12); **argia hartu** (14); **armak hartu** (36); **arnasa hartu** (226); **arnasarik hartu** (52); **arriak hartu** (25); **arriak hartu** (20); **arta hartu** (11); **asmoa hartu** (24); **astia hartu** (22); **astirik hartu** (11); **atseden hartu** (163); **atsedena hartu** (48); **atsedenik hartu** (47); **atsegin hartu** (21); **atsegin hartu** (15); **atxilo hartu** (32); **aulkia hartu** (17); **aurre hartu** (33); **aurrea hartu** (270); **aurrean hartu** (14); **aurretik hartu** (24); **autoa hartu** (53); **autobusa hartu** (44); **azpian hartu** (37)

baikor hartu (11); **bainua hartu** (14); **baloia hartu** (17); **barne hartu** (15); **basoa hartu** (11); **batera hartu** (18); **begira hartu** (12); **begirunez hartu** (11); **begitan hartu** (32); **beldurra hartu** (14); **beldurrak hartu** (20); **beregin hartu** (16); **berekin hartu** (27); **berriro hartu** (37); **berriz hartu** (43); **bertan hartu** (27); **besoetan hartu** (84); **besotik hartu** (11); **beta hartu** (13); **betarik hartu** (11); **bide hartu** (24); **bidea hartu** (514); **biderik hartu** (12); **bidez hartu** (12); **biolina hartu** (13); **bizia hartu** (12); **bizikleta hartu** (22); **bizkarrean hartu** (27); **boterea hartu** (18); **botikak hartu** (11); **botila hartu** (21); **buelta hartu** (20); **bulegoan hartu** (11); **burua hartu** (18); **buruan hartu** (15); **buruzagitza hartu** (11); **deklarazioa hartu** (46)

deliberoa hartu (14); **denbora hartu** (38); **dirua hartu** (33); **dutxa hartu** (17); **egoitzan hartu** (13); **egunkaria hartu** (16); **elkar hartu** (48); **emaztetzat hartu** (34); **engaia mendua hartu** (12); **epoa hartu** (11); **erabakia hartu** (469); **erabakiak hartu** (63); **erabakirik hartu** (103); **erantzukizuna hartu** (31); **erdia hartu** (11); **eredutzat hartu** (14); **errotzat hartu** (11); **errotzat hartu** (12); **errepidea hartu** (12); **erretiroa hartu** (16); **erretreta hartu** (34); **erretiroa hartu** (18); **erretiroa hartu** (16); **esku hartu** (277); **eskua hartu** (101); **eskuak hartu** (18); **eskuan hartu** (97); **eskuetan hartu** (85); **eskuetatik hartu** (11); **eskutan hartu** (19); **eskutik hartu** (49); **espirituak hartu** (16); **estu hartu** (103); **etsia hartu** (21); **etxean hartu** (77); **ezkerretara hartu** (13); **ezpata hartu** (16); **ezustean hartu** (16)

forma hartu (23); **gaina hartu** (139); **gainean hartu** (31); **gaizki hartu** (87); **garrantzia hartu** (15); **gatibu hartu** (22); **gidaritzat hartu** (16); **giltza hartu** (13); **giltzak hartu** (17); **goburuak hartu** (35); **gogoan hartu** (158); **gogor hartu** (11); **gogorak hartu** (17); **gogoz hartu** (13); **gurutzea hartu** (12); **gustua hartu** (16); **gustura hartu** (41); **gutuna hartu** (14); **handiak hartu** (21); **harriduraz hartu** (15); **hartu berri** (40); **hartu berria** (23); **hartu eman** (51); **hartu emana** (36); **hartu emanak** (47); **hartu emanetan** (12); **hartu emanik** (13); **hartu gogoan** (16); **hats hartu** (14); **hatsa hartu** (17); **haurra hartu** (11); **hegazkina hartu** (55); **hiria hartu** (39); **hitza hartu** (14); **hitza hartu** (182); **hizpide hartu** (15)

igogailua hartu (14); **ikarak hartu** (11); **indarra hartu** (64); **indarrez hartu** (20); **iniziaitza hartu** (15); **itsasontzia hartu** (12); **itxura hartu** (97); **izena hartu** (80); **izuak hartu** (14); **jai hartu** (13); **jaka hartu** (11); **jarrera hartu** (79); **joera hartu** (13); **kafea hartu** (48); **kapela hartu** (14); **kargu hartu** (78); **kargua hartu** (183); **kolorea hartu** (13); **kolpea hartu** (29); **kondutan hartu** (30); **konfiantza hartu** (30); **konpromiso hartu** (12); **konpromisoa hartu** (376); **konpromisoak hartu** (31); **kontrola hartu** (15); **kontrolpean hartu** (17); **kontu hartu** (12); **kontuan hartu** (1072); **kontutan hartu** (63); **kontzientzia hartu** (12); **kutxa hartu** (11)

labana hartu (22); **laginak hartu** (12); **lagun hartu** (23); **lagunek hartu** (33); **laguntzat hartu** (23); **lana hartu** (31); **lanak hartu** (17); **lanik hartu** (34); **lasai hartu** (48); **lasaitua hartu** (34); **laster hartu** (16); **latza hartu** (13); **lekua hartu** (100); **lekukoa hartu** (38); **lema hartu** (15); **lepoan hartu** (22); **liburua hartu** (48); **lo hartu** (146); **loak hartu** (200); **lorik hartu** (22); **luma hartu** (21); **lur hartu** (39); **makila hartu** (26); **maleta hartu** (16); **maleta hartu** (19); **mende hartu** (11); **mendean hartu** (258); **mendekua hartu** (29); **mendekua hartu** (37); **menpean hartu** (55); **metroa hartu** (27); **min hartu** (320); **mina hartu** (22); **minik hartu** (30)

neurria hartu (66); **neurriak hartu** (296); **neurrik hartu** (77); **normaltzat hartu** (15); **oharrak hartu** (15); **ohitura hartu** (51); **oin hartu** (18); **oinarriztat hartu** (18); **ondo hartu** (85); **onez hartu** (130); **ongi hartu** (81); **ontzat hartu** (105); **ontzia hartu** (16); **oporrak hartu** (16); **ordezkariek hartu** (12); **osotasunean hartu** (13); **ostatu hartu** (41); **papera hartu** (14); **papereak hartu** (12); **parte hartu** (3007); **partidan hartu** (16); **patxadaz hartu** (16); **pazientzia hartu** (13); **pazientzia hartu** (13); **pena hartu** (22); **pilota hartu** (11); **pilula hartu** (16); **pilulak hartu** (11); **poitza hartu** (18); **poza hartu** (34); **pozarren hartu** (15); **pozez hartu** (53); **pozik hartu** (96); **preso hartu** (129); **pultsua hartu** (11)

segida hartu (45); **seinaletzat hartu** (17); **semea hartu** (12); **semetzat hartu** (20); **senartzat hartu** (16); **serio hartu** (41); **soinua hartu** (11); **su hartu** (115); **suak hartu** (30); **susmoa hartu** (12); **sustoa hartu** (16); **taldeak hartu** (19); **tankera hartu** (20); **telefonoa hartu** (102); **tentuz hartu** (13); **tokia hartu** (48); **trena hartu** (81); **txaloka hartu** (17); **txanda hartu** (14); **ura hartu** (18); **usaina hartu** (17); **zuzendaritzat hartu** (11); **zuzenean hartu** (13)

arnasa sakon hartu (50); **begi oneko hartu** (84); **bere gain hartu** (501); **bileran parte hartu** (34); **bozetan parte hartu** (11); **bozketan parte hartu** (30); **bultzatzeko konpromisoa hartu** (12); **emateko konpromisoa hartu** (13); **erasoetan parte hartu** (13); **eztabaidan parte hartu** (18); **hartu beharreko neurriak** (53); **hauteskundeetan parte hartu** (13); **hilketan parte hartu** (18); **jokoetan parte hartu** (12); **lasaitu ederra hartu** (34); **manifestazioan parte hartu** (25); **ministro kargua hartu** (12); **negoziazioetan parte hartu** (12); **neurri gutziak hartu** (14); **neurri zorrotzak hartu** (12); **presidente kargua hartu** (27); **proiektuan parte hartu** (17); **prozesuan parte hartu** (32); **tarbe hartu** (19); **uzteko erabakia hartu** (19); **zuzenean parte hartu** (21)

aintzat hartua (24); **aintzat hartuak** (13); **begitan hartua** (15); **bere gain hartua** (14); **deabruak hartua** (30); **kontuan hartua** (14); **kontuan hartuak** (11); **mendean hartua** (17); **ongi hartua** (15); **parte hartua** (19); **preso hartua** (14)

); **aintzakotzat hartuko** (11); **aintzat hartuko** (135); **ardura hartuko** (16); **atseden hartuko** (29); **atsedena hartuko** (16); **atsedenik hartuko** (11); **aurrea hartuko** (24); **azpian hartuko** (12); **barne hartuko** (17); **bide hartuko** (25); **bidea hartuko** (45); **denbora hartuko** (12); **erabaki hartuko** (14); **erabakia hartuko** (34); **erabakirik hartuko** (17);

erretiroa hartuko (43); **esku hartuko** (69); **estu hartuko** (17); **etxean hartuko** (14); **gaina hartuko** (17); **gaizki hartuko** (17); **gogoan hartuko** (13); **gustura hartuko** (32); **indarra hartuko** (12); **itxura hartuko** (16); **izena hartuko** (19); **jarrera hartuko** (35); **kargu hartuko** (17); **kondutan hartuko** (11); **kontuan hartuko** (172); **lekua hartuko** (16); **lekukoa hartuko** (25); **loak hartuko** (11); **mendea hartuko** (14); **mendeku hartuko** (15); **nekez hartuko** (12); **neurriak hartuko** (119); **ondo hartuko** (17); **onez hartuko** (13); **ongi hartuko** (12); **ontzat hartuko** (15); **parte hartuko** (1087); **pilotarik hartuko** (13); **pozik hartuko** (18); **preso hartuko** (11); **segida hartuko** (12); **taldea hartuko** (18); **taldeak hartuko** (11); **tokia hartuko** (21)

aintzat harturik (29); **ardatz harturik** (12); **elkar harturik** (52); **erabakia harturik** (17); **eskuan harturik** (22); **eskuetan harturik** (12); **etsiak harturik** (11); **gaina harturik** (13); **gogoan harturik** (22); **harturiko erabakia** (12); **kontuan harturik** (192); **kontutan harturik** (13); **lagun harturik** (11); **oinarri harturik** (23); **parte harturik** (15); **suak harturik** (12)

aintzakotzat hartzea (12); **aintzat hartzea** (86); **ardura hartzea** (15); **arnasa hartzea** (31); **atseden hartzea** (31); **aurre hartzea** (17); **aurea hartzea** (45); **bidea hartzea** (25); **erabakia hartzea** (45); **erabakiak hartzea** (37); **erretiroa hartzea** (13); **esku hartzea** (277); **gogoan hartzea** (11); **kargu hartzea** (20); **konpromisoa hartzea** (24); **kontuan hartzea** (103); **kontzientzia hartzea** (16); **lekua hartzea** (16); **mendea hartzea** (45); **mendeku hartzea** (16); **neurria hartzea** (27); **neurriak hartzea** (103); **parte hartzea** (1515)

bere gain hartzea (40); **bere parte hartzea** (26); **emakumeen parte hartzea** (22); **gizartearen parte hartzea** (14); **hauteskundeetan parte hartzea** (13); **herritarren parte hartzea** (59); **jendearen parte hartzea** (24); **kontuan ez hartzea** (13); **kontuan ez hartzea** (13) ez parte hartzea (23); **parte hartzea bermatzeko** (11); **parte hartzea bultzatu** (15); **parte hartzea egotzita** (12); **parte hartzea eskatu** (18); **parte hartzea eskatzen** (11); **parte hartzea espero** (12); **parte hartzea leporatu** (14); **parte hartzea leporatzen** (20)

arnasa hartzean (12); **esku hartzeak** (20); **esku hartzearen** (26); **esku hartzeaz** (11); **hartzearekin batera** (21); **kargua hartzean** (14); **parte hartzeagatik** (108); **parte hartzeak** (64); **parte hartzean** (21); **parte hartzearekin** (94); **parte hartzearen aldeko** (12); **parte hartzeaz** (38)

aintzakotzat hartzeko (19); **aintzat hartzeko** (130); **ardura hartzeko** (11); **armak hartzeko** (12); **arnasa hartzeko** (177); **arta hartzeko** (12); **atseden hartzeko** (127); **atsedena hartzeko** (11); **aurre hartzeko** (12); **aurea hartzeko** (78); **autobusa hartzeko** (15); **berriro hartzeko** (15); **bidea hartzeko** (20); **deklarazioa hartzeko** (12); **erabakia hartzeko** (89); **erabakiak hartzeko** (162); **erantzukizuna hartzeko** (17); **erretiroa hartzeko** (28); **eskarmentua hartzeko** (13); **esku hartzeko** (125); **estu hartzeko** (30); **etxean hartzeko** (12); **gisa hartzeko** (12); **gogoan hartzeko** (21)

hartzeko agindu (25); **hartzeko arazo** (15); **hartzeko arazoak** (21); **hartzeko arriskua** (11); **hartzeko asmoa** (60); **hartzeko asmorik** (29); **hartzeko asmotan** (13); **hartzeko asmoz** (30); **hartzeko astirik** (17); **hartzeko aukera** (239); **hartzeko aukerarik** (26); **hartzeko baimena** (19); **hartzeko balio** (16); **hartzeko behar** (12); **hartzeko beharra** (15); **hartzeko betarik** (11); **hartzeko borondatea** (11); **hartzeko dei** (13); **hartzeko deia** (180); **hartzeko denbora** (22); **hartzeko denborarik** (12); **hartzeko eguna** (11); **hartzeko erabakia** (17); **hartzeko esan** (30); **hartzeko eskaera** (16); **hartzeko eskatu** (315); **hartzeko eskatuko** (24); **hartzeko eskatzen** (36); **hartzeko eskua** (11); **hartzeko eskubidea** (115); **hartzeko exijitu** (16); **hartzeko gai** (59); **hartzeko gaitasuna** (21); **hartzeko garaia** (38); **hartzeko gauza** (25); **hartzeko gisan** (26); **hartzeko gogoa** (26); **hartzeko gonbita** (28); **hartzeko konpromisoa** (21); **hartzeko modu** (21); **hartzeko modua** (26); **hartzeko moduan** (44); **hartzeko moduko** (49); **hartzeko modukoa** (31); **hartzeko modukoak** (16); **hartzeko ohitura** (11); **hartzeko ordua** (16); **hartzeko orduan** (44); **hartzeko parada** (16); **hartzeko prest** (140); **hartzeko tenorea** (14); **hartzeko unea** (18); **hartzeko zailtasunak** (11); **hartzeko zain** (11); **hartzeko zorian** (17)

hatsa hartzeko (19); **hitza hartzeko** (17); **kafea hartzeko** (17); **kargua hartzeko** (25); **konfiantza hartzeko** (24); **konpromisoa hartzeko** (20); **konpromisoak hartzeko** (47); **kontuak hartzeko** (15); **kontuan hartzeko** (178); **lasai hartzeko** (12); **lekua hartzeko** (24); **lo hartzeko** (11); **loak hartzeko** (15); **mendea hartzeko** (113); **mendeku hartzeko** (31); **mendekua hartzeko** (25); **menpean hartzeko** (24); **neurria hartzeko** (27); **neurriak hartzeko** (207); **oharrak hartzeko** (14); **parte hartzeko** (1367); **preso hartzeko** (13); **tokia hartzeko** (12); **trena hartzeko** (13); **zerbait hartzeko** (16)

; **aintzat hartzeko eskatu** (33); **aintzat hartzeko moduko** (11); **arnasa hartzeko arazo** (14); **arnasa hartzeko arazoak** (19); **bere gain hartzeko** (90); **beren gain hartzeko** (12); **bozeta**n parte hartzeko (13); **ekimenetan parte hartzeko** (14); **ekitalidan parte hartzeko** (11); **erabaki bat hartzeko** (21); **esku hartzeko eskatu** (19); **ez parte hartzeko** (15); **eztabaidan parte hartzeko** (12); **gobernuan parte hartzeko** (14); **hauteskundeetan parte hartzeko** (29); **kafe bat hartzeko** (11); **kontuan hartzeko eskatu** (20); **kontuan hartzeko moduko** (11); **lehiaketan parte hartzeko** (13); **manifestazioan parte hartzeko** (46); **mobilizazioetan parte hartzeko** (27); **neurriak hartzeko eskatu** (74); **parte ez hartzeko** (18); **parte hartzeko asmoa** (24); **parte hartzeko asmorik** (13); **parte hartzeko aukera** (124); **parte hartzeko aukerarik** (14); **parte hartzeko deia** (157); **parte hartzeko eskatu** (54); **parte hartzeko eskubidea** (87); **parte hartzeko gonbita** (22); **parte hartzeko prest** (30); **pixka bat hartzeko** (17); **politikan parte hartzeko** (11); **prozesuan parte hartzeko** (29); **txapelketan parte hartzeko** (24); **zuzenean parte hartzeko** (14)

aintzat hartzekoa (23); **kontuan hartzekoa** (81); **kontuan hartzekoak** (38); **parte hartzekoa** (18); **parte hartzekoak** (16)

aintzakotzat hartzen (73); **aintzat hartzen** (408); **antza hartzen** (57); **ardura hartzen** (23); **arnasa hartzen** (113); **arnasarik hartzen** (13); **arriskuak hartzen** (11); **arta hartzen** (14); **atseden hartzen** (98); **atsedena hartzen** (17); **atsedenik hartzen** (22); **atsegin hartzen** (37); **atsegina hartzen** (11); **aurea hartzen** (60); **autobusa hartzen** (15); **azpian hartzen** (15); **bainua hartzen** (13); **barne hartzen** (118); **begitan hartzen** (11); **berehala hartzen** (14); **beretzat hartzen** (16); **berriz hartzen** (18); **besoetan hartzen** (21); **bidea hartzen** (72); **botikak hartzen** (16); **denbora hartzen** (20); **drogak hartzen** (14); **egunero hartzen** (14); **eguzkia hartzen** (11); **elkar hartzen** (13); **erabakia hartzen** (40); **erabakiak hartzen** (73); **eredutzat hartzen** (14); **erritmoa hartzen** (11); **esku hartzen** (96); **eskua hartzen** (13); **eskuan hartzen** (11); **eskuetan hartzen** (14); **estu hartzen** (34); **forma hartzen** (31); **gaina hartzen** (64); **gaizki hartzen** (19); **garrantzia hartzen** (15); **gogoan hartzen** (56)

hartzen ahalegindu (11)

hats hartzen (26); **hatsa hartzen** (16); **hitza hartzen** (14); **indarra hartzen** (40); **itxura hartzen** (105); **izena hartzen** (27); **izenak hartzen** (14); **kafea hartzen** (36); **kargu hartzen** (35); **koloreak hartzen** (12); **kondutan hartzen** (13); **konfiantza hartzen** (17); **konpromisoa hartzen** (54); **konpromisoak hartzen** (12); **kontuan hartzen** (463); **kontutan hartzen** (45); **kutsua hartzen** (16); **lasai hartzen** (16); **lekua hartzen** (41); **lo hartzen** (31); **loak hartzen** (63); **lur hartzen** (11); **mendea hartzen** (48); **mendekua hartzen** (11); **menpean hartzen** (22); **min hartzen** (33); **moduan hartzen** (19); **nekez hartzen** (23); **neurria hartzen** (32); **neurriak hartzen** (91)

oharrak hartzen (23); **ondo hartzen** (29); **onez hartzen** (22); **ongi hartzen** (30); **onik hartzen** (17); **ontzat hartzen** (42); **osoa hartzen** (71); **osorik hartzen** (11); **osotasunean hartzen** (11); **parte hartzen** (1197); **pilula hartzen** (19); **plazer hartzen** (20); **preso hartzen** (12); **segida hartzen** (21); **serio hartzen** (25); **soilik hartzen** (19); **su hartzen** (29); **suak hartzen** (11); **usmoa hartzen** (15); **tankera hartzen** (24); **tea hartzen** (23); **telefonoa hartzen** (11); **tokia hartzen** (20); **traza hartzen** (24); **trena hartzen** (14); **txarra hartzen** (33); **usaina hartzen** (17); **zerbait hartzen** (22)

bere baitan hartzen (25); **bere gain hartzen** (114); **herria aintzat hartzen** (12); **itxura hartzen ari** (13); **izaera barne hartzen** (11); **neurriak hartzen ari** (12); **parte hartzen hasi** (16); **prozesuan parte hartzen** (13); **susmo txarra hartzen** (20)

aintzat hartzera (14); **arnasa hartzera** (12); **atseden hartzera** (40); **erabakia hartzera** (14); **esku hartzera** (15); **haizea hartzera** (22)

hartzera behartu (39); **hartzera behartzen** (19); **hartzera bultzatu** (12); **hartzera bultzatzen** (11); **hartzera deitu** (84); **hartzera eraman** (12); **hartzera eta** (35); **hartzera etorri** (18); **hartzera gonbidatu** (40); **hartzera gonbidatzen** (15); **hartzera joan** (72); **hartzera joateko** (12)

hori hartzera (17); **jabetzan hartzera** (14); **kafea hartzera** (32); **neurriak hartzera** (17); **parte hartzera** (269); **popatik hartzera** (39); **tea hartzera** (24); **trena hartzera** (14); **zerbait hartzera** (21)

erabakiak hartzerakoan (20); **kafe bat hartzera** (14); **manifestazioan parte hartzera** (18); **mobilizazioetan parte hartzera** (11); **parte hartzera deitu** (78); **parte hartzera gonbidatu** (14); **parte hartzerat** (34)

hartualdi ik **harraldi**.

hartueman ik **harreman**.

hartuera *iz* hartzea. ik **harrera**. (aditz osagaiaz)

Halako sua eukan ze, atzamar txikerra apurtuta eukana ahaztu egiten jakon eta "ai, kabendios!" hots egiten eban, min **hartueran** . **Xabier Amuriza**

hartune 1 *iz* korronte bat hartzen edo konexio bat egiten den gunea.

Emakumea argitzalean dagoen gela batean sartu da, gero makurtu da telefonoa beste **hartune** batean konektatzeko. **Jon Alonso**

Telefonoa orain dagoen **hartunetik** deskonektatzen du. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan)

Tapa altxatu eta mangera ur- **hartunean** konektatu zuten. **Jon Alonso**

Ur- **hartunea** ez zen inondik ageri, nahiz eta mapak argi erakusten zuen handik oso hurbil hidrante bat egon behar zela. kontua da nire ohepean zegoela argindar **hartunea** .

 Jon Alonso

Farola bat da, iturri- **hartune** bat da, eta nire begiradaren ahalmenaz eguneroko itxurara murrizten saiatzen nintzen. **Monika Etxebarria**

3 hartzeko unea.

We shall overcome honek egundoko parranda akustikoa jaso du, irlandar eta amerikar folk musikan blai eta **hartune** bakarrean jasoa. **Berria - Kultura**

hartxintzar *iz* harri-koskor txikia, ale baten tamainakoa.

Bakean aztarrika ari dira usoak **hartxintzarretan**. Jerry, ziztu bizian, errepidean sartu zen berriz, lurra eta **hartxintzarrek** gurpilen azpitik hegana. **Joxean Agirre**

Eraikin guztiak **hartxintzar** gorritzko bidexka batez inguratutik zeuden. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gure eginkizuna **hartxintzar** grisez betetako bagoia husteaa zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hartxintzarrezko hondartza moduko batean. **Koro Navarro**

Alde bietako sasitza sarriaren ondorioz **hartxintzarrezko** bidea xendra bihurtzeraino estutzen zen. **Anton Garikano**

Arnasari buelta eman eta aurrera jarraitu nuen **hartxintzar** -galipotezko errepide hartan barrena. **Joxe Austin Arrieta**

Beharbada **hartxintzar** -gurdia entzun dut, pala-soinua **hartxintzarretan** aztarrika-edo. **Joxe Austin Arrieta**

Norbait eserita dago **hartxintzar** meta batean. **Koldo Biguri**

Belardi baten beste muturrean, **hartxintzar** harrobi handi bat zegoen. **Koro Navarro**

Ondoren, gainetik beste **hartxintzar** -geruza bat jarriko da; **hartxintzarrek** tamainaz ez daitezela eskubete baino txikiagoak izan. **Santiago Iruretagoiena**

hartxo iz har txikia.

Hartxo biribil bat zen, zentimetro erdi luze, hermafrodita. **Juan Garzia**

Bazuen **hartxo** horrek tasun harrigarri bat: 982 zelulaz osatua zen, eta zehazki finkaturik zegoen haietariko bakoitzaren zertarakoa. **Juan Garzia**

Soro eta alorretako laborean **hartxo** eta xomorroen izurriteen kontra. **Pello Zabala**

hartxori iz araba-zozoa, txori mota.

Murrutzar zurien gainetik, libro, jostari, ilunabar gardenetan nitaz trufatu nahi bide zuten mentzigu eta **hartxori** arinak, aldra zalapartaritan agertzen eta desagertzen ziren eta egurats barea gurutzatzen. **Edorta Jimenez**

hartxuri ik harzuri.

hartz 1 iz ugaztun haragijalea, ile sarri eta luzekoa, ibiltzean oin zola osoa lurrean jartzen duena(*Ursus*).

Bietako batek **hartz** ama batekin alde egin duelako hotsa ere zabaldu da. **Bernardo Atxaga**

Abuztuan jakin zuten, adibidez, Cannelle-k kume berria zuela, argazki kamera automatiko batekin egindako irudian titiak handituta agertzen baitzen **hartza**. **Berria - Euskal Herria**

Kumea arra dela, eta haren aita Nere izeneko **hartza** dela. *ik beherago* 11. **Berria - Mundua**

Lehoiak eta **hartzak** akabatu ditu zure morroi honek. **Jose Antonio Mujika**

Bai, bakarrik joan ohi zen **hartzak** ehizatzerak. **Jose Morales**

Petri Strogoffek hogei hemezortzi **hartz** baino gehiago bota zituen. **Karlos Zabala**

Bi **hartzek** zaintzalea hil dute Sobrongo parke naturalean, Arabako probintzian. **Herria**

Siberiako ehizatarien kolpe ospetsuaren erakusgarri ederra, ganibet ukaldi garbi-garbia, kontu handi-handiz joa, **hartzaren** larru preziatua ez hondatzeko, prezio handia lortzen baitute haren truke. **Karlos Zabala**

Hartzaren larrua saltzen ari nintzen hura akabatu aurretik. **Juan Garzia**

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Bost bat ardi eta ahuntzen bat edo beste akabatu ditu 280 kiloko **hartz** ar horrek. **Joxerra Garzia**

Pirinioetako azken **hartz** arre emea. **Berria - Harian**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Paseoan joatea eta bueltan etortzea **hartz** gris bat ere hil barik. *ik beherago* 13. **Julen Gabiria**

Tea berotzen jarri orduko bertaraino hurbiltzen zitzaizkien **hartz** beltz lotsatiak. **Bernardo Atxaga**

Tximino, suge, krokodilo, **hartz** inurrijale edota arantzurdekia. **Xabier Montoia**

Hartz bezatua ere trebea izaten baita zenbait langintzatan. **Jose Morales**

Hartz izigarriak Concheko herrixka ikaragarriko lasterlean trebesatu omen zuen, gelditu gabe. **Aurelia Arkotxa**

Pirinioetako **hartza** ederki ezagutzen du, hamaika urte eman dituelako haren atzetik. **Berria - Harian**

WWFk ohartarazi du gai kimikoek Artikoko **hartza** kutsatu dutela. **Berria - Gaiak**

Esloveniako **hartz** emeen bila. **Berria - Euskal Herria**

3 hartz itxurako panpina.

Trapuzko **hartz** bat ei zeramaten bularrean besarkatuta. **Hasier Etxeberria**

Eskaileretan, pijama zuriz bezi, neska txiki bat agertu zen beldurtua, belusezko **hartza** besoetan "Ama! Ama!" deiadarka. **Itxaro Borda**

Askoz ere ohikoagoak direla aulki edo maletentzako estalkiak, eta peluxeazko **hartzak**. **Iban Zaldua**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Suerta dakigukeen okerrera **hartz** -okela probatu beharra duk. **Juan Garzia**

Berarekin batzen zenean, **hartz** gibela mastekatzen zuen Chuldahek beti. **Koro Navarro**

Lurreko suaren aurrean **hartz** -larruak ezarri zituen, eta armak, berriz, paretetan. **Xabier Olarra**

Oihal gaztaintzaraz forraturiko beroki **hartz** -larruzkoa. **Jose Morales**

Ibilbide luzeetan, **hartz** hezitzaileak zebiltzan, aldean beren lau hankadun dantzariak eramanez. **Karlos Zabala**

Ardura atxemaiten zen **hartz** erakusle bat (*montreur d'ours*) herriz herri ibiltzen zena hartza "dantzaraziz" eta eskea eginez. **Herria**

Beste batzu aldiz noiztenka **hartz** ihiztari bilakatzen ziren eta bat hiltzen zutelarik administrazioak eskaini prima eskuratuta ondoren larrua, haragia, gizona... salduz lau hilabeteko sariaren ordaina eskuratzen zuten gutti gora behera. **Herria**

Hartz mordoia hil zuen tximinia-garbitzaile batekin. **Julen Gabiria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizotsoaren mitoaz ari gara, baina baita banpiroarenaz, giza **hartzarenaz** eta besteenaz ere. **Martin Anso**

6 (izar multzoei buruz)

Iparraldeko zirkuluan bi **Hartzak** aurkitzen dira elkarri bizkarra emanez eta, beraz, bularrak aurrera begira jarrita. *ik beherago* 10, 12. **Santiago Iruretagoiena**

Kide haren irriaren oihartzuna gozo zitzaidala oroitzen naiz, zero hondoan, desiraren biderkagarri zitekeen **Hartzaren** Izaralde bilatzen nuen bitartean. **Itxaro Borda**

7 (erkaketetan)

Ferrari zaharra zen, **hartza bezain** handia, eta borobilean moztutako bizar urdindua zuen. **Fernando Rey**

Txakur beltz bat zegoen han, **hartza bezain** handia, begi distiratsuekin. Zaldia bezain azkarra, txorien txio-txioa bezain alaia, **hartza bezain** zabala, arkakusoa bezain

zirikatzailea.

Itaki Mendiguren

Hartz baino amorratuagoa nengoen nire etxera iritsi eta sartu ginenean.

Xabier Olarra

Bakar-bakarrrik bizi zela gizona, Auiñamendiko

hartz baino bakarrikago.

Hasier Etxeberria

8 hartz arre

Esloveniatik ekarritako 15 **hartz arre** askatuko dituzte Pirinioetan.

Berria - Euskal Herria

Euskal Herrian **hartz arre** bakarra bizi da egun.

Berria - Harian

Nafarroan Camille bizi da, 21 urte inguruko **hartz** arrea.

Berria - Euskal Herria

Gainbehera etorritako **hartz** arrea.

Urtzi Urrutikoetxea

9 Hartz Nagusi Hartz Handia.

Mitologia du abiapuntu, **Hartz** Nagusia, **Hartz** Txikia, Zeus eta maitasuna.

Berria - Kultura

10 Hartz Handi

Euler jauna, izugarri maite baititu **Hartz Handia** eta Hartz Txikia, iparraldera hurbildu zen haien lasaiago behatzeko.

Jon Muñoz

Ipar-izarra deitzen dena ikusten da dirdirka **Hartz** Handiaren buruaren ondoan.

Santiago Iruretagoiena

Hor dituzu konstelazioak: Pleiadeak, **Hartz** Handia...

Xabier Montoia

Mollyk primeran ezagutzen zituen izarrak **-Hartz Handia**, Esne Bidea, Iparrizarra- maiz ahalegindu ohi zen haien izenak niri irakasten.

Mirentxu Larrañaga

11 hartz-kume/ume

Dena zen sinplea eta landu gabea, **hartz**-kumeak lurrazpiko etxe batean eta egoera berean biziko balira bezalako.

Julen Gabiria

Frantzia, bere aldetik, nigarrez urtzen ari da **hartz**-emearen heriotzearekin, pentsatuz umezurtz egona dela zaukan **hartz**-kumea.

Herria

Emazte urrikaltsu batek **hartz**-kume batzu amultsuki hazten zituen.

Herria

Soldadu-lagunak dardararen dardaraz, zuloetan gordetzera lehiatzen zirela, **hartz**-ume lotsati.

Itxaro Borda

12 Hartz Txiki

Hartz Txikiko zazpiak, eta beronen Ipar-Izarra ere.

Txillardegi

Hartz Txikiaren eta Casiopearen parte osatzen duten beste izar asko ere badaude nahasita.

Santiago Iruretagoiena

Euler jauna, izugarri maite baititu Hartz Handia eta **Hartz Txikia**, iparraldera hurbildu zen haien lasaiago behatzeko.

Jon Muñoz

13 hartz zuri hartz ile-zuria, lur guztiz hotzetan eta ur izoztuetan bizi dena, arrea baino handiagoa(*Thalarcos maritimus*).

Primaderan, Labradorretik heldu diren **hartz zuri** handiek.

Anjel Lertxundi

'Negua **hartz zuriaren** moduan etorriko zaigu!

Gotzon Garate

Aurtengo neguan, jatekoaren bila zebilela, **hartz zuri** gose hamikatu bat Groyako etxolok puskatu ondoan, Conchera arribatu omen da igerika.

Bernardo Atxaga

Lurralde jelatuetakoa **hartz zuri** handien larruaren leuntasuna.

Gotzon Garate

Kutsadurak **hartz zuriaren** immunitate sistema ahuldu du, eta aldaketa hormonalak eragin dizkio. zulaketak egiteko erabiltzen zuten ontziari eraso zioten bi **hartz zurik**.

Patziku Perurena

- Bertako hegazkinek egiten zuten zarata zela eta, **hartz** txuri eta mortsek aldegin egin zuten handik.

Bernardo Atxaga

14 panda hartz

Inguru horretan, 1.600 panda **hartz** inguru bizi dira egun.

Berria - Gaiak

Panda **hartz** ttipi xuri-ta beltza mundu guziari ezagutarazi zuelakotz.

Herria

Panda hartzaren zelulen bankurrik handiena sortuko dute Txinan, haien irautea ziurtatzeko.

Berria - Gaiak

Banbua desagertuz gero, **panda hartz**en eta basoetako gorilen geroa ere arriskuan legoke.

Berria - Gaiak

15 Urrezko Hartz

Filmak Urrezko **Hartza** irabazi berri du Berlinalen.

Berria - Kultura

Guztira, hogeita hiru film lehiatuko dira Urrezko **Hartza** garaikurra eskuratzeko.

Berria - Kultura

Fatih Akin turkiar zinemaglearen *Gegen die Wand* filmak irabazi du sari nagusia, film onenaren Urrezko **Hartz** preziatua.

Seigarren aldia du espainiarrak Berlingo zinema jaialdian, eta, dagoeneko, Urrezko **Hartz** bi ditu, *Habla Mudita* (1973) eta *Camada Negra* (1977) filmengatik.

Kultura

- Ohorezko Urrezko **Hartza** jaso zuen Fernando Solanas zuzendari argentinarrarekin batera.

Berria - Kultura

Film onenaren Zilarrezko **Hartza**.

Berria - Kultura

Walter Sallesek Berlingo Zinemaldiko **Hartza** eskuratu zuen 1998an.

Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken hartz (9); azken hartz arre (8); beste hartz (4); bi hartz (8); bost hartz (9); bost hartz arre (4); cannelle hartz (4); da hartz (5); diren hartz (3); du hartz (3); edo hartz (4); eta hartz (11)

hartz arre (22); hartz arre askatuko (5); hartz arre emea (8); hartz arrea (4); hartz arreak (4); hartz arreen (4); hartz bat (23); hartz batek (3); hartz baten (4); hartz eme (3); hartz emea (5); hartz eta (7); hartz gehiago (9); hartz handia (10); hartz handia eta (3); hartz hori (3); hartz horrek (3); hartz iv (8); hartz okela (3); hartz txikia (6); hartz txikiaren (4); hartz zuri (5); hartz zuria (3); hartz zuriak (9); hartz zuriaren (5); hartz zurien (5)

hiru hartz (3); inguruko hartz (3); lau hartz (3); panda hartz (4); peter hartz (4); pirinioetako azken hartz (7); pirinioetako hartz (7); zen hartz (3)

cannelle hartz (3); cannelle hartz hil (3); dira urrezko hartz (3); eta hartz (9)

hartz bezain (4); hartz bezain handia (3); hartz dagoen (4); hartz dela (4); hartz ere (4); hartz eta (21); hartz eta kakamarloa (4); hartz eta otsoa (3); hartz hil (7); hartz hil zuen (3); hartz iguzki (18); hartz iguzki rdquo (5); hartz irabazi (4); hartz lortzeko (4); hartz lortzeko lehian (3)

izeneko hartz (3); lehen hartz (5); panda hartz (3); pirinioetako hartz (3); sun hartz (12); urrezko hartz (19); urrezko hartz irabazi (3); urrezko hartz lortzeko (3); zen hartz (5); zilarrezko hartz (4); zuen hartz (5)

bi hartzak (3); eta hartzak (8); gobernuak hartzak (3); hartzak askatzeko (3); hartzak eta (10); hartzak ez (3); hartzak hori (3); hartzak sartzeko (12); pirinioetan hartzak (8); pirinioetan hartzak sartzeko (3); sun hartzak (3); zuela hartzak (3)

da hartzaren (3); eta hartzaren (10); hartzaren alde (3); hartzaren aldeko (5); hartzaren eguna (4); hartzaren eta (3); hartzaren froga (4); hartzaren iratzartzea (6); hartzaren jarraipena (3); hartzaren larrua (5); sun hartzaren (7)

hartzari buruz (4); hartzari esker (3)

hartzaille (orobat hartzale g.er.) 1 iz hartzten duena.

Ez **hartzaille** ez emaila izan maileguz: emateak diruarekin laguna baitu galarazten maiz, eta harteak etxeko ekonomia kamustea ekartzen.

Juan Garzia

Maiz gutunak ez zuen **hartzaille** bakarra izaten, lagunartean irakurtzeko xedez egina izaten zen.

Jon Muñoz

-Hartzailleak baizik ez du mezua ikusi behar -tematu nintzen, adorea apal.

Aingeru Epaltza

Idazterakoan ez dut **hartzaillearengan** pentsatzen.

Ana Urkiza

Horregatik euskal kulturak sakoneko irudia aurkeztu behar duela diote, bertze kulturei irekia, emaila bezain **hartzaille** izateko gaitasuna duena.

Berria - Euskal Herria

Hartzaille jakinik gabeko galdera izan da.

Joxerra Garzia

Mezuren **hartzaille** huts izate pasibo horrekin konformatzen ez den pertsona kritikoa.

Txema Ramirez de la Piscina

Oinarrizko Errentaren **hartzaille** kopurua.

Berria - Harian

Nire idatzien **hartzaille** diren gizon gogoetazaleek.

Juan Martin Elexpuru

Behaketen, txostenen, datu estatistikoaren, proposapen teoriko orokorren, egitasmoen edo erabakien igoerle eta **hartzaille** modura. **Xabier Arregi**

Irudi jakin baten eta bere **hartzaille** jakinaren arteko erlazioaren alderdi nagusiak. **Josu Zabaleta**

Gehiegi irekitzen bada, berriz, trumilkua aterako da ura, eta **hartzaille** egarrituaren esku-ahurretan oin harturik, gainezka egingo du, geiser baten moduan. **Joxerra Garzia**

Hedabideen merkaturatzen euskarazkoek leku txikia dute, eta **hartzaille** potentzialen kopurua ere txikiagoa daukate. **Berria - Euskal Herria**

Erretinako **hartzaille** bakoitza nerbio-zelula banari lotuta dago sinapsi deitzen den errele baten bidez. **Josu Zabaleta**

Maswell-en paradigma klasikoa (igorle -> **kanala** -> hartzaille) zaharkituta geratu da. **Txema Ramirez de la Piscina**

2 (izen baten eskuineta)

Iparralde osoan 70 000 elebidun **hartzaille** ba ditugu. **Herria**

Prozesuan aurrera jarraitzea erabakitzen dutenak famili **hartzaille** izateko duten egokitasuna baloratzeko fasean sartzen dira. **Berria - Euskal Herria**

Eskandinaviarrek atzerriko kulturekiko izan zuten jarrera **hartzaille** hori. **Iñaki Mendiguren**

Gizarte-gorputz emisore batean ezarri den kultur ereduak gizarte-gorputz **hartzaille** batean berresteko duen joera. **Iñaki Mendiguren**

Usaimen-mukosak 50 milioi zelula **hartzaille** inguru ditu. **Irene Aldasoro**

La aldi bereko hainbat seinale behar izaten dira eragin kimikoa behar adinakoa izan dadin neurona **hartzailetik** beste bulkada bat abiarazteko. **Irene Aldasoro**

Larruzaleko bero-**hartzailleek** bulkada bat bidalarazten diete sentimen-neuronei bizkar-muina. **Irene Aldasoro**

3 (sexu harremanetan)

Sodomako plazerak maite ditu, bai **hartzaille** bai emale gisa. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bi atsegin eskaintzen dion mutil gaztea **-hartzaille** eta emale izan daitekeelako-, gozamen bakarra eskaintzen dion neska baino nahiago izateagatik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zelula "iraunkorrek" **hartzaille** -eremu txikiagoa dute, fobean daude batez ere, eta irudia zehatza denean lan egiten dute. **Josu Zabaleta**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori droga **hartzaille** askorekin gertatzen da. **Berria - Euskal Herria**

Bere mezu-**hartzaille** kristautentzat. **Iñaki Mendiguren**

Komunikazioaren subjektu-**hartzaille** berria lortzeko, guztiz beharrezkoa da sintesi-ahalmena edukitzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Memento huntan, 640 arta-**hartzaille** badaude egunero. **Herria**

- Etengabea zen, halaber, komisio **hartzaileren** eta bezeroen emana. **Patxi Zubizarreta**

Nazioarteko obligazio klasikoak, atzerriar mailegu-**hartzaille** baten kontura jaulkiak. **Koro Navarro**

Saltzaille nahiz erosle, mailegu-emale nahiz **hartzaille**, hartzekodun nahiz zordun. **Elizen arteko biblia**

Aparatu irrati-**hartzaille** bat zen funtsean, maiztasun-alde txiki-txikiak atzematen zituena. **Juan Garzia**

Aldendu beharra zuten gurasoen oroitza zen traumatizatuena **hartzaille** hartatik. **Joxan Elozegi**

Giza zelulek bizirik iraun zuten animalietan; begiaren barneko geruzara migratu zuten horiek, eta zelula argi **hartzaille** bihurtu ziren. **Berria - Gaiak**

6 esku-hartzaille iz

Gehiegikeria horiek erabat zabalduak zeuden eta orain arte horietan esku-**hartzaille** moduan aipatutako unitateetatik besterik ere sartuta daude auzian. **Berria - Mundua**

- *izond* Inperioaren gerra koalizioak bere estrategia esku-**hartzaille** bat berriz pentsatu beharko du. **Berria - Mundua**

7 kontu-hartzaille iz

Lege berriaren arabera, udal bateko idazkari edo **kontu-hartzaille** izateko euskaraz jakitea ez da nahitaezkoa izan. **Berria - Euskal Herria**

Idazkari eta kontu-**hartzaille** lanpostuentzat beharrezkoa zen euskara menperatzea. **Herria**

Lege berriaren arabera, udal bateko idazkari edo **kontu-hartzaille** izateko euskaraz jakitea ez da nahitaezkoa izan. **Berria - Euskal Herria**

Duela lau urte, Stanleyk kontu-**hartzaille** lana utzi zuen, biek Springfield-en zeukatzen etxea saldu zuten eta hona aldatu ziren Chowder Inn benta irekitzera. **Oskar Arana**

- *izond* Egunerokotasunaren aipamen **kontu-hartzailleak** ("ez zuen bere burua zaintzen"). **Josu Zabaleta**

8 parte-hartzaille (652 agerraldi, 25 liburu eta 504 artikulutan; orobat partehartzaille g.er. eta parteartzaille g.er.) iz parte hartzen duen pertsona. ik partaide; partalier.

Nik uste **parte-hartzailleak** bi besterik ez zirela izaten: Juan Luis Zabala, behin baino gehiagotan, eta ni, urte hartan. **Jon Alonso**

Gaur da hastekoa Munduko Kontserbazio Kongresua, 5.000 **parte-hartzailerekin**. **Bernardo Atxaga**

Parte hartzailleak ekimena Arabara zabaltzeko dauden aukerak aztertuko dituzte. **Elizen arteko biblia**

Arauk aldatu egiten dira, **parte hartzaille** kopuruaren arabera. **Berria - Harian**

Oraindik ez dira **parte-hartzailleak** eta egunak zehaztu, baina Nobel saridunak edo antzeko maila duten hizlariak bilatzen ari dira. **Jon Alonso**

Lehen saria, **parte-hartzailleak** maila ona erakutsi arren, eman gabe gelditu zela argitu zuen. **Koldo Izagirre**

Arratsean, afalondoan, **parte-hartzailleak** hizpidera zekarten, eztabaida guztiz ireki haletan, zer aplikazio izan zitzaizkien saguan erabilitako in vitro ernaltze-metodoak. **Itxaro Borda**

Enpleguaren Euskal Kontseiluaren arrakasta **parte-hartzaileren** «borondatearen menpe» dagoela esan zuen Azkarragak. **Juan Garzia**

Berrehun **parte hartzaille**, danbor eta upeldun, izan ziren guztira. **Xabier Amuriza**

Hiru urte geroago, koordinakundea legezatu zuten, urtegiaren kontrako borrokan **parte-hartzaille** aktibo bilakatzeko. **Anjel Lertxundi**

Milesker **parte hartzaille** guzietan, hemen aipatu ez dituztenen eta helduden urte arte agian. **Berria - Harian**

24 (izenondo gisa)

2001eko Bertsolari txapelketa Nagusiko bertsolari **parte hartzailleak** eta bertsos-eskolarekiko harremana. **Josu Zabaleta**

Erritmoa jarraituz denetik egiten zuten ikus-entzule **parte-hartzailleak**: dantza, ilarkek osatutako trenak irudikatuz; gurasoak zaldiak balira bezala ibili, umeak bizkarrean hartuta... **Askoren artean**

Eragile **parte-hartzaillea** bihurtu da gaixoa. **Josu Zabaleta**

Blugetan demokrazia **parte-hartzaillea** hazten. **Karlos Zabala**

Edukiak interesatzen zaizkigu ororen gainetik, eta dinamika **parte-hartzailleak** sustatu gura ditugu langileen artean. **Anjel Lertxundi**

Informazioa ezinbestekoa da herritarrek gizartearen ikuspegi kritiko eta **parte-hartzaillea** izan dezaten. **Xabier Amuriza**

Txanponaren bi alde ilunenak, politika neoliberal latzena eta estatu **parte-hartzailerean** eredu populisten, biak elkartu dira gizarte argentinarra eskutik amildegiara eramateko. **Xabier Amuriza**

Beti izaten zen kantu **parte-hartzaileren** bat, argigailuaren, berbenaren, lore jokoan, [...] artean une jakin batean behar zenerako egokitzen zena. **Karlos Zabala**

Egitasmo **parte-hartzaillea** da Project Censored: 200 kazetari, ikasle, irakasle, liburuzain eta herritar baino gehiagok ehunka albiste helarazten dizkiete urtero. **Edorta Agirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolatzaileek parte hartzaille (4); baino parte hartzaille (3); bat parte hartzaille (9); baten hartzaille (4); dira parte hartzaille (6); dituzte parte hartzaille (3); dute parte hartzaille (4); elebidun hartzaille (3); eta hartzaille (4); eta parte hartzaille (10)

hartzaille asko (4); hartzaille baino (4); hartzaille bakarra (3); hartzaille bakoitzari (3); hartzaille bat (5); hartzaille batek (3); hartzaille diren (3); hartzaille eta (11); hartzaille frango (3); hartzaille gehiago (7); hartzaille gisa (4); hartzaille guztiak (6); hartzaille guztiak (9); hartzaille guztiak (8); hartzaille guztiak (3); hartzaille guztiak (4); hartzaille guztiak (11); hartzaille guztiak (4); hartzaille inguru (4); hartzaille izan (9); hartzaille izateko (3); hartzaille kopurua (3)

kontu hartzaille (5); parte hartzaille (169); parte hartzaille baino (3); parte hartzaille batek (3); parte hartzaille eta (10); parte hartzaille frango (3); parte hartzaille gehiago (7);

murritzeta. Imanol Zurutuza

Ustekabeko **parte hartzea** ere izan genuen, Garazi Hach Embarek-en eskutik. Josu Zabaleta

Horrela bizi izan ditugu autobiografiaren eta hilketaren arteko harremanak, ez munduan zehar aske dabilen Gaizto izugarri ulertezina bezala, krimenean geure nahitaezko

parte-hartze gisa baizik. Inazio Mujika Iraola

Biologia molekularren hastapenek interes ez nolanhikoa piztua zieten beti Mendebaldeko fisikariei, eta haietarikoz zenbaitek lehen mailako **parte-hartzea** izan zuten haren aurrerabidean. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnas hartze (3); **bacheleten kargu hartze** (4); **baino parte hartze** (8); **bat hartze** (7); **berezi bat hartze** (5); **beroenak hartze** (4); **da parte hartze** (4); **den parte hartze** (4); **du parte hartze** (3); **duten parte hartze** (5); **elkar hartze** (4); **emakumeen parte hartze** (5); **ere parte hartze** (6); **eskerrak hartze** (4); **esku hartze** (134); **esku hartze handia** (3); **esku hartze handiagoa** (15); **esku hartze hori** (4); **esku hartze zuzena** (9); **eta esku hartze** (6); **eta gaztigua hartze** (3); **eta hartze** (3); **eta parte hartze** (32); **gazitgua hartze** (3); **gazitgua hartze du** (3); **gogoan hartze** (3); **gogoan hartze hutsak** (3); **goresmenak hartze** (18); **goresmenak hartze dituzte** (15); **guziek hartze** (4)

hartze aktibo (3); **hartze aktiboa** (12); **hartze aktiboa izan** (3); **hartze askean** (3); **hartze bat** (6); **hartze bikaina** (13); **hartze bikaina izango** (9); **hartze ditu** (12); **hartze dituzte** (27); **hartze dituzte goresmenak** (3); **hartze du** (10); **hartze duela** (6); **hartze duen** (12); **hartze duen tokia** (3); **hartze duena** (3); **hartze duten** (7); **hartze ekitaldian** (8); **hartze ekitaldira** (3); **hartze eraginkorra** (3); **hartze esanguratsua** (3); **hartze eskasa** (9); **hartze eskasa izan** (4); **hartze eskasak** (4); **hartze eta** (11); **hartze ezaren** (3); **hartze garrantzitsua** (5); **hartze gehiago** (5); **hartze gisa** (3); **hartze handia** (45); **hartze handia espero** (3); **hartze handia izan** (10); **hartze handia izango** (10); **hartze handia nabarmendu** (3); **hartze handiagoa** (40); **hartze handiagoa eskatu** (9); **hartze handiagoa izan** (7); **hartze handiagoa izatea** (6); **hartze handiak** (6); **hartze handiena** (6); **hartze hori** (17); **hartze horrek** (10); **hartze horrek ez** (3); **hartze horren** (3); **hartze horretan** (3); **hartze hura** (3); **hartze hutsa** (5); **hartze hutsak** (3); **hartze ko** (4); **hartze maila** (5); **hartze mota** (3); **hartze on** (3); **hartze ona** (15); **hartze politikoa** (9); **hartze politikorako** (13); **hartze politikorako eskubidea** (4); **hartze saria** (3); **hartze txikia** (4); **hartze txikiarekin** (4); **hartze zabala** (5); **hartze zabalagoa** (4); **hartze zuen** (6); **hartze zuzena** (48); **hartze zuzena behar** (3); **hartze zuzena izan** (12); **hartze zuzena izatea** (5)

hats hartze (4); **hauteskundeetako parte hartze** (5); **herritarren parte hartze** (7); **inoizko parte hartze** (4); **izandako parte hartze** (6); **jendearen parte hartze** (4); **kargu hartze** (26); **kargu hartze ekitaldian** (7); **kargu hartze ekitaldira** (3); **kontu hartze** (3); **kontzientzia hartze** (7); **lur hartze** (3); **maratoiak parte hartze** (3); **parte hartze** (434); **parte hartze aktibo** (3); **parte hartze aktiboa** (11); **parte hartze askean** (3); **parte hartze bikaina** (13); **parte hartze esanguratsua** (3); **parte hartze eskasa** (7); **parte hartze eskasak** (4); **parte hartze eta** (4); **parte hartze gehiago** (3); **parte hartze handia** (41); **parte hartze handiagoa** (24); **parte hartze handiak** (6); **parte hartze handiena** (6); **parte hartze hori** (8); **parte hartze horrek** (3); **parte hartze hutsa** (3); **parte hartze maila** (3); **parte hartze ona** (7); **parte hartze politikoa** (7); **parte hartze politikorako** (12); **parte hartze saria** (3); **parte hartze txikia** (3); **parte hartze txikiarekin** (4); **parte hartze zabala** (5); **parte hartze zabalagoa** (4); **parte hartze zuzena** (38); **preso hartze** (5); **zuen parte hartze** (5)

hartzedun iz hartzekoduna.

Guérin izendatua delarik sos **hartzedunen** ordezkari. Herria

hartzeke adlag hartu gabe.

Tronpeta-soinuak entzun ondoren, atsedenerako astirik **hartzeke**, musika bandak baltseari ekin zion. Felipe Juaristi

Balzacen ustez, gizartearen aitak ere agindu egin behar du, sendo, jendailaren apetak eta umekeriak aintzat **hartzeke**. Markos Zapiain

Gizarte ongizate globalaren eta kapital naturalaren mugak batera kontuan **hartzeke**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hartzeko iz norbaitek bere alde duen diru kopurua. antzor.

Eta zerk ote darama emakumea (gure begietan) bere burua eta gorputza hartzekodun gisa sentitzera?, azkenik gabeko **hartzeko** bat kobratzera? Iñaki Segurola

Orduan, kalte, mesede eta barkakizunen -zor- **hartzekoen-** etengabeko kontadurian penatzera erortzen gara. Iñaki Segurola

Egunoro z izaiten zirén diru-sartzeak, salerosiak eta zor- **hartzekoak**, finean. Joan Mari Irigoien

- Zer dugu guk oraindik **hartzekorik** geure aitaren etxean? Jose Antonio Mujika

Hartzekoak gurdian kargatu eta alde, zer egingo genuen ba! Joseba Sarrionandia

hartzekodun 1 iz hartzekoa duena; dirua zor zaion pertsona edo erakundea. ikhartzedun. ant zordun.

Bere **hartzekodun** txikiari zor dion dirua han baitago. Matias Mujika

20.000 **hartzekodun** ditu konpainiak eta 63.000 milioi dolarreko zorra. Berria - Ekonomia

Bonoen **hartzekodunek**, akziodunekiko lehentasuna baitute noski. Berria - Ekonomia

Kanbioa pareta baino baxuago dagoenean, galdu egiten du [Estatuak] zordun gisa, eta irabazi **hartzekodun** gisa; galdu egiten du erosle gisa, eta irabazi saltzaile gisa. Iñaki Iñurieta

Eta zerk ote darama emakumea (gure begietan) bere burua eta gorputza **hartzekodun** gisa sentitzera?, azkenik gabeko hartzeko bat kobratzera? Iñaki Segurola

Kontratuaren fede onak eta merkataritzaren segurtasunak legegilea behartu egiten dute **hartzekoduna** zordun iruzurgilearengandik babestera. Juan Martin Elexpuru

Hartzekoduna hilda zorrik ez, konprenitzen al duk?". Aingeru Epaltza

Bretton Woodseko erakundeak, **hartzekodunen** eskaeren eta zordunen premien artean ebazle-eginkizuna betetzetik urrun, **hartzekodunek** eskaturiko ekonomia zordunen erreformaren tresna izan ziren. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo gisa)

Krisi horietan, herrialde **hartzekodunek** politika ekonomikoaren definizioan esku hartzen dute. Koro Navarro

Estatu **hartzekodunek** zor publikoa ezabatzeko harturiko neurriak. Koro Navarro

Salbamendu plana izenpetu dute banku **hartzekodunek**. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere hartzekodun (3); **eta hartzekodunen** (3); **hartzekodun gisa** (3); **hartzekodunen konkurtsoan** (3)

hartzidura iz hartitzea, altxatzea.

Halaxe geraraz daiteke likore baten **hartzidura** ere, beste baten tanta bakar batez. Itzuri zitzaiola alkohol- **hartzidurari** [...], eta ardoari nahastu zitzaiola bere izatea mudatzeko. Iñaki Iñurieta

Baina, usteltzeaz gainera, gerta daiteke, eta halaxe gertatzen da maiz, landare gaien **hartzidura** azetosoa urdailaren barruan gasa sorraraztea. Koro Navarro

hartzigarri 1 izond/iz hartzi daitekeena.

Kontuan izan behar dugu hondakin horien artean materia organiko **hartzigarria** dagoela eta birziklatu daitezkeen hondakinak. Berria - Euskal Herria

• 2 iz hartitzen duen zera.

Beraren zainetan aitaren odola zebilen, urruneko pirata- **hartzigarritan**, merkataritza-ekinbidetan eta berri-grina egonezintsutan aberats. Juan Garzia

Nola utzi **hartzigarri** horiek, kanta horiek, elezahar kutsuko lehengai guztia Akademien atzetan, hartara nire gustuari trazioa egingez? Bernardo Atxaga

hartzitu, hartzi, hartzitzen **1** du *ad* gai organikoez mintzatuz, beste gai batek eraginik eraldatu.

Hondarra kentzeko prozesuak **hartzitzen** utzitako muztioaren kalitatea hobetzen laguntzen duela. Berria - Euskal Herria

Esnea **hartzituz** lortzen den edari garratza eta gasduna da kefirra, jogurtaren antzekoa. Berria - Gaiak

Janari guztiak **hartzitzen** diren lekua. Josu Zabaleta

2 irud

Neurritasunik gabe emanak beren usteak **hartzitzeari**, sorrarazten dituztenak gutun guztiz ezti baina izkiriatzeko guztiz arrisksuak. Jon Muñoz

3 (era burutua izenondo gisa)

Olo ahia marrubiekin, esne **hartzitua** marrubiekin, ogia marrubiekin. Josu Zabaleta

Fruta-zuku **hartzituetatik** jasotako gaiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

hartzulo *iz* haitzuloa.

Hartzulo mokor bat dirudiena kausitu duzue eta han barnean sua artaz pizteko erran dizue, kanpotik hauteman ez dadin. Xabier Montoia

Bazela Lajosengan indar-iturri misterioitsu bat, zenbait errekatxok dutenaren parekoa, mendien barrunbeak zeharkatu eta, gero, aztarnarik utzi gabe **hartzulo** sakonetan galtzen diren errekatxo bihurri horien modukoa alegia. Ander Irizar

harzara ik **hartzara**.

harzuri (*ETCn 55 agerraldi; orobat hartxuri ETCn 2 agerraldi*) *iz* alabastroa.

Guretzako hitzak ez dira apaletan altxatzeko **hartxuri** pollitak; geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik. Patziku Perurena

has *izond*

1 (izen bati elkartua, bigaren osagai gisa, “hutsik” esanahiaz eta elkarketak adizlagun balioa duela)

Aterkia jantzi eta buru-**has**, loiroa zeharkatzen zuen oilategiraino. Itxaro Borda

Musika militarra, Chirac pasatzen ikusi diat buru-**has**, bere autoan jendetzari agurka. Itxaro Borda

Bazter ditzaten ere kasketak egonez edo buru-**has** edo bonetarekin. Herria

Barrako mutur urrunenean ziren: luzea, txima-luzea, belarritakoduna eta meharra bata; ñarroa, kaxka-motza, belarri-**has** eta are meharragoa bertzea. Aingeru Epaltza

Aurpegi-**has** zeramaten zerraldoan le lo ri lo bai le lo, hilobia malko-euriz jarioan. Juan Garzia

Istantean jalgitzen dira aztal-**has**, ardura belaunez beheiti ez doan artile marroizko atorra hutsa soinean. Koldo Izagirre

Uste duzu irakurle, astotik mandora eramaten zaitudala, baina ez da hala: hitzak odoletan, larru-**has** dauzkat eta den mendreneko haize firfira beroak zauriak zornategi, irekitzen dizkit. Itxaro Borda

hasarazi, hasaraz, hasarazten du *ad* hastera behartu.

Ondoko hilabeteetan Klenttek argin lanak **hasarazi** zituen. Itxaro Borda

Homeward bound-ek jendea kantuz **hasarazi** zuen. Berria - Kultura

Handik, ordea, beste hutsigite batek oinazetik handieneko eremuetara bidal dezake berriro, eta handik berriro bere transmigratio katea **hasarazi**. Josu Zabaleta

Graxik hain lañoki egin zuen galderak beste emazteak karkailaka **hasarazi** zituen. Elena Touyarou

hasarre ik **haserre**.

hasarretu ik **haserretu**.

hasbehera *iz* arnasa jaurtitzea. ik **hasperen**.

Hasgora, **hasbehera**, ezin dio bueltarik eman arnasari, harria gerritik gora bueltatu ez duen bezala; hain batera joan dira beti beraren eta harrien bizitzak! Pako Aristi

hasbeheraka *adlag* arnasa jaurtiz. ik **hasperenka**.

Ezin dute beroa izerdiaren bidez barreiatu [...] eta **hasbeheraka** aritu behar izaten dute, lurruna botaz, mihia ateraz, ahalik eta azkarren gehiegizko beroa barreiatuz termoerregulazioa mantentzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

hasbeheratu, hasbehera(tu), hasbeheratzen du *ad* Hasbehera egin. ant **hasgoratu**.

Bapore guztiok, beraz, lurrak **hasbeheratzen** eta kanporatzen ditu, aire libreria eta ortzi zabalera. Xabier Amuriza

hasberri ik **hasiberri**.

hasera ik **hasiera**.

haserraldi ik **haserrealdi**.

haserre (ETCn **29.346** agerraldi; orobat **hasarre** ETCn **458** agerraldi) **1** iz batere atsegin edo gogoko ez denak eragiten duen pozgabetasunezko egoera edo sentimen ageria.

Haserrea, besteei gaitz egin dionarenganako Gorrotoa da. [Piarres Xarriton](#)

Azken garaioan **haserre** hauen zergatia beti bera izaten zen: etxeko mutilak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Segundo batzuetan bakoitza bere aldera tiraka aritu ziren biak, batak zein besteak **haserre** eta indar berberaz. [Josu Zabaleta](#)

Haserre hori itxurazkoa zela. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Nabari da badela nolabaiteko amorrua, **haserrea**, nahiz eta amorru eta **haserre** horri eusten saiatzen diren. [Eduarne Elizondo](#)

Deus gutxi gelditzen zen itxoinaldi hartatik eta sutu zituen **haserre** hartatik. [Fernando Rey](#)

Luzaroan begiratu dit, **haserretik** gabe, ezer adierazten ez zuten begiekin. [Monika Etxebarria](#)

Hitz egiten baheki, nire **haserretik** non gorde den esateko! [Juan Kruz Igerabide](#)

Apurka-apurka aldatzen hasi zen nire jarrera ere, errespetutik haserrera eta **haserretik** ausardiara. [Joxerra Garzia](#)

Haserretik ahalkera mudatu zaio gorritasuna. [Koldo Izagirre](#)

Haserrez betetako hitzak. *ik beherago* 6. [Oskar Arana](#)

Ederki gozitzen ginen orduan zurekin, zure **haserrezko** hitz frijitu haiek gogotik aditzen. [Iñaki Seguro](#)

2 (izenondoekin)

Horrek bai **haserre** bizia eragin ziola, eta luzarokoa gainera, Marcel gure arte-adituari. [Joxe Austin Arrieta](#)

Nire **haserre** mikatza irentsi nuen, bada. [Karlos Linazasoro](#)

Zertara dator **haserre** ozpindu hori? [Anjel Lertxundi](#)

Joxe Marik oso **haserre** gaiztoa zuen, eta zezenaren indarra. [Juan Kruz Igerabide](#)

Haserre gorriak hartua, eta herio usai beltzez inguratua gelditu da Gorritiko gaztelu ingurua. [Patziku Perurena](#)

Gurasoak **haserre** gaiztok hartu zituen, eta osaba ohera sartu zen. [Juan Garzia](#)

Ostatu osoari kontatu al zenion, Hagrid? -esan zion McGonagall andereñoak, **haserre** bizian. [Iñaki Mendiguren](#)

Eta ordu arte jasan errabia **haserre** gorrian jalgi zitzaion. [Elena Touyarou](#)

Baina umea, **haserre** gogorrean, altxatu egin zen berriz, amari haginka eta atzaparka. [Karlos Zabala](#)

Ezin nuen ulertu **haserre** neurritz kanpoko haren zergatia. [Ramon Saizarbitoria](#)

3 (aditzaren objektu edo subjektu gisa)

Zure anaiaren **haserrea** baretu dadin arte. [Jose Antonio Mujika](#)

Eta gutxiespen horrek **haserreak** eta liskarrak ekarriko ditu. [Jose Antonio Mujika](#)

Neurri horrek kamioizaleen **haserrea** eragin zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Espainiako eta Aragoiko Gobernuaren arteko hitzarmenak Nafarroako Gobernuaren eta UPNren **haserrea** piztu zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Piztu zen, bada, Jainkoaren **haserrea** haien aurka. [Askoren artean](#)

Haserreak hartu ninduen eta amorruz astindu nuen katea. [Josu Zabaleta](#)

Uste nuen **haserreak** ito behar zuela eta joko ninduela. [Marzel Etxehandi](#)

Judua itsasora bota ezean, ez zela Jainkoaren **haserrea** atertuko, ez zela haizea oihaletara itzuliko. [Felipe Juaristi](#)

Colonna atxilotzeagatik euren **haserrea** agertzeko. [Berria - Mundua](#)

-Ba, oraingo honetan, majo eman digu popatik -esan zuen Begoñak, bere **haserrea** gorde ezinik-. [Patxi Iturrategi](#)

Samaldaka, barneko **haserreari** irteten utziz. [Anjel Lertxundi](#)

Haserreari eutsi ezinik ia Gabin. [Iñaki Iñurrieta](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haserre -hotsak entzuten zituzten, gero eta ozenagoak. [Iñaki Mendiguren](#)

Haserre -doinuak bere eragina izan zuen. [Anton Garikano](#)

Espereintzia txiki horren aurrean liluraturik dagoela, baina baita ere **haserre** puntu batekin. [Pako Aristi](#)

Euren artean inongo **haserre** seinalerik ere ez. [Gotzon Garate](#)

Ez nuen eragotzi ahal izan **haserre** aire bat. [Aingeru Epaltza](#)

Jainkoak bere **haserre** -zigorra geldiarazi baitzuen. [Askoren artean](#)

Ezti ezazu zeure **haserre** -sumin hori, utz ezazu zeure herriari kalte egiteko mehatxua. [Jose Antonio Mujika](#)

Masteka beza gorotza, ene anaiaren kontra **haserre** -pozoia jaurti duen mihi honek. [Askoren artean](#)

Orduan huskeria bat aski izaten zen **haserre** -eztanda izugarrian lehertzeko. [Fernando Rey](#)

Itsaso bixi **haserre** -tankerako batean. [Iñaki Seguro](#)

Haserre -sutan jarri zen Moises eta esan zion Jaunari: [...]. [Elizen arteko biblia](#)

Gizonak **haserre** aurpegia jarri du baina isildu egin da. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

ik beherago 10. [Askoren artean](#)

• 5 izond haserretua, haserreak hartua.

Lanzak ile guztiak tente sumatzen zituen, katu **haserre** baten buztana bezala. [Juan Garzia](#)

Itsaso **haserre**, mutu eta geldi horren gainean. sumatzen baitzuen ibai **haserre** batek ere ez lukeela haien mina garbituko. [Felipe Juaristi](#)

Ahotsak entzun nituen, oso ahots **haserreak**. [Lopez de Arana](#)

Gero, zaldien ipurmasailetan esku-zarta **haserreak** jorik, sekulako garrasi batez ezproinatu zituen zaldiak. [Anjel Lertxundi](#)

Halako izumen **haserre** baten gailenean bezala. [Josu Zabaleta](#)

Begirada maltzur **haserre** bat bota zigun. [Josu Zabaleta](#)

Atso zaharren negar-zotin **haserre** eta gorabeherarik gabeak. [Lopez de Arana](#)

Astinaldi labur, laster, **haserreak** jotzen zituen, norabide guztietan. [Koro Navarro](#)

Hura dela beste deusek ez bezala bizitzaren olatu **haserreak** sosegatzen eta ematen dituen kosta. [Iñaki Seguro](#)

Marru etsi eta **haserrez** erantzuten zien halakoei. [Xabier Olarra](#)

• 6 adlag haserreturik.

Haserre joan dira Gevaudanetik paristarrak... [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Etxera itzulita, Ramo-ren arrebak **haserre** hartu gintuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Haserre alde egin zuen handik. [Iñaki Mendiguren](#)

Egun txarrak izan ziren arrantzarako, mundu guztia zebilen **haserre**. [Koldo Izagirre](#)

Nagusiak tratu txarrak ematen badizkio, zakurra erretxindua eta **haserre** ibiliko da. [Gotzon Garate](#)

Haserre jiratu zuen burua, jauzika. **Xabier** Mendiguren Elizegi

Gerrikoa estutu zuen, irribarretsu, **haserre**. **Karlos Zabala**

Lubis **haserre** zeukaat zaldia Sebastiani utzi diodalako. **Bernardo Atxaga**

Baina haiek **haserre** erantzuten zuten: [...]. **Askoren artean**

Eta Ronek **haserre** bultza egin zion katuari. **Iñaki Mendiguren**

-Aizue, zoazte haize epela hartzera! -Llume **haserre** begiratzan die Dani eta Joanari-. **Antton Olano**

-Bai -esan zuen Fudgek **haserre** samar-. **Iñaki Mendiguren**

Hautzarroan, aita ikusten dut, **haserre**, beldurra emateko moduko begirada zorrotzarekin. **Juan Kruz Igerabide**

7 haserrez haserre.

Gasna puska, zakar ontzira aurtiki nuen **haserrez**. **Itxaro Borda**

Bizitzako liburu ankerraren orrialdeak **haserrez** xehakatu. **Itxaro Borda**

-Aingeru jagolerik gabe geratu haiz, Sebastian **-haserrez** esan zidan ontziburu berriak. **Edorta Jimenez**

8 haserre egin errieta egin.

Albertok **haserre** egin zidan. **Juan Garzia**

9 haserre egon

Sekula ez zen hain **haserre** egon bere bizitzan. **Iñaki Mendiguren**

Haserre zegoen bere buruarekin. **Jon Muñoz**

Oso **haserre** zeuden bata bestearekin, eta Harryk ez zuen ikusten nola adiskidetu zitezkeen. **Iñaki Mendiguren**

Sinetsita nengoen olatuek erantzun egiten zidatela, nirekin **haserre** zeudela, baina horrek, beldurtu orde, oldartu egiten ninduen. **Anjel Lertxundi**

Harrituta eta apur bat **haserre** ere banengoen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Haserre eta goseak nengoen. **Koro Navarro**

Bestela, bestela... lepoa bihurrituko diat! **-haserre** bizian zegoen gure protagonista. **Jose Morales**

Itsasoa **haserre** zegoen, eta olatuek ertzeko hormaren kontra jotzen zuten. **Joan Mari Irigoien**

Izan ere, itsasoa gero eta **haserreago** zegoen. **Jose Antonio Mujika**

- "Hi beti **haserre**", esan zidan irribarre hutsalari eutsiz. **Bernardo Atxaga**

ekonomia hazkunderaren (10); eta hazkunderaren (4); hazkunderaren erritmoa (3); hazkunderaren eta (8); munduko hazkunderaren (3)

ekonomiaren hazkunderari (5); hazkunderari buruzko (3); hazkunderari eta (3); hazkunderik ez (4); hazkunderik handiena (9); hazkunderik handiena izan (3); hazkunderik nabarmenena (5)

hazkundealdi iz hazkunde dagoen bolada.

Gizarte Helenikoaren **hazkundealdian**. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko zientzia modernoaren **hazkundealdiarekin** parekagarria. Iñaki Mendiguren

Europar ekonomiaren **hazkundealdi** luzea [...] eten egin zen 1600 inguruan. Koro Navarro

Gerarazi egin beharko dituela gizarteari bere **hazkundealdian**, baita arazoaldian ere, bizitasuna eman dioten erakunde eta bizimoduetako asko. Elizen arteko biblia

hazkuntza iz umeak haztea.

Seme-alaben **hazkuntza** eta heziketan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 hazkundera.

Hara, irailaren 11ko gertaeren ostean Ameriketako Estatu Batuek onartu zuten gastu militarren **hazkuntza**. Iñaki Heras

hazkurri *(ETCn 605 agerraldi)* 1 iz janaria, elikadura. ik bazka.

250 gaztek nahiko **hazkurri** eta edari aurkitu dute besta horretan. Herria

Maite zuen behartsuari aterbe eta **hazkurri** emaitea. Irene Aldasoro

Biper ezia hemengo **hazkurri** bat da. Iñaki Heras

Gorputzeko **hazkurria** urdailerraino iristen da, atal guztietatik zabaltzen da, gorputz guztiatik. Joan Mari Irigoien

Goiza zen, gure eskoltako soldaduak, gerla denboran hiru eguneko **hazkurritz** partitzen diren orotan bezain alegera. Joxerra Garzia

Jabea zaintzeko janaria, haren hazteko eta osabetetzeko **hazkurria** eta bera iduriko beste baten sortzeko hazia. Herria

Gezurretako diru-egileari, delitu handia inondik inora, galdara handi batean sartuta egosten uzten zioten, eta batzuetan salda preso eta txiroei ematen zitzaien **hazkurri**, haiek

jakiteke noski. Xipri Arbelbide

Behartsua da, **hazkurria** nondik ateratzen duen ez dakigu, beti dabil oinutsik. Herria

Hazkurri freskoak eta konjelatuak garraiatzen ditu. Berria - Mundua

Gero, azaroan, bortutik jauntsiko diren ardie eskainiko dietela belarrak **hazkurri** aberatsa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kontsumitzaileak **hazkurri** naturalak nahiago dituela. Irene Aldasoro

Basurde gosetuak azalduko dituk, horiek usaimena erabiltzen ditek eta honezkero haizeak esana ziek zenbat kilo **hazkurri** dabilen hemen. Joan Mari Irigoien

Perla ttiki distiratsuz beterik egon ohi da mihura negutik udaberrira, zenbait txoriren **hazkurri**. Lander Garro

Igandeko bazkaria bost eurotan ezartzen dugu, **hazkurrien** erosprezioa hein horretan estimatu baitugu. Joan Mari Irigoien

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hazkurri bankoaren bilketa. Joan Mari Irigoien

Urteko **hazkurri** bilketa iragan baita Iparraldeko herri guztietan. Joan Mari Irigoien

Hazkurri laguntzaren galdez etorri dira 345 familia, jaz baino ehuneko 31 gehiago. Joan Mari Irigoien

Hazkurri ondarkinak baratzean berzirklatzea gauza erretxa da bizitegi partikularretan. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abere **hazkurriak** egiten dituzten lantegietako langileen kategorian bi zerrenda badira: FDSEA eta CFDT sindikatuak Patxi Zubizarreta

4 irud/hed

Edertasuna arimaren **hazkurri** bat dela diote. Joseba Sarrionandia

Merkatuak eskaintzen dituenak erosi eta erabiliko dira bi bazkidez eta datozkeen bazkidez osatutako enpresa txiki baina txit eraginkor horren **hazkurri** eta sustagarri izan daitezten. Joxe Austin Arrieta

Logela txar hartan, Magali eta ni, elkarrentzat genuen amodioa bientzat **hazkurri**, biak ahantziak, beste deusetaz oroituz ere gabe. Mirentxu Larrañaga

Hona euskal irakurleari egunero ematen zaion **hazkurria**.

Marxismoaren filosofia materialistaren antzeko itxuraldaketa hastapenak bereiz zitezkeen agian beren erlijio-**hazkurri** tradizionalaz gabeturiko errusiar arimetan. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hazkurri** (3); **hazkurri eta** (6); **hazkurri ondarkinak** (3); **tona hazkurri** (3)

hazle 1 *izond/iz* hazten duena.

Hemen ere jendea gogotik kantuz eta otoiitzean arizan da, ederki agertuz fedea eta kultura bata bestearen **hazle** direla. Herria

Irakur errexa da eta gure gogoeten **hazle**! Herria

Horregatik, indar galgarriek ezin dute erabat nagusitu ez bizia betiko ehortzi, eta indar gauzen sortzaile eta **hazleek** ere ezin dituzte sorkariak iraunarazi. Xabier Amuriza

Snapek, berriz, norbaitek basokada handi bat Hezur **Hazle** edanarazi ziola ematen zuen. Iñaki Mendiguren

2 *iz* hazten duen pertsona.

Haurraren **hazleak** nigarra begian, nunbaiteko beren seme edo alaba zombaiten argazkiari beha haren solas goxoez bihotza hunkirik. Herria

Administrazioaren hautuaren ondorioa da Euskal Herriko **hazle** gehienak kanpo gelditzen direla. Herria

Plangintza hunen gibelean, **hazle** ttipiak desagertarazten dituen berregituratzea ageri da. Herria

Egia erran, feria aitzineko egunetan eginak zituzten **hazle** askok beren negozioak. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, landareei buruz)

Gogoko zuen bere burua lore-**hazle** ontzat hartzea. Mirentxu Larrañaga

Ez dugu onartuko arto **hazleen** interesak defenditzeagatik, alegia deus ez, ingurumena hondatzea. Berria - Harian

Arto **hazleak** jomugan. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, abereei buruz)

Hegazti saltzaile, **hazle** eta zaintzaileak. Berria - Harian

Bortu gunetako ardi eta abere **hazleak** bi laguntza mota eskuratzen dituzte hitzarmen bereziaren bidez. Herria

Dominixe Karrikondo, ahuntz **hazle** gaztea. Herria

Untxi edo lapin **hazleak** krisi larrian dira. Herria

Arrapostua ukanik, bat-batean urde **hazleak** eta denak, edangiarri bizkarrez zutik, mikroaren aurretik pasatu ziren. Itxaro Borda

Xakur hazlea ginuen baina nolako gizon aparta! Herria

Behi esnadun **hazleentzat**, abisu. Herria

hazleku *iz* hazteko lekua.

Ingurune fisikoki gogorrek mundu-arrakasten **hazleku** izateko joera dutela. Zakurtegieta eta zakur-**hazlekuetan** dauden zakurrak. Iñaki Mendiguren

hazmami ik **hazt** 17.

hazmin *iz* hazteak dakarren mina.

Ezin xuxenduak gutik, bai emazteak bai gizonak -ba, gizonak ere!- halako **hazmin** batek miha erretzen diaukuk, nun ez baigituk ixiliko egoiten ahal errealitateari beha, errealitatearen entzuteko, hortik baita egia sortzen. Michel Oronoz

hazpandar *izlag/iz* Hazparnekoa, Hazparneri dagokiona; Hazparneko herritarra.

Hazpandar bi talde ariko baitira elgarren kontra eta beraz hauetarik bat finalean. Herria

"Noizbait" **hazpandar** elkarteko hiru pilotari gazte xapeldun atera direnak. Herria

Josep Zabalo **hazpandar** apezak. Herria

Bere **hazpandar** irriñoaz. Herria

Bittori Martinon Kapoteneoak eta Maialen Duhalde **hazpandarrak**. Herria

Hazpandarrak sei hilabete egin ditu preso, Udalbiltzako kide izateagatik. Berria - Euskal Herria

Goizean **hazpandarrak** nagusi eta aratsaldean Piarres Larzabal ikastegikoak. Herria

Hazpandarrek kanpo ezarri dituzte senpenter hauk.

Herria

hazpegi *iz pl* aurpegiaren, begitartearen alderdiak.

Soari espresioa ematen dioten **hazpegiak** -bekainak, betondoak, irribarreak edo haserreak eragiten dituzten begi ertzetako zimurrak...- **Iñaki Iñurrieta**

Andrés begiratu zion gero, haren belztasuna gailendu egiten zen argitara, baina **hazpegi** gozoak zituen, eta biziak oso. **Felipe Juaristi**

Bisaia **hazpegi** astunak zituen oro har, baina begiak txiki-maltzurrak. **Juan Garzia**

Hazpegi zakarrak ditu, baina begirada atsegina. **Anjel Lertxundi**

Ekialdeko **hazpegiak** dituen emakume bat ageri da argazkian batera jotzen. **Harkaitz Cano**

Magrebiar **hazpegiak** dituen gizon gazte bat. **Edorta Jimenez**

Miretsita geratu zen berriz ere **hazpegiak** erdiak bereak eta erdiak neskarenak zituen ume hura ikusita. **Koro Navarro**

Iribarre batek gizonaren **hazpegiak** argitzen ditu. **Eskarne Mujika**

Beldurrak tenkaturik zeuzkan **hazpegiak**. **Monika Etxebarria**

hazpizar *(orobat hatz-bizar) iz* azazkal ondoko azal zati altxatua.

"Ez jan **hazpizarrak**!", aditzen zen aitaren trumoi-ahotsa aldiari behin. **Fernando Rey**

Hazpizarrak hozkaka kentzeko ohitura txarra zuen. **Fernando Rey**

Iodo-tintura urratu eta harramazketarako, metileno-urдина eztarriko minerako, eta "bir" delakoa **hazpizarretarako**. **Koro Navarro**

Begi marroi distiratsuak zituen, beti ñir-ñirka, eta azazkalen inguruko hatz-**bizarrak** amorratu biziz koska egiteko ohitura. **Jon Muñoz**

hazta 1 iz pisua.

Zer izanen da estatu-nazio hain ezberdin horien lekua edo **hazta**, Ingalaterra, Frantzia, Espainia, Alemania bezalako inperio ohien aldean. **Piarres Xarriton**

Saritzat ukan zuen "makila zilarreztatua, makila gorrail, lerdin, **hazta** ttipiko bat, mizpira ginharriz, ah! zer makila!... luzexago egin balu, untz'urrea eskuratu baitzuten".

Michel Oronoz

Hazta, 2000 kg - goratasuna, 1,20 m – erdiz-erdikoa, 1,42. **Herria**

2 hed

Ahalik eta zehazkien behatzera saiatu dira, taulen gainean lerratuz praktikatzen diren kirolek nolako **hazta** hartzen ari duten hemen gaindikoa ekonomian. **Herria**

3 hazta egin

Nik utzi lekuan zegoen beti, ate ondoan zutik, eta eskuak gerrian **hazta** eginda, begitarrea deusen adierazpidea ez zuela. **Aingeru Epaltza**

Abel isilik eta besoak **hazta** eginik zain geratu da, bidelagunak zer edo zer argituko diolakoan. **Pello Lizarralde**

Polizia, besoak **hazta** eginda, haien atzean zegoen. **Joseba Sarrionandia**

4 hazta eta hazta

Alferrik zuan buruan horrelakoak eta bestelakoak **hazta** eta **hazta** erabiltzea, elkarri begiratzea, ez genian ulertzen haiek horren maltzurak izatea. **Josu Zabaleta**

haztaezintasun iz ezin haztatuzkoa denaren nolakotasuna.

Bere **haztaezintasun** eta ikusezintasun erabatekoan edertasun paregabeko erlantz bezalaki egiten baitituzte begi lurraz gabeturiko gogamenak. **Joan Mari Lekuona**

haztaga iz balantza, pisatzeko tresna.

Hogei pertz zueden lurrunetan zurezko ikasmahaien artean, eta mahai gainean letoizko **haztagak** eta pitxerak beren osagaiekin. **Iñaki Mendiguren**

-Ei, Harry! -esan zion Seamus Finniganek, Harryren brontzezko **haztagak** hartzeko makurtuz-. **Iñaki Mendiguren**

haztaka 1 adlag haztatzen.

Kasu hantiz **haztaka**, hanpadura aurkitu zuten nire eriek. **Aingeru Epaltza**

Joan da sukalderra, eta **haztaka** hasi naiz maleta barruan labanaren bila. **Javi Cillero**

Nire erizaina atal horretako larruzalaren gainean **haztaka** hasi zenean. **Aingeru Epaltza**

Motor hotsak makurtua harrapatu ninduen, jarleku azpian **haztaka**. **Aingeru Epaltza**

Lurrean hanka puntekin **haztaka** ibili. **Monika Etxebarria**

2 hazta-haztaka adlag

Iribarre egin genion elkarri Imanol zakilaz ene uzkiaren bila **hazta-haztaka** hasi zenean. **Aitor Arana**

3 haztaka-maztaka adlag

Urrats laburrez ekin nion oinez, iluntasunean **haztaka** -maztaka, neure gelara iritsi nintzen arte. **Juan Garzia**

haztakatu *(ETCn 27 agerraldi)*, haztakatu, haztakatzen du ad haztatu.

Besteaz nirea **haztakatu** zuen praka gainetik, baina makal neukan. **Aitor Arana**

Argi ispilatutan aztertu, esku ahurrean pisua **haztakatu**. **Juan Garzia**

Alpakazko bi balantzen platerak lehortu zituen, labean **haztakatu**, sutegia ia itzalia baitzegoen. **Karlos Zabala**

Non oilo zahar narrats batzuk lurra **haztakatzen** eta arrautza mixerableak erruten baitzituzten. **Koro Navarro**

Itsumandoka gupil-aulkiaren burdinazko egitura ezaguna **haztakatu** eta, mugimendu sail neketsu baten ondoren, berriro aulki gainean jartzea erdietsi nuen. **Alberto**

Ladron Arana

Ukitzen duzu berriro, **haztakatzen** dizkiozu alde guztiak, uste duzu inoiz inork ukitu gabeko objektu bat ukitzeko fortuna izan duzula. **Anjel Lertxundi**

haztakatzaile izond haztakatzen duena.

Hemen posible zen argi irristakor haiei esatea, ohe gainetik haize eman eta makurtzen diren aire **haztakatzaile** haiei esatea, hemengoa ezin duzue ez ukitu eta ez triskatu.

Anton Garikano

haztaketa iz haztatzea.

Ez dugu konbinatoria honek eskatzen dituen **haztaketa** -mekanismoen egiazko eredurik batere. Josu Zabaleta
EAEko Oinarrizko Unibertsitate arloan transferentziak:Euskal Autonomia Elkartearen izandako esperientziaren **haztaketa**, 1993. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

haztamu 1 iz haztatzea.

Baina erraz irudikatzen ditut nik -saiatu beharko diren makina bat froga eta **haztamu** ugari salbu- norabide ezberdinetan garatuko lirakekeen arkeologiak. Xabier Arregi
Baina ez dute balio teoria bezala, ezta teoria **haztamu** bezala ere. Josu Zabaleta
Mila **haztamu** kontraesanez betetatik jaioko da, azken finean, itsasontzia. Josu Zabaleta

2 p/hazpegiak.

Adelak aurpegi serioa jarri zuen; haren **haztamu** leun beltzaranak zorrotzu egin ziren, ilundu. Juan Kruz Igerabide

haztamuka adlag zerbait aurkitzeko edo, inguruko gauzakiak haztatuz.

Hirugarren atea zabaldu zuen, sartu zen barrura ilunpetan eta **haztamuka** hasi zen argiaren giltzaren bila. Koro Navarro
-Kaixo, Neville -esan zion Harryk, ilunpetan **haztamuka** mugitu eta Nevilleri kapatik helduta altxatzen lagunduz. Iñaki Mendiguren
Laino artean **haztamuka** Siriusek bila ibili, eta haren besoa aurkitu zuen... Iñaki Mendiguren
Edo begiak erabiltzen zituen eta ingurura begiratzen zuen, edo, bestela, **haztamuka** eta ukituka, "itsu gisa portatzen zen". Xabier Olarra
Itsua ematen zuen ia, antza; gauzekin huts egin, **haztamuka** ibili, eta ikusmenaren aldetik galdua ematen omen zuen. Xabier Olarra

haztapen iz haztatzea.

Bizi-kalitatearen **haztapena** ez da eginkizun samurra, hainbat parametro kualitatibo [...] eta kuantitatibo bildu behar dira eta. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Bigarrena, ondasun horien produktiorako pertsonako behar den eremuaren **haztapena** da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Informazio-sistema aldatua izan delako ikuskatsetik, auskultatsetik eta **haztapenetik** mikroskopiaoren eta biologia-testen erabileraraino. Xabier Arregi
· Hatz zuriaren gaitzaren sintomak azaltzean, kanpotik ikus daitekeen sintometaz aritu zen: mina, hotza, taupaden **haztapena** edo hazten ez diren azazkalak besteak beste. Beria - Kirola

haztatu (ETCn 1.586 agerraldi), hazta, haztatzen 1 du ad hatzez edo eskuaz ukitu, ukimenaren bidez hauteman edo ezagutzeko. ik haztakatu.

Eskuez arin eta xehero **haztatu** zuen, ikusmenaz aztertzean [...] ez bezalako ziurtasunez. Xabier Olarra
Argiaren giltzaren bila horma **haztatzen** zuen artean. Koro Navarro
Atea **haztatu**, zuraren artean nire eri-mamiak zerrailaren biribil metalikoaren hotza berenganatu eta giltza lehen kolpean sartu nuen zulottoan. Aingeru Epaltza
Eskuak sabel gainean bildu haurdun batek umea **haztatu** nahi duenean bezala. Juan Kruz Igerabide
Jakaren patrika **haztatu** zuen, pentsioa bideratzeko paper guztiak gordeak zeramatzala egiaztatu nahian. Ramon Saizarbitoria
Sakela **haztatu** zuen, bai, hemen zauzkaat. Koldo Izagirre
Eskuan harturik, **haztatu** egiten zituen fruituak, eta, hartan ari zen bitartean, haien pisuaz eta sendotasunaz mintzo zen, haien hazi eta hezurrez. Xabier Olarra
Xarlesen ahurak Josyren azpi oparoen erronda ikaragarria **haztatzen** zebiltzan. Itxaro Borda
Ukitu egin nahi zuen animalia, alde guztietatik **haztatu**. Xabier Olarra
Gero ate kontra igaro zen, esku herabe batez atea **haztatuko** balu bezala. Josu Zabaleta
Esku batez kutxaren barrua **haztatu** nuen, eta ezer ez. Edorta Jimenez
Hilabete oroz berrehun euroko pentsioa bat erdiesten zuen, aski baitzuen postara joatea diru horren **haztatzeko**. Itxaro Borda

2 irud

Nobleen eta hauen aliatu apezten pisuaren **haztatzea** aski liteke, iraultzarekiko euskaldunon ikuspegi aldaketaren esplikatzeko. Itxaro Borda
Auziaren alderdi guztiak **haztatzen** saiatu zen. Irene Aldasoro
Gizona, berriz, Crosby & Alleyne-ren negozioak zuzentzen zituen burez leunari tinko begira geratu zen, haren hauskortasuna **haztatzen**. Irene Aldasoro
Arratsalde batez, ordea, albo baten loditasuna **haztatzen** ari nintzela, han gordetegiren bat egon behar zuela ohartu nintzen. Josu Zabaleta
Non aurkitu markoak eta kriterioak, holakorik **haztatu** eta balioetsi ahal izateko? Joxe Azurmendi
Zure pipa husten eta zure hitzak hain zuhur **haztatzen**. Oskar Arana

3 pisatu.

Absurduki, eskuaz oratu eta burdinaren pisua **haztatu** nuen, neure buruari adore ematearren. Juan Garzia
Juje zintzoa izanen naiz, eta biak izanen zarete balantza berean **haztatuak**. Jon Muñoz
Azkenik, geroan euskararen lekua zer izanen den **haztatuko** du. Herria
Lasaitasun pixka batekin behar baitira gauzak **haztatu** erabaki aitzin. Herria

4 (era burutua izenondo gisa)

Bi gizakien arteko elkarte batean, ezinbestekoa da elkartekide bati boto **haztatua** ematea, oinarri hartuta abantailadun sexuari aitortzen zaion lehentasuna. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat **haztatu** (3); eta **haztatu** (3); **haztatu behar** (3); **haztatu du** (3); **haztatu egin** (4); **haztatu eta** (11); **haztatu nahi** (3); **haztatu nituen** (4); **haztatu nuen** (11); **haztatu zituen** (6); **haztatu zuen** (23); **pistola haztatu** (3); **poltsikoak haztatu** (4)

haztatzeko eta (3)

haztatzen ari (9); **haztatzen ari zen** (4); **haztatzen eta** (3); **haztatzen saiatu** (3); **haztatzen zituen** (3); **haztatzen zuen** (6)

haztatze iz ukimenaren bidez hautemateko, hatzez ukitzea.

Ez zen, beraz, ene eskua toki menperatu berritik kentzeko bertze agindu bat [...] baina bai nire **haztatze** lanak gelditzeko erregua. Aingeru Epaltza

hazte 1 iz zerbaiten edo norbaiten hazkuntzaz arduratzea.

Itsu-zakur batek haatik aintz gostatzen du: 18.000 euro, **hazte** eta hezte lan guzikiak konduan hartuz. Herria

Edo, arestian erran bezala, halakoa ote nortzen sortze, eta ez ote zuen kolpe nehongo eraginik izan ene **hazte** -hezteetan... Joan Mari Irigoien
Nork bere buruarenganako fidelotasuna eta bestearenganako errespetua, norbanakoaren baiespena eta gizarte-solidaritatea, zoriona eta jakitea elkarbigiztatzten dituen: alaitasuna nork bere burua **hazte** eta hobetze gisa. Piarres Xarriton

2 ezarian-ezarian handituz joatea.

Baina ikuspuntuaren **hazte** honek ez du nahimenarekin zerikusirik: era itsuan hazten da, medikuntza ikasi zuelarik Joyce liluratu zuen enbrioia bezalaxe. Markos Zapiain

haztegi *(ETCn 1.041 agerraldi; orobat hazitegi ETCn 95 agerraldi)* 1 iz animaliak hazteko prestatuturiko lekua.

Texaseko arrantxoetan, Kentuckyko zaldi- **haztegietan**. Karlos Zabala

Bisoi europarrak Kataluniako **haztegiara** ez bidaltzeko eskatu dute Ekologistak Martxan eta Gurelur elkarteek. Berria - Gaiak

Osabaren ahate- **haztegi**ko zurezko atean. Harkaitz Cano

Haztegi handiaren parean gelditzen zen, non arrain biziak gordetzen diren erreserban. Karlos Zabala

Hori oso garrantzitsua da izokinen **haztegi**entzat. Berria - Euskal Herria

Arrantzatutako arrainen eta **haztegi**etako arrainen kontsumoa hobetzeko. Berria - Euskal Herria

Zapo gazteak botatzen ari ziren **haztegi**etara, zakuak emeki-emeki hustuz. Karlos Zabala

2 irud

Denbora luzez Markina eta inguruak pilotarien **haztegi** bikaina izan dira. Edorta Jimenez

Horixe da magistraturaren **haztegia**. Andres Urrutia

Esklaboen artean aurkitu zuten hiritar- **haztegi** neurrigabeaz. Iñaki Iñurrieta

Gaur egungo neoliberalismoaren barruan dauden lobbyek **haztegi** moduan har dezakete unibertsitatea. Berria - Euskal Herria

[Alferkeria] Deabruak bekatu berrien haziekin esperimentuak egiteko eta bizio nagusien hazkundera bultzatzeko duen **haztegi** ereduakoa. Xabier Olarra

hazteri *(orobat hazteria)* iz azkura bizia eragiten duen eritasuna.

Hazteria kutsatuko niola aurpegiatzen zidan. Urtzi Urrutikoetxea

Batzuek **hazteria** (sarna/gale) zela eta etengabe hazka, guztiok izaten genituen sexu gaitzak, edota zorriak. Pablo Sastre

Behinolako aurpegi, **hazteri** eta zauriz jositako azal, hezur, piltzar eta gorputzadar zorrotzen nahaspila askaezin hartan. Urtzi Urrutikoetxea

Barruan, **hazteria** epidemia bat hedatzen ari da. Pablo Sastre

hazteritsu *izond* hazteria duena.

Beraz, Bev Shaw-k atea irekitzen dienean aurpegi ona jarriko du, nahiz eta barrutik iristen zaien katu-txixen, txakur **hazteriatuen** eta desinfektatzailearen kiratsak atzera eragiten dion. Oskar Arana

haztoki *iz* haztegia.

Erosiko dituzte 25 garaño urtero eta pusatuko 13 urte arte **haztoki** batzuetan, handiena Hazparneko laborantxa lizeoan 10, bertzeak Azkaine eta Orzaizen. Herria

heavy 1 *iz* musika estiloa, rock gogorraren aldaera dena.

Heavya, metala eta power metala erraietan daramate Flyin' Freak talde berriko musikari beteanoek. Berria - Kultura

Luther lehen atera da **Heavy** kategorian eta Haurrock orotarikoan. Herria

Hazparneko **'heavy'** eskolatik "Iztripot", "Mister Saguak" bilakatuko zirenak. Ramuntxo Etxeberri

Kudairen musikak metaletik edaten du bete-betean, baina elementu elektronikoei ohiko **heavy** soinutik aldentzen dute. Berria - Kultura

• 2 *izond* heavyri dagokiona.

Kantari **heavy** bat noski. Aingeru Epaltza

• 3 *iz* heavy musikaren giroko musikari edo jarraitzailea.

Diskotekak, ez dakit zergatik, kanpotarren gauza-edo iruditzen baitzitzaizkigun, John Travoltaren moduko hortera, edo **heavyen** makarrada. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta mandiak, borrokak, gotikoak edo **heavyak**, beste izen batzuekin jakina, Alemanian-eta ikusten genituen, urrun, ez gure karrika beltzetan. Pello Salaburu

Heavy-ek ibiltzen dituzten nikien moduan. Berria - Kirola

• 4 *izond* gogorra.

Ipuin **heavy** samar hau Donibane Lohizunen bildu zuen Vinsonek 1874an. Martin Anso

Jakina, galdera light horrek bertsio **heavy** bat du, banakako planotik orokorrera pasatzean mamitzen dena: "zergatik idazten dute euskaraz euskal idazleek, ezpada argitaratzeko erraztasunagatik? Bernardo Atxaga

Bide horri segituz, kirurgia plastikora jo beharrean aurkituko nintzen luze gabe, zirko **heavy** batean bukatu nahi ez izatera. Aingeru Epaltza

5 *heavy metal* heavyaren muturreko aldaera.

Heavy metal klasikoa bukatzeko. Berria - Kultura

Heavy metalaren atalean zuzeneko emanaldirik onenaren saria Metallicak eraman zuen. Berria - Kultura

- Trikitixa zen garaiko rockanrola; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginatete Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta **heavy** metalkideen kontorsioak mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. Pako Aristi

6 *heavy metalkide* *iz* heavy metaleko talde bateko kidea.

Trikitixa zen garaiko rockanrola; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginatete Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta heavy **metalkideen** kontorsioak mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **heavy** (3); **heavy metal** (4)

hebain

1 *hebain-hebain* egin

Onenean **hebain-hebain** eginik lagako zuten. Lutxo Egia

hebaindu, hebain(du), hebaintzen 1 da/du ad guztiz ahuldu.

Eta han ziak heriosur zaldi gainean, sasi guziak barrera noraezean, azkenerako zaldia **hebaindu** eta lurrera erori zaion arte. Patziku Perurena

Pikotxa erabiltzeaz ederki **hebainduak** ginen kapitainari ausartu nintzaionerako. Koldo Izagirre

Barkatu, irakurle gazte, amaierarekin hasi nahi dut, beldur bainaiz biak indartsu hasi eta erdi **hebainduak** ez ote garen. Pello Salaburu

2 elbarritu, balditu.

Burtziak sartu ondoren, izter-zainak ebaki zizkiola, dagaz, eta horrela paralizatu eta **hebaindu** zuela dukeak zezen hura. Joan Mari Irigoien

Bizkarrezurririk gabe **hebainduriko** panpina oroitu zitzaidan, bere aulki birakorraren gainean. Aingeru Epaltza

3 zehatu, jipoitu.

Zure alabak, badaki gauzez jende biluzia **hebaintzen** duzula? Koldo Izagirre

Lo nengoen oraindik, erabat **hebainduta**, egarri ere bai. Joxe Austin Arrieta

Gero eta mingarriagoak dira kolpeak, behin eta berriro jotzen bainaute lehen **hebaindutako** aldean. Agurtzane Juanena

Lurrean arrastaka, bustirik eta **hebaindurik**. Juan Kruz Igerabide

4 (era burutua adizlagun gisa)

San Frantzisko **hebaindu** bat. Patziku Perurena

Badaki horien atzean gorputz **hebainduaren** isuri minak daudela. Pello Lizarralde

Lastairak ostikoz altxa zaitzatela **hebainduak** / diru-gosearen seme bekatuan ustelduak. Xabier Olarra

Indarrean dagoenarena eta nagusiarena bat, txikiarena eta **hebainduarena** bestelakoa izaten da, nahitaez, errealismoa. Joxe Azurmendi

5 hebainduxe

Zaldiak **hebainduxeak**; zaldunak neke gaizto eginak; beren erresuma noblerako bidea hartu dute atzera. Patziku Perurena

hebaindura iz ahuldura.

Altxa naiz, poliki, oso poliki, arunt nekatur banengo bezala, zulogintzak eraginiko **hebaindura** guztiek batera heldu balidate legez. Koldo Izagirre

hebaingarri izond hebaintzen duena.

Zer xarma mugagabea, igarotzen den eguratsa bezain **hebaingarria**, ilunabar more, arrosa eta urdin batean hiltzen ari den zerua bezain liluragarria, ondoren datorren gaua bezalatsu, zer xarma zerion koadro ilun hari, begi barrendu ezin haiei! Josu Zabaleta

hebertar izlag/iz hebrearra.

Hebertar inude baten bila joatea. Elizen arteko biblia

Bazen han gurekin gazte **hebertar** bat, goardiaburuaren esklaboa. Jose Antonio Mujika

Emakume **hebertarrak** ez dira egiptiarrak bezalakoak. Jose Antonio Mujika

Hebertarra naiz, eta Jauna gurtzen dut, zeruko Jainkoa, itsasoa eta lurra egin zituena. Jose Antonio Mujika

Egiptiarrei ez baitzaie zilegi **hebertarrekin** batera jatea. Jose Antonio Mujika

Indarrez bahituta ekarri ninduten **hebertarren** herritik. Jose Antonio Mujika

Rut atzerritarraren kontakizuna **hebertarren** narratibaren maisulantzat hartua izan da. Jose Antonio Mujika

Hebertarren Jainkoa agertu zaigu. Elizen arteko biblia

hebertista izond Herberterren** aldekoa.

Politikan, **hebertista** zen. Karlos Zabala

Charvet **hebertista** zen, eta Logre eta Robine zituen alde. Karlos Zabala

hebilla iz belarria. ik belarri 9.

Soinekoaren **hebilla** askatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Larruzko bota altuak eta **hebilla** lodiko gerrikoa soinean. Bernardo Atxaga

hebraiera iz hebreera.

Lorpen handia izan zen **hebraiera** berpiztea. Koldo Zuazo

Hebraiera ikastera. Berria - Mundua

Hebraierara eta latinera itzuli baitzituzten grekoen lanak eta antzinatoko jakituria zekarten antzinako liburuak. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Jeronimo Biblia **hebraieratik** zuzenean itzultzen ari zela. Imanol Unzurrunzaga

Hebraieraz badaki, baina ingelesez kostu egiten zaio. Berria - Mundua

Hebraieraz "shaqed" esaten omen da almendra. Patziku Perurena

Okzitanierazko eta **hebraierazko** lanak. Berria - Kultura

hebraieratze iz hebraierazko bihurtzea.

Yiddishez idazten zuen Bashevis Singerrek, Poloniatik Errusiara bitarteko zenbait milioi judu mintzo zen eta gaur egun Hitlerren holokaustoari, Stalinen purgei eta, paradoxaz, Israelgo estatuaren **hebraieratzeari** esker ia galdutzat jo litekeen hizkuntzaz. Berria - Kultura

hebraiko izond hebrearra.

Idazlana familia **hebraiko** baten bizialdia dugu. Berria - Kultura

Eliza **hebraikoa** izateko eraikia, orain Zinemaren Museo Nazionala dago bertan. Anjel Lertxundi

Ez dut gogorik paradigma **hebraiko** edo kontziliarren preso direnei esplikazioak emateko. Karlos Zabala

hebraitar *izlag/iz* hebrearra.

Hori diotenen, **Hebraitar** batzuek lanbro batean barna bezala ikusi zuketean. Piarres Xarriton

Gauza bera txinatarrek beren Urte Bukaerako festa-egunetan, gauza bera **hebraitarrek** beren Pazko garaian. Anjel Lertxundi

hebrear 1 *izlag/iz* judua.

Liebkind Bendel sarritan mintzatzen zen **hebrear** idazle zahar eta ospetsu batekin zuen gutun trukeaz. Koro Navarro

New Yorkeko **hebrear** aldizkari baten argitaratzaileak egina. Koro Navarro

Sudurra **hebrear** eredu delikatukoa. Koro Navarro

Hebrear eta greko alfabetoko letra. **Hebrear** entziklopedia bat argitaratzen zuen. Askoren artean

Kanaandarren **hebrear** konkistatzaile barbaroen legeria hasiberrian. Iñaki Mendiguren

Hebrear kantu errepikakor batek. Berria - Kultura

Hebrear mintzaireko katolikoen. Herria

Zaccaria apaiz **hebrearrarenak**. Berria - Kultura

Jerusalemgo Unibertsitate **Hebrearraren** kanpoaldean. Berria - Mundua

Kristau ziren itxuraz eta **hebrear** muin eta zinez. Felipe Juaristi

Hebrearren haurrek, olibondo adarrak eskuetan, Daviden Semea goresten zutela. Michel Oronoz

Grekoek grezieraz izkiriatu zuten, erromatarrek latinez, **hebrearrek** hebreeraz, eta mairuek arabieraz. Askoren artean

• 2 *iz* hebreera.

Denak **hebrearrez** ari zirela. Herria

Hebrearrez eta arabez itzulirik. Herria

hebreera *iz* hebrearren hizkuntza.

Hamahiru urterekin **hebreera** pixka bat ikasi eta gero hura ahaztu duen norbait. Juan Garzia

Hitza ez da ezaguna **hebreera** klasikoan. Juan Garzia

Astronomiari buruzko orduko jakinduria arabieratik **hebreerara** itzuli zuen. Askoren artean

Hebreeraz eta beste hamar hizkuntzaz ere egiten zuen. Koro Navarro

Ez baitzekien **hebreeraz**. Fernando Rey

Eta hara berriki "Obabakoak" lana **hebreeraz** ere argitaratua izan dela. Herria

Hebreerazko pasarte luzeak irakurri zituen. Koro Navarro

Hebreerazko eta yiddishezko liburuak. Koro Navarro

hebreerazale *iz* hebreeraren zale dena.

Hantxe ziren denak, **hebreerazaleak**, yiddishzaleak, idazle anglo-juduak. Koro Navarro

hebreo 1 *izlag/iz* hebrearra.

Unibertsitate **Hebreoko** irakasle eta aditu druzo batek. Berria - Mundua

Esan ohi denez, honako hitz **hebreoez** osatua omen dago: [...]. J.M. Olaiola "Txiliiku"

Haserrealdi eta pozaldietan edo solas xume batean irten ohi diren esapide asko ez dira, zehaztasunez hitz eginda, indargarriak baino, **hebreoen** *sela y vah*, adibidez, edo latindarren *pol* edo *oepol*. Juan Martin Elexpuru

2 hebreera.

Hebreoz idatzia. Patziku Perurena

hebroka *adlag* pila handitan.

Oroitzapenak **hebroka** zetozkidan. Daniel Landart

Hebroka jendea... Fernando Rey

hedabide 1 *iz* hedatzeko bidea.

Ez dut begi onez ikusten; eta gure segurtasunaren kaltean da zoramen horri **hedabide** zabala uztea. Juan Garzia

2 *p/berriak* eta argibideak hedatzeko bidea.

Hedabideetan aditzera eman zuenez. Ramon Saizarbitoria

Komunikabide eta **hedabide** guztietako lehen albistea. Hasier Etxeberria

Denok ere nahiago genuke kasu hau **hedabideek** ezer jakin gabe ebatzi bagenu. **Hedabideen** erretolika berritsuek. Oskar Arana

Hedabideek erabakitzen dute nork duen etiketa hori. Berria - Euskal Herria

Hedabideetan agerturiko albisteeak. Berria - Gaiak

'Real IRA' izena **hedabideek** asmatutakoa da. Berria - Mundua

Agiri hauen berri **hedabideek** eman zuten orain hamar urte. Berria - Euskal Herria

Frantziako Barne Ministerioak asteartean **hedabideei** albistea isilpean gordetzeko eskatu zien. Berria - Mundua

«Gupida gabe» eraso dioten **hedabideei** kritika egin die Talaia institutuak. Berria - Euskal Herria

Irratian zein telebistan, **hedabide** bakoitzaren narrazio legeak ezagutzeak du axola. Joxerra Garzia

Demokrazian ez da ohikoa inongo epaiketarik gabe **hedabideak** ixtea. Berria - Euskal Herria

Atzo Gasteizko Alkartetxean, **hedabideekin** egindako gosari batean. Berria - Euskal Herria

Baionako Herriko Etxeak **hedabide** honi eskainitako argibidearen arabera. Berria - Euskal Herria

Erkiagak **hedabide** honi baieztatu dio Energiaren Euskal Erakundeak «iradokizun batzuk» egin zituela garai batean. Berria - Euskal Herria

Pintaketa antimilitarista egiten ari ziren, **hedabideetako** kamera eta mikrofonoak lagun zituztelarik. Txema Ramirez de la Piscina

Hedabideen boikota, erabatekoa izan zen. Iñigo Aranbarri

Euskara **hedabideetan** eta administrazio sartu zenean. **Koldo Zuazo**
Harekin batera, Azkarraga sailburua izan zen **hedabideen** aurreko agerraldian. **Berria - Euskal Herria**
Argitaletxe eta **hedabideetako** hizkuntza zuzentzaileei. **Koldo Zuazo**
Hedabideetako demagogo profesionalek. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Hedabideetara igorritako prentsa oharrean. **Berria - Harian**
Hedabideetara helarazitako prentsa oharrean. **Berria - Euskal Herria**

3 (izenondo edo izenlagun batez)

Guk **hedabide** txiki eta ertainen sare trinkoa osatu dugu. **Txema Ramirez de la Piscina**
Kuwait eta Saudi Arabiako **hedabide** ofizialak. **Berria - Mundua**
Publizitate, subentzietatik eta salmentatik bizi dira **hedabide** ez-publikoak. **Hasier Etxeberria**
Hedabide independenteek eta gobernu kanpoko erakundeek. **Berria - Mundua**
Azken urteotan **hedabide** alternatibo eta komunitarioek garapen handia izan dute Venezuelan. **Txema Ramirez de la Piscina**
Hedabide elektronikoen garrantzia. **Berria - Gaiak**
EITBko **hedabideek**. **Berria - Euskal Herria**
Irratiak, ikus-entzunezkoak, Interneteko **hedabideak**. **Berria - Harian**
Tokiko **hedabideen** eremuan euskara gailendu da. **Berria - Euskal Herria**
Nahasmenak iraun zuen bitartean, Caracasko **hedabide** ia guztiak kolpisten esku zeuden. **Txema Ramirez de la Piscina**
Ikus-entzunezko **hedabideak**, Europan. **Berria - Euskal Herria**
Euskarazko **hedabideen** alorrean dauden gabezia ugariak. **Berria - Harian**
Ikus-entzunezko **hedabideen** eta masa mobilizazio erraldoiaren laguntza. **Joxe Azurmendi**
Ahozko **hedabideetan** "euskalki jaso" edo "eskualdeko batua" erabiltzea da zentzuzkoa. **Koldo Zuazo**
Idatzizko **hedabideetan** ere horixe berori da, azken baten, aukera. **Koldo Zuazo**
Egungo gizartearen **hedabideetan**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Europako **hedabideetako** editorialgileak. **Berria - Harian**
Euskarazko **Hedabideen** Ikerketa Zentroa. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hedabide -sarea. **Txema Ramirez de la Piscina**
Vocento **hedabide** taldea. **Berria - Ekonomia**
Informazio eta **Hedabide** Teknologia. **Herria**
Ingeleseko RP (received pronunciation) eta BBC **hedabide** -arua, estilo jakin bateko erreferentzi eredu direnak ingeles britainiarrean. **Lourdes Oñederra**
Moktada al Sadr buruzagi xiita erradikalaren **hedabide** arduradunak hauxe zehaztu zuen atzo plazaratutako agiri batean: [...].
Aitor Zuberogoiia Topaguneko **Hedabide** Saileko sustatzaileak. **Berria - Euskal Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eliteak masa-**hedabideak** nola kontrolatzen dituen azaltzeko. **Txema Ramirez de la Piscina**
Oso tresna egokiak dira, izan, herri **hedabideak** euskararen osasunerako. **Koldo Zuazo**
Zenbait informazio **hedabide** (*The Wall Street Journal*, *Financial Times* eta *The Economist*, besteak beste). **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina hedabide (3); **beste hedabide** (7); **da hedabide** (7); **den hedabide** (4); **dio hedabide** (6); **dio hedabide honi** (5); **dira hedabide** (4); **du hedabide** (3); **dute hedabide** (5); **espainiako hedabide** (4); **eta hedabide** (25); **euskarazko hedabide** (6); **euskarazko hedabide idatzietako** (3); **gora hedabide** (3); **hainbat hedabide** (4)
hedabide askok (6); **hedabide askotan** (3); **hedabide bat** (8); **hedabide batean** (4); **hedabide batek** (4); **hedabide bati** (7); **hedabide batzuek** (10); **hedabide batzuetan** (3); **hedabide batzuk** (4); **hedabide eta** (18); **hedabide gehienak** (4); **hedabide gehienek** (7); **hedabide gehienetan** (3); **hedabide guztiak** (7); **hedabide handiek** (5); **hedabide honek** (11); **hedabide honek jakin** (4); **hedabide honi** (21); **hedabide horiek** (3); **hedabide horien** (4); **hedabide horietan** (4); **hedabide horrek** (8); **hedabide horren** (4); **hedabide idatzietako** (3); **hedabide idatzietako eragileek** (3); **hedabide publikoak** (3); **hedabide publikoek** (3); **hedabide publikoen** (3); **hedabide publikoetan** (4); **hedabide sarea** (3); **hedabide txiki eta** (3); **hedabide ugarik** (3)
sei hedabide (3); **zenbait hedabide** (3); **zuen hedabide** (10); **zuen hedabide batek** (3); **zuten hedabide** (5)
bertako hedabideak (14); **dira hedabideak** (3); **entzunezko hedabideak** (5); **eta hedabideak** (11); **euskarazko hedabideak** (16)
hedabideak dira (5); **hedabideak ekt** (3); **hedabideak enpresa** (4); **hedabideak erabiltzen** (3); **hedabideak ere** (3); **hedabideak eta** (10); **hedabideak ez** (5)
herri hedabideak (7); **ikus entzunezko hedabideak** (5); **masa hedabideak** (4)
atzo hedabideei (3); **die hedabideei** (4); **eta hedabideei** (11); **euskarazko hedabideei** (3); **hedabidearen arabera** (3); **hedabideei eta** (3); **zien hedabideei** (4); **zieten hedabideei** (4)
dute hedabideek (7); **eta hedabideek** (19); **euskarazko hedabideek** (8); **frantziako hedabideek** (4); **gure hedabideek** (3); **hedabideek azken** (3); **hedabideek duten** (5); **hedabideek eta** (10); **hedabideek ez** (10); **hedabideek ez dituzte** (4); **masa hedabideek** (4); **zuten hedabideek** (4)
hedabideekin hitz (3)
agertu zen hedabideen (6); **agertu ziren hedabideen** (3); **atzo hedabideen** (9); **atzo hedabideen aurrean** (7); **da hedabideen** (5); **dauden hedabideen** (3); **du hedabideen** (7); **entzunezko hedabideen** (3); **eta hedabideen** (31); **eta hedabideen aurrean** (3); **eta hedabideen bidez** (3); **euskarazko hedabideen** (14); **frantziako hedabideen** (3)
hedabideen alorrean (4); **hedabideen arabera** (5); **hedabideen artean** (6); **hedabideen artean** (9); **hedabideen arteko** (3); **hedabideen aurrean** (125); **hedabideen aurrean** (9); **hedabideen aurrean egindako** (4); **hedabideen aurrean eginiko** (9); **hedabideen aurrean ez** (3); **hedabideen aurrean hitz** (6); **hedabideen aurrean mintzatu** (3); **hedabideen aurreko** (3); **hedabideen aurrera** (8); **hedabideen bidez** (12); **hedabideen bitartez** (15); **hedabideen diru** (3); **hedabideen eragina** (6); **hedabideen esparruan** (3); **hedabideen eta** (7); **hedabideen inguruko** (3); **hedabideen jabeak** (3); **hedabideen lana** (3)
ikus entzunezko hedabideen (3); **masa hedabideen** (5); **otegik hedabideen aurrean** (3); **zen hedabideen** (12); **zen hedabideen aurrean** (8); **ziren atzo hedabideen** (3); **ziren hedabideen** (6); **ziren hedabideen aurrean** (3); **zuen hedabideen** (6); **zuen hedabideen aurrean** (5); **zuten hedabideen** (5); **zuten hedabideen aurrean** (4)
eta hedabideetako (7); **hedabideetako azpi** (3)
bertako hedabideetan (3); **da hedabideetan** (4); **dira hedabideetan** (4); **du hedabideetan** (3); **dute hedabideetan** (3); **espainiako hedabideetan** (4); **eta hedabideetan** (13); **euskal hedabideetan** (3)
hedabideetan agertutako (3); **hedabideetan azaldu** (6); **hedabideetan ere** (5); **hedabideetan eta** (9); **hedabideetan ez** (4); **hedabideetan gure** (3); **hedabideetan ikusi** (4); **hedabideetan izan** (3); **hedabideetan oihartzun** (4); **hedabideetan zabaltzen** (4)
idatzizko hedabideetan (3)
eta hedabideetara (3); **eta hedabideetatik** (3); **hedabideetara bidalitako** (6); **hedabideetara igorritako** (17); **hedabideetara igorritako prentsa** (12); **hedabideetara zabaldu** (3); **zuen hedabideetara** (3)
atzo hainbat hedabidek (3); **dute hainbat hedabidek** (3); **hainbat hedabidek** (26); **hainbat hedabidek eta** (4); **zenbait hedabidek** (18); **zuten hainbat hedabidek** (3)
hainbat hedabideren (6)
hainbat hedabidetan (9); **hainbat hedabidetan agertu** (3); **hedabidetan agertu** (3); **zenbait hedabidetan** (5)

hedadura (ETCn 3.614 agerraldi) 1 iz zerbaitek betetzen duen bitartea. ik eremu.

Mila eta zazpiehun bat verstako **hedadura** batean. **Karlos Zabala**
Ohe zabalegiaren **hedaduran**. **Itxaro Borda**
Hedaturaz Herbehereak, Suitza eta Danimarka baino handiagoa izan arren, soilik 1,4 milioi bitzitanle ditu Estoniak. **Berria - Mundua**
Ezker eta eskuin, landa kaskamotzen zerumugarainoko **hedaduran**. **Piarres Aintziart**

Edozein gisaz, eremuaren formak eta **hedadurak** eragina daukate gure sentimenduen sorkuntzan. **Piarres Aintziart**

Inperio hura indarrean zegoen, eta bere **hedadurarik** handienara iritsia zen. **Iñaki Iñurrieta**

La Réunion ugartearen bezala xoratuak egonak gira kreoleraren **hedadura** ikusiz, konparatuz gure mintzaira guttitiuak gure lurraldeetan gaindi nola ahulduak diren. **Herria**

Hitzen bizitasuna, **hedadura** eta literatura egin duten ibilia. **Koldo Zuazo**

Gutxienez 800 bertso lerrotako **hedadura** duten olerki lanentzat. **Berria - Kultura**

Lanaren **hedadura** eta epeak. **Askoren artean**

Hiesaren **hedadura** mugatzeko. **Berria - Harian**

Zure bihotzari dagokio mendeku horren **hedadura** estimatzea. **Jon Muñoz**

Nazioarteko finantza- mugimenduen **hedadura**. **Koro Navarro**

Artearen alorraren **hedadura**, mugak eta definizioa. **Josu Zabaleta**

Giza ezagutzaren jatorria, ziurtasuna eta **hedadura** ikertzen. **Askoren artean**

Lanaren banaketaren muga merkatuen **hedaduran** dago. **Koro Navarro**

Denek ere hau zioten kausitzen eta miresten, bere izpiritu zabalaren aberastasuna, haren **hedaduran** baitzen zernahi jende motaren lekua. *ik beherago* 4. **Herria**

Eta lana aurrera zihonan ber, prestatzailea ohartu zen obra berria eskuetatik irteten ari zitzaiola, **hedaduraz**, luze-laburrez eta informazioaren ugaritasunaz lehengoa baino handiagoa. **Berria - Harian**

Juanberinga deitzen diote lastozko mamutxar folkloriko bati, eta **hedaduraz**, baita bezelomorro edo kokojende zarpail orori ere. **Patziku Perurena**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hedadura handiko eremu batera jo bezain laster. **Isabel Arrigain**

Hedadura handiko egunkari batek. **Migel Angel Mintegi**

Hedadura handi batean. **Patxi Zubizarreta**

Hedadura lau eta grisetan ez zen bizitza-aztarnarik ikusten. **Hedadura** etengabea. **Agustin Otsola**

Estensio, eremu edo **hedadura** huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste tasunik. **Iñaki Segurola**

Plazaren **hedadura** zabala. **Piarres Aintziart**

Eraketa-arauek euren **hedadura** zabalenean lanean jartzen dituzten enuntziatuak. **Xabier Arregi**

Gauzak funts horretan joan balira, zer **hedadura** gaitza ez zuen hemen berean ukanen Orriak? **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Berdin da zer **hedadura** metaforiko atxikitzen zaion. **Xabier Arregi**

Espazioan (**hedadura** sarrezinean). **Ibon Uribarri**

Urezko **hedadura** mugagabe bat zabaltzen zen Mikel Strogoffen oinetan. **Karlos Zabala**

3 (testuinguru teknikoagoetan)

Hedadura hori dimentsio bakar batean da neurgarria: lerro zuzen bat da, hain zuzen. **Isabel Arrigain**

Forma, **hedadura** eta mugimendua, besteak beste, propietate lehenak dira. **Askoren artean**

Estatuen izenek -kartografia politikoaren izenek oro har- ez dute, bistan denez, intensionik, ez diote ezer eta ez dute beren baitan funtsik, izaterik edo zertasunik; estensio, eremu edo **hedadura** huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste tasunik. **Iñaki Segurola**

Hedadura Jainkoaren atributua da edo, bestela errateko, Jainkoa gauza hedatua da. **Piarres Xarriton**

Hedaduraren Matematika (Geometria). **Ibon Uribarri**

Bi adierazpen predikatibo horiek unibertsal desberdinak adierazten dituzte, nahiz eta **hedadura** bera izan. **Askoren artean**

4 ipar adimena, adimenaren irispidea.

Apez suharra, idazle fina, **hedadura** handiko gizona. **Herria**

Gizon kartsua eta argia, **hedadura** handikoa. **Herria**

Biziki **hedadura** zabaleko gizona. **Herria**

Hau politikari ezagutua da segur, iduriz **hedadura** handia baduena, bainan erroak untsa nekez egiten ditu Parisen... **Herria**

Egia erran, Piarres Lafitte hain **hedadura** handiko gizona ginuen nun ez baitziren orobat denak xeheki erraiten ahal izan egun berean, besterik ere baitzen kondatzeko. **Herria**

Bazuela Lafittek beste **hedadurarik** oraino: etzena ordukotz ari bere lan ixiletan Lafitte semenarioko eskola klasen gainera eta bazterretik: euskal gramatika hura, eta orain abertzaletasuna deitzen dugunaren maileko guziak, hegoaldeko Aitzol eta beste ainitzekin zituen harremanak bestalde. **Herria**

Beste emazteño bat, hau ere **hedadura** handikoa, Miren Azkarate donostiarra. **Herria**

Hautetsi bezala ere **hedadura** handiko gizona agertu zen. **Herria**

Beste **hedadura** bat hartu zuen oraino heletar pentsalari horrek Lafittek, Euskal Herriaren aberastasunak eta beharrak barnatuz aintzina. **Herria**

Bere kargua halako **hedadura** batekin bete duela denbora guzian. **Herria**

5 (hitz elkartuetan)

Ezaugarri horren **hedadura** eremua. **Isabel Arrigain**

· Begiak itsutzen zizkidan ur **hedadura** hura [...] Danubioa zen jadanik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Estepa **hedadura** neurrigabe hura, mendebaldetik ekialdera ehun eta hamalau gradu baino gehiago hartzen dituena. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere hedadura (3); **duen hedadura** (3); **edo hedadura** (3); **ere hedadura** (3); **eta hedadura** (15); **euren hedadura** (3); **hain hedadura** (3); **halako hedadura** (3); **haren hedadura** (3)

hedadura bat (4); **hedadura eta** (12); **hedadura handia** (3); **hedadura handiko** (17); **hedadura handiko gizona** (7); **hedadura handikoa** (7); **hedadura hori** (3); **hedadura zabala** (3); **hedadura zabalagoa** (3)

horren hedadura (5); **nahiz eta hedadura** (3); **zer hedadura** (4)

hedaduraren eta (3)

hedagailu iz hedatzeko gailua.

Masaje saioaren bat izango zen dendaren atzealdean, urre koloreko sofaz, sexu ahala indartzeko luxuzko tresnaz eta intsentsu afrodisiakoaren **hedagailuz** hornituriko areto ederrean. **Joxan Elosetegi**

hedagune iz zabalgunea.

Hantxe, miratoki baten **hedaguneko** espaloian ikusi zuen aita. **Josu Landa**

St Bernard gunean uholde irriskuak badirela, baina bereziki Aturri bazterra izanki hor ezin eraikia izanen dela, eremuak uholdetako **hedagune** atxiki beharko direla. **Herria**

hedailo izond ipar ahuspez luze-luze.

Nako hatsanka zebilen, **hedailo**. **Itxaro Borda**
Liburu, gaurkoan, lurrean **hedailo** zeukan, laguntza gutxiko. **Itxaro Borda**
Pentzean **hedailo** erortzen da. **Itxaro Borda**
Hor, lagunez osatu borobilaren erdian, konorterik gabe zetzan Yves, **hedailo**. **Itxaro Borda**

hedaketa iz hedatzea.

Eragin handia izan zuen Ordenaren **hedaketan**. **Askoren artean**
Horren emaitzak baliatzen ditu Nazio Batuen Erakundeak su armen **hedaketa** murrizteko daraman egitarauaren aurrerapenak neurtzeko. **Berria - Mundua**
Optikaren (argi-izpien **hedaketaren** zientziaren) sortzaileetako bat ere izan zen. **Josu Zabaleta**

hedakor (ETCn 202 agerraldi) 1 izond hedatzen dena, hedatzeko joera duena. ik espansibo.

Gauza lehor eta **hedakor** bat, eta eragiten du zeure oin hotsak urrutitik datozen itxura izatea. **Anton Garikano**
Atsegin **hedakor** hura ezagutu ondoren, nire helbururik behinena ahalik eta zakilik txikiena zeukan laguna aurkitzea zen. **Aitor Arana**
Suntsitu egiten zen izate eta egite **hedakor**, bikain, ozen guztia; eta inor murriztu egiten zen, ukitu goren batekin, norbera bihurtu arte, adar formako ilunpe muin bat, besterentzat ikusiezina den zerbait. **Anton Garikano**
Hobe da haietan noizean behin pixkaren bat sinestera makurtzea, ezen ez unibertso **hedakorrean**, elektroian, kredituan edo nor bere buruagan. **Iñaki Segurola**
Bonbaren uhin **hedakorrek** kalteak eragin zituen ondoan dagoen Espainiako enbaxadan. **Berria - Mundua**

2 (ekonomian)

Bi diru politika mota aplika daitezke: **hedakorra** edo espansiboa -ekonomian batetik bestera dabilen diru kopuruaren hazkundera eta interes tasen beherakada ekartzen duena-, eta kontrakoa, murrizkorra -diru kopurua murrizten duena eta interes tasen gorakada ekartzen duena. **Iñaki Heras**
Zerga-politika **hedakorra** egitea. **Iñaki Heras**
Zergak murriztea edota aurrekontu **hedakorren** bidez gastu publikoa areagotzea. **Iñaki Heras**
Diru-baldintzak pixkanaka lasaitzeak eta aurrekontu- defizitaren eragin **hedakor** handiak jardueraren goraldi ikusgarria ekarri zuten. **Koro Navarro**
Moneta politika oso **hedakorra** da egun, bai AEBetan bai Eurogunean. **Berria - Ekonomia**
Teorian behintzat, politika **hedakorrek** inbertsioa eta kontsumoa areagotzea dute helburu. **Iñaki Heras**

hedakorki adlag era hedakorrean.

Agerpen oro **hedakorki** zein intentsiboki hartuta handitasun jarraitua bada, "aldaketa oro (gauza baten igarobidea egoera batetik bestera) jarraitua da" esakunea aise eta ebidentzia matematikoarekin frogatu ahal izango litzateke. **Ibon Uribarri**

hedakortasun iz hedakorra denaren nolakotasuna.

Estatu Batuetan, azkenik, aurrekontu-politikak **hedakortasun** pixka bat galdu zuen, baina ez barneeskariaren bolumena modu adierazgarrian moteltzeko adina. **Koro Navarro**

hedakuntza 1 iz hedatzea.

Haragiari ere Berak eman zion sorrera, edertasuna, sasoia, **hedakuntzarako** emankortasuna, gorputz-atalen eraketa, osasuna eta harmonia. **Imanol Unzurrunzaga**
Bonba atomikoaren **hedakuntza** efektuarekin batera. **Edorta Jimenez**
Unibertsitateak, azkenik, beste maila bateko lanak ere egiten ditu, bere jakintzan oinarrituz unibertsitate **hedakuntza** deitzen duguna egiten duenean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Mundu-sistema kapitalistaren **hedakuntzaren** ondorioz. **Iñaki Heras**
Nola segurta munduan, erran nahi baita herri pobrenetan ere, **hedakuntza** iraunkor bat, horra zer zen solas horien gaia. **Herria**

2 hedadura.

Fernand Braudelen iritziz olibondoaren **hedakuntza** -mugak dira Mediterraneoaren mugak. **Edorta Jimenez**

hedamen iz ipar hedadura.

Hor jasatzen du irakurleak iturri horren **hedamenetik** zerbait, gai guziak hunkituak direlarik autoreak egiten zuen bezala, gure hilen oroigarrietarik eta Heletako merkatu ala Europa gainerat. **Herria**
Ez bakarrik Erroman, Italiaren **hedamena** ere hartu du pana horrek, 57 miliun jende ilun beltzean ezarritik. **Herria**

hedapen (ETCn 7.646 agerraldi) 1 iz hedatzea, zabaltzea.

Hiru ardatz ditu proiektu horrek: transmisioa, bilketa-ikerketak eta **hedapena**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Hazkunde eta **hedapenak** bestelako ondorioak ere baditu. **Askoren artean**
Portuaren **hedapenaren** aurkakoei erantzun nahian, [...]. **Berria - Ekonomia**
Irizpide bakarria informazioaren **hedapena** bermatzea da. **Berria - Euskal Herria**
EBren bosgarren **hedapenaren** ospakizunak herenegun gauean hasi ziren Dublinen. **Berria - Mundua**
Kolonial-baliabideen ustiakarako monopolioen kontzesioa izan zen merkataritzaren **hedapenaren** bigarren eragilea. **Koro Navarro**
Kristautasunaren **hedapena** errazteko-. **Iñaki Mendiguren**
Mendebaldeko Gizartearen **hedapenak** eta Mendebaldeko kulturaren irradiazioak beste zibilizazio guztiak eta beste gizarte primitibo guztiak mundu-mailako eremu mendebaldarrera ekarri zituela. **Iñaki Mendiguren**
Ertzaintzaren **hedapena**: akordioa sinatu zuten bi gobernuak, urtarrilaren 27an. **Berria - Harian**
Gizartearen eta kontsumitzaileen arreta edo sentiberatasun areagotze horretan eragin itzela izan du GKEen eta hirugarren sektorearen **hedapenak**. **Iñaki Heras**
Teoria horien **hedapena** mitifikazio interesatua besterik ez da. **Luis Elberdin**
Lehen globalizazioa, merkataritza kapitalaren **hedapenari** dagokio, XV. mendearen inguruan hasitakoa. **Iñaki Heras**
1945 ondorengo nazioarteko finantzen **hedapenak**, alabaina, ezaugarri bereziak ditu. **Koro Navarro**
Nobel saria jasotzeak eragin handia izan zuen bere lanaren **hedapenean**. **Ibon Uribarri**

Konkurrentziako mekanismoen **hedapena** . Iñaki Heras

Konkurrentziako mekanismoen **hedapenak** bata bestearen ondoren hausten ditu gizarteratze-egitura tradizionalak. Koro Navarro

Enpresen eta etxeetako ekonomien finantzaketa beharrak Euskadiko Kutzaren **hedapena** ekarri duela aitortu zuen. Berria - Ekonomia

Azterketa-eremuaren **hedapena** . Iñaki Mendiguren

Proposizioen logikaz baliatuz, matematikan eta, **hedapenez** , beste zenbait hizkuntzatan gertatzen diren argudioak ezin adieraz ditzakegu. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hedapen handia izan dute herrialde txiroen atzerri zorra kitatzea eskatu duten mugimenduek. Iñaki Heras

Bi egunez egin dudan bidean, eta espazio hertsia batean, hoinbeste gauza ikusirik, iduritzen zait denborari **hedapen** zabal bat eman diodala, sendimenduek eta ideiek eratzten baitute egiazko denbora. Piarres Aintziart

Interneten **hedapen** masiboarekin lotzen du hori. Berria - Harian

Bertsolaritzaren **hedapen** eutsia eta orekatua lortzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Espezie honek **hedapen** geografiko zabala du. Xabier Olarra

Hainbat elikagai eta elikadura-praktikaren **hedapen** transkulturala. Edorta Agirre

Hedapen militarra militarismoaren emaitza izaten da normalean, eta hau gainbeheraren sintoma. Iñaki Mendiguren

Fenomeno hauetako bat ere -ez **hedapen** politiko eta militarra, ez teknikaren hobekuntza- ez dela benetako hazkundearen irizpide gogobetegarria. Iñaki Mendiguren

Trukeen **hedapen** espazialaren mito klasikoari, sekuentzia ia osorik alderantzizkoa kontrajartzen dio [...] Polanyik. Koro Navarro

Globalizazioaren mugagabeko **hedapenari** mugak jarri ahal zaizkio. Iñaki Heras

Mendebaldeko munduaren itsasoz gaindiko bat-bateko **hedapenean** . Iñaki Mendiguren

Aipatu dugu Mendebaldeko Zibilizazio moderno sekularren mundu-mailako **hedapenak** laster samar forma politikoa har dezakeela estatu unibertsal baten ezarpenaren bidez. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Gizartearen itsasoz gaindiko **hedapenean** Europako aitzindari mendebaldar protestante ingeles-hiztunak izan ziren txarrenak. Iñaki Mendiguren

Inoizko **hedapenik** handiena egin du erakundeak. Berria - Mundua

Telebista eta Irrati **Hedapenerako** Europako Batasuna. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Guenter Verheugen EBko **hedapen** komisarioak atzo Bruselan adierazi zuenez, [...]. Berria - Mundua

Kulturgintza honen **hedapen** bideak jorratzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hedapen Prozesua: 2005ean bulegoa irekiko dute Biarnoko Pauen. Berria - Ekonomia

Dinamismoa, **hedapen** -indarra, berrikuntzarako eta egoera berrietara egokitzeo ahalmena. Koro Navarro

Haiek **hedapen** gaitasunari dagokionez gu baino kultura indartsuagoak izan arren. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1997: EBk **hedapen** negoziazioak hasi zituen Esloveniarekin. Berria - Mundua

Lehenengoak, azalpen-judizioak, bigarrenak, **hedapen** -judizioak dei daitezke. Ibon Uribarri

Ahotsaren goranzko **hedapen** -propietatei buruzko ikerketak. Santiago Iruretagoiena

Hedapen -irrika Espekulatiboaren ateraldietan gustura zedarritzatzen uzten ez den arrazoimena. Ibon Uribarri

Marxek ideologia ekonomikoa bere indar eta **hedapen** puntu gorenera eraman zuen, bere une gorenera. Iñaki Heras

Funtsezko desberdintasun bat dago oraindik ere kapitalismoaren **hedapen** -guneen eta harrera-guneen artean. Koro Navarro

Hizkuntzaren **hedapen** -eremuak. Edorta Jimenez

Gizabanako, lan, adigai, edo teoria modura definitzen diren batasunak uztartzen ditu urrunetik eta denboraren barrera **hedapen** -ingurune batez baliatuko balitz bezala. Xabier Arregi

Sistema ekonomiko kapitalistaren **hedapen** eta nazioarteratze-prozesuan kokatzen da globalizazioa. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenari dagokionez, denbora denbora-ilara gisa kontsideratzen da, bigarrenari dagokionez, denbora-**hedapen** gisa. Ibon Uribarri

Kultur **Hedapenerako** eta Proiekzio Unibertsitariako errektoreordea. Berria - Euskal Herria

Mendebaldeko industri **hedapenaren** prozesu nahasi baina ezaguna. Iñaki Mendiguren

Manufaktura-lanaren, merkataritzaren eta kolonia-**hedapenaren** apologia ziren doktrina honen gai nagusiak. Koro Navarro

5 hedapenezko izlag

Apriorizko ezagutza espekulatiboaren azken asmo osoa halako oinarri-esakune sintetikoetan, h[au] d[á], **hedapenezko** oinarri-esakuneetan funtsatzen da. Ibon Uribarri

Kapitalismoa nazioartera zabaltzea, historiaren ikuspegitik, abiaburua Europan duen **hedapenezko** ibilbide zentrifugoa bada ere, ezin uler daiteke baldin aldi berean ez bada kontuan hartzen gizarteek kapitalismo hori bereganatzeko izan dezaketen ahalmena. Koro Navarro

Txinak, baina baita Birmaniak ere, Siamek, Vietnamek, eta, neurri txikiagoan, Koreak, XVIII. mendean, oparotasunezko aldi bat bizi izan zuten, eta, zenbaitetan, **hedapenezkoa** . Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere hedapen (13); **bere hedapen handienean** (3); **bere hedapen osoan** (4); **ebko hedapen komisarioak** (4); **eta hedapen** (10); **hedapen ahalbait** (4)

hedapen eta (7); **hedapen gisa** (3); **hedapen handia** (5); **hedapen handiena** (4); **hedapen handienean** (4); **hedapen horrek** (4); **hedapen komisarioak** (7); **hedapen osoan** (7)

batasunaren hedapena (5); **ebren hedapena** (8); **eta hedapena** (16); **europako batasunaren hedapena** (5); **euskararen hedapena** (3); **ezagutzaren hedapena** (3)

hedapena eta (16); **hedapena eta mugak** (3)

eta hedapenak (5); **eta hedapenaren** (4); **hedapenak eta** (3); **hedapenaren eta** (3); **hedapenari buruz** (4); **hedapenari buruzko** (3)

hedapenean ere (3); **hedapenean sartzeko** (5); **hurrengo hedapenean** (5); **hurrengo hedapenean sartzeko** (4)

ebren hedapenerako (3); **hedapenerako komisario** (7); **hedapenerako komisario guenter** (4); **kulturaren hedapenerako** (3)

hedapenik ez (3); **inoizko hedapenik** (3)

hedarazi, hedaraz, hedarazten du ad hedatzera behartu. ik zabalarazi.

Itsasontziak marinel gutxi batzuk salbatu zituen, baina gero, belak **hedarazi** zituen eta ni uhinen menpe geratu nintzen. Patxi Zubizarreta

Kolonizazioak [...] ingurugiro desberdinetara **hedaraziko** du hizkuntza bat, eta gertakari horrek, bere aldetik, aldaketak ekarriko ditu hizkuntza horretan. Isabel Arrigain

Mikroak mandaeuliaren hegala-hotsaren antzekoa **hedarazten** du. Edorta Jimenez

Indarrez lortu dituztela, eta burdinaz **hedarazi** dutela beren erlijioa. Iñaki Iñurrieta

EHBEren ustetan, Urkijoren adierazpenen bidez «beldurra **hedarazi** nahia» dago. Berria - Euskal Herria

Hori ere ez da komeni jendetza artean **hedarazi**; aitzitik, holako lukubrazioak gizon hautei dagokie. Xabier Kintana

hedategi iz hedatzeko tokia.

Bokata horrela egin ondoan, mihiseak **hedategietan** ezartzen ziren, berdin hamabost edo hogeitatu bat, alanbre batzuetarik dilindan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hedatsu iz hedadura handikoa. ik zabal.

Zeregin biologikoari dagokionez, gorputzeko organorik **hedatsuena** da larruazala. **Irene Aldasoro**

Parterik estimagarriena piztien mendi eta oihanek betetzen dute, harkaitzek eta zingira **hedatsuek**. **Xabier Amuriza**

Nire asmoa honetan guztian, Miranderen pentsaerak ingurumari **hedatsua** izan duela erakustea baino ez da funtsean. **Joxe Azurmendi**

Honetan, zenbat eta gauza handiagoak eta **hedatsuagoak** izan, hazteari utzitakoan, hainbat eta lehenki gehiago zabalduko eta igorriko du bere baitatik. **Xabier Amuriza**

Bilboko haren diskurtsoa, boterearen diskurtso huts ausarta da: tesia, Bilbo-ko burgesiarena da, burgesia handi aberastuberri guztiarena bereziki; komunikabide **hedatsu** guzti-guztiena Bilbon bertan zein Estatuan. **Joxe Azurmendi**

hedatu (ETCn 33.172 agerraldi), heda, hedatzen 1 du ad zabaldu.

-Luxe? -galdegin zuen orduan, eri zuzena gure aldera **hedatuta**. **Aingeru Epaltza**

Heda ezazu zeure mantua zeure mirabearen gainean. **Xabier Kintana**

Sentipen gozakaitez batek estuturik, zoko batean ezkatutu, larruzko bigungarria gainean ipini, eta errezelak **hedatu** zituen. **Jose Morales**

Eguerditan bezala, mahai gainean garbi-oihala **hedatu** eta baxera gainean emaiten dut idortzen. **Filipe Bidart**

Oihala **hedatu** zuen Jessicak eta ikusi ahal izan zen Kaliforniaren kolorezko karta. **Itxaro Borda**

Margoak hartu, eta oihalean **hedatzea** besterik ez duzu potreta egiteko. **Jose Morales**

Gaitzeko sarea badu **hedatua**. **Herria**

Zuhaitz lerdin bilakatzen da, adarrak **hedatuz**, hostoei forma eta berdetasuna emanez, fruituak umotuz eta eratzuz eta, azkenik, atal guztiei antolaketa egokia eskainiz. **Imanol Unzurrunzaga**

-Stalin kamaradak Atlantikoraino **hedatuko** dik laster armada gorria, eta berdin haizatuko ditik bele katolikoak eta arrano faxistak. **Koldo Izagirre**

Iluntzean errekan **hedatzen** zituzten eta goizean goizik berriz biltzen, gordeka, ahalaz nehork ere ikusi gabe. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ibai zuloan orbelak estaltzen du zorua eta ustel usain hezea **hedatzen** du. **Pello Lizarralde**

Mendeak ez du ahaztuko nola **hedatu** zuten Estatu Batuek bere "Pax Romana" indarraren indarrak munduan zehar. **Pello Salaburu**

Jainkoaren hitza **hedatuko** duten gazte jakintsuak ere behar ditugula. **Aingeru Epaltza**

Mundu guzian **hedatzen** dute berek pairatzen duten paranoia. **Herria**

1945etik haste Tolosako irriatik **hedatzen** zituen aste oroz orkestra horren piezak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bertsotako grabazioak **hedatzen** dituzten astean behingo programak dira, bilduma komentatuak eskaintzen dituztenak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Irratian ziotenaren arabera, klonatze teknika jendeetara **hedatuko** zuten denbora labur barne. **Itxaro Borda**

• 2 da ad

Kromosoma **hedatzean** ikusten da ADNaren egitura, bi hari elkarren inguruan bilduak bezalako zerbaiten antza duena. **Pello Salaburu**

Izaera aldakorekoa zarena aurkitzen baduzu, zeure buruaz haratago **heda** zaitez. **Imanol Unzurrunzaga**

Unibertso berdin infinitua **hedatzen** baita norabide guztietarantz. **Xabier Amuriza**

Pertsiarren inperioa Indo ibairaino **hedatzen** zen. **Iñaki Iñurrieta**

Salomonen agintea Eufrates ibaitik filistearren lurralderaino eta Egiptoko mugetaraino **hedatzen** zen. **Elizen arteko biblia**

Portugesak Goa ingurueta lurraldeetara **hedatu** ziren soilki. **Gotzon Garate**

Estalpeaz haratago **hedatzen** zen paisaiara begira gelditu zen, eraikitzen ari ziren kirol zelairantz. **Bernardo Atxaga**

Metalezko ortzadar azidoa **hedatzen** zen Lutxana bien arteko ur astunetan. **Paddy Rekalde**

Badirudi ezen gorputz osoa dela arimaren egoitza, eta garuna [...] egoitza horren gelarik inportantena, nondik giharretarat eta organoetarat **hedatzen** baitira sareak osatzen dituzten hodi tipi batzuk -nerbioak-. **Joan Mari Irigoien**

Zuhaitzak zerumugaraino **hedatzen** ziren eta hango hodei apalekin nahasten. **Karlos Zabala**

Itzalak **hedatzen** diren Mordor lurraldean. **Agustin Otsoa**

Atenasen barrena **hedatua** zen izurria. **Jon Muñoz**

Min zoli batek sorbalda eta besoa hartu zizkion eta burura **hedatu** zitzaion, zorabiatu arte. **Joanes Urkixo**

Gero, isilunea **hedatu** zen, ikusle zeuden gizon-emakumeen harridurarekin batera. **Felipe Juaristi**

Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkitua baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago **hedatuak** daudenak. **Koldo Zuazo**

Arras laster **hedatu** ziren berriak eta, Londresen, Berlinen, Erroman, Parisen eta Ameriketako jakin zen makur izigarri hura. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Berehalaxe kolpe zeken baten durundia **hedatu** zen. **Karlos Zabala**

Ilunabarrean deiadarra **hedatu** zen gudu-zelaietan: "Nor bere hirira! **Berria - Ekonomia**

Horrela baitira gure zalantzak adimenaren azken baztereraino **hedatzen**. **Piarres Xarriton**

Judizio analitikoaren bitartez gure ezagutza ez dela batere **hedatzen**. **Ibon Uribarri**

Ideiak **hedatzen** diren heinean, are sinpleagoak bilakatzen dira, denborarekin ezaguera publikoaren parte bilakatzen diren arte. **Iñaki Heras**

XIX. mendearen amaieran **hedatu** eta indartu zen joera hau. **Koldo Zuazo**

3 (era burutua izenondo gisa)

Aitak baserri aberats eta **hedatuaren** ondorengo izendatu zuen Andde, nekazari eskolako BTS diploma erdietsi bezain laster. **Itxaro Borda**

Jauntasun osoaren pisua gutxitu zuten; inperio **hedatuegietan** mugak ezarri zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Ikuspegi **hedatua** da hau, globalizazioari buruzko hausnarketan ere ikusi genuenez. **Iñaki Heras**

Pentsa genezake Chaucer-ek onetsiko zukeela termino honen erabilera **hedatua**. **Iñaki Mendiguren**

AEBetan bizi diren milioi eta erdi kubatarren artean dirua bidaltzeko biderik **hedatuena** eskudirua delako. **Berria - Mundua**

Hizkuntzako osagaririk **hedatuena**, euskaldun denok edo gehienok ezagutzen ditugunak. **Koldo Zuazo**

Sintesi hau berriro agregazioa eta koalizioarenean bana daiteke, lehena, handitasun **hedatu** doakia, bigarrena, handitasun intentsibo. **Ibon Uribarri**

Espazioaren errealtate propioa onartzen duen heinean bertako zerizan **hedatu** izatea ukatzen duen idealismoa. **Ibon Uribarri**

hedatuki¹ adlag hedaturaz.

Eta, baldin gauzak hala badira, eta hala dira, zer hobeki osaba Joanikotez **hedatuki** eleztatzea baino? **Joan Mari Irigoien**

hedatuki² iz (Kanten filosofian)

Izadiaren objektuetatik (**hedatukia**) ez sentsuak ezta irudimenak ere inoiz *in concreto* aurkeztu ezin ditzakeen haietara igarotzea (bakunkia). **Ibon Uribarri**

Bere substratua aipa daitekeen ezein predikaturen bitartez ez da ezagutzen; eta beraz, bere baitan bakuna dela suposa dezaket, nahiz eta gure sentsuak afektatzeko duen erak gugan **hedatukiaren**, eta beraz, elkartukiaren begiespena sortu. **Ibon Uribarri**

Hedatukiaren deskonposaketan ematen den itzulera. **Ibon Uribarri**

hedatzaile *(orobat hedatzale g.er.)* 1 izond hedatzen duena.

Helenismo **hedatzailearen** erronka gehiegizkoa gertatu zen zeltentzat. **Iñaki Mendiguren**

Azken batean, zelan operatzen du zientzian indukzio **hedatzaileak**? **Askoren artean**

Matematikatik osorik bakartzen da, inolaz ere ez ditu eskaintzen gainera honek bezain ikuskera **hedatzaileak**. **Ibon Uribarri**

Auzitegirat deituak ziren zortzi presuna, girixtinoak, beren fedearen **hedatzale** izan zirelaketoz. **Herria**

2 (izen gisa)

Bien bitartean, liburu honen kontua zipitzik inporta ez zaien bitartekariak: argitaleetxeak, **hedatzaileak**, liburudendek, eta antzekoek, ale bakoitzeko beren diru puska aterako dizute. **Patziku Perurena**

Ipar Euskal Herriari dagokionez, filmak bai, baina ekoizleak aurkitzea dela zaila agerian jarri zuten, **hedatzaileak** aurkitzea beharrezkoa delako, eta horiek Parisen direla, ezin hunkiak. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Beste batzuetan, berriz, [pretsa] gezur **hedatzaile** huts izan da. **Iñigo Aranbarri**

Irri **hedatzaile**, denbora berean antzerkilari, hau dugu Pantzo Hirigaray Irulegi irratiko langile ezaguna. **Herria**

Oraino aipatzen ahal genituzke Dornier eta Messerschmitt aireko motak, denak herio **hedatzaile** izigarriak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

hedatzale ik hedatzaile.

hedatze 1 iz zabaltzea.

Hedatze eta ondorengo erretiratze honen kausak aztertzen dira. **Iñaki Mendiguren**

Haren behaketek erakutsi zuten unibertsoa hedatzen ari dela (joan den hamarkadan ikasi genuen **hedatze** hori azeleratua dela). **Berria - Gaiak**

Egin diren lanak aipatuak dira eta diru gora beherak alabainan, bai eta aurtengo egitasmoak: ur zikinen biltzeko sarearen **hedatze** bide berritze eta herriko gelen hobetze.

Herria

Estatuko Portuen agintaritzak maiatzean edo ekainean jakinaraziko du bere iritzia portuaren **hedatzearen** aurreproiektuari buruz. **Berria - Ekonomia**

Ezagutza enpirikoaren gehikuntza oro eta hautemapenaren aurrerapen bakoitza barneko sentsuaren determinazioaren **hedatze** bat besterik ez dira. **Ibon Uribarri**

Hego Amerikako soja ekoizpenaren **hedatzearen** *ikuspegi bi* izenburuko txostenean. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erdi Aroko **hedatze** -gera horien norabide orokorraren ideiaen bat ematea. **Iñaki Mendiguren**

Egoera horrek **hedatze** -eztanda gaitz bat eragin bide zuen: *big bang* delakoa, hain zuzen. **Juan Garzia**

Izurriaren **hedatze** abiadura moteltzen ez bada, [...]. **Berria - Gaiak**

Idazleak sortu egin behar du eta beste profesional batzuek egin behar dute idazle horren sormen lanaren zabaltze eta **hedatze** lana. **Ana Urkiza**

Alfa mugimendua **hedatze** - edo uzkurtze-mugimendu bat da (leku berean gertatzen diren baina tamaina desberdina duten bi bi distiraldi dituen). **Josu Zabaleta**

hedatzealdi iz hedatzeko aldia.

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadea **hedatzealdian** sartu zen hamaikagarren mendean, eta ondoren bi mende geroago kolapso eta erretiroaldian muga batzuetan, baina ez beste batzuetan. **Iñaki Mendiguren**

hede 1 iz uhala.

Oihal beltz handian bilduta eta **hedeekin** lotuta. **Agustin Otxoa**

Bi lekaio, **hedeak** eta botoiak zilar huts, beren sillatik jaiki ziren. **Matias Múgica**

Azaldu ziren Falangoak, botek eta **hedeek** distira beltz. **Koldo Izagirre**

Hedeetako urreak eta zilarrak txinparten moduko distira egiten zuten. **Fernando Rey**

Puska batekoa banintz bezala biratzen naiz eta, **hedeak** estutzeko edo itxi nahi ez duten itxiturei tira egiteko makurtzen baldin banaiz, juntura guztiak hasten zaizkit oihuka.

Josu Zabaleta

Abereek ere, bakoitzak karga berdina eramaten dute, uzartaria ondo lotua dagoenean uztar-**hedeak** erdian hartuz. **Santiago Iruretagoiena**

Pistola eroatearren erabilitako narruzko **hedeak** antzematen zitzaizkion besape-sorbaldetan. **Josu Landa**

Fusilaren **hede**a aske zeukan bizkarretik zintzilik. **Josu Zabaleta**

Bi zakur amorratuak **hedeetatik** eutsiz. **Harkaitz Cano**

Naturak **hedeak** lasaitu bezain laster, gizakiak gaiztoa den guztirako isuria duenez, bekatu-mugan aurkituko litzateke. **Joan Mari Lekuona**

2 (zaldiak-eta gidatzeko erabiltzen direnak)

Zaldien lepokoak zarrastaturik zeuden eta **hedeak** sokazkoak ziren. zaldi eder bat agertzen da, uhal-**hede**en dizdizarekin ilunpea argitzen duena. **Jose Morales**

Gizonak **hedeak** tinkatzen, zelak gainbegiratzen eta animaliak laztantzen ari ziren. **Agustin Otxoa**

Hedeei eragin, eta garrasika hasi zitzaion troikari. **Jose Morales**

Kotzezain berritsuaren eskuek zabarki eusten zieten **hede**ei. **Jose Morales**

Laster seneratu ziren, konturaturik gehiegi lasaitu zituztela irudimenaren **hedeak** eta errealtatea bestelakoa zela. **Jose Morales**

Jaso egiten dut, zaldia bezala, **hedeetatik** gogor tira eginetz. **Josu Zabaleta**

hedebeltz iz *(hitz jokoa; cf hedexuri).*

Tripako gantzagatik atorra horailak leher zorian, besoak V moldean airean altxatuz, ezagunak txukunki agurtuz, suprefeta eta **hedebeltzen** buruak Joanesen omenaldian zirelako paradaz baliatuz. **Itxaro Borda**

Hedebeltzak ibili dira hemen gairdi, eta Douarnenezko andere komisario bat jinarazi dute "delinkuentearen" harrapatzeko. **Itxaro Borda**

heder iz [hebreerazko hitza] gela.

Goizetan eta arratsaldeetan, mutikoak **hederrera** eraman eta **hederretik** ekartzen zituen. **Koro Navarro**

Hederreko ume bat bezain uzkur sentitzen zen. **Koro Navarro**

hedetxo *iz hede txikia.*

Ez nekien nola lotu zakurrei **hedetxo** haiek guztiak. Josu Zabaleta

hedexuri *(ETCn 45 agerraldi; orobat hede xuri ETCn 6 agerraldi) iz jendarmea.*

Itzuli ginelarik, **hedexuriak** ikusi genituen. Koldo Izagirre

Zibilezko **hedexuri** batek kezka agertu zuen. Itxaro Borda

Hedexuri buruzagiak manuak txanpatzen zituen. Itxaro Borda

Egun ederrik jastatuko zinuere **hedexuri** edo mugazain horietan sartu bazine. Herria

Joan den astean Marokako gobernuak harat igorri ditu zonbait **hede** xuri ugarte hortaz jabetzeko bezala. Herria

hedoi 1 *iz ipar hodeia.*

Hedoi beltzez azpaturiko zerura begira. Itxaro Borda

Hedoi gabeko zero garbi batean, iguzkia irriz. Herria

Hedoi artetik edo **hedoi**en gibelean iduzkia beti hor dela. Herria

Euriz kargatutako **hedoi** bat. Itxaro Borda

Zeru zolan zebiltzan **hedoi**ek zer ekarriko zuten. Itxaro Borda

Hedoien ibilbideari behatzen eta airearen usaintzen ohitu marinelen arabera. Elena Touyarou

Itsasoa hain da handi leku horietan non **hedoi**tarik dilindan dela duen iduri. Aurelia Arkotxa

Hedoien eta euri uholdeen haria marrazten jarraituko dut, zuretzat. Itxaro Borda

Soa zuhaitzen puntan daukat, ez baldin badut **hedoi**etan galdua. Piarres Aintziart

Azken denboretan **hedoi** batean bizi zen Graxi. Itxaro Borda

Nahiz ez diren **hedoi** gabeak bi herri horien haremanak, arras goxoki iragan dira bi herri gizonen arteko solasak. Herria

Zer dira edari zital urrina dakarten **hedoi** dorpe hauek? Itxaro Borda

2 irud

Hunen otoitza ez da zeruratu bainan galdu bai urgulu zozo horren **hedoi**etan. Herria

Amerikanoek ekarri DDT **hedoi**en pean. Marzel Etxehandi

3 (hitz elkartuetan)

Baigorri guzia **hedoi**-itsasopean. Herria

Inguru guzian, **hedoi** itsasotik burua ateratzen, mendi gatea, Nafarroako mendiak, [...] Xuberokoak, haratagokoak. Herria

hedoitsu *izond ipar hedoiz betea.*

Aroa izanagatik fresko eta **hedoitsua**, jendea ez da lotsatu bisita baten egiteko. Herria

Aro ezti **hedoitsua**, zorigaitzez sobera euririk gabea. Herria

hedoniko *izond hedonismoari dagokiona.*

Ikuslearen esperientziaren eta jardueraren balio **hedonikoan**. Josu Zabaleta

Irdiari dagozkion balio **hedonikoak** aztertzen dituzten teoria estetikoek atseginaren iturburua pertzepzioan berean kokatzeko joera dutela. Josu Zabaleta

hedonismo *iz ongia eta sentsuen atsegina bat egiten dituen doktrina etikoa.*

Nahiko nuke, orduko nire **hedonismo** haren puska handixeago bat gorde izan banu. **Hedonismoan** oinarrituriko sistema eraiki dugu. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikuspegi horretatik, utilitarismoa **hedonismo**-mota bat da (plazera hobesten duen kontzepzio moral). Askoren artean

hedonista *izond hedonismoari dagokiona.*

Kristauak epe luzeko **hedonistak** zirela, epikureo hutsak, munduko plazerrei uko egiten zietenak gero paradisu askoz atsegingarriagoa eskuratze aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

Une historikoak desberdinak izaten dira, ziklo **hedonistagoak** eta errepresiboagoak daude. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

hegabianatu, hegabana, hegabanatzen du *ad barreiatu.*

Xingolak, begiztak eta lore-sortak ageri ziren hor-hemenka soinekoetan **hegabianaturik**, anabasa zinez ikusgarrian. Jose Morales

hegabeltz *izond hego beltzak dituena.*

Harpia anker zoli **hegabeltz** hura, atzapar eta moko hotz eta gogorrekoa. Anton Garikano

Zuhaitz biluzi batean txori papagorri **hegabeltz** bat xaltoka ari zen. Pablo Sastre

hegabera¹ *iz hegazti zangaluzea, usoaren tamainakoa, zuria eta berdea, bospasei lumako gandor beltza duena (Vanellus vanellus)*

Enarak, txolarreak eta **hegabera**k daude arriskuan, besteak beste. Ibaian kulixkak entzun ditzakezu, edo koartzak, kurlinkak, **hegabera**k eta ibaiertzetako beste hegazti batzuk antzeman. futbol-zelaia orduantxe zeharkatzen ari zen **hegabera** talde bati begira. Koldo Biguri

hegabera² *izond*

hegabiraka *adlag* hegoak biratzen.

Ni neu ikusten ari naiz izaki horiek zabaldien eta hirien gainean han duten aire urre-kolorean **hegabiraka**. **Josu Zabaleta**

hegada (*ETCn 186 agerraldi*) *iz* hegaldia. ik **hegaldi**.

Gabiraiaren **hegadari** behatzen zenion, xagu eta sator bila zerutik. **Hasier Etxeberria**

Usoen **hegada** aire geldia hausten. **Juan Garzia**

Erleen **hegadari** segika. **Hasier Etxeberria**

Enaren **hegadetan** galduta begiak. **Hasier Etxeberria**

Hegada bizkorrez aitarengana itzultzen zen. **Askoren artean**

Esaten dute bi pertsonaren arteko maitasuna **hegada** laburreko txoria baizik ez dela izaten. **Hasier Etxeberria**

Aingerututa ibili naiz geroztik, ia lurrik ere ukitu gabe, zorionaren **hegadan**. **Hasier Etxeberria**

Txori berde-marroixka zuhaitz hartatik atera eta, bigarren aldiz, **hegada** arinean pasatu zen gure gainerik. **Bernardo Atxaga**

Gero, bat-batean, **hegada** astun batez, usoaren tamainako txoritzar gris bat azaldu zen zuhaitz apalen azpitik. **Josu Zabaleta**

Hiru hegaztien **hegada** alderraiak desitxuratu zuen aldian-aldian ilargiaren itxura onkotea. **Anjel Lertxundi**

Kaioen **hegada** akrobatikoez. **Joxean Agirre**

Hegada bizkor ziur baten zirrara. **Irene Aldasoro**

Hegadaren bizkorrak ahitzen eta errendatzen ninduen. **Joan Mari Irigoien**

hegadun ik **hegodun**.

hegadura *iz* kapelez mintzatuz, hegala.

Guayaquileko lastoz egindako **hegadura** zabaleko kapelez estalita. **Berria - Harian**

hegaka 1 *adlag* hegan, hegaldatzen.

Txoriak airean **hegaka** hasi ziren. **Felipe Juaristi**

Euli bat **hegaka** pasatu izan balitz. **Hasier Etxeberria**

Denbora luzean txori bat gainean **hegaka** zebilgigula konturatu nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Kulunka eta **hegaka** urrundu zen lurrazpiko ate barruan desagertu arte. **Joanes Urkixo**

Txori bat abaildu zitzaion eta, kateorratza mokoan harturik, **hegaka** alde egin zuen. **Patxi Zubizarreta**

Kolorezko zintak airean **hegaka** zitutela. **Josu Zabaleta**

Zangoek airean **hegaka** ekarria zuten. **Hasier Etxeberria**

Oilo luma arinak, urre kolorekoak, nabarrak, putz egin eta **hegaka** goratzen zirenak. **Karlos Zabala**

Azkeneko neskatila bakanak, beren gona hegalarrietan lasterka, eta beren hanka beltzaranak agerian gonak hegaldatzerakoan, beren ile beltza ere haizean **hegaka**. **Joxe Austin Arrieta**

Pentsamenduek ozeanoaz bestalderantz aldegiten zioten **hegaka**. **Bernardo Atxaga**

2 hega-hegaka

Segundo gutxitan, lurrin bihurtuta zegoen eta, hega- **hegaka**, zoruko distira zegoen aldera abiatu zen, handik aienatu zen arte. **Joanes Urkixo**

Habia gainean hega- **hegaka** / umeak bizkortzen dituen arranoa bezala. **Jose Antonio Mujika**

hegakera *iz* hegan egiteko era.

Eta asmabiderik maiteen eta fidagarriena hegaztien **hegakerari** erreparatzea iruditzen zitzaien. **Xabier Olarra**

hegakor *izond* hegaldatzeko joera duena.

Sasiak maiz ikusten baititugu haien uzkin **hegakorrez** jantzita. **Xabier Amuriza**

Hodeien gorputza ez daiteke harri eta zurena bezain trinkoa izan, ez lainoak eta ke **hegakorrak** bezain xumea. **Xabier Amuriza**

hegal (*ETCn 11.942 agerraldi*) 1 *iz* hegoa, hegan egiteko organoa.

Txoriak ezin du **hegal** bakar batez hegan egin... **Juan Kruz Igerabide**

Putrearen **hegal** zabaldu harrigarriak. **Patziku Perurena**

Bazen arrano handi bat, **hegal** tzar luzekoa, lumai trinko eta koloretsua zuena. **Elizen arteko biblia**

Itsas arrano gazte bat, **hegal** hautsia ohol batekin lotua daukana. **Oskar Arana**

Oiloak [...] tupustean **hegalak** astindu eta patiora iriteten ziren. **Juan Garzia**

Hegalei eragin, eta mokoa ireki zuen zabal-zabal Nofuturek. **Jon Muñoz**

Bere **hegal** laburrekin basoilarrak hegaldatze pisua du baina azkarra. **Michel Oronoz**

Hegal gogorreko intsektuen zirta. **Pello Lizarralde**

Hegal pare baten ordez bi zituen euli bat. **Juan Garzia**

Momentu bat eta paper tolestu horren barruko edukia ez da existitzen, zainetatik dabilkit, **hegal** artifizialak ematen dizkit basatza itsaskor honetatik alde egiteko. **Sonia Gonzalez**

2 hed

Aireplanoa **hegal** bat erdibitua eta albo horretara etzanda zegoen. **Joseba Sarrionandia**

Hegazkinaren **hegalak** ilargi-argitan diz-diz, hotz. **Joxe Austin Arrieta**

Erhizahegatzin bat metrailatu zuen gure hiriarren gainean, eta **hegal** bat kendu zion. **Fernando Rey**
Jaiki nintzen, karlinga gainetik igaro nintzen eta **hegal** gainean geratu nintzen lehendabizi. **Josu Zabaleta**
Orduan ikusi nuen, hara!, gezi baten **hegala** haren besaburuan ageri. **Aingeru Epaltza**
Hau ez duk kanoikoa, hau hegazkinek jaurtia duk, beha **hegal** hauek... **Koldo Izagirre**

3 irud

Zure etxean bizi nahi nuke betiko, zure **hegalen** aterpean gorderik. **Elizen arteko biblia**
Estal ezazu zeure mirabea **zeure** misterioaren hegalez. **Xabier Kintana**
Gauak bere **hegalekin** bildu zuen kalezuloa eta nonahi isiltasuna zen nagusi. **Patxi Zubizarreta**
Bidexketan desagertu ziren, hain laster ezen hanketan **hegalak** zituztela ematen baitzuen. **Fernando Rey**
Izpirituaren **hegal** kolpe batez O Cebreirotik Baigura kaskora airatu naiz. Buruak arrunki ezkuta zituzten *petasus* helenikoaren **hegal** zabalaren azpian. **Piarres Aintziart**
Alkoholaren **hegal** epeletan lagako du bere burua. **Sonia Gonzalez**
Ezin zituen, jakina, belarriak mugitu, entzuteko halako **hegal** itzelak dauzkaten animalien antzera. **Karlos Zabala**
Hego haizea bere **hegal** misterioitsuak astintzen hasten zen orduko. **Patziku Perurena**
Itsas zori zuriaren **hegal** zabal geldiak haizean. **Aurelia Arkotxa**
Eleberri fantastikoak idazten dituenaren **hegal** libreek. **Xabier Olarra**
Ipuinak askotan nobelaren **hegal** azpian egin behar izaten duela habia. Muslarien batasunak **hegalak** zabal ditu. **Herria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegal hots izugarria. **Karlos Zabala**
Bi **hegal** ukaldiz uste gabeko itzuli ederra egiten ahal baitute zeruko hegaztinek. **Michel Oronoz**
Hiru aldiz ukitzen du ura arrastadan, gero **hegal** -astindu bizian aldentzen da, bistatik galtzen, desagertzen. **Fernando Rey**
Oilo batzuk **hegal** -zalapartaka ari ziren karioletan. **Koldo Biguri**
· *izond* Oilanda bat bezain **hegal** -harro. **Anjel Lertxundi**
Bele handiak, miru **hegal** gorriak gure gainean zirurikan zabiltzala. **Itxaro Borda**

5 (hitz elkarutean bigarren osagai gisa)

Mitxeleta- **hegal** baten argia. **Anton Garikano**
Aingeru **hegalak** neuk izan banitu! **Edorta Jimenez**
Kerubinen **hegal** -hotsa kanpoko atariraino iristen zen. **Elizen arteko biblia**
Hegan zihoan hegadun izakien gainean, haize- **hegaletan** agertu zen. **Elizen arteko biblia**
Uretarako begilagunak eta oin- **hegalak** jantzita. **Berria - Euskal Herria**

6 arrainak eta hainbat ur animaliak igeri egiteko dituzten luzakin edo mintzetatik bakoitza.

Uretako piztietatik, **hegalak** eta ezkatatik dituzten guztiak jan ditzakezue. **Elizen arteko biblia**

7 (hegaztiarena jaki gisa)

Hegal bat ala bularki-xerra bat? **Irene Aldasoro**
Kapitainak oilaskoaren **hegal** hezurra murtzatzen zuen. **Itxaro Borda**

8 (haize errotena eta kidekoena)

Haize erroten **hegalak** egiten ditu enpresak. **Berria - Ekonomia**
Besoak haize erroten **hegalak** bezala. **Felipe Juaristi**
Bultaka hasi dira haizegailuen **hegalak**. **Patxi Iturritegi**
Haizeak errota- **hegalak** bezala. **Felipe Juaristi**
· Jarri eta bere zakutik kolorezko haizeamaile bat ateratzen zuen, idekitzen, bizpahiru **hegal** ukaldiz bisaia freskatzen. **Michel Oronoz**

9 (ertz irtena)

Txapel bikeztatu sakona, iragazgaitza, **hegal** zabalekoa. **Julen Gabiria**
Lastozko kapela baten **hegal** sendoaz. **Lopez de Arana**
Gorbata gorria eta kapelu beltz **hegal** motzekoa zeramatzan. **Felipe Juaristi**
Txima luzeak zituen [...] **hegal** altxatuko kapelua buruan. **Karlos Zabala**
Atzerantz bota zuen kapela **hegal** -zabala. **Xabier Olarra**
Lastozko kapela **hegal** -zabal handia jantzita. **Jon Maia**
Kapela beltz **hegal** luzea, maripulis beltza. **Felipe Juaristi**
Zuzendu zuen bere kapela goibela eta bihurtu zuen kapela **hegal** -gogorra. **Koro Navarro**
· Teilatuaren **hegal** zabalak babestua. **Koldo Izagirre**
Teilatu- **hegal** baten azpian. **Lopez de Arana**
Atari zabala du, teilatu- **hegal** aterea eta zenbait leiho pertsiana berdez estaliak. **Koro Navarro**
Hodia esku batez askatu eta ukondoa jarri zuen leiho- **hegalaren** gainean, jarraian hatz-kozkorrez kristala jotzeko. **Aitor Arana**
· Sudurraren **hegalak** mugitzen zitzaizkiola. **Xabier Olarra**
Hazpegi zakarrak zituen; sudur- **hegal** zabalak. **Irene Aldasoro**
Baina ileak belarria estaltzen zion eta, entzungo ez zion beldurrez, xerlo beltz kizkur haiek kontu handiz baztertu, eta belarriaren **hegal** txiki, gorri, beroa zabaldu zion. **Jose Morales**

10 (janzkietan)

Jainkoaren zerbitzaria Maddirengana zanpa-zanpa zetorren, sotanaren **hegalak** harrotuz. **Itxaro Borda**
Mantalaren **hegal** bat jaso, eta ordulari bat atera zuen galtzetako patrikaren batetik. **Anjel Lertxundi**
Lur koloreko txilabaren **hegalak** jaso. **Bernardo Atxaga**
Txabusinaren **hegalak** ireki baitzitzaizkion, ezker izterraren ikuspegi eskuzabala oparituz. **Aingeru Epaltza**
Gizon burusoil batek, zintzilik alkandoraren **hegalak**, okerreko aldera bota zuen pilota. **Koro Navarro**
Poltsikoak zulatuta zeuzkanez, alkandoraren **hegal** batean lotu zituen nickelak. **Lopez de Arana**
Kapa veneziar baten **hegalaren** gisan. **Karlos Zabala**
Geltokiko buruak kontu handiz atorraren mahukak eta **hegalak** armairuan sartu zituen. **Fernando Rey**
Hegal zabaleko gona. **Felipe Juaristi**
Oinetakoak erantzi eta korrika igaro zuen ibaiko putzua, gona- **hegal** handia ziprztinduz. **Felipe Juaristi**
Gona- **hegala** airean erabiliz euritakoa balitz bezala. **Felipe Juaristi**
Longain higituaren papar **hegalak** zeharo irekiak zeramatzan. **Karlos Zabala**
Jakaren papar- **hegalak** goratu eta besoak antxumatu ditu. **Pello Lizarralde**

11 eraikin batean erdiko zati nagusitik bereizten diren alboko zatietako bakoitza.

Kasernako beste **hegal** batean. **Marzel Etzehandi**
Eraikinaren **hegal** hori. **Santiago Iruretagoiena**
Jauregiaren hegoaldeko **hegaleko** harrizko balkoien aurrean. **Xabier Olarra**
Himllerrek monjeen gelaxken erara antolatu zuen gazteluaren **hegal** hau. **Alberto Ladron Arana**
Ostatu Zaharra, urteek higaturiko harri grisezko eraikina, alboetan **hegal** bana zuena. **Agustin Otsoa**
Hegal berria, emaztearekin bizi izan zen aldea, itxi egin zuten. **Xabier Olarra**
Hegal batetik bestera, korridore luze batek errektangulu itxura ematen zion. **Lutxo Egia**
Presondegia **hegal** batean zortzi zelda berritzen ari dituztela. **Herria**
Erdi aldeko bi **hegalek**, berriz, elkar kitzen zuten tenpluaren erdialdean. **Elizen arteko biblia**

12 mendi batean, aldatsa eta beheko aldea.

Goiz batez, mendi **hegal** batean otoiizean ari zen. **Askoren artean**
Hegal aldapatsu samarreko mendixka batean gora. **Karlos Zabala**
Mendi-**hegal** malkartsua. **Jose Morales**

13 lurraldeez edo eremuez mintzatuz, aldea.

Euskal Herria ez zela mugatzen Bidasoaz honaindiko hiru **hegal** xuhurretara. **Piarres Xarriton**
Behenafarroa Nafarroaren **hegal** bat zela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Euskal Herriko zazpi **hegalak** xarmatu dituen boza. **Herria**
Ural mendien **hegal** hartako oihan sarrietatik. **Karlos Zabala**
Alsaziako **hegala** alemanen eskuetan utzirik. **Piarres Xarriton**
Kraterraren ekialdeko **hegalaren** irudia. **Berría - Gaiak**
Hola zen otoiiz leku bilakatu Compostella eta mundu guzitik abiatu zen jendea, **hegal** guzietarik, erresuma guzietarik, arraza guzietarik. **Michel Oronoz**
Akademia sutan zegoen lau **hegaletatik**. **Aingeru Epaltza**
- Bi eszena-**hegal** eta atze-ohal bat, ate batekin, aski izango dira. **Josu Zabaleta**

14 albo, aldamera.

Irten bezain laster autoaren **hegalaren** kontra jartzeko esan dio ezkerreko goardiak. **Pello Lizarralde**
Garajetik irtetea, zutabearen kontra igurtzi ez oso nabarmen bat egin ziola autoaren **hegal** bati. **Patxi Zubizarreta**
Pentsatu zuen sagu bat bezain isilik eskalatu zuela itsasontziaren **hegala**. **Julen Gabiria**
Aurpegia aitaxi gozo batena du, bi bizar-**hegal** xuriez matelak loreztaturik. **Michel Oronoz**

15 (guda, kirol... zela batean)

Tafallan, Etxauzko bizkondeak eta Ollokiko jaunak ezker **hegala** zaintzen zioten armada nagusiari. **Aingeru Epaltza**
Ezker **hegaletik** behin eta berriro iritsi ziren Athleticeko jokalaria. **Berría - Kirola**
Hegal horretatik etorri zen Osasunaren lehen gola. **Berría - Kirola**
Baloia **hegal** batetik bestera aldatzeko. **Berría - Kirola**
Eskuineko **hegala** indartzeko jokalaria. **Berría - Kirola**
Urangak argi utzi zuen eskuin **hegala** ez dela bere tokia. **Berría - Kirola**
Eskuin **hegaleko** atzelari errioxarrak. *ik behegera* 13. **Joan Mari Irigoien**
Berriz ere **hegaletik** egin zizkieten goleko erdiraketak. **Berría - Kirola**

16 hegalean aritzen den jokalaria.

Hire aita aurrelaria zuan, ni **hegala**, besteak atzelari eta eskuineko erdilari, ez nauk gogoratzen. **Josu Zabaleta**
Athleticeko ezker **hegala** fitxatzeko interesa omen du. **Berría - Kirola**
Hala, de Villiers **hegalak** pausatu zuen baloia marraz bestalde eta laugarren entsegu egin zuen.
Rokocoko **hegalak** huts egin zuen goitik heldu zitzaion baloia ez zuelako ongi jaso. **Berría - Kirola**
Eskuin **hegal** posturako. **Berría - Kirola**
Harper Williams **hegal**-pibota eta Juan Alberto Espil dira Manresako jokalaria ezagunenak. **Berría - Kirola**

17 hegaleko izond/iz hegalean jokatzen duena.

Baskoniako **hegaleko** Andres Nocionik. **Berría - Kirola**
Athleticeko eskuin **hegalekoa** izateko maila nuela erakutsi gura nuen. **Berría - Kirola**
Hegaleko argentinarrak Baskoniarekin duen kontratua 2006. urtean amaitzen da. **Berría - Kirola**
Postua: Ezker **hegalekoa**. **Berría - Kirola**

18 hegal pibot ik pibot 2.

19 hegal utzi

Gogoetak **hegal utzi** zituen. **Alberto Barandiaren**

20 hegalak eman

Mojen errepresioak **hegalak eman** zizkion nire irudimenari. **Julen Gabiria**
Uste dut sinesteak **emaiten** dituela **hegalak** bizitzeko. **Joxe Austin Arrieta**

21 hegalak moztu

Hegalak oraino gehixago **moztu** diozka haatik [...] frantses lehen minixtroak euskal departamendu baten menturari. **Jon Muñoz**

22 hegalez hegal

Hegalez hegal jesartzen ziren biak piano aurrean. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina hegal (4); beltz hegal (3); bere hegal (9); beste hegal (3); beste hegal batean (3); bi hegal (5); eskuin hegal (4); eta hegal (20); ezker hegal (3); haren hegal (4)
hegal bat (17); hegal batean (11); hegal batek (3); hegal baten (4); hegal batetik (3); hegal bietan (3); hegal egin (6); hegal eta (8); hegal gainean (4); hegal hori (3); hegal horretan (3); hegal hotsa (3); hegal internazionalak (3); hegal pare (4); hegal pibot (19); hegal pibot argentinarrak (4); hegal pibota (17); hegal zabal (8); hegal zabal bat (5); hegal zabal (4); hegal zabalak (3); hegal zabaleko (11); hegal zabaleko kapela (3); hegal zabaleko kapelu (3)
kapela hegal (7); kapela hegal zabal (4); mendi hegal (3); teilatu hegal (6)
du ezker hegala (4); eskuin hegala (15); eskuineko hegala indartzeko (3); eta urrezko hegala (3); ezker hegala (34); ezker hegala herren (3); ezker hegala indartzeko (4)
hegala da (4); hegala ezarri (3); hegala herren (3); hegala indartzeko (7); hegala sendotzeko (3)
urrezko hegala (6); urrezko hegala ezarri (3)
baigorriko herriak hegalak (3); bi hegalak (5); erroko eta hegalak (3); erroten hegalak (4); erroten hegalak egiten (3); eta hegalak (8); ezker hegalak (3); haize erroten hegalak (4)
hegalak astinduz (5); hegalak astintzen (4); hegalak dira (3); hegalak egin (3); hegalak egiten (5); hegalak eman (3); hegalak eta (5); hegalak ezin (4); hegalak urrun (3); hegalak urrun tu (3); hegalak zabal (4); hegalak zabaldu (5); hegalak zabalik (4); hegalak zabaltzen (3); herriak hegalak (3)
herriak hegalak urrun (3); papar hegalak (8); sudur hegalak (12)
erpuria soinu hegalaren (4); ezker hegalaren (5); hegalaren azpian (4); hegalaren azpiko (3); hegalaren azpira (3); soinu hegalaren (5); soinu hegalaren azpira (3); teilatu

hegalaren (4)

da ezker hegalean (3); erdiko ezker hegalean (3); eskuin hegalean (52); eskuin hegalean jokutzen (4); eta eskuin hegalean (3); eta ezker hegalean (3); eta hegalean (3); ezker hegalean (95); ezker hegalean aritzen (4); ezker hegalean ere (3); ezker hegalean gora (3); ezker hegalean jokatu (4); ezker hegalean jokatu (3); ezker hegalean jokatzeko (5)

hegalean ariko da (3); hegalean aritu (3); hegalean aritzeko (3); hegalean aritzen (6); hegalean aritzen da (3); hegalean ere (6); hegalean eta (6); hegalean goiti (4); hegalean gora (6); hegalean gora eta (4); hegalean joka (3); hegalean joka dezake (3); hegalean jokatu (6); hegalean jokatu (5); hegalean jokatu (5); hegalean jokatzeko (8); hegalean jokatzan (7); hegalean jokatzan du (4); hegalean kokatu (3); hegalean utzitako (3)

mendiaren hegalean (3); papar hegalean (3); zuen ezker hegalean (3)

eskuin hegaleko (43); eskuin hegaleko atzelari (6); eskuin hegaleko erdilari (4); eskuin hegaleko erdilariak (3); eskuin hegaleko espainiarra (4); eta ezker hegaleko (4); eta hegaleko (3); ezker hegaleko (57); ezker hegaleko atzelari (4); ezker hegaleko atzelaria (3); ezker hegaleko atzelariak (3); ezker hegaleko elgoibartarrak (3); ezker hegaleko jokalarik (3)

hegaleko argentinarrak (6); hegaleko atzelari (11); hegaleko atzelari gisa (3); hegaleko atzelaria (5); hegaleko atzelariak (4); hegaleko bat (3); hegaleko bi (5); hegaleko elgoibartarrak (3); hegaleko erdilari (4); hegaleko erdilaria (3); hegaleko erdilariak (3); hegaleko espainiarra (5); hegaleko iruindarrak (3); hegaleko jokalarik (5); hegaleko jokalarik (3); hegaleko postua (3)

martinez eskuin hegaleko (3); portlandeko eskuin hegaleko (3)

duen ezker hegalekoa (3); eskuin hegalekoa (23); ezker hegalekoa (31); ezker hegalekoa da (3); ezker hegalekoa ere (3); hegalekoa da (5); hegalekoa ere (4); hegalekoa eta (5); hegalekoa izan (4); laugarren hegalekoa (3); rocas hegalekoa (3)

badalonako hegalekoak (3); carton eskuin hegalekoak (3); eskuin hegalekoak (12); ezker hegalekoak (20); hegalekoak baino (4); hegalekoak dira (3); hegalekoak ere (6); hegalekoak eta (5); tauko hegalekoak (3)

bi hegalekoak (3); eskuin hegalekoaren (3); eta hegalekoak (3); ezker hegalekoan (4); tauko hegalekoak (3)

bere hegalean (4); hegalean artean (3); hegalean gainean (4); hegalean itzalpean (5); zure hegalean (5); zure hegalean itzalpean (3)

eskuin hegalerako (8); eskuin hegalerako (5); ezker hegalerako (3); ezker hegalerako (9)

bere hegaletan (3); bi hegaletan (3); eta hegaletan (4); haize hegaletan (3); hegaletako bat (3); hegaletako luma (3)

hegaletan eta (4); hegaletan gora (3); hegaletan ibilia (3)

lau hegaletan (10); lau hegaletan ibilia (3); mendi hegaletan (7); munduko lau hegaletan (6); teilatu hegaletan (4)

bere hegaletik (4); eskuin hegaletik (32); eskuin hegaletik egin (3); eskuin hegaletik sartu (3); eta ezker hegaletik (4); ezker hegaletik (33); ezker hegaletik egindako (4); ezker hegaletik sartu (5); herriaren lau hegaletarat (3); lau hegaletara (4); lau hegaletarat (7); lau hegaletarik (6); munduko lau hegaletara (3); munduko lau hegaletarik (3)

hegaletik arriskua (3); hegaletik egin (6); hegaletik egindako (5); hegaletik sartu (9); hegaletik sartu zen (3); hegaletik sartu ziren (4)

bere hegalpean (5); haren hegalpean (3); hegalpean bezala (3); hegalpean hartu (3)

hegalabur iz atungorria.

Ezpata-arraina edo **hegalaburra** harrapatzen ari diren ontzien amuetan urtero kateatzen diren ehunka mila dortoka.

Berria - Gaiak

Hegalaburra, berriz, kiloko 4,65 eurotan.

Berria - Ekonomia

hegalaldi iz hegaldia.

Lantzean behin uso bat, edo kaio bat, edo hegazti handiagoren bat agertzen zen bere **hegalaldi** ikusgarriarekin zeruaren urdina erakusteko.

Joseba Sarrionandia

Hegalari batzuen distira gorriska.

Joxe Austin Arrieta

Usoen **hegalaldiak**.

Joseba Sarrionandia

Kaioen **hegalaldiak**.

Edorta Jimenez

Ez zuen **hegalaldi** egokia aukeratu San Franciscotik irten zenean.

Javi Cillero

Goiko botoiari sakatu zion, **hegalaldiko** laguntzaileei deitzeko.

Javi Cillero

Euskal dantza berpiztu, odol-berritu, **hegalaldi** berri bat emanarazteko.

Herria

hegalarazi, hegalaraz, hegalarazten du ad hegaldarazi.

Gelako bazter urrun batean zur distiratsuzko gramofono garesti baina zahar batek Bachen grina matematikoa **hegalarazten** zuen.

Alberto Ladron Arana

hegalari 1 izond hegan egiten duena.

Deabru **hegalari** haiek.

Joan Mari Irigoien

Lehoi orokari, sugegorri eta dragoi **hegalari**z josia dagoen lurralde beldurgarri eta arrisksuan barrena.

Elizen arteko biblia

Ugaztun **hegalari** bakarra izanik.

Patziku Perurena

Auto **hegalari** bat. Azkon **hegalari** bat jaurti.

Xabier Amuriza

Portugaleten ere ikasle batek plater **hegalari** bat ikusi zuen astelehenean zazpiak aldera.

Josu Landa

Eta halaxe zioen CNTren orri-ale **hegalari**ek ere.

Edorta Jimenez

Makina **hegalariak** ingeru infernutarrak dira beraientzat.

Koldo Biguri

Beren gona **hegalarietan** lasterka, eta beren hanka beltzaranak agerian gonak hegaldatzerakoan.

Joxe Austin Arrieta

Zeruko gau-zuzi deslaidak eta gar **hegalariak**.

Xabier Amuriza

Hauts lainoa eta hodei **hegalariak**.

Xabier Amuriza

Hauts maitemindu horren milaka laztan **hegalarietarik** batenbat berengana atxikitzeko irrikitan.

Patziku Perurena

Maitale arruntek izaten duten irudimen arin, **hegalari**, jainkozkoa.

Matías Múgica

OHE Objektu **Hegalari** Ezezagun bat jaso du iruditan NASA Estatu Batuetako Espazio Agentziaren Spirit zundak.

2 (izen gisa)

Dударик gabe, oso **hegalari** ona zen Cho; behin eta berriro gurutzatzen zitzaion eta Harry norabidea aldatzera behartzen zuen.

Iñaki Mendiguren

Efemeropteroak ez dira **hegalari** oso trebeak.

J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auto hegalari (3); **objektu hegalari** (3); **plater hegalari** (3); **plater hegalarien** (3)

hegaldaka (38 agerraldi, 13 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 158 agerraldi) adlag hegan eginez. ik hegalka.

Mila deabru beltz, leizean goiti **hegaldaka**..

Joan Mari Irigoien

Aingerua **hegaldaka** iragan zen.

Itxaro Borda

Hegaldaka zihonan karnaba bat akabatu zuela.

Joan Mari Irigoien

Snitcha, lurretik hurbil, hesietako baten inguruan **hegaldaka** zebilen.

Iñaki Mendiguren

Bertze zenbaitetan antxetak ikusten ditut neure parean **hegaldaka** . Koldo Izagirre
Usoak, usoak denetan, teilatu batetik bestera **hegaldaka** . Filipe Bidart

hegaldarazi, hegaldaraz, hegaldarazten (*orobat hegaltarazi g.er.*) du ad hegaldatzera behartu.

Sarrerako punteok hilerriko ainarak **hegaldarazi** zituen. Aingeru Epalza
Haize bortitz batek harat eta honat **hegaldarazten** zituela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Nola parpaillak **hegaldarazten** genituen haizearen sasoiak. Juan Garzia
Baina zertarako pentsatu, musikak **hegaldaraz** bagaitzake? Josu Zabaleta
New Yorkeko elizetako beltzek airoski **hegaldaraziriko** gospel moldean. Itxaro Borda
Apezak boz melengaz *zerua zerua sarizat*abestiaren lehen notak **hegaldarazi** zituen. Itxaro Borda
Eta laster, Cluny-ko abade handia, Odilon, kumitatürrik, Leire-ko arranotegi sakratütirik erreforma **hegaltarazi** züan Santiago-ko bidealat. Herria

hegaldari *izodn* hegalaria.

Txori **hegaldariak** ez baitira gorputzak hatsa galtzen duenean hiltzen, hegats egiteko gogoia galtzean baizik. Joseba Sarrionandia
Elefante **hegaldariak** . Javi Cillero

hegaldatu (*ETCn 1.054 agerraldi*), hegalda, hegaldatzen 1 da ad hegan egin.

Lertxunak ugari, gure tren geldoa igaro ahala saldo zuritan **hegaldatzen** zirenak. Joxe Austin Arrieta
Kaio saldo handiak **hegaldatu** ziren bat-batean labarretatik. Iñaki Iñurrieta
Zure hareen gainean belatza **hegaldatzen** denean, han dago maitasuna. Xabier Aranburu
Aireontzia **hegaldatu** zelarik bere aitaren eskua hartu zuen. Ramuntxo Etxeberri
Estreinako aldia nuen halako elurte baten erdian **hegaldatzen** nintzena. Joxe Austin Arrieta
Lisboatik Düsseldorfera **hegaldatu** nintzen. Joxe Austin Arrieta
Hegaldatzeko sekeretua ere matematikak eta filosofia naturalak argituko dute egunen batean. Joan Mari Irigoien

2 irud

Lumatxa finak **hegaldatzen** ziren, hegaztien usain sendoa hedatzen. Karlos Zabala
Ziburuko iturrian bi karabela / ontzi handiak / belak hanturik / urean **hegaldatzen** dira. Aurelia Arkotxa
Eta egonaldi motz bat egin ondoren, denok **hegaldatzen** garela beste nonbaitera. Imanol Zurutuza
Gerxeago, unibertsitateko egun aspergabeetaraino **hegaldatu** zen ustekabeen. Iñaki Segurola
Gai batetik bestera **hegaldatzen** zen. Itxaro Borda
Eguneroko bizitzatik beste mundu batera **hegaldatzeko** grina. Gotzon Garate
Denak Otsabidetik kanpo **hegaldatu** ziren, Anttoneta Parisera, Leon eta Frantxua Baionara [...] eta Mustafarekin ezkondu zen Terexa Marseillara. Itxaro Borda
Jessicaren amatxirenganako larderiak hitzak **hegaldatu** ziren. Itxaro Borda
3 **hegemoniazko** ik **hegemoniko**.

Hegemoniazko lekua izateak, hasteko, kostu militarra eta politikoa ekarri ohi du.

Koro Navarro

Hegemoniazko ziklo horien interpretazioak, oro har, sistemaren barneko hiru kontraesan azaleratzen ditu.

Koro Navarro

hegemoniko *izond* nagusitasuna duena. ik **hegemonia 2**; **hegemonia 4**

Doktrina liberala, ez da harriztekoa, nazio **hegemonikoetan** -Herbehereetan aurrena, Ingalaterran gero- gorpuztu zen.

Koro Navarro

Herrialde **hegemonikoak** bere interesen arabera baino ez du jarduten.

Koro Navarro

Potentzia **hegemonikoen** mailan ez daudelako.

Berria - Kultura

Posizio **hegemonikoaren** beheraldiarekin batera.

Koro Navarro

Pentsamendu bakar **hegemonikoak** gurtzen duen zekor sakratua.

Iñaki Heras

Egonkortasuna eta krisi **hegemonikoak**.

Koro Navarro

Egonkortasun **hegemonikoaren** teoriak.

Koro Navarro

Estatu Batuen indar **hegemonikoaren** babespean.

Koro Navarro

Egonkortasun **hegemonikozko** aro baten amaiera.

Koro Navarro

hegi 1 iz ertza, bazterra.

Ur azpitik ibaiaren eskuineko ertza iritsita, Obiko **hegia** betetzen duten kanaberen artean galdu da. **Karlos Zabala**

Irkutsk hiria Jeniseiren ibaiadar horren eskuin **hegian** zegoen. **Karlos Zabala**

Uharte baten **hegian** lehorreratu zen. **Karlos Zabala**

Maiana Artoizen semea zuloaren **hegira** hurbildu zen. **Itxaro Borda**

Eskuak lotzen zizkion burdinaren **hegia** nabari zezakeen, larru urratzaile. **Itxaro Borda**

Koilareen asotsa kikeren **hegiatan**. **Itxaro Borda**

Gin tonic erdi bana, ginebra gutxi eta limoiarekin basoaren **hegiak** ongi igurtzirik. **Pako Aristi**

Belusezko bonetaren **hegi** zabalaren azpitik. **Elena Touyarou**

Bidexka ahal bezen hurbil doa itsasoaren **hegi-hegitik**. **Herria**

Munduaren **hegitik hegira**. **Itxaro Borda**

Zeruaren **hegitik**, arranoa edo saia zen ez zekitela, txori erraldoia jazarri zen, intzirika. **Itxaro Borda**

Hizkuntza nola heda zitekeen erkidegoko bazter eta **hegi** guztietara. **Pello Salaburu**

2 (hitz elkatuetan bigarren osagai gisa)

Lapurdiko **itsas** hegi osoan. **Berria - Harian**

Itsas-**hegiko** hiri eta hirixka aintzek. **Herria**

Etxe aitzineko pentzea zeharkatu zuen lasterka eta ibai **hegira** heldu zen. **Itxaro Borda**

Lurruntz ontzia ziztu bizian lerritzen zen Volgaren ibai **hegien** artean. **Karlos Zabala**

Río Salado famatua, egiakzi gatza baduena, ur **hegi** xuri xuriek erakustera emaiten duten bezala. **Piarres Aintziart**

Bide **hegian** abandonatuko dituzte. **Xabier Montoia**

Errepide **hegian**. **Piarres Aintziart**

Abiadura lasterlean pasatzean, autoek espaloi **hegiak** inarrotzen zituzten. **Itxaro Borda**

Teilatu **hegi** guztietarik eta aterpe bazter guztietarik ura turrustaka. **Filipe Bidart**

Buneta han zegoen beti, leiho **hegian**. **Itxaro Borda**

Zeru-**hegiko** mendi batean pausatua. **Juan Garzia**

Ohe **hegian** jarri zen Magali. **Janbattitt Dirassar**

Hatsa ezpain **hegian** dilinda zuten eta etsipena zein ustegabe hutsa irakurri zen haien begietan. **Itxaro Borda**

Negarra hor begi **hegian** nuen. **Itxaro Borda**

3 irud

Ardura negar **hegian** zegoen. **Itxaro Borda**

Spectres de Marx liburua ikaragarriaren Derridak marxismoak berean ez zuela gehiago funtzionatzen negar **hegian** aurkeztu zigun bezala. **Itxaro Borda**

Betiko kontua: aurki afaldu egin behar baina umea negarraren **hegitik** aldendu nahi. **Pako Aristi**

Zorroztasun haren **hegiek** noiztenka Agata larrantzen zuten ezpata finaren moldean. **Itxaro Borda**

Negarrek mantal **hegiak** xukatzen zituela. **Elena Touyarou**

4 aldea, bazterra.

Gure eskualdean, nork ez du gogoan 1967an gertatu zena [lur-ikara], Andredena Maria irian, Biarnoko **hegi** hortan, Xuberoa ere hunkiz eta bereziki Montori herria? **Herria**

Frantses gudarostea Nafarroan sartu zen Baztan ibarretik eta Gipuzkoan aldiz Oiarzungo araretik, eskualde batetik besterainoko mendi **hegia** okupatuz. **Elena Touyarou**

5 mendiez-eta mintzatuz, mazela, hegala.

Herria muino baten **hegian** dago. **Josu Zabaleta**

Elurra ari du gailurraren tontorrean, elurra ari **hegian**. **Patziku Perurena**

Ararat mendiaren **hegian**, lau mila eta berrehun metroko altueran, aintzira bat dago. **Fernando Rey**

K2ren **hegian** gaude, 4950 metroan, hemendik aitzina kanpamendu nagusi izanen dugun honetan. **Xabier Montoia**

Granaden zapartatzeak dardararaziko ditu mendietako **hegi** harritsuak. **Xabier Montoia**

"Ipar-mendebaleko **hegi** errazetik" [...] berdin erdietsiko genuela, ordu erdian, M.ko mendi-hortza. **Juan Garzia**

6 hegi hegi hegiari jarraituz

Villamayortik ateratu orduko patar beheiti xut bat hartzen dut, mahasti eder baten saihetsean **hegi hegi** ibiliz. **Piarres Aintziart**

Burgostik ateratzean Arlanzon ibai **hegi hegi** segitua nuena Puente del Arzobispo-ren azpian dario orain. **Piarres Aintziart**

Pariseko ibaiaren **hegi hegi** joanik. **Janbattitt Dirassar**

Kaiaren **hegi hegi** gindoazela hiriaren erdira itzultzeko. **Piarres Aintziart**

· Handik, itsas **hegi hegi** Regiora heldu ginen. **Elizen arteko biblia**

Zitadela **hegi hegi** pasatu dut. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aturri hegi (3); autobidearen hegi hortan (3); autobidearen hegi hegi (3); baionako hegi (4); baten hegi (3); dituzte itsas hegi (3); eta hegi (7); eta landesetako hegi (3)
hegi batean (5); hegi batetik (5); hegi batetik bestera (3); hegi eta (7); hegi hartan (4); hegi hegian (8); hegi horietan (3); hegi hortako (4); hegi hortan (69); hegi hortan bizi (4); hegi hortaraino (3); hegi hortarat (5); hegi hortarik (4)
hegi hegi (34); ibai hegi (3); itsas hegi (39); itsas hegi hortan (18); itsas hegi hegi (3); itsasoaren hegi hegi (4); landesetako hegi (6); landesetako hegi hortan (3); mendi hegi (4); miarritzeko hegi (12); miarritzeko hegi hortan (11); miarritzeko itsas hegi (3); muga hegi (12); muga hegi hortako (3); muga hegi hortan (8); portu hegi (6); portu hegi hortan (6); sare hegi (3); ur hegi (5); ur hegi hortan (3)
itsas hegia (17); mendi hegia (3)
aturri hegian (3); baten hegian (6); bide hegian (6); erreka hegian (4); eskuin hegian (5); eskuineko hegian (3); ezkerreko hegian (3); hegi hegian (8)
hegian den (4); hegian eta (4); hegian hazten (3); hegian hazten diren (3); hegian zegoen (3)
ibaiaren hegian (7); itsas hegian (43); itsas hegian eta (3); itsas hegian hazten (3); leiho hegian (4); mendi hegian (5); negar hegian (5); ur hegian (9); xefela itsas hegian (3)
aturri hegiko (4); errobi hegiko (3); hegiko ezpondak (3); itsas hegiko (51); itsas hegiko ezpondak (3); mendi hegiaren (3); portu hegiko (3); ur hegiko (5)
eskuineko hegira (3); hegira heldu (3); ibai hegira (3); itsas hegira (4); itsas hegiaraino (4); itsas hegiar (4); itsas hegitik (9); leiho hegitik (5)
autobidearen hegi hegi (3); hegi hegi (34); itsas hegi (8); itsas hegi hegi (3); itsasoaren hegi hegi (4); ondartzaren hegi (3)

hegialde iz hegia, bazterra.

Angeluko patinatagia handitu nahi baitu Herriko Etxeak, horretarako baitezpadakoa den eremua, hots 2 777 m2 erosiko dizkio hiriak estatuari, hauxe izaneki eta Aturri **hegialde** osoaren jabea. **Herria**

hegigo iz herra, gorrotoa.

Herrazko herrak eta korromioak, **hegigoak** eta mendeku nahiak. [Joan Mari Irigoien](#)

Indiaren independentziaren ondoren berehala hasi ziren azaltzen hinduen eta musulmanen arteko aspaldiko ezinikusiak eta **hegigoa**. [Gotzon Garate](#)

hegitxo iz hegi txikia.

Eguzki iluntzen hasiaren argiak arrats-gorritzen zituen elizatxo zaharra eta haren ondoko kanpandorre apal bereizi samarra zeuden **hegitxo** garai berdea osorik ikusteko moduan. [Josu Zabaleta](#)

Ibilbide itzaltsu hartan luze-zabalka nenbilen, parkea azpian hartzen duen **hegitxo** baten gainean kasinoko musika-taldeari lehenengo abestiak jotzen entzuten. [Josu Zabaleta](#)

hego osetiar (ETCn 15 agerraldi; corpusean soilik hego osetiar) izlag/iz Hego Osetiakoa, Hego Osetiari dagokiona; Hego Osetiako herritarra.

Hego osetiarrek, ostera, su-etena bortxatu izana ukatzen dute eta Tbilisiri egotzi. [Berria - Mundua](#)

Autonomia gehiago nahi zuten **hego** osetiarren aurka.

hego¹ 1 iz hegaztiekin, saguzarrek eta intsektuekin hegan egiteko dituzten organoetako bakoitza. ikhegal.

Beste piztia bat ikusi nuen, lehoibarraren antzekoa: bizkarralean lau **hego** zituen eta lau buru. [Elizen arteko biblia](#)

Hegadun izaki haiek, **hegoak** zabalik, hamar metro ziren luze. [Elizen arteko biblia](#)

Hegoetako lumen erdiak galdurik. [Anton Garikano](#)

Lau **hegoekiko** jeinu bat agertu zitzaion. [Patxi Zubizarreta](#)

Burduntzi bat, lau **hego** eta atal askotan banatutako orratz tankerako gorputz bat dela esan genezake. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Bi **hego** buruaren gainetik altxatuak zituen, beste bi hegan egiteko zabalduak, eta beste biek gorputz osoa estaltzen zioten. [Aitor Arana](#)

Gabiraiak nagi eragiten zieten **hegoei**. [Anjel Lertxundi](#)

Ahora eramatear zen galeper **hego** ondo koipetsu eta ondo usaintsu bat. [Josu Zabaleta](#)

2 (ainguerua)

Ez, ez da ainguerua, ez du **hegorik**. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Gizaseme bat ikusi zuen, Serafin batek bezala sei **hego** zituen. [Askoren artean](#)

3 (izenondoekin)

Itsas hegaztien **hego** zuriak zituztenak. [Agustin Otsoa](#)

Harrapari galanta txoria, baina **hego** zabal eta sendoak zituen. [Juan Garzia](#)

Haien erdian, Indar Berezien armarrak gailentzen zen: bi **hego** zabalak inguraturiko ezpata bat. [Alberto Ladrón Arana](#)

Urrearen distira, **hego** txiki batzuk hegaldaka. [Iñaki Mendiguren](#)

Baina tximeleta bat besterik ez zen, **hego** gorrikoa. [Bernardo Atxaga](#)

Bere **hego** handiak tolestu zituen. [Iñaki Mendiguren](#)

Hipogrifoak beren buru basatiak atzerantz astintzen eta **hego** indartsuak tolesten ari ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Hego erraldoiek hatz maskurtsuen arteko larruzko mintzak ziruditen. [Agustin Otsoa](#)

Baina **hego** atzapardunek harramazka egiten zidaten. [Koro Navarro](#)

4 irud

Kaioak ere ordu zaharren **hego** urdinduei eragin die. Nire analisiak oso **hego** laburrekoak dira, egia esan, eta hortaz, ez dakit zuzenak diren. [Anjel Lertxundi](#)

Badu bere baitan gauza bat ideala, mundu honetakoa ez dirudiena, eta nire ametsari **hegoak** jartzen dizkiona. [Josu Zabaleta](#)

Fantasiari **hegoak** ebakitzeko. [Josu Zabaleta](#)

Guztiak zuten, mitoaren **hego** demokratikoei esker, irudimenezko lurralde haietan atzera-aurrera ibiltzeko eskubidea. [Anjel Lertxundi](#)

Ametsen **hegoan** zuregana helduz. [Berria - Kultura](#)

Hainbat lagun, poesiaren **hegoak** antzaldaturik. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hegan doan arranoa da, garbitasun eta kontenplazioaren **hegoetan** goietara jaso. [Askoren artean](#)

Ideien **hegoan** gainean adimen hutsaren lurralde hustuan barrena. [Ibon Uribarri](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hego-muturrak moztuta. [Anjel Lertxundi](#)

Hego-mutur batetik besteraino bost metro. [Elizen arteko biblia](#)

Hego hotsa entzun du. [Anton Garikano](#)

Zaldiaren inguruan zetozen bizpahiru belean bat-bateko **hego**-zalapartak airea dardarazi zuen. [Anjel Lertxundi](#)

Orduan, **hego**-zafrada entzun zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Bat-batean **hego**-astintzea moteltzen zaie. [Xabier Amuriza](#)

izond irud Matxinada-garai haietan, izpiritu kontserbatzaile eta **hego**-laburra erakutsi zuen. [Juan Garzia](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina bi arrano-**hego** handi eman zizkioten emakumeari hegan basamortura joan zedin. [Elizen arteko biblia](#)

Hegal garaiko kasketa, alboetan bele-**hego** txikiak eta koroaren erdian zilarrezko izarra zituen. [Agustin Otsoa](#)

Txori **hego** hautsiaren moduan ez agertu etxera berriro! [Joseba Sarrionandia](#)

Oraindik ere jakan gordeta dauka zapi zuriaren azpildura perfektoa, aitaren patrikatik lapurtua, uso-**hego** jauzkaria irudi. [Javi Cillero](#)

hego² 1 iz hegoaldetik datorren haize beroa.

Nafar **hego** xumeari, batzuetan nafarra soilik ere esaten zaionari [...] **hego** emea deitzen zaion xumeari (emakume haizea ere bai, zenbait parajetan), **hego** arra edo haize zakar bortitza den horri, gaztel hegoa edo gaztel haizea deitzen diogun horri, edo **hego** andaluziar eta afrikanoari. [Pello Zabala](#)

Hego epelak masta erdian zeuden ikurrinak astintzen zituen. [Joxean Agirre](#)

Zeruaren urdina eta **hego**-xuriaren pereka ezitia gozatzeko. [Herría](#)

Antizikloia egon zen iparraldera kokatuta, **hego** puntua behetik zekarrela. [Pello Zabala](#)

Hego boladak ekartzen badakien arren, eguzki epeleko aldiak ere bai. [Pello Zabala](#)

Haize pelatagoa, barruko elatatik **hego** arinak dakarrena. Pello Zabala

Hego aro gozo eztiak. Pello Zabala

Ez da seinale ederra izaten **hego** lehorra bereak egiten ikustea. Pello Zabala

Hegoaren ondotik, ipar euria gogotik. Pello Zabala

2 hegoaldea.

Guk ez dugu ez ipar ez **hegorik**, ez ekialde ez mendebalik. Felipe Juaristi

Loratgia **hegoan** dago eta bertan dauden landare asko eta asko ere hegoaldetik ekarriak dira. Anjel Lertxundi

N. jaun artistak zergatik agindu du estudio berriaren eraikuntza etxearen iparraldean, eta ez **hegoan**? Anjel Lertxundi

Iparrekoak iparrean laketago eta **hegokoak hegoan** etxeanago? Berria - Kultura

Hegora begira jarritako limoioendoek. Hasier Etxeberria

Iparrean eta **hegoaren** arteko zubia eraikitzeko. Berria - Kirola

Kontsumoari dagokionez azken hiru hamarkadetan Iparrean eta **Hegoaren** arteko aldea bikoiztu egin da. Iñaki Heras

Zure iparra beste baten **hegoa** baita, eta zure **hegoa** beste baten iparra... Ana Urkiza

· Korrituak ditut bi Nafarroetako lurrak, ipar eta **hego**, Biarnokoak, Frantziakoak, Aragoikoak... Aingeru Epaltza

3 (leku izen baten eskuinean) ik hegoalde 2.

Afrikan eta Amerika **hegoan**. Herria

Alemania **hegoan** ortzantz eta uhaste haundiak egin ditu Bavarian. Herria

Durban Afrika **Hegoko** hirian. Herria

Asia **hegoko** herri hortako gobernariak. Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kataluniakoak eta **Hego** Euskal Herrikoak. Iñigo Aranbarri

Hego Ameriketako indiar dotore haien oinordekoek. Pako Aristi

Afrikako erdialdea eta **Hego** Amerika ziren loro gehien zituzten lurraldeak. Jon Muñoz

Hego Hemisferioan negu betean sartuta daude. Berria - Kirola

1911n, Amudsen **Hego** Polora iritsi zen. Pello Salaburu

Titanen **hego** poloa metanozko lainoa atzeman du Cassinik. Berria - Gaiak

Barruko **hego**-lautada horretako beroek. Pello Zabala

Tobolsk probintziaren **hego** eskualdeetan. Karlos Zabala

Siberiako **hego** mugatik aurrera. Karlos Zabala

Kraterraren **hego** ertzetik irteten da. Juan Garzia

Hego latitudeko hamalagarren gradu inguruan. Iñaki Iñurrieta

Laster etorriko zen **hego** urrunetako lurraldeetara hegaldatzeko tenorea. Aurelia Arkotxa

Hego goi-nafarra. Koldo Zuazo

5 haize hego hego haizea.

Haize **hego** epelegiengatik. Itxaro Borda

Ez dakit haize **hego** eztiak edo Errobiko zilarrezko urek ekarri daukuten Lapurdia. Herria

Agian San Mixelen haize **hego** xuria hor izanen dute lagun. Herria

Aize **hegoa** delarik, usorik ez, eta usoa delarik, aize **hegorik** ez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Haize hegoa, amodio gogoa", "Haize **hegoak**: emakumeak beroak" eta antzeko esaneretan. Patziku Perurena

Geroztik, Printzesa hura ez da kontent, eta maiz jiten da bere dotearen erreklamaterat, haize **hegoaren** irudia hartuz. Patziku Perurena

6 hego-ekialde (ETCn 4.272 agerraldi; orobat hegoekialde ETCn 310 agerraldi)

Pelore lur-muturra, ipar-ekialdean; Lilibeo, mendebaldean; eta Pachynum, berriz, **hego**-ekialdean. Jon Muñoz

Asiako **hego**-ekialdeak eta Indonesia osoak. Pello Zabala

Afrikako **hego**-ekialdeko Maurizio uhartera. Koro Navarro

Frantziako **hego** ekialdeko Var departamendura. Berria - Euskal Herria

Asiako Ekialdearen eta **Hego**-ekialdearen hazkundearen dinamikan. bere mugak **hego**-ekialderantz zabaltzeko. Koro Navarro

Galgoea edo Galgoia esaten diote berriz **hegoekialdetik** jotzen duen haizeari. Patziku Perurena

Asiako **Hego**-ekialdeko Nazioen Elkartea. Koro Navarro

· **Hego** ekialdekoari, eguzki haizeari. Pello Zabala

7 hego haize (ETCn 874 agerraldi; orobat hegohaize ETCn 38 agerraldi)

Bazebilen dena garbitzen zuen **hego** haize eder bat. Koldo Izagirre

Hego-haize leuna zebilen, gau giro aparta. Iñaki Iñurrieta

Eguzkia atera zenean, berriz, **hegohaize** itogarria bidali zuen. Jose Antonio Mujika

Hego-haizea denean, berriz, "Sargoria dugu" esaten duzue. Pello Zabala

Hiri horretan **hego**-haizeak jotzen duenean jendea gaixotu egiten da. Santiago Iruretagoiena

Hego haizeak burutik arin dabilenari erasaten diola esan ohi dugu. Pello Zabala

Hego haize bolada ikaragarriak. Pello Zabala

Hego-haizearen bafada epelak jo zidan aurpegian. Anjel Lertxundi

Gau zoragarria zegoen, izartsu, sargori eta **hego** haize ukitu eder batez. Joxemari Iturralde

· Berak maite-maite zuen ilusenti **hego**-haizetsu zoragarri haietako batean. Joan Mari Irigoien

Iraileko goiz **hegohaizetsu** bat zen. Joan Mari Irigoien

8 hego-mendebalsup_1 (orobat hegomendebal g.er.)

Edo (izen gehien dituen) **hego** mendebal, zehar haize, aldaize eta gorbeianoa deitzen diogun bihurriago horri, edo beste baserriar batek zioenez **hego** mendebal, tormento jeneral delako berorri berari ere. Pello Zabala

Hego-mendebalak irauango zuen edo mendebalari txanda emango zion jakiteko. Pello Zabala

Hego-mendebal edo aldaize traketsa dabilenean. Pello Zabala

8b hego-mendebalsup_2 (orobat hegomendebal g.er.)

Lapurdiko **hegomendebalean**, Nafarroako iparmendebalean eta Gipuzkoako iparrekialdean Laino xoxtor batzuk ageri direla **hego** mendebal aldetik. Koldo Zuazo

9 hego-mendebalde (ETCn 3.781 agerraldiorobat hegomendebalde ETCn 284 agerraldi)

Goiz osoan [...] **hego-mendebaldeko** haize gozo leuna izan zen. Koro Navarro

Frantziako **hego-mendebaldean**, Pauen. Aurelia Arkotxa

Irish ibaiaren **hego-mendebaldetik** Turkestango mugetaraino hedatzen den eskualde zabal hori utzirik. Karlos Zabala

Ukrainako **hegomendebaldean** . J.M. Olaiola "Txiliku"

Broad Peak-eko **hegomendebaldeko** aristatik jausi zela. Unai Elorriaga

Hego-mendebaldeko Asian. Iñaki Mendiguren

10 Hego Polo (orobat *hego polo*; *ETCn 504 agerraldi gutzira*) hego hemisferioko poloa. ik **Hegoburu**.

1911n, Amudsen **Hego** Polora iritsi zen. Pello Salaburu

Titanen **hego** poloan metanozko lainoa atzeman du Cassinik. Berria - Gaiak

11 hego-sartalde

Baso Negartiaren **hego**-sartaldeko mendela lurperaturik zetzan. Juan Garzia

Baie Comeautik hurbil zen motel batean gaua pasatu eta, goizik jaiki ziren **hego sartaldera** buruz berriz bideari lotzeko. Aurelia Arkotxa

12 hego-sortalde (orobat *hegosortalde g.er.*)

Miloi horretatik 250.000 Asiako **hego**-sortaldean biltzen dituzte. Gotzon Garate

Hegosortaldeko haizea hasiko da, oso gogor. Joseba Sarrionandia

Beti dabil tramontana, edo mistrala, edo hegoa edo euro delako **hego**-sortaldetik heldu den hori. Juan Garzia

Euri langarra ari zuen, **hego**-sortaldeko haize leun baten astinduek sorgindua. Edorta Jimenez

13 Ipar-Hego

Ipar-**Hego** inbertsioen fluxua. Koro Navarro

Orobat Ipar-**Hego** harremanetan. Koro Navarro

1970eko hamarraldiaren erdialdean Ipar-**Hego** elkarrizketak hasi ziren. Koro Navarro

Paisley, ipar-**hego** elkarlanaren alde. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

hego afrika (25); **hego afrikako** (40); **hego afrikan** (24); **hego afrikar** (4); **hego afrikara** (6); **hego afrikarre** (6); **hego afrikarren** (4); **hego afrikatik** (7); **hego alde** (5); **hego aldean** (15); **hego aldeko** (28); **hego aldekoa** (4); **hego aldekoak** (6); **hego aldera** (12); **hego alderat** (6); **hego aldetik** (10); **hego amerika** (34); **hego amerikak** (6); **hego amerikako** (134); **hego amerikakoak** (4); **hego amerikara** (4); **hego amerikaren** (75); **hego amerikar** (4); **hego amerikari** (10); **hego amerikarrak** (5); **hego amerikatik** (14); **hego amerikaz** (4); **hego ameriketako** (63); **hego ameriketan** (60); **hego ameriketara** (5); **hego ameriketat** (13); **hego ameriketatik** (9); **hego asian** (4)

hego bat (5); **hego carolinan** (5); **hego ekialdea** (4); **hego ekialdean** (57); **hego ekialdeko** (47); **hego ekialdera** (12); **hego ekialderantz** (7); **hego europako** (4); **hego haize** (40); **hego haizea** (39); **hego haizeak** (30); **hego haizearekin** (7); **hego haizearen** (12); **hego haizeari** (5); **hego handiak** (4); **hego hemisferioan** (4); **hego hemisferioko** (31); **hego irlandako** (7); **hego italiar** (4)

hego karolinako (4); **hego korea** (61); **hego koreak** (28); **hego koreako** (71); **hego korean** (32); **hego koreara** (8); **hego korearekin** (9); **hego korearen** (16); **hego koreatik** (5); **hego kurdistan** (5); **hego landesetako** (4); **hego lapurdi** (10); **hego lapurdiko** (25); **hego lapurdin** (9); **hego mendealeko** (4); **hego mendebal** (7); **hego mendebala** (4); **hego mendebalde** (8); **hego mendebalde** (6); **hego mendebaldean** (27); **hego mendebaldeko** (27); **hego mendebaldera** (4); **hego mendebaleko** (7); **hego osetia** (21); **hego osetiak** (16); **hego osetiako** (38); **hego osetian** (11); **hego osetiaren** (5); **hego poloan** (5); **hego tirol** (5); **hego tirolen** (6); **hego tirolgo** (7); **hego xuria** (5)

afrika hego ekialdeko (4); **asia hego ekialdean** (9); **asia hego ekialdeko** (6); **asiako hego ekialdean** (5); **asiako hego ekialdeko** (4); **hego aldera ematen** (6); **hego amerikako herrialde** (4); **hego ameriketan gaindi** (7); **hego eta ipar** (15); **hego eta iparraldeko** (8); **hego euskal herri** (25); **hego euskal herria** (29); **hego euskal herrian** (492); **hego euskal herriarekin** (8); **hego euskal herriari** (10); **hego euskal herriko** (379); **hego euskal herrikoa** (5); **hego euskal herrikoak** (9); **hego euskal herrira** (14); **hego euskal herrirako** (5); **hego euskal herritik** (15); **hego haizea zebilen** (4); **hego irlandako ministroen** (5); **hego koreako gobernua** (5); **hego lapurdiko herri** (10); **hego mendebalde handia** (4); **hego osetiako agintari** (4); **hego zein ipar** (5); **ipar eta hego** (70); **ipar zein hego** (6)

haize hegoa (10); **haize hegoak** (8); **hegoak astindu** (7); **hegoak astinduz** (9); **hegoak astintzen** (6); **hegoak ebaki** (10); **hegoak eman** (7); **hegoak moztu** (5); **hegoak zabaldu** (13); **hegoak zabalik** (7); **hegoak zabalitzen** (4); **hegotik iparrera** (5); **iparretik hegora** (10)

hegoafrikar (ETCn 1.096 agerraldi; orobat *hego(-)afrikar ETCn 51 agerraldi*) izlag/iz Hego Afrikakoa, Hego Afrikari dagokiona; Hego Afrikako herritarra.

Nick du Toit **hegoafrikar** mertzenarioa. Berria - Mundua

Hegoafrikar jatorriko mertzenario bat tiroz hil zuten atzo Bagdaden.

John Maxwell Coetzee **hegoafrikar** idazlearen [...] *Disgrace* eleberraren euskarazko itzulpena. Berria - Kultura

Bantu, indonesiar eta indiar jatorriko **hego-afrikar** herrikideen gain. Iñaki Mendiguren

Holanderaz eta ingelesez mintzo ziren **hego-afrikarrengan** . Iñaki Mendiguren

Hego afrikar bat hilen artean. Berria - Mundua

hegoalde (orobat *hego(-)alde g.er.*) 1 iz ostertzeko lau puntu nagusietako bat, eguzkia eguerdian dagoen aldeari dagokiona.

Iparaldearen eta **Hegoaldearen** arteko areriotasun tradizionalari. Koro Navarro

Hegoaldearen mendekotasuna Iparaldeari buruz. Koro Navarro

Hegoalde haizetsuko mortuetan nabilela. Itxaro Borda

Erdiko eta **Hegoaldeko** Amerika. Koro Navarro

Saharaz **hegoaldeko** Afrikan. Berria - Gaiak

Hegoaldeko eta iparraldeko eskualdeak. Santiago Iruetagoiena

Hegoaldeko euskaldunen nazio kontzientzia. Piarres Xarriton

Gero, abiatu eta Emausetik **hegoaldera** ezarri zuten kanpalekua. Elizen arteko biblia

Bonapartek "**hegoaldeko** goi-nafarra" deitu zuena. Koldo Zuazo

Hegoaldera jo zuten. Felipe Juaristi

Kilometro batzuk **hegoalderago** hegazkin batzuk errepidea metrailatzen ari direla. Josu Zabaleta

Kanariar iriak baino bizpahiru gradu **hegoalderago** . Iñaki Iñurrieta

Baina N. jaun artistaren logelak **hego** aldera ematen du. Anjel Lertxundi

Gaitzeko xantza nuen, gelak leihoa **hego**-alde zuen. Marzel Etxehandi

2 (-ko edo -en atzikiaren eskuinean)

Hau beltzarana, Probentzako **hegoaldekoak** bezala. Italiako **hegoaldea**, Espainia, Portugal eta Grezia. Karlos Zabala

Baltikoko **hegoalde** osoan zabaldu zuten beren eragina. Koro Navarro

Buenos Aireseko probintziako **hegoaldean** . Juan Garzia

Europako iparraldeko eta **hegoaldeko** merkatariak. Koro Navarro

Alpeen **hegoalde** lainotua. Joxe Austin Arrieta

Hasieran Kaspio itsasoaren **hegoaldea** baizik ez zen ezagutzen. Iñaki Iñurrieta

Omsk aldera jo zuten probintziaren **hego** aldean barrena. Karlos Zabala

Bizirik ihes egindako pilotuak Euskal Herriaren **Hegoaldera** ekartzeko. Pako Aristi

Ingalaterrako **hego** eta ekialdea eta Frantziako iparraldea. Koro Navarro

3 (leku izen baten eskuinean) ik **hego**¹ 3.

Pirinio hegoaldea euskalduna zela. **Herria**

Elefanteak Afrikan eta **Asia hegoaldean** bizi dira. **Joseba Sarrionandia**

Espainia **hegoaldera** joanak zirelaketoz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etzarren**

Ireki itzazue Afrikako serralloak, Asiakoak edo **Europa Hegoaldekoak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Frantzia hegoaldean, Albi hiria inguruan. **Askoren artean**

Afrikako herrialdeentzat eta **Asia Hegoaldekoentzat**. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

hegoalde osoan (7); **hegoaldea eta iparraldea** (8); **iparraldea eta hegoaldea** (7)

afganistan hegoaldean (4); **afganistango hegoaldean** (4); **asia hegoaldean** (13); **bagdad hegoaldean** (19); **bagdadeko hegoaldean** (5); **europa hegoaldean** (5); **europako hegoaldean** (4); **frantzia hegoaldean** (11); **frantziako hegoaldean** (8); **gaza hegoaldean** (16); **gazako hegoaldean** (8)

hegoaldean bizi (7); **hegoaldean dagoen** (32); **hegoaldean den** (10); **hegoaldean gaindi** (154); **hegoaldean gertatzen** (4); **hegoaldean izan** (9); **hegoaldean jaio** (4); **hegoaldean koka** (5); **hegoaldean kokatua** (5); **hegoaldean kokatutako** (11)

herrialdearen hegoaldean (7); **hiriaren hegoaldean** (4); **india hegoaldean** (5); **irak hegoaldean** (21); **irakeko hegoaldean** (5); **italia hegoaldean** (4); **lapurdi hegoaldean** (4); **sudango hegoaldean** (6); **thailandia hegoaldean** (4); **turkiako hegoaldean** (4); **uhartearen hegoaldean** (9)

ekialdean eta hegoaldean (4); **hegoaldean eta ekialdean** (5); **hegoaldean eta iparraldean** (5); **hegoaldean eta mendebaldean** (4); **hegoaldean kokatua den** (5); **iparraldean eta hegoaldean** (9)

hegoaldera begira (11); **hegoaldeetik iparraldera** (7); **iparraldeetik hegoaldera** (10); **saharaz hegoaldekoak** (6)

hegoaldetar *izlag/iz* hegoaldekoa, hegoaldeari dagokiona; hegoaldeko herritarra. ik **hegotar**.

Horrelakoak bide zarete **hegoaldetarrak**: irrigarriak. **Xabier Montoia**

Saltoki ilara bien arteko pasabideetan zebiltzanak **hegoaldetar** jatorrak ziren: azal eta begi ilunekoak, ile beltz kizkurduak. **Xabier Montoia**

hegoaldi *iz* hego haizea dabilen aldia.

Hegoaldi beroa sartu zuen ezustean, hego haize bolada ikaragarriak. **Pello Zabala**

Hotzaldi elurtetsu baten ostean, **hegoaldi** epel bare batek elurraren urtzaldi uholdetsua ekarri zuen. **Pello Zabala**

[Udazken gehienetan] **hegoaldi** luze samarrak ere izaten dira. **Pello Zabala**

hegoalditxo *iz* hegoaldi laburra edo ez bizia.

Hegoalditxoak, neguan denean, baditu aipatu beharreko egoeratzko espezial samarrak suertatzen direnak. **Pello Zabala**

hegoamerikar (*ETCn 504 agerraldi; orobat hego(-)amerikar ETCn 78 agerraldi*) *izlag/iz* Hego Amerikakoa, Hego Amerikari dagokiona; Hego Amerikako herritarra.

Eginkizuna ez da izan makala itzultzailearentzat, jatorrizkoari **hegoamerikar** gaztelania berezi halako baten kutsua dariolako. **Berria - Kultura**

Gidari **hegoamerikar** bat bolantean zuela. **Hasier Etxeberria**

Etorkin musulmanei edo **hegoamerikarrei** begira. **Bernardo Atxaga**

Jakien ukitu **hego**-amerikarrera. **Aingeru Epaltza**

Ez zidaten etxea alokatu, **hego** amerikarrak emagalduek omen garelako. **Berria - Euskal Herria**

Baziren bilduak 22 herri arabe eta 12 **hegoamerikar**, ONU eta OMC ere horrra komitaturik. **Herria**

Erdiak lapurtarrak, laurdena nafarrak eta gaineratikoak ipar zein **hego** amerikarrak. **Itxaro Borda**

Etorkiz **hego** amerikarrak direnak eta EB-etan bizi, 38,8 milion dira- **Herria**

hegoasiar *izlag/iz* Hego Asiakoa, Hego Asiari dagokiona; Hego Asiako herritarra.

Lanpostuak estatubatuarrek, europarrek eta **hegoasiarrek** hartzen dituztela. **Berria - Mundua**

Hegoburu (*orobat hegoburu*) *iz* Hego Polo.

Hurrena, esnezko argitasunak eraginik edo, marinelak **Hegoburuan** ez, baina Iparburuan kokatuko ipuin bat irakurtzeari ekin dio. **Patxi Zubizarreta**

Karbono dioxido banaketa desberdina dela iparburuan eta **hegoburuan**. **Berria - Gaiak**

Orain, bertze espedizio bati lotuko da: **Hegobururatekoa**, Antartidan gaindi. **Herria**

Izotza atzeman dugu Marteko **hegoburuan**. **Berria - Gaiak**

hegodun (*ETCn 202 agerraldi; orobat hegodun ETCn 89 agerraldi*) **1** *izond* hegoa duena; hegoak dituena. ik **hegaldun**.

Intxaurren tamainako pilota txiki **hegodun** bat. **Iñaki Mendiguren**

Zaldi **hegodun** edo adimendunak. **Iñaki Iñurrieta**

Alde banatan harrizko zutabeak zeuden, gainean basurde **hegodunak** zituztenak. **Iñaki Mendiguren**

Grifoa alegiazko animalia bat da, **hegoduna**, gorpuzta lehoiarena eta burua hegaziarena duena. **Iñaki Mendiguren**

Suge **hegodunak** ere bai. **Gotzon Garate**

Haren babesera heldu orduko, itzal **hegodunak** berrito zeharkatu zuen zerua. **Agustin Otsoa**

Izakari **hegodun** handiak. **Josu Zabaleta**

Eta egun gozo haietan almenen artean mugitzen zen haizea, eta lurrin **hegodun** bihurturik zen alboratzen. **Koro Navarro**

Maitasun **hegodunaren** ezproiak sastaturik. **Xabier Amuriza**

Zeru ilunetik irudi **hegoduna** jaitsi zen tximistaren antzera. **Agustin Otsoa**

Txamarra gorri, galtza urdin, eta buruan ginbail ilun **hegoduna**. **Txillardegi**

2 (izenlagun gisa)

Hozka egiten duten **hegodun** txindurriak eta elefanteak. **Gotzon Garate**

Hegadun izaki haiek, hegoak, zabalik, hamar metro ziren luze. **Elizen arteko biblia**

hegoekialde ik **hego**¹ 6.

hegoeuropar *izlag/iz* Hego Europakoa, Hego Europari dagokiona; Hego Europako herritarra.

Ipar Europan **hego** europarrak gutxiesten dituzte. **Jon Arretxe**

hegohaize ik **hego**¹ 7.

hegoi *iz* hego haizea.

Esan gabe doa, neguko **hegoia** lagun maitatua eta estimatua izan ohi dugula mendi magaletan bizi garenok. **Pello Zabala**

Katalunia aldetik sartu haizexkarekin nahasian, eta hau bai, hauxe da hego-**hegoi** berezia. **Pello Zabala**

hegokorear (*orobat hego-korear*) *izlag/iz* Hego Koreakoa, Hego Koreari dagokiona; Hego Koreako herritarra.

Kim Sun-Il **hego** korear itzultzailearen hilketak. **Berria - Mundua**

2002an, aldiz, sei soldadu **hego** korear hil ziren. **Berria - Mundua**

Zuzendari onenaren saria Kim ki-du **hegokorear** zinemagileak jaso du. **Berria - Kultura**

Mahaiaren inguruan, amerikar bat, neozelandar komunista bat, **hego**-korear bat, irlandar bat eta bi euskaldun. **Harkaitz Cano**

Bahitu zituzten 14 pertsonetatik zazpi **hegokorear** askatu zituztela esan zuten. **Berria - Mundua**

Lepoa moztuta hil zuten atzo ekainaren 17an bahituriko **hegokorearra**. **Berria - Mundua**

hegomendebal(de) ik **hego**² 8; **hego**² 9.

hegope ik **hegabe**.

hegotar *izlag/iz* hegokoa, hegoari dagokiona; hegoko herritarra. ik**hegoaldetar**.

Etzazula jokatu **hegotar** petoen gisan. **Fernando Rey**

Orkoek, piztutako zuziak eskutan, eta **hegotar** basatiek, bandera gorriak aldean eta oihu ikaragarriak eginez. **Agustin Otxoa**

Konturatu nintzen Estatuko kapitolioaren aurrean, masta handiaren puntan, **hegotarren** bandera zegoela harrera-emaile, haizea harro igurtziz; gerra zibilean "sezesionista" deitutako bandera bera. **Iñaki Zabaleta**

hegotxo *iz* hego txikia.

Non-nahi ageri dira **hegotxo** berdeak asuntua non topatuko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

hegotzar *iz* *adkor* hego handia.

Gero **hegotzar** handi batzuk jarri zituzten bizkarrean, lumen zentzuaren arabera zuriz, urdinez, purpurinaz koloreztuak. **Josu Zabaleta**

hegozale *izond* haize hegoaren zalea.

Martxoa ekaizti eta **hegozale** joanez gero, txarrena apirilean ekarriko zuen seinale **Pello Zabala**

heia *iz* abeltegia.

Bizi ohe zoldatsu baten ustel-izerdi kiratsean, lizunkeriaz irakinak, maite-maite eginez **heia** satsu baten... **Juan Garzia**

Lakoizketaren ondoko batzuen **heian** harrapatu nituen urdinuak, usteltzen. **Hasier Etxeberria**

heiagora 1 *iz* garrasia, oihua.

Tiroak, **heiagorak** eta zaldien lauhazka azantzak jabaldu arte. **Itxaro Borda**

Maria **heiagora** ozenez lehertu zen. **Itxaro Borda**

Maien gelan itsas txori erraldoien **heiagorak** hauteman ziren. **Itxaro Borda**

Zigizaga eta **heiagora** mediatiko batzuk gorabehera, sindikatuak noren alde ari diren galda liteke. **Berria - Kultura**

2 heiagora egin oihu egin. ik **heiagoratu**.

Zaldunetako batek **heiagora** egin zuen: [...]. **Juan Garzia**

3 heiagoraz heiagora eginez. ik **heiagoraka**.

Berehala **heiagoraz** hasi zen oinazetan: "Adiskidea, adiskidea, urrikal zakizkit; horra nire malurak oro berriz jinak." **Jon Muñoz**

heiagoraka *adlag* heiagoraz.

heiaigoratu, heiaigora(tu), heiaigoratzen da *ad* heiaigora egin.

Errazena erlatibismo unibertsal honengatik **heiaigoratzea** da eta eskandalizatzea. **Joxe Azurmendi**

heian *interj ipar* ea.

Heian ikusiko dugun, gero, delako Roble del Peregrino haritz zahar famatua. **Piarres Aintziart**

Erran gabe haatik **heian** helduden urtekoa ere jokatu duen. **Herría**

Heian herri horrek baduen ala ez programa atomikorik ikerketa eta apailatze bidean. **Herría**

Ezin erran oraino **heian** segituko duen muga urratze honek. **Herría**

Hauek behar dute grifatu **heian** nola ekarriko duten bizikleta gibelera... **Herría**

Haatik, Heletak badu Oionen berri; Oionek ba ote daki Heleta non den, edo baden ere? **heian!** **Piarres Aintziart**

heiatu, heia, heiatzen du *ad* akuilatu, zirikatu.

Auzoko neskekin gaztaroko dantzaldietara joaten zenean, demagun, bakarrik geratzen zen ilunpean, banka mainguetan ttottoturik, gonbitik gabe eta mutiko mozkor berotuek **heiatzen** zutenean, ezezkoa aieratzen. **Itxaro Borda**

heideggeriano *izond* Heidegger-en filosodia doktrinari dagokiona; doktrina horren aldekoa.

Beren traiekтория intelektualean hegeliario, marxista, **heideggeriano** eta filosofo handi guztien "post"ak direnez, inork muturra Hegel edo Marx aipatuz izkinan agertu orduko betetzen dute isekaz burutik behera "errealismoaren" izenean. **Joxe Azurmendi**

hein 1 zerbaiten egoera, maila edo neurria adierazten duen gauza.

Eguzkiaren ideia, honek Gorputza hunkitzen duen **hein** soilean haren izaera azaltzen baitu. **Piarres Xarriton**

Azkaindarra **hein** onean. **Herría**

Eta, alderantziz, bakoitza onuragarri zaionaz, hots, bere izana atxikitzeaz arduratzen ez den neurrian, **hein** horretan ezindua da. **Piarres Xarriton**

Ez da harritzekoa, **hein** horretan, Platonek nolabaiteko begirunea erakustea sofista zaharrenarekin. **Askoren artean**

Ez zena bada etsipengarria **hein** horretara heltzea? **Itxaro Borda**

Ez nuen kalkulatu emakume baten jakinmina; **hein** hartaraino nintzen tronpatua. **Jon Muñoz**

Hein horretaraino behar ote nintzen bada umiliatu? **Jon Muñoz**

Egundaino ez zitzaidan hori gertatua, denbora berean **hein** horretaraino xoratua eta denbora berean **hein** horretaraino lotsatua! **Janbattitt Dirassar**

Gizona ez zen sekulan **hein** horretako itsuskeriaraino heldu izan. **Michel Oronoz**

Nola egon beraz **hein** hortako salbaikeria gogorki salatua gabe? **Herría**

Lantegi horietan, Fagor eta Eroski kooperatibek **hein** ona atxiki dute. **Herría**

Uste dut beste pare bat baduten **hein** bertsukoa. **Herría**

Heina baino gehixeago edan ondoan. **Elena Touyarou**

Bildu da jende egia erran bainan ez hurbiltzekorik ere naski antolatzaile batzuek igurikatzen zuten **heina**. **Herría**

Galdegina den ikasketa **heina**: Baxoa + 2 urte hasiberrientzat. **Herría**

2 (-ko atzikiaren eskuinean)

Kostalde guzian, aratsalde erditan, 27 grado itzalean, hori kasik uda beteko **heina** da. **Herría**

Jendeak noiz ukanen du bada zentzu gehiago, denak bakean bizitzeko **heina**? **Herría**

Hil-zigorra beti berme izaiteak baduela halako larderia berezi bat, gaixtagin aintzen lotsarazteko **heina**... **Herría**

Hala nola bi elementutan arras txarrak garen: sortzeak jende-arau Frantziatikotik bi tanzotz apalagoa da hemengo **heina**, heriotzeak aldiz hiru tanzotz gorago ditugu. **Herría**

Prezioak iazko **heinean** egon dira aurten. **Herría**

3 (-en atzikiaren eskuinean; ik beherago 4)

Lituanian, eremuz Letoniaren **hein** bertsua, bainan aise jende gehiago, lau miliun hurbil. **Herría**

Eslobakia, eremuz bost aldiz Nafarroaren **heina**, bost miliun jende baino gehiago. **Herría**

Elizaren zoruaren **heina** iristeko, bost harmaila. **Txillardegi**

Bere jende kopurua biderkatua zuen Hegoaldeak, beti hein bertsuan zegoelarik Iparraldean, 200.000 bizilagunetara ezin helduz eta 5/6etarik 1 era jaitziz gure **heina**. **Piarres Xarriton**

Orotara hiru orgaren **heina** atera dute goiz batez. **Herría**

912 lan gabetu gehiago kondatu dituzte, lan gabeziaren **heina** %-eko 7,33tan ezarri. **Herría**

Ezadostasunaren eta ironiaren **heinak** berdintsuak zeuzkan marmarrak gela zeharkatu zuen. **Elena Touyarou**

700 metro ttipientzat, 4 km ta erdi handientzat, bakotzak bere **heinarean** arabera parte hartu du. **Herría**

Jendetza horren **heinari** doakion kirol ekipamendurik ez dela. **Herría**

4 -en **heina** (kopuru baten eskuinean),

Oren baten **heina** dukegu elkarrekin egoteko. **Janbattitt Dirassar**

Gibeleratekoan, ordu baten **heina** egon nintzen oraino portu zaharrean. **Janbattitt Dirassar**

Hargatik, Joanesez abertzaleen izenean, bozka emaitza politik erdiesten zituen eta ondorioek % 10aren **heina** ez sekula pasatuagatik ez zen beldurtzen. **Itxaro Borda**

Erranez kalonjeek 4 000 duro eman dizkietela karlisteri, eta beren aldetik nahi dutela 160.000 errealean **heina**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ezkerreko hiru hautagaiek hiruen artean % 40-en **heina** ukan dutela. **Herría**

5 -en **heinean**¹

Haiek zeuden tokiik harri iraitzi baten **heinean** edo, baratu zen. Hau ere mende berriak ekarri kanbiamenduen seinale bere **heinean**. **Elena Touyarou**

Gu ere euskal ondarearen begiratzeari ari girela, gure **heinean** eta gure aldetik. **Herría**

Gauzak bere **heinean** ezartzeko. **Herría**

6 **heineansup_2** (erlatibozko atzikiaren eskuinean) neurrian.

Uste dut, adinean zohitzen noan **heinean**, alor horretako kolko erraustuaren inarrotea zilegi zaidala eni ere. **Itxaro Borda**

Arraina jan zuten, eta ostalerrari goresmenak eman zizkioten, behar zen **heinean** erretzea kausitu baitzuen. **Elena Touyarou**

Espiritu hura berreskuratzen dugun **heinean**, dohain haiek geureganatzen ditugu. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Egia denetz ainarak denetan hola bakanduak direla, bazkaltiar horiek erraiten zuten **heinean** bakanduak, nik ez dakit xuxen erraiteko, baina zer bait baditake. [Herria](#)
Baina, gainera, inguruko gauzek zentzu berria hartzen dute [...] esentzia singularra agertzeko bitarteko diren **heinean**. [Piarres Xarriton](#)

7 -tzeo **heinean** -tzeo puntuan, -tzeo zorian.

Burua zapartatzeko **heinean** neukan. [Daniel Landart](#)
Ugarte asko desagertzeko **heinean**, basamortuak orai diren baino hedatuago. [Herria](#)
Hortakoak direnek garbi ikusten zutelarik untzia bi parte egiteko **heinean** zela ordukotz. [Herria](#)
Iduritu zitzaidan zepo batean hartua izateko **heinean** nintzela eta zepo hartarik behar nuela ahal bezain laster ater. [Janbattitt Dirassar](#)
Agorrila, ibai eta iturriak agortzeko **heinean** izan ditazkeen hilabetea. [Herria](#)
Bat-batean, Josepek, etsi baten hartzeko **heinean** zelarik, zer ikusten du izen-ordeen artean? [Janbattitt Dirassar](#)

8 -en **heineko** izlag

Frantsesaren **heineko** mintzaira indartsu batek berenaz argitzen eta indartzen baititu, arauz, fedea eta karitatea! [Piarres Xarriton](#)
Lapurdi probintziaren **heineko** lurralde xume batentzat. [Herria](#)
Nehor ez da besteen bertuteaz bekaizten, non ez den bere **heineko** batenaz. [Piarres Xarriton](#)
Gure **heineko** eta gustuko errealitate bat behar diagu asmatu beti, egiaren beldurrez. [Michel Oronoz](#)
70 miliar euroren **heineko** ziloa. [Herria](#)
Iruñerako bidean, Juan Pedro Ferran-i ebatsi zioten orduko 9 000 pezetaren **heineko** abere eta gauza. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)
Hitzik gabeko piztien **heineko** desjende zaunkaria. [Iñaki Seguro](#)

9 **hein bat** (orobat **heinbat** g.er.) ipar poxi bat, apur bat.

Frango laster eta **hein** bat aise jarri nintzen ene bizi berriari. [Janbattitt Dirassar](#)
Gaina hartu **hein** bat aise edo **hein** bat nekez, xifreak nola hartzen diren... [Herria](#)
Batzuk diote haatik, biziki poliki mintzatuz (edo **hein** bat maltzurki ote?) hori ez dela batere egia. [Herria](#)
Hortako behar dela **hein** bat denbora... Segur hura zela, nahiz aurpegia **hein** bat kanbiatua kausitzen nion. [Herria](#)
Hitzarmen hori onartu zenean, orai **hein** bat txarra dela diotenen gauza bera ote zioten? [Herria](#)
Elixabet, **hein** bat gustukoa kausitzen duen edozeinekin ariko duk musuka. [Janbattitt Dirassar](#)
Azkenean, sukarra **hein** bat ezitu da halere. [Herria](#)
Euskara **hein** bat konprenitzen dutenak. [Herria](#)
Azken denboretan osagarria **heinbat** mendraturik zabilan. [Herria](#)

10 **hein batean** neurriren batean. ik beherago 15.

Ez zaie arrazoirik falta, **hein** batean bada ere. [Iñaki Heras](#)
Horiek guztiek zientzia, **hein** batean, jarduera hermeneutiko bilakarazten dute. [Askoren artean](#)
Hark budismoaren baitan bideratu zuen bere ezinegon existentziala [...], eta hortik zetorkion bakea eta sosegua, **hein** batean. [Juan Kruz Igerabide](#)
Bai, **hein** batean. [Itxaro Borda](#)
Errua nirea zen, **hein** batean. [Aingeru Epaltza](#)

11 **hein bateko** izlag

Iraganarekiko desleialtasuna erlatiboa da, **hein** batekoa. [Isabel Arrigain](#)
Herri hori nola atxikiko duten **hein** bateko bakean berebertasun zuzen bat berak egin artean. [Herria](#)
Fededunak **hein bateko** egoera material satisfosean aurkitzen zirelako. [Itxaro Borda](#)

12 **hein batez**, hein batean.

Bi txakur ekartzea ez ote zegoen, **hein** batez, loturik egongo simetrikotasunerako konpultsioarekin? [Xabier Olarra](#)
Isuri bakar hori, gainera, gidatzea bezala, denborarekin automatikotua zen **hein** batez. [Xabier Olarra](#)
· Datu berriok guztiok, **hein** handi batez, genetika molekularri zor zaizkio. [Juan Garzia](#)

13 **hein berean** neurri berean.

Ezen, gure irudiko gauza bat Tristuraz hunkitua dela irudikatzen dugun heinean, tristatzen gara **hein** berean. [Piarres Xarriton](#)
Denak arduratzen dira mintzairaz, **hein** berean ez bada ere. [Isabel Arrigain](#)
Bertsoka hasi zen, frantsesak eta espainolak **hein** berean aztaparkatuz. [Elena Touyarou](#)
Azken hogoi urtetako **hein** berean segituz. [Herria](#)
Egia da **hein** berean, eskolako inork ez zeukala nirea bezalako osabarik. [Aitor Arana](#)
Nehork ez duela aise onartuko laneko denboraren berriz emendatzea, bestenez ere irabaziak **hein** berean egonez. [Herria](#)

14 **hein bereko** izlag

Baina hitz hauetan hots bereizketa egitean agertuko zaizkigun zailtasunak eta benetako hitzetan ager dakigukenen **hein** berekoak dira. [Isabel Arrigain](#)

15 **hein handi batean** neurri handi batean. ik gorago 10.

Klimak markatzen baitzuen, **hein** handi batean, ekonomia zikloaren bilakaera. [Iñaki Heras](#)
Hizkuntza da **hein** handi batean nazioa egiten duena. [Isabel Arrigain](#)
Hein handi batean, kotoiaren esportazioak finantzatzen zuen inbertsio-ahalegina. [Koro Navarro](#)
Hein handi batean erantzukizun erraldoia dute, baina euskaldunek berek ere bai funtsean. [Itxaro Borda](#)
Mugimendu hori, hein **handi** batean, Mendebaldeko Europaren kaltetan egin da. [Koro Navarro](#)

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

hein bat (205); **hein bat aise** (16); **hein bat urrun** (13); **hein batean** (284); **hein bateko** (6); **hein batez** (33); **hein bera** (5); **hein berean** (97); **hein bereko** (5); **hein berekoa** (6); **hein berekoak** (6); **hein bertua** (6); **hein bertuan** (11); **hein handi** (248); **hein hori** (18); **hein horretan** (29); **hein horretara** (7); **hein horretaraino** (10); **hein hortako** (14); **hein hortakoa** (5); **hein hortan** (7); **hein hortara** (6); **hein hortarat** (27); **hein hortarat heldurik** (7); **hein onean** (5); **hein oneko** (5)

den hein berean (9); **hein bat arrazoiki** (5); **hein bat segurik** (5); **hein bat untsa** (14); **hein batean bederen** (8); **hein batean behintzat** (16); **hein batetarik harat** (5); **hein handi batean** (238); **hein handi batez** (7); **hein hortara heltzen** (5); **hein hortarat heltzeko** (6)

baten heina (9)

bere heinean (28); **dagoen heinean** (20); **daitekeen heinean** (11); **daitezkeen heinean** (6); **dauden heinean** (7); **den heinean** (317); **dezakeen heinean** (5); **digun heinean** (5); **dion heinean** (6); **diren heinean** (157); **ditudan heinean** (6); **dituen heinean** (23); **ditugun heinean** (12); **dituzten heinean** (16); **doan heinean** (27); **doazen heinean** (9); **dudan heinean** (19); **duen heinean** (96); **dugun heinean** (39); **duten heinean** (52); **garen heinean** (24); **gure heinean** (6); **heinean izan** (9); **heinean soilik** (18); **naizen heinean** (13); **zairen heinean** (7); **zaion heinean** (14); **zaizkien heinean** (6); **zaizkion heinean** (5); **zen heinean** (38); **zihonan heinean** (15); **zihozten heinean** (8); **ziren heinean** (12); **zuen heinean** (18); **zuten heinean** (8)

ahal den heinean (17); **ahal dugun heinean** (5); **ahal zuten heinean** (7); **ari den heinean** (9); **ari diren heinean** (5); **aurrera doazen heinean** (5); **aurrera zihonan heinean** (7); **bakoitxak bere heinean** (6); **barnebiltzen duen heinean** (5); **bat den heinean** (9); **behar den heinean** (6); **egiten zuten heinean** (5); **ez den heinean** (16); **ez duen heinean** (6); **funtsatzen den heinean** (5); **heinean izan ezik** (5); **joan den heinean** (5); **joan zen heinean** (14); **objektuak diren heinean** (6); **osatzen duten heinean** (5)

baten heinekoa (7); **bere heineko** (5); **heineko diploma** (6); **heiner a heldu** (7); **zein heinetaraino** (7); **zer heinetako** (7); **zer heinetan** (6); **zer heinetaraino** (9)

heintto

1 heintto bat adkor hein bat, apur bat.

Kürütxadekin, Antso-ren denboratik hürüntzen gira **heintto** bat, XI. mente ürrentzean beitziren hasi. **Herria**

2 heintto batean adkor hein batean.

Presoei ez zitzairen oren biziki gelditzen, indarrak **heintto** batean berreskuratzeko. **Eneko Bidegain**

Ez bortizki bainan **heintto** batean... **Herria**

3 heintto batez adkor heintto batean.

Beharrik, aski laster atxeman zuten **heintto** batez irauteko sistema. **Eneko Bidegain**

heizahegazkin ik hegazkin 5.

hejira iz Mahometen Mekatik Medinarako ihesaldi, musulmanen kronologiaren abiapuntutzat hartzen dena.

Mekatik Medinara Mahoma profetak egin zuen **hejira**-tik. **Iñaki Mendiguren**

Hejiraren araberako zaspigarren mendean. **Juan Garzia**

hekatonbe iz

Jainkoari ehun idi [...] opaltzeari deitzen zitzaion **hekatombe**. **Patziku Perurena**

hektara ik hektarea.

hektarea (ETCn 979 agerraldi; orobat hektara ETCn 507 agerraldi – horietako 474 Herria aldizkarian) 1 iz lur neurria, ehun area koadro edo hamar mila metro koadroren baliokidea.

Hogeitamar gela eta lau bat **hektarea** parke. **Ramon Etxezarreta**

Bost **hektarea** lur, gehiena lantzekoa. **Oskar Arana**

25 **hektara** larre dira erre, bai-eta etxola bat. **Herria**

Hamahiru **hektarea** mendi erre dira Nafarroan. **Imanol Unzurrunzaga**

Ehun **hektara** eremu falta dira Iparraldean, hemengo enpresen garapen beharrak betetzeko. **Herria**

2 **hektareako** eremua. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

San Simeon itsasoaren parean dagoen gaztelu bat da, ehunka eta ehunka **hektareako** lurrek inguratua. **Fernando Rey**

Urtegiaren bidez ureztatuko diren 57.000 **hektarea** horien jabeek. **Eduarne Elizondo**

1971n Argentinan 37.700 **hektarea** erabiltzen ziren soja hazteko. **Berria - Gaiak**

3.000 inguru familia euskaldun sartu zen, eta 131.000 **hektarea** kolonizatu zituzten Argentinako lur zabal haietan. **Pello Salaburu**

Pertsonako **hektarea** kopuruari dagokionez. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Dentsitateak **hektareako** 15 eta 30 etxebizitza bitartekoa izan beharko du, Aiaran eta Errioxan salbu. **Berria - Euskal Herria**

hektolitro iz ehun litroko edukiera neurria.

Berrogeita hamar **hektolitro** arto eskaini nion asuntzaz ahazteko; baina ez zizkidan onartu. **Juan Garzia**

Berrogeita hamar **hektolitro** ardorekin. **Josu Zabaleta**

54 eta 55 milioi **hektolitro** biltzea pentsatzen du Arnoaren Lanbide Arteko Frantziako bulegoak. **Berria - Harian**

hektolitroka adlag hektolitroa neurri hartuz; kopuru handian.

Ardoa **hektolitroka** edaten du egunero. **Txema Ramirez de la Piscina**

hektometro 1 iz hektometro kubo.

Urtegia dagoeneko %85 bete da, eta 152 **hektometro** ur ditu. **Berria - Euskal Herria**

19 txirindulari **helmugaratu** ziren denbora berean. Berria - Mundua

helpide *iz* arrisku edo larrialdiko laguntza.

XX. mende amaieran baziren munduan 11,7 milioi iheslari politiko, denon ahalkerako, non aurkituko zuten **helpide**. Pello Salaburu

helpuntu *iz* puntua nora heldu behar baita.

Hitzaren bilakaeraren abiapuntua eta **helpuntua**. Isabel Arrigain

heltze *iz* iristea.

Ezagupenei dagokien ez euren metaketa amaigabea alde batera uzten dute, euren **heltze** geldoa moztzen dute. Xabier Arregi

Heltze biologikoaren estadio naturaletatik. Xabier Arregi

Diska hau **heltze** bat da, abiatze bat bezainbat. Herria

Kanpalekura **heltze** hura. Marzel Etxehandi

Nik poliki konposatzen dut, eta, gainera, taldeak **heltze** prozesu bat izan du. Berria - Kultura

Esku **heltze** baten hoztasuna. Berria - Kultura

Obra horietan daude euskal prosaren jatorria, eredu nagusiak eta euskal irakurlearen **heltze**-bideen erreferentziak. Berria - Harian

-Gaua **heltzearekin** bat sartu zen lanbro itxia Arantzazuko partean Xabier Etxabe

helvetiar *(ETCn 23 agerraldi; orobat helbetiar g.er.) iz* suitzarra.

Helvetiarren eskuin hegala hutsik, handik iritsi zen Rooneyren bigarren gola, 75. minutuan. Berria - Kirola

Helbetiarrak sendo agertu ziren defentsan. Berria - Kirola

Helvetiarren aldagelan frantsesez eta alemanieraz baino ez da hitz egiten. Juan Garzia

helvetiartasun *iz* helvetiarra izateko nolakotasuna.

Bitxi begitandu zitzaidan, are barregarri xelege, halako milandar azentu bortitzez adieraziriko **helvetiartasun** hura. Juan Garzia

hemakromatosi ik hemokromatosi.

hematie *iz* odoleko globulu gorria, betekizun nagusia oxigenoa arnas bideetatik gorputzeko zelula guztietara garraiatzea duena.

Azken analisietako leukozito eta **hematien** zenbakia. Jon Alonso

Izan ere, norberaren zelula ametatik sor daitezke **hematieak**. Berria - Gaiak

Eritoblasto horiek **hematie** bihurtzeko prozesuan. Berria - Gaiak

Hezurretako muina da gune gakoa **hematien** ekoizpenean. Berria - Gaiak

hematita *iz burdin mea gorria edo arrea, burdin oxidoz osatua.*

Hematita grisa mineralaren burdina. **Berria - Gaiak**

hematokrito *iz odol bolumen osoaren eta zelula bolumenaren arteko heina.*

Arraunlariek odolean duten hemoglobina, **hematokrito**, retikulozito, proteina eta beste hainbat elementu neurtko dira. **Berria - Kirola**

Mendian egindako entrenamenduek **hematokrito** maila igo egiten dute. **Berria - Kirola**

Hematokrito eta hemoglobina tasak neurtzen dituen australiar erako sistema. **Berria - Kirola**

Hematokrito tasa gaintu dutenak. **Berria - Kirola**

Gure txirindulariez gain, beste batzuk ere **hematokrito** tasa muga gaintu zutela jakin genuen gero. **Berria - Kirola**

Hematokrito kontrola. **Berria - Kirola**

Erabaki genuen **hematokrito** azterketak egitea. **Berria - Kirola**

hematologiko *izond hematologiari dagokiona.*

Odol analisiak ikerketa **hematologikoak** egiteko baino ez direla hartzen. **Berria - Kirola**

Talde bereko zenbait txirindulariri egin dizkioten odol analisisetako antzekotasun **hematologikoa** harrigarria dela. **Berria - Kirola**

hematologo *iz hematologian espezialista.*

Bizpahiru urte barru gizakien odolarekin saiatzea espero dutela esan du Luc Douay ikerketa zuzendu duen **hematologoak**. **Berria - Gaiak**

hematoma *iz odolbildua, odoluria.*

Hantura desagertu dela, baina badaukala oraindik **hematoma** bat, eta eskua ukitzean mina sentitzen duela. *Arteria meningica media*-ren lesioa, hots, **hematoma** epidurala omen deritzana. **Joxe Austin Arrieta**

Ilea apaindu berri eta, baina **hematoma** afektibo batzuekin... **Joseba Sarrionandia**

hematuria *iz gernuan odola egotea.*

Sintomei dagokienez, nagusiak **hematuria**, odol ez nahastutako gernua kanporatzea, pelbiseko mina, izterreko edema, hezurretako mina eta anemia dira, besteak beste.

Berria - Gaiak

hemen *adlag* toki honetan, mintzatzen dena dagoen tokian. **ikhor¹; han.** (ikus beheko konbinatorian han adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

eseri hemen (15); **gelditu hemen** (21); **han hemen** (127); **hara hemen** (47); **hau hemen** (28)

hemen ageri (11); **hemen agertzen** (18); **hemen aipatu** (28); **hemen aipatuko** (15); **hemen aipatzen** (23); **hemen amaitzen** (23); **hemen aurkitu** (13); **hemen aurkituko** (16); **hemen aurkitzen** (11); **hemen azaldu** (13); **hemen bakarrik** (32); **hemen balego** (11); **hemen barruan** (28); **hemen behean** (14); **hemen berean** (134); **hemen bertan** (55); **hemen beti** (14); **hemen bezala** (24); **hemen bildu** (33); **hemen bizi** (147); **hemen bizitzea** (15); **hemen bizitzeko** (26); **hemen bizitzen** (11); **hemen bukatzen** (23)

hemen da (101); **hemen dago** (89); **hemen dagoela** (11); **hemen dagoen** (38); **hemen dator** (15); **hemen daude** (36); **hemen dauden** (18); **hemen daukat** (20); **hemen daukat** (18); **hemen dauzkagu** (11); **hemen dena** (29); **hemen denak** (19); **hemen denek** (12); **hemen denok** (17); **hemen dira** (29); **hemen ditugu** (14); **hemen dituzu** (11); **hemen dugu** (32); **hemen duk** (15); **hemen dut** (11); **hemen duzu** (27); **hemen duzue** (16)

hemen egin (57); **hemen egiten** (33); **hemen egon** (101); **hemen egongo** (42); **hemen egotea** (53); **hemen egoteko** (18); **hemen eman** (13); **hemen ere** (550); **hemen esan** (14); **hemen esaten** (30); **hemen eserita** (15); **hemen ez** (540); **hemen ezin** (43)

hemen gaintu (198); **hemen gaintuko** (46); **hemen gaude** (72); **hemen gaudela** (15); **hemen gauden** (16); **hemen gelditu** (50); **hemen geldituko** (36); **hemen gelditzen** (23); **hemen geratu** (49); **hemen geratuko** (43); **hemen geratzea** (11); **hemen geratzen** (18); **hemen gertatu** (17); **hemen gertatzen** (37); **hemen goian** (19); **hemen gu** (27); **hemen gure** (55)

hemen hasten (21); **hemen herri** (14); **hemen hitz** (11); **hemen horietako** (12); **hemen ibili** (11); **hemen ikusi** (20); **hemen ikusten** (33); **hemen inguruan** (35); **hemen inor** (18); **hemen inork** (11); **hemen izan** (43); **hemen izanen** (14); **hemen izango** (71); **hemen izatea** (11); **hemen jalo** (22); **hemen jarraitu** (17); **hemen jarraitzen** (11); **hemen jarri** (11)

hemen nago (86); **hemen nagoela** (17); **hemen naiz** (33); **hemen naizela** (14); **hemen naukazu** (11); **hemen nauzu** (39); **hemen nonbait** (16); **hemen orain** (20); **hemen sartzen** (12); **hemen sortu** (16); **hemen utzi** (33); **hemen utziko** (15); **hemen zaude** (19); **hemen zaudela** (11); **hemen zegoen** (16); **hemen zeuden** (13); **hi hemen** (16); **hona hemen** (898); **hor hemen** (16); **hori hemen** (30); **horiek hemen** (15); **horra hemen** (13); **huna hemen** (74); **ikus hemen** (13); **itxaron hemen** (19); **ni hemen** (145); **nik hemen** (79); **orain hemen** (74); **oraindik hemen** (17); **zu hemen** (60); **zuek hemen** (19); **zuk hemen** (17)

ari da hemen (12); **ari haiz hemen** (12); **ari naiz hemen** (15); **baina hemen ez** (38); **behar da hemen** (31); **egiten duk hemen** (13); **eta gu hemen** (19); **eta hemen bizi** (13); **eta hemen ere** (50); **eta hemen ez** (29); **eta ni hemen** (28); **eta orain hemen** (20); **ez da hemen** (65); **ez dago hemen** (47); **ez dira hemen** (19); **ez dugu hemen** (22); **ez dut hemen** (23); **gaur eta hemen** (17); **gertatzen da hemen** (23); **han edo hemen** (105); **han eta hemen** (377); **hemen amaitzen da** (17); **hemen bizi izan** (14); **hemen egon behar** (25); **hemen ere bai** (14); **hemen ere ez** (23); **hemen esaten da** (18); **hemen eta ez** (15); **hemen eta han** (24); **hemen eta orain** (23); **hemen ez dugu** (20); **hemen ez dut** (20); **hemen gaintu** (14); **hemen geratuko naiz** (11); **hemen gu biok** (13); **hemen hasten da** (16); **hemen izango da** (22); **hona hemen adibide** (14); **hona hemen gu** (16); **hona hemen gure** (11); **hona hemen jaunak** (12); **hona hemen ni** (12); **hona hemen nire** (18); **hona hemen zer** (22); **ni hemen nago** (11); **orain eta hemen** (29)

[5] aire hemendik (5); **alde hemendik** (136); **atera hemendik** (7); **banoa hemendik** (11)

hemendik abiatu (5); **hemendik abiatuta** (11); **hemendik aintzina** (58); **hemendik aitzin** (15); **hemendik aitzina** (111); **hemendik atera** (17); **hemendik aterako** (9); **hemendik ateratzen** (11); **hemendik aurrera** (739); **hemendik aurrerako** (35); **hemendik aurrerakoa** (10); **hemendik berehala** (7); **hemendik beretik** (9); **hemendik bertatik** (7); **hemendik dator** (6); **hemendik gertu** (9); **hemendik goiti** (149); **hemendik gutxira** (48); **hemendik hilabetera** (7); **hemendik hurbil** (22)

hemendik ikusi (5); **hemendik ikusten** (8); **hemendik irten** (9); **hemendik irtengo** (5); **hemendik irtetea** (5); **hemendik irteten** (6); **hemendik joan** (30); **hemendik joanak** (5); **hemendik joango** (12); **hemendik joatea** (8); **hemendik kanpo** (43); **hemendik kanpoko** (5); **hemendik kanpora** (18); **hemendik laster** (14); **hemendik mugitu** (7); **hemendik mugituko** (14); **hemendik ospa** (6); **hemendik pasa** (6); **hemendik pasatu** (7); **hemendik pasatzen** (9); **hemendik urrun** (40); **hemendik urrti** (11); **hemendik urtebetera** (9)

hoa hemendik (18); **irten hemendik** (5); **ospa hemendik** (17); **segi hemendik** (7); **zoaz hemendik** (14); **zoazte hemendik** (11)

handik edo hemendik (33); **handik eta hemendik** (86); **hemendik abiatuta argitzen** (6); **hemendik aintzina ere** (9); **hemendik aintzina ere** (9); **hemendik alde egin** (27); **hemendik alde egitea** (8); **hemendik alde egiteko** (19); **hemendik alde egiten** (5); **hemendik aurrera zer** (15); **hemendik astera** (10); **hemendik bi urtera** (9); **hemendik egun batzuetara** (8); **hemendik eta handik** (14); **hemendik hamar urtera** (8); **hemendik hilabete batzuetara** (6); **hemendik hiru urtera** (9); **hemendik kanpo ere** (8); **hemendik pixka batera** (5); **hemendik urte batzuetara** (27); **ni banoa hemendik** (6)

[5] hemengo alderdi (5); **hemengo aldi** (6); **hemengo apez** (5); **hemengo bazterrak** (6); **hemengo bazterretan** (5); **hemengo bereko** (50); **hemengo berri** (19); **hemengo berriak** (7); **hemengo beste** (7); **hemengo bi** (7); **hemengo egoera** (15); **hemengo ekonomiaren** (7); **hemengo enpresa** (5); **hemengo enpresen** (5); **hemengo errealtatea** (5); **hemengo euskal** (8); **hemengo euskara** (5)

hemengo gauzak (6); **hemengo gazte** (5); **hemengo gazteak** (6); **hemengo gizon** (6); **hemengo hau** (11); **hemengo hautetsi** (9); **hemengo hautetsiek** (10); **hemengo jende** (11); **hemengo jendea** (13); **hemengo jendeak** (21); **hemengo jendearekin** (5); **hemengo jendearen** (5); **hemengo jendearentzat** (5); **hemengo jendeari** (7); **hemengo jendeek** (6); **hemengo jendeen** (5); **hemengo langile** (5)

hemengotarra

Hemengotarra bata, frantsesa bestea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Tenientea, bi sarjentu, bi kabo, are Olaizola izeneko euskaldun bat, **hemengotar** bakarra dirudienez. [Txillardegi](#)

Galdatzen zuelako hemen sortzen diren enpleguen betetzeko momentuan, gaitasun berak zituztelarik **hemengotarrek** ukan zezaten lehentasuna. [Herria](#)

Uda betean biltzen den jendea bakantzatiarra dela eta **hemengotar** guti baizik ez dela usteko dute aintzek. [Herria](#)

Aspaldi du elgarrekin ainitz harreman baios badutela hango beltzek eta **hemengotar** zuriek. [Herria](#)

Jendea "hemengoa", muga jakinik gabeko "hemen" batekoa -zein bere "hemen"ekoa- izateak eta sentitzeak dakarrela zinezko unibertsaltasun **hemengotarra** edo hemengotasun unibertsal izengabea. [Iñaki Segurola](#)

hemengotartu, hemengotar(tu), hemengotartzen da ad hemengotar bihurtu. ik hemengotu.

Dagoeneko hasia zinen **hemengotartzen**, seguru aski... eta hanka egin behar! [Txillardegi](#)

hemengotasun iz hemengoa izateko nolakotasuna.

Delako esaldi hori ezin esan dakiok erdararen **hemengotasun** itogarria ia momenturo nozitzen ari denari. [Iñaki Segurola](#)

Jendea "hemengoa", muga jakinik gabeko "hemen" batekoa -zein bere "hemen"ekoa- izateak eta sentitzeak dakarrela zinezko unibertsaltasun **hemengotarra** edo **hemengotasun** unibertsal izengabea. [Iñaki Segurola](#)

hemengotu, hemengo(tu), hemengotzen da ad hemengo bihurtu. ik hemengotartu.

Hona jende asko etorri da eta ederki **hemengotu**. [Berria - Mundua](#)

Ramiro Arrue-renak ere bai, bizkaitar hau arras **hemengotua** baiginuen. [Herria](#)

Euskal-Herrirat heldu denak behar duela ahal bezenbat **hemengotu**. [Herria](#)

Erran ote nahi dute hitz horiek, Naiarara heltzen den erromesa **hemengotzen** dela, hiriak bereganatzen duela? [Piarres Aintziart](#)

Zizeron handiak abiatu ildotik doa Piarres Charriton, gaurkotuz eta **hemengotuz** nolazpait erromano famatu horren mezua. [Herria](#)

Izena ere kanbiatua diote, **hemengotua** nolazpait. [Herria](#)

hemenka

1 han-hemenka adlag

Han-**hemenka** puntu dirdaitsu batzuk dantzan zebiltzan iluntasunean. [Karlos Zabala](#)

Han-**hemenka** barreiatuak. [Berria - Kultura](#)

Belazeetan han **hemenka** zabaldurik zeuden basalore gorri eta urdinekin batera. [Josu Zabaleta](#)

Ibai txiki batek ilargiaren izpiak islatzen zituen han-**hemenka**. [Karlos Zabala](#)

Hainbat kanpandorre suma zitzaizketen, itzaletan lauso, han-**hemenka** beren silueta itzelak agertzen. [Karlos Zabala](#)

Ekzerretara hangar itxurako etxola txikia dago eta eskumatara negutegiak han-**hemenka**. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

• 2 han-hemenkako izlag

Orduan hasten da ordu ezaguna: han-**hemenkako** gure kontu txikien ordua, txantxa eta kexuena, bisitena, eztabaidena. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Horretaz jabeturik, han-**hemenkako** zibilizazioetan izan da beti ohitura toki horren erreferentziak egiteko. [Pello Salaburu](#)

Lagunartean eta han-**hemenkako** hitzaldietan. [Joxerra Garzia](#)

Sineskeria horrek jota daudenek estilozat daukatena ez da orrialde baten eragingarritasun edo eragingarritasunik eza, idazlearen itxurazko trebezia han-**hemenkakoak** baizik. [Juan Garzia](#)

• 3 hor-hemenka adlag

Hor-**hemenka**, hodei-antzeko ke-adar gris urdinxkak atzematen ziren mendi haien artean. [Jose Morales](#)

Alorretan, sagarrondoak eta bestelako fruta-arbolak ikusten ziren hor-**hemenka**. [Jose Morales](#)

Argiuneak agertu ziren hor-**hemenka** adar eta enborren artean. [Jose Morales](#)

hemeretzi 1 zenbtz hemezortzi eta bat, 19. (dagokion izenaren ezkerrean)

Ea norako zituzten mandioiko **hemeretzi** lagun haiek. [Inazio Mujika Iraola](#)

Hogeita **hemeretzi** txanpon, hogeita **hemeretzi** desio, hogeita **hemeretzi** eskaera. [Bernardo Atxaga](#)

Ehuneko laurogeita **hemeretzi** kasutan. [Iñaki Mendiguren](#)

Ehuneko laurogeita **hemeretzi**ko ziurtasunez jakingo bagenu. [Jenaro Garate](#)

2 (dagokion izena ezabaturik)

Beste **hemeretziak** Urtubiako andreak idatzi zituen. [Berria - Kultura](#)

Zuetako nor, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez da, beste laurogeita **hemeretziak** larrean utzirik, galduaren bila joaten aurkitu arte? [Elizen arteko biblia](#)

Hemeretzi Guardia Zibilaren atxiloteta eta inkomunikazioa jasan zituzten. [Berria - Euskal Herria](#)

Tenpluaren frontea bana bedi honela: tetrasiloa bada, **hemeretzi** eta erdi partetan. [Santiago Iruretagoiena](#)

Gure aitonak laurogeita hiru ditik, eta gure amonak hirurogeita **hemeretzi**. [Jon Muñoz](#)

Berrogeita zazpi herritatik hogeita **hemeretzi** dira landa-baserri eta nekazaritzari lotuta bizi direnak, aroaz jakitun zintzoak. [Pello Zabala](#)

3 (data adierazteko)

Akorduan dut uztailearen **hemeretzia** markatu nuela zirkulu barruan 1936ko kalendarioan. [Joseba Sarrionandia](#)

1867ko azilaren **hemeretzi**an Marianne Darré deitu kusi batekin ezkondu zen. [Patziku Perurena](#)

Abendoaren hamahiruan, mila zortzi ehun eta **hemeretzi**an, ortzirale batez, otoitzean zagon Avaloneko elizan. [Xipri Arbelbide](#)

4 (denbora unitateekin)

Ireneok **hemeretzi** urte zituen; 1868an jaioa zen. [Juan Garzia](#)

Nire adina zuenean, **hemeretzi** urte doi-doi. [Jon Muñoz](#)

Apirilean **hemeretzi** urte beteko zituen. [Juan Garzia](#)

Hemeretzi urte bete berriek ematen duten lotsagabekeriak. [Aingeru Epaltza](#)

Hemeretzi urterekin bere bizitzaren ildoak betiko markatuko zuen zerbait gertatu zitzaion arte. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Hemeretzi urteko edozein mutilek egingo lukeen bezala. [Jon Muñoz](#)

Hemeretzi urteko espetxe zigorra. Edurne Elizondo

Duela **hemeretzi** urte. Joxerra Garzia

Ospitalean pasatako **hemeretzi** egunak luzeak izan dira. Berria - Kirola

Gipuzkoa, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa zeharkatuko ditu **hemeretzi** orduan. Berria - Euskal Herria

Driss Lakhouja izan zen hirugarren, **hemeretzi** segundora. Berria - Kirola

5 (diru unitateekin)

Sei errublo eta **hemeretzi** kopek kobratzen ditu. Karlos Zabala

6 (bestelako neurri unitateekin)

Hemeretzi tanto lortu zituen. Berria - Kirola

Baina beldur naiz hori ez dela **hemeretzi** kilatekoa. Irene Aldasoro

• 7 iz

Hortxe irakurtzen da, begira, **hemeretzia**. Joseba Sarrionandia

8 hamazazpi-hemeretzi

Larrazken hondarrean, axuria saldu da hamazazpi-**hemeretzi** liberatan, Eguberri aldera, hamahirura jaisteko. Itxaro Borda

9 hemezortzi-hemeretzi

Ni oso gaztea nintzen, hemezortzi-**hemeretzi** urte. Pako Aristi

10 hemeretzi bat

-Hemeretzi bat, nik uste. Txillardegi

10a hemeretzi ehun mila eta bederatziehun.

Hemeretzi ehun -ta berroit-hamahiru. Herria

11 hemeretzi-hogei

Hemeretzi -hogei urte izango nituen orduan. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrogeita hemeretzi (7); **duela hemeretzi** (6); **hemeretzi bat** (3); **hemeretzi diputatu** (4); **hemeretzi gizon** (3); **hemeretzi hilabete** (3); **hemeretzi lagun** (7); **hemeretzi orduan** (3); **hemeretzi pertsona** (6); **hemeretzi urte** (75); **hemeretzi urteko** (23); **hemeretzi urterekin** (13); **hemeretzi urtez** (5); **hogeita hemeretzi** (28); **laurogeita hemeretzi** (17); **orotara hemeretzi** (3)

; **berrogeita hemeretzi urte** (3); **duela hemeretzi urte** (5); **hemeretzi edo hogei** (3); **hemeretzi pertsona hil** (6); **hemeretzi urte bete** (5); **hemeretzi urte zituela** (7); **hemeretzi urte zituen** (8); **hemeretzi urteko neska** (4); **laurogeita hemeretzi urte** (5)

hemeretzigarren *ord* zerrenda batean aurretik hemezortzi dituena (19.).

Hemeretzigarren mendearen hasieran. Pello Salaburu

Hemeretzigarren mendearen azken erdian. Iñaki Mendiguren

Hemeretzigarren mendeko bigarren erdiko yiddish-ari buruz. Koro Navarro

Kristau-aroko **hemeretzigarren** mendearen hasieran. Iñaki Mendiguren

Hemeretzigarren mendeko Afrikan. Iñaki Mendiguren

63 urte ditu, eta hau **hemeretzigarren** denboraldia du Manchesterren. Berria - Kirola

Abeslariaren **hemeretzigarren** diskoa. Berria - Kultura

- Hogeita **hemeretzigarren** kapitulua. Xabier Kintana

Hogeita **hemeretzigarren** eta azken atalean. Markos Zapiain

Berrogeita **hemeretzigarren** kaleko zubitik hiri barnera sartzean. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hemeretzigarren kapitulua (6); **hemeretzigarren mende** (14); **hemeretzigarren mende erdisutan** (4); **hemeretzigarren mende ondarrean** (3); **hemeretzigarren mendearen** (29); **hemeretzigarren mendearen** (16); **hemeretzigarren mendearen hasieran** (4); **hemeretzigarren mendeko** (26); **hemeretzigarren mendetik** (6); **hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera** (3); **hemeretzigarren urtean** (5); **hogeita hemeretzigarren** (7); **hogeita hemeretzigarren urtean** (3)

hemeretzigarrentiar *izond* hemeretzigarren mendekoa.

"Liberalismo bilbotar" **hemeretzigarrentiara** baita "bizkaitarismoaren" iturri inportanteenetako bat. Joxe Azurmendi

Historiografia liberal **hemeretzigarrentiar** berantaz. Joxe Azurmendi

hemeretzina *banatz* bakoitzari hemeretzi, bakoitzak hemeretzi.

Hamaseina, **hemeretzina** eta hogeina izan ziren. Berria - Kirola

hemeroteka *iz* aldizkaritegia.

Liburutegi eta **hemerroteketan** begiak erretzeraino lan eginez. Juan Luis Zabala

Bilboko eta Donostiako Liburutegi Publikoetako **hemerrotekak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemeroteka batera joan nintzen hilketa horri buruzko datu bila. Jon Muñoz

450 aldizkaritako lanak jarri dituzte **hemerroteka** birtualean. Berria - Kultura

hemezortzi 1 *zenbtz* hamazazpi eta bat, 18. (dagokion izenaren ezkerrean)

AEP gaixotasuna zuten **hemezortzi** soldaduak 19 eta 47 urte artekoak ziren. Berria - Mundua

Haren sorlekuan egin nituen neure bizitzako lehen **hemezortzi** udak. Aingeru Epaltza

Zehatz-mehatz egiten zituen alemaniarrek agindutako **hemezortzi** ariketak. Jose Morales

Hemezortzi gurpileko kamioiak ere bai. Xabier Olarra

Hogeita **hemezortzi** olio zahagi, bakar bat beterik eta gainerakoak hutsik. Patxi Zubizarreta

Biblia **hemezortzi** liburukiz osatua balego, ahaztua legoke aspaldi. Koro Navarro

Hemezortzi kontzertuk osatuko dute BOSen egitaraua. Berria - Kultura

Hemezortzi taldetan banatuta. **Berria** - Euskal Herria

Hemezortzi kanoiko ontzia. **Juan Garzia**

Hemezortzi mila lagun bat eginik. **Xabier Olarra**

Esdua aurpegiara eramateko, esku eta besoko hogeita hamabi hezurri eragiten dieten berrogeita **hemezortzi** muskuluren lana behar da. **Irene Aldasoro**

2 (dagokion izena ezabaturik)

Ordezkarri kopurua **hemezortzira** jaitea aurreikusten da. **Berria** - Mundua

Hogeita **hemezortzian**, noiz fusilatuko zain nengoela Talavera de la Reinako espetxe madarikatuan. **Koldo Izagirre**

Bortxatu egin zuten hamazazpi urte zituenean, **hemezortzi** betetzeko. **Aitor Arana**

Eta orriaren beheko partean, gerran egindako egunen kopurua: laurogeita **hemezortzi**. **Anjel Lertxundi**

3 (data adierazteko)

Hurrengo egunean, abuztuaren **hemezortzian**. **Anjel Lertxundi**

Angelun, Amodio ganbaran iraganen da urri honen **hemezortzian**. **Herria**

Ehun eta hirurogeita hamabigarren urteko Elul hilaren **hemezortzian**, Azken denbora hotan mila zortzi ehun eta hogoi eta **hemezortzian** agertu izan da bertze kongregazione eder bat. **Elizen arteko biblia**

4 (ordua adierazteko)

Seiak eta **hemezortzi**. **Iñaki Zabaleta**

5 (denbora unitateekin)

Burgerreko bezerorik zaharrenari **hemezortzi** urte jo nizkion. **Aingeru Epaltza**

Hemezortzi urte inguru zituela. **Hemezortzi** urteak aspaldi joan zitzaizkiguan. **Aingeru Epaltza**

Ez dago **hemezortzi** urteko gazterik denetarik probatu ez duenik. **Jose Morales**

Nik gidabaimena **hemezortzi** urterekin atera izan banu. **Iban Zaldua**

Orain dela **hemezortzi** urte. **Berria** - Harian

Duela **hemezortzi** urte. **Berria** - Euskal Herria

Hemezortzi urtean batera eta bestera ibilita. **Anton Garikano**

Laurogeita **hemezortzi** urtez egindako ahaleginak. **Iñaki Mendiguren**

Hemezortzi hilabete iraun duten obren ondoren. **Berria** - Mundua

Hemezortzi hilabeteren buruan bere lanpostua berreskuratu du. **Herria**

Hemezortzi hilabeteko epean. **Koro Navarro**

Ezta handik **hemezortzi** egunera ere. **Anton Garikano**

6 (diru unitateekin)

Hemezortzi bat duro aluminio kiloko. **Harkaitz Cano**

Nik ez diat **hemezortzi** euro gastatzeko asmorik. **Iban Zaldua**

7 hamazazpi-hemezortzi

Hamazazpi- **hemezortzi** urtetan, Ravelen deskubritu nuen Proust-en *A la recherche du temps perdu*. **Ana Urkiza**

8 hemezortzi-hemeretzi

Ni oso gaztea nintzen, hemezortzi- **hemeretzi** urte. **Pako Aristi**

9 hemezortzi-hogei

Gurasoeneko barride baten alabarenera jo nuen hondarrean, **hemezortzi-hogei** urtetan Charlyri esker aldirian ezagutu genituen auzoetariko batera. **Aingeru Epaltza**

Hemezortzi -hogei lerro ziren, letra handi borobilean idatziak. **Aingeru Epaltza**

Hirurogeita zazpi, bota beste hamazortzi- **hogei** bat urte soinua bizkarrean daraman gazteaz gogoratzeko. **Iñigo Aranbarri**

Hankako hezurrak, ordea, etengabe haziz doaz hemezortzi- **hogei** urtez. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken hemezortzi (6); azkeneko hemezortzi (3); berrogeita hemezortzi (8); duela hemezortzi (5); hamazazpi hemezortzi (3)

hemezortzi bat (7); hemezortzi dolar (4); hemezortzi edo (8); hemezortzi egun (7); hemezortzi film (3); hemezortzi gradu (3); hemezortzi hautagai (3); hemezortzi herri (3); hemezortzi hilabete (15); hemezortzi hilabeteko (12); hemezortzi hilabetez (4); hemezortzi hogei (4); hemezortzi lagun (6); hemezortzi metro (3); hemezortzi mila (9); hemezortzi milioi (3)

hemezortzi ordu (4); hemezortzi pertsona (4); hemezortzi puntu (5); hemezortzi soldadu (7); hemezortzi taldek (3); hemezortzi tanto (3); hemezortzi urte (123); hemezortzi urtean (5); hemezortzi urteetan (3); hemezortzi urteko (30); hemezortzi urtekoa (3); hemezortzi urterekin (19); hemezortzi urtetan (8); hemezortzi urtetik (5); hemezortzi urtez (14); hemezortzi zauritu (4)

hirurogeita hemezortzi (5); hogeita hemezortzi (27); laurogeita hemezortzi (6); orotara hemezortzi (4)

armadako hemezortzi soldadu (3); duela hemezortzi urte (4); hemezortzi bat urte (3); hemezortzi edo hogei (4); hemezortzi hilabeteko epean (3); hemezortzi pertsona hil (3); hemezortzi urte arteko (3); hemezortzi urte bete (14); hemezortzi urte betetzen (3); hemezortzi urte zituela (4); hemezortzi urte zituen (8); hemezortzi urteko gazte (3); hemezortzi urteko neska (3); hogeita hemezortzi urte (5); hogeita hemezortzi urteko (4)

hemezortzigarren *ord* zerrندا batean aurretik hamazazpi dituen (18.).

Hemezortzigarren kapitulua. **Askoren artean**

hemezortzigarren mendeko eraikuntza batean. **Anjel Lertxundi**

Frantziako Iraultzari buruzko kronikari bat, **hemezortzigarren** mendekoa. **Xabier Olarra**

Hemezortzigarren mendearen lehen laurdenean. **Iñaki Mendiguren**

Hemezortzigarren mendearen bukaera aldera. **Irene Aldasoro**

Hemezortzigarren mende erditsutan. **Herria**

Jeroboamen erregealdiko **hemezortzigarren** urtean. **Elizen arteko biblia**

Berkeleyko unibertsitatea, esate baterako, hogeigarren tokian dago, eta Santa Barbarakoa, berrogeita **hemezortzigarrenean**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregealdiko hemezortzigarren urtean (7); hemezortzigarren kapitulua (3); hemezortzigarren mende (6); hemezortzigarren mendean (18); hemezortzigarren mendearen (5); hemezortzigarren mendeko (15); hemezortzigarren mendetik (3); hemezortzigarren postuan (4); hemezortzigarren urtean (9); hogeita hemezortzigarren (5)

hemiplegia *iz* gorputz erdia jotzen duen elbarritasuna, burmuineko edo bizkar muineko lesio batek eragina.

Batez ere, oraindik gazte zela, **hemiplegia** batek jo eta erdi elbarri eta ia hitz egin ezinda geratu zenetik. **Hasier Etxeberria**

Dublindarrak deituko diot sailari, askok hiritzat daukaten **hemiplegia** edo paralesia horren arima salatzeke. **Irene Aldasoro**

hemisferio 1 *iz* esfera baten erdia, Lurrarena bereziki.

Iparraldeko **hemisferioari** bagagozkio. Pello Zabala

Bere jaioterrian otsaila bada ere udako giro sargoria dutelako Hegoaldeko **Hemisferioan**. Berria - Kirola

Interesa zukeela **hemisferio** australa bisitatzeko. Juan Garzia

Iraultza horrek mendebaldeko **hemisferio** lehene errepublika beltza ekarri zuen eta ondorioz, Karibeko eta Latinoameriketako herrien askapena. Berria - Gaiak

Segurtasun Lankidetzarako Mendebaldeko **Hemisferio** Institutua (WHINSEC). Berria - Mundua

2 hed

Lejarretak buruan hartu zuen kolpea eta buruko bi **hemisferioetan** izan ditzakeen odoljarioak kontrolatzeko kateter bat jarri diote. Berria - Kirola

Ezkerreko **hemisferio** lobulu okzipitalean. Xabier Olarra

Ez du merezi bi hemisferioen arteko konexioak **moztea**. Irene Aldasoro

3 irud

Gerrira gorputzaren bi **hemisferioak** lotuz. Eider Rodriguez

Titiak bi **hemisferio** banandu eta eroriak. Joseba Sarrionandia

Adin errespetuzkoaren estalki zuria irudimenak bere **hemisferioa** omen duen goiko parte horretan. Anjel Lertxundi

4 (ipar edo hego-rekin)

Ipar **hemisferioan** negua amaitu bezain laster. Berria - Ekonomia

Gainetik izekok egindako artilezko jertsea (ipar-**hemisferio** lodiena, egilearen esanetan). Unai Elorriaga

Hori dena, erabat alderantzizkoa da hego **hemisferioan**. Pello Zabala

Hego **Hemisferio** herrialdeen arteko lehia. Berria - Kirola

Hego **hemisferio** zeruaren mapa digitala osatu nahi dute. Berria - Gaiak

hemistikio *iz* poesian, eten batek bereizten dituen bertso lerroaren bi erdietako bakoitza.

Bi **hemistikio** bikiz osatua. Juan Garzia

hemiziklo 1 *iz* zirkulu erdia.

Esaten da Beroso Kaldeakoa izan zela bloke eskuairatu batean zulatutako eta latitudearen arabera ebakitako **hemizikloa** asmatu zuena. Santiago Iruretagoiena

2 aukiak zirkulu erdia osatuz eta oholtzari begira dauzkan aretoa.

Legebiltzarreko **hemizikloaren** gaineko hirugarren solairuko tribunatik. Berria - Harian

Kongresuan egon ginen **hemizikloa** ikusten. Berria - Euskal Herria

Manuel Marin Kongresuko presidentek **hemiziklotik** ateratzeko eskatu zion Ibarretxe lehendakariari. Berria - Harian

hemodialisi *iz* giltzurrun artifizialaren bidez odola araztea.

Gutxieneko zerbitzuei esker, ohiko **hemodialisi**, errehabilitazio, kimioterapia eta erradioterapia saioak egin ahal izango dira. Berria - Euskal Herria

Oinarritzkoak dira, ordea, errehabilitazioko, **hemodialisiko** eta onkologiako gaixoen zerbiztuak. Berria - Ekonomia

hemofilia 1 *iz* odola oso geldiro gatzatzea ezaugarritzat duen eritasuna, ondoretasunez transmititzen dena.

Horixe da kasua, besteak beste, **hemofilian**, sortzetiko gaitz-eratzetean eta metabolismoaren zenbait hutsetan. Juan Garzia

Hemofilia eritasun hereditarioa da. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Gutuna jaso dutenetako askok **hemofilia** eritasun hereditarioa dute. Berria - Gaiak

Odoljarioak izan dituzten pertsonak edo **hemofilia** gaitza dutenak.

hemoglobina 1 *iz* hematietan aurkitzen den kolore gorriko proteina.

Hain zuzen ere, bikoiztez bikoizte eratu dira, besteak beste, **hemoglobinen** moduko gene-familia asko. Juan Garzia

Dauden hogeit hamar aminoazido horiek konbinatuz sortzen dira proteinak, ileko kreatina edo odoleko **hemoglobina**. Pello Salaburu

Krokodiloen odola ikertzen ari dira, **hemoglobina** artifiziala sortzeko. Berria - Gaiak

Hemoglobina sintetikoa (gorputzak bere kabuz sortzen ez duen **hemoglobina**), odol transfusioak eta hazkunde hormonon erabilera antzemango dute analitika berri horrekin. Berria - Kirola

Arraunlariek odolean duten **hemoglobina**, hematokrito, retikulozito, proteina eta beste hainbat elementu neurtuko dira. Berria - Kirola

Hematokrito eta **hemoglobina** gain, beste parametro batzuk ere neurtuko dituzte. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Anemia **hemoglobina** maila baxua dutenek jasaten duten eritasuna izan zitzaketan. Berria - Gaiak

Aurten indarrean jarritako analisi berri batean retikulozitoak eta **hemoglobina** tasen batuketak onartutako mugatik gora egiten zuela ikusita. Berria - Kirola

hemokromatosi (*orobat hemakromatosi*) *iz* burdinaren metabolismoaren anomalia, azalari brontze kolorea ematen diona.

Hemokromatosiaren diagnostikoa erresonantzia magnetikoaren bidez egin ahalgo dela. Berria - Gaiak

Bada era horretako joera mordoa, halako edo halako HLA haplotipoarekin loturikoa; besteak beste, haurraren diabetes insulinarrendekoa eta **hemokromatosi** idiopatikoa, burdinaren metabolismoaren gaitz larri samarra. Juan Garzia

Hemakromatosi hereditarioa genetikoki transmititzen den gaitz ohikoenetako bat da. Berria - Gaiak

hemoptisi *iz* arnasbideetatik datorren odola jaurtzea tu egitean.

Albertok, ordea, esan zuen bere ustez ez zela **hemoptisi** bat, baizik eta seguruena urratu bat zuela zintzurtean. Fernando Rey

Idazlea **hemoptisi** krisi larri baten erdian omen zegoen. **Iban Zaldua**

hemorragia 1 iz odoljariora.

Hemorragia baten ondorioz lobulu frontaleko lesio larri bat izan zuen. Urdaileko **hemorragia** bat izan zuen atzo. **Xabier Olarra**

Hobea duk kanpoko **hemorragia**. **Koldo Izagirre**

Gaitzak barneko **hemorragiak** eragiten ditu eta, normalean, gaixoen %90 hil egiten dira. **Beria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Kleimaneke beste urdail **hemorragia** bat izan du, konortea galtzeraino. **Josu Zabaleta**

hemorroide (ETCn 101 agerraldi) 1 iz uzkiko barizea. ik odoluzki.

Hemorroideak ditu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

[Azidoak] **hemorroideak** handitzen dituzte eta sarketa mingarri bihurtzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nola sendatzen dira **hemorroideak**? **Beria - Gaiak**

Ordu bete luzez entzun zuen Roberts jauna bere **hemorroideen** deskribapena egiten, eta utzi ere egin zion, batere protestarik gabe, "herraren mahats" deitzen

hemorroideei. **Koro Navarro**

2 (hitz elkartuetan)

Duela bost urte, adibidez, **hemorroide** arteriaren lotura egiteko prozesua aurkeztu zuten AEB Ameriketako Estatu Batuetan egindako kongresu batean.

henbra iz emea.

Zorioneko andra edo kostaldeko **henbrakin** sartu beharra! **Pello Zabala**

Deakuerso, **henbrak** -kamara gainean jarri zuen ipurdia. **Unai Iturriaga**

hendaiar izlag/iz Hendaiakoa, Hendaiari dagokiona; Hendaiako herritarra.

Barda Miren Artetxe **Hendaiar** neska gaztearen aldi zen. **Herria**

Ametz Arzallus **hendaiar** bertsularia. **Herria**

Egoitz Zabaleta 22 urteko **hendaiarra**. **Herria**

Jeronimo Prieto **Hendaiar** langilearekin. **Herria**

Parada ederra Skunk **hendaiar** taldearen azken obra ezagutzeko. **Herria**

Horretan nenbilela, Anttoni Irazusta **hendaiarra** ezagutu nuen, Medecins du Monde elkarteko presidenteordea. **Hasier Etxeberria**

Bidasoaz bi aldeetan mugakide, **hendaiarra** bata eta irundarra bestea. **Txillardegi**

Hendaiarrak lehen borts kintzeak botez egin ditu. **Herria**

Errugbian, Lapurdiko derbian angeluarrak nagusitu zaizkie **hendaiarrei**. **Herria**

hendore ik endore.

henna iz ilearentzako tindu natural gorrikara.

Txima zuriak, muturra **hennaz** tindaturik zutenak, aurpegian behera amiltzen zitzaizkion. **Lopez de Arana**

hepa ik epa.

hepako iz ipar oihua, dei egitea.

Hainbestenarekin, Elixabetek **hepako** latz bat egin zidan: [...]. **Janbattitt Dirassar**

Errana nion zerbait lan sendi bazuen enetzat, aski zitzaidala **hepako** bat egitea. **Janbattitt Dirassar**

Jean-Marie eta haurrer **hepako** baten egiterat eta lagutzerat. **Herria**

hepatiko izond gibelari dagokiona.

Horretarako, gaur gaurkoz, biopsia **hepatikoa** egitea da normalena, medikuen berbetan. **Beria - Gaiak**

Giza naturaren alde emozionalaz diharduenean, "gure alde **hepatikoa**" deitzen dio. **Xabier Olarra**

hepatitiko izond hepatitisari dagokiona.

Matiasek aitzakiaren bat esan zuen, karismarik gabeko aitzakiaren bat, **hepatitikoa**. **Unai Elorriaga**

hepatitis iz gibelaren hantura.

Hepatitis zital batek jota. elgorria, A **hepatitisa**, esaterako, gaixotasun epidemikoa da. **Beria - Euskal Herria**

Errubeola, parotiditisa eta, azkenik, B **hepatitisa**. **Karlos Linazasoro**

276 gaixori C **hepatitisa** kutsatu zien anestesistarentzat. **Beria - Gaiak**

GIB birusa dutenen erdiek C **hepatitisaren** birusa ere badute. **Beria - Euskal Herria**

Gora egin duela C motako **hepatitisaren** eraginak seropositiboengan. **Beria - Euskal Herria**

hepatologia

350 profesional ariko dira bertan lanean, onkologiaren, bihotzeko fisiopatologiaren, eta terapia genikoen eta **hepatologiaren** arloetan. Berria - Euskal Herria

hepatopatia

iz gibelaren patologia.
Honako hauek dira gaitz horietako batzuk: Arteria-hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko arazoak, dislipemia, **hepatopatia**, gaixotasun neurologikoak eta depresio sindromea. Berria - Gaiak

heptakloro

iz gai gotor argizari-kolorea (C₁₀H₇Cl₇), intsektizida gisa erabiltzen dena.
Aldrina, klordanoa, DDTa, dieldrina, endrina, **heptakloroa** eta fosfato organikoak dira horietako batzuk. Berria - Gaiak

heptathlon

iz zazpi probaz osaturiko atletismo norgehiagoka, emakumeentzakoa.
Jadanik aipatu dituzte kasetariek irabaz ditzazketen urrezko medailak : Eunice Barber **heptathlon** delakoan. Herria

herabe 1

izond lotsak, nagitasunak, beldurra edo gogaitasunak eraginik, gogorik edo adorerik agertzen ez duena.
Baroja gizon **herabea** zen, lotsakorra, literatur naturalismoaren gordintasan deskriptiboa hastio zuena. Josu Zabaleta
Ilunbe ezti, amodio **herabearen** bihotz-berotzailea. Baina gero irribarre **herabe** bat eskaini zidan. Xabier Mendiguren Elizegi
Kafetegiko agurreko muxu **herabe** hura. Xabier Mendiguren Elizegi
Begiratu **herabeak** egiten zizkioten elkarrri. Koro Navarro
Hatz luzeez gainetik kendu zizkidan hondar ale ikusezinak, bular **herabeak** setiatuz. Eider Rodriguez
Leireren esku epelak bere esku **herabeak** ferekatzen. Unai Iturriaga
Esku **herabe** batez atea haztatuko balu bezala. Josu Zabaleta
Neure harridura **herabeaz** jabetzean jabaldu zen neska. Itxaro Borda
Gure aitarentzat, manera baldar, trakets eta **herabeak** zituzten pertsonak ziren "beltzak". Fernando Rey
Lore berrien usain bat, usain **herabea** oraindik ere, aldizkakoa, arina, zebilen airean. Josu Zabaleta
Enez Eussa lur mutur **herabe** honen antzera. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa izenondo balioaz)

Keinu **herabe**-uste delizios batekin. Aingeru Epaltza
Begi urdin-**herabea**.. Anjel Lertxundi

3 (erkaketetan)

Gazela bat bezain **herabea**. Oskar Arana

4 (izan aditzaz)

Polita ez izateaz gain, **herabea** zen: ez zuen deus erraten. Itxaro Borda
Une hartan, amoros bainintzen eta **herabe**. Jon Muñoz
Neska ez da jateko **herabe**. Euskaldunen alde mintzatzeko **herabe** izan ez baziren ere. Oskar Arana
Horiek ez ziren ausarkerietarako **herabe** izaten, buruzagia urrun uste bazuten. Aingeru Epaltza
Alderdi mugagaitz eta itzaltsu horretan sartzeko **herabe** gara. Xabier Mendiguren Elizegi
Geroaren uzkur eta **herabe**. Daniel Landart
- Parean zuen dantzaria, larrugorritan eta **herabe**. Aritz Gorrotxategi
Zer gertatzen zitzaion aitortu zion, guztiz **herabe**. Josu Zabaleta
Baina "ama" hitza aipatzeko **herabe**. Txillardeggi

• 5 adlag ik herabeki.

Isilune baten ondoren, esan zidan **herabe**: [...]. Koro Navarro
-Ondo, jauna -erantzun nion, **herabe**. Edorta Jimenez
Zabaltzen dio atea bere maiteari eta hantxe ikusten du mutila atari ezinago beltzean, **herabe** eta eder. Koro Navarro
-Ez nagon horren gaizki, ezta? -erdi harro, erdi **herabe**. Xabier Mendiguren Elizegi
Baietz nik, **herabe**. Xabier Mendiguren Elizegi

• 6 iz herabetasuna.

Nondik datorkigun beraz euskaldunei, politikaren aldera hain aspaldian erakusten dugun uzurreria edo **herabea**. Piarres Xarriton
Herabearen traba gaindituta. Jon Arretxe
Hastapeneko **herabearengatik** asko zabaldu zituen gero, zilegi ziren finantza operazioen mugak. Piarres Xarriton

7 herabez

Orain ez dago ahora etorritako dena muturrera esaterik, euskal-lagun-hurkoa sobera minberatzeko edo lotsagarri uzteko **herabez**. Iñaki Segurola
Hasieran, **herabez**, ni izaten nintzen esperoan, eta Ramona niregana etortzen, gogoak ematen ziolarik. Beraz gazteak ez egon **herabez**! Aingeru Epaltza

herabekeria

iz herabetasun funsgabea; herabetasuna agertzen duen egite gaitzesgarria.
Hamar luis eskaini nizkion zerbitzu xume horren truk: baina neska ahalketi bat baizik ez nuen kausitu, **herabekeriez** bete edo ahalketsua, ez neure hitz ederrez ez diruaz arrazoipidera nekarkeena. Jon Muñoz
Honek, berriz, egina zuen harengandik igurikitzen nuen guztia; **herabekeriak** aienatuak, beti eta beti maitatzeko promesak berriz ere eginak, etab... Jon Muñoz
Emakumeekin **herabekerietan** ibiltzea kaltegarria omen delakoan. Txillardeggi

herabeki

adlag herabetasunez, herabez.
Herabeki jo zuten atean. Lopez de Arana
Esku txiki batek atea leunki eta **herabeki** jotzean. Oskar Arana
Jimmy **herabeki** begiratu zuen gorantz, betaurrekodun aurpegi zabal zegoen lekurantz, hain zuzen ere. Lopez de Arana

-Ez dut nahasmendurik nahi, sinetsiezazadau, erran nuen **herabeki**. Itxaro Borda

-Maisu Lupin? -esan zion Hermioneek **herabeki**. Iñaki Mendiguren

herabetasun

iz herabe denaren nolakotasuna edo gogorik eza.

Mutilak ere, nahiz neska biziki maite duen, bere adinekoen **herabetasuna** du araino. Jon Muñoz

Maianak ez zezakeen bihotzean iltze herdoilduaren pare bermatzen zihoakion **herabetasuna** bazter. Itxaro Borda

Nire **herabetasun** gaixoberaren erruz. Anjel Lertxundi

Ahots itzalia, **herabetasun** ia patologikoa. Berria - Kultura

Emakumearen aurpegi izerditsuari **herabetasun** bozkariotsua zerion, mazela latzen gogortasunaren leungarri. Aingeru Epaltza

Erakusle eta deiktikoen jendetasuna; sintaxiaren **herabetasun** ezkutuzalea. Joxerra Garzia

Inolako **herabetasunik** gabe, lotsarik gabe, gaiztakeriarik gabe. Josu Zabaleta

Txominek elkarren arteko **herabetasun** korapiloa askatu beharrez, irriz jarraitzen du. Eneko Bidegain

Bere **herabetasun**-eza. Juan Garzia

Eta **herabetasun** apur batez aitortuko dut, halaber, askorik ezagutu ez nuen aitonaren bila abiatu arren, agian neure aita nahi nuela topatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Herabetasun oldar batek erasota, atzeratu egin nuen hari deitzeko unea. Oskar Arana

herabeti

izond herabea agertzen duena, herabez betea. ik **herabetsu**.

Eskolume **herabeti** hura. Jon Muñoz

Debot **herabeti** hura ez zen begiak jasotzera ausartzen. Jon Muñoz

Buruzagiari begirada **herabetia** egin zion. Agustin Otsoa

Banekien fida nintekeela zutaz, eta irribarretxo **herabetia** egin zidan. Anjel Lertxundi

Jimmyren alboan **herabeti** -itxurako gizon handi eta zurbil bat zegoen. Lopez de Arana

Izar **herabeti** zenbaiten argi ezdeusa baizik ez. Xabier Montoia

«Suizidioak hilketa **herabetiak** dira» idatzi zuen Cesare Pavese. Anjel Lertxundi

· Lukurreria eta iruzurrezko zurrumbilo hartan ausartu zen Demba eskuak **herabeti** luzatzen bere parte hartzeko. Anton Garikano

herabetu

herabe(tu), herabetzen da/du *ad* lotsak, nagitasunak, beldurrak edo gogaitasunak eraginik, zerbaitetarako edo oro har, gogoa edo adorea galdu.

Ez zen hargatik **herabetu** faktura aurkeztean. Aingeru Epaltza

Idoiaren irekitasunak pixka bat **herabetu** egiten ninduen, zuzen-zuzen botatzen baitzituen gauzak. Juan Kruz Igerabide

Gazteak deblauki esan du hau, zalantzarik gabe, galderak durduzatu eta arrapostuak **herabetu** duenik eman gabe. Koldo Izagirre

Jaurenea-ko nagusiak begi-ukaldi bat bota zion, eta emaztea zalu-zalua joan zen etxerantz, **herabeturik**, negarrak mantal hegiaz xukatzen zituela. Elena Touyaru

Monestier **herabetua** zela jauntxoaren aitzinean. Elena Touyaru

heraiztar

izlag/iz Heraitzekoa; Heraitzeko herritarra.

Mathieu Urrutia **heraiztar** gazteak. Herria

Bazko-egun goxo bat ukan dute **Heraiztarrek**. Herria

heraldika

iz armariak aztertzen dituen jakintza.

Akos Vajkay, aita, artxibozain jubilatua da, eta bere zaletasun bakarra, ez kasualitatez, genealogia eta **heraldika** dira. Berria - Kultura

Euskaldunon artean, gauza batek errezelotu izandu nau beti: nor bere deiturako **heraldikak**, gauza handia bezala, etxe sarreran (edo nonahi) erakusteko duen joera nabariak. Patziku Perurena

heraldiko

izond heraldikari dagokiona, harmarriei dagokiena.

Batere **heraldikoa** ez den armari bat dago erdiko ate gainean trakets margotua. Koldo Izagirre

heraldo

iz mezularia.

Eta une hartatik aurrera, egunean hiru bider **heraldoek** Elessar Erregearen etorrera aldarrikatu zuten. Agustin Otsoa

Gandalfek tronpetak jotzeko eta **heraldoek** esandakoa errepikatzeago agintzen zuen. Agustin Otsoa

Eskuinean, ezkerrean, goian eta behean aldarri egiten dute, **heraldoen** antzera. Jose Morales

Betiko justiziaren **heraldo** mehatxugarria izango naiz. Jose Morales

herbal

(*ETCn 92 agerraldi*; *orobat herbaile ETCn 31 agerraldi*) **1 izond** ahula.

Haur **herbaileen** artatzeko etxe horren 35. urteburukari besta handi bat eginen dute. Herria

Berrogeita hamar emazte eta adindu **herbailez** osatu multzo batean. Itxaro Borda

Nire bulkada **herbalak** dardaritu gabe jasateko. Aingeru Epaltza

Haize zakar batek jotako ihi **herbala** balitz bezala. Anjel Lertxundi

Adaren samurtasun hark dardarka jarri zituen nire kirio **herbalak**. Anjel Lertxundi

Ohean obratu beharrak gaixoarengan sortzen duen histasun **herbala**. Anjel Lertxundi

Argiek, hori eta **herbal**, kandela txiki baten ganora zuten beren ahulean. Fernando Morillo

Gurean satirak ez du sekula izan bizi **herbal** eta hutsala besterik. Xabier Olarra

Baina ilargiak baditu bere aldiak, argia batean halako xuri azkar eta idorrean, bestean halako **herbaile** eta minduan. Michel Oronoz

Beatriz garaia zen, **herbala**, doi-doi bat okertua. Juan Garzia

Gogoa **herbal**. Itxaro Borda

Sabeth bere bakero beltzeekin, aurpegia albo batera itzulirik, ile-mototsak hala behartuta, nola edo hala etzanda beraz, **herbal** eta hankak zabal, buztin zurbil kolore. Joxe Austin Arrieta

2 elbarria.

Herbail -aulki baten erroten zirri-zarra isila hauteman zuen Agatak. Itxaro Borda

3 *herbalik*

Herbalk sentitzen nintzen, ume koskor bat bezala negarrez hasteko gogoz. Anjel Lertxundi

herbaldu, herbal(du), herbaltzen 1 du *ad* ahuldu; elbarritu.

Kattinari so nengokion, ez nekien nola eman **herbaltzen** ninduen munduarekiko ene aburua. Itxaro Borda

Iheslaria, gehiago ezinean eta beldurrak **herbaldurik**, erortzeaz zen ia. Josu Zabaleta

Atzera egin nuen, izumenak **herbaldurik**, ozta-ozta zezelkatuz: [...]. Josu Zabaleta

Baliteke lirikarako bere barne-oldarra hilik ez izatea baina, hamarka urtetan ahitzen egon ondoan, narrasean baino ezin da atera leize-zulotik, higaturik, **herbaldurik**, itxuragaizturik. Oskar Arana

2 (era burutua izenondo gisa)

Langile **herbalduak** edo elbarrituak, ahalmen urrikoak. Herria

Txakurrak eragin egiten dio atzealde **herbalduari**, aurpegia usaintzen dio, masailak miazkatzen, ezpainak, belarriak. Oskar Arana

herbario *iz* belar bilduma.

Herbarioak, disekatutako animaliak eta idazlearen objektu pertsonalak Berría - Kultura

herbehere *iz* herri beheera.

Harritzekoa ere ez, nik uste: **herbeherea**, tropikoa, eurite-aldiko hezetasuna, eguzki berunkara. Joxe Austin Arrieta

herbeheretar *izlag/iz* nederlandarra.

Albert Bonnema **herbeheretar** tenorrak (Peter Grimes arrantzalea) eta Helene Bernardy belgikar sopranoak (Ellen Orford eskolako maistra). Berría - Kultura

Gijs de Vries **herbeheretarra**. Berría - Harian

Soldadu britainiar eta **herbeheretarrez** osatutako Armadak. Berría - Mundua

Theo Van Gogh zinema zuzendari **herbeheretarra** tiroz hil zuten atzo goizean Amsterdamen. Berría - Kultura

Andre Kuipers ESA Europako Espazio Agentziako astronauta **herbeheretarrak**.

Lucyren ama **Herbeheretarra** zen. Oskar Arana

Horretan, ingelesak, **herbeheretarrak**, poloniarak eta beste daude. Edorta Jimenez

herbeste ik **erbeste**.

herbiboro *izond* belarjalea.

Badago arau pare bat, nahikoa xelebrea baina praktikan egiaztatu dena: batetik, animalia **herbiboroa** karniboroa baino tentelagoa dela dioena; belarjaleak, ohikoa duen elikagaiari etekin guztiak ateratzeko askozaz ere heste luzeagoa daukanez, hortxe ematen du odolak lan eta denborarik luzeena, garunaren (adimenaren) kaltetan. Berría - Kirola

Etexko karniboroei (katuari, txakurrari) landarez osaturiko pentsua eta animalia **herbiboroei** animaliazko produktuak janarazi ohi zaizkie. Jon Muñoz

herbizida *iz* belar-hiltzailea.

Olio mota berriak ekoizteko edo **herbizida** berriak egiteko. Pello Salaburu

Intsektizidei aurre egiteko gai izatea eta **herbizidak** jasateko gai izatea. Berría - Gaiak

Nekazariek **herbizida** indartsuak erabiltzen dituzte uzta transgenikoak babesteko, baina **herbizida** horiek kalte egiten diete inguruko lore, tximeleta, erle eta txoriei. Berría - Harian

Herbizida kontuetan, 100 genetik goiti identifikatu ahal izan dituzte landarean produktu berriak bideratzeko egokiak izan daitezkeenak. Pello Salaburu

herbolario *iz* belarketaria.

Erdi Aroan, inolako araudirik ez izatean, espezieroak, botikeroak, **herbolarioak**, perfumegileak, argizarigileak eta konfiteroak elkarrekin nahaste samar ageri dira. Patziku Perurena

herbologia *iz* belarrak aztertzen dituen jakintza.

Herbologiako azken eskola bertan behera utzi zuten. Iñaki Mendiguren

Asteazken arratsaldean **Herbologiako** azterketa. Iñaki Mendiguren

Baina ez pentsa gero ni bera baino hobea naizenik **Herbologian**! Iñaki Mendiguren

herde *iz* lordea.

Eta zakur arrak artzain-xakur emearen gibeletik, **herdea** zeriela. Eneko Bidegain

Guretzako hitzak ez dira apaletan altxatzeko hartxuri pollitak; geure hatsez edo **herdez** zikindutako kristal biziak baizik. Patziku Perurena

Zakur **herde** horiek behin betiko xuka ahal balitza. Eneko Bidegain

herdoil 1 iz burdin hidroxido gorrixka, aireko hezetasunaren eraginez burdinaren azalean eratzen dena. ikuger¹.

Dena jaten du **herdoilak**. Ergelkeria da burdinaz egitea: **herdoilak** jaten du osorik, bi urte ere ez du irauten. **Juan Garzia**

Herdoilak jana ikusten diat kanoia. **Joan Mari Irigoien**

Garbitu eta **herdoila** kendu ondoan. **Marzel Etxehandi**

Horman erloju bat izango da, kez eta **herdoilez** zikindua, orratzak geldirik dituena, ordu hil bat erakusten, auskalo ze egun, ze gau, ze sasoi, ze urtetakoa. **Joseba Sarrionandia**

Lurralde ezberdinetan zahartu denaren txapa-azala, beste garai bateko ukitu bat, **herdoilera** iristen ez den distira-ez bat. **Harkaitz Cano**

2 irud

Hosto siku eta eroriek denboraren **herdoila** ziruditen. **Iñaki Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan)

Sasian trabatua, lokatzak erdi estalia, **herdoil** arrastoz. **Koldo Izagirre**

Herdoil -axala erortzen tabako-pototik. **Anton Garikano**

Herdoil koloreko bi merkantzi bagoiren atzetik Haragia zail eta odola **herdoil** gustuko, prakadunok. **Pello Lizarralde**

4 herdoil-aurkako iz antioxidantea.

Herdoil -aurkako baten formula, kromatoetan oinarritua. **Juan Garzia**

Kromatozko **herdoil** -aurkakoen berniz-ore dontsuan. **Juan Garzia**

5 herdoil-ontzi

Ez ginen saiatu pikategi ertzean amarratuak zeuden **herdoilontzietan** sartzen, ez genien trufa egin iraileko estropadetarako entrenatzen ari ziren atunburuei. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta herdoila (4); **eta herdoilak jaten** (3); **herdoil koloreko** (3); **herdoilak jana** (3); **herdoilak jandako** (3); **herdoilak jaten** (7); **herdoilik ez** (3)

herdoildu, herdoil(du), herdoiltzen 1 da/du ad herdoilak jan edo jo. ik ugertu.

Material merkea da, aire zabalean egonkorra, ez da **herdoiltzen**, isolatzaile termiko, elektriko eta akustikoa da eta erresistentzia mekaniko egokia du. **Berria - Gaiak**

Branka alboetako kroskoa zeharo **herdoilduta** zegoen. **Joseba Sarrionandia**

Ezpain-arte mehea eta tabakoak **herdoildutako** hortzak. **Anjel Lertxundi**

Alabaina, ideiak, irudiak, **herdoildu** egiten dira, gauza fisikoak balira bezala. **Pako Aristi**

Belaunak **herdoilduak** ukan ditut gazte samarretik. **Koldo Izagirre**

[Armak] lizunduak eta **herdoilduak** baitzeuden, hantxe zoko batean aspaldiko urtetan utzita ahaztuak. **Patxi Ezkiaga**

Aspaldi samartik baitago ene ingelesa nahiko **herdoilduta**. **Joxemari Iturralde**

Idazteko ohitura terapeutikoa **herdoil** ez dadin. **Anjel Lertxundi**

Alferkerian emandako urte horiek **herdoildu** egin ote naute? **Monika Etxebarria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Pote zahar **herdoildu** bat. Bidoi **herdoilduen**, sare meten eta kaxa askatuen artean. **Koldo Izagirre**

Lau iltze **herdoilduen** azpitik. **Koldo Izagirre**

Bien artean hari **herdoilduzko** rolloak gabarrera bota zituzten. **Pablo Sastre**

Sopleteak bezain ebakitzen zutela etxean ikasitako uste zaharren burdina **herdoildua**. **Koldo Izagirre**

Lore zuztarrak landatzen zituzten janari lata **herdoilduetan**. **Bernardo Atxaga**

Eta ohetik altxatzen naiz, makina **herdoildu** baten gisa. **Itxaro Borda**

Soinujolearen garai bateko melodia **herdoilduak**. **Berria - Kultura**

Ibaizabalen ur **herdoilduak**, Areatzako eta Udaletxeko zubien azpitik mantso-mantso. **Rafa Egiguren**

Haizeak bultzatutako kedar hondarrak ikusi ditu zeru **herdoildu** baten pean. **Pello Lizarralde**

Euskara **herdoildu** batean agurtzen gaitu. **Anjel Lertxundi**

3 herdoilduxe herdoildu samar

Lumak ditugu **herdoilduxeak** zonbeitak, baina ibiliz jartzen da aitzurra ere bere lehengo legun hartarat. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burdina herdoildu (3); **eta herdoilduak** (4); **herdoildu bat** (8); **herdoildu baten** (6); **herdoildu egiten** (3); **herdoildu eta** (5); **herdoilduak eta** (3); **herdoilduta zegoen** (4); **iltze herdoildu** (3); **zahar herdoildu** (3)

herdoildun izlag herdoila duena.

Soroa irakaz eta **herdoildun** gariz betea zegoenez. **Iñaki Mendiguren**

herdoildura iz herdoila; herdoil orbana.

Joan den egunean sua lotu da ADA lantegiko zoladura azpitan, **herdoildurak** 2000 gradutan urtzen dituen labe nagusiko elektrika harietan. **Herria**

herdoileria iz burdineria herdoildua.

ADA altzairutegiak berak milioi bat tona mugitu du, gehiena esportazioetan, parte bat **herdoileriak** sar araziz. **Herria**

Bi abantaila kausitzen dizkiote Bokaleko lantegiari: Aturri hegi hegian dela, beraz **herdoileria** zuzenean deskarga daitekeela lantegira. **Herria**

Bere labe garaian urtzen duen **herdoileria** eros prezioa. **Herria**

Zeharbide batek bere **herdoileria** hustu zezan. **Josu Zabaleta**

herdoilezin izond ezin herdoilduzkoa.

Metal **herdoilezin** pusketa bat. **Koldo Izagirre**

Altzairu **herdoilezinezko** tresnak egiteko. **Berria - Ekonomia**

herdoilgaitz *izond* ia herdoilezina.

Noizbait, altzairu **herdoilgaitzezko** txapaz egindako trenea agertu zen. **Iñaki Zabaleta**
Egitura horretatik altzairu **herdoilezinez** eginiko tutu batzuk ateratzen dira. **Berria - Kultura**
Altzairu **herdoilgaitzaren** usaina adi zitekeen nire ama zetorren aldetik. **Joxan Elozegi**

herdoilki *iz* burdineria herdoildua.

680 000 tona burdin eta **herdoilki** sarrarazi ditu enpresak. **Herria**

herdoiltsu *izond* herdoil asko duena, herdoilez estalia.

Charlyren motor **herdoiltsuaren** gibelaldean. **Aingeru Epaltza**
Burdinazko kakoen eta torloju **herdoiltsuen** kirrinkak ate-jagolea esnatu zuen. **Jose Morales**
Ahotsik behartu gabe botatako esaldi mingotsaren lurrin **herdoiltsuak**. **Juan Kruz Igerabide**

heredatu, hereda, heredatzen du *ad* herentzia bat jaso. ik **jarauntsi**¹.

Jakin zuenean etxe bat **heredatu** zuela. **Pablo Sastre**
Osabak **heredatu** zuen borda hartarat. **Joan Mari Irigoien**
Harry gauza bakar bat **heredatu** zuen aitarengandik: ikusezintasun-kapa luze eta zilar-kolorekoa. **Iñaki Mendiguren**
Ez zuen aitaren kargurik zuzenean **heredatuko**, aitik aitonagandik **heredatu** zuen bezala. **Joan Mari Irigoien**
Mutazio genetiko hori ez da **heredatzen**. **Berria - Gaiak**
Gaixotasuna **heredatzeko** arriskua %50ekoa da. **Berria - Gaiak**
Ematen zuen greziarrak [...] asiriarrak Hego-mendebaldeko Asian zuten inperio kontinental **heredatzeko** bide egokian zeudela. **Iñaki Mendiguren**
Filosofia heleniko eta indikoez erlijio paganoekin topo egin zuten, Zibilizazio Heleniko eta Indikoak gizaki primitiboagandik **heredaturiko** erlijioekin. **Iñaki Mendiguren**
Hegoaldearen konkurrentziak auzitan jarri baititu Iparaldean keynestar garaitik **heredaturiko** gizarte-usadioak. **Koro Navarro**
Beste batzuk, Pedro Páramo noiz hilko zain geratu zituan, bere ondasunak **heredatuko** zizkiela agindu ziela eta, eta esperantza horrekin bizi izan dituk oraindik batzuk. **Juan Garzia**

heredentzia (*ETCn 91 agerraldi*) *iz* herentzia.

Neure **heredentziari** uko egin behar badiot ere. **Joan Mari Irigoien**
Zerbait gisaz Kattalinen esku utzi zuen **heredentzia** ilun hori. **Eneko Bidegain**
Jaso genuena baino **heredentzia** hobea uzten dugu, Athletic gogorragoa eta jatorragoa. **Berria - Kirola**
Heredentziatzko gaitz eder bati esker. **Patziku Perurena**

heredero *iz* oinordekoa.

Mattin, beraz, primua zen -primu eta **heredero**, aitik hala erabaki zuelako-. **Joan Mari Irigoien**

hereditario *izond* hondoretasunezkoa.

Hemofilia eritasun **hereditarioa** da. **Xabier Olarra**
Gurasoetako batek gaixotasun genetiko **hereditario** bat duenean. **Berria - Gaiak**
Parkinson **hereditarioaren** Park8 aldaera eragiten duen gene bat. **Berria - Gaiak**
Gaitz **hereditario** bat, erretinak jaten dituen, astiro baina erremediorik gabe. **Xabier Olarra**
Diabeteserako joera **hereditarioa**. **Juan Garzia**
Hereditarioa da, baina ez da kutsagarria, zorionez. **Xabier Olarra**

hereje (*ETCn 120 agerraldi; orobat herexe ETCn 14 agerraldi, eta herese ETCn 44 agerraldi; cf heretiko ETCn 636 agerraldi*) *izond/iz* heretikoa.

Mingain-puntara etorri zait Prisziliano **herejeak** zioena. **Anjel Lertxundi**
Ez duk **herejeen** liburua izango, ezta? **Edorta Jimenez**
Herexeak erre egiten zituzten, suak garbi zitzan haien bekatu gorriak. **Felipe Juaristi**
Herresetzat hartu ninduela. **Joan Mari Irigoien**

herejia ik heresia.

heren 1 *iz* hiru zati berdinetan banatu den banako baten zati bakoitza.

Seiaren seirena, bat da; **herena**, bi da. **Santiago Iruretagoiena**
Laurdenaren erdiaren **herena**. **Hasier Etxeberria**
XX. mendearen lehenengo **herenean**. **Berria - Kultura**
XIII. mendearen azken **herenean** idatzia dela. **Askoren artean**
XX. mendeko lehen bi **herenetan**. **Koro Navarro**
Urte gutxian, Europak bere biztanleriaren **heren** bat galdu zuen. **Koro Navarro**
Nolanahi ere, zegoKidananaren **herena** baino ez zidaten ordaintzen. **Joxan Elozegi**
Europak eta Estatu Batuek, beraz, beren esku dute nazioarteko zuzeneko inbertsioen munduko stockaren **heren** bana. **Koro Navarro**

Petrolio gordinarren munduko erreserben bi **heren**. Koro Navarro
Likidoa galdu duela eta jatorrizkoaren **heren** batera etorri dela haren pisua. Santiago Iruretagoiena
Dintelaren zabalera **heren** batera ekarri arte estutuko da. Santiago Iruretagoiena
· **Hereneko** Sanmiguelaren eskuan komunera noa. Sonia Gonzalez

2 (hitz elkartuetan)

Garagardo bana, litro **herenekoak**. Aingeru Epaltza

3 *heren mundu*

Heren munduko herri gehienetan. Ramuntxo Etxeberri
Lur honek gero eta gehiago **heren** munduaren antza zeukala. Itxaro Borda
· Kutsu **heren** -mundutar eta etnizistaz hanpatu ideologian. Itxaro Borda

herendu, heren(du), herentzen da/du *ad* hiru zati egin.

Izan ere ezkerreko aldea bitan zatitzen baitzion orbainak, eta erdibanatuta baino, **herenduta** zeukan gizon hark bisaia. Hasier Etxeberria

herenegun *adlag* atzokoa hastean bukatu zen egunean.

Atzo Egipton nintzen, eta **herenegun** Basra hirian. Patxi Zubizarreta
Herenegun aritu ginen Irolako bordapekoak moztzen. Erretzen ari nintzen, **herenegun**, informazio aretoko leihoan. Patziku Perurena
Herenegun ere auto ilara luzeak izan ziren A-8 errepidean.
Herenegun goizean etxeratu nintzelarik, zure gutuna irakurri nuen. Jon Muñoz
Herenegun goizaldean gertatu zen isuria. Berria - Euskal Herria
Pintaketak egin zituzten **herenegun** gauean. Berria - Euskal Herria
Herenegun hil zen, gauean. Berria - Ekonomia
Herenegun gaueko hilketaz ari zen jendea. Josu Landa
Herenegun iluntzeko 20:00etan. Berria - Euskal Herria
Heldurik landaldetik, **herenegun**, ortzegunez, Merteuil andreak Italiar Komediararen eraman zezatela manatu zuen. Jon Muñoz
Nire aita **herenegun** aurrekoan hil zen, eta ez dut beste familiakiderik. Elena Touyarou
Herenegungo istiluetan. Berria - Euskal Herria
Herenegungo saioaren errepikapena. Berria - Euskal Herria
Herenegungoa askoz korapilatsuagoa izan zen. Monika Etxebarria
Hereneguneko eta atzoko mezuak entzun ditu. Patxi Zubizarreta
Herenegunez geroz, hots, lauogei urteak bete dituzenez geroztik, bere kargu orotarik erretiratu baita Roger Etxegarai kardinala Piarres Xarriton

herengila *iz*

Eta niri ez iezadan firringila deitu, **herengila** ustela! Pako Aristi

herengusu *iz* hirugarren mailako gusua.

Ez amaren aldetik ez aitaren aldetik ez zegoen gurean moja, fraide edo apaizik, amonaren **herengusu** edo bestengusu moja bat izan ezik. Xabier Mendiguren Elizegi

herensuge *iz* elezaharretako piztia izugarria, hegoak eta atzaparrak, eta narrasti gorputza dituen.

Ikusi zuen han **herensuge** bat, izaki itsusietan daitekeen itsusiena. Hidra, bederatzi buruko **herensugea**. Aurelia Arkotxa
Herensugeari musu bat ezpainetan emanen zion zaldunak zuela bakarrik libratzen ahalko, emazte itxura betiko emanez. Aurelia Arkotxa
Bere ezpataz **herensugeari** lepoa moztu ziezaion. Josetxo Azkona
Nexkatoa **herensugeagandik** libratu zuelako. Pello Zabala
Erlijioa deuseztatu gabe erregeak suntsitzea, **herensugeari** buru bakarra moztea baita. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Palermo hiririk gertu dagoen sumendia borbotka hasi zen, **herensuge** baten antzera. Felipe Juaristi
Norbert **herensuge** -kume bat zen. Iñaki Mendiguren
Loreontziak **herensuge** -gorotzeko ongarriz betetzen hasi zirenean. Iñaki Mendiguren

2 *hed*

Karrikan aldiz, **herensuge** luze itsusi batzuk ibilki, izugarriko sua botatzen zutela! Janbattitt Dirassar

2 *irud*

Aberria, zer da aberria, zertarako balio du **herensuge** hiltzaile horrek. Mikel Hernandez Abaitua
Zigarreta bat iziotu zuen, kezko **herensuge** beldurgarri bat putz egin. Unai Iturriaga

herensugetu, herensuge, herensugetzen da/du *ad* herensuge bihurtu.

Langonen zen omen bizi Hipokrataren alaba bakarra, Alosia zeritzana, Diana jainkosak **herensugetu** izan zuena. Aurelia Arkotxa
Ilunabarra hurbil baitzen eta ez baitzuten gaua hor iragan nahi biharamunean **herensugetua** izanen zelakotz Alosia. Aurelia Arkotxa

herensugetzar *iz adkor* herensuge handia.

Herensugetzar itsusi hura haitzuloan ezkutarazten. Pello Zabala
Tunning urdina, **herensugetzara** alborik albo marraztuta ihes-hodi lodi bietatik marruka, errebueltatuta itxia eginez sartu da zubi erdiraino, kolpe-leungailu baxuak eta gurpil zabalek lagunduta. Urtzi Urrutikoetxea

herentzia (ETCn 3.177 *agerraldi*) 1 *iz* oinordetza, senipartea. ik *heredentzia*.

Herentzia nire anaiarena eta zurea da, zuek zaindu duzue osaba azken eguneraino. Karlos Zabala

Etxea eta ondasunak gurasoen **herentzia**, emazte zentzuduna Jaunaren dohaina. Elizen arteko biblia

Etxeoandreak pozik zirudien idazleak berak sinatutako liburu bat **herentzian** hartzeagatik. Josu Zabaleta

Bere antza zuen mutiko guri bat baino ez zion utzi emazteari **herentzian**. Karlos Zabala

Zalantza egin nuen **herentziaren** partea itzuli ala ez... Karlos Zabala

Ordenaren lehen bi mendeetan bereziki, gogorak izan ziren Frantziskoren benetako **herentziari** buruzko eztabaida eta borrokak. Askoren artean

Pobretasuna eta bakea utzi zizkien ondare eta **herentzia** gisa. Askoren artean

Zibilizazioa mendeetan zehar poliki-poliki hartu diren sineste, ohitura eta ezagutzen **herentzia** bat da. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Jabeak ez ziren nonbait ados jartzen, **herentzia** -gorabeheraren batengatik. Anjel Lertxundi

Edo **herentzia** arazoak edukiko zituzten eta senideek nahiagoko zuten bat gutxiago egotea partila egiterakoan, bera zen premua gainera. Koldo Izagirre

3 (biologian) ondoretasuna.

Hortaz, **herentzia** geneetan transmititzen dena baino askoz zabalagoa da. Askoren artean

Aitonaren generen bat jasoko ahal nuen **herentzian** behintzat! Joan Mari Irigoien

Kriminal tipo zehatz bat, jaiotzetik estigmatizatua, fisikoki ezaugarri jakinak zituena eta **herentzia** genetikoa zela eta kriminal bihurtuko zena. Harkaitz Cano

Bere gorputzak gaitasun **herentzia** genetikokoaren oroimena falta zuen horretarako. Xabier Olarra

Sasoiko gizona izana elbarritzen ari da, gaztarotik datorkion sifiltsak eta amaren aldetik **herentzia**z datorkion neurosirako joerak elkar indartuta. Josu Zabaleta

Moralaren zentzua ez dugu **herentzia** bidez jasotzen; hartu egiten dugu, geureganatu. Ander Irizar

heresia *(ETCn 507 agerraldi; orobat herejia ETCn 17 agerraldi) iz erlijio katolikoan, Elizak dogmen aurkako jotzen eta gaitzesten duen dotrina edo iritzia.*

-Higanot zerrria! deabru **heretikoa**! Satanen eskumakila! -oihukatzen zidaten. Aingeru Epaltza

Inozentzio III.a aita santuak sortu zuen Inkisizioa 1215ean, **heresia** zapaldu eta heretikoak zigortzeko asmoarekin. Berria - Gaiak

Alife hiriko gizon bat, Pedro izenekoa, **heresiaz** salatu zuten. Askoren artean

Alemania ere **heresiaz** kutsatzera etorri al ziren galdetu zietenean. Askoren artean

Heresien erauzketaz. Juan Martin Elexpuru

Anabaptisten **heresien** kutsua hartzen diet zure hitzoi. Antton Olano

Hori esanik gezurra diozue eta **heresia**. Anjel Lertxundi

Aureliano **heresia** historionkoaren azalpen bat gaineratu zion bere lanari. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Haragizko sinbolo erotiko horregatik edo, **herejia** eta sorginkeria kontuetan ere maiz ageri da pikoa. Patziku Perurena

Eliz agintarien artean **heresia** -susmorik sortu gabe. Askoren artean

Kristau- **heresia** antihelenikoek. Iñaki Mendiguren

Kristau-erlijioarekin [...] inolako loturarik ez zuten zientzi **heresiengatik**. Iñaki Mendiguren

heresiarka iz heresia bat sortu eta hedatzen duena pertsona.

Euforbo **heresiarka** sutan erretzera kondena zezaten. Juan Garzia

Maniekar moldaeran kristauak nahiz zoroastroarrek berdin gorrotatzen zuten **heresiarka** baten zerbitzura egon zen. Iñaki Mendiguren

heresiologo iz heresietan aditua den pertsona.

Ez da **heresiologorik** haien aztura demasiatuak txundiduraz kontaktzen ez dituenik. Juan Garzia

heretiko *(ETCn 363 agerraldi) 1 izond* erlijio katolikoan, heresiari dagokiona, heresia bati lotzen zaiona. **ikhereje**.

Juan de Panoniari iritzi **heretikoak** aldeztearen salaketa egin zitzaion. Juan Garzia

Pentsamendu **heretikoan** aurkako borrokak. Askoren artean

Kristautasun **heretikoa**. Iñaki Mendiguren

Nikolaismo izeneko sekta **heretikoa**. Patziku Perurena

Mugimendu **heretikoak** ere oso zabalduak zeuden Italiako erdi eta iparraldean. Askoren artean

Izurriteek, gatazka **heretikoek**, maiz **heretikotzat** eta Jainkogabetzat hartzen eta salatzen. Piarres Xarriton

Joana **heretikotzat** jo eta justizia sekularren esku uztea. Juan Garzia

Islamiar erradikalek mehatxu egin dizute hainbatetan, eta **heretikoa** izatea eta islama profanatzea leporatzen dizute. Berria - Kultura

Islamiar erradikalek mehatxu egin dizute hainbatetan, eta **heretikoa** izatea eta islama profanatzea leporatzen dizute. Berria - Kultura

• 2 iz heresia bati lotzen zaion pertsona.

Heretikoan kontrako pertsekuzioa. Askoren artean

Jainkoak **heretikoak** su motelean erretzea exijitzen zuela frogatu zen. Juan Martin Elexpuru

Heretiko fedegabeen zorakeria. Askoren artean

Heretiko talde handia zen han. Askoren artean

Benetako **heretikoak** ordea, ezertan sinesten ez zutenak, non ziren haiek? Koro Navarro

Heretikoak zigortzeko asmoarekin. Berria - Gaiak

-Jainkoak, inaztura igorririk, ez du **heretiko** -habia horretatik harri bat harri gain utziko! Aingeru Epaltza

Aginte handiko bi ordezkari eta soldadu taldea bidali zituen **heretiko** aldra hura guztia atxilotzeko. J.M. Olaizola "Txiliiku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta heretiko (9); **eta heretikoak** (5); **heretiko baten** (4); **heretiko dela** (3); **heretikoa zela** (4); **heretikoak ere** (4); **heretikoak eta** (3)

herexa iz arrastoa.

Dakigularik Cardozok gobernu militarren **herexak** segitu zituela. Herria

Bolbora **herexa** bat bazen bi upel lerro bereizten zituen ibilbidearen punta batetik besteraino. Elena Touyarou
Eihera edo haren **herexak** aurkitu beharrez. Elena Touyarou
Gain gainetik maite dute Erdi-aroa ez baitute Iparraldeko Ameriketako Erdi-aroko **herexa** izpirik ere. Herria
Handik joan gara Vesuvio-ren pean diren Pompei eta Herculano-eko **herexetara**. Herria

hergaiztar iz Hergaitzekoa, Hergaitzen sortua.

Hor berean afaldu da **Hergaitzar** andana bat, arroltze moleta biperrekin osatuz apairua. Herria

herio *(ETCn 3.163 agerraldi)* 1 iz heriotza. (izaki eragiletzat harturik, izen berezi gisa)

Herioaren erresuman. Felipe Juaristi
Igaroak ziren azken mugatik, ibiliak **Herioaren** lurretara jotzen duen azken ubidetik. Felipe Juaristi
Herio haur bat sehaskatik hartzen. Anjel Lertxundi
Herio piztia gaiztoa baita. Fernando Rey
Herioaren hatsa batzuetan bero-beroa izaten duk, eta hotz-hotza beti gero haren eskua. Edorta Jimenez
Maitasunak beste forma batzuk hartzen ditu **Herio** atostean dagoela sentitzen dugunean. Bernardo Atxaga
Etorriko da **Herio**, eta zure begiak izango ditu. Berria - Kultura
Eurotariko zeinek irauin behar du, heriotzari **Herioaren** hortzetatik bertatik ihes eginik? Xabier Amuriza
Herioak bere atzaparkada ilunean harrapatu zituen. Iñaki Mendiguren
Han aurkitu zuten benetan beren bukaera eta **Herioaren** besarkadaren desagertu ziren. Iñaki Mendiguren
Besarkatuta zeuden, **Herioak** betiko elkartuta. Martin Anso
Hori entzunik, amak bere burua balkoitik behera bota du **Herioaren** bila. Martin Anso
Urteak joan ahalean kexu baitira biziaren luzeaz, baina **Herioaren** itzala etxeko atarian ikusi orduko, biziari lotzen zaizkio, musika aireari bezala. Felipe Juaristi
Eta ninian maitalearen azken irudia gorde nahian **Herioaren** aurka borrokan zihardutenak. Felipe Juaristi
Lortu zuen **Herioengandik** urrutiratzea. Felipe Juaristi
Nora zoaz? -itaundu zion **Herioak**, harrituta. Martin Anso
Herioak ez du ahorik, baina denok ulertzen dugu haren mintzaira. Felipe Juaristi
Herioak jotako doinua entzun eta dardaraz hasten dira gizaki-abereak. Felipe Juaristi
Biak ala biak, zuria eta gorria, Bizi eta **Herio**, etemitatearen atzetik balihoaz bezala. Felipe Juaristi
Europak laster dantzatuko zuen **Herioaren** dantza. Alberto Ladron Arana
Xuriz jantzi **Herio** dailuduna hartu dut bide lagun. Piarres Aintziart
Oi **herio** erukigabea, horrelako aita kenduz milaka eta milaka seme-alaba hiltzen dituzuna! Askoren artean

2 (mugatua) heriotza.

Pentsatzen jarririk, Maddalenen **herioak** biziaren antzekoa behar zuen. Itxaro Borda
Noranahi begira, **herioa** besterik ez nuen ikusten. Imanol Unzurrunzaga
Herioa arras hurbil ikusi zuen Alemaniara trenez eraman zuten egunetan zehar. Eneko Bidegain
Erlorjuak ere erudikatzen zuen maiz **herioa**. Imanol Zurutuza
Badaki **herioa** inguruan dabilkiola, hari batetik zintzilik duela bizia. Imanol Zurutuza
Herioak jo balitu bezala. Josu Zabaleta
Horra non beraz pizten hasia zen landare politt hori kolpez moztu zuen **herioaren** sega maltzur zorrotzak! Janbattitt Dirassar
Ez gaude **herioak** atea noiz joko zain. Aritz Gorrotxategi
Herioa bide zen agure itsua, gizon irudia hartua. Imanol Zurutuza
Poliki-poliki, berekin eramango zuela **herioak** gizona. Imanol Zurutuza
Herioak abisu ematen du batzuetan. Imanol Zurutuza
Jada **herioak** baino ez zituen askatuko. Itxaro Borda
Ron botila madarikatu hark erein zion margolariari **herioaren** hazia. Aritz Gorrotxategi
Jainko baten **herioa**, juduen herra, gizonen bekatua. Michel Oronoz
Tortura eta **herioari** ihesi zihoazenen ez laguntzea, aleman tiranoekilako kolaborazioa zen, nolabait. Eneko Bidegain
Horrelako laidoak **herioa** zuen zor. Gotzon Garate
Frantses eta espainol polizien artean kudeatu **herioaren** eskadroia zen TKA. Itxaro Borda

3 erabateko sufrikarioa; egoera guztiz larria.

Jauna, hau dun **herioa**! Anton Garikano
Galerianoak, desesperoaren **herioan**, buruz ontzen ari zen bertsoak paperera pasatu ditu letrak ondo dakizkien beste galeriano baten laguntzarekin. **Herio** hartan, hor konturatu da ehiztaria hain modu ankerrean tratatu duen neska beste inork ezin dezakeela salba, eta hor hasi da oihuka: "salba nazan, otoi, salba nazan!" Anjel Lertxundi

4 (erkaketetan)

Herio bezain gogorra maitasuna, Hilan Egoitza bezain iraunkorra maite-grina. Elizen arteko biblia
Estatua ematen du, **herioa** bezain zurbila da. Izuikaraturik eta **herioa** baino zurbilago. Jose Morales

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sukarez kordegabe egon zen luzaro, **herio**-izerdi hotzetan. **Herio** usaina dariola. Imanol Unzurrunzaga
Bizi-hondar edo **herio**-arrasto hauek. Iñaki Segurola
Herio-leize sakonetik. Askoren artean
Iruditu zait "¡Viva España!", "¡Arriba España!" diotela, eta segituan fusil deskargak eta **herio**-garrasi izugarriak. Bernardo Atxaga
Herio-marru berbera egin dute hirurek. Bernardo Atxaga
Herio-larrian den animalari oinazea arintzeko egiten du hori izadiak. Xabier Olarra
Herio mehatxuaren kontrako arma. Itxaro Borda
Herio errito eder bezain hunkigarria. Itxaro Borda
Bera gabe ilunpeak inguratutik baikaude eta **herio**-itzalean murgildurik. Askoren artean
Beste 600 giltzapeko **herio**-indizioaren zain daude. Gotzon Garate
Bi Haurrak **herio** zurrean ikusirik, hiru lagunak bi lehengusuak uretatik ateratzen saiatu ziren. Gotzon Garate
Maitagarri **herio**-iragarle bat zen. Iñaki Mendiguren
Behinbehineko **herio** zigorraren pean. Esteban Antxustegi

Zelaietako tutu luze haietatik beti kea ateratzen ikusi zuen, geldi-geldia... Francis **herio**-lerroan dago Kaliforniako presondegi baten. **Eneko Bidegain**

Herio -dantzaren festan. **Anjel Lertxundi**

6 herioan ik beherago 8.

Eta hantxe kuzkuriturik, pilota baten gisan kiribidurik, **herioan** ixten ditut begiak. **Josu Zabaleta**

Herioan hasi nintzen harrapatzen nituen paper guztiak botatzen. **Joxan Elozegi**

Amuarrainak **herioan** bihurtzen zuen bere gorputz liraina, nire bihotz-taupadak azkartuz eta. **Pako Aristi**

Paulhac herriko serorak bularrean ganibeta sartu dio, **herioan** piztiari aurre egin dionean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

7 heriozko

Heriozko arnasestu sumindu batek. **Karlos Zabala**

Euskararen **heriozko** agonia. **Iñaki Segurola**

Dragoiaren **heriozko** oihua. **Koro Navarro**

Infernuko jainkoek amodio eta **heriozko** edabeen berri jakinarazi zieten. **Juan Garzia**

Uraren kontra **heriozko** borrokan. **Koro Navarro**

Heriozko egoera horretarik nahi bainuen zernahi gostarik ere jalgi. **Jon Muñoz**

Nork askatuko du arima koitadua **heriozko** gorputz honetatik [...] ? **Imanol Unzurrunzaga**

Osoa, osatzea, osotasuna: beldur pixkat ematen duten hitzak dira barnean daramaten **heriozko** kirats terminala aditzen dakienarentzat. **Iñaki Segurola**

Isiltasun itogarri, **heriozko** batek hartzen du dena. **Josu Zabaleta**

Deabruzko begiak, bizitasun basati eta **heriozko** batez, begira-begira neuzkan milaka lekutatik. **Koro Navarro**

Zertarako eman **heriozkoak** baino izugarriagoak izan ziren ordu luze, luze haien berri. **Koro Navarro**

Huts horiek berdinduak gelditzen ziren, estaliak eta ezabatuak, baita itsusienak ere, baita handienak, mortalenak edo **heriozkoenak** ere. **Iñaki Segurola**

8 herio batean ik gorago 6.

Eta orduan kimika kakanahasi baten bila abiatzen gara **herio** batean ahal dugun lekura. **Iñaki Segurola**

Iragan dezala bizia **herio** batean (hauxe da segurantzia bakarra!). **Iñaki Segurola**

Aldartez **herio** batean naiz, eta gorputzez eta nerbioz ere hiltzen nau nire inguruan dirakien, lotan dela ere nire inguruan bizi den jendetza ikaragarri horrek. **Josu Zabaleta**

Herio batean, baina gustura idatzi dut liburua. **Joxerra Garzia**

Ez genuen galtzeko denborarik izaten, **herio** batean zihoakigun astia. **Harkaitz Cano**

9 herio estuan

Hara non hasten den zakurra, kanpoan erbi azelotan utzi zuena, itxura batean erbi arrastoa usaindu eta, zaunkaka, **herio** estuan. **Pako Aristi**

10 herio-lo

Herio -lo horretan zer amets datozkeen bizi-lor hau gainetik ken dezagunean. **Juan Garzia**

Egin argi nire begioi, ez nazan **herio** -loak har. **Elizen arteko biblia**

11 herio zelai

Sei hamarkada iragan dira Sovietar soldadoek libratu zutela Auschwitz-Birkenauko **herio-zelaia**. **Herria**

Zinez bazela nazien **herio zelaietan** gertatu zena dudan ezartzen zuen jenderik. **Eneko Bidegain**

Hotzarekin batera, gosea zuten partida, **herio** zelaietako presoek. **Eneko Bidegain**

Zinez **herio**-zelaia, han hil baitira miliun bat judu eta ez dakit zenbat buhame. **Herria**

12 herioz hil

Buruz burukoan, gure Hamlet bihoztunak [...] **herioz** hil zian Fortinbras hori. **Juan Garzia**

Bigarren aldiz duket nik **herioz** neure senarra hilko. **Juan Garzia**

Eta honekin ez du filologoak esan nahi **herioz hiltzea** opa zionik Joxemieli; ez: hiltzeko lotsarik izaten ez den adinean joan zen gizajoa, eta bego hantxe goian, berak hain polliki asmatutako berezko eta aideko guztiez gorago. **Iñaki Segurola**

13 hil eta herio

Ez zen hil eta **herio** ibili, merkatarien ondasunak ostu eta garraio, emakumeak hartu eta bortxa. **Felipe Juaristi**

14 su eta herio

Herriko ausartenaren aurka borrokatu nahi zuela, eta hark irabaziz gero barkatuko ziola herriari; bestela, su eta **herio**, ez zela harria harriaren gain geldituko. **Felipe Juaristi**

Kortsarioak berriz, lerro bakar, armak eskuetan, herria su eta **herio** suntsitzeko prest zeuden hondartza gainean, begiak zorrotz. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esan zuen herioak (3); herio batean (9); herio leize (8); herio leize sakonetik (3); herio leizeak (4); herio leizearen (5); herio leizera (12); herio zelai (8); herio zelaietako (3); herioa hurbiltzen (3); herioak jo (5); herioaren beldur (3); herioaren bila (3); herioaren hotza (3); herioaren itzala (5); neskatxa eta herioa (6); su eta herio (4)

heriogarri izond hilgarria.

Minbizi **heriogarria** oso aurreratua zuela konturatu ziren. **Josu Zabaleta**

heriogile izond gizaki-hiltzailea.

Mina eta gaitza biak **heriogile** baitira, hainbat jenderen amaiak sobera irakatsia digunez. **Xabier Amuriza**

heriosuhar (orobat herio-suhar eta heriosur g.er.) 1 adlag ahalegin bizian.

Edo agian basakaturen bat, auskalo zer, arreske edo **herio**-suhar orroka, ezin ba jakin... **Joxe Austin Arrieta**

Bulldogek ihesari eman dio **heriosuhar**. **Koldo Izagirre**

Gizakiek ikusiko balute, **heriosuhar** egingo lukete ihes ikaraturik. **Joan Mari Lekuona**

Pagasarriko gailurretik mairuak **heriosuhar** bidali zituztenak. **Koldo Izagirre**

Heriosuhar urten du nagusiaren atzetik atea zarratuz bere gazteluan bailegoan. **Koldo Izagirre**

Han ziak **heriosur** zaldi gainean. **Patziku Perurena**

• 2 izond

Hostaiaren harat-honat **heriosuar** horri. **Joxerra Garzia**

• 3 iz

Bejondreela bai lehenengo gizaldi bedeinkatu haiei, deabruaren kanoi-tresna horietakorik gabe, berorien **heriosuhar** beldurgarririk ez baitzuten izan ere **Patxi Ezkiaga**

4 **heriosuhar** heriosuhar.

Herio -suharreen oldartu nintzaian [...] bisitariak ahantzi zituzten azken galletei. **Aingeru Epaltza**

"Zer egin diozue ume gaiztaginok!" hasi zitzaigun **heriosuhar**reen, arrastaka gela ilun batera eramaten gintuela. **Harkaitz Cano**

Eta **heriosuhar**reen leihotik salto egin nian, Polixene malkotan utzita. **Pako Aristi**

Galtzak lurretik jaso eta **heriosuhar**reen janzten hasi zen. **Pako Aristi**

heriotza *(ETCn 53.349 agerraldi; orobat heriotze ETCn 3.950 agerraldi –horietatik 3.409 Herria aldizkarioak-)* 1 iz biziaren etena; giza bizitzaren bukaera, hiltzea.

Jaiotzatik **heriotzara**. **Askoren artean**

Sortzetik **heriotzeraino**. **Piarres Aintziart**

Bera, ordea, igaroa da **heriotzatik** bizitzara. **Askoren artean**

Bizia eta **heriotza**, bi anaia ama batenak. **Iñaki Seguro**

Lainoetan dago dena, loaldetik **heriotzatik** bezain hurbil. **Pello Lizarralde**

Heriotzako ordua arte. **Bernardo Atxaga**

Nire **heriotzako** egunean. **Askoren artean**

Heriotzako ohean gogoratzen zuen bere emazte zena. **Imanol Zurutuza**

Asisen iritsi zitzaion **heriotza**, 1226ko urriaren 3ko ilunabarrean. **Askoren artean**

Komunistak zirela beren semearen **heriotzaren** errudunak. **Josu Zabaleta**

Bada, hiritik zetorrena **heriotza** zuan, **heriotza**, zaldi zuriaren gainean: heroina! **Pako Aristi**

Meatzari arrunt baten **heriotza** meatzari arrunt bat hiltzen da. **Josu Zabaleta**

Bi arrano agertu ziren, eta denen buru gainetik igaro hegaz; **heriotzaren** distira zeramaten begietan. **Juan Kruz Igerabide**

Txekistak, **heriotza** bezain zurbil. **Pablo Sastre**

Esan egia, Eugeni, ez al diozu sekula inori **heriotza** opa izan? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Heriotza merezi du. **Bernardo Atxaga**

Hala ere, herri horrek betiko **heriotza** merezi arren, Jainkoak erruki izan zion luzaroan. **Askoren artean**

Argitu gabeko beste **heriotza** bat Basurtoko ospitalean. **Josu Landa**

Bi **heriotze** izan ditugu. **Menane Oxandabaratz**

Urriaren 2an **heriotze** bat izan da "Kerlore" etxean. **Herria**

Izura: 2 sortze, 6 **heriotze**. **Herria**

Herri horietan beretan gertatu ziren HIESaz hildako beste 2 milioi **heriotza**. **Pello Salaburu**

Heriotza dakarten eritasunak. **Pello Salaburu**

Heriotza eragiten duten gaixotasunak. **Pello Salaburu**

Etsipen une bat behintzat behar du **heriotzara** doala dakienak. **Koldo Izagirre**

Neure burua urkatzea baino hobea dut Jaunari **heriotza** eskatzea. **Jose Antonio Mujika**

Susana **heriotzara** bidaltzeko prest. **Jose Antonio Mujika**

Zuk **heriotzara** kondenatu duzun hori. **Askoren artean**

Burgoseko kartzelan **heriotzara** kondenaturiko euskaldunen argazkia. **Ramon Saizarbitoria**

Haurtzaroan [...] **heriotzaren** atzaparretatik libratua izan nintzen. **Askoren artean**

Heriotzaraino maite izan zaituenaren oroimena. **Felipe Juaristi**

Elurra **heriotza** bezain zuria da. **Karlos Linazasoro**

Eurotariko zeinek irauin behar du, **heriotzari** Herrioren hortzetatik bertatik ihes eginik? **Xabier Amuriza**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lagunaren **heriotza** goiztiarra. **Imanol Unzurrunzaga**

Heroi eta martiri askok izandako **heriotza** ohoragarri eta eder bera. **Jose Morales**

Giza hiltzaile eta biraolari hark **heriotza** negargarria izan zuen atzerrian. **Elizen arteko biblia**

Heriotza bortitzez hilko zara itsas erdian. **Elizen arteko biblia**

Heriotza hotza nahi ez, eta **heriotza** naturala irentsi ezin dituenari zer gelditzen zaio?: **heriotza** beroa gelditzen zaio; beroa, errea eta suzkoa. **Iñaki Seguro**

Sinesgabeel dagokien **heriotza** lotsagarria izango duzu atzerritarren eskutik. **Elizen arteko biblia**

Hilda dago eta **heriotza** duina izan du: goian bego! **Agustin Otsoa**

Frantzisko santuaren **heriotza** zoriontsua. **Askoren artean**

Monteverdiren *Lamento d'Arianna* eskaini zuten, musikari veneziarrek Caterina Martinelliren ezusteko **heriotzak** eragindako minez sortua. **Felipe Juaristi**

Norberak nola egiten dion aurre ezin saihestuzko **heriotzari**. **Jose Morales**

Errugabeek bakarrik nozitzen dute han indarkeriazko **heriotza**. **Iñaki Iñurrieta**

Gorputzeko **heriotzaren** ondoren. **Askoren artean**

Katalepsiazko **heriotza** guztietan gertatzen den bezala. **Koro Navarro**

Berehalako **heriotzak** eraman zuen. **Askoren artean**

Bat-bateko **heriotzak** mutil osasuntsua nola eraman zuen ikusiz. **Askoren artean**

Gillotinarik ezagutzen ez zenean, legezko **heriotza** emateko modu asko zegoen Frantzian, beste lurraldeetan bezala. **Felipe Juaristi**

3 (izaki eragiletzat harturik) ik herio.

Seme-alabak **heriotzaren** atzaparretan erortzen ikustea. **Imanol Zurutuza**

Gaixotasunaren eta **heriotzaren** magaletan ia erortzekotan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Heriotzaren atean jo dute, gu denek egun batez joko dugun bezala. **Herria**

Eguzkiari eta **heriotzari** ezin zaie zuzenean begiratu. **Anjel Lertxundi**

Ongi etorri, ene arreba **heriotza**. **Juan Garzia**

Bere gogarenik zegoenean etorri zitzaion **heriotza** ate joka Erramuni. **Imanol Zurutuza**

Heriotzak marfilezko hagin batekin ebaki zuen bizia. **Jasone Osoro**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta **heriotza** -eguna iristean, eduki uste zuten guztia kendu egingo zaie. **Askoren artean**

Espirituz ikusi zuen gizon hark hurbil zuela **heriotza** -ordua eta azken epaia. **Askoren artean**

Hilarrarian. Tipiren aurrekoen zerrenda oparoa irakur zitekeen, bakoitzaren sortze eta **heriotza** datekin batean. **Aingeru Epaltza**

Heriotza -trena. **Felipe Juaristi**

Soldaduak, baina, ez zion orduko deus ere ulertu; tinpanoak txikituta baitzeuzkan morterokada bat zela medio, eta bakar-bakarrik aterata zen **heriotz zelaira**. Josetxo Azkona

Alde guztietan **heriotza** -zantzuak ikusten hasiko zara. Iñaki Mendiguren

Sigfridoren **heriotza** -martxa magikoaren notak. Alberto Ladrón Arana

Ama hizkuntza eta **heriotza** -hizkuntza ez baitira izaten beti bat eta bera. Felipe Juaristi

Zein zen **heriotza** -tasaren batez bestekoa sexu bietan. Karlos Zabala

Heriotza -oroigarri mordoxka aterata zuen barnetik. Joxemari Urteaga

Heriotza -kausa arruntena. Iñaki Mendiguren

Ez zen ikaratu, ordea: ez tortura-mehatxuengatik, ez eta **heriotza** -arriskuagatik ere. Askoren artean

Alferrikoak izan dira dueloan aritzen direnen aurkako **heriotza** ediktuak. Juan Martín Elexpuru

Indartsuenak irabaziko du eta **heriotza** epaia ezarriko dio ahuleneri. Juan Martín Elexpuru

Heriotz -epaileordeak [...] inkesta bat egin du gaur Dublin Hiriko Ospitalean Emily Sinico andrearen heriotzaren inguruan. Irene Aldasoro

Soldadu alemanen **heriotza** -gosearen neurria zenbaterainokoa zen. Felipe Juaristi

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenlagun balioaz)

Hormako erloju **heriotza** -iragarleak. Koro Navarro

Hogei kanoi, zilarbizia baino distiratsuagoak hogeiak, **heriotza** -emaile gotorrak. Felipe Juaristi

Femio aedoa ere [...] Ker **heriotza** -ekarlea saihestu nahian zebilen. Juan Kruz Igerabide

Monsieur Guillotinek, ordea, ez zekien bera ere asmakizun **heriotza** -leungarria bere buruaz ordaintzeko zorian egongo zela. Felipe Juaristi

6 heriotza-agiri

Heriotza agiria herrian sinatua zen, 1937ko maiatzaren 7an. Edorta Jimenez

Hirugarrena, **heriotza-agiria**, Udaleko funtzionarioaren eskuetan. Aingeru Epaltza

Schenker doktoreak, italiarrak ederki ordainduta, **heriotza-agiri** faltsu bat eginen zuen, neskaren heriotzaren benetako kausa ezkutatu. Alberto Ladrón Arana

Lehenagoko batean ekarri zidan **heriotza** -agiria aterata nion. Edorta Jimenez

Sendagileekin hitz egin ondoren, **heriotza-agirian** Gipuzkoako datuak jarri zituzten, bertan hil balitz bezala. Xabier Etxabe

Heriotza agirien liburuکو beste orrialde haren fotokopia luzatu zidan. Edorta Jimenez

6a heriotza-bide

Askotxo ziren, eta askotxo haien **heriotza** bideak ere: errepide eta lan istripuak, bihotzekoak, minbizia, hiesa... Xabier Montoia

Bizibidea **heriotz** -bide. Joxerra Garzia

Euskara **heriotza** bidean ipini zuen hipergarbizalekeria. Koldo Zuazo

Ipar Euskal Herrian euskara **heriotza bidean** dela azpimarratu du. Berria - Euskal Herria

Biak baitira denbora neurrigabeak guregana iristeko dituen bideak: bizitza eta **heriotza bideak**, ase eta gose bideak, amets eta eldarnio bideak, itxaropen eta etsipen bideak. Felipe Juaristi

7 heriotza egin

Champs-Élysées aldera joan nintzen, urte batzuk lehenago bitariko **heriotza egin** nuen etxerantz. Matías Múgica

· Garzes Arbizukoak harako hura, hamalau **heriotzen** egile krudela. Patziku Perurena

8 heriotza eman

Nork, non eta nola eman zion **heriotza**, hori ez nuen galdetu. Eta **heriotza** emateko prest. Edorta Jimenez

Fikzioan, don Pedro borrokan ikusten genuen, bere buruaren defentsan dispartatzen, damu hartzen lagun hurkoari **heriotza** emateagatik. Bernardo Atxaga

Emazte Dallaren iruzurra, eta bere buruari **heriotza** eman zionekoa. eta aurreneko aldiz denbora askoan, aurreneko aldiz **heriotza eman** nahi izan ziotenetik, ireki egin zitzaizkion belarriak. Jose Antonio Mujika

· **Heriotza** eman diote Antonio Blanco Rico koronelari. Edorta Jimenez

Inori **heriotza** emateko tentaldia. Edorta Jimenez

· Legezko **heriotza emateko** modu asko zegoen Frantzian, beste lurraldeetan bezala. Felipe Juaristi

Oinazetik gabeko **heriotza** eman diezaioket. Oskar Arana

Heriotza gaiztoa eman genion Salviatierra jaunari. Felipe Juaristi

9 heriotza toki

Trabes egiten zuen hildakoaren gorpu burugabea artean **heriotza tokian** zegoelarik [...] ea zenbat metro egingo ote zituen buru gorpugabeok pirrika aurrera, gorputik kenduz geroztik. Felipe Juaristi

Alemanentzat Auschwitz eta poloniarrentzat Oswięcim deitzen den **heriotzatokian**, Felipe Juaristi

10 heriotza-zigorr

Heriotza-zigorra injustua da, eta ez da ez beharrezkoa eta ez eraginkorra. Askoren artean

Gaur egun 78 herritan dago indarrean **heriotza zigorr**. Berria - Gaiak

Europako Batzordearen arabera, bestalde, Ameriketako Estatu Batuek eta Japoniak **heriotza zigorr** indargabetu behar dute nazioarteko behatzaile lanetan jarraitu nahi badute. Berria - Gaiak

Libiak **heriotza zigorr** ezarri die sei medikuri. Berria - Gaiak

Konspirazio baten berri jakin eta salatzen ez duenak **heriotza-zigorra** du. Berria - Kultura

Moisesen legea hausten duenari, **heriotza-zigorra** ematen diote gupidarik gabe. Xabier Etxabe

Francok, urte horren amaieran, bederatzia **heriotza zigorr** ezarri zituen ETAko sei kideren kontra. Markos Zapiain

Kerry ez dela **heriotza zigorraren** aldekoa. Berria - Mundua

Senarra **heriotza zigorrera** kondenatu eta gero. Berria - Euskal Herria

Agintzen da, **heriotza-zigorpean**, inork ez dezala harresietatik salto egin. Berria - Euskal Herria

Burdinaren garraioa **heriotza-zigorpean** debekatu zuten. Herria

Senarra **heriotza-zigorrez** noiz hilko zuten zain. Herria

11 heriotzaren korridore

Kaliforniako San Quentin kartzelako heriotzaren **korridorean** zegoen preso zaharrena zen. Berria - Mundua

Iragan astean barkamena eman zien heriotzaren **korridorean** dauden 1.220 presoiei. Berria - Mundua

"Gu ez gara mundu honetakoak", adierazten zuen Jacksonvilleko **Heriotzaren Korridorean** kondenaturiko gizon batek. Harkaitz Cano

12 heriotzaz hil

Senide eta ezagun guztiak galduta, beren **heriotzaz hiltzea** besterik ez zaie geratzen zahar askori, momentu batetik aurrera. Imanol Zurutuza

Iraganaren kontsolamendua geratzen zaio maite izandako horrenbeste lagunen heriotzaz hainbestetan hil ondoren bere **heriotzaz hiltzea** besterik geratzen ez zaionari. Imanol Zurutuza

· Batak bestea heriotza ankerrez **hil** arte. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

heriotz zigorra (16)

aitaren heriotza (18); **amaren heriotza** (12); **anaiaren heriotza** (8); **anguloren heriotza** (23); **anguloren heriotza salatzeko** (13); **arafaten heriotza** (6); **arriba heriotza** (7); **artean heriotza** (9); **azken heriotza** (6); **baina heriotza** (21); **baino heriotza** (10); **baino heriotza gehiago** (8); **baiza heriotza** (7); **bat bateko heriotza** (6); **bat heriotza** (6); **batean heriotza** (7); **batek heriotza** (6); **bateko heriotza** (6); **baten heriotza** (54); **baten heriotza eragin** (6); **bati heriotza** (6); **bere heriotza** (48); **berruetaren heriotza** (8); **beste heriotza** (12); **bi heriotza** (17); **bi heriotza zigor** (8); **bigarren heriotza** (7); **bizia eta heriotza** (8); **bizitza eta heriotza** (22); **da heriotza** (42); **dela heriotza** (8); **den heriotza** (11); **dira heriotza** (7); **du heriotza** (31); **duen heriotza** (9); **duenak heriotza** (15); **duenak heriotza zigorra** (14); **dut heriotza** (14); **dute heriotza** (16)

edo heriotza (29); **eragindako heriotza** (7); **ere heriotza** (11); **errazkinen heriotza** (26); **errazkinen heriotza salatzeko** (14); **estebanen heriotza** (6); **eta ez heriotza** (6); **eta haren heriotza** (6); **eta heriotza** (234); **eta heriotza zigorra** (17); **ez heriotza** (12); **frantziskoren heriotza** (8); **gabeko heriotza** (6); **gaztearen heriotza** (8); **gure heriotza** (6); **haien heriotza** (10); **haren heriotza** (58); **haurren heriotza** (6); **haurren heriotza** (18); **haurren heriotza tasa** (9)

heriotza agiria (6); **heriotza argitzeko** (11); **heriotza arratsaldean** (6); **heriotza arriskuan** (6); **heriotza arriskutik** (10); **heriotza arte** (24); **heriotza asko** (7); **heriotza aurrez** (6); **heriotza aurrez aurre** (6); **heriotza baieztatu** (7); **heriotza baino** (29); **heriotza baino ez** (7); **heriotza baino okerragoa** (6); **heriotza baizik** (6); **heriotza bat** (24); **heriotza baten** (14); **heriotza bera** (36); **heriotza bera baino** (10); **heriotza bera ere** (9); **heriotza beste** (6); **heriotza bezain** (8); **heriotza bezala** (7); **heriotza bizitzaren** (8); **heriotza da** (29); **heriotza dakar** (9); **heriotza dela** (35); **heriotza dela eta** (28); **heriotza duina** (10); **heriotza duinaren** (7)

heriotza edo (15); **heriotza eguna** (9); **heriotza ekarri** (19); **heriotza ekarri zuen** (6); **heriotza ekarriko** (8); **heriotza eman** (17); **heriotza emateko** (8); **heriotza epaia** (6); **heriotza eragin** (92); **heriotza eragin du** (7); **heriotza eragin zion** (6); **heriotza eragin zuen** (32); **heriotza eragin zuten** (13); **heriotza eraginda** (11); **heriotza eragiten** (32); **heriotza eragiten ditu** (6); **heriotza eragiten duen** (6); **heriotza ere** (31); **heriotza ere eragin** (7); **heriotza eta** (108); **heriotza eta beste** (9); **heriotza eta bizitza** (6); **heriotza ez** (53); **heriotza ez da** (14); **heriotza ez dela** (9); **heriotza gehiago** (14); **heriotza gehiago eragiten** (6); **heriotza gehien** (11); **heriotza gehien eragiten** (6); **heriotza gertatu** (11); **heriotza gertu** (8); **heriotza goiztiarra** (9); **heriotza guztiak** (6)

heriotza hain (10); **heriotza hauek** (8); **heriotza hori** (11); **heriotza horiek** (12); **heriotza horien** (10); **heriotza horrek** (6); **heriotza horren** (14); **heriotza hurbil** (16); **heriotza ikertzeko** (10); **heriotza iragarri** (6); **heriotza iragartzen** (8); **heriotza izan** (17); **heriotza izango** (9); **heriotza kausa** (15); **heriotza kausa nagusia** (9); **heriotza mehatxuak** (17); **heriotza mehatxuak** (6); **heriotza merezi** (23); **heriotza merezi du** (6); **heriotza onartu** (6); **heriotza ondoren** (16); **heriotza opa** (6); **heriotza oso** (6); **heriotza ostean** (19); **heriotza salatu** (19); **heriotza salatu dute** (9); **heriotza salatzeko** (88); **heriotza tasa** (23); **heriotza tasak** (6)

heriotza zein (6); **heriotza zela** (11); **heriotza zela eta** (10); **heriotza zen** (8); **heriotza zibila** (6); **heriotza zigor** (17); **heriotza zigorra** (304); **heriotza zigorra eskatu** (6); **heriotza zigorra eta** (8); **heriotza zigorra ezarri** (43); **heriotza zigorra ezartzeko** (6); **heriotza zigorra ezartzen** (11); **heriotza zigorra izango** (23); **heriotza zigorra merezi** (9); **heriotza zigorrak** (19); **heriotza zigorrarekin** (6); **heriotza zigorraren** (51); **heriotza zigorraz** (6); **heriotza zigorrera** (28); **heriotza zigorrera kondenatu** (10); **heriotza zigorrera kondenatzen** (6); **heriotza zigorrik** (9)

horrek heriotza (6); **igor anguloren heriotza** (12); **Jesusen heriotza** (7); **karmele solagurenen heriotza** (25); **lagunen heriotza** (29); **lagunen heriotza eragin** (13); **Ian heriotza** (7); **langile baten heriotza** (6); **langilearen heriotza** (9); **lehen heriotza** (6); **leo estebanen heriotza** (6); **milioi heriotza** (6); **neure heriotza** (9); **nire heriotza** (22); **oihane irrakzinen heriotza** (18); **pertsoneren heriotza** (16); **pertsoneren heriotza eragin** (10); **presoaren heriotza** (12); **presoen heriotza** (6); **riveroren heriotza** (6); **sanchizen heriotza** (15); **semearen heriotza** (6); **solagurenen heriotza** (35); **solagurenen heriotza salatzeko** (17); **zen heriotza** (27); **zenaren heriotza** (6); **zibilen heriotza** (6); **zion heriotza** (12); **zuen heriotza** (30); **zure heriotza** (15); **zuten heriotza** (9)

aitaren heriotzak (6); **amaren heriotzak** (6); **arafaten heriotzak** (9); **baina heriotzak** (7); **bat bateko heriotzak** (7); **bateko heriotzak** (7); **baten heriotzak** (9); **bi heriotzak** (7); **du heriotzak** (7); **eragindako heriotzak** (7); **eta heriotzak** (35); **gaztearen heriotzak** (7); **haren heriotzak** (19)

heriotzak banatu (6); **heriotzak berak** (7); **heriotzak eragindako** (11); **heriotzak eraman** (6); **heriotzak eta** (18); **heriotzak ez** (41); **heriotzak ez du** (9); **heriotzak salatzeko** (9); **presoen heriotzak** (8); **sainzen heriotzak** (7); **sanchizen heriotzak** (8); **zuen heriotzak** (9)

bere heriotzako (12); **eta heriotzako** (11); **heriotzako eguna** (14); **heriotzako eguna arte** (11); **heriotzako egunean** (6); **heriotzako ordua** (11); **heriotzako orduan** (18)

bizitzan eta heriotzan (10); **eta heriotzan** (15); **heriotzan ere** (9); **heriotzan ez** (7)

eta heriotzara (28); **heriotzara arte** (6); **heriotzara emango** (17); **heriotzara emango dute** (10); **heriotzara eraman** (10); **heriotzara kondenatu** (18); **heriotzara kondenatua** (10); **heriotzara kondenatuak** (7); **heriotzara kondenatuko** (6); **heriotzara kondenatzen** (6); **heriotzara zigortu** (8)

eta heriotzarekin (7)

aitaren heriotzaren (13); **anguloren heriotzaren** (10); **arafaten heriotzaren** (12); **arafaten heriotzaren ondoren** (6); **baina heriotzaren** (8); **baten heriotzaren** (14); **bere heriotzaren** (33); **bizitzaren eta heriotzaren** (20); **da heriotzaren** (18); **du heriotzaren** (10); **dute heriotzaren** (8); **edo heriotzaren** (8); **en heriotzaren** (7); **eta heriotzaren** (97); **eta heriotzaren artean** (7); **eta heriotzaren arteko** (18); **gaztearen heriotzaren** (7); **haren heriotzaren** (53); **haren heriotzaren berri** (12)

heriotzaren albistea (8); **heriotzaren ardura** (6); **heriotzaren arrazoia** (7); **heriotzaren arrazoiak** (17); **heriotzaren arrazoiak argitzeko** (8); **heriotzaren artean** (11); **heriotzaren arteko** (19); **heriotzaren atarian** (12); **heriotzaren atzaparretatik** (8); **heriotzaren aurka** (6); **heriotzaren aurrean** (27); **heriotzaren beldur** (20); **heriotzaren beldurra** (9); **heriotzaren berri** (98); **heriotzaren berri eman** (12); **heriotzaren berri izan** (18); **heriotzaren berri jakin** (8); **heriotzaren berria** (17); **heriotzaren bigarren** (9); **heriotzaren bila** (9); **heriotzaren eragilea** (6); **heriotzaren erantzule** (19); **heriotzaren errua** (9); **heriotzaren errudun** (12); **heriotzaren eta** (30); **heriotzaren gaia** (6); **heriotzaren gainean** (11); **heriotzaren gaineko** (9); **heriotzaren harira** (8); **heriotzaren inguruan** (24); **heriotzaren inguruko** (21); **heriotzaren itzala** (10); **heriotzaren karabana** (6); **heriotzaren korridorean** (9); **heriotzaren lehen** (8); **heriotzaren lekuko** (6); **heriotzaren mendeurrena** (8); **heriotzaren mendeurrenean** (7); **heriotzaren nondik** (8); **heriotzaren nondik norakoak** (7); **heriotzaren ondoren** (47); **heriotzaren ondorengo** (6); **heriotzaren ondotik** (6); **heriotzaren ordua** (7); **heriotzaren orduan** (9); **heriotzaren ostean** (19); **heriotzaren sindromeak** (6); **heriotzaren urteurrena** (7); **heriotzaren zain** (21); **heriotzaren zergatia** (7)

eta heriotzarena (8); **idazlearen heriotzaren** (7); **jasser arafaten heriotzaren** (6); **nire heriotzaren** (12); **presoaren heriotzaren** (9); **presoen heriotzaren** (6); **sanchizen heriotzaren** (6); **semearen heriotzaren** (6); **solagurenen heriotzaren** (7); **zen heriotzaren** (11); **zuen heriotzaren** (8); **zure heriotzaren** (8); **zuten heriotzaren** (6)

eta heriotzari (22); **heriotzari aurre** (14); **heriotzari aurre egiteko** (8); **heriotzari buruz** (28); **heriotzari buruzko** (30); **heriotzari eta** (7); **heriotzari ihes** (13); **heriotzari ihes egin** (10)

bere heriotzaz (11); **eta heriotzatik** (11); **eta heriotzaz** (25); **heriotzatik hurbil** (16); **heriotzatik salbatu** (6); **heriotzaz ari** (6); **heriotzaz eta** (7); **heriotzaz gerotzik** (9); **heriotzaz hitz** (8)

bi heriotze (58); **bi heriotze horiek** (11); **bi heriotze izan** (15); **bi heriotze ukan** (6); **ditugu heriotze** (6); **ditugu heriotze hunek** (6); **doluminak heriotze** (11); **doluminak heriotze hunek** (7); **dugu heriotze** (6); **eskaintzen ditugu heriotze** (6); **eta heriotze** (14)

eta heriotzeak (6); **haren heriotzearen** (9); **heriotze horiek** (21); **heriotze horiek hurbildik** (7); **heriotze horrek** (12); **heriotze horrek hunkitzen** (7); **heriotze hortaz** (16); **heriotze hortaz hunkiak** (11); **heriotze hunek** (24); **heriotze hunek hunkitzen** (11); **heriotzen berri** (8); **heriotzen harira** (7); **presoen heriotzen** (9)

heriotzaratu, heriotzara(tu), heriotzaratzen du *ad* heriotza bidali.

Ostera, egun bakarrak ez zituen milaka gizon, banderapean eramank, **heriotzaratzen**, ez itsasoko ur nahasiek ere untxiak eta gizonak haitzen kontra apurtzen. **Xabier Amuriza**

heriotzatxo *iz adkor* heriotza.

Hil-ondoko bizia edo betierekoa, jaio-aurreko bizialdiak, bizi-bitarteko **heriotzatxo** behin-behinekoak. **Iñaki Segurola**

heriotze ik **heriotza**.

herkide ik **herrikide**.

herkidetasun ik **herrikidetasun**.

herkulear *izond* Herkulesi dagokiona, Herkulesen duin dena. ik **herkuleo**.

Denak ez dituzte konfiskatu noski, lan **herkulearra** litzateke hori, eta ez dago denborarik hain zorrotz ibiltzeko. **Karlos Linazasoro**

herkuleo *izond* 1 herkulearra.

Nondik atera zituen Fray Rogeirok esleitu zitzain lan **herkuleoa** egiteko indarrak, horixe ez dakigu. **Jon Alonso**

2 zutabe herkuleoak *pl* mundu ezagunaren amaiera adierazteko Herkulesek ipiniak.

Oinarri-esakune seguruez osatutako bere mugen determinazioaren bitartez, zeinak bere *nihil ulterius*-a konfiantza handienaz izadiak berak ezarri dituen zutabe **herkuleoei** lotzen dien, honela gure arrazoimenaren bidaia etengabe luzatzen diren esperientziaren kostaldetaraino soilik jarraitzeko. **Ibon Uribarri**

hermafrodita *izond* pertsona edo animaliez mintzatuz, bi sexuen ezaugarriak edo organoak dituen ik **androgino**.

Hermafroditak dira, alde batetik badute bular bat eta bertetik ez, zakila eta alua elkarren ondoan dituzte eta aldizkatuz dituzte erabiltzen. **Aurelia Arkotxa**

Sekula ez nuen zehaztu ahal izan emakumea edo gizasemea ote zen, edo giza irudi bikoitz bat, halako gizaki edo bikote **hermafrodita**, emakumea eta gizasemea batean.

Joxan Elozegi

Hartxo biribil bat zen, zentimetro erdi luze, **hermafrodita**. **Juan Garzia**

«Transexualak eta **hermafroditak**, esaterako, ez dira naturak eman dien sexuarekin gustura sentitzen», esan du. **Berria - Gaiak**

hermeneuta *iz* hermeneutikan aritzen den pertsona.

Fisika, medikuntza edo geologian aditu direnen arteko inkomunikazioa poeten, **hermeneuten** eta hizkuntzalarien artean dagoenaren paretzukoa delakoan nago. **Anjel**

Lertxundi

hermeneutika *iz* testuak interpretatzeko teknika edo metodoa.

Azken boladan, zenbait filosofo analitiko [...] **hermeneutikaren** metodologietara hurbildu dira. **Askoren artean**

Arrazoia **hermeneutikatik** ontologiara jauzaraziz. **Joxe Azurmendi**

Shakespearearen **hermeneutikak** ez du Shakespearearen tokia hartu. **Anjel Lertxundi**

Polisemia **-hermeneutika** eta beste zentzu bat aurkitzea baimentzen duena- esaldiari dagokio. **Xabier Arregi**

Grabitate kuantikoaren **hermeneutika** aldatzaile baterantz. **Pello Salaburu**

Bide hori nabariagoa da **hermeneutika** -metodoaz baliatzen direnengan, bereziki Paul Ricoeur batengan. **Askoren artean**

Hermeneutika -saio luzeak. **Jon Alonso**

hermeneutiko *izond* hermeneutikari dagokiona.

Horiek guztiek zientzia, hein batean, jarduera **hermeneutiko** bilakarazten dute. **Askoren artean**

Dakienaren itxura (dekonstruktibo eta **hermeneutiko** itxura bat) aurpegian idatzia dakarren tipo bat arrimatu zaizu. **Iñaki Segurola**

hermetiko 1 *izond* erabat itxia, gasak ere ezin igaro diren eran itxia.

Ate **hermetiko** bat besterik ez, metalezkoa. **Agurtzane Juanena**

Poltsa **hermetikoetan** sartu. **Oskar Arana**

2 ezagutzen edo ulertzen zaila dena.

Liburu **hermetikoetan** ageri denez, behean dagoena goian dagoenaren berdina da, eta goian dagoena behean dagoenaren berdina. **Juan Garzia**

8421 iluna da, kontzeptuala, guztiz hotza eta **hermetikoa**. **Berria - Kultura**

Poesiaren ikuspuntutik begiraturik, Larkinen testua ez da batera **hermetikoa**, aise hartzen zaizkio iradokizun agerikoenak. **Anjel Lertxundi**

Begiak hetsi zituen, eta komunzki **hermetikoa** zuen aurpegia auhen beltzuri batean bildu zitzaion. **Elena Touyarou**

Horixe da hirietako libertatearen jokalekua, eta libertate **hermetiko** bat da hura: hiri-maiteek berek aitortzen dute hiriko libertaterik preziatuena inork inoren berri ez jakitea dela. **Iñaki Segurola**

hermetikoki *adlag* era hermetikoan.

Hermetikoki ixten den ontzia. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hermetikoki itxitako hotel gela epel batean bakartu. **Markos Zapiain**

Hermetikoki zigitaturik. **Xabier Olarra**

hermetismo *iz* hermetikoa denaren nolokotasuna.

Hermetismoak liluratu, ala argitasun erabatekoak. **Anjel Lertxundi**

hernaniar *izlag/iz* Hernanikoa, Hernaniri dagokiona; Hernaniko herritarra eda han jaio dena.

Hernaniar emazte harpa jolde hunek segurtatzen du aspaldidanik Benito Lertxundiren ondoan bigarren boza. **Herria**

Aitor eta Amaia Parrondo **hernaniar** anai-arrebek lortu zuten garaipena. **Berria - Kultura**

Joxe Luis Urdangarin **hernaniar** bertsolaria nagusitu da Zarauzko Udalak antolatutako Basarri bertso paper lehiaketaren aurtengo ekitaldian. **Berria - Kultura**

Esther Lopez **hernaniarrak**. **Berria - Kirola**

Gorka Loran eta Garikoitz Arruarte gazte **hernaniarren** espetxeratzea.

Hernaniarrak bergararren aurka aritu ziren. **Berria - Kirola**

hernia (*ETCn 443 agerraldi; orobat ernia ETCn 17 agerraldi*) *iz* organo bat irtetea, babesten duen ehunaren etetearen ondorioz gertatzen dena. ik **eten²; etendura**.

Joan izeneko gizon gazte bat hesteetako **hernia** batek oinazetua zegoen. **Askoren artean**

Gizentasunak eragindako **hernia** bat zuelako. **Berria - Euskal Herria**

Izterrondoko **hernia** sortu zitzaion Pedro izeneko gizon bat miragarriro sendatu zuen. **Askoren artean**

Bihotzerrearen kausak, berriz, hiatoko **herniari** lotutakoak dira. **Berria - Gaiak**

Bihotzaren pareko orno batean... **hernia** bat... **Iñaki Iñurieta**

Biek **hernia** diskala dute, eta ezin dute jokatu. **Berria - Kirola**

Hain **hernia** larria jasan zuen bi urtez, non heste gutziak ateratzen baitzitzaizkion sabalpetik. **Askoren artean**

herodetar *izlag/iz* Herodesi dagokiona; Herodesen jarraitzailea.

Zeloteen helburua **herodetar** bitartekoen bidez lortu nahi izatea. **Iñaki Mendiguren**

Fariseuen formalismo, saduzearren materialismo, **herodetarren** oportunismo eta zeloteen fanatismoarekin nahastua. **Iñaki Mendiguren**

Herodetar asimilazionista zirenen gaitzespena ere bereganatu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Judu-**herodetarrek** Herodes baino askoz lehenago ere izan ziren. **Iñaki Mendiguren**

herodianismo *iz* Herodesen jarraitzaileen doktrina politikoa.

Zelotismoa eta **herodianismoa**. **Iñaki Mendiguren**

Historian ezagutu diren **herodianismoaren** praktikatzailerik erabatekoenak pagano izandako eskandinaviar barbaro inbaditzaileengan aurkituko ditugu. **Iñaki Mendiguren**

Japoniako **herodianismo** modernoa. **Iñaki Mendiguren**

heroi (*ETCn 7.358 agerraldi; orobat heroe ETCn 56 agerraldi*) **1** *iz* (eskuarki gizonezkoen mintzatuz) Jainko eta gizaki baten semea edo alaba; pertsona bikaina eta bere egitandientatik ospetsua; gerran edo, egitandi bat burutu duen pertsona. ik **heroina**².

Heroien arraza, izan ere, brontzezko arraza zen, berriro deskribatua. **Iñaki Mendiguren**

Kausarik ez badago [...] ez dago **heroiarik**, ez traidorerik. **Jon Alonso**

Heroia heroi gerta dadin, etsai gorrotagarria du beharrezko. **Joseba Zulaika**

Ez doilor eta ez **heroi**. **Juan Garzia**

Ez ginen ez **heroi**, ezta martiri ere. **Edume Elizondo**

Heroiek ez dute halakorik egiten; honelakoak egiten dituztenak kriminalak dira. **Berria - Harian**

Orduan ikusi genituen benetako **heroiak**, azken odol tantaraino borrokatu zirenak. **Alberto Ladron Arana**

Militarra, gerra zibileko **heroia**. **Jon Muñoz**

Jose Bové globalizazioaren kontrako **heroi** bihurtu zuten. **Pello Salaburu**

Frantzisko Irigoi egunerokotasunaren **heroia** izan zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Wagnerren **heroien** parekoa nintzen, Egiaren alde egiten bainuen. **Alberto Ladron Arana**

Heroien balentriekin. **Anjel Lertxundi**

Alferrik duk **heroiarena** egitea. **Juan Garzia**

Herioitzat hartzen baikintuzten, askatasunaren alde borrokan ari ginelako. **Juan Kruz Igerabide**

Alderdi guztietako politikari eta hedabide gehienek begi onez hartu dute akusazioa; beste batzuek, ordea, **herioitzat** jo dute Daschner. **Berria - Mundua**

Grezia sekula egin duen txapelketarik onena egiten ari da, eta etxean **herioitzat** dituzte jokalariek. **Berria - Kirola**

Gure herria **herioiez** mukurua bete da. **Itxaro Borda**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Danimarkako **heroi** nazionala. **Martin Anso**

Zuk oso begiko dituzu **heroi** erromantikokoak. **Heroi** umiliatua baina anonimoa izango nintzen. **Jon Muñoz**

Baina **heroi** txikiak ere beharrezkoak dira. **Iban Zaldúa**

Herioirik adoretuenek. **Elizen arteko biblia**

Biziaren ankerrak anonimotasunean ilundutako **heroi** akitu honek. **Koldo Izagirre**

Abraham ez da inoiz **heroi** tragiko bat izan, zerbait guztiz desberdina baizik, hiltzaile edo sinesle bat izan zen. **Joseba Zulaika**

Bera baino bost aldiz handiagoko ogi-puska baten garraioan ari zen inurri guztiz **heroi** prometeiko bati begira. **Anjel Lertxundi**

Boterea baita Akileo bezalako **heroi** homerikoak [...] daukan helburu bakarra. **Askoren artean**

Leningradoko **heroi** defendatzaileen monumentua. **Edorta Jimenez**

Pinotxok zalduntzako **heroien** herentzia darama berarekin. antzinako **heroiak** dira hauek, izen handikoak. **Elizen arteko biblia**

Pakistango ustezko **heroien** benetako aurpegia. **Berria - Mundua**

Ernest Hemingwayk Habanan nahi du bere eleberriko **heroi** nagusi Gustavo Duran. barbaroak etorkizunik gabeko **heroiak** direla. **Edorta Jimenez**

Gerrako **heroia**? **Edorta Jimenez**

3 (emakumezkoa) ik **heroina**².

Badakite emakume hori espainiar **heroi** bat dela. **Jon Muñoz**

Haren aldamenean Bobelina emakume **heroi** grekoa ikus zitekeen. **Jose Morales**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fede onez hartzen baitu egia historikotzat **heroi**-arrazaren irudizko deskribapen homeriko bat. **Iñaki Mendiguren**

Heroi-egintza horientatik guztiengatik. **Oskar Arana**

Gure **heroi**-premia asetzeko. **Joxerra Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kosakoen matxinadaren buruzagia izan zen Chmielnitzki, eta gaur egun ukrainar herri **heroi** nazionaltzat hartzen dute askok. **Koro Navarro**

Azkenean buruz ezagutzen dut nobela **heroi** eder hori! **Jon Muñoz**

Putre-**heroiak**, "hiri-arpilatzaileak". **Iñaki Mendiguren**

Izan zitekeen egia Terrence-k xarmarik ez edukitzea, baina super-**heroi** teknologiko bat zen. **Oskar Arana**

Xabainator super-**heroia** plazan da. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

benetako heroi (3); **bere heroi** (6); **beste heroi** (4); **da heroi** (3); **edo heroi** (3); **eta heroi** (10); **euskal heroi** (3); **ez heroi** (4); **gure heroi** (3); **heroi bakarra** (4); **heroi bat** (26); **heroi baten** (18); **heroi baten gisa** (4); **heroi bati** (3); **heroi berria** (4); **heroi bihurtu** (12); **heroi bihurtzen** (4); **heroi eta** (6); **heroi gisa** (4); **heroi gisan** (3); **heroi handien** (3); **heroi izan** (4); **heroi moduan** (4); **heroi nazional** (4); **heroi nazionala** (3); **super heroi** (5)

bateko heroia (3); **benetako heroia** (3); **duen heroia** (3); **ematea eta heroia** (5); **eta heroia** (6); **gerrako heroia** (3); **heroia da** (5); **heroia eta** (6); **heroia izan** (9); **heroia izan zen** (3); **heroia izango** (4); **heroia zen** (6); **honetako heroia** (4)

bere heroiak (3); **duen heroiak** (4); **eta heroiak** (7); **gure heroiak** (3); **heroiak behar** (3); **heroiak direla** (3); **heroiak eta** (7); **heroiak eta traidoreak** (3)

da heroiaren (3); **eta heroiaren** (16); **eta heroiaren gaia** (8); **heroiaren gaia** (8); **heroiaren gaia izeneko** (3); **super heroiaren** (6); **traidorearen eta heroiaren** (8)

bere heroi (3); **eta heroi** (3); **eta herioitzat** (3); **ez dago herioirik** (4); **herioiek ez** (4); **heroi** (3); **heroiaren artean** (3); **heroi** (4); **herioitzat hartzen** (5)

heroiko *izond* heroaiari dagokiona, heroismoa adierazten duena.

Manta gaineko jipoiek, elektrodoek, bainerak edo plastikozko boltsek militantziaren alderdi beldurgarri baina aldi berean **heroikoaren** imajineria osatzen zuten. **Aingeru**

Epaltza

Enperadoreak ohore militarrek eta noble-titulua emango dizkio bere salbatzaile **heroikoari**. Gure soldaduen erresistentzia **heroikoaz** mintzo zen. **Anjel Lertxundi**

Gerrak bertute **heroikoak** eskatzen ditu. **Iñaki Mendiguren**

Ausardia **heroikoa**. **Anjel Lertxundi**

Zer dagokio gaur egun abertzaletasun **heroikoari**? **Joseba Zulaika**

Hormatzararen aurreko poesia **heroikoak** miresmena eta emozioa sortzen dizkigu euskaltzaleoi. **Joseba Zulaika**

Tragikotasun **heroikoa** ezin da tragikotasun modernoarekin ulertu. **Askoren artean**

Edonolako basakeriak dira Aro **Heroikoaren** ezaugarri nabarmenak. **Iñaki Mendiguren**

Gorroto zuen Smith-en erromantizismo joria, haren imintzio landuegiak eta bulkada sasi **heroikoak**. **Oskar Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aro heroiko (6); **aro heroikoa** (10); **aro heroikoak** (3); **aro heroikoan** (3); **aro heroikoaren** (6); **heroiko baten** (3); **heroiko eta** (3); **heroikoak eta** (3)

heroikoki *adlag* era heroikoan.

Heroikoki, bere eginbidea betetzen ari zela. **Juan Garzia**

Haren grina estimatua izan zen 1924ko hauteskundeetan eta **heroikoki** eutsi zion 1925ekoetan. **Patxi Zubizarreta**

heroikotasun *iz* heroikoa izateko nolakotasuna.

Kontuz, ordea, ongia erakitzeko gaizkia baliatzen dutenekin: **heroikotasunaren** itxura ematen bazaio, gezurra errazago irensten da egia baino. **Anjel Lertxundi**

Zure **heroikotasunak** ez zuen inolako ordainik jaso. **Lourdes Oñederra**

heroina¹ *iz* morfinatik eratorririko gaia, droga-mendekotasuna sortzen duena.

Bada, hiririk zetorrena heriotza zuan, heriotza, zaldi zuriaren gainean: **heroina**! **Pako Aristi**

Heroina hartu eta terrazan etzanda egoten nintzen, ardi zahar bat bezala. **Pako Aristi**

Heroina esnifatzie kriston txorradie da, neska. **Sonia Gonzalez**

Kanada eta Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, herritarren %2k **heroina** hartu dute noizbait eta %5ek kokaina erre dute. **Berria - Gaiak**

Heroinak hondatu zuen arte. **Joan Mari Irigoien**

Emmanuel **heroina** injektatzen ari zunan. **Joan Mari Irigoien**

Honetan, jonki mokordoa garrasika hasi da **heroinaren** lausotik: [...]. **Patxi Iturritegi**

Nik **heroina** aukeratu nuen / edozeinek neska batekin hastea / erabakitzen duen bezala. **Pako Aristi**

Eta nik ere maitale zaharra ahaztu eta **heroina** egin ninan maitale berri, paradisu artifical hartan. **Joan Mari Irigoien**

David gainbeheran amildu zen urte mordoxka batez, eta **heroinaren** atzaparretan erori zen azkenean. **Oskar Arana**

Heroinaren erabilera terapeutikoa. **Berria - Euskal Herria**

2 (kopuruetan)

Operazio berean 7.000 dosi **heroina**, 4.000 dosi kokaina eta 15.000 euro aurkitu dituzte. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Aiztokada-zauriekin edo gehiegizko **heroina**-dosiekin. **Oskar Arana**

Eguneroko bere kezka bakarra **heroina** txute bat edo bi sartzeko behar duen dirua lortzea da. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat heroina (3); **eta heroina** (7); **eta heroinaren** (4); **heroina atzeman** (4); **heroina eta** (4); **heroina hartzen** (3); **heroinaren erabilera** (4); **heroinaren erabilera terapeutikoa** (3); **kilo heroina** (4)

heroina² (*ETCn 28 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **heroi** agertzen da*) *iz* emakumezko heroia. ik **heroi 2**.

Croupierra Bronxeko bonet-handi batentzat, Chick bere lagunarentzako "gamelua" (dagoeneko horrela deituak), merkatu beltzeko **heroina** (heroia, fem.), edo usinan/fabrikari gerizak txokolatetz trenpatzen ari, Faigelek bere lagunak hautatzen ditu, eta azkeneraino fidela zaie. **Pablo Sastre**

Croupierra Bronxeko bonet-handi batentzat, Chick bere lagunarentzako "gamelua" (dagoeneko horrela deituak), merkatu beltzeko **heroina** (heroia, fem.), edo usinan/fabrikari gerizak txokolatetz trenpatzen ari, Faigelek bere lagunak hautatzen ditu, eta azkeneraino fidela zaie. **Pablo Sastre**

"Neu naiz neure **heroina**", erantsi zuen Marie Baxkirtseffek. **ETC-literatura, saiakera**

Scully, Lili Rush eta Samantha Spade ziren nire **heroinak**. **ETC-literatura, saiakera**

Noiz eta 40.000 urtean, Barbarella **heroina** eder xarmantari Lur planetako agintariak beste argizagi itzali batean bizi den jakintsu gaizto oso gaizto bat harrapatzeko enkargua eman diote. **ETC-literatura, saiakera**

Oro har, jende umilei, sekulan kontuan hartzen ez direnei, lekua, heroinen eta **heroinen** lekua ematea maite dut. **ETC-literatura, saiakera**

Etxea zaintzen du, Larzabalek konfiantza itsua dauka bere **heroinetan**. **ETC-literatura, saiakera**

Eta gainera, nola haserretu eta jazarri **heroina** baten, erresistentziako baten, basakeriaren biktima baten aurka, neure burua zapaltzaileen eta borroeroen eremuan sentitu gabe? **ETC-literatura, saiakera**

Heroidak (**Heroinen** gutunak) liburuarekin, berberak idatzi zuenez, "era eta bide berriak asmatu ditut orain arte ezezagunak eta ibilgabeak". **ETC-prentsa**

Ika-mika dago orduko giroa galdu izanaren ardura polizia-**heroinel** egozten dietenen eta hori porrot soziologikoa ezkutatzeko aitzakia dela diotenen artean. **ETC-prentsa**

heroinazale *iz* heroinaren zale dena. ik **yonki**.

Ondarruko Marian **heroinazale** ohiaren lekukotasuna. **Berria - Kultura**

Etorkinak, prostitutak, arlosteak, **heroinazaleak**, boxeolariak. **Berria - Kultura**

heroinomano *iz* heroinazalea.

heroismo *(31 agerraldi, 18 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 181 agerraldi)* 1 iz heroiar dagozkion nolakotasunen multzoa. ik heroitasun.

Oso ongi ohartzen nintzen **heroismoaz** harrotzen nintzela. **Monika Etxebarria**

Ez diot traizio egingo Sagoni bere **heroismoa** edo bere apaltasuna goraipatuz. **Josu Zabaleta**

Baina iragan ziren lirikarako eta **heroismorako** denborak, antza. **Joan Mari Irigoien**

Heroismo premodernoa da hori: subjektuak guztia arriskatzten du Kausagatik. **Joseba Zulaika**

Uko horrek **heroismo** klasikoaren "bizitza ematea" munstrokeria bihur dezake. **Joseba Zulaika**

Herrialde edo kausa baten alde hiltzea **heroismo**-ekintza alfer eta zentzugabe bihurtzen da ziur froga daitekeenean herrialde hori patriotarekin batera galduko dela. **Iñaki Mendiguren**

2 **heroismozko izlag** heroikoa.

Jendeak ekintzak nahi ditu ikusi, **heroismozko** ekintza handiak. **Josu Zabaleta**

heroitasun *(13 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 113 agerraldi)* iz heroismoa.

Nire asmoa ez zen **heroitasuna**, mendekua baizik. **Alberto Ladron Arana**

Bien jardueran **heroitasun** handia ikusten dut. **Berria - Kultura**

Demagun, ordea, gure gizarteko bertuteen artean **heroitasunak** rol garrantzitsua duela. **Askoren artean**

heroizitasun iz heroikoa denaren nolakotasuna.

Heriotzaren irudia agertzen da garbi margolan guztietan, eta ez dago bertan mitoaren **heroizitasunaren** arrastorik. **Berria - Kultura**

heroizitate iz heroikoa denaren nolakotasuna.

Heroizitate handirik gabeko gizon-emakumeak. **Berria - Kultura**

herots iz harrabotsa, zarata. ik arrabots.

Rock musika edo musika klasikoa edo isiltsunaren musika goizaldeetan: hor daude kanpoko **herotsak**. **Ana Urkiza**

Bestelako **herotsak**, arraragoak, eraman zituen haizeak gauaren hegaletan: oihuak, hausten ziren kristal hotsak. **Itxaro Borda**

Botz-garagailuetik desira prefabrikatuaren **herotsak** estereotan hegaldatzen ziren. **Itxaro Borda**

Ardien joare **herotsarekin** batera, goragailuetarik ekaitz ari zen haizearena entzun zen handik laster. **Itxaro Borda**

Kanpotik zetozen auto **herotsak** baizik ez zirela entzuten. **Itxaro Borda**

herpes iz larruazalaren hantura, birus batek sortua.

Zoster **herpesa** zela esango zien Sedó doktoreak. **Imanol Zurutuza**

Betondoko **herpesa** atera aurretik. **Imanol Zurutuza**

Barrabiletan **herpesa** neukan. **Berria - Euskal Herria**

herra *(ETCn 1.952 agerraldi)* 1 iz gorrotoa, ezinikusia.

Jainko baten herioa, juduen **herra**, gizonen bekatua. **Michel Oronoz**

Nire **herra** eta nire mendeku nahia. **Matías Múgica**

Zein sineste politikok justifikatzen zuen **herra** hori? **Itxaro Borda**

Ordu haietako jendeak, gaur bezala, gerla eta bakea, amodioa eta **herra**, basakeria eta goxotasuna uztartzen zituen. **Piarres Aintziart**

Baina beilariaren haserrean ez dago **herrarik**, halako pairamen bat baizik. **Piarres Aintziart**

Bada holako **herra** bat Estatu Batuetan frantsesen kontra. **Herria**

Gizakion joera dela min egin diogunari **herra** izatea. **Juan Kruz Igerabide**

Badakizu **herra** diedala melodrama merkeei. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Denbora joan ahala, nion **herra** epelduz joan zitzaidan pixkanaka. **Juan Kruz Igerabide**

Bekaizgoak, hertsikeriak, alderdikeriak, **herrak**, gainditu zituzten herritarren gogo-bihotzak. **Michel Oronoz**

Herra pizten zitzaion. **Itxaro Borda**

Handik gutxira **herrak** eta etsaigoak hasi ziren azaleratzen. **Oskar Arana**

Ezin izan nuen **herra** lotu, eta pistolaren kirtenez jo nuen buruan. **Inazio Mujika Iraola**

Sophie-k ez lezakeela maita kolore desberdineko jendearen aurkako **herrak** hazten duen gizon bat. **Eneko Bidegain**

Gerra-hotsez elikatuak, gorrotoz oratuak, **herrak** gorituak. **Txillardegi**

Herraz eta gorrotoz oroitzen nintzen jauntxo hartaz. **Txillardegi**

Herraz beteriko aurpegi eder bat keinuka ari da hondo berde baten gainean. **Monika Etxebarria**

Seinale bat iduri, bor-borka abiatu zen Nafarroa guztia, konkistatzaileenganako **herraz**. **Aingeru Epaltza**

Oraindik niganako **herraz** bizi zela. **Oskar Arana**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berehala ulertu nuen zein zen **herra** gaizto haren iturria. batere barne-muinik gabeko **herra** arrotz bat ari zitzaidan barrua jaten. **Anjel Lertxundi**

Maiate nuen Lutezia, baina **herra** gogorra hartua nion. **Matías Múgica**

Bihotz-mamietan itsatsita zuen **herra** beltzak hegoak eman baitzizkion. **Felipe Juaristi**

Nire herraren **herra** zornatuak zoraturik. **Txillardegi**

Gaztelua armaz hartua daukaten "ipuzcoanoak" errauts batean gaztelutik bota, eta aurrera doaz nafarrak **herra** gorrian. **Patziku Perurena**

Neureganako **herra**. **Edorta Jimenez**

Erromako apezpiku espainolzailearendako **herrak** erro barrenak eginek zituen haren baitan. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaren herra (3); **arteko herra** (4); **arteko herrak** (3); **da herra** (4); **den herra** (4); **eta herra** (19); **eta herrak** (3); **eta herraz** (6); **ez herrarik ez** (3); **guretzat herra** (3); **herra baino** (3); **herra bat** (3); **herra erakutsi** (3); **herra eta** (19); **herra ez** (3); **herra hori** (5); **herra pizten** (3); **herra piztu** (3); **herrak eta** (7); **herrarik ez** (6); **herrarik gabe** (3); **herraz betea** (5); **herraz eta** (4); **kontrako herra** (6); **nire herra** (3); **nuen herra** (3)

herrabide *iz* herra izateko motiboa.

Ditugun esperantzak betetzen ez direlakoan, kirol bat **herrabide** bihurtzen bada, norat goaz? **Herria**

herraldi *iz* herrazko bolada.

Maitaldia: zer hitz pollita, zinez! [...] zoritxarrez, ardurago **herraldia** edo herraren aroa da nagusi, herraren aztapar xorrotzek odoleraio sarraskitzen dutela mundu hau. **Herria**

herrari 1 *izond* herratzen dena.

Hasiera batean gizaki **herrarien** lanabes izan zitekeena, idazle sedentarioenen aitorleku bilakatu da. **Joxean Agirre**

Bikote baten ibili **herrarien** bitartez, historiaz eta exilioaz gogoeta egin du Theo Angelopoulos greziar zuzendari ezagunak. **Berria - Kultura**

Gure aitari "camparyak" prestatzen zizkion zerbitzari bera zen barraren jabe, zimurrago, makurrago eta pultsuz **herrariago**, baina bera. **Aingeru Epaltza**

2 (adizlagun gisa)

Izotz puska tantaiaren antzera, **herrari** zebiltzan hiriko ozeano hotz grisean, norabiderik gabe. **Aritz Gorrotxategi**

Hire aitaren izpiritua nauk, epe batez **herrari** ibiltzera kondentatua gauaz, eta sutan barau egitera egunaz. **Juan Garzia**

Ez al goaz aurrera ezerez infinitu batean **herrari** apika? **Joxe Azurmendi**

herrati *izond* herraria.

Alde batean bi haitz ikaragarriak, Haitz **Herratiak**; haien kontra uhin ikaragarriak lehertzen dira, eta inor ez da onik irten handik, **Juan Kruz Igerabide**

herratsu *izond* herraz betea.

Alemanek denen hiltzeko manua ukana zuten aintzindari **herratsu** baten ganik. **Herria**

Beharbada horixe zen bere bihotz **herratsu**, furfuriatsu eta zorigaiztokoak irrikaz desio zuena. **Patxi Zubizarreta**

Eskualduna astekari bonapartistako artikulu **herratsuen** irakurketa argigarria da karia horretara. **Itxaro Borda**

Musulman erlisioneko imam predikari bero batzu, beira diten otoi prediku sutsu eta **herratsuetarik**, ez baitute holakoek deus onik. **Herria**

Frantziako iraultzak Erromako elizaren aurka erabili politika **herratsuaren** gain. **Herria**

Nik bai bainekuan mendekuzale eta **herratsu** izateko joerarik. **Juan Kruz Igerabide**

Izu laborriturik, neska aukian agondu, eta Abasi begi **herratsuz** begiratu zion. **Patxi Zubizarreta**

- Ez zuen agurtu harik eta bertara, **herratsu** eta deiadar ospinduka, sartu zen arte. **Patxi Zubizarreta**

herratu, herra(tu), herratzen 1 da *ad* bidea galdu, desbideratu.

Zutik ezin egonez, berina hautsi batetik harat ene begiak kanpoetan **herratzen** dira. **Michel Oronoz**

Bere izaeraren ondorioz, betiko noraezean **herratzera** kondentaturik egongo da. **Jon Arretxe**

2 (era burutua izenondo gisa)

Frantziskotarren eta bertze fraide **herratu**en predikuetara ez zen beharbada bilduko. Zikin-ontzien miran aritzen zen, zakur **herratu**en gisa. **Aingeru Epaltza**

Haren begi triste eta **herratu**ek ezaugarri komun ugari zituzten Rosaren begiekin. **Aritz Gorrotxategi**

Norak, burutazioen ibilera **herratu** hartaz jabeturik, lepondora eraman zuen eskua. **Anjel Lertxundi**

Zuen bizitza **herratu** hartan. **Anjel Lertxundi**

3 *arima herratu*

Arima herratuetan sinesten duen batek. **Berria - Euskal Herria**

Nik ez dakit **arima herratu**ek ze itxura ote daukaten; baliteke gau-giroan basamortuko agabeek daukatenaren antzekoa izatea. **Berria - Harian**

Haren egun-argiko ibilerek antz gehiago zuten **arima herratu** batenak neskame batenak baino. **Anjel Lertxundi**

Ezkonduaren bizitza da, hain zuzen, Barojari beldur gehien ematen zion gauzaren eredu betegina eta, **arima herratu**en gisa, ihes egiten saiatu zena: bizitza ezdeusarena alegia. **Josu Zabaleta**

4 *judu herratu*

Judu **herratu**aren ibilera ezagunak kontatzen zituen kanta hark. **Anjel Lertxundi**

Nik nahi ala ez, judu **herratu** bat nintzen. **Anjel Lertxundi**

Amona Erikak txikitan kontatzen zidan ipuin batean ere halakoxe txistua jotzen zuen **judu herratuak**. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima herratu (17); **arima herratu bat** (4); **arima herratu baten** (4); **arima herratua** (4); **arima herratuak** (6); **arima herratu**en (3); **herratu bat** (9); **herratu baten** (4); **herratu**en gisa (3); **judu herratu** (3); **judu herratua** (4); **judu herratuak** (3); **judu herratu**aren (4)

herren 1 *izond* zango edo hanka batean, gorputza alde batera edo bietara ohi baino areago makurtuz ibilarazten dion oker edo eritasun bat duena. ik maingu.

-Poz handia izan da niretzat -esan zuen gizon **herrenak**. Segurutasunik gabeko geldokote **herren** bat iruditzen zitzaidan aita. **Anjel Lertxundi**

Handik pixka batera sarjentu **herrena** etorri zen. **Felipe Juaristi**

Sendatu ninduten eta mundura bota ere bai, zakur **herrena** botatzen den bezala, denen iraingarri, denen ostikoen jomuga. **Felipe Juaristi**

Erreumaren kontrako ukendua ematen zion hanka **herrenaren** belau inguruan. **Anjel Lertxundi**

Ni neure hanka **herrenarekin** arrastaka. **Joan Mari Irigoien**

Oin **herrena** herrestan zekarrela. **Matías Múgica**

Metxa esaten dioten agirretar baten ibili **herrenak**. **Koldo Izagirre**

Neskazarhar erdi **herren** begi-okar bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zaldunaren seme bakarra **herrena** zen. **Askoren artean**

Kirol guztietan trebea zela, jaiotzez **herrena** izanda ere. **Matías Múgica**

2 hed

Bonbilla euliek kakaztuak, zurezko altzari **herrenak**. **Joseba Sarrionandia**

Altzari **herrenez** beteriko gela huts batera. banuen laboratorioan idazmahai **herren** bat. **Jose Morales**

-Eta orain, mahaia maingu zegoen, **herren**. **Aingeru Epaltza**

3 irud

Hiru mastakoa izaniko *Ánimas* karraka, harrezkero masta biko ontzi **herren** bihurtua. **Edorta Jimenez**

Huraxe bai gurdi kirrinkari gurpil-okar **herrena**, alajaina, kilometro batek eternitatea zirudien. **Joxe Austin Arrieta**

-Orduan oraindino zuzen! -moztu zuen Azkarateren ironia **herrenak**. **Koldo Izagirre**

Modu bakarrean baino jotzen ez duen literatura **herrena** da. **Joxerra Garzia**

Bikaina aukera jakitate **herren** hura osatzeko! **Jon Muñoz**

Itsaso erabat **herrena** da itsasbeherarik gabeko itsasoa. **Lutxo Egia**

Baina adierazpen fundamentalista hori bera ere **herrena** da. **Jenaro Garate**

Ez genuen proposamen **herrenik** egin nahi. **Berria - Kultura**

Ruche jaunak amets egin zuen honela hasiko zen matematikako problema batekin: "Biz triangelu **herren** bat". **Jon Muñoz**

4 (izen gisa)

Denak harriturik gelditu ziren ikusten zutenaz: mutuak hizketan, elbarriak sendaturik, **herrenak** ibiltzen eta itsuak ikusten. **Elizen arteko biblia**

Mutu batek kontatzen zuen itsu batek ikusi zuela **herren** bat dantzatzen. **Anjel Lertxundi**

Hankamotza **herrenari** laguntzen, hoberik ezean. **Oskar Arana**

Han ikusiko zenituen **herrenak** korrika, besamotzak bultzaka, mutuak deiadarka. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Hara, poeta atera zaigula gure **herren** ttikia! **Juan Kruz Igerabide**

Nork esan behar zuen **herren** poeta bat geneukanik eskolan. **Juan Kruz Igerabide**

6 (adizlagun gisa)

Soldadu ingeles baten fusil tiroak **herren** utzi baitzuen eskuin hankatik. **Felipe Juaristi**

Aitak, ordea, ez zuen ezer aipatzen ez **herren** gelditu zeneko pasadizoaz, ez gerran egin zituen egunetako ibilerei buruz ere. **Anjel Lertxundi**

Oraindik ere **herren** xamar nenbilenez [...]. **Txillardegi**

- *irud* Gainera, **herren** dago gure zientzia eta teknologia garapenerako sistema, oinarrizko ikerkuntza eta estrategiazko ikerketaren hankak [...] garatu gabe baitaude. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Liburua **herren** geratuko zitzaidala. **Joxerra Garzia**

Festari dagokionez, ordea, aitortu behar dut **herren** nabilela, exkax, elbarri. **Joxerra Garzia**

Ibaia salduz gero, Gasteizko kluba ondare aldetik **herren** geldituko litzateke etorkizuneko proiektuari begira. **Berria - Kirola**

Ikerketan gabiltza **herren**, lehen nioen bezala. **Andoni Egaña**

Etsaia kontu bakar batean dabil **herren**: zaldizko gutxi ditu. **Agustin Otxoa**

Eskumenik gabe, **herren**. **Berria - Ekonomia**

• 6 iz herrentasuna.

Harrezkero, zola bikoitza erabiltzen dut eskuineko oinetakoan, eta garbi antzematen zait **herrena**. **Juan Kruz Igerabide**

Ibiltzerakoan, gehiago nabaritzen zitzaion **herrena**. ezker zangoan **herrena** ekarri zuen Milaneritik, kanoikada baten oroigarri. **Aingeru Epaltza**

Behin ere ez dut geroztik halako **herren** dotorerik ikusi. **Matías Múgica**

"Nahiko **herren** handia daukat, ezta?" esan zidan. **Bernardo Atxaga**

Herren txiki bat ere antzematen zitzaion. **Hasier Etxeberria**

Portuan izandako istripu batek ezker hankako **herren** nabarmena utzi zion saritan. **Joxemari Urteaga**

Eskailerak hiruak jaitziz joaten nintzen arte, **herrena** ahaztuta. **Juan Kruz Igerabide**

-Ni nauk **herrena** sendatzen duena! **Koldo Izagirre**

Eta hi, zer moduz **herrenarekin**? **Patxi Zubizarreta**

-Baina "zenbat eta **herrenean** areago, orduan eta errukiago izango naitek", ziotsan bere buruari, **Pello Zabala**

7 irud

Oso ondo jabetzen zen zein zen esku artean zuen tresnaren **herrena**, tonalitate guztietara bajuekin ez iristea, alegia. **Iñigo Aranbarri**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xaltokako **herren** -pausoa zuen. **Matías Múgica**

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainko zuhur bat, buru-**herrenik** gabea, Delfoseko orakuluan zegoena bezalakoa. **Juan Kruz Igerabide**

Batzuetan, erdi-**herrena** gelditzen zen, kamioia gidatzeko ezgai. **Iban Zaldua**

- *izond* Ordurako banekien matematikako irakasle mihi-**herrenaren** berri. **Joxerra Garzia**

Modu garratzean ikasiko nuen, ordea, zein buru-**herren** nintzen neu ere, ia-ia egin bainuen ez-egiteko hura, nire bizitzako astakeriarik handiena. **Juan Kruz Igerabide**

9a (txalapartan)

Hara non txalapartarietako batek oinarrizko erritmoa ipintzen duen, "ttakun" deritzana, hots, **herrenaren** onomatopeia; beste txalapartariak, berriz, oinarrizko erritmoaren barruan sartzen saiatu behar du, lehenbizikoari protagonismoa lapurtuz [...] bigarren txalapartariak "urgun" edo "**herren**" egiten du. **Juan Kruz Igerabide**

10 herren egin

Ez nintzen konturatu Lakatosek **herren** egiten zuela. **Matías Múgica**

Herren egiten zuen zertxobait, edo hobeto esanda, gorputza alde baterantz okertzen zuen ibiltzerakoan. **Bernardo Atxaga**

Herren egiten dute hitzek, **herren** sentipenek, **herren** ideiek. **Juan Kruz Igerabide**

Barrutik **herren** egin ez banu. **Juan Kruz Igerabide**

Egia da Batasunaren diskurtsoak, giza eskubideei dagokienez, **herren** egiten duela bizitzeko eskubidearen hainbat urraketaren inguruan daukan jarreragatik. **Berria - Euskal Herria**

- Beharbada jainko horrek gidatzen gaitu barrutik, zuzen ibil gaitezen, **herrenik** egin gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Sobera **herren** egin gabe ibil nintekeela. **Txillardegi**

Pixka bat **herren** egin du jaikitakoan. **Aingeru Epaltza**

Oso **herren** gutxi egiten zuen, egia. **Matías Múgica**

11 herren txikian

Zerbait esan ez esan egon eta gero, jaiki eta **herren** txikian, musika-salara- erretiratu zen. **Anjel Lertxundi**

Herren txikian ibiliagatik ere, denen aurretik abiatu zen. Anjel Lertxundi

Ate aldera egin zuen aitak **herren** txikian eta, laster itzuliko naiz esanda, kalera irten zen. Anjel Lertxundi

12 herrenarena egin

Beste espaloira pasatu zen, **herrenarena** eginez. Pedro Alberdi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

betiko herren (3); **ere herren** (4); **eta herren** (12); **ezker hegala herren** (3); **hegala herren** (3); **herren bat** (8); **herren egin** (3); **herren egiten** (18); **herren egiten zuen** (9); **herren eta** (14); **herren gelditu** (4); **herren geldituko** (3); **herren geratu** (3); **herren geratuko** (4); **herren geratzen** (3); **herren jaio** (3); **herren samar** (8); **herren txikian** (3); **herren utzi** (13)

bakbaka herrena (3); **da herrena** (12); **errotazain herrena** (3); **ez da herrena** (12); **herrena da** (5); **herrena eta** (8); **herrena izan** (3); **herrena izango** (3); **herrena naiz** (3); **herrena zela** (4); **herrena zen** (7)

dira herrenak (4); **eta herrenak** (8); **ez dira herrenak** (4); **herrenak ere** (4); **herrenak ibiltzen** (3); **ibili herrenak** (4); **itsuak eta herrenak** (3)

hanka herrenaren (3)

herrendu, herren(du), herrentzen 1 da/du ad herren bihurtu.

Gerran **herrendu** zelako. Anjel Lertxundi

Gerran **herrendua**. Anjel Lertxundi

Gaixoaldiko gizon torturatu hura espiritu artega bezain ameslaria da **herrendu** zutenetik. Anjel Lertxundi

Ondoren, adinaren zartako bortitzek gorpuzta zigortu eta lohadarrak indar-kamuts jausitakoan, burua **herrentzen**, mihia deliratzen, adimena lokatzen eta dena batera higitzen da eta huts egiten du. Xabier Amuriza

Hoa antzarrak **herrentzera**, Ismael! Anjel Lertxundi

2 (era burutua izenondo gisa)

Kartzela... Zer duk hori hi bezalako agirretar **herrendu** batentzako? Pablo Sastre

Inbentario **herrendu** honek ez du nondik errenditu. Jokin Urain

herrenka *adlag* herren eginez.

Jonathan-eta-Léa **herrenka** zebiltzala iruditu zitzaion. **Herrenka** zihoala. Jon Muñoz

Tentetu, eta **herrenka** segitu zuen. Pedro Alberdi

Congo **herrenka** itzuli zen erretilu txiki batean hiru edontzi zituela. Lopez de Arana

Izterretik **herrenka** zebilen. Elizen arteko biblia

Ibai aldera abiatu ziren biak, gizonezkoa eskuin hankatik **herrenka**, eta emakumezkoa ezkerrekotik. Felipe Juaristi

Eroriz eta zutituz, beherakoan tximistaren abioan, gorakoan arrastaka eta ezinean, **herrenka**, betiko **herrenka**. Juan Kruz Igerabide

Herrenka ibiliko da eta, bestela, punturik gabeko bertsoa. Juan Garzia

Irakurketaren erdian, esaldiak **herrenka** utziz askotan, burua joan egiten zaio. Pako Aristi

2 herrenkako izlag

Holohan jaunaren **herrenkako** ibilbide bihurria zaintzen zuen begiez. Irene Aldasoro

3 herrenka egin herren egin.

Ezker hankatik egin zuen **herrenka**, dotorezia handiz. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat herrenka (5); **eta herrenka** (13); **herrenka bukatu zuen** (3); **herrenka dabil** (5); **herrenka egiten** (3); **herrenka eta** (6); **herrenka hasi** (4); **herrenka hasi zen** (3); **herrenka ibili** (7); **herrenka ibili behar** (3); **herrenka joan** (5); **herrenka joan zen** (4); **herrenka zebilen** (3); **zen herrenka** (4)

herrenkari *izond* herren egiten duena.

Ibilera **herrenkari** dantzari bera zuen. Matías Múgica

herrentasun *iz* herrena denaren nolakotasuna; herrenaren egoera. ik herren 6.

Herrentasun bat dantza baten antzekoa izan daitekeela. Matías Múgica

Eskuineko hankako **herrentasun** hori alde batera utzita. Iban Zaldúa

herresta 1 *izond* bizimodu traketsa daramana.

Hiri nagusiko karriketako eskale **herresten** bidez. Itxaro Borda

Zakur **herresta** bat bezala haizatuko haut hemendik. Elena Touyrou

Beren bizi molde **herrestari** egokitu beharko zuten. Itxaro Borda

Zer dio **herresta** eta pikarrai honek! Itxaro Borda

Hor harrapatzen zituzten Baionako beste **herrestak**, dardarka, lagunak eta etsaiak. Itxaro Borda

Herresta aire batekin mugitzen hasi naiz goizean. Piarres Aintziart

• 2 *iz* herrestatzea.

Olio lodia lurrean zabalduz doa, Isidora izutu egin duen suge-antzeko **herresta** makalean. Pako Aristi

Aldian behin **herresta** -hots arina ustez aditu eta ikarutzen nintzen. Matías Múgica

Motorra kolpetik geldituz eta alboan **herresta** eginez. Juan Kruz Igerabide

3 irud

Garagardo goxo bat eskuan eta izaite osoa **herresta** lasai batean abandonaturik. Piarres Aintziart

4 arrastoa.

Itaxurak barnean estaia batetik bestera, kanpoan euriaren nigar **herresta** hitsak murrugarik behera. Michel Oronoz

5 herrestasup_1 herrestatuz, arrastaka.

Bostetan jo genuen gailurra, ni ia **herrestan**, pena emateko moduan. Juan Garzia

Bi zangoetarik hein bat **herrestan**. Janbattitt Dirassar

Arrain argal, grisaxka, jan bila hono lohietatik sabela **herrestan** dabilzaneetakoa. Alberto Ladrón Arana
Nekatu itxuran beti, oinak **herrestan** ekartzen zituen. Aingeru Epaltza
-Hobe duzu onez, bestela **herrestan** aterako zaitugu. Koldo Izagirre
Bi poliziak gizon beltz bat **herrestan** zeramaten. Lopez de Arana
Ximurak eta Charlyk jatetxetik beretik eraman ninduten, **herrestan**, zaku bat patata bezala. Aingeru Epaltza
Zaldia uhaletik **herrestan** eramanez. Karlos Zabala
Libre zeukan eskuaz gurditxo tolesgarri bat **herrestan** zeramala. Lopez de Arana
Ulasterrak **herrestan** zeramatzen izotz pusken artean. Karlos Zabala
Herrestan egon gabe, hotelean sartu naiz. Piarres Aintziart
Charliek eraman ninduen bide guztian, nola **herrestan** hala airean. Mirentxu Larrañaga
Gero eta baratzagoko, gero eta **herrestanago** ematen nituen pausoak. Matías Múgica
Zugandik urrun hiratua, damuen eta zorigaitzen artean **herrestan** eramanen dut dolorezko bizitza hau. Jon Muñoz

6 *herrestansup_2* abandonaturik.

Herrestan nago ohean istant bat. Piarres Aintziart

Maiteak berriro utzi nindueenez geroztik, egunak eta partikulazki gauak bideetan **herrestan** eta terrentan higitzen nituen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herresta bat bezala (3); **zakur herresta bat** (3)

bat herrestan (14); **eraman zuen herrestan** (6); **eta herrestan** (15); **eta herrestan eraman** (6); **hankak herrestan** (3); **herrestan darama** (3); **herrestan eraman** (23); **herrestan eraman zuen** (5); **herrestan eramanez** (10); **herrestan eramaten** (10); **herrestan eta** (6); **herrestan ibili** (3); **herrestan zebilen** (4); **herrestan zebiltzan** (3); **herrestan zeramala** (3); **herrestan zeraman** (4); **lurrean herrestan** (3); **oinak herrestan** (7); **zuen herrestan** (6)

herrestaka *adlag* herrestatuz, arrastaka

Orain, idi pareta ere ebatsiz geroz, ezinezkoa izanen zitzairen goldea **herrestaka** tiratzea. Elena Touyrou

Lurrean **herrestaka** ibilita. Itziar Otegi

Hamaikak hurbil: ez dut **herrestaka** ibiltzeko denborarik izanen. Piarres Aintziart

Emma oihuka, garrasika, deiadarka ari zen nitarik bereizi nahiz, baina nik, tiraka, pusaka, **herrestaka** ene oheraino eraman nuen. Daniel Landart

herrestarazi, herrestaraz, herrestarazten du *ad* herrestatzera behartu.

Mintzamoldean, haizeek izoztu lurmutur hartako soinuak atikiak zituen, batez ere azken hizkien herresteko eta aldi berean, **herrestarazteko** ohiturak. Itxaro Borda

Itzulerarik ez duen bidezidor bati atxikia, eta haren malda bizkor eta arrisksuak gogoz kontra **herrestarazia**. Jon Muñoz

Sugea bere ezkatzen eraginez sigi-saga narrasten den moduan, ez pausoz pauso, era berean jausiaren mugimendu labankorrek **herrestarazten** ditu apurka-apurka ganoragabeak. Imanol Unzurrunzaga

herrestari 1 *izond/iz* herrestan dabilena.

Haitzak, dunak, landare **herrestariak**. Xabier Aranburu

Aihen zuria, buru gainean koroa gisa kordatua lehenik, uhinka jaisten da kokots azpian barna bizkar atzera, besoen luzeran behera, birakari, gerrian txirikordatu eta azkenik isats **herrestaria** osatzen du lurrean. Itziar Otegi

• 2 narrastia.

Edozein **herrestari** edo hegaztiren azantz xehea. Itxaro Borda

Eztena agerian zeukaten **herrestariei** beha ginauden. Itxaro Borda

- Bere abertzaletasun gordinarean eztenaz **herrestari** melenga antzera, zirika eta zirika, zizta eta zizta. Itxaro Borda

herrestatu, herresta(tu), herrestatzen 1 *da/du ad* lurretik altxatu gabe higitu edo higiarazi, herrestan ibili.

Ezkaratzeko leihoko berina puskatu zuen eta gorputza zimardikatuz, handik karrikara **herrestatu** zen. Itxaro Borda

Katuka **herrestatzen** nintzen espaloiraino. Patxi Zubizarreta

Hamaika besarkada eta hamalau bizkarrekoren ondoan, ostatu batera **herrestatu** ninduen. Aingeru Epaltza

Besaulkirantz **herrestatu** zituen oin astunak. Aritz Gorrotxategi

Indar itsu batek **herrestatzen** zuen aurrera. Fernando Morillo

Laino zuri lodi-lodi batez estali zen ibaia; ur kontra-kontra **herrestatzen** zen. Josu Zabaleta

Lurrean **herrestatzen** ikasia zuten, horma gorakoiak gainditzen, lohian ihalozka lerratzen. Itxaro Borda

Ur horiaren jarioak ilunabarra basatzen **herrestatu** eta itzali nahi zuela zirudien. Karlos Zabala

2 (era bururtua izenondo gisa) erresta.

Mundu honetako har **herrestatu** bat baizik ez zela. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herrestatu eta (3); **herrestatu zituen** (3)

herresto *iz ipar* arrastoa.

Oraino ikusten ahal dira mendi eta irasailetan ikatz egiteko tokien **herrestoak** edo hatzak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Geroztik zinez arras garbiturik dago, zuhaitz **herrestorik** gabe, iduri basamortua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Herresto batzuk gelditzen dira oraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gauzak ongi baino hobeki doaz eta ez da arazo edo problema **herrestorik**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beldur **herrestorik** gabe. Herria

Ararteko ziren gizonek beren erabakia eman zuten dudu **herrestorik** gabe Orriaren alde, 1335ean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

herri (*ETCn 687.516 agerraldi*) 1 *iz* hainbat ohitura eta erakunde partekatzen dituzten gizakien multzoa, eskuarki lurralde

jakin batean eta erkideen bizi dena.

Serbiar, greziar eta mendeko beste **herri** kristau ortodoxo batzuen burujabetasuna. [Iñaki Mendiguren](#)

Errusiako Atzerri ministroak ere Afganistango **herria** «zoriondu» zuen atzo, Konstituzio berriaren onarpena dela eta. [Berria - Mundua](#)

Hegoaldeko **herriak** beroaren eraginez askoz ere zorrotzagoak izaten dira buruz, eta azkarrago eta arinago mugitzen dira erabakiak hartzerakoan. [Santiago Iruretagoiena](#)

Maputheen **herria** bi estatuen artean zatitua geratu zen. [Berria - Mundua](#)

Hona hemen aleman **herria**. [Anjel Lertxundi](#)

Oi, irakiar **herria**, aurrerantzean herrialde guztia garbituko dut etsaiez. [Juan Kruz Igerabide](#)

Poloniak inongo nazioarekin merkataritza-traturik ez balu, bertako **herria** zoriontsuagoa litzateke. [Iñaki Iñurrieta](#)

Turkieraz mintzo ziren beste **herri** musulman batzuek. [Iñaki Mendiguren](#)

Herri kurduaren genozidioan laguntzen. [Fernando Rey](#)

Errusiar eta amerikar **herriak** gaizki prestatuta zeuden elkar ulertzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Hegoafrika da **herri** zigortuenetako bat. [Pello Salaburu](#)

Mendebaldartzen ari ziren **herri** ez-errusiar haiek. [Iñaki Mendiguren](#)

Moisesen jarraitzaile honek eraman omen zuen **herria** agindutako lurraldera. [Jose Antonio Mujika](#)

Esan israeldarrei: "**Herri** burugorria zarete". [Elizen arteko biblia](#)

Eta izan al da erromatarrak baino **herri** anker eta, aldi berean, handiagorik? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Pederastia **herri** gertarien bizioa izan da beti. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Herri "primitiboen" pentsamendua. [Josu Zabaleta](#)

Baina **herriak** masiboki ikusten duena telezaborra da. [Berria - Gaiak](#)

Parisko Legebiltzarrean (Estatu Nagusiak) [...] Jauntxoek 270 ordezkari zituzten, Elizak 291 eta **Herriak** 578. [Askoren artean](#)

Herriko jende xeheak gizarte mailan igotzeko zuen aukera ia bakarra Elizako erakundeen babesera biltzea zen. [Askoren artean](#)

Jainkoaren **Herri** Hautatua. [Elizen arteko biblia](#)

2 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa) herriari dagokiona. ik **herrikoi**.

Iraultzak berak eraturiko **Herri** Batzarretan. [Andres Urrutia](#)

Haiei egokitu **herri** subiranotasuna. [Andres Urrutia](#)

Botere politikoaren **herri** etorkia. [Piarres Xarriton](#)

Alemanien **herri**-espirtua - *Volkgeist* hura - ez zen erabat lotu herri xehea deitzen dugun gizartearen zatiarekin. [Bernardo Atxaga](#)

Ustezko delitua egin zenetik **herri** akusazioak kereila aurkeztu zuen arte. [Berria - Euskal Herria](#)

Herri tribunaleko kide guztioi. [Patxi Zubizarreta](#)

Hainbat **herri** plataformatako kideek. [Berria - Euskal Herria](#)

Herri eskubideen edo bederen **herri** gutiengoen aldeko neurriak hartzen. [Piarres Xarriton](#)

Herri hizkuntzak suspertu. [Koldo Zuazo](#)

Herri hizkeretan eginarazi zituen lanetan. [Koldo Zuazo](#)

Esaera zaharrak eta **herri** kantuak. [Koldo Zuazo](#)

Herri-literaturen aurrerapena inola ere oztopatu gabe. [Iñaki Mendiguren](#)

Istorió hilezin horien **herri**-jatorria erakusten duten ezaugarriak. [Bernardo Atxaga](#)

Herri ipuinetako Peru eta Marixe. [Anjel Lertxundi](#)

Herri-irudimenaren xalotasuna. [Anjel Lertxundi](#)

Ukrainar **herri** heroi nazionalizat hartzen dute askok. [Koro Navarro](#)

Herri-jendeari (ez gizabanako ilustratu motzari) bihotz-belarriak ederkienik gozatten dizkiona. [Iñaki Segurola](#)

Herri elkarte batzuen egiteko partikularra. [Askoren artean](#)

Herri borondatea ez bada errespetatzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Eliza ofizialaren eta **herri**-mugimenduen arteko tirabirak. [Askoren artean](#)

Herri-demokrazien esparru guztian debekatu zen genetika. [Juan Garzia](#)

1956an Hungarian **herri** iraultza bat izan zen. [Pello Salaburu](#)

Stalinen **herri**-espetsheetan. [Fernando Morillo](#)

Herri-matxinada batek bota zituen Erromatik Honorio III.a eta kuria. [Askoren artean](#)

Azkuek ere hala dakar bere **herri** sinisteen bilduman: [...]. [Patziku Perurena](#)

Ohikune hau, [...] **herri**-erlijioari zegokion (ez zen ondo ikusia kulturadun jendearen artean). [Askoren artean](#)

Sabinori merezi zuen **herri**-omenaldia ukatu ziotela. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bertsolariak, **herri**-afaria eta berbena. [Joxean Sagatzizabal](#)

Joan den asteburuan baraualdian izan ziren 15 atarrabiar, **herrikideari** elkartasuna erakusteko eta, igandean, 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten.

Bitoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Jose Luis Elkoro alkate izanak hartu zuten ahotan **Monzon** herrikidea. Berria - Kultura

Lizaso eta Ezkurra, **herkideak** dira, biak Doneztebeko semeak. Berria - Kirola

Arrantzale batek **herrikideengandik** jasotzen duen tratu txarra, lintxamendua kontatzen du. Berria - Kultura

2 herri, nazio berekoa.

Nork bere **herrikideak** maite izaten ditu atzerritarrek gorroto dituelako. Iñaki Mendiguren

Atzerrian hungarierazko doinu etxekoikiak entzuteak sorrarazten duen ustekabeko poza, alegia: **herrikide** baten aurrean nengoen beraz. Urtzi Urrutikoetxea

Juduak berak, beren **herrikideen** borroko. Koro Navarro

Imajinatzen nuen besaulki batean ondoan eserita neukan koronel ingeles buruzuri betaurrekodun baten **herkidea** nintzela. Matías Múgica

Printzearen, bere Estatuaren eta bere **herrikideen** aurrean baliagarri izan nahi duen [...] konpilatzaile bezala azaltzen da. Santiago Iruretagoiena

Tatariarren aliatua izanik, tatariarren antzera ziharduen bere **herrikideen** aurka! Karlos Zabala

Ana, horretaz jakitun, bera ere Gorazdera hurbildu zen eta han, greziar **herrikide** baten hotelean, ostatu hartu. Felipe Juaristi

60 metro karratuko pisu batean beste hamaika **herrikide** magrebtarrekin. Bernardo Atxaga

Nire Hegoaldeko **herrikideak**. Ramuntxo Etxeberri

herrikidetasun *(orobat herkidetasun)* iz hiritartasuna.

Hiru pakistandar, bi turkiar, nepaldar bat, filipinar bat, indiar bat eta **herrikidetasuna** zehaztu ez zuten beste bat. Berria - Mundua

Herkidetasun israeldarra duten palestinar horien esanetan, gutxiगतik salbatu ziren leherketen ondorioetatik. Berria - Mundua

herrikidetza iz herrikide izateko nolakotasuna.

Herrikidetzan eta gizarte trinkuntzuean hizkuntzak duen pisua.

Berria - Kultura

herrikoi *izond* herriari dagokiona. ik **herri 2**.

Hizkera **herrikoian** idatzitako istorio laburrek. **Xabier Olarra**

Basarrik bertsogintzan eta kazetaritza **herrikoian** egindako lana. **Anjel Lertxundi**

Afari edo bazkari **herrikoietan** parte hartzera. **Itxaro Borda**

Besta **herrikoi** arrakastatsuak. **Herria**

Udazkenarekin batera hainbat kros **herrikoi** egiteko deialdiak hasten dira Euskal Herrian. **Berria** - Kirola

Elkarte **herrikoietako** kideek. **Elena Touyarou**

140tik gora kantu **herrikoi** berreskuratu ditu Oskorrik. **Berria** - Kultura

Sarriegiren musikaren jatorri **herrikoia** eta helburu are **herrikoia**goa. **Askoren artean**

Jai **herrikoi** eta parte-hartzaileen aldeko manifestazio jendetsua. **Berria** - Euskal Herria

Garat anaiak ez ziren baitezpada gizon **herrikoiak**, etxeko-jaun notableak baizik. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afari herrikoi (4); **bazkari herrikoi** (3); **besta herrikoi** (13); **besta herrikoi bat** (4); **dantza herrikoi** (3); **eta herrikoi** (6); **eta herrikoi bat** (3); **giro herrikoi** (3); **herrikoi bat** (19); **herrikoi batean** (4); **herrikoi batek** (3); **herrikoi batekin** (5); **herrikoi baten** (5); **herrikoi batzu** (5); **herrikoi eta** (23); **herrikoi eta parte** (3); **herrikoi hori** (5); **jai herrikoi** (3); **kantu herrikoi** (11)

afari herrikoia (6); **ako** (3); **argia eta herrikoia** (3); **arras herrikoia** (3); **bat guziz herrikoia** (4); **bazkari herrikoia** (19); **besta guziz herrikoia** (5); **besta herrikoia** (16); **besta herrikoia urruñ egitarau herrikoia** (3); **eguerditan bazkari herrikoia** (3); **eta guziz herrikoia** (4); **eta herrikoia** (29); **eta herrikoia izan** (4); **eta zinez herrikoia** (3); **giro herrikoia** (5); **guziz herrikoia** (16); **herrikoia da** (5); **herrikoia egin** (4); **herrikoia egiten** (3); **herrikoia eta** (22); **herrikoia eta alegera** (3); **herrikoia izan** (9); **herrikoia izan zen** (3); **kanta herrikoia** (3); **kultura herrikoia** (3); **kutsu herrikoia** (3); **musika herrikoia** (4); **zabala eta herrikoia** (3)

besta herrikoiak (3); **dantza herrikoiak** (4); **doinu herrikoiak** (5); **eta goresmen herrikoiak** (6); **eta herrikoiak** (9); **goresmen herrikoiak** (27); **goresmen herrikoiak burrasoeri** (3); **goresmen herrikoiak etxeko** (4); **guzien goresmen herrikoiak** (3); **herrikoiak eta** (10); **herrikoiak etxeko** (4); **herrikoiak etxeko guzieri** (4); **jai herrikoiak** (3); **kantu herrikoiak** (13)

eta herrikoian (4); **eta herrikoien** (4); **hizkera herrikoian** (3); **jai herrikoien** (6); **kantu herrikoiekin** (7); **kantu herrikoien** (4)

herrikoitasun *iz* herrikoia denaren nolakotasuna.

«Haren **herrikoitasuna** zaintzearen aldekoak gara», adierazi zuen politikari nafarrak. **Berria** - Euskal Herria

Erat bitxia da enpirismoak **herrikoitasunik** ez izatea. **Ibon Uribarri**

herrikoitu, herrikoi(tu), herrikoitzen da/du *ad* herrikoi bihurtu.

Idazle israeldarrenek anekdota gogoratzen dut, hitz bat asmatu, bere liburu batean erabili eta handik bi urtera taxilari bati entzun zion, zeharo **herrikoitu** zen seinale. **Mikel**

Hernandez Abaitua

Hori jakiten ez den bitartean ezin dugu Europa **herrikoitu**. **Berria** - Euskal Herria

herrikoixe ik **herri 26**.

herrilan ik **herri 19**; **herri 20**.

herrimin (*ETCn 614 agerraldi*; *orobat herri min ETCn 112 agerraldi*) sorterritik urrun egoteak eragiten duen goibeltasun egoera. ik **min¹ 6**.

Herrimina erabiltzen da gabetasun hori estaltzeko -eta ez dago gaizki- baina herrien, lekuen, gauzen eta pertsonenganako mina eduki daiteke eta gabezia gehiegi dira horiek guztiak **herrimin** bezalako hitz bakarrarekin estaltzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Sentipen zorrotz, mingarri eta hutsal batek harrapatu ninduen: **herriminak**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Turinen **herrimin** handia izan zuen beti. **Fernando Rey**

Zaragozako ongi eraman nuen arren, **herrimina** sentitzen nuen. **Agurtzane Juanena**

Herrimina senditurik hain segur, itzuli zen Euskal Herrira. **Herria**

Han utziak baitzituen antzina emaztea eta sei hilabeteko umetxoa, maiz **herrimina** sentiarazten ziotenak. **Jon Arretxe**

Herriminak jota zegoen, seme-alaben geroaz kezkatu eta haien hobe beharrez itzuli nahi ei zuen Europara. **Xabier Montoia**

Denbora nahikoa kanpoan igarotzea aski bide da **herrimina** sortzeko. Euzkadi gerran galdu eta erbestean **herri** minez zebiltzan euskaldun haientzat guztientzat. **Lourdes Oñederra**

Eta han tristuraz eta **herriminez** hil zen. **Felipe Juaristi**

Herriminak Ulises Sindromea izenekoa eragiten du. **Berria** - Euskal Herria

Itsasoa **herriminaren** egoitza da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriminak jota (5)

herrimindu *izond* herriminak joa.

Agian ETako mutilentzat leherkaria erosten nenbilela irudituko zitzaion, eta hori, beti atzerrian bizi izan den bera bezalako **herrimindu** batentzat ez da sekula hainbesteko hobena izan, antza. **Hasier Etxeberria**

herrinahasle ik **herri 21**.

herriño *iz* herritxoa.

Propriano, Korsikako **herriño** bat **Herria**
Kamioiak baratu diren lekutik ozta kilometro batera, **herriño** bat ikusi duzue. **Xabier Montoia**

herriratu, herrira(tu), herriratzan da/du ad herrira itzuli, joan edo eraman.

Peter, halaber, sekula **herriratu**ko balitz arras bestelakotua atzemanen zuketen otsabidetarrek. **Itxaro Borda**
Gorrotoa **herriratu** zenean, Levine jaunari izar bat josi zioten paparrean. **Javi Cillero**
Siziliara iritsi ziren 37 etorkinetatik 27, ghaniarrak **denak**, herriratu zituzten atzo. **Berria - Mundua**
Arras ttipia nintzen zu **herriratzean**. **Herria**
· Argentinan sortu eta oso gazte zela Euskal **Herriratu** zen pianista. **Berria - Kultura**
Errazkinen gorpua erraustu eta **Euskal** Herriratu dute. **Berria - Euskal Herria**
Euskal Presoak Euskal **Herriratuak** izan daitezten.

herriratze iz herrira itzultzea, joatea edo eramatea.

Irakurtua izan da gutun bat Ekipamenduko eta Aireko elkartearena aireportuaren **herriratzeaz**. **Herria**

herritar (ETCn 563 agerraldi) 1 iz norbaiti buruz, bere herrikoa dena. (zentzu politikoan)

Herritarrak, aberria arriskuan da! **Elena Touyarou**
Herritarrik gabe, politikak ez dira ez eraginkorrak ez zilegiak izango. **Herritar** guziak berdinak ziren legearen aitzinean. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Herritarren %55 ez dira bozkatzera joan. **Berria - Mundua**
Herritarrek Europako eraikuntzan izan behar duten rola. **Berria - Mundua**
Errepublikaren alde borrokatutako **herritar** guzti-guztiak ziren gerrako galtzaile. **Bernardo Atxaga**
Periklesek [...] Atenaseko **herritar** libreak zituen buruan. **Esteban Antxustegi**
Europako **herritar** guztien aurkako erasoa.
Frantziako **herritar** guztientzat. **Hasier Etxeberria**
Bera **herritar** ingelesa zela aldarrikatu zuen, baina alferrik. **Karlos Zabala**
Formula zehatza eskaintzen du, euskal **herritarrek** hitza eta erabakia hartzea. **Berria - Harian**
Bilbon izandako manifestazioan **herritar** batek begia galdu zuen.
Herritar beltzen eskubideen aldeko bi talde. **Berria - Mundua**
Strugako **herritar** eslaviarrek Mazedoniako Gobernuaren planen aurka antolatutako protestak. **Berria - Mundua**
Herritar ororentzako botoa. **Josu Zabaleta**
Aberriari **herritar** guztien lankidetzaren beharrezkoa zaito. **Elena Touyarou**
Oinarrizko errenta **herritar** orori, **herritar** izateagatik bermatzen zaion gutxieneko diru sarrera da. **Iñaki Heras**
Bi milioitik gora turkiar bizi dira Alemanian eta "hirugarren mailako **herritar**" balira bezala tratatzen dituztela salatu du. **Fernando Rey**
Lehen munduko **herritar** asko analfabeto funtzionalak dira. **Txema Ramirez de la Piscina**
Hots herriko seme bat zen, **herritar** hon bat, denek "Eduar" deitzen gūñana. **Herria**

2 (zentzu ez-politikoan)

Hurrengo urtean naziak sartu ziren, herria mendean hartu, eta **herritarrak** bota egin zituzten bertatik. **Xabier Olarra**
Gogoratzen zaigu bestalde nola Jesusen **herritarrek** azkenean beren ohiko hizkuntza hebreera baztertu zuten liturgiari landa. **Piarres Xarriton**
Fededun edo fedegabe, aberats edo erromes, **herritar** edo atzerritar. **Piarres Xarriton**
Bizkaiko **herritar** xeheendako ere ulertezina gertatu zen euskara berria. **Koldo Zuazo**
Alkate bat lurrera josi duela, bere **herritar** guztien aurrean gainera. **Koldo Biguri**
Ezkontzeko sakramenduak elgarretaratu ditu Xabi Saraguetaren gure **herritar** gaztea eta Beatrice Eyheramendy Pagolarra. **Herria**
Saran, **herritar** guziak eliza barnean ehorzten ohi zituzten. **Elena Touyarou**
Udaletxea hertsatu zuten **herritar** guztien artean. **Elena Touyarou**
Agoizko **herritar** asko beldur da. **Eduarne Elizondo**
Gogokoago dute gurekin **herritar** xumeekin mintzatzea. **Jose Morales**
Herritarrak, Itoizko Koordinakundea, solidarioak eta ekologistak. **Eduarne Elizondo**
Bikarioa **herritarra** nuen, dio Piarresek, Jatsu-Etxelekukoa. **Michel Oronoz**
· -Azarias nauzu, zure **herritar** Ananias ospetsuaren semea. **Jose Antonio Mujika**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hautagaitza nazionala aurkezteko proposamena egin zuen atzo **herritar** talde batek.
Herritar elkarteek ekitaldiak prestatu dituzte Bartzelonan Diada elkarrekin ospatzeko. **Berria - Mundua**
Gure herri eta **herritar** eskubideak. **Berria - Harian**
Baldin eta nire lehengusuak, (ustez) **herritar**-harrotasun halako batek eta bestearen ihardespenean hirukoitzaz ezaxola agertu nahiak bultzaturik, areago azpimarratu ez balu.
Juan Garzia
Herritar ekimen honen helburuak Euskadiko kultura politikoa aldatzea, eta herritarrei protagonismoa ematea dira. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Milaka euskal **herritar** eta ehunka erakunde. heziketa egiten denean, sekten mehatxua aipatzen da. **Itxaro Borda**
Zenbaki horiek erakusten dute zertaratu gaituen, azken bi mendeetan, Frantziako estatu-nazioak Iparraldeko euskal **herritar** prestatuak. **Piarres Xarriton**

• 5 izond ik herri 2; herriko.

Gizarte-aldaketaren eragile izan behar zutenak -klase **herritarrak**, alegia-. **Txema Ramirez de la Piscina**
Espainiako musika **herritarra**. **Edorta Jimenez**
Festa **herritar** edo eliztar ofizialetan. **Patziku Perurena**
Ezezko **herritar**, ezkertiar eta internazionalista. **Berria - Harian**
Herritarra eta ofiziala, biak bata besteari kontrajarriak. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aebetako **herritar** (6); ainitz **herritar** (8); astean bi **herritar** (6); auzo **herritar** (28); auzo **herritar** eta (6); baina **herritar** (20); baino **herritar** (6); baita **herritar** (10); bat **herritar** (27); batek **herritar** (6); bere **herritar** (8); bertako **herritar** (8); bertze **herritar** (7); beste **herritar** (17); bi euskal **herritar** (13); bi **herritar** (53); bi **herritar** segituak (7); bizi den **herritar** (7); bizi diren **herritar** (11); da **herritar** (35); dauden **herritar** (7); dela **herritar** (6); den **herritar** (12); die **herritar** (6); diote **herritar** (9); dira **herritar** (11); diren **herritar** (28); ditu **herritar** (7); dituzte **herritar** (9); dituzten **herritar** (6); du **herritar** (25); duen **herritar** (14); dugu **herritar** (6); dute **herritar** (17); duten **herritar** (26);

herritartasuna (ETCn 2.735 agerraldi) 1 iz herritar izateko nolokotara; herri jakin bateko herritarra izateko zertzelada.

Herritartasuna, herritarren atxikimendu libre eta demokratikoa, alegia. Berria - Euskal Herria

Erromatar Legearen mende bizitzea erromatar **herritartasunaren** pribilegio ospetsuetako bat zen. Iñaki Mendiguren

Biztanleen %6k errusiar **herritartasuna** dute eta %12,4k ez dute **herritartasun** zehatzik. Berria - Mundua

Euskal **herritartasuna** eta naziotasuna.

Europako **herritartasuna** sortzeko. Berria - Harian

Ukrainar-errusiar **herritartasun** bikoitza. Berria - Mundua

Herritarrek bi **herritartasun** izateko aukera izango dutela. Berria - Mundua

1966an Alemaniako **herritartasuna** eskuratu zuen Niznanskik. Berria - Mundua

Palestinarek Israelgo **herritartasuna** lortzea debekatzen duen lege bat. Berria - Mundua

Aspaldi kendu zigun **herritartasun** hori Hitlerrek. Josu Zabaleta

Nafarroa Garaiko agintariek ez zieten onartzen baxenabartarrei **herritartasunik**. Askoren artean

Lanaren bidez lortzen duela **herritartasun** osoa. Iñaki Heras

Frantziatik alde egindako frantsesen **herritartasunaren** galerari buruzkoa. Josu Zabaleta

Herritartasun unibertsalerainoko bidea ez da oraindik amaitua. Esteban Antxustegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herritartasun agiririk ez dutenen eskubideak. Berria - Mundua

1999an sozialdemokratik **herritartasun** legea aldatzekotan zeudenean. Berria - Mundua

Partaidetzazko demokraziaren ideiak **herritartasun** ideia sendotu nahi du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herritartasun kontzientzia. Berria - Harian

Soldata unibertsala edota **herritartasun** errenta, besteak beste (frantsesezko revenue universelle eta revenue de citoyeneté edota ingelesezko basic income). Iñaki Heras

Arrantza eta ehiztari herri honetan, ehiza egiten duen eta sareak zabaltzen dituen armiarrik **herritartasun** eskubidea dauka, bere etxean dago. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **herritartasun** (3); **herritartasun** agiririk (3); **herritartasun** bikoitza (4); **herritartasun** eta (4)

argentinar **herritartasuna** (9); **bertako** **herritartasuna** (3); **da** **herritartasuna** (3); **dute** **herritartasuna** (3); **espainiar** **herritartasuna** (5); **espainiar** **herritartasuna** (6); **euskal** **herritartasuna** (11); **frantses** **herritartasuna** (4); **frantziako** **herritartasuna** (3); **frantziar** **herritartasuna** (4)

herritartasuna dute (3); **herritartasuna** eman (3); **herritartasuna** ematea (4); **herritartasuna** eskuratu (3); **herritartasuna** eskuratu zuen (3); **herritartasuna** ez (6); **herritartasuna** ez dute (3); **herritartasuna** kendu (4); **herritartasuna** lortu (4); **herritartasuna** lortze (3); **herritartasuna** lortzeko (7)

euskal **herritartasunaren** (3); **lituaniako** **herritartasuna** (3)

herritartu, herritar(tu), herritartzen 1 da/du ad herritartasuna hartu edo eman.

Qatarrek Ailton, Dede eta Leandro jokalaririk brasildarrak diru truke **herritartu** nahi zituela, selekzioan joko zezaten. Berria - Kirola

1967a baino lehenagotik dozenaka mila palestinar etorri dira Israelera bizitzera, ezkondu eta **herritartu** egiten dira. Berria - Mundua

2 herritar bihurtu.

Kasik 40 urte du Juanes Ourthiague bere familia ederrarekin Suhuskunetik Donaixtira bizitzera jin zela erosi zuten Etxegoinea etxaldera, berehala **herritartu** zen familia eta ongi errotu herrian leialki. Herria

3 (era burutua izenondo gisa)

HARTZAROK nahi izan du ohoratu herritar bat edo hobeki erran **herritartu** bat. Herria

herritartze iz herritartasuna hartzea edo ematea.

Irakurketaren zabalkundea, **herritartzea** delako XX. mendean gauzatu den iraultzarik handiena. Pako Aristi

herritto iz herritxoa.

Haitin ere, Frantziak asko ikusteko duen amerikar **herrittoan**, [...]. Herria

Herritto baten buruzagia hil dutela tiroz, Kaizal xihita. Herria

herritxo 1 iz herri txikia.

San Severino **herritxoan** aurkitu zuen, monasterio batean predikatzen ari zela. Cannara izeneko **herritxora** heldu ziren. Askoren artean

Aliatuek Bayeux hartu dute, Frantziako kostaldeko **herritxo** bat. Josu Zabaleta

Frantziako **herritxoek** zeinek bere santu patroia du zaindari. Josu Zabaleta

Mendialdeko **herritxo** eder batean. Koldo Biguri

2 (hitz elkartuetan)

Auverniako bainu **herritxo** batean zen hori guztia, Châtel-Guyon-en. Josu Zabaleta

Herritxo bat izatetik hiri zabal bat izatera aldatu zen Donostia. Askoren artean

herrixka (654 agerraldi, 96 liburu eta 111 artikulutan; ETCn 1.822 agerraldi; orobat herriska 36 agerraldi, 7 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 191 agerraldi) 1 iz herri txikia.

Hemiten, Adanako probintziako 60 etxeko **herrixka** batean, Turkiako hegoaldean. Fernando Rey

1904ko uztailean sortu zen, Poloniako **herrixka** batean, Leoncinen. Koro Navarro

Gaya deritzan eskualdeko Mayapur **herrixkara** hurbildu zirenean. Gotzon Garate

Alviano izeneko **herrixkara** iritsi zen Jainkoaren hitza predikatzerako. Askoren artean

Eta hiri, **herrixka** edo etxeetan sartzan zirenean, bakea aldarrikatu ohi zuten. Askoren artean

Gero **herrixka** bat hiritik hurbil. Jose Morales

Kalonjeburuak, kalonjeburuordeak, **herrixkako** kalonjeak. Xabier Olarra

Arazoa konpontzeko asmoz, SOS Haurren **Herrixkari** 80.000 euro emango zizkiola jakinarazi zuen orain arteko idazkari nagusiak. Berria - Mundua

Gizaki modernoaren buru-argitasunak mundua **herrixka** bihurtu du. Joxerra Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Satriano izeneko **herrixka** pobre batera. **Askoren artean**
Herrixka ziztrin horietako batean. **Karlos Zabala**
Herrixka madarikatu hartan. **Elena Touyarou**
Bevagna Spoleto haranean dagoen **herrixka** noblea da. **Askoren artean**
- **Herrixka** ederra zurea, andrea. **Jose Morales**
Herrixka turistiko xarmagarria. **Koldo Izagirre**
Kanadako mendebaldeko **herrixka** bakartietan. **Xabier Olarra**
Giza begiak ezin ikusizko **herrixka** urrunak ziren. baserri-giroko **herrixka** atzeratu batean. **Jose Morales**
Sutan erre ez diren **herrixka** bakanak, hilik izango ez diren gizonak. **Josu Zabaleta**
Burdin aroko **herrixka** bat. **Herria**
Dona Zaharreko erromatar **herrixka**. **Herria**
Hiri horien inguruko **herrixka** guztiak. **Elizen arteko biblia**

3 *pei* herri, nazio txikia.

Euskaldunok jende xixarea ginela esaten zigun, Euskadi **herrixka** zikin bat zela. **Koldo Izagirre**
Gure **herrixka** euskaldun miserable hau. **Patziku Perurena**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herrixka sail hori, eliza zahar horiek. **Josu Zabaleta**
Hiri eta **herrixka** inguruetako bideetan.. **Askoren artean**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Probintzietako bazter **herrixka** baketsu batera erretiratu zela. **Jose Morales**
Indian milioi erdi mendi-**herrixka** dago, asko argirik eta urik gabe. **Gotzon Garate**
Toskanako beste mendi-**herrixka** xarmagarri bat. **Xabier Olarra**
Inguru heietako arrantzale **herrixka** eta etxolak. **Herria**
Gainerakoan, oilo-**herrixka** bat besterik ez baita Korinto. **Joxe Austin Arrieta**
Ez da deus handiagorik arrantzale **herrixka** bat baino. **Imanol Unzurrunzaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantzale **herrixka** (5); arrantzale **herrixka** bat (3); aurreko **herrixka** horretara (3); bezalako **herrixka** (4); dagoen **herrixka** (6); dagoen **herrixka** batera (3); diren **herrixka** (3); dituen **herrixka** (3); edo **herrixka** (3); eguberriko **herrixka** (5); eta **herrixka** (19); herri eta **herrixka** (4); herriko **herrixka** (4)
herrixka bat (33); **herrixka** bat da (4); **herrixka** batean (63); **herrixka** batean bizi (5); **herrixka** batean gelditu (3); **herrixka** batean jaito (3); **herrixka** batek (3); **herrixka** bateko (18); **herrixka** baten (11); **herrixka** batera (13); **herrixka** batera iritsi (3); **herrixka** batera joan (3); **herrixka** batetik (4); **herrixka** edo (4); **herrixka** eta (15); **herrixka** guztiak (4); **herrixka** hartako (11); **herrixka** hartan (4); **herrixka** hartara (3); **herrixka** hartatik (3); **herrixka** hau (3); **herrixka** honetan (5); **herrixka** honetatik (3); **herrixka** hori (5); **herrixka** horretan (5); **herrixka** horretara (3); **herrixka** kartierean (3); **herrixka** ondoan (3); **herrixka** osoa (4)
hiri eta **herrixka** (3); inguruetako **herrixka** (3); inguruko **herrixka** (9); inguruko **herrixka** batean (3); iparraldeko **herrixka** (4); izeneko **herrixka** (7); izeneko **herrixka** batera (3); mendialdeko **herrixka** (3); mundua **herrixka** (3); nafarroako **herrixka** (3); ondoko **herrixka** (9); ondoko **herrixka** batean (7); pirinioetako **herrixka** (3); zegoen **herrixka** (8); zen **herrixka** (8); zoazte aurreko **herrixka** (3); zuen **herrixka** (3); zuten **herrixka** (6)
beraien **herrixkak** (14); bere **herrixkako** (3); eta beraien **herrixkak** (14); eta **herrixkak** (17); eta **herrixkak** barne (7); herri eta **herrixkak** (4); **herrixkak** ere (4); **herrixkako** aferetarako (4); hiri eta **herrixkak** (7); inguruetako **herrixkak** (3); jairren **herrixkak** (3)
amets zuen **herrixkara** (3); eta **herrixkaren** (3); **herrixkan** bertan (5); **herrixkan** bertan ibilia (3); **herrixkan** egin (3); **herrixkan** sartu (4); **herrixkara** bizitzera (3); **herrixkara** bizitzera joan (3); **herrixkara** eraman (3); **herrixkara** joan (6); **herrixkaren** batera (4); **herrixkatik** abiatu (3); **herrixkatik** gertu (4); **herrixkatik** hurbil (3); izeneko **herrixkan** (4); lehenago **tengrela** **herrixkan** (3); **tengrela** **herrixkan** (3); **tengrela** **herrixkan** bertan (3); zuen **herrixkara** (3); zuen **herrixkara** bizitzera (3)

herrixkaño *iz adkor* herrixka.

Bada ere **herrixkaño** bat, espresuki muntatua, zointan kausi baititake Hego-Ameriketako giroa, hango jateko eta edatekoekin. **Herria**

herrizain *iz* udaltzaina.

Hiru tiroz hil dute Joseba Pagazartundua, 45 urte, bi haurren aita, horko udaltzain edo **herrizainen** buru zena. **Herria**
Kalearen erdiko kokxa zabalean, **herrizain** bat zegoen, asper-asper eginda, ordu hartan batere trafikorik ez zebilen eta. **Joxerra Garzia**
Azkoitia izango da munduko leku bakarra ez aguazilik, ez udaltzainik, ez **herrizainik** ez duena. **Iñigo Aranbarri**
Herrizain eta jandarmek. **Herria**

herrizaingo 1 *iz* udaltzaingoa.

Herrizaingoak, Frantziako Poliziarekin batera, zaintze lanak egiten ditu, erasorik ez dadin gerta. **Berria - Harian**
Hiru zati edo estamentuk osatzen ditu hiria: langileriak, **herrizaingoak** eta buruzagigoak. **Joxe Azurmendi**

2 (hitz elkartuetan)

EAEko **Herrizaingo** Sailaren arabera. **Koro Navarro**
Eusko Jaurilaritzako **Herrizaingo** sailburu Javier Balzak.
Nafarroako Gobernuaren izenean Javier Cavallero **Herrizaingo** kontseilaria. **Berria - Euskal Herria**
Mikel Lejarda **Herrizaingo** sailburuordeak. **Berria - Euskal Herria**
Herrizaingo Saileko hiru arduradunek inputatu gisa deklaratuko dute.
Erakunde eta **Herrizaingo** Batzordean.
-Adiskideok, hau **Herrizaingo** Sailaren iragarki bat da -esan zuen Terrik-. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzo **herrizaingo** (4); baina **herrizaingo** sailak (3); baita **herrizaingo** (3); balza **herrizaingo** (16); balza **herrizaingo** (46); balza **herrizaingo** sailburua (7); balza **herrizaingo** sailburuak (20); balza **herrizaingo** sailburuaren (7); balza **herrizaingo** sailburuari (10); balza jaurilaritzako **herrizaingo** (6); debekatu du **herrizaingo** (3); dio **herrizaingo** (7); dio **herrizaingo** sailak (4); donostia **errizaingo** (3); du **errizaingo** (4); du **errizaingo** (17); du **errizaingo** sailak (17); dute **errizaingo** (4); **errizaingo** (76); **errizaingo** sailak (35); **errizaingo** sailaren (13); **errizaingo** sailburu (5); **errizaingo** sailburuak (7); **errizaingo** sailburuaren (5); **errizaingo** sailburuari (5); **errizaingo** eta **errizaingo** (18); **errizaingo** eta **errizaingo** (3); **errizaingo** eta **errizaingo** (35); **errizaingo** batzordeak (5); **errizaingo** batzordean (7); **errizaingo** batzordeko (3); **errizaingo** sailak (6); **errizaingo** sailaren (4); **errizaingo** jaurilaritzako **errizaingo** (144); **errizaingo** jaurilaritzaren **errizaingo** (13); ez soilik **errizaingo** (3)
errizaingo batzordeak (8); **errizaingo** batzordeak lan (3); **errizaingo** batzordean (9); **errizaingo** batzordean (9); **errizaingo** batzordeko (3); **errizaingo** saila (10); **errizaingo** sailak (287); **errizaingo** sailak adierazi (7); **errizaingo** sailak aditzera (4); **errizaingo** sailak atzo (13); **errizaingo** sailak azaldu (10); **errizaingo** sailak debekatu (6); **errizaingo** sailak emandako (6); **errizaingo** sailak ertzain (3); **errizaingo** sailak eta (11); **errizaingo** sailak ez (9); **errizaingo** sailak jakinarazi (34); **errizaingo** sailak zehaztu (5); **errizaingo** sailaren (92); **errizaingo** sailaren arabera (44); **errizaingo** sailaren bertsioa (3); **errizaingo** sailaren eta (5); **errizaingo** sailaren jarrera (4); **errizaingo** sailarena (3); **errizaingo** sailari (33); **errizaingo** sailari eta (3); **errizaingo** sailburu (31); **errizaingo** sailburu javier (25); **errizaingo** sailburua (11);

herrizaingo sailburuak (56); **herrizaingo sailburuak eta** (3); **herrizaingo sailburuaren** (20); **herrizaingo sailburuaren agerraldia** (3); **herrizaingo sailburuaren dimisioa** (5); **herrizaingo sailburuaren eta** (3); **herrizaingo sailburuari** (25); **herrizaingo saillean** (4); **herrizaingo saileko** (25); **herrizaingo saileko hiru** (5); **herrizaingo saileko informazio** (3); **herrizaingo saileko iturriek** (7); **herrizaingo sailera** (3)

inguruan herrizaingo (3); **inguruan herrizaingo sailak** (3); **jakinarazi zuen herrizaingo** (4); **jaurlaritzako herrizaingo** (175); **jaurlaritzako herrizaingo sailak** (95); **jaurlaritzako herrizaingo sailaren** (21); **jaurlaritzako herrizaingo sailari** (6); **jaurlaritzako herrizaingo sailburu** (14); **jaurlaritzako herrizaingo sailburuak** (14); **jaurlaritzako herrizaingo saileko** (11); **jaurlaritzaren herrizaingo** (14); **jaurlaritzaren herrizaingo sailak** (11); **javier balza herrizaingo** (46); **leporatu zion herrizaingo** (3); **ppk herrizaingo** (3); **ppk herrizaingo sailari** (3); **soilik herrizaingo** (3); **zion herrizaingo** (11); **zion herrizaingo sailari** (4); **zion herrizaingo sailburuari** (4); **zuen herrizaingo sailak** (15)

herrizale *izond* bere herriaren alderako maitasuna agertzen duena. ik**abertzale**.

Don Estanislao aldi hartako elizgizon **herrizale** haien eredukoa zen: foruen galera haragian sufritu zuen aberrizale haietakoa, foruzale amorratua. Berria - Kultura

Egiazko abertzalea edo Euskal **Herrizalea** zen bainan ez alderdikaria. Herria

herrizaletasun *iz* norbere herriaren alderako maitasuna. ik**abertzaletasun**.

Gizon eskolatua zen eta errukitsua, eta baita kemen handikoa eta **herrizaletasun** zintzokoa ere. Karlos Zabala

herroka 1 *iz ipar* lerroa, errenkada.

Zonbait **herroka** izkiribatū behar ūken dūgū arratsez etxean: "Je ne parlerai plus basque en classe." Pierra, Graxi eta alargundu berria zen aita lehen **herrokan** zeuden.

Herria

Hamar soldaduko **herroka** meharra. Itxaro Borda

Ber denboran, heben ikusten da bi neurtitzetan dela pastorealeko bertseta, nahiz lau **herrokatan** agertzen den libretean: holaz bi erdaretako ūtzŭlpenen lekūa baratzen da eretzean. Herria

2 *herrokan* lerroan.

Ahots finko eta leunez ari zen, hitzak lañoki **herrokan** pausatuz, teknikari baten maneran funtsean. Itxaro Borda

Porruen antzera **herrokan**. Itxaro Borda

Europako futbol txapelketa, Frantziako itzulia eta agorrilean Atenasko joko olinpikoak **herrokan** heldu zaizkigu. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Hedoi **herrokak** gero, kolore berdinez apaindu ziren. Itxaro Borda

herrokatu, herroka(tu), herrokatzen da/du *ad* lerrokatu.

Munduko azken berriak **herrokatzen** zituen [...]. Itxaro Borda

Argazkiaren ontzeko petik gora **herrokaturiko** jendeak. Itxaro Borda

Bidealdiak markatuz, **herrokatzen** ziren Ivry, Vitry, Choisy, Villeneuve-le-Roi, Ablon, Athis-Mons, Juvisy, Savigny eta Epinay hiri-izenetarik haren esku-gain ilunetara iragaten zuen soa Edmeak, fazinaturik. Itxaro Borda

herskailu ik *hesgailu*.

herskari 1 *izond/iz* kontsonantez mintzatuz, funtsean ahots bidearen ixte batez ebakitzen dena.

Euskaraz belar **herskariak** ([k] ahoskabea eta [g] ahostuna), [...] ohikoak dira. Lourdes Oñederra

Ingurune jarraitu eta ireki batean /b/ **herskariaren** ordez [β] jarraitua ahoskatzean, ebakeraren ahultzea gertatzen da. Lourdes Oñederra

Gogora dezagun kontsonante ozenak **herskari** direla neurri batean. Lourdes Oñederra

Hots afrikatuak ahots-bidearen hersketa batekin hasten dira, **herskariak** bezala. Lourdes Oñederra

Herskaria (/p/) ahoskabea denez, ezpainetako hersketak irauten duen bitartean, ahoskordek ez dute dar-dar egiten. Lourdes Oñederra

Herskaria leherkaria bada. Lourdes Oñederra

Herskari hasperenduak (ph, th, kh). Koldo Zuazo

Esaterako, *epher* hitzaren **herskaria** hasperenduna dela. Lourdes Oñederra

Dirudienez, leherketarik gabeko **herskarietan** ere, entzuleak bereizten du **herskariaren** ahoskunea ondoko bokalen maiztasunean duen eraginagatik. Lourdes Oñederra

Hitz bukaerako **herskariak**. Isabel Arrigain

2 (hitz elkartuetan)

Hiru **herskari** mota bereizten dira batez ere: ezpainkaria (p,b,m), horzkaria (t,d,n), eta guturala (k,g,n). Isabel Arrigain

Halakoak dira adibideetako txistukari-**herskari** bilkurak. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herskari ahostun (3); **herskari** ahostunen (3)

herskaritasun *iz* herskaria izateko nolakotasuna.

Ixtea nola isiltasuna eta leherketa den (**herskaritasuna**), estutzea zarata jarraitua den (igurzkaritasuna). Lourdes Oñederra

hersketa 1 *iz* herstea.

¹ ikurrak *aleph* delakoa adierazten du, hau da, **hersketa** osoa, grezierazko harnasbehera leunari dagokiona. Isabel Arrigain

Hots afrikatuak ahots-bidearen **hersketa** batekin hasten dira, herskariak bezala. Lourdes Oñederra

Ondoren irekiko da glotiseko **hersketa**. Lourdes Oñederra

Poliki laxatzen diren **hersketak**. Lourdes Oñederra

Afrikatu bat **hersketak** eta igurtziak osatzen dutela. Lourdes Oñederra

Herskaria (/p/) ahoskabea denez, ezpainetako **hersketak** irauten duen bitartean, ahoskordek ez dute dar-dar egiten. Lourdes Oñederra

2 (hitz elkartuetan)

Erraz bide da **hersketa** -osagai hori luzatzea txistukarirako trantsizioan. **Lourdes Oñederra**
· Giltzurrun-**hersetaren** oinaze artean. **Juan Garzia**

herste iz ixtea.

Eta hala zor niola menekotasuna eta obedientzia, haren begi **hersterik** nahi ez banuen behintzat...! **Joan Mari Irigoien**

herstear adlag hersteke zorian.

Metroaren zerragia metalikoak klaskan **herstear** daudela. **Itxaro Borda**

herstegi iz itxitegia.

Eta hala abiatu nintzen, neure bakardadetik ihesi, bertze gorputz batzuen bila, zeren arau haiek hesiz hesi eta **herstegiz herstegi** inguratu izan baitzuten urte luzeetan ene kontzientzia eta nik hesietarik harat egin beharra nuen, ez itotzeko. **Joan Mari Irigoien**

herstu ik herts¹.

herstura 1 iz estugunea.

Norris Pointen den **hersturaren** gibelean, Baya Ederra zabalduz doa. **Aurelia Arkotxa**
Lepo inguruko **herstura** laxatzen sumatu nuen. **Aingeru Epaltza**
· Gau hartan, Abaurretaren ganbera nimofoaren **hersturan**, aditzera eman nion Gileni: [...]. **Aingeru Epaltza**

2 estuasuna, larrialdia. ik estura.

Nire malkoak eztiagoak eta aiseagoak ziren; eta soilik haiek iraungitzen zidaten, alde, hona itzuliz geroztik sentitzen dudana **herstura**. Ez nintzen hargatik **herstura** hertsian bizi. **Jon Muñoz**

Herstura ero bat jabetu zen bere buruaz, margotzeko desira suhar bat. **Aritz Gorrotxategi**

Herstura larri hartan. **Elizen arteko biblia**

Erokeriaren eta herioaren **herstura** zorrotz eta sarkorrek. **Michel Oronoz**

Agoniaren **herstura** oroitu zuen behin berriro, hiletarena, hilobiarena, esan nahi baita, kirioak airean jartzen zion guztia. **Patxi Zubizarreta**

Eta astiriari buruz etxera itzulzen zelarik bidean haren **herstura** laxatzen zen eta nigar egiten zuen. **Michel Oronoz**

Hartan aita Leokadio zeritzana izan baikenuen nobizio-maisu, ni baino are hertsiago zena eta bere **hersturarekin** hertsatzen gintuena. **Joan Mari Irigoien**

Baina zerk ekarriko gaitu **herstura** horretan etsizera?, zein izango da gure etsigarria? **Iñaki Segurola**

3 (hitz elkartuetan gibarren osagai gisa)

Ene urduritasuna eta ene bihotz- **herstura**, logelan sartu eta anaiaren zain geratu nintzenez, hura noiz oheratuko zain...! **Joan Mari Irigoien**

Barne- **herstura** eta eskizofrenia eragingo ez baditu, bateratua eta koherentea izan behar du irudikapen horrek. **Juan Garzia**

Belaunaldi heldu baten ordezkariak sentituriko kanpo- **hersturen** -sentitzen dituen jendearen gizarte-posizioak zuzenean baldintzaturiko hersturen- eta jende horren seme-alabek sortzen ari den belaunaldian dituzten barne- **hersturen** -automatikoki diharduten horien- arteko erlazioa, dudarik gabe, garrantzizko fenomeno da arlo zabal batean...
Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **herstura** (3); **herstura eta** (5); **herstura ezin hertsia** (3); **herstura hertsia** (4); **herstura hertsia hartan** (3); **herstura laxatzen** (3)

hersturagarri izond herstura ergiten duena.

Baratze loratuan, han hemenka ziren ageri zenbeit tonba utziak **hersturagarri**; ondikotz familia agortuen orroitzapen samurrak ziren ezeztatu, baina barne ziren gure otoi-tzetan. **Herria**

hersturatu izond hersturak jasan dituen.

Bainan Terexak gehienik estimatu dukeen ongi-etorria izan da Afrikan, Filipinetan, Hego-Ameriketan eta gerla tokietan **hersturatuak**, ttipiek, behartsuek egin diotena.

Herria

herstutu ik estutu.

hertsadura (orobat hertxadura g.er.) iz hertsatzea. ik hertsapen.

Luzerako aipatzen da handikien **hertsadura**. Lege sinkronikoa, ezparik gabe, erabilera kolektiboaren **hertsadura** dela medio inposatzen da gizabanakoetan [...] baina ez dugu **hertsadura** horretan hiztunentzako betekizunik ikusten. **Itxaro Borda**

Pentagonoak erabiltzen dituen **hertsadura** psikologiko eta fisiko neurriak torturak dira. **Berria - Mundua**

Labur bilduz, araudi berri horrek orain artinoko **hertxadurak** oro gogortzen ditu. **Herria**

Hertsadura -maila desberdinak jasandakoak. **Iñaki Mendiguren**

Ez dakigu, hirulau mila urte lehenago, barne **hertsadurarik** apenas zerion poz hari mara-mara deituko zion agian. **Patziku Perurena**

hertsagarri 1 izond hertsatzen, estutzen duena.

Zein da bada mehatxatzen zaituen arrisku **hertsagarri** hori? **Jon Muñoz**

Oraingoz behintzat, begetal eginda daude, katalapsiak jota bezala, eta bizirik ateratzen badira alkandora **hertsagarri** bana izango dute zain Bermeoko psikiatrikoan. **Patxi Iturritegi**

Estatua «subiranotasuna» deitzen zaion aginpide **hertsagarriaren** barruan kokatu behar da. **Berria - Euskal Herria**
Mutilen eskakizun **hertsagarriari** -haserre ez zitezen- amore emateko. **Ramon Saizarbitoria**
Baina berriro ere besaburu parera altxatu zuen esku zabaldua, geldiarazteko keinu harekin -ez autoritarioa, baina bai **hertsagarria-**, eta itxaroteko esan zidan. **Ramon Saizarbitoria**
Etsipenaren soberania dut egun **hertsagarri**. **Jon Muñoz**

2 atorra/alkandora hertsagarri

Lublin-a eraman zuten eta atorra **hertsagarri** bat ezarri zioten. **Koro Navarro**
Atorra **hertsagarriaz** jantzirik eta oheari lotuta zegoen arren, erizainari beldurra ematen baitzion berarekin bakarrik gelditzeak. **Jose Morales**
Europako langile-klaseari erregimen totalitario baten alkandora **hertsagarria** eskaintzea. **Iñaki Mendiguren**

hertsakor *izond* hertsagarria.

Europan **juridikoki** hertsakorra izanen da, baina ez estatuetan. **Berria - Euskal Herria**

hertsapen *iz* hertsatzea. ik **hertsadura**.

Ukituriko gorputz-adarretako odol-ibilien **hertsapena**. **Joxe Austin Arrieta**
Israeldarrak laboratzera Faraon behartu zuen **hertsapen** moraleko moduetako bat igel izurrite bat izan zen. **Xabier Olarra**
Hertsapen psikologikoak badaude, hala nola atxilotuen bizilagunak ere arrastatzen dituztelarik presio egiteko. **Berria - Mundua**
Bera aldi berean bere hautazko ekintzetan askea dela eta izadiaren **hertsapenez** goiti dagoela. **Ibon Uribarri**
Erregela jakinetik saihesteko joera zedarritzatzen duen eta, azkenik, deuseztatzen duen **hertsapenari** diziplina deitzen zaio. **Ibon Uribarri**

hertsarazi, hertsaraz, hertsarazten du *ad* hertsitzera behartu, itxiarazi.

Atea **hertsarazi** dut eta ondoezik nintzela erranarazi. **Jon Muñoz**
Bertatik oheko oihalak zituen **hertsarazi**, eta nehor hurbil zekion debekatu. **Jon Muñoz**
Baldin begiak **hertsaraziko** balizkizute. **Joan Mari Irigoien**

hertsatu, hertsatzen **1** du *ad* estutu, inguru guztitik sakatu.

Haren bularra neureaz **hertsatzen** nuen. **Jon Muñoz**
Hortzak ezpainetan **hertsatuz**. **Xabier Amuriza**
Armen mehatxupean baten batek esku-burdinak ukaraietan **hertsatu** zizkiola. **Itxaro Borda**
Erregearen ondoan etzanik, gorputz idortu xarman bat ageri zen, zeinaren eskuak artean ere luzaturik baitzeuden lagunarenak **hertsatzeko**. **Juan Garzia**
-Nora daramak? **-hertsatu** nituen ukabilak. **Aingeru Epaltza**
Esku gogorki **hertsatuan** pergamino puska bat zeukan. **Juan Garzia**
Tristurak bihotza **hertsatzen** zidan. **Jon Muñoz**
Bidegurutzean **hertsaturik** dagoen gizona bezala aurkitzen naiz. **Xabier Kintana**

2 irud

Udaletxea **hertsatu** zuten herritar guzaien artean. **Elena Touyarou**
Aldi huntan fermuki **hertsatu** dute Amerikanoek Ariel Sharon. **Herria**
Kristaua **hertsatzen** duen grinarik saminena zer da? ea indarraren erabiltzea zilegi ote den jakitea. **Piarres Xarriton**
Emateko, eskaintzeko gogoak **hertsatzen** ninduen etengabe. **Joxan Elozegi**
-Hitz emadan, bihar nirekin etorriko haizela **-hertsatu** zuen Dembak. **Anton Garikano**
Bere izaeraren lege soilen arabera ari da Jainkoa, nehork **hertsatu** gabe. **Piarres Xarriton**
Bat-batean sentitzen dut munduak **hertsatu** egiten nauela alde guztietatik. **Oskar Arana**

3 hertsiki bultzatu.

Joantok eskua bereaz tinkatu zion, eta begietara behatzera **hertsatu** zuen. **Elena Touyarou**
Orain iruditzen zait, ordea, egun hartako gertakariak kontatzera **hertsatzen** nauela aurka egin ezin diezaiokedan ahots batek, eta Lajosi buruz dakizkidan guztiak esatera. **Ander Irizar**
Gure hautua izan duk, nehork ez gaitik hortarat **hertsatu**. **Herria**

4 (era burutua izenondo gisa)

Zintzur **hertsatua** segidan goxatzera noa. Arrazoimena asmo **hertsatuen** arabera bere interesaren berezko ibileraren aurka gidatzeko. **Piarres Aintziart**
Sasien artean ezkutatuz, martxa **hertsatuak** eginez, etsaiaren baserriari su emanez... **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edo hertsatzen (10); **edo hertsatzen ahal** (3); **edo hertsatzen duena** (3); **eta hertsatzeko** (3); **eta hertsatzen** (3); **gobernatzeko eta hertsatzeko** (3); **hertsatu ez** (5); **hertsatu ez eta** (3); **hertsatu zituen** (4); **hertsatu zuen** (5); **hertsatua dela** (3); **hertsatzen ahal** (4); **hertsatzen duen** (4); **hertsatzen duena** (3); **hertsatzen edo** (4); **hertsatzen edo itzaltzen** (3); **laguntzen edo hertsatzen** (5); **tipitzen edo hertsatzen** (4)

hertsatuki *adlag* hertsatuz.

"Jainko Jauna!" eta gero ozen baina **hertsatuki**: "Eraman ezazue, eramán ezazue". **Jon Muñoz**
Sevillako artzapezpikua hautatua zuen bi espainioletarik bat izateko, alde batetik [...], beste aldetik zuhaurek Jaun Handia berari **hertsatuki** galdatua zeniolakotz. **Piarres Xarriton**

hertsatzaile *izond* hertsatzen duena.

Behin oharkabean boa **hertsatzaile** bat bota nion lehengusu Dudleyri zoonan. **Iñaki Mendiguren**
Ito nuen, bada, kontzientziaren boz **hertsatzaile** baina sumaezina. **Matías Múgica**
Eragin **hertsatzaile** handiagoa. **Iñaki Mendiguren**
Legea ikusten bada borondate murriztaile eta **hertsatzaile** bezala hortik normalean ez gara inora joango. **Berria - Euskal Herria**
Izan ere, formalitate burokratikoak burdina baino **hertsatzaileagoak** gerta zitezkeen. **Iñaki Mendiguren**

Nik argi neukan, egin nituen irakurketekin, eta abar, eliza eta estatua estamentu guztiz **hertsatzaileak** zirela. Ana Urkiza
Gurasoak galdu nituelarik, identifikazio geldiarazleak, izugarri **hertsatzaileak**, galdu nituenaldi berean. Berria - Euskal Herria
Horrek ez du esan nahi kanpokoa eta **hertsatzailea** den araurik onartu behar denik. Piarres Xarriton

hertsatze iz estutzea.

Gure teknikariak aurki merkatuaren itxurdaketaren zein **hertsatzearen** fenomenoaren zergatiari erantzuna kausituko zion. Itxaro Borda
Huts eta **hertsatze** sentsazio bat ari zen nire barrua zulatzen. Joxan Elozegi

hertsi¹, hersten 1 du ad (orobat herstu) itxi.

Janinak begiak **hertsi** zituen. Itxaro Borda
Bere gelan sartu baino gehiago barnera oldartu eta atea **hersten** zuen. Jon Muñoz
Dinamita abarrak hartu zituen, eta [...] zuloaren tapakia **hertsi** zuen. Itxaro Borda
Ed Thatcher zutitu egin zen, ukabilak **hertsirik**. Lopez de Arana
Herriko etxeak hondartzak **hertsia**k atxikitzea hautatu zuen. Berria - Euskal Herria
Gure olak **hertsi** eta bertze negozio batzuk muntatu beharko genituzkeela? Joan Mari Irigoien
Neure burua pareten artean **hersteko** kondena. Joan Mari Irigoien
Ekaitza delarik hondartzak **hersten** dituzte. Berria - Euskal Herria

2 herstear ik herstear.

hertsi² (orobat hertxi g.er.) 1 izond itxia.

Tren geltokiko saltegi **hertsia**k. Baina bat-batean, gau **hertsia**ren erdian oraindik, horra non aurkitzen garen mendiaren gailurrean. Joxe Austin Arrieta

2 estua.

Mehainerateko xendra **hertsian**. Itxaro Borda
Pasabide luze eta **hertsia** zeharkatu ondoan. Elena Touyarou
Magenta abenidaren saihetseko karrika **hertsietarik**. Itxaro Borda
Ibarra ibaia bezain **hertsia** da. Piarres Aintziart
Han dena **hertsia** eta txikia duk! Itxaro Borda

3 irud

Ene mundu **hertsi** eta hetsitik nolabait ateratzen banindu bezala, urrutira eramanez... Daniel Landart
Haize korrontea sartzen zen ate handi zabalduetik eta freskura pixka bat zekarkion ardo usainezko giro bero **hertsi** hari. Karlos Zabala
Bizitzak ezin duela formaren muga **hertsietan** etsi. Bernardo Atxaga
Memoriak uste baino muga **hertsia**goak ditu. Joan Mari Irigoien
Muga batzu behar dira beraz ezarri bainan ez **hertxi**giak... Herria
Espiritu **hertsi** hori beldurraren beste aurpegi bat izan daiteke. Iñaki Iñurrieta
Menturaz zure izpiritu **hertsi** hori zabalduko delako esperantzan. Eneko Bidegain
Hizkuntzalaritzak erlazio **hertsia**k ditu beste jakintzekiko. Isabel Arrigain
Kulturaren eta hizkuntzaren arteko lotura **hertsia**. Piarres Xarriton
Zeltikoak, bestalde, oso lotura **hertsia**k ditu italikoarekin. Isabel Arrigain
Zientzia den aldetik eskakizunik **hertsien** arabera dogmatikoa eta sistematikoa izan behar duen [...] Metafisika. Ibon Uribarri
Euskara batu itxia eta **hertsia** erabili zuen zenbaitek solasaldi eta jardun mota guztietan. Koldo Zuazo
Ikuspegi **hertsi** edo zurrunik gabe. Berria - Euskal Herria
Ikusmolde **hertsia**k, dudakorrek eta durduzatiak dira: lasterren joan nahi eta astiroen goaz. Itxaro Borda
Espiritu **hertsi** hori beldurraren beste aurpegi bat izan daiteke. Iñaki Iñurrieta
Eztabaidan argi geratu zen Frantziaren jarrera **hertsia**. Berria - Euskal Herria
Goi eta erdiko mailako klase puritanoko eta moral **hertsiko** beste kide askok bezala. Antton Olano
Moral **hertsia**k eta barne-gogoeta egiteko beharrak laburbiltzen dute haren mezua. Askoren artean
Itxuraz oso bestelakoak diren istorio beldurgarrienak [...] logikarik **hertsien**aren garapenean oinarritzen diren bezala. Koro Navarro
Fede marxista **hertsikoa**. Joxe Azurmendi
Ikastetxeko diziplina **hertsia**k. Aingeru Epaltza
Nirekin buruz buru hitz egiteko behar **hertsia**k eraginda. Txillardeggi
Europa bisitatzeko premia **hertsia**. Joxe Austin Arrieta
Jauregitik ez irteko agindu **hertsia** jaso genuenez geroztik. Txillardeggi
Eta ordutegi **hertsia**k. Patziku Perurena
Determinismo **hertsia**rekiko haustura eta eboluzioaren aurrera-behar itsua. Juan Garzia

4 (zentzu, adiera eta kidekoekin)

"Osaba" hitzaren zentzu **hertsian**. Obabako nekazariak antzinako mendeetako aire hori zuten, eta, zentzu **hertsian**, beste aberri batekoak ziruditen. Bernardo Atxaga
Moralak halabarrez askatasuna (zentzu **hertsien**ean) auresuposatzen duela. Ibon Uribarri
Eta izan, zentzurik **hertsien**ean, apartekoak izan ziren, baita ondorioetan ere. Bernardo Atxaga
Adiera **hertsian** Metafisika deitzen zaiona Filosofia transzendentala eta arrazoimen hutsaren Fisiologiak osatzen da. Ibon Uribarri
Hitzaren esanahi **hertsian**. Oskar Arana
Sineste hori esanahi **hertsian** ez da, hala ere, praktikoa. Ibon Uribarri

5 hertsi-hertsi

Ustez eta entzuten zion jendeak bera barneratutako zoko eta zirritu harritsu **hertsi-hertsietan** zehar segitzen ziola. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiera **hertsian** (3); atea **hertsi** (5); begiak **hertsi** (20); bide **hertsi** (6); eremu **hertsian** (4); esanahi **hertsian** (6); eskailera **hertsi** (3); giro **hertsi** (5); herstura ezin **hertsia**goan (3); herstura **hertsi** (4); ikuspegi **hertsi** (3); jarrera **hertsia** (5); karrika **hertsi** (4); karrika **hertsia**k (3); karrika **hertsietan** (3); lotura **hertsia** (3); orokortasun **hertsia** (3); pasabide **hertsi** (3); zentzu **hertsian** (16)

hertsidura iz herstura, estutzea.

Uhinaren presio positiboa iristean, burbuilako lurrina kondentsatu, eta prozesu osoan lortutako energia eskualde txiki batean biltzen da: burbuilaren inplosioak **-hertsidura** bortitzak alegia- mugatzen duena. **Fernando Morillo**

Halera, **hertsidura** hori ez da pisuegia bihurtzen, besteak beste, aktore emazteen jokoari esker. **Berria - Kultura**

hertsiera iz itxiera, hertsigunea.

Era horretara, eta mihi-artikulazioa kontuan harturik, esaterik izango genuke kasu bakoitzean zein punturen parean aurkitzen den **hertsiera** nagusia. **Isabel Arrigain**

hertsikeria (ETCn 54 agerraldi; orobat hertxikeria g.er.) iz gogo zabaltasunik ez duenaren jarrera edo jokaera.

Baigorriarrak ez ziren horretaratuak eta bekaizgoak, **hertsikeriak**, alderdikeriak, herrak, gainditu zituzten herritarren gogo-bihotzak. **Michel Oronoz**

Bederen bederen, gure familiek hauxe nahi baitute: gure gazteak berearen jabe, haatik deus **hertsikeriari** gabe, besteeri eta munduari zabalik dagoen idekitasunean. **Herria**

Jende hauen izpiritu **hertsikeriaren** azpitik. **Itxaro Borda**

Eta **hertsikeriak** bizitzaren azken zokorat eraman ninduela. **Joan Mari Irigoien**

Hertsikeria sexualak sortzen baititu, usu, nabarmenkeria sexualik zabarrenak. **Patziku Perurena**

Hertxikeriaren Aita Saindua izan delako. **Herria**

hertsiki 1 adlag estuki.

Kapela handia, jaka labur eta gorputzari **hertsiki** egokitua. **Koldo Biguri**

Gu geu ere **hertsiki** kaiolatuak gaude geure nerbio- eta sentsu-tresneriak inposatzen digun mundu-irudikapenean. **Juan Garzia**

Beti iruditu izan zaizkit ikusgarriak halako egiturak, ontziaren gorputzari hain **hertsiki** lotuak. **Joxe Austin Arrieta**

Hala Espainian nola Frantzian, eliza eta estatua **hertsiki** loturik doaz. **Joan Mari Irigoien**

Itsumena eta argialdi edo argitasuna **hertsiki** loturik ageri dira fisika subatomikoan, amodioan, erlijioan, ekonomian, artean eta beste holako fedezko zera guztietan. **Iñaki Seguro**

Iritzi bati burugogor eta **hertsiki** atxikitzen zaiona. **Xabier Olarra**

Hurbildu nintzaion -ez sobera, **hertsiki** debekatua baitzen-. **Marzel Etxehandi**

Laneko eta otoitzeko tenoreak biziki **hertsiki** Arauek finkatzen dituztela. **Michel Oronoz**

Baionako zubia **hertsiki** zaindua zen gau eta egun. **Marzel Etxehandi**

Medikuari **hertsiki** galdetu zion has zezala berriz kontakizun krudel hura. **Jon Muñoz**

Hertsiki, ezagutza kontzeptuen bidez eskuratzen da. **Askoren artean**

2 herts-i-hertsiki

Baina aurretik gauza bat agindu behar didazu **herts-i-hertsiki**: zer gerta ere, ez duzula ezer esango. **Txillardeg**

hertsipen iz hertsitzea.

Lau helburu horien lortzeko, egoerak eskaintzen zizkion **hertsipenak** gainditu beharko zituen Mikelek. **Ramuntxo Etxeberri**

hertsireki iz itxi-irekia.

Begien **hertsireki** batean. **Joan Mari Irigoien**

Eta begien **herts**-ireki batean. **Elizen arteko biblia**

- *izond* Musu eman zion ezpain haragitsu **hertsireki** haietan. **Sonia Gonzalez**

- Ahoa **hertsirekita** eduki behar du, sudurreko tabikeak erdi itsatsita dituzenez arnasa hartzea galarazten baitiote. **Sonia Gonzalez**

hertsitasun iz hertsia denaren nolakotasuna.

Esku irmoarekin ipini zuen oihal garbia astoaren gainean, barrera moduan, ahula, baina Ramsay jauna eta honen **hertsitasuna** uxatzeko aski sendoa izango zelakoan.

Anton Garikano

hertsitto izond estutxoa.

Zalapartarik gabe batere baina arras goxoki jokatu dute lau pilotariek partida, trinket **hertsittoan** baina edozeinetan bezain partida gustagarriak egiten direnean. **Berria - Euskal Herria**

hertsitu, hertsitu, hertsitzen (ETCn 70 agerraldi; orobat hertsutu g.er. eta hertxitu ETCn 17 agerraldi) da ad estutu, mehartu. ik hertsatu.

Bidea **hertsitzen** da segidan, goiti doala ezti ezti. **Piarres Aintziart**

Rocky Harbourreko inguruetan hasiz, Baya Ederra Norris Pointen **hertsitzen** da franko handi diren mendi eta oihanetan barna doala gero, Lomond arte luzatuz. **Aurelia Arkotxa**

Hala senarrak nagusigo handiagoa edo txikiagoa izatera, nola etxeko gobernua **hertsitu** edo zabaltzeko interesetara. **Andres Urrutia**

Demokraziaren bideak urtetik urtera **hertxituz** doatzi. **Herria**

hertsitzaile izond hertsitzen duena.

Ez naiz musikan sortzen diren sistema **hertsitzaileen** aldekoa. **Berria - Kultura**

Halakoetan legegileak dihardu aginpide **hertsitzailearen** erabiltze hutsean, gizartearen desordenarik okerrenak aurreikusteko eta grina eta abusuei mugak jartzeko. **Berria - Kultura**

hertsitze *iz* estutzea.

Bide **hertsitze** batzueri esker. **Herria**

hertu, hert, hertzen **1** da *ad ipar* hantua edo puztua dagoena hustu.

Ortzaizean multzoturiko kumulu-ninbo astunak airez, sabelak hurrez bezala, husten eta **hertzen** ziren. **Itxaro Borda**

2 (era burutua izenondo gisa)

Ipurdi mazela iletsuak, tripa sail hirukoitzak, koskoila hustuak eta oihan ilunetan aterpetzen ziren zakila jada **hertuak**. **Itxaro Borda**

hertz (*ETCn 489 agerraldi; orobat hertzio ETCn 4 agerraldi*) *iz* maiztasun unitatea, segundoko zikloari dagokiona.

Gure etxeko irratietatik ezagutzen dugun **Hertz** (Hz) neurriak horixe adierazten du, zenbat ziklo segundoko dituen hots batek: adibidez, 300 Hz dituen uhinak 300 ziklo egingo lituzke segundoko. **Lourdes Oñederra**

Formante bakoitzaren **Hertz** zenbaki zehatzak. **Lourdes Oñederra**

Izpiok oso energia handikoak dira (uhin luzera milimetroaren mila milioigarrena da, eta frekuentzia 100.000.000.000.000.000 **hertzekoa**!), eta indar nuklearraren eta elektromagnetikoaren arteko interakzioaren bidez sortzen dira. **Berria - Gaiak**

LFAS sonarrak 450 eta 700 **hertzioko** frekuentziak erabiltzen ditu. **Berria - Gaiak**

hertze **1** *iz pl* hesteak.

Hobe duala hango ur kiretsik ez hurrupatzea, ez baldin badituk nahi hire **hertzeak** erre. **Aurelia Arkotxa**

Urdailean eta **hertzeetan** trabatut ziztaizkidan humore gaixto guztiekin. **Joan Mari Irigoien**

Bere **hertzeek** eta estomakako zainek beren lana ez dezakete egin. **Herria**

Oraino nekez sendatzen den **hertzetako** eritasun honentzat egiten diren ikerketen laguntzeko. **Herria**

Hertzeetako perforazio batek. **Aingeru Epaltza**

Itsasontzian sartuz geroztik **hertzeak** apur hegian neuzkala. **Itxaro Borda**

2 *zilko* hertze zilbor hestea.

Labana zorrotzu berriaz zilko- **hertzea** ukaldi finko batez ebaki zuen. **Itxaro Borda**

hertziar *izond* uhin elektromagnetikoei dagokiena.

Idea hori are gehiago indartu du telebistak, zuzeneko transmisioaren bidez, hartan gertaeraren denbora eta irudiarena bat baitatoz erabat, atzeramendu infinitesimal baten aldearekin, uhin **hertziarrek** iristeko behar duten denboraren aldearekin, mikrosegundo batzuk. **Josu Zabaleta**

hertzio ik hertz.

hesgailu (*10 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 5 agerraldi; orobat herskailu 5 agerraldi, 3 liburutan; ETCn 2 agerraldi*) *iz* itxigailua.

Karteraren **hesgailua** behin eta berriro itxi-irekika. **Lopez de Arana**

Maletako **hesgailuak** ireki eta zaku-oihalezko fardeltxoia atera nuen. **Alberto Ladron Arana**

Hesgailuak bizkor itxi eta eserlekuaren gaineko sarean jarri zuen berriro maleta. **Alberto Ladron Arana**

Biblia bat metalezko **hetskailuz** itxia. **Koro Navarro**

Letra margotua eta **hetskailu** irtenak zituen poltsa ilun bat. **Koro Navarro**

Gure behi hunek badu beti zerbait: **hesgailua** idekitzen ez dakik nola, gero joka lotzen eskuin, ezker. **Herria**

Beretta 38 A metrailadore baten **hetskailua**. **Juan Garzia**

Leiho **hesgailuak** kesetan ekartzean, hiruetan hogoi bat, masa batez joka, makurtu ditut. **Marzel Etxehandi**

hesi **1** *iz* lur eremu bat ixten edo babesten duen, edo igarobidea galarazten duen eragozgarria, berez landarez edo abarrez, laharrez edo oholez egina.

Hesi bat dauka inguruan babesgarri, alboetan bastioiak ageri dituen. Palak **hesia** botatzen hasi eta berehala. **Karlos Zabala**

Baratzeko **hesi** gainetik igaro eta sorotara sartu zen. **Koldo Biguri**

Gure baratzean behera joan, eta **hesiaren** txarrantxaren azpitik igaro nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Hesi eraiki berriaren gainetik igarotzen da. **Oskar Arana**

Hesia jarri beharko duzu atzealdean, kanpora jauzi egin ez dezaten. **Oskar Arana**

Ordurako, zulo batetik **hesia** zeharkatu eta lasterka zihoan haren zaldia estepan barrena. **Karlos Zabala**

Baratzeari **hesia** jarri bitartean. **Askoren artean**

Gibelean zihoazen ibilgailuek ezin izan zuten saihestu aitzineko autoak edo bide erdiko **hesiak** jotzea. **Berria - Euskal Herria**

Hesia aspaldi ebaki eta zulatu zuten, eta ateari eta oharrari ez diete jaramonik egiten. **Oskar Arana**

Hesiko atean azaldu berria zen mujik bati begiratu zion gero. **Jose Morales**

Lehen **Hesiko** Atean hintzen. **Agustín Otsoa**

Hesi hostotsuz bereziak ziren bide estu ordenatuak. **Josu Zabaleta**

Katuak uxatzen zituen Txinako **hesi** arantzadunen inguruan txistuka. **Koro Navarro**

Pitbull batek **hesi** gainetik jauzi eta eraso egin zion aitonari. **Gotzon Garate**

Alde guztietan **hesiz** itxiriko eremu zabal baten erdian zegoen. **Jose Morales**

Basoak **hesiz** inguratutik zeuden. **Jose Morales**

Hirian, aireari igarobiderik uzten ez dioten **hesi** itogarriz inguratutik bizi baita jendea. **Jose Morales**

Ez Berlingo **hesiaren** lur-jotzea, ez herri-demokrazien desagitea. **Juan Garzia**

Hesiak apartheid egoera areagotu egiten duela salatzen dute palestinarrek. **Berria - Mundua**

2 (gaia adieraz)

Lurrezko **hesietarantz** bidali zituen soldaduak. **Karlos Zabala**

Kale zabalaren eta zurezko **hesi** azkengabearen artean. **Jose Morales**

Borrokarako atondu genizkion [karrakari] gazteluek eta oholezko **hesiek**. **Edorta Jimenez**

Gidariak haizetik babesteko, hiru metroko altuerako plastikozko **hesiak** ditu zubiak aldeetan. **Berria - Gaiak**

Burdinarizko **hesi** alderantz astiro zihoala. **Koldo Biguri**

Burdinazko **hesi** bati tira nion, eta burdina haietako bat jo bete-betean. **Juan Kruz Igerabide**

Austriarekiko mugak ireki eta Burdinazko **Hesia** hautsi zuen Hungariak. **Berria - Mundua**

Zelai eta barrutietan, harrizko **hesiak** eta langak baztertu gabe arantzazko **hesiak** jartzen hasi zirenean txarrantxa deitu zioten itxutura hari. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lager-ak eremu itxiak ziren, harresiz eta txarrantxazko **hesi** elektriko inguratuak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Haltzez, sahatsez eta lertxunez **hesituriko** lautada idorretan. **Karlos Zabala**

Ikusten duzun izotzezko **hesi** erraldoi horrek Urbasa gogorazaziko ditu. **Joseba Sarrionandia**

-Jelazko **hesia** zeharkatu behar dinagu -esan zion ahopean-. **Karlos Zabala**

Langileek suzko **hesiak** jarri zituzten han eta hemen, SEPIk ontziola publikoak privatizatzeko asmoa berretsi izana salatuz. **Berria - Ekonomia**

Hondar-zakuz egindako hiru bat **hesi** igaro behar izan genituen. **Inazio Mujika Iraola**

Hari ziztakariarekin metro baten garaierako **hesiak** eraikiz. **Pello Salaburu**

3 (mugikorrek)

Aduanako **hesia** zen, mugazainek gurdien miaketan ziharduten. **Karlos Zabala**

Umea zihonan autoa harrapatu zuen **hesirik** gabeko igarobide batean. **Berria - Euskal Herria**

Atearen barnealdeko **hesia** egunez zabalik egoiten baita. **Filipe Bidart**

Gizonak kanpoko **hesiraino** jarraitu zion. **Jon Alonso**

Gainera, atletik ez da hurbiltzen ahal, barneko **hesiak** debekatzeko baita, eta burua **hesiaren** kontra emanik ere, atletik berrogoita hamar zentrimetrotan zaude. **Filipe Bidart**

Laster hori ditut berri zaintzaleak **hesia** zabaltzen. **Filipe Bidart**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horiek nora iritsi, dena bihurtzen da han Highway, hots, alde banatako **hesi**-kartel publizitarioz jositako mundua. **Joxe Austin Arrieta**

Plaza inguru guztian, zurezko **hesi**-sail luzea eraiki zen. **Txillardegi**

Israelek **hesi** zati bat botako du, Hagaren kritika eragotzi nahian. **Berria - Mundua**

Poligonotik kanpo, **hesi** paratzaileak lanean ari ziren. **Pablo Sastre**

Gizona "kontrol mugikorra"ren kamioi gainera igorazi eta harrapatu zuten **hesi**-zuloaraino lagundu zioten. **Koldo Biguri**

Guardia zibilak **hesi**-lana egiten zuen xingola horia pasatzen utzi zion. **Hasier Etxeberria**

Hesi-lana nekez betetzen duen adreiluzko horma erdi erorian. **Anjel Lertxundi**

Egoera hori ikusirik, hainbat administrazio **hesi**-lana egiten ari dira, trabak jartzen. **Berria - Euskal Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dama misteriosua, babes **hesiaren** beste aldean hanka puntetan. **Aritz Gorrotxategi**

Jesus Galindezen gogora Madril eta Valentzia lotzen dituen errepidea dator, kontrol **hesiz** josia. **Edorta Jimenez**

Gazako lurraldearen eta Israelen artean eraturako beste banaketa **hesi** batek. **Berria - Mundua**

Eskorta-**hesi** zartatuak han-hemen. **Juan Garzia**

Rustholme Crescent kaleko 8. zenbakiak margotua du lorategi-**hesiko** atea. **Oskar Arana**

Segurtasun-**hesia** irekitzen du, gero atea. **Oskar Arana**

Hara iristerako bere kideek giza-**hesi** bat egina dute, inor pasatzen ez uzteko. **Antton Olano**

Pablo Garciaik giza **hesira** bidali zuen baloia. **Berria - Kirola**

Pedro Miguel Etxenike fisikari ezaguna ikusi zuen, polizia-**hesiaz** bestaldean. **Fernando Morillo**

Kontrol Lerroa aprobetxatuta, alanbre **hesi** bikoitza eraikitzen hasi zen India iaz. **Berria - Mundua**

Ordurako ezaguna genuen txarrantxa-**hesia**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ohol **hesietako** zirrikituren batetik. **Karlos Zabala**

Trenbidea babesteko enbor **hesian** tantai bat aurkitu zuten, bestea bezain irmo jarria ez zegoena. **Karlos Zabala**

Santa Klarak kanabera-**hesizko** gelatxo bat prestatu zion. **Askoren artean**

Bertan, belardiak, ezpel-**hesiak** eta loretoiak ikus zitezkeen. **Joan Mari Irigoien**

Baina landare-**hesiak** eta gurlandak besterik ez zegoen soro inguruan. **Koldo Biguri**

Autobusak, aldapa estu batean, bi ibiltari motxiladun belar **hesiaren** babesera salto egitera behartu zituen. **Koro Navarro**

Pilotako plazak, beren harri-**hesiekin**, hormekin edo paretekin, hasi ziren XIX. mendean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Izotz **hesi** batek. **Karlos Zabala**

Noam Livnat kolonoak Defentsa **Hesia** izeneko kanpaina jarri zuen atzo martxan. **Berria - Mundua**

6 irud

Plazer mugagabea, elkarren guraria duena **hesi** bakar. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zeuen desira beste **hesirik**, zeuen irrika beste legerik ez duzenok. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gure uestezko betebeharrak horiek guztiek ipintzen dizkiguten **hesiak** hautsiko bagenitu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ezezkoaren aukerak ez du lortu abstentzioaren **hesia** haustea. **Berria - Harian**

Zure feminismoa **hesi** gaintzein baten modukoa da. **Lopez de Arana**

Justizia eta aberastasunen banaketa zuzenagoa da immigrazioaren aurkako **hesirik** eraginkorra. **Berria - Harian**

Horrelaxe hautsi ziren tradiziozko gizarateak konkurrentziako sistemaren kontra zituen azken **hesiak**. **Koro Navarro**

Ohiz kanpoko mozkinak eta sarrera-**hesi** gogorak izatea da merkatu [oligopolistiko] horien ezaugarria. **Koro Navarro**

Estatuek ezarritako aduana-**hesi** altuek lekuan bertan inbertitzera bultzatzen zituztelarik. **Koro Navarro**

Gauza kaltegarri bat Mendebaldeko jentilen eta juduen artean **hesi** psikologikoak irautea izan zen, haien arteko **hesi** juridikoak ofizialki kendu ondoren. **Iñaki Mendiguren**

Gorputzaren **hesiak** baino ez zezan Jainkoagandik banandu. **Askoren artean**

Pirinio mendiak ere ez dira, dagoeneko, iraganezinezko **hesi**. **Koldo Zuazo**

Autismoak berak ezartzen dizkie gurasoei **hesi** gaintzeinak -kontaktua eta komunikazioa galarazten dutenak-. **Xabier Olarra**

Zenbat heriotza behar dira homofobiari **hesia** jarri eta behar bezala zigortzeko? **Berria - Euskal Herria**

Logika, **hesi** zahar hori, arrazoia, harresi zahar hori, zentzuzkotasuna, ideien itxura zahar hori, zartatu egiten dira, erori egiten dira, behea jotzen dute aske jaregiten den, [...]

eta inork gelditzen ez duen irudimenaren aurrean. **Josu Zabaleta**

7 burdin hesi

Burdin **hesien** beste aldean, bi soldadu guardia egiten, **cetmeak** eskuetan. **Iñaki Iñurrieta**

George baserriaren patioiko burdin- **hesiarekin** borrokan aritu zen, eta barruko ahateei begira. Koro Navarro

Leiho guztiak, baita hamaseigarren solairukoak ere, burdin- **hesiz** itxita daude. Pako Aristi

Han landaturiko platanoen burdin **hesien** azpian. Karlos Zabala

Ate gibelean giltza harrabotsak, burdin **hesi** bat zabaltzen balitz bezala. Filipe Bidart

Beste burdin **hesi** andana bat eta beste zaintzale tropa bat. Filipe Bidart

Espetxetako burdin- **hesidun** ate tipikoa. Pako Aristi

8 hesi lasterketa

Zaldiek apatx bakoitzean igel bana dute... naturaren hornizio burutsua, **hesi** -lasterketetan distiratzeko aukera ematen diena. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alanbre hesi (3); **arteko hesi** (3); **banaketa hesi** (4); **beste hesi** (3); **burdin hesi** (17); **burdin hesi bat** (3); **burdinazko hesi** (4); **duen hesi** (4); **edo hesi** (5); **eta hesi** (27); **eta hesi bat** (5)

hesi aldera (3); **hesi atzean** (4); **hesi barruan** (3); **hesi bat** (44); **hesi bat eraiki** (4); **hesi batean** (4); **hesi batek** (19); **hesi batekin** (4); **hesi baten** (15); **hesi baten kontra** (6); **hesi batetik** (4); **hesi batez** (3); **hesi beltz** (3); **hesi eta** (7); **hesi gainean** (3); **hesi gainetik** (8); **hesi guztiak** (4); **hesi hartan** (3); **hesi hori** (5); **hesi horiek** (4); **hesi hura** (8); **hesi lana** (5); **hesi lana egiten** (4); **hesi paratzaileak** (3); **hesi sendo** (3); **hesi zati** (5); **hesi zati bat** (4)

landare hesi (7); **metalezko hesi** (3); **zen eta hesi** (3); **zen hesi** (5); **zenbat hesi** (3); **zuen hesi** (4); **zurezko hesi** (4)

apartheid hesia (4); **arteko hesia** (3); **babes hesia** (4); **banaketa hesia** (74); **banaketa hesia eraikitzeko** (5); **banaketa hesia eraikitzen** (8); **banaketa hesia eta** (3); **banaketa hesia legez** (7); **barneko hesia** (6); **berlingo hesia** (3); **burdin hesia** (13); **burdinazko hesia** (4); **da hesia** (4); **den banaketa hesia** (11); **dio hesia** (3); **dituen hesia** (3); **du banaketa hesia** (3); **duen hesia** (7); **dute hesia** (4); **eta banaketa hesia** (6); **eta hesia** (10)

hesia baino (3); **hesia egiteko** (5); **hesia eraikitzeko** (10); **hesia eraikitzeko lanak** (3); **hesia eraikitzen** (14); **hesia eraikitzen ari** (4); **hesia ere** (4); **hesia eta** (12); **hesia ez** (3); **hesia gairiditu** (3); **hesia gairiditzea** (3); **hesia hautsi** (7); **hesia hesten** (6); **hesia igarotzen** (3); **hesia jarri** (7); **hesia jarriko** (5); **hesia jo** (12); **hesia jo zuen** (5); **hesia legez** (12); **hesia legez kanpokoa** (5); **hesia legez kanpokotzat** (7); **hesia legezkoa** (3); **hesia mugi** (3); **hesia palestinarren** (4); **hesia zabaldu** (3); **hesia zabaltzen** (5); **hesia zeharkatu** (4); **hesia zeharkatu eta** (3)

inguruan hesia (3); **inguruko hesia** (3); **jelazko hesia** (3); **kilometroko hesia** (4); **segurtasun hesia** (4); **zegoen hesia** (3); **zisjordaniako hesia** (3); **zuen hesia** (5)

banaketa hesiak (23); **banaketa hesiak nazioarteko** (3); **banaketa hesiak palestinarren** (3); **burdin hesiak** (10); **den banaketa hesiak** (3); **ditu hesiak** (3); **eta hesiak** (8); **hesiak eta** (15); **hesiak ez** (8); **hesiak gairiditu** (4); **hesiak jarri** (11); **hesiak jartzen** (4); **hesiak nazioarteko** (3); **hesiak nazioarteko zuzenbidea** (3); **hesiak palestinarren** (4); **segurtasun hesiak** (4); **suzko hesiak** (3)

burdin hesian (4); **eta hesian** (3); **hesian lotu** (3); **hesian zehar** (6)

apartheid hesiaren (3); **ari den hesiaren** (7); **auzitegiak banaketa hesiaren** (3); **banaketa hesiaren** (87); **banaketa hesiaren aurkako** (3); **banaketa hesiaren eraikuntza** (6); **banaketa hesiaren ibilbidea** (4); **banaketa hesiaren inguruan** (3); **banaketa hesiaren inguruko** (3); **banaketa hesiaren kontra** (5); **banaketa hesiaren kontrako** (15); **banaketa hesiaren legezketasunaz** (3); **banaketa hesiaren zati** (6); **burdin hesiaren** (8); **burdin hesiaren kontra** (3); **burdinazko hesiaren** (4); **da hesiaren** (4); **den banaketa hesiaren** (22); **den hesiaren** (8); **dituen hesiaren** (4); **duen hesiaren** (3); **egurrezko hesiaren** (3); **eta banaketa hesiaren** (4); **eta hesiaren** (11); **eta hesiaren artean** (3)

hesiaren alde (4); **hesiaren artean** (4); **hesiaren atzean** (6); **hesiaren atzetik** (3); **hesiaren aurka** (8); **hesiaren aurkako** (6); **hesiaren aurrean** (5); **hesiaren auzia** (3); **hesiaren bestaldean** (6); **hesiaren beste** (21); **hesiaren beste aldean** (15); **hesiaren beste aldera** (4); **hesiaren eraikuntza** (14); **hesiaren eraikuntza bertan** (3); **hesiaren eraikuntzaren** (3); **hesiaren eta** (4); **hesiaren gainetik** (11); **hesiaren helburua** (3); **hesiaren ibilbidea** (7); **hesiaren ibilbidea aldatzeko** (3); **hesiaren ibilbidearen** (4); **hesiaren inguruan** (6); **hesiaren inguruko** (7); **hesiaren kontra** (27); **hesiaren kontrako** (20); **hesiaren kontrako manifestazio** (3); **hesiaren legezketasuna** (3); **hesiaren legezketasunaz** (4); **hesiaren ohol** (3); **hesiaren ondoan** (8); **hesiaren zati** (10); **hesiaren zati bat** (5)

israelek hesiaren (3); **landare hesiaren** (3); **txarrantxazko hesiaren** (3); **zisjordaniako hesiaren** (3)

banaketa hesiari (9); **banaketa hesiaz** (4); **burdin hesiaz** (3); **burdin hesien** (5); **den banaketa hesiari** (3); **eta hesiaz** (3); **eta hesien** (5); **eta hesietan** (3); **hesiari buruz** (3); **hesiaz bestaldean** (6); **hesiaz bestaldetik** (3); **hesiaz beste** (3); **hesien artean** (4); **hesien atzean** (3); **hesiko atea** (4); **hesirik ez** (3); **hesirik gabeko** (8); **hesitik kanpo** (5); **hesiz inguratu** (3); **hesiz inguratuta** (4); **hesiz inguratuta dago** (3)

hesialdi iz

SAFERek hasiera batean 230 mila euroan Ingalaterrako bikote batek erosi nahi zuen Etxebesten Bordari ez zion **hesialdirik** ezarri. Berria - Euskal Herria

hesidun 1 izond hesia duena; hesiak dituena.

Argi gorritzko izpi ahul batzuk sartzen ziren leiho **hesidunetatik** . Koro Navarro

Mahai gainean margarita-sorta eder bat dago, eta **hesidun** leihoan geranioak. Pako Aristi

2 (atletismoan)

60 metroak eta 60 metro **hesidunak** irabaztea. Berria - Kirola

Ez zuten lortu, ordea, Virgijilius Aleknak (diskoa), Fani Halkiak (400 metro **hesidunak**) eta Tatyana Lebedevak (luzera jauzia). Berria - Kirola

400 **hesidunetan** marka eskasagoa zuela aitortu du. Berria - Euskal Herria

Larry Wade 110 metro **hesidunetako** korrikalaria. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

metro hesidunetako (3); **metro hesidunetan** (13)

hesidura ik hesitura.

hesigabe izond hesirik ez duena.

Ikuspegi **hesigabeak** omen zituen gustuko, mendi eta belardi berdeak. Xabier Olarra

hesiketa iz hesitzea.

Aspaldi-aspalditik dago eremu- **hesiketa** bat, eta gaur bertan ere gaixoak eta eroak, pobreak bezalaxe, beren barrutietan bizi dira, beste jendearengandik bereizita.

Bernardo Atxaga

hesipe iz hesiaren azpialdea.

Esadak, esan, zergatik hire hezur eraz ehortziok, herioren **hesipe**, beren hiljantziak dituzten urratu. Juan Garzia

hesitu, hesi(tu), hesitzen 1 hesiz itxi.

Zelai osoa **hesitu** zuen, eta gero putzua kable elektrifikatuz inguratu zuen oso-osoaa. Koro Navarro

Eraikuntza apal bat [...] hautsez betetako lur zati karratu batean eraikia eta txarrantxaz **hesitua** . Oskar Arana

[Galeriak] haizeztapenerako hutsarte handi bana daukate erdigunean, baranda apalez **hesituak** . **Juan Garzia**

Ahizpa bere etxe aristokratikoko hormen artean **hesiturik** bizi baita. **Jose Morales**

Oholez eta pneumatiko zaharrez **hesitutako** eremu bat. **Oskar Arana**

Huntzaz **hesitutako** lorategi honetako ate aurrean nago orain. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horrek Stepheni mundu zabalago baten zentzua eman zion nonbait, ordu arte bitzita **hesitu** zioten ikuspegi mugatuz haragoko zerumuga zabalagoen zentzua. **Xabier Olarra**

Behar dugu zerbait **hesituko** gaituena, errima eta neurria, sorkuntza-lanari forma emateko. **Andoni Egaña**

2 hesiz hornitu.

Gainerako tarreak oso-oso menditsuak dira, eta ez dago haiek **hesitzeko** modurik. **Berria - Mundua**

Zazpi urtegi eraiki zituzten, harrizko hormez, ibaiak ixteko eta **hesitzeko** . **Felipe Juaristi**

Ateak **hesituak** zituen biltegi bat seinalatu zuen. **Koro Navarro**

3 (era burutua izenondo gisa)

Landa zabal eta **hesitu** batean jarri zuten bizilekua. **Askoren artean**

Lur-sail txiki **hesitu** bat. **Anton Garikano**

Horretaz gain, gune **hesitu** bat ere bazuen, zoragarria, gimnastikarako zelai, pista, igerileku, haurrentzako jostaleku eta guzti. **Koldo Biguri**

Agian ghetto **hesitu** eta faltsu batean biziko ziren, uharte barruko beste uharte batean. **Jon Muñoz**

Saltoki txiki burdin-**hesituak** ageri ziren lerro-lerro. **Karlos Zabala**

hesitura (orobat hesidura) iz

Ni, berriz, **hesituraren** ondoan geratzen nintzen neskari begira. **Irene Aldasoro**

Trinity Collegeko **hesituraren** ondotik igarotzen ari zirela. **Irene Aldasoro**

Gasolindegia, auto-saltokiak beren banderaño eta zurezko **hesiturekin**, auto porrokatuz metatu txatategiak. Argirik gabeko izua, zorabioa, zentzumenak lizuntzen dituen irudia, gogoa **hesidura** txarrantxadunez mugatzen duen lotsa. **Felipe Juaristi**

hesitxo iz hesi txikia.

Aurrealdeko soropila inguratuz harrizko **hesitxo** bat zuen etxeak. **Xabier Olarra**

Elkarrengandik banandurik zeuden, tartean **hesitxo** bana zutela, baina, zorionez, elkar ikusi ahal zuten **hesitxoaren** gainetik. **Jose Morales**

hesitze iz hesiz ixtea.

Izan ere, Ingalaterran, **hesitze** -higikundeak landa-ekonomia irauli zuen eta luraren erabilera hutsik etekintsua oztopatzen zuten azken eragozpenak ezabatu zituen. **Koro Navarro**

hesizain iz

Ez al nauk ezagutzen, Hob **Hesizain** ? **Agustin Otsua**

heskai iz landare hesia.

Inausi gabeko **heskaian** ondotik pasatzean euri tantez bete zaio gabardinaren beheko aldea. **Pello Lizarraide**

Berehala konturatu zen Harry huraxe zela goiz hartan lorategiko **heskaitik** begira egon zitzaiona. **Iñaki Mendiguren**

Gnomoak landaren beste aldean **heskaira** sartzen ari zirela ikustean. **Iñaki Mendiguren**

hesol 1 iz ohol sendoa, lurrean sartu eta finkatzeko mutur puntadun bat duena.

Hesia egiteko **hesolak** erabiltzen dira. **Gotzon Garate**

Hesolek lau bat urte irauten dute, usteldu egiten baitira. **Gotzon Garate**

Salem irakurri zuen Norak hiriaren sarrerako **hesola** bati josiriko oholean. **Anjel Lertxundi**

Hesoletan loturik zaldi batzuk zeuden. **Juan Garzia**

Horrelaxe igaro zuten, konturatu ere egin gabe, mugako **hesola** zurizko lerroa. **Josu Zabaleta**

Begitik **hesola** odoltsua atera [ziklopeak], eta, eroturik, harrika bota zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Abernathyk **hesola** bat sartu zion bihotzean txakurrari, eta ondoren, lepoa moztu zion kimatzeko guraize batzuekin. **Berria - Gaiak**

Ea nork lagunduko zidan **hesola** hura jasotzen eta ziklopeari begian sartzen lo hartzen zuenean. **Juan Kruz Igerabide**

Zingira-lurra baldin bada, orduan dena hondeatu eta garbitu egingo da, eta ondoren **hesolak** sartuko dira, makal, olibondo edo haritzekoak eta sutan gogortutakoak.

Santiago Iruretagoiena

Hesola bat jaso dute ezpel-pilaren erdian eta bertan lotu dute andre Madalen. **Anjel Lertxundi**

Alanbrezko hariak, **hesolatik hesolara** kateatuz herri batetik bestera ipini zituztenean, jendeak ez zuen sinesten hari haren barrutik hitzak joan behar zuenik, eta hala zioten: horiek sorginkeriak zirela. **Pako Aristi**

Hesolaz hesola arrastan eraman zuen eskua. **Irene Aldasoro**

2 (erkaketan)

Une hartantxe **hesola** baino gizon luzeago bat irten zitzaion bidera. **Anjel Lertxundi**

Emakume **hesola** bezain tente bat agertu zen. **Anjel Lertxundi**

Gülbahar besarkatu zuen; zangoak atezuan zituen, kokotsa dardaran, **hesola** bat bezain zurrun. **Fernando Rey**

Banoa -esan zion bat-batean Yusufek, zurbil, gorputza **hesola** bat bezain zurrun. **Fernando Rey**

3 (hitz elkartuetan)

Belaontziaren parez pare marinelen lana argitzen zuten argi-**hesolei** begiratu zien Norak. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hesola bat (10); **hesola bat bezain** (3); **hesola bati** (4); **hesolak** eta (3)

hesorma iz hesi arteko horma.

Berak jarriarazia du dagoeneko hesia, eta zatiketa egiteko falta den **hesorma** ipintzeko eskatzen digu guri orain. Juan Garzia

Eraitsi **hesormak** beharrezkoa bada. Juan Garzia

hespil iz artegia.

Harri puskaraz eraikia, **hespil** horretan gordetzen dituzte ahuntzak eta arkumeak gaeuz. Xabier Montoia

hestarteko iz peritoneoa.

Hestarteko puska batzuek farfaila zuri haragitsuak marrazten zituzten guztiaren edergarri. Karlos Zabala

heste¹ iz pl/digestio hodiaren zatia, urdailetik uzkira doana. ik hertze.

Ez zekiela seguru sentimenduak non sortzen ote diren, bihotzean ala **hesteetan**. Josu Landa

Edandakoak su-labaz osaturiko labana zorrotz batek bezala ahotik **hesteetarainoko** bidea urratu baitzion bortizki. Josetxo Azkona

Zahartzea, elikadura txarra, **hesteetako** parasitoak. Oskar Arana

Haurtxoen maskuria eta **hesteak** ekintza erreflexuz husten dira. Irene Aldasoro

Esneak **hesteetako** minbizia garatzeko arriskua gutxitzen duela diote adituek. Berria - Gaiak

On egin zion berotasunak, ezitu egin zion **hesteetako** oinazea. Koldo Izagirre

Hesteetako nahaste hura. Iñaki Iñurrieta

Hesteetako infekzioak saihestuz. Juan Garzia

Adin horretan **hesteetako** hormak ez direlako behar bezain iragazkorrak. Berria - Gaiak

Hesteak leheritu zitzaizkion, nonbait. Xabier Etxabe

Amasa ez zen oharitu Joabek beste eskuan zuen ezpataz; honek sabeletik sartu zion, **hesteak** lurrean barreiatuz. Elizen arteko biblia

Odol zikina jaurtitzen zuen ahotik, eta **hesteak** ere bota behar zituela zirudien. Askoren artean

Hesteak kiribilkatzen zituen edaria manatzen genuen. Itxaro Borda

Nahiz eta goseagatik **hesteak** bihurrituta eduki. Koldo Biguri

Epilepsiak jota edo **hesteak** buxatuta. Oskar Arana

Paper guztia erabili behar izan zuen, kapilauaren akorduak bihurritu egin zizkion **hesteak**. Koldo Izagirre

Litro bat rizino olio irenstera behartu eta agonia makaleko orduak **hesteak** bihurriturik sufrizera derrigortutako jendearenak. Ramon Etxezarreta

Ikusten dudun aurreneko apaizari labana sartu eta **hesteak** aterako zizkioat. Inazio Mujika Iraola

2 (singularrean)

Duodenoa da **hestearen** lehen zatia. Irene Aldasoro

Hesteko paretetako ehunek. Irene Aldasoro

Hestean dauden bakterio batzuek sortzen dute B bitamina. Irene Aldasoro

Nire jauntxoan orrore batean hustu zen, nire **hestea** haziz betez. Juan Martin Elexpuru

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin digerituzko hondakinak, **heste**-paretetako zaborrak, behazun eta pankrea-urinean hondarrak. Irene Aldasoro

Koldar **heste**-ustel hori. Xabier Olarra

Naftalina-kiratsa omen zerion eta **heste**-idor aurpegia omen zuen. Juan Garzia

Gantza digeritzea nahiko zaila da, **heste**-entzima gehienak uretan baino ez baitira disolbatzen. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Odolkiarentzat txerri **hesteak** prestatzen zituen bitartean. Karlos Zabala

Urdail-**hesteetako** odoljarioa. Pako Aristi

Arratoi-**heste** zornatuena ere atseginagoak dituk OVRAkoak baino. Anjel Lertxundi

5 irud

Baretzen hasiak ote ziren itsasoaren **hesteak** ere. Koldo Izagirre

Poltsa hura gordetzeko txoko hobeaz ezagutzen zuen, makinetan, ontziaren **heste** zikinetan. Joseba Sarrionandia

Nire pubak zortzi baffle dauzka, eta 2.000 batioko indarra jaurtitzen dute lokalaren **hesteetara**. Pako Aristi

Olio usain goibela zerion metroaren **heste**-sailtan urtzeko ordua hurbildu zitzaidan. Itxaro Borda

6 hestebeeten azala.

Mamia jan baino lehen, odolosteari **hestea** erretiratzeko diot nik beti. Hasier Etxeberria

Quenuri laguntzen zion batzuetan, **heste** eusten zien bere hatz potoloekin, mutilak okelaz eta urdaiz betetzen zituela. Karlos Zabala

Gauza ederra zen ikusteko nola pasatzen ziren xehatzeko makinatik haragi puskar, bitan, hirutan, eta nola sartzen zituen haragi masan osagai guztiak, eta nola betetzen zituen **hesteak** inbutu batez. Josu Zabaleta

Orea isurtzen zen, beltz-beltza eta lurrintsua; **hestea** pixkanaka puzten zen, eta kurba gizen bigunak moldatzen zituen erortzean. Karlos Zabala

7 gogoaz heste egin

Gogoaz **heste** eginik, pala eta zaku bat hartu eta oholesi barruan sartu nintzen. Anjel Lertxundi

7a heste-aringarri iz ik purga.

Kafean **heste**-aringarri on bat ematea izango litzateke onena. Josu Zabaleta

8 heste lodi heste meharraren ondoren datorrena, lodiagoa eta laburragoa dena.

Ura xurgatzea -atzera zirkulaziora eramateko- eta gainerakoa kanpora bultzatzea da **heste** lodiaren eginkizun nagusia. Irene Aldasoro

Orain sei hilabete hil zen [...] **heste** lodiko minbiziak jota. Anjel Lertxundi

Horixe da ametsen funtzioa, irudimenaren **heste** lodiarena. Aritz Gorrotxategi

Gibela, urdaila, pankrea, **heste** meharrak eta lodia, bi giltzurrun, barea transplantatu dizkiote Miamin (AEB) Italiako sei hilabeteko haur bati. Berria - Gaiak

Heste lodia kendu eta heste meheari poltsa bat lotu zitoten. Berria - Euskal Herria

9 heste mehar (16 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 302 agerraldi) hesteen lehen zatia, luzea eta mehea.

Zortzi organo gibela, urdaila, pankrea, **heste meharrak** eta lodia, bi giltzurrun, barea transplantatu dizkiote Miamin (AEB) Italiako sei hilabeteko haur bati. Berria - Gaiak

Aho-sabaia sikatu, zangoak dar-dar hasi eta **heste meharraren** jarioak uzki aldera etorri zitzaizkidan esfinterreko atea jotzera. Jon Alonso

Digestio- eta xurgatze-prozesu gehienak **heste meharrean** gertatzen dira. Irene Aldasoro

Elikagaietan datorren proteina kantitateaz gainera [...], beste 150 gramo ematen dituzte urdail-paretatik eta **heste meharretik** bazterturiko zelulek (**heste meharra** ere berriro egiten baitu bere barne-estaldura bi edo hiru egunetik behin) eta pankrea-urinean dauden entzimetatik bazterturikoek. **Irene Aldasoro**

Heste meharretik xurgaturiko glukosa hartu, eta gorputz osora banatzen du berriro. **Irene Aldasoro**

10 **heste mehe** (*3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; ETCn 36 agerraldi*) heste meharra.

Heste lodia kendu eta **heste meheari** poltsa bat lotu zioten. **Berria - Euskal Herria**

Apaizak geroa jakiteko asmoz sakrifizioko biktimaren **heste mehea** zatitu eta jainkoentzat haren haragia maneatzeko erabiltzen zuen mahaia. **Xabier Olarra**

11 **heste-sobre** heste itsuaren luzakin mehe barne-hutsa.

Zeruko ebakuntza-gelaren batetik eroritako gibel odoldua, errai zati bat, San Pedroren **heste** -sobrea edo San Pankraziorena, Ataungo mondejua.... **Joxean Agirre**

12 **heste zizare** hesteetan bizkarroi egoten den zizarea.

Haurrek **heste** -zizareak zituzten beti. **Joseba Urteaga**

Analisi batzuen ostean, **heste** -zizareen inbasioa zeukala diagnostikatu zioten medikuek. **Iban Zaldua**

Heste -zizareak hiltzeko botika. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

13 **hesteak libratu** kaka egin.

Idorreria, esaterako, **hesteak** libratu ezina alegia, txarra da. **Joxerra Garzia**

Hator, hator, putatzar alublai hori, **hesteak** libratzen lagunduko dinat-eta! **Anjel Lertxundi**

14 **hesteez beste egin**

Gurdiaren jabea **hesteez** beste egiterainoko trantzean dago hainbeste lapurretekin, eta mehatxu egin dio Batista Bazterretxeri: "beltzak eta zuriak ikusiko dituzu (ukabilak erakustez gainera, legearen mehatxua egin dio gurdiaren jabeak) nire gurdi-ardatza ematen ez badidazu". **Anjel Lertxundi**

15 **zilbor heste** karena eta umekia lotzen dituen heste modukoa, jaiotzean ebakitzen zaiona.

Umeak umetokian ezin du zilbor-**hesterik** gabe bizi eta jaiotakoan, berriz, zilbor-**hestea** eten behar zaio itoko ez bada. **Anjel Lertxundi**

Erditu berria zen ama kartzelan, eta borrhoroak zilbor-**hestea** aprobetxatu zuen. **Karlos Linazasoro**

Hori izan zen, etengabeko gutun gurutzatzea, Bilborekin lotuta eduki zion zilbor **hestea**. **Joxemari Iturralde**

Zilbor-**hestea** bezain beharrezkoa den kautxuzko hodi batek lotzen nau hegazkinera. **Josu Zabaleta**

Euskal gizartearen eta euskal presoen arteko zilbor-**hestea** eten nahi dute.

Azoka-leku erraldoia fabrika zaharra izango da beti torinotarrentzat, hiriaren eta Agnellitarren arteko zilbor-**heste** eten ezina. **Anjel Lertxundi**

16 **zintzur heste** arnasbideetako zatia, zintzurretik bronkioetara doan tutua. **iktrakea**.

Gogorrago, gogorrago, hatzak astiro mugitu ziren Setheren zintzur-**heste** aldera, bidean zirkulu txikiak eginez. **Anton Garikano**

Arnasa hartzen dugunean, trakeatik (zintzur-**hestetik**) biriketara igarotzen da airea. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

heste inguru (4); **heste meharra** (4); **heste meharrean** (4); **hesteak atera** (3); **hesteak bota** (5); **hesteak ere** (3); **hesteak eta** (5); **hesteak eta hankak** (4); **hesteei eutsi** (3); **hesteetako minbizia** (6); **hesteako odoleko zelulak** (3); **zilbor heste** (9); **zilbor hestea** (15); **zilbor hesteak** (4); **zilbor hesteetatik** (3); **zilbor hesteako odoleko** (3); **zilbor hesteako zelulak** (4); **zilbor hesteako zelulen** (3); **zilbor hestetik** (5)

heste² iz ixtea.

Begiak ia **hesteraino** ximurturik. **Eneko Bidegain**

Eskoletan ere arrangura handiak dituzte, postu **heste** menturekin. **Herria**

Baionako seminario **hestea** eta Donapaleuko frantxikanoen etxearen saltzea. **Herria**

Posta **heste**, enplegu murrizte eta gainerateko hersturekin. **Herria**

hestebete 1 iz txerri heste zati bat haragi zehatuz, urdaiz eta kidekoetz betez prestatzen den janaria.

Lukainka arruntak, **hestebete** freskoak. **Karlos Zabala**

Hestebete luze kulunkarie. **Juan Garzia**

Gazta atal erraldoiak, urdaiazpikoak, **hestebeteak**, odolkiak. **Berria - Kultura**

Saiheski ogi-arrautzeztatuak eta askotariko **hestebeteak**. **Karlos Zabala**

Plater bat **hestebete** utzi dizut hozkailuan... **Xabier Paya**

Erakusleihoko **hestebete** eta okelen artetik. Plater bat **hestebete** utzi dizut hozkailuan... **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Gazta eta **hestebete** -mokaduei laguntzeko. **Joseba Urteaga**

Hestebete denda bat izango zuten. **Karlos Zabala**

Hestebete mota hori jakia hegaztiaren lepoaz beraz bilduz egiten da. **Juan Garzia**

Hestebete, haragi eta espezia merkataritzan. **Josu Zabaleta**

· Antzar-**hestebeteak** prestatzeko errezeta. **Juan Garzia**

hestebetegile iz hestebeteak egiten dituen pertsona.

Augustek ez zuen parerik Parisko **hestebetegileen** artean odola ateratzeko orduan. **Karlos Zabala**

Oso gauza bakana zela **hestebetegile** bat sukaldari ona izatea. **Karlos Zabala**

Bat-batean, **hestebetegilearen** ahotsa entzun zuen. **Karlos Zabala**

hestebetegin iz hestebetegilea.

Han geratu zen luzaro **hestebeteginaren** aurpegi odolkoloreari bekaitez so. **Juan Garzia**

hestebetegintza iz hestebeteak egitea.

Parisa etorri zenean, bere hasierako asmoa **hestebetegintzan** trebatzea baino ez zen izan. **Karlos Zabala**

Hestebetegintzan duen trebezia ari da erakusten. **Josu Zabaleta**

hestegorri iz

Zigarro-keak **hestegorria** berotzen zion bitartean. Joxemari Urteaga

Untxiei **hestegoriraino** zintzurerratu, eta haien gluzemia neurtu. Juan Garzia

Mihia **heste** gorriraino edo sartu dio. Sonia Gonzalez

Hain zuzen ere, laringean bereizten da biriketarantz doan arnasaren bidea (trakea) jakiak urdailerantz bideratzen dituen **hestegorritik**. Lourdes Oñederra

Urdail-azidoa likido azido bat da eta gora egiten duenean **hestegorria** minberatzen du. Berria - Gaiak

Hodi horren bidez, ziztada txiki bat egiten zaio **hestegorriaren** mukosa azpian. Berria - Gaiak

hesteki iz

Haren kontra finkaturik, hainbat aparatuz zeuden, **hestekiak** betetzeko ponpa bat, zapalgailu bat, haragia xehatzeko makina mekaniko bat. Karlos Zabala

Aurrezteari ekin zioten berriro, ogia eta **hestekiak** barra-barra. Joseba Urteaga

Lehenago, gazta eta **hestekiak** ogiaren osagarri ziren, orain ogi muttur batekin edo ogirik gabe hartzen dira. Edorta Agirre

hestekokeria iz

Gero gainera, gogoko izango du bonbardaketen ostean ikusiko dituen hanka galduez, lepo moztuez eta halako **hestekokeriez** idaztea. Edorta Jimenez

hetaira iz

Ez dakit dakizun, baina **hetairek**, Grezia zaharreko prostitutek, ipurdia eskaintzen zuten, gehienbat. Karlos Zabala

Afrodita **Hetairen** tenpluan. Juan Garzia

hetero iz

Hetero batek inoiz sofrutuko ez duena. Pako Aristi

Geroko utzi, geroko utzi eta, halako batean, berandu zen, eta haien zentzuz ez zen zerbait ezinbestekoa, **hetero** puruak deitutako askorentzat ez den bezala. Karlos Zabala

Homo, **hetero**, sado, maso, zoo... Jon Arretxe

heterodeterminazio iz

Esan dezatela argi eta garbi: autodeterminazioa ez, **hetero**-determinazioa da bidea. Joxerra Garzia

Autodeterminazioa badakigu nontsuz dagoen, baita **heterodeterminazioa** ere; Espainia ere bai, Euskal Herriaren proiektua(k) ere bai. Iñaki Segurola

heterodoxia iz

Une hartan Elizak markatzen zuen nor zegoen **heterodoxian** eta nor ortodoxian. Berria - Kultura

Haren idazkariak [...] edonolako **heterodoxien** inkisidore gutzit zorrotzaren ospea zuen. Juan Garzia

Uste askorik gabe, **heterodoxiaren** muga zeharkatetik oso hurbil zebiltzan eskeko mojak eta Maddalen gajoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

heterodoxo 1 iz

John Keneth Galbraith ekonomilari **heterodoxo** estatubatuarrari buruz. Iñaki Heras

Azalpen **heterodoxoaren** arabera. Iñaki Heras

Idazlearen liburu **heterodoxoena** denez gero. Edorta Jimenez

Rockera, jazzera, abangoardietara, kabaretera eta bestelako estiloetara gerturatu da, betiere modu berezi eta **heterodoxoan**, Gero eta ezagunagoa den ikuspegi ezkorra edo **heterodoxoa**. Iñaki Heras

Bere teoriak **heterodoxotzat** kondenatu zituzten Soissonsko kontzilioan. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izen gisa)

Beti dira urrutikoak edo beste garai batekoak maite omen ditugun **heterodoxo** horiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezkutuko lege horien biktimak izan diren **heterodoxo** ospetsuz beteta daude iragan mendeko ziegak. Anjel Lertxundi

heterodoxotasun iz

Bere bi ezaugarri horiek, bere homosexualtasunak -bere garaiko bizitza publikoan erasoen kontra ahulago bihurtzen zuenak-, eta bere irizpide askatasunak eta **heterodoxotasunak** -ezkertiar izanik ere, Alderdi Komunista ofizialarekiko harremanetan oztipoak eta liskarrak izanaraziko zizkietenak- [...] segurtasuna ematen duten taldeetatik urrutitatu zuten. Josu Zabaleta

heterofasia iz

Heterofasia edo glosolalia edo auskalo zer arraio zela medio. Karlos Linazasoro

Jendea, ordea, ez zegoen **heterofasia** edo nahasmendu edo erokeria izu-laborrizko hura gehiago pairatzeko prest. Karlos Linazasoro

heteroftongia iz

Heteroftongia ere dantzatu zuten doktoreek, hizketazko zeran halako desfase txiki bat, bingoa ahoskatzea eragotziko ziona. Karlos Linazasoro

heterogeneitate iz

Garapen bidean diren herrialdeak edo herrialde pobreak edo gisako terminoek izendatu nahi den herrialde multzo horren baitan, **heterogeneitatea** dela nagusi. Iñaki Heras

Europar mundu-ekonomiaren nolakotasun kapitalistik dator haren bokazio unibertsala, bestela esanda, munduko espazio osora zabaltzeko joera, espazio horren **heterogeneitateaz** baliatuz. Koro Navarro
Fenotipoaren **heterogeneitatea** dela eta da hain zaila autismoarekin lotutako geneak aurkitzea Berria - Gaiak

heterogeneo *izond* elementu ezberdinez osatua, askotarikoa; arrotza, bestelakoa.

Ez gara, alabaina, geure oilolur **heterogeneo** eta askotarikotik irteten, prentsa abertzaleko eguraldiaren maparen mugen barruan gabilta beti. Juan Luis Zabala
Halako talde **heterogeneo** batean. Berria - Ekonomia
Gizarte zibila oso **heterogeneoa** da eta nola lan egin zehaztu behar dugu. Berria - Harian
Familiaren, ikaskideen eta liburuen eraginaren mende, ezagutza eta datu **heterogeneo** samarrak bilduz ari zen Andres bere gogoa moldatzen. Josu Zabaleta
Aztartzeko proposatzen diren osagarri hauek nahikoa **heterogeneoak** dira. Xabier Arregi
Oro har, esan daiteke, mugimendu **heterogeneoa** dela, ideologia eta pentsamendu desberdineko pertsonen osatzen baitute. Iñaki Heras
Mintzaira **heterogeneoa** da; era horretara mugaturiko hizkuntza, aldz, homogeneoa da: ikur sistema bat da. Isabel Arrigain
Genetikoki, **heterogeneoa** da autismoa: batzuetan menderatzailea, beste batzuetan errezesiboa. Xabier Olarra
Prozesuan, jakina, interes intelektual eta sozial desberdinak eta **heterogeneoak** agertzen dira. Askoren artean
Inoiz topo egindakoak ziren bizimodu aski **heterogeneo** eta heterodoxo baten kariaz. Jon Alonso

heterogeneotasun *iz* heterogeneoa denaren nolakotasuna.

Mundu biziaren eta haren **heterogeneotasunaren** azalpen kausala. Juan Garzia
Ekimenen artean **heterogeneotasuna** nagusi den arren. Iñaki Heras
Hemen azaldu diren teorien barreiadura eta **heterogeneotasuna** ikusita. Josu Zabaleta
Datu hotzak -mapetan azaltzen diren kilometroak- ponderatu egin behar zirela iruditu zitzaigun, eta, esaterako, **heterogeneotasun** indize bat erabili behar zela. Bernardo Atxaga
Espazio periferikoaren **heterogeneotasuna**. Koro Navarro
Edonork antzeman diezaioke sailaren **heterogeneotasunari**. Bernardo Atxaga

heteroklito *izond* etorki ezberdineko osagaiez osatua.

Oro har harturik, mintzaira, multiforme eta **heteroklitoa** da. Isabel Arrigain
Estekadurarik gabeko gauza **heteroklitoen** pilaketa nahasgarri gisa. Isabel Arrigain

heterokromatiko *izond* kolore bati baino gehiagori dagokiona.

Bere laborategian teorizatzen duen fede oneko zientzialaritik, ohartzeko pasatzen gara kriminal hutsera, edozer egiteko gauza denera, hala nola formola injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi **heterokromatikoak** ateratzeko. Juan Garzia

heteronimo *iz* hitzez mintzatuz, esanahiaren aldetik beste baten oso gertukoa izanagatik etorki eta formaren aldetik ezberdina dena.

Beldur naiz Alvaro Campos hori Pessoaen pseudonimo, **heteronimo** edo ez-dakit-zer-nimo horietako bat ez ote den. J.M. Olaizola "Txiliku"
Pessoak berak edo bere **heteronimoetako** batek, hori ez dago jakiterik. Harkaitz Cano
AEBetako Altxorraren Departamentuak, edo bere **heteronimorik** ezagunena omen den Munduko Diru Funtsak gidatu eta babesturiko politikaren ondorio. Iñaki Heras
Erakunde horrek eta bere **heteronimoek** neoliberalismoa ezartzen dute munduan. Iñaki Heras

heteronomia *iz* kanpoko botere edo lege baten mende egotea.

Beraz, gizakia duin da arrazoiaren esanetara ibiltzeko, **heteronomia** hutsean jardun ordez agintarien borondate soiletik indarra hartzen duten aginduen mende. Askoren artean

heterosexista *iz* heterosexualitatearen aldekoa.

Gizartea «bere burua zuri, seronegatibo, patriarkal, kapitalista, **heterosexista** eta konbentzional» gisa azaldu nahian dabilela. Berria - Euskal Herria

heterosexual *izond* pertsonen mintzatuz, beste sexukoek erakartzen dutena.

Gizon **heterosexualentzako** zerbitzua. Jon Arretxe
Bartzelonako gayen dantzalekuetan bikote **heterosexualak** direla gaur egun nagusi. Berria - Euskal Herria
Sexu **heterosexual** arruntaren ostean dagoen moralismo viktoriarra. Askoren artean
Sexu harreman **heterosexualen** bidez. Luis Elberdin
Gero, nagusitutakoan, ezkontza **heterosexual**, monogamiko, leial, posesibo eta ugalkorren bidean sartzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Eredu **heterosexuala** nagusitu da gizartean. Berria - Gaiak
Estherrek ez daki ni **heterosexuala** naizela. Patxi Zubizarreta

heterosexualitate *iz* heterosexualaren sexualitatea, normaltzat hartzen dena.

Heterosexualitate hutsak mugatu egiten du. Karlos Zabala

heterosilabiko *izond* beste silaba batekoa dena.

Izan ere, hitz barranean suertatzen direnean, gainera, multzoak Ozentasun Eskalaren arabera banatzen dira bilkura **heterosilabikoetan** (ak.tore, har.tu, janz.kera). Lourdes Oñederra

heterozigoto *izond/iz* gameto ezberdinen gurutzaketak sortua.

Greziako zenbait herritan, non oso altua baita gaitz horren eroale **heterozigotoen** maiztasuna, eta ezkontzak konponduak baitira oraindik askotan, saiatu dira ezkonturreko diagnostiko isilpekoak-edo egiten eta **heterozigotoen** arteko ezkontzak eragozten. **Juan Garzia**

heterozikliko *izond* gorputz edo segida ziklikoek mintzatuz, gutxienez karbonoaz bestelako atomo bat duena.

Konposatu **heteroziklikoa** da [dioxina] (C₄H₄O₂), substantzia kimiko bat. **Berria - Gaiak**

hetika *iz* eritasun kutsakorra, Koch-en baziloak gizakiengan eta abere mota batzuetan eragiten duena, biriketan edo gorputzaren beste alderdi batzuetan eratzen diren bikor antzeko batzuek ezaugarritzen dutena. ik **tuberkulosi**.

Aspalditik zuen **hetikaren** eraginez, besoak hezur hutsetan zituen. **Ibon Uribarri**

Hetikak sakoneraino har bitza haien birrikak, / harrez gainezka egingo ahal du haien puxikak. **Xabier Olarra**

Garai haietan **hetikak** eta sukar-ustelak gogorri jotzen zituzten bazterrak, gerla denboretako presondegi eta herio zelaietan bereziki. **Eneko Bidegain**

Olivier d'Oussant 1562. urtean hil zen [...] Paristik negozio on bat egin ondoren zaldian zetorrela busti eta hotzeriaz harrapatutako **hetika** baten ondorioz. **J.M. Olaizola** "Txiliiku"

hetikadun *iz* hetikak joa.

Gizon txikitxo zen, **hetikadun** bat bezain iharra, makurra eta hanka-okerra. **Koro Navarro**

hetsarazi, hetsaraz, hetsarazten du *ad* hestera behartu, itxiarazi.

Alaba ez zuen komentuan **hetsarazi** familia desohoratu zuelako, baizik eta beren begiek elkar topatzen zuten aldiko botatzen zion so akusatzailea ezin jasanez gehiago.

Elena Touyarou

Joan den larunbateko manifestariak dei egin diote Prefetari, Lur Bizia lantegia **hetsaraz** dezan. **Herria**

Barozeko lohi biltegia **hetsarazi** du Dartout prefetak, iraila ondar arte bederen. **Herria**

Ondorioz, Eusko Jaurilaritza eta Barakaldako Herriko Etxeak lantegia **hetsarazi** dute, irrisku guziak ezeztatu artean. **Herria**

Izen horretako irratia eta egunkaria **hetsarazi** zituen Garzonek duela sei urte jadanik. **Herria**

Spainiol gobernua 3 euskal komunikabide **hets-** arazi dituela. **Herria**

hetsi (*ETCn 2.676 agerraldi*), hets, hesten du **1** du *ad* itxi. ik **itxi**¹. (zerbait)

Minaren minez begiak **hetsi** nituen. **Daniel Landart**

Gauekoren erreinuan sartzen dira bizidun guziak, begiak argiari **hesten** direlarik. **Michel Oronoz**

Pentsa, presoak ez du berak leihoa zabaltzen eta **hesten** ahal, eta argia piztu eta itzali ere ez... **Filipe Bidart**

Sare lodi batek ongi **hesten** baitu leihatila barneko aldetik. **Filipe Bidart**

Harrabots batzuk entzuten ditut beharriak tente, denborarekin identifikatuko ditudanak... ate bat zabaltzen han urrun, berriz **hesten**, beste ate bat zabaltzen, berriz **hesten**, eta beste bat, beste bat, gero eta hurbilago, aldi oroz lau harrabots zabaltzean eta bat **hestean**, gero eta hurbilago, eta bat-batean, klanka!, ene atearen gaineko zerrapoa, klanka!, pekoa, klaska! klaska!, giltza zerrailuan eta zaintzale bat agertzen da atean. **Filipe Bidart**

Zeldatik ateratzen nintzelarik beste zelda guziak **hetsiak** ziren eta pasabideak hustuak. **Filipe Bidart**

Eliza bisitatu nahi nuen baina **hetsia** da. **Piarres Aintziart**

· **Hets** ezazu liburu hau! **Ramuntxo Etxeberri**

Oraindik zauriak **hetsirik** ez direnen askorentzat liburu mingarria. **Herria**

· Zerrapoa bortizki **hetsiz**. **Filipe Bidart**

Laster 2002ko kondua **hetsiko** du. **Herria**

· Ateratzera noa baina zaintzaleak pasaia **hesten** dit. **Filipe Bidart**

Zakur batek bidea **hesten** dit. **Piarres Aintziart**

Orai murriz eta alanbre xistadunez bideak **hetsi** dituzte. **Herria**

2 (zerbitzu bat eskaintzen duen zerbitzu)

Bakantzak izanez, Herriko Etxea **hetsia** da aste huntan. **Herria**

Honen arabera behar baitira eskolak **hetsi** eta fraile-serorak kanporatu. **Michel Oronoz**

Orain dela zenbait urte **hetsi** behar izan zutela ikastetxea, nolazpait bizi berri bat eman nahi diote ekimen horrekin. **Berria - Kultura**

Frantziako **Hezkuntzak** ez du onartu Seaskak behar dituen 77,5 irakasle orenak. [Berria - Euskal Herria](#)
Unesco **Hezkuntza**, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak. [Berria - Kultura](#)

2 (izenondoekin)

Hezkuntza nazionalak hizkuntza gutituen garatzeko berriki agitaratu erabakiak. [Herria](#)
Hezkuntza publiko egoki bat. [Iñaki Heras](#)
Hezkuntza parekidea eta euskalduna eskatu dute. [Berria - Euskal Herria](#)
Hezkuntza elebiduna haur guztiei emateko ahalegina. [Berria - Mundua](#)
Gizarteak badu **hezkuntza** berdintzaile, berritzaile eta kalitatezko baten premia. [Berria - Euskal Herria](#)
Hezkuntza zapaltzaile baten pean hazitakoak erantzun erraz eta sinpleak behar zituelako. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da dudarik urrats handiak egin direla **hezkuntza** maila guztietan, unibertsitatean ere. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)
Are adierazgarriagoak dira **hezkuntza** mailetan zehar euskaraz ikasten dutenen ehunekoak. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)
Azken aldian **hezkuntza** -ohiturretan izandako aldaketengatik. [Iñaki Mendiguren](#)
Sozializazioaren bektore nagusiak, gaur egungo nazio-estatuak, familia, herritartasuna, **hezkuntza** -sistema eta lanbidea dira. [Koro Navarro](#)
Kolonbiako **hezkuntza** ereduak, auzitan. [Berria - Gaiak](#)

Euskal Herriko **hezkuntza** sarearenean zegoen eragariak. **Berria - Euskal Herria**
Beharrezkoa da **hezkuntza**, heziketa eta trebaketa politikei ere arreta handia eskaintzea. **Iñaki Heras**
Jose Aliaga **hezkuntza** kazetaritzan aditua. **Berria - Euskal Herria**
Partaide ikastolek beharrezkotzat jo dute beste **hezkuntza** itun bat. **Berria - Euskal Herria**
Maila apalagoko **hezkuntza** tituluak dituztenek. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Hezkuntza curriculumak eta programak. **Berria - Euskal Herria**
Hazparneko ikastolako pedagogi edo **hezkuntza** taldeak. **Herria**
Holandar gobernuko **Hezkuntza** ministroaren hitzaldi bat. **Josu Zabaleta**
Haren ekarpena **Hezkuntza** Psikologiaren abiapuntutzat hartzen da. **Askoren artean**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa izenburu ofizialetan)

Hezkuntza Eztabaida Foroan ez dutela parte hartuko jakinarazi dute EILAS, ELA eta LABek. **Berria - Euskal Herria**
Hezkuntza Arduradun naizen aldetik. **Karlos Linazasoro**
Hezkuntza Ikuskaritzak bildutako datuak dira. **Berria - Euskal Herria**
Gurasoek bilera eskatu dute **Hezkuntza** Departamentuko ikusatzaillearekin. **Berria - Euskal Herria**
Harvardeko **Hezkuntza** Graduatu Eskolan. **Berria - Mundua**
Filosofia eta **Hezkuntza** Zientzien Fakultateko dekanordea. **Askoren artean**
Eusko Jaurilaritzako **Hezkuntza** Bereziko Batzordeko kidea. **Berria - Euskal Herria**
Hezkuntza Administrazioaren aldetik. **Berria - Euskal Herria**
Espainiako **Hezkuntza** Ministerioak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Eusko Jaurilaritzaren **Hezkuntza**, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. **Berria - Harian**
Nafarroako Gobernuko **Hezkuntza** kontseilari Luis Campoyri. **Berria - Harian**
Eusko Jaurilaritzako **Hezkuntza** sailburuak. **Pello Salaburu**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasierako epean, Haur **Hezkuntza** deitu ohi denean, ahozkoa izan ohi da jarduna. **Koldo Zuazo**
Musika **hezkuntza** ona ematen zen garai hartan seminarioetan. **Mikel Hernandez Abaitua**
Ingurumen-**hezkuntzako** masterra egiten aritua zen hiru urte lehenago. **Imanol Zurutuza**
Internetek tele-lan edo tele-**hezkuntza** alorrean sortzen dituen aukerak izugarriak dira. **Iñaki Heras**

6 hezkuntzazko

Gero eta gehiago, ahaleginean hasi dira kapitalak nazio-lurraldean mantenduko dituzten edo bertara erakarriko dituzten espazio egokiak eratzen (espazio logistikoa, **hezkuntzazkoa**, soziala, finantzetakoa, monetarioa, araudizkoa). **Koro Navarro**
Siadeco sortu zuen, esan bezala, era guztietako aldaketa ekonomiko, demografiko, urbanistiko eta **hezkuntzazkoak** gertatzen ari ziren lur honetan proposamen zentzuzko eta aurrerakoia egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

7 bigarren hezkuntza

Goi mailako bigarren **hezkuntza**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Orain 12 urterekin hasten da bigarren **hezkuntza**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
%60 inguruk egin ditu bigarren **hezkuntzako** ikasketak gutxienez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Ez da sinestekoa ere bigarren **hezkuntzako** ikasle batek, nik adibidez, egunaren buruan zenbat gauza egin behar dituen. **Josu Zabaleta**
Liburua oso da egokia bigarren **hezkuntzako** "Zientzia, teknika eta gizartea" ikasgaiaren irakasleentzat. **Markos Zapiain**
Bigarren **hezkuntzan** nengoenetik ongi moldatzen nintzen kontzeptuekin. **Joseba Urteaga**
Derrigorrezko Bigarren **Hezkuntzako** 80 ikastetxeetako 3.600 ikasleri egingo zaie galdeketa aurtan. **Berria - Euskal Herria**

8 goi hezkuntza

Europako **goi hezkuntza** sistemen kalitatea. **Berria - Euskal Herria**
Kim Howells Garraio ministroa izango da **Goi Hezkuntzaren** arduradun berria. Azken urteotan **Goi Hezkuntza** ministro zenari. **Berria - Mundua**
Zertan eragingo du Europako **Goi Hezkuntzako** Esparrua sortzeak? **Berria - Euskal Herria**

9 haur hezkuntza

Haur Hezkuntza: Bi ziklotan banatzen da: 0-3 urte bitartekoa eta 3-6 urte bitartekoa. **Berria - Harian**
3 eta 6 urte arteko **haurrekuntza** doakoa izango da hitzartutako eskola pribatuetan. **Berria - Euskal Herria**
Haur Hezkuntzako matrikulen %61 D ereduak dira. **Berria - Euskal Herria**
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **Haur Hezkuntzako** ikasleen artean. **Mirentxu Larrañaga**
Haur hezkuntzarako eraikin berria. **Elizen arteko biblia**
Sarean Elkarteak EAEko **Haur** eta Lehen **Hezkuntzako** 156 ikastetxe publiko biltzen ditu. **Jon Muñoz**

10 hezkuntza aldi (orobat hezkuntzaldi)

Hala, lehen **hezkuntza aldia** urtebete luzatzea proposatu dute. **Berria - Gaiak**
Iztuetaren arabera, xedea da ikasleek 16 urterekin derrigorrezko **hezkuntzaldia** amaitzea «euskaraz ingelesezko First ziurtagiriaren antzeko maila dutela bermatuta»
Berria - Euskal Herria

11 lehen hezkuntza

Lehen **Hezkuntza** izan ohi da hurrengo epea, irakurtzen eta idazten hasten den garaia. **Koldo Zuazo**
Lehen **hezkuntzan** heziketa katalanizatuagoa da bigarren hezkuntzan baino. **Berria - Euskal Herria**
Hamabi urte zituela, lehen **hezkuntzako** azken mailan zegoen. **Joseba Urteaga**
Lehen **hezkuntzako** neska batek. **Joseba Urteaga**
130 milioi haur zeuden eskolatu gabeak lehen mailako **hezkuntzan**, horietatik %60 neska. **Koro Navarro**
Lehen **Hezkuntzako** Bigarrenean. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

anjelos iztueta hezkuntza (23); argentinako hezkuntza (5); arteko hezkuntza (13); baina hezkuntza (8); baita hezkuntza (6); bat hezkuntza (5); bertako hezkuntza (5); beste hezkuntza (8); bigarren hezkuntza (16); bilatzen du hezkuntza (5); campos hezkuntza (9); campoy hezkuntza (5); da eta hezkuntza (5); da hezkuntza (26); dago hezkuntza (6); den hezkuntza (11); derrigorrezko hezkuntza (10); dira hezkuntza (8); ditu hezkuntza (10); ditu hezkuntza sailak (6); du frantziako hezkuntza (6); du hezkuntza (37); du hezkuntza aholkulari (5); du hezkuntza sailak (14); du hezkuntza sailburuak (6); duen hezkuntza (7); dute hezkuntza (17); duten hezkuntza (12)
eaeo hezkuntza (78); eaeo hezkuntza sailak (12); eaeo hezkuntza sailburu (6); eaeo hezkuntza sailburuak (6); eaeo hezkuntza sistema (9); eaeo hezkuntza sistemak (9); eaeo hezkuntza sisteman (5); edo hezkuntza (12); edo hezkuntza saileko (6); egungo hezkuntza (11); eibarko hezkuntza (11); eibarko hezkuntza esparrua (6); ere hezkuntza (8); espainiako hezkuntza (41); espainiako hezkuntza ministerioak (11); espainiako hezkuntza ministerio (5); eta euskal hezkuntza (5); eta frantziako hezkuntza (5); eta gipuzkoako hezkuntza (19); eta hezkuntza (215); eta hezkuntza arloko (6); eta hezkuntza eta (6); eta hezkuntza sailak (8); eta hezkuntza zientzien (24); eta jaurilaritzako hezkuntza (8); europako goi hezkuntza (6); euskal herriko hezkuntza (9); euskal hezkuntza (23); eusko jaurilaritzako hezkuntza (181); eusko jaurilaritzaren hezkuntza (10); eusko legebiltzarreko hezkuntza (10); ez hezkuntza (5); filosofia eta hezkuntza (16); frantziako hezkuntza (57); frantziako hezkuntza ministerioa (5); frantziako hezkuntza ministerioak (17); g hezkuntza (5); garapenerako hezkuntza (7); gipuzkoako hezkuntza (20); gobernuko hezkuntza (30); gobernuko hezkuntza kontseilari (8); gobernuko hezkuntza sailak (9); goi hezkuntza (14); goi mailako hezkuntza (12); gure hezkuntza (19); haur hezkuntza (10); herriko hezkuntza (10)

Hezueriak bihurtutako esku bat. [Lopez de Arana](#)
Karlos, [...] asperturik errege eta agintari izateaz, **hezuariak** jota, oinetako miñnez, egindako bidegabekeriez damututa, Yusteko monasteriora erretiratu zen. [J.M. Olaizola](#)
"Txiliku"

Hezueriak jota dauzkat sorbaldak. [Jose Morales](#)

Herrenak ibiltzen hasten dira, **hezuariak** jotakoek salto egiten dute. [Askoren artean](#)

2 irud

Jantoki zikinean, **hezuariak** jotako haizegailu batek giroa freskatzeko itxurak egiten zituen. [Aingeru Epaltza](#)

3 tanta-hezueri

Halaxe zen, bai: azido urikoa, tanta-**hezuariak** joen berrero, tripazain-zurruteroen zigor eta harri-gaitzaren eragile sonatu horixe zuen sorburu. [Juan Garzia](#)

hezur *(ETCn 14.631 agerraldi)* 1 iz ornodunen hezurtza osatzen duten atal gogor eta zurrunetako bakoitza.

Kale txakurrak ibiltzen ziren Harakinaren kalean, eta Hennek **hezurren** bat botatzen zien noizean behin. [Koro Navarro](#)

Hega biraka [...] **hezur** haragigabetuen gainean. [Josu Zabaleta](#)

Hezur onak ditu, amak bezala. [Oskar Arana](#)

Katuak bere gorputzaren berotasuna eskaintzen zien amonaren **hezur** gogortuei. [Patxi Zubizarreta](#)

Ene besoetako **hezur** minberatuak bortizki torratu nituen. [Daniel Landart](#)

Geldi egoteak **hezurrak** gogortuko zizkiolakoan, pasiera laburra egin zuten. [Joxemari Urteaga](#)

Guztiz zirpildurik zeuzkan galtza eta longain beltzak, eta, haien azpian, **hezurra** eta azala besterik ez zen ageri. *ik beherago* 18. [Karlos Zabala](#)

Zimel-zimela zegoen, sabela zimur, azala **hezurrei** josia. [Karlos Zabala](#)

Hezur eta haragizko Barrie, kanpotik ikusten den Barrie hori, zahartuz joan da. [Julen Gabiria](#)

Hezurrak apurtuko dizkiote. [Koldo Biguri](#)

Gure **hezurretako** muina gar bizi eta gure odoleko zainak suzko hari bihurtuak. *ik beherago* 25. [Juan Garzia](#)

Harakinak **hezurretako** minbizia duela jakin dute. [Eider Rodriguez](#)

Txinan bi milioi pertsonak **hezurretako** fluorosia dute. [Berria - Gaiak](#)

Hotz bizia **hezurretan** sartzen da. [Xabier Amuriza](#)

Haize basaren zafraldiak **hezurretan** barna sartzen zitzaizkidan. [Daniel Landart](#)

Espioi basatia, Ivan Ogareffekin **hezur** eta mami uztartua, beti bere nagusiaren aldamenean. [Karlos Zabala](#)

Mikel eta Edu **hezur** eta mami izan ziren karrera garaian. [Iban Zaldua](#)

Munstroak **hezur** eta haragi egiten dira gauaren kontrako trabesean galtzaile gertatu direnen garunetan. [Aingeru Epaltza](#)

2 pl (hildakoenak)

Iturri horren inguruan hegaztien, muskerren eta bestelako narrastien **hezurrak** ikusten dira sakabanatuta. [Santiago Iruretagoiena](#)

Hezur pilatuez beteta zeuden hormen ondotik. [Koro Navarro](#)

Zin eginarazi zion Taibeleri, bere amaren **hezurrengatik**, bere azken eguneraino gordeko zuela sekretua. [Koro Navarro](#)

Zaldibian, Gerra Zibilean fusilatutako bi gazteren **hezurrak** agertu dituk. [Xabier Etxabe](#)

Jainkoak zuen alde egin behar duena egin dezan egunean, eraman nire **hezurrak** hemendik. [Jose Antonio Mujika](#)

Zenbat eta zenbat zulo ote zeuden sasiak estalirik, tiroz hildako hainbaten **hezurren** hilobi? [Juan Kruz Igerabide](#)

Beste kutxa bat eman ziola Doroteo Ziaurritzi, Sabinoren **hezurrak** zituela esanez. [Ramon Saizarbitoria](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euriak jotako aterki bat bezala, bizitzak jotako **hezur**-ontzi bat bezala. [Felipe Juaristi](#)

Hezur koloreko argitasun leuna. [Ramon Saizarbitoria](#)

Hezur-mamizko santuak. [Askoren artean](#)

Arratsaldeko sei eta erdietako asperdura **hezur**-mamietaraino sartua nuen batean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Umekiaren **hezur-mamiko** zelula amak jaioberriaren garunean txertatuz gero. [Berria - Gaiak](#)

Gatzez eginiko harrien artean **hezur**-haragizko gizon-emakumeek jotako doinuak entzutera. [Felipe Juaristi](#)

Baina Kamar Al-Samanek etsi ez, eta emakumea **hezur**-haragizkoa zela baieztatu zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Ez dut Luzio izenekorik bat bakarrik ere ezagutu **hezur** haragitan. [Patziku Perurena](#)

Izan ere, huraxe izan zen hartu nion tankera, arimarik, gogorik gabeko automata batena, gorputz hutsa, gihar eta **hezur** sistema huts bat. [Alberto Ladron Arana](#)

Hezur gai sintetikoa. [Berria - Gaiak](#)

Hezur zelulak lehenera etortzen dira haren gainean. [Berria - Gaiak](#)

Hezur transplanteen bidez. [Berria - Gaiak](#)

-izond Oro har, arinagoak izaten dira pertsona argal eta **hezur**-luzeenak. [Koro Navarro](#)

Okertuak eta **hezur**-hautsiak. [Askoren artean](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zalantza egiten nuen etortzekoak ziren gizonak eta emaztekiak [...] haragi-**hezurrezkoak** ote ziren. [Joan Mari Irigoien](#)

Azal-**hezurretan** baitzegoen zinez. *ik beherago* 10 eta 18. [Joan Mari Irigoien](#)

Kapitainak oilaskoaren hegala **hezurra** murtxatzen zuen. [Itxaro Borda](#)

Denverri sorbalda-**hezurretan** jotzen zion txanoak. [Anton Garikano](#)

Belaunezur edo tibia-**hezur** higaturen bat. [Harkaitz Cano](#)

Bere hortzekin nire sudur **hezurrean** jo eta zauri bat egin zidan. [Gotzon Garate](#)

Aski izango zuten kopeta-**hezurra** altxatzea. [Imanol Zurutuza](#)

Galtza bakeroak daramatza, zabalak, mehaka **hezurretan** estu tinkatuak. [Antton Olano](#)

Hindutarrek, musulmanak zirikatzeke, mezkiten barrura zerri **hezurrak** botatzen zituzten. [Gotzon Garate](#)

Arrisksutua dela zakurrei oilasko **hezurrak** ematea. [Gotzon Garate](#)

Belaze batean eserita kantatzen ditek, giza **hezur** pilez inguratutik. [Juan Kruz Igerabide](#)

5 (arrainena)

Baina zerbait geratu zitzaion eztarrian, legatz **hezur** bat baillitza. [Koldo Biguri](#)

Arrain idorraren **hezurrak** biltzen zituen bere zorroa betetzeko. [Juan Garzia](#)

Arrain haien begi biziak eta zakatz oraindik odoltsuen erdian, arraia handi bat ageri zen [...]; arraia handia usteldurik zegoen, isatsa erortzen zitzaion, haren hegatsen **hezur** izpiek azal latza zulatzen zuten. [Karlos Zabala](#)

Jendeak bizitza haginka txikitu ziolako eta gero harrika bota arrain-**hezur** bat bezala. [Anton Garikano](#)

Hortzetako tartea arrain **hezur** batekin garbitzen. [Eider Rodriguez](#)

- Ekar dezagun gogora, adibidez, bat baizik ez aipatzeagatik, "arrain-**hezurrezko**" perspektiba deitua ("ihes-ardatzeko perspektiba" ere deitua); honetan, koadroaren

planoari buruz perpendikular diren zuzenak erdiko ardatz baterantz eta konbergentzia, eta ez puntu baterantz. [Josu Zabaleta](#)

6 fruituez mintzatzuz, hazi aski handi eta gogorra.

Fruituen [hezur](#) barren-hutsak baizik ez ditugula jasotzen. [Joan Mari Irigoien](#)

Eta ni, gerezi baten [hezurra](#) eztarrian trabatu izan balitzait bezalaxe sentitu naiz. [Patxi Zubizarreta](#)

Hautsontzi bat, zigarrokin ezta gerezi-[hezurrez](#) betea. [Juan Garzia](#)

Eguna joan ahala, limoi azal eta oliba [hezurrekin](#) nahasiko zen zerrautsa. [Lander Garro](#)

Muxika-[hezurrezko](#) larruzala. [Anton Garikano](#)

7 irud

Unibertsitatea bihurtu baita aspaldi gizartearen [hezur](#) eta ardatz nagusi. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

8 hezurretaraino barru-barruraino.

Izua [hezurretaraino](#) sartu zitzaidan. [Joan Mari Irigoien](#)

[Hezurretaraino](#) sartua dut beldurra. [Josu Zabaleta](#)

Literaturaren grina [hezurretaraino](#) sartua duenak. [Juan Kruz Igerabide](#)

Barne goritasunak [hezurretaraino](#) sutzen zituen gizakiak. [Xabier Amuriza](#)

Elkarren gorputzak berotzen, eta [hezurretaraino](#) izozturik hala ere. [Josu Zabaleta](#)

Harry [hezurretaraino](#) blai eginda eta izoztuta zegoen. [Iñaki Mendiguren](#)

[Hezurretarainoko](#) gorrotoa. [Edorta Jimenez](#)

Lehenbiziko aldiz susmatzen du zer izan daitekeen gizon zahar bat izatea, [hezurretaraino](#) akitua, itxaropenik gabe, nahikaririk gabe, etorkizunaz ezaxola. [Oskar Arana](#)

9 hezurrezko izlag

[Hezurrezko](#) binokuluen atzetik egiten zuten kirik bere begiek denda guztian barrena, laguntza bila bezala. [Anton Garikano](#)

[Hezurrezko](#) xirulak. [Joseba Sarrionandia](#)

Paleolitiko garaiko zibilizazio horrek [...] marrazki miresgarriak egin ditu, baita [hezurrezko](#) txistuak ere. [Herria](#)

Aise ezagutuko duzue balea [hezurrezko](#) zizelkaduraz apaindua den haren etxea. [Aurelia Arkotxa](#)

10 azal eta hezur hezur eta azal.

Haragi-mamiak higatuta, ez zen azal eta [hezur](#) besterik. [Askoren artean](#)

11 berna-hezur

Izeba Margek makilaz jo zuen Harry berna-[hezurretan](#). [Iñaki Mendiguren](#)

Atea zeharkatu bezain pronto, ikarazko oihu lehor bat botatzearekin batera, ezinegona sumatu zuen berna-[hezurretan](#). [Joxemari Urteaga](#)

Mina sentitu du berna-[hezurrean](#) gora igotzen. [Anjel Lertxundi](#)

12 bizkar hezur ik bizkarrezur.

13 bular hezur

Oilasko lumadunek bularki haragitsua erakusten zuten, bular [hezurraren](#) tontorretik behera tenkataturik. [Karlos Zabala](#)

· *p/* Eta oso bular ederra nuela esan zidan, baina ez nion sinetsi, apenas baitu ilerik, eta [bular-hezurrak](#) oso agerian ditudalako. [Ramon Saizarbitoria](#)

14 buru hezur burezurra.

Kolpe bakar batez hautsi zion buru [hezurra](#) kuadruman malapartatu hari. [Josu Zabaleta](#)

Hartuko nuke haren burua eta buru-[hezurrak](#) bi katilu egingo nituzke. [Askoren artean](#)

Buru-[hezurra](#) edariz betetzen du eta debotki hartarik edaten. [Aurelia Arkotxa](#)

· Nire buru [hezurren](#) artean zarata bihurturiko isiltasuna. [Joseba Sarrionandia](#)

15 hanka-hezur berna-hezurra.

Pepponek [hanka hezurrean](#) emandako ostikoagatik. [Koldo Biguri](#)

[Hanka hezurrean](#) hartutako ostikada izugarri batek. [Koldo Biguri](#)

Lurrera erori eta [hanka-hezurra](#) hautsi zuen eta sorbalda-hezurra bere lekutik atera. [Askoren artean](#)

Hanka-[hezurretik](#) sobera sofritzen zuelako. [Herria](#)

16 hezur-beltz

Aurpegi-balzdun: [hezurbeltza](#), alegia, kanpotarra, hau ez da hemengoa, ez da gutarra. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Maketo, [hezur-beltz](#) eta marikoi bezalako hitzekin. [Iñigo Aranbarri](#)

17 hezur-berri

Neure egunetan ez dut emakume [hezur](#)-berri sasoikoagorik ezagutu. ik hezurberritze. [Aingeru Epaltza](#)

18 hezur eta azal

[Hezur](#) eta azal besterik ez zen, egoera penagarrian zegoen, beldurra eman zien. [Karlos Zabala](#)

Garai batean hain gizena zena, orain [hezur](#) eta azal baitzegoen. [Iñaki Mendiguren](#)

Emakumeak, piltzarrez estaliak, [hezur](#) eta azal. [Josu Zabaleta](#)

Bibote exkaxa zuen, hankak [hezur](#) eta azal. [Karlos Zabala](#)

Alkoholikoa aspalditik, [hezur](#) eta azal, adin handikoek bakarrik begiratzen diote aprentsioz. [Bernardo Atxaga](#)

[Hezur](#) eta azal baino gehiago duk gure Lisa andereñoa. [Karlos Zabala](#)

19 hezur eta larru

[Hezur eta larru](#) den agure bat. [Elena Touyarou](#)

[Hezur](#) eta larru atera zuten bere hobeitik eta nork daki nora eraman... [Eneko Bidegain](#)

Dende gaixo nigarregingarriak, goseak hilak, [hezur eta larru](#), ardura oinez etorriak edo biziki emeki zebiltzan trenetan, jatekorik gabe. [Marzel Etxehandi](#)

[Hezur](#) eta larru, mortuko abereak lagun, gau eta egun deabruak ondotik zituztela [...] bekatura lerrarazi nahiz. [Michel Oronoz](#)

20 hezur giltza

[Hezur](#)-giltza lokak, antiojoen atzean malkozko begiak. [Pablo Sastre](#)

[Hezur](#)-giltzarik destokitu gabe. [Juan Garzia](#)

21 hezur-haragitu

Antso III. a Nagusia erregea [hezur](#)-haragitu egingo da larunbatean, Hondarribiko harriesetan. [Berria - Kultura](#)

22 hezur-hoztu

"Aberria ala hil!" esaten da, baina hil eta gero ere [hezur](#)-hozten ez den maitasuna da abertzaleak aberriari diona. [Juan Luis Zabala](#)

23 hezur hutsetan

[Hezur](#)-hutsetan zeudela. [Askoren artean](#)

Literaturako irakasleari, berriz, [hezur](#)-hutsetan gelditzen ari baitzen, "Biafras" ezarri nion. [Aingeru Epaltza](#)

Beste zazpi behi irten ziren Nilotik, itxura txarrekoak eta argal-argalak, [hezur](#) hutsetan zirenak. [Elizen arteko biblia](#)

24 hezur-kolorea (orobat hezurkolore g.er.) izond

Ilargiaren disko **hezur**-koloreaz jabetuz gero, gaua ere berea izango zen. **Anjel Lertxundi**

Ada azazkaletako laka **hezurkolorea** kentzen ari zen alkoeholetan busitako goata-puska batez. **Anjel Lertxundi**

Zuriak, harentzat, distiratsuegiak ziren, baina aldi berean margulak eta **hezur**-koloreak; beltzak, berriz, ilunperik latzenekoen tankerakoak. **Xabier Olarra**

25 hezur muin (orobat hezurmuin)

Nola gelen iluna hala **hezurmuinetaraino** sartzen zèn hezetasuna. **Joan Mari Irigoien**

Hezur muinetaraino sartu zitzaidan zirrara. **Josu Zabaleta**

Hezur muinetaraino izututa banengoen ere. **Alberto Ladron Arana**

Hezur muinetaraino akiturik sentitzen banintzen ere. **Alberto Ladron Arana**

Hezur -muinak eta zainetako odola. **Joan Mari Lekuona**

Gaixoaren perfil bereko **hezur-muinik** topatzen ez denean. **Berria - Gaiak**

26 hezurretan egon

Gaur aurrez aurre ikusi dut eta **hezurretan** dago. **Joxean Agirre**

Nork esango zuen, **hezurretan** zegoela ematen zuen eta. **Patxi Iturritegi**

27 izter hezur

Izter-**hezurra** hautsi duen agurea. **Berria - Kultura**

Ixter-**hezurra** hautsia, ukondoko hezurra ere ba... **Herria**

28 lepo-hezur (orobat lepahezur eta lepozur)

Lepo-hezuraren atzeko sakongunetxoan. **Irene Aldasoro**

Buru moztuko dio **lepo-hezur** ondotik, baina erabat erauzi gabe. **Elizen arteko biblia**

Utz ziezaietela parabellumen kanoiak niri **lepohezurrean** jartzen. **Fernando Rey**

Tximinoarena egiteko eta gaur ez bada bihar **lepa-hezurra** txikitzeko. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Arnabarretako malkorrean, hiru larrebehi amildu eta **lepozurra** hautsi zutela. **Patziku Perurena**

Etxea handia eta ederra zen, eta irristatu eta **lepo-hezurra** hausteko moduko baldosak zituen. **Pello Lizarralde**

Lepo hezurra hautsiko du bere politika horrekin... **Karlos Zabala**

Baziren beste kotxe batzuk ere **lepo-hezurerraino** gauzez beteak. **Koro Navarro**

Lepa-hezurerraino nengoen, egia esanda. **Jesus Mari Mendizabal**

- 12 urteko haur batek minartu du **lepo hezurretan**. **Herria**

29 masail hezur (orobat matrail)

Gizonaren masail **hezurra** larruak baizik ez zuen estaltzen. **Eneko Bidegain**

Bekoki gora, masail-**hezurrak** ongi marraztuak. **Oskar Arana**

Masail **hezurrak** gora markatuak, oso eslaviarak. **Joxan Elozegi**

-Amen -bota zuen Pepponek, matrail **hezurra** ukituz. **Koldo Biguri**

Matrail-**hezurrak** estutu eta begietara begiratu zion On Camillori. **Koldo Biguri**

- Bikotekideak behin masailalbo-**hezurra** hautsi ziola azpimarratu zuen emakumeak. **Berria - Euskal Herria**

30 saiheits hezur

Bihotza saiheits-**hezurren** kontra taupaka zuela. **Iñaki Mendiguren**

Balak saiheits-**hezurra** harrapatu bezain laster jakin zuen Humbertok galdua zela. **Aritz Gorrotxategi**

Saiheits **hezur** guztiak hautsiak zituela zirudien. **Aritz Gorrotxategi**

Hainbat saiheits-**hezur** ere apurtuta ditu. **Berria - Euskal Herria**

Uztaiak balira bezala nabarmentzen zitzaizkion saiheits-**hezurrak**. **Koro Navarro**

31 zango-hezur berna-hezurra.

Pitzia baten zango-**hezurra**. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain hezur (3); azal eta hezur (4); baten hezur (7); beste hezur (7); bete hezur (3); bi hezur (6); bi saiheits hezur (4); buru hezur (8); da hezur (14); dago hezur (4); den hezur (3); dena hezur (6); dena hezur eta (3); dinosauro baten hezur (3); dira hezur (4); diren hezur (3); ditu hezur (4); edo hezur (8); egia hezur (8); ere hezur (5); eta hezur (46); eta hezur besterik (3); eta hezur haragizko (3); eta hezur muinetaraino (3); eta saiheits hezur (3); gorputzeko hezur (9); guzizko hezur (4); hainbat hezur (4); haragi eta hezur (3); haren hezur (6)

hezur artifiziala (4); hezur bat (30); hezur bat hautsi (5); hezur batean (5); hezur batekin (5); hezur baten (6); hezur batzuen (3); hezur batzuk (6); hezur berria (4); hezur berriak (4); hezur besterik (3); hezur eta (92); hezur eta azal (22); hezur eta guzti (4); hezur eta haragi (6); hezur eta haragizko (9); hezur eta larru (11); hezur eta mami (11); hezur gabeko (11); hezur gabeko hilak (11); hezur guziak (4); hezur guztiak (20); hezur haiek (3); hezur haragitan (3); hezur haragizko (26); hezur haragizkoa (8); hezur haragizkoak (3); hezur hautsi (5); hezur hautsiak (6); hezur hautsirik (4); hezur hautsita (3); hezur hori (6); hezur horiek (5); hezur huts (8); hezur hutsa (3); hezur hutsetan (11); hezur koloreko (3); hezur luze (3); hezur mamiak (7); hezur mamiaraino (4); hezur mamitu (4); hezur mamitzeko (3); hezur mamitzen (7); hezur mamizko (8); hezur minerala (3); hezur muina (5); hezur muinak (4); hezur muinean (6); hezur muinean sortzen (3); hezur muinetan (4); hezur muinetaraino (18); hezur muinetaraino sartu (3); hezur muinetaraino sartzen (6); hezur pila (5); hezur puska (5); hezur ta (4); hezur txiki (5); hezur zaharrak (4); hezur zati (4)

hezurren guzizko hezur (4); hori hezur (4); hura hezur (3); hura hezur eta (3); lau saiheits hezur (3); lehoiaren hezur (3); nire hezur (3); oineko hezur (3); orduan hezur (3); saiheits hezur (18); saiheits hezur bat (3); saiheits hezur hautsiak (3); zen hezur (4); zuen hezur (3)

berna hezurra (11); berna hezurra eta (6); bizkar hezurra (11); buru hezurra (9); da hezurra (7); eta hezurra (6); eta lepo hezurra (5); eta perone hezurra (4); gereziaren hezurra (5); hanka hezurra (3); hezurra bere (5); hezurra ere (3); hezurra eta (13); hezurra eta azala (4); hezurra eta perone (4); hezurra hautsi (13); hezurra hautsia (3); hezurra hautsiko (4); lepo hezurra (11); lepo hezurra hautsiko (3); matrail hezurra (3); perone hezurra (4); perone hezurra hautsi (3); sorbalda hezurra (3)

animalien hezurrak (3); baten hezurrak (4); benito zenaren hezurrak (5); benitoren hezurrak (3); berna hezurrak (5); dira hezurrak (5); ditu hezurrak (3); du hezurrak (6); ere hezurrak (3); eta hezurrak (31); eta saiheits hezurrak (3); giza hezurrak (7); haien hezurrak (10); haragia eta hezurrak (4); haren hezurrak (6)

hezurrak aurkitu (3); hezurrak baino (3); hezurrak ere (15); hezurrak ere bai (3); hezurrak erre (3); hezurrak eta (14); hezurrak ez (7); hezurrak hartu (3); hezurrak hausteko (4); hezurrak hautsi (5); hezurrak norenak (3)

hilen hezurrak (3); joserren hezurrak (3); masail hezurrak (4); matrail hezurrak (3); nire hezurrak (14); oilasko hezurrak (3); sabinoren hezurrak (7); saiheits hezurrak (14); sudurreko hezurrak (3); zituen hezurrak (3)

da hezuraren (9)

bere hezurrekin (3); bere hezurren (3); bere hezurretan (3); berna hezurrean (4); berna hezurretan (4); bi hezurren (3); bizkar hezurrean (5); dute hezurrek (3); dute hezurren (3); edo hezurretako (3); eta hezurrek (3); eta hezurren (5); eta hezurretan (8); gerri inguruko hezurrek (3); giharretako edo hezurretako (3); hanka hezurrean (3); hezurrean gora (3); hezurrek ez (3); hezurrekin batera (3); hezurren artean (7); hezurren bila (3); hezurren gainean (6); hezurren guzizko (4); hezurren guzizko hezur (4); hezurretako arazoak (3); hezurretako mina (6); hezurretako muina (4); hezurretan eta (3); inguruko hezurrek (4); saiheits hezurren (5)

eta hezurretaraino (8); eta hotza hezurretaraino (3); haizea hezurretaraino (3); hezurretaraino blai eginda (3); hezurretaraino sartu (6); hezurretaraino sartu zitzaidan (3); hezurretaraino sartua (6); hezurretaraino sarturik (4); hezurretaraino sartuta (5); hezurretaraino sartzen (13); hotza hezurretaraino (8); hotza hezurretaraino sarturik (3)

balea hezurrezko (4); eta hezurrez (6); eta hezurrezko (6); eta hezurrik (5); giza hezurrez (3); haragi hezurrezko (3); hezurrez beteta (4); hezurrezko zizelkadurak (3); hezurrik ere (3); hezurrik ez (5); hezurrik gabe (4); hezurrik gabeko (4); hezurrik hautsiko (3); saiheits hezurrez (3)

hezurbako *izlag* hezurgabea.

Hezurbako olibaz eta gazta zaporeko saltxitxaz hornitua. **Jon Arretxe**

Oliba **hezurbakoak**. **Jon Arretxe**

Hezurbakoek antxoak daukate barruan eta askoz gozoagoak dira. **Jon Arretxe**

-Ez hartu **hezurbakoak**, hartu hezurdunak. **Jon Arretxe**

hezurberritze *iz* ik hezur 17.

Metafora zahar horrek, landareena ezik gure usuario zaharreko gizakien **hezurberritze** haragizko hura ere ez ote zuen jasotzen. **Patziku Perurena**

hezurdegi *iz* hezurdura. ik hezurtegi.

Ontzi kraskatu baten burdinazko **hezurdegia**. **Itxaro Borda**

hezurdun *izond* hezurra duena; hezurrak dituena.

-Ez hartu hezurbakoak, hartu **hezurdunak**. **Jon Arretxe**

Goiko hortzak, aho sabaia [...] aurreko alde **hezurdun** eta geldia duena, eta atze alde bigun eta mugikor bat. **Isabel Arrigain**

Zuhurtzia **hezurduna** hortz ahulentzat. **Xabier Olarra**

hezurdura 1 *iz* hezur multzo egituratua.

Ez eskuaren **hezurdura**, zuri garbia, esku beltz ihartu bat baizik. ikusi nituen zurda-ileak nahasirik zeuzkaten zaldi batzuk, Kaspio Itsasoko hondartza batean, goiznarrean; ikusi nuen esku baten **hezurdura**. **Juan Garzia**

2 gizaki edo abere baten gorputza egituratzen duen hezurren multzoa.

Gizon gazte argal bat zen, **hezurdura** larrikoa. **Karlos Zabala**

Segizioaren buruan zaldi handia zetorren, **hezurdura** indartsukoa. **Agustin Otsa**

Bere **hezurduraren** dotoretasuna, bere zumezko saihsak miretsiz, hain lirain eta hain eme. **Joxean Agirre**

Aldaka zabalak eta **hezurdura** sendo eta indartsua. **Fernando Rey**

3 (hildakoena)

Duela 8 mila urteko emakume baten **hezurdura** aurkitu dute Malaysian. **Berria - Gaiak**

Hezurduren artean bazen bat emakumezkoarena. **Koldo Izagirre**

Gero, gorputz erraustu bat aurkituko dute, eskeleto zuri bat, **hezurdura** biluzi garden bat sabaira begira. **Karlos Linazasoro**

Hildakoa agertu zen, **hezurdura** soil bat. **Josu Zabaleta**

Lortuko zidan berak **hezurdura** itxuroso bat. **Ramon Saizarbitoria**

Londongo harriesietan, duela 1.700 [...] urteko giza **hezurdura** aurkitu dutela. **Hasier Etxeberria**

Azienda hilen baten **hezurdura** zuriari begira. **Patziku Perurena**

Balea baten **hezurduraren** flasha akuariumeko sala nagusian. **Harkaitz Cano**

Heriori aurrez aurre begiratzera erabakirik, heriosuhar sumatzen zuen heriotza, bere zentzumenak harremanetaratutak zeudela hilobi heze eta estuarekin, bere isolamendu bortitzarekin, bere **hezurdurarekin**, eta, finean, bere gorpuarekin. **Patxi Zubizarreta**

4 irud

Ontziolako fabrikaren **hezurdura** metalikoa. **Joseba Sarrionandia**

Kontakizunaren mamia **-hezurdura-** huts-hutsik utzi nahi da, Carverrek aipatzen zuen dardara hori osagairik txikienarekin sorrarazteko. **Koro Navarro**

Hor izango dira oraindik hiria izan zitekeenaren **hezurdura** idortuak, moila zurkaiztua, burdinazko eta harrizko eraikin hondatuak, bagoneta eskoratuak... **Joseba Sarrionandia**

Puntaneko bertsolariek, hain zuzen ere sarri dabiltzalako, astirik eta gogorik ez dute izaten saioaren aurre-**hezurdura** ñimiño hau egiteko ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Kontakizunaren **hezurdura**. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten hezurdura (5); **bere hezurduraren** (3); **hezurdura aurkitu** (3); **hezurdura bat** (3)

hezurgabe *izond* hezurrik ez duena.

Halako bizidun pilo **hezurgabe** eta odolgabea. **Xabier Amuriza**

Denbora pixka bat behar izan zuten gomazko beso **hezurgabe** hura mahukara sartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Txipiroiek izan ohi duten luma edo hezurtxo gardenaren orde, atzealdean karezko bala edo azkon txiki baten antzeko bat zeukaten -euren soinbera **hezurgabearen** euskarri bezala edo **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

hezurgabetu, hezurgabe(tu), hezurgabetzen 1 du *ad* hezurra edo hezurrak kendu.

Eta esku luzeak dotoreziaz mugitzen zituen -iturakeriarik gabe, naturaltasunez, nik bezala- eskatu zuen mihi-arraina [...] **hezurgabetzeko**. **Ramon Saizarbitoria**

Hezurgabeturiko zerri-hankak foiez beteak jaten ari zen. **Jon Alonso**

2 (era burutua izenondo gisa)

Lakoi **hezurgabetuak** zeuden, itxura biribil ederrekoak. **Karlos Zabala**

Makulu bat bailitzan beraren sorbalda **hezurgabetuari** eusten. **Juan Garzia**

hezurjale *izond* hezurrak jaten dituena.

Zergatik ipini ote zioten gure aurrekoek arrano **hezurjaleari** ugatza izena. **Patziku Perurena**

hezurki 1 iz hezurretako naragia.

Urdai gizena ezetik, zerri odolkiak, saiheskiak, **hezurkiak**, azarekin nahasita, neguko eltzerorik gutziziatuenak genituen oraintsu arte. **Patziku Perurena**

2 hezur zatia.

Segundo batean, birrindu eta eskuskadaxto bat **hezurki** zuri-leunetara urriturik zetzan haren gorputza, eta ematen zuen momiaren esku delikatuek babestu egin nahi zituztela artean ere hondarrok. **Juan Garzia**

hezurkolore ik hezur 24.

hezurmamitu (ETCn 616 agerraldi; orobat hezur-mamitu g.er.), hezurmami(tu), hezurmamitzen 1 du ad hezur eta mami bihurtu. ik gauzatu; mamitu.

Hamar Aginduetan **hezurmamitzen** dira kristauen eginbeharrak. **Askoren artean**

Filosofiako diziplina oro bere historiarekin elkarriketan **hezurmamitzen** da. **Askoren artean**

Kopia bidez oso ezagunak zaizkigun obren originalek eragiten duten zera hori sentitu nuen, zeluloidezko pertsonaiak **hezurmamiturik** ikusteak eragiten duenaren parekoa. **Ramon Saizarbitoria**

Eternitatea pasa zen bere begien aurretik auto kamuflatu baten itxura zuen Ford Mondeo beltz batean **hezurmamitua**. **Harkaitz Cano**

2 du ad hezur eta mami egin edo eman.

Perfekzio-asmoak **hezur-mamitzeko**. **Aurelia Arkotxa**

Jainkoaren gogoan mundu posible guztiak daude, borrokan beti, denek nahi baitute **hezurmamitu**. **Markos Zapiain**

hezurmamitze iz hezur eta mami hartzea.

Askatasunerantz mugiarazten duen indar kosmikoaren **hezurmamitzea**. **Markos Zapiain**

hezurmendi iz hezurtegia.

Gure arbasoen **hezurmendiak** omen daudela kromletx zahar horien azpian. **Patziku Perurena**

hezurmuin ik hezur 25.

hezurtegi 1 iz hezurrak, eskuarki hezur-hutsak, lurperatzen diren edo lurperatuta dauden lekua.

Gorpuzkiak **hezurtegi**a bota baino lehen. **Ramon Saizarbitoria**

Zerraldoetan eraman zituzten, baina aitak beti komentatu izan zigun itxurakeria izan zela hura, "Oiarzungo **hezurtegi**an bota zituzten gero denak". **Koldo Izagirre**

Hezurtegi usainean barneratzen ziren, putzu ilunen erdian ibiltzen. **Karlos Zabala**

Hezurtegi komunera. **Aingeru Epaltza**

2 irud

Eta erlojugile ihes eginaren erakusleihu honetan, ordulari hilen **hezurtegi** hau. **Josu Zabaleta**

hezurtsu izond hezurak asko nabaritzen zaizkiona.

Ausart aurpegiko gizon garai **hezurtsu** batek. **Koldo Biguri**

Bere beso **hezurtsuak** belauen inguruan zituela. **Anton Garikano**

[Bular] ilerik gabea eta **hezurtsua**. **Ramon Saizarbitoria**

Iharra zen, oso iharra, **hezurtsua**, keinukaria eta irribarretsua. **Josu Zabaleta**

Bere esku **hezurtsu** hatz-luzea eskaini, eta esan zidan: [...].Hatz **hezurtsu** bat alxatu zuen. **Koro Navarro**

hezurto, hezur(tu), hezurtozen da ad hezur bihurtu.

Urteen buruan bizirik gelditu ginenon amak ere ez gintuen ezagutuko: zurutuak, soilduak, **hezurtoak** geunden guztiak. barrandako polizi-kotxeen sirena oihuak, **hezurto** eskaleen dei ugariak. **Koldo Izagirre**

hezurtxo iz hezur txikia.

Txipiroiek izan ohi duten luma edo **hezurtxo** gardenaren ordez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Osozelaiaiko leizeetan aurkitutako hiru zuloko **hezurtxoa**. **Mikel Hernandez Abaitua**

Orkatilan bertan edo inguruko **hezurtxoren** batean. **Berría - Kirola**

hi 1 izord singularreko bigarren pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari denak aurrean duen entzulea adierazten duena. ik heu.

2 (deiki gisa) ik motel²; tio.

Hi, kaskoa erre gabe niri... **Pablo Sastre**

-E, **hi**, zer ari haiz hor? **Koro Navarro**

Hotza zagok, **hi**. **Pablo Sastre**

Lau mila kilo, **hi**; harrobi baterako. **Pablo Sastre**

Politta, **hi**, eman diean erantzuna. **Jon Muñoz**

Atzetik, **hi**, atzetik akerra. **Pablo Sastre**

-Begira, **hi**, ez zekiat hau guztia egia den, edo hire neska-lagun ohiak asmatua, baina ez diat arriskurik hartu nahi. **Antton Olano**

-Denak ez dituk filologoak, **hi**, eta eskerrak -Xerealek. Iñaki Iñurrieta
Bale, **hi**, uler zitekeen apaiz jendaila hark guztiak beren obrak Ad Majoren Dei Gloriam idatzi izana. Iñaki Iñurrieta
Bueno, **hi**, joan beharra zaukaat... Pablo Sastre
Primeran, **hi**, primeran! Antton Olano
Ezer ez, **hi**, elurra txuri-txuri. Pablo Sastre
Ostia txarra, **hi**, droga kontuak-eta... Urtzi Urrutikoeetxea
Jode, **hi**, ni oso txarra nauk gauza hauetan. Xabier Mendiguren Elizegi
-Kuskue tanden potrojorran, **hi**? Iñaki Iñurrieta
Egunkari hau atzokoa duk!, **hi**, tio, zerrautsa bota edo... Pako Aristi

hiato 1 iz (hizkuntzalaritzan) bi silabatako diren bi bokalen segida.

Elkarren segidan dauden bi bokal silaba banatan ahoskatzen direnean, **hiatoa** gertatzen da. Lourdes Oñederra
Bokal biren bilkura ingurunetik isolatuta entzuten badugu [...], zail gerta daitekeela bereiztea diptongoa ala **hiatoa** den entzuten duguna. Lourdes Oñederra

2 (anatomian) irekidura, arteka.

Bihotzrearen kausak, berriz, **hiatoko** herniari lotutakoak dira. Berria - Gaiak

3 irud

Ryan-ek, zer guztiak ikertu (ikerketa hori argumentuaren **hiatoetako** bat da) eta enigmaren korapiloa askatzea lortzen du. Juan Garzia

hiazinto (ETCn **86** agerraldi; orobat **ihazinto** g.er. eta **jazinto** g.er.) 1 iz moredina.

Azafraiairen eta **hiazintoaren** garaia maite dute gehien, kolore apur baten aldekoak direlako. Julen Gabiria
Hiru nartziso sorta eta **hiazinto** nanozko sorta bat. Josu Zabaleta
Umeari Ishmir eman zioten izena, **hiazinto** eta nartziso petaloak baino xuriagoa zelako. Xabier Mendiguren Elizegi
Aitona sumatzen dut alboan, haren hats **hiazintoz** betea. Karlos Linazasoro
Loreen artetik, **jazintoak** edo liriok. Anton Garikano

2 harri bitxia, hori gorrixka.

Egiptoko oihal **hiazinto** kolorekoak. Juan Garzia
Denak **hiazinto**-soinekoekin jantzita. Julen Gabiria
Burutik behera adats **hiazintoa** bezain ederrak zintzilik zituela. Juan Kruz Igerabide

hibernatu, hiberna, hibernatzen 1 du *ad* animalia batzuek neguan loaldi luzea egin, negukatu.

Elurraren eta ilunaren etorrerarekin, **hibernatzen** duten animalien antzera. Patxi Zubizarreta
Agian, munstroa, zernahi zela ere, beste berrogeita hamar urtez **hibernatzen** hasiko zen... Iñaki Mendiguren
*Sotus Escobius*ek **hibernatzen** zuen herri oso bat aurkitu zuen Asia Erdialdean. Xabier Olarra

2 irud

Bidaia luzea izango denez, ontziak **hibernatu** egingo du denbora horretan eta kometara hurbiltzen denean jarriko dira makinak martxan. Berria - Gaiak
Hibernatzen ari zen bertako gizartea bat-batean esnatu zen. Iñaki Mendiguren

hibernatze iz animalia batzuek neguan loaldi luzea egitea.

Aurten ere ez da **hibernatzerik**.. Herria

hibernazio 1 iz animalia batzuek neguan egiten duten loaldi luzea.

Hartzarentzat funtsezko epe biologikoa da **hibernazioa**. 'Cannelle'-ren kumeak **hibernazioari** aurre bakarrik egin beharko diola azpimarratu du Javier Forcadak. Berria - Euskal Herria
Animalia zenbaiten **hibernazioaz** herri-sineste bitxi franko izan da. Xabier Olarra
Ikertzaile batzuen arabera, Garizumako baraua jatorriz **hibernazio** eraldatu bat besterik ez da. Xabier Olarra

2 irud

Borroka armatua eta kale borroka ia **hibernazio** egoeran daudenez. Berria - Euskal Herria
Hibernazioan nengoen. Joxan Elozegi
Konfuziar filosofia ez zela benetan hil bera sortu zuen gizartearekin batera, baizik eta **hibernazio**-aldi bat jasan zuela soilik. Iñaki Mendiguren

hibiar *izlag* antzinako Palestinako herri bati dagokiona; herri horretako kidea.

Lur hartako buruzagi **hibiarraren** semeak. Jose Antonio Mujika
Bota egingo ditut handik kanaandarrak, amortarrak, hitiarrak, periztarrak, **hibiarrak** eta jebustarrak. Jose Antonio Mujika
Gabaongo **hibiarrak**, berriz, izuak hartuta, bake hitzarmena egin zuten israeldarrekin. Jose Antonio Mujika

hibridazio iz mota bereko bi aldaeren arteko gurutzatzea, berezkoa edo artifizia.

Zelula hori teknika kromosomikoen fluoresentziarekin egindako *in situ* **hibridazioa**, kasu edo teknika molekularren bidez aztertzen dute gero zientzialariek. Berria - Gaiak
Lana eklektikoa zen, estilo desberdinetako elementuen **hibridaziotik** sortua. Patxi Iturritegi
Multikulturalismoa, mestizajea, **hibridazioa**, gai horiek zuzeneko lotura dute Erdialdeko Amerika, Karibe eta Hego Amerikarekin. Berria - Kultura

hibrido *izond* mota bereko aldaeren gurutzatetik datorrena.

H5N1 birusa giza gripearenarekin nahastu eta gizakitik gizakira erraz kutsatuko den **hibridoa** sortzea. Berria - Harian

Naturaz kontrako **hibridoak**. Juan Garzia

Latina bihurtu zen sortzear zegoen Mendebaldeko kultura **hibridoaren** hizkuntza ofizial eta eskusibo. Askoren artean

Jaso nahi nuen hizkera **hibridoa** denez, orobat **hibridoa** da baliatu behar izan dudana grafia. Juan Garzia

Dela nobelaren itxurapean, dela saioaren eta oroitzenaren arteko liburu **hibridoetan**. Berria - Kultura

Isenc egoera **hibridoan** bizi da orain: ez dute egotzi, baina ez du Frantzian bizitzeko eskubiderik. Berria - Euskal Herria

Hibrido mendebaldar-islamiko gertatu zen, jatorrizko zibilizazioaren eta imitaturikoaren ezaugarriak txarretarako batzuk zeuzkana. Iñaki Mendiguren

hibridotasun *iz* hibridoa denaren nolakotasuna.

Gehiago ditut gustuko generoen **hibridotasunak**; Pascal Quignard-en liburuak, adibidez, nobelak dira? saiakerak? poesia? Ana Urkiza

hidalgia *iz* kaparetasuna.

Judio, jito, agote eta gisakoen paperezko **hidalgiak** eta itxurazko nobleziak. Patziku Perurena

Eta diru pittin bat izanez gero, edozeinek eskura zezaketen **hidalgia** titulua. Patziku Perurena

Judu, jito edo agote kastakoak zirela **hidalgia** agiriak ateratzen zaletuenak. Patziku Perurena

hidalgo *iz* kaparea.

Hidalgo egiten zenak, bere armarria ere ateratzen zuen. Patziku Perurena

Baina petxero kontu beltz honek merezi du bere ordain **hidalgo** xuria. Patziku Perurena

hidra *iz* elezaharretako animalia, moztu ahala berriro sortzen ziren zazpi buru zituen.

Irudi bat dakarkio larritasunak gogora, nondik ez dakiela: **Hidra**, bederlatzi buruko herensugea. Imanol Zurutuza

Zer lezake, halaber, Kretako zezanak edo **hidra** zital suge pozointsuz inguratuak? Xabier Amuriza

Garro likatsu haiek, **hidraren** buruak bezala, berriro sortzen zirela zirudien. Imanol Zurutuza

Ahantzuraren **hidrak** denak irentsiko ditu. Edorta Jimenez

Zeren doktoreak, berak bakarrik, ez baitzuen ezjakintasunaren **hidra** azpiratzeko behar zen armarik. Josu Zabaleta

hidrante *iz* ur hargunea, bereziki ureztatzekoa eta suteetarakoa.

Hidrantean tantak bata bestearen ondotik erortzen dira. Juan Garzia

Hidranteak pegar mukurua betera erortzen diren tantak entzuten dira. Juan Garzia

hidratagarri *izond* hidratatzailea.

Krema, esne **hidratagarri**, jel-xaboi, ile-egokitzaila, laka, eta apainketarekin zerikusia zuten hainbat artikulu. Iñaki Zabaleta

hidratante *izond/iz* hidratatzailea.

Aurpegia garbitu, krema **hidratantea** ipini eta pijama jantzi ondoren etzan da. Eider Rodriguez

Hiru aldiz xaboiu, sikatu eta [...] desodorantea eta **hidratantea** eman eta gero, sukaldera. Joxean Sagatzizabal

hidratatu, hidrata, hidratatzen 1 gai bati ura erantsi.

Azala oso ondo **hidratatu** arren luze irauten du koloreak ezpainetan. Jasone Osoro

Xede nagusia da gaixoak **hidratatzea**, arazorik izan ez dezaten. Berria - Harian

Ez dute onartzen elikatzea, soilik **hidratatzea**. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo gisa)

Batzuetan begietatik sodio-kloruro **hidratatuaren** jario ugaria izaten du lagun. Xabier Olarra

Marteko lurrazalean karbonatoak eta mineral **hidratatu** zantzuak daudela. Berria - Gaiak

hidratazio *iz* hidratatzea.

Hidratazioa: Likido ugari edan, ura batez ere, egarria izan gabe ere. Berria - Harian

Hidratazioa zaindu ez duten kirolariek. Berria - Harian

hidrato

1 *karbono hidrato* osagaitzat karbonoa, oxigenoa eta hidrogenoa dituen gai konposatua.

Garatzeko bidean diren herrialdeetan ekonomia hobetzen denean, jendeak karbono **hidrato** gehiago hartzen ditu eta horrek loditasun arazoak, diabetesa eta hipertentsioa ekartzen ditu. Berria - Gaiak

Azukrea edo karbono **hidratoak**. Berria - Euskal Herria

hidraulika *iz* fisikaren adarra, isurkarien mugimendua eta oreka ikuspegi praktikotik aztertzen dituen.

Hidraulika, kosmografia eta astrologia, eta *machinatio* deitua, hau da, mekanika aplikatua eta makina zibilen nahiz militarren eraikuntza. hagitz ikasiak eta trebeak izan baitziren nola **hidraulika** kontutan hala ehunki lantze eta saltze kontutan. Santiago Iruretagoiena

hidrauliko 1 izond uraren bidez higitzen edo aritzen dena.

[Batana] ehunki latza kolpeka joaz lantzeko eta tinkatzeko tresna **hidraulikoa** zen, ardatz batek eragiten zituen zurezko gabi handi batzuk baizik ez zituena. Patziku Perurena

Musikaren arauak kontuan hartzen ez badira, inola ere ezingo da makina **hidraulikorik** eta tresna horien antzekoak diren gainerako makinarik eraiki. Santiago Iruretagoiena

Katu **hidraulikoa** jarri dute, eta altzairuzko xaflak, urtegia hustu bitartean pitzadura handitu ez dadin. Berria - Euskal Herria

Beso **hidrauliko** handi batzuek, gainera, pareta horiek mugitzen dituzte etengabe. Berria - Kultura

Lehenago direkzio **hidraulikoak** egiteari utzi zionetik.

Organo **hidraulikoei** buruzkoak, ordea, zein diren horien printzipioak, ezin ditut aipatu gabe utzi. Santiago Iruretagoiena

Sistema **hidrauliko** batek eraginda. Unai Iturriaga

2 hidraulikari edo urari dagokiona.

Ingeniaritza **hidraulikoko** lan ikaragarri bat. Iñaki Mendiguren

Itotzek lagundu du obra **hidrauliko** handien kontrako mugimendua antolatzen. Edurne Elizondo

Uholdeek 30 milioi euroko kalteak eragin zituzten azpiegitura **hidraulikoetan**. Berria - Euskal Herria

Energia **hidraulikoari** dagokionez. Berria - Ekonomia

Koruko Aizarna Gipuzkoako Aldundiko Hirigintza eta Lan **Hidraulikoetako** diputatu ohia. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hidraulikoko lan (3)

hidriko izond urari dagokiona.

Ez dagoela hor zehazterik zein izango den proiektuak izango duen zarata eragina, ez zenbateraino eragingo dion sare **hidrikoari**. Berria - Euskal Herria

Euria lagungarria izan da, estres **hidrikoa** zuten landa batzuen egoera hobetu baitu. Berria - Harian

hidrodinamiko izond hidrodinamikari dagokiona.

Eraz erakuts daiteke lubrikazio **hidrodinamikoa** ezinezkoa dela ingurune biologikoan. Irene Aldasoro

Likido sinobialaren bidezko lubrikazio **hidrodinamikoa**. Irene Aldasoro

hidroelektriko izond uraren energia erabiliz korrante elektrikoa lortzeari dagokiona.

2003. urtean euri asko egin zuen, eta zentral **hidroelektrikoan** jarduera hazi egin zen. Biobio ibaian sei zentral **hidroelektriko** egiteko proiektua. Berria - Euskal Herria

Itotzen lapurreta **hidroelektrikoa** gertatu da. Edurne Elizondo

Iberdrola eta Kantabriko **Hidroelektrikoa** enpresek. Berria - Euskal Herria

hidrofilo izond ura erraztasun handiz zurgatzen duena.

Frijituak egiten saiatua nintzen, kotoi **hidrofiloa** labe elektriko baten xaflaren kontra zapaldurik edukiz. Juan Garzia

hidrofluorkarbonatu iz

HFC gasak: Alonsotegiko (Bizkaia) Atofina España SA enpresak 82.300 kilo **hidrofluorkarbonatu** isurtzen ditu. Berria - Euskal Herria

hidrofono iz ur barruko hotsak atzemateko tresna.

Hik uste duk **hidrofonoek** hogeit mila tonako zamakoaren makinarena baino lehenago atrapako dutela eskusoinuaren hotsa? Koldo Izagirre

hidrogeno 1 iz gai bakuna, kolore eta usain gabeko gasa, izadiko gairik arinena (H; at. z. 1).

Bi atomo **hidrogeno** eta atomo bat oxigeno. Joxerra Garzia

Atomoen artean, **Hidrogenoak** du masarik txikiena. Anjel Lertxundi

Hidrogenoz eta oxigenoz osaturiko konbinazioa. Isabel Arrigain

Soluzioa irazi, azidotu, Kippa hartu, **hidrogeno** sulfuratua pasarazi. Juan Garzia

Eguzki-lore koipearekin **hidrogenoa** sortzea lortu dute. Berria - Gaiak

Hidrogenoaren isotopo batzuk. Berria - Gaiak

Askotariko saioen artean, haitza **hidrogenoz** erreduzitzekoa ere egin genuen. Juan Garzia

Hidrogenoz elikatutako erregai-pilak erabiltzen dituen Nocar 5 prototipoa. Berria - Gaiak

Saturno **hidrogenozko** eta heliozko gas bola delako. Berria - Gaiak

Estatu Batuek Pazifikokoan ezandarazi berri zuten **hidrogenozko** bonbari buruz jardun zuten. *ik behegera* 3. Josu Landa

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hidrogeno atomo baten diametroa baino askoz txikiagoa. Irene Aldasoro

Hidrogeno masak. Itxaro Borda

Hodien, kanpotik beroturik, **hidrogeno** -korrante bat iraganarazi genuen. Juan Garzia

Hidrogeno-mota horri deuterio deritzo eta itsasoan oso ugaria da. Berria - Gaiak

Jakina da Asiaren erdialdeko lurra belaki bat bezalakoa dela, **hidrogeno** karburu isurkariz blaitua. Karlos Zabala

Biogasa metanoz eta karbono dioxidoz osatuta dago batez ere, baina nitrogenoaren, oxigenoaren eta **hidrogeno** sulfuroaren arrastoak ere baditu. Berria - Euskal Herria

3 hidrogeno bonba

Oppenheimerren aginduetara egin zuen lan Manhattan Proiektuan, eta orain **Hidrogeno** -bonba garatu nahian zebilen. Fernando Morillo

Bigarren Mundu Gerraren ostean garatu ziren **hidrogeno-bonbek** (hau da, fusio-bonbak). Berria - Gaiak

4 hidrogeno astun deuterioa.

Munduko itsaso eta ozeanoetako uretan, esate baterako, milioika urterako energia sortzeko **adina** hidrogeno astun dago.

Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hidrogenoa (4); **hidrogeno eta** (4); **hidrogeno hori** (3)

hidrogeologia *iz* geologiaren adarra, lurrazaleko urak eta, bereziki, lur azpikoak aztertzen dituena.

Hidrogeologia katedra. **Berria - Euskal Herria**

Hidrogeologia katedradunak. **Berria - Euskal Herria**

hidrografia 1 *iz* geografiaren adarra, itsas urak eta kontinentalak aztertzen dituena.

Behin bakarrik izan dut egokiera Polyobioneko, Michael Drayton-en epopeia topografiko horretako hamabost mila dodekasilaboak aztertzeko; Ingalaterraren fauna, flora, **hidrografia**, orografia, historia militar eta monastikoa jasorik dago bertan. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan) lurralde edo eskualde bateko uren multzoa. ik**hidrografiko**.

Iberdrola eta Ebroko **Hidrografia** Konfederazioak Uribarriko urtegiaren ateak ireki dituzte, urtegiak ur gehiegi zuelako azken euriteen ondorioz. **Berria - Euskal Herria**

hidrografiko *izond* hidrografiari dagokiona. ik **hidrografia 2**.

Ebroko Konfederazio **Hidrografikoak** eta Iberdrolak. **Berria - Euskal Herria**

Rafael Romeo Ebroko Konfederazio **Hidrografikoko** zuzendari laguntzaileak. **Herria**

hidrohegazkin *iz* ur gainean jar daitekeen hegazkin flotagailuduna.

Seguru asko **hidrohegazkina** izango zen, hain azkar etortzeko... **Lopez de Arana**

Mr.& Mrs. Jack Cunningham-ek euren ezkon bidaiaren lehenengo zatiari ekin diote Albatros VII. **Hidrohegazkin** bikainean. **Lopez de Arana**

Hidrohegazkin istripu batean. **Josu Zabaleta**

hidrokarbono (cf. ingl. **hydrocarbon**) *iz* hidrokarburua.

Irudietan lainoak izan daitezkeenak ikusten dira nitrogenoz, metanoz eta **hidrokarbonoz** osatutako atmosferan. AEBetatik datorren haizea nitrogeno oxido eta **hidrokarbonoekin** nahastua dago. **Berria - Gaiak**

Titanen Australiaren tamainako lur zati izoztu bat dago eta haren inguruan **hidrokarbonozko** itsasoa. **Berria - Gaiak**

hidrokarburu 1 *iz* osagaitzat karbonoa eta hidrogenoa soilik dituen gai elkartua. ik**hidrokarbono**.

Titan ilargian **hidrokarburu** likidoa egon daitekeela. **Berria - Gaiak**

Horrek poliziklo **hidrokarburu** aromatikokoak (PH) sortzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

Herrialde horietako industrializazioa, 1960ko hamarraldiaz geroztik, **hidrokarburuen** errenten ustiapenean oinarritzen da (petrolio, gas naturala). **Koro Navarro**

Baimenik gabe **hidrokarburuak** isurtzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

Pertsonetan minbizia eragiten duten **hidrokarburuak** bakarrik aztertu ziren. **Berria - Euskal Herria**

Ornogabeek **hidrokarburuak** bildu egiten dituzte beraien gorputzetan. **Berria - Euskal Herria**

Hidrokarburuen legea. **Berria - Mundua**

Hidrokarburuen Zerga Bereziak. **Berria - Ekonomia**

Hegaziak **hidrokarburuz** kutsatuta egonez gero. **Berria - Euskal Herria**

Munduak gaur egun **hidrokarburuekiko** duen menpekotasuna. **Berria - Ekonomia**

Hidrokarburuzko itsaso batean. **Berria - Gaiak**

Izan ere, industria, bereziki **hidrokarburuena**, asko garatu da Barents itsasoan azken urteotan. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Mundaka eta Izaro artean agertutako **hidrokarburu** orbana garbitu dute. **Berria - Euskal Herria**

Hidrokarburu kontzentrazioak. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hidrokarburu orbana (3); **hidrokarburuak itsasora** (3); **hidrokarburuen legea** (3)

hidrokloruro *iz* kloruro urduna.

Estrikinina **hidrokloruroa** -gai kimiko garrantz bat- ia beste edozein substantzia baino errazagoa da dastatzen. **Irene Aldasoro**

hidrolisi *iz* gai organiko baten uraren bidezko banatze edo desegituratzea.

Hidrogeniaren ekoizpenean (metanotik edo uraren **hidrolisitik** abiatuz). **Berria - Gaiak**

hidrologia 1 *iz* lur planetako urak eta beren propietateak aztertzen dituen zientzia.

XVI. mende hasieran **hidrologia** zientifiko arloko argitalpen esanguratsuak idatzi zituzten Italian. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan) lehen osagai gisa) ik **hidrologiko**.

Bruselak **Hidrologia** Planaren kontra eginiko txostenari. **Berria - Euskal Herria**

Hidrologia Planari loturiko berriak. **Berria - Euskal Herria**

Iñaki Antiguada zentro bereko **Hidrologia** katedradunak. **Berria - Euskal Herria**

hidrologiko *izond* hidrologiari dagokiona. ik **hidrologia 2**.

Espainiako Plan **Hidrologiko** Nazionalaren kontra egindako lanagatik. [Edurne Elizondo](#)

Planeta aktiboa izan da, bai ikuspuntu bolkanikotik eta bai ikuspuntu **hidrologikotik** ere. [Berria - Gaiak](#)

Zuhaitz horrek ur asko xurgatzen duela jakinarazi dute, eta horrek ziklo **hidrologikoak** alda ditzakeela. [Berria - Gaiak](#)

Tunelen zundaketek lur azpiko sistema **hidrologikoan** kalteak eragingo ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Txarto kudeatutako arro **hidrologikoetatik** iristen diren arroka sedimentarioak. **Urte** hidrologikoa irailan itxi du Ebroko Ur Konfederazioak. [Berria - Gaiak](#)

hidrologo *iz* hidrologian espezialista den geofisikoa.

Hidrologo profesionala izan da [...] agure atsegin hau. [Koldo Izagirre](#)

hidromasaje *iz* ur turrusten bidezko terapia masajea.

Igerileku girotua, **hidromasaje** eta aquaerobic igerilekuak. [Berria - Euskal Herria](#)

hidrometeorologia *iz* euriaren eta kidekoen meteorologia.

Iñaki Antiguiedad fakultate bereko **Hidrometeorologia** katedraduna [Berria - Euskal Herria](#)

hidrometeorologiko *izond* hidrometeorologiari dagokiona.

EAEko Sare **Hidrometeorologikoko** estazio askotan. [Berria - Euskal Herria](#)

hidromofona *iz*

Horiek egiteko opioaren landaretik ateratako gaiak morfina, kodeina edo **hidromofona**, kasu erabiltzen dira. [Berria - Gaiak](#)

hidropesia *iz* organismo bateko ehun edo barrunbe batean gertatzen den ur metatze ohiz kanpokoa. **ikurmin**.

Neskak **hidropesia** zuen, gonbitoak, disnea eta espasmo arin batzuk. [Josu Zabaleta](#)

Han zegoela, zangoak eta belaunak handitzen hasi zitzaizkion **hidropesiagatik**, eta oso gaixo jarri zen. [Askoren artean](#)

Bagnaiaren zelarik, zangoak izugarri handitzen hasi zitzaizkion **hidropesiagatik**, eta larriki gaixotu zen. [Askoren artean](#)

Umeak lau urte zeramatzan **hidropesiak** jota. [Askoren artean](#)

Aire txarrak ateratzen, hezueria eta **hidropesia** sendatzen, giltzurrun eta gibelego harri eta gaitzen kontra ere oso ona omen. [Pello Zabala](#)

2 irud/hed

Konparazio batera, S@rea bera ere jakin-beharrezko **hidropesia** batek zapartatutako gorputz bat dela.Etxeberri Sarakoak zioen jakin nahizko **hidropesiaren** tokian, dena dakienaren garundegi lehertuak ditugu gaur, hazi-hazi egin eta barrurantz lehertuak. [Iñaki Segurola](#)

hidropiko *izond/iz* hidropesia duena, hidropesiak joa. ik **urmindun**.

Gazte **hidropikoa** Narnin. [Askoren artean](#)

Zortzi urteko haur **hidropikoa**. [Askoren artean](#)

Bazen Fano herrian **hidropiko** bat, gorputz-atalak itxuragabe handituak zituena. [Askoren artean](#)

Hidropikoak eta elbarriak. [Askoren artean](#)

hidroponiko *izond* landareez mintzatzuz, lurrik gabe hazitakoa.

Tomate landare **hidroponiko** baten bidez. [Berria - Kultura](#)

Labore **hidroponikoko** landarea da; hots, lurrik gabe haz daitekeen horietakoa. [Berria - Kultura](#)

hidrosoluble *izond* urtetan urtzen dena.

Kalamuaren osagai nagusia den TCHa ez da **hidrosolublea**. [Berria - Harian](#)

hidrospeed *iz* mendi ibaiak plastiko gotorrezko txalupa indibidual batean jaistean datzan kirola.

Astetehe naz geroztik ari dira lehen taldeko jokalariek gazteenekin Benasquen (Espainiako Pirinioak) raftinga eta **hidrospeeda** egiten eta bizikletan eta mendian ibiltzen.

[Joseba Sarrionandia](#)

hidrostatiko *izond* hidrostatikari dagokiona.

Karga handia eta abiadura txikia denean, egokiagoa da lubrikazio **hidrostatikoa**. [Irene Aldasoro](#)

hidroterapia *iz* uraren bidezko terapia.

Berak **hidroterapiari**, urak duen indar sendagarriaren besterik ez zuen sinesten. [Harkaitz Cano](#)

Ordea John Roebingek onartzen bide zuen tratamendu bakarra **hidroterapia** zen, eta hau alferrikakoa suertatu zen erabat. [Harkaitz Cano](#)

Hidroterapia eta fisioterapiarako igerilekuak. [Berria - Kirola](#)

Hidroterapiarako igerileku bat. [Berria - Kirola](#)

hidrotermal *iz* ur termalei dagokiena.

Udalak asteartean aurkeztu zentro **hidrotermalaren** proiektuaren inguruan. Berria - Euskal Herria

Zentro **hidrotermalaren** lanak hasi bitartean. Berria - Euskal Herria

Udal instalazio **hidrotermala** eraikitzen hasi ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Sumendi bat lehertzea baino errazagoa da aktibitate **hidrotermala** aurkitzea. Berria - Gaiak

hidroxiapatito *iz* kaltzio fostato konplexua, hezurren eta hortzetako esmaltearen osagai nagusia dena.

Konposatu inorganiko bat da hezur-minerala, kaltzioz, fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua, gutxi gorabehera formula honek adierazten duen proportzioan: $3\text{Ca}_3(\text{PO}_4)_2 + \text{Ca}(\text{OH})_2$; **hidroxiapatitoa** da mineral hori: ez da, zehazki, konposatu kimiko bat. Irene Aldasoro

Modurik sinpleenean adierazteko, kolageno-zuntzez eta zuntzoi irmo itsatsirik dauden **hidroxiapatito**-kristalez egina dago hezurra. Irene Aldasoro

hidroxido *iz* metal bat OH multzoaz batuz eratzen den gai konposatua.

Fenolfaltainarekin tratatu nuen: basikoa zen, potasio **hidroxidoa** zen. Juan Garzia

Bario **hidroxidoa**. Juan Garzia

Hasieran aluminio **hidroxidoa** erabiltzen zuten. Berria - Gaiak

hidrozefalia *iz* entzefaloko barrunbeen hantura, isurkari zefalorrakideo gehiegiak eragina.

Arazo metabolikoek (fenilzetoniariak, esate baterako) edo mekanikoek (**hidrozefaliak**) sortua izan daiteke autismoa. Xabier Olarra

hiena *iz* Afrikako eta Asiako ugaztun haragijalea, ile hori-gorrikoa edo grisekoa, batez ere hilikiak jaten dituena(*Hyaeninae* subfam.).

Lehoikume xalo bat bi **hiena** zitalengandik eskapo. Aingeru Epaltza

Nola bizi elkarrekin **hiena** eta zakurra, aberatsa eta behartsua? Elizen arteko biblia

Isik-isilik **hiena** hurbildu, / sartu nahi zuen zulora. Xabier Olarra

Hienaren ezurdurak dira nagusiki atxemanak izan, bainan ere beste abere andana handi batenak : lepahoria, ipurtatsa, otsoa, harpetako lehoina, hartza, azeria, oreina, bisontea eta bertze... Herria

Hiena batek ahoan haur bat hartu zuen Tazpur-en (Assam estatuan). Gotzon Garate

Gauetz **hienek** zamaketari bati eraso egin eta aurpegi zati bat jan zioten. Pablo Sastre

Zikoina Afrikako **hienarik** itsusienaz maiteminduko da. Unai Elorriaga

Hiena ziloa lholdin. Herria

hierarka *iz* hierarkia batean goi mailetan dagoen pertsona.

Artxidakonoak, **hierarkak**, eskolako lehenak. Xabier Olarra

hierarkia (*ETCn 3.510 agerraldi; orobat jerarkia ETCn 52 agerraldi*) **1** *iz* erakunde baten mailakako antolaketa; multzo baten osagaien mailakako hurrenkera.

Horien artean edozein **hierarkia**, bereziki moral eta intelektuala, zeharo ezeztatuz. Joxe Azurmendi

Bere basakeriek ba omen zuten nola halako **hierarkia** bat: erresistenteekin baino ankerrago portatzen omen zen juduekin, basapitzia baten moduan homosexualekin.

Anjel Lertxundi

Hizkuntzen artean **hierarkia** bat balego bezala. Berria - Euskal Herria

Datu horiek nahiko ondo islatzen dute inbertsio-ardatzen eta inbertsio-hartzaileen arteko **hierarkia**. Koro Navarro

Frantses estatuan hizkuntzen **hierarkia** dago indarrean. Berria - Euskal Herria

Balioen unibertso konplexuan ordena edo sistema bat lortzeko saiok asko eta oso diferenteak egin dira: Max Scheler horien artean **hierarkia** bat aurkitzen saiatu da, gero etika bat garatzeko. Joxe Azurmendi

Oinarrizko askatasunak mugatzea eta herritarren arteko **hierarkia** sortzea arbuia zuen Zurutzak. Berria - Euskal Herria

Tituluaren artean goitik beherako **hierarkia** bat ezarri nahi baitute. Josu Zabaleta

Mundua bezain zaharra den gai honetan, **jerarkian** behituk goiti hastea gustatzen zait beti. Patziku Perurena

Bena hor **hierarkia** bat, mailkatze bat errespetatū behar lizateke. Herria

Fonema sistemen ezaugarri unibertsalak ebakera eta oharren gaitasunen araberako **hierarkietan** antolatzen direlako. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hierarkia genetikoa mailaren batean. Juan Garzia

Hierarkia zibilen eta militarren gorenetik oineraino. Josu Zabaleta

Bere lanei esker frantziar (eta neurri batean munduko) **hierarkia** intelektualaren gailurrera iritsitako gizon honek. Berria - Kultura

Objektuen lehen mailako bereizitetik estrategia diskurtsiboak eratu arte bada harremanen **hierarkia** oso bat. Xabier Arregi

Errima familiak **hierarkia** jakin baten arabera antolatu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Abbas bigarrena izango da aginterako **hierarkian**. Berria - Mundua

Elementu genetikozko **hierarkia** batek gobernatzen du, bada, euliaren garapena. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik hierarkiko.

Hierarkia -maila bakoitzean. Joxan Elosegi

Japoniarra ez bazen ere, nire torturatzaileren antzeko **hierarkia** estatusa erdietsia zuen dagoeneko. Joxan Elosegi

Elizaren **hierarkia** -egitura burdinazko eta ahaltsua. Joan Mari Lekuona

Hierarkia-aldaketa hark susperturik. Berria - Kultura

Sustraietara jo behar dugu, sexuen arteko botere eta **hierarkia** harremanak deuseztatzen. Berria - Euskal Herria

Hierarki kontrolerako ohiko estiloetatik bereizirik eredu bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batik bat, silaba egituratze **hierarkiak** deskribatzeko aipatzen da. Lourdes Oñederra

Jendearen jatorriaren araberrako gizarte **hierarkia** . **Berria - Euskal Herria**
Begirunea zien apaizei eta bihotzez maitatzen zuen eliz **hierarkia** osoa. **Askoren artean**
Familia- **hierarkian** aurretik zituen guztiak hil egin baitziren banaka-banaka. **Ander Irizar**

4 hierarkia batean goi mailetan dagoen pertsona.

Horrela gizakia Jainkoarengana, **hierarkia** nagusia denarengana, igotzen da. **Askoren artean**
Jatorri klasikoa zuten koadroetako biluziak zuzen-zuzen egokitzen zirela **hierarkia** handiko pertsonaien gorputz jantziekin. **Bernardo Atxaga**
Nondik bere **hierarkia** altua? **Bernardo Atxaga**

5 eliz agintarien multzoa.

Hierarkia haserre dago, egia da. **Berria - Euskal Herria**
Hierarkiak agintzen du egun elizan, baina ebanjelioak ez dio hori. **Berria - Gaiak**
Escola pribatuan irakasle zela euskaraz irakasteko xedea erakutsi eta **hierarkiak** zigortu zuen. **Berria - Kultura**
Apaiza da, baina **jerarkiatik** aldenduta, emaztearekin bizi da. **Pako Aristi**
Bizkaiko Elizako 262 kidek agiri bat kaleratu dute **hierarkiaren** jarrera oso itxia dela nabarmenduz. **Berria - Euskal Herria**
[...] diote Espainiako Elizako **hierarkek** idazkian. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte hierarkia (3); **arteko** hierarkia (5); **eliza katolikoaren** hierarkiak (5); **elizako** hierarkiak (4); **elizaren** hierarkia (3); **elizaren** hierarkiak (3); **eta** hierarkia (8); **eta** hierarkiaren (3); **hierarkia** bat (9); **hierarkia** eta (5); **hierarkia** hori (3); **hierarkiak** eta (3); **hierarkiak** ez (4); **hierarkiaren** arabera (3)

hierarkiko *(ETCn 1.153 agerraldi; orobat jerarkiko ETCn 9 agerraldi)* izond hierarkiari dagokiona.

Tuniketan zeramaten hainbat zeinu bereizgarri ezartzen zituen maila **hierarkikoak** . Kristau Elizaren antolaketa **hierarkikoa** Erromatar Inperioarenean oinarritu zela. **Jon Alonso**
Egitura **hierarkikoetan** oinarrituriko mundu feudaleko moldeak. **Askoren artean**
Egitura **hierarkikoa** ezarri nahi dute eta hori foroaren filosofiaren kontra doa. **Berria - Mundua**
Sistemaren osagai alde bikoak ildo **hierarkiko** eta politiko jakinen arabera jarduten du. **Koro Navarro**
Mendekotasun hau **hierarkikoa** izan daiteke bakarrik. **Xabier Arregi**
Egoera **jerarkikoari** darion logikaren ikuspegitik. **Jon Alonso**
Modu **hierarkikoan** antolatutako eskema bat. **Askoren artean**

hierarkikoki *adlag* era hierarkikoan.

Inperioaren administrazio osoa **hierarkikoki** antolaturiko burokraziaren eskuetan zegoen. **Iñaki Mendiguren**
Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei, **hierarkikoki** pretoriar prefektu dioklezianikoen parekoei. **Iñaki Mendiguren**
Bilakabideen gertagarritasuna aldakorra da eta aldakortasun hori **hierarkikoki** antolatuta dago. **Lourdes Ofiederra**

hierarkizatu, hierarkiza, hierarkizatzen 1 hierarkia jakin baten arabera antolatu.

Egunero jasotzen dituzten ehunka informazio eta estimulu analizatzeko, laburtzeko, eta **hierarkizatze** gai izatea. **Txema Ramirez de la Piscina**
Ziurgabetasunak gizakiak datu konbentzionalen arabera **hierarkizatzen** bultzatzen ditu. **Markos Zapiain**
Espazio hori **hierarkizatua** zegoen, ez ordea politikoki bateratua. **Koro Navarro**
Nazioarteko ordena ekonomikoa oso **hierarkizatua** zegoen. **Koro Navarro**
Bertikalki **hierarkizaturiko** egiturak. **Askoren artean**

2 (era burutua izenondo gisa)

Sare erregulatzaileen sortze-ahalmena sareok **hierarkizatuak** eta konbinagarriak izateari zor zaio. **Juan Garzia**
Aurrerapen zientifiko horretan giza taldeak ordena ditzakegu era objektibo eta **hierarkizatuan** . **Askoren artean**
Unibertsitatearen sistema **hierarkizaturik** kanpo halako eskolak antolatzea. **Berria - Euskal Herria**
Estrategia informatibo nagusiak inoiz baino politikoki zuzenago, **hierarkizatuago** eta aspergarriago diren urteotan. **Txema Ramirez de la Piscina**

hierarkizazio *iz* hierarkizatzea.

LOUK ezarritako **hierarkizazioari** aurre egin nahi izan diogu. **Berria - Euskal Herria**
Hierarkizazioaren aurkako jarrera. **Berria - Kultura**
Partidu nahiz sindikatuen autoritarismoari eta **hierarkizazioari** uko egiten zioten ezkerreko militanteak batu zituen MILek. **Berria - Kultura**

hieratiko *izond* sentimenik adierazten ez duena.

Denbora luzea zeraman jarrera **hieratiko**, barne-bildu hartan. **Karlos Linazasoro**
Katharine Hepburn [...] lan-baldintzak zehazten ari zitzaion Spencer Tracyri, bere emetasuna ederragotzen zuen profesionaltasun **hieratiko** batez. **Anjel Lertxundi**
Begiratu egin dio, luzaro, sorpresa, lotsa eta morboaren arteko aurpegi **hieratikoaz** . **Sonia Gonzalez**
Laster hasiko dira ortzimugatik beste batzuk azaltzen, errealismo harrigarriekin, buruzut eta **hieratiko** beren bidaia geldoan. **Joseba Sarrionandia**
Hemen, arkitektura geometriko modernoak, matematikaren perfektzioa harriz eta betoinez haragiztatzen du; "modernista, monumental, **hieratikoa**", dio gidaliburuak. **Piarres Aintziart**

hieratikotasun *iz* hieratikoa denaren nolakotasuna.

Emakumea, berriz, **hieratikotasun** bare dotorearen jabe. **Aingeru Epaltza**

hierofante *iz* ezkutuko ezagupenak irakasten dituen apaiza edo maisua.

Vuduzaleak, presbiteroak, **hierofanteak**, prelatuak. **Xabier Olarra**
Hierofante egipziarrek. **Xabier Olarra**

hieroglifiko 1 *izond* hieroglifoz osatua; iluna.

Egiptoera klasikoa eta karaktere **hieroglifikoak**. **Iñaki Mendiguren**

Minoiko Ertain II-tik Minoiko Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera **hieroglifiko** banatu, aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (A Linealak). **Iñaki Mendiguren**

• 2 *iz* hieroglifoa.

Inork deszifra ezin dezakeen **hieroglifiko** -mordoa. **Joxe Austin Arrieta**

Ez-dakit-zer aldizkariko faszikuluen bilduma bat, **hieroglifikoak**, asmakizunak eta beldurrezko nobelak zituen. **Fernando Rey**

Hieroglifiko eta gurutzegramen koadernotxoak. **Joxemari Iturralde**

hieroglifo *iz* Egiptoko idazkera zaharrenetako ikurra.

Lerroen konbinazio haiek planoen, **hieroglifo**en, marrazki abstraktuen kalitatea zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Hartara, beren takigrafia propioa garatzen dute, beren **hieroglifo**, ideograma, piktograma sistema. **Iñaki Iñurrieta**

Bai, **hieroglifo** bat zen itsasoa, eta ur mugikorrek galdera gehiago osatzen zituen kilometro soil batean nik bizitza osoan egin nitzakeenak baino. **Bernardo Atxaga**

hies (*orobat Hies g.er. eta HIES g.er.*) 1 *iz* Hartutako immunoeskasiaren sindromea.

Sarak **hiesa** zuen. **Joan Mari Irigoien**

Eta drogen ondotik **hiesa** etorri zen, sarraskia ekarri zuen madarikazioa. **Juan Kruz Igerabide**

GIB birusak **Hiesa** eragiten du. **Berria - Euskal Herria**

Hiesak milioika lagun hiltzen ditu urtero. **Berria - Gaiak**

Laster harrapatu zuen **hiesa**, ordea. **Gotzon Garate**

Hiesak jota hil zela, gazterik. Edo zer izan da mende hau **Hiesak** jotako hainbeste eta hainbeste afrikarrentzat? **Pello Salaburu**

1996. urtean **hiesak** hartuta zeuden 1.903 gaixoetatik %22 zendu ziren. **Berria - Euskal Herria**

«1997an garatu nuen **hiesa**», ondo gogoan du Mikelek. **Berria - Harian**

Josebari ere urte hartan bertan erasan zion **hiesak**, oso bortitz. **Berria - Harian**

HIESak hilak izurritea hasi zenetik 21,8 milioi. **Pello Salaburu**

Horieta asko eta asko **hiesaz** kutsatu eta hiltzera Nepalera itzultzen dira. **Gotzon Garate**

Hiesak kutsatutako egoera. **Berria - Euskal Herria**

Ordutik, alderik alde zabaldu da **hiesaren** birusa Txinan. **Berria - Gaiak**

Hiesa zabaltzea eragozteko. **Berria - Harian**

HIESaren birusari aurre egiteko erabiltzen den botika, "hiru pilulen koktela" deitzen dioten hori, oso garestia da. **Joxerra Garzia**

Hiesaren kontrako tratamenduak merkatzeko konpromisoa. **Berria - Gaiak**

Hiesaren aurkako txertorik onena preserbatiboa da. **Berria - Euskal Herria**

Hiesa sendatzeko erremediorik ez, eta minak arintzeko eta bizia luzatzeko botikak erosteko dirurik ere ez. **Gotzon Garate**

Hiesaren prebentzioan lan egiteko modurik onena. **Berria - Euskal Herria**

Gure garaiko gaitza da, **hiesa** baino askoz kutsagarriagoa gainera. **Patxi Iturritegi**

Eta berrek maitasunaz eta desamodioaz ziharduten, eta ihesaz eta **hiesaz**, eta heriotzaz. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Bangkoken egiten ari den **Hiesaren** Nazioarteko Konferentzian. **Berria - Gaiak**

Hiesari buruzko Nazioarteko Biltzarrean. **Berria - Kultura**

Hiesaren Prebentzio eta Kontrolerako Planari ematen zaion dirua. **Berria - Euskal Herria**

Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna da bihar. **Berria - Euskal Herria**

Hiesaren aurkako Txertoa Garatzeko Ekimena nazioarteko erakundeko arduradunek. **Berria - Gaiak**

UNAIDS Nazio Batuen Erakundearen **Hiesaren** aurkako Programaren arabera.

2 (hitz elkartuetan)

Ikastolan **hies** kasuren bat balego ere. **Joan Mari Irigoien**

Hies tasarik handiena omen du hiri honek. **Edorta Jimenez**

Neskatek dakarten **hies** gaitzari "Bonbaiko gaitza" deitzen diote. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hies kasuak (5); **hies programako** (4); **hiesa duten** (10); **hiesa dutenen** (8); **hiesa eragiten** (5); **hiesa saihesteko** (4); **hiesak eragindako** (5); **hiesak jota** (21); **hiesak jota hil** (4); **hiesak jotako** (8); **hiesaren aurka** (10); **hiesaren aurkako** (69); **hiesaren aurkako borrokarako** (4); **hiesaren aurkako txertoa** (6); **hiesaren birusa** (15); **hiesaren eraginez** (6); **hiesaren kontra** (15); **hiesaren kontrako** (39); **hiesaren ondorioz** (7); **hiesari aurre egiteko** (13); **hiesaz jotako** (4); **hiesaz kutsatu** (5); **hiesaz kutsatzeko** (4); **sida edo hiesa** (9)

hiesdun *izond/iz* hiesak joa.

Guraso **hiesdunen** seme-alabek. **Berria - Gaiak**

Hiesdunen eskubideak lege babestuko dituzte Shangain, Txinan. **Berria - Gaiak**

Zenbat ematen diate farmakoen multinazionalak, preso **hiesdunekin** probak egitearren? **Koldo Izagirre**

Bi borroka dira, eta biak batera egin behar izan dituzte sarritan GIB eta **hiesdun** askok. **Berria - Harian**

higadura 1 *iz* hingatzea.

Nerbio-sistemaren **higadura**. **Xabier Olarra**

EAJrentzat legealdi gogorra izango da, **higadura** handikoa. **Berria - Harian**

Denboraren joanaren **higaduratik** salbatutako testuak. **Fernando Rey**

Guztizon gainera etengabe eroriz doan denboraren **higaduratik** libratzerik ez badut ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Dolarraren ahultasun iraunkorra gorabehera, esportaziorako merkatu-kuoten **higadura** etengabea. **Koro Navarro**

Bat-batean gelditu egin naiz: **higadura** bat sumatu dut, sentazioen ehunduran hitz bat agertzen ikusi dut. **Monika Etxebarria**

2 urak, haizeak eta kidekoek lurrazalean eragiten duten hingatzea.

Higadura edo erosioa. **Pello Zabala**

Desertifikazioa eta lurzoruen **higadura**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Mendeetako **higidurak** haizetan begiak sartuak ditu, etengabe zelatatzen ari zaizkizun begi harrigarriak. **Patxi Zubizarreta**

3 (hitz elkartuetan)

Prudenen etxetxoak utzikeriaren **higidura**-marka goiztiarrak ageri zituen. **Iban Zaldua**

Atzoko partida **higidura** desafioa izan zen, besoak lehen jaitsi zituenak galdu zuen. **Berria - Kirola**

higanot (*89 agerraldi, 11 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 522 agerraldi*) **1 izond/iz** Euskal Herrian, katolikoek protestante kalbindarrei ezarri zieten deitura. ik **kalbindar**.

Biarrok Eliza Erreformatuetako euskal ministro **higanota**. **Aingeru Epaltza**

1572ko San Bartolome egunean, Parisen zen zaldun **higanot** ingeles batek ozta-ozta ihes egin zuen sarraskitik. **Martin Anso**

Frantziako koroa, behin eta betiko, buru **higanot** batera ala beste buru katoliko batera, nora joango den oraindino ez dakigun garaian. **Edorta Jimenez**

Liburu hau **higanota** duk. **Edorta Jimenez**

Bada, ama legez, **higanota** izan zen Hendrike hori. **Edorta Jimenez**

Arroxela aipatzen zidan, esanez haraxe bilduak zirela Frantziako **higanotak**. **Edorta Jimenez**

Higanota liluraturik dago Garibairen jakituriarekin. **Anjel Lertxundi**

Amerikara etorritako gure lehen arbasoak **higanot** frantsesak izan omen ziren. **Xabier Paya**

Higanot zerriak gibelean guri segika. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan)

Bigarrenari egin zion uko; **higanot** fedeari, alegia. **Edorta Jimenez**

-Gazteluko **higanot** -kumea! -oihu egin zuen norbaitek. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

milaka higanot (3)

higarazi, higaraz, higarazten du *ad* higtzera behartu.

Kontu gehiago neuzkan, burua **higarazi** beharrean, inork baieztatuz edo argitu zain. **Aingeru Epaltza**

higatu (*ETCn 3.446 agerraldi*), higa, higtzen **1 da/du ad** zerbaitek, erabiltzearen ondorioz, berritan zituen nolakotasunak galdu; erabileraz hondatu. ik **gastatu**.

Urak kafearen kolorea du, ibaiak lurra **higtzen** duelako. **Joseba Sarrionandia**

Urak **higtutako** harkaitzak. **Berria - Gaiak**

Aduana zen, eguraldiak **higtutako** seinaleak zekarrenez. **Urtzi Urrutikoetxea**

Laster aurkitu zuen Ostatu Zaharra, urteek **higturiko** harri grisezko eraikina. **Agustin Otsoa**

Badakizu hareharri **higtua** ikusgarriro **higtzen** dela. **Koldo Izagirre**

Higtutako pneumatiko pila handia. **Juan Luis Zabala**

Ikusitakoak ikusita, **higtu** egin zait lilura hura. **Txillardegi**

Erabiliaren erabiliz **higturiko** ahotsak. **Juan Garzia**

Ohituraren, asperduraren eta solasgaiak **higtzearen** despit. **Juan Garzia**

Goseak gorputza **higtzen** du, baina kuraia ere, bai eta arima, itsusterainokoan. **Marzel Etxehandi**

Gizarte "natural" edo nekazarietako lan gogorak [...] emakumeak **higtu** eta hondatu eginen ei ditu. **Koldo Izagirre**

Eta behin eritzen gara eta berriro eritzen gara, eta erialdi bakoitzean hondatzen eta **higtzen** zaigu gorputza. **Joan Mari Irigoien**

Urteetan egindako lanak **higtua** baitzion ikusmena. **Javi Cillero**

Tanto luze eta landuek gutxi-gutxi pilotarien erresistentzia **higtu** zuten. **Berria - Kirola**

Aspaldian eri zen eta arrunt **higtua**. **Herria**

Leher eginda ibili naiz beti, beroak **higtua** egunez eta hotzak gauez. **Jose Antonio Mujika**

Bizitzak eta grinak **higtua**, urratua. **Monika Etxebarria**

Eta beren hil arteko egunak kartzeletan **higtuko** zituzten. **Itxaro Borda**

Sortuz geroztik Maianak ez zituen orenak sekula alferrik **higtu**; beti bazuen zerbaitek egiteko. **Itxaro Borda**

2 (era burutua izenondo gisa)

Arropa **higtuak** zituzten gehienek. **Urtzi Urrutikoetxea**

Lurbira osoko eguzkiek erretako kapelu **higtu** bat zeraman. **Karlos Zabala**

Bere larruzko zaku **higtua**. **Elena Touyarou**

Bere maletatxo zahar **higtua** irakaslearen mahai gainean ipini zuen. **Iñaki Mendiguren**

Pergamino-zati handi bat zen, karratua eta oso **higtua**. **Iñaki Mendiguren**

Ikusgai utzi zuen jakaren bizkarralde, marrega zahar baten tankera hartzeraino **higtua**. **Jose Morales**

Kandela-muturrez, jokorako hainbat karta-sorta **higtuz**, zilar eta kristalezko bola ugariz. **Iñaki Mendiguren**

Morroia linoliozko zoru **higtutik** lasterka igarotzen den bakoitzean. **Jose Morales**

Lur **higtu** eta gehiegi erabiliaren kolorekoa. **Felipe Juaristi**

Egun berean bozkatua izan da ere ur zikin edo **higtuen** biltzeko zerbitzuaren aitzinkondua. **Herria**

Egunean 650 metro kubo ur **higtu** ba doa hortik zuzenean Aturri ibaira. **Herria**

Bere bota bustien arrastoak utziz maila **higtuetan**. **Jose Morales**

Baxu-bateria-kitarra-ahotsa ohiko rock egituraz haratago beste formula ez hain **higtuak** probatuz arriskatu. **Harkaitz Cano**

Maisu **higtu** batekin bizi da... **Karlos Zabala**

Aurpegia lodi eta izterrak astun, puta zahar **higtua** besterik ez zen. **Edorta Jimenez**

Leihoa irekita, kanpoko aireaz elikatu nituen birika **higtuak**. **Aingeru Epaltza**

Urre-kolore **higtuzko** bi bala. **Pako Aristi**

3 **higtuxe** higtu xamar.

Bere puskak igo zizkieten: aurrena, larruzko maleta zuri bat, **higtuxea**, erabiltzen zuen lehenbiziko aldia ez zelako seinale. **Jose Morales**

Bi pilotari, bat trenpukoa eta bestea adinez **higtuxagoa**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta higitu (11); **eta higitu hark** (3); **higitu bat** (13); **higitu baten** (5); **higitu behar** (3); **higitu da** (4); **higitu egin** (4); **higitu eta** (23); **higitu hark** (4); **higitu nituen** (4); **higitu zituen** (6); **higitu zuen** (4); **sobera higitu** (3); **ur higitu** (4)
aski higitua (3); **eta higitua** (10); **eta higituak** (4); **higitua eta** (10); **higitua zen** (3); **higitua zuen** (4); **higituak eta** (7); **oso higitua** (4); **ur higituak** (4); **zahar higitua** (3)
haragi mamiak higituta (3); **higaturik eta** (3); **mamiak higituta** (3)

higatzaile *izond* higitzen duena.

Beren burua ikusi zuen xingolaz beteta, apainduta, motel eta gosetuta baina denak giltzapetuta maitasun **higatzaile** baten baitan. **Anton Garikano**
Ez zinela biziki liburu horiekin, **higatzaile** horietarik, bainan irakurtu duzu liburu bat, pixka bat markatu zituena? **Menane Oxandabaratx**

higatze *iz* zerbaitek, erabileraren ondorioz, berritan zituen nolakotasunak galtzea; erabilerak hondatzea. **ikgastatze**.

Gerra kontrairaultzaileak eta oposizioak Fronte Sandinistari eragindako **higatze** ekonomiko, sozial eta politikoak. **Berria - Mundua**

Higatze partida. **Berria - Kirola**

Higatze lan hori saihesteko. **Berria - Kirola**

Partidaren azken txanpan Xalax eta Pascualek **higatze** estrategiaren fruituak jaso zituzten. **Berria - Kirola**

Lurraren **higatze** jarraieren eta hondar bankuen desagertzearen eraginez. **Berria - Harian**

Lubakietan pairatu behar izandako **higatze** -gerra etengabeak. **Mirentxu Larrañaga**

higialdi (*2 agerraldi, liburu 1 eta artikulua 1ean; ETCn 12 agerraldi*) *iz* higitzea, zerbait higitzen den aldiak bakoitza

Zeru-lur horiek baino lehen bazen sorkari gorpuzdunen bat, zeinaren denboraz neurtutako **higialdietatik** mintzo hura aldiak zehar iragaiterik bazegoen. **Imanol Unzurrunzaga**

Orai "Sanoki"-ko gaineko gelarat joanak dira, mugimendu eta **higialdi** horien egiterat. **Herria**

higiarazi (*ETCn 82 agerraldi*), higaraz, higarazten du *ad* higitzera behartu. **ik mugiarazi**.

Galderak burua **higiarazi** zidan haren aldera, baina ez ezpainak. **Aingeru Epaltza**

Sutsuki entseatu, baina ezin hura zentimetro bakar bat ere **higiarazi**. **Xabier Montoia**

Mutiko isotuak **higiarazten** zuen panderetaren xirri-xarrak. **Itxaro Borda**

1933an eraikia, 2.175 tona **higiarazteko** gai zen 36 korapiloko abidan. **Edorta Jimenez**

Esferoide batek duenaren antzeko zapalketak soilik galarazten duela lur irmoaren goraketek [...] lurraren ardatza jarraituki eta luze gabe nabarmen **higiaraztea**. **Ibon Uribarri**

Adimena **higiaraztearren**. **Ibon Uribarri**

higiarazle *izond* higarazten duena. **ik higitzaile; mugiarazle**.

Errusiar administrazio-makinak behar hainbat indar **higiarazle** ez zuelako. **Iñaki Mendiguren**

Aldakorra denaren beharbadakotasunaren eta lehen **higiarazle** baten beharrezkotasunaren adigaiaren bidez. **Ibon Uribarri**

Gonzalo Etxebearriaren margo ozenak abstrakzio-espresionismoaren **higiarazle**. **Herria**

higidura (*176 agerraldi, 31 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 4.455 agerraldi*) **1** *iz* higitzea, gauza baten egongune aldaketa. **ik mugimendu; higialdi; higikunde; mugida**.

Gustukoa nuen haren ipurmasailen **higidurari** begira egotea. Zeruko **gorputzen** higiduren lege nagusiek. **Anjel Lertxundi**

Higiduren erregulartasun aldagaizten eremua (zeruko esparrua). **Askoren artean**

Begiespen hau puntu batek espazioan egiten duen **higidurarena** da. **Ibon Uribarri**

Zabuka egin zuen neskak, ontziaren **higidurara** egokitu ezinez. **Anjel Lertxundi**

Aristotelesen aburuz **higidura** zirkularra ez zen sortzen ez eta iraungitzen ere. **Xabier Kintana**

Gorputzaren grabitate zentroa ezari-ezarian desplazatzen da **higidura** emearekin batera; **higidurak** uniformeak izan behar du, eritmitikoa. **Iñaki Iñurrieta**

Higidura erreflexu batek eraman ninduen horretara. **Joxan Elosegi**

Higidura, materiaren akzidentea den heinean. **Ibon Uribarri**

Higidura browndarraren teoria. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Hasita zeuden dantza-moduko gorputz-**higidura** eritmitikoago bat osatzen. **Anjel Lertxundi**

Uhinen frekuentzia, ordea, aldatu egiten da planetaren latitudearen eta errotazio **higiduraren** arabera. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten higidura (3); **bere higidura** (3); **eta higidura** (4); **higidura eta** (5); **higidura eta oreka** (5); **higidura hartu** (3); **higidura zirkularra** (4); **higiduraren arabera** (3)

higiene **1** *iz* osasuna zaintzeko eta hobetzeko hatsapen eta ariketen multzoa.

Higienea ere ez da Europako mailara heltzen. **Gotzon Garate**

Higienearen alorrean. **Koro Navarro**

Aldez behintzat **higiene** eza dela eta, Indian 10 milioi itsu daude. **Gotzon Garate**

Komunetako **higienetik** ez dago gogoaren **higienetik** gabe. **Joxan Elosegi**

higiene sexuarekiko kanpainak. **Luis Elberdin**

Londresko **Higiene** eta Medikuntza Tropikaleko Eskolaren arabera. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) **ik higieniko**.

Beraz, zenbait **higiene** neurri hartzea komenigarria izaten da. **Berria - Harian**

Higiene eta elikadura gaietan. **Josu Zabaleta**

Bost hondartzatako **higiene** eta osasun egoera txarra. **Berria - Euskal Herria**

Bagdadeko kaleak zikinak daude [...] eta, kiratsaz gain, **higiene** arazoak eta osasun arazoak eragiten ditu horrek. **Berria - Harian**
1834ko lege batek, debekatu egin zituen eliz barruko enterramentuak, **higiene** kontuagatik. **Patziku Perurena**
Hango **higiene** egoera negargarriaren ondorioz, tifus epidemia bat izan zen. **Josu Zabaleta**
Higiene -mediku lanpostu bat. **Josu Zabaleta**
Palermoko **higiene** -zerbitzukoak eta aduana-bulegokoak. **Jon Muñoz**
Higiene Bulegoko medikuarekin. **Juan Garzia**
Botikak eta **higiene** gauzak. **Gotzon Garate**
EBko Elikaduraren **Higiene** eta Segurtasun Batzordeak. **Berria - Gaiak**

2 irud

Geltokiko buruak ez zuela erotzeko arriskurik, bazuela bere **higiene** espiritual hori. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta higiene (3); **higiene eta** (6); **higiene greba** (3); **higiene mediku** (3); **higiene neurri** (5); **higienea eta** (3)

higienaldia iz

higien neurriak begiratzten den denbora.

Hiru eguneko **higienaldia** . **Koldo Izagirre**

higieniko izond

higieneari dagokiona; higienearen araberakoa. ik **higiene 2**.

Orain ezingo dut zapi **higienikorik** erabili, ez baitira lortzen. **Josu Zabaleta**
Oihal **higienikoek** eguzkitan esekita. **Joseba Urteaga**
Baldintza **higieniko** eta sanitarioak izan behar ditu instalazioak. **Berria - Harian**
Ikuzte edo abluzio erritual eta **higieniko** horiek egin-eta, mendi Gozora (Mons Gaudii) bozkario osoz iragaiten ziren. **Piarres Aintziart**
Errepublikan frantziarra zerbitzu **higienikoez** hain harro agertu izan ohi denez gero, garbixeago egon behar lukete. **Unai Iturriaga**
Gaur gaurkoz, terapia **higieniko** hoberik ez zait bururutzen. **Patziku Perurena**
Halako atari **higieniko** -profilaktikorik gabe ere, berdin birtopatzten ahalko ziren gure gorputzak. **Aingeru Epaltza**
Europako Laborantza Elkarteko arau **higienikoak** . **Itxaro Borda**
- Barrakoi zikin, usain txarreko eta ez **higieniko** batean. **Berria - Ekonomia**

higienismo iz

Higienismoa, azken batean, osasunarentzat heziketa modu bat da. **Berria - Harian**
1983tik **higienismoaren** ideiak herritarrei ezagutarazten ari da. **Berria - Harian**

higienista izond

higienismoari dagokiona.

Mugimendu **higienista** hartu genuen oinarritzat. **Berria - Harian**

higiezin (ETCn 29.244 agerraldi) 1 izond

ezin higituzkoa.

Oinarri handiak, **higiezinak** eta mutuak. **Xabier Arregi**
Lur hau, ordea, hondoratu egiten da, baldin eta behar-beharrezkoa denaren arkaitz **higiezinaren** gainean funtsatzen ez bada. **Ibon Uribarri**
Euskal ondare etnografiko higigarri zein **higiezinari** buruzko jakintzan. **Berria - Kultura**

2 (ekonomian) ik higigarri.

Ondasunak higigarri eta **higiezinak** izan daitezke. **Andres Urrutia**
Ondasun **higiezinak** \$ 500.087,12. **Lopez de Arana**
Ondasun **higiezin** gaineko zergekin. **Iñaki Heras**
Higiezin agente batek ahots kantariz argudiatu zuen. **Lopez de Arana**
Goldweiser, ez al zara han **higiezin** negozio batean sartu? **Lopez de Arana**
New Yorken, aberastu egin zen, burtsan eta **higiezin** enpresetan. **Koro Navarro**
Mikel Etxebarren Madrildo Irea **higiezin** aholkularitza bulegoko kontseilari ordezkariak. **Berria - Ekonomia**
INGk, Eroskik eta Inalcok INGren **higiezin** atalari Boulevard merkataritza gunea saldu diote, 144 milioi eurotan. **Berria - Ekonomia**
Eskaintza mugatuko aktiboen (**higiezin**, orubeen, akzioen) merkatuen kiebran. **Koro Navarro**
Burbuila espekulatiboak sortzea (burtsan eta **higiezinetan** batez ere). **Koro Navarro**
Burbuila ez ote dago bere betean? **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
higiezin enpresaren (3); **higiezin programetarako** (3); **higiezin enpresa** (4); **higiezin enpresak** (6); **higiezin enpresek** (3); **higiezin merkatua** (4); **justiziaren higiezin programetarako** (3); **ondasun higiezin** (3); **ondasun higiezinak** (3); **ondasun higiezin** (9)

higiezintasun iz

higiezina denaren nolakoatsuna.

Ez nintzen, ordea, ausartu, ez mimoa haserretuko zitzaidalako, baizik eta haragizko itxura, **higiezintasun** arian geldia, estatuazko errealitate bilakatu ote zen beldurrez. **Anjel Lertxundi**

higigabetu, higigabe, higigabetzen du ad

higigabe bihurtu.

Adimena [...] errotik subjektibatu eta mugakortu egiten du, berak osotasunetik ebaki, bizigabetu eta **higigabetu** . **Askoren artean**

higigaitz izond

ia higiezina. ik **mugigaitz**.

higigarri 1 *izond* higi daitekeena. ik **mugigarri**.

Euskal ondare etnografiko **higigarri** zein higiezinari buruzko jakintzan. **Berria - Kultura**

Hondakin **higigarriei** dagokienez. **Berria - Kultura**

2 (ekonomian) ik **higiezin**.

Ondasunak **higigarri** eta higiezinak izan daitezke. **Andres Urrutia**

Ondasun **higigarriak** merkataritzaren alorrekoak dira. **Andres Urrutia**

Efektu **higigarri** gehien dituen herria da aberatsena. **Andres Urrutia**

Higigarriak, ostera, hala dirua, nola balioko, kanbio letrak, banku zein konpainien akzioak, ontziak, merkatugaia oro, mundu osoari dagozkio, mundua baita horretan Estatu bakarra eta horren kide gizarte guztiak dira. **Andres Urrutia**

higigarriki *iz*

Espazioan, ordea, ez dago ezer **higigarrikirik** bere baitan kontsideratzen bada; horregatik, **higigarrikiak** espazioan esperentziaren bitartez soilik aurki daitezkeen zerbait izan behar du, eta beraz, datu enpirikoa izan behar du. **Ibon Urbarri**

higigarritasun *iz* higigarria denaren nolakotasuna.

Sekula ere ez da onartu, merkataritza esparruan, bidezko salneurriaren erdia baino goragoko kaltea dela eta, kontratuaren hutsalketa akzioa, merkatugaien

higigarritasunak, arriskuak, ustekabeak eta ezinbestekoak akzio hori eragozten baitute. **Andres Urrutia**

higikari *izond* higikorra. ik **mugikari**.

Itsasoa bera baino gaiztoago diren hondar **higikariz** inguratu zuen bere etxaldea. **Josu Zabaleta**

higikera *iz* higidura, eta bereziki higitzeko modua.

Hasieran **higikera** xume bat baino ez zen, maindireen gainetik apenas nabaritzen zena. **Unai Iturriaga**

Taxista **higikera** geldokoa zela ohartu nintzen haren mugitzeko patxada ikusiz. **Joxemari Iturralde**

higikor *izond* higitzeko joera duena. ik **mugikor**.

Zubi **higikorrean**. **Edorta Jimenez**

Ez zituela errealitate egonkorra (absolutua) eta errealitate **higikorra** (erlatiboa) bereizten. **Askoren artean**

Lur lohi **higikorretan**. **Joan Mari Irigoien**

Galdera-ikur **higikor** hauek. **Urtzi Urrutikoetxea**

"Diskurto" hitzaren esanahi **higikorra**. **Xabier Arregi**

higikortasun *iz* higikorra denaren nolakotasuna.

Orain utzidazu azaltzen materiaren gorputz sortzaileek nola dituzten izaki ezberdinak sortzen eta sortuak disolbatzen eta zer indarrek eginarazten dien hori eta zer

higikortasun emana zaien. **Xabier Amuriza**

Lau eserleku izango dira murrizturiko **higikortasuna** duten pertsonentzat. **Berria - Ekonomia**

higikunde (**22** *agerraldi*, **9** *liburutan*; *ETCn* **277** *agerraldi*) **1** *iz* ideien edo iritzien aldaketa helburutzat duen egintza, giza multzo edo erakunde batek eragina.

Nik neuk ez dut inoiz ez **higikundeetan** ez alderdian itxaropenik jarri. **Koro Navarro**

Latin Amerikan gero eta gehiago ari ziren ugaritzen askatasunaren aldeko **higikundeak**. **Jon Muñoz**

Errabino asko **higikunde** honen kontra agertu zen, hasidismoak Jainkoarekiko komunikazio intimoa eta katartikoa proposatzen baitu. **Koro Navarro**

Erdi Aroaren aurreko ahoko transmisioa hainbat **higikundetan** dago Kabalaren jatorria. **Koro Navarro**

Hasidismoak indar berria eman zion Kabalaren **higikundeari**. **Koro Navarro**

Higikunde erromantikoko bigarren mailako epigonotzat hartu dute adituek Poe. **Koro Navarro**

Termino hau ["Eskola filologikoa"] Friedrich August Wolf-ek 1777an sortu eta egun bizirik jarraitzen duen **higikunde** zientifikoari lotzen zaio bereziki. **Isabel Arrigain**

Uztailaren 26 **Higikunde** Iraultzailea. **Jon Muñoz**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Margolaritza-**higikunde** batzuek, pop-art-ak edo hiperrealismoak, adibidez, desberdin "ikusarazi" dizkigute eguneroko mundua eta mundu horretako objektuak. **Josu Zabaleta**

Iberia monarkien bultzadapean Mendebalde kristauak XV. mendean abiarazi zuen integrazio-**higikunde** handia. **Koro Navarro**

Ingalaterran, hesitze-**higikundeak** landa-ekonomia irauli zuen. **Koro Navarro**

higimen *iz* higitzeko ahalmena.

Tetraplejia, afasia, **higimen**-desoreka... **Anjel Lertxundi**

Gauza oro hartzen duen bat-bateko **higimen** falta dator gero. **Aurelia Arkotxa**

higitu, higi, higitzen (**360** *agerraldi*, **76** *liburu eta* **22** *artikulutun*; *ETCn* **3.157** *agerraldi*) *da/du ad* zerbait edo norbait egongunez edo kokalekuz aldatu. ik **mugitu**.

Zer edo zer **higitu** zen nonbait. **Jose Morales**

Higi hadi amiñi bat! Itxaro Borda

Ez zuen burua itzuli eta ez zen **higitu** ere sartu zirenean. Elena Touyarou

Haurra sabelean nola **higitzen** zen sentitu zuen. Elena Touyarou

Dauden lekutik ez **higitzeko** eta eskuak bistan izateko galdatu diezue. Xabier Montoia

Eguzkiaren inguruan **higitzen** diren planetetako bat pisuz eta tamainaz aldatuko balitz. Isabel Arrigain

Berriz **higitu** du kapitainak eskua. Xabier Montoia

Janaria lurrean utzi eta besotik heldu eta ezтики **higitu** nion. Oskar Arana

Goiti beheiti **higitu** nuen burua. Joan Mari Irigoien

Gihar bat ere ez nuen **higitu**. Aingeru Epaltza

Bizkar gainean zetzan, burusia leun **higituz**: lo zirudien. Urtzi Urrutikoetxea

Ez zekien pala airoski **higitzen**, arraunketaren balleta hausten zuen beti. Koldo Izagirre

Kanpai irauli bat zen [...] lau metro zabal eta altzairu trinkoan egina: erdian, goitik esekia eta behetik gidatua, mihitar bat **higitzen** zen balantzaka. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Gorputz **higituak** berez beti lerro zuzena norabide berean atxikiko lukeen bezala. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behera higitu (3); **burua higitu** (4); **ere higitu** (4); **ez zen higitu** (8); **ezker eskuin higitu** (4); **higitu da** (4); **higitu du** (4); **higitu ere** (3); **higitu eta** (6); **higitu gabe** (17); **higitu nuen** (4); **higitu zen** (4); **higitu zituen** (3); **higitu zuen** (12); **zen higitu** (8)

bat higitzen (4); **beheiti higitzen zuela** (4); **bezala higitzen** (3); **da higitzen** (4); **ez da higitzen** (4); **ez higitzeko** (4); **ez zen higitzen** (3); **ez zuen higitzeko** (3); **ezker eskuin higitzen** (4); **gabeak higitzen** (4); **gabeak higitzen direlarik** (4); **goiti beheiti higitzen** (7); **zuen higitzeko** (4)

higitzen ari (6); **higitzen ari zen** (4); **higitzen baldin** (3); **higitzen da** (5); **higitzen den** (4); **higitzen dira** (4); **higitzen direlarik** (4); **higitzen diren** (5); **higitzen duten** (3); **higitzen ez** (4); **higitzen hasi** (6); **higitzen zen** (16); **higitzen ziren** (14); **higitzen zituen** (6); **higitzen zuela** (8); **higitzen zuen** (3); **lur gabeak higitzen** (4); **nola higitzen** (3); **poliki higitzen** (3); **zen higitzen** (4)

higitugabe *izond* higitu gabe dagoena.

Gidaliburuan erakutsia, hemen ageri altzifreen artean, bide eder eta zabala, harri lauza xuriak, ardi **higitugabeak** iduri. Piarres Aintziart

higitzaile *izond* higitzen duena, higarazlea.

Indar **higitzaileen** ezagupena Ibon Uribarri

higitze 1 *iz* zerbait edo norbait egongunez edo kokalekuz aldatzea.

Gero, eskumuturraren **higitze** doi atzemanarekin batera, kurbatzen hasten zen, perfekzio geometriko osoa ageri zuen trazadura zalantzagabea. Iñaki Iñurrieta

Narrasti baten antzera, **higitze** geldoan zihohan luzatuz, itxura-koloreak ezari-ezarian aldatuz. Iñaki Iñurrieta

Neskaren begien **higitze** ia atzemanazinean erreparan, haietan jakin-mina sumatuz zihohan, jakin-mina eta alaitasun sekretu bat betiere dantzan. Iñaki Iñurrieta

Higitze eta ezinegon-hotsa aretoan. Oskar Arana

higitzeke *adlag* higitu gabe.

Idazmahaian jesarrita aurkitu zuen osaba, **higitzeke**, jesarrita hilik gelditu balitz bezala. Bego Montorio

higrografo *iz* atmosferaren hezetasunaren neurgailu erregitratzailea.

Beste era batera ere neurtu ohi da hori: **higrografoak**, ile txima-kordatxo tiki batzuen bidez neurtzen du airearen hezetasun erlatiboa. Pello Zabala

higrometrikoki *izond* atmosferaren hezetasunari dagokiona.

Noski, apetak zituen, bere burua agertu gabe egon zitekeen zenbait egunez; baina maiz, eguraldi on misterioetsua zelarik, kaputxino **higrometrikoki** bezala erakusten zuen sudurra, eta haren aurpegi kolorea eta masail urdinxkak ikusten nituen. Monika Etxebarria

higrometro *iz* atmosferaren hezetasunaren neurgailua.

Higrometroa horman zintzilik ikusita. Pello Zabala

higroskopiko *izond* atmosferaren hezetasuna xurgatzen duena.

Kloruroak oro har jendaila dira, gehienez azpiprodotu doilor, **higroskopiko** eta ezer gutxitarako onak: gatz arrunta izaki salbuespen bakarra, oso bestelako kontua baita horrena. Juan Garzia

higuin (*ETCn 1.209 agerraldi*) 1 *iz* batere gogoko ez dugun edo pairagaitza gertatzen zaigun zerbait edo norbaitek eragiten digun atzerakuntzazko sentipen bizia. ik **higuintza**; **nazka**; **narda**.

Saget andereñoak alde egin ondoren, berogailuaren estalkiari begiratzen zion, **higuina** aurpegian. Karlos Zabala

Loriak ez dio **higuin** ematen Arrazoiari, baina, hartarik sor daiteke. Piarres Xarriton

Badirudi ezin gaintuzko **higuina**, ezin eramanezko nazka sentitzen duela emaztearentzat. Josu Zabaleta

Sakoneko **higuin** batek hartua zidan barrera, eta amorru asaldatu bat, nire esku nuenean piztita hura ez urkatu izanaren damua ari zitzaidan jabetzen. Josu Zabaleta

Higuin handia sentitu nuen ariman. Xabier Kintana

Edozein eratako berriketa azalekoen kontrako **higuin** artegagarri bat. Oskar Arana

Eskuinaren jardunak eta hizkerak **higuin** fisiologiko bat sortzen didate. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohean sartu zen emaztea, eta **higuina** eta bertigoa nagusitu zitzaizkion haren berotasuna hain gertu sumatzean. Josetxo Azkona

Bizitzak -edo bizitzaren izurriak- nazka eta **higuina** eragingo balit bezala. Joan Mari Irigoien

Higuina ezkutatu ezinik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mundu guztiaren **higuina** eta haserrea pizteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Teodosiok jendearen **higuina** bereganatu zuen bere ankerkeriengatik. Juan Martin Elexpuru

Beldurra gorputzaren tristuran galdu zen, **higuinean**. Juan Garzia

Filchek **higuinez** begiratu zion Harryri. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Higuin sentimendua sortuz bere baitan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

bat **hilobi** (6); **bere hilobi** (4); **bere hilobi gainean** (3); **bi hilobi** (4); **da hilobi** (4); **eta hilobi** (25); **eta hilobi bat** (4); **gabeko hilobi** (6); **gabeko hilobi batean** (3); **haren hilobi** (3)

hilobi aitzinean (3); **hilobi artean** (3); **hilobi aurkitu** (7); **hilobi aurkitu ditugu** (3); **hilobi aurrean** (9); **hilobi bakarra** (11); **hilobi bakarra egon** (7); **hilobi bat** (37); **hilobi bat ematen** (3); **hilobi bat en** (3); **hilobi batean** (15); **hilobi batek** (4); **hilobi baten** (13); **hilobi batzuk** (3); **hilobi berei** (5); **hilobi eder** (3); **hilobi eta** (3); **hilobi gainean** (16); **hilobi gaineko** (3); **hilobi haren** (3); **hilobi hartan** (4); **hilobi hori** (3); **hilobi horren** (3); **hilobi komunak** (3); **hilobi komunean** (9); **hilobi ondoan** (11); **hilobi santua** (4)

hilobiz hilobi (5); **izenik gabeko hilobi** (3); **santuaren hilobi** (3); **santuaren hilobi aurrean** (3); **zen hilobi** (3); **ziren hilobi** (3)

amaren hilobia (4); **baten hilobia** (5); **bere hilobia** (5); **cioranen hilobia** (3); **en hilobia** (4); **eta hilobia** (7); **haren hilobia** (8); **hilobia aurkitu** (4); **hilobia bisitatu** (8); **hilobia bisitatzen** (3); **hilobia bisitatzen izan** (3); **hilobia bisitatzea** (7); **hilobia bisitatzea joan** (5); **hilobia da** (3); **hilobia egin** (4); **hilobia egin eta** (3); **hilobia egiteko** (3); **hilobia eta** (5); **hilobia ez** (3); **hilobia ikusiko** (3); **hilobia ikustera** (4); **hilobia ireki** (4); **hilobia profanatu** (3); **nire hilobia** (4); **ren hilobia** (3); **siddal en hilobia** (3); **untzainen hilobia** (3); **zuen hilobia** (3)

eta hilobiak (4); **hilobiak ere** (7); **hilobiak eta** (5); **hilobiak ikusi** (3); **hilobiak ikusten** (3); **hilobiak ireki** (3); **zituzten hilobiak** (5)

aitaren hilobian (3); **bere hilobian** (15); **duen hilobian** (3); **duzu hilobian** (4); **duzu hilobian galtzen** (4); **eta hilobian** (5); **ez duzu hilobian** (4); **familiaren hilobian** (5); **gurasoen hilobian** (3); **haren hilobian** (3); **hilobian ehortzi** (9); **hilobian ehortzi zuten** (8); **hilobian ehortziko** (5); **hilobian ehortziko nauzu** (3); **hilobian eta** (4); **hilobian ezarri** (3); **hilobian ezarria** (4); **hilobian galtzen** (4); **hilobian galtzen utziko** (4); **hilobian loreak** (3); **hilobian lur** (3); **hilobian lur eman** (3); **hilobian sartu** (5); **jesus hilobian** (4); **jesus hilobian ezarria** (4)

ahmeti haniren hilobiaren (3); **bere hilobiaren** (3); **haniren hilobiaren** (3); **haniren hilobiaren ondoan** (3); **haren hilobiaren** (11); **haren hilobiaren gainean** (4); **hilobiaren aitzinean** (3); **hilobiaren aurrean** (13); **hilobiaren bila** (3); **hilobiaren gainean** (14); **hilobiaren inguruan** (6); **hilobiaren ondoan** (10)

eta hilobietatik (3); **gerlari guztien hilobiez** (3); **guztien hilobiez** (3); **hilobien artean** (4); **hilobien gainean** (6); **hilobiez inguratua** (3)

dohatsuaren hilobira (4); **eta hilobira** (3); **eta hilobirako** (3); **frantzisko dohatsuaren hilobira** (3); **haren hilobira** (4); **hilobira bidaliko** (5); **hilobira eraman** (8); **hilobira eraman zuten** (4); **hilobira joan** (10); **hilobira joan zen** (4); **hilobira joan ziren** (3); **hilobira joango** (3); **santuaren hilobira** (5); **zen hilobira** (4)

familietako hil hobietarat (4); **hil hobia** (13); **hil hobia ehortzia** (3); **hil hobia** (4); **hil hobietarat** (5); **hil hobirat** (4)

hilobigabe *izond* hilobirik ez duena.

Oroimenaren Monumentuko kriptan dago gorderik liburu hori, urtero Shoah-ren biktima **hilobigabeei** zeremonia opatzen zaien lekuan hain zuzen ere. **Joxan Elozegi**

hilobigintza *iz* hilobiak egitea.

Noiztik ari haiz **hilobigintzan**? **Juan Garzia**

hilobikide *iz* hilobi berean lurperatua dagoena.

Zer esango zuten **hilobikideek**, edo zer esango zuten enterradoreak. **Unai Elorriaga**

hilobiratu, hilobira(tu), hilobiratzen (*ETCn 684 agerraldi*) du *ad* hilobian ehortzi.

Sukarrietara joatea erabaki nuen, beste erlikia eskuratzea lortzen nuenerako hasi behar bainuen nola **hilobiratu** pentsatzen. **Ramon Saizarbitoria**

Hurrengo goizean kapitulu aretoko sarreran **hilobiratu** zuten. **Askoren artean**

Lady Madeline gaztaro betean **hilobiratu** zuten eritasunak. **Koro Navarro**

Bere azken nahietan aginduaren kontra lur eman baitzioten gainera, gorpua soilik lurperatzeko agindu eta zerraldoan sartuta **hilobiratu** baitzuten Montparnasseko hilerrian.

Josu Zabaleta

Guregatik preso hartua, gurutziltzatua, **hila** eta hobiratua izan baitzen. **Askoren artean**

Eta hildakoak **hilobiratzen** zituen, esandako sariaren truke. **Askoren artean**

Mazedonian ere, Euripides **hilobiratua** dagoen lekuan. **Santiago Iruretagoiena**

hilobiratze *iz* hilobian ehortzea.

Usherrek berak hala eskatuta, neronek lagundu nion denboraldi baterako **hilobiratze** haren prestakuntza lanetan. **Koro Navarro**

Gerran hildako bere nebari **hilobiratze** duina emateagatik. **Anjel Lertxundi**

hilobitxo *iz* hilobi txikia.

Ronnieren **hilobitxoaren** atzean. **Bernardo Atxaga**

hilobizulo ik **hilobi** 6.

hilondoko ik **hil**¹ 3.

hilotomo *iz* zura ebakitzen duen intsektoa.

Hitz egiteko modu bat da, izan ere, **hilotomoek** eta anbioiek ez dituztelako egur berdeari aurre egin eta garaitzeko beharko zituzten ebakitzeko eta zulatzeko tresnak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

hilotz (*ETCn 4.206 agerraldi*) **1** *iz* gorputz hila, eskuarki gizakiarena. ik **gorpu**; **hiliki**.

Jaio orduko hil den haurren **hilotza** bezala laztantzen zuela arma itzali berria. **Joxean Agirre**

Bi gizonen **hilotzak**. **Itxaro Borda**

Hilotzak lau mutilenak eta hiru neskarenak ziren.

Egia da **hilotzek** hitz egiten dutela. **Harkaitz Cano**

Lur saila **hilotzez** estalirik zen. **Jon Alonso**

Gero bere **hilotza** hegaztiek edo piztiek urratuko dutela. **Xabier Amuriza**

Adiskideek esan didate **hilotz** bat dudala hozkailuan gordeta. **Javi Cillero**

Sekta bateko ustezko 50 kideren **hilotzak** aurkitu dituzte ekialdean. **Berria - Mundua**

Arratsaldeko lehen orduan iritsi zen Cesenara, Marco Pantaniren jaioterrira, bere **hilotza** zeraman hilkutxa. **Berria - Kirola**

Hilotzari eskuin eskuko hatz nagia falta zitzaion. **Aingeru Epaltza**

Isilik itzuli ginen **hilotzaren** aurkilekura. **Aingeru Epaltza**

Hilotzen baltsamatzeari buruzko iragan mendeko tratatu bat. **Anjel Lertxundi**

Eusko Jaurlaritzak **Hilotzen** Sanitate alderdiei buruzko Araudia onartu zuen urrian.

2 (izenondoekin)

Ugaldean agertutako atsoaren **hilotz** bizigabeari. **Aingeru Epaltza**

Hilotz gazte bat bezain ederra. **Iñaki Segurola**

-Oso **hilotz** osasuntsua nago, ikusten duzueenez. **Inazio Mujika Iraola**

Etsaien **hilotz** ehortzigabeak dira. **Mirentxu Larrañaga**

Bazirudien **hilotz** iharturen bat zela eta ez besterik. **Patxi Ezkiaga**

Izenik ere ez duen **hilotz** arraio batengatik. **Aingeru Epaltza**

3 (adizlagun gisa) ik **hil**¹ 35.

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izenburua, estilo ezagunekoa: "**Hilotz**-lapurrik ote gure hirian?". **Aingeru Epaltza**

Hilotz usainak erakarra zuen, inola ere, zaborrontzi irauliak hegal-usoak bezala. **Aingeru Epaltza**

Urrunago ikusten dituzte **hilotz** metak eta metak, gure lagunak, erretzekoak zirenak oraino. **Michel Oronoz**

Idazle doilor honen izenak berak ere **hilotz**-kiratsa botatzen du, bertutea hiltzen du eta izua eragiten. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

hilpuin iz (hitz jokoa: cfipuin)

Alferrik zela jakinda ere, ihesbide hutsa, segundo gutxiren buruan egin zuen susmoaren filma: irakaslea, azafata, bidaiak, irakasle izandako herrialdeak, gorabeherak, banaketa, barruko harra, elkarri botatako erruak, mendeku nahia, ipuinak, **hilpuinak**, Frantziatik bidalia azkena, azken lekua, begiak falta, azken aldiz ikusiko zuena.

Joxemari Urteaga

hiltamu iz agonia.

Egun batez lasterka etorri zitzaizkidan bila, esanez okerrago zegoela, eta **hiltamuan** aurkitu nuen. Josu Zabaleta

Fritziek bahituak hartu zituztela, eta fusilatu egin behar zituztela, jakin zuenean, bere gizona, ezkondu eta hilabetera ozta-ozta, **hiltamuan** zegoan. Josu Zabaleta

Zigor gogor eta merezia zela medio, inor ere ez zen hurbildu haren **hiltamura** begiak ixtera. Monika Etxebarria

Soinu triste eta iluna, soinu **hiltamuzko** eta nekatua, soinu gidari eta deigarria. Felipe Juaristi

hiltegi (ETCn 2.141 agerraldi) 1 iz abereak hiltzen diren etxea. ik hiltoki.

Txekor bat **hiltegi** daramala, oinez. Joxerra Garzia

Hiltegi daramaten ardi baten begirada errukarriaz. Anjel Lertxundi

Pragako **hiltegi** zerriak garraiatzen zituztenean. Fernando Rey

Hiltegian tiroa jasotako ganadua bezain zurrin. Pedro Alberdi

Hiltegietako langile batzuek -diosku- gogortasun babesgarri bat garatzen dute berehala, eta animaliak modu mekanikoan hiltzen hasten dira. Xabier Olarra

Odola eta animalien erraiak hartzen zituen, eta **hiltegiaren** garbilekuko mutilen gain uzten zuen arratsaldean txerri gutzit prestatuak beren gurdian eramateko zeregina.

Karlos Zabala

Zubillagako **hiltegia** ez ixteko eskatu dute sinatzaileek. Berria - Ekonomia

Odolak putzuak sortzen zituen lauzen gainean, **hiltegietak**o harrietan behera isuri ondoren. Karlos Zabala

2 pertsonak hiltzeko tokia.

Gutxitan gertatzen zen, ordea, borroera galeradun, biktima **hiltegi** igotakoan. Felipe Juaristi

Halaxe iritsi zen hiriburuko Plaza Nagusiko erdi-erdian zutik zegoen **hiltegi**. Felipe Juaristi

Ikusia zuen, beraz, Kiev ondoko Babi Yar **hiltegia**. Felipe Juaristi

Goiz guziz, sei gizonek tiratu karro batek eramaiten ditu gorputzak **hiltegi**. Marzel Etxehandi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behi **hiltegi** bateko aberearen gisan zeraman zenbakia. Eneko Bidegain

Oihartzun izugarria piztu baitzuten Txikagoko zerri **hiltegi**ek. Patziku Perurena

Angeluko abere **hiltegi** industrialia. Itxaro Borda

4 irud

Itsasoraino, itsaso nahasi eta haserreraino, sentimendu guztien **hiltegi**, desio eta apeta, irrika eta gogo guztien hilobiraino. Felipe Juaristi

hiltoki (ETCn 28 agerraldi) iz hiltegia.

Abere **hiltokiko** harrietan. Karlos Zabala

Hiltokiko harrien gainean luma pila handiak zeuden botata. Karlos Zabala

Hiltokira doan arkumetxoaren jarrera. Berria - Harian

hiltzaile (ETCn 10.836 agerraldi; orobat hiltzale ETCn 143 agerraldi) 1 izond/iz hilketa egiten duena. ik hilgarri.

Frankoek, esan dudanez, errege **hiltzaileak** izan zituzten. Iñaki Iñurieta

Askotan hil-beharrak gupida eske begiratzen zion morrosko **hiltzaileari**, beronek urrikirik gabe labana saihetsean sartzen ziolarik Printze haiek **hiltzaileak** ziren, injustuak eta ankerrak, nazio osoa halakoa zelako. Txillardegia

Ez dira **hiltzaileak**: boterearen ikurrak baizik ez dituzte errausten. Itxaro Borda

Hire aita **hiltzailea** izan zela iruditzen al zaik? Joan Mari Irigoien

Libertinoa naiz, baina ez kriminala edo **hiltzailea**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Han hiltetarik ere ez da izaten, ez **hiltzailerik** ez biktimarik ez baitago. Monika Etxebarria

-Hildakoak eta **hiltzaileak**, denak karlistak -pentsatu nuen. Txillardegia

"Gora Kiroven **hiltzailea**", oihuaz hartu zituzten. Felipe Juaristi

Marie Rogéten **hiltzailea** edo **hiltzaileak** salatzeagatik. Koro Navarro

Victor Jararen **hiltzailea** auzipetu du epaile batek. Berria - Mundua

Hiltzailea, Alejandro Claret Martorell, kazetaritza ikasle bat da. Jon Muñoz

Lurrean zetzana ez zen, niri esker, **hiltzailearen** begirada begietan zuela hil, horra. Anjel Lertxundi

Zergatik bihurtu zen **hiltzaile** hura ume-izugarri? Bernardo Atxaga

Hutsegina dute **hiltzaileak** eta heietarik bat bederen tiroz garbitu dute presidentak berekin dituen amerikano soldado zaintzaileek. Herria

Kristinak zioen **hiltzaile** ero baten karantza nekarrela salan sartzean. Aingeru Epaltza

Hiltzaile bat garbitzeko agindu zigutean, herriaren izenean. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Merry ez zen mugitzera ausartzen, begi **hiltzaileak** ikusiko zuten beldur. Agustin Otsoa

Nire aurkako gorroto **hiltzailea**. Xabier Olarra

Fabrikak nekea eman dik bakarrik, berrogei lan-urtetako neke **hiltzailea**. Eskarne Mujika

Politika **hiltzaile** hau indarrean dutenei. Berria - Euskal Herria

"Dispersioa **hiltzailea**" lelopean. Berria - Euskal Herria

Antsietatearen hatzamar **hiltzaileetan** eroriak. Berria - Kirola

Krimena ote da ausiki **hiltzaileko** narrastia akabatzea? Koldo Izagirre

Izen handiko mendi-bazter **hiltzaile** horietako batean. Iñaki Segurola

• 3 iz (izenondo eta izenlagunekin)

Hiltzaile profesional batena, alegia. Aingeru Epaltza

Hiltzaile fanatiko bat. Juan Martin Elexpuru
"Manson" ezizena [...] Charles Manson **hiltzaile** hippyagandik zetorkion. Bernardo Atxaga
Lapur eta **hiltzaile** oso gaiztoa. Askoren artean
Paradoxa, *The Wild* **hiltzaile** gupidagabea amarenganako maitasunak saldu zuen. Gotzon Garate
-Stalin gizatxar bat zen, **hiltzaile** psikotiko bat. Oskar Arana
Serieko **hiltzaileei** buruzko filmen kopiak egin nahi zituztela. Antton Olano
Gupidarik gabeko **hiltzailea**. Alberto Ladron Arana
Holandako ultren liderraren ustezko **hiltzailea**. Joxerra Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon erraldi bat, **hiltzaile** aurpegia zuena. Koro Navarro
Hiltzaile -begiekin. Koro Navarro
Nola arinduko dut **hiltzaile** -kontzientziaren zama [...]? Anjel Lertxundi
Ez nauk **hiltzaile** -laguntzaile baten ikustera heldu, baizik eta hi neure semearen bisitatzeraz. Itxaro Borda

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Cervino mendiaren, giza **hiltzaile** horren, piramide garai beldurgarria. Josu Zabaleta
Espiritu basati berberak gidatzen zuen legegilearen eskua, eta senide-**hiltzailearena** edo sikarioarena. Juan Martin Elexpuru
"Aita-**hiltzaile**" deitzen zitzaion hura. Koro Navarro
Apaiz-**hiltzaile** haiek guztiak. Alberto Ladron Arana
Senar- eta haur-**hiltzaileak**. Gotzon Garate
Toreatzaile edo zezen-**hiltzaileak**. Iñaki Segurola
· *izond* Nola San Frantziskok hiru lapur giza **hiltzaile** bihotz-berritu zituen. Askoren artean
Bide-lapur turko-**hiltzailea** Kosmas zela baieztatu zuten. Felipe Juaristi
Santiago Mairu-**hiltzaile** Deunaren irudi bat. Xabier Aranburu
Edabe otso-**hiltzailea** aurkitu aurretik. Iñaki Mendiguren
Esperantza **hiltzale**, gu, Euskal Herria. Herria

6 buru-hiltzaile iz ik suizida.

Mendi aldeko buru-**hiltzailearen** mihi luze ubeldua, etxe ondoko intxaurrendotik diliandan. Aingeru Epaltza
Orduan, zein izango da buru-**hiltzailearen** esku etsiari eutsiko dion arrazoiak? Juan Martin Elexpuru

7 su-hiltzaile iz

Mugikorretik Arbidetik su-**hiltzaileak** deitu zituen. Itxaro Borda
Su-**hiltzaileei** ere deitu zien norbaitek, baina, iritsi zirenerako, suak jana zuen etxea. Juan Kruz Igerabide
Hurrengo goizean, su-**hiltzaileek** atera zuten motorra ibaitik. Juan Kruz Igerabide
Su **hiltzaileen** lokal ohia. Berria - Kultura
Su **hiltzaile** zerbitzu gunea. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

den hiltzaile (3); edo hiltzaile (8); eta hiltzaile (26); eta hiltzaile bat (3); eta hiltzaile dira (3); giza hiltzaile (7)
hiltzaile bat (28); hiltzaile bat zen (4); hiltzaile batek (3); hiltzaile batekin (3); hiltzaile baten (9); hiltzaile da (3); hiltzaile deitu (3); hiltzaile dira (4); hiltzaile edo (3); hiltzaile eta (18); hiltzaile haiek (3); hiltzaile haien (3); hiltzaile hau (3); hiltzaile hori (8); hiltzaile horiek (4); hiltzaile horren (5); hiltzaile hura (4); hiltzaile ilegorria (3); hiltzaile oihukatu (3); hiltzaile talde (3); hiltzaile zerbitzu (3)
lapur eta hiltzaile (3); politika hiltzaile (15); politika hiltzaile hau (3); polizia hiltzaile (3); psoe hiltzaile (4); sakabanaketa hiltzaile (3); su hiltzaile (31); su hiltzaile eta (3); su hiltzaile zerbitzu (3); zen hiltzaile (3)
aita hiltzailea (3); aita hiltzailea izan (3); aitaren hiltzailea (4); benetako hiltzailea (4); da hiltzailea (9); du hiltzailea (3); edo hiltzailea (3); eta hiltzailea (16); gaztearen ustezko hiltzailea (3); gure hiltzailea (4)
hiltzailea atxilotu (3); hiltzailea aurkitu (3); hiltzailea bera (3); hiltzailea edo (3); hiltzailea eta (12); hiltzailea ez (8); hiltzailea ikusi (5); hiltzailea izan (8); hiltzailea izan zela (3); hiltzailea nor (8); hiltzailea nor den (3); hiltzailea zela (5); hiltzailea zen (3)
hire aita hiltzailea (3); kapitainaren hiltzailea (4); pioletadun hiltzailea (7); politika hiltzailea (8); polizia hiltzailea (3); prefetaren hiltzailea (3); sakabanaketa hiltzailea (3); ustezko hiltzailea (16); varela kapitainaren hiltzailea (4); zen hiltzailea (4); zuten hiltzailea (3)
dira hiltzaileak (6); eta hiltzaileak (19); hiltzaileak bere (7); hiltzaileak dira (5); hiltzaileak direla (3); hiltzaileak eta (16); hiltzaileak ez (5); hiltzaileak izan (3); hiltzaileak zirela (3); mugagabeko su hiltzaileak (3); su hiltzaileak (38); su hiltzaileak eta (7); ustezko hiltzaileak (7); ziren hiltzaileak (4)
espetze politika hiltzailearen (4); eta hiltzailearen (5); hiltzailearen aurka (5); hiltzailearen aurkako (3); hiltzailearen eta (4); hiltzailearen kontrako (3); pioletadun hiltzailearen (4); politika hiltzailearen (6); ustezko hiltzailearen (4); ustezko hiltzailearen aurkako (3)
eta hiltzaileei (3); eta hiltzaileen (7); gure su hiltzaileek (6); hiltzaileari ez (3); hiltzaileei buruzko (3); hiltzaileek beren (3); hiltzaileek gauerdia (3); hiltzaileek gauerdia baino (3); hiltzaileen artean (3); hiltzaileen aurkako (3); hiltzaileen aztarrenen (3); hiltzaileen aztarrenen bat (3); hiltzaileen eta (3); hiltzaileen parabola (3); nekazari hiltzaileen (3); nekazari hiltzaileen parabola (3); su hiltzaileei (4); su hiltzaileek (24); su hiltzaileekin (4); su hiltzaileen (16); su hiltzaileari (3); ustezko hiltzaileari (3); ustezko hiltzaileen (3)
hiltzaileak ez (4); kriminalizazio hiltzaileak ez (3); su hiltzailetan (3)

hiltze iz bizitzetik gelditzea, bizitzeari uztea.

Iragan urte hortan 49 sortze izan dira Hazpainen bainan ere zorigaitzez 73 **hiltze**, zorigaitzez aintzineko urtean baino gehiago. Herria
Emendatze horren parte handiena heldu da **hiltze** baino aise sortze gehiago izaitetik. Herria
Vernerrek bazekien exekuzioa ez zela **hiltze** hutsa, beste zerbaite ere bazela. Jose Morales
Hiltze horien hobendun delako. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haurren **hiltze** tasa. Berria - Gaiak
Ehun bat txiletarren **hiltze** edo desagertze kasuak ikertzen dituen Juan Guzman epaileak. Berria - Mundua
Hiltzea kario suertatzen zen, segurantzarekin **hiltze** -konbenio zehatzik ez zutenen familientzat behintzat. Itxaro Borda
Militarrak beren dominak paparretik zintzilik dituztela **hiltze** nahi hori, borroeroari errespetagarria bezain patetikoak iruditzen zaio. Karlos Linazasoro
Bertze **hiltze** -aldia, Dueson, urriaren 28an egin zuten. Jokin Urain

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

ende **hiltze** eta bahitze, bazter funditze eta beste. Herria
Beren artean miseriarengatik edo bakartasunarengatik ardua bazen jokatzar, ebasketa, zanpatze, berdin kabala edo gizon **hiltze**. Michel Oronoz
Txerri- **hiltzea** eta beste edozein ganadu-**hiltze** bezala, zezen-**hiltzea** ere gauza arautu bat da. Iñaki Segurola
Azolako zerri **hiltze** egunean. Herria

4 buru-hiltze ik hilketa 6; suizidio.

Buru-**hiltze** haren kontrako bidean, drogen aurka bildu zuten amorru guztia beste batzuek. Juan Kruz Igerabide

Aberriararen aldeko sakrifizio sonatuak ez ziren buru- **hiltzeak** baino. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

hiltze tasa (6)

hiltzear *adlag* hiltzorian.

Hiltzear zegoen gaztearen sendaketa San Gimignanon. Askoren artean

Hiltzear zela, Kristoren Afari santua berregiten du anaiekin. Askoren artean

Emakume bat, egun asko erdimitetan igaro ondoren, ia **hiltzear** zegoen. Absolutuaren kontzeptu metafisikoa Nietzsche-k jada **hiltzear** ikusten zuen. Askoren artean

hiltzeke *adlag* hil gabe.

Intzentsu garaunei, euren izaera ere **hiltzeke**, usaina kentzea samurra ez den bezala, ez da samurra gogoa eta arima gorputz osotik ateratzea ere. Xabier Amuriza

Biak erro komunez elkarri atxikita baitagoz, eta ez dirudi **hiltzeke** bereiz daitezkeenik. Xabier Amuriza

hiltzori (*ETCn 2.271 agerraldi; orobat hiltzori ETCn 94 agerraldi*) 1 agonia, hil zorian dagoenaren egoera.

Hiltzori gogorra zen hura. Karlos Zabala

Hiltzoria betiko luzatu nahian. Imanol Zurutuza

Auzoan bizi zen altzari merkatarari batek ama dohakabearen **hiltzoria** kontatu zion. Karlos Zabala

Izan ere, pittinka baina ezinbestean galtzera zihuan herri gisa ikusten zuen Barojak berak ere euskalduna, eta **hiltzori** gozo eta luzea opa zion. Xabier Mendiguren Elizegi

Kargua utzi eta hautagaia izan zenean hasi zen bere **hiltzori** politikoa. Berria - Harian

2 hiltzorian *adlag*

Gau batean, Roberto anaia ohean zetzan gaixo, **hiltzorian**. Askoren artean

Aita **hiltzorian** atera zen Ondarretako kartzelatik. Berria - Euskal Herria

Santuak, **hiltzorian** zela, anai Eliasi esaten dizkion hitzak. Askoren artean

Hiltzorian daudenen otoitza errezatu nuen. Koro Navarro

Hiltzorian zeudenei olio santuak ematea. Koldo Biguri

Hiltzorian dugu sorterría, eta gu geu gara horren errudunak. Jose Morales

Zibilizazio Helenikoa **hiltzorian** zegoenean. Iñaki Mendiguren

Hiltzorian zegoen euskara. Koldo Zuazo

Haren barrabil gogor eta malguk nire klitorisa jotzen dute, **hiltzorian** nago, orgasmoa etorri zait olatu bat bezala. Juan Martin Elexpuru

3 hiltzoriko *izlag*

Harentzat **hiltzoriko** ene boza. Juan Garzia

Hiltzoriko paisaia da. Sonia Gonzalez

Ikaragarritzko entitate politiko hauek gutxiengo menderatzaileen azken hitzak dira **hiltzoriko** zibilizazioetan desintegratzen ari diren gizarte-gorputzetan. Iñaki Mendiguren

Teknikaria misiolari zuriaren azken edizioa omen, industrializazioa arraza **hiltzoriko** baten azken ebanjelioa. Joxe Austin Arrieta

Non da **hiltzorikoa**, aita? Juan Garzia

Orain arte ez nekien gauza bat esan zidak inudeak: **hiltzorikoa** niri deitzen zidala. Xabier Olarra

4 hiltzorizko *izlag*

Zein jainkok, Jainkoaren atzean, ekin dio hauts eta denbora eta amets eta **hiltzorizko** bilbeari? Imanol Zurutuza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arafat hiltzorian (3); **euskara hiltzorian** (4); **hiltzorian dago** (8); **hiltzorian den** (3); **hiltzorian egon** (9); **hiltzorian utzi** (4); **hiltzorian zegoen** (25); **hiltzorian zen** (3); **ia hiltzorian** (3)

himen *iz* ematuaren sarrera estaltzen duen mintza. ik **emamintz**.

Himena dardaraz dago eta labainkor baginaren jario naturalez bustirik. Karlos Zabala

Horrela lehenago urratuko dira haren **himenaren** mintzak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nola apurtzen da **himena**? Luis Elberdin

Orduan prest nengoen nire birjina-egoera berreskuratzeko, **himena** berriz jartzeko, alegia. Karlos Zabala

Zakil-buru hanpatua zuzendu du **himenerantz**. Karlos Zabala

himeneo *iz* ezteia, ezkontza.

Han egiten dute bikote, **himeneo** misteriotsu batean bezala, zakarrak eta harrigarriak, basatiak eta baketsuak. Koldo Izagirre

Eta askok, hainbat **himeneotan** lehen antzu izanek, gero lortu dute norekin umeak izan eta norekin haurtxo gozoz aberastu. Xabier Amuriza

himenolatria *iz* *adkor* himenaren gurtza.

Gaur egun ere izutu egiten nau **himenolatria** horrek. Karlos Zabala

himenoplastia *iz* himena berrosatzea.

Himenoplastia deritzo operazio horri. Gotzon Garate

himno (*ETCn 925 agerraldi; cf ereserki ETCn 2.415 agerraldi*) *iz* ereserkia.

Gure hiriko **himno** ofiziala. Askoren artean

"Gernikako arbola" da euskaldun guzien **himnoa**, zutik kantatzen duguna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hintxa *iz* zale sutsua, eskuarki futbol talde batena.

Ni hooligana naiz, edo garai batean esaten zen bezala, **hintxa** bat. Bernardo Atxaga

Jarraitzaileak eta **hintxak** hurbiltzen zitzaizkidanean. Joan Mari Irigoien

hip-hop *iz* 80ko hamarraldian Estatu Batuetan sortu zen gazte higikunde baten musika, funk-etik eratorria, eta rap-ari, grafitieia eta break-dance-ari lotua agertzen dena.

Hip-hop doinuek irensten dute Santutxuko itolarria. Urtzi Urrutikoetxea

Galtza zabalak arrastaka eramane eta lokarrik gabeko oinetakoak janzteko moda, gaur egun **hip-hoparen** jarraitzaileek duten looka. Harkaitz Cano

-Hau "Afrika Batua" duk, eta hemen musika afrikarra jartzen ditek, eta reggaea, **hip-hop** pixka bat, gurea bezain ona duk haiena ere! Pako Aristi

Omenaldi bat da; 2-PAC taldea da, **hip-hop** egiten dute. Pako Aristi

Londres, Mosku edota New Yorkeko kaleetako grafitien eta **hip-hop** kulturaren ereduak egongo dira ikusgai. Berria - Kultura

Kultur aniztasuna, perkusioak, **Hip Hop** dantza ekitaldiak lerrotatu dira joan den aste buruan Baionan, ezkerrean. Herria

Jeru The Damaja **hip hop** musikari estatubatuarrek Bilbon aurkeztuko ditu gaur bere doinuak.

Beastie Boys New Yorkeko **hip hop** talde ezagunak. Berria - Kultura

The wrath of the math 90eko hamarkadako **hip hop** disko garrantzitsua izan zen askorentzat. Berria - Kultura

Aurten *Hémisphère gauche* bigarren diskoa kaleratu du: rock sutsua, samplerrak, esperimendua eta **hip-hop** eskolako ahots errezipituak uztartzen dituen lan suharra.

Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

damaja hip hop (3); **hip hop dantza** (6); **hip hop disko** (3); **hip hop mugimendua** (3); **hip hop musika** (5); **hip hop musikaren** (3); **hip hop musikari** (3); **hip hop talde** (4)

hip-hopzale *izond* hip-hoparen zale dena.

-Jokin gehiago da rap eta **hip-hopzalea**, baina esaten du ondo dagoela. Xabier Mendiguren Elizegi

hipa *iz* negar zotina.

Une batez negar gutuziaz amildu nintzen eta bihotzak, **hipak** entzutean, ohean inguru ez axolotia marraztu zuen. Itxaro Borda

Jarri ginen eta bi **hiparen** artetik, amak erdi-ahopetik erran zuen: [...]. Daniel Landart

Hipa arinek amaren zurrunga errautsi zuten. Itxaro Borda

hipaka *adlag* negar zotinka.

Auhen eta **hipaka** amildu zen Janina. Itxaro Borda

Negarrez **hipaka** lehertu zen. Patxi Zubizarreta

Kasimen emazteak gaua negarrez **hipaka** eman zuen. Patxi Zubizarreta

Negarrez **hipaka** higitzen zen emazte bat zela konturatu nintzen. Itxaro Borda

Zangoetan zeuzkan zirrirmarra odoltsuak erakusten zituen, negar **hipaka**. Berria - Kultura

Gertatua amari kontatu zion, **hipaka**. Itxaro Borda

-Ezin neban kanpoan laga elurretan lotuta! -Hagridek, **hipaka**-. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hipaka (5); **eta negarrez hipaka** (5); **hipaka ari** (4); **hipaka ari zen** (3); **hipaka eta** (3); **hipaka hasi** (11); **hipaka hasi zen** (7); **hipaka lehertu** (5); **hipaka lehertu zen** (4); **negar hipaka** (7); **negarrez hipaka** (30); **negarrez hipaka hasi** (8); **negarrez hipaka lehertu** (5); **nigarrez hipaka** (3)

hipako *iz* hipa.

Emazteak akotea orekatu zuen, sudur **hipako** bat irentsi eta mokanesaz betezpalak torratuz gehitu: [...]. Itxaro Borda

Alargun eta haurrenez aparte, ez zen **hipako** ozengirik aditu. Itxaro Borda

Negar **hipako** zarratada bat. Itxaro Borda

hipaton *iz*

Soinu hau zortziko baten bitartearekin adosten baita *proslambanomenon* soinuarekin, eta bosteko bitartez **hipaton** diatonikoarekin. Berria - Kultura

hiper *iz* hipermerkatua.

Hiria bere esku, **hiperrak** eta dendak eta kaleak eurentzat harturik. Karlos Linazasoro

hiperabertzale *izond* adkor guztiz abertzalea.

Hipermaioritarioak minoritarioen kontra, hipertroskistak maoisten kontra, **hiperabertzaleak** espainolisten kontra... Patziku Perurena

Hiperabertzale batzuk hiperestatu espainolaren funtzionario, hiperrirautzaile asko hipermerkatuetako jere... Patziku Perurena

hiperaktibo *(orobat hiperraktibo)* izond guztiz aktiboa.

Gaztetxo play-stationzale **hiperaktiboz** beteriko zibertokia. Jon Arretxe

Gizaseme eta emakume **hiperraktiboen** mundua. Anjel Lertxundi

Garzia

Eta ez da **hiperbole** merke bat. Txema Ramirez de la Piscina

hiperboliko 1 *izond* hiperbolari dagokiona.

Kidetasanaren erregelen arabera kometen ildo **hiperbolikoak** pentsatzen ditugu. Ibon Uribarri

2 hiperboleari dagokiona.

Eraso sistematikoaren ondorioz jarraitzaile nerabeen artean sortu zen enpatiak fama **hiperbolikoa** ekarri zion taldeari. Patxi Iturritegi

Anitz gauza balios ikertzen genituen hartatik: makrame ehuten, Zen egoten, G puntuaren lokalizatzen, tindatzen, tantrak pairatzen, estraterrestren keinu **hiperbolikoen** irakurtzen, trikotatzen eta josten. Itxaro Borda

Objektiboki azterturik, akaso hiperbole puntu bat nabari dezakegu kontu batzuetan, baina jakina da bititza bera dela askotan **hiperbolikoagoa** literatura baino. Juan Garzia

hiperbolumen *iz*

Lerroa puntu kopuru infinitu batez osatua da; plano a lerro kopuru infinitu batez; bolumena plano kopuru infinitu batez; **hiperbolumena** bolumen kopuru infinitu batez...

Juan Garzia

hiperboreale 1 *izond* Ipar Polotik hurbil dagoena.

Mstislawekoa, eskualde **hiperborealen** menderatzailea. Karlos Zabala

2 Ipar Polotik hurbileko eskualdeari dagokiona.

Haien arbaso aztikeri zaleek sortu baitzuten mitologia **hiperboreala**. Karlos Zabala

hiperdotore *izond* guztiz dotorea.

Ezpainetako gorri **hiperdotoreak** salduak nituen eskupetik eta dardara batean bizi nintzen, harrapatuko ninduten beldur. Joxan Elozegi

hipererrepikatu *izond* asko-askotan errepikatua.

Gaur egungo artearen museoak dira hori ongien frogatzen duten gizarte-espazioak, haietan erakusten diren "piezetan" berariaz nahasturik egoten baitira irudi-familia guztiak, bideo-pantaila, diapositiba-proiektzioa, irudi **hipererrepikatu**a eta guztiz irudi bakarra, eta abar. Josu Zabaleta

hiperespainol *izond* guztiz espainola.

Euskal mamurro letratu tipikoa **hiperespainol** gisa figuratu nahian euskalduna dela dioen subespainol xaborra da. Patziku Perurena

hiperespazio *iz* hiru dimentsio baino gehiagoko espazioa.

Azkenean frogatu baita **hiperespazioan** euskaraz baizik ez dela mintzatzen. Jon Alonso

hiperestatu *iz* estatu guztiahalduna.

Hiperabertzale batzuk **hiperestatu** espainolaren funtzionario, hiperrirautzaile asko hipermerkatuetako jereente... Patziku Perurena

hiperestesia *iz* gehiegizko sentiberatasuna.

Kontzientziaren hartzeari **hiperestesia** deritzo, besteren oinazeak hunkitzen gaituenon eritasuna. Koldo Izagirre

hipereszitate (*corpusean hiper eszitate*) *izond* gustiz eszitatua.

Baina karisma ez da abesten den bitartean aurpegi **hiper eszitatua** eta sasi-orgasmikoa jartzea bakarrik. Berría - Gaiak

hiperetniko *izond* guztiz etnikoa.

Diskurtso etnikoak (batzuk) oso kaltegarriak dira (konstituzio nazionalak **hiper**-etnikoak ez balira bezala). Iñaki Segurola

hiperfisiko *izond* guztiz fisikoa.

Adimenaren eta arazoimenaren kritika den aldetik, bere erabilera **hiperfisikoari** begira honen handiuste oinarrigabeen itxura faltsua azalarazteko. Ibon Uribarri

Argiketa-oinarri fisikoen gabezia osatzeko oinarri **hiperfisikoak** erabiltzea. Ibon Uribarri

Hala ere, arazoimenaren erabilera izadiaren kontsiderazio arrazional honetan fisikoa edo **hiperfisikoa** da edo, hobeto esanda, imanentea edo transzendentea da. Ibon Uribarri

hiperfokatu *izond* guztiz fokatua.

Ez dago garbi arreta **hiper**-fokatu hori -estu bezain zorrotza- autismo fenomeno primarioa den ala erreakzio edo egokitzapen bat, sentsazio-zaparrada inhibitugabe baten aurrean garatzen duena. Xabier Olarra

hiperfrontal *izodn* guztiz frontala.

Garai eta kultura guztietan onartu izan da gure izaera **hiperfrontal**, hertsatu eta zibilizatuaren berezko premia dela hori. [Xabier Olarra](#)

hipergarbizalekeria *iz* guztizko garbizalekeria.

Horrela sortu zen, azken baten, euskara heriotza bidean ipini zuen **hipergarbizalekeria**. [Koldo Zuazo](#)

hipergorri *izond* guztiz gorria.

"Orain borrokarenean" idatzi zuen orain dela hogeita hamar urte, orduan **hipergorri** iraultzaile eta gaur Espainiako gobernu faxistako kide den euskaldun batek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

hiperinflazio *iz* inflazio azeleratua.

Ekuadorren, **hiperinflazioa** eteteko, ekonomiaren dolarizazioaren aldeko erabakia hartu zen 2000. urtean. [Koro Navarro](#)

Hiperinflazioaren esperientzia arriskutsua. [Koro Navarro](#)

Historian zehar gertatutako **hiperinflazio**aldi larrienak Alemanian bizi izan ziren, Lehen Mundu Gerraren kaosaren ostean. [Iñaki Heras](#)

hiperinformatu *izond* guztiz informatua.

Pentsamendu galaraziaren aroan, munduak ezin bizizko putzu **hiper**-informatua bihurtzeko martxa daraman honetan. [Iñaki Segurola](#)

hiperjansenista *izond* guztiz jansenista.

Ene alde **hiper**-jansenista jaukitzen zitzaidala. [Itxaro Borda](#)

hiperkapitalista *izond* guztiz kapitalista.

Ikusle eta teleikusleak harri eta zur, jokia geldirik, publizitate tartea bere garaian sartu ezin, sistema **hiperkapitalista** keinu single batek blokeatuta. [Harkaitz Cano](#)

hiperkodetze *iz* erabateko kodetzea.

Lehen aspektuan deigarria eta guztiz harrigarria gertatzen da bere *De mystica Theologia* liburua sarrarazteko darabilen arren trinitarioaren superlatibizazio eta **hiperkodetzea**. [Joan Mari Lekuona](#)

hiperkomunikazio *iz* gehiegizko komunikazioa.

Hiperkomunikazioak inkomunikazioa dakarrela, hori ez al da topiko zahar ustela? [Berría - Gaiak](#)

hiperkonektibitate *iz* konektibitate guztiz garaia.

Lan haietan, kausa neurologiko zehatz baten ondoriozkatat jotzen zen, lehenbizikoz, sintoma eta jokabide mordo bat gogameneko eritasuna nahiz eldarniozko etorria iradokitzen zuena; zehazki [...] garuneko zentzumenen eta emozioaren aldean arteko **"hiperkonektibitate"aren** ondoriozkatat. [Xabier Olarra](#)

hiperkorrektio *izond* guztiz korrektioa.

Programa hertsi eta **hiperkorrektio** batean. [Patziku Perurena](#)

hiperkorrekzio *iz* erabateko korrekzioa.

Uste nuen munduko parte hau, herri hau, ortodoxoek dioten bezala, **hiperkorrekzio** petardo eta pestoso baten menpean zegoela ezinbertzez. [Patziku Perurena](#)

Hiperkorrekzio txutxen okaztagarriaren mirakulua. [Patziku Perurena](#)

hiperkritiko *izond* guztiz kritikoa.

Perurenaren hitz lauuko bide **hiperkritiko** eta filosofiko samarra zabaldu zuen lanaz. [Patziku Perurena](#)

hiperlabur *izond* guztiz laburra.

Hori beste istorio bat dela uste dinat, hegoamerikar baten ipuin **hiperlabur** bat. [Harkaitz Cano](#)

hipermaioritario *izond* guztiz maioritarioak.

Hipermaioritarioak minoritarioen kontra, hipertroskistak maoisten kontra, hiperabertzaleak espainolisten kontra... [Patziku Perurena](#)

hipermaite *izond* guztiz maitea.

Idazpuruiko "Halako maite hori"tik hasi, testuan zehar sakabanatutako "oso maite", "maite-maite" eta **"hipermaite"** ugarietatik segi, eta azken agurreko "izugarri maite zaituen" hartaraino, dena zen maitasunaren handia adierazi nahi eta ezina. [Joxerra Garzia](#)

hipermerkatu *iz* luze-zabal handiko supermerkatua, gehietan aldirietan kokatzen dena.

Hipermerkatuan sartu nintzen goiz argitsu bateko hamaiketan. [Iban Zaldúa](#)

Gurdi garraiatzaileen motorren zarata **hipermerkatuaren** barruan. [Iban Zaldúa](#)

Hipermerkatuko biztanle iheskor horiek. [Iban Zaldúa](#)

Hiperabertzale batzuk hiperestatu espainolaren funtzionario, hiperrirautzaile asko **hipermerkatuetako** jerente... [Patziku Perurena](#)

Ongizatearen gizarteko **hipermerkatu** oparo hornituriko guztietan. [Jon Alonso](#)

Hipermerkatuak denbora pasatzeko / gune bilakatu ditugu. [Pako Aristi](#)

Sexuaren **hipermerkatu** argituetan. [Itxaro Borda](#)

Kontsumoa emendatu da joan den udan hemen gaindiko super eta "**hyper**" merkatuetan. [Herria](#)

hipermetropia *iz* ikusmenaren akatsa, gertuko gauzakiak lausoturik ikustea eragiten duena.

Beste alde batetik, beti izaten da, globalki desitxuratzeko bat bezala sentitzen den horren jatorrian, irudiaren leku batzuetan halako edo bestelako alderdi baten **hipermetropia** bat, irudia adierazkor bihurtzen duen efektu bat. [Josu Zabaleta](#)

hipermnesiko *izond/iz* oroimena patologikoki handitua duena.

Bere erabakiaren estresak mendean harturik egoaren banaketa freudiar bat jasan ote zuen, eta **hipermnesiko** historiko moduko bat bihurtu harrezkerotik? [Xabier Olarra](#)

hipermoderno *iz* guztiz modernoa.

Emakume aparta zen, sexy, **hipermoderno**, eta gupidarik gabe sofistikatua. [Patxi Iturritegi](#)

hipernazional *izond*

"Halaxe baita!" esan lezakete, eta bai, halaxe da, hala nahi izan ezkerro, laineza **hiper**-nazional horren mendera erori ezkerro. [Iñaki Segurola](#)

hipernormaltasun *iz* guztizko normaltasuna.

Kontrako eztarriko psikiatrek idoro ziguten **hipernormaltasuna** paranoiaren era bat dela: beldur ikarante batek harrapatutakoaren izaera normal-normal-normala. [Iñaki Segurola](#)

hiperrealismo *iz* eguneroko errealitatea argazkien zehaztasunez islatu nahi duen arte eta bereziki pintura higikundea.

Pop-art-ak edo **hiperrealismoak**, adibidez, desberdin "ikusarazi" dizkigute eguneroko mundua eta mundu horretako objektuak. [Josu Zabaleta](#)

Hiperrealismoa Platonek proposatzen zuen munduaren irudi ezagun bati lotzen zaio. [Askoren artean](#)

Esan dugun bezala, bai idealismo ontologikoa bai **hiperrealismoa** hasieratik baztertuko ditugu. [Askoren artean](#)

hiperrealista 1 *izond* hiperrealismoari dagokiona.

Izan ere, azkeneko margoak ia **hiperrealistatza** jo daitezke, eta urrutitik argazkiekin nahas daitezke. [Iban Zaldúa](#)

2 hiperrealismoaren jarraitzailea.

Nik, noski, irakurria nuen Gernikan jaiotako pintore **hiperrealistari** buruzko bere lana. [Joxean Agirre](#)

hipersekreto *izond* guztiz sekretua.

Estralurtarrak al dira UFOak, edo Estatu Batuetako armadak bultzatutako proiektu **hipersekretoak**? [Iban Zaldúa](#)

hipersektario *izond* guztiz sektarioa.

Hori bai, orduko **hipersektarioek**, nonahi daudela ere, **hipersektario** izaten segitzen dute. [Patziku Perurena](#)

hipersentibera *izond* guztiz sentibera.

Hipersentibera aurkitu zuen Sedó doktoreak. [Imanol Zurutuza](#)

hipersentiberatasun *iz* hipersentibera denaren nolakotasuna.

Lekaima horiek, gizarteko goi-gerizetatik zetozenak gehienak, kultura-hornidura nabarmena zekarten eta prestakuntza erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia, eta horietako askok ikuspenetarako **hipersentiberatasuna** zuten eta ia eszentzitatara iristen zen erlijio-sentimendu sendo bat. [Joan Mari Lekuona](#)

hipertrofia 1 *iz* organo bat gehiegi handitzea.

Badakigu, esate baterako, braillez irakurtzean hatz bat etengabe erabiltzeak **hipertrofia** izugarria dakarrela garun-azalean hatzak duen aztarnan. [Xabier Olarra](#)

Lehenbiziko mediku ikertzaileek gogo-ahalmen bakar baten **hipertrofiatza** hartzen zituzten, batzuetan, savanten trebetasunak. [Xabier Olarra](#)

2 irud

Ahozkotasanaren **hipertrofia**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Telebistak dakarren beste arriskueteriko bat, **hipertrofiarena** da. [Andoni Egaña](#)

Nazionalismoaren **hipertrofiak** eta merkataritza askearen mugimenduaren porrotak. [Iñaki Mendiguren](#)

hipertrofiatu, hipertrofia(tu), hipertrofiatzen 1 da *ad* hipertrofia gertatu.

Ahateak lotu eta gibelak **hipertrofia** dakien elikatzen diren bezala, emakumeak marinatzen edukiko genituzke, samurragoak egon zitezten. Josu Zabaleta

Hipertrofiatua izaten dute supernia. Markos Zapiain

2 (era burutua izenondo gisa)

Politikariak, militarrek, irakasleak, apaizak, Ni **hipertrofiatu** bat duten tonto-harroak besterik ez dira. Josu Zabaleta

hipertrofiko *izond* hipertrofiari dagokiona.

Zinema mutuak [...] erabili zituen muntaketa-efektu **hipertrofikoak** dokumentu errealtatearen desitxuraketa bortitza ziren, baina ezin agortuzko adierazgarritasun-iturburua izan ziren bolada batean. Josu Zabaleta

hipertroskista *izond* guztiz troskista.

Hipermaioritarioak minoritarioen kontra, **hipertroskistak** maoisten kontra, hiperabertzaleak espainolisten kontra... Patziku Perurena

hiperzehatz *izond* guztiz zehatza.

Eta horretarako mila kilometroko distantziatik egiten dituen gudua, misil **hiper**-zehatzak omen direnak erabiltzen dituzten. Harkaitz Cano

hiperzinetiko *izond* guztiz zinetikoa.

Haren mingainak golde **hiperzinetiko** bat ematen zuela. Karlos Zabala

hiperzutabe *iz*

Zutabe hauek, aldi berean, **hiperzutabetan** daude multzokatuta; ehundaka zutabe dituzten multzoak dira **hiperzutabe** hauek (400-1600 zutabe **hiperzutabe** bakoitzeko; honen neurriak 0,5-1 mm2 inguru zabal eta 3-4 mm altu izaten dira, eta 100.000-200.000 zelula inguru sartzen dira). Josu Zabaleta

Hiperzutabe bereko gainerako zelulek. Josu Zabaleta

hiperzuzen *izond* guztiz zuzena dena.

Gay eta lesbianen mundutik abiatuta, begirada zorrotza zuzentzen dio Königek egungo mendebaldeko gizarteari, are ustez tolerantea eta politikoki **hiperzuzena** den horri.

Berria - Kultura

hipetro *iz*

Tenplu-tipo nagusiak, tenplu guztien kanpoko itxura mugatzen edo finkatzen dutenak, hauek dira: lehenengo eta behin, *in antis* izenekoak, grekoek *naos en parastasin* deitzen dutena; ondoren, prostilo, anfiprostilo, periptero, pseudodiptero, **hipetro** izenekoak. Santiago Iruretagoiena

Hipetroak hamar koloma ditu aurrean eta atzean. Santiago Iruretagoiena

Portalaren (**hipetroaren**) argia honela erabakiko da: [...]. Santiago Iruretagoiena

hipika *iz* zaldiketa, zaldi kirola.

Telebistako olinpiada-emanaldian **hipika** emango zutela pentsatu zuen. Unai Elorriaga

Hipika -saioak ere olinpiadak zirela. Unai Elorriaga

Nazioarteko **Hipika** Federazioak Atenasko Olinpiar Jokoetan hainbat zaldik jasan zituzten lesioak ikertuko ditu. Berria - Kirola

hipiko *izond* hipikari dagokiona.

Horra epika zipitizik ere nahi ez duten **hipiko** modernoak. Patziku Perurena

Epikoez nekez, eta are nekezago **hipikoez**. Patziku Perurena

Tafallako Zentro **Hipikoan** lanean ari zela. Berria - Ekonomia

hipnosi 1 *iz* lo antzeko egoera, hipnotismoz eragina.

Magnetismo, **hipnosi**, sugestio eta nik al dakit zer, deitu diote ahalmen horri. Josu Zabaleta

Elektrizitate indarra, **hipnosia**, borondatearen igorpena, sugestioa, magnetismozko gertaera guztiak. Josu Zabaleta

Medikuntzaren eta psikologiaren teknika osagarri bat da **hipnosia**. Berria - Euskal Herria

Batzuen ustez, **hipnosia** terapia alternatibo bat da. Berria - Euskal Herria

Psikologian frogatu da **hipnosia** eraginkorra dela. Berria - Euskal Herria

Irudi du bere era **hipnosi** antzeko batean erori dela. Oskar Arana

Suak, itsasoak, arabeskoak, guzti-guztiak **hipnosia** eragiten dute. Bernardo Atxaga

Agenteek **hipnosia** erabili zutenean. Iban Zaldúa

Hipnositik espasmora pasatu zen minutu baten gorabeheran. Karlos Linazasoro

Hipnosipean ere ez dut kolorerik ikusten. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik hipnotiko.

Sugestio eta **hipnosi** kontuak. Xabier Arregi

Hipnosi -saio arrakastatsu haiek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hipnosi saioetan eta ustezko haluzinazio kolektiboetan. Berria - Kultura

hipnotiko 1 *izond* hipnosiari dagokiona. ik **hipnosi 2**.

Gero, begiak erabat irekita zituela, trantze egoera **hipnotiko** batean murgildu zen. Harkaitz Cano

Elizkizun mistiko edo saio **hipnotiko** batean egon banintz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

2 hipnosia eragiten duena.

Uhinen errepikapen **hipnotikoak** lagunen barnearekin bat egin zuen, nolabait, eta kadentzia basati batean murgilarazi zituen. Fernando Morillo

Geldotasun ia **hipnotiko** batetik abiatuta. Berria - Kultura

Haren begirada **hipnotikoa**. kantu **hipnotiko** haiei ekiten dienean. Berria - Kultura

Minezko orroak musika **hipnotikoarekin** nahasten ziren. Joanes Urkixo

Erritmo **hipnotiko** eta dantzagarriak. Berria - Kultura

Ekitaldi kulturaletan zehar, mintzaldi **hipnotiko** eta zurrinak luzatuz. Itxaro Borda

3 (izen gisa)

Drepresoreetan, alkohola, lasaigarriak, **hipnotikoak** eta disolbatzaileak dira gehien hartzen direnak. Berria - Gaiak

Ezin zuen lorik egin, eta **hipnotiko** batzuk probatu ondoren, morfina hartzea erabaki zuen. Josu Zabaleta

Konbentzituta zegoen ardoa bezalako **hipnotikorik** ez zegoela, eta sulfonala eta klorala engainagarri hutsak zirela, harekin alderatuta. Josu Zabaleta

4 hipnosi egoeran jar daitekeena.

Basamortuko gerorik gabeko erreserbetarik etorri indio **hipnotikoak**, Asiatik ontzi doietan heldu xinaurri-familiak. Itxaro Borda

hipnotismo *iz* lilura bidez lo artifiziala eragitea, eta horri dagozkion gertakarien multzoa.

Hipnotismo eta sugestiozko esperimentuak. Josu Zabaleta

hipnotizagarri *izond* gauzez mintzatuz, hipnotizatzen duena. ik **hipnotizatzaile**.

Itsasoa bertan amaitzen zela zirudien, hango ur guztia hantxe trumilka amilduko balitz bezala, baina ura ez zen agortzen eta niregan bazuen halako eragin **hipnotizagarririk**.

Patxi Zubizarreta

Halako erakarpen **hipnotizagarria**. Patxi Zubizarreta

hipnotizatu, hipnotiza, hipnotizatzen 1 *du ad* hipnosia eragin.

-Gogoan al duzu Parent doktoreak **hipnotizatu** egin zintuela? Josu Zabaleta

Baina inongo melodiak ez zuen lehen bezala **hipnotizatzen** bere arima lehertua. Fernando Morillo

Sendagile izateko ez bezala dohain bereziak zituela jendea **hipnotizatzeko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sonanbuluen loak hartua zuen, eguzki santu urrezko izpidunari begira luzaro egonak **hipnotizaturik**, barka! menderaturik, Kristo garaileak aspaturik. Josu Zabaleta

Barruan nago -atera zitzaion Imanoli, **hipnotizaturik** balego bezala-. Fernando Morillo

Telebistatik gertu zeukan aurpegia, erdi **hipnotizatuta** begiak. Harkaitz Cano

Begiak hari josiak, erdi **hipnotizaturik**. Xabier Montoia

2 *irud*

Arriskuak beti baitu **hipnotizatzeko** indarra. Teknikak **hipnotizaturikoak** ezin du teknikaz hausnartu. Xabier Olarra

Hasieratik sumatu zuen leku arriskutsuan jo zuela atea, baina konturatzerako emakume hark **hipnotizatuta** zeukan, eta saihestezina zitzaion haren lilura, sinestezina zitzaion emakume haren eskaeraren indarra, maite zezaten. Pako Aristi

3 (era burutua izenondo gisa)

Topaketa hark Joanto atera zuen bere egoera **hipnotizatutik**, eta eskua ganibet gainean ipini zuen. Elena Touyarou

hipnotizatzaile *izond* hipnotizatzen duena. ik **hipnotizagarri**.

Dub erritmo soil eta **hipnotizatzaileetan** kulunkatuta. Berria - Kultura

• 2 *iz* hipnotizatzen duen pertsona.

Gure aitona Vilem **hipnotizatzailearen** ordeze. **Hipnotizatzailea** zen eta zirku txikietan lan egiten zuen. Fernando Rey

Hipnotizatzaile lana aukeratu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

hipodermiko *izond* xiringez mintzatuz, azal azpiko injekzioetan erabiltzen dena.

Ertzaintzak 38 urteko donostiar bat atxilotu zuen atzo, San Frantzisko kaleko ile-apaindegi batean sartu eta, xiringa **hipodermiko** batekin barruan zirenei mehatxu egin ostean, diru kutxatik 120 euro lapurtzea egotzita. Berria - Euskal Herria

hipodromo *iz* zaldi lasterketak egiten diren lekua.

Baina lortu zuen, hala eta guztiz ere, gizajo hari koroa burutik sartzea, zaldi irabazleari **hipodromoan** sartu ohi zaion bezala. Ramon Saizarbitoria

Estazioak, aireportuak, labandieriak, hotelak, **hipodromoak**, kasinoak eta zita-etxeak ziren. Harkaitz Cano

Eramango haut nik igandean **hipodromora**, motel! Harkaitz Cano

Lasarteko **Hipodromoa** eta Gipuzkoako Ateneoa inauguratzen dira. Askoren artean

hipogeo *iz* lurpeko eraikina.

Ez ditut gogoan gorde itzulera bidealdiak, hautsez beteriko **hipogeo** heze haien artetik. Juan Garzia

hipogluzemia *iz* odoleko azukre kopuru ohikoren jaitsiera.

Odoleko glukosa kantitatea txikiagotzen denean agertzen da **hipogluzemia**. Ikterizia edo **hipogluzemia** gaitzak, esaterako, ohikoagoak dira 35 edo 36 asterekin jaiotako haurrengan, 37rekin jaiotakoetan baino. Berria - Gaiak

hipogrifo *iz* elezaharretako animalia, erdia zaldia eta erdia grifoa zena.

Hipogrifoak beren buru basatiak atzerantz astintzen eta hego indartsuak tolesten ari ziren. Iñaki Mendiguren

Hipogrifoa aireratu egin zen... Iñaki Mendiguren

Hipogrifoak hegoak astintzean zangopean ematen zizkion kolpeak ez ziren batere atseginak. Iñaki Mendiguren

Ez zuen zalantzarik izan nire azken **hipogrifoa** sastatzeko. Juan Garzia

Laztantxo arin batzuk egin zizkion mokoan eta **hipogrifoak** nagi-nagi begiak itxi zituen, hura atsegin balu bezala. Iñaki Mendiguren

Hipogrifoak ez dira fidatzen begiak larregi kliskatuz gero... Iñaki Mendiguren

hipojariatzaile *izond* behar baino geutziago jaritzen duena.

Gastriti kroniko **hipojariatzailea**: ur sulfatatuak (sulfatatu kloruratuak). Berria - Euskal Herria

hipokanpo *iz* garuneko albo bentrikuluko goragune luzarana.

Lehenik, lobulu tenporal bien barnealde edo erdialdeko egiturak estutu edo desegin zituela; **hipokanpoa** eta haren alboko kortexa bereziki, oroitzapen berriak sortzeko ahalmenarako ezinbestekoak baitira. Xabier Olarra

Zure **hipokanpoak** esan zizun ahots lodi hura (ordurako aski ezaguna) goitik beheraino zetorrela, zehatzago, lehenengo solairutik zu zeunden tokiraino. Josetxo Azkona

Baina V4 ez da jomuga, bideko geltoki bat baizik, maila gero eta goragokoetarantz proiektatzen baita: azken buruan, **hipokanporantz**, hain funtsezkoa baita oroitzapenak gordetzeko. Xabier Olarra

Adibidez, V4ko zelulek **hipokanpoko** eta kortex prefrontaleko oroimen-sistemetaraino bidaltzen dituzten informazioen isuriaren etenak azaldu ahal izango liguke, hein batean, zergatik "ahaztu" zuen I.k kolorea. Xabier Olarra

hipokondria *iz* estutasun egoera iraunkorra, tristura jarraitua eta osaasunarekiko gehiegizko ardura ezaugarri dituena.

Baita **hipokondriak** ere. Koro Navarro

Hipokondria ilunaren itzal latzak goibeldu egin zuen haren aurpegi bizia. Jose Morales

Hipokondria sindromera itzuli zen Ana Luisa. Edorta Jimenez

hipokondriako *izond*/iz hipokondriak joa,

Nire lagun **hipokondriakoa** larritzen zuen estuasunak aringarririk izan zezan. Koro Navarro

Biak **hipokondriakoak** ziren, zein baino zein gehiago. Joan Mari Irigoien

Hipokondriako samarra naiz. Koro Navarro

Ikara izugarria, eraman ezinezkoa, sortzen zidaten **hipokondriako** hark bere oihalean ipintzen zituen abstrakzio hutsek. Koro Navarro

hipokoristiko *izond* izenez mintzatuz, txera-asmoz laburtua edo eraldatua erabiltzen dena.

Hipokoristikoen erabilera etengabea. Patziku Perurena

Beste asko: mitxeleta, tximeleta, tximilot, txipilota, pitxilota eta gisako aldaerak, badirudi mikel izen santuaren **hipokoristikoren** batetik (mitxelot, mitxelet) sortuak ditugula. Patziku Perurena

hipokratiko *izond* hipokratesi dagokiona.

Banekien, bai, ene gaixo batekin era hartan jolastu nahi izatea zin **hipokratikoaren** kontrakoa izan zitekeela. Joan Mari Irigoien

Saiatu nintzen, halarik ere, goiz hartan, zin **hipokratikoaren** obligazioekin konplitzen. Joan Mari Irigoien

Planaren etsai bakarra Frantzia ohikoa den eszeptizismoa eta adostasun **hipokratikoa** da. Berria - Ekonomia

hipokrisia (*ETCn 1.221 agerraldi*; orobat **hipokresia** *ETCn 12 agerraldi*) *iz* zurikeria, azaluskeria.

Azaluskeria eta **hipokrisia** instituzionala. Fernando Rey

Batasunak Frantziaren «isiltasuna, **hipokrisia** eta zinismoa» salatu ditu. Berria - Euskal Herria

Baina maiz **hipokrisia** eta fariseismoa dira nagusi laguntza eman bai baina merkataritza eta elkartruketa oztupo hornitzen dutenen artean. Iñaki Heras

Agintari politikoen **hipokrisia** eta multinazionalen agintea. Txema Ramirez de la Piscina

Zorakeria edo **hipokresia** da orain duda egitea. Koro Navarro

ERCren jokabidea txalotu dutenen **hipokrisia** salatzen dugu. Berria - Euskal Herria

Eta oihu mingots haiek ez ziren izan hipokritak; **hipokresiak** ez daki hain gordin intziri egiten. Karlos Linazasoro

Hipokrisiazko gainjantzi berri honek, berdintasunik ezaren bizio zaharra baltsamatuz, alde bakoitza mespretxagarriago bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Halako eraso eta aldarrikapenen atzean badago, ezbairik gabe, **hipokrisia**-dosiren bat edo beste ere. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hipokrisia eta zinismoa (3); **hipokrisia salatu** (5)

hipokrita *izond* itxurazalea, azalutsa.

Zaude lasai, ama, aitak huts egin dizu, **hipokrita** hutsa denez gero, baina nik ez. Joan Mari Irigoien

Eta oihu mingots haiek ez ziren izan **hipokritak**; hipokresiak ez daki hain gordin intziri egiten. Karlos Linazasoro

Ezer ez: ardurarik ez zien horietako bat izan zitekeen, **hipokrita** bat, edo eta, peto-peto, etsai bat. Juan Garzia

Agintari politiko eta alderdietako buruek hildakoen aurrean erakusten duten jarrera **hipokrita**. Berria - Euskal Herria

Teoria baten aitzakiaren pean mozorrotuko litzatekeen itzulpen **hipokrita**. Xabier Arregi

Gizarte **hipokritaren** kritika erruki gabea. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hipopotamo *iz* ugaztun apoduna, azal iluna eta oso lodia, gorputz handia eta hanka sendo eta motzak dituena, ibaetan bizi eta lehorrera bazkatzera ateratzen dena (*Hippopotamos amphibius*).

Fantasia hitza entzuten dudan bakoitzean, **hipopotamo** jantzitako dantzari ergetakoak ikusten ditut. Xabier Olarra

Gaur egungo gazte kalekumeari gertuagokoak zaizkio elefante, krokodilo eta **hipopotamoak**, oiloak baino. Joxerra Garzia

Gu, **hipopotamo** -emeak [...] mokorrak kulunkan ibiltzen ginen haien parean pasatzen ginelarik. Karlos Zabala

Ohe bat libre, **hipopotamo** -zurrungarik gabe. Joxean Sagatzizabal

hipostasi (*ETCn 62 agerraldi; corpusean soilik hipostasis*) *iz* Hirutasun Santuko pertsona.

Arimak Jainkoaren jarioa direla esaten baitzuten eta Trinitateak ez dituela hiru **hipostasis**. Juan Martin Elexpuru

hipostasiatu, hipostasia, hipostasiatzen **1** du *ad* abstraktua edo irreala dena erraltzat hartu.

Eta hara non Aristotelesek presokratikoen teoriak aipatzen dituen, eskasak izan arren, edo Platonenak, zeinek, eleatarrak bezalatsu, esentzia **hipostasiatzen** duten, gauza autonomo eta kasik zehatz bilakatuz. Askoren artean

Kanpoko agerpenak **hipostasiatu** ahala hauek errepresentazio gisa ez, baina gudan daukaten kualitate berean baita gugandik kanpo ere berez diren gauza gisa hartzen baditugu. Ibon Uribarri

2 (era burutua izenondo gisa)

Honi kontzientzia **hipostasiatuaren** subrepzioa dei dakiok (*apperceptionis substantiatae*). Ibon Uribarri

hipostatiko *izond* abstraktua edo irreala dena erraltzat hartzeari dagokiona.

Izatearen materiazko baldintza **hipostatiko** gisa. Ibon Uribarri

hipostatikoki *adlag* era hipostatikoan.

Aldi berean, ordea, ezin da saihestu subrepzio transzendental baten bitartez printzipio formal hau printzipio eratzaile gisa errepresentatzea eta batasun hau **hipostatikoki** pentsatzea. Ibon Uribarri

hipostatu (?) ik **hipostasiatu**.

Ongi gorena, jakina, baina ez zentzu platondarrean, horren arabera Ongia eskuarki **hipostatu** egiten baitzen, gauza orokor eta geldit bat bezala. Askoren artean

hipoteka 1 *iz* diru zor bat kitatuko dela bermatzen duen kontratua, ondasun higiezinaren gainean ezartzen dena.

Etxeak **hipoteka** txiki baten zama zuen artean. Ander Irizar

Nire etxearen **hipotekari** buruzko agiri guztiak. Xabier Olarra

Ez letrarik, ez **hipotekarik**, ez hil-amaierako estutasunik. Patxi Iturritegi

Giza sumisio modu ororen enbrioia baita familia: gizatasun partikular posible guztiak, sortze beretik **hipotekan** hartzen dituen muintegia. Patziku Perurena

Bizitzan, une batzuetan, dena jokatu behar da, eta hauxe da horietako une bat: aurreztutako guztia bildu, etxebizitza **hipotekan** jarri, eta aurrera. Juan Kruz Igerabide

Estimazio hori magistratuaren eskuetan jartzen da, eta haren ondasunak **hipotekan** geratzen dira obra bukatu arte. Santiago Iruretagoiena

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **hipotekario**.

Hipoteka maileguen pisu «izugarria». Berría - Euskal Herria

Errenta aldakorreko **hipoteka** maileguetan erreferentzia nagusia, euriborra, apenas mugitu zen azaroran. Berría - Ekonomia

2003. urtean Euskal Herrian sortutako aberastasunaren %16 **hipoteka** maileguak direla gogoratu zuen. Berría - Euskal Herria

Hipoteka indizeen tipoak neurtzen dituen Euriborrak, bi hamarren egin zuen behera urtarrilean. Berría - Ekonomia

Hipoteka kontratuetan eta agiri publikoetan beti onartu ohi da lege korritua. Andres Urrutia

Arlo zibilean, ostera, ondasunak dira pertsegituak, ez norbanakoak, eta **hipoteka** legeak nahitaezkoak dira. Andres Urrutia

Mexikoko **hipoteka** konpainia handiena. Berría - Ekonomia

Hipoteka erregistro legeen benetako jatorria fiskala da. Andres Urrutia

Erregistroaz esan dugun gauza bera esan daiteke **hipoteka** kodeaz. Andres Urrutia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Drudek beren erroto erlijiosoak basoetan egiten zituzten, eta ez zuten ez eliza-**hipoteken**, ez denboraldiko banku-alokairuaren sistemaren berri. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldakorreko **hipoteka** (4); eta **hipoteka** (8); **euroko hipoteka** (8); **hipoteka duenak** (3); **hipoteka mailegu** (3); **hipoteka maileguak** (11); **hipoteka maileguen** (5); **hipoteka maileguetan** (3); **hipoteka ordaintzeko** (4); **urterako hipotekak** (3)

hipotekario *izond* hipotekari dagokiona. ik **hipoteka 2**.

Zor **hipotekarioetarako**. Karlos Zabala

Mailegu **hipotekarioetarako** erreferentzia nagusia den euribor indizeak behera egin du.

hipotekatu, hipoteka(tu), hipotekatzen **1** du *ad* hipotekan jarri.

Etxea ez zuen hark **hipotekatu**, amak baizik, Lajosek eskatuta. Ander Irizar

Gainerakoa lortzeko, neure etxea **hipotekatu** behar izan nuen. Xabier Olarra

Berre gisa enpresaren lurrak **hipotekatuko** ditu. Berría - Ekonomia

Hirugarren Munduko herrialde asko eta asko erabat zorpeturik eta **hipotekaturik** baitaude. Iñaki Heras

Zertarako balio zian zien errega jotoako nobleei jadanai ez zeukatena, edo mila eratan **hipotekatu** zutena eskatzea? Iñaki Iñurrieta
Tiberiok agindu zuen dirua nahi zutenek altxor publikotik jasoko zutela baldin eta lurra diru-kopuru bikoitzaren truke **hipotekatzen** bazuten. Iñaki Iñurrieta
Etxebizitza **hipotekatuta** daukat, eta heldu den hilean amaituko da epea kreditua itzultzeko. Josetxo Azkona

2 irud

Etorbizuna hezuramamituko -eta **hipotekatuko**- duen inkomunikazio latz horren barne-muinetan. Anjel Lertxundi
Planetako biztanle guztien beharrak ase ahal izateko eta ondotik etorriko diren etorkizuna ez **hipotekatzeko**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Deialdiak 40 urtez **hipotekatuko** du Osakidetza euskalduntze prozesua. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etxea hipotekatu (3)

hipotensio

iz ohikoa baino baxuagoa den arteria presioa.

Akabo orduan nere tripako min guziak, buruko nerbio eta ilegaltzeak, erreumak, **hipotentsioak**, eta emaztearen hileroko gorabeherak. Patziku Perurena

hipotenusa

iz hiruki zuzen batean, alde handiena, angelu zuzenari buruz buru dagoena.

Berehala ikusten zuen, adibidez, triangulu baten **hipotenusa** beste bi aldeen batura baino txikiagoa zela. Xabier Olarra
Triangeluen **hipotenusa** komuna karratuaren diagonalak da. Jon Muñoz

hipotermia 1

iz gorputzaren hozbero ohikoa baino apalagoa.

Hipotermiagatik ezin zituelako atzamarrak mugitu. Berria - Euskal Herria
Haietako hiru hilda topatu zituzten, eta beste bat koman, **hipotermiak** jota. Berria - Mundua
Ospitaleratuta dauden hiru mendizaleek hainbat kolpe izateaz gain, **hipotermia** ere bazuten. Berria - Euskal Herria
Askoz larriagoa da ur izoztuan murgilduriko gorputz baten bero-galera, eta horregatik izaten da **hipotermiaz** hiltzen denik ontzi-hondoratzeko baten ondoren. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

13 etorkin hilda eta beste lau **hipotermia** sintoma handiekin aurkitu zituzten atzo ontzi batean. Berria - Mundua
Hipotermia zantzu larriak. Berria - Euskal Herria
Gaixo askok besteak beste **hipotermia** arazoak izaten dituztela. Berria - Gaiak

hipotesi

(*ETCn 13.595 agerraldi*) **1** *iz* zerbait azaltzeko edo frogatzeko abiapuntutzat hartzen den behin-behineko baiezpena, gerora egiaztatutako behar dena.

Zientzia espezializatuaren oinarriko **hipotesi** eta premisak goragoko metafisikatik dedukzioz bihurtzen dira nabari eta zilegizko. Askoren artean
Bi **hipotesi** suma ditzakegu ideiarekin azpian: (i) inferentzia baten emaitza soilik behin-behineko onartu behar dugu, eta (ii) aurkako frogak berriak aurkituz gero, emaitza aldaraziko lukete. Askoren artean
E.H. Gombrichi jarraituz, **hipotesi** hau egingo dugu: [...]. Josu Zabaleta
Hipotesiak egiten hasita, baietz itzulgai honetan horrelako aipu gehiago egon, apustu egingo nitek. Iñaki Iñurrieta
Jendarmeriako detektibeek lapurretaren **hipotesia** hobesten dute. Alberto Ladron Arana
Ezin interesgarriagoak dira ahozkotasanaren **hipotesia** sendetsi duten Parry, Havelock, Nagy eta gainerako autoreen ekarpenak. Askoren artean
Pindarok [...] filosofia politiko ilustratuak beti baietsi duen **hipotesia** gogorki gezurtatu zuen. Askoren artean
Bilakaera hori ezagaturik, zenbait **hipotesi** bazter ditzakegu hasiera-hasieratik. Isabel Arrigain
Truke libreak nazio guztien ongizatea hobetu dezakeelako **hipotesia** baztertu gabe ere. Koro Navarro
Hipotesiaren **hipotesia** ez da inolaz ere baztertu behar. Iban Zaldúa
Hori, ordea, **hipotesiaren** aurka doa. Piarres Xarriton
James Lovelocken Gaia **hipotesian** oinarrituta. Berria - Gaiak
Oteizaren **hipotesiaren** arabera, hau da, gogo "gu-gu"tik etortzera [...]. Iñaki Iñurrieta
Hipotesi zintzoak dira eta gertaeren berri ematen dute. Monika Etxebarria
Hain frogak gutxi genduen **hipotesi** egiaztatuko bat osatzeko... Oskar Arana
Nire bihotzak **hipotesi** baikorrak maite ditu. Bernardo Atxaga
Egia eta ongia absoluturik ez egoteak dena justifikatu daitekeelako **hipotesi** labainkorra dakar berekin. Askoren artean
Hura gazteluan nola sartu ote zen azaltzeko **hipotesiak** gero eta burugabeagoak ziren. Iñaki Mendiguren
Alabaina, bertatik halako zerizana halabeharrez existitzen dela esatera iristea ez da **hipotesi** zilegi baten adierazpen apala, baizik ziurtasun apodiktikoaren handiuste lotsagabea. Ibon Uribarri
Nik **hipotesi** gisa baino onartzen ez dudana zerbaitez. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik hipotetiko.

Colinek bere lanari nahita ematen dion **hipotesi**-izaera horrek ez du aukerarik uzten ikerketa horren norainokoa juzgatzeko. Josu Zabaleta
Horrela da **hipotesi**-egiaztatpen mendetasunean. Xabier Arregi
Diskurtso klinikoan, deskribapen-multzo bat izateaz gain, bizitza eta heriotzari buruzko **hipotesi**-multzo bat ere izango dela. Xabier Arregi
Garaien ikuspegi biak dira baliagarriak **hipotesi** premia larrian dagoenarentzat. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Idatzia argudiatzearen edo lan-**hipotesiaren** arabera antolatuta. Askoren artean
Itxaropen horiek daude, neurri handi batean behintzat, ikusmenezko munduko gauzei buruz eratzten diren inbariantza **hipotesien** oinarri eta iturburuan. abstrakzio-**hipotesiaren** alde egiten dute tituluek eurek: "Bizitza ta maitasuna", "Maitasuna eta eriotza"... Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina hipotesi (7); **baina hipotesi bat** (3); **beste hipotesi** (7); **beste hipotesi bat** (4); **bi hipotesi** (11); **buruzko hipotesi** (7); **da hipotesi** (6); **den hipotesi** (3); **dugu hipotesi** (3); **dute hipotesi** (3); **edo hipotesi** (3); **ere hipotesi** (3); **eta hipotesi** (17); **eta hipotesi guztiak** (3); **eta hipotesi horretatik** (3); **hainbat hipotesi** (9)

hipotesi bat (36); **hipotesi bat baino** (5); **hipotesi bat besterik** (3); **hipotesi bat ere** (3); **hipotesi batean** (3); **hipotesi baten** (9); **hipotesi batetik** (3); **hipotesi batzuk** (3); **hipotesi berri** (3); **hipotesi berriak** (3); **hipotesi bi** (3); **hipotesi erabilii** (4); **hipotesi eta** (6); **hipotesi gisa** (11); **hipotesi gisa ere** (3); **hipotesi guztiak** (15); **hipotesi guztiak zabalik** (6); **hipotesi hau** (13); **hipotesi honek** (5); **hipotesi honen** (4); **hipotesi honi** (3); **hipotesi hori** (47); **hipotesi hori baieztatzeko** (3); **hipotesi hori baztertu** (5); **hipotesi horiek** (8); **hipotesi horrek** (4); **hipotesi horren** (14); **hipotesi horren arabera** (10); **hipotesi horretan** (3); **hipotesi horretatik** (4); **hipotesi hutsa** (4); **hipotesi nagusi** (3); **hipotesi nagusia** (8); **hipotesi nagusia eta** (3); **hipotesi nagusiak** (4); **hipotesi ugari** (3); **hipotesi zientifiko** (4)

hirugarren hipotesia (3); lan hipotesi (5); zen hipotesi (3); zenbait hipotesi (5); zuen hipotesi (8); zuen hipotesi hori (5)
atentatuaren hipotesia (3); baten hipotesia (7); bigarren hipotesia (6); duen hipotesia (4); duten hipotesia (3); erasoaren hipotesia (3); etaren hipotesia (3); hipotesia alde (3); hipotesia alde batera (3); hipotesia baztertu (4); hipotesia berretsi (3); hipotesia da (10); hipotesia ere (6); hipotesia ez (5); hipotesia ez da (3); hipotesia ezin (3); hipotesia zabaldu (5); hipotesia zabaldu zuten (3); hipotesia zen (3); izanaren hipotesia (4); lehen hipotesia (4); lehenengo hipotesia (3); nire hipotesia (6); nire hipotesia da (4); suizidioaren hipotesia (4); zuen hipotesia (3)
bi hipotesiak (4); buruzko hipotesiak (5); hipotesiak baino (3); hipotesiak baino ez (3); hipotesiak dira (3); hipotesiak egiten (4); hipotesiak eta (3); hipotesiak ez (4); hipotesiak indar (3); hipotesiak indar handia (3)
hipotesiaren alde (3); hipotesiaren arabera (16); hipotesiaren aurka (3); hipotesiaren aurka doa (3)
diren hipotesien (3); hipotesiek ez (3); hipotesien arabera (6); hipotesien artean (3); hipotesirik baztertu (3)

hipotesigile *izond* hipotesiak egiten dituena.

Oteiza ote-oteka ari dela, jenioari darion egonezin **hipotesigile** etengabean. **Iñaki Iñurrieta**

hipotesigintza *zi* hipotesiak egiteko jarduera.

Literatura **hipotesigintza** gisa: idazleak acasoka dihardu. **Iñaki Iñurrieta**

Kontalariaren jarduna **hipotesigintza** libre, doako gisa. **Iñaki Iñurrieta**

hipotetiko **1** *izond* hipotesiari dagokiona; balizkoa. **ik hipotesi 2.**

"Benetako justizia betegina baldin badago, orduan iraunkorki gaiztoa denak zigorra jasoko du" esakune **hipotetikoak** benetan bi esakuneen hartuemana barnebiltzen du.

Ibon Uribarri

"Masa", edo "elektroi" bezalako izaki **hipotetiko**en arabera arau orokorrak. **Itziar Laka**

Badirudi egungo errealitate gordinari proiektu **hipotetiko** birtualekin egin nahi zaiela aurre. **Berria - Kultura**

Irudi **hipotetikoak** asmatzeko premia. **Xabier Olarra**

Egoera **hipotetiko** horretan. **Joxe Azurmendi**

Judizio **hipotetiko** osatzen duten bi judizioak. **Ibon Uribarri**

Arrazoimen-inferentzia **hipotetiko** batean. **Ibon Uribarri**

Argipena edonola ere judizio kategorikoari dagokiola, baina ez **hipotetikoari**, ezta disjuntiboari ere. **Ibon Uribarri**

Alde batetik, filosofoek infinituraino deskribatzen dute metodo **hipotetiko** -deduktiboa. **Juan Garzia**

Gure txinatar behatzaile **hipotetikoari**. **Iñaki Mendiguren**

Isabelle Parmentier, alaba **hipotetiko**. **Ramon Saizarbitoria**

2 inperatibo hipotetiko helburu jakin batek baldintzaturiko inperatiboa.

Inperatibo kategorikoaren adibide egokia izan daiteke "ez duzu hurkoa torturatuko"; **hipotetikoarena**, berriz, "ez duzu hurkoa torturatuko, zigor zaitzaten nahi ez baduzu".

Askoren artean

Inperatibo-klase horri inperatibo **hipotetikoak** kontrajartzen dizkio Kantek, agintzen duten ekintzaren ontasuna beren baitan ez dutenez, beste zerbait lortzeko bitarteko diren inperatiboak alegia. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabilera hipotetikoa (3); **hipotetiko bat** (5); **hipotetiko batean** (6); **izaki hipotetiko**en (4)

hipotetikoki *adlag* era hipotetikoan.

Gertatzen den oro **hipotetikoki** beharrezkoa da. **Ibon Uribarri**

Helburu bat jarriz gero, orduan bere lorpenaren baldintzak **hipotetikoki** beharrezkoak dira. **Ibon Uribarri**

Aurreko hizkuntza bat **hipotetikoki** berreraiki nahi duenean. **Isabel Arrigain**

hipotrakelio *iz*

Kolomaren **hipotrakelio** edo goiko muturrean. **Santiago Iruretagoiena**

Horieta bat abakoa izango da, zimazioarekin; bigarrena ekinoa, bi eraztunekin; eta hirugarrena **hipotrakelioa** izango da. **Santiago Iruretagoiena**

Ondo tratatutako habe horiek **hipotrakelioak** kolomaren goiko aldean duen lodiera berdina izango dute zabalean. **Santiago Iruretagoiena**

hipoxia *iz* aski ez den oxigenazioa.

Beste posibilitate bat -gertagarriagoa- Virgilen etengabeko **hipoxiari** lotua zen: urtebetean odola behar bezala oxigenatu ezari, alegia. **Xabier Olarra**

hipozentro *iz* lurrikara bat hasten den lur azpiko puntua.

Sufrimenduaren **hipozentroa** gaixoaren baitan bazegoen ere, epizentroa hurkoengana aldatua zela irudi zuen, eta, hedabideek lurrikararen epizentroaz eta ez **hipozentroaz** hitz egin ohi duten era berean -han egokitu ohi baita giza sufrimendua-, ingurukoaren errukia beregana eta ez gaixoarengana bideratzen zela begitantzen zitzaion zenbaitetan. **Imanol Zurutuza**

hippy (*ETCn 478 agerraldi; orobat hippie ETCn 77 agerraldi, hippy ETCn 33 agerraldi, eta jipi hippy ETCn 10 agerraldi*) **1 izond** 70eko urteetan, ohitura ez-konbentzionalei atxikirikoa, eraturiko gizartea aurka eta izadiari begira bizi dena.

Beste gizon bik jarraitu diote agure **hippyari**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Mutil zarauzta **hippy** bat azaldu zitzaigun, **hippya** eta gipuzkeraren aldekoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

"Manson" ezizena 1970eko urte hartan egunkari guztietan azaltzen zen Charles Manson hiltzaile **hippyagandik** zetorkion. **Bernardo Atxaga**

Gure publikoa ez dira **jipi** progreak, ezta sasiletrauak ere... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Neska madildar bat zen, izenez Pilar oker ez banago, **hippy**, pasota eta outsider samarra. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hipple izanaz lotsatzen naiz... **Joxerra Garzia**

Mukizu erdi **hippy** batek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Garan noiz edo noiz kolaborazioak idazten dituen play-boy neo- **hippy** horrek. [Jokin Muñoz](#)

2 hippyei dagokiena.

Portuko denda **hippyan** erositako poster handi bat: Iggy Pop, gerritik gora biluzik. [Anjel Lertxundi](#)

Mirariren apeta **hippyetako** -edo ekialdetarretako, edo zena zelako- beste bat. [Fernando Morillo](#)

Guztiak ziren, bestalde, nola edo hala, kultura **hippyaren** oinordeko. [Joan Mari Irigoien](#)

Gazte itxurako estetika **hippy** batez janzen jarraitzen zuen. [Anjel Lertxundi](#)

3 (izen gisa)

Zarauzko **hippy** kokkor gipuzkerazale bati. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Fosil bat zen, azken **hippya**. [Xabier Olarra](#)

Hippyen mitoak, new age-aren inguruko martingalak. [Berria - Kultura](#)

4 (hitz elkartuetan)

Zazpi hurreko familiakoak gara, **hippy** aroan Euskal Herrian anitz entzuten eta kantatzen zen abestiaren antzekoa. [Itxaro Borda](#)

Ez zekien **hippy** itxurapean karrikan ibiltzen ziren ezezagun horiek nor ziren. [Itxaro Borda](#)

- Iniciativako hautagaiak duen **hippy** jator itxurak kolore pitin bat ematen dio gristasunari. [Berria - Euskal Herria](#)

hira iz haserrea, amorrua; haserretasuna, haserrekeria.

Gorrotatzen dugunari kalte egiteko ahalegina, **Hira** deitzen da; eta egin diguten kaltea itzultzeko ahalegina, Mendekua. [Piarres Xarriton](#)

Hira da, Higuin dugunari, Gorrotatz, gaitz egitera bultzatzen gaituen Desira. [Piarres Xarriton](#)

Antzinakoan artean erregeen **hira** sakratutzat hartzen zen. [Xabier Olarra](#)

Sekula gutxiagotu gabeko oinazea, Jaunaren **hirak** beti kitzikatua. [Juan Garzia](#)

Amorruak eta **hirak** leher egin zioten erraietan. [Fernando Morillo](#)

Joanesen **hira** jasan nuen. [Itxaro Borda](#)

Amaren erasialdia eta aitaren **hira** pairatuko zituen. [Itxaro Borda](#)

Dragoiaren **hira** izugarritik ihes eginda. [Koro Navarro](#)

Dardarika zegoen, beldurrez baino areago, **hiraz**. [Aingeru Epaltza](#)

Gazteek gorrotatz eta **hiraz** beterik fusilatuta zituztela kuartel txikiko militarrek, [Karlos Linazasoro](#)

hiratsu izond hiraz betea.

Alabaina, aspaldian langabetua nintzen, euskaldun jendarte planttakoaren zeharkako so **hiratsuen** patitzen ohitua hots! [Itxaro Borda](#)

hiratu, hira(tu), hirutzen da ad hirak jo.

Hiratu zara liluraturik zauzkan emakume eder horrengandik urrun. [Jon Muñoz](#)

Nik, zugandik urrun **hiratua**, damuen eta zorigaitzen artean herrestan eramanen dut dolorezko bizitza hau. [Jon Muñoz](#)

Hiratuago ordea, minduago, amorratuago. [Koldo Izagirre](#)

hiraulika iz zemento hidraulikoa.

Hiraulikazko zorua, nola zula liteke ondoen, hik zer lanabes erabiltzen duk? [Koldo Izagirre](#)

Ate itsutu bat dago hilerriaren aurrealdean, eskuman, behialako hutsunea adreiluz estalia, **hiraulikaren** azpitik ageri diren marrek azaltzen dutenez. [Koldo Izagirre](#)

hireganatu, hiregana(tu), hireganatzen du ad hiregana ekarri.

Hobe huke, zinezko koska entterkatasun pixka bat **hireganatzea** eta holako balentrietan ez sartzea. [Herria](#)

hiretar iz hire familiakoa, artekoa, aldekoa, alderdikoa dena.

-Hemen inguruan bizi dira **hiretarrak**? [Anton Garikano](#)

-Agian **hiretarrek** ezagutuko dituen, laguntza behar duen norbait. [Anton Garikano](#)

hiretu, hire(tu), hiretzen du ad hire egin, hire bihurtu.

Eta ez uste ukan hemengo zerbaít **hiretuko** duala noizbait -entzun zuen aitatxik zioela. [Elena Touyarou](#)

hiri (ETCn 167.320 agerraldi) 1 iz etxe eta eraikuntzen multzo egituratua, eskuarki aski handia denean. ikhirixka; herri 7.

Leongo erresumaren azken herria da Villafranca, nahiz **hiri** deitzen ahal den, hain da haundia eta aberatsa. [Piarres Aintziart](#)

Orduetik aurrera hasi zen Frantzisko dohatsua **hiri** eta herrixketan herriari predikatzen. [Askoren artean](#)

Hirietan edo metropolietan bizi garenok. [Bernardo Atxaga](#)

Etxe multzo hantuste honi **"hiri"** erratan diozue harro-harro, baina nik bezain ongi dakik herri puta bat baizik ez dela. [Aingeru Epaltza](#)

Hiriak berak 750 mila bizitzaile ditu, baina datxikola dituen herrialdekin 6 miliunetara heltzen da. [Herria](#)

Grekoen **hirietan**. [Santiago Iruretagoiena](#)

Bada hemen gertu, **hiriko** harresian, dorre bat oso zabala. [Askoren artean](#)

Hiriaren errebalean. [Eskarne Mujika](#)

Hiriko plaza eta kaleetan. [Askoren artean](#)

Haiek irteandakoa, itxi egin zituzten **hiriko** ateak. [Jose Antonio Mujika](#)

Hiriaren ingurabidearen ondoko hotel batean sartu nintzen. [Joxan Elozegi](#)

Hiriaren erdialdeko erakusleihoetan gelditzen zen. [Xabier Olarra](#)

Urbe **hiriaren** hondakinak hor ditut, kasko batean. [Piarres Aintziart](#)

Aita Lazaristek Italiako **hirian** duten "Divus Thomas" aldizkariari. Piarres Xarriton

Hiria bi zatitan banatuta geratu zen. Berria - Mundua

Hiriaren hartze eta arpilatzearekin. Iñaki Mendiguren

Hirietan arpilatutakoa ematen zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Hiria asaldatuta zegoen zeharo. Koro Navarro

Zer egin behar da **hiria** sortzailea izan dadin? Berria - Kultura

Bazirudien **hirian** pasatu beharko genuela uda. Fernando Rey

Paola eta biak **hirian** paseatzera joaten ziren. Fernando Rey

Hiriko zaldun batek etxean hartu zuen ostatur. Askoren artean

Hiriko herritarren gorputzetan. Santiago Iruetagoiena

Hirikoekin betidanik geneukan lehia hartan. Bernardo Atxaga

Hiri bereko mutil gazte batek hamar urte zeramatzan gaitz larri batek jota. Askoren artean

Zertan zen Errusia, errusiarrak, landako bizimodua, **hiriko** bizitza, burokrazia... Jose Morales

Hirian barrena automobilean zebiltzanean. Fernando Rey

Holandako Maastricht **hirian**. Iñaki Heras

Tokio **hiriaren** metropoli-aldean Afrika osoan baino telefono linea gehiago daude. mendeetan gertatutako bi istorio. Iñaki Heras

Luigi Pirandello Siziliako Agrigento **hirian** jaio zen, 1876an. Josu Zabaleta

Biharamunean berriz Afganistaneko presidentea nahi izan dute garbitu, Kandahar **hirian** ibili delarik bazterren bisitatzen. Herria

Hirien beregaintasuna. Berria - Ekonomia

Ondo gogoan ditut, besteren artean, Coelius Secundus Curio italiar noblearen *De Amplitudine Beati Regni Dei*, San Agustinen *Jainkoaren hiria* lan handia, eta Tertulianoren *De Carne Christi*. Berria - Ekonomia

2 (aditz baten objektu gisa)

Hiria hazi egin da, luzatu, etxez bete dute. Pako Aristi

Hiria aldatua aurkitu zuen, itsustua. Fernando Rey

Hiria berreskuratzeko asmotan. Karlos Zabala

Badakik gutun honek **hiria** defendatzeko agintzen digula. Karlos Zabala

Port-de-Paix **hiria** hartu dute matxinoek. Berria - Mundua

Ingeles eta portugez gudarosteek **hiria** setiatu, harrapakatu, su eman eta erre ondoren. Askoren artean

Hiria berriro eraikitzeko zina. Askoren artean

Karlistek **hiria** bonbardatzen dute. Askoren artean

Hiri osoa suntsituko ote duzu bost horienagatik? Elizen arteko biblia

Hiria iratzartzen ari zen Joanto bidean barna abiatu zelarik. Elena Touyarou

Ezari-ezarian, **hiria** lozorrotik esnatzen ari zen. Karlos Zabala

3 (izenondo edo izenlagun batez)

Mende horretan, Donostia, merkatarri herri bat eta gotorleku militar itxia izatetik, **hiri** irekia izatera igaro zen. Askoren artean

Gipuzkoako **hiri** nagusian. Piarres Aintziart

Nantes Britainiako **hiri nagusi** historikoa dela. Herria

Hiri alai erraldoia. Felipe Juaristi

Nijneudinsk izeneko **hiri** txikia. Karlos Zabala

Goizean goiz, elkarrekin harresiak igaro eta **Hiri** Zaharrean ibili ziren, isilka. Pablo Sastre

Pragan gertatzen da ekintza, **Hiri** Berriaren eta **Hiri** Zaharrean artean. **Hiri** harresitu eta bere baitara bildu hartako Parte Zaharrean. Joxemari Urteaga

Ez zuen gogoko arraina, nahiz eta **hiri** arrantzale batean jaioa izan. Juan Garzia

Ezustez **hiri** arrotz batera lekualdatuak ginela zirudien. Aingeru Epaltza

Bizi-poza dario Bafforen poesia guztiari; bere mende hartan bizitzeko gogoia; Venezia **hiri** anfibioan, Europaren alu hezean gozatzeko gogoia. 20.000 biztanletik gorako

hirietan. Anjel Lertxundi

Goiko eta beheko **hiriak** arakatu zituen, zoko guzti-guztiak begiratuz. Karlos Zabala

Erdi Aroko **Hiria** ezagutzeko astirik izango dudan ere ez dakit. Edorta Jimenez

Pragako **hirian** XV-XVI. Anjel Lertxundi

Hori ez du nihundik ere Baionako **hiriak** bakarrik jasaiten ahalko. Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **hiritar 6; urbano**.

Harresiz kanpo bizi ziren anaiak **hiri** barrura sartu ziren. *ik beherago* 5. Askoren artean

Hiri -atariko pasabidean. Txillardegi

Guk **hiri** -sarreraraino bultzatu genituen kontraerasoan. Jose Antonio Mujika

Argazki makina polaroid bat zen; **hiri** -auzunea, Haight-Ashbury. Bernardo Atxaga

Hiri -periferian dagoen HiperEroski, Carrefour, Mammouth edo Pryca erraldoirantz abiatzen dira. Iban Zaldua

Hiri -inguruko etxe merke bat hartu zuen. Joan Mari Irigoien

Han helenismoaren **hiri** -kulturrak ez zuelarik sustraitzea lortu. Iñaki Mendiguren

Hiri -komunitatearen zaindaritza duten jainko nagusienak. Santiago Iruetagoiena

Hogeigarren mendean gehiegi hazitako **hiri** -komunitateen arazoan artean. Iñaki Mendiguren

Venus, Vulkano eta Marteren etxeak **hiri** -harresietatik kanpora jarri behar dira. Santiago Iruetagoiena

Hiri sare zabala dagoelako Gipuzkoan. Koldo Zuazo

«lurraldea basamortu bihurtu eta **hiri** -ghettoak» ekiditeko. Berria - Ekonomia

Bilboko **hiri** zirkuituak FIAREN homologazioa jaso du. Berria - Kirola

EAEn %29 gehitu dira sei urtean **hiri** -lurrak eta lur eraikigarriak. Berria - Euskal Herria

Hiri -biltegien eraikuntzan. Jose Antonio Mujika

Iruñerriko hiri garraioa, multinazional baten esku. Berria - Euskal Herria

Zementuzko **hiri** -oihanera garamatza. Lopez de Arana

Hiri -etnologia aztertzeke leku aproposenetakoa zen Donostia. Fernando Morillo

Estatuen finantza-premien eta **hiri** -ekonomiaren artean harrapaturik. Koro Navarro

Hurbiletik ezagutzen dituzte Asisko **hiri** -testuinguru eta ohiturak. Askoren artean

Etsaiaren esku gupidagabeak gerra garaian zelai-landak, **hiri** -baserriak, uztak oro, erretzen dituen bezala. Felipe Juaristi

-izond Norbaitek galdetzen badik nork itsutu dian begi bakar hori, esaioak Ulises **hiri** suntsitzaileak egin diala. Juan Kruz Igerabide

Rodastarrek Kaliasi eskatu zitoen presta zezala bere makina beste **hiri** -setiatzaile haren kontra. Santiago Iruetagoiena

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa izen ofizialen)

Hiri Plangintza Alternatiborako Bulegoa. **Berria - Kultura**

Hiri Antolaketa Plan Orokorrean. **Berria - Euskal Herria**

Gipuzkoako **Hiri** Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Integraleko Jarraipen Batzordeko bileran. **Berria - Euskal Herria**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mahats arteko neure sort-**hiri** amultsua. **Juan Garzia**

Kontsidero horien guztien ondorioz sortu ziren babes-**hiriak**. **Iñaki Iñurrieta**

Elur-ekaitz hura azaldu zitzaidan bat-batean Nara goi-**hiriaren** gainean, hango ezki kontaezinen gainean. **Joxan Elozegi**

'Haresi **hiria**' obran gune industrialetan sortzen diren ordena eta desordena aztertzen ditu. **Berria - Kultura**

Mediterraneoko merkataritza-**hirie**. **Koro Navarro**

Errusiako osasun-**hiriak** pobreak dira, eta, horren ondorioz, tristeak, izugarri tristeak. **Iban Zaldua**

Artxandan kirol **hiria** eraiki nahi du Praderak. **Berria - Kirola**

Mediterraneoko eta Ipar Itsasoko portu-**hiritan**. **Koro Navarro**

Unibertsitate-**hiri** honetan. **Jon Arretxe**

Hiriak "katedral-**hiriak**" ziren; beste herriak "borouh" ziren. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko ehungintza-**hiri** guztien inguruetan. **Koro Navarro**

Erdi Aroko Frantziako eliz mapan, [...] apezpiku-**hiriten** mosaikoan. **Iñaki Mendiguren**

Ekialdeko prefektura dioklezianikoa azkenean zatitu egin zen Alexandria, Jerusalem, Antioxia eta Konstantinoplako lau patriarka-**hiriten** artean. **Iñaki Mendiguren**

Baiona/Donostia euskal euro **hiriak** nahi du Europako lehena izan ingurumenaren sailean. **Herria**

7 hiri barne (orobat hiribarne g.er.)

Hiri barne xaharra osoki berritua izateko. **Herria**

Plan horren ideia nagusia hauxe da: herria trebeskatzen duen errepidea, Ametzondoko zolatik eta Herriko Etxea iragan arte, egiazko **hiribarne** bat bilaka dadin, Hiribururen nortasuna erakutsiko duena Baiona hiri erraldoiaren ondo ondoan. **Herria**

Espekulazioa: Donibane Lohizune edo Miarritze bezalako udaletan 4.000 euro ordaintzen dira metro koadroko, 2.600 euro inguru Baiona edo Angeluko **hiri barnean**. **Berria - Euskal Herria**

Miarritzeko **hiri barnean**, hondartzatik 400 metrora dagoen Jules-Ferry auzoan. **Berria - Kultura**

Miarritze **hiri barneko** etxe batean. **Berria - Euskal Herria**

Errepide zabala utzi dut Puente Castron sartzeko, kartier baten lehen etxeen ikusteak **hiri barnera** heldua zarela erdi sinetsarazten dizuela. **Piarres Aintziart**

Agorrileko pesta egunetan autoei **hiri barnera** sartzeari debekatzea. **Herria**

Berrogeita hemeretzigarren kaleko zubitik **hiri barnera** sartzeari. **Xabier Olarra**

Lamothe plaza aurkitzen da Angelu minean, **hiri barnetik** biziki hurbil. **Herria**

8 hiri-bazter (ETCn 86 agerraldi; orobat hiribazter ETCn 6 agerraldi) hiribarnetik kanpo dagoen auzoa, eskuarki diru baliabide urriko jendea bizi dena. ik hiribaztertar.

Munich-eko **hiri**-bazterrek ezker utzi genituen, eta Goi-Bavariako zelaietan barna joan ginen. **Marzel Etxehandi**

Herri-tankerako **hiri-bazterretan**. **Iñaki Segurola**

Orain inguru honi **hiri bazterra** deitzen diote, baina beltzak bizi zirenean bertan, Sakana zen hau. **Pablo Sastre**

Haatik hortako baditu 300.000 familia etxetiar etxetik haizatuak, ainitzak **hiri bazterretako** favella trixteziakoetarat joaiteko. **Herria**

Babiloniak, Londresek eta New York-ek distiramen ankerrez sustatu izan dute gizonen irudimena; inork ez du sentitu, ordea, haietako dorre jendetsu nahiz hiribide presatueta, Hegoamerikako bere **hiribazter** txiroan Ireneo doakabeak [...] jasan behar zuena bezain erreallitate errendezien baten bero eta presioa. **Juan Garzia**

9 hiri elkargo (ETCn 763 agerraldi) ik herri 13.

Baiona-Angelu-Miarritze **Hiri** Elkargoko lehendakari nintzenez.

Angeluarririk ez da agertu azaroaren lauean, BAM **hiri** elkargoko kontseilu bilkurara. **Herria**

Garazi-Baigorri eta Iholdiko **hiri** elkargoak proiektuaren aurka agertu dira. **Berria - Euskal Herria**

2 250 m²-ko eremu bat atxikitzen du **hiri** elkargoak. **Herria**

10 hiri erdi (orobat hirierdi g.er.)

Hiri erdian, horrelako tenplu tipi baten aurkitzea, zer gauza arraroa! **Ramuntxo Etxeberri**

Egun horretan, trikitia oso berandu arte entzuteko aukera iznago da Amsterdamgo **hiri erdian**. **Berria - Kultura**

Manilako **hiri erdiko** etorbide zaratsuetan. **Ramuntxo Etxeberri**

Hiri erdiko parkera iristean. **Joxean Agirre**

Hiri erdiko saltegi txikien mantentzeaz du griña handiena, eta zergen goigera geldiarazteaz. **Berria - Euskal Herria**

Askok hirigune esaten diete **hiri erditik** 20 kilometrora dauden sasi-errepideei. **Berria - Ekonomia**

Nahi luzkete komertsant guziak elgarretaratu, ez **hiri erdikoak** bakarrik bainan bazterreko auzoguneetan direnak ere, denak elgarrekin behar direla jokatu... **Herria**

Gela eledibunetan: Hendaia Lissardy: 1 - Hendaia **hirierdi**: 0,5. **Herria**

Donibane Lohizune **hirierdi**: 1 - Hazparne Verdun: 0,5. **Herria**

11 hiri-estatu

Alexandro Handiak ezarritako greziar **hiri**-estatu ugariak. **Iñaki Mendiguren**

Spainiar **hiri**-estatu kolonial horiek atzerriko erregimen arrotzaren antolaketa administratibo eta judizialerako zelula gisa balio izan zuten. **Iñaki Mendiguren**

Hiri-estatuen administrazioa. **Iñaki Mendiguren**

Hiri-estatuen arteko harremanetan. **Askoren artean**

Hiri-estatu aitzindari horiek. **Iñaki Mendiguren**

12 hiri gotor hiri gogortua. ik hirigotor.

Familia Andaluzian kokatu zen, Baeza **hiri gotorrean**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Baina, hori bai, han bizi den jendea indartsua da; **hiri gotorrak** dituzte, izugarri handiak. **Jose Antonio Mujika**

13 hiri-hirian

Gamarran, hiriarren kanpoaldean dagoen herrixkako habia ezagutzen nuen, elizdorrea errepidetik bertatik ikusten baita, baina hiri-**hirian** sekula ez nuen halakorik ikusi.

Patxi Zubizarreta

Kontratuak dio hotelak **hiri**-hirian egongo direla. **Patxi Zubizarreta**

New Yorken, **hiri**-hirian, tigre zein puma izan, halakoxe bat ikusi nuela. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aipaturiko hiri (10); angelu miarritze hiri (47); babes hiri (13); baina hiri (35); baiona hiri (14); bam hiri (29); bam hiri elkargoak (8); bam hiri elkargoko (8); bat hiri (10); batean hiri (8); bere hiri (10); bertze hiri (9); beste hiri (95); beste hiri batera (13); beste hiri batzuetan (13); bezalako hiri (22); bi hiri (42); bigarren hiri (14); bilbo hiri (9); da hiri (62); dagoen hiri (13); dela hiri (10); den hiri (40); diat hiri (11); dik hiri (9); dira hiri (22); diren hiri (9); dituzte hiri (8); du hiri (28); duen hiri (22); dut hiri (10); dute hiri (10); edo hiri (26); edozein hiri (16); ere hiri (19); espainiako hiri (8); eta beste hiri (16); eta hiri (273); eta hiri handi (10); eta hiri zer (10); europako hiri (16);

euskal herriekin (12); ez den hiri (9); ez den herri (8); ez hiri (8); frantziako hiri (53); gipuzkoako hiri hondakinak (26); gipuzkoako hiri hondakinen (14); gipuzkoako hiri jabetzaren (11); gure hiri (21); hainbat hiri (26); hau hiri (10); herri eta hiri (16); herriko hiri (12)

hiri aldera (14); **hiri arrotz** (16); **hiri askotan** (15); **hiri bakarra** (11); **hiri bakoitzean** (12); **hiri barnean** (15); **hiri barneko** (17); **hiri barnera** (10); **hiri barruan** (18); **hiri barruko** (12); **hiri bat** (113); **hiri batean** (72); **hiri batek** (19); **hiri bateko** (29); **hiri baten** (33); **hiri batera** (32); **hiri batetik** (15); **hiri bati** (9); **hiri batzuetan** (19); **hiri berean** (30); **hiri berean bizi** (13); **hiri bereko** (10); **hiri berria** (13); **hiri eder** (18); **hiri ederra** (23); **hiri edo** (13); **hiri elkargoa** (17); **hiri elkargoak** (44); **hiri elkargoaren** (12); **hiri elkargoko** (25); **hiri eman** (10); **hiri eman zizkieten** (9); **hiri erdi** (8); **hiri erdian** (26); **hiri erdiko** (14); **hiri erdira** (12); **hiri ere** (27); **hiri esker** (22); **hiri esker izan** (20); **hiri estatu** (15); **hiri eta** (166); **hiri eta beraien** (15); **hiri eta herri** (24); **hiri eta herrietan** (16); **hiri eta herrixketan** (10); **hiri ez** (19); **hiri garraio** (8); **hiri gotor** (17); **hiri gotorrak** (8); **hiri gotortu** (8); **hiri guztiak** (22); **hiri guztian** (11); **hiri guztien** (10); **hiri guztietan** (30)

hiri handi (120); **hiri handi bat** (13); **hiri handi batean** (11); **hiri handi bateko** (8); **hiri handi eta** (8); **hiri handi horietan** (10); **hiri handia** (36); **hiri handia da** (10); **hiri handiak** (17); **hiri handian** (12); **hiri handiek** (10); **hiri handien** (20); **hiri handiena** (14); **hiri handiena den** (8); **hiri handienetan** (8); **hiri handietako** (27); **hiri handietan** (52); **hiri handiko** (9); **hiri handira** (10); **hiri handitan** (10); **hiri hartako** (23); **hiri hartan** (42); **hiri hau** (89); **hiri hauek** (17); **hiri haundi** (9); **hiri hondakin** (16); **hiri hondakinak** (56); **hiri hondakinak kudeatzeko** (42); **hiri hondakinen** (61); **hiri hondakinen kudeaketa** (21); **hiri hondakinen kudeaketarako** (15); **hiri honek** (21); **hiri honen** (24); **hiri honetako** (48); **hiri honetan** (102); **hiri honetara** (17); **hiri honetatik** (15); **hiri honi** (12); **hiri hori** (42); **hiri horiek** (25); **hiri horien** (10); **hiri horietako** (9); **hiri horietan** (24); **hiri horrek** (8); **hiri horren** (20); **hiri horretako** (24); **hiri horretan** (63); **hiri horretara** (10); **hiri hortako** (21); **hiri hortan** (31); **hiri hura** (17)

hiri inguruan (16); **hiri inguruko** (19); **hiri jabetzaren** (17); **hiri jabetzaren ganberak** (10); **hiri madarikatu** (8); **hiri nagusi** (18); **hiri nagusia** (34); **hiri nagusiak** (9); **hiri nagusian** (43); **hiri nagusiaren** (8); **hiri nagusiko** (14); **hiri nagusitik** (8); **hiri nausian** (24); **hiri ondoan** (9); **hiri ondoko** (9); **hiri osoa** (56); **hiri osoak** (8); **hiri osoan** (40); **hiri osoan zehar** (8); **hiri santu** (11); **hiri santua** (15); **hiri santuan** (15); **hiri santura** (8); **hiri sarrerako** (10); **hiri sarrearan** (12); **hiri txiki** (35); **hiri txikia** (13); **hiri zaharra** (11)

erriko hiri (15); **hiriz hiri** (16); **hiru hiri** (14); **honako hiri** (10); **iparraldeko hiri** (25); **irufñ italiako hiri** (11); **izan zen hiri** (9); **jerusalem hiri** (11); **judako hiri** (12); **kostaldeko hiri** (9); **lau hiri** (12); **lurraldeko hiri** (8); **miarritze hiri** (53); **miarritze hiri elkargoak** (17); **miarritze hiri elkargoko** (9); **munduko hiri** (12); **najaf hiri** (8); **nik hiri** (19); **nuen hiri** (9); **oso hiri** (10); **probintziako hiri** (8); **sei hiri** (9); **sion hiri** (20); **xiiten hiri** (13); **zaik hiri** (9); **zegoen hiri** (13); **zen hiri** (52); **zenbait hiri** (15); **ziren hiri** (28); **zituen hiri** (14); **zituzten hiri** (11); **zuen hiri** (35); **zuten hiri** (16)

baina hiria (9); **bere hiria** (9); **bilbo hiria** (33); **bukavu hiria** (9); **da hiria** (22); **dago hiria** (9); **dagoen hiria** (9); **den hiria** (11); **dituen hiria** (10); **donostia hiria** (49); **donostia hiria torneoko** (10); **du hiria** (13); **duen hiria** (9); **dute hiria** (9); **ero hiria** (12); **eta hiria** (87); **euskal hiria** (18); **gure hiria** (10); **hiria bera** (11); **hiria bere** (16); **hiria da** (48); **hiria ere** (15); **hiria eta** (80); **hiria ez** (22); **hiria hartu** (39); **hiria hartu zuten** (14); **hiria hartzeko** (9); **hiria inguratu** (12); **hiria inguratzen** (12); **hiria pop** (16); **hiria pop rock** (16); **hiria saria** (15); **hiria setiatzen** (8); **hiria suntsitu** (9); **hiria torneoa** (9); **hiria torneoko** (29); **hiria utzi** (13); **hiria zen** (17); **irun hiria** (17); **murtzia hiria** (24); **nuen hiria** (9); **zarautz hiria** (18); **zarautz hiria torneoko** (11); **zen hiria** (34); **zuen hiria** (35); **zuten hiria** (23)

babes hiriak (10); **baionako hiriak** (24); **bi hiriak** (8); **diren hiriak** (8); **ditu hiriak** (13); **du hiriak** (13); **eta hiriak** (40); **gure hiriak** (9); **hiriak berak** (9); **hiriak bere** (10); **hiriak ere** (18); **hiriak eta** (44); **hiriak ez** (20); **hiriak lotzen** (12); **hiriak lotzen dituen** (11); **judako hiriak** (8); **zuen hiriak** (9)

asis hirian (13); **bakuba hirian** (10); **basora hirian** (13); **bere hirian** (14); **da hirian** (15); **dagoen hirian** (8); **dauiden hirian** (22); **dauiden hirian ehortzi** (12); **den hirian** (9); **dira hirian** (13); **duen hirian** (12); **eta hirian** (49); **faluja hirian** (30); **gaza hirian** (26); **gure hirian** (11); **hebron hirian** (9)

hirian atzo (8); **hirian barna** (18); **hirian barrena** (43); **hirian bertan** (21); **hirian beste** (9); **hirian bi** (13); **etia hiriak** (13); **hirian bildu** (11); **hirian bildu dira** (8); **hirian bizi** (56); **hirian bizi diren** (8); **hirian bizi zen** (8); **hirian duen** (11); **hirian egin** (28); **hirian egindako** (18); **hirian egiten** (9); **hirian ehortzi** (17); **hirian ehortzi zuten** (17); **hirian ere** (21); **hirian eta** (62); **hirian ez** (20); **hirian gaindi** (14); **hirian gertatu** (13); **hirian hasi** (8); **hirian herenegun** (8); **hirian izan** (20); **hirian izan zen** (8); **hirian izandako** (18); **hirian jaio** (11); **hirian jaio zen** (10); **hirian sartu** (37); **hirian zehar** (44); **hirian ziren** (11)

junis hirian (12); **kerbala hirian** (9); **khan junis hirian** (12); **kirkuk hirian** (10); **mexiko hirian** (12); **mosul hirian** (17); **nabulus hirian** (10); **najaf hirian** (30); **new york hirian** (9); **rafa hirian** (21); **ramadi hirian** (17); **samarra hirian** (17); **susa hirian** (20); **york hirian** (9); **zen hirian** (34); **ziren hirian** (19); **zituen hirian** (8); **zuen hirian** (23); **zuten hirian** (9)

baionako hiriaren (8); **da hiriaren** (11); **eta hiriaren** (63); **faluja hiriaren** (9); **gure hiriaren** (8); **hiriaren alde** (13); **hiriaren aurka** (18); **hiriaren aurkako** (10); **hiriaren aurrean** (12); **hiriaren beste** (10); **hiriaren erdi** (15); **hiriaren erdian** (17); **hiriaren erdigunean** (10); **hiriaren eta** (26); **hiriaren gainean** (16); **hiriaren inguruan** (29); **hiriaren inguruetan** (11); **hiriaren izena** (10); **hiriaren kanpoaldean** (11); **hiriaren kontra** (22); **hiriaren kontrako** (10); **hiriaren kontrola** (10); **murtzia hiriaren** (13); **murtzia hiriaren aurka** (8); **zen hiriaren** (17); **zuten hiriaren** (13)

eta hiriari (11); **hiriari buruz** (9); **hiriari buruzko** (9); **hiriari eraso** (12); **hiriari erasotzera** (8); **hiriari su** (8); **hiriiaz jabetu** (12)

beste hirietan (16); **bi hiri** (18); **eta hiri** (16); **eta hirieta** (20); **eta hirieta** (38); **herri eta hirieta** (8); **herri eta hirieta** (19); **hiri**en artean (20); **hiri**en arteko (30); **hirieta**n bizi (22); **hirieta**n ere (16); **hirieta**n eta (19); **judako hirieta**n (12)

asis hiriko (13); **baina hiriko** (11); **bere hiriko** (11); **da hiriko** (10); **dira hiriko** (17); **donostia hiriko** (14); **du hiriko** (9); **eta hiriko** (125); **gaza hiriko** (15); **gure hiriko** (13); **hiriko alde** (15); **hiriko alkate** (15); **hiriko alkateak** (8); **hiriko ate** (13); **hiriko ateak** (14); **hiriko auzo** (16); **hiriko azken** (9); **hiriko beste** (22); **hiriko bi** (10); **hiriko bizitza** (10); **hiriko biztanle** (11); **hiriko biztanleak** (8); **hiriko erdigunean** (9); **hiriko eta** (13); **hiriko etxe** (10); **hiriko gizon** (15); **hiriko gun**e (12); **hiriko hainbat** (17); **hiriko harresien** (9); **hiriko istorioak** (12); **hiriko jendea** (9); **hiriko jendeak** (14); **hiriko kale** (27); **hiriko kaleak** (12); **hiriko kaleetan** (30); **hiriko karriketan** (15); **hiriko plaza** (14); **hiriko plazan** (10); **hiriko polizia** (10); **hiriko sarrean** (12); **new york hiriko** (9); **york hiriko** (9); **zen hiriko** (22); **ziren hiriko** (20); **zuen hiriko** (22); **zuten hiriko** (9)

eta hirira (35); **hirira doan** (8); **hirira eraman** (12); **hirira eta** (19); **hirira etorri** (14); **hirira heldu** (15); **hirira iritsi** (25); **hirira itzuli** (33); **hirira itzuli ziren** (8); **hirira joan** (64); **hirira joan zen** (21); **hirira joateko** (8); **hirira joaten** (11); **hirira sartu** (14); **izeneko hirira** (8); **zen hirira** (25); **ziren hirira** (8); **zuen hirira** (9)

beste hainbat hiritan (11); **beste hiri**ren (8); **eta hiritan** (9); **europako hainbat hiritan** (9); **hainbat hiritan** (77); **herri eta hiritan** (9); **hiri**ren batean (8); **munduko hiri**rik (13); **zenbait hiritan** (13)

eta hiritik (24); **eta hiritik kanpora** (9); **hiritik alde** (24); **hiritik alde egin** (13); **hiritik atera** (31); **hiritik atera eta** (11); **hiritik eta** (14); **hiritik ez** (8); **hiritik gertu** (39); **hiritik hurbil** (51); **hiritik ihes** (11); **hiritik irten** (16); **hiritik irten eta** (9); **hiritik kanpo** (25); **hiritik kanpora** (38); **hiritik urrun** (8); **zen hiritik** (8); **ziren hiritik** (8)

hiriz hiri (16)

hirialde 1 iz hiri bat dagoen aldea.

Irak hegoaldeko Amara **hirialdean** . Berria - Mundua

PCF alderdi komunistak, berriz, eskualde jakin batzuetan baino ez du eragin aipagarririk; Prupria **hirialdean** edo Bastian, este baterako. Berria - Harian

Moktada al Sadr imam xiitaren jarraitzaileak matxinatuak dira Najaf, Kerbala eta Kufa **hirialdeetan** .

Samarra **hirialdeko** Ishaki auzunean. Berria - Mundua

Bagdaden, berriz, **hirialdeko** Guardia Nazionalaren agintariorde Moder Maula Abud jenerala hiltzen saiatu ziren. Berria - Mundua

Egun hartan garrasiak izango dira Arrain-atean, aieneak **Hirialde** Berrian, burrunba handia mendixketan. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan)

Irak hegoaldean dagoen Basorako **Hirialde** Kontseiluaren koordinaketa lanean jarduten zuen goi funtzionario irakiar bat tiroka hil zuten atzo. Berria - Mundua

hirialdetar iz hirialdeko biztanlea.

Baino hobe dute segur **hirialdetar** horiek ere, ikustea baduela Euskal Herriak esku eta zangobaloi joko horretaz besterik, eta pilotaren bestak ere besteena balio duela.

 Herria

hiriarte 1 iz hiri elkargoa.

Erran daiteke BAM **hiriarteak** 500 euro gastatzen dituela jende bakoitz. Herria

2 hiriarteko izlag hirien artekoa.

Hiriarteko jende garraioa Transdef-entzat. Herria

Hiriarteko errepideetako, hau da, autobideetako, autobiako, errepide nazionaletako eta bigarren mailako errepideetako ertzetan autoak «banan-banan» zenbatu ditu

Ertzaintzak. Berria - Ekonomia

Hiriarteko egitura bakoitzaren baitan ingurugiro plan zehatzak osatzea. Berria - Euskal Herria

· Uste gabeko debeteak hartu du lehen lekua joan den ostiralean, BAM **hiriarteko** kontseilu bilkuran. Herria

hiribaztertar iz hiri-bazter batean bizi den pertsona. ik hiri 8.

Garbi-garbi gogoratzen dut haren ahotsa; antzinako **hiribazterarraren** ahots patxadatsu, nekabera, sudurkaria, oraingo italiar txistu-hotsik gabea. Juan Garzia

hiribide (ETCn 1.260 agerraldi) iz hiri barneko bide zabalda. ik etorbide.

Hiribide (ETCn 1.260 agerraldi) beti-berdina gora eta gora hedatzen zen, bere zuhaitz handien lerroak, bere etxe apalen errenkadak erakutsiz, bere espalo luze grisaxkak azalduz. **Karlos Zabala**

Filosofoek horregatik nahi izan zuten jakituriaren diziplina **hirutarikoa** izan zedin, hobeto esanda, **hirutarikoa** zela jabetu ziren (ez baitzuten eurek erabaki, aurkitu egin zuten horrela zela). **Imanol Unzurrunzaga**

hirutasun (*ETCn 483 agerraldi*) 1 *iz* hiru izateko nolakotasuna.

Alde eta aldi guztietako kulturetan izan du **hirutasunak** indar mitiko handia. **Joxerra Garzia**

Hirutasun hark Trinitate Saindua sinboliza zezakeela. **Joan Mari Irigoien**

Hinduismoan, jainkoaren **hirutasun** osoa gorpuzten du pikondoak: sustraia (brahma), gerria (Xiva) eta adarrak (Visnu). **Patziku Perurena**

Horrela, aztertu ondoren, ahalmenen **hirutasuna** aurkitzera iristen da: oroimena, adimena eta nahimena. **Imanol Unzurrunzaga**

Maitasun honetan, hain zuzen ere, barrundatzen du Agustinek lehen **hirutasuna**: maitalea, maitatua eta maitasuna. **Imanol Unzurrunzaga**

Garai hartan halako **hirutasun** bat zegoen soinujoleen artean, besteen gainerik ageri zen hirukote bat: Elgeta, Sakabi eta Gelatxo. **Pako Aristi**

2 (H larriz) kristau doktrinan, Jainko bakarraren hiru pertsonen batasunaren dogma eta ezkutukia; hiru pertsonako Jainkoa

bakar hori. ik **trinitate**.

Zalantzarik gabe, geugan aurkitzen dugu Jaungoikoaren **Hirutasunaren** irudia. **Imanol Unzurrunzaga**
Jaungoikoaren **Hirutasun** soil eta aldaezina, Jaungoiko Aita, Jaungoiko Semea eta Jaungoiko Espiritu Santua, Jaungoiko bakarra. **Imanol Unzurrunzaga**
Handiets eta esker dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena, **Hirutasuna** eta Batasuna, Aita eta Seme eta Espiritu Santua. **Askoren artean**
Entzun, **Hirutasun** Santua, gure otoitzak. **Imanol Unzurrunzaga**
-Baita diktadura ere: apaiz-maisu-alkateen **hirutasun** ez hain santuak ezarria. **Joan Mari Irigoien**

3 (hitz elkartuetan)

Hau da arima-zola, non ezkutuan bizi baita **Hirutasun** -irudia. **Joan Mari Lekuona**

hiruxki ik **hiruki**².

hiruzpalau 1 *zenbatz* hiru edo lau.

Bildu zituen **hiruzpalau** morroi eta bizpahiru neskame, eta guztiok joan ginen Pagabasoko leizerat. **Joan Mari Irigoien**
Jarririk zeuden **hiruzpalau** gazte zutitu ziren haserre gorrian. **Daniel Landart**
Duela **hiruzpalau** urte. **Herria**
Ohola **hiruzpalau** metro luze izanzen zen, eta oinak non pausatzen genituen ere ez genuen ikusten. **Alberto Ladron Arana**
Noiztenka desagertzen zen, eta **hiruzpalau** umerekin agertzen berantago. **Elena Touyarou**
Hiruzpalau egunez lanera ez joateko baimena eskatu zuen. **Elena Touyarou**
Zutik ikusi zuen, **hiruzpalau** metrora, bere eskopeta eskuan zuela. **Joxemari Urteaga**
-Hemendik **hiruzpalau** hilabetera. **Fernando Rey**
Hiruzpalau minutuko isilunearen ondotik. **Elena Touyarou**
Lehen **hiruzpalau** orduak lasai samarrak izan ziren. **Juan Luis Zabala**
Hiruzpalau atera zituen eta bere esku gainean marra bana eginaz erakutsi zizkion koloreak. **Jasone Osoro**
Azkenean, **hiruzpalau** aldiz erran zidan amarekin mintzatu nahi zuela. **Daniel Landart**

2 (dagokion izena ezabaturik)

Lana lortutak herrian **hiruzpalauren** artean etxe bat alokatu ondoren. **Pako Aristi**
Egun pare batean edo **hiruzpalauren** erreparatzea nahikoa, ilargia nagitu dela ohartzeko. **Pello Zabala**
Gainera, Diderotek esan zuen bezala, plazer estetikoak emateko bitartekoak **hiruzpalauren** mugatzea absurdua da, hain zuzen ere bitarteko horiek infinituak direlako. **Bernardo Atxaga**
Hiru-lau egun itsas bazterrean eman dezagun eta ondoko **hiruzpalauren** Euskal-Herri barne hortan. **Herria**
Sozialixtak behar litazke berriz nagusitu orai arte gehiengo bazuten zortzi lurraldetan eta gaina hartzen ahal lukete beste **hiruzpalauren**, beharbada bostetan azkenean... **Herria**

hisia (*orobat hisi*) 1 iz amorrua, haserre.

Uste dut "Norbere buruaren herra edo **hisia**", deitzen dutela, ingelesez, psikologo batzuek biguindura berezi hori. **Fernando Rey**

2 gutxieste edo arbuio baten ondoriozko gorroto pasakorra. ik **despit**.

Jendeak sexua hainbeste kakarekin lotuko ez balu -zitalkeria, zeloak, **hisiak**, ziurtasun-eza, txutxu-mutxuak, errezeloak, "ego" harrotuak, kaka eta kaka gehiago-, lagunekin egiteak ez lioke inoiz kalterik ekarriko adiskidetasunari. **Karlos Zabala**
Ezinegon guztiz ere bitxiak hartzen dute; irri egiten du, **hisiak** egoten da, negar egiten du, eta gero irakats diezaiodan erregutzen dit, halako fede on zinez liluragarriaz. **Jon Muñoz**
Auzoko dendari aberats baten semea **hisiaz** bidaiak egitera joan omen zen, Claudiari hitz goxo bat aterarazi ezinik. **Karlos Zabala**
Hisiz eta despit hutsez. **Joan Mari Irigoien**
Halako batean Maryk alea eta zerri bazka saltzen zuen gizon bat ezagutu zuen eta, **hisiz**, harekin ezkondu zen. **Koro Navarro**

3 tema, seta.

Bere jomugara kosta ahala kosta heltzeko **hisia** besterik ez gogoan. **Karlos Zabala**
Aurrera segitzeko **hisiarekin**. **Joxe Austin Arrieta**

hisialdi iz nor bere hartan hisiatua dagoen denbora igarokorra.

Pinpirinak bai, nonahi eta noranahi airatzen direnak, askatasunaren sinbolo, arintasunaren ikur, **hisialdi** batak edo besteak han edo hemen pausatzen dituela. **Piarres Aintziart**

hisiatu (*ETCn 45 agerraldi; orobat hisikatu ETCn 49 agerraldi*), hisia(tu), hisiatzen 1 da *ad* tematu, setatu.

Zeren beti beltzari beha dagoen zuria, **hisikatzen** eta obsesionatzen da, itsutzen da. **Joan Mari Irigoien**
Zeren ni ez bainaiz zuek bezala **hisikaturik** ibiltzen, untzitik jaitsi bezain fite nork larrua gehiago joko. **Joan Mari Irigoien**
Erauziak zizkioten astoari begiak, bi zulo gorri, eta mihia ere bai; une hartan, Herbert harriak jaurtitzen **hisiatu** arren, astoari hesteak uzkitik ateratzeko ahaleginetan ziharduten. **Joxe Austin Arrieta**
Ausart gaitezen, bada, eszeptikoki bada ere, "geure buruaz pentsatzen", Kant gutxi eta gaizki ezagutzen dutenek beti Kanti esanarazi ohi diotenez; edo "ausart gaitezen ulertzen", ilustrazio berri bat galdutuz Nietzsche **hisiatu** den legez. **Joxe Azurmendi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Nola or **hisikatua** ehizaren arrastoan, etsi gabe. **Joan Mari Irigoien**

hisiatuki (*orobat hisituki*) *adlag* hisiaz.

Neure Martini-Drya edaten ari nintzen, bozgorailuak, **hisiatuki**, berritoki bere kalakari ekin zionean: Your attention please! **Joxe Austin Arrieta**
Idazki guztietan hizkerarik zehatzena, garbiena eta jasoena erabil dadila eskatzen dute **hisituki**. **Jose Morales**

hispaniar 1 *izlag* Hispaniari dagokiona. ik **hispaniko**

Hispaniar Filologian katedraduna. **Beria - Harian**

Ez zen sekula iritsi **hispaniar** letrei gustua hartzera, Quevedoren irakurketa sarria gora-behera. Izeia edo izei **hispaniarra** urria den lekuetan, altzifrea, makala, zumarra edo pinua erabiliko dira. **Juan Garzia**

2 AEBetan bizi diren hispanoamerikar jatorrikoei dagokiena.

Kontinente handi horretan nazio handi bat dagoela, eta nazio handi horretan, hiri handi bat, eta hiri handi horretan, berriz, askok arrikutsutzat daukaten **hispaniar** auzo pobrea; auzo bat -lehen hankatig bigarrenean pasatzera noa- ia mundu osoan Bronx izenaz ezaguna dena. **Bernardo Atxaga**

3 espainola.

Trean lau **hispaniar** gentozela jakitean. **Edorta Jimenez**

hispaniko *izond* hispaniarra, Hispaniari dagokiona.

Judu sefardiak, aldiz, jatorri **hispanikokoak**. **Fernando Rey**

Amienseko Ikasketa **Hispanikoan** Zentroko (Frantzia) zuzendari Carmen Vazquezekin. **Beria - Kultura**

Liverpoolgo Unibertsitatean frantses filologia eta filologia **hispanikoan** ere lizentziatu zen. **Beria - Euskal Herria**

Filologia **Hispanikoan** lizentziaduna eta ingelesean diplomaduna. **Beria - Euskal Herria**

hispanista 1 *iz* hispaniar hizkuntza eta kultura aztertzen dituen pertsona.

Aukera dut, adibidez, Elide Pitarello **hispanistarekin** egoteko. **Anjel Lertxundi**

Orduko **hispanista** jakintsuak. **Patziku Perurena**

• 2 *izond* hispaniar hizkuntza eta kulturari dagokiona.

Kitajen obraren atal **hispanista** ezagutzera emateko. **Beria - Kultura**

hispanitate (*orobat hispanidade g.er.*) *iz* espainol hizkuntza eta kulturako herrien multzoa.

Arrazaren, **hispanitatearen** eta Guardia Zibilaren eguna izanik, euskaldunontzat egun iraingarria da.

Hispanitatearen egunean ezer ospatzekorik ez dela adieraziko du AAMk Iruñean. **Beria - Euskal Herria**

Hispanitate eguna lan eta protesta egun bihurtuko dute. **Beria - Euskal Herria**

LAB sindikatuak azaldu duenez, «inposizioa, errepresioa eta Euskal Herriari egiten zaion ukazioa goraitzea adierazten du **Hispanitate** egunak». hemengo bilbotarrak berdin izan zitezkeen sevillarrak edo asturiarrak, adibidez; **Hispanidadean** bizi dira beraz. **Beria - Euskal Herria**

hispano *izond/iz* AEBetan bizi den hispanoamerikar jatorrikoa.

Asko, **hispano** deituak, gazteleraz mintzatzen ziren. **Iñaki Zabaleta**

Latinoen edo **hispanoen** pisu demografikoa handia da. **Beria - Mundua**

Kaltetutako gehienak beltzak eta **hispanoak** dira. **Beria - Mundua**

Alberto Gonzales **hispanoa** izendatu zuen atzo Justizia idazkari eta fiskal nagusi postuetarako.

Neska **hispano** kontratatu batek paseatuko zuen. **Iñaki Zabaleta**

Hispanoen superstizio eta sinesmenak. **Iñaki Zabaleta**

Hispanoen botoa erakarri nahian. **Beria - Mundua**

2 AEBetan bizi diren hispanoamerikar jatorrikoei dagokiena.

Spanglisha gero eta erabiliagoa da komunitate **hispanoaren** artean. **Harkaitz Cano**

Paolaren lagun kolonbiarrek osatzen duten foru **hispanoak** bere lobby izaera erabili du. **Harkaitz Cano**

Mexiko Berrian, hautesleen %38k sustrai **hispanoak** dituzte. **Beria - Mundua**

hispanoamerikar *izond/iz* espainol hizkuntza eta kulturako amerikarra.

Hispanoamerikarre diedan ezinikusi berbera diet haien literatur lanei. **Patziku Perurena**

hispanofilo *izond* Espainia eta espainiarrenganako begikotasuna.

Azken batean, bazkari hau **hispanofiloen** artean antolatu dute. **Edorta Jimenez**

Hemen bildu diren gehienak horko **hispanofiloen** zirkulukoak direla. **Edorta Jimenez**

Tamalez, ni ez naiz egoerak eskatzen duen bezain **hispanofilo**. **Edorta Jimenez**

hista 1 *iz* isekaz imitatzea.

Opera egiten duenarentzat tximinoa da **hista** -eredu. **Xabier Olarra**

2 *hista egin* isekaz imitatu.

Charlyk gibelera zuzendutako ukabillkada baten **hista** eginez agurtu ninduen, boxeolari plantan. **Aingeru Epaltza**

Bozaren idorrean ezagun du gaizki hartu duela bere hitzen **hista** egitea. **Aingeru Epaltza**

- Dena prest, neska-mutilak? -goratu du boza, gazetako western zaharretako protagonisten **hista** nabarmena eginez-. **Aingeru Epaltza**

3 *histak egin* isekaz imitatu.

Pailazoak egiten zuenaren **histak** egiten. **Xabier Olarra**

Aktoreak, tankeran gizonaren **histak** egiten ditu. **Xabier Olarra**

Pailazoak egiten zuenaren **histak** egiten. **Xabier Olarra**

-Zer da hori, jauna? -esan zuen nire azentuari **histak** eginez-. **Fernando Rey**

histagarri *izond* isekaz imita daitekeena.

Beti gauza bitxiak, ez-ohikoak, nabarmenek, **histagarriek** erakartzen dute tourettedunaren begi eta belarria. [Xabier Olarra](#)

histamina *iz* odol hodiak dilatatzea eta giharrak uzurtzea eragiten duen konposatu organikoa.

Histamina jariatzaren duten garuneko zelulei esker gara kontziente esna gaudenean. [Berria - Gaiak](#)

Lo gaudenean zelula horiek **histamina** jariatzeari uzten diote. [Berria - Gaiak](#)

histasun *iz* hitsa denaren nolakotasuna.

Une batez gorputza airean geratzen zitzaidala ere iruditzen zitzaidan, arintasun ilun batean zintzilik, erortzearen itsumenak eragin ohi duen **histasun** horretan bilduta. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ohean obratu beharrak gaixoarengan sortzen duen **histasun** herbala. [Anjel Lertxundi](#)

Histasuna, Hustasuna eta Heriotza. [Oskar Arana](#)

Oraindik ere argitasun haren laztanean dela, baina minaren **histasunean**, aurpegian matraileko ez sobera fuertea du sumatu. [Jose Angel Irigaray](#)

histeria **1** *iz* nerbioen eritasuna, zirrara gorabeherak izatea, sentimenak ezkutatzeta, arazo fisikoak, etab. ezaugarri dituen.

Bazuen begietan halako poz ero bat, **histeria** ezkutu bat, jokaera osoan antzematen zitzaiena. [Koro Navarro](#)

Histeriak jota zaudek, erran zioten elkarri. [Xabier Montoia](#)

Histeria hutsean murgildu zen herri guztia. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Liberazioaren **histeria** bizi dute, ia gurtu egiten dute. [Ramon Etxezarreta](#)

Sorginak eta **histeria** kolektiboa. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Histeriazko umorez. [Xabier Paya](#)

2 (testuinguru teknikoagoetan)

Egiazko akromatopsia zuela, alegia, eta ez **histeria**. [Xabier Olarra](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **histeriko**.

Aldi baterako paralisia moduko **histeria** sintomak. [Berria - Gaiak](#)

Besterik izan zen **histeria** -kolpeena, geuri ere jo ziguna. [Karlos Linazasoro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

histeriak jota (3)

histeriforme *izond* histerikoa.

Halako batean aurrerantz makurtu, eta besartean ezkutatu du burua: intziriak, negar-zotinak eta konbultsio **histeriformeak**. [Patxi Iturritegi](#)

histerika **1** *izond*

Ez al du esaten, ba, **histerika** hutsa dela? [Jokin Muñoz](#)

2 (adizlagun gisa)

Ez zakinat zergatik jarri behar dunan hain **histerika**! [Unai Iturriaga](#)

histeriko **1** *izond* histeriak joa.

Ez zen inolaz ere pertsona **histeriko** bat. [Berria - Kultura](#)

2 histeriakoa.

Uretan plisti-plasta ari diren ume eta ume handien garrasi **histerikoak**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Barre algarra **histerikoa** egin du buruari alde batera eta bestera eraginez. [Patxi Iturritegi](#)

Orain inbaditzen gaituen pentekostalismo **histeriko** jatorri eskaseko honekin. [Karlos Zabala](#)

3 (testuinguru teknikoagoetan)

Berariaz prestatuak baitira xaflok, hain zuzen, koloreekiko itsutasunaren itxurak egiten dituztenak edo koloreekiko itsu **histerikoak**. [Xabier Olarra](#)

Bere erabakiaren estresak mendean harturik egoaren banaketa freudiar bat jasan ote zuen, eta hipermnesiko **histeriko** moduko bat bihurtu harrezkeroztik? [Xabier Olarra](#)

Pubertaroan ezin dutela jan uste duten neska gazteen koadroari apepsia **histerikoa** deitu zion. [Berria - Euskal Herria](#)

Zer pentsa oroitzapen edo fantasia neurotik edo **histerikoez**, denboraren higadurarekiko immunizatuak baitirudite? [Xabier Olarra](#)

Jende olde **histerikoari** eutsi ezinik. [Javi Cillero](#)

4 (adizlagun gisa)

Histeriko jarri nintzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

-Jainkoaren izenean! -esan zion Pomfrey andreak **histeriko**-. [Iñaki Mendiguren](#)

-Ezin dut, Harry, oraindik laurhunen eta hogeita bi orrialde ditut irakurtzeko! -erantzun zion Hermioneek, **histeriko** samar-. [Iñaki Mendiguren](#)

• 5 *iz* histeriak jotako pertsona.

Tootles oihuka hasi zen, **histerikoen** moduan. [Julen Gabiria](#)

Baita mistikoenganakoa ere: alegia, **histerikoenganakoa**, nik esango nukeenez. [Joxe Austin Arrieta](#)

Baina ez da kasualitatea gehienek amaberrioi **histeriko** koadrila bati bezala begiratzea. [Arantxa Iturbe](#)

6 (testuinguru teknikoagoetan)

"Oroipenek eragina izaten da sarritan **histerikoen** oinazea", idatzi zuen Freudek. [Xabier Olarra](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

histeriko bat (5)

histerikoki *adlag* histeriaz.

Nevada Jones luzaz geratu zen sofa gainean eserita, inozoki eta **histerikoki** barreka. **Lopez de Arana**

histerismo *iz* histeria.

Ohikoa zuen **histerismoa**, baina malkoei eusten ikustea ez zen eguneroko kontua. **Unai Iturriaga**

Elikarriketa horren ondorioak ez dituela Carod-Rovirak eragin, Estatu **histerismo** espainolista baizik, informazioa manipulatu. **Berria - Euskal Herria**

histerografia *iz*

Eta **histerografia** gorde egin zuten, sakonago aztertzeko. **Joxan Elozegi**

histiozito *iz* ehun konjuntiboetako zelula, bakterioak irensteko gai dena.

Linfa-sisteman sortzen den minbizi mota bat da Hodgkinen gaitza edo Linfogranulomatosi gaitza deitzen dutena; beste modu batera esanda, **histiozitoen** eta zelula erretikulatuen ugaltze neoplasikoa. **Berria - Gaiak**

histokonpatibilitate *iz* txerto edo transplante bateko emaelearen eta hartzailearen ehunen arteko bateragarritasuna.

Zilbor-hesteko zelulen kasuan, emaelearen eta hartzailearen **histokonpatibilitate** antigenoen (HLA) perfilak ez dute zertan berdinak izan. **Berria - Gaiak**

Halako batean lortu zelarik [...] HLA **histokonpatibilitate** -antigeneak bere baitan biltzen dituen kromosoma-eskualdea azterteza, ikusi zen nola, HLA geneen konbinazio jakin batzuk zeramatzen banakoak beste batzuk baino errazago jotzen zituen eritasun batek edo besteak. **Juan Garzia**

histokonpatibile *izond* histokonpatibilitatea duena.

Litekeena da datorren astean, Giza Ugaltze Artifizialari buruzko Batzordeak ontzat ematea gurasoek beren umeak sendatzeko enbrio **histokonpatibileak** aukera ditzaten.

Berria - Gaiak

Etorkizuneko anai-arrebekin **histokonpatiblea** izango dena aukeratzeko. **Berria - Gaiak**

histologia *iz* biologiaren adarra, animalien eta landaren zelula ehunak aztertzen dituena.

ez dagoela politikarik edo moralik kimikaren eta **histologiaren** baieztapenetan oinarritzen denik. Ikerketa EHUKo Biologia Zelular eta **Histologia** Sailean egin dute. **Josu Zabaleta**

histologiko *izond* histologiari dagokiona.

Asteak beharko dira azterketa **histologiko** eta toxikologikoak egin eta haien emaitzak jasotzeko. Ospe handikoa bere ikerlan **histologiko** eta biologikoengatik. **Fernando Rey**

histologo *iz* histologian espezialista.

Badakizu **histologo** batzuek uste dutela oinarritzko unitate organikoak aurkitu dituztela zelulen protoplasman. **Josu Zabaleta**

Bestalde, **histologoek** ez dute inolako sentimen egiturarik aurkitu, esaten duten horrenbesteko plazera eragiten duenik. **Luis Elberdin**

historia 1 *iz* iraganaldiko gertaera gogoangarrien ezagutza edo kontakizuna; horrela kontaturiko gertaerak.

Historia unibertsalaren paradigma gisa. **Joxe Azurmendi**

Armandoren apaletan bada **historia** garaikideko liburu bat eta irudiei begira egoten naiz batzuetan. **Joseba Sarrionandia**

-Eskolak: takigrafia, astean behin, posta bidez; ingelesa, frantsesa, matematika eta **historia**, edozein ordutan. **Josu Zabaleta**

Historia apur bat dakienak jakin behar luke, bestalde, ustekabe larriak gertatzen direla nazioen eta kulturen bilakaeran. **Piarres Xarriton**

Mundua (**historia**) gurekin batera jaino zelakoan. **Anjel Lertxundi**

Historia aldatzen hasiak ginen. **Koldo Izagirre**

Lehen Erregela-k **historia** luzea izan zuen. **Askoren artean**

Izan ere, mundu honetan bi **historia** zeudek: garaileena eta galtzaileena, eta ni garaile izaiteko jaino ninduan! **Joan Mari Irigoien**

Historia naturala, XVII. eta XVIII. mendean, ez da ezagutzeko era soil bat [...]; batez ere, arau-mulzo bat da, enuntziatuak sailetan taxutzeko. **Xabier Arregi**

Mertxe **historiako** irakaslea zen, Espainiako gaur egungo historia irakasten ziguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Historiako klaseetan. **Eneko Bidegain**

Eta baita geografia eta **historiako** liburuak ere. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Historiako gertakariak so egiten badiegu ere. **Harkaitz Cano**

Historiako azken hiri estatua, Braudelen hitzez esateko [...], Amsterdam izan zen. **Koro Navarro**

Unibertsitateak, **historian** zehar, krisialdietan egin izan du aurrera. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Etterik eta lurrik gabe utzi gintuzten; ibairik, ibarririk, **historiarik** gabe; biluzik. **Berria - Euskal Herria**

Baina **historiaren** urak ez dira beti norabide bakarrekoak izaten. **Anjel Lertxundi**

Euskalduna agrafotzat salatzen duenak "izaera" kontuetara lerritzen du auzia, hots, berezkitasunera edo giza naturara; ez zirkunstantziatar, hots, **historiara**. **Bernardo Atxaga**

Erdi Aroan lokaturiko hiribildutxo hondatua zen, denboraren martxatik eroria, [...] hots, aspaldian **historiatik** baztertua. **Koldo Izagirre**

Ezer gutxi nekien **historiaz**, materialismo dialektikoak, langileriaren emantzipazioaren aldeko ideien arteko lehiaz eta borrokarik; hala ere, ulertzen ez nuena neure ametsez osatzen, neure borondatez ordeztzen nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hartu zituen **historiazko**, literaturazko eta gramatikazko lehen euskal ikastaldiak. **Piarres Aintziart**

1000 urteko literatura, filosofiarik, pentsamenduetako literatura, edota literaturaren **historia** diziplinetan. Xabier Arregi

Zibilizazioen **historiak** gobernatzen dituzten legeak bilatzerakoan. Iñaki Mendiguren

Ekonomia politikoaren **historia** egitea. Xabier Arregi

Springer-en artearen **historiako** bost liburukiak. Josu Zabaleta

Zientziaren **historiako** izen handiak. Iñaki Mendiguren

Filosofia Garaikidearen **historia**. Askoren artean

400.000 urteren **historia** erakutsi digute oren bat eta erdi irauten zuen filman. Herria

Unibertsoaren historia. Juan Garzia

Europaren **historia** laburbiltzen duena. Edorta Jimenez

Euskal Herriaren **historia** beti besteren ikuspegitik kontatu zela. Berria - Kultura

Estatuen **historia** politikoa. Isabel Arrigain

Olinpiar Jokoen **historia** ez baita mugatzen bakarrik azken 108 urteetara. Berria - Kirola

Iruñeko klubaren **historiako** lorpen garrantzitsuenak. Berria - Kirola

Landareen eta animalien **historia** inguratzen duen oroimen-eremua. Xabier Arregi

Zibilizazio Egiptziakoaren **historia**. Iñaki Mendiguren

Erromako errepublikaren **historia** militarrean. Iñaki Mendiguren

Herri baten **historian** aro berri bat noiz hasten den erabakitzeke orduan. Pako Aristi

Orobat izango ziren, zalantzarik gabe, zedarri funtsezkoak biologiaren eta medikuntzaren **historian**. Juan Garzia

Estetikaren **historiaren** urrats nagusiak. Askoren artean

Fusilarekin irabazten dira iraultzak **historiaren** lubakian. Xabier Mendiguren Elizegi

Biziaren **historiaz** ari garenean. Berria - Gaiak

3 (-ko atzikiaren eskuinera)

Mendebaldeko paradigma nagusia, XVII. mendetik Europako **historiak** eman diguna, berreraiki behar dugu. Askoren artean

Erdi Aroko **historian** eta Wagnerren obran aditua naizenez. Alberto Ladron Arana

Alemaniko **historiak** iluraturiko gizona izanik. Alberto Ladron Arana

Azkeneko ehun edo berrehun urteko Euskal Herriko **historia** gogoetatuz. Joxe Azurmendi

Nire denbora da bahitu behar dudana Venezuelako **historiak** liburu batean kontatzeko. Pako Aristi

Mendebaldeko **historiaren** aldi modernoa. Iñaki Mendiguren

Bilduma bat egiten balin badugu agoteen 10 mendeko **historiaz**. Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik historiko.

Historia -jakintzak zalantzan uzten gaitu gizabanakoei buruz. Juan Garzia

Jarraitasun-ezaren adigaiak leku gorena hartzen du **historia** diziplinetan. Xabier Arregi

Kristau-mundua eta islam-mundua borroka gogorrean zebiltzan **historia** -une hartan. Askoren artean

Historia ikasketak egiten ari zela, Euskal Herriko historiaren berririk ia ez zeukala ohartu zen. Berria - Euskal Herria

Nazioetako kodeak eta **historia** -liburuak begi filosofikoz irakurtzen dituen edonork. Juan Martin Elexpuru

Gipuzkoako **Historia** Museoa. Berria - Kultura

UEUko **Historia** Sailak. Berria - Kultura

Michael Powellen *Forty ninth parallel* (1941), gerra garaian filmatutako pelikula, eskainiko dute **Historia** fakultatean. Berria - Kultura

Geronimo de Ustariz **Historia** Institutuak. Berria - Harian

Hor ere **Historia** ikerketak egiten ziren. Michel Oronoz

Liburutegia frankismoari buruzko **historia** -lanez beteta zeukan. Iban Zaldúa

Historia -irakaslea lanbidez. Patxi Iturritegi

Historia arloan Labayruk ondo dokumentatzen du bere lana. Berria - Kultura

Historia jardunaldiak hasiko dira gaur Donostian.

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakiaren ekonomia-**historia** aldaketa zikliko eta gorabeheraz josita dagoen arren, kapitalismoaren historian bi ekonomia krisialdi nagusi nabarmentzen dira. Iñaki Heras

1950eko eta 1960ko hamarraldietan truke-tasek izan zuten egonkortasun erlatiboa finantza-**historiaren** oso aldi berezi bati dagokio. Koro Navarro

Erlijio **historiaren** eta kristautasunaren ikerketa kritiko inportanteekin. Joxe Azurmendi

Pobretasunaren bidea, salbamen-**historia** bezala ulertua. Askoren artean

Maitasun-**historia** zorigaitzeko bat. Juan Garzia

Intolerantzi **historiak**. Iñaki Mendiguren

Gertakizun hau esplotazio-**historia** luze baten zatia dela. Oskar Arana

Egia da giza **historia** ezingo dela inoiz oso-osorik esan. Koro Navarro

6 kontakizuna.

Patrik **historia** bat kontatu zion Joanesei. Felipe Juaristi

Historia hori elezaharra da, ezta? Josu Zabaleta

Iraganeko **historia** zen, amaitua. Juan Kruz Igerabide

Adelak **historia** ezkutu bat zeraman begietan. Juan Kruz Igerabide

Osabak Galileoren **historia** kontatu zidan. Joan Mari Irigoien

Han ere galtzaile baten **historia** egon zitekeen, egon behar zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Doilorkeriaren **historia** unibertsoala geneetan itsatsirik daukagu, mikrofilm batean bezala, eta edozein momentotan zizelka dezakegu koska berri bat oroimen gorde horretan.

Juan Kruz Igerabide

Kontaiezadazu piztia honen **historia**. Josu Zabaleta

Bai, karbono--atomo baten **historia** kontatu nahi nuen. Juan Garzia

Gizon bat, bada, eta bizitza bat, bere **historia** handi-txikiekin, **Historiak** -bere maiusularik izugarriena altxaturik- kontutxo horiek guztiak itzalperatu nahi izan zituen garai latzaren bihotzetik. Juan Garzia

Joan ziren urteak, eta treneko traizioaren historia beste mila **historiaren** artean galdu zen. Liburuko **historiak** kontatzen dituen hori gizon bat da, ez gehiago eta ez gutxiago. Bernardo Atxaga

Corín Telladoren **historiak** leitzen aritzen zen. Joxean Sagartzizabal

Orduan galdetu nion ea zergatik gustatzen zitzaion horrenbeste hura, azken batean oso lur urrunetako **historiak** izaki. Juan Garzia

7 (hitz elkartuetan)

Paperak, azken finean, **historia** -kontalari dira. Felipe Juaristi

Aurora **historia** -asmatzaileak badaki bera ere historia bateko pertsonaia dela. Iñaki Iñurrieta

Xangarin, **historia** -ipuin honetan, pertsona txiki bat besterik ez da. **Pablo Sastre**
Paradoxalki, oroitzapen lazgarizko nire bagajea aberastasun bilakatzen zen, **historia** -hazi. **Juan Garzia**

8 *aurre-historia* historiaurrea.

Euskal-Herriaren **historiaz** eta aurre-**historiaz** axola handia zuen ikertzailea. **Herria**

Euskal artearen erenaldi luzea lau liburukitan bildu du irakasleak, aurre **historiatik** hasi eta XXI. mendeari begira jarriz. **Berria - Kultura**

Kontatu ere kontatu izan da aurre-**historia** hori han-hemenka. **Joxerra Garzia**

Lehenik, behako bat aurre-**historiatik** hasiz orai arte egin den bideari. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

artearen historia (42); **arteko historia** (12); **bai historia** (6); **baina historia** (17); **baita historia** (7); **bakoitzaren historia** (6); **bat historia** (6); **baten historia** (58); **baten historia da** (8); **benetako historia** (12); **bere historia** (101); **bere historia kontatu** (9); **beren historia** (12); **bertze historia** (7); **beste historia** (27); **beste historia bat** (14); **bi historia** (10); **bizitzaren historia** (17); **buruzko historia** (10); **da historia** (55); **de historia** (10); **de la historia** (15); **den historia** (16); **dira historia** (6); **du historia** (25); **duen historia** (16); **dugu historia** (6); **dut historia** (6); **dute historia** (12); **edo historia** (16); **egungo historia** (6); **elizaren historia** (7); **en historia** (7); **ere historia** (19); **espainiako historia** (16); **eta historia** (160); **euren historia** (6); **euskal herriaren historia** (23); **euskal herriko historia** (42); **euskal historia** (13); **euskal literaturaren historia** (19); **euskararen historia** (23); **ez da historia** (11); **ez historia** (8); **familiaren historia** (11); **filosofiaren historia** (16); **gabeko historia** (6); **geografia eta historia** (6); **geure historia** (10); **giza historia** (7); **gizadiaren historia** (6); **gure historia** (77); **gure historia eta** (10); **guztien historia** (7); **haien historia** (6); **haren historia** (27); **herriaren historia** (41); **herriaren historia eta** (9); **herriko historia** (45)

historia aldatzen (7); **historia apur** (6); **historia apur bat** (6); **historia azaldu** (7); **historia baino** (9); **historia bat** (106); **historia bat da** (7); **historia batean** (7); **historia baten** (12); **historia batzuk** (6); **historia beltza** (6); **historia bera** (21); **historia bere** (10); **historia berri** (7); **historia beste** (7); **historia beti** (6); **historia bizia** (9); **historia da** (57); **historia de** (57); **historia de la** (19); **historia de las** (11); **historia del** (13); **historia dela** (7); **historia du** (7); **historia edo** (9); **historia egin** (36); **historia egiteko** (17); **historia egiteko aukera** (6); **historia egiten** (20); **historia ere** (44); **historia errepikatu** (10); **historia errepikatzen** (6); **historia eta** (172); **historia ez** (47); **historia ez da** (17); **historia ezaguna** (6); **historia ezagutu** (7); **historia ezagutzeko** (8); **historia ezagutzen** (10); **historia ezin** (8); **historia fakultatean** (6); **historia garaikidean** (6); **historia garaikideko** (16); **historia geografia** (6); **historia gogoan** (6); **historia guztia** (16); **historia handi** (6); **historia handiko** (9); **historia haren** (8); **historia hau** (43); **historia helenikoan** (9); **historia helenikoaren** (7); **historia honek** (8); **historia honen** (14); **historia honetako** (6); **historia honetan** (12); **historia hori** (53); **historia horiek** (10); **historia horrek** (7); **historia horren** (13); **historia horretan** (7); **historia hura** (24)

historia idatzi (14); **historia idatziko** (8); **historia idatziko dugu** (6); **historia idatzeko** (7); **historia idazten** (7); **historia ikasi** (7); **historia irakaslea** (14); **historia irakurtzen** (6); **historia izan** (14); **historia izango** (7); **historia jasotzen** (6); **historia klinikoa** (8); **historia kondatzen** (8); **historia kontatu** (49); **historia kontatu nahi** (7); **historia kontatuko** (7); **historia kontatzeko** (8); **historia kontatzen** (36); **historia kontatzen du** (9); **historia labor** (7); **historia laborra** (11); **historia liburu** (6); **historia liburua** (7); **historia liburuetan** (22); **historia luze** (17); **historia luze eta** (6); **historia luzea** (38); **historia luzea du** (10); **historia luzean** (15); **historia natural** (7); **historia naturala** (15); **historia naturalaren** (28); **historia nola** (11); **historia ofiziala** (9); **historia ofizialak** (8); **historia orokor** (7); **historia orokorra** (14); **historia oso** (13); **historia osoa** (23); **historia osoan** (27); **historia osoan zehar** (7); **historia osoko** (6); **historia unibertsala** (8); **historia unibertsalaren** (6); **historia zahar** (6); **historia zen** (9)

honen historia (15); **horien historia** (13); **horren historia** (25); **kultura eta historia** (6); **la historia** (27); **la historia de** (6); **la historia del** (6); **lisoako setioaren historia** (38); **literaturaren historia** (39); **magiaren historia** (8); **maitasun historia** (15); **mendeko historia** (8); **munduaren historia** (13); **musikaren historia** (10); **nafarroako historia** (10); **nire historia** (29); **oso historia** (7); **pentsamenduaren historia** (10); **ren historia** (11); **setioaren historia** (41); **taldearen historia** (7); **una historia** (6); **unibertsitateko historia** (9); **urteko historia** (24); **zen historia** (13); **zer historia** (7); **zientzien historia** (7); **zinemaren historia** (10); **zuen historia** (21); **zure historia** (6)

historiagile *(ETCn 474 agerraldi; orobat historiagile ETCn 4 agerraldi) iz* historialaria.

Snorri Sturlason **historiagile** eta poligrafo. **Juan Garzia**

Pabloren semearen seme hau **historiagile** egin eta politikan sartu zen. **Bernardo Atxaga**

Ikerbideak librok, inoren zaindaritzarik eta mugapenik gabe eramateko eskubidea zaindu behar du **historigileak** . **Berria - Kultura**

Askotan **historiagile** ofizialek beste zerbait sinetsarazi nahi badigute ere. **Pello Salaburu**

Historiagilearen lana beti izaten dela lerratua eta motza. **Hasier Etxeberria**

Historiagile izeneko ixtoriogile triste horiei muturra sartzten utzi gabe. **Iñaki Segurola**

• 2 izond

Alferrik, ordea, sena baino morboa **historigileago** izaten baita beti. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta historiagile (3); **historiagile eta** (7)

historiagintza iz historia ikerketak egitea.

Artikuluaren amaieran, ikerlari haren zorixarreko heriotzak Alemaniako literaturan eta **historiagintzan** uzten zuen hutsune beteezinaz mintzatzen zen. **Alberto Ladrón Arana**

historial 1 iz historia kontakizuna.

Kastillako hiri garrantzitsuenetarik bat izana da, dio **historialak**, Castrum Sigerici, Wisigoden garaian sortua den guda leku hau. **Piarres Aintziart**

2 txostena.

Gero, presoen **historialari** begiratu, eta zenbait lagun hartu zituzten División Azulen sartzeko, zure aita barne. **Javi Cillero**

Pazientearen **historialarekin** batera. **Agurtzane Juanena**

Osasun-**historial** osoa eskatu dugu. **Fernando Morillo**

Gainera, beste erabilera batzuetarako ere balia litezke, **historial** akademiko edo medikua izateko, adibidez. **Berria - Harian**

historialari *(ETCn 8.193 agerraldi; orobat historilari ETCn 25 agerraldi) 1 iz* historia ikerketen egilea. ik **historiagile**.

Hogeigarren mendeko **historialariak** . **Iñaki Mendiguren**

Literaturaren **historialarientzat** ez dutela estatus bera egilearen begiradapean argitaratutako liburuak eta bera hil osteko argitarapenak. **Xabier Arregi**

Artearen **historialariek** eta kritikariek. **Josu Zabaleta**

Erlijoien **historialari** Mircea Eliadek dioenez, ez da ezer historian noizbait erlijioaz kutsatu gabekorik. **Askoren artean**

Jean Delumeau **historialari** ospetsuak gorai patzen duena. **Piarres Xarriton**

Egun hauetan zendu da Maurice Haulon **historilari** baionesa. **Herria**

Danberrada bertako eta kanpoko **historialari** askok aztertutako izan dute. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kasu honetan nire **historialari** senak lagundu ninduen. **Iban Zaldúa**

Ez da haatik, idazleak berak dionaz, **historialari-** lan bat, nahiz egiazko lekukotasunetan oinarritzen den, bainan eleberrri bat da, orduko garaia gaurko gazte baten begiekin ikusirik. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Adolf Hildebrand alemaniar eskultore eta arte-**historialariak** argitaratutako teoria. mundu osoko zientzia-**historialariei** . **Josu Zabaleta**

"Lege horiek", dio eliz **historialari** batek, "giza ugaltzea gure arduren ondorio bait izan ezarriak ziren". **Iñaki Iñurrieta**

4 (izenondo gisa)

Bizantziarrek frankoen aurka zuten aurreiritziaren froga gisa, Ana Komnenogreziar printzesa **historialaria** aipa genezake. **Iñaki Mendiguren**

Jose Olarra eta Maria Luisa Larramendi jaun-andre **historialari** tolosarrek. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da historialari (3); **edo historialari** (3); **eta historialari** (15); **goihenetxe historialari** (3); **historialari asko** (3); **historialari askok** (3); **historialari bat** (4); **historialari batek** (8); **historialari batzuek** (5); **historialari bezala** (3); **historialari eta** (26); **historialari euskaldunen** (6); **historialari euskaldunen iii** (5); **manex goihenetxe historialari** (3)

arte historialariak (5); **du historialariak** (3); **eta historialaria** (10); **eta historialariak** (11); **historialaria eta** (6); **historialaria hil** (3); **historialaria hil da** (3); **historialariak berak** (3); **historialariak egin** (3); **historialariak eta** (6); **historialariak ez** (7); **idazle eta historialariak** (4); **x historialaria** (8); **zuen historialariak** (5)

dute historialariek (3); **eta historialariaren** (3); **eta historialariek** (5); **eta historialarien** (4); **hainbat historialarik** (3); **historialariaren arabera** (5); **historialariek eta** (4); **historialarien artean** (5); **historialarien belaunaldi** (3)

historiatxo *iz adkor* historia.

Duane Michalsek **historiatxo** bat, ia beti fantasiazkoa edo naturaz gaidikoa (agerketak, nortasun bikoitzak, eta abar) kontatzen duen argazki-sekuentzia batean. **Josu Zabaleta**

Historia orokorraren norabidea eta geure **historiatxo** partikularra patu berak loturik baleuzka bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

historiatzaile *(orobat historiatzale)* iz historialaria.

Historiatzailearen sinpletasun itxuraren atzean halako joko psikologiko guztiz delikatu bat nabari da. **Juan Garzia**

1962an zenbait garatzer eta **historiatzale** bildu ziren Donibane-Garazin, Jean-Pierre Sallaberry erakaslearen inguruan, xede berezi bat gogoan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

historiaurre 1 *iz idazkera* asmatu aurreko gizadiari dagozkion garaia eta gertaeren multzoa.

Gizakien Historian edo **Historiaurrean** Urrezko Aro bat izan zela sinestea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Historiaurreraino itzuli gabe ere, Grezia arkaikoko lehenengo eskulturak idoloak ziren. **Josu Zabaleta**

Historiaurreko jendeen migrazioekin. **Herria**

Historiaurreko neandertal potroso koadrila negargarri hartatik. **Karlos Zabala**

Aro historikoak ere landu ditu, **historiaurretik** hasita gaur arte. **Berria - Euskal Herria**

Frantzia hegoaldean dauden **historiaurreko** hilobietan. **Anton Garikano**

Historiaurreko hizkuntzetako hitz bakartuak berreraikitzeari heltzen diotenean. **Isabel Arrigain**

Historiaurre eta hitz-aurreko paradisuan, estetikaren tenpluan, euskal arimaren baratze metafisikoan. **Anjel Lertxundi**

Euskal **historiaurre** eta historia ikerketa etnologiko eta etnografikoak ere egin zituen. **Berria - Kultura**

Aranzadi Zientzia Elkarteo **Historiaurrea** saileko zuzendaria. **Berria - Euskal Herria**

Eromako **Historiaurre** eta Etnografia Museoa. **Berria - Kultura**

2 hed

Azkona Estudioan lan egiten zuen jende gehienarentzat zinemarekin hasten zen historia, eta Lumière anaien aurreko guztia **historiaurrea** zitzaien, ilunbea, leizeko bitzita.

Anjel Lertxundi

Ikastolen historiak, ordea, izan du bere **historiaurrea** ere. **Joxerra Garzia**

Baina euskal pentsamenduaren historia baino gehiago **historiaurrea** dena. **Askoren artean**

3 irud

Zuentzat, ordea, gure garaiko kontuak **historiaurrea** dira. Azken orduko software hori **historiaurrekoa** izango dela ikasleak unibertsitatetik ateratzen direnerako. **Joxerra Garzia**

Historiaurre garaian, erran nahi baita ileak zituelarik, frantses kantari batek arrakasta lortu omen zuen kantu ergel horrekin! **Ramuntxo Etxeberri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta historiaurrearen (3); **historiaurre eta** (4); **historiaurrea eta** (3); **historiaurreari buruzko** (6)

historiazale *iz* historiaren zale dena; historialaria.

Ez nion esan ni **historiazale** amorratua nintzela, eta Granma ikusi nahi nuela, iraultzaileak Kubara ekarri zituen itsasontzia. **Jon Muñoz**

Oraingo aldean **historiazale** herrikoiak ez du bere sudurra aitzinatzen. **Michel Oronoz**

Iruñeko Semena-Santxez-en senarra, **historiazale** zombaiten arabera, Santxo Haundiaren bastarta. **Michel Oronoz**

Liburu bat, Eddy Florentin **historiazaleak** egina 2 000 urtean, "11 novembre 1942". **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

historiko *(ETCn 40.658 agerraldi)* 1 izond historiari dagokiona. ik historia 4.

Den-dena **historikoa** da, gizarte honek edo hark sortua; den-dena denboraren mende dago. **Bernardo Atxaga**

Pentsamendua eta kultura, ordea, **historikoak** dira, esan bezala, eta beraz erlatiboak. **Joxe Azurmendi**

Denbora **historikoaren** eskalan. **Iñaki Mendiguren**

Tuzididesek hain maisutasun handiz kontatzen dituen gertakizun **historikoetan**. **Askoren artean**

Antropologia Filosofikoaren bilakaera **historikoa**. **Askoren artean**

Bizidunak milioika urtetako prozesu **historikoaren** ondorioak dira. **Askoren artean**

Analisi **historikoa**, funtsean, garai desberdinetako eraketak plano bakar baten gainean proiektatzean datza. kontakizun **historiko** hutsa egiteko gogo faltaz. **Isabel Arrigain**

Hizkuntza egoera jakin bat faktore **historikoen** emaitza da beti. **Isabel Arrigain**

Ikuspegi **historiko** horretan. **Iñaki Mendiguren**

Frantziskoren irudi **historikoa** berreraikitzeko. **Askoren artean**

Lehen parteak ordena **historikoari** jarraitzen dio. **Askoren artean**

"Moderna" hitza erabiltzen dugunean, aro **historiko** bati buruz ari gara mintzatzen. **Askoren artean**

Joera honek "lege" **historiko** bat argitzen duela pentsa genezake. **Iñaki Mendiguren**

Testu horien kokaleku **historikoa**. **Askoren artean**

Fonetika, zientzia **historikoa** da, gertakizunak -aldaketak- aztertzen baititu eta denboran mugitzen baita. **Isabel Arrigain**

Ingelesaren eta alemanaren gramatika **historikoari**. **Isabel Arrigain**
Gogoratzen al haiz materialismo **historikoari** buruzko batzokiko gau eskolez? **Iban Zaldúa**
Obren garrantzi **historikoaz**. **Juan Garzia**
Zertarako da, ordea, oroimen **historikoa**, ez bagara gauza pertsonen ibilbidea osorik oroitzeko? **Juan Kruz Igerabide**
· Zazpi eleberrri **historiko** idatzia zen hamabi urte bete baino lehen. **Koro Navarro**
Nobela **historiko** ospetsu bat idatzi zuen, *Thaddeus of Warsaw* (1803). **Xabier Olarra**

2 (beste izenondo baten ezkerrean edo eskuinean)

Eremu **historiko** -tranzendentalean. **Xabier Arregi**
Gizarte bakoitzak ditu bereak, bere esperientzia **historiko** -sozialaren arabera. **Joxe Azurmendi**
Testuinguru **historiko** -mitologikoa. **Martin Anso**
Metodo **historiko** -kritikoei esker. **Askoren artean**
Teknikaren filosofiak filosofia positibistari egindako kritika axiologiko-**historikoa**. **Askoren artean**

3 zerbaiten historian gerorako gordea izatea merezi duena.

Lorpen hau mugarri **historikoa** da. **Iñaki Mendiguren**
Egun hartatik hona ugari izan dira egun **historikoak**. **Juan Garzia**
Etorbizunean ikusi behar une **historiko** hau hamarkada **historikoa** bilakatzen den. **Pako Aristi**
Ondorioa Maraton, Salamina, Platea eta Mikaleko porrot **historikoak** izan ziren, hogeigarren mendean Mendebaldean Helasen oinordeko direnek oraindik garaipen **historikotzat** gogoratzen dituztenak. **Iñaki Mendiguren**
*Syntactic Structures*ko 6. kapitulua **historikoa** da psikologo eta hizkuntzalarientzat. **Itziar Laka**

4 historikoki garrantzia izan duena.

Brest hiri **historikora** iritsi gara. **Edorta Jimenez**
Ander Barrutia EAJko militante **historikoa**. **Berria - Euskal Herria**
Nazionalitate **historikoak**. **Berria - Euskal Herria**
-Erdikigo **Historikoena** da lehenbizikoa (Katalunia, Galizia, Euskadi). **Pello Salaburu**
Madariondo **historikoaren** azpiko mugako hesira heltzean, bertan eseri zen. **Koldo Biguri**
Militante **historikoaren** hitzak. **Hasier Etxeberria**
"Lagun" izeneko liburu denda **historikoa**. **Pello Salaburu**

5 benetan izan edo gertatu dena.

Tokian tokiko pertsonaia **historikoekin** (Koperniko, Erasmo) nahiz asmatuekin (Fausto, Peter Schlemihl, Medardo). **Anjel Lertxundi**

6 ez-historiko

Gizakia esentzialki arrazoimenarekin definituz, eta arrazoimena ez-**historiko** gisa ulertuz funtsean, antropologiarik ez da posible. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arrazoi historiko (4); **artxibo historiko** (7); **aukera historiko** (11); **aukera historiko baten** (4); **azalpen historiko** (4); **azterketa historiko** (11); **balio historiko** (4); **beste marka historiko** (4); **bilakaera historiko** (4); **buruzagi historiko** (9); **datu historiko** (4); **dokumentu historiko** (5); **egoera historiko** (8); **errealitate historiko** (4); **eta historiko** (7); **euskadiko artxibo historiko** (4); **figura historiko** (4); **garai historiko** (10); **gertaera historiko** (20); **gertaera historiko bat** (4); **gertakari historiko** (13)

historiko askoren (4); **historiko bakoitzean** (5); **historiko bat** (81); **historiko bat da** (8); **historiko batean** (17); **historiko baten aurrean** (7); **historiko bati** (5); **historiko edo** (6); **historiko eta** (50); **historiko gisa** (9); **historiko guztietan** (4); **historiko hau** (12); **historiko honen** (6); **historiko honetan** (13); **historiko hori** (10); **historiko horiek** (8); **historiko hura** (4); **historiko jakin** (5)

ikerketa historiko (12); **ikuspegi historiko** (5); **interes historiko** (4); **lurralde historiko** (7); **marka historiko** (6); **marka historiko bat** (5); **memoria historiko** (8); **momentu historiko** (6); **nobela historiko** (7); **ondare historiko** (8); **pertsonaia historiko** (8); **prozesu historiko** (5); **testuinguru historiko** (6); **une historiko** (33); **une historiko batean** (4); **une historiko honetan** (7)

a priori historikoa (4); **abagune historikoa** (4); **akats historikoa** (4); **akordio historikoa** (8); **aldarrikapen historikoa** (4); **aukera historikoa** (59); **aukera historikoa da** (5); **aukera historikoa dagoela** (4); **aukera historikoa dela** (4); **aukera historikoa dugu** (4); **aukera historikoa galdu** (5); **azterketa historikoa** (7); **bilakaera historikoa** (7); **buruzagi historikoa** (9); **denbora historikoa** (4); **egia historikoa** (4); **eginkizun historikoa** (5); **egun historikoa** (16); **egun historikoa izan** (6); **eleberrri historikoa** (7); **eskola historikoa** (5); **eta historikoa** (23); **eta historikoa da** (7); **eta memoria historikoa** (5); **garaipen historikoa** (6); **garapen historikoa** (6); **gertaera historikoa** (6); **gramatika historikoa** (6)

historikoa alferrik (4); **historikoa baino** (4); **historikoa baita** (4); **historikoa berreskuratzea** (10); **historikoa berreskuratzeko** (19); **historikoa bizi** (5); **historikoa da** (75); **historikoa da eta** (6); **historikoa dagoela** (4); **historikoa dela** (22); **historikoa du** (8); **historikoa duela** (4); **historikoa dugu** (7); **historikoa edo** (4); **historikoa egin** (15); **historikoa egitea** (4); **historikoa egiteko** (4); **historikoa egiten** (4); **historikoa ere** (7); **historikoa eta** (28); **historikoa ez** (17); **historikoa ez da** (4); **historikoa gainditu** (4); **historikoa galdu** (6); **historikoa hil** (5); **historikoa hil da** (4); **historikoa izan** (51); **historikoa izan da** (8); **historikoa izan daiteke** (4); **historikoa izan zen** (16); **historikoa izango** (18); **historikoa izango da** (6); **historikoa lortu** (11); **historikoa lortu zuen** (4); **historikoa zela** (4); **historikoa zen** (5)

huts historikoa (5); **ibilbide historikoa** (4); **ikerketa historikoa** (4); **ikuspegi historikoa** (8); **lorpen historikoa** (6); **marka historikoa** (14); **memoria historikoa** (51); **memoria historikoa berreskuratzea** (5); **memoria historikoa berreskuratzeko** (17); **militante historikoa** (10); **nobela historikoa** (16); **oinarri historikoa** (6); **ondare historikoa** (4); **oroimen historikoa** (21); **oroimen historikoa berreskuratzea** (4); **palestina historikoa** (4); **pertsonaia historikoa** (9); **politiko historikoa** (4); **priori historikoa** (4); **talde historikoa** (8); **talde historikoa da** (4); **testuinguru historikoa** (6); **une historikoa** (14); **une historikoa izan** (4); **urrats historikoa** (6); **zor historikoa** (7)

aurrekari historikoak (4); **buruzagi historikoak** (4); **dokumentu historikoak** (4); **eskubide historikoak** (41); **eta eskubide historikoak** (7); **eta historikoak** (6); **gertakizun historikoak** (4); **gure eskubide historikoak** (4); **historikoak dira** (16); **historikoak edo** (4); **historikoak ere** (10); **historikoak eta** (15); **historikoak ez** (9); **historikoak izan** (11); **lurralde historikoak** (6); **marka historikoak** (5); **nazionalitate historikoak** (5); **nobela historikoak** (15); **une historikoak** (6)

azterketa historikoaren (8); **buruzagi historikoaren** (7); **eta historikoaren** (5); **historikoaren eta** (7); **historikoari buruzko** (4); **memoria historikoaren** (9); **ondare historikoaren** (9); **oroimen historikoaren** (4); **une historikoan** (8)

eskubide historikoei (5); **eskubide historikoei** (4); **eskubide historikoen** (15); **eskubide historikoetan** (4); **historikoei buruzko** (4); **historikoen arabera** (5); **historikoen eta** (4); **historikoen legea** (10); **ikuspegi historikotik** (4); **ikuspuntu historikotik** (4); **lurralde historikoen** (26); **lurralde historikoen legea** (10)

aukera historikotzat jo (6); **erabakia historikotzat** (5); **erabakia historikotzat jo** (4); **historikotzat jo** (40); **historikotzat jo du** (8); **historikotzat jo dute** (5); **historikotzat jo zuen** (16); **historikotzat jo zuten** (4); **historikotzat jotzen** (5); **historikotzat jotzen diren** (4)

historikoki *adlag* ikuspegi historikoaren arabera.

Aldi luzea izan da guretzat, baina **historikoki** laburra da. **Koro Navarro**

Historikoki, Trieste aparte samar egon da Italiatik. **Anjel Lertxundi**

Historikoki konstataturiko ebidentzia. **Piarres Xarriton**

Esan gabe doa Herodotoren deskribapena **historikoki** fantastikoa dela. **Iñaki Mendiguren**

Erdi Aroaren mugarriak nahiko ondo markatuta daude **historikoki**. **Askoren artean**

Historikoki egiaztaturiko beste adibide batzuek. **Iñaki Mendiguren**

Estatu unibertsalen "eroankortasunaren" argibideak **historikoki** nahikoa ezagutzen dugun beste edozein adibidetatik atera daitezke. **Iñaki Mendiguren**

Lehena **historikoki** artikulatzeak ez du esan nahi 'gauzak ziren bezala' aitortzea. **Joseba Zulaika**

Historikoki, deskonbertsio publikoari "apostasia" deitzen zitzaion. **Joseba Zulaika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina historikoki (3); **da historikoki** (8); **eta historikoki** (12); **historikoki bi** (3); **historikoki eta** (5); **historikoki euskal** (3); **historikoki ez** (6); **izan da historikoki** (3)

historikotasun 1 *iz* historikoa denaren nolakotasuna.

A priori honek ez du saihesten **historikotasuna**: ez du egitura intenporal bat osatzen, gertaeren gainetik eta aldatzen ez den zeru batean. **Xabier Arregi**

Gizakiaren eta instituzioen **historikotasuna** eta garapena denboraren denboran azpimarratzen du beraz (ez instituzioen "arrazoikotasun" denboragabe abstraktua). **Joxe Azurmendi**

Irudikapenaren **historikotasuna**. **Josu Zabaleta**

Oharrok filosofiaren **historikotasunaren** arretazkoak dira oroz gainetik. **Askoren artean**

Arazoaldietan, zenbat eta atzerago geratu orduan eta bizikiago deitoratzen -eta agian **historikotasun** gutxiagoz idealizatzen- diren egoera zoriontsuago haietako batera itzultzeko ahalegina. **Iñaki Mendiguren**

Suposatzen da, bestalde, **historikotasunaren** forma bakarrak eta berberak biltzen dituela egitura ekonomikoak, gizarte egonkortasunak, pentsamoldeen inertzia, ohikuntza teknikoak, jokaera politikoak, eta guztxei eraldaketa-mota bera ezartzen diela. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan)

Diskurso hauek euren **historikotasun** -mota berezia dute eta historikotasun ezberdinen multzo oso batekin harremanean daude. **Xabier Arregi**

Eraketa diskurtsiboek ez dute kontzientziaren ibilbideak duen **historikotasun** eredu bera. **Xabier Arregi**

Matematiken hasiera ikertzen dela gutxiago gertaera historiko bezala eta gehiago **historikotasun** -haastapen gisara. **Xabier Arregi**

historio ik istorio.

historiografia *iz* historiografoen lanen bilduma.

Antso Gartzetz III.a Nagusiaren inguruan bi **historiografia** ari dira elkarrekin lehia. **Berria - Kultura**

Frantziskotar **historiografia** kritikoari hasiera eman zion P. Sabatier-ez geroztik. **Askoren artean**

Historiografia Kronologia bihurtzea. **Askoren artean**

Historiografia espainola bera, euskaldunek sortua izan baita, hain zuzen. **Patziku Perurena**

Historiografia liberalak pertsonaia bat asmatu du [...] historiaren subjektu bat. **Joxe Azurmendi**

Historiografiak, ordea, Elvis Presleyri eman dio ohore hori, eta 1954ko uztailaren 5ean finkatu du rock-and-rollaren jaiotza. **Berria - Kultura**

historiografiko *izond* historiografiari dagokiona.

Eztabaida **historiografikoak** onak dira beti. **Berria - Kultura**

Lan **historiografikoa**. **Isabel Arrigain**

Oinarri **historiografiko** handiaren gainean idatzia dago. **Berria - Kultura**

historiografo *iz* bere garaiko historia ofiziala idazteko agintzen dioten idazlea.

K. a. VII. mendean idatzi zituzten Israelgo **'historiografoek'** *Josue, Epailak, Samuel* eta *Erregeak* liburuak -geroago etorriko ziren *Kronikak*, IV. mendean, eta *Makabearrak*, II. mendean-. **Jose Antonio Mujika**

Historiografo eta epaile ezgaiek. **Ibon Uribarri**

historioño ik istorioño.

historizatu, historiza, historizatzen du *ad* testuinguru historikoan kokatu.

Eztabaidak eta kontzeptuak **historizatu**. **Joxe Azurmendi**

Astiro-astiro bakarrik etorriko da, kontraesan eta borroka artean, **historizatuz**, konkretatuz, indibidualduz, norbanako erreala bilakatuz. **Joxe Azurmendi**

historizismo *iz* historiak giza errealitate osoa azaldu dezakeela dioten doktrina.

Eta zer da espiritu europarra, historiagintza hemendik aurrera eskuan berak daukana? erlatibismoa! (**historizismoa**, esango nuke nik). **Joxe Azurmendi**

Orduan erlatibismoa gaur egun aurkitu, perspektibismo, **historizismo**, soziologismo, psikologismo, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab., gisan aurkitzen da de fakto. **Joxe Azurmendi**

Kanten proposamenaren irakurketa berria **historizismoan** ere aurkitzen dugu, XX. mendearen hasieran, Wilhelm Dilthey-ren eskutik. **Askoren artean**

Popper-en etengabeko falibilismoa, eta geroxeago **historizismoa**, zientziaren iraultzen bihotzeraino murgildu ziren. **Askoren artean**

historizista 1 *izond* historizismoari dagokiona.

Lehen Mundu Gerraren biharamunean espiritu **historizista** eta erlatibista nagusi zen Alemanian. **Joxe Azurmendi**

Nire lanaren atzean ez dago inolako asmo **historizistarik**. **Berria - Kultura**

Esaten digute hau anakronismo **historizista** dela, edo Arkadia zoriontsua aldarrikatzen ari garela. **Berria - Kultura**

Illo beretik, Xabier Zubiri donostiarrak [...] pentsamendu **historizista** garaiakidea kritikatu nahi izan zuen. **Askoren artean**

2 *iz* historizismoaren aldeko historialaria.

Batzuk, **historizistak** deiturikoak, zientziaren historiarekin uztartzen saiatu ziren diziplina. **Historizistak** bezala semantizistak ere Kuhnek proposaturiko gaizerrendatik at geratzen dira. **Askoren artean**

histrion (orobat *histrion g.er.*) 1 *iz* Grezia eta Erromako antzinako teatroko antzezlea, mozorroturik aritzen zena.

Askotariko mitologia dibergenteak irazkitu zituzten **histrionek**; batzuek aszetismoa predikatu zuten, beste batzuek lizentzia, denek nahasmena. **Juan Garzia**

Handik lau hilabetera, Aveninoko errementari batek, **histrionen** trikimailuek liluraturik, burdinazko esfera handi bat ezarri zuen bere semetxoaren sorbaldan gainean, haren dobleak hegan egin zezan. **Juan Garzia**

Hortik, nik ez dakit nola, gorrengana eta **histrionengana** pasa gara, hauek keinuz eta hitzik gabe ezagutzera ematen baitute ikus daitekeena ez ezik guk hitzez aditzera eman dezakegun gehiena, ia dena. **Imanol Unzuurrungaga**

2 bufoia.

Ondo agerian azaldu zen haiengan zezenketa-ikuslearen morala; besteari, gudu-zelaian soldaduari, **histrionari**, zirkuko toreroari ausardia eskatzen zion koldarraren morala.

Josu Zabaleta

Histrion dantzariak. Imanol Unzurrunzaga

Histrion nagusia, pailazo ofiziala. Xabier Montoia

histrioniko *izond* histrionari dagokiona.

Eroaren gisan maitemindu zen Madam Tschissik izeneko antzezle **histrioniko** batez. Koro Navarro

Joseba bere gaitasun **histrionikoaz** baliatu da orduan. Bernardo Atxaga

Ametsen pintore **histrionikoa**. Berria - Kultura

-Beste batzuetan **histrionikoa**, esajeratua eta neurririk gabea da. Joxean Agirre

Aureliano heresia **histrionikoaren** azalpen bat gaineratu zion bere lanari. Juan Garzia

histrionikoki *adlag* era histrionikoa.

Berrito ere aldatu egin du tonua, eta zakar itxuraz jarraitu du, **histrionikoki**. Bernardo Atxaga

histrionismo *iz* histrionaren jokaera.

Histrionismoan erori gabe. Javi Cillero

Pinturaren eta **histrionismoaren** arteko mugan. Berria - Kultura

Elementu berezi batzuk ere gehitu dizkio Barsacq eszenografoak, halanola; bi umeak, hankaluzek, Oscar-en **histrionismo** markatua... Ramon Fontserre izan da kasurik larriena: benetan ez dugu ulertzen nolatan jauzi daitekeen **histrionismo** errazean bera bezain estimagarria den aktorea. Berria - Kultura

histu (*ETCn 424*), hits, histen 1 da/du *ad* hits bihurtu.

Hola segituz ez ote zaiote beren lorea laster **histuko**? Herria

Arrastiria bazterrak **histen** ari da jada. Aingeru Epaltza

Denboran atzera eginez gero, ordea, **histu** egiten zitzaizkien koloreak, bizitasuna galtzen zuten. Imanol Zurutuza

Eusebioren kopeta ilunaz ohartu eta, begitartea **histu** zitzaion. Eneko Bidegain

Oroitzapen zaharrek ahotsa **histu** baliote bezala. Anjel Lertxundi

Zapaten beltza pixka bat **histua** zaio, baina galtzak eta atorra ezinago beltzak ditu. Berria - Kultura

Itxura hori **histen** ari da ordea. Eneko Bidegain

Emakume gaztea da, baina nekeak eta etsipenak gogoa **histu** diote. Berria - Mundua

Ilusioak **histu** ditu. Berria - Euskal Herria

Haren ganik daukat euskararen alderako maitasuna, nehoiz, bizian zehar, **histu** ez zautana. Herria

Zaindari beltzen antzera, zorionari nire ariman sartzea debekatzen, mundua **histen**, margultzen, belzten. Alberto Ladron Arana

Aroa arrunt **historik**, fandangolarien lehiaketa ez da pilota plazan egin bainan sahetseko aterbepean. Herria

Historialari bezala nolako arrangura zuen beti egiaz egi ari nahi, deus edertu edo **histu** gabe. Herria

Behin baino gehiagotan bargoak hiltzeko labana eskuratu zuen gerlan zendu aitaren omena **histen** zuen bikotearen kalitzeko. Itxaro Borda

Aurtengo uda idorrean gure mendiak poxi bat **histen** hasi badira ere. Herria

Tinduak **histen** ari baitzaizkio. Herria

Nagiak kendu gabe, begiak behartu nituen argi murrizak **histutako** letra sailera. Aingeru Epaltza

Bista ordukotz doi bat **histua** zuen, trabak zituen irakurtzean. Herria

Itxaropen argia lano beltz batzuek **histua**. Herria

Gero, gorridura hura ematen hasi zen, amatatzen, eta ordainetan albo ertzak zuritu zitzaizkien hodei molkoiei, eta gero ezta hori ere, arretu **histu** egin ziren, ortziko itsaso beti bare hartan disolbatzen hasitako pintura arrastoak bailliran. Iñaki Iñurrieta

2 (era burutua izenondo gisa)

Besaulki gorrimin **histu** baten gainean. Lopez de Arana

Tabako-hauts zirimirri etengabe haiek ziratekeen haren apaiz-jantzi zaharrei itxura urdin **histu** hura ematen zietenak. Irene Aldasoro

Itsas haizeak, mailu eta mailuxka kanken hots **histuak** zekarzkieten belarrietara. Aurelia Arkotxa

Bizpahiru lore **histurengatik** galdu dik beraz bizia? Daniel Landart

3 ezin *hiskuzko*

Kristoren piztearen lorian parte hartuko baitute, deusek ezin **histuzko** betiereko zorionean. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat **histua** (3); **histen ari** (5); **histu ditu** (3)

histura 1 *iz* goibeltasuna; tristura.

Hau **histura**, hau samina. Edorta Jimenez

Ez dugu deus galdu, baina malenkonía edo behazun beltza hor dago; ez: hemen dago; tristura, **histura**, hustura, gabea, eta gainera beltza, itzal lodi baten kolorekoa. Iñaki Segurola

Heroi transgalaktiko zangomotza iduri zuen, sugar desgisatu eta lekuz kanpokoa "Lisboako" **histuran**. Aingeru Epaltza

Armairuaren itzalean morfina hodiak begiztatu nituenean, halako **histura** batek hartu ninduen. Itxaro Borda

2 beheraldia.

Pinochet, Xileko president eta diktadore ohia, 89 urtetan, arras gaizki da burutik beheiti berriki ukan duen **histura** larri batekin. Herria

Zenbait denbora hautan, osagarria doi bat kraskatua zuen eta azken **histura** batek ereman du bi egun barne. Herria

hit 1 *iz* arrakasta handia, eskuarki musika arinean.

Tabernetako dantza, flamenko edo teledistako **hit**-en zaleek. Urtzi Urrutikoeetxea

"Han zeuden kokodrikoa eta tximua..." da udaroko **hit** aldazkina. Iban Zaldua

Ez dira bakarrik Jennifer Lopez eta Ricky Martinen **hit** edo musika arrakastak zerrrenden lehen postuetan. Berria - Mundua

80ko hamarkadan izan zuen **hit** handiena. Berria - Kultura

2 **hit-parade** arrakasta handienen zerrrenda.

Handik aurrera Loiola Herri Irratian entzuleek gehien eskatuko zutena, garaiko benetako **hit**-parade bat, "Zure urtebetetzia". Iñigo Aranbarri

Koldartuta dabilta eta egiazko intelektualeen lehenengo legea ahazturik, **hit**-paradeetako arrakasta hutsalarekin nahasten dute euren zeregina. Hasier Etxeberria

hitano 1 iz hikako hitz egite era, hiketa.

Hitanoa da, jakina, lagunarte girokoa. Koldo Zuazo

Trinkoen **hitanoak** sortu zituen buruhausterik handienak. Koldo Zuazo

Hitano femeninoa menderatzea. Patziku Perurena

Hizkera neutroko *ni naiz*, esate baterako, *ni nuzu* da zuketan eta *ni nuxu*, berriz, xuketan, **hitanoan** *ni nauk* eta *ni naun* diren bezala. Koldo Zuazo

Hitanoarena da beste bat, diotenez nekez berreskuratuko duguna. Joxerra Garzia

Alexek beti jotzen zuen **hitanora**. Fernando Morillo

Zuka hasitako elkarrizketa **hitanoz** amaitu dugu, Berria - Kirola

2 **hitanoko izlag**

Ez zen samurra **hitanoko** adizkiak bateratzea. Koldo Zuazo

Gizonezkoen **hitanoko** 2. pertsonetan, berriz, *k* da ezaugarria (*duk, dakik*). Koldo Zuazo

Dirudienez, XX. mendekoak dira **hitanoaren** aurkako erasorik gogorrenak. Koldo Zuazo

hitiar *izlag/iz* Kam-en biloba Heteren leinukoa.

Esauk, berrogei urte zituela, bi emakume **hitiar** hartu zituen emaztetzat. Elizen arteko biblia

Urias zure zerbitzari **hitiarra** ere hila gertatu zen. Jose Antonio Mujika

Betsabe da, Eliamen alaba, Urias **hitiarra**ren emaztea. Jose Antonio Mujika

Efron han zen, beste **hitiar** guztien artean eserita. Jose Antonio Mujika

Soroaren eta harpearen jabetza **hitiarren** eskuetatik Abrahamenera pasatu zen, hilobi-leku izateko. Jose Antonio Mujika

Begira -esan zien-, honetan ezagutuko duzue zuekin dagoela Jainko bizia, eta zuen aurretik botako dituela kanaandarrak, **hitiarrak**, hibiarrak, periztarrak, gixgaxtarrak, amortarrak eta jebustarrak. Jose Antonio Mujika

Gero, Sararen gorpua zetzan lekua utzirik, **hitiarrengana** joan eta esan zien: [...]. Elizen arteko biblia

hitita *izond/iz* K. a.-ko II. mendean Anatolia inbaditu zuen eta bertan inperio handi bat sortu zuen herri batekoa; herri horri dagokiona.

Dumuzi babiloniarri, Osiris egiptoarri, Telipinu **hititari**, Ugariteko Baali eta beste hainbat jainkori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Urias **hititaren** emaztea. Elizen arteko biblia

Jupiter Dolikenoren gurtza **hitita** helenizatua. Iñaki Mendiguren

Alexandro-aurreko Gizarte Helenikoaren lehiakideak Gizarte Siriakoa eta Gizarte **Hititaren** gerakin fosilizatua, etruskoak, izan ziren. Iñaki Mendiguren

"Asia" ez da ziur aski greziar hiztegiara bidea aurkitu zuen izen **hitita** bakarra. Iñaki Mendiguren

Uste da *basileus* hitza [...] Biyassilis benetako errege **hitita** baten izenetik datorrela. Iñaki Mendiguren

Alderdi haietan **hititik**, amortarrak, kanaandarrak, periztarrak, hibiarrak eta jebustarrak bizi ziren. Elizen arteko biblia

Salomonen merkatariek **hititen** eta aramearren errege guztientzat ekarri ohi zituzten halakoak. Elizen arteko biblia

Hititen lurraldera joan eta hiri bat eraiki zuen. Elizen arteko biblia

hititera *iz* hititen hizkuntza.

Bidaia horretako emaitza zientifikoak, alegia egoera onean edo txarrean dauden **hititerazko** eta fenizierazko hainbat aztarna, lantzea eta argitaratzea. Anton Garikano

Korda hitza **hititeratik** dator, nonbait, eta "heste" esan nahi du hizkuntza horretan. Iñaki Heras

hitlerzale *izond/iz* A. Hitler-en aldekoa.

Banekien gazte **hitlerzaleen** talde askotan komisario politiko bat egoten zela. Anjel Lertxundi

Leihatilaren gainean *Quex* **hitlerzale** gaztea pelikularen horma-trudi handi bat zegoen. Anjel Lertxundi

Askotan ikusi nuen **hitlerzale** gazteen jantzian, eta uniformeak ere dotore egiten zion. Anjel Lertxundi

hits 1 *izond* zurbila; bizitasunik ez duena edo agertzen ez duena; goibela, tristea.

Kale zabal bat ikusten zen, etxe zuri handi batzuekin, eta argi elektrikozko bi ilara **hitsekin**. Josu Zabaleta

Unairen begiek argitasun **hitsa** bereganatua zuten berriz. Aingeru Epaltza

Ile-adats marroi **hitsa**. Mirentxu Larrañaga

Haren oroitzapenetan, kolore **hitsez** agertuko ziren urte haiek. Aingeru Epaltza

Hortz-ilara **hits** eta lustre gabea agerian utziz. Mirentxu Larrañaga

Haren begi berdeen distira **hitsa** bilatu nuen argibide eske isilean. Aingeru Epaltza

Erabat itxi gabeko betazalen artean zuri ageri ziren ninirik gabeko begi itzali **hitsak**. Jose Morales

Haren aurpegiera **hitsa**, horixe baizik ez nuen aurkitu. Aingeru Epaltza

Erreka tzar baterat eroria eta handik planta **hitsean** ateraila. Janbattitt Dirassar

Geltokira iritsi naiz egun **hits** eta euritsu honetan. Pako Aristi

Aro **hitsa**, aintz tokitan elurra. Herria

Euskal Zerbitzu Sekretuen buruzagiaren esaldia dilindan gelditu zen bulego **hitsaren** egurats pisuan. Alberto Ladron Arana

Leku **hits** eta itogarrietan sentitzen zen eroso. Joxean Agirre

Gertakari **hits** eta ilunak ere izan dira jasoaraz, hala nola Itoitzi herriaren suntsitzea Nafarroan. **Herria**

Umore pixka bat jarri nahi izan nuen sala **hits** hartan. **Inazio Mujika Iraola**

Gelatzat zuen hilkutxa **hits** hartara sartzen utzi zion. **Oskar Arana**

Chadefaud-ek hiltzera kondentatuen zerrrenda **hitsa** azaldu zuen. **Itxaro Borda**

Igandean, usaian bezala izan nintzen Parisen baina hiria dena hutsa eta **hitsa** kausitu nuen. **Janbattitt Dirassar**

Don Karlosek Zornotzan sinatutako akordio **hitsaren** ondoren. **Txillardegi**

Beldur ginen berri **hitsa** etorri zitzaigun. **Txillardegi**

Nire pentsamendu **hitsetan** murgildurik. **Joxemari Iturralde**

Urrutiko lekuetan gertatutako sarraskien gainean gogoeta **hitsetan** aritzea geratu ezinik. **Oskar Arana**

Gerla guziek sortarazten duten ondorio **hits** bat, gosetea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Beterano askoren patu **hitsa**. **Txillardegi**

Baina ez-entzuna egin diot barnetikako eresi **hitsari**. **Txillardegi**

Aza zuri ikaragarriak, trinkoak eta gogorrak, metal **hitsezko** bolak bezalakoak. **Karlos Zabala**

2 (izan aditzarekin)

Hits, triste, gelditu zen atzo euskalgintza Andolin Eguzkitzaren bat-bateko heriotzaren berri izandakoan. **Berria - Ekonomia**

Ondoko egunak **hitsak** izan ziren biziki. **Janbattitt Dirassar**

Aroa zen ainitz tokitan **hitsa**. Aurpegi guztiak grisak eta **hitsak** ziren. **Herria**

Ixtripu handiguziak **hitsak** eta latzak direla. **Herria**

Negua **hitsa** izan zen enetzat. **Txillardegi**

Melodia **hits** samarra zen, motela eta ez oso bizia. **Urtzi Urrutikoetxea**

3 adlag

Eta hantxe egongo duk Cecily, **hits**, dotore, lerden, bere ezpainei ausikika, ni gorrotatzen, bizitza gorrotatzen... **Lopez de Arana**

Agureak, **hits**, baietz egin du buruaz. **Urtzi Urrutikoetxea**

Erdi-hila, **hits** eta ilun, lehoin gaizoak bildu du kaska, ausiki, zauri eta min, orroño bat doi-doi dezakelarik egin. **Herria**

Zeren zorionak zuri baitira; zuri, faltsu, ustel, hutsal, merke, **hits** eta huts. **Iñaki Segurola**

Kanpoan, berriz, errealitateko bizitzan, arrotz, huts, hil eta **hits** aurkitzen zuen mundua. **Xabier Olarra**

Hitza hitz edo gizona **hits** ! **Herria**

4 (hitz elkartuetan)

Arras polliki iragan da, aroak **hits** -aireño bat ukanik ere. **Herria**

Aro eztiagoa bainan **hits** aire batekin aste ondar huntan. **Herria**

Estore astunek motelduriko argi **hits** -herabea ohe gainean nagi zetzan. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agur hits (3); **balentria hits** (4); **berri hits** (4); **bezain hits** (6); **bezain hits eta** (5); **doinu hits** (3); **edo gizona hits** (3); **egun hits** (4); **eta hits** (15); **gela hits** (3); **gertakari hits** (5); **giro hits** (3); **gizona hits** (4); **hits airea** (6); **hits bat** (20); **hits batean** (5); **hits batek** (3); **hits baten** (5); **hits eta** (42); **hits eta huts** (3); **hits haiek** (5); **hits hartan** (8); **hits hori** (7); **hits horietan** (3); **hits horrek** (4); **hits horrekin** (3); **hits horren** (5); **hits hortan** (4); **hits hura** (7); **ixtorio hits** (6); **molde hits** (3); **soinu hits** (3)

argi hitsa (3); **aro hitsa** (13); **aro hitsa zelarik** (3); **aroa arrunt hitsa** (4); **arrunt hitsa** (5); **aski hitsa** (3); **berri hitsa** (11); **berri hitsa hedatu** (4); **biziki hitsa** (4); **denbora hitsa** (4); **eta hitsa** (11); **gauza hitsa** (4); **gauza hitsa dela** (3); **gertakari hitsa** (5); **giro hitsa** (3); **hitsa da** (5); **hitsa dela** (3); **hitsa egin** (3); **hitsa eta** (9); **hitsa hedatu** (4); **hitsa hedatu da** (3); **hitsa izan** (10); **hitsa izan zen** (3); **hitsa izana** (3); **hitsa izana gatik** (3); **hitsa zelarik** (3); **hitsa zen** (6); **partida hitsa** (6); **partida hitsa egin** (3); **zen hitsa** (3)

aro hitsak (3); **aro hitsarekin** (5); **balentria hitsak** (9); **berri hitsak** (4); **egun hitsak** (5); **gertakari hitsak** (3); **historiak daukan hitsenaz** (3); **hitsak dira** (3); **hitsak eta** (8); **hitsak izan** (4); **hitsenaz elkar hartuta** (3); **huntako berri hitsenetarik** (3); **manera hitsak** (3); **manera hitsean** (4); **ondorio hitsak** (4)

hitsarazi, hitsaraz, hitsarazten du *ad* histera behartu.

Batzuetan, erlaino esnetsu mugikorrek argia **hitsarazten** zuten. **Aurelia Arkotxa**

hitz 1 iz hizkuntza batean, berezko esanahia duen hots edo hots multzo txikienetako bakoitza; multzo horren adierazpide idatzia; hitz egitea; esaten dena.

Har dezagun "Obedientzia" **hitza**. **Askoren artean**

"Ministro" **hitza** laurogeita lau bider agertzen da haren idazkietan. **Askoren artean**

Latinezkoak **castaldus hitza** erabiltzen du. **Askoren artean**

Pitagorasek **filosofia hitza** asmatu zuen. **Jon Muñoz**

Azentu hitzaren lehen adieraren inguruan. **Lourdes Oñederra**

Idatziz zein ahoz, **hitza** hizkiek osatzen dute -grafiek edo fonemek, berdin dio orain-. **Luze hitza**, esate baterako, motz-motza da. **Iñaki Arranz**

Bigarren **hitze**ko g hori. **Iñaki Arranz**

Bortxaketa: hori da Petrusi ahotik atera nahiko liokeen **hitza**. **Oskar Arana**

Mozorrotzea, hura zen **hitza**. **Harkaitz Cano**

Hitzak berak adierazten duen bezala. **Jon Alonso**

Kafea edaten whisky-zorrotadaxto batekin, zeinaren helburua baitzen hura **-hitza** nekez etortzen zaio burura- lubrifikatzea. **Oskar Arana**

Uste dut gure... (**hitza** aurkitu ezinik zebilen Perrette) kohabitazioko une erabakigarri batean gaudela. **Jon Muñoz**

Hitzaren etimologiak berak erakusten duen bezala. **Josu Zabaleta**

Hitzak ahoskatze modua, onginahizko begirada, eskuen mugimendua, aski izan zituen ezkutuko mezua igortzeko. **Imanol Zurutuza**

Horra, gure kontrako testigantzarako izanen da harri hau, Jaunak esan dizkigun **hitz** guztiak entzun baititu. **Elizen arteko biblia**

Hitz bat esatea aski duzu. **Oskar Arana**

Hitz gutxiarekin hainbeste argi egiten ari zaigun Einsteinek. **Iñaki Segurola**

Ongi aukeraturiko **hitz** gutxi batzuk xuxurlatu zituen. **Iñaki Mendiguren**

Nire gogoeta, **hitz**, egite eta ez egite guztien epailea. **Jenaro Garate**

Bakoitzak esan dituen alferreko **hitz** guztien kontu eman beharko du auzi-egunean. **Elizen arteko biblia**

Hiru **hitz** bakarrik zeuden idatzita: Arrautzatik urtetera doa. **Iñaki Mendiguren**

Ez naiz oroitzen zer esan genion elkarri, ezta **hitz** bakar batez ere. **Oskar Arana**

Ezin ziotela **hitz** bat bera ere sinetsi. **Jose Morales**

Bazekiela zientziaren muina **hitz** gutxitan azaltzen. *ik beherago* 34. **Jose Morales**

Bere historia kontatu zidan, **hitz** gutxitan. **Agurtzane Juanena**

Etia horien **hitza** entzun duen Jersusalemgo kaleetan erorri da hilotzik. Elizen arteko biblia

Nire **hitza** onartzen duenak ez du inoiz heriotzarik jasango. Elizen arteko biblia

Jainkoaren **hitza** predikatuzera. Askoren artean

Eta Jauna ari zen haiekin, egiten zituzten mirariekin **hitza** baietsiz. Askoren artean

Ez diot **hitz** bat ere esango. Oskar Arana

Zuk **hitz** hauek irakurtzean, ni ez nauzu dagoeneko bizien munduan izango. Jon Muñoz

Gauza bera erran zuen Anizeto Aita Sainduak beste **hitz** hauekin: "Apostoluen Aulkira behar dira ekarri apezpikuei buruzko auzi guztiak". Piarres Xarriton

Izkiria itzazu **hitz** hauek [...]. Xabier Kintana

Hitz hauekin hasten zen Grosrouvreren fitxa: [...]. Jon Muñoz

Itsuek ikusmena berreskuratzen dute, gorrek entzumena, mutuek **hitza**. Askoren artean

Neska, **hitza** hitzari nola lotu jakin gabe, isil-isila geratu zen. Patxi Zubizarreta

Hitzari hitza nola-hala lotuz, baitezpadako istripu batez zerbait azaltzera abiatu nintzen. Aingeru Epaltza

Asmatzailea, ordea, diru eske hasi zen hitzari **hitza** josi ezinik, mihia lodi-lodi eta trabuka. Anjel Lertxundi

Urduri, hitzarekin **hitza** janez. Anjel Lertxundi

Gaszte Abertzaleak taldeak arma bakarra **hitza** dela esan du. Berria - Euskal Herria

Interpretazio honen haritik, ez dira harritzekoak Xabier Arzalluzen **hitzak**. Berria - Euskal Herria

Pujolen lehen **hitzak**, eguneko gai nagusiar buruzkoak izan ziren. Berria - Euskal Herria

UPNk ez ditu CENeko presidentearen **hitzak** kritikatu. Berria - Euskal Herria

Ibarretxeren esanetan, PSOEK «**hitzak** utzi eta zerbait egiten hasi» behar du. Berria - Euskal Herria

PPK Donostiako alkatearen **hitzak** gaitzetsi izanari erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Handik Pekinera hamalau egunetan eramaten ditu mezuak posta zerbitzuak, hogeita hamar kopek **hitzeko**. Karlos Zabala

2 (izenlagun eta izenondoekin)

Siriar **hitz** horrekin egileak Talmudaren garaiko doktoreak adierazten ditu. Xabier Kintana

Hitz japoniarrak euskaraz emateko modu zuzena. Ibon Uribarri

Ekialdeko **hitz** bat (sosa) mendebaleko deklinabide marka batekin (-gaz) loturik. Pello Salaburu

Mundu honetako gazi-gezak utzi eta partitzera prestatzen ari den norbaiten etsipenezko **hitz** atzerritar beldurgarriekin. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Idatitza dagoen **hitza** hitz mutua da. Jon Alonso

Hitz urri baina zehatzak erabiliz. Jose Morales

Samurtasuna **hitz** ederra da, esanahi sakonekoa, eta beti maitasunari eta txerari lotua. Luis Elberdin

Hitz goxoren bat esatea komeniko zela erabaki nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Berekoia, haurrei **hitz** gozo bat esateko ezgauza. Juan Kruz Igerabide

Amore eman eta **hitz** onez erantzuten badiezu, zerbitzari izanen dituzu beti. Elizen arteko biblia

Poz-pozik gelditu ziren **hitz** adoregarri haiekin. Elizen arteko biblia

Aldi berean, ordea, **hitz** eraikitzaileak nahiko zituen, noski: Ignazioarekiko maitasunez edo halako atxikimenduz idatziak, behintzat. Patxi Altuna

Shevirev doktoreak **hitz** labur-zehatzez lasaitzen zuen. Jose Morales

Lapurren haizuloan sartzeko **hitz** magiko sekretua. Anjel Lertxundi

Kristoren sinesle bezala duzuen jokaera onaz gaizki-esaka ari direnak beren **hitz** gaiztoez lotsatuko dira. Elizen arteko biblia

Hustu, horra **hitz** zitala, hotsez gaiztoa. Joxan Elozegi

Hitz motelagoak aditzerat eman zituen, aldiz, Afganistanen berreraikuntza aipagai izan zuen bilera batean parte hartu zuen Irango Atzerri ministro Manusher Mottakik. *ik beherago* 42. Berria - Mundua

Oraindik begira nengoen, adar txiki hark esaten zituen **hitz** harroengatik harriturik. Elizen arteko biblia

Hitz nahasiak dira, urrunak, ele-hots ia zehaztu gabeak. Itziar Otegi

Ezpata bezain zorrotza dute mihia, geziak bailiran botatzen **hitz** pozoitsuak. Elizen arteko biblia

"Atsoa", "areroia": horra bi **hitz** gorrotagarri, bi maskara. Bernardo Atxaga

Ahosabaia ehizaren gustua bereizten du; era berean buru-argiak **hitz** gezurtiak. Elizen arteko biblia

Ezkutaleku hitza oso **hitz** arrunta bilakatu da. Josu Zabaleta

Eskolako solas-jolasetako **hitz** zaharkituez. Juan Garzia

Arabieraren egitura bera txit egokia zen **hitz** abstraktuak adierazteko. Jon Muñoz

Ez **hitz** jakintsuen bidez, baizik koherentziaz eta xalotasunez. Askoren artean

Ez didate uzten **hitz** zikinik esaten. Oskar Arana

Hitz bihurri eta itzulinguruak, apaindura hutsalak. Askoren artean

Lagunak laguna hiltzeko edo hil zorian erruki eske isuritako **hitz** garratza, gerrarako eta bakerako **hitz** ozena, maitasunerako eta gorrotorako **hitz** zuria, bizitarako eta heriotzarako **hitz** erabatekoa, haurra loarazteko eta zaharrari hilobian laguntzeko **hitz** errukizkoa. Berria - Mundua

Hitz puta bat ere ez, ulertzen? Oskar Arana

Hitz onomatopeiko batean, edozein **hitz** kontzeptualetan baino jakinduria zuhurragoa gogal jaso baitu gizonak. Patziku Perurena

Hiztegiatan sarrera bakarra dute **hitz** polisemikoek, sarrera ezberdinak **hitz** homonimoek. Iñaki Arranz

Hitz zaharkitua. Jose Morales

Hitz totel batzuk egiten zituen hala ere, tarteka. *ik beherago* 42. Xabier Mendiguren Elizegi

-Maisu -hasi zen Harry **hitz** etenekin-, zure hegaztiak... Iñaki Mendiguren

Glosa horiek, beren **hitz** euskarriarekin, baliagarri dira edozein motako azterketarentzat. Piarres Xarriton

-Bere **hitz** ezin-taxuzkoago haiek guztiak. Joxe Austin Arrieta

Errusiarra irrikaz baitago beti **hitz** bihotz-altxagarri hori entzuteko. Jose Morales

Gogoan ongi iltzatuta geratuak zitzaizkion **hitz** tolesdurarik gabeak. Imanol Zurutuza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitz bukaeran inoiz agertzen ez diren *f*, *h* eta *j*. Iñaki Arranz

Hitz hasieran, bertso lerroen bukaeran... **Hitz** elkarketak batetik, eta aurrizki-atzizkiak gaineratzeak bestetik. Iñaki Arranz

Hebreerazko **hitz** -erroi piamonterazko atzizki-joko eta esamoldeak erantsiz osatuak. Juan Garzia

Hitz serieak ditugu, beraz, **hitz** kateak. Iñaki Arranz

Hitz segida horien elkarren arteko lotura errepikapenak ematen du hein handi batean. Iñaki Arranz

Fonema, morfema eta **hitz** mailan gertatzen den bezala. Itziar Laka

Ingeles poesian guztiz bereziak diren **hitz** harmoniak. Koro Navarro

Dena egingo bailukete **hitz** -trukaketa soil batez. Jon Alonso

Alabak ulertu ez zion **hitz** -andana arranguratuaz aritu zen gero. Anjel Lertxundi

Hitz lerroak neurtzea. Iñaki Arranz

Irudirik ez dagoenez, irratian **hitz** -hutsarteak galgarri dira oso. Andoni Egaña

Estilistaren **hitz** -sorkari asmotsuak. Juan Garzia

Izan ere, *irri eta mirri* bezalako esapide lexikalizatuak gogoan, **hitz** pare berriak sortzea denon eskuera dago. Iñaki Arranz

Hitz -gako baten bila saiatu zen Nora. Anjel Lertxundi

Ez dela onartzen egia azaleratzen duen **hitz** -arrazoi ahalguztiduna. Askoren artean

Etxea **hitz** -hotsez / betetzen du telebistak. Pako Aristi

Ilargiaren zilarrezko argitan murgiltzea bezalakoa da haurrarentzat gauero bere amaren **hitz** -hotsarekin begiak ixtea. Pako Aristi

Jainkoaren erreinua ez da **hitz** -kontua, egintza-kontua baizik. **Hitz** -dotorekeriazko araubide zital baten arabera eginak zituen zuzenketak. Elizen arteko biblia

Bere bizi-inozentziatz, **hitz** -xalotasunaz, bihotz-garbitasunaz. Askoren artean

Inork ez hau gonbidatu **hitz** -festa honetara, Txirrita! Joxerra Garzia

Hitz -jasa batek harrapatu ninduen. Oskar Arana

Geltoki aurreko tabernaraino lagundu zidan **hitz** -erauntsi haren ondoren. Anjel Lertxundi

Hain **hitz** -uholde handia zerion, ezen entzutea beste aukerarik ez baitzegoen. Jose Morales

Buruan **hitz** -eraso bikainak antolatu, eta gero, une erabakiorra iristean, esaten ausartzen ez. Juan Garzia

Ez baitziren guztiak hizkuntza berean mintzo, eta inork ez baitzekien nirea, eta **hitz** -nahasmen handia baitzebilien. Juan Garzia

Eztabaida eta **hitz** -liskarretarako joera gaixoa duena. Elizen arteko biblia

Kandido Izagirre fraile **hitz** -biltzaile finak. Iñaki Segurola

· Legelariak erantzun zion mundua **hitz** -jalez beterik dagoela. Jose Morales

Semearekiko zorra ere tipiagoa izan zitekeen, biharamunean, atzartzean, aita **hitz** -jalea ondoan aurkituz gero. Aingeru Epaltza

Gaixo gazte **hitz** -gabe batek musikari eta dantzari erantzuten zien. Xabier Olarra

Oso **hitz** -zekena zen bere egitandien berri emateko orduan. Juan Garzia

-Po... Po... Potter -esan zuen Quirrell maisuak **hitz** -totelka. *ik beherago* 46. Iñaki Mendiguren

Hitz motela naiz, hizketan traketsa. Jose Antonio Mujika

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Josek Israelen semeei zin- **hitz** hau eginarazi baitzien: [...]. Elizen arteko biblia

Zuei eta biziadun guztiei emandako itun- **hitz** honetaz oroituko naiz. Elizen arteko biblia

Mehatxu- **hitz** bat aski dut, itsasoa lehortu eta ibaiak basamortu bihurtzeko. Elizen arteko biblia

Madarikazio- **hitz** hauek jaulki zituen: [...]. Askoren artean

Kito betiko orduan haren haserre biziak, mehatxu guztiak eta gaitzespen- **hitz** ziztrinak. Mirentxu Larrañaga

Aholku- **hitz** gozoz eta zentzuzko errietaz. Askoren artean

Ohiko aurkezpen- **hitz** adeitsu batzuk xuxurlatu ondoren. Ander Irizar

Hitz eman zion gomendio- **hitz** onez goraiatu zuela. Mirentxu Larrañaga

Agur- **hitz** adeitsuei zein buru-makurtu atseginari esker, aise irabazi zuen emakumearen estimua. Jose Morales

Nire barkamen- **hitz** duintasungabeek. Oskar Arana

Behin ere ez diezu maitasun **hitz** bat entzuten ezeri buruz. Bernardo Atxaga

Zuhur- **hitz** hau arbuia egin ohi dute zentzukoitasunarekin eta norberaren izatearekin barkabera direnek. Joan Mari Lekuona

-Nire hitza zaldun- **hitza** da, eta ez dut jateko asmorik. Martin Anso

Jainkoa "Arrazoimen- **Hitza**, logosa, Jainkoa eta Semea, Jesukristo". Felipe Juaristi

Zailtasunik handiena beraz, errima- **hitz** aski aurkitzean datza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

XX. mendeko azken laurdenaren giltza- **hitza** elkarrekiko mendekotasuna izan zen. Koro Navarro

Ezin nuen gogoratu pasa- **hitz** berria ohera itzultzeko. Iñaki Mendiguren

Egunean bi aldiz gutxienez aldatzen zuen pasa- **hitza**. Iñaki Mendiguren

Thomas kode- **hitza** zuen polizia-operazio bat. Jon Muñoz

Eta ikur- **hitza** ? Koro Navarro

5 agintza, agintzen edo promesten den gauza.

Hitza hitz!... eta... joanak joan! Ni leku madarikatu horretatik hitza nola aterako burua ahitu beharrean, eta haiek zalapartan: "hitza **hitz**, hitza **hitz!**" **Hitza**, konpai, **hitza** da, eta auzi honetan nik bete eta zuek jan egin duzue. Aingeru Epaltza

Baina ez jan emandako **hitza**. *ik beherago* 57. Elizen arteko biblia

Ni leial izan nauzunez, emadazu **hitza** zeu ere hala izango zarela nirekin. Elizen arteko biblia

Askoz hobe duzu hitzik ez ematea, emaniko **hitza** ez betetzea baino. Elizen arteko biblia

Ezkontza- **hitza** ere lortua zuen. *ik beherago* 12. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zin eginez berretsi zuen bere **hitza**. Iñaki Iñurrieta

· **Hitza** ez haudala Osasunbidean salatuko. Aingeru Epaltza

6 hitzen bidez aipatzen den nahia.

Batasunak euskal herritarren **hitza** errespetatzeko eskatu dio Frantziari.

Zapaterori euskal gizartearen **hitza** onartzeko eskatuko dio Erraztik. Berria - Euskal Herria

7 *p/*abesti edo musika zati baten testua.

Jean Bordaxarrek berak sortzen ditu abestiak, bai **hitzak** eta baita **musika** ere. Berria - Kultura

Piarras Gatzonek idatzi zion **musika** eta **hitzak** bere izpiritutik isuri ziren. Itxaro Borda

Sagarroi **musika** taldeko abeslariak badaki zer den **hitzak** idaztea. Berria - Kultura

Musika nik egindakoa da, eta **hitzak** nireak eta Lete, Irigarai, Anjel Lertxundi eta Abel Muniategirenak. Berria - Kultura

Nolabait, kantuetan uztartuko dira, berez, **musika** eta **hitzak**. Berria - Kultura

Xabier Leteren **hitzak musika** garaikidearekin uztartu ditu. Berria - Kultura

Kantuaren **hitzak** ederki gogoratuz hasi zen kantatzen. Xabier Olarra

Hitzak: Aitor Sarasua, musika: Niko Etxart. Herria

8 *hitze*ko *izlag*

Pertsonaia batek isilean bizi duenaren **hitzeko bertsioa. Xabier Arregi**

Bai **hitzeko eta bai egiteko irain guztien menpe jartzen zuen. Askoren artean**

Hizkuntza, **hitzeko komunikazioan objektuen forma sinboliko bezala. Josu Zabaleta**

Hitzeko irudia ez dela hotsarekin berarekin nahasten, eta **hitzeko irudi hori psikikoa dela. Isabel Arrigain**

Hitzeko deskribapen oro eskas gertatuko da. Juan Garzia

Hitzeko konpromisoa hartu du. Bego Montorio

Hitzeko akordio moduko bat. Berria - Ekonomia

Aurreko gauean eman zidagun **hitzezko** zafraidiaren ostein. Oskar Arana

Hitzezko tratu txarrak jasan nituen, bestelakoez gain. Berria - Euskal Herria

Nire aberria harrizko herri da, **hitzezko** eta hitzekoa. Joxerra Garzia

Hitzezkoa edo ikono bidezkoa. Josu Zabaleta

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako ezintasuna. Xabier Olarra

Hitzezkoa ez den hizkuntza ere oso garrantzitsua dela. Luis Elberdin

Hitzezkoaren eta mimetikoaren (edo analogikoaren) bereizkuntza hori oinarri-oinarrizkoa da edozein narratologiatarako. Josu Zabaleta

9 azken hitz

Moko-guri hari azken **hitza** ez uzteko erabaki sendoa. Jon Muñoz

Guztiarekin ere hauteskunde batzordeak du azken **hitza**. Migel Angel Mintegi

Unibertsitate pribatuek zer ikasketak eskaintzen dituzten eta non eskaintzen dituzten erabakitzeak, administrazioak izan beharko luke azken **hitza**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egon eta entzun dezagun bukaera, azken **hitza** zure izango da. Jon Alonso

Gizakiak egitasmoak, Jaunak azken **hitza**. Elizen arteko biblia

10 bi hitz

Bi **hitz** anatomiari buruz. Luis Elberdin

Bakartasunaz **bi hitz**. Herria

Bi hitz, bi hitz, ez da erraz bi hitzez bakarrik bakardadearen mundua aipatzea. Filipe Bidart

Bi hitz esan nahi nizkizuke. Elizen arteko biblia

Irribarretxo bat, sentimendu handiko **bi hitz**, esker oneko zirkinen bat. Anjel Lertxundi

11 ez hitz eta ez hitzondo

Erregea ez **hitz** ez hitzondo geratu zen tamainako edertasunaren aurrean. Patxi Zubizarreta

Errefera niri zegokidan, baina ez **hitz**, ez hitzondo gelditua nintzen. Aingeru Epaltza

Une labur batean ez hitz **ez hitzondo** egon zen, baina laster bildu zuen kemena. Patxi Zubizarreta

12 ezkon hitz

Baina bat-bateko ezkon-**hitz** hura ez al zen jasotako kolpeari erantzuteko modu bat? Ibon Uribarri

Ezkon hitza emana zuen neskatila zen orain. Patxi Zubizarreta

Ezkon-hitza emateko jaia. Oskar Arana

Ezkon-**hitza** eman gabeko neskatxa norbaitek lilurutzen badu eta harekin oheratzen, dotea eman eta emaztetzat hartu beharko du. Elizen arteko biblia

Biharamunean, **ezkon-hitza** hautsi zuen. Jon Muñoz

13 hitz-aspertu (orobat hitzaspertu) iz

Errautsezko esanak dira zuen **hitz**-aspertuak, buztinezkoak zuen erantzunak. Elizen arteko biblia

Horrek aukera emango digu **hitz**-aspertu polit bat egiteko. Lopez de Arana

Goiz batean, gosarian, **hitz**-aspertu eder bat hasi nuen, ikaslea nintzela esateko. Fernando Rey

Eta, hala, gerratik itzuli nintzenez, **hitz**-aspertu bat egin nian Krisztinaren aitarekin. Xabier Olarra

Elkarrekin izan genuen **hitz**-aspertuaren erdian, ametsa ekarri nuen jardunaren harira. Anjel Lertxundi

Hietzingeko etxeko gaueko **hitz**-aspertu haiek, maisu eta ikaslearen arteko jardunaren tankera hartu zuten. Xabier Olarra

Ez dakizu zenbat gauza jakitera irits zaitezkeen itxuraz interesik gabeko bizpahiru **hitzaspertu** egin ondoren. Jon Alonso

Irratietako **hitz**-aspertuak entzutea edota egunkariak irakurtzea. Bernardo Atxaga

Irrati edo telebistako **hitzaspertu** luzeetan. Pako Aristi

- Edonon, edozelan, **hitz** aspertuan aritu beharra. Paddy Rekalde

Eta itsas-haizeak aurpegia belzutako arrantzale batzuk **hitzaspertuan**, godalet lodiak harrigarriko abidan husten diren mahai baten inguruan. Berria - Kultura

- Nahiago nuke mutil gazte horrekin **hitz**-aspertutxo bat izateko modurik banu. Mirentxu Larrañaga

14 hitz batean

Hitz batean, beraien biziera diziplina-ispilu izatea nahi zuen gainerakoentzat. Askoren artean

Hitz batean, zoriotsuak ziren. Jose Morales

Hitz batean, ohiz kanpoko poza eta alaitasuna barreiatu zuen. Jose Morales

- Titi eta izter neurri-neurrikoak, ahots lodi miragarria, bikaina, **hitz** batean esanda, paregabea, estatua greko bat bikiniz jantzia. Karlos Zabala

Jendaila motz, ergel, badaezpadako eta, **hitz** batean esanik, okaztagarria. Iñaki Segurola

15 hitz batez hitz batean.

Hitz batez, oso litekeena da berriro sekula ez hitz egin nahi izatea nirekin. **Hitz** batez, txikizioak, han eta hemen, ahalik eta osoenak burutu. Oskar Arana

Prest, **hitz** batez. Txillardegi

16 hitz bereko

Hots, hortan eta beste batzuetan, izanen dute lan hiruak **hitz bereko** izaiteko. Herria

17 hitz beste/bertze egin

Hitz-beste egiten zuen, baina ni teman: elkartuko gara berriz udaberrian? Fernando Rey

Uste izan dut ildo horretatik jarraituko zuela, baina **hitz**-beste egin du segituan, eta kontu arinekin jarraitu. Bernardo Atxaga

Hitz beste eginez, operazioaren gorabeherak kontatu zizkidan. Rafa Egiguren

Hurrengo batean deituko diok... -eta, **hitz** beste eginda, zera galdetu dizu bat-batean: Harrapatu hindugun egunean pistolarekin al henbilen? Rafa Egiguren

Hitz-bertze egin beharrez, mahats sorta bat bildu nuen, lagungarri. Aingeru Epaltza

Dianak **hitz** bertze egin zuen, arestiko solasera. Aingeru Epaltza

-Azkar hasi haiz araudia hausten -egin nion **hitz** beste, bortxarik gabe. Inazio Mujika Iraola

18 hitz bitan

Piztiari zegokionez, berriz, esan dit ez dela **hitz** bitan azaltzeko gauza. Juan Garzia

Hitz bitan esateko: giza grinen frogabide, horixe duzu zubia. Patziku Perurena

Behar da, bestalde, arrautza horretan, material hori guztia antolatzea ahalbidetuko duen "zerbait" [...] **hitz bitan**, materiari forma emango dion zerbait. Juan Garzia

19 hitz-egilesup_1 (orobat hitzegile)

Xoraturik atxiki gaitu 2 oren pasatu direlarik ohartu gabeen, hain zen **hitz egile** goxoa Jakes. Herria

Har "profeta" hitzak "**hitzegile**" adierazten duela. Piarres Xarriton

20 hitz-egilesup_2 ik gorago 7.

Gaur egun, sortzen al dira fadoa idazten duten musikariak eta **hitz egileak**? Berria - Kultura

60ko hamarkadaren erdialdetik aritu zen jotzen, baina Bernie Taupin **hitz egilea** ezagutu eta elkarrekin lan egiten hasi ziren arte beste musikari batzuen laguntzaile baino ez

21 hitz eginsup_1 (orobat hitzegin g.er.)

Hitz egingo diot, bada, erregeari zure alde. **Elizen arteko biblia**

Hitz egiten zion ahotsa entzuten zuen. **Xabier Kintana**

Jesus berririo parabola-bidez **hitz** egiten hasi zitzaien: [...]. **Elizen arteko biblia**

Ongi da, orduan zeren inguruan **hitz** egin dezakezu? **Oskar Arana**

Manas, **hitz** egin dugu horren gainean lehen ere. **Oskar Arana**

Hori ez duk niri **hitz** egiteko moldea. **Patxi Zubizarreta**

Gehiegi **hitz** egiten dudala irudituko zaik. **Jon Muñoz**

Hemen egon zen artean ez genuen ba askorik **hitz** egin. **Oskar Arana**

Hain ongi **hitz** egin zutenez, judu eta greziar askok sinetsi zuen. **Elizen arteko biblia**

Bihotzera **hitz** egiten duen argia. **Joan Mari Lekuona**

Ez dut menderatzen txukun **hitz** egitearen antze zail hori. **Jose Morales**

Oso apal **hitz** egiten zuen, xuxurla baino ozta-ozta goraxeago. **Oskar Arana**

Argi eta garbi **hitz** egin dut. **Jose Morales**

Gorri-gorri jartzen baita, eta totelka **hitz** egiten du. **Josu Zabaleta**

Jaunka **hitz** egiten zigun. **Anjel Lertxundi**

Berak zuka **hitz** egiten zuen beti. **Bernardo Atxaga**

Ez da gizalege onekoa italieraz erantzutea dialektoan **hitz** egiten dizunari. **Juan Garzia**

-Ondo **hitz** egin! **Jon Muñoz**

Ni ikaragarri otxanduta, gixaixotuta azaldu nintzen psikiatraren aurrera, eta zuri-zuri eta gixon-gixon **hitz** egin nion. **Iñaki Segurola**

Emakumeei ez zaie zilegi batzarrean **hitzegitea**. **Elizen arteko biblia**

Baina ez naiz **hitz** egite aldera **hitz** egiten ari. **Migel Angel Mintegi**

· Ez egin bada, **hitz** askorik. **Xabier Kintana**

· Pentsa ezazu zure hizkuntza bostehun milioik edo gehiagok **hitz** egiten dutela. **Bernardo Atxaga**

Guk **hitz** egiten dugun hizkuntza hau **hitz** egin zenuten. **Bernardo Atxaga**

· (*idatziz*) Hirugarren liburuan ordena joniarrari buruz **hitz egiterakoan**. **Santiago Iruretagoiena**

22 hitz eginsup_2 (-ekin atzizkiaz)

Etxeakoandareekin **hitz** egitera joan zen, hobeto ezagutzeko asmoz. **Jose Morales**

Elihuk ez zuen ordura arte Jobekin **hitz** egin. **Elizen arteko biblia**

Morroiarekin **hitz** egiten ikusi ninduan. **Lopez de Arana**

Hitz egin al dezakegu zurekin, Lurie jauna? **Oskar Arana**

Zatoz, beraz, horretaz elkarrekin **hitz** egitera. **Elizen arteko biblia**

Lagunarekin **hitz** egindakoa kontatu zion. **Aritz Gorrotxategi**

23 hitz eginsup_3 (-z atzizkiaz)

-Zertaz **hitz** egin duzue? -galdetu zion, handik denbora puska batera. Munduko arazoez **hitz** egiten. **Xabier Olarra**

Zertaz **hitz** egin behar du anaia txikiak emakume batekin. **Askoren artean**

Jaunaz **hitz** egiten zien eta hura gorestera gonbidatzen. **Askoren artean**

Berak ezer ez dakien gauzez **hitz** egin duelako. **Xabier Kintana**

Orain, prezioaz **hitz** egin dezagun. **Jose Morales**

Kontu txiki bati buruz **hitz** egin nahi nuke zurekin. **Jose Morales**

Ez da-kite beren buruaz **hitz** egiten. **Bernardo Atxaga**

Hitzegin beharra daukat orain adierazten ez dakidanaz; **hitzegin** beharra daukat gaitzaz eta heriotzaz. **Bernardo Atxaga**

· Ahots argiz frantsesez **hitz** eginez. **Askoren artean**

Ez dugu latina ulertzen, **hitz** egiguzu alemanez. **Askoren artean**

Goardianoari konfiantzaz **hitz** eginez, honela hasi zitzaion esaten: [...]. **Askoren artean**

Telefonoz **hitz** egin genuen. **Josu Zabaleta**

24 hitz eginarazi

Nola demontre **hitz** eginarazi behar diogu honi? Zuek nik arrazoiari **hitz** eginaraz diezaiodan nahi duzue. **Oskar Arana**

Formulei **hitz** eginarazi. **Jon Muñoz**

Hitz eginarazten zion, arretaz aditzen zuen. **Monika Etxebarria**

Haiek **hitz** eginaraziko diote! **Jose Morales**

Hildako bati **hitz** eginarazi baitzion. **Jon Alonso**

Printzeei erretorikoen gisan **hitz** eginarazten zaie. **Iñaki Iñurrieta**

Begietara begiratzen zidaan, **hitz** eginarazi nahian balebilkit bezala. **Xabier Olarra**

25 hitz egite (orobat hitzegite)

Eta min egiten diola **hitz egite** hutsak. **Hasier Etxebarria**

Hitz egite eta entzute aktiboa. **Fernando Morillo**

· Bata bestearen aurka **hitz egite** hura bi diletanteen arteko esgrima-saio soila baitzen. **Anjel Lertxundi**

Ez zaik iruditzen beronika **hitz egite** hori... gu bezalako bi libertarioentzat... **Inazio Mujika Iraola**

Bakarrik **hitzegite** hura ez zitzaion parte onekoa iruditu. **Karlos Linazasoro**

· Erakunde armatuarekin **hitz egite** hutsa gaitzesten dutenen hipokrisia. **Berria - Euskal Herria**

26 hitz elkartu

Hitz elkartuak nola idatzi behar diren. **Iñaki Arranz**

Hitz elkartu eta esapide jakin batzuetara mugatuko dugu gure jarduna. **Iñaki Arranz**

Hitz elkartu berriak asmatzea da hurrengo urratsa. **Iñaki Arranz**

Izan ere, **hitz elkartua** osatzen duten bi hitzek alderantziko ordena hartzen badute, esanahia guztiz bestelakoa izaten da askotan, eta horrek kontrastea sortzen du. **Iñaki Arranz**

27 hitz eman ik hitzeman.**28 hitz eragin**

Izan ere, jakinduriak **hitz** eragin zien mutuei, argi eta garbi mintzarazi haurtxoei ere. **Elizen arteko biblia**

Ongi egin du dena: gorrei entzunarazi eta mutuei **hitz eragin**. **Elizen arteko biblia**

izulpenak itzulpen, eta hitz jateak **hitz jate**, hara, ordea, zer idatzi zuen jatorrizkoen moralista eskoziarrak. [Iñaki Heras](#)

Ondotik **hitz jate**, batzuen sudur luzeegia deitoratuz. [Herria](#)

Euskaldun Gazteriak, MRJC elkarteko Euskal Herriko adarrak, gogorki salatzen du frantses estatuaren **hitz-jatea**. [Herria](#)

39 hitz joko

Zelanok **hitz**-jokoa egiten du *ultio* (mendekua) eta *unctio* (gantzuketa, igurtzia) hitzen artean. [Askoren artean](#)

Oso zabala da **hitz** jokoen mundua. [Iñaki Arranz](#)

Ezin **itzulizko** hitz-jokoa. [Jose Morales](#)

The Importance of Being Earnest, **hitz**-joko bat da; Wildek jolas egiten du berdin ahoskatuagatik esanahi desberdina duten bi hitzekin: alegia, *earnest* adjektiboa ("serioa", "formala"), batetik, eta Ernest izena, bestetik. [Antton Olano](#)

40 hitz jolas

"Hitz jokoak" izenak berak ere **"hitz jolasak"**, aukeran- alde gutxiesgarria du. Espekulazio desinteresatura emanak, **hitz**-jolas burutsura, eztabaida dotore, sofistikatu eta doakora. [Iñaki Arranz](#)

Tradizio handiko **hitz jolasa** da *contrepèterie* delakoa frantses hizkuntzan. [Iñaki Arranz](#)

41 hitz lau ik prosa.

Hitz-lau arruntetik neurtitz berezairainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran. [Juan Garzia](#)

Hitz neurtu bihurriak **hitz lau** zabar batera bihurtuta. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Orain eta hemen dugun mina eta zikina eman digu Otamendik, **hitz lau** doi, dotore eta ederraz. [Markos Zapiain](#)

Hain bitxi politik baitzerizkion haren **hitz lauaren** garbiari eta arrazoi-bide bihurriari. [Patxi Ezkiaga](#)

Hurrena, Budurri bere amodioa eta zorabioa azaldu zion, nola **hitz lauan** hala hitz neurtuan. [Patxi Zubizarreta](#)

Antanaksiaren beste adibide batzuk datoz orain, **hitz lauz** eta hitz neurtuz. Poesiara zein **hitz lauzko** lanetara. [Iñaki Arranz](#)

Hitz lauzko nahiz neurtuzko ateraldi zorrotza. [Xabier Olarra](#)

42 hitz-mitz

Binns jauna **hitz**-mitz aritzen zen monotonoki. [Iñaki Mendiguren](#)

43 hitz-motel (orobat hizmotel g.er.) izond totela.

Hitz **motela** naiz, hizketan traketsa. Ez zaitugu errege nahi, **hitz motela** baitzara, sinplea eta ergela. [Jose Antonio Mujika](#)

Halako predikatzailea baino hobe da [...] anaia xume eta hitz **motela**, baina bere etsenplu onaz besteak on egitera zirikatzan dituena. [Askoren artean](#)

Buruarinak burutsu izaten saiatuko dira, **hizmotelak** bizkor eta garbi mintzatuko. [Elizen arteko biblia](#)

Gure Bizente gizaseme prestu hau, bere gotzain Valerio **hitz-motela** ordezkatzeko gauza izan zena, tartamutu edo hitz-totel omen zuten gotzaina-eta. [Pello Zabala](#)

44 hitz-motelka

Gero, **hitz-motelka** hasi nindunan. [Anton Garikano](#)

44b hitz neurtu ik bertso.

Hitz lauz zein **hitz neurtuz**. [Iñaki Arranz](#)

Esaldi motzak, **hitz neurtuak**, elkarriketak isiltasunekin sujerituak, gutunak... denetarik agertzen zaigu kontakizunaren feria txiki honetan. [Berria - Kultura](#)

Lehen hurbilpen xalo horretan, horrelako zer edo zer uler lezake aurreiritzirik gabeko irakurleak, **hitz neurtu** bihurriak hitz lau zabar batera bihurtuta: [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kontaera hogeita lau kantutan banaturik dago, **hitz neurtuan** originalean. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bere amodioa eta zorabioa azaldu zion, nola hitz lauan hala **hitz neurtuan**. [Patxi Zubizarreta](#)

Bertsulari sentikorra, **hitz neurtu** sakonez, bere sentimenduen berri zazkienak zabaltzen. [Herria](#)

Bi arimaren poza eta zorionaz mintzatu zen, eta Wertherrek Karlotari idatziriko **hitz neurtuzko** gutuna irakurtzen hasi zitzaion Sobakevitxi. [Jose Morales](#)

Ipui onac liburuan ere parte hartu zuen Juan Antonio Mogelek, hark idatzitako **hitz neurtuzko** zortzi alegia baitatuz amaieran [Berria - Kultura](#)

45 hitz-totel izond/iz

Hiru administrazioetan lotura handia ikusten da **hizkuntza gaitasunaren** eta nortasun sentimenduaren artean. Berria - Harian

19 hizkuntza gutxitu

Europar ofizialtasuna aitortzea funtsezko urratsa litzateke **hizkuntza gutxituentzat**. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza gutxituen ofizialtasunaren aurka agertu den ministro frantsesaren jarrera salatuz.

Europar **hizkuntza gutxituetan** argitaratzen diren egunkarien elkarteak.

Berdintasunaren izenean onartu zen Pariseko Asanblada Nazionalan, Toubon legea, **hizkuntza gutxituak** itotzeko bidea. Hasier Etxeberria

Nola babestu **hizkuntza gutxituak**, beraz. Berria - Euskal Herria

Europako **hizkuntza** gutxituen eskubideak zaintzeko karta. Piarres Xarriton

Hizkuntza Gutxituen Ituna betetzen ari ote den aztertzen. Berria - Euskal Herria

Frantziar Europako **Hizkuntza Gutxituen** Ituna berretsi nahi ez izateak arrisku bizian jartzen du bretoiera. Berria - Mundua

Hizkuntza Gutxituen Europako Agiria. Berria - Euskal Herria

Europako Hizkuntza Gutxituen Ituna. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza Gutxituen Euroituna sinatzea. Berria - Harian

20 hizkuntza komunitate ik gorago 14.

Hizkuntza komunitate desberdinak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Europar 60 **hizkuntza komunitate** daude, baina 20 baino ez dira lanerako hizkuntzak. Berria - Euskal Herria

Maila sozialean, **hizkuntza komunitatea** egituratzea. Berria - Euskal Herria

Euskararen komunitatea 600.000 hiztun inguruko **hizkuntza** komunitatea du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hizkuntza komunitate txikia du, beraz, euskararena, eta bere jatorrizko lurraldean minoritarioa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zail da aurkitzen **hizkuntza komunitate** homogeneous, Euskal Herriko leku askotan behintzat. Pello Salaburu

21 Hizkuntza Kontseilu

Kultura Ministerioak, Euskal Kultur Erakundeak, **Hizkuntza Kontseiluak**, Eskualdeko eta Departamenduko kultura zerbitzuek denek batera arrats berezi honen antolatzen lagundu gaituzte: eskerrak guztiei. Itxaro Borda

Orain artean **Hizkuntza Kontseiluaren** eginkizuna zen hizkuntza politikaren arloan «aholkuak» ematea. Berria - Euskal Herria

Max Brisson **Hizkuntza Kontseiluko** hizkuntza ataleko arduraduna. Berria - Euskal Herria

Heldu den astelehenean bilduko da **Hizkuntza** Kontseiluaren lehen administrazio kontseilua Uztaritzen. Herria

22 hizkuntza maila

Hizkuntza -maila apaleko hitza. Irene Aldasoro

Antzerkia izanik, Pinterren testuak ahozko hizkuntzatik hurbilago daude literaturan normala den **hizkuntza** mailatik baino. Berria - Kultura

Hizkuntza mailan Britainiako eta Iparraldeko egoerak arras ezberdinak dira, baina erronka bera daukagu. Berria - Euskal Herria

· (ezagupen maila) Ikasketak alemanez egiteko moduko **hizkuntza maila** iristea ikasleek. Joxerra Garzia

Garbi dago sei urte bete baino lehen **hizkuntza maila** polita bereganatua zuela. Xabier Olarra

Hizkuntza maila egiaztatuko zaie euskaraz aritu diren ikasleei. Berria - Euskal Herria

23 hizkuntza politika

Lau urtez Kontseilu Nagusian **hizkuntza politikaz** arduratu ondoren. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **Hizkuntza** Politikako zuzendaritza nagusiak. Iñigo Aranbarri

Ibarretxeren ustez, eleaniztasunaren aldeko **hizkuntza politika** eratzea «Estatuaren erantzukizun demokratikoa» da eta ezin dio horri uko egin. Berria - Euskal Herria

Unibertsitatean dagoen **hizkuntza politikak** ikasleok euskaraz ikasteko ditugun eskubideak urratzen dituela salatu behar du. Berria - Euskal Herria

Aurrekontua egokia da **hizkuntza politika** garatzeko. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza politikari buruzko txostena aurkeztuko du EBLULEk. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza politikak, arrakastatsua izango bada, nahitaez behar du adostasuna. Berria - Euskal Herria

Parlamentuko alderdiekin **hizkuntza politikaren** egoera aztertu nahi du. Berria - Euskal Herria

Pegenaute **Hizkuntza Politikako** Zuzendari Nagusiak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Berria - Mundua

Nafarroako Gobernuak **Hizkuntza Politikako** Zuzendaritza Nagusiko programazioburua. Berria - Euskal Herria

Euskararen **Hizkuntza Politikarako** Bulego Publikoa (EHPBP) edo orain arte aipatzen zen Interes Publikoko Egitura sortua da. Berria - Euskal Herria

24 kultura hizkuntza

Euskara, kultura **hizkuntza**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Etxean ere, euskaltzaleak izan arren, begi onez ikusten zuten gaztelania, kultur **hizkuntza** nagusia zelako. Ana Urkiza

Egun ez dugu hizkuntza barruko diglosia arazorik, egun **kultur hizkuntza** euskara batua ala gaztelania batua hautatu, hortxe dugu koska. Berria - Kultura

Keinuen hizkuntza unibertsala mintzo da hemen: begiraden eta irri mutuen esangura irakurtzen trebatzen baitira neskak eta mutilak, nahiz batzuetan mezu zuzena ulertzen jakin ez. Xabier Mendiguren Elizegi

25 keinu hizkuntza

Gorputz adierazpena eta **keinu hizkuntza** lantzen ditugu. Berria - Euskal Herria

· (gorrena) Ume gorrei egokitutako egungo hezkuntza sistemaren helburua **keinu hizkuntza** hutsa erakustea baino gehiago da elkartekoen ustez. Berria - Euskal Herria

Herrialde bakoitzak bere **keinu hizkuntza** dauka. Berria - Euskal Herria

26 keinuen hizkuntza keinu hizkuntza.

Zorionez, keinuen **hizkuntza** (adibidez, hatzak lepo zintzurretik alderik alde pasatzea) unibertsala da. Karlos Linazasoro

· (gorrena) Badaude beste gor batzuk **keinuen hizkuntza** ere ez dakitenak. Berria - Euskal Herria

Herrialde bakoitzak **keinuen hizkuntza** propioa dauka. Berria - Euskal Herria

26 literatura hizkuntza

Guretzat **"literatura hizkuntza"** ez da bakar-bakarrik literaturaren hizkuntza, baizik eta, zentzu orokorragoan, komunitate osoaren zerbitzuan dagoen hizkuntza landu oro, ofiziala edo ez. Isabel Arrigain

Literatura hizkuntza eta tokian tokiko hizkera. Isabel Arrigain

Dialektoen aurka **literatura hizkuntza** bat sortu duten faktoreak aztertzen badira. Isabel Arrigain

Literatura hizkuntza bezalako forma artifizialak, kanpoko faktoreen eraginez gertatzen direnak, eta horrenbestez inorganikoak direnak. Isabel Arrigain

Argitaratzen hasi zenetik, frantsesa du **literatur hizkuntza**. Berria - Kultura

Beraz, inoiz baino arazoizkoagoa da hemen metaliteratura hitz potoloa erabiltzea, hain zuzen ere literatur baliabideen eta **literatur hizkuntzaren** gaineko literatura baita hau. Xabier Olarra

27 nazio hizkuntza

Nazio- **hizkuntza** eta idazkerari ematea erabilera ofiziala. Iñaki Mendiguren

Egituratzeko politikoa esatean, **nazio-hizkuntza** eta erlijio bakarra indarrez ezartzea, biztanle-taldeak administrazio zentral indartsu zapaltzaile baten mende ordenatzea ulertu behar da. Koro Navarro

Eskualde edo **nazio hizkuntzei** ezagutza ematea. Berria - Euskal Herria

Euskaldunon nazio **hizkuntza** da Euskara Batua. Koldo Zuazo

28 zeinuen hizkuntza keinu hizkuntza. • (gorrena)

Zeinuen hizkuntza ere, orain arte, gorren elkarteetan eta leku itxietan erabili da. Berria - Harian

Hego Euskal Herriko gorrek **zeinuen hizkuntza** ikasi eta erabiltzeko eskubidea izango dute. Berria - Harian

Zeinuen hizkuntza irakasten zaie, ume gorrari ezagutza garapen normalizatua lortzeko aukera emango dio Berria - Euskal Herria

hit multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bere hizkuntz (18); **bere** hizkuntz eskubideak (8); **bigarren** hizkuntz (25); **bigarren** hizkuntz eskakizuna (17); **da** hizkuntz (19); **dagokion** hizkuntz (11); **dagokion** hizkuntz eskakizuna (10); **den** hizkuntz (9); **dira** hizkuntz (8); **diren** hizkuntz (9); **dituen** hizkuntz (10); **du** hizkuntz (10); **duen** hizkuntz (12); **dute** hizkuntz (10); **eta** hizkuntz (78); **eta** hizkuntz eskubideak (13); **eta** hizkuntz eskubideen (13); **euskara** hizkuntz (9); **herritarren** hizkuntz (9)

hizkuntz aniztasuna (12); **hizkuntz** egituraren (18); **hizkuntz** eredu (9); **hizkuntz** eredu (21); **hizkuntz** eskakizuna (97); **hizkuntz** eskakizuna ez (9); **hizkuntz** eskakizuna lortzeko (8); **hizkuntz** eskakizunak (34); **hizkuntz** eskakizunen (8); **hizkuntz** eskakizun (8); **hizkuntz** eskubideak (148); **hizkuntz** eskubideak bermatzeko (14); **hizkuntz** eskubideak (11); **hizkuntz** eskubideei (10); **hizkuntz** eskubideei buruzko (8); **hizkuntz** eskubideen (143); **hizkuntz** eskubideen alde (12); **hizkuntz** eskubideen behakia (8); **hizkuntz** eskubideen behakioak (22); **hizkuntz** eskubideen behakiko (9); **hizkuntz** eskubideen eguna (10); **hizkuntz** eskubideen urraketa

(9); **hizkuntz eta** (14); **hizkuntz maila** (16); **hizkuntz normalizazioa** (8); **hizkuntz normalizazioaren** (8); **hizkuntz normalizazioa** (11); **hizkuntz normalizazio politikak** (8); **hizkuntz politikak** (14); **hizkuntz politikarako** (15); **hizkuntz politikaren** (15); **hizkuntz teoria** (24); **hizkuntz teoriaren** (13)

lanpostuari dagokion hizkuntz (8)

ama hizkuntza (80); **ari den hizkuntza** (8); **arteko hizkuntza** (8); **atzerriko hizkuntza** (17); **baina hizkuntza** (38); **baino hizkuntza** (8); **baita hizkuntza** (18); **bat hizkuntza** (19); **batek hizkuntza** (9); **bateko hizkuntza** (8); **baten hizkuntza** (10); **benetako hizkuntza** (8); **bere hizkuntza** (54); **beren ama hizkuntza** (9); **beren hizkuntza** (40); **berezko hizkuntza** (16); **bertako hizkuntza** (13); **beste hizkuntza** (167); **beste hizkuntza bat** (28); **beste hizkuntza batean** (16); **beste hizkuntza batzuetan** (19); **beste hizkuntza batzuetara** (8); **beste hizkuntza batzuk** (9); **bezalako hizkuntza** (10); **bi hizkuntza** (72); **bi hizkuntza ofizialak** (14); **bigarren hizkuntza** (30); **da hizkuntza** (139); **da hizkuntza eta** (8); **dagoen hizkuntza** (11); **daiteke hizkuntza** (11); **dauden hizkuntza** (8); **dela hizkuntza** (26); **den hizkuntza** (101); **den hizkuntza bat** (11); **den hizkuntza batean** (8); **dira hizkuntza** (46); **diren hizkuntza** (23); **ditu hizkuntza** (18); **dituen hizkuntza** (11); **dituzten hizkuntza** (10); **donostia hizkuntza** (8); **du hizkuntza** (56); **duela hizkuntza** (8); **duen hizkuntza** (46); **dugu hizkuntza** (23); **dugun hizkuntza** (13); **dute hizkuntza** (28); **duten hizkuntza** (27)

edo hizkuntza (18); **edozein hizkuntza** (16); **egiazko hizkuntza** (10); **egiazko hizkuntza politikā** (8); **erabilitako hizkuntza** (9); **ere hizkuntza** (28); **errepublikaren hizkuntza** (14); **espainiako hizkuntza** (10); **estatuko hizkuntza** (9); **eta beste hizkuntza** (13); **eta gure hizkuntza** (12); **eta hizkuntza** (445); **eta hizkuntza eskubideak** (17); **eta hizkuntza eskubideen** (14); **eta hizkuntza gutzietako** (8); **eta hizkuntza horretan** (8); **eta hizkuntza politika** (9); **euren hizkuntza** (12); **europako hizkuntza** (64); **europako hizkuntza gutxituen** (24); **europan hizkuntza** (11); **euskal hizkuntza** (33); **euskal hizkuntza eta** (12); **euskaldunen hizkuntza** (11); **euskaldunen hizkuntza eskubideak** (8); **euskaldunon hizkuntza** (11); **euskara hizkuntza** (53); **euskara hizkuntza politikarako** (12); **eusko jaurlaritzako hizkuntza** (13); **ez da hizkuntza** (23); **ez den hizkuntza** (17); **ez du hizkuntza** (8); **ez duen hizkuntza** (15); **ez hizkuntza** (15); **gabeko hizkuntza** (12); **gainerako hizkuntza** (8); **geure hizkuntza** (8); **gobernuaen hizkuntza** (12); **gobernuaren hizkuntza politika** (10); **gure hizkuntza** (120); **guztien hizkuntza** (9); **haien hizkuntza** (13); **hainbat hizkuntza** (11); **herriko hizkuntza** (10); **hiru hizkuntza** (28)

hizkuntza aldetik (18); **hizkuntza aniztasuna** (17); **hizkuntza arrotz** (19); **hizkuntza arrotz batean** (9); **hizkuntza arruntaren** (8); **hizkuntza asko** (13); **hizkuntza askotan** (16); **hizkuntza askotara** (9); **hizkuntza baino** (9); **hizkuntza baizik** (8); **hizkuntza bakar** (19); **hizkuntza bakarra** (33); **hizkuntza bakoitzak** (15); **hizkuntza bakoitzaren** (13); **hizkuntza bat** (213); **hizkuntza bat baino** (14); **hizkuntza batean** (89); **hizkuntza batean hitz** (9); **hizkuntza batek** (32); **hizkuntza bateko** (27); **hizkuntza baten** (114); **hizkuntza batera** (9); **hizkuntza batetik** (28); **hizkuntza batetik bestera** (15); **hizkuntza batzuen** (11); **hizkuntza batzuetan** (31); **hizkuntza batzuetara** (8); **hizkuntza batzuk** (14); **hizkuntza behar** (10); **hizkuntza bera** (52); **hizkuntza bere** (10); **hizkuntza berean** (21); **hizkuntza berezi** (8); **hizkuntza berriak** (8); **hizkuntza beste** (8); **hizkuntza bezala** (15); **hizkuntza bizia** (9); **hizkuntza da** (70); **hizkuntza dela** (21); **hizkuntza desberdin** (10); **hizkuntza desberdinak** (10); **hizkuntza desberdinetan** (8)

hizkuntza edo (18); **hizkuntza egoera** (29); **hizkuntza egoera jakin** (10); **hizkuntza erabiltzeko** (13); **hizkuntza erabiltzen** (19); **hizkuntza ere** (33); **hizkuntza eredu** (12); **hizkuntza ereduak** (9); **hizkuntza ereduen** (19); **hizkuntza eskakizuna** (26); **hizkuntza eskolan** (10); **hizkuntza eskubide** (10); **hizkuntza eskubideak** (153); **hizkuntza eskubideak bermatzeko** (13); **hizkuntza eskubideak ez** (8); **hizkuntza eskubideak urratzen** (8); **hizkuntza eskubideen** (123); **hizkuntza eskubideen alde** (11); **hizkuntza eskubideen aldeko** (10); **hizkuntza eskubideen eguna** (12); **hizkuntza eta** (267); **hizkuntza eta kultura** (64); **hizkuntza eta literatura** (12); **hizkuntza euskara** (22); **hizkuntza ez** (88); **hizkuntza ez da** (21); **hizkuntza ez dela** (9); **hizkuntza ezagutzen** (14); **hizkuntza ezezagun** (17); **hizkuntza ezezagun batean** (9); **hizkuntza familia** (14); **hizkuntza gehiago** (8); **hizkuntza gisa** (15); **hizkuntza gutituen** (9); **hizkuntza gutxitu** (10); **hizkuntza gutxitua** (8); **hizkuntza gutxituak** (26); **hizkuntza gutxituei** (23); **hizkuntza gutxituen** (95); **hizkuntza gutxituen europako** (14)

hizkuntza gutxituen ituna (13); **hizkuntza gutxituetako** (11); **hizkuntza gutxituetan** (24); **hizkuntza gutxituetan argitaratzen** (12); **hizkuntza guztiak** (32); **hizkuntza guztiak** (17); **hizkuntza guztien** (15); **hizkuntza guztietako** (13); **hizkuntza guztietan** (35); **hizkuntza hau** (20); **hizkuntza hitz** (11); **hizkuntza hitz egiten** (8); **hizkuntza honen** (9); **hizkuntza honetan** (10); **hizkuntza hori** (65); **hizkuntza horiek** (34); **hizkuntza horien** (17); **hizkuntza horietako** (8); **hizkuntza horietan** (15); **hizkuntza horrek** (13); **hizkuntza horren** (31); **hizkuntza horretako** (8); **hizkuntza horretan** (57); **hizkuntza hura** (9); **hizkuntza ikasi** (14); **hizkuntza ikasteko** (11); **hizkuntza ikasten** (11); **hizkuntza izan** (22); **hizkuntza izango** (8); **hizkuntza izatea** (10); **hizkuntza jakin** (18); **hizkuntza jakitea** (9); **hizkuntza komunitate** (18); **hizkuntza kontseilua** (8); **hizkuntza kontseiluak** (14); **hizkuntza kontseiluaeren** (11); **hizkuntza kontseiluko** (10); **hizkuntza kontuetan** (21); **hizkuntza maila** (11); **hizkuntza menderatzen** (11); **hizkuntza mota** (8); **hizkuntza naturaleko** (8)

hizkuntza ofizial (43); **hizkuntza ofizial bakarra** (9); **hizkuntza ofiziala** (51); **hizkuntza ofizialak** (31); **hizkuntza ongi** (9); **hizkuntza osatzen** (11); **hizkuntza oso** (8); **hizkuntza plangintza** (8); **hizkuntza politika** (200); **hizkuntza politika aztertzeko** (9); **hizkuntza politika bat** (11); **hizkuntza politika berria** (12); **hizkuntza politikak** (20); **hizkuntza politikako** (18); **hizkuntza politikan** (14); **hizkuntza politikarako** (96); **hizkuntza politikarako bulego** (14); **hizkuntza politikarako sailburuordetzak** (9); **hizkuntza politikarako zuzendari** (9); **hizkuntza politikarako zuzendaritza** (13); **hizkuntza politikaren** (44); **hizkuntza politikari** (24); **hizkuntza politikari buruz** (9); **hizkuntza politikari buruzko** (8); **hizkuntza propioa** (16); **hizkuntza sistema** (17); **hizkuntza txikien** (8); **hizkuntza ulertzen** (15); **hizkuntza zahar** (8); **hizkuntza zaharra** (10); **hizkuntza zein** (9); **hizkuntza zen** (12)

hori hizkuntza (11); **horrek hizkuntza** (10); **inguruko hizkuntza** (8); **jatorrizko hizkuntza** (10); **jaurlaritzako hizkuntza** (15); **jaurlaritzako hizkuntza politikarako** (13); **keinuen hizkuntza** (11); **kultura eta hizkuntza** (41); **kultura hizkuntza** (8); **lan hizkuntza** (17); **lau hizkuntza** (9); **lehen hizkuntza** (21); **literatura hizkuntza** (12); **mailako hizkuntza** (16); **munduko hizkuntza** (11); **nafarroako gobernuaren hizkuntza** (11); **nafarroako hizkuntza** (26); **nafarroako hizkuntza politika** (9); **nahiz hizkuntza** (9); **nazio eta hizkuntza** (9); **nazio hizkuntza** (8); **nire hizkuntza** (12); **nuen hizkuntza** (9); **osoko hizkuntza** (12); **zein hizkuntza** (17); **zeinuen hizkuntza** (15); **zen hizkuntza** (38); **zer hizkuntza** (12); **zeren hizkuntza** (15); **ziren hizkuntza** (8); **zituen hizkuntza** (8); **zuen hizkuntza** (37); **zuten hizkuntza** (17)

baina hizkuntzak (9); **beste hizkuntzak** (13); **bi hizkuntzak** (33); **da hizkuntzak** (12); **diren hizkuntzak** (14); **du hizkuntzak** (9); **eta hizkuntzak** (54); **gure hizkuntzak** (30); **hizkuntzak berak** (10); **hizkuntzak bere** (15); **hizkuntzak dira** (13); **hizkuntzak duen** (11); **hizkuntzak ematen** (11); **hizkuntzak ere** (14); **hizkuntzak eta** (28); **hizkuntzak ez** (37); **hizkuntzak ikasteko** (15); **hizkuntzak ikasten** (9)

ama hizkuntzan (22); **bere hizkuntzan** (42); **beren hizkuntzan** (17); **den hizkuntzan** (8); **eta hizkuntzan** (11); **gure hizkuntzan** (54); **hizkuntzan ere** (18); **hizkuntzan eta** (14); **hizkuntzan ez** (12); **hizkuntzan hitz** (11); **jatorrizko hizkuntzan** (22); **sami hizkuntzan** (12)

baina hizkuntzaren (8); **bere hizkuntzaren** (9); **beste hizkuntzaren** (8); **da hizkuntzaren** (25); **dira hizkuntzaren** (16); **du hizkuntzaren** (12); **edo hizkuntzaren** (14); **eta hizkuntzarekin** (11); **eta hizkuntzaren** (106); **eta hizkuntzaren arteko** (10); **euskal hizkuntzaren** (13); **gales hizkuntzaren** (11); **galesko hizkuntzaren** (11); **gure hizkuntzaren** (58)

hizkuntzaren alde (18); **hizkuntzaren aldeko** (27); **hizkuntzaren aldetik** (10); **hizkuntzaren alorrean** (8); **hizkuntzaren arabera** (10); **hizkuntzaren arteko** (13); **hizkuntzaren azterketa** (10); **hizkuntzaren batasuna** (18); **hizkuntzaren beraren** (8); **hizkuntzaren bidez** (12); **hizkuntzaren egitura** (10); **hizkuntzaren egoera** (10); **hizkuntzaren erabilera** (19); **hizkuntzaren eta** (40); **hizkuntzaren eta kulturaren** (9); **hizkuntzaren filosofia** (17); **hizkuntzaren filosofiaren** (8); **hizkuntzaren gaia** (8); **hizkuntzaren gainean** (9); **hizkuntzaren gaineko** (8); **hizkuntzaren historian** (8); **hizkuntzaren inguruan** (10); **hizkuntzaren inguruko** (10); **hizkuntzaren normalizazioa** (13)

indoeuropar hizkuntzaren (8); **zuen hizkuntzaren** (9)

beste hizkuntzarik (8); **bi hizkuntzatan** (20); **edozein hizkuntzatan** (15); **eta hizkuntzari** (9); **eta hizkuntzaz** (12); **europako hizkuntzarik** (8); **gure hizkuntzari** (12); **gure hizkuntzaz** (13); **hainbat hizkuntzatan** (14); **hainbat hizkuntzatarā** (8); **hiru hizkuntzatan** (21); **hizkuntzari buruz** (21); **hizkuntzari buruzko** (15); **hizkuntzari dagokionez** (22); **hizkuntzari eta** (17); **hizkuntzarik ez** (10); **hizkuntzatan mintzatzen** (10); **hizkuntzatarā itzuli** (12); **hizkuntzaz hitz** (13); **lau hizkuntzatan** (16); **zein hizkuntzatan** (20); **zer hizkuntzatan** (8)

beste hizkuntzen (13); **bi hizkuntzen** (18); **diren hizkuntzen** (11); **eta hizkuntzen** (22); **europako hizkuntzen** (16); **gure hizkuntzen** (8); **gutxiengo hizkuntzen** (10); **gutxiengo hizkuntzen europako** (9); **hizkuntzen aldeko** (8); **hizkuntzen artean** (14); **hizkuntzen arteko** (40); **hizkuntzen eta** (16); **hizkuntzen europako** (14); **hizkuntzen ofizialtasuna** (8); **lurralde hizkuntzen** (16)

beste hizkuntzetako (11); **beste hizkuntzetan** (20); **bi hizkuntzetan** (46); **hiru hizkuntzetako** (11); **hiru hizkuntzetan** (21); **hizkuntzetan ere** (10)

hizkuntzadun *izond* hizkuntzakoa.

Frantses **hizkuntzadun** ikertzailleen eta ingeles **hizkuntzadunen** arteko eztabaidetan. Josu Zabaleta

hizkuntzaka *adlag* hizkuntzaren arabera, hizkuntza kontuan hartuz.

Pentsa daiteke kanpalekuan preso politikorik baizik ez dela, eta herrika, **hizkuntzaka** bilduak, bakoitzak bere arimatik zerbat aurkitzeko gisan. Marzel Etxehandi

hizkuntzalari *iz* hizkuntza adierazpide edo sistematzat harturik, edo hizkuntzen arteko harremanen aldetik aztertzen dituen ikerlaria. ik **linguista**.

Chomskyyk bere garaiko **hizkuntzalari** eta matematikariek erabiltzen zituzten eredu formalak azertu zituen. Itziar Laka

Wolfgang Dressler austriar **hizkuntzalariak** . Lourdes Oñederra

Ondo dakit nik jakin definizio hauek ez datozela bat hitzaren eguneroko erabilerarekin: **hizkuntzalariek** diskurtso hitzari zentzu erabat ezberdina eman ohi diote; logikoeek eta analistek beste modu batean darabilte. Xabier Arregi

Orduko **hizkuntzalari** eta kazetari euskaltzaleengandik gertu zebilen beti. Askoren artean

Unibertsitateko irakasle, **hizkuntzalari** eta euskalari andere entzutetsu baten alaba da. Joxerra Garzia

Fisika, medikuntza edo geologian aditu direnen arteko inkomunikazioa poeten, hermeneuten eta **hizkuntzalarien** artean dagoenaren paretzukoa delakoan nago. Anjel Lertxundi

hizkuntzalaritxo *iz adkor* hizkuntzalaria.

Euskaldun bakoitzak bere baitan ezkutatzen duen **hizkuntzalaritxoak** erakutsi izan baitigu, urte hauetan guztietan, Tolosan hobeki egiten dela euskaraz, demagun,

hizkuntzalaritza 1 iz hizkuntza adierazpide edo sistematzat harturik, edo hizkuntzen arteko harremanen aldetik aztertzen dituen jakintza. ik linguistika.

Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritza sinkronikoa eta **hizkuntzalaritza** diakronikoa. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritza geografikoa. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritzan, xakean bezala [...] gertaera guztien gainetik irauten duten legeak daude. Isabel Arrigain

Berregeita hamarreko urteetako **hizkuntzalaritzan**. Itziar Laka

Filologia eta **hizkuntzalaritzako** lanetan. Lourdes Oñederra

Battittu Coyos **Hizkuntzalaritzan** doktorea. Berria - Euskal Herria

Euskal filologia eta **hizkuntzalaritzako** aldizkari espezializatu batean. Iñaki Iñurrieta

Irudikapenaren elementuak "**hizkuntzalaritzari** ezer ere zor ez dion sistema original" batekoak direla. Josu Zabaleta

Atenea **Hizkuntzalaritza** Aplikatuko Zentroak. Berria - Kultura

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hizkuntzalaritza eskola idealista. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritza ikasketak hemengo eta kanpoko unibertsitateetan egin ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Txillardegik **hizkuntzalaritza** arloan egin duen ibilbidean, «halako koherentzia bat» ikusten du Pilartxo Etxeberriak. Berria - Kultura

hizlari 1 iz hitzaldi bat egiten duen pertsona; hitzaldiak egiten dituen pertsona.

Hizlariak aurrera jarraitu zuen bere hitzaldiarekin. Juan Kruz Igerabide

Hizlariak eten behar izan zuen bere jarduna. Koldo Biguri

Berehala iristen ziren **hizlariaren** mintzatoki azpiraino eta han, txistuka eta marruka, minutu gutxi behar izaten zituzten hura isilarazteko. Koldo Biguri

Jendaurreko bertsolaria, poeta eta kantaria ez ezik, **hizlaria** ere badela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irratiko **hizlariaren** boza eta izena bakarrik ezagutzen baititu entzuleak. Iñaki Zabaleta

Erretorika klasikoa, gorputz teoriko osoa baino, garai hartako **hizlariaren** tekniken eta jardunbideen deskripzio kritikoa bezain xehea da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hizlari da [bertsolaria] batez ere, eta, **hizlari** guztien moduan, gaitasun poetikoa ere behar du izan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Manuel Irujo eta Telesforo Monzon izan ziren **hizlari**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arzallus, Pujana, Elkoro eta Jauregi **hizlari** Durangoko Plateruenan. Berria - Euskal Herria

Tipularen ondoren, **hizlari** aritu ziren, baita ere, lekak, porruak eta tomateak. Josexo Azkona

Gustura egingo nituzke beste hiru urte, zuek banan-banan ostiralero **hizlari**, eta ni entzule bakar naizela. Joxerra Garzia

Azken urteotan, **hizlari** ibilia naiz, Frantzian eta atzerrian, gai horien inguruan. Juan Garzia

Parte hartzera joaten diren emakumezkoen jardunak titularretara doazenean, oso gutxitan jasotzen dira emakumezko **hizlariaren** hitzak. Ana Urkiza

2 (izenondoekin)

Ez dakit dantzari traketsa edo **hizlari** motela nintzelako, hortik gora ez nuen batere aurrerapiderik lortzen. itxura kaxkarreko gizona da eta **hizlari** eskasa. Xabier Mendiguren Elizegi

Izatez Alexandriakoa zen, **hizlari** bikaina eta Liburu Santuetan oso aditua. Elizen arteko biblia

Hizlari fina zenez gero, jende asko biltzen zuen ekitaldietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

lloba ez zuen idazlea, bai ordea **hizlari** argia eta kartsua. Marzel Etxehandi

Gizon jakintsua eta **hizlari** ona zen mediku batek. Askoren artean

Hizlari trebea, nik sekula aditu gabeko termino zehatzak erabiltzen zituena. Fernando Rey

3 (izenondo gisa)

Orkoak, zuhaitz **hizlariak**, legoa eta legoatako zelaiak, lauhazkako zaldizkoak. Agustin Otsoa

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hizlari gisa ere ona zen, baina **hizlari** -jarioa eraman nahi zuen paperera: jatortasun horrek galdu zuen idazle moduan. Anjel Lertxundi

Beldur naiz nire **hizlari** -ahalmen ahulak ez ote diren izango oso desegokiak egin behar honetarako. Irene Aldasoro

Hizlari -aurkezlea sartu zen. Jon Muñoz

CDNko kide Juan Cruz Alli eta Pedro Baile izan ziren **hizlari** lanetan, bertan bildutako 25 lagunen aurrean. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ariko dira hizlari (8); **beste hizlari** (3); **da hizlari** (6); **dira hizlari** (23); **duten hizlari** (3); **eta hizlari** (8); **eta hizlaria** (3); **hizlari aparta** (3); **hizlari aurkezleak** (3); **hizlari bat** (4); **hizlari batek** (3); **hizlari baten** (3); **hizlari eta** (8); **hizlari gisa** (5); **hizlari izan** (4); **hizlari lanetan** (5); **hizlari ona** (4); **hizlari trebea** (9); **izan zen hizlari** (5); **izan ziren hizlari** (6); **izango dira hizlari** (14); **oso hizlari** (3); **zen hizlari** (5); **zen hizlaria** (4); **ziren hizlari** (10); **zuen hizlari** (3)

bi hizlariak (3); **dira hizlariak** (4); **du hizlariak** (4); **dute hizlariak** (3); **eaj galeusca hizlariak** (3); **eaj hizlariak** (4); **eta hizlariak** (4); **galeusca hizlariak** (3); **hainbat hizlariak** (4); **hizlariak ere** (3); **hizlariaren arabera** (6); **hizlariaren ustez** (6); **hizlariak eta** (4); **hizlariaren arabera** (3); **hizlariaren arabera** (3); **hizlariaren artean** (10); **hizlariaren artean** (10); **hizlarietako bat** (7); **izango dira hizlariak** (4); **psoe hizlariak** (3); **zitzen hizlariak** (4); **zuen hizlariak** (13); **zuten hizlariak** (7)

hizlarigai iz hizlari izateko prestatzen ari den pertsona.

Zizeron ikertzea derrigorrekoa zen **hizlarigaientzat**. Imanol Unzurrunzaga

hizpide 1 iz hizketa-gaia.

Hizpidea, te-mahai inguruan bildurik, jostintza alorreko puntu eta ereduei buruzkoa izan zuten. Mirentxu Larrañaaga

Baina ordurako nahikoa genuela pentsatu, eta, **hizpidea** epaiketara lerratu aurretik, Adela eta Estheren turismo sexualarena kontatu diot. Patxi Zubizarreta

-Eltzeko horrek usain ezin hobea du -bota nuen, etsi-etsian **hizpidea** aldatzen saiatuz. Alberto Ladron Arana

Sentitzen dut **hizpidea** atera izana. Alberto Ladron Arana

Gairen bat atera nuen gero, Triesten beti halako eguraldia egiten al zuen edo antzeko **hizpideren** bat. Anjel Lertxundi

Doi tar-tar xume bat bere hizketa pausatuan, baina **hizpideari** lotzen saiatu da berehala. Iñaki Iñurrieta

Hizpide horri heldu eta berehala ekin zion Enrikek teoria bat garatzeari. Iñaki Iñurrieta

Kalapita hura zertan amaitu zen ezin, bada, jakin; soil-soilik dakigu hegazti hori jende askoren gogokoa izan, eta gogoan egon dela, gogoan eta **hizpidean**. Patxi

Zubizarreta

Haren konfiantza bortxatu nahi ezta, hitz beste egin, eta ohiko **hizpideetara** eraman zuen solasaldia. **Pedro Alberdi**

Ez dakit gaia zein zen, baina irakasleak, Pep Subirosek, marxismoa beste **hizpiderik** ez zuen izan. *ik beherago* 3. **Joxerra Garzia**

Kontuak **hizpidea** sortuko zuela dudarik ez zen. **Irene Aldasoro**

Auzokoen **hizpide** egin gaituzu, etsaiak burlaka ari zaizkigu. **Elizen arteko biblia**

Neskekin tratatzeko eta haiekin **hizpidean** sartzeko erraztasun pixka bat zeukana. *ik beherago* 5. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Isiltasuna lortu zuenean, pertinentzia hitza **hizpidera** etorri, eta bere aurpegiaren adibidea jarri omen zuen hitzaren esanahia argitzeko: [...]. *ik beherago* 7. **Anjel Lertxundi**

Bere **hizpideari** zerion musikaren gozamenean. **Hasier Etxeberria**

Han hankarteko zerak dantzatu behar dira, gernubideak eta unibertso ezkutuetako zulo beltzak, eta begia eta **hizpidea** hankartean jarri ezker, ez dago bi sexuak berdintzeko modurik. **Iñaki Seguro**

Dena dela, gehiegi ari naiz urruntzen nire **hizpidetik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hitzak **hizpidea** dakarrenez. **Jon Alonso**

2 (izenondoekin)

Horregatik, **hizpide** gaiztoko kontrastez osatutako esapide ironiatsua genuke gaur letren errepublika delakoa, eta ez helburu zintzo, lanbide duin eta produktu onuragarriak sortzeko lan egiten duen giza talde baten deitura. **Anjel Lertxundi**

Hurrengo goizean, gertatuaren berri jakin zuen jendeak, eta egun hartako **hizpide** nagusi bihurtu zen. **Rafa Egiguren**

Gaueko azken orduak edari onarekin eta **hizpide** ustez distiratsuekin gozatzeko. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

Handik egun batzuetara, berriz, ezkontide arteko ahakar sutsu horietariko batean ziharduten Zeusek eta Herak, jainko senarraren desleialtasunak zirela haserre- **hizpide**.

Juan Garzia

4 hizpide hartu

Beste zenbaitzuk gau osoan aritzen ziren euren zorigaiztoko buruhausteak eta gaixotasunak **hizpide** hartu eta kontu-kontari. Bistan da oker dabilela, eta oraintxe **hizpide** hartuko dudan beste lege bat hartu duela Hamabi Tauletako legetzat. **Mirentxu Larrañaga**

Bizitza **hizpide** hartu, eta hura heriotzatik zerk bereizten duen definitzen saiatu ziren. **Juan Garzia**

Bazirudien lehenagotik ere aritua zela gai hura **hizpide** hartuta. **Mirentxu Larrañaga**

Eta halakoetan, nire asmo ona erakusteko, gai hutsalen bat hartzen nuen **hizpide**. **Anjel Lertxundi**

Errealitatea hartzen zuen beti **hizpide**, ezagutu berri zuen alegiazko errealitatea. **Ander Irizar**

Uste dut politika eta uzta hartu zituztela **hizpide**. **Ander Irizar**

Esate baterako, giza genetika harturik **hizpide**, garbi dago giza genomak dezifratzeak hainbat arriskualdi ekar ditzakeela ondotik. **Juan Garzia**

Gabinek berriro hartu nahi izan zuen utzitako **hizpidea**. **Iñaki Iñurrieta**

5 hizpide izan du ad

-Badakizue -azaldu zien, gai ez oso samurrak **hizpide** zituenean erabili ohi zuen ahots-doinuaz-. **Mirentxu Larrañaga**

Molekulak, ugalketa eta eboluzioaren brikolajea ditugu hemen **hizpide**. **Juan Garzia**

Azkueren uste ustelak izan zituen Mitxelenak **hizpide**. **Koldo Zuazo**

Hizpide ditugun beste estatu horietan, ordea, dirua ez da inoiz itzultzen, hartu dutenek ez dutelako ezer zor. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dago zalantzan jartzerik **hizpide** izan ditugun legeak [...] Erromako hiru errege legegile horien emaitza direla. **Iñaki Iñurrieta**

- Literaturaz gainera, tertulia kideek Lehen Mundu Gerra dute tertuliako **hizpide** nagusi. **Anjel Lertxundi**

Aldizkarietako batek Iñaki gerra zuen ia **hizpide** bakar. **Anjel Lertxundi**

- da *ad* Biek ederki zenekiten kontu serioa zela **hizpide** zenutena. **Sonia Gonzalez**

Dagoeneko **hizpide** da ernalkuntzaren osteko urratsetara zabaltzea enbrioiaren probetaldia. **Juan Garzia**

Haren zor ezin ulertuzkoak **hizpide** ziren beraren lagunartean. **Irene Aldasoro**

Eskola kontuak **hizpide** direnean. **Joxerra Garzia**

- (*aditza ezabatua*) Gure aparatu kognoszitiboa **hizpide**, bi konparazio ditugu aukerako. **Juan Garzia**

Hizpide, betiko gaiak: amodioa, munduko gaitzak, azkenik ikusi filma, irakurri liburua. **Jose Angel Irigaray**

Italia, bizitza **hizpide**. **Juan Garzia**

6 hizpidea eman

Ez zen berriro ere liskartzeko beldur baina,aldi berean, mihi gaiztoei **hizpidea** eman nahi ez. **Patxi Zubizarreta**

Adeitasunez irribarre egin, eta, **hizpidea** emate aldera, esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Hizpidea eman orduko, bete-betean sartu zen Enrike bere jardunean. **Iñaki Iñurrieta**

Entzundako guztien arteak batek eman zidan **hizpidea**. **Aingeru Epaltza**

- Badira alde batzuk nabarmenak, dagoeneko **hizpide** luzea eman digutenak. **Juan Garzia**

Pentsatzen duguna esateak, **hizpide** biziagoa ematen du, dakiguna errepikatzeak baino. **Patziku Perurena**

- Horrela, inori ez diot **hizpiderik** emango horrenbesteko dirutza neure esku daukadalarik. **Elizen arteko biblia**

7 hizpidean egon, zuzen egon, arrazoia izan.

Balitekek hi **hizpidean** egotea. **Xabier Olarra**

8 hizpidean izan du ad

Eta bidailagunek kasinoak eta hotel ikusgarriak **hizpidean** zituzten bitartean, ni gelako komunarekin amestuz nindoan, komuneko ispilurekin bereziki. **Patxi Zubizarreta**

9 hizpidera atera

Baina gaur berriro ere atera da **hizpidera** Clinton eta Lewinskyren arteko kontua. **Patxi Zubizarreta**

Espainiako *zonceren*[=pellokerien] artean, bada hiria aipatzen den aldiro **hizpidera** ateratzen den bat, turismo orriak eta entziklopediak dituen benetako zilar turuta. **Iñigo Aranbarri**

Argudio bat **ateratzen** digute beti **hizpidera**: umeez ezin dute beren nahia legez adierazi. **Berria - Gaiak**

10 hizpidera ekarri

Goiz hartan ere gai hura ekarri zuen **hizpidera**. **Patxi Zubizarreta**

Nabarmendu egiten ziren **hizpidera** atzeriko hitzak ekarriz. **Patxi Zubizarreta**

Hurrengo, itzulinguruka zebilkion beste kontua ekarri zuen **hizpidera** Bain andreak. **Mirentxu Larrañaga**

Behin, oso gogoan dut, Armstrong astronautaren misterioa ekarri genuen **hizpidera**. **Patxi Zubizarreta**

Ez zituzten goraiatu gabe utzi Ganberako eta postako buruak; banan-banan ekarri zituzten **hizpidera** hiriko funtzionario gehienak, eta guztiak iruditu zitzaizkien gizonik ohoragarrienak. **Jose Morales**

Hura bai eurria! -dio, beste zerbait **hizpidera** ekarri nahi balu bezala-. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atzo **hizpide** (20); auzia **hizpide** (4); bat **hizpide** (4); bizitza **hizpide** (8); da **hizpide** (18); dira **hizpide** (10); ditu **hizpide** (61); ditugu **hizpide** (4); dituzte **hizpide** (42); du **hizpide** (50); dugu **hizpide** (5); dute **hizpide** (52); egoera **hizpide** (4); ere **hizpide** (63); ere **hizpide hartu** (4); ere **hizpide izan** (50); eta **hizpide** (6); eta **hizpide izan** (4);

genituen hizpide (6); genuen hizpide (7); hartu ditu hizpide (5); hartu zuen hizpide (12); hartu zuen hizpide (13)

hizpide atzo (28); hizpide bakar (5); hizpide bakarra (5); hizpide da (6); hizpide dugun (6); hizpide eta (11); hizpide gaur (4); hizpide hartu (15); hizpide hartuta (39); hizpide hartzean (4); hizpide izan (171); hizpide izan da (10); hizpide izan dira (5); hizpide izan dituzte (5); hizpide izan du (9); hizpide izan duan (4); hizpide izan dute (6); hizpide izan zen (11); hizpide izan zituen (22); hizpide izan zituzten (7); hizpide izan zuen (35); hizpide izan zuten (26); hizpide izango (22); hizpide izango da (4); hizpide izango dute (4); hizpide nagusi (26); hizpide nagusia (10)

ia hizpide (4); ia hizpide bakar (4); izan da hizpide (6); izan ditu hizpide (21); izan dituzte hizpide (10); izan du hizpide (14); izan dute hizpide (17); izan genituen hizpide (5); izan zen hizpide (7); izan ziren hizpide (4); izan zituen hizpide (53); izan zituzten hizpide (42); izan zuen hizpide (115); izan zuten hizpide (51); izanen dituzte hizpide (4); izango dira hizpide (5); izango ditu hizpide (11); izango dituzte hizpide (19); izango du hizpide (14); izango dute hizpide (20); orain hizpide (6); politikoa hizpide (5); zen hizpide (10); ziren hizpide (6); zituen atzo hizpide (4); zituen hizpide (67); zituen hizpide atzo (5); zituzten atzo hizpide (4); zituzten hizpide (44); zuen atzo hizpide (6); zuen hizpide (136); zuen hizpide atzo (15); zuen hizpide nagusi (5); zuten atzo hizpide (4); zuten hizpide (60); zuten hizpide atzo (5)

hizpidea eman (7)

beste hizpiderik (9); beste hizpiderik ez (5); ekarri zuen hizpidera (4); ere hizpidera (6); hizpidera ekarri (17); hizpidera ekarri nahi (4); hizpidera ekarriz (4); hizpidera ekartzea (4); hizpidera ekartzen (7); hizpiderik ez (5); zituen hizpidera (4); zuen hizpidera (8)

hiztegi 1 iz hurrenkera jakin baten (eskuarki alfabeto hurrenkeraren) arabera sailkaturiko hitz bilduma. ikizendegi; lexiko.

Hiztegiak eta izendegiak arakatu ditugu. **Iñaki Arranz**

Hiztegia zabaldu eta hitz bat hartu. **Unai Elorriaga**

Ez nekien zer zen, eta **hiztegi**an begiratu nuen. **Oskar Arana**

Hango eta horko **hiztegiak** hartu, eta orri-pasa hasi da gailur-gailurreko jakin-minez. **Anjel Lertxundi**

Hiztegirik ez dut erabiltzen sekula, ez bada, azkenean, orrazketarako. **Ana Urkiza**

Hiztegietan nekez aurkitzen ziren hitzak ikasteko. **Karlos Zabala**

Hitz hau ez duzue **hiztegi**etan aurkituko bainan denek ulertzen duzue. **Xipri Arbelbide**

Hala dio **hiztegiak**. **Iñaki Heras**

Hiztegian zetorren azken lerro hura azpimarratu nuen. **Bernardo Atxaga**

Hiztegiak jasotzen duten hitzez eta lokuzioez jardun dugu orain artean. **Iñaki Arranz**

Nagiak gara **hiztegi**etan esanahien bila ibiltzeko. **Jon Alonso**

Hiztegietan ez dator. **Iñigo Aranbarri**

Erdi entziklopedia erdi **hiztegi** den liburua da. **Askoren artean**

Ikus Azkueren edo Lhanderen **hiztegiak**. **Patziku Perurena**

Azkuek bere **hiztegi**aren eranskinean. **Pello Zabala**

Hiztegietan sarrera bakarra dute hitz polisemikoek, sarrera ezberdinak hitz homonimoek. **Iñaki Arranz**

Hiztegia ingeles-euskara hurrenkeran ere agertzea. **Lourdes Oñederra**

2 hed

Sinboloen **hiztegi** mugatu bat dauka (maila fonemikoan, **hiztegi** honi hizkuntzaren alfabetoa deritzogu), eta + sinboloaren bitartez adierazten dugu *kateatzea* deitzen den eragiketa, sinbолоok hurrenkera batean antolatzen dituena, sinbolo-kateak sortzeko. **Itziar Laka**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez entziklopedia oso bat; **hiztegi** entziklopediko bat, liburu bakarrekoa. **Unai Elorriaga**

Hiztegi Entziklopedikoan azaltzen denez, [...]. **Ramon Saizarbitoria**

Chevalier jaunaren Sinboloen **Hiztegi** ezagunean. **Patziku Perurena**

Elhuyarren **hiztegi** elebiduna. **Berria - Kultura**

Jardunbide horrek nahiko **hiztegi** tekniko berezia erabiltzea eskatzen zuen. **Askoren artean**

Ingeles **hiztegi** guztiek. **Iñigo Aranbarri**

Portugesezko **hiztegia** hartu zuen orduan. **Unai Elorriaga**

Matematikako **hiztegi** bat. **Jon Muñoz**

Lyon-en egina den liburu hori, latinezko **hiztegi** bat da eta deitzen da "Bekatuena hiztegia". **Menane Oxandabaratx**

4 hitz altxorra.

Hiztegi aberatsaren jabe dela erakutsi nahi lukeen autore baten erakutsi-nahi antzua besterik ez dakar. **Iñaki Segurola**

Neure **hiztegi** urriaren biktima naiz. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zuen antokian entzuten diren izkirimiren errepertorio arunt hori; halakoa zen haren **hiztegia**, herri-herrikoa. **Josu Zabaleta**

Virgilen **hiztegia**, haren sentiberatasun osoa, munduaren irudia, ukimenaren arloko terminoz josia zen -edo ez, behintzat, ikusmenari zegozkionez-. **Xabier Olarra**

Tortura ere ez da existitzen nire **hiztegi**an. **Harkaitz Cano**

Itxaropena ere **hiztegi** pertsonaleko ezinbesteko berba da. **Sonia Gonzalez**

Hiztegi bera erabiltzen du Frantziskok *2 Er-n* eta *Test*-an ere, nahiz eta horietan *erregela* hitza datorren gehiago. **Askoren artean**

Artolak lan handia egin zuen erronkariaren **hiztegia** berreskuratzen. **Berria - Kultura**

Hemen bakarrik erabiltzen duen esamoldea, ohikoa da **hiztegi** monastikoan, espiritu-bizitzari emaniko denbora, "negotium"-en kontrakoa, adierazteko. **Askoren artean**

"Amaraura" armiarbaren **hiztegi**an: etxe, babesleku, lantoki, bizipide. **Joxerra Garzia**

"Amaraura" euliaren **hiztegi**an: ezleku, arrisku, galbide. **Joxerra Garzia**

Hitz gutxi izango dira kritikaren **hiztegi**an "adierazgarritasun" hitzak adina hurbilketa eta gaizki-ulertze eragin duenik. **Josu Zabaleta**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik lexikografiko.

Garoa-ren edizio modernoetan **hiztegi** -oharrez josita dator delako pasarte hori. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dakit **hiztegi** -arazo hutsa den, bizitzaz dugun ikuspegi diferentea ala belaunaldien arteko jauzia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hitzartutako **hiztegi** -proiektua. **Pello Salaburu**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jo euskal **hiztegi**etara, eta kale. **Iñigo Aranbarri**

Erredakzioan zientzia-**hiztegi** moderno batzuk utzi zizkieten, eta Iturriozek bizpahiru hizkuntza-**hiztegi**, oso baliagarri gertatzen zitzaizkionak. **Josu Zabaleta**

Matematika-**hiztegi** erraldoiek eta zientziaren historiako tratatuek. **Jon Muñoz**

Terminologiari dagokionez, UZEIren Filosofia **hiztegia** erabil daiteke. **Askoren artean**

Errima-**hiztegi** hark bazuen berrikuntzarik gainera. **Andoni Egaña**

Erromatar barnealdeko zerga-**hiztegi**an aspaldidanik erabilia zen hitz batez, *scriptura* delakoaz izendatzen zen. **Iñaki Mendiguren**

-Gaztelera-frantsesa **hiztegi**an. **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere hiztegi (7); da hiztegi (5); du hiztegi (4); esanak harluxet hiztegi (6); eta hiztegi (27); eta hiztegi bat (4); euskal hiztegi (5); euskaltzaindiaren hiztegi (4); gramatika eta hiztegi (4); harluxet hiztegi (20); harluxet hiztegi entziklopedikoa (16); hiztegi aberatsa (7); hiztegi bat (32); hiztegi batean (7); hiztegi batek (5); hiztegi baten (5); hiztegi batua (8); hiztegi berezi (4); hiztegi berria (5); hiztegi edo (4); hiztegi entziklopediko (14); hiztegi entziklopediko bat (8); hiztegi entziklopedikoa (31); hiztegi entziklopedikoak (7); hiztegi entziklopedikoan (6); hiztegi entziklopedikoaren (13); hiztegi errimatu (4); hiztegi eta (10); hiztegi eta gramatika (4); hiztegi hau (5); hiztegi hori (7); hiztegi subjektiboa (8); hiztegi subjektiboa n (5); lur hiztegi (5)

azkuek bere hiztegia (5); **azkueren hiztegiak** (4); **bere hiztegia** (4); **bere hiztegia** (17); **deabruaren hiztegia** (4); **eta hiztegia** (16); **eta hiztegia** (4); **eta hiztegia** (5); **eta hiztegia** (4); **euskal hiztegia** (24); **euskal hiztegiak** (6); **euskal hiztegia** (14); **euskal hiztegia** (5); **euskara hiztegia** (7); **hiztegia egin** (5); **hiztegia eta** (7); **hiztegia ez** (6); **hiztegia hartu** (5); **hiztegiak eta** (8); **hiztegiak ez** (5); **hiztegia begiratu** (4); **hiztegia ere** (4); **hiztegiaren arabera** (4); **hiztegiaren egilea** (5); **hiztegia jo** (7); **hiztegia jo dut** (4); **meteorologia hiztegia** (4); **nire hiztegia** (4); **orotariko euskal hiztegia** (20); **orotariko euskal hiztegiak** (6); **orotariko euskal hiztegia** (6); **portugesezko hiztegia** (7); **sinonimoen hiztegia** (4)

hizteigile 1 iz hizteigintzan aritzen den pertsona.

Hitzarekin bueltaka dabil **hizteigilea**, asmatu ezinik. Imanol Zurutuza

Hizteigileak laguntza beharko balu ere, horra *adore* hitzaren definizioa. Imanol Zurutuza

Protagonista Iñaki Abaitua duk, idazlea eta **hizteigilea**. Mikel Hernandez Abaitua

Idazle eta itzultzaile askok eta **hizteigile** guztiek aitortzen dute Plazido Mujikak egindako lanaren balioa eta garrantzia. Berria - Kultura

Aurreko **hizteigileek** hitzari buruz idatzitakoaren bilduma.

2 (izenondo gisa)

Nere lankide **hizteigileentzat**. Iñaki Segurola

hizteigintza 1 iz hiztegiak egiteko antzea, hitzen biltze, sailkatze eta azterketa. iklexikografia; lexikologia.

Egia da, bestalde, **hizteigintzan** dauden joera berriagoak saiatu direla Landucchiren hiztegiari duen dudagabeko garrantzia aitortzen. Jon Alonso

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik lexikografiko.

Lexikologia eta **hizteigintza** arloan egin du lan batik bat. Berria - Kultura

1983. urtetik hona, euskaltzain urgazle izan da, eta Jagon sailean ez ezik, Iker sailean egin du lana, **Hizteigintza** batzordean, hain zuzen. Berria - Kultura

Hizteigintza hizkuntzaren historiak eta gehiagoz gogoeta egitea. Herria

hiztegiño iz hiztegitxoa.

Ordurako hasia nintzen ni koaderno txiki batean **hiztegiño** bat osatzen. Joxerra Garzia

Anjel Lertxundi idazleak, bere ohiko ironiaz, honako **hiztegiñoa** osatu zuen Opuoseko Fakultatean hezitako berriemaile horren inguruan [...]: Egia erdiaren maisua eta gezur osoaren doktorea. Txema Ramirez de la Piscina

Hogoita-zortzi kapitulu eta **hiztegiño** bat, Xuberoko hitz batzueri aiseago ohartzeko. Herria

hiztegitxo iz hiztegi txikia.

Berari euskaraz hitz egiteko eskatzen zigun, eta hau eta beste galdetzen zigun, pixkanaka-pixkanaka **hiztegitxo** bat eta gramatika bat osatzu joateko. Juan Kruz Igerabide

Horregatik ematen dugu **hiztegitxo** hau, zenbait hitzen azalpen laburra eginez. Askoren artean

Zer ikasi ote duzu hamabost urteotan, konturatzeko orduan literalki ulertzen zenituela gauzak, itzuli egiten zenituela barne **hiztegitxo** lineal baten bidez. Kandido Izagirre fraile hitz-biltzaile finak bere Urretxu aldeko **hiztegitxoan**. Lourdes Oñederra

hiztun 1 iz hizkuntza-erabiltzailea.

Hauet [aditu gonbidatuei] ere baldintza bi eskatu behar zaizkie ezinbestean: hizkuntza ondo jakitea eta **hiztun** trebe izatea. Koldo Zuazo

Hiztun ona eta kontatzaile egokia. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Hiztun oso ederra dut neure lagun hau. Gotzon Garate

Osaba hitz egin zale eta **hiztun** bikaina izan baita beti. Pako Aristi

Asko dira Arrasate inguruan ezagutu ditudan **hiztun** ezinago egokiak. Joxerra Garzia

Hiztun ezitia, errekaostaren zurrumurrua bezalakoa, ezpainetan baino begietan irriñoa distiratzten zitzaiola. Gotzon Garate

Beste etxebizitzan Tomas Osoro bizi da, gizon alai eta **hiztun** dotorea. Koldo Izagirre

Hitzak pisatzen ikasi duen **hiztun** dotore doktoreak. Patziku Perurena

Hiztun eskasa izan naiz ni beti eta hala naiz orain, zu agertu ondoren ere. Jose Antonio Mujika

Hiztun aldrebesa zinen, inon aldrebesik bazen. Iñaki Segurola

-Ez zara telefonozko **hiztun** peto horietakoa: askoz adierazkorragoa zinen idatziz, eta sueltoago aritzen zinen aurrez aurre. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hizkuntzalaritzan)

Horrela, gramatikak **hiztunen** jokabidea islatzen du, eurek ere perpaus berrien kopuru amaigabea sor eta uler dezaketelako, nor bere esperientzia mugatutik abiatuz.Beraz, hizkuntza, **hiztun** bakoitzarengan dagoen zerbait da, nahiz guztiena den. Itziar Laka

Komunikazioa eten egiten da **hiztun**-entzuleek elkarri ulertzen ez diotenean. Iñaki Arranz

Gainerako hizkuntzetako **hiztunok** ez dugu ikasten bokal sudurkariak berariaz egiten, ez dugu ikasten bokal sudurkariak hautematen. Lourdes Oñederra

Hiztun helduak haurtzaroan moldatu den hizkuntzaren ahoskera du. **Hiztun** ingelesen [...] ez dute [p] / [ph] desberdintasuna bereizten; thailanderaz berriz ez dago nahasterik, esanahia bereizteko erabiltzen baitira. Lourdes Oñederra

Hizkera eredu batek gizartean arrakastarik izango badu, bizirik egon behar du, eta zenbat eta bizitasun handiagoa izan, hau da, zenbat eta **hiztun** gehiagok erabili, orduan eta hobe. Koldo Zuazo

Hiztunen eguneroko jardunean. Koldo Zuazo

3 hizkuntza jakin batez mintzatzen dena.

1800.ean, adibidez, bost edo sei ehun mila euskal **hiztunetatik** 160.000 edo euskaradunen herena, nonbait han, bizi zen Iparraldean. Piarres Xarriton

Irlandako ingeles **hiztuna**, dublindarra. Edorta Jimenez

40.000 **hiztun** inguru duen erromantxeraz poesia idazten duen artzaina. Edorta Jimenez

• 4 izond mintzatzen dena.

Gizabanako **hiztun** guztien artean zeinek du era honetako hizkuntzan hitz egiteko eskubidea? Xabier Arregi

Subjektu **hiztuna** eta bere solaskideak. Xabier Arregi

Tximino **hiztunaren** lehen esaldia. Joxerra Garzia

Hegazti **hiztunen** historia luzeko lehenengo loro punka zen Nofutur. Jon Muñoz

-Loro hori ez dun **hiztuna**, berritsua baizik! Jon Muñoz

Euskal poeta guziak baino poetago iruditzen zait horretan gure lur **hiztuna**. Patziku Perurena

Ez zituen irakurtzen unikornioak agertzen ziren liburuak, ez kilker jakadunak, arrautza **hiztunak**, ipotx mirezgarriak, edota elefante hegaldariak agertzen zirenak ere. Javi

Cillero

Esku batzuk luzatu dira kutxa **hiztunari** buruz. **Aingeru Epaltza**

Diktadore Handia izan zen komediantearen lehen film **hiztuna**. **Harkaitz Cano**

5 erraztasunez edo trebetasunez mintzatzeko dena; asko hitz egiten duena.

Ez zen gizon **hiztuna**. **Gotzon Garate**

Eta **hiztuna** zen, izugarri **hiztuna**: lehenengo unetik eroso sentiarazi gintuen. **Iban Zaldúa**

Berez ere **hiztuna** izaki, sudurra zikintzen zuenean sekulako jarria izaten baitzuen. **Unai Iturriaga**

Hiztuna da gidaria. **Anjel Lertxundi**

Agian horregatik zen **hiztuna**, hitz egin ahala bere espiritua -motor baten moduan, pentsatzen zuen- berotu egiten zelako. **Bernardo Atxaga**

Niri ere gustatzen zait jende **hiztuna**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jende **hiztun** jakituna ur-axalean kinkirrin ergelean nekatzeko den harri xapalaren pare da. **Iñaki Seguro**

Homo, hetero, sado, maso, zoo... **Jose Morales**

homofilo *izond* pertsonen (askotan soilik gizonezkoen) mintzatuz, bere sexuak erakartzen dutena. ik **homosexual**.

Haatik **homofiloen** aipatzean ere, karitate haboro behar lizateke, edo bestelan isilik egon. **Herria**

Homofiloen Elizan ezkontzeaz, ez dū balio ametsik egin dezen zontzaiten. **Herria**

homofobia *iz* homosexualenganako ezinikusia.

Hori da **homofobia**: homosexualitateari zaion beldurra. **Berria - Euskal Herria**

Sexismoaren eta **homofobiaren** ezaugarriak. **Berria - Kultura**

Homofobia sustatzen duten taldeen jarrera ez babesteko. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan) ik **homofobiko**.

36ko Gerrako intolerantziaren eta **homofobia** giroan. **Berria - Kultura**

Sinetsita nago **homofobia** arrazoirik ez dela tartean izan. **Berria - Euskal Herria**

Bazterkeria eta **homofobia** keinua izan zen. **Berria - Euskal Herria**

Instituzioei edozein **homofobia**, lesbofobia edo transfobia arrastoak [...] ezabatzeko politika eraginkorrak susta ditzatela eskatzen diegu. **Berria - Harian**

Edozein **homofobia** saio gertatzen den bakoitzean, hori egon beharko du gay mugimenduak salaketa egiten. **Berria - Euskal Herria**

homofobiko *izond* homofobiari dagokiona. ik **homofobia 2**.

Jarrera edo pentsamolde **homofobiko** larregi dago oraindik, ez bakarrik kalean, baita eskoletan ere. **Berria - Euskal Herria**

Protestante laikoak **homofobikoagoak** dira, apaiz protestanteak baino. Berria - Euskal Herria
Garaiko giro **homofobiko** eta arrazista jasanda. Berria - Kultura

homofobo *izond* homosexualenganako ezinikusia agertzen duena.

Miarrizteko LGP elkarateak hilketa eta eraso **homofoboak** salatu ditu. Berria - Euskal Herria

Oraindik hezkuntza **homofobia** dugu. Berria - Euskal Herria

Edadetu gay eta lesbiana asko Elizaren esku gera daitezke, egungo erakunde **homofoboaren** esku. Berria - Euskal Herria

homofonia *iz* hitzez mintzatuz, beste bat bezala ahoskatzen dena.

Homofoniaren kasuan, hitzak ezberdin idatzi arren berdin ahoskatzen dira. Iñaki Arranz

Homofonia eta homografia homonimiaren osagarriak dira, batera azaltzen direnean. Iñaki Arranz

Homofoniaren alorrean ere, zentzu biko hitzak eta esamoldeak aurki ditzakegu. Iñaki Arranz

50 silabako sistema batean **homofonia** ugari sortzen da. Ibon Uribarri

Fidel izan beharraz honetan, Wilde jostalariak hizkuntzarekin jokutzen du, hitzen **homofonia**, kakofonia eta polisemia baliatuz. Antton Olano

homofoniko *izond* homofoniari dagokiona,

Hitz pare **homofonikoak**. Disoziazioak ere pare **homofonikoak** sortzen ditu: jakinez/jakin ez, etakideak/eta kideak, bihar/bi har... Iñaki Arranz

Euskaraz, h letra izaten da hitz **homofoniko** gehienen arrazoa (Hegoaldeko euskalkietan): ala/hala, ar/har, ari/hari, aste/haste, ona/hona, ondo/hondo, ura/hura... Iñaki Arranz

homogeneitate *iz* homogeneotasuna.

Zenbat eta handiago entzuleria, txikiago **homogeneitatea**. Ikasketa maila handiak areagotu egiten ditu erreferentziak, **homogeneitatearen** kaltean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

«Espainiako Gobernuak aniztasuna aintzat hartu beharko luke, eta ez **homogeneitatea** Berria - Euskal Herria

homogeneizatu, homogeneiza, homogeneizatzen du *ad* homogeneo bihurtu.

Ikasketa-planen diseinua **homogeneizatze**. Berria - Euskal Herria

Aldundiak zentron funtzionamendua berdintzeko, **homogeneizatze** prozesuari ekin zion. Berria - Euskal Herria

Oraindik ere ikasleak **homogeneizatu** nahi dituen eskola eredua da egungoa. Berria - Euskal Herria

Jendearen tasun biologikoak **homogeneizatze** saio oro [...] biologikoki suizida eta sozialki zentzugabea litzateke. Juan Garzia

Aldundiaren xedea Gipuzkoan adinduei eskaintzen zaizkien zerbitzuak **«homogeneizatzea»** da. Berria - Euskal Herria

homogeneizatzaile *izond* homogeneizatzen duena.

Haren eskaerak Enrique Villarren ikuspegia gogorarazten diela diote, «zentralista eta **homogenizatzailea**», alegia. Berria - Euskal Herria

homogeneizatze *iz* homogeneo bihurtzea.

Tolosako murrizketak ere zentroak **homogenizatze** aldera egin dira. Berria - Euskal Herria

Homogeneizatzearen aurrean herritarrak esaten du: nik badakit nolakoa naizen, eta ni ez naute hain erraz bereganatuko. Berria - Euskal Herria

homogeneizazio 1 *iz* homogeneizatzea.

Estandarizazioa, **homogeneizazioa**. Edorta Agirre

Industrializatuetakako espazio ekonomikoaren **homogeneizazio** eta integrazio gero eta handiagoa. Koro Navarro

Autonomia erkidegoetako **homogeneizazioa** onartzea. Berria - Euskal Herria

Gustu literarioaren **homogeneizazioaz**. Ana Urkiza

Kirol mundua oso konplexua da, eta ez du **homogeneizaziorik** behar. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Herritarrak agintarien **homogeneizazio** ahaleginaz oharitzen dira heziketa jasotzen dutenean, eta hori gertatu da Ingalaterran eta Frantzia, adibidez. Berria - Euskal Herria

Europako unibertsitateen **homogeneizazio** prozesuari edo Bolognako Hitzarmenak agindutakoari heldu beharko dio Berria - Harian

homogeneo 1 *izond* egitura uniforme duena; osagaiak, parteak, izaera berekoak, edo era uniformean banatuak dituen.

Publikoa **homogeneoa** denean, bertsotan egitea errazago duk, alde batetik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Saio horietako entzuleek, beraz, aski entzuleria **homogeneoa** osatzen dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ohiko produktuak geroz eta estandarriago, **homogeneoago**, uniformeago izango ditugu. Edorta Agirre

Zail da aurkitzen hizkuntza komunitate **homogeneorik**, Euskal Herriko leku askotan behintzat. Pello Salaburu

Homogeneoa da euskara zuberotarra, batasun handikoa. Koldo Zuazo

Lodiera **homogeneoko** geruza baten gisa. Juan Garzia

Ez dugu datu **homogeneoak** ematerik izan, iturriak desberdinak direlako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Argi **homogeneoak**, ertzik gabeak. Josu Zabaleta

Berpizkunderan "espazio sistematikoa" (matematikoki ordenatua, infinitua, **homogeneoa**, isotropoa) azaldu zenean. Josu Zabaleta

Baliteke, globalizazioaren eta kontsumo gizartearen ondorioz, balioak eta nahiak ere, lehen baino **homogeneoagoak** izatea. Berria - Gaiak

2 (adizlagun gisa)

homogeneoki *adlag* era homogeneoan. ik **homogeneo 2**.

Ez dut uste oraingoz munduko borroka sozialak **homogeneoki** garatzeko aukerarik dagoenik; ez dut uste, gainera, hori onuragarria izan daitekeenik. **Berria - Mundua**

Izan ere, inbasioaren aurkako manifestazioek erakusten dute bozetarako iragarri duten abstentzioaren beste aurpegia: gai garrantzitsuak jokoan direla ikusten dutenean, europarrak masiboki, estatuak gaindituta eta **homogeneoki** mobilizatzen direla frogatuko lukete. **Berria - Mundua**

homogeneotasun 1 *iz* homogeneoa denaren nolakotasuna.

Giroaren **homogeneotasuna**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Kulturaren **homogeneotasunaren** eta botere politikoaren sakabanatze izugarriaren arteko kontrastea da. **Koro Navarro**

Zeren, inperio zabal honek, hamabi milioi kilometro koadro izanik, ezin du mendebaldeko Europako estatuen **homogeneotasuna** eduki. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

TIMMS-ek azaldutako beste datu bat **homogeneotasun** maila da, errendimendurik onena eta okerreana lortzen duten ikasleen arteko aldea neurtzen duen aldagaia da hori. **Berria - Euskal Herria**

Komunitate-**homogeneotasunaren** ideala. **Iñaki Mendiguren**

homoide *izond*

$84x + S = y$ lerro zuzenean zehar mugitzen den paralelepipedo angeluzuzen batean, A **homoideak** -bi sinusoidez inguraturiko kasko esferiko batez hornitua eta $l > n$ luzerako parte zilindriko baten gainean kokatua- ukigune bat du B **homoide** hutsal batekin. **Xabier Olarra**

Zehaztu elkargune horren h altura A **homoidearen** ardatz bertikalarekiko. **Xabier Olarra**

homologagarri *izond* homologa daitekeena.

Nor banakoaren berezkoenak bailiran saldu nahi dizkiguten horiek guztiak, horietatik direla hain justu gaur egun arruntenak, komunenak, berdintzaileenak,

homologagarrienak. **Joxerra Garzia**

Unibertsitatea Europako esparruan **homologarri** izateko bete beharreko arauak. **Berria - Euskal Herria**

homologagarritasun *iz* homologagarria denaren nolakotasuna.

Ezer baino lehen, herri sektoreen arteko aliantza egituratu beharra dago, bi faktore dialektikoak (**homologarritasunaren** beharra eta sortu nahi dugun unibertsitate eredu berritzailea) kontuan hartuz **Berria - Euskal Herria**

homologatu, homologa(tu), homologatzen 1 da *ad* homologo bihurtu; homologotzat hartu.

Goikoekin **homologatzeko** eta moderno itxura hartzeko. **Koldo Zuazo**

Euskara modernizatu, zeregin teknikoetara egokitu eta inguruko hizkuntzekin **homologatu** behararen aitzakiapean. **Koldo Zuazo**

2 zerbait arau edo ezaugarri jakin batzuetara egokitzen dela ofizialki ezagutu.

Europar **homologatutako** sistema batek. **Koldo Izagirre**

Nazioartean **homologaturiko** erratza da gero hau! **Iñaki Mendiguren**

3 (era burutua izenondo gisa)

Kultura **homologatu** batean. **Markos Zapiain**

Harri leundu haiek ez zirela harriak, hilarriak zirela: guztiz hilarri **homologatuak**, guztia esan behar bada. **Unai Elorriaga**

Euskotaxi edo taxi **homologatuen** proiektua. **Berria - Euskal Herria**

Euskaltegi pribatu **homologatuen** ia %100 ordezkaten duen taldeak. **Berria - Euskal Herria**

Ikasketa **homologatuak** egin nahi izanez gero. **Berria - Kultura**

homologazio *iz* homologatzea.

Bilboko hiri zirkuituak FIAREN **homologazioa** jaso du. Globalizazio faktorearen ondorioz gertatzen ari diren tentsioak kultur **homologazioaren** eta kultur ezberdintasunaren artean mugitzen dira. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Europako **homologazio** probak pasatu dituen seinalea. **Berria - Euskal Herria**

Homologazio prozesua zein egoeratan dagoen azaldu zuen Etxaguek. **Berria - Euskal Herria**

Homologazio sistema berri bat. **Berria - Euskal Herria**

homologemata *iz*

Legea itunarekin nahasten dute legeak **homologemata** besterik ez direla uste dutenek. **Esteban Antxustegi**

homologia *iz* homologoa izateko zertzelada.

Beste **homologia** mota bat ere proposatu izan da irudiaren funtzionamendua eta ikusleak irudia ulertzeko duen modua, biak batera argitzeko: irudiaren eta hizkuntzaren arteko **homologia**. **Homologiarik** gabeko egituratzat jotzen dira, beren eboluzioan bakoitza bere prototipo-organismotik abiatutzat, zein bere aldetik. **Josu Zabaleta**

homologo *izond* beste bat bezalakoa, egokitasun batean haren kidea dena; mota edo sailkapen berekoa.

"Zinema-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna" **homologoak** dira, esan nahi baita, "konfigurazio filmiko batzuk ulertu ahal izateko, hizkuntzazko jardueran barneratu dituen mekanismoek baliatzen da ikuslea". **Josu Zabaleta**

Israelgo presidenten Moshe Katzavek «absurdotzat» jo zuen atzo bere **homologoaren** proposamena. **Berria - Mundua**

Frutaren eulieren genomaren sekuentzia lortuta, gizakien gaixotasun genetikoak **homologoak** diren genen %70 esku artean ditugu. Berria - Gaiak

Kromosoma **homologoak** arteko zati-trukeen bidez birkonbinatzen direla geneak. Juan Garzia

HOM taldeko gene **homologoak** multzoari Hox esaten zaio. Juan Garzia

Ematen zuen asoziazio-kortexaren erdialdean zeudela lesio erabakigarriak, tximuarengan V4 deritzon eremuaren **homologoetan**. Xabier Olarra

Homologoa edo autologoa izan, UCkI aspaldi debekatu zuen odol transfusioaren erabilera kirol errendimendua hobetzeko. Berria - Kirola

homonimia iz

Hizkuntzek **homonimia** dute jolaserako baliabide emankorrenetako bat. Iñaki Arranz

Homonimia osoak, berez, bi hitzen arteko idazkera eta ahoskera berdin-berdinak eskatzen ditu. Iñaki Arranz

Homofonia eta homografia **homonimiaren** osagarriak dira, batera azaltzen direnean. Iñaki Arranz

Txantxetan hartu beharreko **homonimia** elebidunek ere badute bere tarteak. Iñaki Arranz

Hitz jokoa egiten du, *seal* = zigilu/ *seal* = itsas-lehoi **homonimian** oinarritua. Xabier Olarra

Argi dago, beraz, "antza"ren esangura ulertzen duenarentzat, Hari (gorets bedi!) eta Harengandik kanpoan dagoen guztiari "izatedun" hitza aplikatzen baldin bazaie ere, hori **homonimia** hutsez besterik ez dela. Xabier Kintana

Hitzetatik unitate luzeagoetara igaro nahi badugu, nekezago egiten zaigu **homonimiak** aurkitzea. Iñaki Arranz

Fonema-hurrenkera bat bitara itxuratzen denean, egiturazko **homonimia** dugu. Itziar Laka

Honelakoetan, "eraikuntza-**homonimia**" gertatzen dela esango dugu, eta, gure gramatika egokia bada, hizkuntzako perpaus honek anbigua izan beharko luke. Itziar Laka

homonimiko izond

Hitz pare **homonimikoak**. Iñaki Arranz

Bertsolariak ere baliatzen dira hitz **homonimiko** hauetat, poto egitea galarazten baitute. Iñaki Arranz

homonimo izond/iz

hitzez mintzatuz, izenkidea, beste baten adierazle bera baina esanahi desberdina duena. ik

forma berdina dute hitz **homonimoek**, eta aldi berean esanahi ezberdina. Iñaki Arranz

Hitzen magia liluragarria nork ez du, bada, gozatzen hitz bikote formaren aldetik ia **homonimoak** eta esanahiaren aldetik antonimoak topatzen dituenen? jende prestu edo, nire **homonino** argitsu batek deitu zenez, "luigini"en aldean. Iñaki Arranz

homonoia iz

Mundu helenikoan, adibidez, **homonoia** edo harmoniaren ikuspena, indarrak inoiz ezin zuena egin zezakeena, arima heleniko gutxi batzuek zalantzarik gabe atzeman zuten arazoaldi baten estres espiritualaren pean Iñaki Mendiguren

homoparental izond

familiez mintzatuz, bi gurasoak sexu berekoak direna.

Bilbon, adibidez, Iñakik eta Albertok, eta lehenengoaren alaba biek osatzen dute sendi **homoparental** horietako bat. Berria - Harian

Familia **homoparentalak** dira, ezaugarri bereziak ez ezik, berariazko arazoak eta premiak dituztenak. Berria - Harian

homorritmia iz

eritmo berekoak izatea.

Petrassi-ren *Tre pre sette* izan zen lanik sendoena: haizezko egurrezkoentzat egindako tarazea moduko pieza entzun genuen, neurri, tempo, iraupen eta irudi ezberdinetan oinarritutako konexioa, **homorritmiatik** askatasun osoraino. Berria - Kultura

homosexual 1 izond

pertsonen (askotan soilik gizonezkoen) mintzatuz, bere sexuak erakartzen dutena.

Badira transexual heterosexuak eta transexual **homosexuak**, hau da, anatomia maskulinoa izanda emakume sentitzen diren artean, batzuei gizonak gustatzen zaizkie eta beste batzuei emakumeak. Luis Elberdin

Bikote **homosexualei** ezkontzeko eskubidea onartzeagatik. Berria - Euskal Herria

Hamabost urte ezkondu bizi ondoren, bat-batean emaztea eta haurrak utzi eta berriz ere lagun **homosexualetara** jo zuen. Gotzon Garate

Emakume **homosexuak** egoera «are okerragoa» dela dio idatziak. Berria - Gaiak

Primateen eta batez ere txinpantzeen artean, era askotako jokabide lesbikoak eta **homosexuak** ikusi dituzte ikertzaileek. Luis Elberdin

Taldearen barruan, bai emeen artean bai arren artean, jokabide **homosexuak** eta heterosexuak sailean gertatzen dira. Luis Elberdin

Harreman lesbikoak, **homosexuak**, bisexualak eta heterosexuak. Luis Elberdin

Guraso bakarreko familiak; bikote **homosexuak** eta lesbikoak... Luis Elberdin

Joera **homosexuak** ezkutuan gordetzen. Migel Angel Mintegi

Txikitari, esaterako, esperientzia **homosexual** txiki batzuk izan zituen. Karlos Zabala

Gay izateak **homosexual** izatea baino zerbait gehiago esan nahi du. Luis Elberdin

Eta zer, ni ere **homosexuala** banintz...? Patziku Perurena

Gizonezko **homosexuak** baino bazterketa eta arbuio handiagoa jaso dute emakume lesbienek historian zehar. Luis Elberdin

Pertsonak ez dira heterosexuak, **homosexual** edo bisexual jaiotzen. Luis Elberdin

2 (izen gisa)

Zenbat **homosexual** erre ote dituzte "su garbitzailean". Luis Elberdin

Drogazaleek eta **homosexualek** hazia ematea galarazi dute Estatu Batuek. Berria - Gaiak

Homosexuak arteko harremanak. Luis Elberdin

Homosexuak eskubideen alde. Berria - Kultura

Epaileak dio **homosexuak** ezkontzea inkonstituzionala dela. Berria - Gaiak

Homosexuak taberna bat zela. Harkaitz Cano

Poliziari ez zuen **"homosexuala"** erran, "marikoia" baizik, eta hori, inguruabar ideologikoen aparte, ez da inoiz adiskide batez erabiltzeko hitza. Aingeru Epaltza

Leonardo **homosexual** erreprimtua omen zen, edo sublimatua, hobeto esateko, afektibitatez amari atxikia. Josu Zabaleta

hona (7); **ertortzen da hona** (7); **ezazue hona** (8); **gara hona** (18); **garaitik hona** (7); **gela hona** (7); **gero hona** (9); **haiz hona** (10); **hamarkadatik hona** (10); **handik hona** (34); **hara eta hona** (300); **hara hona** (145); **hara hona ibili** (9); **hara hona ibiltzen** (13); **hara hona zebilen** (8); **hartatik hona** (8); **hasieratik hona** (15); **hator hona** (34); **hilabetetik hona** (8)

hona agertu (7); **hona aldatu** (7); **hona bada** (10); **hona beraz** (10); **hona bere** (13); **hona berriro** (7); **hona berriz** (9); **hona beste** (28); **hona bi** (12); **hona bidali** (8); **hona bizitzera** (9); **hona dabil** (8); **hona dabiltzan** (8); **hona egin** (19); **hona eginiko** (8); **hona egiten** (7); **hona ekarri** (58); **hona ekarriko** (19); **hona ekartzea** (11); **hona ekartzen** (11); **hona ere** (8); **hona eta** (47); **hona eta hara** (15); **hona etorri** (145); **hona etorri aurretik** (10); **hona etorri baino** (9); **hona etorri behar** (10); **hona etorri eta** (20); **hona etorri nahi** (7); **hona etorri nintzenezan** (8); **hona etorriko** (20); **hona etortzea** (26); **hona etortzeko** (42); **hona etortzen** (38); **hona euskal** (7); **hona ez** (27); **hona gure** (10)

hona hainbat (8); **hona haren** (11); **hona heldu** (11); **hona hemen** (898); **hona hemen adibide** (14); **hona hemen batzuk** (8); **hona hemen bere** (9); **hona hemen beste** (9); **hona hemen gu** (16); **hona hemen gure** (11); **hona hemen horietako** (11); **hona hemen jaunak** (12); **hona hemen ni** (12); **hona hemen nire** (18); **hona hemen pasarte** (7); **hona hemen zenbait** (9); **hona hemen zer** (22); **hona horietako** (7); **hona ibili** (37); **hona ibiliz** (7); **hona ibiltze** (7); **hona ibiltzeko** (8); **hona ibiltzen** (20); **hona iritsi** (33); **hona itzuli** (7); **hona izan** (7); **hona jaunak** (8); **hona jin** (7); **hona ni** (12); **hona nik** (13); **hona nik esan** (7); **hona nire** (39); **hona nola** (42); **hona non** (102); **hona orain** (16); **hona zebilen** (17); **hona zebiltzan** (16); **hona zein** (15); **hona zer** (144); **hona zer dioen** (38); **hona zer gertatu** (7); **hona zer idatzi** (8); **hona zer zioen** (9); **hona zergatik** (10); **hona zertan** (8); **hona zure** (9); **hori hona** (7)

iaztik hona (27); **itzuli hona** (8); **martxotik hona** (9); **mendetik hona** (17); **naiz hona** (38); **ni hona** (22); **nintzen hona** (11); **noiztik hona** (7); **orain hona** (7); **ordutik hona** (119); **urtarriletik hona** (15); **urte batzuetatik hona** (14); **urte hasieratik hona** (8); **urteetatik hona** (8); **urtetik hona** (67); **zara hona** (19); **zarete hona** (10); **zatoz hona** (52); **zatoz hona eta** (7); **zen hona** (12); **zenetik hona** (18); **zu hona** (8)

behin honaino (7); **da honaino** (7); **eta honaino** (18); **honaino ekarri** (18); **honaino etorri** (20); **honaino heldu** (8); **honaino iristeko** (8); **honaino iristen** (16); **honaino iritsi** (25)

arteon honako (18); **arteon honako hauek** (11); **baina honako** (20); **baina honako hau** (9); **begira honako** (8); **beste honako** (26); **beste honako hau** (19); **buruz honako** (9); **da honako** (26); **da honako hau** (15); **dira honako** (13); **du honako** (8); **dute honako** (9); **eta honako** (104); **eta honako hau** (36)

honako baldintza (7); **honako bertso** (17); **honako beste** (15); **honako bi** (16); **honako bidean** (11); **honako edo** (14); **honako edo halako** (7); **honako esaera** (10); **honako esaldi** (15); **honako gaia** (10); **honako galdera** (31); **honako galdera hau** (17); **honako gaia** (593); **honako hau adierazi** (10); **honako hau da** (84); **honako hau dio** (18); **honako hau ere** (15); **honako hau esan** (33); **honako hau esaten** (11); **honako hau ez** (11); **honako hau idatzi** (24); **honako hau izan** (17); **honako hau zen** (7); **honako hau zioen** (10); **honako hauek** (240); **honako hauek dira** (84); **honako hauek izan** (19); **honako hauek izango** (7); **honako hauek ziren** (7); **honako hauxe** (29); **honako hiri** (10); **honako hiri hauek** (7); **honako hiru** (16); **honako hitz** (27); **honako hitz hauek** (15); **honako hitzak** (7); **honako honek** (15); **honako honetan** (24); **honako honetaz** (8); **honako honi** (9); **honako lau** (11); **honako mezu** (11); **honako mezu hau** (9); **honako mezua** (9); **honako ohar** (13); **honako ohar hau** (9); **honako pasarte** (10)

hori honako (8); **zen honako** (7); **zuen honako** (8)

arteon honako (18); **arteon honako hauek** (11); **baina honako** (20); **baina honako hau** (9); **begira honako** (8); **beste honako** (26); **beste honako hau** (19); **buruz honako** (9); **da honako** (26); **da honako hau** (15); **dira honako** (13); **du honako** (8); **dute honako** (9); **eta honako** (104); **eta honako hau** (36)

honako baldintza (7); **honako bertso** (17); **honako beste** (15); **honako bi** (16); **honako bidean** (11); **honako edo** (14); **honako edo halako** (7); **honako esaera** (10); **honako esaldi** (15); **honako gaia** (10); **honako galdera** (31); **honako galdera hau** (17); **honako gaia** (593); **honako hau adierazi** (10); **honako hau da** (84); **honako hau dio** (18); **honako hau ere** (15); **honako hau esan** (33); **honako hau esaten** (11); **honako hau ez** (11); **honako hau idatzi** (24); **honako hau izan** (17); **honako hau zen** (7); **honako hau zioen** (10); **honako hauek** (240); **honako hauek dira** (84); **honako hauek izan** (19); **honako hauek izango** (7); **honako hauek ziren** (7); **honako hauxe** (29); **honako hiri** (10); **honako hiri hauek** (7); **honako hiru** (16); **honako hitz** (27); **honako hitz hauek** (15); **honako hitzak** (7); **honako honek** (15); **honako honetan** (24); **honako honetaz** (8); **honako honi** (9); **honako lau** (11); **honako mezu** (11); **honako mezu hau** (9); **honako mezua** (9); **honako ohar** (13); **honako ohar hau** (9); **honako pasarte** (10)

hori honako (8); **zen honako** (7); **zuen honako** (8)

batek honakoa (8); **da honakoa** (21); **eta honakoa** (33); **eta honakoa gaineratu** (11); **honakoa adierazi** (19); **honakoa adierazi zuen** (11); **honakoa da** (69); **honakoa dio** (22); **honakoa erantzun** (11); **honakoa erantzun zuen** (8); **honakoa esan** (35); **honakoa esan zuen** (17); **honakoa esaten** (10); **honakoa gaineratu** (15); **honakoa gaineratu zuen** (9); **honakoa izan** (14); **honakoa izan zen** (10); **honakoa zen** (8)

honakoak dira (40); **honakoak izan** (8)

hondabera *izond* hondaeraza.

Hartara inork ezagutzeko arrisku gutxiago nuela argudiatu nuen; kontua da kale jendegabean ikusterraz eta **hondabera** sentitzen nintzela, infinituki.

Juan Garzia

hondabide *iz* hondatzeko bidea.

Ixtanteko terapia, orobat **hondabidea**.

Jose Angel Irigaray

hondaerraz *izond* hondatzen erraza dena. ik **hondabera**.

Argazki baten koloreak aldatu egingo dira, eta oso bizkor aldatu ere, argi biziégitan edukitzen bada (oso nabarmena da hori XIX. mendean egindako jatorrizko probetan, oso

hondaerrazak baitira), eta abar.

Josu Zabaleta

hondaezin *izond* ezin hondatuzkoa.

Jaungoiko Jaunaren esanetara makurtuz gero haren edertasun **hondaezinarekin** bat egingo dute.

Imanol Unzurrunzaga

Natura **hondaezina** Ongi Gorena da; hondagarria, berriz, nolabaiteko ongia.

Imanol Unzurrunzaga

hondagaitz *izond* ia hondaezina.

Ontzi eta gainazal egokien faltan, bada, lapurgai idealak solidoa, **hondagaitza**, ez oztopagarria eta, batez ere, berria izan behar zuen.

Juan Garzia

hondagarri 1 *izond* hondatzen duena.

Ekaitz **hondagarriak** bezala.

Elizen arteko biblia

Hego-mendebaldeko Asiako altxor-etxeetan lehenengoek eta Ameriketakoetan gerokoek egindako harrapaketak bat-batean urre edo zilar pila handia ipini zuen zirkulazioan eta honek inflazio **hondagarria** eragin zuen.

Iñaki Mendiguren

Intimidade erotikoko gau horrek gizonari eragiten dizkion alderdi **hondagarriak**, izan ere katatoniak joa uzten baitute.

Josu Zabaleta

Kaskezurraren sendagarria urdailaren **hondagarri** gerta ez dadin, zerbait jateko kontseilatzan dute adituek.

Aingeru Epaltza

2 honda daitekeena.

Natura hondaezina Ongi Gorena da; **hondagarria**, berriz, nolabaiteko ongia.

Imanol Unzurrunzaga

Substantzia sortuak soilik direla **hondagarriak**; sortua izan ez den ongi gorena hondaezina dela.

Imanol Unzurrunzaga

Hondamenak era, edertasun eta ordena oro erauzten badu gauza **hondagarrietan**, naturak ez du han iraungo.

Imanol Unzurrunzaga

hondaketa 1 *iz* hondatzea.

Nik egin dut artisaua, txingarrari haize emanez helburu ezberdinetarako tresnak egiten dituena; eta nik egin dut suntsizaillea, **hondaketa** helburu duena.

Elizen arteko biblia

Galera horiek atzera bueltarik gabekoak dira, eta ekosistemetan izugarrizko **hondaketa** dakarte.

Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ingurumenak dagoeneko kaltea edo **hondaketa** jasan duenean.

Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 hondakinearen ondorioa.

Eman diezaietela dirua Jaunaren etxeko lan-arduradunei, hauek tenpluko **hondaketak** konpontzen ari diren langileei ordaintzeko. **Elizen arteko biblia**
Hor agertzen dira tarteka harri erauntsiak egindako triskantza eta **hondaketak**. **Pello Zabala**

hondakin (ETCn **26.452** agerraldi) **1** iz zerbaitetik, hondatu ondoren, gelditzen dena. **ikerorkin; hautsikin; apurkin; hondarkin.**

Hondartzan zabor eta **hondakinik** ez da falta. **Jose Angel Irigaray**
Mareak bere **hondakinak** haren uzten dituen modu berean. **Alberto Barandiaren**
Oraindik ere *poubelle* deitzen diote frantsesek **hondakinak** eta zaborrak gordetzeko ontziari. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Zabor eta **hondakinen** arazoa. **Pello Zabala**
Etxean bildutako **hondakinak**. **Berria - Euskal Herria**
Tabernetan sartu eta jendeak lurrera botatzen zituen **hondakinak** aprobetxatu. **Jon Arretxe**
Mahaitik eroritako **hondakinekin** konformatzen den zakurrak bezala. **Bernardo Atxaga**

ik hondar².

Hala, bada, bi hodi zituzten, bata **hondakin** solidoak kanporatzeko -gorozkiak-, eta bestea -bagina- **hondakin** likidoak -gernua- eta umeak kanporatzeko. **Luis Elberdin**
Industria eta erietxeetako **hondakinak** gehituz, 244.000 tona dira gaur egun. **Berria - Euskal Herria**

Hondakin horietatik asko eta asko ingurumenera itzultzen dira, bere asimilazio gaitasuna arriskuan jarriz. **Hondakinen** gaikako bilketa «nabarmen hazi» dela azpimarratu du Garmendiak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Hondakinen kudeaketa iraunkorra. **Iñaki Heras**

Populazio jakin batek sortzen dituen **hondakinak** asimilatzeke behar dena. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Hondakinak zabortegira botatzea galarazten badute, beste irtenbide bat bilatu beharko dugu. **Berria - Gaiak**

Hondakinak tratatzeko sistema. **Berria - Euskal Herria**

Hondakinok batu eta berrerabiltzeko planta berezia. **Berria - Euskal Herria**

Errauste planta batean sartzen diren 100 kilo **hondakinetatik** 25 kilo zepa eta 4 kilo errauts geratzen da. **Berria - Euskal Herria**

Urtean 10.000 tona **hondakin** eramaten dituzte Bizi Garbiak kudeatzen duen Zaluaga eremura. **Berria - Euskal Herria**

Lapurdi aldeko egiturak 70.000 tona **hondakin** bereizi beharko ditu urtero. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

Gure bizitzeko era berriak gero eta **hondakin** organiko gutxiago pilatzen baititu etxe eta inguruetan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Plutonio-garraioak **hondakin** nuklearen aferaren inguruko eztabaida berpiztu du azken asteotan. **Berria - Gaiak**

Barentseko itsasoa **hondakin** erradiaktiboan biltegi handi bat bihurtu dela dio UNEPen txostenak. **Berria - Gaiak**

Hondakin grisei dagokienez, bio-hondakinak biltzeko egiturarik ez dagoen tokian mekanikoki eginen da hondakinen prestaketa eta bereizketa, azkenik metanizazioa lortzeko. **Berria - Euskal Herria**

Hondakin berdeak konpostatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Hondakin kutsakorren emisio erritmoak ez du ekosistema naturalen asimilazio gaitasuna baino handiagoa izan behar. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

3 (eraikinenak, hirienak)

Eraikuntzako **hondakinei** probetxu ateratzeko saioa. **Berria - Euskal Herria**

San Juan de Acre ospitalearen **hondakin** harrigarriak ezker, Navarreten sartu aitzin. **Piarres Aintziart**

Bonbardaketek eragindako **hondakinen** artean jolasean nenbela. **Alberto Ladrón Arana**

Hondakin huts bihurturiko karrikak. **Alberto Ladrón Arana**

Ezaguna da Troiako **hondakinak** aleman batek ikertu zituela. **Edorta Jimenez**

Hirietako **hondakinen** artean bizi direnak gerran hilko dira. **Elizen arteko biblia**

Hirian ez da **hondakina** besterik; sarrerako atea, lurrean txikitua. **Elizen arteko biblia**

Barbaro garaileen hordak, estimatu ezin duten zibilizazio baten **hondakinen** artean erotuta lasterka dabilzanak. **Iñaki Mendiguren**

Iruñea-Lizarra autobioki lanetan orain arte agertutako **hondakin** arkeologikoak. **Berria - Kultura**

Arkeologia eta antropologia **hondakinen** zientziak dira. **Joseba Zulaika**

Hondakinak eta hautsikinak baino ez, bazter guztietara begiratuta ere, txakurrak eta katuak ugariago herritarrek baino. **Mirentxu Larrañaga**

Hondakin eginek zegoen bazter hori, arras porrokatua eta lur joa. **Aingeru Epaltza**

4 (pertsonek)

Hogeita hamar gizon hil eta haien **hondakinak** harturik, igarkizuna asmatu zutenei eman zizkien soingainekoak. **Elizen arteko biblia**

Neska honetxan **hondakinak** aurkitu zituzten Francisen bizitegiaren ondoko etxola baten azpian. **Gotzon Garate**

Zekorraren okela, larrua eta **hondakinak** kanpalekutik aparte erreko dituzu. **Elizen arteko biblia**

Balea hilen **hondakinak**. **Joseba Sarrionandia**

5 (bestelakoak)

Kendu zilarrari **hondakinak** eta ontzia egingo du zilarginak. **Elizen arteko biblia**

Itxura denez, kometa baten **hondakinen** artetik-edo igarotzen gara une horretan. **Josu Zabaleta**

Gorputzean gertatzen diren hainbat prozesu kimikoren **hondakina**, proteinetatik sorturiko **hondakinen** parte handi batek nitrogenoa dauka. **Irene Aldasoro**

Baina **hondakinak** suaren arragoan xahutu eta garbituz gero beste zerbaitek dira, errauts dira, "bizigai" dira berriro. **Joseba Zulaika**

6 (gauza abstratuenak)

Gizarte Islamiko jaio berriak, Arabikoa eta Iranikoa, hildako mundu siriakoaren **hondakinetatik** sortu ziren. **Iñaki Mendiguren**

Zibilizazio Heleniko bizi bat hildako Zibilizazio Minoikoaren **hondakinetatik** sortzen ari zen garaia zen. **Iñaki Mendiguren**

Identitatearen **hondakinak**. **Joseba Zulaika**

Porrotaren **hondakinak** ziren, zaborra: eritasun fisikoak pixkana-pixkana barneko dohainak ere ahuldu egiten dituelakoan nengoen. **Anjel Lertxundi**

David ez da haren gogokoa izan inoiz; harentzat iraganeko **hondakin** bat da. **Oskar Arana**

Preso politikoak zirela, sistema anker baten **hondakinak**. **Koldo Izagirre**

Erregimen faxistaren **hondakinen** eskuetan zegoen italiar Poliziak eta magistraturak, inongo frogarik gabe, bi urteko atxiloaldia ezarri baitzion. **Berria - Kultura**

Paperen saskia orri zimurrez, [...] zirriborrez beterik gelditu zen, egun oso bateko estilo eta gramatika-ahaleginen **hondakin** baliogabeak. **Jon Alonso**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Damasko ez da jadanik hiri izango, **hondakin** -pila baizik. **Elizen arteko biblia**

Giltzurrunak, berriz, bota egiten ditu ia substantzia guztiak, eta **hondakin** -hoditik berreskuratzen gai funtsezkoak. **Irene Aldasoro**

Parean genituen ontzietatik itsasora jauritzen ziren **hondakin** -urak saihestu guran gindoazelarik. **Edorta Jimenez**

Indiako Ganges ibaian, esaterako, minuturo 1,1 milioi litro **hondakin-ur** isurtzen dira. **Berria - Gaiak**

- izond Gero, garagararik ez eta, zinemara joan ginen, gure lagun **hondakin** -ikertzaila gidari. **Joxe Austin Arrieta**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxe **hondakin** artean ibili ginen, karrika izena ere merezi ez zuten bidexka ozta-ozta garbituetan zehar. **Alberto Ladron Arana**

Etxe **hondakin** artean berriro erabiltzeko moduan geldituriko adreiluak bildu eta garbitzea. **Alberto Ladron Arana**

Etxe-**hondakinak** errausteko lantegi bat, laurogei metrora. **Eskarne Mujika**

Hontza-zuria basamortuan bezala nago, gau-hontza hiri-**hondakin** artean bezala. **Elizen arteko biblia**

Zulo hartan ezkutatu nituen gorpu **hondakinak**. **Koro Navarro**

Bi lekuotan gordetzen baitira Kolonenak omen diren hezur-**hondakinak**. **Joxerra Garzia**

Hortz-haginen artean bazkaritik geratu zitzaizkion bildoski **hondakinak** erakutsiz. **Jon Arretxe**

Plater eta eltze erabiliak harraskan zeuden, eta janari **hondakinak** mahai gainean. **Aingeru Epaltza**

Coca-cola lata hustuez, pizza-**hondakin** fosilduez eta zigarrokinez ziprintindutako egongela baten erdian. **Iban Zaldúa**

Zaldi-gorotzak izaten dira euliantzat euren arrautzak jartzeko lekurik aproposenak, baina horien faltan edozein hondakin oso egokitzat hartzen dute, landare-**hondakinak** batik bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Olio **hondakinetatik** biodiesel sortzeko lehen planta. **Berria - Gaiak**

Beste aukera bat nitrogenozko proteina-**hondakina** amoniako bihurtzea litzateke. **Irene Aldasoro**

Gipuzkoako Hiri **Hondakinak** Kudeatzeko Plan Integrala.

Bio-**hondakinak** biltzeko egiturarik ez dagoen tokian mekanikoki eginen da hondakinaren prestaketa eta bereizketa. **Berria - Euskal Herria**

9 zigarro eta kideko mintzatzuz, erre gabe uzten den muturra. ikpunta 11a.

Zaldizain mexikarren zigarro **hondakinak** barne. **Berria - Harian**

Gainezka dago autoko hautsontzia, iragazki ertzeraino erretako **zigarro hondakinekin**, eta inguru guztian sakabanatuta errautsak. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta hondakin (3); azken hondakin (3); beste hondakin (5); beste hondakin batzuk (4); da hondakin (3); den hondakin (5); dituen hondakin (3); duen hondakin (4); eta beste hondakin (4); eta hiri hondakin (3); eta hondakin (30); eta hondakin gehiago (4); etxeko hondakin (4); gero eta hondakin (6); giza hondakin (4); gora hondakin (5); gure hondakin (4); hiri hondakin (16)

hondakin arriskutsu (6); hondakin arriskutsuak (8); hondakin arriskutsuak tratatzeko (3); hondakin artean (4); hondakin asko (3); hondakin bat (4); hondakin batu (3); hondakin batzuk (7); hondakin batzuk tratatzeko (3); hondakin berdeak (4); hondakin bildu (3); hondakin erradiaktiboak (3); hondakin erradioaktiboak (4); hondakin erradioaktiboak (3); hondakin eta (6); hondakin gehiago (8); hondakin gehiago sortzen (4); hondakin gehien (5); hondakin gutxiago (10); hondakin gutxiago sortzeko (3); hondakin gutxien (3); hondakin horiek (14); hondakin horien (4); hondakin huts (4); hondakin isurtzen (3); hondakin kimiko (3); hondakin kopurua (10); hondakin nuklearrak (7); hondakin nuklearren (4); hondakin organiko (4); hondakin organikoak (6); hondakin pila (11); hondakin pilo (3); hondakin solidoak (10); hondakin solidoak kanporatzeko (3); hondakin solidoen (3); hondakin sortzen (8); hondakin sortzen da (3); hondakin toxiko (5); hondakin toxikoak (8); hondakin urak (15)

kilo hondakin (7); milioi tona hondakin (3); sortutako hondakin (3); tona hiri hondakin (7); tona hondakin (24); tonatik gora hondakin (5); zenbat hondakin (5); zenbat hondakin sortzen (4)

da hondakina (3); hondakina besterik (3)

azken hondakinak (9); azken hondakinak lurperatzeko (5); baina hondakinak (3); bateko hondakinak (3); baten hondakinak (12); bere hondakinak (3); beren hondakinak (3); dira hondakinak (4); diren hondakinak (11); ditu hondakinak (3); dituen hondakinak (5); dituzte hondakinak (4); du hondakinak (3); eremuko hiri hondakinak (3); eta hondakinak (33); eta hondakinak ere (3); eta zuberoko hondakinak (5); etxe hondakinak (3); euskal herriko hondakinak (4); gazteluaren hondakinak (3); geratzen diren hondakinak (3); gipuzkoako hiri hondakinak (26); giza hondakinak (3); herriko hondakinak (4); hiri hondakinak (56); hiri hondakinak kudeatzeko (42)

hondakinak aurkitu (4); hondakinak baizik (3); hondakinak baizik ez (3); hondakinak besterik (3); hondakinak biltzeko (4); hondakinak birziklatzeko (6); hondakinak desagerrarazteko (3); hondakinak dira (5); hondakinak ere (9); hondakinak eta (13); hondakinak ez (3); hondakinak garbitu (4); hondakinak garbitu eta (3); hondakinak ikusten (3); hondakinak jasotzeko (3); hondakinak jasotzen (3); hondakinak kudeatzeko (52); hondakinak kudeatzeko plan (23); hondakinak kudeatzeko plana (4); hondakinak kudeatzeko planak (4); hondakinak kudeatzeko planaren (4); hondakinak kudeatzeko sistema (3); hondakinak kudeatzen (7); hondakinak kudeatzen dituen (6); hondakinak lurperatzeko (7); hondakinak nola (3); hondakinak tratatzeko (10)

janari hondakinak (3); sortutako hondakinak (3); sortzen dituen hondakinak (3); zuberoko hondakinak (5); zuberoko hondakinak kudeatzen (3)

hondakinei buruzko (4); hondakinekin zer (3)

baten hondakinak (8); baten hondakinak artean (3); da hondakinak (3); diren hondakinak (8); du hondakinak (3); eta hondakinak (24); eta hondakinak kudeaketa (3); etxearen hondakinak (5); etxearen hondakinak artean (3); etxeko hondakinak (4); gipuzkoako hiri hondakinak (14); gipuzkoako hondakinak (3); hiri hondakinak (61); hiri hondakinak kudeaketa (21); hiri hondakinak kudeaketarako (15); hiri hondakinak kudeaketaren (3); hiriak hondakinak (3); hiriak hondakinak artean (3)

hondakinak arazoa (8); hondakinak arazoari (4); hondakinak artean (65); hondakinak artean bizirik (3); hondakinak artean gorpu (5); hondakinak artetik (12); hondakinak aurrean (3); hondakinak azpian (5); hondakinak bilketa (4); hondakinak gaikako (6); hondakinak gaikako bilketa (6); hondakinak gainean (7); hondakinak herena (3); hondakinak inguruan (3); hondakinak inguruko (5); hondakinak kopurua (5); hondakinak kudeaketa (57); hondakinak kudeaketa eta (4); hondakinak kudeaketa gipuzkoako (3); hondakinak kudeaketa san (4); hondakinak kudeaketan (8); hondakinak kudeaketarako (21); hondakinak kudeaketarako plan (11); hondakinak kudeaketaren (4); hondakinak kudeaketari (3); hondakinak sorrera (5); hondakinak tratamendua (10); hondakinak tratamenduan (4); hondakinak tratamendurako (11)

lurrikararen hondakinak (3); sortutako hondakinak (5); zen hondakinak (3); zuen hondakinak (3)

edozein hondakini (3); eta hondakinetan (3); eta hondakinez (5); hondakinetatik sortzen (3); hondakinez betea (3); hondakinez eta (3); hondakinik ez (3)

hondakindegia (ETCn 722 agerraldi; orobat ondakindegia ETCn 64 agerraldi) iz hondakinaren biltegia.

Noizbait, hamaikagarren edo hamahirugarren mendean, hiri oso bat izana ei zen harako **hondakindegia**, Herbertek esan zuenez, hiri maia bat... **Joxe Austin Arrieta**

Gazteluko patioa **hondakindegia** bat zen. **Aingeru Epaltza**

Zaborrez eta gurpilez mukurru beteta zeuden **hondakindegia**k atzean utzita. **Lopez de Arana**

Baionako Bacheffores errauste planta eta Urruñako Bittoli **hondakindegia** dira gaur egun Bil Ta Garbik dituen tresnak. **Berria - Euskal Herria**

Gobernu batzuek errauste plantak eta **hondakindegia** handiak hobesten dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Mega-**hondakindegia** ere ez. **Berria - Euskal Herria**

Arangurengoak arranguraturik daude Gongorako **hondakindegia** egiten dituen kalteen gatik. **Herria**

hondakintxo iz adkor hondakina.

Bizkaiko kostan maiz galtzen da Joxemielen batela, maiz jotzen du harkaitza, eta bide-galtze horien **hondakintxo** da, adibidez, Alarabi begibakar eta hankabakarra. **Iñaki Seguro**

hondakinzale (corpusean hondakin zale soilik) izond/iz hondakinaren zale dena.

Miraria, gure **hondakin-zaleak** Guatemalarako asmotan ginela entzun zigunean gertatu zen. **Mirentxu Larrañaga**

hondakor iz hondatua gertatzeko joera duena.

Natura guztiak dira galkorrak (edo **hondakorrak**) eta Jaungoikoak eginak ez balira ez ziren inola natura ere izango; baina Beragandik sortuak balira ez ziren galkorrak izango, Jaungoikoaren izaerako izanen baitziren. **Imanol Unzurrunzaga**

hondalan 1 iz lurra sakon iraultzea, lurra atereaz lurzuruan zuloak eta luebakiak egitea.

Mendi kuttun horretan egin dituzte **hondalanak**. Berria - Kultura

2 irud

Urteen **hondalanak**, orobat, errukior jokatu zuen gorputzaren gainerakoekin. Aingeru Epaltza

Higanotarenek ezagun dute bizi latz baten **hondalana**, Pedro Agerrek sekula izan ez duena. Aingeru Epaltza

hondamen *(536 agerraldi, 89 liburu eta 52 artikulutan; ETCn 2.447 agerraldi)* 1 iz hondamendia. ik **hondamendi**.

Aipatuko dute diruak konpondu egiten dituela urteek eragindako **hondamenak**. Patxi Zubizarreta

Bere gudarostearen **hondamena**. Elizen arteko biblia

Jerusalemen **hondamena**. Elizen arteko biblia

Sistema feudalaren **hondamena**. Koro Navarro

-Zer nahi duk, kirten halakoa, ene familiaren **hondamena**? Patxi Zubizarreta

Gizarte-babesaren **hondamenarekin** batera [...] datu horiek Estatu Batuetan pobretasuna izugarri igo dela adierazten dute. Koro Navarro

Eraren, edertasunaren eta ordenaren **hondamena** da gaizkia. Imanol Unzuurrungaga

Ez irabaztea **hondamena** zen. Berria - Kirola

Beren garaipena baino grina biziagoz inoren **hondamena** bilatzen duten gizakalte itsuok bezala. Juan Garzia

Ekologoek, esaterako, natur sistemetan gertatzen ari diren **hondamenak** erakusten dizkigute. *Prestige* petroliontziak eragindako **hondamenari** buruzko argibide zuzena emateko. Berria - Euskal Herria

Stan urakanak Mexikoko hegoaldean utzitako **hondamena**. Berria - Harian

Hormak, baina, **hondamena** gorabehera, arabeskoz apaindurik zeuden. Patxi Zubizarreta

Hondamen eta larrialdi handiak erori dira gure gainera urte hauetan. Elizen arteko biblia

Erremediorik gabea da zure **hondamena**, sendaezina zure zauria. Elizen arteko biblia

Zabala baita **hondamenerako** atea eta lasaia bidea. Elizen arteko biblia

Hondamena hondamenaren gain. Elizen arteko biblia

-Hau **hondamena**! -Charlyk bisaia urrundu zuen bere eskulanetik-. Aingeru Epaltza

2 (izenondoetan)

Hondamen fisikoak egunero egiten du urrats bat aurrera; guztiahalduna da eta ez du inoiz ere hutsik egiten. Jon Alonso

I. jaunaren akromatopsia, hiru hilabeteren buruan ere, erabatekoa zen, eta **hondamen** iraukorrek zituen kontraste-ikusmenean. Xabier Olarra

Pertsona guztiek dute berehala laguntza jasotzeko eskubidea, **hondamen** natural edo teknologikoen kasuan, edota gizakiak eragindako bestelako hondamendien kasuan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Sobietar blokearen **hondamen** ekonomiko gertatu berriak. Koro Navarro

Gertutik ikusteko, gertuagotik ikusteko, geroz eta hurbilago datorren zahartzaroak eragiten duen **hondamen** gorrotagarri lasaia. Josu Zabaleta

Hondamen izugarria bidaliko dut Jerusalem eta Judaren kontra. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbat eta **hondamen** egoera gogorrago, orduan eta esanguratsuago. Joseba Zulaika

Zuen kemen hori **hondamen**-bidean daudenaren seinale izango da etsaizentzat. Elizen arteko biblia

Drogaren munduak duen **hondamen**-irudi horrengatik. Anjel Lertxundi

Debako Udalak herria **hondamen** eremu izendatzeko eskatuko du gaurko udal batzarrean. Berria - Euskal Herria

Gosearen aurkako erakunde baten arabera, giza **hondamen** larria gertatzeaz dago Haitin. Berria - Mundua

Oraingo zeru-lurrei dagokienaz, Zorigaitzoko eguna baita, **hondamen**- eta larritasun-eguna, Jainko Jaun ahalguztidunak bidalia. Elizen arteko biblia

Eliza **hondamen** arriskutik atera eta berreraikitzeko. Askoren artean

Itzalaldira doan mundu honen arratsean, **hondamen**-semearen garaia gainean dugun honetan. Askoren artean

Hilen Egoitza eta **Hondamen**-Leizea. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan (bigarren osagai gisa))

Ontzi-**hondamenaren** zio urruna izan zen ordurako galdurik zela. Jon Alonso

5 **hondamenezko izlag** ik **hondamendi** 4.

Eskuindarrak agintera bueltatzetik igarotako denbora, «**hondamenezko** hiru urte» izan zirela. Berria - Mundua

Errusiar inteligentsiaren **hondamenezko** porrota. Iñaki Mendiguren

6 **hondamena ekarri**

-Politikak **hondamena** ekar dezake gure etxera. Patxi Zubizarreta

Masturbazioak sexu-organoen **hondamena** zekarrela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hondamena ekarri diozu Irlandari! Joanes Urkixo

Ez obeditu behar setatsuak, **hondamena** dakar maiz; baina, obeditu behar itsuak beti. Patziku Perurena

7 **hondamenera eraman**

Nazio osoa jarri nahi dute hankaz gora, desestabilizatu, **hondamenera** eraman. Pako Aristi

Eta Kamilek esan berri ziona entzun ostean, hasperen sarkor bat egin zuen, hala nola egin dezakeen patuak kateez zamatu, eta zorigaitzak **hondamenera** eraman duen gizon etsitu batek. Patxi Zubizarreta

-Manikeoen ohiturak kristauenak baino desegokiagoak direla eta **hondamen** moralera daramatzatela praktikatzaileak. Imanol Unzuurrungaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hondamen** (12); **hondamen baten** (3); **hondamen bide** (4); **hondamen bihurtu** (3); **hondamen eremu** (10); **hondamen eremu izendapena** (3); **hondamen eremu izendatzeko** (4); **hondamen eta** (5); **hondamen hori** (4); **hondamen hori ikusi** (3); **hondamen hura** (3); **hondamen leizea** (3); **hori hondamen** (3); **zuen hondamen** (3)

bere hondamena (4); **erabateko hondamena** (3); **eta hondamena** (12); **etxearen hondamena** (5); **hondamena da** (5); **hondamena ekarri** (7); **hondamena ekarriko** (7); **hondamena eragin** (4); **hondamena eta** (9); **hondamena gertatu** (5); **hondamena izan** (3); **hondamena izango** (3); **izugarritzko hondamena** (3); **usher etxearen hondamena** (5); **zure hondamena** (3)

eta **hondamenak** (5); **hondamenaren eta** (3); **hondamenari aurre** (3)

hondamenaldi iz hondamenezko aldia.

Horrela bete zen Jaunak Jeremias profetaren ahoz esana: "Hirurogeita hamar urtez egongo da utzia lurralde hau, **hondamenaldi** osoan zehar, Jaunari ukatu zizkioten atsedeen-urteak bete arte". Elizen arteko biblia

hondamendia (*1313 agerraldi, 147 liburu eta 358 artikulutan; ETCn 10.349 agerraldi*) **1** iz hondatzea edo suntsitzea, eta horren ondorioa, zerbaitetan edo norbaiti gertaturiko erabateko kaltea. ik **hondamen**.

Egoera kaotiko eta **hondamendien** aurrean pozik jarri ohi diren haurrek bezala. **Joxean Agirre**

Ura **hondamendia** da haientzat, heriotza. **Berria - Kultura**

Hildakoak, zaurituak, familia deseginak, **hondamendia,..** - hori da gerrak utzi zuena. **Pello Salaburu**

Baionatik irten orduko, nabarmenak ziren uholdeen **hondamendiak**, lokazturik baitzeuden bide guztiak, eta urak hartuak zituen bide bazterreko soro, baratza eta landak. **Anjel Lertxundi**

Hondamendiaren ondoko bakardadea, non babestu baikinena piztia zaurituek beren gordelekuan babesa hartu ohi duten bezala. **Ander Irizar**

Gerrak **hondamendia** esan nahi zuen guretzat. **Josu Zabaleta**

Izugarria izan zen **hondamendia**: hogeita hamar mila israeldar oinezko erori zen. **Elizen arteko biblia**

Bigarren Mundu Gerraren hasieran [...] frantses gizartearen eta gudarostean gertatutako **hondamendia**. **Josu Zabaleta**

Hura baitzen, nire ustetan, gertatutako **hondamendia** erruduna. **Juan Martin Elexpuru**

Prestige-ren **hondamendia** Apostolos Mangouras kapitainari egotzi dio oso-osoan Espainiako Gobernuak. **Berria - Gaiak**

'Katrina' urakanaren **hondamendiari** aurre egiteagatik. **Berria - Harian**

Nire lagunak ongi ikasi zuen Bosniako **hondamendian** errealitateak beti gainditzen duela fikzioa. **Berria - Kultura**

Nazio Batuen Erakundeak Txernobilgo **hondamendiaz** eginiko balantzea. **Berria - Harian**

Francisco de Goya artistaren *Gerraren* **hondamendiak** saileko 17 grabatu. **Berria - Kultura**

Sobietar blokearen **hondamendiarekin** batera, kapitalismoak zuen eragozpen handienetako bat desagertu zen. **Koro Navarro**

Sodomaren **hondamendia**. **Elizen arteko biblia**

1921ean Annualeko **hondamendia** eragin zieten espainiarrei. **Iñaki Mendiguren**

Ateaz beste aldean erreguka dagoenaren ahotsari kasurik ere ez, **hondamendia** datorrela iragartzen badio ere. **Josu Zabaleta**

Salba zaitezte gizaldi honi datorkion **hondamenditik**. **Elizen arteko biblia**

Edota zergatik ez... berak ostu emazteari txosten konprometigarria eta... beste batek hil, Arrietak esaterako, bere burua **hondamenditik** libratu nahirik? **Migel Angel Mintegi**

Aurrez aurre zeukan **hondamendiak** jotako lurra, hutsik. **Juan Garzia**

Hondamendi batetik onik atera den pertsona bakarra zirudien. **Joxean Agirre**

Mundua **hondamendira** zihona amilean, eta nire inguruan ez zen deus gertatzen. **Juan Garzia**

Jauna babesgarri da zuzen dabilenarentzat, **hondamendi** gaizkilearentzat. **Elizen arteko biblia**

Alde guztiatik paradigma kantiarraren guztizko **hondamendia**. **Askoren artean**

Hainbeste enbido eta hainbeste **hordago**. **Hasier Etxeberria**

Eta nik **hordago** batekin erantzun nahi izan nion. **Joan Mari Irigoien**

Demo taldeak du ekitaldi hori antolatzen, **hordago** ozen bat botatuz SNCF-ari. **Herria**

Biharko **hordagoak** huts eginez gero, Gobernuan bertan dituen aukariak bota eta laboristak exekutiboan sartzen saia daiteke Sharon. **Berria - Mundua**

Inbido bota baino lehen ukan dute **hordago**. **Herria**

3 hordago(a) *bota* hordago jo.

Gerta zekizkiokoen joko guztiak pasatu zitzaizkion eskuetatik hiru errege eta parekoek **hordago** botatzen handian, dobleak bi errege eta bi astorekin, hogeita hamaika eskutik medeekin... **Eneko Bidegain**

Karrikak ez du manatzen, bainan hor dago jendea karriketan **hordagoa** botatuz. **Herria**

Bururatu zitziola Annie Parmentier-i aitatasuna aldarrikatzeko **hordagoa** botatzea. **Ramon Saizarbitoria**

4 hordago jo

Gomez-Marchantek handira **hordago** jo du, eta mahai gainean lau errege erakutsita, irabazi egin du. **Berria - Kirola**

Euskara heriotzara kondenatzen dutenei gurekin batera **hordago** jotzera gonbidatzen ditugu. **Berria - Euskal Herria**

Gaurko teologo musulariari jakineko kartak, ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura, eta handian paso eman eta ttikitik jotzen du **hordago**, eta ttikian ez dio inork irabazten. **Iñaki Seguro**

- Enbidoari **hordagoa** joz, aurrera egitea erabaki dute hogeita hamazazpi gizonek aho batez. **Edorta Jimenez**

5 hordago ustel

Poliziaren esku uzteko mehatxua **hordago** ustel bat zela, traketsa eta antzerik gabekoa. **Oskar Arana**

Metxak ere jakin behar zuen noski ez genuela adorerik hartarako, **hordago** ustela ari zen jotzen. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beti hordago (6); **hordago bat** (4); **hordago eta** (3); **txikira beti hordago** (5)

hordagoka *adlag* hordago joaz.

Egon beti baitaude argudioak bidegabekiaren aurka aritzeko, **hordagoka** jokatzeko. **Hasier Etxeberria**

Argi zegoen neska **hordagoka** ari zela, azken egunetako adar-jotzeek utzitako sumindura berdindu nahirik-edo. **Jokin Muñoz**

Mayor Orejak bere parioa ez irabazi, Ibarretxe bai irabazitan atera, bisita egin dio lehenak Ajuria-Enerat lehendakariari, ez gehiago **hordagoka** baina pasoka bakarrik.

Herria

hordi 1 *izond/iz* horditurik dagoena. ik **mozkor**.

Gizon **hordia** izatea zinez tristea da, eta gure seme-alabon bizitza ere desohorez lohitu dut. **Gotzon Garate**

Amorru **hordia** eta hordigarria. **Fernando Morillo**

Irainaren jasole behar zuenak barre **hordia** egin zion kardinalaren esaldiari. **Anjel Lertxundi**

Mikelen irribarre **hordiak** ez zeukan berehalakoan jaramon egiteko asmorik. **Unai Iturriaga**

Aurpegia makalen hostoak inarosten dituen haizearen hats **hordiar** emanda. **Koldo Izagirre**

Beha ezazue **hordi** hori lurrean zabal-zabala eta besteak hor traban! **Itxaro Borda**

Hordiarena egiten hasi nintzen. **Joan Mari Irigoien**

Sugea eta **hordia**: Etxerat zihoala, mozkor batek kobra aurkitu zuen bide bazterrean. **Gotzon Garate**

Eta ez zaio **hordiar** bakarrik gertatzen, edo historikoari, edo izutuari. **Bernardo Atxaga**

• 2 (predikatu gisa)

Liluraturik zihoan, xarmaturik, zentzuak **hordi**. **Patxi Zubizarreta**

Hiru taldeetan banatzen zirela ondorioztatu zuen Sebasek, arras **hordi** orain. **Itxaro Borda**

Erdi **hordi** zegoen. **Joan Mari Irigoien**

• 3 *iz* horditasuna.

Hori ere alde zuen: barauan eta **hordian** ezagutzen gintuen gu. **Anjel Lertxundi**

Zazpi edo bederatziz gizonetako, berrietatik hiru **hordiaren hordiz** ia erabat baldituak, igogailutik narraska etxeratu behar izan baintuen. **Joxe Austin Arrieta**

4 hordi lapa arras hordia

Nire sudur gorri puztukote hau eta nire aurpegiko ubeldurak nori legozkioke ez bada ni bezalako hordi-**lapa** amorragarri bati? **Anjel Lertxundi**

5 hordi zerraldo

Horrekin batera antoisin handi bete pontxe atera zion ikasleari; hark zurrutada batez irentsi, eta **hordi zerraldo** erori zen mahaipean. **Joseba Sarrionandia**

6 lo hordi

Begiak irekiarazi nizkion eta lo **horditik** aharrasika jalgi zen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hordi (3); **hordi bat** (3); **hordi batek** (4)

hordialdi *iz* (norbait) horditurik egoten den denbora, horditzen denaldi bakoitza. ik **mozkorraldi**.

Funtsezkoa dela hitz gordin edo zikinak esatea atseginarean **hordialdian**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Askoz geroago arte ez nintzen konturatu halako **hordialdiek** ezin iraun dutela. **Matías Múgica**

Senara etorri ziren noizbait, **hordialdi** baten ondotik bezala, eta izaturik ikusi zuten zer egin zuten. **Jose Morales**

Baina sakrifizioaren **hordialdirik** batere ez. **Josu Zabaleta**

hordiarazi, hordiaraz, hordiarazten du *ad* horditzera behartu.

hordigarri *izond* horditzen duena.

Sagardo huts tanta bat, apartsua eta gozoa, eta ardo gorri **hordigarria**. **Josu Zabaleta**
Ez edan ez ardorik ez edari **hordigarririk**. **Fernando Rey**
La Sarriette baratze batean bezala bizi zen han, usain **hordigarri** haien erdian. **Karlos Zabala**
Kolare guztien dotorezia eta usain guztien erakarmen **hordigarria**. **Josu Zabaleta**
Ahalkearen eta fiertasunaren nahaste **hordigarri** batean bizi naiz. **Koldo Izagirre**
Eta gehitu zuen, bekokian behera zetorkion ile kizkur **hordigarria** atzeratuz: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

hordigarrero *adlag* hordiarazteko moduan.

Emakumezko beltzaran **hordigarrero** ederra. **Edorta Jimenez**

hordikeria *iz* horditzea; eskuarki, horditzen denaren bizioa. ik **horditasun**; **mozkorkeria**.

Debeku ziren **hordikeria** eta jokoak. **Aingeru Epaltza**
Hordikerian eta itsukerian murgilduak. **Jon Muñoz**
Ez jan-edanean eta **hordikerian**, ez lizunkeria eta neurrigabekeria, ez haserre eta norgehiagokeria. **Elizen arteko biblia**
Afeitu moten artean, Sabelkeria, **Hordikeria**, Lizunkeria, Zekenkeria eta Handinahia ditugu nabariena, Maitasunaren edota Desiraren adigaiak baizik ez direnak. **Piarres Xarriton**

hordimen *iz* horditzea.

Kanpamenduetan burrustan isurtzen zen garagardoak hazi **hordimenak** ez zien bihotzaldea baketzen. **Itxaro Borda**

hordiputz *izond* *adkor* hordia.

-Hire esanek bost axola niri, **hordiputz** amorratu hori! **Jose Morales**

hordirik 1 *adlag* horditurik.

Alexandro **hordirik** zegoela Klitos hil zuenean. **Juan Garzia**
Barka, o, Jauna; zinez **hordirik** zaudea? **Jon Muñoz**

2 *lo* hordirik

-Lo- **hordirik** oraino? **Aingeru Epaltza**

horditasun 1 *iz* horditzea; horditurik dagoenaren egoera. ik **hordikeria**.

Ardorik bizienez eskainitako **horditasuna** baino sakonagoa izan behar zuen hark sentitutako zorabioa. **Jon Muñoz**
Claudio Rodríguezen "**horditasunaren** dohaina" inork ez bezala bizi izan eta gero. **Anjel Lertxundi**

2 *irud*

Zeinen azkar aldatu zen munduko lizunkeria eta hutsalkerietatik Jainkoaren maitasunezko **horditasun** handi hartara. **Askoren artean**
Luzaroan izan zituzten ezpainak elkarri atxikiak, amodioaren **horditasunak** harrapatu izan balitu bezala. **Patxi Zubizarreta**
Lehenago egundo dastatu gabeko **horditasuna** sumatu zuen. **Patxi Zubizarreta**
Zuzi gartsu bat zeukan bularraldean sutan, **horditasun** magiko batek ureztatzen zion arima. **Patxi Zubizarreta**

horditu (*ETCn 498 agerraldi*), hordi(tu), horditzen 1 *da/du ad* edari bizi gehiegi hartzeak burua nahasi. ik **mozkortu**.

18 urterekin hasi omen zen **horditzen**. **Gotzon Garate**
Bidezidor honetatik doazenek ez dute ezer edan behar, **hordi** litezkeenez. **Joan Mari Lekuona**
Horditzen delako atxilotu dute. **Pablo Sastre**
Koko-ura, ardoa bailitzan, irakiten ari zen eta elefantea **horditu** egin zen. **Gotzon Garate**
Arrunt **horditua**, ez zekien non eta norekin zegoen. **Itxaro Borda**
Bera zegoen **hordituena**, pausoa ematen hasi eta balantza egiten zuen. **Bernardo Atxaga**

2 *irud*

Doktorearen usain horretaz **horditzen** zen, mozkorrak ardoaren usainaz **horditzen** diren bezala. Tekno klubetara joaten ginen frankotan, musikaz eta gainerako ekaiez **horditzera**. Begiak lausotu zitzaizkidan, adimena **horditu** eta barrena zorabiatu. **Jose Morales**
Abasen hitzak esan ezin ahala ezti egin zitzaizkion eta biak ala biak ere eztitasunak **horditu** zituen. **Patxi Zubizarreta**
Horditurik ditut zentzumen guztiak! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Bere artearen ahalaz **horditurik**, tinkotasunez segitu zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Eta orain mozkorturik bezala sentitzen zen, edertasunez **horditurik**. **Alberto Ladron Arana**
Nire entzule marihuanaz erdi **hordituek** esaten ari nintzenari jarraitzeko ahalegina egiten zuten bitartean. **Oskar Arana**

3 (era burutua izenondo gisa)

Marinel **hordituen** antzo zabuka. **Koldo Izagirre**
Ekintza-gizonen arima **hordituetan**. **Iñaki Mendiguren**
Karkaila gero eta **hordituagoak** egiten ari ginen, baina tabernako bezeriak ez zigen aparteko jaramonik egiten. **Anjel Lertxundi**
Erdi aroko fraide gizen **hordituenak** bezalako gordinkeriak esan eta keinu lizunak eginez. **Anjel Lertxundi**
· **Horditu** itxurako gizakote batekin. **Anjel Lertxundi**

horditze iz edari bizi gehiegi hartzeak burua nahastea.

Haurrak preso zeuzkaten familia kideek eta presoan sustengatzera bezain **horditze** on bat atzeman eta neska zenbait "altxatzera" gerturaturiko multzo gotorreko zintzur zabalek mailuka segitzen zuten. **Itxaro Borda**

horditzear adlag horditzeko zorian.

Pentsamenduaren hein hits horretan nongoen, **horditzear**, aspaldian gurutzatua ez nuen lagun baten bisean bisean aurkitu nintzelarik. **Itxaro Borda**

horiño izond horixka.

Denboran, alemanek holako zerbait pentsatu zuten Juduen kontra, judu guziek behar baitzuten ibili izar **horiño** bat papoan ezarririk. **Herria**

hori¹ erak

1 horiek hola (**301** agerraldi, **12** liburu eta **263** artikulutan –gehien-gehienak **Herria** aldizkarikoak-; **ETCn 1.001** agerraldi), horiek horrela.

Ez ditu dretxo guziak jendeak, baditu ere pilotak bereak! **horiek hola** arras gustagarriak bi gazte hauk. **Herria**

2 horiek horrela (**293** agerraldi, **25** liburu eta **218** artikulutan; **ETCn 1.939** agerraldi)

Agindu hauek guztiak, Jaunak Moisesi adieraziak eta haren bidez zuei emanak, indarrean daude aldarrikatu zirenetik eta hala egongo dira aurrerantzean ere zuen ondorengo belaunaldi guztientzat; **horiek horrela**, eman dezagun, oharkabean bete gabe uzten duzuela agindu horietako bat. **Elizen arteko biblia**

3 horregatik ik horregatik.

hori² 1 izond sufrearen, limoiaren, urrearen kolorekoa, ostadarren bigarren kolorea. ikbeilegi; laru.

Hortz **horiak** erakutsiz. **Felipe Juaristi**

Telefonistaren ile **horia**, ahotz ehotuaren kolorekoa. **Jon Alonso**

Tximeleta **hori** bat zebilen tabernan itxulanbilka. **Pako Aristi**

Gelako bazter batean, eguzki lore **hori** bat ageri zen. **Juan Kruz Igerabide**

Ohartxo bat zegoen post-it **horian** idatzia: [...]. **Harkaitz Cano**

Debekatuta dute juduek espaloietan ibiltzea, sei puntako izar **horia** eraman behar dute bularrean josita. **Felipe Juaristi**

Neurri gogorragoak hartu behar zirela besoko **horia** eramaten ez zutenen kontra. **Anjel Lertxundi**

Hondartzetan bandera **horiak** ikustean. **Berria - Euskal Herria**

Txartel **horia** kendu diete Osasunako Puñali eta Bartzelonako Edmilsoni. **Berria - Kirola**

Lehen maillot **horia** profesioaletan. **Berria - Kirola**

Nori bururutzen zaio auto **hori** bat erostea! **Bernardo Atxaga**

Alboetan, kopak, bonbila **horiak** eta berdeak keinuka. **Pako Aristi**

Eguzkia atera zen, eguzki **hori** bat, landan zehar zabaldu eta giroa epeltzen zuena. **Josu Zabaleta**

Kimono berde eta **hori** batekin. **Bernardo Atxaga**

Orga handiak ziren, **horiak**, lau zaldiz tiratuak. **Karlos Zabala**

Arto bizkotxoak, lodiak eta **horiak**. **Karlos Zabala**

Zurbila, baina ez zuria, **horia** baizik. **Joxe Austin Arrieta**

Galtzerdi grisak hemen, **horiak** hor. **Xabier Olarra**

Baina handik laster umetxoa eritasun **horiak** jo zuen. **Itxaro Borda**

Sukar **horiaren** kontrako txertoa. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondoak osatuz)

Bere aurpegia, zimela eta kolore **horia**, armak oso desberdinak. **Patxi Ezkiaga**

Ondoko andrearekin hizketan hasten zen, langileren baten emazte azal-**horiarekin**. **Karlos Zabala**

Orpo luzeko bota larru-**horiak** oinetan. **Karlos Zabala**

Larru-**horiak** diren gizon-emakumeen ongia. **Felipe Juaristi**

Luzea, liraina, bilo **horia**. **Gotzon Garate**

Zozoa baino pixka bat handiago, moko-**horia**, buru-arrea. **Gotzon Garate**

· Erdi etzanda jarri zen eserlekuan, gora begira, toldo zuri-**horiari**. **Bernardo Atxaga**

Bandera beltz-**horiak** astintzen zituztela. **Joan Mari Irigoien**

Maltako bandera zuri-gorriarekin batera Europako urdin-**horia** ere bere egingo dute valletarrek. **Berria - Mundua**

3 kazetaritzaz eta kidekoez mintzatuz, eskandaluzkoa.

Prentsa **horiaren** eta diktadura faxisten sorrerak argitzen duen bezala. **Iñaki Mendiguren**

Hemen agertzen da kazetaritza **horia**, Beizamako jendea nola bizi den eta baseritarren arteko harremanak edo amodio kontuak ere aiereratuko dituen. **Pako Aristi**

• **4 izond/iz arraza azal-horikoa dena.**

Moroak, beltzak, **horiak** (ekialdekoak), larrugorriak (indioak). **Patziku Perurena**

• **5 iz kolore horia.**

Hasieran **horia** gorri bihurtu eta gero. **Fernando Rey**

Horiari, adibidez, arrosa esaten zion, baina bazekien bananaren kolore berekoa zela. **Xabier Olarra**

Esnez moteldutako arrosez, **horian** itotako berdeez. **Karlos Zabala**

Arrosak, **horiak** edo pistatxa bezain berdeak ziren gehienik nabari ziren koloreak. **Ramuntxo Etxeberri**

Paisaia ere aldatuz doa: **horiak** berdeari egiten dio leku, lauak aldapari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jaregin zutenerako, agortua zeukan urdina eta aurreratua zegoen **horian**. **Anton Garikano**

Zentauro bat zegoen bere aurrean [...]: ile **hori** argia zeukan, gorputza nabarra, eta zurda eta isatsa zuriak. **Iñaki Mendiguren**

Beste batzuk, izokin-kolorekoak; eta beste batzuk, berriz, **hori** ilunak. Felipe Juaristi

Horiaren gaineko gorri horrek barrenak nahasi zizkidan. Monika Etxebarria

Txartel gorria atera zioten lehenengoari larunbatean, eta bosgarren **horia** atera zioten bigarrenari partida berean. Berria - Kirola

6 gorri-hori

Bere ile gorri-**horiaren** erroetaraino. Lopez de Arana

Izar gorri-**horia** zuen marrekiko uniformeak jantzarazi zieten. Pablo Sastre

Balkoietan eta leihoetan zintzilikatutako bandera gorri-**horiak**. Txillardeggi

Karlisten etxeetako balkoi leihoetan bandera gorri-**horiak** agertu ziren. Joseba Sarrionandia

7 hori-hori

Katedral ondoko argiek uhertu egiten zinatzen adatsa, hori-**horia** gaueko haizeak kilimatua. Javi Cillero

Fermin atzeragotik dator, gauza **hori-hori** bat duen edalontzia eskuetan. Pako Aristi

Behazun hori-**horia** botatzen nuen goragale bortitzetan. Txillardeggi

Han behean **hori-hori**, urrearen itxurako zerbait ikusi zuten. Patxi Zubizarreta

8 hori-kolore izond

Gela apain eta **hori-kolore** batean. Felipe Juaristi

Haietarikoa batek, ezpain zuri eta zimel artean zuen zigarreri putz eta putz, hondoratutako begi **hori-koloreekin** so egin zidan. Mirentxu Larrañaga

Hori kolorez itzuliko ote dira Euskal Herrira? Berria - Kirola

Dena sufre-**hori** koloreko txoriz bor-bor. Joxe Austin Arrieta

9 hori koloreko izlag

Jauregiko marmol **hori-koloreko** paretak. Felipe Juaristi

Hori koloreko oihal iletzu bat erosi didate. Pablo Sastre

Hori koloreko argitik kendu da. Xabier Paya

Mouseren marrazki laranja eta **hori koloreko** batekin, zeran erosiak... Antton Olano

10 ile-hori izond lea hori argiaren kolorekoa duena. ik horail.

Taibele txikia eta ile-**horia** zen, begi urdinak zituen eta aurpegi biribila. Koro Navarro

Ilda polita zen, segaila, ile-**horia**. Fernando Rey

Matias, Lidia eta Tatiana... Tatiana ile-**horia** batez ere. Joan Mari Irigoien

Zer, politik al ziren Fiumeko neskak? -galdetu zien ile-**horiak**. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi horia (3); **baloi horia** (4); **bat horia** (4); **besoko horia** (4); **bigarren txartel horia** (13); **bilu horia** (3); **bosgarren txartel horia** (17); **edo horia** (3); **enperadore horia** (5); **eta horia** (7); **eta ile horia** (5); **eta izar horia** (3); **gorri horia** (4); **hori horia** (4); **horia atera** (10); **horia atera zioten** (5); **horia berreskuratu** (3); **horia da** (7); **horia du** (3); **horia edo** (3); **horia erakutsi** (3); **horia ere** (5); **horia eta** (31); **horia eta bestea** (3); **horia ikusi** (16); **horia ikusi zuen** (10); **horia izan** (3); **horia jantzi** (9); **horia jantzita** (4); **horia jantzeko** (3); **horia kendu** (8); **horia soinean** (4); **horia zen** (12); **horia zeraman** (5); **horia zuen** (11); **ibai horia** (3); **ile horia** (44); **ile horia eta** (7); **ile horia zen** (4); **ile horia zuen** (3); **izar horia** (20); **jauntzi horia** (5); **kolore horia** (8); **lur horia** (3); **maillot horia** (45); **maillot horia jantzi** (8); **maillot horia jantzita** (3); **maillot horia jantzeko** (3); **maillot horia soinean** (4); **sukar horia** (5); **txartel horia** (65); **txartel horia atera** (9); **txartel horia erakutsi** (3); **txartel horia ikusi** (13); **txartel horia kendu** (8); **xingola horia** (3)

argi horiak (7); **bandera gorri horiak** (4); **begi horiak** (9); **enperadore horiak** (14); **eta horiak** (8); **gorri horiak** (5); **horiak alaveseko** (4); **horiak atleticeko** (8); **horiak bartzelonako** (3); **horiak deportiboko** (3); **horiak ere** (5); **horiak eta** (22); **horiak eta berdeak** (3); **horiak jo** (3); **horiak real** (3); **horiak realeko** (4); **horiak vila** (3); **horiak zirela** (3); **horiak ziren** (3); **horiak zituen** (5); **ile horiak** (14); **indiar horiak** (9); **izar horiak** (7); **kolore horiak** (5); **lore horiak** (4); **maillot horiak** (3); **neska ile horiak** (3); **txartel horiak** (111); **txartel horiak alaveseko** (4); **txartel horiak atleticeko** (8); **txartel horiak bartzelonako** (3); **txartel horiak deportiboko** (3); **txartel horiak real** (3); **txartel horiak realeko** (4); **txartel horiak vila** (3); **xerlo horiak** (3)

baloi horiarekin (3); **enperadore horiaren** (15); **enperadore horiari** (4); **eta horian** (4); **horian idatzia** (3); **horiaren aurka** (3); **horiaren azpian** (3); **horiaren gainean** (5); **ibai horiaren** (4); **ile horiaren** (3); **maillot horiarekin** (4); **maillot horiari** (3); **paper horian** (4)

argi horitan (3)

horidun izond horikoa.

Estropezu eginik, Veneziako Alba txano **horiduna** jo eta haren gainera erori zen. Felipe Juaristi

Udako soineko zuri tanta **horidun** bat ilte batean zegoen zintzilik. Karlos Zabala

2 izlag horiko.

Su **horidun** sugarra [=su horiko sugarra]. Agustin Otsoa

Zerrenda **horidun** arkatx horia. Lopez de Arana

Elastiko **horidun** neskato bat dator. Edorta Jimenez

horikaildu izond horail bihurtu, horitu.

Aurrez aurre orria galtzen duten arboladiak dauzkatz, udazkenean euren orri **horikailduen** dotoretasuna oparitzen didatenak. Herria

Zuhaitzetako ostu **horikailduak**. Ireki eta, erdian oraindik zurixka zantzuak dituzten orriok **horikailduak** dituzte ertzak. Pako Aristi

horikara (8 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 25 agerraldij) izond horixka.

Aurpegi zurixka zuen, begi irtenak, ilea liso eta **horikara**, berez beltzarana izan arren. Patxi Zubizarreta

Lurra batzuetan **horikara** da eta beste batzuetan berde iluna. Jon Alonso

Pareta **horikara** zikinetan itsatsita. Alberto Barandiaran

Zeharkako argi motelek haren etxea itzal **horikarez** betetzen zuten. Pako Aristi

Zerbitzariak batetik bestera zebiltzan garagardo gorritz, beltzez, eta **horikaraz** mahaiak hornitzen. Berria - Kultura

Haren soinekoari eta kolore **horikaraz** tindatuta zuen ileari lurrin-laino melenga zerien. Ander Irizar

horimin iz hori bizia.

Gibelondo hortatik beste mila kolore ere zabaltzen dira gorputzera: laru, larumina, **horimina**, minhoria [...]. Patziku Perurena

horiska ik horixka.

horitasun *iz* horia denaren nolakotasuna.

Olio-lanparak eragindako **horitasun** hartan. Anjel Lertxundi
Gasaren **horitasunaren** pean. Karlos Zabala
Ile-adatsaren **horitasuna**, ikusi baino gehiago, asmatu egingo omen zuen ikusleak. Xabier Olarra
Hatzetan ageri zuen nikotinaren **horitasunak** ematen zion aire zaharkitu hura. Ramon Saizarbitoria
Ilargiaren borobilaren **horitasun** bizi-bizia. Oskar Arana
Gristasunak **horitasun** ikaratiaz ekia deitzen zuela, oteak lili ziren eiki. Itxaro Borda

horitu *(ETCn 540 agerraldi)*, hori(tu), horitzen da/du *ad 1* hori-kolore bihurtu.

Umeek ziotenez horregatik **horitu** zitzaion bizarra. Anton Garikano
Tabakoak hortzak **horitzen** dituela. Berria - Gaiak
Paisaia **horitzen** den heinean bizkorrago doa Florenen gogoa. Eider Rodriguez
Haren begitartea **horitzen** hasia zen irakaskuntzaren ernegazio ankerren kariatz. Karlos Zabala
Horma behiala zuriak aspaldi **horitzen** hasiak. Iñaki Iñurrieta
Bide bazterreko belar erre **horitzen** hasiak. Anjel Lertxundi
-Zuek gorriak bazarete, ederki **horituko** zaituztete horiek! Koldo Biguri
Jaso begiak eta ikusi gari-soroak, uztarako **horituak**. Elizen arteko biblia
Lecœur andrea mindurik gelditu zen, begiak suminez **horituak**. Karlos Zabala
Aurpegi meharra; bibote-lakain mehe-mehe horietakoa, tabakoak **horitua**. Behatz lodi eta tabakoak **horitu** bat zen. Anjel Lertxundi
Hemen, seinalatzen dio nikotinaz **horitutako** aitaren hatzak. Oskar Arana
Argazki zahar aspaldi **horitutako** batetik aterea zirudien gizon hura... Juan Luis Zabala
"Itsasertzean", dio Petrussek, eta irribarre egiten du, **horitutako** hortzak erakutsiz. Oskar Arana

2 (era burutua izenondo gisa)

Beste ezertarako balio ez duela, hosto **horitu** bat bezala. Koldo Izagirre
Gelako atean fotokopia **horitu** bat zegoen. Harkaitz Cano
Hortzak **horituak** ditu. Anjel Lertxundi
Plazari begira ez baina etxeko taula **horituaren** aitzinean banengo bezain garbi. Alberto Ladron Arana
Ipurdi **horituko** te-kikara bat. Jon Muñoz
- Amak erregalatutako izara zuri-**horituen** gainean. Iban Zaldúa

3 horitzenago

Halakoetan iduri zuen biboteari erantsitako zuri kolorea irribarrearen indarrez istanteko kendu eta geroz eta **horitzenago** zitzaiola. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
horitu bat (6)

horitze *iz* hori-kolore bihurtzea.

Gustuko espektakulua bihurtu zitzaidan landareen hostoen **horitze** -prozesua jarraitzea. Iban Zaldúa

horixka *(163 agerraldi, 70 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 72 agerraldi)* 1 izond horiaren antzekoa, horirantz jotzen duena. ik horixta; horizta; horikara.

Snapek agerian zituen bere hortz-hagin **horixkak**. Iñaki Mendiguren
Lau eguneko bizar **horixkaren** atzean. Alberto Ladron Arana
Zigarretaren kondar **horixka** leihotik bota eta beste bat biribiltzeari ekin zion. Alberto Ladron Arana
Orban **horixkak** zituen tatariar masail zorrotzetan. Jose Morales
Mosaikoa akasturik zegoen hainbat lekutan, eta lekedaz beteriko hutsune **horixkak** ageri ziren eroritako aleen tokian. Jose Morales
Ibaiaren aldean aparkatuta Seat 127 **horixka** bat. Unai Iturriaga
Begirada edari **horixkaren** aparrean kokaturik. Migel Angel Mintegi
Egunguentia gertu zen, elurak ekarritako argitasun **horixka** gorritzen hasita baitzegoen. Anjel Lertxundi
Zeruko zuri eta zurixkak, gorri eta gorrixkak, hori eta **horixkak** lilaren espektora labaindu ziren. Joan Mari Irigoien
Kristalinoa ez da guztiz gardena, **horixka** antzekoa baizik. Irene Aldasoro
Gaitz horrek bilirubina mailaren gorakada eragiten du eta, ondorioz, gorputzeko likidoek, ehunek eta larruazalak kolore **horixka** hartzen dute. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan beste osagaia ere kolorea delarik)

Gozoki **horixka** -marroixka bat. Iñaki Mendiguren
- Aurpegi biribil eta beltzaranean [...] eguzki orban gorri-**horixkak** nabari zaizkio. Urtzi Urrutikoetxea
Hostoak orlegitik hori-**horixka** tonu guztietara pasatzen diren zuhaitzak hirurak ere. Pello Zabala
Bibote zuri eta motzak zituen, ilea zurixka-**horixka**, eta aurpegia beltzarana. Fernando Rey
Adats txuri-**horixkak** ezker eskuarekin atzeraka leunki bultzatu ostean. Aritz Gorrotxategi

3 zuri-horixka

Zalditxo zuri-**horixka** horietako batek tiratzen zuen gurditik. Zuri-**horixka** zaldi jatorra duk, bere zeregina betetzen dik. Jose Morales
Blackek, bere larruazal zuri **horixkarekin**. Iñaki Mendiguren
- Adats txuri-**horixkak** ezker eskuarekin atzeraka leunki bultzatu ostean. Aritz Gorrotxategi
Hondartzen kolore txuri-**horixka**. Aritz Gorrotxategi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
azal horixka (3); **eta horixkak** (3); **horixka bat** (9); **horixka eta** (8); **horixka haiek** (4); **horixka hartan** (3); **horixka zuen** (5); **zuri horixka** (6); **zuri horixka eta** (3)

horixkadun *izlag* horixkakoa.

horixkatu, horixka(tu), horixkatzen **1** du *ad* kolore horixka hartu.

Zuhaizten hostoak **horixkatu** eta ximeltzen hasten direnean. **Pello Zabala**

Elur giroak **horixkatutako** uretan begiratzen zuen gero, eta han islaturik ikusten zituen marinelen etxe txikiak leio gorribizi, berde eta marroiak. **Anjel Lertxundi**

2 (era burutua izenondo gisa)

Ama birjina **horixkatu** baten gisara. **Joxemari Iturralde**

Armairu ilara batzuk baziren, idazkitxo **horixkatu** eta arratoiek eta pipiak janez leporaino. Noizbehinkako haize-adar nahasiek, elkar jorik, bihurrika harrotzen zituzten bide bazterretako zurzuri-sail biluzien hosto **horixkatuak**. **Juan Garzia**

Argitasun **horixkatu** batek hartu zuen dardarka zerua. **Anjel Lertxundi**

horixta (**5** agerraldi, **2** liburutan; *ETCn 5 agerraldi*) izond horixka.

Negu gordinenean ere ota-lore **horixta** hortxe zabaldua. **Pello Zabala**

Mantilla **horixta** puntilladun bana erregalatu die Abuztu amautiak. **Patziku Perurena**

Horixta-horixta, beldurti aurrena elur tartetik, edo afanez martxo aurrenetan. **Pello Zabala**

horizontal (*ETCn 4.460 agerraldi*) **1** izond zerumugarekiko paraleloa dena.

Marra **horizontal** txiki bat marraztu zuen. **Jon Muñoz**

Lerro bertikalen eta **horizontalen** irudiak ez dira zehaztasun beraz eratzten erretinan. **Irene Aldasoro**

Haren azpian, putzu bertikal bat, zeinak galeria **horizontal** luze batera ematen baitzuen. **Juan Garzia**

Bibote sendo, oso zaindu, hori-zuritu, erabat **horizontal** batek bereizten zion aurpegiaren goiko zatia beheko zatitik. **Matías Múgica**

Besoa posizio **horizontalen** jarri. **Fernando Rey**

Galtza-motzak eta marra urdin eta zuri **horizontalako** kamiseta. **Berria - Euskal Herria**

Emakumezkoek hiriak diseinatzeko aukera gehiago izan balute, hiriak ez lirakeke, ziur aski, hain agresiboak izango, **horizontalagoak** eta orekatuagoak baizik. **Harkaitz Cano**

2 irud maila berekoen artekoa.

Gizarte-mugimenduak, egia esan, **horizontalak** eta bertikalak dira. **Iñaki Mendiguren**

Ekintza komunitario **horizontal** baten hasiera izan zen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Internetek beste era bateko transmisioa indartu du: transmisio bertikalaren orde, **horizontala**. **Berria - Kultura**

Idaztea egintza inmanente bat da, **horizontala**, erlatiboa. **Piarres Aintziart**

Fenomeno honek komunikazio **horizontala** errazten du, eta gizarte-sare berrien sorrera ahalbidetzen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Komunikazioaren demokratizazioa, eredu partehartzailagoa, **horizontalagoa**, demokratikoagoa, gizatiaragoa eta sozialagoa lortzea. **Txema Ramirez de la Piscina**

Nazio desberdinetan kokaturiko ekoizpen-unitateen arteko erlazio **horizontalak**. **Koro Navarro**

3 (adizlagun gisa)

Kaña edan zenuen edalontzia **horizontal** eutsiz, muturra eta baita sudurra ere b arrenean sartuz. **Herria**

• 4 iz lerro horizontala.

Gero, **horizontal** bat marraztu zuen. **Jon Muñoz**

Makalak bai, egon zitezkeen Gaztelan -makal bertikalak **horizontal** okre eta idorraren erdian-, baina beste berderik ez. **Bernardo Atxaga**

Bilaketa ez zuen ohe baten **horizontalera** mugatuko, baizik zeruak eta lurak biltzen zituen euriaren bertikalitasun sakonera hedatuko. **Itxaro Borda**

5 **horizontalen** horizontal, horizontalki.

Zenbakiak **horizontalen** eta letrak bertikalean. **Rafa Egiguren**

Hondarrezko ordularia esku maltzurren batek **horizontalen** jarri balu bezala. **Jasone Osoro**

Bertikalean eta **horizontalen** polarizatutako beirak erabiliz. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardatz **horizontal** (3); eta **horizontalen** (3); **horizontal bat** (4); **horizontalak eta** (3); **horizontalen jarrita** (3); **marra horizontal** (4); **marra horizontalak** (3)

horizontalismo *iz* maila bereko zeren aldeko joera.

Horizontalismoak *fides defuncti*-en artean hartu zuen bere lekua. **Xabier Olarra**

horizontalista *izond* horizontalismoari dagokiona.

Heresia **horizontalista** Xanobusek menderatu zuen, Abarako errege-filosofok, bertikalista amorratua baitzen. **Xabier Olarra**

Horiei **horizontalistak** esaten zitzairen, besteei, berriz, bertikalistak. **Xabier Olarra**

horizontalitate *iz* horizontaltasuna.

Halaber, musikarekiko kontzientzia analitikoa konprenitzeko kontzeptuak jorratuko dituzte, hala nola: zentru tonala, disonantzia, erretardoa, kadentzia, kontrapuntua, **horizontalitatea**, bertikalitatea, harmonikoak, tentsioa... **Berria - Kultura**

Horregatik, Aljerko prozesuaren nolabaiteko bertikalitatearen aldean, orain prozesu horizontalagoa erakitzen ari da, eragileen arteko **horizontalitate** handiagokoa. **Berria - Ekonomia**

horizontalki *adlag* horizontal, zerumugaren norabidean.

Alanbreak bertikaliki eta **horizontalki**, elkarretarik arras hurbil ezarriak zituzten. **Eneko Bidegain**

Behin altura irabazita gero, helikopteroa **horizontalki** abiatuko da lainoen artean. **Joseba Sarrionandia**

Airea **horizontalki** mugitzean. **Pello Zabala**

Teoria zientifikoa eredu-familia gisa ulertzen da, **horizontalki** artikulaturiko egiturak, bertikaliki hierarkizaturiko egiturak eta egitura erradialak dituena. **Herria**

horizontaltasun *iz* horizontala izateko nolakotasuna.

Monikek pentsatzen zuen ez zela argitasuna soilik, baizik eta **horizontaltasunak** berez inposaturiko su-etena, botere oreka. **Eider Rodriguez**
Emazte eta gizonen arteko harremanak **horizontaltasunean** aztertzea izan dela foro honen ardatz nagusietarikoa.
Horren sustraia Interneten **horizontaltasunean** datza, aurreko masa-komunikabideen bertikaltasunaren parean. **Berria - Gaiak**
Ez dugu proiektua soilik bertikalean pentsatu, zabaleran ere ikusi dugu, **horizontaltasunean**, itsasadarraren alde bien jarraipena izan dadin. **Berria - Euskal Herria**

horizonte 1 *iz* zerumuga, ostertza.

Munduaren goiko alde eta beheko alde banantzen diren lekuan, dirudienez berez nibelatutako zirkunferentzia moduko bat duela, astronomoek **horizontea** deitzen dutena. **Santiago Iruretagoiena**
Valaiseko Alpeen **horizonte** mugagabea topatu zuten bat-batean. **Josu Zabaleta**
Bat-batean zeruan izarrek daude, eta Sirio **horizontean** eta faroko argia kostan elkarrekin lehian ari dira... **Koldo Izagirre**
Tupusteko ikuspegiak ziren, ustekabeko arkitekturak, **horizonte** berbera agertzen baitzen etengabe, alderdi desberdinetatik. **Karlos Zabala**

2 irud

Marinak ere ulertu zuen, eta nirekin aurkitu zuen **horizonte** osoa eskuratzeko falta zitzaion partea. **Karlos Zabala**
Garai horietako emakume eta gizonen aukera emozional eta **horizonte** intelektualaz erabat harantzago. **Iñaki Mendiguren**
Adimena ez dela islatzeko tresna bat bakarrik, bere sentipen-**horizontean** jartzen zaion ororentzat arduragabe den ispilu bat. **Josu Zabaleta**
Etorkizun posible baten **horizontea** barrundatu. **Joxe Azurmendi**
Hori guztia, «Estatuaren **horizonte** federala» helburu jarritz. **Berria - Euskal Herria**
Askatasun intelektualaren **horizonteen** handiak, eztabaidak, zuzenak, adiskidantza alaitasuna. **Ramon Etxezarreta**
Geroago jakingo du zer gertatuko den aurrerantz, nolako arrakastak eta porrotak izango dituen gure protagonistak [...] nola bilbatzen diren ezkutuko hainbat hari kontakizun zabal honetan, nola zabalitzen den haren **horizontea** eta nola hartzen duen joera liriko handientsu bat. **Jose Morales**

horizta (**14** agerraldi, **11** liburutan; **ETCn 32** agerraldi) *izond* horixka.

Eta belarra berdea zen oso; eta bailarako bidea, lokatzez bete, **horizta**; Lubisen etxeko teilatua, gorria, gorri iluna. **Bernardo Atxaga**
Makillatuta zegoen, eta marra beltz batek nabarmendu egiten zizkion begi olio kolorekoak, **horiztak**, apur bat arreak. **Bernardo Atxaga**
Mostradorearen izkina batean edari **horizta** bat edaten. **Bernardo Atxaga**

horiztatu, horizta(tu), horiztatzen **1** da/du *ad* horizka-kolore bihurtu.

Muchek atsegin handia hartzen zuen, mantal zuria nola **horiztatzen** zen ikusita. **Karlos Zabala**
Liburu-dendako diru-kutxaren gainean jarri zuen hark, eta hainbat egunez halaxe **horiztatu** zuten loreek saltokia. **Jon Muñoz**
Tabakoak **horiztatutako** hagin zikinak. **Paddy Rekalde**

2 (era burutua izenondo gisa)

Eskutitz **horiztatu** horiek. **Iban Zaldua**
Orri **horiztatuez** osatutako koaderno txiki bat. **Iban Zaldua**
Arditzarren ile **horiztatu**-narratsaren ondoan arkumeen txuria edertasun hutsa da. **Pako Aristi**

horkotu, horko(tu), horkotzen (*corpusean horgotu*) da/du *ad* horko bihurtu.

Poloniak baditu berrehun mila eta bost ehun mila arte arrotz bere lurreen, ukrainiar, armeniar, vietnamdar, txetxeniar eta irakiar, paperik gabe, baina **horgotu** nahiak, lehenik ikasketak eginez eta gero lanbide bat han aurkitu, ondarrekotz egon-baimena eta betiko naturalisatze bat ere ardiesteko. **Herria**

horma¹ (*orobat orma g.er.*) **1** *iz* paret, eskuarki lodia.

Horma bat zen, harriz egina itxuraz, oso leuna, irristakorra eta hotza. **Koro Navarro**
Hiru geruza sortzen dira **horma** horretan, alegia kanpoaldeko bi aurpegiak eta beste erdiko betelana. **Santiago Iruretagoiena**
Dorre gotortuko **horma**. **Askoren artean**
Santutegiko **horma** euriak garbituen aurrean. **Josu Zabaleta**
Une hartan ontziak kaiko **horma** jo zuen, poliki. **Iñaki Mendiguren**
Solairu bakoitzean tenpluko **horma** kanpoaldetik meheagoa zen. **Elizen arteko biblia**
Nola **hormak** gomazko pilota itzularazten duen, halaxe itzularazten dituzte haiek argudio guztiak. **Jose Morales**
Tapiz ilunak zeuden **hormetan** zintzilik. **Koro Navarro**
Horma oso bat beteko dut zure argazkiekin. **Bernardo Atxaga**
Hormetako karea belztua zegoen, belztuak eta ikatz-hautsez beterik **hormetako** zartadura ugariak ere. **Anjel Lertxundi**
Pospolo bat piztu zuen **hormako** karearen kontra igurtziz. **Anjel Lertxundi**
Labana-arrastoz beteta zeuden Bennetten **idazgelan** zedrozko hormak. **Xabier Olarra**
Saiatzen naiz neure buruari Habanan nagoela irudikarazten, Pradoko **Horma** ondoan eserita. **Joxe Austin Arrieta**
Landareei buruz ere mintzatu zen, Libanoko zedrotik hasi eta **hormetako** itze-belarreraino. **Joan Mari Lekuona**
Hormak eraikitzeak erak. **Santiago Iruretagoiena**
Hormak egiteko bi mota daude. **Santiago Iruretagoiena**
Amak, **hormako** lanpara bat harturik, harrera gelaxkara eraman zituen. **Patxi Zubizarreta**
Hormako erlojuan 5:45 dira. **Oskar Arana**

ik beherago 7.

2 hed

Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea, apar zuri bizia, sakontasun latoi-kolorea, edontziaren **horma** ilun bustien barreneko mundu bat-batekoa. **Koldo Izagirre**

Huyko **horma** erabakigarria igo aurreko Bollaire, Bohissau eta Ahin muinoetan egurrean joan zen mugitu Ahin muinoa arte. **Piarres Xarriton**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Zorabioak hartu ninduen **horma** sendoak erortzen ikusi nituenean. **Koro Navarro**

Horma erorien artean, gabardinak ukigabe zirauen, estazioburua iristear balego bezala. **Harkaitz Cano**

Kanposantuko **horma** karezkoen kontra. **Harkaitz Cano**

Urtegiko **horma** nagusia, bigarren **horma**, Nafarroako ubiderako sarrera eta haren lehenengo hiru kilometroak egiteko. **Edurne Elizondo**

Horma nagusia 135 metro garai da. **Edurne Elizondo**

Itoizko urtegia ez da Pirinioetan agertu den porlanezko **horma** erraldoi bakarra. **Edurne Elizondo**

Gainalde borobileko frontoi bat, **horma** bakarrekoa. **Txillardegi**

Gelako **horma** meheetan durundi egiten zuen hotsak. **Irene Aldasoro**

Horma oso bat beteko dut zure argazkieki n.Hormigoizko **horma** batzuen artean sartu nintzen. labana-arrastoz beteta zeuden Bennetten idazgelan zedrozko **hormak**. **Felipe Juaristi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horma-hesiak, teilatuak, kaleak... denak zuritu zituen. **Juan Kruz Igerabide**

Kandelen argi izpiek [...] **horma**-zulo bat argitu zuten. **Koro Navarro**

Horma zuloetako sasien arantzak. **Anjel Lertxundi**

Txoriek ere lasai egiten diztute beren habiak elizako **horma**-zirrituetan. **Gotzon Garate**

Horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau ojiba, hamabosgarren mendekoak, absidean. **Koldo Izagirre**

Horma-harrietan ernetzen den itze belarraz. **Elizen arteko biblia**

Berriz osatu nuen hezurren multzoa **horma**-lan berriaren kontra. **Koro Navarro**

Berak esaten du norbaitek iraina idatzi duela bart bere **horma**-egunkarian. **Koldo Biguri**

Sinagogetako **horma**-dekorazioaren gain. **Iñaki Mendiguren**

· *izond* Etxe zahar izugarri handia, lainoetan galdua, **horma**-altua, ate-astuna, ziegez beteak diruditen sotoak dituen. **Koro Navarro**

· Bere lan ofizialeko batzuk aipatu dizkigu: dekoratu egile, eskaparate jartzaile, obretako langile, **horma** margotzaile... **Harkaitz Cano**

Horma-garbitzaileak: Laurel eta Hardy. **Harkaitz Cano**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garai ez urrun batean haitz-**horma** bati ekiten genion aldarte berean oldartu nintzen lanera. **Juan Garzia**

Baina bidea egiteko mendia zatikatzen denean, haitz **horma** bat uzten da eta horrek berezkoa du, grabitateagatik, beheranzko joera. **Berria - Harian**

Mendi-bide malkartsuenak eta harri-**horma** arrisksuenak igotzera. **Anjel Lertxundi**

Aurrealdean, hesi-**horma** garai batek bereizirik, bi lorategi zeuden. **Josu Zabaleta**

Ateak bost metroko zabalera, eta sarrerako albo-**hormek** bi metro eta erdikoa. **Elizen arteko biblia**

Zaingeletako kanpo- eta tarte-**hormek** saredun leihoak zituzten inguru guztian, atalondoko **hormek** bezalaxe. **Elizen arteko biblia**

Geletako barne-**hormetan** palmondoak zeuden zizelkatuak. **Elizen arteko biblia**

Elizak, Erdi Arokoa, dorre gotikoa zuen, eta haren barruan kanpai-**horma** are zaharragoa. **Edurne Elizondo**

Zubi-**hormara** hurbildu eta estropezu eginez gorputz erdia ibai aldera kanpoan geratu zenean. **Felipe Juaristi**

Ni zutik lasai, beso zabalik / piszina-**hormaren** kontra.Sozialistak ez gara euskal herritarren borondatearen euste-**horma** izango. **Berria - Euskal Herria**

Adibide bat jartzeagatik, "irudi-**horma**" gisako irudi mugikor anizkzun bat jar daiteke: ez dira irizpide berberak erabiliko telebista-pantaila sail bat erakusten duen Nam June Paik-en instalazio bat, museo bateko irudi-**horma** didaktiko bat edo Parisko Forum des Halles-eko publizitateko irudi-**horma** begiratzeko. **Josu Zabaleta**

Gizarte-**horma** bat. **Iñaki Mendiguren**

6 **horma-armairu** etxeko hormetan egiten den armario modukoa, hargin lanezkoa.

Orobat, kez belztutako sutondo bat bazen bertan, baita txiki-txiki eginda zegoen **horma**-armairu bat eta burdinazko ohe bat ere, bi zatitan tolestatua. **Lopez de Arana**

Bilkari etiketadunak kutxatilatagitan sailkatuta zeuden, **horma**-armairuen barruan, jakintza-adarka sailkatuta. **Jon Muñoz**

Logela harrapakatu egin dute, **horma**-armairuak irekita eta hutsik daude. **Oskar Arana**

7 **horma-belar** landare zurtoin-gorria eta hosto-latza, hormetan hazten dena(*Parietaria officinalis* etab.).

-Hartzen al ditu agindutako **horma**-belarrak? **Anjel Lertxundi**

Zure birketako esturarentzat **horma**-belarraren ura duzu hoberena. **Anjel Lertxundi**

8 **horma-bular** horma bati euskarrizat itsasten zaion pilarea edo arkua.

Gazteluko zaintzailea dorrearen gailurrean lo zegoen, **horma**-bularrean bertan jarria zegoen egur-pila baten gainean etzanda. **Askoren artean**

Aurreko aldetik ostikoak edo **horma**-bularrak altxako dira paretarekin batera. **Santiago Iruretagoiena**

Iruñeko katedral beneragarriaren harresi goi beltzak, leihaje flamigeroko ojibak, pinakulu delikatuak, **horma**-bular sendoak. **Koldo Izagirre**

9 **horma-erloju/ordulari**

Horma-erloju baten hotsa bakarrik entzuten zen. **Harkaitz Cano**

Horma-erloju bat, esferan pintaturik loreak zeuzkana. **Jose Morales**

Bere baitatik ateratako **horma**-erlojuaren pendulua balitz bezala. **Aingeru Epaltza**

Gela hartan bazen: **horma**-ordulari handi bat, kaiola inkrustazioz beteta zuena. **Josu Zabaleta**

Horma-erloju elektronikoa, bideoa, zenbait euro... **Fernando Morillo**

10 **horma-hilobi/hobi** (orobat **hormahobi**)

Hilkutxa **horma**-hilobian sartzeko unea. **Aingeru Epaltza**

Horma-hilobi sail baten parean. **Aingeru Epaltza**

Elizaren albo batean, **horma**-hobi bat. **Anjel Lertxundi**

Pare bat hilobi izan ezik, **horma**-hobiak denak. **Ramon Saizarbitoria**

Elizaren albo batean, **horma**-hobi bat. **Anjel Lertxundi**

Atauta zulora jaitsi, **hormahobian** sartu eta tapa betirako ixtea. **Joseba Sarrionandia**

11 **horma-irudi** (orobat **hormairudi** eta **hormiduri g.er.**) ik poster.

Haritz egurrezko **horma**-irudi handi bat zizelkatzen eman zuen. **Monika Etxebarria**

Euriak ia ezabaturiko **horma**-irudiak ikus zitezkeen nonahi. **Jose Morales**

Liburuak eta paperak birrindu, **horma**-irudiak urratu, paper-ontziak irauli. **Iñaki Mendiguren**

Leihatilaren gainean *Quex hitlerzale gaztea* pelikularen **horma**-irudi handi bat zegoen. **Anjel Lertxundi**

Egiptoko faraoien hilobietako **horma**-irudien antzera. **Anton Garikano**

Lanak iragartzen dituen **horma**-irudia zintzilik dago, aldiz, azken bi urtetan. **Berria - Euskal Herria**

Hormirudietako batzuk alderantziz zeuden zintzilikatuak. **Harkaitz Cano**

Antzeko lanetan ariren Asisko Urmeneta, Iruñean egindako **horma** baten aurrena eta *Napartheid* finzinearen bigarren zenbakian gerero. **Iñigo Aranbarri**

Logelako **horma** irudi eta izkribuz beterik du Josuk. **Joseba Sarrionandia**

12 horma-margo/pintura

Helenismoaren garaiko **horma** -margo edo mosaiko askok badute halako marko margotu bat. **Josu Zabaleta**

Odolaz botoiak, lekeda, frijidurak, odolkiak, **horma** -margoak eta lustre emateko oreka egiten zituen. **Juan Garzia**

Erromatarren **horma** -pintura artistikoaren eboluzioa. **Santiago Iruetagoiena**

13 horma-paper (orobat hormapaper) etxeko hormak estaltzeko pinturaren ordezkoko papera.

Bigarren solairuko **horma** -paper zuri-urdinerantz. **Anton Garikano**

Bainugelako **horma** -paperak. **Irene Aldasoro**

Itsasoa ikusten dudanero oroitzen dut gela hartako **hormapaperean** margoturik zeuden arraintxoen irribarre sadikoa. **Harkaitz Cano**

14 horma-txori ik hormatxori.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adreiluzko horma (9); **arteana horma** (4); **atzeko horma** (4); **auzoko horma** (3); **balina horma** (3); **bat horma** (4); **bateko horma** (3); **bateko horma** (7); **bere horma** (5); **beste horma** (5); **bi horma** (6); **bigarren horma** (7); **bizkarra horma** (3); **da horma** (9); **dira horma** (6); **dira horma** (3); **duen horma** (5); **dugu horma** (3); **edo horma** (8); **egiten zuen horma** (4); **egurrezko horma** (3); **elizako horma** (3); **eta horma** (58); **eta horma batean** (3); **eta horma baten** (3); **eta horma handi** (3); **eta inguruko horma** (3); **etxeko horma** (5); **ez da horma** (3); **ezkerreko horma** (4); **frontoiko horma** (3); **gabeko horma** (3); **gelako horma** (5); **harrizko horma** (11); **hiru horma** (3)

horma aldera (4); **horma altu** (3); **horma artean** (13); **horma baino** (3); **horma bakoitzean** (3); **horma bat** (51); **horma bat bezala** (3); **horma bat jo** (3); **horma batean** (31); **horma batek** (6); **horma baten** (37); **horma baten atzean** (5); **horma baten kontra** (18); **horma batera** (3); **horma batetik** (8); **horma batetik besterako** (3); **horma bati** (5); **horma batzuk** (6); **horma beltz** (3); **horma belztu** (3); **horma berde** (4); **horma bere** (3); **horma bere horretan** (3); **horma berria** (4); **horma besterik** (4); **horma besterik ez** (4); **horma bezain** (3); **horma biko** (3); **horma biluziak** (3); **horma botatzen** (6); **horma da** (4); **horma edo** (7)

horma egiteko (3); **horma eraiki** (3); **horma ere** (5); **horma erloju** (6); **horma eroriak** (6); **horma eta** (29); **horma ez** (3); **horma gainean** (7); **horma gainera** (3); **horma gainetik** (4); **horma garai** (5); **horma garbitzale** (3); **horma gotor** (3); **horma guztiak** (11); **horma guztietan** (6); **horma haien** (4); **horma handi** (13); **horma handi bat** (5); **horma hartan** (3); **horma hauek** (3); **horma hauen** (5); **horma hauen artean** (3); **horma hondatuak** (3); **horma hori** (4); **horma horiek** (5); **horma horien** (3); **horma horren** (4); **horma hura** (3); **horma ilun** (4); **horma irudi** (8); **horma irudiak** (5); **horma jo** (9); **horma jo zuen** (5); **horma jotzen** (3); **horma kontra** (13); **horma lodi** (3); **horma lodiak** (3); **horma nagusia** (3); **horma nagusian** (13); **horma nagusiaren** (3); **horma nagusiko** (5); **horma ondoan** (10); **horma ondotik** (4); **horma oso** (7); **horma oso bat** (5); **horma puska** (4); **horma zahar** (5); **horma zati** (4); **horma zikinetan** (3); **horma zuri** (9); **horma zuriak** (8); **horma zurian** (3); **horma zurietan** (5)

hornitutako horma (3); **huy horma** (3); **huyko horma** (3); **ia horma** (3); **inguruko horma** (5); **inguruko horma guztietan** (3); **irudi horma** (3); **kanpoko horma** (4); **kanporatzearen horma** (3); **koloreko horma** (4); **landarez hornitutako horma** (3); **lau horma** (14); **legez kanporatzearen horma** (3); **logelako horma** (3); **metroko horma** (4); **nire artean horma** (3); **nuen horma** (5); **ondoko horma** (4); **porlanezko horma** (8); **pradoko horma** (3); **pradoko horma ondoan** (3); **tenpluko horma** (3); **urtegiko horma** (12); **zaldien horma** (3); **zegoen horma** (4); **zen horma** (12); **ziren horma** (8); **zituzten horma** (4); **zuen horma** (4); **zuen horma** (8)

diren hormak (3); **eta hormak** (31); **etxeko hormak** (7); **gelako hormak** (5); **harrizko hormak** (3); **hormak apaintzen** (3); **hormak ere** (4); **hormak estaltzen** (4); **hormak estaltzen zituzten** (3); **hormak eta** (21); **hormak harrizkoak** (3); **hormak hutsik** (3); **hormak kolore** (3); **hormak zeharkatu** (5); **kanpoko hormak** (4); **lau hormak** (9); **lau hormak estaltzen** (3); **tenpluko hormak** (3); **zeuden hormak** (3); **ziren hormak** (3); **zituzten hormak** (5)

aldeko horman (4); **atzealdeko horman** (3); **atzeko horman** (6); **aurreko horman** (11); **batez horman** (3); **beste aldeko horman** (3); **bizkarra horman** (4); **dute horman** (3); **duzu horman** (3); **eta horman** (20); **etxeko horman** (7); **etxolako horman** (3); **ezkerreko horman** (5); **frontoiko horman** (3); **harrizko horman** (4); **horman behera** (4); **horman bermatu** (6); **horman bermatu zen** (4); **horman bermatuta** (5); **horman duen** (3); **horman egindako** (4); **horman egiten** (3); **horman eskegita** (5); **horman eta** (5); **horman gora** (10); **horman jarri** (3); **horman porlana** (5); **horman porlana sartzeko** (3); **horman zegoen** (7); **horman zehar** (5); **horman zintzilik** (13); **horman zintzilikaturiko** (3); **ikusitako horman** (3); **logelako horman** (3); **salako horman** (3); **urtegiko horman** (3); **zen horman** (4); **ziren horman** (3); **zuen horman** (5)

hormara begira (5); **hormara hurbildu** (5)

atzeko hormaren (6); **atzeko hormaren kontra** (3); **aurpegia hormaren** (3); **aurpegia hormaren kontra** (3); **aurreko hormaren** (6); **bat hormaren** (6); **bat hormaren kontra** (3); **batek hormaren** (3); **bigarren hormaren** (4); **bizkarra hormaren** (6); **bizkarra hormaren kontra** (6); **burua hormaren** (5); **burua hormaren kontra** (5); **eta burua hormaren** (3); **eta hormaren** (33); **eta hormaren artean** (4); **eta hormaren arteko** (5); **eta hormaren kontra** (15); **etxeko hormaren** (5); **hormaren artean** (7); **hormaren arteko** (5); **hormaren atzean** (6); **hormaren aurka** (17); **hormaren aurrean** (3); **hormaren beheko** (3); **hormaren bestaldean** (6); **hormaren beste** (4); **hormaren edo** (3); **hormaren edo parearen** (3); **hormaren eta** (7); **hormaren gainean** (5); **hormaren gainetik** (5); **hormaren goiko** (3); **hormaren inguruan** (3); **hormaren kontra** (157); **hormaren kontra bermaturik** (3); **hormaren kontra bultzatu** (4); **hormaren kontra estutu** (3); **hormaren kontra eta** (4); **hormaren kontra ipini** (4); **hormaren kontra jarri** (9); **hormaren kontra jarrita** (5); **hormaren kontra jotzen** (3); **hormaren kontra utzi** (3); **hormaren kontra zegoen** (4); **hormaren kontrako** (5); **hormaren ondoan** (13); **hormaren ordezk** (3); **kanpoko hormaren** (4); **ohearen eta hormaren** (4); **urtegiko hormaren** (3); **zen hormaren** (4); **zen hormaren kontra** (3); **zuen hormaren** (4)

atzeko hormatik (4); **eta hormari** (11); **eta hormari begira** (3); **hormari begira** (15); **hormari begira jarri** (3); **hormari itsatsia** (4); **hormari itsatsita** (4); **hormari lotua** (3); **hormari pega** (4); **hormari pega pega** (4); **hormatik zintzilik** (9); **hormaz bestaldean** (4); **zion hormari** (3)

bateko hormetan (3); **bi hormen** (8); **bi hormen artean** (3); **eskolako hormetan** (3); **eta hormei** (3); **eta hormek** (3); **eta hormen** (10); **eta hormetako** (7); **eta hormetan** (17); **etxeko hormen** (5); **etxeko hormetako** (3); **etxeko hormetan** (3); **galeriako hormetan** (3); **hormek eta** (4); **hormek palmondoak** (3); **hormek palmondoak zituzten** (3); **hormen artean** (21); **hormen arteko** (4); **hormen atzean** (4); **hormen aurka** (5); **hormen barruan** (3); **hormen gainetik** (6); **hormen kolorea** (4); **hormen kontra** (18); **hormetako batean** (4); **hormetako pintura** (3); **hormetan eskegita** (4); **hormetan eskegitako** (3); **hormetan eta** (9); **hormetan gora** (5); **hormetan zehar** (6); **hormetan zeuden** (4); **hormetan zintzilik** (6); **hormetatik kendu** (3); **lau hormen** (10); **lau hormen artean** (8); **zeuden hormetan** (6); **zoru hormetan** (4)

horma² (orobat orma g.er.) 1 iz izotza.

-15 kiloko zakua bizkarrean, 5500 metretako goratasunetik pasatuz, haize hotz ikaragarri batekin, tokika **horma** eta elurretan gandi. **Herria**

Denbora fresko egonen da, airea iparretik guneka **horma** ere. **Herria**

Gipuzkoan eta hor gandi gaitzeko elurtea izan delakotz eta **horma** pizkorrak ere ba elurraren gainerat... **Herria**

Haize biziki hotza izanik ere, **horma** ttipi batekin, jende multxo bat bildu zen, berrogoi bat. **Herria**

Izan dadin **horma** ala haize, euri ala elur. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Hain zuzen heldu zaio **horma** edo izotz garaia eta leizetan gordetzen. **Herria**

Horma kantoin ikaragarriak kraskatzen dira eta aintzirara lerratzen. **Herria**

Emeki emeki, **horma** meta alimale horiek urtu arau, itsasoak denetan goiti eginen du. **Herria**

3 izozkia.

Salda, piperrada xauxixekin, ahate ixterra ilar biribilarekin, gasna, bixkotxa, **horma**, kafea ondokoarekin eta arnoa nasaiki. **Herria**

4 horma-haize (corpusean soilik hormaize)

Neguan berriz, norteko haize lehor min hotzari, **hormaizea** ere deitzen zaionari, haize gorria esaten zaio **Patziku Perurena**

5 horma-leku hormagunea.

Bi toki paregabetan ibili gira: Perito Moreno **horma** lekuan eta Argentino aintziran untziz. **Herria**

hormabiko iz pilota jokoetan, pilotak bi hormak jotzea.

Capellaneak **hormabikoa** jaso, dejada txokora, eta tantoa. **Patxi Iturritegi**

Hormabikoei esker Beotibarreko ikusleak esnatu zituen (19-13). **Berria - Kirola**

Hormabiko trakets pare bat eta sake labor bati esker. **Berria - Kirola**

Txokoan pare bat, beste bi zabalera eta **hormabikoa**. **Berria - Kirola**

hormadi iz izotz hockeyrako jokagunea.

Izotz hokeian, tanto batez galdu dute angeluarrek Amiens-eko **hormadian**, 2/3. **Herria**

Angeluarrek irabazi dute galdu behar ez zuten partida joan den larunbat arratsean Angers-ko **hormadian** 8/3-ko emaitzarekin. Herria
Ostiral arratsean **hormadiara** hurbildu diren 650 behariek ez zuten pariatuko horrelakorik: Angeluarrek irabazi dute Rouen-en kontra 7/3. Herria
Gure **hormadian** beti izaten dugu zalearen animoa eta «itxasopentsu gara» diote Hormadikoek. Berria - Kirola

hormadiratu, hormadira(tu), hormadiratzen da/du *ad* hormadira atera.

Hirugarren zatian zegoen erabakia, eta Hormadi gogor **hormadiratu** zen garaipena lortzera. Berria - Kirola
Buruz indartsuago **hormadiratu** ginen, eta, gainera, ez genuen nahi Filipin kapitainaren azken partida izan zedin, hockeya uztea erabaki baitu. Berria - Kirola
Lapurtarrek lehen lerro hau **hormadiratu** zuten: Filiatraut; Sedlak, Duda; Dostal, Solaux, Garbocz. Berria - Kirola
Toursek kendu egin zuen Sotko atezaina, eta Hiadlousky **hormadiratu** zuen, baina azkar aldatu zuen berriro. Berria - Kirola

hormadun¹ *izlag* horma edo pareta duena; hormak dituen.

Horma bere horretan utzi zuen igeltseroa, tabikearen ondorioz bere bikotekidea utzi duen gizona eta **hormadun** pisua saldu behar duen eta emaztearekin arazoak dituen inmobiliariako gizona. Berria - Kultura

hormadun² *izond* izotza duena.

Gero deiz tokiaren aldi, langileak Mezikanoak, esnea turbina **hormadun** batean pasatzean hoztua arribatzen da untzirat. Herria

hormagintza *iz* hormak egitea.

Harrobiko harea atera berria **hormagintzarako** hain baliagarria izanik. Santiago Iruretagoiena
Teatroak material sendoagoekin egiten direnean, hala nola **hormagintzako** material, harri edo marmolarekin. Santiago Iruretagoiena
Mota horretako harriak erre aurretik txikitu eta harearekin nahasten badira **hormagintzan** erabiltzeko, ez dira gogortuko eta hormari ez diote eutsiko. Santiago Iruretagoiena
Harkaitz zuritik edo sukarritik ateratzen da [karea]; eta harri trinko eta gogorretik ateratzen dena ona izango da **hormagintza**-lanetarako. Santiago Iruretagoiena

hormagune (10 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 44 agerraldi; cf glaziar 71 agerraldi, 10 liburu eta 25 artikulutan; ETCn 2.248 agerraldi) *iz* urte guztian urtzen ez den elur izoztuzko eremua. ik izoztegi; glaziar.

-Irristatu egin hintzen **horma**-gune ezin labanago batean. Txillardegi
Tashi Lapsa **horma** gune gaixtoan (5757 m), goizeko 4 edo 5 ornetan zeharkatu beharko dutena. Herria
Kalafate herritik Perito-Moreno **hormagunerat**. Herria
Lurra berotzearekin, Ipar-Burutik hurbilko diren **hormagune** batzu tipituko dira, urtuko baitira, jadanik lekuka mehatuak eta kraskatuak dira, urtzen hasiak beraz. Herria
Dagoeneko ilunabarra da haranetan, eta arratsaren itzalak hedatuz doaz **hormagune** guztietan barrena, eta labar zutetan gora bihurdukatzen ari. Joxe Austin Arrieta
Artean bere baitan zeukan amiantoak irristagarri samar bilakatzen zuen masa, nagiro orekara, **hormagune** bat bezala. Juan Garzia

hormahobi ik horma¹ 10.

hormairudi ik horma¹ 11.

hormaize ik horma² 4.

hormaldi 1 *iz* izotzaldia.

Fruituak bana beste % 8-ez, baratzekariak % 17-ez, ainiz baita ez idurika! idortearen falta naski, eta udaberriko **hormaldi** berankor batzuen... Herria

2 glaziazioa.

Kuaternarioko **hormaldietatik** haste oraiako urte hurbilak arte, hori izanen da hizlariak lantuko daukun gaia. Herria

hormamendi *iz* izozmendia.

Laster, neguko **hormamendi** alimaleek eragotziko zuten itsasoa. Aurelia Arkotxa
Granbaya urdinean badoaz hodeiak / badaramatza urak **hormamendi** geldiak. Markos Zapiain

hormape *iz* hormaren azpìa.

Alferrik aspertu nituen ene urratsak: **hormape** beltzak ez zuten erakusten irregulartasun apurrik ere, murru betiberdinek ez bide zuten onartzen ate bakarrik ere. Juan Garzia

hormaratu, hormara(tu), hormaratzen du *ad* hormadiratu.

Ondorioz, ohiko lehen lerro indartsua **hormaratu** ahal izan zuen; hots, Filiatraut atezaina; Sedlak, Duda; Solaux, Dostal, Garbocz. Berria - Kirola

hormarte *iz* hormen arteko gunea.

Lokal barrura eginda, burua gorputzaz aurrerago ipini zuen arrastiriak apurregi argizatutako **hormartekoan** objektuak bereizi guran. Josu Landa

Sirok esklaboen bainuetara eramaten zuen, prostituten gelaxketara eta zirkuko figuranteak beren ezpata zuzekoekin ariketak egiten ziharduteneko **hormarte** lurpekoetara.

Juan Garzia

hormarteratu, hormartera(tu), hormarteratzen du *ad* hormarte batean kokatu.

Ur, lurrun, huts, gas, gasolina eta abarren hoderia guztiak, edo lurpeko erretzen-zuloz zihozazen, edo zimenduan **hormarteraturik**, eta maskor-giltzak baino ez zeuden eskumenean; karter konplikatu ezalirik eta giltzak itxirik zeuden. Juan Garzia

Adreilu trinkozko putzuzulo batean **hormarteratu** genuen [erreaktor zilindrikoa], hondoan eta alboetan 1.000 wattoke lau erresistentzia zeuzkala, elektrika-harietara kontagailua baino goraxeagotik konektatuak. Juan Garzia

hormate 1 *iz* izoztea.

Ez suteak, ez **hormateak** ez ekaizteak hondatuko du. Patziku Perurena

2 hormagunea.

Egun urtarilaren 22a, Hotelean askari ttipi bat eginik bozian abiatzen gira delako Perito-Moreno **hormatea** ikustera. Herria

hormategi *iz* hormagunea.

Hormategi edo izoztegiek estaltzen dute ia osorik lurraldea. Bernardo Atxaga

hormatu (*ETCn 496 agerraldi; orobat ormatu g.er.*), horma(tu), hormatzen 1 da/du *ad* izoztu.

Jainkoak putz egin eta izotza eratzten da, ur-azala **hormatzen**. Elizen arteko biblia

Mugaide galdu berriaren sensazio beroak, **hormatzen** zihozakion zango-besoak epeldu zizkion. Itxaro Borda

Izozte gogorrek direnean [...] ezin da lanik egin, ze zulatu orduko berriro **hormatzen** hasten baita leia, eta bestela ere eskuentzat gogorregia duk. Juan Garzia

Arrainak **hormatuak** zeuden, isatsa bihurriturik. Karlos Zabala

Elurrez estalia edo izotzak **hormatua** zen lurrean. Piarres Aintziart

Jainkoak putz egin eta izotza eratzten da, ur-azala **hormatzen**. Elizen arteko biblia

2 irud

Alabaina hurkoaren gogoia betikoz **hormatzeko** ahalmenaz hornitua duk irriño izugarri hori. Aingeru Epaltza

Eurolandean derrigorrez sartzeko, jendeen erosi ahalak **hormatu** zituzten gobernariak. Itxaro Borda

Gotaineko bazter galdu hartan denboraren isuria zinez **hormatu** bailitzan. Txillardeggi

Soakoa pantailan **hormatzera** utzi zuen. Itxaro Borda

3 (era burutua izenondo gisa)

Coca-cola **hormatua** hurrupatzen genuen hartan, kideak bi musu iheslariz despeditu ninduen. Itxaro Borda

Gogo txarrez ateratzen ziren haize **hormatura**. Elgarri loturik, elur **hormatuz** estali bideari harat abiatzen gara. Fernando Rey

Ipar poloko izotz **hormatuak**. Pello Zabala

Otsaileko gau **hormatuan**, artilezko manta batek estaltzen zion, burutik beheiti, gorputza. Aingeru Epaltza

Zelula mononuklearretik Nunavut herriko itsas aho **hormatuetan** bainatzen diren balea ikaragarrietara. Itxaro Borda

Macadam **hormatuaren** gainean. Itxaro Borda

Siberiako estepa **hormatuetan** tren espresa bezain arin irristatzen den lera horietako batean. Karlos Zabala

Zaintzalea, hesiaren beste aldean, tente potente, **hormatua** iduri. Filipe Bidart

4 (era burutua izenondo gisa, irud)

Mihiseak odolaz gorri zirela ohartu eta begi **hormatuak** Bittorrenetan bermatu zituen. Itxaro Borda

Gizonaren sabelpetik kolkoan gora ikara eta izerdi **hormatua** igotzen sentitzen zituen. Itxaro Borda

Isabel Sanjoserren irriño erreak **hormatu** ninduen. Aingeru Epaltza

Zorigaitzitsu baten itzal **hormatuak** bazter guziak estaliak. Janbattitt Dirassar

Uhin **hormatuen** artean, ibaia lasto-gixon bat bezala ninderaman. Aingeru Epaltza

Goizeko eguzki **hormatuaren** argitan. Fernando Rey

Eussako elizako *Mort Pour La Patrie* marmolezko zerrendategi **hormatuan**. Itxaro Borda

Edo agian ezingo du hautsi bere hitzen isiltasun **hormatua**. Pako Aristi

hormatxo *iz* horna txikia.

Geratzen zitzaigun apurra jan, **hormatxo** mirrin bat eraiki haizeak jotzen zuen aldetik, eta lotara etzan ginen lurrean, elkarren kontra estu-estu eginik. Juan Garzia

Bere zurak ez du balio egitura handi-mandiak altxatu eta jasotzeko: xumea da guztiz, baina denerako balio du, esku-makiletatik hasi eta etxola eta txabolak altxatzeko eta sabaitzeko, hala nola **hormatxoak** eraikitzeko. Pello Zabala

hormatxori *iz* txolarrea.

Horma txoriak zorrotenean mokoka ikusirik. Josu Zabaleta

Euskal Herrian bazter guztietan txolarreak edo **hormatxoriak** ikusten dira. Gotzon Garate

hormatzar 1 *iz* horma handia.

Presondegiko **hormatzarrei** begiratu azkar bat eman zien. Migel Angel Mintegi

Espetxearen **hormatzarren** kanpoaldean ekitaldi horretarako propio Amagoia Iban kazetariak eta Maialen Lujanbio bertsolariak prestatutako hitzak. Herria

Fresnesko **hormatzarrek** isilpeko asko gordetzen dute, oinaze eta tristezia asko. Jokin Urain

Horra hor, piztia berdexka, inoiz baino ederrago, lauza zuriez osatutako **hormatzarrean** kateaturik. Javi Cillero

Egun osoan ibili ondoren, iluntzerako, Rio Mundoko iturburuko **hormatzarrera** iritsiak ziren. Jon Maia

2 (fusilatzeetakoa)

Hurrengo baterako utzi beharko izango du martirioren loria; zerurako bide seguruaren izan arren, oraingoz libratua zela **hormatzarra** probatzen. **Inazio Mujika Iraola**
Hormatzarraren aurreko poesia heroikoak miresmena eta emozioa sortzen dizkigu euskaltzaleoi. **Joseba Zulaika**

hormatze iz izoztea.

Bat-batean inguruan hedatu zen **hormatze** -aireaz ohartzean isildu zen. **Itxaro Borda**

hormigoi 1 iz eraikuntzarako materiala, morteroz eta hartxintzarrez egiten dena. ikbetoi.

Altzairua, beira, baldosak eta **hormigoia** izango dira etxe-orratzen materialak. **Lopez de Arana**

Zoruko **hormigoia** hareazko alfonbra batez estalia zegoen, enbatak ekarria. **Anjel Lertxundi**

Hormigoizko horma batzuen artean sartu nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Hormigoizko eraikinaren solairu guztiak. **Sonia Gonzalez**

Hormigoizko babesleku batenak diruditen hondakinen artean nagoela eserita. **Mirentxu Larrañaga**

Mutitegi baserrira heldu ginenean, handik behera **hormigoizko** bidea zegoela-eta, Lauaxeta oinetakoak aldatzera geratu zen. **Juan Luis Zabala**

Kolageno-zuntzak, **hormigoi** aurretenkatuan altzairuzko hagaxkak nola, hasieran tenkatzen dira, eta inguruko gai minerala, berri, konprimatu. **Irene Aldasoro**

Egitasmoan 6 milioi metro kubiko **hormigoi** erabiliko dela aurreikusten da. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Leiho beltzekiko **hormigoi** -lantegien artean. **Lopez de Arana**

Hormigoi -fabrika eraiki baitzuten aspaldi etxearen aurrean. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **hormigoia** (5); eta **hormigoizko** (3)

hormirudi ik horma¹ 11.

hormona 1 iz guruin bati darion gaia, ehun edo organo jakin batean eragin jakin bat duena.

Emakumeak eta gizonezkoak desberdintzen gaituena gure bizimodua da, ez **hormonak**. **Ana Urkiza**
Gorputzean ez dago, ez etengailu mekanikorik, ez korrante elektriko handirik, baina **hormona** deritzen mezulari kimikoak baliatzen dituzte berrelikadura-sistema negatibo askok. **Irene Aldasoro**

Odolaren kontzentrazioa eta bolumena kontrolatzeko, **hormona** anti-diuretiko edo ADHa da mezularia. **Irene Aldasoro**

Sexu agerpenak direla, **hormona** androgenoek eraginda. **Gotzon Garate**

Tiroide guruinak **hormona** tiroideoak sor ditzan. **Berria - Gaiak**

Obulua ernaldutik ez denez, estrogeno eta progesterona **hormonen** kopurua jaitsi egiten da. **Luis Elberdin**

Hormona sexualen eraginak sortzen omen dute maitemintzeko beharra. **Luis Elberdin**

Horrexek hustu zizkion **hormonen** eraginpeko agresibitatea eta deblautasuna. **Xabier Olarra**

Hormonak hartzen dituzu, ezta? **Aitor Arana**

Hormonaz gizendutako behiaren inportazioa. **Berria - Ekonomia**

-Zer da **hormonaz** hazi oilaskoa ala? **Itxaro Borda**

Hormona sintetikoak zein abere irinez hazi urde gurintsuak. **Itxaro Borda**

Pestizidek **hormonetan** duten eragina ikertzen ari da. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik hormonal.

Hormona mekanismoak martxan jartzen dira ziklo berri bat hasteko. **Luis Elberdin**

Menopausia garaiko **hormona** tratamenduaren iraupena mugatzea gomendatu dute. **Berria - Gaiak**

Txerto honek ez ditu **hormona** zikloak eteten. **Berria - Gaiak**

Alkoholarekin edo drogekin arazoak dituzten pertsonak edo **hormona** anomaliak dituztenak. **Berria - Gaiak**

Horri guztiari **hormona** mozkorraldia gehitu behar zaio: maitasunaren kimika. nerbio, **hormona** -sistema eta sistema kardiobaskularrak. **Luis Elberdin**

Eratzunak egunero-egunero **hormona** dosi bat askatzen du, ahotik hartzen den pilulak bezala, eta baginak xurgatu egiten du **hormona** dosia. **Luis Elberdin**

Odolean **hormona** maila altua denean. **Luis Elberdin**

Hormona -ekoizpena. **Irene Aldasoro**

Nerabegaroko **hormona** -gorabeherak. **Xabier Olarra**

Hormona eskasiarengatik dela. **Luis Elberdin**

Nire bularrak agudo hazteko, **hormona** indizioak ematen zizkidaten. **Gotzon Garate**

Gizonentzako **hormona** bidezko antisorgailua 2009. urterako izango da, seguruena, botiketan. **Berria - Euskal Herria**

Askatzen baitu eguneari behar den Levonorgestrel **hormona** dosia. **Luis Elberdin**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bularreko minbizia, hormonak eta landare-**hormonak**. **Herria**

Abortu naturala tiroide **hormonekin** lotu dute AEBetako eta Portugalgo adituek. **Berria - Gaiak**

Izokinaren hazkuntza **hormona**. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **hormona** (8); **hormona askatzen** (4); **hormona bat** (4); **hormona bidezko** (6); **hormona horiek** (3); **hormonak hartzen** (3); **levonorgestrel hormona** (3)

hormonal izond hormonena, hormonei dagokiena. ik hormona 2.

DIU **hormonala**. **Luis Elberdin**

Mirena DIUak, beste metodo **hormonalek** bezala, berdin-berdin balio du haurrik izan ez duten emakumeentzat. **Luis Elberdin**

Berrogei urte inguruan kontrazepzio **hormonalak** -pilulak- formatu bakarra izan du: pilula ahotik hartzea. **Luis Elberdin**

Ziklo **hormonala**. **Luis Elberdin**

Aldaketa **hormonalak**, minbizia-kasuak eta arnas aparatuko arazoak emendatu dira erraustegia jarri ondotik. **Berria - Gaiak**

Ohitu egiten gara, eta hasierako mikoroaldi kimiko-**hormonala** pasatu egiten da. **Luis Elberdin**
Bizipenei oso lotua, gutziz **hormonala**, baina kezka askatzeko balio zidana. **Ana Urkiza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketa hormonalak (3); **diu hormonalak** (3); **hormonala da** (4)

hormonaterapia *(orobat hormonoterapia)* iz hormonon bidezko terapia.

Hormonaterapia: Hormona bidezko antisorgailuen eraginak aztertuko dituzte adituek, goiz eta arratsalde. **Berria - Euskal Herria**

Kirurgia, **hormonoterapia** edo erradioterapia bidez. **Berria - Gaiak**

Kirurgia, erradioterapia, **hormonaterapia** eta brakiterapia dira erabilienak. **Berria - Gaiak**

horni 1 iz hornitzea; zerbait edo norbait hornitzeko gauza multzoa. ik **hornidura**.

Ontziko marinelek ezin diote arrauketa ekin, goseak baitaude, aspaldi ahitu zaizkie-eta zer jana, zer edana, ontziko **horni** guztiak. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan)

Oxigeno-**horni** handia behar dute haien papar eta hegoetako muskuluek. **Irene Aldasoro**

Hartara, energia-**horni** bat sortzen da usaimen-nerbioa estimulatzeko. **Irene Aldasoro**

horniarazi, horniaraz, horniarazten du *ad* hornitzera behartu.

Beldurtua, urteroko guda-deiak ere baziren-eta ia-ia, erabat beldurtua omen zegoela kristau herri guztia; eta, Maltako uhartea eta Napoles eta Siziliako itsasaldeak **horniarazi** zituela erregek. **Patxi Ezkiaga**

horniarazte iz hornitzera behartzea.

Guda-gizon jakintsuari dagokion bezala egin du Erregek, bere erresumak **horniarazte** horretan, etsaiak esku-hutsik harrapatu ez dezan alegia **Patxi Ezkiaga**

hornidura 1 iz hornitzea; zerbait edo norbait hornitzeko gauza multzoa. ik **ostilamendu**.

Larruzko zaku batean beste **hornidura** ugari neraman. **Juan Kruz Igerabide**

Saguak **hornidurak** jaten ari zitzaizkidalda ohartua nintzenez. **Josu Zabaleta**

Psikologoaren mahaiak ere **hornidura** gutxi dauka, hurbiltasuna lortu nahi da. **Koldo Izagirre**

Tresnez ari naizenean, arnei eta **hornidurei** buruz ari naiz. **Esteban Antxustegi**

Jan-edatekoen **hornidurarik** gabe egina zuten, nonbait, Garrüzerrainoko bidea. **Aingeru Epaltza**

Ura eta **hornidurak** biltzeko asmotan. **Patxi Zubizarreta**

Lehen munta handikoa zen zamaria ondo hornituta edukitzea, eta aziendetzako larruteriak gurdien edo zalgurdien **hornidurek** adinako garrantzia izaten zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gai horien **horniduran** gertaturiko eten orok ekoizpenaren kate osoa geldiaraz baitezake. **Koro Navarro**

Hortaz, harako **hornidurarik** gabe espekulazio bidean abiatzen dena, halako leku batera heltzeko lasterka hasi eta bere ibileran putzu sakon batera amildu eta handik irten ezinik hiltzen denaren antzekoa da. **Xabier Kintana**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hornidura energetikoa ziurtatzeko pausoak. **Berria - Ekonomia**

Hornidura elektrikoa: eguzki panelen 23 instalazio. **Berria - Euskal Herria**

Ardura nagusia ez zen, lehen bezala, **hornidura** naturalak (nekazaritzakoak, meatzarikoak) eta faktore-hornidurak (lana, kapitala) menderatzea. **Koro Navarro**

Materialen **hornidura** arretatsua eta zekenkeriatan ibili gabekoa egiten bada. **Santiago Iruretagoiena**

Eguneko **hornidura** egiten ari ziren. **Karlos Zabala**

Batak ez besteak ez dute zentimo bat, eta etxeko **hornidurarik** ere ez. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen han goian **hornidura** -arazorik: nola, inork ez genekien, baina denok genuen denetik. **Juan Garzia**

Petrolioaren iturriak eta **hornidura** -zirkuituak "zazpi ahizpen" esku egotea. **Koro Navarro**

Ezkerreko besoan **hornidura** saskia harturik. **Josu Zabaleta**

Hornidura biltegi zabalak: orotariko salgaiak edukitzeko. **Josu Zabaleta**

Baten batek mespretxatu egin omen ditu lehenengo egunean eman genizkizuen **hornidura** tresnak. **Harkaitz Cano**

Gero, Eurinome **hornidura** -zaintzaileari esan zion: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Adierazi zuen bera ez zela Euzko Gudarosteko komandanteburua, **hornidura** arduradun soila baizik. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure janari **horniduraz** zerbait esan beharko dizut. **Josu Zabaleta**

Gaueko ogi **hornidura** kendu egin da. **Josu Zabaleta**

Arrantzarako zizare-**hornidura** gordetzen du bertan. **Itziar Otegi**

Eguneroko ikatz-**hornidura** eta berogailua. **Urtzi Urrutikoetxea**

Argi kontsumoa arras gutxitzea, eta agian elektrizitate **hornidura** moztea. **Josu Zabaleta**

Bilboko Udalak ur **hornidura** etengo du gaur arratsaldeko 16:00etatik gauerdira. **Berria - Euskal Herria**

Urrezko ontziak eta mahai-**hornidura** osoa bidali zizkion. **Elizen arteko biblia**

CLC industri **hornidurarako** enpresan. **Berria - Euskal Herria**

Ardura nagusia ez zen, lehen bezala, hornidura naturalak (nekazaritzakoak, meatzarikoak) eta faktore-**hornidurak** (lana, kapitala) menderatzea. **Koro Navarro**

Diru-**hornidurak** egitekoa. **Santiago Iruretagoiena**

Estatubatuar bankuek eraturiko funts-**hornidurak**. **Koro Navarro**

Kugler jaunaren egunkari **hornidura** geroz eta hobea da. **Josu Zabaleta**

Lekaima horiek, gizarteko goi-gerizetatik zetozenak gehienak, kultura-**hornidura** nabarmena zekarten eta prestakuntza erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia. **Joan Mari Lekuona**

Ez baitugu eskuarki ur-**hornidura** arazorik. **Juan Garzia**

5 hornidura gune (corpusean ez dago; ETCn 20 agerraldi) ik anoa gune.

Eta marinelek ongi dakitenez Faial nahitaezko **hornidura-gunea** dela eta denak bertatik pasatzen direla, "Peter's" beste helmugarik izanen ez zuten mezu prekarioen irisleku bihurtu da azkenean. **ETC-literatura, saiakera**

Etzanagoa da lehen igoera (18 km., %5,4ko desnibela), baina oso gogorra **hornidura gunea** arte, Conde mendi leporaino. **ETC-prentsa**

Txirindulariei gure ilusioa helarazi, datozen gazteei proba hauek maitatzen ikasi, materialarekin erne ibili, **hornidura gune** gehiago antolatu, dakien jendearekin mintzatu. **ETC-prentsa**

Beste bi masajista **hornidura gunera** joaten dira, aurretik pasteltoakoak, ur potoak, gatz mineralak, proteinak eta gainerakoak ondo prestatuta. **ETC-prentsa**

6 hornidura postu (corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi) ik anoa postu.

Helmugara iritsitakoan, aldiz, **hornidura postua** zuten indarrak berritzeko. **ETC-prentsa**

Irteerako eta helmugako **hornidura postuez** gain, beste zazpi egongo dira ibilbidean: 2. kilometroan lehenengoa, eta 18.ean azkena. **ETC-prentsa**

Hortik aurrera gutako bakoitzak ikusiko dizkiu ibilaldi hauei erakargarritasunak; lagun eta adiskideak egiteko balio dute, Euskal Herria ezagutzeko bide dira, ibilbideak markatuta daude, anoa eta **hornidura postuak** jartzen dituzte... **ETC-prentsa**

Azken **hornidura postuan** esan ziguten bigarren neskekiko tartea asko txikiu zela, eta, horrenbestez, erritmoa bizitu genuen. **ETC-prentsa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hornidura** (7); eta **hornidurak** (5); **gas hornidura** (5); **hornidura arazoak** (5); **hornidura arazorik** (3); **hornidura bat** (3); **hornidura bermatzeko** (4); **hornidura eta** (5); **hornidura eten** (4); **hornidura etengo** (5); **hornidura guztia** (3); **hornidura guztiak** (4); **hornidura osoa** (4); **hornidura ziurtatzeko** (4); **hornidurarik gabe** (3); **janari hornidura** (3); **ogi hornidura** (3); **ur hornidura** (11); **ur horniduran** (5)

hornigai 1 iz (norbait edo zerbait) hornitzeko gaia.

Hornigaiak eskasten hasi ziren, eta negua hurbil zegoen. **Agustin Otsoa**

Janari hori Egipto osora etorriko diren ondoko zazpi gose-urteetako **hornigaia** izango da. **Jose Antonio Mujika**

Progress M-51 ontzi errusiarra igande goizaldean iritsi zen ISS Nazioarteko Espazio Estaziora, **hornigaiez** bete-beteta. **Berria - Gaiak**

Komediantearen zinta hura ikusi zuten **hornigaien** biltegian, bata bestearen gainean pilotutako irin zakuen gainean irudiak proiektatuz. **Harkaitz Cano**

Faraoiaren gudarostearentzat **hornigaiak** biltzeko hiriak. **Elizen arteko biblia**

Argimutila bere **hornigai** eta kriseiluekin eta argitarako olioak. **Elizen arteko biblia**

Erregaien eta beste **hornigaien** joan-etorrien eta egoeren berri ematea. **Edorta Jimenez**

Ura berotzeko **hornigaietan** erabiltzen den murgil-berogailuan. **Irene Aldasoro**

Zerbitzu publikoen jardun eta finantzaketarako behar ziren baliabideak **-hornigai** kolektibo eta sozialak- biltzeko. **Koro Navarro**

Enpresen **hornigaiak** %0,1 handitu ziren urteko lehen hilean. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai)

Neure **hornigai**-zakua aurkitu diat zoruan botatako zapi batzuen artean. **Agustin Otsoa**

Iristen ziren merkantzia guztiak biltegi berean gorde behar ziren, eta Parisko etxe guztiei gutxieneko **hornigai** kopuru bat ziurtatzen zien eguneror. **Karlos Zabala**

Lanaren nazioarteko banaketa -zentroko eta periferiako eremuen artekoa -, ez da mundu osoko baliabide naturalen edo **hornigai**-baliabideen banaketa aleatorio baten emaitza hutsa. **Koro Navarro**

Hornigai-ondasunen sektorea eta industria astunaren garapena bultzatzeko. **Koro Navarro**

Herrialde garatuetako **hornigai**- eta kontsumo-ondasunak. **Koro Navarro**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai)

Kultu- **hornigai** guztiak, bertako hesolak eta atarikoak, brontzezkoak izango dira. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hornigaiak** (3)

hornigaigune iz hornigaiak biltzen diren gunea.

Hornigaiguneen eta merkaturatzearen kontrolak eta zentroaren periferiako ekoizpenen gainekoak badute eraginik banaketan. **Koro Navarro**

hornigailu 1 iz hornigarria.

Salbu zikiro saltsa "keztatuak" kozinatuzeko, ardiak premiazko baino, **hornigailu** bilakatuak ziren. **Itxaro Borda**

Hil mihise amironatuak, ezko-argiak eta izai merkeko kutxa distiratsuren gainean pausatzen ziren **hornigailu** sailduak. **Itxaro Borda**

2 erregaiz hornitzeko gailua.

Tomek autoaren egoeraz diagnostiko oker hori egiten zuelarik, itzuli egin nintzen, aipatutako gasolindegia atzeko leihotik ikuste aldera -garaje erabat hondatu bat zen, bi

hornigailuduna, eta ematen zuen ez ziotela 1954az geroztik margoa eman-. **Oskar Arana**

Erregai- **hornigailuaren** edozein akats [...] edota motorraren edozein matxura ziztrin. **Joxe Austin Arrieta**

Hornigailuak dauzka Lezon eta Langraizen, bazkideek erregaia zertxobait merkeago erosi ahal dezaten. **Berria - Ekonomia**

hornigarri 1 iz hornitzen duena.

Okelaren **hornigarri**, osagarri nahiz edergarri jarritako barazkiak bildurik, batzuek otordua egiten zuten. **Edorta Jimenez**

2 hornitzen duen gauza.

Lau dorre, zilarrezko ttonbordun eta guzti, itxi-irekirako zubia faltatzeko, inguruko aska-unea eta honelako gazteluei ipintzen zaizkien **hornigarriak** zituena. **Patxi Ezkiaga**

Eta alfanje zakar handi bat zintzilik, beltza hau ere, **hornigarri** eta gorde-leka, dena beltza **Patxi Ezkiaga**

hornikari iz horniketa lana egiten duen pertsona.

1929an bere aberkide eta toreatzaile Sidney Franklin -Brooklyngo toreatzailea, Madrilen guda zibilaren garaian idazkari eta **hornikari** izan zuena- ikusten izan zen. **Edorta Jimenez**

Urten egin zuen lasai, atean alboka ipiniz sarturten jarraitzen zuten **hornikariei** bide emoteko. **Koldo Izagirre**

horniketa (66 agerraldi, 7 liburu eta 47 artikulutan; ETCn 893 agerraldi) iz hornitzea. ik hornikuntza.

Ekonomi intendente gisa, zetozen gabezi urteetarako oparotasun-urteetan **horniketa** egitea. Itzi Mendiguren

Horniketa eten edo eskaera asko igotzen bada, estatu kideak gasa bermatzera behartuak daude. Berria - Mundua

Azkenik, bai etxez etxe banatzen zen ikatzaren **horniketaz** bai haren kobrantzaz ere arduratuko omen nintzen. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erasoak ez dira soilik okupazio indarren aurkakoak; haien **horniketa** bideei ere (erregai, elikagai eta piezak daramatzaten konboiak) egurra ematen zaie.

Ilgorak **horniketa** lana egin ohi du landare eta bizidunetan. Pello Zabala

Blokeoa hamabost egunerako iristen bazen **horniketa** arazoak izan zitzakeen Katmanduk. Berria - Mundua

Erresistentziak AEBen **horniketa** konboiei eginiko erasoak. Berria - Mundua

Iberdrolak elektrizitatearen **horniketa** sarea berritu dezan. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, Bilbora itzulita, Euzko Gudarostearantz **arropa** horniketaz arduratzen hasi zela. Berria - Harian

Baina beharginen auzoetako ur **horniketari** buruzko batzarra hasi zen orduan. Koldo Izagirre

Gas **horniketan** arazo gehiago ez zela izango ziurtatu zion atzo Errusiako lehen ministroak. Berria - Mundua

Halaber, Israelgo Dor Alon konpainiak, PANekin akordioa lortuta, etenda zuen erregai **horniketari** berriz ekin zion atzo. Berria - Mundua

Moskuk erregai lapurtzea egotzi dio Kievi eta Kievek beste herrialdeei **horniketa** murriztea Moskuri. Berria - Mundua

Petrolio **horniketa** jarraitua segurtatzeko. Berria - Mundua

Garraio publikoa, argindar **horniketa** eta telefono lineak etenda daude. Berria - Mundua

Baina irteera atzeratu egin behar izan dute, jantziak oxigeno **horniketerako** sisteman akatsak zeudelako. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gas horniketa (3); **horniketa eten** (4); **petrolio horniketa** (4); **ur horniketa** (8)

hornikuntza *(132 agerraldi, 13 liburu eta 77 artikulutan; ETCn 1.604 agerraldi)* iz hornitzea. ik **horniketa**.

Laugarren eremuan, azkenik, erabilera anitzeko gela bat, eskolako lanetan laguntzeko beste gela bat, hidrototerapiarako igerileku bat, eta hamaika aldagela dira **hornikuntza** nagusienak. Berria - Kirola

Zorigaitzez, **hornikuntza** (ekipamendua) eskas du, bereziki argi eta jarlekuak. Herria

Neguan **hornikuntza** bermatzeko. Berria - Ekonomia

Tropa konkistatzaileen **hornikuntza** ziurtatzeko. Karlos Zabala

Halakoak ontzi handienetako batzuei azken orduko **hornikuntza** egiten baitziharduten artean ere. Edorta Jimenez

LPEE cartel-ak [...] erregai **hornikuntza** murriztea erabaki zuen atzo. Berria - Ekonomia

Hornikuntza arriskuan jarri du Nigeriako grebak. Berria - Ekonomia

AEBetan findegiek **hornikuntza** gutxitu diete aire garraio konpainiei. Berria - Ekonomia

Argindarra ekoizteko ahalmenaren eta **hornikuntzaren** hobekuntza. Berria - Ekonomia

Hornikuntzan ez da aldaketarik gertatuko eta tarifak ez dira igoko. Berria - Ekonomia

AHT proiektua eraikuntza eta trenbide-materialen **hornikuntzan** diharduten enpresa handiei baino ez zaie interesatzen. Berria - Euskal Herria

Hornikuntzaz arduratzen zen sarjentuak. Elena Touyaru

Eraikinak eta bestelako **hornikuntzak** saltzeko ere eskatu zuen Brownek. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hozteko ura gurgilaren erdialdera sartzen denean, palek, hura hartu, eta abiadura handian jirabiratzen dute, **hornikuntza** -hodira pasatu eta handik zilindrora joan aurretik.

Irene Aldasoro

Hornikuntza sarea hobetzeko eta Kyotoko Ituna betetzeko. Berria - Ekonomia

Hornikuntza faltaren mehatxua. Berria - Ekonomia

Tokiko industriak ezin ekoizti dituen **hornikuntza**-ondasunak. Koro Navarro

Energiaren garraiorako bideak eta **hornikuntza** bermeak ere hobetu nahi dituzte. Berria - Ekonomia

Hornikuntza arazoek ez dute prezioan eragin zuzenik izan. Berria - Ekonomia

Hornikuntza egitura ere aldatuko da. Berria - Ekonomia

Comunitat Valenciana taldearekin dugun egungo material **hornikuntza** akordioa 2008a arte luzatu dugu. Berria - Kirola

Nire aitak **hornikuntza** bulegoetara joaten jarraitu zuen, zerbait gehiago eskatzera aitona-amona zaharrentzat, familia ugariarentzat, merkatu beltzaren azpitik zeuden guztientzat. Joseba Urteaga

Iberdrolaren hornikuntza kalitatea %18 hobetu da. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azken lanuztean ez zen petrolio **hornikuntza** eten. Berria - Ekonomia

Europara bideratzen duen gas **hornikuntza** %20 murriztu du Errusiak. Berria - Mundua

Ur eta argindar **hornikuntzarako** azpiegiturak. Berria - Mundua

Estatu Batuetan erregai **hornikuntzan** arazoak egongo ote diren beldurra dago. Berria - Ekonomia

Energia **hornikuntza** ez zen eten eta kontrolguneako pantailetan ez zen matxurarik zenik ageri. Berria - Euskal Herria

Oxigeno-**hornikuntzarako** sareak. Irene Aldasoro

Oxigeno **hornikuntza** kontrolatzen ari naiz, hain zuzen, oso bizkor ari baikara igotzen: sei mila eta zazpiehun metro. Josu Zabaleta

Hiriko azpiegitura asko azken unean amaitu dira, baina kirol **hornikuntzak** aspaldi amaitu zituzten, uste baino lehenago. Berria - Harian

Hilketaz gain, militarrek etxeak eraitsi zituzten eta ur zein argindar **hornikuntza** sarea hondatu. Berria - Mundua

Okupazio indarren elikadura **hornikuntza** alorrean ziharduen Ataha Lojistik Turkiako enpresak iragarri zuen atzo bere jarduerak bertan behera utziko zituela. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argindar hornikuntza (3); **argindar hornikuntzan** (3); **eta hornikuntza** (8); **gas hornikuntza** (4); **hornikuntza arazoak** (4); **hornikuntza eta** (5); **hornikuntza eten** (4); **hornikuntzan eraginik** (3); **petrolio hornikuntza** (3)

hornitegi iz hornigaien biltegia.

Eta Proustek, berriz, bizitza "une-bilduma"izat zeukan, eta une horien oroitzapenek "ez dute geroztik gertatutako guztiaren berri" eta "hermetikoki zigilaturik" irauten dute gogamenaren **hornitegian**, kontserba-ontziak balira bezala. Xabier Olarra

hornitu (ETCn 11.960 *ageraldi*; *orobat ornitu ETCn 51 agerraldi*), horni(tu), hornitzen 1a da/du adurbaitetarako behar diren gauzak eskuratu; norbaitek edo zerbaitek zerbitu izan; norbaitek edo zerbaitek zerbitu izan dezan egin.

Janztea estaltzea da, eta **hornitzea** ere bai. **Iñaki Seguro**
Orain eraikina ongi **hornitzea** da kontua. **Berria - Euskal Herria**
Ongi **hornituriko** mahaian. **Elizen arteko biblia**
Ongi **hornitutako** arrautza pare. **Josu Landa**
Ongi **horniturik** gindoazen, janaria ugari generaman, bai guretzat eta bai zaldientzat; armak ere ez gutxi. **Felipe Juaristi**
Ondo **hornitutako** etxeak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Ongizatearen gizarteko hipermerkatu oparo **hornituriko** guztietan. **Jon Alonso**
Gelak, esate baterako, edo laborategiak eta liburategiak, ez daudela behar bezain ongi **hornituak**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Gudaroste berriak, hobeto **hornituak** eta ugariagoak, eta garestiagoak beraz, finantzatzeko. **Koro Navarro**
Laboratorioa modernoa, ongi **hornitua**, zabala zela. **Juan Garzia**
Hobe luke arrantzale-kanabera ondo **hornitu** bat erostea senarrari. **Jon Muñoz**

2 (zerbitu edo norbait beste zerbaitez)

Ederki **hornitu** omen zituen jantzi eta bizitzeko behar zituzten gainerako guztiez. **Santiago Iruretagoiena**
Janari apal baina gozoz **hornituriko** mahaia. **Askoren artean**
Oilaskoz **hornituriko** ogitartekoak. **Joxan Elozegi**
Whiskya, sodaz eta izotzaz **hornitua**. **Lopez de Arana**
Parpailez jositako soineko luzeak eta dominaz **hornitutako** uniformeak. **Karlos Zabala**
Lady Godiva, ile-mataza bikain batez **hornitua**.. **Lopez de Arana**
Sabaia armiarma-lanparaz **hornituak** zituzten areto gorri, urdin, berdeak. **Xabier Olarra**
Mandik masa palekada batez **hornitu** zuen lllana, bankuaren gainaldea raseatu zuen. **Pablo Sastre**
Sei zutabe goitik beheiti, argazkiz ongi **hornituak**. **Aingeru Epaltza**
Datur **hornituxeagoa**, beharbada, hirea. **Aingeru Epaltza**
Dokumentazio aberatsez **hornitutako** liburuxkatik. **Berria - Kultura**
Judaren leinuko sei mila eta zortzietan gizon, babeski eta lantza **hornituak**. **Elizen arteko biblia**
Gotor ditzagun hiri hauek, harresiz, dorrez, atez eta morroiloz **hornituz**. **Elizen arteko biblia**
Kreatzaileak zerbitu eskubide kenezinez **hornitu** dituela. **Xabier Olarra**
Ontziolak lan zamaz **hornitzeko** plana. **Berria - Ekonomia**
Gero, zorrak ordaindu behar ziren, dirutan ez bazen, bai lanpostu diruz poliki **hornituetan**. **Aingeru Epaltza**
Jakingarri **hornituak** itzuli ziren aitatxik igorri lau berri-biltzaileak. **Aingeru Epaltza**
Hitz jakintsuz **hornitu** zuen Jaunak. **Askoren artean**
Jainkoaren dohainez **hornitua**. **Askoren artean**
Beste nazioen ondasunez gozatuko zarete, haien aberastasunez **hornituko**. **Elizen arteko biblia**

3 (norbaitek edo zerbaitek beste norbait edo beste zerbitu)

Zure merkantziak lehorratzean, herri asko **hornitzen** zenuen. **Elizen arteko biblia**
Edateko ura *Lyonnaise* enpresa **pribatuak** hornitzen du. **Herria**
Auzo oso bateko fruta saltzaileak **hornitzeko** adina merkantzia garraiatzen zuten. **Karlos Zabala**
Eman diezaiogula guk munduari etsenplu ona eta munduak **horni** gaitzala gure beharaldietan. **Askoren artean**
-Utz hori Jainkoaren esku, seme; hark **hornituko** gaitu. **Jose Antonio Mujika**
Gela garbi-garbi bat, haritz argiz egindako arasa batek, mahai batek eta zumezko jarleku batzuek **hornitzen** zutena. **Karlos Zabala**
Ur hori ureztatzeko, herritarrek eta industriak **hornitzeko**, aisialdirako eta energia sortzeko baliatuko dela. **Eduarne Elizondo**
Sukaldea **hornitzen** ere ez zuen xuhur jokatu nahi izan; aratxeak, zerrikumeak, bildotsak, oilaskoak, izokinak, barazkiak, arnoa... denek zeharkatu zuten gazteluko atea. **Aingeru Epaltza**
Emakumeak, burruntzalia eskuan, zopa botatzen zuen katilu hori batzuetan, eta ogi xerra mehe bana **hornitzen** zien. **Karlos Zabala**

4 (era burutua izenondo gisa)

Atzetik gizon armatu eta **hornituen** karabana zetorren hautsak inguratutik. **Agustin Otsoa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardoz hornitu (4); armaz hornitua (3); bularrekoea hornitzeko (3); hornitutako etxe (4); hornitzeko kontratua (3); janariz hornitu (4); landarez hornitutako horma (3); oharrez hornituak (3); ondo hornitu (6); ondo hornitua (5); ondo horniturik (5); ondo hornitua (11); ondo hornitutako (7); ongi hornitua (17); ongi hornituak (17); ongi horniturik (6); ongi hornituriko mahaian (3); ongi hornitua (5); urez hornitzen (6); zamaz hornitzeko (4); zuriz hornituak (3)

hornitzaile *izond/iz* hornitzen duena

Arrazoi SAS enpresa **hornitzaileak** hasitako lau eguneko greba da. **Berria - Ekonomia**
Astronomiaren tresna hutsa zen trigonometria, zerua ezagutzeko, izarren kokalekua jakiteko eta planeten mugimendua atzemateko behar ziren kalkuluen **hornitzaile** arrunta. **Jon Muñoz**
Hornitzailea W. zen, aleman industria handi eta errespetagarri bat. **Juan Garzia**
Autogintzako **hornitzailea** da, kautoxzko piezak egiten ditu eta, guztira, 134 gizon eta emakumek egiten dute lan Oiarzungo faktorian. **Berria - Ekonomia**
Lantegia Volkswagenen **hornitzailea** denez, [...]. **Berria - Ekonomia**
Hornitzaileak multinazionalak eskatzen dion produktzioaren arabera produzitzen du. **Berria - Ekonomia**

• 2 iz hornitzen duen pertsona

Hornitzailea Flamingo izeneko hotel batera joaten dun. **Xabier Paya**
Poliki-poliki Thomasek bere suhia Enperadorearen **hornitzaile** izendatzea lortu zuen. **Felipe Juaristi**
Truke haietatik sortu ziren printzeen **hornitzaileen** eta bankarien aberastasunak. **Koro Navarro**
'Basque-red.net' web orria zentsuratu du Interneteko **hornitzaileak** Kanadan. **Berria - Euskal Herria**
Hornitzaile pribatuen esku utzi nahi du prezioa finkatzea. **Berria - Ekonomia**
Saint-Denis kalean, **hornitzaileei**, dendariei, okinei, harakinei buruzko esamesak etengabeak ziren. **Karlos Zabala**
Autoarekin joan nintzen Donostiako eta Errenteriako zenbait zuloz, bila nenbilena lortuko zidan **hornitzaile** bat non topatuko. **Juan Kruz Igerabide**
Merkantzia ustela **hornitzaileari** itzultzeko. **Koldo Izagirre**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Periferiak, batik bat, sistema kapitalistan sartutako munduaren lehengai eta nekazaritza ondasunen **hornitzaile** funtzioa betetzen du. **Iñaki Heras**

ETNek bertikalki integraturik izaten dituzte **hornitzaile** eta bezero sareak, ohiko merkataritza harremana baino sendoagoa eta egonkorragoa den loturetan oinarriturik. **Iñaki Heras**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaurdanik, Iparraldeko enpresa txikiek argindar **hornitzailea** aukeratuko dute. **Berria - Ekonomia**
Munduko **energia** hornitzaile handiena izatea dauka helburu [Gazpromek]. **Berria - Ekonomia**
Bezero eta baliabide **hornitzaileekin** izaten diren harremanen aldaketa. **Iñaki Heras**
Mendebaldeko Alemaniak eta Japoniak HPEE ordezkatu zuten funts **hornitzaile** gisa. **Koro Navarro**
Euskal taldeak jokalaria **hornitzaileak** izan dira beti. **Berria - Kirola**
Ogi-bihia aspalditik aipatua da, janari **hornitzaile** premiatsuen da. **Herría**
Horregatik izan zen Egipto papiro-**hornitzaile** bakarra greziar mundu osoan. **Jon Muñoz**

hornitze iz zerbaitetarako behar diren gauzak eskuratzea.

Azken batean, bertsolariarena, pilatze eta **hornitze** lana da lehenik eta behin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Aurkikuntza horiek eta haien ondorengoek [...] **hornitze** -lan handiak, migrazio-olde berriak eta lehen industrializazio-saioak bultzatuko zituzten. **Koro Navarro**

hornizio (orobat hornizoin g.er.) 1 iz hornidura.

Hornizioak ezin zirela itsasoz besterik egin. **Santiago Iruretagoiena**
Hornizio ederra egin du atzerrian, diru zaharrak etengabe garraiatuz. **Iñaki Iñurrieta**
Hornizorik gabe ezin izango du bertako jenderik mantendu. **Santiago Iruretagoiena**
Aste osoa **hornizioak** eta gainerako trepeta guztiak eskuratzen eta gordetzen ibilia zen. **Koldo Izagirre**
Pitzia batzuek negurako beren **hornizioa** gordetzen duten era berean. **Joxean Agirre**
Zesar handia bere armadarekin inguratu zenean Alpeetara eta bertako herrietakoei agindu zienean eman ziezazkietela jateko **hornizioak**, [...]. **Santiago Iruretagoiena**
Bai jan-edanen eta bertze **hornizoin** batzuen erosteko eta beren nagusien etxalekuek garraiatzeko. **Joan Mari Irigoien**
Dyane 6 zahartu eta herdoildu bat [...] bazter guztietan eranskailu, zintzilikario eta antzeko **hornizioz** apaindua. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Baxeraz eta **hornizioz** beterik zegoen arasarantz. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Batera eta bestera zabuka darabil **hornizio** saskia. **Josu Zabaleta**
· Oxigeno **hornizio** hori etengabe kontrolatu beharrekoa da. **Josu Zabaleta**
Bere kezka, gogoeta eta irudi **hornizioarekin** zetorren, etxerantz, hori ere. **Josu Zabaleta**

hornizoin ik hornizio.

horondar izond antzinako Palestinako leinu batekoa.

Sanbalat **horondarrak** eta Tobias amondar funtzionarioak. **Elizen arteko biblia**
Eliaxib apaiz nagusiaren seme zen Joiadaren seme bat Sanbalat **horondarraren** alabarekin ezkondua zegoen. **Elizen arteko biblia**

horoptero iz

Begirada puntu batean finkatuztaz emanik, froga daiteke (geometrikoki) badela bi begizko ikuseremuaren barruan puntu bakar bezala ikusten diren puntu multzo bat; puntu horien leku geometrikoari **horoptero** deitzen zaio. **Josu Zabaleta**
Horretarako, begiradak ezin du puntu horretan finkaturik egon, jakina, eta puntu horrek ezin du **horopteroan** egon ere. **Josu Zabaleta**

horoskopo iz etorkizunaren iragarpena, argizagien egongunean eta zodiako ikurretan oinarritua.

Alaba ezkontzeko adinera heldu zenean, aitak luzaroan aztertu zuen haren **horoskopoa**. **Jon Muñoz**
Eduardo hori ez al zen Girolamo Cardanok **horoskopoa** egin zion bera? **Jon Muñoz**
Sud Ouest-eko **horoskopoa** irakurriz. **Itxaro Borda**
Horoskopoa eta karta astrala ditut alde. **Joan Mari Irigoien**
Horoskopo txinatarraren arabera / ni katu bat naiz. **Pako Aristi**
Igarleak, **horoskopo** egileak, soziologoak, historilariak... **Patziku Perurena**

horraratu, horrara(tu), horraratzen da/du ad ipar horretaratu.

Denaden, huts haundi bat eginen du hor hunen ez **horraratzeak** aldi huntan. **Herría**
Mike Bidart semearekin bururatzen ari da 12 mila behiren tokia eta esperantza abendoko **horraratzea**. **Herría**
Leon gidariak bidearhi puntetan ezagutzen baitzuen, nahi izan dauku erakutsi balea bat; Zierraville izena duena, bide handia utzirik oihanen erditik daukazu bide bakarra **horraratzeko**. **Herría**

horregatik

1 ez horregatik 'eskerrik asko'-ren erantzuna. ik zer 15.

Ziztuan irten, txirrina jo, entregatu, mila esker, **ez horregatik**, aio. **Herría**
- **Ez horregatik**, jauna! **Koldo Izagirre**
- **Ez horregatik** -esan zuen, Cook andreak esan gabe utzitako hitz esker onekoei aurrea harturik. **Pello Zabala**
- **Ez horregatik**, motel, **ez horregatik**. **Herría**

horrela *adlag* modu horretan. (ikus beheko konbinatorian horrela adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

Eskuak bularrera daramatzen agure **horzgabea** ere ageri da: arrosa gorri bat atorran. **Xabier Montoia**

Osabaren aho **horzgabea** eta kokotsa, hitz egitean gora eta behera zebilkiona. **Pello Lizarralde**

Tomek ohiko irribarre **horzgabearekin** eta kikarakada tearekin esnatu zuen Harry. **Iñaki Mendiguren**

-Ni baino ausartagoa izan duk, orduan, hire aita -esan zuen Francescok bere aho **hortz** gabea zabalduz-. **Josu Zabaleta**

[...] -esan zuen Francescok, bere katu aho **hortz** gabean irribarre bortxatu samar bat zuela. **Josu Zabaleta**

horzgabetu *izond* hortzak kendu zaizkiona.

Oihaneko Liburuan erregearen altorra zaintzen duen kobra **horzgabetu**, ilunbezko mendeek zurbilduak bezala. **Juan Garzia**

Bonino gizontxo potolo, zarpaitxo, lausoki txakurkara bat zen; bizarra gaizki moztua zuen eta irribarre **horzgabeta**. **Juan Garzia**

horzka ik **hozka**.

horzkari 1 *izond/iz* ahotsez mintzatuz, mihia goiko hortzetan ipiniz gauzatzen dena.

Palatalizazio adierazgarriak[...] hots **horzkari** eta hobikariak palatalizatzen ditu. **Lourdes Oñederra**

[t] herskari **horzkarian** mihia litzateke artikulatzaile aktiboa, eta hortzak, pasiboa. **Lourdes Oñederra**

Euskarazko ahoskeran "z" gaztelaniaren ebakera **horzkariaz** ahoskatzeko aukerak ugaritzen ditu. **Lourdes Oñederra**

Bai bokal artean /d/ **horzkaria** egiteko. **Lourdes Oñederra**

Euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko /d/ eta /t/ **horzkari** dira. **Lourdes Oñederra**

Horzkari eta hobikariak mihiaren aurreko zati lirain mugikorraz baliatuta ebakitzen dira. **Lourdes Oñederra**

2 *ezpain-horzkar* *izond* batez ere beheko ezpainaren eta goiko ebakortzen bitartez eratzen dena.

Hotsaren ahoskunea behoko ezpainaren eta goiko hortzen artean gertatzen denean, hotsa ezpain-**horzkari** dela esan ohi da. Lourdes Oñederra
Euskarazko hots sisteman, [f] bakarrik da halakoa, igurzkari ezpain-**horzkari** ahoskabea. Lourdes Oñederra
Halaber, W-a ezpain-**horzkari** bilakatu da. Isabel Arrigain

horzkaritasun *iz* horzkaria denaren nolakotasuna.

Ahoskunea mihiaren aurrealdearen eta goiko hortzen artean duten hotsen ezaugarria da **horzkaritasuna**. Lourdes Oñederra
Horzkaritasun hori adierazteko. Lourdes Oñederra

horzkatu ik hozkatu.

horztegi *iz*

Kaskezurrarekin errugbian jostatu berri zirenak ez ziren kalostreparen maldan zeuden pagano erreak, hortzak **horztegi**, so zeuzkatela ohartu ere. Itxaro Borda

horztun ik horzdun.

hoska 1 *adlag* hots egiten.

Leihoaren aurrean berriro eseri orduko hasi zen telefona **hoska**. Bernardo Atxaga
Berehala **hoska** hasi zen: "Sua, sua!". Juan Garzia
Begiak sabaitik bereizi gabe, **hoska** jarraitu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta
Kale osoa betetzen zuten, ozen hitz eginez, elkarri **hoska** eta oihuka. Josu Zabaleta
Sumindurik, lagunari gelditzeko **hoska** hasi zitzaion. Patxi Zubizarreta
Trantzean jartzen zuan, zirimolaka mugitzen zitian begiak, **hoska** eta madarikazioka. Juan Garzia
Izanez ere, **hoska** ari zitzaion ordurako "ahots jakintsua" -ahots aurrentipen adierazlea, Virgiliiori sinestera-. Bernardo Atxaga
Erreka ertzeko haltz handiak **hoska** hasten ziren, eta hotza, urteko lehen hotza, barruratzen zitzaion. Bernardo Atxaga
Barrura egin zuen, mutiri, urrezko katea mantalaren gainean **hoska**. Karlos Zabala

• 2 *hoska egin*

Ontziak frantses koloreak erakutsi zituen berehala; halatan, beraz, frantsesez egin zuen piratak **hoska**. Juan Garzia

hoskide *izond* hots berak edo berdinak dituen.

Bata bestearen ondoren jartzen nituen hitz **hoskideak** eta ahal nuena egiten nuen. Andoni Egaña
Arrakasta eta *arrastaka* **hoskideak** dituk. Iñaki Arranz
Hitz horiek inoiz ez dute errimatu edo ez dira **hoskide** izan. Isabel Arrigain
Halakoak dira, hurrenez hurren, pluraleko /s/ gehitzea *print* formari [pɾInts] edo horren **hoskide** izan daitekeen *prince* hitzaren [pɾInts] ahoskera. Lourdes Oñederra

hoskidetasun *iz* hots berdintasuna.

Eta Goiburuk ongi baliatu du berriz hitzaren polisemia, poto egin gabe **hoskidetasun** bete-betea lortzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Hoskidetasun handi edo txikiagoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Errima pobrea deitzen zitzaion **hoskidetasun** urrikoari. Andoni Egaña
Gure artean, **hoskidetasun** maila izan da sarri errima txarra eta ona bereizteko irizpide bakarra. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hospizio (*orobat ospizio*) *iz* erromesak eta eskaleak hartzen ziren etxea.

Hiritik kanpoko **hospizioetan** legendunak zerbitzatzen zituzten. Askoren artean
Emakumezkoak hirietatik gertuko zenbait **hospiziotan** bizi dira batera, eta ez dute ezer hartzen, baizik eta beren eskulanaz ateratzen dute mantenua. aita Bartolome ere desagertu egin zen Urbiaindik, ordenako aita nagusiak kargu berri baten ardura eman ziolako, Iruñako **ospizio** bateko kaperau izendaturik, handik gutirat jakin genuenez. Askoren artean
Diru emaite bat kaperaren baten edo komentu baten eraikitzeko, edo **hospizioen** eta bertzelako karitatezko obren bulkatzeko. Joan Mari Irigoien

hostai ik **hostaila**.

hostaila (*35 agerraldi 18 liburutan; ETCn 158 agerraldi; orobat hostai g.er. eta hostoila g.er.*) 1 *iz* zuhaitz eta landareen hosto eta abarren multzoa. ik **hostaje; hostotza**.

Zuhaitz baten **hostailan** ezkutatu da. Bernardo Atxaga
Aldaize gogorak arbolen **hostaila** astintzen duelarik, mugimendua irizten dio zenbaitek **hostaiaren** harat-honat heriosuar horri. Joxerra Garzia
Hostailan babestuta, azeria legez. Hasier Etxeberria
Libanoko zedro baten antzeko zara: adar bikainak eta gerizpe ederreko **hostaila** ditu, eta enbor luzea, adaburua hodeietaraino iristen zaiona. Elizen arteko biblia
Itzaltegi bat zegoen, makilaz eratua, eta haren gainean basa-arrosondo baten adarrak bermatzen ziren; haren **hostaila**, loretxo zuriz apaindua, hain zen sarria non eguzkiaren argiari ez baitzion igarotzen uzten. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Hostaila sarriaren azpian freskotasun gozo eta lurruntsua ezkutatzen zen. Xabier Olarra
Baso sarriaren **hostaila** joriak oinetik tontorreraino estalirik. Jose Morales
lto egiten zen **hostaila** azkengabe haren azpian. Karlos Zabala

Mahats ondo lodi, beltz eta bihurturatuak, **hostoila** berdeak txapelaturik. Piarres Aintziart

3 (hitz elkartuetan)

Ohidura zaharren arabera [...] amak, mahai gainean ezarria zuen ezkoargia pizturik eta haren saihetsean erramu **hostoila**. Daniel Landart

hostaje *(8 agerraldi 5 liburutan; ETCn 42 agerraldi) iz* hostaila.

Hostoen arteko zurrumurrua da hau, **hostajearen** ikara ilunabarreko brisan. Koldo Izagirre

Orbela zapaltzen hasi zirenean antxetaren halako bi izanen zen hegazia haizatu zen **hostajetik**. Koldo Izagirre

Begira mihura xorta lotsati enigmatiko horiei, ixil ixila, heriotz itxura guziak gezur direla salatzen, han hemen, zuhaitz adar soilduen tartean harrigarri, beren **hostaje** horiberdaska eta ale pinporta xuritan. Patziku Perurena

hostal *iz* ostatua.

Zumardian, Bahía **Hostalaren** inguruan zegoen telefono kabina baterantz zuzendu zen Pataki, presaka. Harkaitz Cano

Hamar urteko umea ordubetea helden da **hostaletik** Zelatunera. Pako Aristi

Jonek taberna aldera begiratu du, **hostaleko** jabearen bila. Jokin Muñoz

hostape *(ETCn 99 agerraldi; orobat hostope ETCn 28 agerraldi) iz* hosto azpiko gunea.

Gereziondoen azpitik pasaeran, irrikaz begiratzen genien behetik goiti, **hostape** berdean nonahi ageri ziren ginga mordo zurigorri. Aingeru Epaltza

Zer bilakatu ote dira haiek, beren behinolako lorategi maitatu hura, bere labirinto bideekin, bere antzinako urrinarekin eta bere bihurtuneetako **hostape** haiekin, dena galduta?

Berria - Kirola

Batzuetan, hala ere, liburua belaunetara erortzen utzi eta ametsetan hasten nintzen, nire inguruan Paris bizitzen entzuteko eta antzinako erako **hostape** haietan amaigabeko atsedean bat hartzeko. Josu Zabaleta

Ur-bazterretan bizi dira zeruko txoriak, **hostapean** kantari. Elizen arteko biblia

Nire egoitza zuhaitz handien **hostapean** galdu, ezkutatu hartako isiltasunean hain atsedengarria eta hain ona gertatzen zitzaidan gauen inguratze iluna, non ordutan egoten bainintzen zalantzan, gauero, oheratu ala ez, hartaz luzarago dastatzeko. Berria - Kirola

Hostapeko itzalean. Herría

Hemen berean, **hostope** honen barnean, 36-ko gerla zibilean, kukulauka hilgarri batean, gizonak gizonak tirokatu zituztela. Piarres Aintziart

hostarte *iz* hosto arteko gunea.

Palmondoak haizeari **hostartean** eutsi nahian. Pako Aristi

Haizea, zuhaitzetako **hostarte** elurtuetan uluka, bidaiakide dute. Anjel Lertxundi

hostatu, hosta(tu), hostatzen *(ETCn 32 agerraldi; orobat hostotu ETCn 4 agerraldi; eta ostotu ETCn 2 agerraldi) 1 da ad* hostoz bete.

Konturatuko ziren tarte luze horietan aldameneko mendiak elurrak estaltzen zituela lehenik, eta gero zuhaitzak **hostatzen** zirela, edo landaretoak loratu eta belaiak berdetu.

Pello Salaburu

Sahagún hirian, edozein aberastasun motaz bete den hirian, bada pentze bat: eta hor, aspaldi du, gerla baten irabazleek, Jainkoaren ospatzeko beren armen giderrak lurrean

landaturik, biharamunean **hostaturik** atzeman zituzten. Piarres Aintziart

[Emamuinak] soroetan **hostotu** eta denak loratu direnean. Xabier Amuriza

Oraino **hostatu** gabeko pago erraldoiaren abarretan soa galdurik. Elena Touyarou

2 (era burutua izenondo gisa)

Hango galeria alimalekoak, hango lorategi ederra, uztail hartan arbola eta lore **hostatuz** bete, hango zutabe borobilak, apaingarri loretsuz bururutuak Aingeru Epaltza

hostatze *iz* hostoz betetzea.

Hilabete horretan zuhaitzekin gertatzen den **hostatze** eta loratzeekin. Pello Salaburu

hosteleria *iz* ostalaritza.

Laffite izeneko gizon on eta ondratu batek kudeatzen duen Fonda Isabel besterik ez daukazu Donostian, eta frantses estiloko **hosteleriatik** bereiztearren esaten zaio horrela.

Koldo Izagirre

-Kontxo -Dylanek umoretsu-, ez nekian **hostelerian** halako kompetentziarik zegoenik! Pako Aristi

hostia ik ostia¹.

hosto *(ETCn 10.227 agerraldi; orobat osto ETCn 199 agerraldi; ostro g.er. eta hostro g.er.) 1 iz* landareen zatia, zurtoin edo adarretan sortzen dena eta gehienetan xafla moduko berde baten itxura duena. ik **orri**.

Argi distira bat zabaldu zen, eta ikara bat, ikara bat ere bai, zuhaitzetan, adarretan, **hostoetan**. Ikasi pikuondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta **hostoa** zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela. Josu Zabaleta

Lizarrak bere **hostoak** bota aurretik. Pello Zabala

Esaten zen usteltzen ari ziren **hostoetatik** jaiotzen zirela txoriak, harrak edota arrinak, **hostoak** zuten kokalekuaren arabera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina lau **hostoko** hirusta horrek ez zion suerte onik ekarri soldadu horri. Fernando Rey

2 (izenondoekin)

Haritzaren **hosto** berdexka. Pello Zabala

Udazkeneko **hosto** ihartuei. Ibon Urbarri

Haizeak erazutitako **hosto** iharrak. Josu Zabaleta

Palmondoaren **hosto** zorrotzak ukitu ditu. Pello Lizarralde
Pikondoren bat edo beste, bere **hosto** zabal, ilunak zabalitzen. Josu Zabaleta
Letxuaren kukuiluko **hosto** ezin samurragoak. Jon Alonso
Sahatsen **hosto** jostalari eta urdurien itzal xarean. Pello Zabala
Hosto koxkaduna duten zuhaitzak, ilbeheran inausi behar dira; bestelakoak, ilberrian. Pello Zabala
Sabana, tundra, **hosto** erorkorreko baso epela, euri oihan tropikala. Berria - Gaiak
Hosto heze eder bat bezala zabalitzen da bailara. Iñigo Aranbarri

3 (multzokari gisa)

San Markosetarako narra bat **hosto** gorde behar da. Pello Zabala
Astean bitan, gurdikada bat **hosto** eramaten zuen, azoketako bazter guztietan ageri ziren zabor piletatik sardez jaso ondoren. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txaradiko **hosto** -hotsa entzun nuen. Joxe Austin Arrieta
-Nire **hosto** kolekzioa eraman dezaket? Koldo Izagirre
Moztu gabeko **hosto** -eskukada ederra. Agustin Otsa
Bidean **hosto** pila erdi ustelduak ageri ziren han-hemenka. Juan Kruz Igerabide
Hosto -formako plater berde handi bat. Irene Aldasoro
Indio-txabola baten barruan zegoen, euritatik **hosto** -sabai soil batez babestua. Joxe Austin Arrieta
Eurijasaren aitzineko **hosto** zuritzea. Anton Garikano
· *izond* Pinuak aldatu zituen, *pinus insignis* **hosto** -ilunak. Joan Mari Irigoien
Zuhaitz **hosto** -trinkoenen artean bilatuko du bakartasuna, baina alferrik izango da dena. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Karmelek hainbat landare-**hosto** ekartzen zizkion. Joan Mari Irigoien
Ahuntzak belarra baino lehen jaten zuela lizar-**hosto** ondua. Pello Zabala
Euskal Herriko zenbat baserrian, lizar-**ostroa** sarri eman zaien ganadu eta abereei! Pello Zabala
Piku-**hostoak** eta mahats-**hostoak** zimeldu eta erortzen diren bezala. Eiizen arteko biblia
Koka **hostoak** biltzen lan egiten zuten 34 gizonetik hil zituzten tiroz Catatumbo eskualdean. Berria - Mundua
Iratze **hostoen** erdian. Karlos Zabala
Palmondo **hosto** eta zedro sortak. Anton Garikano
Zerra nola egin ere, gaztaina-**hosto** batekin ikasi zuen. Pello Zabala
Te-**hosto** berriak jarriko ditut. Ibon Uribarri
Lau porru, hiru azenario, txiribi bat, bi arbi, bi apio **hosto**. Karlos Zabala
Arrosa-**hosto** bat izango zuen, noski, maindire artean ezkutatua. Jon Muñoz
· Hagin **hosto** mordo bat. Koldo Izagirre
Begaion harunzko aza **hosto** aurpegi hari. Xabier Mendiguren Elizegi

6 lore-hosto (ETCn 70 agerraldi) ik petalo.

Lore handitxo bati begiratu zion, eta lore-**hosto** batetik tanta gorri bat erori zen. Ibon Uribarri
Garrezko lore-**hosto** urdin, hori, berde garbi-garbiak ireki ziren. Fernando Rey
Gerriak ere almindra-lore gisako lau kopa izango ditu, beren kukulu, lore-**hosto** eta guzti. Eiizen arteko biblia
Lore-**hostoak** banaka sakabanatzen ziren, eta horregatik deitzen zitzaion ziurrenik "kamelia-arbola petalo-galtzailea". Ibon Uribarri
Mailuz landuriko urrez egina zen argimutilla, oinetik lore-**hosto** -bururaino. Eiizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arto **hosto** (3); aza **hosto** (3); bat **hosto** (3); batek **hosto** (3); bere **hosto** (5); beren **hosto** (7); edo **hosto** (4); eta **hosto** (36)

hosto artean (6); **hosto** artetik (10); **hosto** bat (34); **hosto** bat bezala (9); **hosto** baten (9); **hosto** baten gainean (3); **hosto** batzuk (3); **hosto** batzuk (8); **hosto** berde (9); **hosto** berdeak (3); **hosto** berriak (4); **hosto** eta (24); **hosto** eta guzti (4); **hosto** haiek (3); **hosto** handi (5); **hosto** hori (3); **hosto** horiek (3); **hosto** hotsa (3); **hosto** idor (3); **hosto** iharrak (3); **hosto** ihartuak (4); **hosto** ihartuen (3); **hosto** iraunkorreko (4); **hosto** pila (4); **hosto** txiki (4)

landare **hosto** (4); lore **hosto** (9); lore **hosto** eta (4); palma **hosto** (3); udazkeneko **hosto** (4); zegoen **hosto** (3); zuhaitz **hosto** (3); zuhaitzen **hosto** (7)

den **hostoa** (3); **hostoa** baino (3); **hostoa** bezala (4); lizar **hostoa** (4)

azken **hostoak** (3); baten **hostoak** (3); belar **hostoak** (4); bere **hostoak** (4); dira **hostoak** (3); errege **hostoak** (6); eta **hostoak** (18); eta **hostoak** ere (3); eta mahats **hostoak** (3); haren **hostoak** (3); **hostoak** astintzen (3); **hostoak** ere (8); **hostoak** erortzen (8); **hostoak** eta (15); lore **hostoak** (5); mahats **hostoak** (3); te **hostoak** (4); udazkeneko **hostoak** (4); zituen **hostoak** (3); zuhaitz **hostoak** (3); zuhaitzen **hostoak** (4); zuhaitzetako **hostoak** (5)

arto **hostoen** (3); diren **hostoengatik** (3); diren **hostoengatik** ezaguna (3); eta **hostoekin** (4); eta **hostoen** (9); eta **hostoetan** (4); **hostoekin** eta (4); **hostoen** artean (7); **hostoen** artetik (8); **hostoen** eta (3); **hostoen** gainean (5); **hostoengatik** ezaguna den (3); **hostoetako** bat (3); **hostoetan** eta (3); **hostoko** hirusta (4); **hostoren** bat (4); **hostorik** gabe (7); **hostorik** gabeko (4); lau **hostoko** (4); lau **hostoko** hirusta (4); **sentiberak** diren **hostoengatik** (3); zuhaitzen **hostoen** (3)

hostoalde iz orrialdea.

Herria kaseta honetan ere agertu zen urriaren 2 eko, 2724 zenbakian, azken **hostoaldean**. Herria

Horren jakile dügü Piarres Charritton-en Hiztegia, 551. **ostoa** (Munduko Estatu izenak, Hiriburuak eta herritarren izenak): "Aljeriako Herri-Errepublika Demokratikoa, aljeriar, Aljer, aljertar". Herria

hostodun 1 izond hostoak dituen.

Palmondo bakan batzuk ere bai noizbehinka, baina gehientsuenak zuhaitz **hostodunak** ziren. Joxe Austin Arrieta

Adar **hostodunez** arteka guziak betez. Aurelia Arkotxa

Koniferoak dira zuhaitzi ia denak, orratz jeneroko **hostodunez** beterik. Pello Zabala

• 2 izlag hostoko.

Sugandilak eta lau **hostodun** hirustak bezala. Xabier Aranburu

Metro beteko **hostodun** palmondoak. Joxe Austin Arrieta

hostoeri (corpusean ostoeri bakarrik) iz hosto multzoa.

Ezagutu dugu ileak moda guztietan apainduak, alimaleko huntz-**ostoe** estalia, osto golko pizu batzuen puntak ura perekatzen zutela, beharbada laminen gorde-leku.

Michel Oronoz

hostogabetu, hostogabe(tu), hostogabetzen 1 da *ad* hostoak galdu.

Apoloren ohoreko landarea, eta garai batean **hostogabetzen** zena garaileen eta gortean eragina zuten poeten bekokietan jartzeko. Xabier Olarra

2 irud

Zeren bainekeen ezen jaio orduko ihartu eta **hostogabetu** zitzaidala Elbiraren begietako leihoetarik atzeman eta usaindu nuèn udaberri ezin ederrago hura...! Joan Mari Irigoien

Espaloietan, semaforoak **hostogabetzen** hasiak dira, orwelltzen. Joxerra Garzia

3 (era burutua izenondo gisa)

Udaberri **hostogabetua** agian, / bolbora bustiaren usaina / edo ikatzaren gustua, pikatzen ari zela. Xabier Mendiguren Elizegi

hostoila ik *hostaila*.

hostokada (*orobat ostokada*) *iz* hosto multzoa.

Hamabost egunez pasatuko da, **hostokada** bat bezala, egunean zati bat. Herria

Aldi oroz "**hostokada**" errubrikan presentatzen ditu hegoaldean agertu liburua. Herria

Nor ez da oroit haren kronika polilitetaz, Bidarraiko lehengo itxorioekin! orain bertze **ostokada** bazueri lotuak gira: Jan Battitt Dirassar-en "Ziburuk 400 urte" eta, helduden larrazken hortan agian, Marikita Tambourin-en kronikak agotetaz. Herria

hostokatu (*ETCn 51 agerraldi; orobat ostokatu g.er.*), hostoka(tu), hostokatzen 1 du *ad* orrika pasatu.

Hegoaldean hil gudarien argazkiak zekarkien liburuxka neska lagunekin gordean **hostokatzen**. Itxaro Borda

Nahiago zuen etxean gelditu, semeak alegia deus ez ekartzen zizkion errege eta printzesen mundua azaltzen zuten aldikariak **hostokatuz**. Itxaro Borda

Hemen idatziak dira bataio eta ehorzketak -ihardetsi zion elizgizonak, orrialdeak **hostokatuz**-. Elena Touyarou

Zatozte horren **ostokatzerat** eta baliatzerat hor izanen den diska berriarekin batera, larunbat huntan goizeko 11 etarik haste Lakarrako plazan. Herria

2 hostogabetu.

Gure orburuak **hostokatzen**, orriz orri mahonesan busti eta hortzen artean orriz orri irensten ari ginela, orduantxe kontatu zidan zerbait inondik ere andere jakintsua izan behar zuen bere amari buruz. Joxe Austin Arrieta

3 irud

Zortzi mila eurotan balioetsitako bitxilorea **hostokatzen** denbora luzea eman zuen. Migel Angel Mintegi

hostoño *iz* hosto txikia.

Liburuari lotua den **hostoño** batek oroitarazten dauku ere itsasorat nola nahika botatzen dena ez dela behin eta behin enturtzen edo galtzen. Herria

hostope ik *hostape*.

hostopil *iz* hostorezko gozopila.

Baina emakume potolo batek, bere **hostopila** kafesne katilukada handi batekin laguntzen duenak, [...]. Jon Alonso

Zeren zain zaude?, esan zion amak Annetteri, haren platereko **hostopil** zatia artean probatu gabe zuela ikusirik. Anjel Lertxundi

hostopiltxo *iz* hostopil txikia.

Bizkotxo zoragarriak, erreginaren gustuko **hostopiltxo** ezin gozagoak, eta sukalde zabalean xede horretan gordezik zuen aulki-bizkarrean idorrazazi aurretik oratzen zituen pastak prestatzen zizkidan. Joxan Elozegi

hostore *iz* irinez eta gantzaz egiten den ore xafladuna.

Itsaskiz beteriko **hostorea**, onttozko moussea eta ez dakit zenbat gauza gehiago atera ziguten. Xabier Mendiguren Elizegi

Aza-zopa eta **hostorezko** pasteltxoak. Jose Morales

Egun, produktu asko "ia erabat prestaturik" merkaturatzen dira (bizkotxoak, souffleak, entsaladak, zopa eta saldak, haragi beratuak, saltsak, arrain xerratu eta birrineztatuak, kroketak, ogi eta **hostore** ia erreak). Edorta Agirre

hostotsu (*orobat ostotsu g.er.*) *izond* hosto asko duena.

Pago **hostotsu** baten itzalean. Bernardo Atxaga

Komentuko lorategia zuhaitz **hostotsuz** inguratuta zegoen. Josu Zabaleta

Zuhaizti **hostotsu** baten erdian geratu zen. Jon Muñoz

Elorri **hostotsuen** azpian eta kanabera artean ezkutatu ginen. Oparo eta **hostotsu** oroitzen zituen zuhaitzak biluzik daudela konturatu da bat-batean. Juan Kruz Igerabide

Zuhaizt tantaiairen adaburu **hostotsuaren** azpiko lurrean. Mirentxu Larrañaga

Oihanaren sabai **hostotsuak** erabat ixten dio bidea argiari. Pello Lizarralde

Itakan bizi naiz, eta arratsaldeetan ederra da uharte hura; mendi eder bat du, ikusgarria eta **hostotsua**. Juan Kruz Igerabide

Hesi **hostotsuz** bereziak ziren bide estu ordenatuak, bide bareak, zehazki eta arauz inausitako bi horma **hostotsuren** artean. Josu Zabaleta

Hanka haragitan uzten dizuten txinaurri gorriak ezagutu ditu, armiarma erraldoiak, landare **hostotsuen** besarkada itogarriak. Pako Aristi

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hostotsu baten (5); **zuhaizt hostotsu** (4)

hostotu ik **hostatu**.

hostotza (19 agerraldi 12 liburutan; ETCn 164 agerraldi) 1 iz hostaila.

Eguzkiak Zitadelako **hostotza** trinkoko zumar handietan jotzen zuen, eta gorritu eta kobre-kolore batez tindatzen zituen. **Koro Navarro**

Txori odol-gorria **hostotzan** desagertu ondoren. **Anton Garikano**

Txakurrak sarritan, behin lorratz ziuorra hartutakoan, piztia menditar baten atsedenekua, **hostotzan** ezkutatua, usnaz aurkitzen duen bezala. **Xabier Amuriza**

Haize balek halako arnasa erritmoa eransten zioten isilari, eta aurreko zuhaitzen **hostotzan** zurrumuru etenkorra eragiten. **Txillardegi**

2 (hitz elkartuetan)

Albert bizpahiru aldiz jiratu zen basa- **hostotzaren** atzean desagertu aurretik. **Jon Muñoz**

hostotzar iz hosto handia.

Sartu egin behar izan nuen, eta alboraka ibili nintzen hango lore eta **hostotzarren** artean. **Koldo Izagirre**

hotel (orobat *otel g.er.*) 1 iz gaur egun ohiko diren zerbitzuak eta erosotasunak eskaintzen dituen goi-mailako ostatua.

Atari handi bat, harrera profesionala eta denbora berean beroa, zurezko eskailera distiratsuak, eskubanda leunak argi eta garbi: aterpe hau **hotel** bat da. **Piarres Aintziart**

Jadanik beteta daude Erromako **hotel** eta ostatuak. **Berria - Harian**

Parisko **Hotel** Mirabeau delakoan. **Txillardegi**

Hotelak New Harlem zuen izena. **Iñaki Zabaleta**

Hotel Nizako kafetegian daude. Russija **hotela** bere garaian Europako handiena izan zen. **Edorta Jimenez**

Arrebak esan zidak askotan bisitatzen duala Alaska **hotela**. **Bernardo Atxaga**

Victoria Eugenia Antzokia eta Maria Cristina **Hotela** inauguratzen dira. Hornitzailea Flamingo izeneko **hotel** batera joaten dun. **Askoren artean**

Hiri baten eta **hotel** baten izena aipatu zitian ondoren. **Joxean Agirre**

Irungo **hotel** bateko nagusia. **Eneko Bidegain**

Altamont **hotelean** hartu genuen ostatu, hiriaren erdigunean. **Berria - Kultura**

Hotelaren sarreraraino lagundu dit. **Jon Arretxe**

Alfa **hoteleko** harrera gelan. **Anjel Lertxundi**

Hotel bateko kafetegian, erakusleihoaren beste aldean, putakumea eta Aintzane, kafea eta kruasanak hartzen. **Iban Zaldúa**

Bere ama eta arrebak **hotel** bat zuzentzen zuten jaioterrian. **Bernardo Atxaga**

Kontratuak dio **hotelak** hiri-hirian egongo direla. **Patxi Zubizarreta**

Hotelera iristeko taxia hartu behar izan dut. **Edorta Jimenez**

Hotelak ordainduta geneuzkan. **Edorta Jimenez**

Atzo Las Vegaseko **hotelean** egonaldi luze bat egin behar izan nuen. **Patxi Zubizarreta**

Zatoz nire **hotelera**. **Matías Múgica**

Presaka, biak **hotelera** sartu ziren. **Iñaki Zabaleta**

Taxi bat hartu eta **hotelerantz** abiatu zen Joseba. **Iñaki Zabaleta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Miarritzeko **hotel** famatuena, ederrera eta karioena da *Hotel du Palais* deitzen duten hori. **Herria**

Berak hartuko omen zuen gela **hotel** goxo batean. **Ramon Saizarbitoria**

Hotel txiki batean hartzen zuela ostatu esan zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Geltokiko atean bertan lortu nuen **hotel** merke baten helbidea. **Alberto Ladrón Arana**

Pistola itsusi bat **hotel** itsusi bateko gela itsusi batean. **Alberto Ladrón Arana**

"Ermita" auzoko **hotel** izarduna zen. **Ramuntxo Etxeberri**

Hilton luxuzko **hotelaren** ondoan. **Berria - Kultura**

Punta Canako bost izarreko **hotel** bat hautatu du egun horiek igarotzeko. **Berria - Kirola**

Caisse d'Epargne banketxearen bastiza lurrera botatu ondoan hiru izarretako **otel** bat hor eraikitzea uste dute. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zutik egon nintzen **hotel** sarreraren aurrean. **Matías Múgica**

Hotel -sarrerako marmolezko bi estatua zuriak baino zurrunago. **Anjel Lertxundi**

Futbolariak etxera eraman zuen Andreas, hau da, alokatu zion **hotel** gelara. **Matías Mujika**

Tren txartelak, auto bidaiak, jatetxe eta **hotel** fakturak, museo sarrerak. **Joxan Elozegi**

Bere aita **hotel** -kate baten jabea zela. **Joan Mari Irigoien**

Atezaina ez igogailuko mutila ez **hotel** -langileetako inor ez zen horretaz harritu. **Matías Mujika**

Orotara 260 bat enpresa daude, artean, 80 saltegi, 25 **hotel** -jatekxeha baita zazpi banku ere. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Talgor burdinbide desberdinetarako balio duten 10 tren- **hotel** egiteko kontratua ere lortu du 143 milioi eurotan. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi hotel (9); bilboko hotel (8); bilboko hotel batean (6); da hotel (6); dagoela hotel (3); dagoen hotel (3); dira hotel (4); donostiako hotel (7); donostiako hotel batean (5); eaeko hotel (3); eaeko hotel eta (3); eko hotel (3); ere hotel (6); erromako hotel (3); eta hotel (20); existentzia hotel (4); gasteizko hotel (3); gasteizko hotel batean (3); grand hotel (4); hango hotel (6); hango hotel batean (3); herriko hotel (6); herriko hotel batean (4); hiriburuko hotel (5); hiriko hotel (5)

hotel alaska (4); hotel aurrera (3); hotel barrura (3); hotel bat (28); hotel bat eta (3); hotel batean (107); hotel batean bizi (3); hotel batean egindako (4); hotel batean sartu (5); hotel bateko (32); hotel bateko gela (5); hotel baten (26); hotel baten aurrean (3); hotel baten ondoan (3); hotel batera (18); hotel batetik (5); hotel bati (3); hotel berean (7); hotel berri (8); hotel berri bat (4); hotel berria (3); hotel daude (3); hotel de (3); hotel du (7); hotel du fronton (4); hotel du palais (3); hotel edo (6); hotel eta (18); hotel eta landetxeetan (3); hotel ezagun (3); hotel ezagun batean (3); hotel gisa (3); hotel handi (3); hotel hartako (5); hotel hartan (10); hotel hori (3); hotel horretan (5); hotel hortan (3); hotel merke (3); hotel suisse (4); hotel txiki (11); hotel txiki batean (6)

eko hotel (5); eko hotel batean (4); iruñ iruñ izarreko hotel (3); karrikako hotel (3); karrikako hotel batean (3); luxuzko hotel (8); luxuzko hotel batean (3); madrilgo hotel (3); madrilgo hotel batean (3); mailako hotel (3); miarritzeko hotel (6); nuen hotel (3); ondoko hotel (4); parisko hotel (7); parisko hotel batean (3); riminiko hotel (3); temple karrikako hotel (3); zegoen hotel (4); zen hotel (7); zuen hotel (5)

hotelari iz hotel baten ardura duen pertsona.

Hotelaria, alkandora arrosa soinean, hasia zen ordurako izerdi patsetan. Matías Múgica
-Nik ere kafe bat nahi dut! -oihu egin zion **hotelariari** erdi irekita utzitako atean barna. Matías Múgica

hotelaxka iz hotel txiki eta badaezpadakoa.

Eguna joan, eguna etorri, hura hantxe beti, **hotelaxkaren** aurrean. Joxe Austin Arrieta

hoteleratu, hotelera(tu), hoteleratzen da ad hotelera joan.

Beranduago, Gregory eta Joseba **hoteleratu** egin ziren. Iñaki Zabaleta

Ordu biak aldera **hoteleratu** zen Joseba eta siestan sartu. Iñaki Zabaleta

Goiz samar afaldu eta **hoteleratu** behar zirela. Joxemari Iturralde

hoteleria iz hotel instalazioa.

Anartean, Xahatoeneko obrak aintzina doatzi, heldu den ekaineko nahi bailuke Ducasse-k *Ostape* deitu handikeriazko **hoteleria** ideki, 41 hektaretako eremu hortan.

Herria

hotelgintza iz hotelak egitea.

Eraikuntzan, **hotelgintzan** eta jatetxeetan langile kualifikatuak eskas dira. Berria - Ekonomia

Hotelgintzan ja trebatuak diren bi lagun litazke erosleak, batto Pauekoa, bestea Arkaxone aldekoa. Herria

hoteltxo iz hotel txikia.

Itzuleran, amaren adiskide batek Donostian zuen **hoteltxo** batetik pasatu ginen. Anjel Lertxundi

Hoteltxo dotore eta lasaia zen, futbolariak eta boxealariak, gure garaietako elitea, bizi ohi diren horietakoa. Matías Mujika

Hoteltxo batean bizitzeko suertea izan ez bada. Josu Zabaleta

Hautsez betetako kale batzuk, bide-**hoteltxoak** eta tabernak besterik ez zegoen garai hartan. Xabier Olarra

hotelzain (orobat hoteltzain) iz hotel bateko zainzailea.

Hotelzainari konpon zezan deia sei aldiz eman bazion ere. Iñaki Zabaleta

Baina, bada besterik Santa Martaren zaindaritza estimuan duenik: Hotelari eta **hotelzainek** ere, abegi onari eutsi eta zaindu nahi dutelako, Martaren laguntza eskatzen dute.

Pello Zabala

hotentote iz Esperantza Oneko lurmuturreko inguruan bizi den arraza beltzeko herri bateko kidea.

Klima epeletako biztanleen gorputz-tenperatura bera dute eskimalek eta **hotentoteek**. Irene Aldasoro

Topimanboen edo **hotentoteen** artean gertatzen al da honelakorik? Juan Martin Elexpuru

hots (ETCn 54.909 agerraldi) 1 iz dardaratzen den gauzaki batek airean sortzen duen bibrazio multzoa, entzumenari eragiten diona. ik **zarata; azantz; herots; soinu**.

Lo dagoenean ere ez dago erabat lo, eta nahikoa du **hots** bat zitzu bizian aldegitiko. Bernardo Atxaga

Pausoren baten **hotsa** sumatu uste izan zuten. Koldo Izagirre

Gitararren **hotsa** aditzen zen. Koro Navarro

Arratsaldeko zortziak-edo izango ziren Joxanek telefonoaren **hotsa** entzun zuenean. Paddy Rekalde

Fusilen **hotsa** eta musika militarra. Anjel Lertxundi

Irristaka ari zen zerbaiten **hotsak** lurrari iltzatua utzi zuen. Iñaki Mendiguren

Ikara emateko moduko **hotsa** atera zuen talkak. Juan Kruz Igerabide

Hura ere kanpora irten zen, **hotsik** atera gabe, eta ez zen itzuli. Juan Kruz Igerabide

Auzotik igarotzen ziren autoek ateratzen zuten **hotsa** bereizten ohitu nintzen. Juan Kruz Igerabide

Eta **hots** bat atera zen haren ahotik. Josu Zabaleta

Hots bat entzun nuen, **hots** arin bat, zapi heze bildu bat erori izan balitz bezala. Josu Zabaleta

Tiroena ez da handik datorkizuen **hots** bakarra. Xabier Montoia

Haren **hots** batera, Marco, txikitari horrenbeste jolasalditan kide izan zuen zaldiak, jo zuen ostiko bat patrioko lur zanpatuan. Josu Zabaleta

Hindenburg zeppelinaren **hotsak** esnatu ninduen. Anjel Lertxundi

Kaio-saldo goseti baten kurrikkak: halakoxea zen **hotsen** anabasa hura, tai gabe errepikatzen den olatu-korda etengabearen apar gainean. Anjel Lertxundi

Funts ahuleko gizon belaxka horietakoa zen eta nork bere soinuaren **hotsean** dantzazartzen zuen. Jose Morales

Bihozminezko keinu bat egin du gizonaren izena **hotsik** gabe ahoskatu duen bitartean. Xabier Paya

Hotsik gabeko zipritzin batzuk. Xabier Mendiguren Elizegi

· Filologo hark galdera artegarri batzuk egin zituen, eta galdera haien **hotsa** ez da oraino ixildu gure baitan. Iñaki Segurola

2 (izenondo eta izelagunekin)

Danbor atxikiezin hori belarria betetzen ari zitzaidan bere **hots** beti-berdin, eten, ulertezinezkoaz. Josu Zabaleta

Baina, zenbait minutuz, **hots** ito batez taupadaka jarraitu zuen agurearen bihotzak. Koro Navarro

Telefonoaren **hots** ozenak isiltasun beroa hautsi zuen. Lopez de Arana

Martha Gellhornek bonba-leherketen eta ez-tanden **hots** izugarrien soinu-efektuak sortzen laguntzen dio. Edorta Jimenez

Elizetako kanpaien **hots** errepikakorra. Txillardegi

Hegaztien **hots** oiuhularia. Edorta Jimenez

Halako **hots** mehe eta aldi berean etengabe bat barru-barruraino [...] astiro sartua zitzaidala ohartu nintzen. Edorta Jimenez

Haren ahotsaren **hots** zoliak kolpetik baretu ninduen. Josu Zabaleta

Hots argi batez apurtu zen. Alberto Ladron Arana

Hots sor bat atera zen nire ezarririk. **Hots** lasaigarriak ziren. Josu Zabaleta

Kolpearen hotsak uraren gainetik korritzen du, **hots** nahastezina da. Jon Alonso

Hots zehaztugabe batez erantzun nion. Alberto Ladron Arana

Hots zehazgabe bat, zinkurin murmur bat. Josu Zabaleta

Oskarrek ez zuen entzun armak iratzeen artean erortzean atera zuen **hots** moteldua. Alberto Ladron Arana

Azienda mutuek ere, baita basapiztiak ere, **hots** ezberdinak eta askotarikoak jaulki ohi dituzte, beldurrak ala minak ala pozak jotzen dituenean. Xabier Amuriza

Kontuan hartu ezin ditugun isilpeko **hots** horietako bat. Isabel Arrigain

Harik eta urrutiko **hots** batek bere zentzura ekarri zuen arte. Iñaki Mendiguren

Kutxa erregistratzaileak alaitasunezko **hots** bat egin zuen. Lopez de Arana

Kasernatikako **hotsek** eta zalapartek. Txillardegi

3 (fonetika-fonologian)

Hots bat edo zarata soila den erabakitzea fisikagileei uzten diegu. Berria - Mundua

Hizkuntzak, kanporatzeak, besterengana iristeko duen bidea **hotsarena** da eta **hotsaren** izaera akustikoa da. Berria - Kirola

Hiztunek **hotsak** ahoskatzen ditugu eta **hotsak** entzuten ditugu, baina fonemak bakarrik existitzen dira gure hiztun kontzientzian. giza Entzumenak hauteman ditzakeen

hotsak (definizioz, **hots** deitzen denak alegia) ezin dituela izan grosso modo 20 Hz baino gutxiago edo 20.000 Hz baino gehiago. Lourdes Oñederra

Halakoak dira euskaraz eta inguruko hizkuntzetan erabiltzen diren hotsak: biriketarik airea botatzen da, ahoskordek dar-dar egiten dute edo ez (**hots** ahostunak edo ahoskabeak), sudurrerako bidea irekia edo itxia egongo da (**hots** sudurkariak edo ahokariak), glotis gaineko ahots bidean traba gertatzen da edo ez (**hots** trabariak edo ozenak), eta abar. Lourdes Oñederra

Hots sudurkari eta ahokarien bereizkuntzaren eragile artikulatorio izateaz gainera, aho-gingila **hots** ubularren ahoskune ere bada. Lourdes Oñederra

Hots afrikatuak ahots-bidearen hersketa batekin hasten dira, herskariak bezala. Lourdes Oñederra

Afrikatuak **hots** konplexuak izan arren unitate bakunak direla euskal fonologian. Lourdes Oñederra

Hots ezpain-horzkarien bereizgarria goiko hortzek beheko ezpaina ukitzeari zor zaio eta **hots** ezpainkari edo biezpainkariak goiko eta beheko ezpainen arteko hurbiltze edo hersketan dute ahoskunea. Lourdes Oñederra

Har dezagun horren erakusgarri [m] **hotsaren** ezpainkaritasuna. Lourdes Oñederra

Hots bakartuen azterketan, aski da organoen kokagunea egiaztatzea. Isabel Arrigain

Alfabetoa **hots** bakoitzari ikur bat egokitzeko sistema grafikoa dela esan genezake. Lourdes Oñederra

1978an etorri zen **hots** bustiak idazteko araua. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahotsik ez baina, **hots** haritxo bat nuela ohartu nintzen. Josu Zabaleta

Telefonoa jotzen ari zen bere **hots** -aleak askatuz, behin eta berriro jotzen. Lopez de Arana

Adak hitzen zehaztasuna maite zuen, eta, aitzitik, eduki zehatzik gabeko **hots** -multzo egoki-usteak bionbo gisa zein erasorako baliatzea gorrotatzen. Anjel Lertxundi

Arkakusoak azkazalen artean estutu eta hiltzerakoan atera-tzen den soinua egiten zuen dokumentalen **hots** -bandak oihalean. Anjel Lertxundi

Une hartan hainbat zarata sartu ziren urrundik barrakoiaren iluntasun itogarrian, **hots** -anabasa bat. Urtzi Urrutikoetxea

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, hizkuntzalaritzan) ik akustiko; fonetiko; foniko.

Hizketa den **hots** *continuum* horren barruan unitate diskretoak bereizten direla. Lourdes Oñederra

Herskari ahostunek badute **hots** -osagai bat ere. Lourdes Oñederra

Euskarazko **hots** sisteman. Lourdes Oñederra

Hots irudi terminoa, agian, estu xamarra gertatuko da. Isabel Arrigain

Hizketan gertatu ohi diren **hots aldaketak**. Isabel Arrigain

Alofono dira hiztun arruntak hautematen ez dituen **hots** aldaerak. Lourdes Oñederra

Hots -adierazleen osagaiak bata bestearen atzetik agertu behar dute ezinbestez: kate bat osatzen dute. Isabel Arrigain

Hots katea, berez, lerro bat baizik ez da, zerrrenda etengabe bat. Isabel Arrigain

Edozein hizkuntzako edozein **hots-desberdintasun** bereizteko gai jaiotzen gara nonbait. Lourdes Oñederra

Organo hauek **hots** -eragile gisa duten betekizuna. Isabel Arrigain

Ondoko espektrograman ikus daitezke **hots** mota ezberdinen arrastoak. Lourdes Oñederra

· Igande goizean aldizkako kanpai- **hots** andanek iratzarri ninduten. Txillardegi

· Hitz **hots** -galdu irenduez kanpora, esanak ez du esanahirik. Iñaki Segurola

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tiro- **hots** bat entzun zen gertu-gertu. Jon Muñoz

Idazteko makinaren tekla- **hotsa** eteten den bakoitzean. Rafa Egiguren

Irakurketa bukatzen ari nintzen motor **hotsa** sentitu nuenean. Bernardo Atxaga

Turuta- **hots** eta gudu-kantu artean. Elizen arteko biblia

Hartan, sirena- **hots** bat hurbiltzen ari dela konturatzen naiz. Anjel Lertxundi

Haien kanta- **hots** indartsua. Elizen arteko biblia

Behean, espaloian, hitz **hots** bat entzun zuen, jende zoriontsuen barrea. Karlos Zabala

San Frantzisko otoitzean ari zen ingurura heltzean, hizketa- **hots** handia entzuten hasi zen. Askoren artean

Giza-lerro batzuen martxaren pauso- **hots** erritmikoa aditu zen tenpluan. Koldo Biguri

Urrats- **hots** bizkor, kementsu eta ziurra aditu zen etxe-ezkaratzean. Mirentxu Larrañaga

Harrigarriko urrats **hotsa** entzuten nuen orain nire eskailerako mailetan, zoran, tapizetan, ez ordea oinetako **hotsa**, gizonaren oskiena, makuluena baizik. Josu Zabaleta

Hanka- **hots** bizkorrak entzun zituzten atzean. Iñaki Mendiguren

Atea jo eta negar- **hots** handiz deitzen eta erregutzen dugularik. Askoren artean

Zenbait ezta- **hots** lagunkoi egin zituen. Urtzi Urrutikoetxea

Txistu- **hots** ozena entzun zen. Iñaki Mendiguren

Ziztu eta oi- **hots** handia entzun zuen. Iñaki Mendiguren

Karraska eta putz- **hots** ozenak entzun zituzten atzean. Iñaki Mendiguren

Mailuaren zarata- **hotsak** etengabe zulatzen dizkio belarriak. Elizen arteko biblia

Burrumba- **hots** arraro bat izan zen, eta gero isiltasuna. Iñaki Mendiguren

Bat-batean galga- **hots** izugarria entzun zen eta auto baten edo auto batzuen kraskatekoa beste batzuen kontra. Joxemari Iturralde

Kurrinka- **hots** beldurgarri bat entzun zen. Iñaki Mendiguren

Zuzengabeen aberastasunak erreka bezala lehortuko dira, ekaitzaldiko trumoi- **hots** handia bezala pasatuko. Elizen arteko biblia

Beren kasa hasi ziren garbitzen, tintin- **hots** arin batekin. Iñaki Mendiguren

Baina bufaloek zintzarri **hotsik** gabeko belazeak nahi zituzten. Pako Arísti

7 (hitzetan) elkartu berrak osagai gisa hizkuntzarituz.

Ahoskaturiko hizketa- **hots** bakoitzak hots asmo bat gauzatzen du, hots asmoa hots ideari dagokio, fonemari. [Lourdes Oñederra](#)

Ahoskaturiko hitz bakoitza, giza hizketaldi konkretu bakoitza hizketa- **hotsez** osatua dago. [Lourdes Oñederra](#)

Munduko hizkuntzetan agertzen diren bokal **hots** guztiak elkartu eta oinarri sendoen arabera banatu eta sailkatuta. [Lourdes Oñederra](#)

Izan ere, laringe **hotsa** uniforme da, eta **hotsa** zuzen-zuzenean, glotisak emititzen duen eran, atzemango bagenu, nolakotasun beti-batekoa irudituko litzaiguke. [Isabel Arrigain](#)

8 entzutea, ospea.

Eta Jainkoak Frantzisko bere zerbitzariaren bitartez egiten zituen egintza handien **hotsa** Aita santu Gregorio IX.aren belarrietara iritsi zen. [Askoren artean](#)

Mirariaren **hotsa** zabaldu zenean. [Askoren artean](#)

Hotsa zabaldu zen gure artean, kristoren parrandak egiten zirela ejertzioetan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gerra- **hotsa** zebilen bazter guztietan. [Anjel Lertxundi](#)

Gerra- **hots** eta zurrumurruak entzutean, ez izutu. [Elizen arteko biblia](#)

Diruaren **hotsa** zebilen ontziko gizonen artean. [Edorta Jimenez](#)

Ez nengoen trankil, hala ere, **hotsa** zabaldu eta Isabel Sanjoserren ilegorri tindatua ez ote zitzaigun halako batean ezerezetik agertuko, eskusiba hondatzera. [Aingeru Epaltza](#)

Zarazuko beraneante aberatsek ondo ordaintzen zitean behiaren erreberoa edateagatik, eta Ama Mariari laguntzen hasi zuan diruaren **hotsak** poztuta. [Xabier Etxabe](#)

· Nola adierazi "Lizarran ere ez haiz busti" zaunka datozkidan liberatu izeneko yupi abertzale ezker **hotseko** horiei, toponimo xeblebreki arrotza baizen ez dela izan neretzako Lizarra? [Patziku Perurena](#)

• 9 *adlag* hau da.

Ex nihilo, **hots**, ezerezetik. [Xabier Kintana](#)

Jerubaalek **-hots**, Gedeonek- eta harekin zen jende guztiak. [Elizen arteko biblia](#)

Denok gara Eros, **hots**, ez arras azkar, ez absolutuki ahul; ez jakintsu ezta ezjakin ere. [Askoren artean](#)

Lehenago grazia, **hots**, jainko-maitasunaren sugarra, berreskuratu zuen. [Askoren artean](#)

Zeren eta hori ere oinarritzen baita oinarri berean, **hots**, materia, substantzia den aldetik, zatikorra eta zatikiz osatua delako baieztatenean. [Piarres Xarriton](#)

Beraz, absolutuki mintzatuz, ahalegintzen gara hori existi dadin, **hots**, [...] hori desiraten dugu eta horretara jotzen. [Piarres Xarriton](#)

Hala ere, halako zerizan ulertezina, **hots**, ideia soil baten objektua, erlatiboki onar dezaket sentzuen munduari dagokionez, baina ez bere baitan. [Ibon Uribarri](#)

Erliziozko sentimenduak argiturik (**hots**, itsuturik) baldin bagaude. [Iñaki Seguroa](#)

Bakteriofagoak **-hots**, bakterioei erasotzen dieten birusak- ikertzen ari zirenek fenomeno harrigarri bat agerrarazi zuten. [Juan Garzia](#)

Nazio mailako merkatuak ziren, babestuak oso **-hots**, estatuek aratuak-, kapitalaren metatzearen lehen euskarria. [Koro Navarro](#)

Gauzak zer diren ez dute gauzek berek erakusten, arrazoimenak baizik -subjektuak-, alde aurretik zer izan beharra daukaten planifikatuz; **hots**, errealitatea ez da ikusmenaren bidez ikasten, ikasketaren bitartez ikusten baizik, aurretiaz diseinatutako eskema razional-matematiko baten betaurrekoekin behatuz. [Askoren artean](#)

Hots, unibertsalak ez dira existitzen ez espazioan ez denboran. [Askoren artean](#)

· Orain, bizkonde, zuri eskari bat egitea baizik ez zait gelditzen eta eskari hori zuretzat da niretzat bezainbat: **hots**, gibela ezazu doi bat ausaz nik zuk bezainbat desiraten dudan unea, zeren uste baitut ni hirira itzuli arte behar dela tenore hori atzeratu. [Jon Muñoz](#)

• 10 (interjekzio gisa)

Hots, eseri, eta konta biezat, dakienak, zer dela-eta dituen honelako beila zorrotzak honela gauero nekarazten erreinuko sujetak. [Juan Garzia](#)

Ontzira, **hots**, ontzira! [Juan Garzia](#)

-Hots, hots, adi! [Anjel Lertxundi](#)

Orain, bizkonde, zuri eskari bat egitea baizik ez zait gelditzen eta eskari hori zuretzat da niretzat bezainbat: **hots**, gibela ezazu doi bat ausaz nik zuk bezainbat desiraten dudan unea, zeren uste baitut ni hirira itzuli arte behar dela tenore hori atzeratu. [Jon Muñoz](#)

Zoriontsu zitekeen nortasunik ez zuen klinika horretan, ez hain abandonatua **hots**. [Itxaro Borda](#)

-Bai, armak; mugaz honaindian edo haraindian sal daiteken edozein gauza, **hots**. [Elena Touyrou](#)

Uda bukaeran, Konbentzioak "Susmagarrien legea" bozkatu zuen: Libertatearen kontra deus ez egin arren, haren alde bermatu ez zen nornahiren gelditzeko ahala ematen zuen, herritarren gehiengoaren atxilotzeko, **hots**. [Elena Touyrou](#)

Neguko partida hotx aire bat, **hots**! [Herría](#)

Enpresa bat zen, **hots**! [Menane Oxandabaratx](#)

11 -en *hotsera*

Turutaren **hotsera**, irrintzi egiten du; urrutitik sumatzen ditu guda, buruzagien aginte-hotsak eta gudu-irrintziak. [Elizen arteko biblia](#)

Eta seinalatu zion Sonja Hartmann, zarataren **hotsera** etorri berria. [Anton Garikano](#)

Eta Stanislaus Demba esaneko makurtu zen diruaren **hotsera**, beharino eta umil, pareta hutsaren aurrean, non bere itzala bakarrik ikusten zen, eta paper hits zurixka urratuaren litsak. [Anton Garikano](#)

Durrutiren mandatariren bat etortzeko zela une batetik bestera, hala gaitzigu ziotela bezperan telefonoz Donostiatik; eta, haren **hotsera** jarrita, iluntzerako hutsik egin gabe, hara bildu behar genuen, Donostiara. [Inazio Mujika Iraola](#)

Inoiz ez nuen berarekin hitz egin, halabarrezko hitz bakar batzuk izan ezik, eta, hala ere, dei batera bezala heltzen zen nire odol zoro guztia haren izenaren **hotsera**. [Irene Aldasoro](#)

· Adar- **hotsera** zihozten denak aurrera. [Elizen arteko biblia](#)

12 *hots bada*

Hots bada, jauna, isiltasuna eta ahanztura, horra niri ematea komeni zaizkidan kontseiluak, nola zuri zaizkizun jarraitzea komeni. [Jon Muñoz](#)

Hots bada, hitz ematen diot Danceny edukiko duela, bai ekaitz hori gabe baino askoz ere lehenago eduki ere. [Jon Muñoz](#)

Ez nire promesak ez nire zinak sinesten dituzu: **hots** bada! [Jon Muñoz](#)

Adiskide ederra, begi eder horiek nigana ditu alabaina jaso, aho zerutiari horrek erran ere du: **"Hots** bada! [Jon Muñoz](#)

13 *hots eginsup_1 (orobat hotsegin g.er.)*

Kisketak **hots** egin zuen. [Lopez de Arana](#)

Txirrinak **hots** egiten segitzen zuen. [Jon Alonso](#)

Telefonoak **hots** egingo duke, harrizkekoa da dagoeneko **hots** egin ez izana. [Jon Alonso](#)

Irrintziak beste bi aldiz **hots** egin zuen. [Joanes Urkixo](#)

Platerak **hots** egiten zuten eta kafea isurtzen hasi zen, itsasontziak eragindako dardararen ondorioz. [Lopez de Arana](#)

Eskailerak lasterka igotzen ari zen bitartean, letoizko hagatxoek **hots** egin zuten, oin-puntez jotzean. [Lopez de Arana](#)

· Elur asko egin zuen, eta kotxezainek **hotsik** egin gabe eramaten zituzten bikoteak elur-jasen pean. [Xabier Olarra](#)

14 *hots eginsup_2* deitu.

Corleyk burua itzuli zuen nork **hots** egiten zion ikusteko, eta lehengo pausoan jarraitu zuen. [Irene Aldasoro](#)

Hots egin zioten berriro interfonetik. [Joxemari Iturralde](#)

Zorionez ez zuen beste biena ikusteko astirik izan, iritsi ahala barraren beste puntatik **hots** egin zioten eta. [Migel Angel Mintegi](#)

Itzultzean, Lombardian zehar zihozala, gizon batek **hots** egin zion. [Askoren artean](#)

Malko ez intziri artean alde Jaintzian errukiari debozio **hots** egiten ikusi eta entzun zuten. [Askoren artean](#)

-Mutila zentzatzeko **hots** egin dizut, ez ni iraintzeko. [Patxi Zubizarreta](#)

Orduan Abdellahk, ez baitzen erraz kikiltzen zena, jendetza arteko norbaiti **hots** egin zion. [Bernardo Atxaga](#)

Ni lantegian hartu eta handik egun gutxitara, Commendatoreak Zuzendaritzara joateko **hots** egin zidan. [Juan Garzia](#)

Aspaldi ez diot telefonoz **hots** egin, kaixo zer moduz, kortesiazo agurrik ere ez. [Harkaitz Cano](#)

Luze gabe, zerrenda haren arduradunari **hotsegin** nion telefonoz. [Bernardo Atxaga](#)

Aurkitu nuen lehen telefonotik **hots** egin nion Hamedi. [Xabier Montoia](#)

Gure liburu zaharrak arakatu ditut, neure oroitzapenei **hots** egin diet. [Karlos Zabala](#)

15 **hots** *eginsup*_3 goraki esan.

Baina Jesusek eskutik heldu eta **hots** egin zion: "Neskatila, jaiki zaitez". [Elizen arteko biblia](#)

-Puah! **-hots** egin zuen emakumeak, hotzikaraturik. [Xabier Olarra](#)

-Mozkortuta hago! **-hots** egin zion Husainek. [Patxi Zubizarreta](#)

"Hilobi bat ematen du honek!", **hots** egin nuen. [Bernardo Atxaga](#)

-Ergelak! **-hots** egin zuen ezin haserreago. [Koldo Biguri](#)

-Parsifal! **-hots** egin zuen Hansek, disko haietako bat hartuz. [Alberto Ladron Arana](#)

-Hil edo bizikoa hil edo bizikorik bada! **-hotsegin** nuen. [Bernardo Atxaga](#)

-Damututa nago **-hots** egin zuen Pepponek. [Koldo Biguri](#)

-Ez haiz joango! **-hots** egin zion Dembak. [Anton Garikano](#)

Atzetik emagaldutik seme **hots** egiten zidala entzun nuen. [Koldo Biguri](#)

Victoria ez nuela gehiago ikusiko pentsatzea zen, udazkeneko goiz zakar hartan, **hotzikaraz** jarri ninduen ondoezaren arrazoia. **Ramon Saizarbitoria**

Oso azkar hasi zen Monika **hotzikaraz**. **Joxean Agirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ere hotzikara (4); **eta hotzikara** (28); **eta hotzikara bat** (3); **eta hotzikara batek** (6); **eta hotzikara sentitu** (4); **halako hotzikara** (5); **hotzikara arin** (3); **hotzikara bat** (25); **hotzikara bat sentitu** (9); **hotzikara batek** (46); **hotzikara batek buruko** (7); **hotzikara batek hartu** (8); **hotzikara batek inarrosi** (3); **hotzikara batek zeharkatu** (9); **hotzikara batez** (3); **hotzikara bortitz** (4); **hotzikara bortitz batek** (4); **hotzikara egin** (6); **hotzikara ematen** (4); **hotzikara eragiten** (8); **hotzikara eta** (4); **hotzikara sartzen** (4); **hotzikara sartzen zait** (3); **hotzikara sentitu** (16); **hotzikara sentitu zuen** (11); **hotzikara sentitzen** (3); **hotzikara sortzen** (3); **hura hotzikara** (3); **hutsak hotzikara** (4); **hutsak hotzikara eragiten** (4); **nauen hotzikara** (3); **pentsatze hutsak hotzikara** (3); **zeharkatu nauen hotzikara** (3); **zuen hotzikara** (3)

eta hotzikarak (3); **hotzikarak bizkarrezurra** (3); **hotzikarak eragiten** (7); **hotzikarak eragiten zizkion** (4); **hotzikarak eta** (3); **hotzikarak hartu** (6); **hotzikarak sentitzen** (4)

hotzikaraka *adlag* hotzikaraz.

Mael txanoaz tapatu eta kapa bustian bildu zen, **hotzikaraka**. Joanes Urkixo
Arropak busti-busti eginda zeuzkan eta **hotzikaraka** hasi zen. Joanes Urkixo

hotzikaratu, hotzikara(tu), hotzikaratzen **1** da/du *ad* hotzikarak izan, hotzikara eman.

Sabetehek galdetu zidanean ea egiazki benetan ari al nintzen, nik musu eman nion bekokian, gero betazal hotz dardardietan: gorputz osoa **hotzikaratu** zitzaion, eta gero ahoan, orduan ni neu ikaratu nintzelarik. Joxe Austin Arrieta

Tristeziak eta arrangurak hartua, **hotzikaratu** egin zen bere lozorroan. Patxi Zubizarreta

Badago ugari hats hotz eta beldurraren lagunean ere, lohadarrak **hotzikaratzen** eta gorpuzkinak inarosten dituen hartan. Xabier Amuriza

Tupustean haizexka bihurri bat iritsi da auzora, portutik honantzza bota bailuten, sahasak ere **hotzikaratu** dituena. Pako Aristi

-Puah! -hots egin zuen emakumeak, **hotzikaturik**. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo gisa)

Gure azal **hotzikaratua** haren ukipen umela saihesten saiatzen zen. Urtzi Urrutikoetxea

Begiak zerura bermatu eta hedoi kargatuek zartagailuen pare, joaldi **hotzikaratu**, libaturiko ttantta lodiak baino ez zitzaizkion aurpegiratu. Itxaro Borda

hotzikaratxo *iz* hotzikara laburra eta arina.

Hotzikaratxo bat igo zitzaidan eztarriraino. Juan Martin Elexpuru

hotzil *izond* epelaren eta hotzaren artekoa.

Ezinegon lazgarri baten izerdi hotzak heriotzaren koloreko gailur **hotziletara** bulkatzen duela. Iñaki Segurola

hotzildu, hotzil(du), hotziltzen **1** da/du *ad* hotzil bihurtu, hotzil gelditu arte berotu edo hoztu.

Hoztu egin naizela pentsatzen ariko da, buru-bizkar-paparra lehortzen hasten baitzait osoz, egiteko hartan haserrea **hotzildu**. Anjel Lertxundi

Neurri jakinik gabeko gogo on noizbaiteko hura **hotziltzen** eta gezatzen hasten denean. Iñaki Segurola

Estatuaren zakurren azio eta atzaparkada haien bero errea **hotzildua** delarik, orain [...] gauza batzuk esan daitezke, lehen, ordu gazi haietan, gorputz-arima torturatuen bistan, esan ez zitezkeenak. Iñaki Segurola

Hotzildu, jauna, berorren harridura lipar batez. Juan Garzia

hotzitu, hotzi(tu), hotzitzen da *ad* hoztu.

Ura epela da eta uherra, **hotzitzen** ari den zopa bezalaxe. Joseba Sarrionandia

Goiko literatik burusi bat hartu, neska **hotzitu**a egon zitekeelakoan, eta haretexkin tapatu nuen. Joxe Austin Arrieta

hotzmindu ik hozmindu.

house **1** *iz* dantza musika mota, soinu sintetikoak eta erritmo errepikakorra ezaugarri dituena.

Zorrotzaurre, hiriko industriaren azken bilgune eta **house** eta progressivearen maitaleen aterpe. Urtzi Urrutikoetxea

House eta groove ukitua duten afrikar doinuak. Berria - Kultura

House, trance, dub eta drum & bass erritmoekin moldatutako tangoak egiten dituzte. Berria - Kultura

Alexkidek bere aitapontekoek baino erreferentzia esparru zabalagoa izan du, eta **housetik** funkera edota technotik dub doinu lasaietara egiten du jauzi bere lanetan. Berria - Kultura

Mestizajea, **housea**, musika afrikarra, Karibeko erritmoak, funka, jazz, fusioa... askotariko gustuak asetzeko eskaintza du jaialdiak. Berria - Kultura

2 (izen baten ezkerrean)

Esan nezake **house** musika egiten dudala, baina baita, dub-a, disco musika, Detroit techno-a eta funka egiten dudala ere. Berria - Kultura

Disko saxo elegante batek jantzita hasten da (Smith Street), laster **house** asaldatze epelei heltzen die eta baita Brasilgo bossa arrasto teknifikatuei ere. Berria - Kultura

hozbera (**11** esaldi, **10** liburu eta artikulu **1**ean; *ETCn* **34** agerraldi; orobat **hozpera** **6** esaldi, **4** liburu eta artikulu **1**ean; *ETCn* **6** agerraldi) *izond* hotzarekiko oso sentibera dena.

Bata **hozbera** delako, bestea lotsatia. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertan egoten zen Miranda, sofan etzanik, ur beroaren poltsarekin manta eskoziar batean bilduta, oso **hozbera** zelako, eta oso nagia. Fernando Rey

Piztia beratua [gizona] (**hozbera**, minbera, gaixobera, sentibera, bihozbera, sinesbera) edo beratzen jarritakoa... Iñaki Segurola

Arratsalde hartan, ordea, irratiko musikak hausten zuen, isiltasunari dagokionez behintzat, kolore euritsuek nigan eragiten duten bihotz-egoera **hozbera**. Anjel Lertxundi

Argia urratu baino lehen, neguaren bihotzeko desordu **hozpera** hartan. Pako Aristi

Ordurako, "gil-gil-gil" **hozpera** etorri diren langileak joanak izango dira, alcoholarekin berotik sortutako ausardia etsiarekin. Pako Aristi

Negua zetorren; Muche **hozpera** sentitu zen urte hartan. Karlos Zabala

Gizon bat sartu da, **hozbera** itxuraz. Monika Etxebarria

hozbero (*ETCn* **196** agerraldi; orobat **hozbero** *ETCn* **13** agerraldi; eta **hotz(-)bero** *ETCn* **165** agerraldi;) *iz* temperatura.

Hezetasunak eta **hozberoak** gorabehera handiak izan zituztela. Berria - Kultura

Uraren **hozberoak** ez du inolako aztarrenik utzi nire oroimenean. Josu Zabaleta

Zergatik zaindu behar dute denek nire umearen **hozberoa**? Leherketaren ostein suterik ez zela piztu gaineratu zuen, eta, beraz, meazuloko **hozberoa** «normala» zela. Arantxa Iturbe

Hozberoari oniritzirik, gainean sagar-xerra batzuk zeramatzan ore azukredun bat laboratu zuen azpil batean. Anjel Lertxundi

Datozen lau egunetan **antzeko** hozberoa izango dutela aurreikusi dute meteorologoek. Berria - Gaiak

Hozberoa baxua zen, zero gradutik beherakoa. Berria - Kirola

Bilboko maiatzeko **hoz-beroa**, batez besteko 14.5 da, Tenerifekoa, berriz, 20.5. Pello Zabala

Hotza Londresen, 5 graduko **hozberoa**. Berria - Kirola

Autoko termometroak 6 graduko **hozberoa** erakusten zuen. Berria - Harian

Parisko iragarpenari begiratu eta 0 eta 2 gradu arteko **hozberoa** agintzen du iganderako, eta elur bustia. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

graduko hozberoa (3)

hozgarri *iz* hozteko erabiltzen den gaia.

lazko azaroaren 9an, berriz, **hozgarriak** ihes egin zuen bigarren erreaktorean. Berria - Gaiak

Hozgarriak material erradioaktiboa zuela jakinarazi zuten geroago enpresako kontrol teknikariek eta suhiltzaileek.

hozgiro *iz* giro hotza.

Xarma handiko gauza asko eta desberdinak ditu ikusteko (freskoak, korua, klaustro erromanikoko kapitela...), eta kanpoko beroarekin alderatuta, **hozgiro** atsegina egiten du bertan. Anjel Lertxundi

Hezurrek ez zioten eskertuko **hozgiro** sarkor hura, baina behar zuen. Fernando Morillo

hozi 1 *iz* ernamuina.

Eguzkia, ordea, kiskalgarria zen, bizia, lurra harrotu eta biziarazten duten horietakoa, bihia printzatu eta lotan diren **hoziak** pizten dituzten horietakoa. Josu Zabaleta

2 irud

Aldaketa guztien **hozia** hizketan dago: aldaketa oro gizabanako kopuru batek bakarrik erabilia izan da, hiztunen multzoa erabiltzen hasi baino lehen. Isabel Arrigain

Johannesburgen lan-antolamendu instituzional berri baten, "Gobernu Erregionalen Foroa Garapen Iraunkorrari buruz" izenekoaren **hozia** sortu zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Heriotz-**hozi** edo germenak. Berria - Kultura

Eta badira azpi-eztenak, sugar **hozien** sorburu den zernahiri min egitera kinatzen dutenak. Xabier Amuriza

Gerla baten ondotik, bakea izenpetzean, galtzen duenak zer edo zer irabazi nahi du eta hor dira gatazka **hoziak** beren kuskuetan gogortzen, egoera hobeago datekanean epidemia sukartsu baten antzera zartzateko. Itxaro Borda

hoziarazi, hoziaraz, hoziarazten du *ad* hozitzera behartu.

Foro Global horrexek **hoziaraziko** zuen Johannesburgeko hurrengo goi bileran benetako protagonista izango zen Gizarte Foroa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hozitu (*ETCn 376 agerraldi*), hazi(tu), hozitzen 1 da/du *ad* ernamuina hazten hasi. ik **ernamuindu; ernetu**.

Artoa garatzen hasi berria zen eta garia **hozitu** gabe zegoen oraindik. Jose Morales

Jogurta egiteko aparatuen antzekoak izango diren "ernegailu" automatiko txikietan era askotako landareak **hozitu** ahal izango dira etxean bertan. Edorta Agirre

Gariak urtero **hozitzeko** duen borondate tinko berberaz emandako ezkontza promesa batekin itzuli zen. Pako Aristi

Jendearen bulkadek barreiatu gintuzten, itxurako solasaldi baten ernamuina **hozitu** gabe. Aingeru Epaltza

2 irud

Hiru hitz haiek, bai, burmuinetan ereinikako hiru hazi balira bezala, erein orduko **hozituak**, bihiuak eta landare indartsu bihurtuak. Joan Mari Irigoien

Zeren, haur-izaera tolesgabe eta amultsua izanik, bere iritzi eta ideiak eta besteak zuhaitz handi hostotsuen moduan **hozitu** eta adarkatzen ziren, eta, gordetzen eta estaltzen zioten, begiratuan, bere arimaren beraren ispilu argia. Fernando Rey

-Frantziar, martiriaren odolarekin **hozitu** da Erreformaren berri ona. Aingeru Epaltza

Baina hasia zen nigan tristura **hozitzen**. Txillardegi

Oinaze goibeletan itotako morrosko sendo haien aurpegi minduetan, aspaldi hartan ez bezala, goiztiri esperantzatsu baten irribarre gozo-etzia **hozitzen** bide zen, izuti.

Txillardegi

Baina **hozitutako** esperantza izpi hura, berehala ihartu zen. herri bakoitzak bere izpirituaren arabera **hozitzen** zituen legea, politika, artea. Txillardegi

3 (era burutua izenondo gisa)

Lekale beratuak, labore **hozituak**, usain-emaile natural eta sintetikoak. Edorta Agirre

hozka (*ETCn 209 agerraldi; orobat hozzka ETCn 53 agerraldi, eta ozka ETCn 273 agerraldi, horietako 229 Herria aldizkarikoak*) 1 *iz* hozkatzea, hozkada.

-Zuretzat larrialdia da, niretzat beste **hozka** bat. Fernando Rey

Infekzioa zeukan gorputz osoan, eta buruan, lepoan, belarrietan eta zangoetan **hozka** zauriak. Gotzon Garate

Bero **hozken** gainetik elkartasun urratsak bidea egin zuen, ordea, luzaz gelditu gabe. Berria - Harian

2 koska, akatsa, hutsune edo irtenunea.

Haien balek oraingoan ere **hozka** guti batzuk baizik ez zituzten egin harresi gotorretan. Aingeru Epaltza

Handik gutxira nabarmen agertu dira errotari baten bi **hozka** erradial. Pello Lizarralde

Ordezko gurgilaren azpian den **hozka** batean sartu ditu hatz muturrak. Pello Lizarralde

Badira ere bihurgune txarrak, patar gaixtoak, bide peza batzu dena **ozka** eta zilo, gune batzu zerbait gisaz tronpakor direnak, bereziki euria delarik edo lanao lodi... Herria

Hortan ikusten da zer **ozka** ba den hegoaldeko honat. Herria

Bizkitartean, eta hor legoke **ozka**, diru-emaiza soziala deiturikoak hein berdinean daude aspaldion. Berria - Kultura

3 koska, maila.

-Gure borrokari **ozka** bat huparaziko diogu. Itxaro Borda

Zergak **ozka** batez apaltzen alde batetik, hiru edo lau **ozka** gorago johan bestetik, konduen ateratzea aise da. Herria

Adinekoen "B" multzoa **ozka** batez goititzen da, hamahiru urtez pekoetan "B" eta "C" multzoak ere mail batez hupatzen dira. **Herria**

Aspaldian gainditua du **ozka** hori. **Herria**

Gerard Onesta"berdearen" lirtak % 10-aren **ozka** gainditu du Baiona ekialde eta mendealeko bi kantonamenduetan. **Herria**

Beste hiru herri kategoria hortan direnek galdegiten dute goragoko **ozkara** pasatzea "zone piémont" markatua denerat hain xuxen. **Herria**

Ozka bat iragan du "Baionan kantuz" ekitaldiak joan den larunbatean: 51-garren aldiko beretu du Lakarra plaza eta ondotik merkatu estaliko galeria. **Herria**

Lan-gabezia **ozka** on bat batez emendatu da urtarrean. **Herria**

Ez direla haatik duela bi urte bezen bero handiak izanen, **ozka** on bat eztiagoak... **Herria**

Beroa **hozka** bat gorago, eta 150 pertsona inguru plazan. **Berria - Harian**

Baina portugesez ez dute guti senditzen heien legearen eta auzokoan lege artean dagoen **hozka** haundi hori abortuaren gai hortan. **Herria**

Horrek ezarriko du haustura **edo** hozka bat familiar, beste hurridie guziak gerla ondoan sortuko baitira. **Herria**

Hauk dira preseki aintzinaldea laster hartu dutenak eta bururaino atxiki **hozka** haundiegian ez bazen ere. **Herria**

Elkarri harturik genion, zehatz-mehatz, gure gorputzen **hozka** -mutur orenen izaria, balentria handiagoen atari. **Aingeru Epaltza**

• 4 *adlag* hozkatuz, hortzak sartuz.

Azazkalei **hozka** ari zen Denver. **Anton Garikano**

Harland bere goiko ezpainari **hozka** ari zitzaion. **Lopez de Arana**

Ezpainari **hozka**, fusila ohe azpian neukala gogoratu nuen. **Alberto Ladron Arana**

Borrokan, bihurrika, joka, **hozka**, amorruez garrasika hasi zen. **Josu Zabaleta**

Elkarri **hozka** eta elkar irentsi beharrean zabilzate. **Askoren artean**

Bildotsa **hozka** hil zuen urdanga ankerra. **Askoren artean**

Bazirudien gau luzearen eraso hasia zela; bazirudien irabazle gertatu zirela aire jostalariak, **hozka**, eta arnasa umelak, haztaka. **Anton Garikano**

5 *hozka eginsup_1* hortzen bidez (zerbait) hartu eta estutu, hortzak sartu. **ikhozkatu; ausiki¹; kosk 2**

-**Hozka** egin di! -esan zuen, odol dutako musuzapi batean bilduta zeukan eskua erakutsiz. **Iñaki Mendiguren**

Amairko baserri batean bazuten ardiei **hozka** egiten zien oilagor zakur bat. **Gotzon Garate**

Muturrean **hozka** egiten diote elkarri. **Gotzon Garate**

Piztiak **hozka** egin nahi izan zion, sabeletik heltzeko asmoz, hark ordea lepotik heldurik zeukan. **Josu Zabaleta**

Erpeak eta letaginak dituen kateme bat, kateme doilor, azpikari, maitale etsai bat, musuez aspertzen denean **hozka** egingo duena. **Josu Zabaleta**

Uki iezadazu, nahi baduzu, ferekatu, estutu, musukatu, miatzatu, **hozka** egin, begiratu iezadazu nahi duzun guztia, baina hori ez. **Karlos Zabala**

Hala eta guztiz ere, jokatu egingo diat, bihotzean **hozka** egin didak eta. **Juan Kruz Igerabide**

- Txokolate pittin bat, Joantxo? -eskaini zidan bat, bereari **hozka** txiki bat egiten ziola. **Juan Kruz Igerabide**

Tragoska bat egin, klik klik, eta hostapeko itzalean **hozka** batzuk zerozeri. **Patziku Perurena**

Hozka horri, Sultan!. **Bernardo Atxaga**

6 *hozka eginsup_2* akastu.

Tiro bi, aurreko kontainer batean **hozka** egin zutenak. **Paddy Rekalde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barrenean hozka (3); batek hozka (3); bati hozka (5); beheko ezpainari hozka (3); edo hozka (3); elkarri hozka (5); elkarri hozka eta (3); eta hozka (16); eta hozka egin (4); eta hozka egiten (3); ezpainari hozka (5); ezpainari hozka egin (3); ezpainei hozka (6); ezpainei hozka egin (3); hozka ari (4); hozka bat (3); hozka egin (61); hozka egin behar (3); hozka egin dio (4); hozka egin eta (6); hozka egin zien (3); hozka egin zion (13); hozka eginez (6); hozka egingo (5); hozka egitea (5); hozka egiteko (13); hozka egiteko prest (3); hozka egiten (36); hozka egiten dio (4); hozka egiten zion (5); hozka eta (6); hozka horri (3); txakurrak hozka (4); txakurrak hozka egin (3); zion hozka (3)

hozkada *(ETCn 426 agerraldi)* 1 iz hozka egitea. ik hozka 1.

la-ia kendu ziola zangoa **hozkada** batez. **Iñaki Mendiguren**

Zakurrak bere jolasetan darabiltzan oihalak **hozkada** batez tarrantzen dituen bezala. **Josu Zabaleta**

Hozkada pozoitsu batez. **Anjel Lertxundi**

Drakularen **hozkadak** bere maitaleak ahultzen zituen modutsuan. **Anjel Lertxundi**

Suge makurren **hozkadaz** hiltzen zirenean. **Elizen arteko biblia**

Lisa, zutik, odolki zati bero-bero bat jaten ari zen, **hozkada** txikiz kosk eginda. **Karlos Zabala**

-Goseak amorratzen -esan zion Harryk, kalabaza-enpanadari **hozkada** handi bat eginez. **Iñaki Mendiguren**

Geratzen zen iratxoetako batek belarrian **hozkada** mingarria egiten ziola. **Iñaki Mendiguren**

Hozkada txikiak ematen hasi zitzaidan belarrietan, lepoan, bularrean. **Anjel Lertxundi**

Gero ahoan sartu, eta **hozkada** leun bat eman zion mutur goriarri. **Aritz Gorrotxategi**

2 hozka egitearen ondorioa.

Ikusten al duzu zelako **hozkadak** dituen? **Harkaitz Cano**

Nekazari baten gorpua odolusturik agertu zen orain dela gutxi eta **hozkaden** arrastoak zeuzkan lepoan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hankak ere **hozkadaz** bateak zituen. **Harkaitz Cano**

3 irud

Haren malkoak benetako malkoak ziren, baina ez zuten arintzen harengan ez oroitzapenen mingostasuna ezta minaren **hozkada** ere. **Ander Irizar**

Orduan ezerk ez dizu higuin eta narda gehiago eragiten kontzientziaren **hozkadak** baino: tipula negarrak! **Josu Zabaleta**

Itsasoa entzun nuen gau alaiaren **hozkada** hotz batean. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hozkada (3); hozkada bat (5)

hozkadaka *adlag* hozkaka, hozkadak eginez.

Joka eta lepoan eta aurpegian **hozkadaka** hasi zitzaion; emakumearen arabera, labana handi batekin hilko zuela ere mehatxu egin zion.

hozkadatxo iz hozkada txikia.

Hozkadatxoa egin zidan lepoan. **Anjel Lertxundi**

hozkadun *izond* hozka duena; hozkak dituenak.

Poltsiko barnean, nire eskuak giltza handi eta **hozkadunaren** gain latzari kontzen zion, ateratzera deliberatu gabe. **Aingeru Epaltza**
Ganibeta gurinaren bihotzean nola, halaxe **hozkaduna** zerrailaren barnean. **Aingeru Epaltza**

hozkailu *(ETCn 3.316 agerraldi; orobat hozgailu ETCn 56 agerraldi)* 1 *iz* janari galkorrek edo hoztu nahi diren edariak gordetzen diren tresna, hotza sortzeko gailu bat duen armairu berezi batez osatua.

Bazekien **hozkailua** freskagarriz beteta neukala, Renoko giro lehorrari aurre egiteko. **Javi Cillero**
Baina arratsean goseak menean hartu eta sukaldera joaten zen, **hozkailura**, bazkariaren hondarren bila. **Fernando Rey**
Oraindik hortxe daukat, sukaldeko **hozkailuan** gorderik. argia piztu eta **hozkailuko** atea zabaltzen du. **Antton Olano**
Hozkailutik garagardo bana atera zuen guretako. **Aingeru Epaltza**
-Hozkailuan bada vodka ttantta bat. **Koro Navarro**
Orduan baten bat gogoratu da nola Iberdueroren argi-zentral bat leherrarazi zuten bere etxetik gertu eta nola gelditu ziren ia egun oso batean argindarrik gabe, "eta **hozkailuan** janari denak hondatzen". **Xabier Mendiguren Elizegi**
Elektrotresnen saltokian, ikuzgailuen eta **hozkailuen** artean. **Aingeru Epaltza**
Hozkailu horren eskutitik zilintzan letra gotikoz idatzitako kartel bat zegoen. **Fernando Rey**
Hozkailuaren kontra aurkitu nuen, zutik, garagardo bat edaten. **Koro Navarro**
Adiskideek esan didate hilotz bat dudala **hozkailuan** gordeta. **Javi Cillero**
Biokimikaria ohartzen da entzimak **hozkailuan** gorde behar direla, saio-hodian bizirik iraungo badute. **Irene Aldasoro**
Garai hartan, kamioiek **hozkailurik** ez zuten garaian. **Xabier Etxabe**
Marokon **hozkailuak**, sukaldeak eta garbigailuak ekoizten ditu Fagorrek. **Berria - Ekonomia**
Iazko urtean arrantzatutako baleen okela «supermerkatuetako **hozkailuetan** dago oraindik». **Berria - Gaiak**
Euskal ontziek tonaka ekartzen dute [berdela], eta saldu **ezean**, hozkailu erraldoietan gorde behar. **Berria - Harian**
Lapikokoak urtebete emana baitzuen erabat izoztuta **hozkailu** industrial batean, hogeita hamar gradu zero azpitik. **Josetxo Azkona**

2 irud

Raxoik PP-PSOE Itunaren gainean jardun zuen, eta «**hozkailuan**» sartzea leporatu zion Zapateroren gobernuari. **Berria - Harian**
Golarekin eritimoa jaitsiz partida **hozkailuan** sartzen saiatu ziren kroaziarrek. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan)

Merkatuaren parean karga-deskargan geldirik zegoen **hozkailu** -kamioi batean. **Harkaitz Cano**
Hiltzat jo ninduten azkenean eta **hozkailu** -kamioi batean ikusi nuen neure burua, hiltegitiko bidean pentsatzen dut. **Joxan Elozegi**
Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Daewoori emandako laguntzak salatu zituzten Bruselan Anfel, Ceded eta Anie **hozkailu** enpresa elkarteek. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hozkailu** (5); eta **hozkailua** (4); eta **hozkailuan** (10); eta **hozkailuan sartu** (4); eta **hozkailuko** (3); eta **hozkailutik** (3); **hozkailu bat** (6); **hozkailu batean** (3); **hozkailu baten** (3); **hozkailu kamioi** (3); **hozkailua eta** (3); **hozkailua hutsik** (4); **hozkailua ireki** (6); **hozkailua ireki eta** (4); **hozkailuan gorde** (3); **hozkailuan sartu** (4); **hozkailuaren atea** (3); **hozkailuko atea** (4); **hozkailutik atera** (4); **hozkailutik garagardo** (4)

hozkailutxo *iz* hozkailu txikia.

Jauzi batean sukalde ondoan zegoen **hozkailutxo** bat zabaldu zuen bertan zegoena ikustearren. **Joxemari Iturralde**

hozkaka *adlag* hozka, hozkatuz.

Kaskarrekoa, **hozkaka** eta borrokan hasi ziren berriz ere, hondarra begietara botaka. **Koro Navarro**
Orduak eta orduak ematen nituen boliarri **hozkaka** kaioei begira. **Jesus Mari Mendizabal**
Ikara ematen ziotela txakur zoratu haiek, urte batean hiru sartu zirela lruaingo esparruan, eta zaldiei **hozkaka** hasi zirela zarataren errua haiena bailitzan. **Bernardo Atxaga**
Gure amak, umetatik, hazpizarrak **hozkaka** kentzeko ohitura txarra zuen, eta behin, kolegioan zela, itzemina izan eta gero behatza larrutu zitzaion. **Fernando Rey**
Nolatan ez dut kontzientziako harra **hozkaka** izango, jakin baitakit alferrikakoa izango dudala mundu honetako bizialdia? **Jose Morales**
Zutitu egin nintzen, joateko asmotan, baina azken galdera bat neukan **hozkaka**, kontzientziako harra bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Eskuburdinen ukitu hotza sentitzen nuen eskumuturretan **hozkaka**. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **hozkaka** (3)

hozkakatu *(corpusean ozkakatu soilik)* *izond ipar* koskak dituenak.

Eta zer gertatu da, ororen buru denbora gutiz, 40-50 urtez petik: gure errota **ozkakatu** handia, elektronika bilakatu. **Herria**

hozkalari *izond* hozka egiten duena.

Hirugarrenean sartzen dira trenbideko karrilak, espaloiak, belarra, sugeak, bota lizunduak, garagardo botilak, tomate poteak, jende mozkortua, zaborra, anarkistak, zakur **hozkalariak** eta txoroak. **Xabier Olarra**

hozkaldi *iz* hozka egiten denaldi bakoitza.

-Nora tipia... oraindik beldurrez? -galdetu zuen Andreasek, azken **hozkaldi** arina egin eta gero. **Anjel Lertxundi**

hozkaño *(corpusean ozkaño soilik)* *iz* koskatxoa.

Herri-zergen emendatzea ere **ozkaño** batez, ehunarendako bat eta erdiz xuxen erraiteko. **Herria**
Kasua ikusiz beraz, edo **ozkaño** bat gorago edo **ozkaño** bat beherago, bainan ez haatik beti goragokorat lerratuz! **Herria**

Gainerat, ez da bakarrik hori. Prezioen % 3- ez apaltzea helduden udazkeneko eta beste **ozkaño** batez helduden urtean. **Herria**
Ekaineko konduak atera dituzte, lan-gabeziak doi bat gibelerat egin du, **ozkaño** batez beheiti eta dena ere on... **Herria**

hozkatto *iz* koskatxoa.

Ukan dute beren oreña bakotxak, **hozkatto** bat ere eginik partida erditsutan. **Herria**

hozkatu, hozka(tu), hozkatzen *(orobat ozkatu)* 1 du *ad* hozka egin. ik **ausiki**¹.

Ez-esatekoak esan zituelakoan eta mihiak traizio egin ziolakoan, ezpainak **hozkatu** zituen. **Patxi Zubizarreta**
Ezkongaien ezpainak **hozkatu** zituzten, Telemakoren hitz ausartak entzunda. **Juan Kruz Igerabide**
Llum pantailara begira geratu da, pentsakor, azkazalak **hozkatzen** dituen bitartean. **Antton Olano**
Belarri-gingila **hozkatu** zion gero jostari. **Anjel Lertxundi**
Amoroski estutzen zuten elkar, **hozkatzen**, laztantzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ruthek platerean utzi zuen **hozkatzen** ari zen sandwicha. **Lopez de Arana**
Biziki **hozkatu** arkatzez zirriborratua. **Mirentxu Larrañaga**
Geratu bezain laster berriro hasten dira belarra **hozkatzen**. **Julen Gabiria**
Xalo-xalo sagar bat **hozkatzen** zuen bitartean. **Karlos Zabala**
Burdina puska herdoildu bat **hozkatuko** balu bezala zen. **Alberto Ladron Arana**

2 *hed*

Bekazkeriak pozoitutako haginekin **hozkatu** naitek! **Patxi Zubizarreta**
Europar erraiek **hozkatzen** zuten minbizi izpirituala. **Aritz Gorrotxategi**

3 (era burutua izenondo gisa)

Mozkote tripaundi bat, lerdez betetako zigarro **hozkatu** bat erretzen ari zena. **Karlos Zabala**
Biolentziak odolzetatzen du gure herri **hozkatua**, gure gizartea, eta gero eta orakatuago uzten gaitu hiritar guztiak lokatz gorri horretan. **Pello Salaburu**
Hala nola, Parisen, 80.000 gazte bildu zirelarik, erakutsi zuten preseski aitzinamendu berria heldu, errota **ozkatu** alimale baten itxuran, eta hau aitzinatzen pirripitaka, bere manean, batzuen lehertzeko irriskuarekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkazalak **hozkatzen** (3); beheko ezpaina **hozkatu** (4); eta ezpainak **hozkatu** (4); ezpaina **hozkatu** (7); ezpaina **hozkatu** zuen (3); ezpainak **hozkatu** (17); ezpainak **hozkatu** zituen (12); ezpainak **hozkatzen** (4); ezpainak **hozkatzen** zituen (4); **hozkatu** zituen (12); **hozkatu** zuen (4); **hozkatzen** ari (3); **hozkatzen** ari zen (3); **hozkatzen** zituen (6)

hozkeria *iz* hoztasun gaitzesgarria.

Begirada galdua, berriz, itsumenarenaz gainera, **hozkeriarena** izan daiteke; gerra guztiak galdu egiten direla larrutik ikasi duenaren erremoin gauduarena. **Anjel Lertxundi**

hozketatzen *iz* hoztea.

Hozketaren eta, teknologikoki baturiko planeta-azaleraren gainean, garraio lasterraren bidez, edozein haragi, landare, fruitu edo lore edozein urte-sasoitan munduko edozein aldetan lor dezake orain ordaintzeko dirua duenak. **Iñaki Mendiguren**

hozketatu *(corpusean ozketatu soilik)* izond hozkatua.

Ene errautsak kutxa tiki **ozketatu** honetan ezar ditzazuen. **Daniel Landart**
Zurezko kutxa tiki bat zen, alde orotarik zizelkatua, **ozketatua**. **Daniel Landart**

hozki¹ *(orobat ozki g.er.)* 1 *iz* hortzetan sentitzen den ondoeza, garratzasunak edo atsegin ez diren zarata edo hotsek eragina.

Neska hark diosala egiteko musu eman zidanean, ez dakit zergatik, **hozkia** sentitu nuen. **Juan Kruz Igerabide**
Hozkia ematen zion barnean zerbait mugitzen zitziola antzemateak. **Arantxa Iturbe**
Hozkia emateko modukoa. **Anjel Lertxundi**
Eta Azoka aldera egin dut, beti ere Ubagoren ezkerretatik; bertaratzeak **hozkia** emango balit bezala. **Txillardeggi**
Halako fribolitatean gainean hausnarrean aritu nintzen, **ozkiak** hortzak erabat hartu zizkidan arte. **Koro Navarro**
Gaitz mentalek eragiten diguten **hozkia** izan liteke, gazteek zaharregina izaten dugun erruki-falta. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gurasoek mahats gordina jan, eta semeek **hozkia**? **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan)

Baina kri-kri-kri **hozki** horrek ez al du salatzen sagu liburu-jalea trepeta mekaniko bat izan daitekeela? **Anjel Lertxundi**
Pozik ikusiko nioan aurpegia, bai horixe, ikazkin uzki- **hozki** hori popatik hartzera bidali huenean! **Anjel Lertxundi**

hozki² *adlag* hoztasunez. ik **hotz** 7.

Orduan bururatu zitzaion, **hozki** begiratura oso ideia krudela eta arriskutsua zen hura. **Harkaitz Cano**
Bere buruaz segur zen gizona zen, erabakiak **hozki** hartzen zituena, hunkipenek desbideratu gabe. **Elena Touyarou**
Inoiz ez ditugu gauzak hain argi eta hain **hozki** ikusten nola bizitzak amildegi ilun baten ertzeraino eramaten gaituenean. **Matías Múgica**
Neronentzat ere harrigarria zen zein **hozki** jokatzin ari nintzen hogeita bost urtetako adiskidearekin. **Aingeru Epaltza**
Orain, Ximurrarekin nola jokatu genuen **hozki** aztertuta, ez nago seguru gure koartada ideologikoen azpian bekaiztoa baino aise ere gehiago ote zen. **Aingeru Epaltza**
Gérard-ek berak aski **hozki** agurtu du, Euskal Herrira bortxaz heldu balitz bezala. **Eneko Bidegain**
Hamar minutuen buruko hurbildu zitzaidan eta autoko atea irekiz galdetu zidan, franko **hozki**, ez nintzenetz ados etxea sal zezan. **Daniel Landart**

hozki*l* *izond* hozbera.

Emakume **hozkiak** berotzeko ere bada erremediorik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erromeroa **hozki** da eta etxearen leku eguterean jarri ohi da, eguzkiak berotu dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

hozki*l*tasun *iz* hozki denaren nolakotasuna, hozberatasuna.

Hozki*l*tasun horretatik ezin ezer handirik sor daiteke, ez kulturalki, ez sozialki. Joxe Azurmendi

hozki*l*ri (ETC*n* 278 agerraldi) 1 *izond* eguraldiaz, haizeaz eta kidekoz mintzatzuz, apur bat hotza baina atsegingarria. ik hozpil; fresko¹.

Baina Florenten aurpegian itsas haize bolada **hozki*l*ri** batek jo zuen, eta zapore ezaguna utzi zion ezpainetan, gazia eta mingotsa. Karlos Zabala

Gero, urrutiratu zenean, aurpegian haize **hozki*l*riak** ferekatuko banindu bezalako sentipena izan nuen. Josu Zabaleta

Hego Manhattanetik zetorren haize laster **hozki*l*riak** lanera zihoazen oinezkoen aurpegi deliberatuak goxatu eta poztu egiten zituen. Gotzon Garate

Lanbro **hozki*l*ria** egiten zuen. Joseba Sarrionandia

Urriaren hasieran, euria erruz ari zuen egun **hozki*l*ri** batean. Txillardegi

Hezetasun **hozki*l*ri** honetan, inoiz baino kilikagariago zaude. Txillardegi

Hurbildu egin da orduan nigana; eta nire burua bere bi esku **hozki*l*rien** artean hartuz, xuxen begiratzen lagundu dit: [...]. Txillardegi

Beroa neurikoa, gauak **hozki*l*riak**. Karlos Zabala

-Iraileko arratsaldeak labur, eta ilunabarrak **hozki*l*ri**, omen. Txillardegi

Hozki*l*ri bai, goizetan batez ere; baina eguerdirako, epel. Txillardegi

Jendez lepo inguratutik; eta giroa **hozki*l*ri**, ibiltzeko ezin aproposagoa. Txillardegi

Goiza **hozki*l*ri** zegoen. Karlos Zabala

• 2 *iz* giro apur bat hotza baina atsegingarria.

Goizeko **hozki*l*ria** barruraino sartu zitzaion. Karlos Zabala

Ate-leihoak zabalik, gaueko **hozki*l*riari** itxaroten diot Ryder kanpoan dagoen bitartean. Javi Cillero

Ibaiko **hozki*l*riaren** aldera makurtu zuen burua. Koro Navarro

Hozki*l*ria sentiturik, jakaren lepokoa goratu nuen. Anjel Lertxundi

Neskak ikara-dardara bat egin zuen, **hozki*l*riak** jota. Anjel Lertxundi

Hozki*l*ri zoragarri batek gozatzen zuen eguneko beroa. Karlos Zabala

Eta **hozki*l*ri** heze hartan, sarkorrako eta ñabarrago bilakatu dira Baztango belazeetako usainak. Txillardegi

Hozki*l*riak ausiki egin dio beso motzetan. Aingeru Epaltza

-Alcatraz uharterako baporea hartu genuen andreak eta biok arratsaldearen **hozki*l*rian**. Javi Cillero

3 (hitz elkartuetan)

Hozki*l*ri -arrastorik ez, ordea; huraxe bai goiz sargori eta lurrintsua, eguzkia ere inoiz baino lirdingatsua ageri, eta hostoak ere distira itsuan. Joxe Austin Arrieta

4 hotzikara.

Goiz guztia astintzen zitzaion, **hozki*l*ri** luzez inarrosirik, eta ihes egin nahi izan zuen. Josu Zabaleta

Bizkor-bizkor doan emakume horren ukituak **hozki*l*ri** bat eragiten dizu bizkarrean behera. Josu Zabaleta

Izotzetan biluzik baino **hozki*l*ri** minagoa sentitu zuen Norak bizkarrezurretik gora. Anjel Lertxundi

-Bada, niri toki honek **hozki*l*ria** ematen zidak. Aingeru Epaltza

Kanpai-hots batzuk entzunik, ordulariari begiratu nion, eta automatismo inozo hari zor diot bet-betan nire borondateaz jabetu zen asmo latz baten **hozki*l*ria**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **hozki*l*ri** (3); **haize hozki*l*ri** (3); **haize hozki*l*ria** (4); **hozki*l*ri bat** (3); **hozki*l*ria sentitu** (3)

hozki*l*ritsu *izond* hotzikaratsua.

Exhibizionismo puntu bat ere ikusi uste izan nuen dohakabe haren jardunean, halako jaidura **hozki*l*ritsu** bat Karlos Linazasoro

hozki*l*ritu, hozki*l*ri(tu), hozki*l*ritzen du *ad* hotzikaratu.

Supituki zabaldutako ate batek sortu ohi duen antzeko aire-zirimolak **hozki*l*ritu** zuen Nathaniel. Anjel Lertxundi

hozki*l*ritxo *iz* hozki*l*ri arina.

Bai al dakizu nondik dakarren **hozki*l*ritxo** hori? Pello Zabala

hozki*l*tsu *izond* hozkia eragiten duena.

Horregatik, askotan, belarriak kotoiez estaltzen ditu, lepo-hezurraren etendura **hozki*l*tsua** edo sabeletik irteten den azken hatsaldi itoaren erregua ez entzutearren. Karlos Linazasoro

hozmin 1 *iz* guztiz hotza.

Hozminez dardarka nengoen, sukartu antzean. Eduardo Matauko

Elenaren zain dago, urduri, **hozminari** arrotz. Eider Rodriguez

Aurpegiko ehun batzuk hondatu zizkion **hozminak**, baina arnasbideetan ez zuen eztarriko mina beste kalterik izan. Irene Aldasoro

Bere oin hutsetan hezetasunaren **hozmina** nabaritzuz, abian jarri eta errekarantz jaitsi zen. Joanes Urkixo

-Zorion-une gozoaren ondoren, hotzaren mina, **hozmina**. Karlos Linazasoro

2 *izond*

Airea hotza zen, ibai-kanaleko itsasmuturretik baitzetorren, baina eskertu egin nuen bafada **hozmina**. **Anjel Lertxundi**
Gaur bezalako egun **hozminetan**. **Joan Mari Irigoien**
Gau osoan zain egon nintzen, urtarrileko gau **hozmina** izan arren. **Eduardo Matauko**

hozmindu (*ETCn 278 agerraldi; orobat **hotzmindu** g.er.*), hozmin(du), hozmintzen **1** da *ad* hotzak igaroa edo zurrundua gertatu.

Eskuak eta oinak **hozmindu** zitzaizkion. **Koro Navarro**
Eta lokatzez josia, izozturik eta **hozmindurik** iristen naiz ateraino. **Askoren artean**
Itsasotik baletor, itsasoko umelak berak epeltzen baitu, eta handik ezin etorri hain **hotzminduta**. **Pello Zabala**

2 irud zurrundu.

Heriotza zigorraren inguruan, halako erritu makabro bat sortzen da, eta ez dirudi gizartea **hozmintzen** denik horregatik. **Pello Salaburu**
Protokoloa bera **hozminduta** geratu zen, erreakzionatu barik. **Txema Ramirez de la Piscina**

3 (era burutua izenondo gisa)

Elkarren kontra igurtzi nituen esku **hozminduak**. Gizonak, begiak ezustean altxaturik, neskak luzatzen zion begirakune **hozmindu**, setatsu eta mehatxuzkoari erreparatu zion. **Koro Navarro**

hozpil *iz* hozkirria.

Igande goiz **hozpilean**, udaberria berriz agertu zauku, eliza aintzinean. **Herria**

hoztar *izond/iz* Hoztakoa, Hoztari dagokiona; Hoztako herritarra.

Hemengo musulari pare, Fabienne eta Stephane Urruty **hoztarrak**. **Herria**
Sortzez **hoztarra**, Agerrian sortua, bere bizi guzian laborantxan lan eginik, gizon ixila, eta langilea, mundu huntako itzulia hor bururatu da Jakesendako. **Herria**

hoztasun 1 *iz* hotz denaren nolakotasuna, hotz dagoenaren egoera.

Gezurrezkoa izan arren burdinaren **hoztasuna** lasaigarri gertatu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**
Amaren hatzen **hoztasuna** sorbaldaraino iritsi zitzaion Egutxiri. **Ibon Uribarri**
Plastikoaren **hoztasuna** sentitu dut bizkarrean, baina ez zait ardua, eskertzekoa da, hain nago bero. **Juan Martin Elexpuru**
Haren hitzak hormaren **hoztasunaz** jantzita zeuden. **Aingeru Epaltza**
Izotzaren **hoztasunaz** **Edorta Jimenez**

2 irud ik **hotz 5**.

Bihotzaren **hoztasun** bat, hondoratze bat, gaizkitze bat zen hura. **Koro Navarro**
Itsu batena ematen zuen begiradaren **hoztasun** hark. **Anjel Lertxundi**
Balakuen mundutik **hoztasun** hormatuenera iragotzeko. **Joxan Elosegi**
Lehengo asteetako sukarrari **hoztasun** ezaxola kentzen ari zitzaion lekua ene baitan. **Aingeru Epaltza**
Hoztasunak, ordea, gezurra badirudi ere, odola berotu zidan. **Migel Angel Mintegi**
Baina anaia Johnek niregana erakutsi duen **hoztasuna** zinez mingarria zaidala esan beharra daukat. **Antton Olano**
Txarrean ere, Diru jaunak berotuko zion ohea, edo oheko **hoztasuna** jasaten lagunduko. **Migel Angel Mintegi**
Ohi ez bezalako **hoztasun** batez eman genion eskua elkari. **Anjel Lertxundi**
Denbora igarota eta gauzei urruntasunak ematen duen **hoztasunarekin** begiratura, neure buruari galdetzen diot: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (hitz elkartuetan)

Sentimendu-nahasketa hartan borrokan egonagatik oraindik bazuen izpiritu-**hoztasuna** txoferko egingo dizut entzuteak eragin zion desatsegina identifikatzeko. **Jon Alonso**
Neskaren bihotz-**hoztasunak** taupadarik gabe utzi zituela inguruko gizonezko guztiek. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

4 hoztasunez adlag

Berehala, keinu zakar batez, beloa atzera egokitu, eta, bat-bateko **hoztasunez**, esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Benetan? -esan zuen **hoztasunez** koronelak. **Lopez de Arana**
Ivan Ogareffek, sor eta gor beti bezala, **hoztasunez** erantzun zien haren bila bidalitako goi funtzionarioen adeitasunei. **Karlos Zabala**
Gizona **hoztasunez** jokatzeko hasi zenetik, Hamida ohitua zegoen solasaldi haietara, eta pazientziak errea jasaten zituen. **Patxi Zubizarreta**
Egoera **hoztasunez** aztertuz gero, ondorio baikor batzuk ateratzea badago. **Berria - Kirola**

5 hoztasunezko izlag

Zaitak **hoztasunezko** begirakunea josi zien hilotz bezituei. **Patxi Zubizarreta**

hozte 1 *iz* (zerbaiten) temperatura jaistea; hotzago bihurtzea.

Hozte nabarmen bat izan zen, azken klima aldaketa ezaguna dena. **Pello Zabala**
Hoztea nabarmenagoa eta sendoagoa denean, aire-geruza lodi samar bati eragiten dio. **Pello Zabala**
Idaztea sentimenduen **hozte** bat da. **Pako Aristi**

2 (hitz elkartuetan)

Odol-zirkulazioa da gorputzaren **hozte**-sistema. **Irene Aldasoro**
Burdinbide eta galdara ugariekin, **hozte**-dorreekin, hodi-sare eta tailerrekin. **Urtzi Urrutikoetxea**
- Pixkanakako maitasun-**hozte** horren eraginez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hoztegi *iz* hozteko tokia.

Itxaropen handien **hoztegia**. **Xabier Olarra**

hoztu, hoz/hoztu, hozten 1 da/du ad hoztago bihurtu, (zerbait) tenperatura jaitsi.

Sutegiko txingarrak itzaltzen joan ziren pixkanaka eta burdina **hoztu** zen, horma bezala gelditzeraino. **Fernando Rey**

Kafea **hozten** daukat kafeteran. **Pako Aristi**

"Zopa **hozten** ari zaidak, Martin", esan nion. **Bernardo Atxaga**

Izertia **hoztu** zitzaion Freddy Greeni. **Joxemari Urteaga**

Bigunduta eta gurituta dagoenean ur hotzetan **hozten** bada. **Santiago Iruretagoiena**

Ikerketa behar bezala egiteko, bigarren labe hori **hoztu** arte zain egotea ezinbestekoa dela. **Berria - Ekonomia**

Lagin bat hartu zuen galdaratik, **hozten** utzi, eta erreaktiboarekin tratatu zuen. **Juan Garzia**

Klima **hoztu** egin baitzen. **Bernardo Atxaga**

2 irud ik hotz 4.

Sorgor begiratzan diot haren irudi arruntari; **hoztu** zait begirada, galdu du behinolako arrotz-zaletasun guztia. **Jose Morales**

Sarraskiaz geroztik **hoztua** zitzaidan jendarte horretan egoteko gogo. **Aingeru Epaltza**

Kearney andrea, berriz, ez zen **hoztu** bere erlijio-sinesmenean, eta emazte ona zen Kearney jaunarentzat. **Irene Aldasoro**

Gaztaroa amaitzean, haurtzaroko magia desagertu ahala, gure harremana **hozten** hasi zuan. **Xabier Olarra**

Ilea zurituko zaik ibilera baldartuko eta atsegin-grina **hoztuko**. **Elizen arteko biblia**

Azalpenek ez dute nire libidoa **hoztu**. **Pako Aristi**

Uste izatekoa denez, gertakari horiek guztiok **hoztu** eta gaiztotu egin zuten giroa. **Koldo Zuazo**

Ez da komeni berotuta zegoen ekonomia, zertxobait **hoztu** beharrean, gehiegi hoztea. **Iñaki Heras**

• 3 da ad (pertsonak)

-Hoztu egingo haiz, hain osasuntsua haizen arren. **Ibon Uribarri**

Handik hona, ederki **hoztu** naiz. **Pablo Sastre**

Ez nuen arropa ganorazkorik eta berehala **hozten** nintzen, oinak batez ere. **Eskarne Mujika**

-Uste dut... uste dut **hoztu** -edo egin naizela -atera zitzaion, justifikazio gisa. **Fernando Morillo**

Neure jaka utzi nion, **hoztu** ez zedin. **Joxe Austin Arrieta**

Aurkariak eraso ezean, atezaina **hoztu** egiten da. **Berria - Kirola**

• 4 du ad (eguraldi gertakariez)

-Hoztu egin du! -esan zuen, eta estalkia ezarri zion gainean. **Ibon Uribarri**

Bihar **hoztu** egingo du nabarmen eta elur maila jaitsi egingo da 200 metrora. **Berria - Euskal Herria**

Hozten ari du kanpoaldean. **Mirentxu Larrañaga**

Subway Series-ak etorri ziren eta joan ere bai; eguraldia **hoztu** egin zuen. **Oskar Arana**

Gauetz **hoztu** egiten zuen eta sugeak Neelimen gorputzaren ondora biltzen ziren, bero bila. **Gotzon Garate**

Gaua **hoztu** egin du bat-batean, hiriko zentral elektrikoak argirik gabe utzi duen ekaitza jauregiaren inguruetatik pasatu da. **Xabier Olarra**

Iruñean, 1978an, San Fermin biharamunean, 6 graduraino **hoztu** zuen. **Pello Zabala**

-Eguraldia **hoztu** zen supituan eta harria hasi zuen. **Anjel Lertxundi**

5 (aditz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aditurik apezaren hitzak, odol- **hozturik** geratu nintzen. **Joan Mari Irigoien**

"Aberria ala hill!" esaten da, baina hill eta gero ere hezur- **hozten** ez den maitasuna da abertzaleak aberriari diona. **Juan Luis Zabala**

Nik ezagutzen nuen osaba Joanikot, eta segur nengoan ezen napolitarraren hitzek gogo- **hozturik** baizik ez zezaketela utz. **Joan Mari Irigoien**

Eta hau da honako honetan higuinik gehiena ematen didana, zera, Tobosoko Dulzineagana maita- **hoztua** jartzen duela Don Kijote. **Patxi Ezkiaga**

6 (era burutua izenondo gisa)

Bere onetik irtenda, aspalditik aterea zeukan te **hoztua** edan zuen. Ez zen ezer entzuten, txori **hoztu** eta goseti baten hegaldia agian. **Juan Kruz Igerabide**

Orain, baina, elurraren etorrerak ekarri die, atzera berriz, behatz busti **hoztuen** sentsazio mikatza. **Jokin Muñoz**

7 hoztuxe hoztu xamar.

Hoztuxea gure arteko giroa eta, gainera, goseak amorratzen biak. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airea hozten (3); eta hozteko (5); eta hozten (6); ez hozteko (7); hozteko eta (3); hozten ari (21); hozten ari du (3); hozten ari zen (4); hozten da (3); hozten denean (4); hozten dira (3); hozten eta (4); hozten hasi (10); hozten hasia (5); hozten utzi (8); kanpoan hozten (3); zopa hozten (3); zopa hozten ari (3)

asko hoztu (3); bat hoztu (3); eguraldia hoztu (3); erabat hoztu (3); eta hoztu (10); eta hoztu egin (5); giroa hoztu (5); harremana hoztu (3); harremanak hoztu (3); hori hoztu (3); horiek hoztu (3); horrek hoztu (3); hoztu ahala (3); hoztu arte (4); hoztu baino (6); hoztu baino lehen (6); hoztu da (4); hoztu du (4); hoztu egin (41); hoztu egin dela (3); hoztu egin du (3); hoztu egin zen (7); hoztu egin ziren (3); hoztu egin zuen (5); hoztu egingo (15); hoztu egingo zara (3); hoztu egiten (10); hoztu egiten da (4); hoztu eta (11); hoztu ez (5); hoztu gabe (6); hoztu nahi (3); hoztu zail (3); hoztu zen (10); hoztu zitzaizkion (3); hoztu zuen (8); hoztuko zaizu (3); hoztuta zegoen (3); nabarmen hoztu (3); oinak hoztu (3); seko hoztuta (3); tenperaturak hoztu (3); zeharo hoztu (3)

hoztualdi iz (zerbait) hozten den aldietako bakoitza.

Horrek gogora ekarri dizkio garai batean soinua jotzen hartzen zituen izerdituak, eta ondorengo **hoztualdiak**. **Pako Aristi**

hoztura iz hoztea, hotza.

Hoztura izugarria sentitu nuen berria jakiterakoan, dutxa hotz bat baillitzan. **Berria - Kultura**

Bakan ditu bere sendimenduak agertzen Basoik -Historiak halako **hoztura** bat berez baitakar-. **Michel Oronoz**

hudo iz ugaztun haragijalea, gorputz luzaran eta liraina duena, mutur-zorrotza eta isats-luzea, untxiak harrapatzeko erabiltzen dena (*Mustela furo*).

Beste ugaztun espezie bat kutsatuta, **hudoa**. **Berria - Gaik**

Tellagorrik zaildu egiten zuen Martin, ibilarazi egiten zion, lasterka eragin, zuhaitzetara igoarazi, **hudo** bat baillitzan sarrarazten zuen zuloetan, bere modura hezi egiten zuen. **Koro Navarro**

Hudo mutur-zorrotza sartzen den oilategian gertatzen den bezala. **Jose Morales**

Hudoen begiekin aparteko gizon hura aztertuz. **Julen Gabiria**

Buckbeakak tu egin eta **hudo** -hezur batzuk bota zituen ahotik Hagriden burkora. **Iñaki Mendiguren**

hudozain zaitzen dituen pertsona.

Ehiza ugaria zen arren, ez zen beti gauza segura eta, izaiten ez zenean, guhaurk eskaintzen genion, libratzen genituela, hartarakotz, kaiola batzuetarik, bat banaka, untxiak edo erbiak, Uraitzeko **hudozain** baten trailuari esker geureganatzen genituenak. **Joan Mari Irigoien**

huelga (24 agerraldi, 7 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 278 agerraldi) iz greba. ik lanuzte.

Hoteleko harrera-gelan zegoen gazteari busen **huelgaz** galdetu diodalarik, horrela erantzun dit: [...]. **Anjel Lertxundi**

Oso gazterik joan zen Frantziara, Bilbon **huelga** batean parte hartu zuela, eta inork lanik eskaini nahi ez ziolako. **Inazio Mujika Iraola**

Huelga bat antolatu zuelako ontziolan. **Inazio Mujika Iraola**

Zuek **huelga** egin behar al duzue? **Pablo Sastre**

Euskal presoan aldeko greba orokorrerako deiari erantzunez, **huelga** eguna izan da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Enpresa kooperatiba da, baina langileen erdiak **huelgan** dira. **Berria - Ekonomia**

Guztira, 250 langiletik gora daude **huelgara** deituta. **Berria - Ekonomia**

hugonote (6 agerraldi, 2 liburu eta artikulua 1ean; ETCn 58 agerraldi) izond/iz higanota.

Merkatari **hugonote** hau gorpillean hil zuten bere semea erailtzearren akusaziopean, inolako froga sinesgarririk gabe. **Juan Martin Elexpuru**

Gurutze honek esan nahi du erregeak gerra egin beharko diela **hugonoteei**. **Juan Martin Elexpuru**

huia iz huiatzeko oihua.

Artetik, halere, batzuek sainga eta xanpa, zonbaitek **huia**, bertze batzuek akula, bakar batzuek...ñaka. **Herria**

huiatu, huia(tu), huiatzen 1 du ad txakurrez-eta mintzatuz, zirikatu.

Jaunak oihu militar bat egin, zakurrak libratu eta **huiatu** zitian. **Daniel Landart**

2 uxatu.

Hemengo prefetak berriki kurdo gazte dohakabe batzu hemendik **huiatu** ditu, zituzten eskubideak ukatuz. **Herria**

Nire jendea, erran nahi baitut nire hizkuntzan mintzo dena, abeltzain, ehiztari eta gudari dira: ez baitute maite lurra lantzea, mesprezatzen ere dute hura lantzen duena, haien landetara **huiatzen** dituzte beren abere taldeak, haien hiriak harropakutzen eta haien emazteak esklabo egiten. **Juan Garzia**

Baina, aspaldi eta aspaldi, orduan gaingainetik eta absolutuki maite nuen Jainko beldurgarria, ene baitatik **huiatua** dut eta kanpoan dago orain Jainko mota hori. **Piarres Aintziart**

huiatzaile iz huiatzen duen pertsona.

Polizaren **huiatzaile**, Baltazar Garzon Madrileko juje famatu hura. **Herria**

huitzitar (orobat huizitar) izond/iz Huitzikoa, Huitziri dagokiona; Huitziko biztanlea.

Bai Alloztarrak eta baita **Huitzitarak** ere, erromeria egiten dute apirilaren 16an, errogatibak eginez. **Pello Zabala**

Ubarneko damak, edo dama eta damatxo, nola deitzen baitzien gure aitak, Ubarneko **huizitarren** etxean bizi ziren bi emazteki ziren, sorgin fama zutenak eta beren artean izeba-ilobak zirenak. **Joan Mari Irigoien**

hukitu ik ukitu¹.

hule (orobat ule) iz oihal ziratua.

Sukaldeko mahaia estaltzen duen **hule** horiaren gainean. **Xabier Paya**

Platerak ikusi nituen apaletan, lanpara piztua mahai luze, **hulez** estaliaren gainean. **Koro Navarro**

Sonbrailu txiki argizaritzu **-hulezko-** bat janzen du, arrosa handi batekin apaindua. **Koldo Izagirre**

-Quebecen diren bakarrak **huronen** ondoko larru zuriko jendeak dira. Aurelia Arkotxa

hurra 1 *interj* alaitasuna edo gogoberotasuna adierazten duen hitza.

Zer zioen samatik eskegita zeramaten kartoizko idazkunak, nahiago nuen ez jakin (hala eta guztiz iritsi zait, esparruan luzaz izan baitute aipagai: "**Hurra** ! Urtzi

Urrutikoetxea

Ich bin wieder da!", hau da, "**Hurra** ! Hemen naiz berriz ere"). Urtzi Urrutikoetxea

Hil hil **hurra** ! Iñaki Arranz

2 (izen gisa)

Baina jakin zutenean Maimiek laguntza eman ziola Beltzarantxori eta, ondorioz, haren gloria eta osperako, maitagarria dantzaldira heltzeko gai izan zela, hiru **hurra** egin zituzten gizaki txikiaren alde. Julen Gabiria

hurran (ETCn 139 agerraldi; orobat urran g.er.) 1 adlag hurbil, gertu.

Eta tortura zen, orduan, espazio haren horizontea, urrun zegoenean ere **hurran** sentitzen zena. Joan Mari Irigoien

Astelehen guziz bezala bazoan Donibane Garaziko merkatura, eta zubitik **hurran** hurbiltzen zaio Luzaiden bizi zen frantses bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elgarri **hurran**, bi heriotze ukan ditugu herrian. Herria

Hortik hurran herriko Urruti Jauregian bisita daiteke arte erakusketa, ikusgai dituela bi emazte artisten obrak. Herria

2 (zenbaki eta kopuruekin) ik **hurbil** 3.

Hilabete bat **hurran** egon ginen, gure lagun batek gorriñoak bildu baitzituen eta beste zenbait kutsatu. Marzel Etxehandi

Zenbait astez, 44ko udan, 50 000 **hurran** izanen gara. Marzel Etxehandi

Otsail azkenean 15 bat hil egunean, martxo erditan, 50 bat, martxo azkenean 100 eta 200 artean, eta apirilean 300 **hurran**. Marzel Etxehandi

3 (izenondo gisa) hurbila.

Irakurtze eta otoitzetan parte hartu dute ahaide **hurran** zenbaitek euskaraz, frantsesez edo ingelesez. Herria

Ahaide **hurranak** gira. Herria

Nire kezka areagotua du Gercourt jaunaren etorrera **hurran** -hurranak. Jon Muñoz

• 4 (dagokion izenaren ezkerrean) hurrengo.

Hurran urtean nahi nuke zerbait muntatu oraino hor baniz eta ahal balinbadut. Herria

Hurran jokoak frantses eta espanyolen artean eginen dira agorrilaren 10 ean Baigorri. Herria

Antolatzaileer damutu zaie itsas aldetik etorri den jende gutia eta esperantza dute **hurran** aldian hango gehiago jendek nahiko dituztela mendiko mahastiak ezagutu eta besta egin hemengo mahastizainekin. Herria

5 (dagokion aditz-era burutuaren eskuinean) -tzeko zorian. ik **hurren** 4.

Ez du xedera eta marrara hurbildu **hurran** denean ezantsiatu behar eta baratu. Anjel Lertxundi

Gauaren besoetan itzali **hurran** den eguzkia horizontean. Joan Mari Irigoien

6 *hil hurran* (21 esaldi, 9 liburutan; ETCn 55 agerraldi) hiltzeko zorian. ik **hurren** 10.

Kolpearen ondorez, tentua eta zentzua galdu eta hil **hurran** izan nintzela. Joan Mari Irigoien

Hil-**hurran** zena? Itxaro Borda

Hil **hurran** ikusi nuen oreinaren begi galduak gogoan. Joan Mari Irigoien

Hil **hurran** den enpresa baten ardura hartzera. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hil hurran (21)

hurrandu (ETCn 50 agerraldi), hurran(du), hurrantzen da/du *ad* hurbildu. ik **hurrendu**.

Ternuako gaietara sukhar handi batekin **hurrandu** nintzen. Aurelia Arkotxa

Presonerren jazarkunde bat aipu da Aliatuak **hurrandu** bezain laster. Michel Oronoz

Anak zirkinik ere ez zuen egin bere poltsa irekitzeko, barrara ordaintzera **hurrandu** ginenean. Aingeru Epaltza

Banka eta Gabadi **hurrandu** dira bertze bien balentrietarat. Herria

Ororen buruan behar bada elizen buluzte horrek Protestantak Elizari **hurranduko** ditu eta ekumenismari erran nahi baita Giristinoen batasunari lasterrago lotaraziko.

Herria

Legearen begirunetik hurbilago zebilen haren erreformismoa, Erasmorean baino, eta teologiatik eta artzain bideetatik zuzen legearen **hurrantzea** izan da haren merezimendu handiena. Piarres Xarriton

hurranen (ETCn 6 agerraldi; *corpusean urranen soilik*) izlag hurrengo.

Urranen urtean, 1899an, hameka mutil. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hurrantze *iz* hurbiltzea.

Izan ere, gorputzazuna baztertzean, espazioa ere baztertzen da, eta, beraz, zentzugabea da hurbiltze edo **hurrantzeaz** mintzatzea, urruntze, atxikitze, hastantze, ukitze edo jarraitutasunaz den bezala. Xabier Kintana

hurre *adlag* hur, hurbil.

Atetik **hurre** burdinazko berogailu handi eta dotorea burrunba batean. Berria - Kirola

Trenbidetik **hurre** zegoen autobusaren geltokian. Koldo Izagirre

Poesiatik **hurre** dagoen prosa. Berria - Kultura

Buruko ileak laztu zaizkit oihala **hurre** -hurretik ferekatzean. Javi Cillero

Herio itzala oso **hurre** sumatzen zuen gizon baten biloba naiz... Pello Zabala

Urruti eta **hurre**. Berria - Euskal Herria

Arnasa berdindu zitzaionerako, gainean zituen bulegari guztiak, batzuk **hurreago**, besteak urrunago. Pedro Alberdi

hurrekotasun *iz* hurbiltasuna.

Hurrekotasuna bilatu dugu eta euskara batua gidari izan zaigu, Euskaltzaindiak azken urteotan hobetsi dituen hiztegi batua eta egokiera sintaktikoak ere jasoak ditugula.

Andres Urrutia

hurren (ETCn 27.204 agerraldi) 1 *adlag* (segida batean) hurrengo.

-**Hurren** datorren hau -bizarginak- "Diana" da. Patxi Ezkiaga

Diru biltzen hasi zen **hurren** Don Kijote. Patxi Ezkiaga

Zabaldu eta aurreneko ikusi zuen liburua, hau izan zen: "Traziako Don Zironjilio"; **hurren**, "Irkaniako Felixmarte". Patxi Ezkiaga

• 2 *izord*

Zazpi seme-alaba zuten baitatik, maistra izan zen bestea, txirindulari bikaina **hurrena...** Berria - Harian

Hurrena Kongoko Errepublikakoaren ekialdea da; bertan hiru milioi pertsona daude egoera larrian. Berria - Mundua

Hurrena Barañainen izanen da, hilaren 22an. Berria - Kultura

Kataluniako bi alderditako buruzagiak izango dira Moncloako Jauregira joaten **hurrenak**. Berria - Euskal Herria

Alderdi Sozialdemokrata Berria ezkerreko alderdia eta Bloke Quebectarra independentista ziren **hurrenak** zerrendan. Berria - Mundua

Ez zuen erregu beharrik izan Santxok; eta, hiruren tartean tarteko eginik, harenak izan ziren lau **hurrenak** hizketan. Patxi Ezkiaga

Hurrenak Bulgaria Errumania eta Kroazia dira. Berria - Mundua

Hurrenak lau urteren buruan izanen dira Pekinen, Xinan. Herria

AVTko kideak ziren sartzen **hurrenak**, zortzi gonbidapen berezi zituzten eta. Berria - Harian

Lehenengo palakadak antzuak izan ziren, gerokoak ere bai, **hurrenek** hartxintzar zitirnak besterik ez zekartzaten; baina inor etsitzerainoko ahaleginak eginda abailduta zeudela, saria jaso zuten: zilarra! Berria - Kultura

• 3 adlag hurbil.

Gaueko zaindariak hasi ziren, egon behararen asperrean, hain **hurren** zeukaten haragi fresko eta lerdnaren tentazioari amore eman eta bakardadea aprobetxatuz, neskek barrura sartzen. Pako Aristi

4 (dagokion aditz-era burutuaren eskuinean) -tzeko zorian. ik **hurran** 5.

Altxatu-**hurren** zegoen, baina Ellenen begien belusezko xarmak geldiarazi zuen. eta gero, erori **hurren** dagoela, trebetasunez heltzen dio mostradorearen ertzari, eta oreka berreskuratzen du. Lopez de Arana

· Eta bizia galkizun sentitzen denean, gal-**hurren** edo galdua denean bilakutzen da ondasun, hala nola bizitarako ez den ganadua hiltegitik igarotzean baita ondasun bilakutzen eta diru bihurtzen. Iñaki Segurola

· Solairu bakarreko eraikin hondatu **hurren** haren aurreko horman. Oskar Arana

5 **hurrena** (ETCn **4.587** agerraldi) **adlag** hurrengoan; ondoren.

Bat-batean, oihu batzuk entzun genituen, eta itzal batzuk ikusi lasterka; **hurrena**, auto baten motor-hotsa urrundu zen. Juan Kruz Igerabide

Trieste joko du **hurrena** Anjel Lertxundik bere bidaian. Berria - Kultura

Eta aldika-aldika, behin ezkerretatik **hurrena** eskuinetik [...] nota labur, beti berdin, triste hori entzuten nuen. Josu Zabaleta

Lehenik, orkatilak; **hurrena**, belauinak; gero, gerria eta saiheutsak; azkenik, lepo-hezurra. Karlos Linazasoro

Saul izango da lehen erregea (1030-1010); Dabid etorriko da **hurrena** (1010-970) eta Salomon gero (970-931). Jose Antonio Mujika

Bihar tiraniaren aitzakian izanen da, etzi zergak, etzidamu gure jauregiak, **hurrena** ogia... Fernando Rey

Hariztitan zehar aurrena, lur irauli berrian berdetzen hasitako galsoroen arteak **hurrena**. Jose Morales

Errusia zaharrean hiru bide erabat seguru zeuden helburu bat iristeko, eta alargunak esplikatu zizkion: aurrena dirua, **hurrena** dirua eta hurrenago, dirua! Matias Múgica

Kirxa begiztatu zuen, haren soingainekoaren ertza aurrena, haren ezker sorbalda **hurrena**, eta haren buru makurtua hurenago. Patxi Zubizarreta

Gero, batean Mugarra, bestean Erlo eta **hurrena** Mendaur, Euskal Herria ezagutuz joan omen zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrena, bigarrena, eta **hurrena**, hirugarrena. Jon Muñoz

Hurrena, Galia eta Iberia alderantz, eta azkenik, Erroma eta Greziaraino. Patziku Perurena

Ehiza bezala, poesia ere kapritxosoa da; hilabete luzeetan mantendu izandako azeloaren ondoren pieza txikiren bat harrapa dezakezu, eta gero, **hurrena**, espero gabe, miraren aurrean jarriko zaizu ehizarik potoloena, poemarik beteena. Pako Aristi

Badakizu zer egingo duan **hurrena**, hor gora joaten garenean? Bernardo Atxaga

Gehiago gastatzen baduzu, **hurrena** natorrenean ordainduko dizut. Elizen arteko biblia

Hurrena esnatu nintzenez, egunsentia zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Beti izaten dugu geure baitan jarraipenaren oharrena, "**hurrena** datorrenaren" nolabaiteko kontzientzia. beti bezalako harrera atsegina egiten zien **hurrena** etortzen zirenean. Xabier Olarra

Momentu batez, **hurrena** jasoko zuen gutuna imajinatu zuen, txikiagoa, argazki zatiren batekin. Joxemari Urteaga

Handik lau urtera aurkitu nuen **hurrena**. Pako Aristi

Garapen iraunkorra zer den argitze aldera, Txostenak, **hurrena**, honakoa diosku: [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Buruileko Amabirjin biharamon **hurrena** da 1321ean, eta Gorritiko gaztelua baldere ipuzkoan enpenpe da berriro. Patziku Perurena

6 **hurrenagoko izlag**

Errusia zaharrean hiru bide erabat seguru zeuden helburu bat iristeko, eta alargunak esplikatu zizkion: aurrena dirua, hurrena dirua eta **hurrenago**, dirua! Matias Múgica

Kirxa begiztatu zuen, haren soingainekoaren ertza aurrena, haren ezker sorbalda hurrena, eta haren buru makurtua **hurrenago**. Patxi Zubizarreta

Kartoiakoa bat, plastikozkoa bestea, burdinazkoa hurrengoak, zurezkoa edo okumezkoa **hurrenagokoa...** gutxienez hamar tximeleta, gai desberdinez eginak denak.

Bernardo Atxaga

7 **hurrenean** hurrengo aldian.

Klokar mozorroa janztea erabakitzen duzun **hurrenean**, ez ezazu egin gure enpresa barruan. Joxan Elozegi

Queneauk liburu honetan bere buruari jarritako arauak askotarikoak dira: batean e hizkia erabili gabe berridatziko du pasadizoa, **hurrenean** hitzak elkarrekin trukatuko ditu arau arbitrarioei jarraiki, beste batean bertsokera finkoak ezarriko du hertsapena. Eguerditan, edo berantxago, Etchebater jaun-andereen ostatura izanen ginuen arras gure heinekoa [...] han aurkitzen ginen konpainia guziarekin: konpainia hortakoak ez haatik oro batean baina egun hau eta **hurrenean** hura. Herria

8 **hurrenik** hurrena.

Lehenik, mina asmatu zuen Txominek; **hurrenik**, medikutara joan behar zuela; azkenik, erradiografia eskuan zuela, esan zion amari: [...]. Joan Mari Irigoien

9 **handik hurrena**

Handik **hurrena**, Luis Fagoaga leitzarrak albokari buruz egindako idazlan baten berri izan nuen. Patziku Perurena

Handik **hurrena**, berriz, beste prentsaurreko baten aitzakian, Ajuria Enean elkartu ginen Diruzaina eta biok. Berria - Kultura

10 **hil hurren** (24 esaldi, 19 liburua eta artikulu 1ean; ETCn 189 agerraldi) hiltzeko zorian. ik **hurran** 6.

Anbulantzia sartu zutenean Bosgarren Etorbideak ulu egiten zuen oinazeari ezin eutsirik, hil- **hurren**. Lopez de Arana

Emaztea, hil **hurren**, ohean etzanda, kantuan, kementsu eta adorez, erlojuari ordurik ez jotzeko esaka. Imanol Zurutuza

Hil **hurren** dagoenak baino ez daki, zinez, oinaze gorriaren nolakoa eta lekukoari haren itxurak baino ez zaizkio ikusgarri. Patxi Zubizarreta

Dena bihurtzen da baratze, hil **hurren** denaren erreflexuak bezala. Josu Zabaleta

Gaixorik edo hil **hurren** zeuden umeen ondora. Paddy Rekalde

10a **izond**

Bilbora itzultzea Aresti hil- **hurren** harengana itzultzea izan da beti niretzat. Joseba Zulaika

Roast-beef gero eta erreago baten kolore aukeran belztu xamarra hartzen zuen britainiar hil- **hurrenaren** aurpegiak. Joxan Elozegi

10b (izen gisa)

·Bai, baina uste dut arazoren bat dagoela: esanen nuke hil **hurrenaren** hotsak izan direla eta gero zarata sor bat. Monika Etxebarria

11 **hurren arte** (11 esaldi, 8 liburutan; ETCn 230 agerraldi)

"**Hurren** arte, mutikoak, presaka nabil eta" esan zigun. Jon Arretxe

Irten ginenean, kaktusetarantz itzuli zen: "Agur, saguaro! agur, upel! agur indipiku! **hurren** arte!". Xabier Olarra

-**Hurren** arte -esan zidan artean ere. Eskarne Mujika

-**Hurren** arte -gorputza aterantz eramanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurren arte! -eta atea itxi zion. Anjel Lertxundi

12 **hurrena arte** (2 esaldi, 2 liburutan; ETCn 28 agerraldi) hurren arte

Eta **hurrena arte**. Txillardegi

13 **hurrenez hurren** baten ondotik hurrengo doala; bakoitzari buruz.

Beste hainbatetan bezala, zerbait idatzi behar duenak izan ditzakeen laguntzaile bakarrei hotsegin nien, A lagunari lehendabizi eta jarraian, **hurrenez hurren**, Z arteko beste letrei. Bernardo Atxaga

Ekoizpen-erraztasunak sintagman du indarra, hotsak **hurrenez hurren** fisikoki ahoskatzeko orduan. Lourdes Oñederra

Honela, adibidez, halako gauza halako eragile baten ondorioa da, eta berori, bere aldetik, berarena, eta honetara **hurrenez hurren**, lehen motorrerraino heldu arte, hots, bitarteko gauza horien guztien egiazko eragileraino. Xabier Kintana

Eta bigarren horrek ere, bere aldetik, lehenago beste bat ukan duela, eta horrela **hurrenez hurren**, harik eta azken formara heldu arte. Xabier Kintana

Hurrenez hurren piztu ziren sabaikoak, bristada egin zuten harilkatzen ari ziren motorren kobrean. Koldo Izagirre

Baina gero bost zenbaki esan zituzten **hurrenez hurren**, bat ere ez berarena, bosgarrena beste norbaiten kartoian bingoa izan zen zenbaki bat. Koro Navarro

Eskuinetik hasita, **hurrenez hurren** proba egitea proposatu zuen Antinook. Juan Kruz Igerabide

Hauek dira, **hurrenez hurren**: Latino Amerika Estatu Batuen eraginpean; Ekialde Urruna eta Hegoaldeko Asia Japoniaren eraginpean; Europa Ekialdea, Ekialde Hurbila eta Afrika Europar Batasunaren eraginpean. Koro Navarro

Giltzak eta mukizapia poltsikoetara itzuli ziren eta erlojua eta gerrikoa **hurrenez hurren** eskumuturrera eta gerri ingurura. Aingeru Epaltza

Oihartzun luzatuaren kasuan ikusi ditugun aldaerak aurkituko ditugu oihartzun murriztuan ere: hitzak hasierako letrak, tartekoak edo bukaerakoak gal ditzake, baina oraingo honetan aferesia, apokopea eta sinkopa dira, **hurrenez hurren**, hizkuntzalaritzari maileguan hartuko dizkiogun hitz bereziak. Iñaki Arranz

Cranes biak, Stephen eta Hart, hogeita zortzirekin eta hogeita hamabirekin, **hurrenez hurren**. Oskar Arana

14 **hutsaren hurrena** (28 agerraldi, 13 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 207 agerraldi) (izan aditzarekin) hutsaren hurrengo.

-Giza arima hutsaren **hurrena** da zuretzat, argi dago. Jose Morales

Liburuek hutsaren **hurrena** balio dute Parisen. Itziar Otegi

-Ez dut uste hutsaren **hurrena** denik -esan zuen Tootlese sekiguan. Julen Gabiria

44 urte ezpaita hutsaren **hurrena**. Txillardegi

Hala ere, zigor horiek hutsaren **hurrena** ziren bere amonak pentsatua zeukanaren aldean. Iñaki Mendiguren

Guztira, lanbide arteko sei akordio sinatu dira, baina horietan LHK-k izan zuen parte-hartzea «**ia hutsaren** hurrena» izan zela onartu zuen. Berria - Ekonomia

15 **hutsaren hurreneko izlag**

Hutsaren hurreneko prezioetan. Oskar Arana

16 **hutsaren hurrenetik**

-Ni, orduan, aberastuko naiz -esan zuen Txixikovek-, zeren, nolabait esatearren, **hutsaren** hurrenetik hasiko bainaiz. Jose Morales

17 **orain hurrena** (ETCn 70 agerraldi) aurrekoan.

Orain **hurrena** zaluagoa hengoan hi ere! Pako Aristi

Orain hurrena sailkapeneko azkenarekin jokatu zutenean galdu egin zuten. Berria - Kirola

Orain hurrena ikusi ginenetik denbora guztian edan besterik ez dut egin. Matias Mujika

Orain **hurrena**, emakume eder hura botila bat ardo eskuan zuela nire leihotik barrura sartu zenean [...] ez nuen jakin deabrua zen ala zeruak eskaintzen zidan opari bat... Anjel Lertxundi

-Aizu, Gerald -esan zuen Minot jaunak, eta han hasi zen, kontu-kontari, **orain hurrena** izandako golf-saioa zuloz zulo azaltzen. Mirentxu Larrañaga

-Andremariarren, zerutik hurbilago dago berori orain **hurrenetik** hona, txapin baten altueraz. Juan Garzia

18 **orain hurreneko izlag**

Baldin eta hilda balego, sekula ez nukeen pentsatu beharko orainaz, ez eta orain **hurreneko** asteaz. Mirentxu Larrañaga

Burkoei tirabiraka ibili baitzara, jira eta bira, orain **hurreneko** bost minutotan. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

dira hurrenez hurren (5); **eta hurren** (8); **eta hurrenez hurren** (12); **hil hurren** (24); **horrela hurrenez hurren** (5); **hurren arte** (11); **hurren dauden** (4); **hurren erredakzioa** (4); **hurren eta** (4); **hurren gertatzen** (5); **hurren kontatu** (7); **hurrenez hurren** (724); **hurrenez hurren erredakzioa** (4); **hurrenez hurren eta** (4); **hurrenez hurren gertatzen** (5); **hurrenez hurren kontatu** (7); **sailkapena hurrenez hurren** (6); **seme eta hurren** (4); **ziren hurrenez hurren** (8); **zituzten hurrenez hurren** (4)

ariko da hurrena (3); **baina hurrena** (4); **baitzen hutsaren hurrena** (3); **da hurrena** (11); **dator hurrena** (3); **diot hurrena** (3); **du hurrena** (12); **dute hurrena** (3); **eta hurrena** (89); **eta hurrena ere** (3); **eta hurrenago** (4); **etorri zen hurrena** (3); **gero hurrena** (4); **handik hurrena** (8); **hurrena bere** (3); **hurrena berriz** (6); **hurrena beste** (7); **hurrena ere** (5); **hurrena eta** (6); **hurrena ikusi** (5); **hurrena ikusi nuenean** (3); **hurrena nire** (3); **hurrena nor** (3); **hurrena zer** (4); **hutsaren hurrena** (29); **izan zen hurrena** (5); **nuen hurrena** (8); **orain hurrena** (16); **zen hurrena** (18); **zion hurrena** (5); **ziren hurrena** (7); **zituena hurrena** (3); **zitzea hurrena** (3); **zuen hurrena** (34); **zuten hurrena** (5)

hil hurrenaren (5); **hurreneko terminoak** (3); **hurrenez hurreneko** (22); **hurrenez hurreneko terminoak** (3); **orain hurreneko** (4)

beti hurrenez (3); **dira hurrenez** (5); **dira hurrenez hurren** (5); **direla hurrenez** (3); **direla hurrenez hurren** (3); **ditu hurrenez** (3); **ditu hurrenez hurren** (3); **dituen hurrenez** (3); **edo hurrenez** (3); **eta horrela hurrenez** (5); **eta hurrenez** (14); **eta hurrenez hurren** (12); **guztia hurrenez** (3); **guztia hurrenez hurren** (3); **horrela hurrenez** (5); **horrela hurrenez hurren** (5); **hurrenez hurren** (724); **hurrenez hurren erredakzioa** (4); **hurrenez hurren eta** (4); **hurrenez hurren gertatzen** (5); **hurrenez hurren kontatu** (7); **hurrenez hurreneko** (22); **hurrenez hurreneko terminoak** (3); **hurrenez hurrengo** (20); **hurrenez hurrengo sintesiaren** (5); **hurrenez hurrengo** (6); **hurrenez hurrengo den** (3); **sailkapena hurrenez hurren** (6); **sailkatu ziren hurrenez hurren** (5); **ziren hurrenez** (8); **ziren hurrenez hurren** (8); **zituzten hurrenez hurren** (4); **zituzten hurrenez hurren** (4)

hurrena ik **hurren** 5.

hurrendu, hurren, hurrentzen da *ad* (aditz elkartuen bigarren osagai gisa) hurrandu.

Juan Krutz Zapirainek Jenobeba Brabantekoaren bizitza gai harturik jarri zituen bertsoetan, hala dio semeak, basamortuko bizimodu urrikgarri hartan ama hil-**hurrentzera** datorrela sumatzen duelarik: Ai, Jaungoikua! Iñaki Segurola

Berriro mahaira eserita, esaten dio neskek egia osoa, beti bere bizitza gezuraren amarruaz estaltzeaz akitiba; zertarako engainatu erbesteko mutil bat, eta zertarako engainatu bere burua, urteen ispilan eta herri guztiaren aurrean neskezahar-**hurrentzen** ari dena? Pako Aristi

(hurrengo, orobat urrengo g.er.) izlag (ikus beheko konbinatorian hurrengo izenoagunaren agerraldi maizkoenak)

1 **hutsaren hurrengo** (208 agerraldi, 87 liburu eta 48 artikulutan; ETCn 1.787 agerraldi) (izan aditzarekin) ik **hurren** 14.

Haren aurrean, nazio guztiak ezer ez, **hutsaren** hurrengo dira harentzat. Elizen arteko biblia

Idolo guztiak ez dira ezer, horien egintzak **hutsaren** hurrengo, irudiak haizea bezain hutsal. Elizen arteko biblia

-Hutsaren atzetik ibili ziren, **hutsaren** hurrengo bihurtu dira. Elizen arteko biblia

- izlag ik hurren 15.

Hutsaren hurrengo huskeria batez ari gara. **Jose Morales**

Laburbilduz, **hutsaren** hurrengoa da gizonari buruz duen ezagutza (Platon, Gorgias). **Askoren artean**

· Garbi zegoen **hutsaren** hurrengoa nintzela beraiantzat. **Joxan Elozegi**

Hutsaren hurrengoa Ingalaterran zain dugunaren aldean. **Edorta Jimenez**

Ateraldi xebebreak, nonbait, balioaren aldetik **hutsaren** hurrengoak. **Iñaki Arranz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aurkari hurrengo (10); **baina hurrengo** (94); **baina hurrengo urtean** (8); **baita hurrengo** (16); **bere hurrengo** (29); **da hurrengo** (136); **da hurrengo pausoa** (8); **da hurrengo urratsa** (14); **dago hurrengo** (9); **dela hurrengo** (10); **den hurrengo** (21); **dira hurrengo** (40); **ditu hurrengo** (28); **dituzte hurrengo** (16); **du aurkari hurrengo** (8); **du hurrengo** (120); **du hurrengo bi** (10); **duen hurrengo** (16); **dugu hurrengo** (11); **dut hurrengo** (13); **dute hurrengo** (38); **duzen hurrengo** (8); **ea hurrengo** (9); **edo hurrengo** (12); **egin eta hurrengo** (12); **egin zuen hurrengo** (10); **ere hurrengo** (16); **eta hurrengo** (693); **eta hurrengo astean** (8); **eta hurrengo bi** (11); **eta hurrengo egunean** (119); **eta hurrengo egunerako** (10); **eta hurrengo egunetan** (29); **eta hurrengo goizean** (29); **eta hurrengo hilabeteetan** (11); **eta hurrengo hiru** (9); **eta hurrengo lau** (9); **eta hurrengo partida** (8); **eta hurrengo urtean** (50); **eta hurrengo urteetan** (15); **genuen hurrengo** (8); **gure hurrengo** (10); **haren hurrengo** (9); **hasi eta hurrengo** (9); **hil eta hurrengo** (15); **hori hurrengo** (10); **hurrenez hurrengo** (20)

hurrengo aldi (18); **hurrengo aste** (9); **hurrengo astean** (114); **hurrengo asteartean** (8); **hurrengo asteburuan** (23); **hurrengo asteetan** (53); **hurrengo asteko** (15); **hurrengo astelehenean** (20); **hurrengo asterako** (18); **hurrengo atalean** (14); **hurrengo aurkaria** (11); **hurrengo batean** (83); **hurrengo baterako** (19); **hurrengo bi** (156); **hurrengo bi asteetan** (8); **hurrengo bi egunetan** (11); **hurrengo bi partidak** (8); **hurrengo bi urteetan** (27); **hurrengo biak** (11); **hurrengo bietan** (14); **hurrengo bilera** (15); **hurrengo bileran** (12); **hurrengo bost** (26); **hurrengo denboraldia** (12); **hurrengo denboraldian** (61); **hurrengo denboraldiari** (9); **hurrengo denboraldirako** (19)

hurrengo egun (18); **hurrengo eguna** (31); **hurrengo egunak** (13); **hurrengo egunean** (570); **hurrengo egunean bertan** (17); **hurrengo egunean ere** (14); **hurrengo eguneko** (31); **hurrengo egunera** (16); **hurrengo egunera arte** (13); **hurrengo egunerako** (30); **hurrengo egunetako** (9); **hurrengo egunetan** (241); **hurrengo egunetan ere** (16); **hurrengo egunotan** (23); **hurrengo erregea** (15); **hurrengo erroka** (13); **hurrengo esaldia** (8); **hurrengo fasean** (16); **hurrengo faserako** (10); **hurrengo faserako** (12); **hurrengo galdera** (20); **hurrengo gauean** (44); **hurrengo geltokia** (8); **hurrengo goiza** (10); **hurrengo goiza arte** (8); **hurrengo goizean** (228); **hurrengo goizera** (9); **hurrengo goizera arte** (9); **hurrengo hamar** (15); **hurrengo hamarkadan** (8); **hurrengo hamarkadetan** (8); **hurrengo hauteskundeetan** (36); **hurrengo hauteskundeetarako** (8); **hurrengo helburua** (16); **hurrengo hilabete** (8); **hurrengo hilabeteetan** (11); **hurrengo hilabeteetan** (69); **hurrengo hilabeteetan** (10); **hurrengo hiru** (79); **hurrengo hiru asteetan** (8); **hurrengo hiru egunetan** (10); **hurrengo hiru urteetan** (24); **hurrengo hitzak** (8); **hurrengo hitzordua** (20)

hurrengo igandean (31); **hurrengo ikasturtean** (13); **hurrengo jardunaldia** (8); **hurrengo jardunaldian** (23); **hurrengo jardunaldietan** (8); **hurrengo jokaldian** (12); **hurrengo kanporaketa** (15); **hurrengo kanporaketan** (27); **hurrengo kanporaketarako** (8); **hurrengo kapituluan** (13); **hurrengo lanan** (8); **hurrengo larunbatean** (28); **hurrengo lau** (72); **hurrengo lau urteetan** (28); **hurrengo lau urteetarako** (10); **hurrengo legegintzaldian** (12); **hurrengo liburua** (9); **hurrengo liburuan** (11); **hurrengo minutuan** (10); **hurrengo minutuetan** (11); **hurrengo orduetan** (22); **hurrengo ostiralean** (9); **hurrengo partida** (89); **hurrengo partidak** (12); **hurrengo partidan** (21); **hurrengo partidetan** (17); **hurrengo pausoa** (52); **hurrengo pausoak** (13); **hurrengo presidentea** (11); **hurrengo saioa** (16); **hurrengo saioan** (11); **hurrengo sasoi** (23); **hurrengo sei** (23)

hurrengo udaberrian (10); **hurrengo udal** (10); **hurrengo ulean** (12); **hurrengo urratsa** (75); **hurrengo urratsak** (13); **hurrengo urte** (12); **hurrengo urtea** (9); **hurrengo urtean** (283); **hurrengo urtean ere** (10); **hurrengo urtearen** (9); **hurrengo urteetako** (11); **hurrengo urteetan** (112); **hurrengo urteetan ere** (9); **hurrengo urteetarako** (10); **hurrengo urteko** (63); **hurrengo urteotan** (14); **hurrengo urtera** (9); **hurrengo urterako** (36)

hutsaren hurrengo (55); **izan zen hurrengo** (16); **izango da hurrengo** (27); **izango du hurrengo** (11); **jokatuko du hurrengo** (17); **litekeena da hurrengo** (11); **litzateke hurrengo** (13); **nire hurrengo** (19); **nuen hurrengo** (20); **orain hurrengo** (12); **utzi eta hurrengo** (8); **z hurrengo** (10); **zen hurrengo** (83); **zion hurrengo** (14); **ziren hurrengo** (30); **zitu**en hurrengo (18); **zituzten hurrengo** (9); **zitaiz**en hurrengo (8); **zuen hurrengo** (80); **zuen hurrengo egunean** (8); **zure hurrengo** (17); **zuten hurrengo** (33)

bai eta hurrengoan (18); **baina hurrengoan** (19); **edo hurrengoan** (14); **eta hurrengoak** (21); **eta hurrengoan** (132); **eta hurrengoan ere** (25); **eta hurrengoaren** (15); **eta hurrengoari** (9); **eta hurrengoetan** (14); **eta hurrengorako** (11); **hurrengoak dira** (8); **hurrengoan beste** (9); **hurrengoan ere** (45); **hurrengoan ere bai** (22); **hurrengoan ez** (22); **hurrengoaren hasieran** (8); **hurrengoetan ere** (8); **hurrengora arte** (19); **hutsaren hurrengoak** (13); **hutsaren hurrengotzat** (8); **orain hurrengoan** (17)

hurrenkatu, hurrenka(tu), hurrenkatzen du *ad* hurrenkera jakin batez antolatu.

Nire ordezkioak, kimikari gazte ez horratik aparteko ernea bera, iruzkin bitxi bat egin zian: lote akastunak nolabaiteko erregularitasunez **hurrenkatzen** zituan, bost onak eta bat txarra. **Juan Garzia**

hurrenkera (*ETCn 2.432 agerraldi*) 1 iz segida, zerrenda, andana... batean, osagaiak edo banakoak hurrenez hurren antolaturik dauden era. ik **ordena 3**.

Hurrenkera alfabetikoak beste **hurrenkera** batzuk desordenatzeko ere balio du. **Iñaki Arranz**

Alfabetoaren **hurrenkeraz** ari gara -dela letra guztiena dela bokalena. **Iñaki Arranz**

Hurrenkera kronologikoan. **Txillardegi**

Denborazko **hurrenkeran**. **Juan Garzia**

Alderantzizko **hurrenkera** ezartzen denean. **Lourdes Oñederra**

Atzekoz aurrerako **hurrenkeran**. **Joxerra Garzia**

Lerro bakoitzean oinarri hauek edozein **hurrenkeratan** agertzen ahal dira, eta **hurrenkera** hori da, hain zuzen, informazio genetikoaren edukia. **Pello Salaburu**

IS - Aditza - IS **hurrenkera** arrunta. **Itziar Laka**

Saia zaitetz ezkerreko eskuarekin 1, 2, 3... **hurrenkera** idazten eta, aldi berean, eskuineko eskuarekin 9, 8, 7... **Irene Aldasoro**

hurrenkera idazten. **Irene Aldasoro**

Ni etxeakoandrea naiz, kazetaria, eta, tarteka, idazlea; **hurrenkera** horretan. **Ana Urkiza**

Zer esango duen pentsatuko du lehenik eta zer **hurrenkeratan** esango duen erabakiko gero, arrazoibiderik indartsuen eta landuena bukaerarako gordez. **J. Garzia / A.**

Egaña / J. Sarasua

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondorioz sortu den hitz- **hurrenkerari** "perpauza" deituko diogu. **Itziar Laka**

Fonema- **hurrenkera** jakin bat bi erataru ulertu ahal izateak. **Itziar Laka**

Eman dezagun tresna hau hasierako egoeratik abiatu, egoera- **hurrenkera** batetik igaro (aldaketa bakoitzeko hitz bat sortuaz), eta bukaerako egoeran gelditzen dela. **Itziar Laka**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderantzizko hurrenkeran (3); **beste hurrenkera** (9); **beste hurrenkera batean** (5); **bukaerako hurrenkera** (5); **eta hurrenkera** (3); **fonema hurrenkera** (14); **fonema hurrenkera bat** (3); **hasierako hurrenkera** (4); **hurrenkera bakar** (3); **hurrenkera bat** (11); **hurrenkera batean** (7); **hurrenkera batetik** (3); **hurrenkera batzuk** (3); **hurrenkera ez** (4); **hurrenkera gramatikak** (4); **hurrenkera guztiak** (4); **hurrenkera horiek** (3); **hurrenkera horretan** (3); **hurrenkera kronologikoan** (3); **zein hurrenkeratan** (3)

hurrentasun iz hurbiltasuna.

Hizkien arteko **hurrentasunak** urruntasunari egiten dio leku, eta irakurleak saltoka aritu beharrean dago, ariketa zail samarra bada ere. **Iñaki Arranz**

hurreratu (*ETCn 3.305 agerraldi; orobat urreratu g.er.*), hurrera(tu), hurreratzen 1 da *ad* hurbilera etorri, hurbildu.

Hutsik zegoen leihora **hurreratu** zen. **Patxi Zubizarreta**

Herria, Jendea, kiosko aurrera **hurreratu** da. **Edorta Jimenez**

Martin sofarraino **hurreratu**, eta han zegoen emakumearen alboan eseri zen. **Aritz Gorrotxategi**

Haiengana abiatu zen, haiengana **hurrreratu**. Patxi Zubizarreta

Astiro **hurrreratu** zen atera. Patxi Zubizarreta

Estuan **hurrreratu** eta ukondotik oratu zion Luigik. Josu Landa

Zanbuluka **hurrreratu** zen ea nor zen ikusteko. Josu Landa

Ellen itsumustuan **hurrreratu** zitzaion. Lopez de Arana

Lasai egon zen neska **hurrreratu** zitzaion arte. Patxi Zubizarreta

Sarrerako langara heltzean, hiru zakurtzar **hurrreratu** zitzaizkion zaunka bizian. Joxemari Urteaga

Gaixoa heriotzara **hurrreratzen** ari zela ikusiz. Askoren artean

«Einsteinen ametsera **hurrreratu** direnak» saritu dituzte Nobeletan. Berria - Gaiak

Han guardia egiten zeuden sarrazenoek **hurrreratzen** ikusi zituztenean. Askoren artean

Sortzaile nomadaren obrara **hurrreratuz**. Berria - Kultura

Artifizialtasunera zenbat eta gehiago **hurrreratu**, orduan eta hobeto ikus dezakedalako errealitatea. Berria - Kultura

6-1 galtzen joan ostean, 7-6 **hurrreratu** ziren. Berria - Kirola

2 joan; etorri.

Jende ugari **hurrreratu** zen Iruñeko Labrit pilotalekura Aspe eta Asegarce enpresetako bikoteak batzen zituen partida ikusteko. Berria - Kirola

Antolatzaileek azaldu dute uste baino bisitari askoz gehiago **hurrreratu** direla Ansioko erakustazoka berrira hasierako bi egunetan. Berria - Ekonomia

• 3 du *ad* hurbilera ekarri.

Mrs. Merivalek bere aulkia **hurrreratu** zuen. Lopez de Arana

Seriotasun fermutuaz **hurrreratu** zuen bere kopa Luigirenera. Josu Landa

Butanozko berogailura **hurrreratu** zituen eskuak. Unai Iturriaga

Ezpainak amodioz **hurrreratu** zizkion eta etorkizuneko elkarbizitzaz mintzatu. Patxi Zubizarreta

Ontzia moilara **hurrreratze**ko ahaleginean. Edorta Jimenez

Patxadan erreaz zihoina egurraren pirt-port hotsak entzun zituen, eta, orri zuria **hurrreratuz**, su eman zion. Joxemari Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

astiro hurrreratu (3); **bat hurrreratu** (24); **bat hurrreratu zitzaidan** (3); **bat hurrreratu zitzaion** (8); **eta hurrreratu** (5); **gazte bat hurrreratu** (3); **gehiago hurrreratu** (6); **harengana hurrreratu** (6); **hurrreratu ahala** (8); **hurrreratu da** (11); **hurrreratu dira** (4); **hurrreratu egin** (21); **hurrreratu egin zen** (6); **hurrreratu egin zitzaion** (3); **hurrreratu ere** (4); **hurrreratu eta** (38); **hurrreratu ginen** (3); **hurrreratu naiz** (5); **hurrreratu nintzen** (13); **hurrreratu zaio** (5); **hurrreratu zen** (57); **hurrreratu ziren** (14); **hurrreratu zitzaidan** (9); **hurrreratu zitzaion** (4); **hurrreratu zitzaion** (33); **hurrreratu zuen** (4); **hurrreratuz joan** (3); **leihora hurrreratu** (9); **leihora hurrreratu eta** (3); **mahaira hurrreratu** (3); **mantso hurrreratu** (3); **ondora hurrreratu** (3); **ugari hurrreratu** (3)

bat hurrreratzen (4); **gehiago hurrreratzen** (4); **hurrreratzea lortu** (5); **hurrreratzea lortu zuten** (3); **hurrreratzen ari** (16); **hurrreratzen ari zela** (4); **hurrreratzen ari ziren** (3); **hurrreratzen da** (8); **hurrreratzen eta** (3); **hurrreratzen hasi** (3); **hurrreratzen zen** (5); **mahaira hurrreratzen** (3); **mahaira hurrreratzen da** (3); **niregana hurrreratzen** (3)

hurrreratze (*orobat urreratze g.er.*), iz hurbiltzea.

Estufa non ipini eztabaidak izaten baziren, gero estufara **hurrreratze** ezkutuak izaten ziren, beroarekin etxeko sukaldeko intimitate eta sosegu galdua errekuperatzeko.

Joseba Sarrionandia

Adimenik gabeko izakiek [...] ez dituzte euren artean topaketa ezustekoak edota aldian aldiko **urrreratze** bakanak baino, betiere moralitate gabekoak. Andres Urrutia

Euskalkira eta ahozko hizkerara **hurrreratze** hori egiteko ez da Euskara Batua ikasi arte itxaron behar. Koldo Zuazo

Psikologian Lizentziadun Susana Conejero emozioen munduarekiko lehen **hurrreratze** saioa egiteko arduraduna izan da. Berria - Euskal Herria

hurri ik urri¹.

hurritz (*orobat urritz*) 1 iz *Corylaceae* familiako zuhaixka, fruitutzat hurra ematen duena (*Corylus avellana*).

Hurritzaren hostoepen ezkutututa. Hasier Etxeberria

Otsaihenak intsusen, otsalzarren eta **hurritzen** behealdea itotzen zuen. Jose Morales

Hurritz purpura batek jakinarazi zion gortea ez zegoela ohi bezain umore onez. Julen Gabiria

Hurritz erdi-basati hori ezagutzen dugu gehienik, lur ondoan ipurditik zarba txuxen ugariak ateratzen zaizkiona. Pello Zabala

Dueloak ez dira sekula ontzian egingo, baizik eta basoan, **hurritzen** artean. Harkaitz Cano

Hurritzak emakumearen ugalkortasuna indartzen zuelako sineste zaharraz. Patziku Perurena

Mihura kendu ezean, ihartu eginen da **hurritza**; halaxe berean hil, karenak egin ezean, ama erditu berria, haur jaio berriaren bizi iturria. Patziku Perurena

2 hurritzaren zura.

Erdi Aroan oraindik, **hurritzezko** makiltxo batekin saiatzan baitziren lurpeko urbegiak eta urremeztzak bilatzen. Patziku Perurena

Horra zergatik maite dizun artzaiak hurritz makila, itzaiak **hurritzezko** akuilua... Patziku Perurena

Horra zergatik, baserriko lanabes guzientzako, **hurritzezko** kiderrak, kirtenak, euskarriak, eskulekuak. Patziku Perurena

Hurritz-makilatxo zerabilten beti Normandian behiek: hiru ukittu **hurritzarekin**, eta esnebehi emankor egiten omen zen. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

On Camillok lepoko zainak **hurritz** adarrak ziruditela zeuzkan. Koldo Biguri

Hurritz azalaren koloreko aurpegi hori ederra da benetan. Iñaki Zabaleta

Inglaterra zaharrean, **hurritz**-kakatxa zerabilten eskuetan azti eta ur-bilatzaileek, lurpeko ur-lasterrak eta beste altxorrek aurkitzeko. Pello Zabala

Hurritz-zarbaz landutako hesia egiteko. Pello Zabala

Hurritz lerro baten ondora iritsita hiru alanbre paralelo topatu ditu. Pello Lizarralde

Tabikeak egiteko ere erabili ziren horrelako **hurritz**-hesiak. Pello Zabala

4 *hurritz arbola* hurritzeta.

Behin parkera iritsitakoan, **hurritz** arbola batzuen azpiko eserlekuan jartzen nintzen. Hasier Etxeberria

5 *hurritz makila* hurritzezko makila.

Pauso bizkorrez abiatu zen azaroko ilunabarrean, bere **hurritz**-makila sendoaz jarraitasun beti beraz lurra joz. txapela buruan, eta eskuan / **hurritz** makila urduria. Irene Aldasoro

Auskalo zenbat akuilu egin izan diren **hurritz** makila sendokotez. Pello Zabala

Oialoken zirinez igurtzitako **hurritz**-makila edo burdina imantatu berezietz urre bila saiatzan ziren ur-bilatzaileak. Anjel Lertxundi

· **Hurritz**-makilatxo puskatuz gero. Pello Zabala

hurritzondo *iz* hurritza.

Uzten ditut ezker, gain haietan, bide xuko bat segituz ikusiko nituen **hurritzondo**, pago eta laparrak. **Piarres Aintziart**
Eta **hurritzondoak** bederatzirte behar omen ditu, txertatu ezean, fruitu emateko. **Pello Zabala**

hurrizpe *iz* hurritzaren azpialdea.

Hurrizpea, toki egokiena omen, antzinako kultura batzuetan, elkarri baietza eman behar zioten gazteentzat, maitasun deiari erantzuteko. **Patziku Perurena**
Axenari, ezinegonak erasanda, Lepic jauna eta anaia nagusi Felix esnatzera joan da lo-kuluxka egiten ari diren lekura, baratzeko **hurritzpera**. **Itziar Otegi**

hurritzi *iz* hurritz saila, hurritzak landatu diren eremua.

Bazekiela, ausartu ezinda, **hurritziko** eserlekuan kizkurtzen nintzela trikuaren antzera, bera zegoen lekutik berrehunen bat pausora. Irlanda aldeko ipui zahar askotan ere, emazteki eta dukesa antzu askok, **hurritzietara** jotzen dute, hurritzaren jainkosa ugalkorrari emal ditzan eskatzera. **Hasier Etxeberria**

hurrup (onomatopeia) 1 hurrupatzean egiten den hotsa.

Honi ausik eta horri **hurrup** hastandu nuen, bederen, hitzordua hitzartu izanaz bereganatu gogo ninduen damuaren itzala. **Aingeru Epaltza**

2 hurrup eta klik

Saristatze eta " **hurrup eta klik** "-en ondotik, xerri tipia jastatuz egunaren bururatzea proposatua zauku. **Herria**

Ondotik **hurrup eta klik**. **Herria**

12etarik harat: **hurrup eta klik**, Ezpeletako txarangak eta Gaiteroek animaturik. **Herria**

Etor zaitezte **hurrup eta klik** egiterat! harri batez bi xori... **Herria**

Urriaren 14 an igandearekin, HAZPARNEn, 11etan ipuinak **hurrup eta klik** Xuriatean. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eterditan ipuinak hurrup (3); **hurrup eta** (11); **hurrup eta klik** (10); **ipuinak hurrup eta** (5)

hurrupa (*ETCn 559 agerraldi; orobat hurrup g.er. eta urrupa g.er.*) 1 *iz* behingoan ahoratzen edo irensten den edari kopurua; hurrupatzea. ik **zurripada; trago**.

Botila bat ardo atera zutelarik, Alalek lehen **hurruparekin** ekin zion mihia dantzatzeari: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Mohamed Chukrik kopa **hurrupa** batean hustu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Hurrup batean edan zuen zerbitzaterako. **Unai Iturriaga**

Beste **hurrup** bana edan genuen Bordeleko ardotik. **Oskar Arana**

Beste **hurrupa** batzuk hartu nituen. **Fernando Rey**

Joantok sorbaldak goratu zituen eta sagarno **hurrupa** luzea hartu. **Elena Touyarou**

Hurrup txiki baina luzetan edan zuen ardoa. **Unai Iturriaga**

Zigarroari azken **hurrupa** eman, eta motxikina bota nuen uretara. **Anjel Lertxundi**

Gero **hurrupa** ttikietan jarraitu zuen edaten. **Patxi Zubizarreta**

Plazako ostatuan, garagardo bat bi **hurripaz** edan nuen. **Daniel Landart**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kafe **hurrupa** batzuk edan zituen, niri begira. **Fernando Rey**

Azken datila irentsi, eta azken te- **hurrupa** zanga-zanga edan zutenerako, lasaitua zen Habibi. **Jon Muñoz**

Gazteak arno **hurrupa** bat edan zuen eta dadoak jaurtiki zituen. **Elena Touyarou**

Huntzak bere kantu **hurripak** hasten ditu berriz. **Michel Oronoz**

3 hipa eta hurrupa

Hipa eta **hurrupa** ari zarete Mazella eta biak. **Xabier Montoia**

4 hurrupa egin

Potzolak, irriñoa galdu gabe, **hurrupa** egin zuen bere katilutik. **Aingeru Epaltza**

Berehalakoan, kopa Besagain ardo gazteaz bete, eta **hurrupa** egin du. **Patxi Zubizarreta**

Egin ezak **hurrup** eta esaiguk zer ikusi duan. **Pablo Sastre**

Kendallek **hurrupa** egin zion edariari, izotz puxketei kili-kili eraginez. **Javi Cillero**

· Botila husturik, azken **hurrupa** egin du. **Patxi Zubizarreta**

Abiatu aurretik, zahatua eskaini nion eta **hurrupa** bana egin genuen. **Juan Luis Zabala**

· Tomek gogoetatsu zirudien, Camel Filter zigarretari **hurrupa** egiten ziolarik. **Oskar Arana**

Petrusek bere hortz zikinen artean jartzen du pipa eta **hurrupa** egiten dio kemenez. **Oskar Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
beste hurrupa (5); **beste hurrupa bat** (4); **eta hurrupa** (7); **hurrupa bat** (15); **hurrupa bat edan** (4); **hurrupa batez** (3); **hurrupa egin** (7); **hurrupa egiten** (4); **hurrupa egiten dio** (3); **hurrupa luze** (3); **hurrupa luzea** (4); **kafe hurrupa** (4)

hurripada (*ETCn 39 agerraldi; orobat urripada ETCn 10 agerraldi*) 1 *iz* hurrupa.

Tipik, botila berreskuratuta, **hurripada** luze batez ospatu zuen bere ateraldia. **Aingeru Epaltza**

Berak edan zuen lehenik, bi **hurripada** luze, nire eskuetan utzi baino lehen. **Aingeru Epaltza**

Ohe ondotik goporra hartu eta **hurripada** txiki bat edan du Agerrek. **Aingeru Epaltza**

Hurripada egin nahi izan zion bere edalontziari, baina han horma puxkak baizik ez ziren gelditzen. **Aingeru Epaltza**

Bertze **hurripada** bat hartu nuen Beñatenetik. **Aingeru Epaltza**

Haurrak **hurripada** kendu zion bere plastikozko edalontziari. **Aingeru Epaltza**

Hurripada luzea kendu nion kopari. **Aingeru Epaltza**

Hurripada bat arno onartu nien, gogotik. **Hurripada** batez hustu nuen kafea. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estreinako kafe **hurrupadarekin** utzi zion tresnak pertsonifikatzeari. Unai Iturriaga
Aurreneko te-**hurrupadaz** geroztik, kiskalita zeukaten denek aho-sabaia. Jon Muñoz
Batek hutsera botatzen duen bizi-**hurrupada** bat bezala duk suspirio bakoitza. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hurrupada bat (6); **hurrupada luze** (4)

hurrupaka *adlag* hurrupa eginez.

Hurrupaka ari zen baso bete ardo edaten eta, horditasunaren eraginez, burua dilindan zebilkion. Patxi Zubizarreta
Loratetiko aulki batean eserita, marrubizko kina bat **hurrupaka** edanez. Jon Muñoz
Kafe kikatoratik **hurrupaka** edan zuen, likido garratz bizigarriak urdailerainoko bide osoa nola egiten zuen sentituz. Alberto Ladron Arana
Ohiko bezeroak behean, piano-barrean, beren martini idorrei **hurrupaka**. Oskar Arana

hurrupaldi *(ETCn 329 agerraldi)* iz hurrupa.

Errepetizioa bururatzean, ohi bezala Xabik **hurrupaldia** proposatzen du. Eneko Bidegain
Bai, jakin balu nola amorostua nenbilen eta nolako **hurrupaldiak** egiten nituen, bekatu edo ez bekatu, zoriona nasai zerion iturri batetik. Janbattitt Dirassar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskaini hurrupaldia (4); **eta hurrupaldi** (7); **hurrupaldi bat** (18); **hurrupaldi bat ere** (3); **hurrupaldi bat eskainia** (6); **hurrupaldi batekin** (4); **hurrupaldi eta** (4); **ondotik hurrupaldi** (6); **ondotik hurrupaldi bat** (5)

hurrupaldiño iz hurrupa txikia.

Lehenbiziko **hurrupaldiñoari** lotzen zaio eta iritzi artikulu batek interesaturik, irakurtzen hasten da. Eneko Bidegain

hurrupaño *(orobat urrupaño)* iz hurrupatxo.

-Garai nekeak... -komentatu zuen, **hurrupaño** bat edanik. Elena Touyarou
Denen buru Herriko Etxe aintzineko plazan zerrenda osoak egiten ahal izan du **urrupaño** bat. Herria

hurrupatu *(ETCn 422 agerraldi; orobat urrupatu g.er)*, hurrupa(tu), hurrupatzen **1** du *ad* (edari bat) hurrupaka hartu. ik zurrupatu.

Los Angelesko *Desert Inn* ostatuan zegoen, Mike Emerson polizia lagunarekin, kafea **hurrupatzen**. Itxaro Borda
Coca-cola hormatua **hurrupatzen** genuen hartan, kideak bi musu iheslariz despeditu ninduen. Itxaro Borda
Louiserekin tea **hurrupatzen** edo whiskia zurrutatzen zuen oroz. Itxaro Borda
Putzu batean ahoz behera erortzen niz eta zakur batek bezala nasaiki **hurrupatzen** dut. Michel Oronoz
Tabako ke ttipi baten **hurrupatzeko**. Eneko Bidegain
Hirurek jan-edatekoak **hurrupatzeko** baizik ez genuen ahoa irekitzen. Aingeru Epaltza

2 *hed/irud*

Euskaldun horiek aditza **hurrupatzen** duten bitartean, guk ricard honi tinkaldi bat eman diezaiogun arraiki. Itxaro Borda
Arteriak, oxigenoa eta ezinbesteko beste substantzia kimiko batzuk ekartzen ditu, motor batek erregaia **hurrupatzeko** duen sistemaren antzera. Irene Aldasoro
Zein ederra musukatzea, miazkatzea eta **hurrupatzea** laguna bero jartzen duten lekuetan! Luis Elberdin
Tristeziaren eta etsipenaren kopa oinazetsua **hurrupatua** zuen. Patxi Zubizarreta
Komuna husten den bezala **hurrupatzen** zaituen logalea. Joxan Elozegi

3 (hitz elkartuetan)

Garagardo **hurrupatzen** ari ginela, izendatzen ez zuen metropolis batean emazte batez amoros egon zela ikasi nuen agudo. Itxaro Borda

4 *irud*

Bestelakoak egunkarietan **hurrupatzen** zituen, urrunetik egiaz, aspaldi zuelako ez ziela sinesgarritasunik kausitzen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat hurrupatuz (5); **baten hurrupatzeko** (4); **baten hurrupatzeko** (4); **hurrupatu eta** (4); **on bat hurrupatuz** (3)

hurrupatxo iz hurrupa txikia.

Bere lehen berbak urik ote neukan galdetzeko izan ziren, eta esan nion neuk ere gustura egingo nuela **hurrupatxo**. Urtzi Urrutikoetxea

hurrupatxoka *adlag* hurrupa txikiak eginez.

Hurrupatxoka ahogozatu zuen don Ottaviok kafea, hizketan jarraitu aurretik: [...]. Jon Muñoz

hurrupatzaile *izond* hurrupatzen duena.

Bi milioi eta gehiago parasito odol **hurrupatzaileak** fuel gazi hartan itotzeko. Koldo Izagirre
Nire eskuak papar beltzaren horretan beheiti imajinatu nituen, guri sumatzen nuen larruazalaren beroaren **hurrupatzaile**. Aingeru Epaltza
Herriaren arima edo izpiritua suprapertsona edo organismo norbanakoen **hurrupatzaile** gisa kontzebitua, nazionalismoa, xenofobia, etab., *Volksgeist* espainolaren espeziifikoak ematen dute. Joxe Azurmendi

hurrupatze iz hurrupaka hartzea.

Hurruapatze erreflexuarekin jaiotzen gara, baina edoskitzen ikasi beharra daukagu. **Luis Elberdin**

husar 1 iz hainbat harmadako zalditeria arineko soldadua, uniforme ikusgarria janzen zuena.

Gobernadorearen alaba bahitzea **husar** baten ekintza litzatekeela, ez zibil batena. **Jose Morales**

Husar musikazale batek sableaz moztu omen zion besoa. **Felipe Juaristi**

Turko haien atzetik aritu zela Sobieski, **husarren** kasaka gorriek eta haien zilarrezko apaingarrri, urrezko brodatu eta ezpaten distrek liluratutik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Guardiako **husarren** koronela zen ordurako. **Karlos Zabala**

Eroso eseri zen, **husarren** koronel erretiratu batek edo Vishnepokromovek berak egingo luketen bezalaxe. **Jose Morales**

Eraz ulertzen da: **Husarren** 4.eko kapitain baten emaztearen maiteminez ari den herritarra zara. **Jon Alonso**

Zurezko **husar** besomotz eta sudur gabe batekin jolasean ari ziren biak. **Jose Morales**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Illehoriak kolore urdin iluneko **husar** -jaka dotore bat zeraman soinean. **Jose Morales**

Bazter guztiak piparen keaz betetzen zizkion **husar** -teniente erretiratu bat. **Jose Morales**

Hirian Ingermanlandski **husar** -errejimentua zegoela. **Jose Morales**

3

Itzalgaizka sartu diote sudurrean **husar** bat -tabakoz beteriko paper-tututxo bat alegia-. **Jose Morales**

Eta azkenean soilik konturatzen da **husarra** daukala sudurrean sarturik. **Jose Morales**

husgune iz hutsunea.

Ikus ezazu nehonek ere ez duzula aurkitzen ahal garunaren erdian hain errazki eta hainbeste gisatara, hara-honaka, mugi litekeen guriintxo bat eta, bestalde, garuneko **husgunetaraino** ez direla zain guztiak heltzen. **Piarres Xarriton**

Eta, behin haserretzen bazen, haren kolerak ez zuen ematzeko **husgunerik**, ez baretzeko atsedeen-lekurik edireiten. **Joan Mari Irigoien**

huskeria (ETCn 1.991 agerraldi) 1 iz garrantzirik, gorabeherarik edo axolarik ez duen gauza. ikezerezkeria; txikikeria.

Goroldioz estaliriko muino txikiak, izeidi bat, pinu gazte txikiz osaturiko sastraka ziztrinak, suak kiskalitako pinu-enbor zaharrak, basatxilarrak eta horrelako **huskeriak**. **Jose Morales**

Huskeria ematen du. **Anjel Lertxundi**

Huskeria bat dirudiena ere behin baino gehiagotan baliagarria izaten da. **Migel Angel Mintegi**

Hutsaren hurrengo **huskeria** batez ari gara. **Jose Morales**

Bere lurra lantzen duenak ogia ugari, **huskerien** atzetik dabilenak miseria sarri. **Elizen arteko biblia**

Kondenatuta daude **huskeria** eta arauak betetzera. **Iñaki Iñurrieta**

Azken bolada hartan liskarra besterik ez genuen, liskarra edozein **huskeriarengatik**. **Joxe Austin Arrieta**

-Phil, hi edozein **huskeriagatik** berotzen haiz. **Lopez de Arana**

Edaten eta **huskeriak** erosten xahutzen dituzte diruok. **Gotzon Garate**

Agian piltzar-biltzaile zaharra eta Georg Weiner elkar hartuta daudela eta liburuaren truke **huskeria** bat ordainduko didala. **Anton Garikano**

Bihar ordu honetan **huskeria** batean erosi ahal izango dituzue Samariako merkatuan zazpi kilo irin garbi nahiz hamalau kilo garagar. **Elizen arteko biblia**

Zutitu eta **huskeriez** jardun nintzen, garrasi bizian eta sekulako imintzioak eginez. **Koro Navarro**

Espiritu urduria eta **huskerietara** emana, unean unekoa besterik ikusten ez duen zuhurtasun beldurtia. **Juan Martin Elexpuru**

Besterik ezean, nahiago dut jendeak mutu ote naizen pentsatzea, **huskeria** hauspotzen nabilela entzutea baino. **Anjel Lertxundi**

Epailiek eman beharreko kalte-ordaina **huskeria** gertatu zenez gero, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Huskeriatzat baitzituena oinaze-minak. **Elizen arteko biblia**

Huskeriatzat jotzen dugu Artzain nagusiari arditxo bat kentzea. **Askoren artean**

Nork xahutuko luke, munduaren **huskeria** eta bere miseria ikusirik, bere denbora -bera den denbora-, bere-bere -bera- ez diren hitz jolasetan? **Juan Garzia**

San Pedrok, Jaunaren handitasuna eta bere **huskeria** ikusirik, ez utzi nahirik, esaten zion: [...]. **Patxi Altuna**

Batzuetan neure buruaz lotsatu egiten naiz arrakasta **huskeriazko** hoiek eragiten didaten atseginagatik! **Ramon Etxezarreta**

Ez diat neure izen ona zikindu nahi horrelako **huskeria** batengatik. **Jose Morales**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hain **huskeria** handia izanik, ez zuela merezi horretaz hitz egitea ere. **Jose Morales**

Gorputzaren heriotza **huskeria** hutsa dela, alegia. Harrotasuna, halakoetan, **huskeria** hutsal eta zikoitza da. **Juan Garzia**

Dena diseinuzkoa, ordea: **huskeria** garestiak. **Anjel Lertxundi**

Zeinen **huskeria** dotoreak eskuratzen zituzten aduanako funtzionarioek. **Jose Morales**

Huskeria eskisitoak margotzen zituen eta hiru liburu idatzi zituen. **Monika Etxebarria**

Haur denborako **huskeria** bat. **Matías Múgica**

3 (hitz elkartuetan)

Teologi **huskeriak** jorratzen ari izan ziren emaitza tamalgarriekin. **Iñaki Mendiguren**

Esan gabe doa ziklope-lan haren azken jomuga haitzak bere baitan erantsirik zeukan ehuneko 2 amianto **huskeria** hura erazte zela. **Juan Garzia**

4 huskeria izan

Musika **huskeria** da. **Jokin Muñoz**

Ez da **huskeria**, ezta? **Oskar Arana**

Potosiko meatzeetako zilarra **huskeria** da honen aldean. **Fernando Rey**

Baina arrisku horiek guztiak **huskeria** dira beste hainbaten aldean. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da huskeria (12); dela huskeria (4); dena huskeria (8); dena huskeria da (6); edozein huskeria (5); ere huskeria (4); ere huskeria da (3); eta huskeria (16); ez da huskeria (11); horrelako huskeria (6); hura huskeria (4); huskeria baino (4); huskeria baino ez (4); huskeria bat (37); huskeria bat da (3); huskeria batean (6); huskeria batek (3); huskeria batekin (3); huskeria baten (4); huskeria batengatik (7); huskeria da (30); huskeria da eta (4); huskeria eta (4); huskeria guztiak (3); huskeria hutsa (7); huskeria iruditu (3); huskeria izan (4); huskeria zela (4); huskeria zen (4)

edozein huskeriagatik (10); edozein huskeriak (3); edozein huskeriarengatik (3); edozer huskeriagatik (3); horiek huskeriak (3); huskeriak dira (4); huskeriaren bat (3)

husketa 1 iz hustea.

Jarduera ekonomikoa hiri horien inguruan antolatzen da, tarteko herrien **husketa** bultzatuz. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

-Zer da odol-**husketa** zirrarragarri hau? Txillardegi

Baina atzera egiterik ez zegoela ulerturik, neure aitort edo barne-**husketari** ekin nion: [...]. Txillardegi

husky (orobat huski g.er.) iz iparraldeko lurraldeetako txakurra, ile sarri zuri-beltza duena, trineoetatik tiratzeko erabiltzen dena.

Eguraldi ona dugu, jendez irakiten dago eguterako alde hau, hemen jesarrita hartzen dute ribeiroa nire herritarrek, egun pekinesen eta **huskyen** kakarik edukiko ez balu bezala noan espaloian. Koldo Izagirre

Siberiar **huski** txakur zuri-gris horietako bat. Anjel Lertxundi

Alaskako malamutak, samoyedoak, Siberiako **huskyak**. Gotzon Garate

Siberiar **husky** ar gris [...]. Gotzon Garate

husmin ik huts¹ 24.

husna 1 iz huts eta huts.

Husna joan ziren jokalariai aldagaeletara. Joxemari Iturralde

Laurogeita bederatzigarren minutua zen eta **husna** berdindurik zeuden. Aritz Gorrotxategi

Husna amaitu zen partida, eta 110. minutuan sartu zuen Alfredok Atletico Madrilen garaipeneko gola. Berria - Harian

2 husnako izlag

Bi partidetan garaipen bat eta **husnako** berdinketa bat lortu zuten donostiarrek. Berria - Kirola

Husnako da emaitza; talde bietako batek ere ez du ematen irabazteko interesik duenik. Oskar Arana

16 berdinketa izan ziren partidari, **husnakotik** 20nako berdinketara. Berria - Kirola

huspean ik huts³ 7.

hustasun 1 iz hutsa denaren nolakotasuna; hutsik dagoenaren egoera edo nolakotasuna.

Argi da, beraz, gorputza eta hutsunea elkarrengandik berex txandatzen direla, ez baitago guztizko betetasunik ez **hustasunik**. Xabier Amuriza

Ohartu orduko, gure kopa luzeek **hustasunaren** horrorea erakutsi zuten borzgarrenez. Aingeru Epaltza

Industrialdeko kale nagusiaren **hustasunean** ez zen bertze ibilgailurik bistara. noriaren goialdetik salto egiten dutenak **hustasunaren** amildegira. Aingeru Epaltza

Antzezlanak eszenatokiaren **hustasunarekin** jolas egiten du, espazioaren irakurketa mota asko eskaintzen ditu keinuen nahiz argien bidez Berria - Kultura

2 irud

Ez noski zuhurtziagatik [...] baizik eta haien nahitaezko **hustasunagatik**; hitz hutsek, buruko mina emateaz gain, enbarazu besterik egiten ez dutelako. Bernardo Atxaga

Sabelean **hustasun** izugarria banu bezala. Joan Mari Irigoien

Hustasun existentziala zorrotz azaltzen du Mikel Lasak, dioelarik: "Jainko hotza daukat ariman". Juan Kruz Igerabide

Hustasun hotza sentitu zuen. Ibon Uribarri

Hondo beltzeko **hustasun** bat hedatu zitzaion barnean. Ibon Uribarri

Bakardadea gero eta astunagoa eta pisuagoa egiten zait; isiltasunaz inguratutik nago; **hustasuna** guzti-guztiz jabetzen ari da, nire etxea oso handia ez bada ere. Eskarne Mujika

Artegatasun arin hura zela eta bere buruari barre egiteko gogoia zuen, baina **hustasun** desatsegin baten sentipena gailendu zitzaion. Ibon Uribarri

Nerabezaroen haurren eta gurasoen arteko lotura eteten denean sortzen den **hustasuna** betetzen du maitaleek elkarrekin egoteko duten behar horrek. Luis Elberdin

Gelaren gelditasunak, soinurik ezak, pareten zuritasun hotzak... **hustasunaren** moduko zerbait eragin dizute barnean. Rafa Egiuren

Halako **hustasun** bat nabaritu nuen papera eta luma hartu nituenean, bihotza amaraunean baneuka bezala nik ere... Koldo Izagirre

Bere **hustasuna** betetzeko fikzioak izkiriartzen hasi zen. Jose Angel Irigaray

Hustasuna ahanztura da. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan)

Akidura eta **hustasun** sentimendu jasanezin bat. Alberto Ladron Arana

Neure paziente postentzefalitiko batzuen **hustasun**-egoerak. Xabier Olarra

-Bere ideia **hustasuna** eta bere moztasun poetikoa zirriborro ulertezin batekin disimulatzen ahalegintzen direnak. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hustasun (4); **eta hustasuna** (3); **eta hustasunak** (3); **halako hustasun** (4); **hustasun bat** (9); **hustasun eta** (3); **hustasuna ezin** (3); **zuen hustasun** (3)

huste (orobat hustutze g.er.) iz barruan duena atereaz, hutsik uztea edo gelditzea.

Gaztetxoak, ordea, segituan jabetu ziren kaleen **huste** erabatekoaz. Karlos Linazasoro

«Europako **huste** arauak ez betetzea zigortu egingo da. Berria - Gaiak

Plazer gorenaren atseginaz ekin nion azkenean **huste** lanari. Joxan Elozegi

Brasil une horretan pairatzen ari zen diru-**hustea** geldiarazteko asmoz. Koro Navarro

Herrialde inportatzaileen nazio-errensei eragindako diru-**hustea**. Koro Navarro

Airatzte, hauste edo leku-**hustutze** hauekin ez da bat bere batera, onera eta lehengo oinera horren aise bihurtzen.Nahikoa lan bazutela Donostiako leku-**hustea** prestatzen; nahita ere, ezin zutela egoera kontrolpean eduk. Iñaki Segurola

Barne-**hustutze** bat izan zen, adio gisako aitortpena. Xabier Mendiguren Elizegi

Morroiak direla, zama eta **hustutze**-operazioetarako etorriak. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hustegi iz aipatzen dena husteko tokia.

Nire oroimena zabor **hustegi** bat bezalakoa duzu. **Juan Garzia**

hustu, huts/hustu, husten (orobat *hustutzen g.er.*) 1 du ad (ontzi edo kideko bat) barruan duena atereaz hutsik utzi.

Jatekoarekin batean, bi pitxer arno **husten** genituela. **Joan Mari Irigoien**
Atsedendaldirako lehenengo botila ardoa **hustua** zuen. **Unai Iturriaga**
Kolpe batez **hustu** zuen basoerdia. **Unai Iturriaga**
Topa egin eta edalontzia **hustu** nuen. **Joxemari Iturralde**
Beste dozenerdi bat garagardo **hustu** behar izan nituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Iraulki orgak karga **husten** ari ziren. **Karlos Zabala**
Bi orduko epea eman zion Foruzaingoak etxea **husteko**. **Edurne Elizondo**
Gaztetxeko kideekin agertu zen atzo prentsaren aurrera, gaztetxea **husteko** eta eraisteko operazioaren gainean hitz egiteko. **Berria - Euskal Herria**
Gurasoen etxea **"hustea"** da hain zuzen ere egokituz zaigun lana. **Joxan Elozegi**
Gazako kokaguneak **husteko** Sharonen iragarritako planarekin ados ez daudela adierazteko. **Berria - Mundua**
Goiz hartan tiraderak **hustu** eta barruko gauzak kartoizko kaxetan sartu zituen. **Koro Navarro**
Husten ari ziren azkenean ganbarako apalak. **Joxan Elozegi**
Madeleinek hautsontziak **husten** ditu, botila hutsak biltzen ditu. **Eskarne Mujika**
Prestige ontzia **husteko** lanak amaitu dituztela. **Berria - Gaiak**
Urtegia **husten** has daitezela agintzeko eskatu zion. **Berria - Euskal Herria**
Landareei arrosa-koloreko leka lodi batzuk kendu eta baba distiratsiak zuzeko ontzi batera **husten** zituzten bitartean. **Iñaki Mendiguren**
Kamioia hilez **hustu** ondoan, argi gehiago zuen gunera igorri zuten. **Eneko Bidegain**
Bertze zigarro bat piztu nuen hark azpila galletaz **husten** zuen bitartean. **Aingeru Epaltza**
Husteak garbitzea, agortzea, ixtea, bururatzea ere esan nahi du. **Joxan Elozegi**
Leize-zulo batean sartu zen Saul sabela **hustutzero**. **Elizen arteko biblia**
Zeru hodeitsua bere barrena **husten** hasi zen. **Migel Angel Mintegi**
Gomitolarriak ez du bazterrak zipiritzinduko arto onik izango, ondo ezagutzen dut barrena **hustu** behar gogaikarri hau. *ik behe*rago 8. **Anjel Lertxundi**
Dick Snow atzean geratu zen, errebolbera hilotzaren kontra **husteko** asmoz. **Lopez de Arana**
Lurrean minez akabatu beharrean, begi-zuloak izuaren izuz ia **husturik** baneuzkan ere. **Juan Kruz Igerabide**

2 irud

Neure sumina azkeneraino **hustuko** dut beraien aurka eta mendekatu egingo naiz. **Elizen arteko biblia**
Gure amarengan **husten** zuen bere indar burlati eta tematia, bere despota-indarra. **Fernando Rey**
Orduan, itun santuko herriaren aurka **hustuko** du bere amorrua. **Elizen arteko biblia**
Ni buruari bueltaka nenbilen, barruan neramana nola **hustuko**. **Juan Kruz Igerabide**

• 3 da ad barruan duenaz gabetuz hutsik gelditu.

Irudituz gaitza biziaren eta odolaz **husten** ari zela. **Itxaro Borda**
-Hustu hadi, kez betetako baloia! **Koldo Biguri**
Euskal Herria pobretzen eta jendez **hustutzen** ari zela. **Joan Mari Irigoien**
Etxea bizidunetz **husten** zenean, merkatura edo mezetara joateko adibidez, lo-gela zerratutik eskapatzen zen, baratzeko pikua puntaren puntara hupatzeko. **Itxaro Borda**
Bazterrak oro euskaldunetz **husten** eta gaskoinez betetzen. **Berria - Euskal Herria**
Batzuetan kafetegia **hustu** eta bakarrik gelditzen ginen biok. **Bernardo Atxaga**
Poternako baratzea laster **hustu** zen eta arratsaldean ama-hurrez mukurutu. **Itxaro Borda**
Maria sukaldeko mahaiaren jarririk, ezindua geratu zen, **hustua**, soa urrunean urtzen zitzaioela. **Itxaro Borda**
Uste nuen lasterka ibiliz, beste zerbaitean pentsatuko nuela, edo hobeki, burua erabat **hustuko** zitzaidala. **Daniel Landart**
Huts zaitez betetzeko, irten sartzeko. **Joan Mari Lekuona**

4 (gizonezkoak) hazia isuri.

Ikustea bera nola eszitatzen den eta nola **husten** den nire barruan. **Luis Elberdin**
Gizonak ez du kanpoan **hustu** behar, ezin du Onanen bekaturia egin. **Karlos Zabala**
-Bada, sartu ahala **husten** naizela. **Luis Elberdin**
Aholkuak eman dizkiet horri buruz hainbat neska gazteri eta beti-beti zera esan diet: zuengan **husten** ez den gizonaz ez zaitezela fida. **Karlos Zabala**
Bioi jo zigun larrua eta Marinaren ahoan **hustu** zen. **Karlos Zabala**
Soilik erranen dizut eta aitortuko ezen, noiz eta Mignonen gainean **husten** ari bainintzen, munstro bat izaita desiratu nuela. **Joan Mari Irigoien**
Zeren, lehen, portuko ema-mutirikin **husten** nintzen eta ene huts hartan betirik sentitzen nintzen, baina orain **husten** naiz eta neure hutsean are hutsago sentitzen naiz... **Joan Mari Irigoien**
Ohean etzaten nintzen, bera gainean jartzen zen eta "a, a, a, a, a, a" trixte batzuk disimuluan esanaz **husten** zen nire barruan. **Jasone Osoro**

5 (hitz elkartuetan)

Ohar hauek idaztea, hasiera batean, lasaitze bat izan da, **hustu** -behar moduko bat. **Agurtzane Juanena**

6 (izen/aditz elkarketan nigarren osagai gisa)

Aljeriatal etorri berriak aldiz trenputxartzen ziren, izutzen eta sabel **husten**. *ik behe*rago 12. **Itxaro Borda**
Jakin baitzuen elgorriak jorik nola egon nintzen, bizirik iraun nezan arduratu zen, bereziki gatibuak oinez leku-**husten** zituztela jakin zuenean. **Juan Garzia**
*ik behe*rago 10. **Askoren artean**
Sartu orduko, baina, erabat gris eta kolore-**husturik** aurkitu zuen estudio osoa. **Xabier Olarra**
Greg itsu, buru-**hustu** eta gaixotuari bisita egitera etorri, eta inguruan pilatzen zitzaizkion. **Xabier Olarra**
Animaliak zeharo barren-**husturik**, Kristoren izenean. **Lutxo Egia**
*ik behe*rago 8. **Askoren artean**
Osterantzean, Po ibaiko etxeak bezain barren-**husturik** eta abandonaturik gera daiteke gure oroimena. **Berria - Kultura**

7 (era burutua izenondo gisa)

Latak, botila **hustuak**, egunkari zatiak. Izan ere, hiri gotortua hondaturik gelditu da, baserri **hustuaren** pare. **Elizen arteko biblia**

Txalet **hustuetan** bizi zuan, ezta?

Aingeru Epaltza

Autoaren mutur luze urdina zorua xurgatzen ari zitzaion karrika **hustuari**.

Aingeru Epaltza

Ordenagailu zuria gelditu da mahai **hustuan**.

Bernardo Atxaga

Ahoz gora etzana, bere begi **hustuetatik** oraindik begira balegokigu bezala.

Josu Zabaleta

Halakoetan, sukaldera jotzen nuen zuzen, eta hozkailu beti **hustuegitik** lehen soberakina ahora eraman.

Aingeru Epaltza

Kuia **hustuekin** egiten diren krisieuluen antzera.

Oskar Arana

Aurrean hainbat baso **hustu** edo erdi **hustu** zeuzkaten.

Matías Múgica

8 barrena/barrua/barnea hustu

Paolarekin zegoenean amak nitaz gaizki esaka **husten** zuen bere barrena.

Fernando Rey

Luze **hustu** zidan barrena Adelak.

Juan Kruz Igerabide

Sumin betean zegoen, barrena **husten** ari den emakume baten pareko.

Karlos Zabala

Udan New Yorkera etortzen da, nirekin hitz egin eta barrua **hustera**.

Gotzon Garate

Neronekin eman nahi nion berria, eta barrua **hustu** haren aurrean, txikitandik gordekeri nekarren zama hustu, nire historia sekretuaren jakitun ipini, koipea erabat garbitu behingoz.

Juan Kruz Igerabide

Sinetsiez ez dudala egin zu mintzearren, ezpada nire barrena **hustearren**, erabateko zintzotasunak krudelkeria puntu bat izan dezakeen arren.

Xabier Mendiguren

Elizegi

Klinikan ematen dituen arratsaldeetako batean, Bev Shaw-ren aurrean **husten** du bere barnea.

Oskar Arana

9 ezin hustuzko

Hizkuntzaren egile bezainbat desegile direnen ganbara ezin **hustuzkotik**.

Iñaki Segurola

10 lekuak hustu adkor alde egin.

Haserrearen haserrez, Anitak lekuak **hustu** zituen etxetik, hirira joateko.

Daniel Landart

-Lekuak **huts** itzazue etxe honarik...

Itxaro Borda

Hobe duk lekuak **hustea**, Piarres.

Aingeru Epaltza

Gau on erran eta lekuak **hustu** zituzten.

Elena Touyarou

Geroxago entzun nian autoa pizten eta lekuak **husten**.

Daniel Landart

Justu Fanchek lekuak **hustuak** zituela konturatzen nintzen unean.

Itxaro Borda

Gisakoa edo bihotz onekoa zela erraten ziotenean [...] tristatzen zen, iluntzen, berriro jendetasun normalaren duintasunerako maila **huts** egin bailuan.

Itxaro Borda

Hiru soldadu lagunek ez zuten herio zelai hartatik lekuen **hustea** baizik gogoan.

Eneko Bidegain

Ni ere gurasoekin egoten nintzen eta baziren egunak... gogotik lekuak **hustuko** bainituen.

Daniel Landart

11 maskuria hustu pixa egin.

Komunean lehenengo eta behin maskuria **hustu**, gero dutxa arina hartu eta ilea lehortu...

Sonia Gonzalez

Biluz-biluzik, izerditan oraindik, paparra eta sabel puztua agerian, maskuria **husten**.

Karlos Zabala

Inez atarian agurtu eta zuhaitz diskretu bat bilatu nuen maskuria **husteko**.

Harkaitz Cano

Maskuria **husteko** premia larriak iratzarri zuen.

Migel Angel Mintegi

12 sabela hustu kaka egin.

Etxeko azientategitik hel-du nintzen, sabela **hustetik**.

Aingeru Epaltza

Leize-zulo batean sartu zen Saul sabela **hustutzer**.

Elizen arteko biblia

Makila bat hartuko duzue zeuekin eta, sabela **hustutzer** irteetan, berarekin zuloa egin eta gorotza lurrez estaliko duzue.

Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardoa hustu (3); **aretoa** hustu (5); **asko** hustu (4); **baino gehiago** hustu (4); **bakar batez** hustu (3); **bakarrean** hustu (4); **bakarrik** hustu (3); **barrena** hustu (14); **barrena hustu** beharra (4); **barrenak** hustu (3); **barrua** hustu (6); **basoa** hustu (5); **bat** hustu (19); **bat** hustu dute (3); **bat** hustu zuen (4); **batean** hustu (17); **batean** hustu zuen (7); **batera** hustu (3); **batez** hustu (20); **batez** hustu du (3); **batez** hustu eta (3); **batez** hustu zuen (9); **berak** bakarrik hustu (3); **berean** hustu (6); **berehala** hustu (4); **bete** eta hustu (4); **botila erdia** hustu (3); **botila** hustu (15); **botila** hustu eta (4); **botilak** hustu (3); **burua** hustu (3); **dena** hustu (4); **dituzte** lekuak hustu (3); **edallontzia** hustu (3); **edo** hustu (3); **erabat** hustu (9); **eraikina** hustu (6); **eraikina** hustu eta (3); **erdia** hustu (10); **erdia** hustu eta (3); **erdia** hustu zuen (3); **erdriraino** hustu (3); **ere** hustu (9); **eta barrua** hustu (3); **eta** hustu (31); **eta** hustu egin (6); **eta** hustu egiten (4); **eta** lekuak hustu (5); **etxea** hustu (7); **etxeak** hustu (8); **ez zen** hustu (3); **gabe** hustu (3); **gainean** hustu (3); **gainera** hustu (5); **gaztetxea** hustu (17); **gaztetxea** hustu eta (3); **gehiago** hustu (4); **gela** hustu (4); **guzia** hustu (3); **guztia** hustu (6); **guztiak** hustu (4); **handik** lekuak hustu (5); **herri** hustu (4); **herriak** hustu (4); **herriak** hustu eta (3); **hura** hustu (3)

hustu ahala (8); **hustu** arren (3); **hustu** arte (22); **hustu** baino (4); **hustu** balitz (3); **hustu** balitz bezala (3); **hustu** bat (5); **hustu** batean (4); **hustu** behar (62); **hustu** behar izan (15); **hustu** behar ukan (8); **hustu** behar ziren (3); **hustu** beharko (8); **hustu** beharko dituzte (3); **hustu** beharra (7); **hustu** beharrean (5); **hustu** beharreko (3); **hustu** bitartean (5); **hustu** da (9); **hustu** den (4); **hustu** dira (3); **hustu** diru (7); **hustu** ditugu (4); **hustu** dituzte (11); **hustu** du (22); **hustu** dut (4); **hustu** dute (14); **hustu** edo (4); **hustu** egin (53); **hustu** egin behar (9); **hustu** egin zen (14); **hustu** egin ziren (5); **hustu** egin zuen (5); **hustu** egin zuten (6); **hustu** egiten (7); **hustu** eginen (7); **hustu** eginen litzateke (4); **hustu** egingo (6); **hustu** egiten (21); **hustu** egiten da (6); **hustu** egiten dira (4); **hustu** egiten zuten (3); **hustu** ere (4); **hustu** eta (120); **hustu** eta bete (3); **hustu** eta bota (3); **hustu** eta eraitsi (7); **hustu** eta gero (6); **hustu** ez (5); **hustu** ezazu (3); **hustu** gabe (15); **hustu** genituen (8); **hustu** gure (3); **hustu** izan (4); **hustu** nahi (10); **hustu** nahian (5); **hustu** nion (6); **hustu** nituen (4); **hustu** nuen (25); **hustu** ondoan (6); **hustu** ondoren (17); **hustu** orduko (3); **hustu** ostean (5); **hustu** zela (4); **hustu** zen (22); **hustu** zen eta (3); **hustu** zenean (3); **hustu** zeure (4); **hustu** zeure sumina (3); **hustu** zidan (4); **hustu** zirela (4); **hustu** ziren (9); **hustu** zituen (22); **hustu** zituzten (17); **hustu** zuen (88); **hustu** zuen eta (3); **hustu** zuenean (6); **hustu** zuten (18); **hustu** zutenean (5)

indarrez hustu (5); **jendez** hustu (15); **jendez** hustu zituzten (4); **katilua** hustu (5); **kikara** hustu (6); **kikara** hustu zuen (3); **kopa** hustu (10); **kopa** hustu zuen (7); **lekuak** hustu (66); **lekuak** hustu behar (14); **lekuak** hustu beharko (3); **lekuak** hustu dituzte (8); **lekuak** hustu eta (3); **lekuak** hustu nahi (3); **lekuak** hustu zituen (8); **maskuria** hustu (4); **nola** hustu (7); **osoa** hustu (9); **pipa** hustu (3); **pixontzia** hustu (3); **sorgintxulo** hustu (3); **sotoa** hustu (3); **tanta** hustu (4); **tragoan** hustu (3); **tragoan** hustu zuen (3); **ura** hustu (4); **urtegia** hustu (11); **urtegia** hustu egiten (4); **urtegia** hustu gabe (5); **zaku** hustu (3); **zakuak** hustu (3); **zen** hustu (4); **zerua** hustu (3); **zurrut** batean hustu (3); **zurrutada** batez hustu (6)

dena hustua (3); **erdi** hustuak (3); **etxe** hustuak (3); **etxe** hustuen (3); **hustua** eta (6); **hustua** izan (4); **hustua** zen (3); **hustua** zuen (3); **hustuak** zituzten (3); **lekuak** hustuak (7)

barren husturik (3); **erabat** hustuta (7); **erdi** husturik (4); **erdi** hustuta (5); **ere** hustuko (3); **eta** hustutzen (3); **gauza** guztietatik hustuta (3); **guztia** hustuko (3); **guztietatik** hustuta (3); **hustuko** da (6); **hustuko** ditu (4); **hustuko** dituela (3); **hustuko** du (4); **hustuko** dut (3); **husturik** eta (4); **hustuta** dago (3); **hustuta** dagoen (3); **hustuta** daude (3); **hustutzen** ari (6); **itsasoa** hustuko (3); **lekuak** hustuko (5); **noiz** hustuko (5)

; **etxea** hustea (3); **gela** hustea (3) gurasoen etxea hustea (3); **herriak** hustea (3); **hustea** aurreikusten (3); **hustea** da (4); **hustea** erabaki (4); **hustea** erabaki zuten (3); **hustea** eta (5); **hustearren** alde (3)

eraikina husteko (5); **eskolak** husteko (3); **eta** husteko (3); **etxea** husteko (8); **euskal jai** husteko (3); **gazako kokaguneak** husteko (3); **gaztetxea** husteko (32); **gaztetxea** husteko eta (14); **husteko** agindua (16); **husteko** agindua eman (7); **husteko** arriskua (3); **husteko** asmoa (5); **husteko** eskatu (8); **husteko** eta (26); **husteko** eta eraisteko (18); **husteko** lanak (4); **husteko** mehatxupean (3); **husteko** prest (3); **jai** gaztetxea husteko (3); **jai** husteko (3); **jai** husteko eta (3); **kokaguneak** husteko (5); **lekuak** husteko (4); **ontzia** husteko (3); **ontzia** husteko lanak (3); **udalak** gaztetxea husteko (3); **urtegia** husteko (9); **urtegia** husteko asmoa (3); **urtegia** husteko eskatu (3)

ahala husten (3); **aurrean** husten (3); **barruak** husten (3); **bat** husten (5); **burua** husten (5); **dena** husten (3); **ere** husten (6); **eta** husten (6); **eta** lekuak husten (3); **gaztetxea** husten (4); **herriak** husten (4); **herriak** husten ari (3); **husten** ari (59); **husten** ari da (7); **husten** ari dela (4); **husten** ari den (4); **husten** ari dira (7); **husten** ari zela (7); **husten** den (4); **husten** den (4); **husten** dira (6); **husten** diren (3); **husten** dituzte (5); **husten** du (7); **husten** duen (3); **husten** dute (7); **husten** eta (15); **husten** eta betetzen (3); **husten** ez (5); **husten** hasi (11); **husten** hasi zen (4); **husten** hasi ziren (3); **husten** naiz (3); **husten** zen (6); **husten** zenean (3); **husten** zituen (6); **husten** zituzten (7); **husten** zuen (15); **husten** zuen bere (4); **husten** zuen bitartean (4); **jendez** husten (4); **jendez** husten ari (3); **karga** husten (3); **lekuak** husten (9); **nola** husten (3); **urtegia** husten (4)

bat hustera (3)

hustualdi iz zerbait husten den aldietako bakoitza.

Une horiek ez dute luze irauten, **hustualdi** bat bezalakoa izaten da, bultzaka duzun hori bota eta gero berez agortzen da etorria.

Iñaki Iñurrieta

Gure ama etxean ez zegoenean gure aitak **hustualdietan** egozten zituen irainak jasotzeko.

Pello Lizarralde

Herio batean, baina gustura idatzai dut liburua, eta sekulako **hustualdia** eman diet nola lepo gaineko ganbarari hala bular barruko kutxa taupakariari. Joxerra Garzia
Ez nuen ohorezko matrikula aterako, baina sekulako **hustualdia** eman nion neure barru irakinari. Joxerra Garzia

hustubide 1 *iz* husteko bidea.

Lisa iturrien **hustubideko** zuloaren gainean makurtu zen. Karlos Zabala

Bazterreko kanalak gainezka, eta **hustubideren** bat zakarrez bete bada, han dira ur-pilatze eta sotoak libratu beharrak! Pello Zabala

Bertan dagoelako barnetegi honetako **hustubide** nagusia. Koldo Izagirre

Ur zikinak isurtzen dituen **hustubidearen** arrimura. Jokin Muñoz

Hustubideetako gasek. Xabier Olarra

Holandarrak, gero, **hustubidea** zulatu zuen, eta ubidea egin, ura, lorategi azpitik ibiliz, itsasoraino iritsi eta han jauzika eta zalapartaka eror zedin. Felipe Juaristi

Dutxa azpian jarri zen, ajea **hustubidetik** behera egozteko itxaropenez. Migel Angel Mintegi

2 *irud*

Ametsen munduetatik atera eta zangoak lur gainean ezarrita, harekiko nire planik serioenak ez zuen garizuma luzeegian metaturiko kemenei **hustubidea** ekarriko zien etzanaldi batetik harataxeago jotzen. Aingeru Epaltza

hustuka *adlag* alde eginez.

-**Hustuka** agurtu naute. Itxaro Borda

hustuketa *iz* hustutzea.

Esferaren **hustuketa** eta kuboaren irekiera. Berria - Kultura

Donostiaren **hustuketa** antolatu behar zutela, eta bazihoala. Inazio Mujika Iraola

Sosegua dakar **hustuketak**. Joxan Elozegi

Hustuketa bat bezalakoa da, hala esaten du berak, purga bat. Jon Alonso

Beharbada horrexegatik hartu gaitu begitan "euskararen taxidermiara" jo izan dugun hizkuntzalariorik, bizi garen kulturaren alferrikako **hustuketan** aritu garelakoan. Patziku Perurena

Hustuketa lan hori emankor izango bada, ordea, ez da aski bihotza estutu eta garunak zukutzea. Joxerra Garzia

Sergioko erakutsi zion bagoi **hustuketari** buruz jakin behar zuen guztia. Harkaitz Cano

Madrilgo egunkariko zuzendaria isilik zen, Gizon Handiaren barne-**hustuketa** bukatzen ari zela konprenituz. Jon Alonso

hustutzaile *iz* aipatzen dena husten duen pertsona.

Ez nuen beraz inongo ganbara-**hustutzailerik** deituko. Joxan Elozegi

Etxe-**hustutzaile** profesionali deitzen dieten doludunek ere ezin dituzte oinazea eta oroitzapenak saihestu. Joxan Elozegi

Tren **hustutzaileak**. Harkaitz Cano

huts¹ *1 iz* lege, arau edo eginbide bat ez betetzea; ez betetze horren ondorioa. ikhutsegite.

Huts larria izan zitekeen, zigorra ekar zezakeena. Edorta Jimenez

Huts barkaezina izan da. Alberto Ladron Arana

Neure **huts** guztien zamarekin, kontu ematera. Juan Garzia

Huts sintaktikoak dira, beraz. Iñaki Arranz

Alegia, testu bat inprimatzean gertatu ohi den **huts** oro. Juan Garzia

Hortxe du Oteizak **huts** galanta. Iñaki Iñurrieta

Piezaren erdi aldera, piano-joleak **huts** txiki bat egin zuen akorde batean. Anjel Lertxundi

Eta egin zuen, egin ere, **hutsa**: leihatila bat ixtea ahaztu. Juan Kruz Igerabide

Baina hark ere **huts** bat egin zuen bere demostrazioetan. Jon Muñoz

Eta orduan, **hutsa** neure buruari leporatzen niola, Jainkoari fede handiagoz hitz egin behar niola bururatu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Jendeak **hutsak** egiten ditu. Oskar Arana

Erdara guztietan egiten dira **huts** ederrak. Pello Salaburu

Berak edo bere arbasoek egindako **huts** baten zigorra jasotzen ari dela. Patxi Zubizarreta

Aipatu **hutsak** sinesten dituztenak ez jakinean eta Erromako Elizak **huts** horien aurkako egiak sinesten dituela jakiteko eginbiderik ez duten guztiak. Piarres Xarriton

-Zein da ene **hutsa** edo ene hobena, niri horrelako amorrus erasotzeko? Jose Antonio Mujika

2 (hitz elkartuetan)

Txartelaren ikuskaketak transkribapen-**huts** bat ekarri zuen, eta huts horrek hortik aurrerako analisi guztiak faltsuztatu zituen. Juan Garzia

Mexikon jokatu zuen tartean pilota-**hutsak** ez zirenak ere egin zituen Felix Areitio ezizenez Ermuak. Edorta Jimenez

3 *ezin huts eginezko*

Ezin hutseginezko hitzordua. Iruñeako elizan ditut **ezin hutseginezko** Gipuzkoarrak eta karrizak karrika elkarrekin gabiltza, hau eta hura aipatuz. Piarres Aintziart

Baina, pentsamendu lasaigarri honetan ez uzteko edo, azken agerraldia legearen krudeltasuna agertzeko baliatu zuten, bat jin delarik bukatu balitz bezala mintzo, **ezin hutseginezko** "ostatua idekia izanen da nahi dutenentzat" errateko ber tonuan. Herria

4 *huts eginsup_1 (orobat hutsegin) (zerbaitek)*

Errutina horrek **huts** egin zion egunean, erremediorik gabe galdu zen. Juan Garzia

Apelazioak **huts** egiten bazuen, badakizu, aulki elektrikoa hantxe zegoen. Javi Cillero

Bazirudien hitzek **huts** egin ziotela. Iñaki Mendiguren

Huts egin du leialtasunak, eta gaiztakeriatik urruntzen dena larrutua gertatzen da. Elizen arteko biblia

Zorionak ez dit **huts** egingo, lur-sail ureztatuak ez baitu egarririk. Elizen arteko biblia

Bihotzak **huts** egin dio, eta hantxe hil da, kalean. Oskar Arana

Itxaropen sutsua dut ez didala usteak **huts** egingo. Elizen arteko biblia

Niregan itxaron dutenei ez die inoiz usteak **huts** egingo. Elizen arteko biblia

Ez zitzaion ikusmena ahuldu, ez zitoten indarrek **huts** egin. Elizen arteko biblia

Marokora joateko ahalagorriak **huts** egin ondoren Itazara izuli zenean. [Askoren artean](#)

Oinarriek **huts** egitean, zintzoak zer egin? [Elizen arteko biblia](#)

Ez dakit zer **huts** egin zuen. [Aingeru Epaltza](#)

Sekulako ergelkeriak esaten direla bihotzak **huts** eta buruak gainez egiten duenean. [Patziku Perurena](#)

Odol presioa handia zuen eta arteriak **huts** egitekotan zeuzkan. [Oskar Arana](#)

Baina metodo horrek oso bestelako arrazoiengatik egiten zuen **huts**. [Itziar Laka](#)

Eskuzartek ez diote **hutsegin**. [Josu Zabaleta](#)

· **Huts** egiten hasi zitzaion sardexka. [Xabier Olarra](#)

Bezperan **huts** egin zion labea konpondu nahi eta ezinean zebilela. [Joan Mari Irigoien](#)

5 huts eginsup_2 (norbaitek)

Zuregan konfiantza dutenek ez baitute inoiz **huts** egiten. [Elizen arteko biblia](#)

Horretan sinesten duenak ez du **huts** egingo. [Elizen arteko biblia](#)

Bazekien zer zioen eta ez zuen **hutsegin**. [Eneko Bidegain](#)

Noren ikara zinen, noren beldur, niri **huts** egiteko, nitaz erabat ahazteko? [Elizen arteko biblia](#)

-Ez, ez dut **huts** egingo. [Josu Zabaleta](#)

Adiskideak berak ere zain ditut nik noiz **huts** egingo. [Elizen arteko biblia](#)

-Ama, etorri arren datorren hamabostaldian, ez **huts** egin otoi! [Itxaro Borda](#)

Alferrik da non **huts** egin dudan aztertzen hastea. [Iñaki Iñurrieta](#)

-Apaizak ere **huts** egiten du mezatan, On Camillo: zergatik ez duzu onartzen besteek ere **huts** egin dezaketela fede txarrik eduki gabe ere? [Koldo Biguri](#)

Baina hitzematen dizuet hurrengoan oparitxo bana ekarriko dizuedala, **huts** egin gabe. [Jose Morales](#)

Ez zen **huts** egiten nion lehen aldia. [Aingeru Epaltza](#)

Inoiz **huts** egin al diat, Lar? [Harkaitz Cano](#)

Ez iezadazu orain **huts** egin. [Juan Kruz Igerabide](#)

Nik uste nian hire baitan fida nintekeela eta horregatik gomendatu hindudan zainketa komiteari, baina **huts** egin nuela frogatzen didak eta, niri **huts** egitea ez zaidak batere gustatzen. [Elena Touyrou](#)

-Badakizu ezin dudala **huts** egin Donibanera. [Javi Cillero](#)

Kargatu du bere FN Browning-a, bi kartutxo daramatzen paralela, eta bigarren basurdeari ere kale, hirugarrenari ere bai, horrela seirekin **huts** egin arte. [Pako Aristi](#)

6 huts eginsup_3 (norbaitek zerbait)

Gérard koskan ateratzen da eta Txomin aho zabalik dago, zerbait **hutsegin** duelako irudipena du. [Eneko Bidegain](#)

Tiroa **huts** egitea. Baina, istilu hartako zalapartagatik, **huts** egin zuen kolpea. [Elizen arteko biblia](#)

Huts egindako kolpeak dira horiek, ordea. [Josu Zabaleta](#)

Penaltien txandan ere berea **huts** egin zuen. [Berria - Kirola](#)

Ustez eta Bokaleko aleman industriren parean zirela, **huts** egin zuten beren ukaldia, nahigabe frango sortaraziz udaberriko goxotasun hura baliatzen ari zirenen artean.

[Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Hitler-en kontrako atentadua **huts** egiten dute, 1944ko uztailaren 20an. [Michel Oronoz](#)

Bidea **huts** egitea. [Piarres Aintziart](#)

Zenbat aldiz **huts** eginen ote dut norabide xuxena? [Piarres Aintziart](#)

Sekula ez zuten beren jomuga **huts** egin. [Jon Muñoz](#)

-Ez dut eiki ikuskizuna **huts** egin nahi. [Itxaro Borda](#)

Ez genezakeen horrelako ospakizuna **huts** egin. [Itxaro Borda](#)

Nik ez dut dantzaldirik **huts** egiten... [Josu Zabaleta](#)

Badakit klase asko **huts** egin ditudala, baina antzezlanak jaten dit denbora guztia. [Oskar Arana](#)

Igandeetako mezak sekula ez zituela **huts** egiten. [Itxaro Borda](#)

-Ez nuke trena **huts** egin behar! [Itxaro Borda](#)

Hegazkina **huts** egingo duzu -esan zidan Mary Annek. [Bernardo Atxaga](#)

Ez diagu elizaren bisita **huts** egin behar. [Michel Oronoz](#)

Ez zuen halako aukera **huts** eginen. [Koldo Izagirre](#)

Eta ez zuen aukerarik **huts** egiten pulpitutik bertatik haren burutik elizan zeudenen eskarmentua eskatzeko. [Felipe Juaristi](#)

Etsamina bat **huts** egin nuela Matematikako klasean. [Javi Cillero](#)

Hark ekainean bukatu zuen eta nik, berriz, urria arte egon behar izan nuen, **huts** egindako bi ikasgaiak gainditu arte. [Aingeru Epaltza](#)

Huts egin ditut zenbait ordu, eta zorrotz behatu didate jaulierrek. [Koldo Izagirre](#)

Etxeko gosari **huts** eginaren ordaina nuen orain mahai gainean. [Aingeru Epaltza](#)

Ez dut nire misioa **huts** egin nahi. [Josu Zabaleta](#)

Eta gero, Izko mendiaren hegalean dauden herri xarmantak, bere alimaleko eliza ederrekin omen, pasatu ondoan, Iruñea eskuin utzirik, Puente la Reinari buruz bazoaz,

Eunateko miraria ezin **hutseginez**. [Piarres Aintziart](#)

· Erremediorik gabe segitu behar genuen esmalte beltz hura hornitzen, eperik **huts** egin gabe. [Juan Garzia](#)

Itxaropen **huts** eginak. [Oskar Arana](#)

Orangeko printzearen manupeko walon baten lantzak hazbetetz **huts** egin zuen bihotzaren bidea. [Aingeru Epaltza](#)

Zigarro baten erretzeko jalgi eta ondoko bi poetak **huts** egin nituen. [Itxaro Borda](#)

7 huts eginsup_4 (norbaitek zerbaitetan)

Sinesmenean ere **huts** egin du zenbaitek. [Elizen arteko biblia](#)

-Zertan **huts** egin dut? zein hoben egin dut zure aurka, niri halako amorruez erasotzeko? [Elizen arteko biblia](#)

Zertan egiten du **huts**? [Iñaki Iñurrieta](#)

Azken batean, **huts** egin zuen bere iragarpenean. neure eginbeharretan behin eta berriz **huts** egiten ari nintzelako sentipena. [Aingeru Epaltza](#)

Zuk uste bezala, emakume hori luxuzko prostituta bat zen, zinemagintzan **huts** egindako bat. [Miguel Angel Mintegi](#)

Terrence-rentzat gourmet jaki zailak prestatuz ume bat egiten **huts** egin arren emazte baliotsua zela erakusteko. [Oskar Arana](#)

Azken bi jardunaldietan **hutsegin** dute zuri-gorrien atzetik dauden taldeek. [Berria - Kirola](#)

8 huts eginsup_5 (era burutua izenondo gisa)

Atentatu **hutseginek**, ordea, gure Errusian, askoz efektu latzagoa izaten dute, denek jakingo duzue, ongi ateratzen direnek baino. [Matías Múgica](#)

Malgobernuaren ordez nahasmendua ezartzeko traizio-saio **hutsegina**. [Xabier Olarra](#)

Baina zure urkatze **hutsegina** oroitzean harro jasotzen duzu burua. [Itziar Otegi](#)

Oraingo honetan azioak ondorioak izan ditu, baina ondorioak izan ez balu ere, asmo hutsean eta **hutseginean** gelditu balitz ere, berdin-berdin sartuko zituzten -eta sartzen zituzten- agirieta ekinga bere-gain-hartuen zerrendetan. [Iñaki Segurola](#)

· Nork erakarriko zaitu nire bihotzera, txundituta utzi dezazun, nire **hutseginak** ahantzirik, on bakarra zaitudan hori laztandu zaitzadan? [Imanol Unzurrunzaga](#)

9 **huts** eginezko izlag ik hitzaren

Saskibaloiaren zaleek **huts** eginezko hitzordu bat zuten Fernando Buesa Arenan. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ez naiz kulturako jendearen jaietara joateko zalea baina harakoa **huts** eginezko konpromisoa izaten zen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Horraino iritsi zen nire dohain **huts** eginezkoa. Beste urte batean absentia izan zen nobedadea, 60 gradutik gorako pattar azkar bat, ahoa eta sabela erretzen zizkizuna, baina gure gizontasunerako erronka **huts** eginezko bat. [Oskar Arana](#)

10 **huts** eginarazi

Saudiar Barneko Ministroak erran du badituela han beste holako jazarketak **huts** eginaraziak bainan tokia ditake halakoa, beste batzuek erraiten diote lazoegia direla hangoak irriskuen zaintzeko. [Herria](#)

11 **huts** eman huts egin.

Zerbait bazuen, gainera, bere asmoek **huts** emango ez zutela sinesteko: zein ederki ezagutzen zuen zeharkatu behar zuen alderdia eta zein ongi ulertzen zituen hango hizkuntzak. [Karlos Zabala](#)

Aitzin gaueko harrapaketa **huts** emanaren hondar ageriak. [Aingeru Epaltza](#)

-Begiak ez din **huts** eman? [Karlos Zabala](#)

12 **huts** eragin huts egitera behartu.

Jaunaren begiek zaintzen egia, eta **huts** eragiten maltzuraren hitzei. [Elizen arteko biblia](#)

Huts eragiten diet aztien zantzuei, zentzugabe bihurtzen igarleak. [Elizen arteko biblia](#)

Huts eragiezu erasoka ari zaizkidanei, eta ez niri; jo bitza haiek beldurrak, eta ez ni. [Elizen arteko biblia](#)

Akatsik ez duen beira batek **huts** eragingo lioke. [Josu Zabaleta](#)

13 **huts** hutsetik ezerezetik.

Huts -hutsetik liburutegi bat sortzea ondo zeregin neketsua da. [Jon Muñoz](#)

14 **huts**-min (orobat **hus**min)

Beti zerbaiten **hus**mina sentitzen dute. gerora izugarritzko **huts** -minez gogoratuko zuen seme kuttuna izan zen Ludovico. [Jon Muñoz](#)

Arrapaladan botatako hitzek oka egin ondorengo **huts** -mina utzi zioten-eta. [Anjel Lertxundi](#)

15 **huts**-etsi ik hutsetsi.

16 **hutsa** izan da ad

Eurak dena eta besteak **hutsa** direla uste duten alproja horiek. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Baina zapore erresumin hura [...] orduan hain handia iruditu zitzaidana, **hutsa** zen gerora Dabidek sortu zidanaren aldean. [Patxi Zubizarreta](#)

Gure egiteek eta ez egiteek geure salbazioa erosten ahal zutela uste zuen oraino aitatxik, gure fedea eta Jainkoaren borondatea **hutsa** balira bezala. [Aingeru Epaltza](#)

Baina ez dirudi halakorik batere gertatzen denik lanaren faktoreari dagokionez, eta faktore horren nazioarteko mugikortasuna ez da **hutsa** gainera. [Koro Navarro](#)

Diru-sarrera urriak direla-eta, **hutsa** izaten da herrialde pobreen aurrezki-bolumena. [Koro Navarro](#)

Ez zekiat ezer asko / eskoletan ikasia, / baina ez izan harroxko; / **hutsa** duk hik handik kanpo / ikasitako guztia. [Xabier Olarra](#)

Kontua paradigma balitz **hutsa** litzateke. [Andoni Egaña](#)

- du ad Cadizko gatibutzan, soinu txikiaren **hutsa** du Elgetak. [Iñigo Aranbarri](#)

17 **hutsaren hurrena** (28 agerraldi, 13 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 207 agerraldi) (izan aditzarekin) hutsaren hurrengoa.

-Giza arima hutsaren **hurrena** da zuretzat, argi dago. [Jose Morales](#)

Liburuak hutsaren **hurrena** balio dute Parisen. [Itziar Otegi](#)

-Ez uste hutsaren **hurrena** denik -esan zuen Tootlesek segituan. [Julen Gabiria](#)

44 urte ezpaia hutsaren **hurrena**. [Txillardegi](#)

Hala ere, zigor horiek hutsaren **hurrena** ziren bere amonak pentsatua zeukanaren aldean. [Iñaki Mendiguren](#)

Guztira, lanbide arteko sei akordio sinatu dira, baina horietan LHK-k izan zuen parte-hartzea «**ia hutsaren** hurrena» izan zela onartu zuen. [Berria - Ekonomia](#)

18 **hutsaren hurreneko** izlag

Hutsaren hurreneko prezioetan. [Oskar Arana](#)

19 **hutsaren hurrenetik**

-Ni, orduan, aberastuko naiz -esan zuen Txitxikovek-, zeren, nolabait esatearren, **hutsaren** hurrenetik hasiko bainaiz. [Jose Morales](#)

20 **hutsaren hurrengo** (208 agerraldi, 87 liburu eta 48 artikulutan; ETCn 1.787 agerraldi) (izan aditzarekin) ik gorago 17.

Haren aurrean, nazio guztiak ezer ez, **hutsaren** hurrengo dira harentzat. [Elizen arteko biblia](#)

Idolo guztiak ez dira ezer, horien egintzak **hutsaren** hurrengo, irudiak haizea bezain hutsal. [Elizen arteko biblia](#)

- Hutsaren atzetik ibili ziren, **hutsaren** hurrengo bihurtu dira. [Elizen arteko biblia](#)

- izlag ik gorago 18. [Elena Touyrou](#)

Hutsaren hurrengo huskeria batez ari gara. [Jose Morales](#)

Laburbilduz, **hutsaren** hurrengoa da gizonari buruz duen ezagutza (Platon, Gorgias). [Askoren artean](#)

- Garbi zegoen **hutsaren** hurrengoa nintzela beraiantzat. [Joxan Elozegi](#)

Hutsaren hurrengoa Ingalaterran zain dugunaren aldean. [Edorta Jimenez](#)

Ateraldi xelebreak, nonbait, balioaren aldetik **hutsaren** hurrengoak. [Iñaki Arranz](#)

21 **hutsaren pare(ko)**

Handikiak ezereztu egiten ditu, munduko gobernariak **hutsaren** pareko bihurtzen. [Elizen arteko biblia](#)

Zintzoaren mihia zilar garbi-garbia, gaiztoaren bihotza **hutsaren parekoa**. [Elizen arteko biblia](#)

Kostua **hutsaren parekoa** zelako. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Eta hor libertatea **hutsaren** pare bilakatzen da. [Iñaki Seguro](#)

Nire ametsik ederrenak **hutsaren pare** utzi zituen Ramonaren eskuzabaltasunak. [Aingeru Epaltza](#)

22 **hutsaren truke**

Nire ahaidea zarela eta, **hutsaren** truke egin behar al duzu lan niretzat? eta nik ez dizut hamabi errublo emango, hamabost baizik, zuk ezertxo ere egin gabe, **hutsaren** truke. [Elizen arteko biblia](#)

Lau solairuko harri gorritzko etxe hura, orain gutxienez zortziehun edo bederatziehun mila dolar balio zituen hura, **hutsaren** truke erosia. [Oskar Arana](#)

Abas **hutsaren** truke hil da. [Patxi Zubizarreta](#)

- Etxekoandre, har itzazu, **hutsaren** trukean emango dizkizut. [Pako Aristi](#)

Hutsaren trukeko hain ardura handiak jende guztia txunditu zuen ezinbestean, eta agintarien belarrietara iritsi zen noizbait. [Jose Morales](#)

huts² 1 izond aipatzen denaz besterik edo bestelakorik ez duena.

Lau kafe **huts** elkarren segidan edanaraztera. [Aingeru Epaltza](#)

Sagardo **huts** tanta bat, apartua eta gozoa. [Josu Zabaleta](#)

Gainerakoak, azido sulfuriko **hutsa** zen Tomas. Aingeru Epaltza

Ohiko xuri-gorritik gorri **huts**, gorri min, gorri ubelera pasatuz. Iñaki Iñurrieta

Ke **hutsa** zen, gar bakoa. Koldo Izagirre

Gizona hezur eta azal **huts** zela esan ahal zen. Edorta Jimenez

Saderengan hitzak ez dira mintzabide **huts**; armak dira, azkon pozoituak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egiaz muinoak gezur **huts** dira, gezur **huts** mendietako zarata-hotsa. Elizen arteko biblia

Nik, kostatar **huts** honek, kresal giroa ezagutzen nuen. Txillardegi

Inozo **hutsa** izan zen, ergel **hutsa**. Patxi Iturritegi

Gure agintari guztiak zerri **hutsak** dira. Pello Lizarralde

Herrialdeak ergelkeria **hutsa** dira, ez dira mapetan baizik existitzen. Jon Muñoz

Pertsonak direlako besterik gabe maitatzea engainu **hutsa** da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atsegingarri dira zintzoaren hitzak, maltzurkeria **huts** gaiztoarenak. Elizen arteko biblia

Arrazoimen **hutsaren** kritika. Xabier Olarra

Logika **hutsaren** ikuspegitik. Joxan Elozegi

Eta Unamunoren nobelak eleberrri **huts** baino zerbait gehiago ere izaten diren arren, bere pentsamenduari buruzko beste ezer ez neukan egundo irakurrita. Hasier Etxeberria

On **hutsa** komeni zaigu, baina biziak jakitea baino ez jakitea hurrago duela sentitzen dugunok diogu on **hutsa** baino on betexeagoa hobe dela. Iñaki Segurola

Beraz, agintzaria, dohain **hutsa** izanik, fedeari dagokio. Elizen arteko biblia

Bila nazazue ezerez **hutsean**. *ik huts*¹ 9. Elizen arteko biblia

Gizon oin-hutsak mahuka **hutsean**. Koro Navarro

Azpiko gona **hutsean** etorri zen, beso harrigarriki lodiak biluzik eta puztua zirudien bular mamitsua agerian. Jose Morales

Ekonomiaz edo medikuntzaz ere eztabaida daiteke gaur egun euskara **hutsean**. Pello Salaburu

Eta egia hutsa?, egia bere **hutsean** eta bakarrean? Iñaki Segurola

2 soila.

Gaizki iruditzen zait eskandalu bat sortzea susmo **huts** batengatik. Xabier Olarra

Haren adibideak erabili zituzten "poesia **huts**" delakoaren teoria modernoa sortzeko. Koro Navarro

Bortz-sei armagizon gehiago zihozten harekin, denak soldadu **huts**. Aingeru Epaltza

Langile **huts** eta hitsa izan beharrean, gizon garrantzitsu sentitzen hasi nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Kargurik gabeko azpiadiakono **hutsa** naiz. Aingeru Epaltza

Konkurrentzia **huts** eta perfektuaren hipotesi klasikoan. Koro Navarro

Pentsatze **hutsa** ikaragarria den arren, hilezkorra nintzen. Jose Morales

Leihotik begiratzeko **hutsa** ez zaio gogo-betegarri, begiak Goizueta aldera joaten baitzaizkio. Anjel Lertxundi

Pentsatze **hutsak** nerbioak airean jartzen zizkidan. Alberto Ladrón Arana

Beti gazte izan behar horrek ematen dituen lanak gogoratze **hutsak** edozein nekatzen du. Iñaki Segurola

Negarrez hasteko gogoia egiten zaidak oroitze **hutsarekin**. Jose Morales

Gogoratu **hutsarekin** erraiak nahasten zaizkit. Josu Zabaleta

Negarra eragiteko eszenak, ikusi **hutsarekin** lotsa ematen zutenak. Fernando Rey

3 ikusmenaz nabari daitekeen ezer ez duena; betea ez dagoena; ohi duenaz, daukanaz edo dagokionez gabetua.

Ondoren, tea amaitu, kikara **hutsa** erretilian utzi eta etxeko lanei ekiteko altxatuko zen. Xabier Montoia

Bere behitegi lur jo, zuri eta zikinarekin, bere zalditegi **huts** ate-zabalekin. Koro Navarro

Gaueko kale **huts** eta argiztatuak. Itxaro Borda

Plastikozko bidoi **huts** zenbait. Xabier Montoia

Putzu batera bota zuten -urik gabeko putzu **huts** batera-. Jose Antonio Mujika

Kaxa **huts** eta zetazko paperez beteriko armairuena. Lopez de Arana

Hutsa topatuko dute ohea. Koldo Izagirre

Taxi **huts** bat ikusi eta geldiarazi nuen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Epaitegiko sala kasik **huts** batean. Aingeru Epaltza

-Jar zaitetz -agindu zion Joantok, aulki **huts** bat erakutsiz. Elena Touyarou

Leku **huts** bat hauteman zuen eserleku batean. Jon Muñoz

Ohartarazi zidan matraz **huts** batek ez duela su hartzen. Juan Garzia

Jauzi borobil batez ohetik erori zen, oin **hutsak** lur hotzean pausatzen zituela. Itxaro Borda

Te-katilu erdi **huts** bat eta hozka egindako ogia marmeladarekin. Anton Garikano

Bihotza bete-betean eta zabal-zabalik beharko nuen kinkan, **hutsa** gelditu zait eta dena zimurtua... Janbattitt Dirassar

Udako gau giro epelaz gozatua nintzen, hiri ia-ia **hutsean** barna ibiltari. konkrezio gabeko adierazle **hutsen** (*empty signifiers*) produkzioa. Daniel Landart

· Oilorik gabeko oilategia bezain **huts** geratu zitzaion adimena une batez. Aitor Arana

· Adibidez, banako abstraktuak, besteak beste, matematikan aipatzen diren zenbakiak (4a, 5a...) edo multzoak (multzo **hutsa**, kasu). Askoren artean

D multzo ez-**hutsa** da, eta interpretazioaren unibertso edo eremua izango da. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizitza pribatua, giza bizitza **huts**-soila. Matías Múgica

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa izenondo balioz)

Soinekoak azpiko galtzetan sartuta emakume ile-nahasiak, gizon oin-**hutsak** mahuka hutsean. Koro Navarro

Anaiaren gonbidapena arestiko konplimenduak bezain azal-**hutsa** zen. Aingeru Epaltza

Zenbateko indarra behar den bala erraldoi barne-**huts** bat Lurraren grabitaketik ateratzeko. Karlos Zabala

Gizon kanpo-eder barne-**huts** baten bizitoki eta maitaleku. Felipe Juaristi

Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-**huts** kaka-esplikatzailearekin. Iñaki Segurola

· *adlag* Galtzaileak ezkatari gabeko sardintazarrak bezala geratzen ziren, larru **huts**. Felipe Juaristi

Larru-**huts** nengoen, hezur-**huts**. Aingeru Epaltza

Korridore ilun batetik atera zen, buru-**huts**, soinean pinturaz eta igeltsuz zipriztinduriko jaka labur bat zeramala. Koro Navarro

6 inongo axola edo gorabeherarik, edo mamirik ez duena, hutsala, alferra.

Bazenekei zeinen **hutsa** izan den nire bizitza urte askoan! Lopez de Arana

Horiek denak zuztar bateko jakiteak dira, jakite **huts** zertangabeak. Iñaki Segurola

Ritual edo formula **huts** bat betetzea. Iñaki Segurola

Gorago ikusi dugu zein sentimendu **huts** eta mesprezagarria den lotsa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Maitatuko banandu, ez nindukezu salgai **huts** baten pare erabiliko. **Patxi Zubizarreta**

Zeren zorianak zuri baitira; zuri, faltsu, ustel, hutsal, merke, hits eta **huts**. **Iñaki Seguro**

Hots handiko hitzaldi **hutsak** egiten dituzte. **Elizen arteko biblia**

· Kanpoan, berriz, errealitateko bizitzan, arrotz, **huts**, hil eta hits aurkitzen zuen mundua. **Xabier Olarra**

· Bergaran bakarrik ez, Mertzedes, **hutsa** hala balitz!, baizik-eta Bergaran... eta Bergara ez diren beste bergara guztietan. **Iñaki Seguro**

7 **barne-huts** izond barruko aldea hutsik duena.

Eta ez zen inor bizi patioaren bestaldeko etxe **barne-hutsean**, bi makila moduko izan ezik, arbian zizelatuak ziruditen aurpegiak zituztenak. **Koro Navarro**

Eguneroko ogia lortzeko ahalegin etengabea, langabeziaren mamua, nobleziaren jainko zitalak, ezkon oheko gezur **barne-hutsak**. **Koro Navarro**

Hodi nimitso batzuk dira osteonak, 15 mm luze eta 0,25 mm zabal diametroan; **barne-hutsak** dira, eta odol-kapilarrek betetzen dute barru hori. **Irene Aldasoro**

Zenbateko indarra behar den bala erraldoi **barne-huts** bat Lurraren grabitaterik ateratzeko. **Karlos Zabala**

Don Ottaviok, lasaiturik, itxura bitxiko harkaitz bat seinatu zuen itsasertzetik metro batzuetara, erdian **barne-hutsa**, eta bi zutabe erraldoiren gainean bermatua zirudiena.

Jon Muñoz

Gizon kanpo-eder **barne-huts** baten bizitoki eta maitaleku, huts eta belzturik ageri zen barrenetik, kanpotik bere plantari utsiz ordea. **Felipe Juaristi**

Quosque tandem liburu ospetsuan Jorge Oteizak zioen Neolitikoko gauzatu eta finkatu zela euskaldunaren sentiera estetiko, geure nortasunaren ikur eta bereizgarri gisa,

orduko harrespil txiki **barne-huts** haiekin edertasunaren perfekzioa, esperientzia espiritual gorena erdietsi genuenean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Solasa frango, baina legunak bezen epelak eta azkenean **barne-hutsak** edo tortak! **Herria**

Ainitzen beldurra haatik, legea gisa hartaraz kanbiatuz, **barne-hutsa** bezala geldituko dela edo arrunt torta! **Herria**

8 **hutsik egon**

Ohartarazi zidan matraz huts batek ez duela su hartzen: ez zen noski **hutsik** egongo. **Juan Garzia**

9 **huts-huts** izond

Kanoi baten tiroak eragindako efektua dardaraldi **huts**-hutsa da. Zentzu horretan, munduko ekonomia gehiago da nazioarteko ekonomia **huts**-hutsa baino. **Koro Navarro**

Beraz, honuntzago gelditzen naiz orain eta letra **huts**-hutsari helduko diot. **Iñaki Seguro**

Populazio handien analisi estatistikoa **huts**-hutsetik ateratako kontuak. **Juan Garzia**

Arrazoi ideologiko **huts**-hutssez. **Juan Garzia**

Jende gehienak prozesu logiko **huts**-hustzat dauka ikerkuntza, eta jarduera hotz eta zorrotzat. **Juan Garzia**

Harri **huts** hutssezko paretak. **Patziku Perurena**

10 **huts-hutsik adlag**

Sukaldea **huts**-hutsik utzi dute: mahai-tresnak, ontziteria, tresna elektriko txikiak, den-dena. **Oskar Arana**

Huts-hutsik zihon bagoia. **Unai Elorriaga**

Herriko kaleak **huts**-hutsik zeuden. **Koldo Biguri**

Herrixkak **huts**-hutsik ia. **Karlos Zabala**

Kreta erdietsi genuen, lehen hain joria izandako uhartea eta orain **huts**-hutsik dagoena, antzinako leku guztiak bezala. Jendea erbestera bidaliko du Jaunak, eta lurralde osoa

huts-hutsik geldituko da. **Bernardo Atxaga**

Larrua, larrua **huts**-hutsik, Nathan. **Oskar Arana**

Baina kalkulu hori, berez, matematikoa da **huts**-hutsik. **Koro Navarro**

Templek berak ematen duen azalpena mekanikoa da **huts**-hutsik: "Konektatu gabe daude emozioaren zirkuituak: hori da okerra". **Xabier Olarra**

· Eragiketa **huts**-hutsik espekulatiboak zigortzeko helburuaz. **Koro Navarro**

11 **musu-huts** adlag

Neure mediku-poltsatik tentsioa hartzeko tresna atera nuenean, musu-**huts** gelditu zen, ezin ulerturik zer zen, baina, ukitzen utzi orduko, aise ezagutu zuen. **Xabier Olarra**

Jendea musu-**huts** atera zen elizatik. **Koldo Biguri**

Bat-batean, burutik pasatu zitzaion ezen beharbada Corley beste bide batetik joango zela neskari etxera laguntzera, bera musu-**huts** utzita. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

adigai huts (26); **arrazoimen huts** (12); **egindako huts** (11); **etxe huts** (18); **gela huts** (18); **gizaki huts** (12); **huts asko** (37); **huts asko egin** (24); **huts bat egin** (12); **huts egin** (1352); **huts egin gabe** (50); **huts egin ondoren** (16); **huts egin ostean** (14); **huts egina** (18); **huts eginda** (21); **huts egindako** (42); **huts eginen** (25); **huts eginez** (47); **huts eginez gero** (36); **huts egingo** (133); **huts eginik** (27); **huts egite** (37); **huts egitea** (78); **huts egiteak** (18); **huts egiteko** (55); **huts egiten** (425); **huts egiterik** (16); **huts gehiago** (19); **huts gehiago egin** (15); **huts gehiegi** (13); **huts gutxi** (14); **huts handi** (16); **huts handia** (18); **huts hutsa** (33); **huts hutsean** (23); **huts hutsik** (101); **huts larria** (12)

aitzakia hutsa (29); **amets hutsa** (28); **anekdota hutsa** (11); **arrazoimen hutsa** (11); **begiespen hutsa** (12); **desastre hutsa** (19); **egia hutsa** (34); **egindako hutsa** (11); **ergel hutsa** (25); **ergelkeria hutsa** (17); **erokeria hutsa** (19); **ezjakin hutsa** (13); **fantasia hutsa** (14); **fikzio hutsa** (13); **forma hutsa** (11); **gezur hutsa** (39); **haren hutsa** (12); **inozo hutsa** (13); **irudipen hutsa** (19); **iruzur hutsa** (14); **itxura hutsa** (37); **itxurakeria hutsa** (12); **izate hutsa** (12); **kasualitate hutsa** (48); **kontu hutsa** (19); **pentsatze hutsa** (15); **politiko hutsa** (16); **propaganda hutsa** (11); **zentzugabekeria hutsa** (14)

adigai hutsak (31); **adimen hutsaren** (70); **adimen hutsaren oinarri** (23); **aipatze hutsak** (11); **arrazoimen hutsak** (28); **arrazoimen hutsaren** (240); **arrazoimen hutsaren kritika** (31); **begiratze hutsarekin** (13); **botila hutsak** (26); **egindako hutsak** (23); **eginiko hutsak** (11); **etxe hutsak** (16); **gazte hutsak** (12); **hitz hutsak** (29); **hutsak egin** (24); **hutsak egiten** (14); **hutsak zuzendu** (13); **hutsaren hurrena** (29); **hutsaren hurrengo** (55); **hutsaren hurrengoak** (129); **hutsaren hurrengoak** (13); **hutsaren truke** (23); **ikuste hutsak** (14); **ikuste hutsarekin** (18); **izate hutsagatik** (15); **pentsatze hutsak** (76); **pentsatze hutsarekin** (29); **pentsatze hutsaren** (11)

adimenaren adigai hutsen (23); **erdara hutsean** (14); **euskara hutsean** (66); **euskara hutsez** (23); **euskara hutsezko** (34); **gaztelania hutsean** (20); **hezur hutsetan** (11); **hutsean amaitu** (12); **hutsean egin** (12); **hutsean gelditu** (23); **hutsean geratu** (34); **hutsean geratzen** (16); **hutsean utzi** (17); **hutsean uzteko** (17); **hutsetik abiatu** (11); **hutsetik abiatuta** (11); **hutsetik hasi** (41); **hutsetik hastea** (12)

burua hutsik (19); **erabat hutsik** (15); **erdi hutsik** (42); **esku hutsik** (178); **esku hutsik itzuli** (14); **etxea hutsik** (26); **hanka hutsik** (15); **hutsik ageri** (12); **hutsik egin gabe** (113); **hutsik egon** (23); **hutsik egoten** (13); **hutsik ez egitea** (11); **hutsik ez egiteko** (11); **hutsik gabe** (39); **hutsik gelditu** (16); **hutsik geldituko** (18); **hutsik geratu** (47); **hutsik geratzen** (18); **hutsik itzuli** (18); **hutsik joan** (13); **hutsik utzi** (26); **hutsik utzitako** (12); **ia hutsik** (41); **kaleak hutsik** (14); **mahuka hutsik** (12)

huts³ 1 iz materia gabezia; materiari gabe gunea. ikhutsune 1; hutsarte 4.

Errealitatean atomoak eta **hutsa** baino ez dira existitzen. **Askoren artean**

Fluktuaziook **huts** berezi bat sortu bide zuten, materiari gabea baina energiaren betea. **Juan Garzia**

Materiari eta **hutsari** gorazarre egin nahi dionak. **Patziku Perurena**

"Sustraietako gizonek" uste dute, era berean, **hutsa** existitzen dela, hau da, badela espazio bat, edo batzuk, deus ere eduki gabe erabat, inolako gorputzik ez eta substantziarik bat ere gaberik. **Xabier Kintana**

Ur, lurrun, **huts**, gas, gasolina eta abarren hoditeria guztiak, edo lurpeko erreten-zuloz zihozten, edo zimenduan hormaraterurik. **Juan Garzia**

Liofilizazioa: elikagaia izoztutakoan, **hutsean** sartu eta, sublimazioz, ur guztia erauztea, galaraztea. *ik beherago* 9. **Edorta Agirre**

Hutsean abandonaturiko gorputzak beti erortzen dira abiadura berean. **Monika Etxebarria**

· Begiak **hutsean** finkaturik. **Xabier Olarra**

Bere burua ikus dezake lan-mahai baten aurrean begiak **hutsari** begira. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Huts-neurgailuaren orratza, hantxe zeroan zut-zut egona, gainbeheran hasi zen, ezkererantz lerratuz. **Juan Garzia**

Gertaera **hutsalena** ere abentura bilaka dadin, beharrezkoa eta aski da hura kontatzea. Monika Etxebarria

Otoitz-denboran ameskeria **hutsaletan** sakabanututa ibiltzea. Askoren artean

Beti **hutsala** den kasuistika. Jenaro Garate

Jakintsuen asmoak **hutsalak** direla. Elizen arteko biblia

Hilezkorra izatea **hutsala** da; gizona izan ezik, sorkaria oro dira hilezkor, ez baitute heriotzaren berri; jainkozkoa dena, ikaragarria, ulertezina dena, izaki batek bera hilezkorra dela jakitea da. Juan Garzia

Zeren zorionak zuri baitira; zuri, faltsu, ustel, **hutsal**, merke, hits eta huts. Iñaki Segurola

Gezurrezkoa da xarma, **hutsala** edertasuna. Elizen arteko biblia

Hutsa, hutseratua eta **hutsala**. Fernando Morillo

2 (hitz elkartuetan izenondo balioaz)

Nolanahi ere, deserosoa egin zitzaidan, ia eramanezina, museoan arnasten ari nintzen aire **hutsal**-fashion total hura, beti berri beti moderno, beti azken olatuko izan behararen esklabutza. Anjel Lertxundi

• 3 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa) hutsaltasuna.

Gauaren **hutsalean** etxeko izkiriatzeko makina traketsean. Itxaro Borda

Todos os Nomes (1997), oraingoz idatzi duen azkenak, gure izatearen **hutsalaz** dihardu. Jon Alonso

Oso gogoan dute faxismo garaiko jardun estetikoan **hutsala**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espíritu hutsal (3); **eta hutsal** (7); **gertaera hutsal** (3); **gorabehera hutsal** (3); **hitz hutsal** (4); **hutsal bat** (20); **hutsal bat baino** (3); **hutsal batek** (4); **hutsal baten** (5); **hutsal edo** (3); **hutsal eta** (34); **hutsal gisa** (3); **hutsal haiek** (3); **hutsal horiek** (3); **hutsal horrek** (3)

ariketa hutsala (3); **baino hutsalagoa** (3); **bezain hutsala** (7); **da hutsala** (7); **eragina hutsala** (3); **eta hutsala** (18); **ez da hutsala** (5); **gauza hutsala** (6); **hutsala baino** (4); **hutsala baino ez** (4); **hutsala baita** (4); **hutsala da** (17); **hutsala dela** (12); **hutsala den** (3); **hutsala eta** (10); **hutsala gertatu** (3); **hutsala iruditu** (3); **hutsala irudituko** (3); **hutsala iruditzen** (4); **hutsala izan** (21); **hutsala izan da** (9); **hutsala izango** (6); **hutsala izango da** (5); **hutsala litzateke** (7); **hutsala zela** (4); **hutsala zen** (7); **ia hutsala** (3); **kontu hutsala** (3); **zein hutsala** (3)

ahaleginak hutsalak (3); **bezain hutsalak** (3); **eta hutsalak** (8); **ez ziren hutsalak** (3); **gauza hutsalak** (5); **hitz hutsalak** (10); **hitz hutsalak alde** (4); **hutsalak alde** (5); **hutsalak alde batera** (5); **hutsalak dira** (8); **hutsalak direla** (6); **hutsalak eta** (13); **hutsalak ez** (3); **hutsalak iruditzen** (3); **hutsalak izan** (5); **hutsalak izaten** (4); **ikuskari hutsalak** (3); **ziren hutsalak** (3)

arrazoibide hutsaletan (3); **arrazoibide hutsaletan galdu** (3); **gauza hutsaletan** (3); **gauzarik hutsalenak** (4); **hutsalen artean** (4); **hutsalen bat** (4); **hutsalena ere** (3); **hutsaletan galdu** (4)

hutsaldi iz hutsegitea.

Hogei urte gutxiago genuen eta han geunden bilduta senitartekoak, adiskideak eta beste lagun batzuk ez oso ezagunak, eta, gure erdian, Lajos, **hutsaldian** bertan harapatutako lapurra bezala. Ander Irizar

Klarak ere Chestertonen ipuin bateko protagonista bezala ebazten dituela problemak: gogoaren **hutsaldi** bati esker. Iñaki Iñurrieta

Zergatik deuseztatu halako arte-efektu ederra makalbide tristan eramanetz jaun horiek beren karreraren azken bururaino, haien **hutsaldiak** eta haien porrotak agerian ipiniz?

Juan Garzia

Gizakia, harroaldi, itsualdi, pozaldi, eroaldi, urrialdi, itxuraldi, zintzoaldi... eta beste **hutsaldi** ugariz betetako zorro sintetikoa baita. Patziku Perurena

hutsaldu, hutsal(du), hutsaltzen da/du ad hutsal bihurtu. ik tribializatu.

Baina **hutsaldu** egin bide zitzaion kontatu nahi hura, behin hizketan hasi zelarik. Mirentxu Larrañaga

Barre-irriño bat **hutsaldu** zitzaion eztarrian. Lopez de Arana

Uraren Munduko Foroa, publizitate ariketa **hutsala** izan da, mamirik gabekoa. Berria - Gaiak

Bake prozesuaz Batasunak duen jarrera **«hutsaltzeko»** saioak ikusten dituela esan zuen Otegik. Berria - Euskal Herria

hutsalkeria 1 iz ezerezkeria, esdeuskeria. ik hutsaltasun.

Ez daki perpaus baten **hutsalkeria** aldez aurretik prestaturiko irri batez ezkututzen. Jon Muñoz

Uste horren **hutsalkeria** argitu dugu. Iñaki Mendiguren

Hutsalkeriak inguruzten ditu aztertu ditugun arkaismo-adibide ia guztiak. Iñaki Mendiguren

Hutsalkeriarik hutsalena esan. Jose Morales

2 (hitz elkartuetan)

Bere **hutsalkeri** garaian. Askoren artean

Eta hainbeste izan baitziren haren **hutsalkeria**-lagunak, konbertsioa ere eraikuntza-aukera handia izan zen askorentzat. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta hutsalkeriak (3)

hutsalketa iz hutsaltzea.

Sekula ere ez da onartu, merkataritza esparruan, bidezko salneurriaren erdia baino goragoko kaltea dela eta, kontratuaren **hutsalketa** akzioa, merkatugaien higigarritasunak, arriskuak, ustekabeak eta ezinbestekoak akzio hori eragozten baitute. Andres Urrutia

Hutsalketa akzioa gai zibiletan ere ezabatzeko. Andres Urrutia

hutsalki adlag era hutsalean, alferki.

Gizabanako edo gizarte bizia ez dago horregatik bi horien artean **hutsalki** aukeratzera behartuta. Iñaki Mendiguren

Hutsalki errepikakor diren zibilizazioen krisalida. Iñaki Mendiguren

Bekatua oker taxutzearan edo **hutsalki** mintzatzean. Patxi Altuna

hutsaltasun iz hutsala denaren nolakotasuna.

Hil osteko ospearen **hutsaltasunaren** gainetik. Ibon Uribarri

Beren ezagutza-gabezia eta beren antze osoaren **hutsaltasuna**. Ibon Uribarri

Bere gaitasun eza, bere **hutsaltasuna** . Markos Zapiain
Barne kontzientziaren jostorratz moduko bat dela esango nuke, aldian behin zizta eginda gauzen **hutsaltasunaz** ohartarazten nauena. Xabier Mendiguren Elizegi
Sistema hezitzailearen teknikakio gehiegizkoak existentziaren kultur gabetzea eta **hutsaltasuna** dakartza. Anjel Lertxundi
Horiek horrela, harritzekoa da bai ikustea nolako **hutsaltasunez** defendatzen diren horrelako eragina izango luketen ekimenak. Iñaki Heras
Orduan hizkuntz teoria erabateko birbilkeriaren **hutsaltasunean** eror daiteke. Itziar Laka

2 (izenondoekin)

Nekazari-inguruetako bizimodua bere **hutsaltasun** ergel osoan. Oskar Arana
Horrela, gozamenak, eskubide mailara iraganik, bere **hutsaltasun** oldarkorra galtzen zuen. Monika Etxebarria
Hutsaltasun internazionalera kondentatutako Estatu-nazio europarrek. Joseba Zulaika

3 (hitz elkartuetan)

Azalean halako **hutsaltasun** sentipen ezkor bat baino ez nuen sumatzen. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere **hutsaltasuna** (3)

hutsarazi, hutsaraz, hutsarazten (*orobat hustuarazi*) du *ad* hustera behartu.

Ez zizkidaten oinetakoak kenarazi, sakelak **hutsarazi** besterik ez. Koldo Izagirre
Orduan, biziaren goiari eusteko, helburuak behar ditu batek, eta haiek **hustuaraziko** diote ohea goizero. Iñaki Segurola
Epaileak ez zuen aretoa **hustuarazi** Carmenek esaten zuena gezurra zela frogatu nahi zuelako. Koldo Izagirre
Frantziako Armadak **hutsarazi** herrietatik ekarrikoak oihalezko dendetan bizi dira. Xabier Montoia
Berriz ere piztu zen burrundara gelan, eta epaileak builaka aretoa **hutsaraziko** zuela hirugarrenez mehatxatu arte, ez zen han isiltasunik lortu ahal izan. Hasier Etxebarria
Kolpera baturiko haize bortitzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, zirimolaka biratzen eta hodeiaren erdigunea **hutsarazten** eta ingurua are eta areago trinkoazten duenean. Xabier Amuriza

hutsarte (*ETCn 893 agerraldi*) 1 iz tarte, bitarte hutsa. ik **hutsune**. (espazioan)

Milizianoak aulkitxo banatan eserarazi gintuen, eta bera atearen **hutsartean** kokatu zen bere aulkian, irteera oztopatuz bezala. Juan Garzia
Arrantza egiten dugularik, sarearen **hutsarteak** nolakoak, eta halako tamainako piezak harrapa ditzakegu. Juan Garzia
Lantokian atzealdeko eskailerapeko **hutsartean** egindako larru-jotze arinak. Oskar Arana
Alde batetik, hamar metroko zabaleraz tenplua inguratzen zuen **hutsartera** jotzen zuen, eta, beste aldetik, kanpoko atariko harrizko espaloira. Elizen arteko biblia
Bi marratxo paralelo berdin-berdin, **hutsarte** mehe batez bereiziak. Jon Muñoz
Xaboi-ontziaren atzean, sei edo zazpi oholtxo, batetik besterako **hutsarte** meharretan bizar-labanak sartzeko jarriak. Jose Morales
Egia esan, ez dago **hutsarterik** giza hezuraren barruan. Irene Aldasoro
Guk harroa baino maiteago baikenuen eta dugu **hutsartea**, eta **hutsartearen** arintasunean eta babesean igeri biziitzea. Iñaki Segurola
Edertasunak **hutsarte** moduko bat sortzen du maiz ingurumarian. Joxean Agirre
· [Lastertasun handiko kalkulagailua] **hutsartean** barrenako hodi elektronikoen bitartez zuzendu ohi delako burmuin elektronikoa ere deitzen dena. Joxe Austin Arrieta

2 (denboran)

Nik hiru itsasargi ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte **hutsarte** labor; [...] Miarritzekoa, bi izpi segidan, eta hutsune luzakorra ondoren. Txillardegia
Une horretan, guztiz emana egoten da gibela beste eginkizun batzuetara, baina **hutsarteetan** ekoizten da behazuna, eta behazun-maskurien gordetzen, kontzentraturik, gero, behar denean, handik jariatzeko. Irene Aldasoro
Elkarren segidako argazkien arteko denborazko **hutsarteak** denbora diegetiko koherente batean du erreferentzia. Josu Zabaleta
Azken hogeit urtealdiaren **hutsarte** historikoa. Juan Garzia
Irudirik ez dagoenez, irradian hitz- **hutsarteak** galgarri dira oso, eta plazan edo telebistan baino abiada askoz ere handiagoan botatzen omen dituzte dezimak. Andoni Egaña
Reyes Karrere entrenatzaileak **hutsartea** eskatu zuen orduan, eta azken ordu laurden ikusgarrian, Akabak markagailua irauli zuen, atsedendira aldeko emaitzarekin iristeko: 17-13. Berría - Kirola

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hura bai gertaera, neguko usaimen- **hutsarte** luzearen ondorengo lehenengo usaina! Jon Muñoz
Batzuetan, memoria- **hutsarte** bat edo amets bat eragiten du estimulazio elektrikoak. Irene Aldasoro

4 materiari gabeko gunea. ik **huts**³ 3.

[Lastertasun handiko kalkulagailua] **hutsartean** barrenako hodi elektronikoen bitartez zuzendu ohi delako burmuin elektronikoa ere deitzen dena. Joxe Austin Arrieta
Izadian, ordea, **hutsarterik** ez denaz geroz (horretaz bestalde aritu gara) eta hutsik ez dadin izan alde guztiek elkarri loturik egon behar baldin badute, [...]. Piarres Xarriton
Izozmendi bitxia da Itsasondokoa, ezkutuan materia ez baina zulo erraldoia daukana, Chillidaren Tindaya edo Oteizaren asmazio horietako baten antzera azpiak jandakoa, **hutsartearen** gainean dabilena. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ekisoainek **hutsartea** eskatu (3); eta **hutsartearen** (3); **hutsarte** bat (9); **hutsarte handi** (3); **hutsarte hori** (3); **hutsartea betetzeko** (3); **hutsartea eskatu** (12); **hutsartea eskatu zuen** (8); **utzitako hutsartea** (3); **utzitako hutsartea betetzeko** (3)

hutsartetsu *izond* hutsarte asko duena.

Zirkunstanzien arabera, begiramen handiago edo txikiagoz men egiten diete zenbait lege jakini: hain xuxen, zirkunstantzia horiek eta begiramen hain **hutsartetsu** hori argitzeko balio zuten aparatu haiek. Juan Garzia

hutsdun *iz* hutsak dituena.

Ezta ere Kantena zergatik gizakia arrazoimen **hutsduna** den. Jenaro Garate

hutsegile *izond/iz* huts egin duena.

"Jeneral," esan zuen brigada **hutsegileko** buruak. Xabier Olarra

Huts egin arren, neu naiz **hutsegilea** eta, beraz, existitzen zaitzen zaila jakitea ez dut hutsik egiten. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Nire hutsegiteen **hutsegilea** haizen hori, ba ote duk hutsegiteok zigortzeko eskubiderik? [Jon Muñoz](#)

Horrelako burugabekeria itxuragabeak hainbeste amorrarazi zuen apezpikua, non **hutsegilea** jendaurrean anatematizatu baitzuten. [Xabier Olarra](#)

hutsegín ik huts¹ 4; huts¹ 5; huts¹ 6; huts¹ 7; huts¹ 8

hutsegite (ETCn 5.925 *agerraldi*; orobat *huts(-)egite g.er.*) **1** iz lege, arau edo eginbide bat ez betetzea; ez betetze horren ondorioa. ik **huts¹ 1**.

Beraz, modu honetan, eta kasu guztietan, familia osoa zigortzen da gizon bakar baten **hutsegiteagatik**. Bere **hutsegiteak** edo arinkeriak zuzendu beharra. [Juan Martín Elexpuru](#)

Ez zituzten aitortu nahi beren **hutsegiteak**. [Joan Mari Lekuona](#)

2005ean 75.000 delitu eta **hutsegite** baino gehiago izan ziren EAEn. [Berria - Euskal Herria](#)

Delitua larriagotu dezaketen **hutsegiteak** daude. [Berria - Euskal Herria](#)

Zuzentzaileari egotzi zaizkion **hutsegiteak** ez direla bereak. [Jon Alonso](#)

Betiereco espetxea izango da birritan **hutsegite** berean erortzen denaren zigorra. [Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio](#)

Hutsegite batean harrapatu banindu bezala sentitu nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

Hasieran, platera prestatzen zion langileari egotzi zion **hutsegitea**. [Patxi Zubizarreta](#)

Horrela pentsatzen duena oker dago, eta **hutsegite** hori argitzeko bi arrazoi eman ditzakegu. [Askoren artean](#)

Haren esanetan, **hutsegitea** litzateke Espainiako Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegi espeteratzea. [Berria - Harian](#)

Hutsegite bat izan zen dena -azaldu zigun-. [Bernardo Atxaga](#)

Hutsegite bat izan zuen, edonork bezala, uzta bilketako gau batez. [Josu Zabaleta](#)

Orain galdera da: zenbat **hutsegite** dago 34 hitzotan? [Iñigo Aranbarri](#)

Gauza baldin bazen hain matematikari handiaren lanean **hutsegite** bat zegoela frogatzeko [...]. [Jon Muñoz](#)

Ea inferentzien aurrerabidean **hutsegiteak** aurkitzen diren. [Ibon Uribarri](#)

Iritzien azterketa jakitearena baino gehiago, **hutsegiteena** egiarena baino. [Xabier Arregi](#)

Orduan aski da ustekabeko gertaera bat, zentzumenen **hutsegite** bat, arrazoimena zalantzatan sar dadin. [Josu Zabaleta](#)

Zertarako balio dit niri orain arteko 1.000 hegaldietatik 999 batere **hutsegiterik** gabe burutu izanak? [Joxe Austin Arrieta](#)

Orain artekoak nahi gabeko **hutsegiteak** izan dira. [Iñaki Arranz](#)

Bihotzeko bi **hutsegite** jasan izan zituen iragan hiru urteetan, odol presioa handia zuen eta arteriak huts egitekotan zeuzkan. [Oskar Arana](#)

Nire bizian hi ez haiz gaztetako **hutsegite** bat besterik izan. [Eskarne Mujika](#)

Voldemort itzultzen bada, neure **hutsegitez** izango da! [Iñaki Mendiguren](#)

Nor bere **hutsegiteez** berandu ohartu ohi da. [Iñaki Iñurrieta](#)

2 (izenondoekin)

Hura **hutsegite** handia izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Astunak berehala baztertzen dira, baina ez gara arduratzen **hutsegite** txikien aurka. [Joan Mari Lekuona](#)

Hutsegite galanta! [Jon Muñoz](#)

Horra Kristinaren leloa, semearekiko nire **huts**-egite ugarien errubrika. [Aingeru Epaltza](#)

Emazteki bat, **huts** egite mediko baten erruz zendua. [Aingeru Epaltza](#)

Argi esana diote: "**huts** egite bakar bat eta ederto damutuko zaik". [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Jimmy-ren iraganeko **huts** egiteen berri. [Oskar Arana](#)

Munta txikiagoko edozein **hutsegite** ustekabeen harrapatuko zuelako esperantzan. [Jon Alonso](#)

3 (egin aditzarekin)

Eta **hutsegite** larriak ere egin ziren. [Luis Elberdin](#)

Euler-ek mende bat lehenago eginiko **hutsegite** bera egin zuten biek. [Jon Muñoz](#)

Jainkoak **hutsegiterik** egingo balu bere egian, edo bere hitzekin iruzurtuko bagintu, ez litzateke Jainkoa izango; bere hitza Egia da. [Joan Mari Lekuona](#)

Baina ez al da astakeria hutsa inolako arrastorik utzi ez duen **hutsegiteren** bat egin duen gaztea guraso hiltzailea bezala kondenatzea? [Juan Martín Elexpuru](#)

Beste **hutsegite** batzuk egin ditzakegu, baina ea ez ditugun aurrekoak errepikatzen. [Berria - Kirola](#)

Nabarmena denean ez duela gaiztakeriatik egin bere **hutsegitea**. [Juan Martín Elexpuru](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

DIU tradizionaletan, % 4-5eko **hutsegite** tasa [...] zegoen. [Luis Elberdin](#)

Hutsegite eta bidegabekeria iturri oparora dira legegileek sortzen dituzten komenigarritasunari buruzko ideia okerrak. [Juan Martín Elexpuru](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sindikatuak ez zutela lan **hutsegiteen** araberako ordainketarik negoziatu nahi izan. [Berria - Ekonomia](#)

Sumin beldurgarriak hartzen zuen menea Albertok etxera nota txarrak eramaten zituenean edo diziplina-**hutsegiteak** zirela-eta eskolatik botatzen zutenean. [Fernando Rey](#)

Arau-**hutsegite** horiek kezkatu ninduten; estetikari dihoazkion bertze batzuek egiaren bidean jarri ninduten. [Juan Garzia](#)

Mapa atera nuen eta orduantxe konturatu ginen bide-**hutsegiteaz**. [Iban Zaldúa](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaien hutsegite (3); **anaien hutsegite eta** (3); **baina hutsegite** (14); **baina hutsegite hori** (13); **beren hutsegite** (3); **beste hutsegite** (4); **delitu eta hutsegite** (3); **duen hutsegite** (4); **eta hutsegite** (20); **hutsegite arin** (3); **hutsegite bat** (32); **hutsegite bat izan** (12); **hutsegite batean** (4); **hutsegite bategatik** (3); **hutsegite batek** (5); **hutsegite bera** (3); **hutsegite eta** (15); **hutsegite guztiak** (9); **hutsegite guztien** (3); **hutsegite handia** (9); **hutsegite hori** (24); **hutsegite hori ez** (13); **hutsegite horiek** (9); **hutsegite horren** (5); **hutsegite kasu** (4); **hutsegite larri** (3); **hutsegite larria** (8); **hutsegite larria egin** (3); **hutsegite larriak** (4); **hutsegite larritzat** (4); **hutsegite larritzat jotzen** (3); **hutsegite mordo** (3); **hutsegite txiki** (3); **nire hutsegite** (3); **oso hutsegite** (3); **zenbat hutsegite** (3); **zentzumenen hutsegite** (3); **zuen hutsegite** (3)

bere hutsegitea (7); **bigarren hutsegitea** (3); **espetxe politikaren hutsegitea** (3); **ez hutsegitea** (3); **hori hutsegitea** (3); **hutsegitea da** (4); **hutsegitea edo** (4); **hutsegitea egin** (3); **hutsegitea egin dugu** (3); **hutsegitea izan** (17); **hutsegitea izan zela** (5); **hutsegitea izango** (3); **hutsegitea litzateke** (5); **nire hutsegitea** (3); **politikaren hutsegitea** (3); **sekulako hutsegitea** (4); **sekulako hutsegitea egin** (3)

bere hutsegiteak (5); **bere hutsegiteaz** (5); **beren hutsegiteak** (5); **ere hutsegiteak** (3); **eta hutsegiteak** (9); **hutsegiteak aurkitzen** (3); **hutsegiteak eta** (7); **hutsegiteak ez** (3); **hutsegiteak izan** (3); **hutsegiteen eta** (3); **hutsegiteen zain** (4); **neure hutsegiteak** (3); **nire hutsegiteak** (8); **taldeen hutsegiteen** (3); **zuen hutsegiteak** (3)

dezaketela hutsegiterik (13); **egin dezaketela hutsegiterik** (13); **hutsegiteren bat** (10); **hutsegiteren bat egin** (4); **hutsegiterik egin** (3); **hutsegiterik gabe** (3); **hutsegiterik txiki** (3)

hutsaratu

 (eraburua) eta hutsaratu **1** da *du* hutsara bihurtu, hutsara etorri.

Gauzak hutsetik ezin direla sortu eta, sortutakoan, ezin direla berriro **hutsaratu** erakutsi dizudala-eta [...]. **Xabier Amuriza**

2 (era burutua izenondo gisa)

Hutsa, **hutsaratu** eta hutsala. **Fernando Morillo**

hutsetsi

, hutsesten (*orobat huts-etsi*) du *ad.* hutsaren parekotzat hartu.

Hain nago burubidean sendo, ezen mundu biak ere baitituz **hutsesten**, datorrela datorrena; soil-solik dut behar aitarengatik bete-beteko mendeku hartu. **Juan Garzia**

Larunbat eguerdi-arte bat zen, azkenean, nire gurasoenean gosari aski xehebrea egin ondoren -haiek elizako ezki-la-jotzea **hutsesten!**, Herriko Etxera abiatu ginenean, ezkontza-legea betetzera. **Joxe Austin Arrieta**

Halaxe dituzue zuek **huts**-esten senarrak. **Juan Garzia**

hutsezin

izond ezin huts egin dezakeena, ezin huts eginezkoa.

Erlijio baten faltsutasunaren froga **hutsezina** zen hau. **Juan Martin Elexpuru**

Zera dio dogma **hutsezin** batek: [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Metodo **hutsezina**. **Iban Zaldúa**

Fedearen egia **hutsezinek** akuilaturik. **Jon Alonso**

Zeruan lekuko **hutsezin** bezala ezarriarik betiko dirauen ilargiak. **Elizen arteko biblia**

Esan izan da intuizio **hutsezin**ak direla, baina oso zaila litzateke gizakiaren prozesu kognitibo batean errorerik ez agertzea. **Askoren artean**

Arbuizatzeko-mekanismo hori ez da **hutsezina** (bestela, ez genuke eritasun infekziosorik izango). **Irene Aldasoro**

Eta hau aitortu behar dute arrazoi argia beti **hutsezina** dela dakitenek eta lehen-lehenik hutsa badela ukatzen dutenak. **Piarres Xarriton**

hutsezintasun

iz hutsezina denaren nolakotasuna.

Kalte egiten zaiola gizonak gauza guztietan duen ustezko **hutsezintasunari**. **Juan Martin Elexpuru**

Aita Sainduaren **hutsezintasunaren** eta Jesus Hauraren Ama Maria Birjinaren dogmak. **Itxaro Borda**

hutsgabe

1 izond hutsik ez duena.

Umore txarraren kontrako konponbide **huts** gabea zen. **Fernando Rey**

2 hutsgabeko izlag

Horren legeak ezin **hutsgabekoak** izan, noraino eta jasanezinak suertatzeraino hartzaile dituzten gizakientzat. **Andres Urrutia**

hutsune

 (*1 iz* materiari gabe gunea. ik **hutsarte**; **huts**¹ **5**).

Aristotelesek ez du **hutsunea** onartzen, horren existentziak, espazio hutsaren ideiak, zentzurik ez daukalako harentzat. **Askoren artean**

Lekua espazioa da, baina sekula ez **hutsunea**. **Askoren artean**

Materiaren bihotza **hutsune** bat omen da, non energiak betetako izpiak etengabe mugitzen diren batera eta bestera. **Pako Aristi**

Atomo zenbatusunean infinituz osaturik dago bera [natura], infinituki handia da, bere materia kopuruz infinitua eta **hutsunea** ere infinitua da. **Xabier Amuriza**

Esperientzian ezin da **hutsunea** (vacuum) aurkezten duen edo **hutsunea** sintesi enpirikoaren zati gisa baimentzen duen ezer onartu. **Ibon Uribarri**

- Hegalak ere distiratsu, **hutsunean** finko, zabulkaldirik gabe dagoeneko, oskarbian geldi. **Joxe Austin Arrieta**

2 bitarte hutsa (espazioan)

Liburuak utzitako **hutsunean**. Loak hartu zuenean, saiheztu-hezur bat kendu zion, hezurra **hutsunea** haragiz bete ziolarik. **Elizen arteko biblia**

Kalekka estuek amaieran dituzten **hutsuneen** artetik. **Pako Aristi**

Zulo horrek, **hutsune** zirkular horrek sekulako indarra ematen dio eskulturari. **Patxi Zubizarreta**

Oteizak, berri, [...] cromlecheko **hutsunean** aurkitu eta eraiki zuen sosegua. **Anjel Lertxundi**

Herskariak **hutsune** baten bidez azaltzen dira espektrogrametan. **Lourdes Oñederra**

3 irud ik beherago 5.

Ming-en kolapsoak sortutako **hutsune** politikoan. **Iñaki Mendiguren**

Hutsunez betetako kontakizun bat osatzen du bertsolariak. **Pako Aristi**

Izaki batzuk hil eta beste batzuk haien **hutsuneak** betetzeko jaitzen direnean. **Imanol Unzuurrungaga**

Negarra soilik zitzaidan atsegin, lagunak utzitako **hutsunea** nolabait betetzen baitzuen. **Imanol Unzuurrungaga**

Orain, alderdi berriarekin laboristen eta nazionalisten arteko «**hutsunea**» bete eta ezkerreko ildoak jorratu nahi dute. **Berria - Mundua**

Gaur aurkeztuko dituzte Eguzkitzaren **hutsunea** betetzeko hautagaiak. **Berria - Kultura**

4 (denboran)

Bazkalorduko **hutsuneak**. **Pako Aristi**

Nik hiru itsasargi ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte labur; [...] Mirriartekoa, bi izpi segidan, eta **hutsune** luzakorra ondoren. **Txillardegia**

Hutsune luzea zegok hor, baina ez diagu Martuteneko kartzelaldiaren inguruan ezer sartu. **Rafa Egiguren**

Nik bizitari buruz ditudan sentimenekin osa ditzaket bere memoriaren **hutsuneak**. **Pako Aristi**

5 gabezia.

Mundu helenikoa atsekabez jabetu zen erlijiozko **hutsunea** ari zela pairatzen. **Iñaki Mendiguren**

Haren hezibideak dauzkan **hutsune** izugarriak salatzen ditu. **Anjel Lertxundi**

Plazer txiki zilegi haren **hutsunea** sentitzen zuen orain. **Karlos Zabala**

Haren **hutsunea** sumatzen dut dagoeneko. **Mirentxu Larrañaga**

Haren **hutsunea** ezin dutela bete ez lagunek, ez iraultzaren aldeko borroka, eta ezta hik ere, Asier. **Pako Aristi**

Funtsean, maitasuna besterik ez baita: freskura bat nekearen ondoren, betetasun kiskalgarri bat bizitzaren **hutsune** hotzaren erdian. **Pako Aristi**

Hutsunez betetako kontakizun bat osatzen du bertsolariak. **Pako Aristi**

Windowsen segurtasun sistemak **hutsuneak** zituela onartu zuen enpresa informatikoak. **Berria - Gaiak**

Horregatik, gabezia moduan sentituriko **hutsune** horrekin ez larritzeko, bete egin nahi izaten ditugu denboraren tarteak, bidea zuzena izango bada amildegietan egiten diren betelaren gisa. **Anjel Lertxundi**

huxtuka *adlag ipar* txistuka.

Polizien J7ak **huxtuka** eta huxtuan zebiltzala larderiatsu, kefiez apaindu langile isil apurren ertzetik pasatuz. [Itxaro Borda](#)

Atelierrera zetorreanean, Jean Marie sindikalista **huxtuka** errezibitzen zuten: ez zuen hitzik ahoskatzen ahal. [Itxaro Borda](#)

Kontatu zidanez, bat-batean, ordaintokira **huxtuka** zihoala, Pattin eta Remi, euskal hiru koloreetan dekoratu erakuts mahaiaren gibelean, beren etxeko ardien ekoizpenak promozionatzen begimendu zituen. [Itxaro Borda](#)

huxtukatu, huxtuka(tu), huxtukatzen du *ad* txistukatu.

"Hauxe Pixtoleta!" **huxtukatu** nuen. [Itxaro Borda](#)

007 agentea **huxtukatuko** dugu bizkitartean. [Itxaro Borda](#)

Gauetan noiztenka, nahitara alarma batek **huxtukatzen** zuen eta beren oihal etxoletarik kaltzoinenez ateratzen ziren, ziztuan. [Itxaro Borda](#)
